

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**EUSKAL ONDARE KULTURALAREN MOLDATZEA
(1960-1990), EGUNGO KULTUR SISTEMAREN OINARRI**

Baliabide eta forma sinbolikoak

Doktoregiaia: Ana Gandara Sorarrain

Zuzendaria: Iñaki Aldekoa Beitia
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2015

Eskerrik asko Mikel Laboa Katedrari, hondarreko bederatzi hilabeteetan aitzina egin ahal izateko laguntza emateagatik, Juan Kruz Igerabide eta Gidor Bilbaori, nagusiki; Iñaki Aldekoa zuzendariari, eskaini didan gidaritzagatik; lagunei, izaniko pazientziagatik.

Baina, bereziki, mila esker amari.

AURKIBIDEA

Laburduren aurkibidea.....	14
Taulen aurkibidea.....	15
Sarrera.....	16

I. KAPITULUA: OINARRI TEORIKOAK

1. Paradigma aldaketa.....	26
1.1. Nazioak eta komunitate kulturalak: oinarri nagusiak.....	27
1.1.1. Identitatea.....	27
1.1.2. Nazioa.....	30
1.1.2.a. XIX. mendea: irrika berria.....	31
1.1.2.b. XX. mendea: “nazio asmatu” kontzeptua.....	32
1.1.2.c. Hondarreko hamarkadak: estatudun vs estatu gabeko nazioak.....	33
1.1.3. Nazionalismoa.....	34
1.1.3.a. Nazionalismoa: adiera ideologikoa vs oinarrizkoa.....	35
1.1.3.b. Dikotomia nagusia.....	37
1.2. Kultura eta sinboloak.....	41
1.2.1. Kulturara hurbiltzeko moduak.....	42
1.2.1.a. Ulertze klasikoa.....	42
1.2.1.b. Ulertze antropologikoak.....	43
1.2.2. Sinboloak aztertze hainbat ikuspegi.....	50
1.2.2.a. Cassireren ekarpena.....	51
1.2.2.b. Bourdieuren ekarpena.....	54
1.2.2.c. John B. Thompsonen ekarpena.....	58
1.2.3. Sinboloak aztertze ikuspegi bateratzailea: John B. Thompson.....	59
1.2.3.a. Forma sinbolikoen eraikuntzan parte hartzen duten alderdi nagusiak..	62
1.2.3.b. Forma sinbolikoen testuinguratze soziala.....	65
b.1. Oinarriak.....	65
b.2. Testuinguru sozialen eta forma sinblikoen arteko elkarreragina.....	69
1.3. Etno-sinbolismoa.....	76

1.3.1. Oinarriak.....	78
• Etno-sinbolismoaren oinarri nagusiak.....	78
• Teoria modernista vs etno-sinbolismoa.....	81
1.3.2. Etno-sinbolismoaren muga nagusiak.....	85
1.3.2.a. Adituen erranak.....	85
1.3.2.b. Baliabide sinbolikoen izaera unibertsala.....	89
1.4. Gure hurbiltzearen oinarriak: harilkatzea.....	92
1.4.1. Tresna teorikoak: adituen ekarria.....	93
1.4.2. Tresna teorikoak: egokitzeak.....	95
1. egokitze teorikoa. Forma sinboliko vs baliabide sinboliko.....	97
2. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: ezaugarrien egokitzea.....	101
3. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: balioztatzeen egokitzea.....	104
4. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: balioztatzeak baldintzatzen dituzten ezaugarrien egokitzea.....	107

II. KAPITULUA: EUSKAL KULTUR SISTEMA GARAIKIDEA: OINARRITZEA (1960-1975)

2. Testuingurua (1960-1975).....	114
2.1. Testuinguru soziopolitikoa: Krisi Orokorra.....	114
2.1.1. Inguratze orokorra: estatua eta komunitate barneratuak.....	115
2.1.1.a. Aitzineko eragileak eta gibelesko urteak: jarraitutasuna, argigarri.....	116
2.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: krisien iturburua..	119
• Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana.....	120
• Desorekaren eragin zehatza.....	123
2.1.2. Krisi Orokorra.....	125
2.2. Identitate nazionala: duintasunaren bila.....	132
2.2.1. Nazio berpiztearen lehen fasea: komunitate beharrak eta ekintzak.....	133
2.2.1.a. Oinarrizko beharrak.....	133
a.1. Partaidetza sentimenaren garapena.....	134
a.2. Lehen behar maila asebetetzeko pausoak.....	135
2.2.1.b. Aurkaritza moduak.....	141
2.2.2. Duintasuna, gune.....	146

3. Euskal ondare kulturalaren moldatze oinarritzkoa (1960-1975)	161
3.1. Kultur ondarearen birmoldatze funtzionala.....	162
3.1.1. Forma eta baliabide sinbolikoak aztertzeko bidea.....	163
3.1.2. Berrirakurtze ekimen kateatua.....	167
3.1.3. Iraganeko ondare kulturalaren berreskuratzea: AOKren funtzioak.....	170
• Ahozko Ondare Kulturala.....	170
• Hautatzearen arrazoiak.....	174
3.1.3.a. Ondare kulturalaren funtzionalitateak.....	176
• Funtzionalitate nagusiak.....	177
3.1.3.b. Euskal ondare kulturalaren funtzionalitate berriztatuak.....	181
b.1. Iraganeko fosilak: funtzionalitate sinbolikoa.....	181
b.2. Bat-bateko bertsolaritza: funtzionalitate praktiko-sozialerantz.....	183
b.3. Militantziaren eta kultur garapenaren arteko kinka.....	185
3.1.3.c. Euskal ondare kulturalaren balioztatzeak.....	192
c.1. Euskal ondare kulturalaren balioztatze nagusia: Balioztatze Prozesu Nagusia.....	192
c.2. AOKren balioztatzea.....	197
c.3. Baliabide sinbolikoen baldintzatzaileak (egokitze teorikoa).....	200
• Egokitze teorikoaren ikerguneak.....	200
• Egokitze teorikoaren oinarriak.....	203
3.1.4. Kulturgileen eragin egituratzailea, kultur berreskuratze prozesu funtzionalean.....	210
3.1.4.a. <i>Continuuma: Quosque tandem</i> etik Ez Dok Amairura.....	210
• <i>Quosque tandem</i> (1963).....	211
• Ez Dok Amairu (1966-1972).....	215
3.1.4.b. <i>Continuuma</i> : kulturgileen rol desberdinak.....	218
b.1. Nazionalismo faseekin alderatzea.....	220
b.2. Oreka komunikatiboa, kulturgileen rolaren oinarri.....	224
3.2. Ondorioak: ondarearen moldatzea, nazio garapenaren eskutik.....	228
4. Forma eta baliabide sinbolikoak: ondarearen moldatzea	236
4.1. Euskal ondare kulturalaren eta literaturaren arteko harremana.....	237
4.1.1. Literatur eremua, moldatze zabalean.....	238

4.1.1.a. Oinarri teorikoen aplikazioa.....	238
4.1.1.b. Ereku berezitua aztertzen: izaera bereziturik gabeko eremua.....	242
4.1.2. Literatur eremuaren funtzionalitatea, kultur moldaketaren baitan.....	247
4.1.2.a. Birformulatze nagusiaren isla, literaturan.....	248
a.1. AOKren zama.....	249
a.1.1. AOKren bereganatzea: bi sail.....	249
a.1.2. AOKren birjabetza: bi bereganatze.....	251
a.2. Irudien sinbolizatzea.....	254
a.2.1. Forma sinbolikoen interpretazio zehatzak.....	254
a.2.2. Forma sinbolikoen ezaugarri partekatuak.....	257
4.1.2.b. Eragin sinbolikoaren garrantzia (zuzeneko eta zeharkako eraginak).....	260
b.1. Zuzeneko eta zeharkako eraginak.....	260
b.2. Ezintasun komunitario arituak.....	263
4.1.3. Literatur eremua, oinarritze bidean: zutarrien eta komunitatearen arteko egokitzea, auzian.....	268
4.1.3.a. Literatur eremu finkatu gabea, eraikitze bidean.....	269
a.1. Abiapuntua: euskal literatura, egitura finkatzailerik gabeko eremu.....	270
a.2. Prozesuaren segida: jarraitutasun sinbolikoa.....	274
4.1.3.b. Euskal literatura, nazio garapenari nahiz behar kolektiboari atxikia..	280
b.1. Aldizkariak (1960-1975).....	281
b.1.1. <i>Anaitasuna</i>	282
• Deskribapen nagusia.....	282
• Garapen nagusia.....	284
b.1.2. <i>Zeruko Argia</i>	295
• Deskribapen nagusia.....	295
• Garapen nagusia.....	299
b.2. Euskal Literatur Eremua.....	307
b.2.1. Alde nagusien islatzea.....	308
b.2.2. Ezegonkortasunaren erakusgarriak.....	312
4.1.3.c. Literatur eremuaren oinarriak, nazio garapenari lotuak: helburuak, elkarreragin eremuetako kokapena eta erakundeak.....	322

4.2. Kultur moldaketa, komunitate garapenaren eskutik: M. Laboa, baliabide sinbolikoen birmoldaketan, aitzindari.....	333
4.2.1. AOK birgaituaren ulermenerako arrastoak.....	334
4.2.1.a. Abiapuntu teorikoak eta testuingurua.....	334
a.1. Abiapuntu teorikoak: historia kulturala eta etno-sinbolismoa.....	335
a.2. Testuingurua: Laboa, gizon garaikide.....	338
• Testuinguru zabala ardaztuaz.....	338
• Berrirakurtze ekimen kateatua.....	340
4.2.1.b. Corpus nagusia: AOK.....	343
b.1. Kantak.....	344
b.2. Bertsolaritzaren balizko zama.....	348
4.2.2. AOKren berreskuratze birgaitua.....	353
4.2.2.a. Iragana eta oraina, dimentsio berean uztartuak: abangoardia.....	353
a.1. AOK, baliabide sinboliko.....	353
a.2. Funtzionalitate berriztatua.....	359
4.2.2.b. Hartzaileak, ikusmiran: abangoardia, haratago.....	365
• Behar maila nagusiak.....	366
• Oreka komunikatiboaren erabilera, eguneratua.....	368

III. KAPITULUA: EUSKAL KULTUR SISTEMA GARAIKIDEA: FINKATZEA (1975-1990)

5. Testuingurua (1975-1990).....	378
5.1. Testuinguru soziopolitikoak: nazio eraikuntza ofiziala (EAE)	379
5.1.1. Inguratze orokorra: estatua eta autonomia-erkidegoak.....	379
5.1.1.a. Legeen bidezko oinarriak.....	379
a.1. Espainiako Konstituzioa (1978).....	380
a.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (1979) eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legea (1982).....	384
a.3. Euskararen Legea (1982) eta Euskarari Buruzko Foru Legea (1986).....	388
5.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: legeen aitzin eta gibeletik zer?.....	394
5.1.2. Krisi Orokor Ñabartua.....	400

5.2. Identitate nazionala: eraikuntzaren jarraipena.....	407
5.2.1. Nazio berpiztearen bigarren fasea: erakundetzea eta kontrol egiturak.....	407
5.2.1.a. Erakundetzea.....	408
5.2.1.b. Estatu eta autonomia mailak egokitzea: independentziaz bertzelako kontrol egiturak (estaturik gabeko nazioetako ordezkariak).....	410
5.2.2. Jatorri anitzeko erakundetzea, gune.....	415
6. Euskal ondare kulturalaren moldatze instituzionala (1975-1990).....	425
6.1. Kultur ondarearen birmoldatze funtzionala.....	426
6.1.1. Ondare krisiak aztertzeko bidea.....	427
• <i>Continuuma</i>	428
• Autokontzepzio kolektiboa.....	428
• Testuinguru soziohistorikoa.....	429
6.1.2. <i>Continuumaren</i> presentzia.....	431
6.1.3. Autokontzepzio kolektiboaren funtzio nagusiak, nazio garapenean.....	436
6.1.3.a. Eragile nagusiak.....	437
6.1.3.b. Eragin mota nagusiak.....	439
• Eragin aitzinatzailea: garatze bidea.....	440
• Eragin gibelatzailea: tratatze bidea.....	441
6.1.4. Testuinguruaren eragin sistematizatzailea, kultura berreskuratu berriaren birmoldatze funtzionalean.....	444
6.1.4.a. EKSren antolaketa: gune eragileetako ahalmenaren banaketa.....	444
a.1. Gune eragileak.....	445
• Definizioa.....	445
• “Ahalmen-gune”ekiko alderatzea.....	449
a.2. Herritiko ahalmenaren osatzea: aparatu instituzionala.....	451
6.1.4.b. EKSren egituraketa: euskal kultur mailek jasaniko prozesuak.....	455
b.1. Kultur maila zabala eta maila zehatza: testuinguruan bat etorririko balioztatzeak.....	456
b.1.1. Ondare izanaren, balioztatze prozesuen eta testuinguruaren arteko elkarreragina.....	456
b.1.2. Euskararen kasua.....	460
b.2. EKEren egituratze sistemikoa: EKSren abiapuntua(k).....	465

b.2.1. Ikuspegi sistemikoaren kriterio nagusiak.....	466
b.2.2. EKS integratuaren abiatzea.....	470
6.2. Ondorioak: ondarearen moldatzea, nazio garapenaren eskutik, berriz ere.....	480
7. Forma eta baliabide sinbolikoak: ondarearen erakundetzea.....	485
7.1. Euskal ondare kultural moldatuaren eta literaturaren arteko harremana.....	486
7.1.1. Literatur eremua, erakundetze zabalean.....	487
7.1.1.a. Oinarri teorikoen aplikazioa.....	487
7.1.1.b. Eremu berezitua aztertzen: ELSren garapena.....	492
b.1. Krisi Orokor Ñabartua, euskal literaturan.....	492
b.1.1. Krisi Orokor Ñabartuaren eragin berezitua.....	494
b.1.2. Hiru gatazka nagusien isla.....	496
b.2. Espainia: Espainiako Literatur Sistemaren egoera.....	500
b.3. Hego Euskal Herria: abangoardiak ELS autonomo garaian?.....	503
7.1.1.c. Rol egituratze berria.....	506
c.1. Herriaren eta kulturgileen arteko distantzia.....	506
• Gune egituratzaileen azterketarako bidea.....	507
• Bi saio nagusietako kulturgileen rola zertan den.....	508
c.2. ELERen gune egituratzaileak: erakundetze bideak.....	511
• Kulturgileen rolak ELERen izaniko eragina (1960-1975).....	511
• Erakundetze proiektu paraleloa: proiektzio berezitua (1975-1990).....	514
7.1.2. Literatur eremuaren funtzionalitatea, erakundetze prozesuaren baitan.....	516
7.1.2.a. Birformulatze nagusiaren isla, literaturan.....	517
a.1. ELSren bulkadak: euskararen batasuna, konpromisoa eta erakundetzea.....	518
a.2. Bulkadaren eta eremu berezituko autonomiaren arteko kinka.....	521
a.3. Aitzinpausoak.....	524
7.1.2.b. Eragin finkatzailearen garrantzia.....	528
b.1. Eremuaren balioztatzeak (egokitze teorikoa).....	528
b.2. Literatur balioztatzeak, eremuaren funtzionalitatearen eskutik.....	531
b.2.1. Maila desberdinetako balioztatze nagusiak.....	532
b.2.2. Maila desberdinetako balioztatzeen eragileak.....	534
b.2.3. Balioztatzeen eta funtzionalitatearen arteko harremana.....	539

7.1.3. Literatur eremua, finkatze bidean: literatur tradizio berreskuratu berria, auzian.....	541
7.1.3.a. Tradiziora hurbilpena.....	542
a.1. Tradizioaren eta literatur tradizioaren arteko harremana.....	543
a.2. Begirada gibela bihurtzearen logikotasuna.....	544
7.1.3.b. Euskal literatur tradizioaren krisia.....	546
b.1. Euskal Literatur Tradizio Krisia.....	546
b.2. Literatur Tradizio Krisiaren eta Krisi Orokor Ñabartuaren arteko harremana.....	548
b.3. Literatur Tradizio Krisiaren eta lekuz kanpokotasunaren arteko harremana.....	550
b.4. Literatur tradizioa lantzeko ikuspegi teorikoak.....	553
7.1.3.c. Literatur eremuaren oinarriak, nazio garapenari lotuak: helburu kolektiboak, elkarreragin eremuko kokapena eta erakundeak.....	556
7.2. Kultur moldaketa, komunitate garapenaren eskutik: B. Atxaga, J. Sarrionandia eta J. Juaristiren literatur tradizio proposamenak.....	562
7.2.1. Literatur tradizio hautatuen ulermenerako arrastoak.....	563
7.2.1.a. Batera hasiriko bidaia: Lehen Aldia.....	564
a.1. Literatur tradizioaren hautatzea.....	564
a.2. Foku berari dagozkion helburu berdinak.....	566
7.2.1.b. Literatur Tradizio Krisiaren eta sorkuntzaren arteko harremana.....	570
b.1. Lehen Aldia: Pottekoen hautua, hautu garaikidea.....	570
b.2. Bigarren Aldia: Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren hautuak.....	572
7.2.2. Literatur tradizio hautatuak: Bigarren Aldia.....	575
• Corpusa.....	576
• Irganarekiko jarrerak: (literatur)tradizioaren hiru garapen teoriko-estetiko.....	577
7.2.2.a. (Literatur)Tradizioa, Atxagaren lanetan: sorkuntza.....	578
1. fasea: tradizio hautatu berriaren ukatzea.....	578
2. fasea: berrinterpretazioaren islapen poetikoa.....	582
Testuingurua: iraganera lehen hurbilpena.....	585
7.2.2.b. (Literatur)Tradizioa, Sarrionandiaren lanetan: proposamen murriztua.....	588

1. fasea: proposamen unibertsal osotzailea.....	588
2. fasea: unibertsaltasun murriztua.....	592
Mailakatzea: ardazte mugatzailea.....	595
7.2.2.c. (Literatur)Tradizioa, Juaristiren lanetan: dekonstruitzea.....	598
1. fasea: teoria modernistaren islapenak.....	599
2. fasea: dekonstrukzioa vs errotze sentimena.....	602
Teknika: ukazioa, tradizio hautua berresteko teknika.....	605

IV. KAPITULUA: HONDARREKOAK

8. Ondorioak	612
8.1. Ondorio teorikoak.....	612
8.2. Ondorio praktikoak.....	626
8.3. Hondarrekoak.....	645
 Bibliografia	650
1. Corpusak.....	650
2. Bibliografia orokorra.....	651
 Eranskinak	666
A Eranskina: oinarrizko terminologia.....	666
B Eranskina: adibideak.....	690

LABURDUREN AURKIBIDEA

Corpusa osatzen duten lanen laburdurak:

Aitor: El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca

Arte: Arte de marear

Diario: Diario del poeta recién cansado

E: Etiopia

IEP: Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak

IGB: Izuen gordelekuetan barrena

M: Marginalia

MZ: Marinel zaharrak

NENH: Ni ez naiz hemengoa

Ob.: Obabakoak

Pott 1: Pott bandaren berriemailea, 1978-martxo.

Pott 2: Pott bandaren blaga, 1978-ekaina.

Pott 3: Pott 3 (bandaren blaga), 1978-azaroa.

Pott 4: Pott bandaren braga, 1979-martxo.

Pott 5: Pott bandaren praka, 1979-uztaila.

Pott 6: Pott tropikala, 1980-ekaina.

Suma: Suma de varia intención

Z: Ziutateaz

Lanean zehar agertuko diren laburdura nagusiak:

AOK: Ahozko Ondare Kulturala

EA: Eusko Alkartasuna

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EAJ: Eusko Alderdi Jeltzalea

EBPN: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

EE: Euskadiko Ezkerra

EEPL: Euskal Eskola Publikoaren Legea (EAEkoa)

EGE: Euskararen Gizarte Erakundea

EIE: Euskal Idazleen Elkarte

EIZIE: Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte

EKE: Euskal Kultur Eremua
 EKS: Euskal Kultur Sistema
 ELE: Euskal Literatur Eremua
 ELS: Euskal Literatur Sistema
 Esp.KS: Espainiar Kultur Sistema
 Esp.LS: Espainiar Literatur Sistema
 HABE: Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundea
 HB: Herri Batasuna
 HEH: Hegoaldeko Euskal Herria
 IEH: Iparraldeko Euskal Herria
 LAB: Langile Abertzaleen Batzordeak
 MIT: Ministerio de Información y Turismo
 NFE: Nafarroako Foru Erkidegoa

TAULEN AURKIBIDEA¹

1. taula: Testuinguru sozialen ohiko ezaugarriak.....	68
2. taula: Testuinguru sozialen kopiaketa.....	70
3. taula: Balioztatze sinbolikoan ohikoak diren estrategiak.....	72
4. taula: Eremu, forma, baliabide eta forma sinboliko zehatzak.....	99
5. taula: Eremu, forma, baliabide eta forma sinboliko zehatzen harremana.....	100
6. taula: “Ama”, “aita”, “etxea”	255
7. taula: “Txoria”	256
8. taula: “Bertsolaria”, bertsoa.....	256
9. taula: Zeharkako eraginen adibideak.....	265
10. taula: 1966-1972 bitarteko argitalpenak.....	311
11. taula: Komunitate ordezkariak.....	411
12. taula: Eskola publikoetako irakasleen euskalduntzea.....	420
13. taula: Gune eragileak.....	448
14. taula: Zentsura, errepresio eta debeku adibideak.....	690-692

¹ Irudiren bat baden arren, taula gisa izendatu dugu.

SARRERA

Hipotesi nagusia argitzeko asmoz, oinarri teorikoak eta corpora ahal bezain modu koherenteenean landu ditugu: lana bera zentzu nagusi hori islatuko duen egituraz osatu dugunez, euskal komunitatearen errealitate sinbolikoa –1960-1990 bitartekoa– islatzen duen ikuspegi bateratua lortu dugu.

Hipotesi eta helburuak

Tesia abiatu aitzin, hipotesi bat genuen: Euskal Literatur Sistema (ELS) garaikidearen oinarriak 1960-1990 bitartean ondu zirela, komunitate garapenarekiko mendekotasunean. Lanak aitzina egin ahala, ordea, ELSren ikerketan sumaturiko hainbat prozesu aldaketa zabalagoen isla zela ohartzen joan ginen; hortaz, hipotesi nagusiago bakarraren baitan bildu genuen abiapuntua: Euskal Kultur Sistema (EKS) eta ELS garaikideen oinarriak 1960-1990 bitartean ondu ziren, euskal komunitatearen beharrekiko mendekotasunean.

Uste nagusi horrek, noski, guziz baldintzatu ditu tesiko helburuak. Hiru ardatzen azterketa bateratua egin nahi izan dugu: komunitate batek, garai zehatz batean, ondarearekiko izan zuen harremana aztertu dugu; zehazki, euskal komunitateak 1960-1990 bitartean ondarearekiko izan zuen lotura ikertuaz, harreman horren maila desberdinetako islak miatu ditugu. Hala, euskal komunitatearen eta ondarearen arteko harremanean mugarri izaniko baliabide sinbolikoak eta horien agerguneen nahiz bilguneen garapena landu ahal izan ditugu: baliabide sinboliko gisa, tradizioa hautatu dugu; honen agergune gisa, Ahozko Ondare Kulturala (AOK) eta literatur tradizioa; eta bilgunea, literatur eremua. Horien azterketarekin –ikergai bakoitzaren izana eta garapena erakustez haratago–, EKS garaikidearen oinarriak nola egituratu eta ondu ziren hausnartu dugu.

Hala, bada, EKS eta ELS garaikideen muinari behatu diogu, euskal komunitatearen eta ondare kulturalaren 1960-1990 bitarteko harremanari; horretarako, euskal komunitatearen bitarte horretako osatzean funtzio nagusia izan zuen baliabide sinboliko behinenari erreparatu diogu: tradizioari. Aztergai honek euskal ondare kulturalak eta komunitateak hogeita hamar urte horietan izan zuten harremana agertu, eta egungo EKS eta ELSren eraketan mugarri izan ziren alderdiak azaltzen lagunduko digu. Tradizioaren agergune biren azterketak –AOKrenak eta literatur tradizioarenak– azalera ziko du hamabortzaldi bakoitzeko prozesu nagusiek sistema bakoitzaren

garapenean, espresuki, izan zuten eragina: AOKren azterketak argituko du 1960-1975 bitarteko moldaketa funtzionalak Euskal Kultur Eremuan (EKE) eta Euskal Literatur Eremuan (ELE) izaniko eragina, eta literatur tradizioak, erakundetze prozesuak eremu beretan izanikoa.

Alabaina, zer egin nahi izan dugun zehaztea bezain garrantzitsua da, lan honetan, zer egin nahi izan ez dugun, hasieratik, garbi izatea. Batetik, tesiaren ikergaiek eta helburu nagusiek hagitz erreferentzia, ideia eta termino garrantzitsuak bidenabar erabiltzera behartu baikaituzte –beraiei buruz bakarrik tesi mardulak osatzeko adina munta dutenak–; baina ez dugu gaurgero adituek, aski kostata, mugatzen dituzten kontzeptu horientzako definizio proposamenik egin nahi izan –kontzeptu garrantzitsu horien zein adieratik abiatu garen A eranskinean zehaztu dugu; adibidez, “nazioa”, “estatua”, “intelektuala” eta abar–. Bertzetik, ez dugu garai eta prozesu zenbaiten interpretazio hetsirik egin nahi izan; aitzitik, faltan sumatzen genuena gaineratu nahi izan dugu. Izan ere, lanaren abiaburua garai zehatz bateko komunitatearen eta ondarearen arteko harremana ulertzeko ezintasunetik heldu da; zehazki, garai haren ondorengo iduri duten arazo zenbait ulertzekoa. Egungo euskal komunitatearen oinarriak moldatu zituen hondarreko saioa bizitu gabeak izaki, ez dugu 1975-1990 bitartean gertatu zen aldaketarekiko –zer erranik ez, aitzinekoarekiko– atxikimendurik. Distantzia horrek, akaso, urte horien izaera ispilatuz eta ondorio ez hain positiboek ohartzea ahalbidetu digu. Hortaz, ez ditugu garai eta ikergai bertsuez orain arte erran izan direnak baliogabetu nahi. Tesi honen funtsa, preseski, halako zurrunkerien kontra aritzea da: oraindik sakon aztertua ez zen errealitatearen kontaketa abiatu dugunez, bidenabar, ekinari jarraitzeko tresnak egokitzen hastea.

Euskal komunitatearen azterketa garaikiderako –estaturik gabeko nazio-komunitate ororen kasuan gertatzen den gisa–, berreskuratze eta erakundetzei behatzea nahitaezkoa da; horretan, gune nagusia ondareari loturiko prozesuak dira, hori baita izaera bereziaren mantentze eguneratua izateko helduleku nagusia. Edozein gisatan, EKSren oinarriak 1960-1990 bitartean egituratu ote ziren jakitea garrantzitsua da, bai, baina informazio hori erabilgarria izanen da, baldin eta 1960-1990 bitarteko moldaketa baldintzatu zuten eragileen eragina ulertu, eta horien kontzientzia hartzen badugu. Horiek horrela, alderdi horiek argitu ahal izateko oinarri teorikoak bilatu eta eskaini ditugu.

Oinarri teorikoak

Lanean aunitz zehaztu dugu, eta landu, oinarri teorikoen gaia. Halatan, erranen direnak errepikatu nahi ez, eta zutarri nagusien aukeraketa zergatik eta zertarako egin dugun argituko dugu, hemen. Hautaturiko oinarri teoriko horiek hainbat muga jarri dizkiguten arren, ikuspegi koherente beraren baitan bilduriko tresnak eskaini ditugu. Horretarako, adituen ekarriez gain, guk geronek izaniko zailtasunei aitzina egiteko proposamenak ere egin ditugu. Horietarik zenbait adituen erranen egokitzapenak dira, eta bertze zenbait gure kasa osatu ditugu.

Erabaki arriskutsua izanagatik, aunitzez lan interesgarriagoa eta, bereziki, etorkizun hurbilean lanean jarraitzeko aproposagoa osatu ahal izan dugu; gainera, tesi baten helburuak asebetetzeko espresuki egokia den jarrera deritzogu; ekarriak eskaintzeaz gain, arrisku eraikitzaileak hartzearen aldeko aritua.

Abiapuntua Paradigma Kulturala izan da, eta, horren baitan, errealitate sinbolikoari behatzen dioten tresnak eskuratu nahi izan ditugu. Hala, EKS eta ELS garaikideen oinarrien azterketak garai bateko errealitate sinboliko zabala argitzeko laguntza izanen dira. Tesiaren ardatzak estaturik gabeko komunitatea eta ondare kulturala izanik, bi horien arteko harremana agertzen lagunduko duten tresnak hautatu ditugu, aztergai gisa: baliabide sinbolikoak. Gainera, baliabide horien agergune nahiz bilguneak ikertu nahi genituzenez, horien ikerketara ere moldatu ditugu adituen erranak. Hori dela eta, bi multzotan bana litezkeen tresna teorikoak erabili ditugu.

Adituengandik hartu ditugun tresna teoriko nagusiak bi izan dira. Batetik, nazio eta komunitateen azterketan ardaztu, eta, era berean, alderdi sinbolikoari espresuki erreparatzen dion ikuspegiari atxiki gatazka: etno-sinbolismoari. Teoria honek nazio-komunitateen garapena alderdi materialetik, bakarrik, ikertu behar ez dela aldarrikatzen duenez, komunitateen eraketan berebiziko garrantzia duten atxikitzeak, arrazoiak haraindikoak, ulertzeko lanabes egokia eskaini digu: baliabide sinbolikoak euskal komunitateak –60ko hamarkadatik aitzina– jasaniko birmoldatze kulturalaz jabetzeko tresna hagitik egokia dira; zehazki, erran gisa, tradizioaz arituko gara. Nazio, komunitate eta nazionalismoen ikerketa ikuspegi honetan oinarritzen duten adituetarik, Anthony D. Smith hautatu dugu abiapuntu nagusi gisa. Smithen proposamenak Ernest Gellner du eragile nagusia, eta teoria modernistari eginiko gaineratze gisa definitzen du Smithen berak etno-sinbolismoaren ekarria; bere hondarreko lan monografikoan –*Ethno-symbolism and Nationalism: A Cultural Approach* (2009)–, hain zuzen ere, etno-

sinbolismoaren oinarriak biltzen dituen ikuspegi teorikoa osatu du. Alabaina, Smithen azalpenetan espresuki jorratzen ez den alderdia lantzeko, Montserrat Guibernau-ren lanetara jo dugu: honek eskaini dizkigu estaturik gabeko komunitateen azterketa etno-sinbolisterako tresna sendoenak.

Bertzetik, komunitateen baitako kultura eta sinboloen solastuko garez, forma sinbolikoen azterketarako oinarri teorikoak hautatu ditugu. Bidea, ordea, malkarra izan da: John B. Thompson-ek *–Ideology and Modern Culture: Critical Social Theory in the Era of Mass Communication* (1990) liburuan– forma sinbolikoak sistematikoki aztertzeko tresnak eskaini dizkigun arren, egokitu egin behar izan ditugu. Soziologoak Clifford Geertz du iturri nagusietarikoa. Geertzek giza- eta gizarte-zientzietatik hurbil den antropologiaren ikuspegitik abiatuz osatu zuen kulturaren azterketa. Hala, bada, kulturaren azterketa zentzuaren eta sinbolismoaren bidetik berbideratu, eta interpretazioak hurbiltze metodologiko gisa duen garrantzia azpimarratu zuen (Thompson 1990: 132). Hain zuzen, Thompson-ek, ikuspegi horretatik abiatuz, “kulturaren ulertze sinboliko” gisa bataiatua definitu zuen:

culture is the pattern of meanings embodied in symbolic forms, including actions, utterances and meaningful objects of various kinds, by virtue of which individuals communicate with one another and share their experiences, conceptions and beliefs. (Loc. cit.) (Azpimarra ez da gurea)

Zernahi gisaz, etno-sinbolismoak eta forma sinbolikoen azterketarako oinarriek tesian erabiliko dugun tresna teorikoen multzo bat osatzen dute; gainera, adituen erranetatik abiatuta, euskal komunitatearen eta kultur ondarearen arteko harremana, zehazki, aztertu ahal izateko moldaketak egin ditugu. Beraz, estaturik gabeko nazio-komunitateen, baliabide sinbolikoen eta eremu nahiz sistemen azterketa egin ahal izateko egokitzapen teorikoak egin ditugu. Hala, Thompson-ek forma sinbolikoen azterketarako proposatuak etno-sinbolismoak aztergai dituen baliabide sinbolikoen azterketara moldatzeaz gain, kultur eremuen azterketara ere egokitu ditugu.

Hortaz, hasiera batean lanaren helburu ez bazen ere, behin baino gehiagotan egin ditugu proposamen teorikoak, beharrak asebetetzeko. Halakoak egitearen xedea, ordea, ez da teorikoen erranak gutiestea izan; kontrara, beren erranak espresuki erabilgarriak iduritu zaizkigulakotz moldatu ditugu aztergaietara. Gisa horretan, euskal komunitatearen eta kulturaren garapena erdiz erdi baldintzatu zituzten alderdi teoriko nagusiak, foku beraren baitan, elkarreraginean, sumatu ahal izateko tresneria eskaini dugu.

Corpusa

Bi corpus multzo nagusi arakatu ditugu: aldizkariak eta kultur gile jakinen aritu² zehatzek osatuak. Corpus horietarik bakoitzak, komunitatearen eta ondarearen arteko harremana argitzeaz gain, fase desberdinetako prozesu nagusien bidea agerrarazten lagunduko digu. 1960-1975 bitartea argitzeko, *Anaitasuna*³ nahiz *Zeruko Argia* aldizkariak eta Mikel Laboaren aritua arakatu ditugu. Aldizkariak lantzea animaleko lana izan da; hala ere, garaiaren hagitz ikuspegi argigarria eman digute, eta ondotik heldu zen prozesuaren oinarriak eta garapena ulertu ahal izateko gako izan dira. Laboaren lanekin, bidea egin ahal izan dugu aztergai izanen dugun baliabide sinbolikoaren agergune nagusietariko baten, AOKren, moldaketa funtzionalaren erabilera berriztatua ulertzeko. 1975-1990 urteetarako, ordea, *Ustela* nahiz *Pott* aldizkariak eta Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Jon Juaristiren arituak hautatu ditugu. Aldizkari horiek aitzinfasearekiko alderaketa, ELEren garapenean, egiten lagundu digute, eta idazleen lanak tradizioaren azterketan sakontzeko espresuki erabilgarri izan dira. Zernahi gisaz, aztergai nagusietarik bat baliabide sinbolikoa izateak baliabide horren beraren agerguneak ikertzera behartu gaitu. Horregatik, tradizioaren agergune diren AOK eta literatur tradizioak berak corpusak izan dira, lan honetan.

Erran gisa, corpus multzo bakoitzak gure helburu nagusiaren alderdietarik bat zehazten lagunduko digu, eta denak, bateratuki, ikergai ditugun hogeita hamar urteetako errealitatearen irudi osotua sumatzeko izan dira lagungarri. Lehen hamabortzaldiko ondarearen eta komunitatearen arteko harremana, testuinguruarekiko elkarreraginean, ikertzeko, batetik, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* hagitz baliagarri izanen dira: aldizkariaren garapenez gaindi, bertan islatutako prozesuek EKE eta ELEren egoeraz nahiz norabideaz ohartzen lagundu digute. Bertzetik, AOK proposamen teorikoen, testuinguruaren, prozesu nagusien eta aritu zehatzten arteko lotura gunea izanen da. Gainera, Laboaren arituak garai bereko prozesu nagusiaren izana zein zen, nondik heldu zen eta zertarako aukera eman zuen zehazteko berebiziko garrantzia izan du:

² “Aritu” dela medio, ez zaio emaitza fisikoa den lanari erreferentziarik egin nahi; bere presentzia, funtzionamendua, parte hartzea eta horien guztien moduak eta zergatiak ere bildu nahi ditu termino honek. Hau da, elementu zehatz bat baino gehiago, jardunen erlazioei erreparatu nahi die kontzeptuak.

³ *Zeruko Argia* aldizkariak ale guztiak eskuragarri izan ditugun arren, *Anaitasuna* aldizkari zenbaiten ale originalak ezin izan ditugu aitzinean izan. Hori dela eta, orrialde originalak guk geronek ikusteko aukerarik izan ez dugunetan, orrialdearen erreferentzia eman beharrean, “egilea, ‘izenburua’, *Anaitasuna*, urtea-hilabetea-eguna, zenbakia zk.” zehaztu dugu. Adibidez: A. Ajuria, “Juan Antonio Mogel”, *Anaitasuna*, 1967-06, 146. zk.

berreskuraturiko ondarearen moldatze funtzionalaz gain, honen erabilera berriztatuan oreka komunikatiboak izaniko muntaz oharrarazteko hagitz egokia izanen da.

Bigarren hamabortzaldiaren azterketarako hautatu ditugun aldizkariak hagitz bertzelako testuinguru eta prozesuak ulertzeko baliatuko ditugu. Batetik, kulturaren erakundetze zabalaren baitan, *Ustela* eta *Pott* ELEn erakundetze bidea sumatzeko izanen dira baliagarri. Bertzetik, literatur tradizioa proposamen teorikoen, testuinguruaren, prozesu nagusiaren eta aritu zehatzen arteko lotura gunea izanen da. Hirugarrenik, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren ikerketak agerraraziko ditu –hirurek elkarrekin abiatutako bidearen garapena deskribatzeaz haratago– ELSren eraketa eta honek komunitate beharrekiko izan zuen harremana zehazteko funtsezko alderdiak: literatur tradizioaren hautaketa atzeman, eta horren gibeleragileak identifikatu ahal izanen ditugu.

Hala, bada, hautatu dugun baliabide sinbolikoaren –tradizioaren– bi agerguneak –AOK eta literatur tradizioa– EKS eta ELSren, proposamen teorikoen eta aritu zehatzen arteko lotura gunea dira; Mikel Laboaren lanak eta Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Jon Juaristiren arituak erabiliko ditugu tradizioaren bi agergune horien garapena irudikatzeko, tradizioak –baliabide sinboliko gisa– komunitatearekiko izan zituen harreman moduak deskribatzeko eta tradizioak parte hartzen zuen kultur eremuen garapenak ikertzeko.

Aritu zehatzen azterketa finkatu ditugun mugen lausotasunean⁴ ulertzen da, hobekien; are gehiago, aztergai hautatu ditugun arituen izanak eta EKEN nahiz ELEN izan zuten eraginak daten malgua kontuan izatera behartu gaituzte. Ikusiko dugunez, bai Mikel Laboaren arituak, bai Atxaga, Sarrionandia eta Juaristirenak, bidegileen kronologiak izan ziren; hau da, urteen poderioz EKEk edo ELSk izanen zituzten aldaketen aitzindari izanik, beren arituek kronologia aitzinatua islatzen dutela ohartuko gara.

Hortaz, aritu zehatz horiek aukera eman digute aztergai dugun moldaketa kulturalaren muga kronologikoak, kasuz kasu, malguak izan zirela azpimarratu, bai, baina, bereziki, horrek gure kontaktaren balioa gutitzen ez duela berresteko.

⁴ Hizpide dugun euskal berpizkunde saioa 1960an mugatu dugun arren, badira pizkunde bera bertze datetan kokatzen dutenak ere. Iban Izak, adibidez: “1956. urtean izan zen, hain zuzen, euskal berpizkunde horren mugarra. Lehen Euskal Mundu Biltzarra egin zen Parisen 400 bat lagunene parte-hartzearekin, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru zela” (2010: 35).

Idazkerari dagokionez, euskarazko testuak originalean agertu gisa mantendu ditugu, euskara batuaren egungo arauetara moldatu gabe, eta ageri-ageriko erratak bakarrik markatu ditugu. Atal eta artikuluetako izenburuak ere bere horretan utzi ditugu⁵. Hala erabaki izanaren arrazoia sinplea da, lan honetan, idatziaren garapena, sistematizazioa eta finkapena islatzen laguntzen baitigute.

Egitura

Tesiaren egitura aztergaiek eta helburuek finkatu dute. Lau kapitulutan banatu dugu lana: lehenean, oinarri teorikoak –adituenak nahiz horien moldaketa nagusiak– bildu ditugu; bigarrean, 1960-1975 bitarteari dagozkion testuinguruari buruzko informazio, tresna, corpus eta aritu zehatzak landu ditugu; hirugarrenean, aitzinkapituluko eduki berak landu ditugu, baina 1975-1990 bitarteari dagozkionak; laugarrenean, ondorioak bildu ditugu. Hortaz, azterketaren gunea osatzen duten bigarren eta hirugarren kapituluetan, edukiak –teorikoak eta praktikoak– egitura paraleloetan aurkeztu ditugu: testuinguru nagusiak landu ondotik (bigarren eta bortzgarren atalak), testuinguru horietarik bakoitzari dagokion prozesu nagusia aztertu dugu (hirugarren eta seigarren atalak), espresuki ondare kulturalaren eta komunitate garapenaren arteko harremanaren mugariak identifikatu eta ulertu nahian; segidan, deskribaturiko prozesu horiek ELeren baitan behatuko ditugu: lehenik (4.1. eta 7.1.), ondarearen moldaketa nagusi bakoitzarekiko harremanean eta, bigarrenik (4.2. eta 7.2.), aritu zehatzekiko alderaketan.

Atal batetik bertzerera igarotzeko oinarritzko informazioa aitzinatallean bildua agerienez, kateatze logikoan kontatu dugu hamabortzaldi bakoitzari dagokiona: testuinguru nagusia ulertzetik, fase bakoitzeko prozesu nagusira joko dugu; segidan, prozesuen eta ondarearen arteko harremana zehazten ahaleginduko gara; eta, azkenik, eremu eta aritu jakinak aztertuko ditugu –aitzinez landuriko tresnak, harremanak eta datuak erabiliaz, horiek berak ikuspegi zabalean sakontzen jarraitzeko–.

Egia da bigarren eta hirugarren kapituluetan agertzen diren tresna teorikoak ez direla kultur moldaketaren fase batari edo bertzeari kontrajarriak; alabaina, fase bakoitzean sumatu ditugun behar espezifikoek eraman gaituzte tesiaren atal bakoitzean

⁵ Hortaz, “mundua mundu” atalaren lehen agerraldiko (*Anaitasuna*, 1965, 130: 6) edo “ez dok amairu: agiria gure jokabidearen berri” (*Zeruko Argia*, 1970, 358: 11) idatziko letra txiki eta maiuskulak eta “‘Asfixiatzen duen kultura’” (*Anaitasuna*, “Mundu biribila” atalean, 1970, 195: 6) artikuluko komatxoak –norabideak, kasu honetan– jatorrizkoan ageri gisa islatu nahi izan ditugu. Gainera, jatorrizkoan, hizkuntzaren irakaskuntzarako, markatu ziren “*”ak ez ditugu mantendu.

lanabes horietariko zenbait arreta berezia eskaintzera. Hori dela eta, adibidez, funtzionalitatearen garrantzia bi faseetan solasgai izanen dugun arren, 1975etik aitzinako garaian, irizpide hori testuinguru zabalari egokiturik landuko dugu; erakundetze prozesuari egokiturik.

Lana, zalantzarik gabe, luzea bada ere, eman diogun egiturak berak luzera hori nabarmendu egin du: azpiatal eta atal nagusi bakoitzaren akieran, erranen laburpenaz gain, ondorio nagusiak bildu ditugu. Hori dela eta, ulerkuntza aisago eginen duen egitura ezarri izanak lana luzatu egin du.

Hondarrean txertatu ditugun eranskinek ere luzeran eragina izan duten arren, erabilgarri izanen direla uste dugu. A eranskinean, oinarrizko terminologiaren azalpenak laburtu ditugu. Hartara, tesian agertzen joan diren termino nagusien erreferentzia zeinahi momentutan izanen du eskuragarri irakurleak. Azalpen osatuena, ordea, tesiaren ataletan zehar emanen dugu. Eranskin honetan biltzen diren kontzeptuak, sarreratik aitzinako lehen agerraldian, “*” batez agertuko dira. B eranskinean, lanean sobera ziren adibideak bildu ditugu.

Hondarrekoak

1960-1990 bitarteari buruz erran ditugun gauza aunitz intuitiboki denok pentsatu, susmatu edo uste izan ditugu, noizbait. Nolanahi ere den, bitarte horretan gertaturikoari oinarri eta azalpen teoriko nahiz praktikoa ematea eta, bereziki, modu bateratuan argudiatzea, zaila izan da.

Hala ere, komunitateetan errealitate sinbolikoak duen zamaz ohartzeak eta horren azterketarako tresnak baliatu izanak azterketa praktikoa aunitz lagundu dute. Areago, tesia abiatu genuenean susmatzen ez genituen bi ideiatara iristea ahalbidetu dute: euskal komunitateak 1975etik aitzina izan zuen prozesuari sobera liluraz behatu izan diogula ulertu, eta, horren eraginez, komunitateak egun dituen arazo zenbait atzeman ahal izan dugu.

I. KAPITULUA
OINARRI TEORIKOAK

1. PARADIGMA ALDAKETA

La razón es un término verdaderamente inadecuado para abarcar las formas de la vida cultural humana en toda su riqueza y diversidad, pero todas estas formas son formas simbólicas. Por lo tanto, en lugar de definir al hombre como un *animal racional* lo definiremos como un *animal simbólico*. De este modo podemos designar su diferencia específica y podemos comprender el nuevo camino abierto al hombre: el camino de la civilización.

(Cassirer 1963 [1944]: 2) (Azpimarra ez da gurea)

Atal honetan, lanean zehar hizpide izanen dugun terminologia nagusia aurkeztu nahi da, baita tresna teoriko nagusiak ere; hala, bada, historian zehar izan duten garapenagatik irristakor izan daitezkeen hitzak izanen dira solasgai: *kultura⁶, *nazioa⁷, *forma sinbolikoak⁸, errealitate soziala, eta abar.

Termino horiek hautatu izanaren arrazoia aski sinplea da: hizpide izanen diren hitzek, beren garapen edota izaera garrantzitsua dela eta, adiera desberdinak biltzen dituzte. Erranahi horien aniztasunak, ikusiko denez, lanaren ildo nagusiak hondatuko lituzke. Horregatik, adiera nagusietatik barnako ibilbidea proposatzen dugu, ondoko paragrafoetan: hitz bakoitzak biltzen dituen erranahietarik guk espresuki atxikiko duguna zehaztera joko dugu.

Tresna teorikoei dagokienez, gure helburua ez da, inolaz ere, lanabes izanen diren baliabide teorikoen sintesi bat egitea; hau da, ez dugu osotasunean aurkeztu nahi lanean zehar agertuko diren aztertzaile, ikerlari, antropologo, soziologo eta bertzeren ekarri teorikoa. Aitzitik, proposamen horien baitan, Euskal Kultur Sistemaren (EKS) garapena agertzen lagunduko diguten ideietan jarri dugu fokua: *baliabide sinboliko⁹ –tradizio, espresuki– eta literatur eremuen garapena aztertzekeo lagungarrien direnetan, printzipalki. Hala, ikusiko dugunez, proposamen desberdinak izan arren, hainbat elkargune sumatu ditugu.

Lau alderdi nagusitan egituratu dugu EKS aztertu ahal izateko oinarri teorikoen bilduma. Lehenik, EKS egituratu duen *komunitateari¹⁰ erreparatuko diogu; horretarako, hizketagai izanen ditugu identitate kolektiboa, nazioa eta

⁶ Ikus A eranskinen “Kultura” sarrera.

⁷ Ikus A eranskinen “Nazioa” sarrera.

⁸ Ikus A eranskinen “Forma eta baliabide sinbolikoak” sarrera. Tesian, “forma sinboliko” eta “sinbolo” hitzak sinonimoak dira.

⁹ Ikus A eranskinen “Forma eta baliabide sinbolikoak” sarrera.

¹⁰ Ikus A eranskinen “Komunitatea” sarrera.

*nazionalismoak¹¹ (1.1.). Bigarrenik, kultura eta forma sinbolikoei buruz arituko gara; izan ere, horiek baitira zeinahi komunitateren historia kultural baterako kontuan izan behar diren oinarri nagusietarikoak (1.2.). Hirugarrenik, baliabide sinbolikoak, komunitate eta nazioen garapenaren baitan, aztertzen dituen tresna teorikoaz jardunen dugu: *etno-sinbolismoaz¹² (1.3.). Akitzeko, adituen proposamen teorikoak gure aztergaietara nola egokitu ditugun aurkeztuko dugu, Thompsonnek forma sinbolikoez erranak bereziki egokitu behar izan baititugu baliabide sinbolikoen azterketara (1.4.).

Gisa horretan, tesian zehar erreferentzia nagusi izanen direnen ekarria aurkeztu ondotik, zehazki gidari direnen egokitze teorikoa proposatuko dugu. Euskal komunitateak 1960-1990 bitartean jasan zuen moldaketa kulturala ikertzeko ikuspegi nagusiaz gain, gure ustez, *estaturik gabeko nazio¹³ horren kultur sistema aztertzeko lanabesak eskainiko ditugu.

1.1. Nazioak eta komunitateak: oinarriak

Oinarri deritzogun hauetan, hizpide nagusi dugun kultur moldaketa garatu zuen komunitateari erreparatuko diogu; hala, komunitatearen izanari behaturik, hobeki ulertuko dira baliabide eta forma sinbolikoez parte hartzen duten eremuko garapenaren nondik norakoak.

Hiru ideia nagusik baldintzatu zuten 1960-1990 bitarteko kultur sistemaren moldatze eta finkatzea: komunitate identitateak (1.1.1.), komunitate horren nazio izaerak (1.1.2.) eta taldearen izana bermatzeko sorturiko nazionalismoak (1.1.3.). Beraz, ondoko orrialdeetan aurkezten diren ideiek kultur moldaketaren abiapuntu eta helmuga izaniko komunitatea –nahiz bertatiko prozesuak– baldintzatu zituzten. Nozio aski orokorrak izanagatik, tesian zehar erreferentzia izanen direnak hobeki ulertzeko oinarritzko informazio biltzen dute.

1.1.1. Identitatea

Identitatearen auzia bi multzo nagusitan banatu ohi da: batetik, identitate indibidualari egiten zaio erreferentzia, eta, bertzetik, identitate partekatu edota kolektiboari. Alabaina, identitatearen bi agertze horiek elkarrengandik hurbil dira; bata bertzeari eragiten dion gisa, lehenaren sendotze eta moteltzeek bigarrenaren izana

¹¹ Ikus A eranskineko “Nazionalismoa” sarrera.

¹² Ikus A eranskineko “Etno-sinbolismoa” sarrera.

¹³ Ikus A eranskineko “Nazioa” sarrera.

moldatuko dute, baita alderantziz ere. Identitate banakoaren eta kolektiboaren arteko harreman hertsia, preseski, zaildu egiten du, aunitz, mugak zurrunki ezartzerik. Hori dela eta, euskal komunitatearen identitateaz dihardugarik, bi alderdiei erreparatu beharko diegu.

Kultura partekatu bateko partaide sentitzearen onurek zerikusi handia dute identitate indibidual nahiz kolektiboaren garapenarekin. Batetik, identitate indibidualari dagokionez, pertsonalitatearen garapenerako ezinbertzeko diren sentimen bi bulkatzen ditu: identitatea eta autoestimua.

Pocas cosas hay más comprensibles que la identificación con el cuerpo, con el nombre, con la lengua, que poseemos –o que nos poseen– desde niños; pocas, más humanas que la necesidad de sentirse protegido por una comunidad, de tener raíces y creer que se comparte hasta una memoria histórica con otros semejantes. La inserción en una cultura proporciona a los niños dos sentimientos cruciales en la formación de la personalidad: la identidad y la autoestima; y muchos adultos siguen aferrándose a esas referencias colectivas, más que a sus méritos individuales, para sentirse alguien. (Álvarez 2001: 18)

Hala, bada, komunitate bateko sentitzeak babes nahiz gizarteratze sentimen oinarritzkoak laguntzen ditu. Bertzetik, identitate kolektiboari dagokionez, norabide biko indartzea dakar: pertsonari bere izaera banakoan –nahiz komunitate partekatuari, modu kolektiboan– eragiten dion konfiantza eta ongizatea.

Tesian zehar, identitatearen alderdi bi horiei erreparatuko diegu –*Krisi Orokorren¹⁴ eraginez aski suntsitua zen identitate indibiduala nahiz testuinguru beraren jasaile izan zen identitate kolektiboa–; baina, euskal komunitatearen goitibeheitei erreferentzia egiten zaienean, ezinbertzean arituko gara identitate kolektibo mailako gertakizunez. Hori dela eta, ondoko paragrafoetan, identitate kolektiboari dagozkion hainbat alderdi oinarritzko bildu ditugu: definiziotik hasi; identitate hau prozesu gisa irizteak inplikatzeko dituenekin jarraitu; hondarreko hamarkadetan nazionalismoen gorakadetan identitateari buruzko zein problematika agertzen duten azaldu; eta, azkenik, hizpide nagusi den kulturak identitatearen garapenarekin duen harremanaz adituek erranak bildu ditugu¹⁵.

Eman diren identitate kolektiboaren definizio nagusien artean, hona Alberto Melucci-k erranak: “an interactive and shared definition produced by several interacting

¹⁴ Ikus A eranskinetako “Krisi Orokorra (1960-1975) eta Krisi Orokor Ñabartua (1975-1990)” sarrera.

¹⁵ Horrendako, nagusiki, Montserrat Guibernauren lanetara jo dugu (1996, 1999, 2009 [2007]), berau izan baita identitatearen garapena nazio nahiz nazionalismoen ikerkuntzara –guretako espresuki garrantzitsua den estatistik gabeko nazioen egoera bereziki erreparatzen duelarik– bideratu dituen ikerlari nagusietaribat.

individuals who are concerned with the orientations of their actions as well as the field of opportunities and constraints in which their action takes place” (1989: 34¹⁶, in Guibernau 1996: 74).

Definizio horretatik abiatuz, identitatea prozesu gisa hartzeak berarekin dakartzan hiru inplikazio nagusi zehazten ditu Montserrat Guibernauk (*ibid.*: 74). Batetik, akzioen helburu, erranahi eta ingurumenaz arduratzen diren egitura kognitiboak formulatu beharra; bertzetik, erabakiak jakinarazi, negoziatu eta hartzen dituzten parte-hartzaileen arteko harremanak aktibatzea; azkenik, norbanakoak bata bertzearengan identifikatzeko aukera ematen duten inbertsio emozional garrantzitsuak egin beharra¹⁷. Lur, hizkuntza, sinbolo eta sinesteetan fokalizaturiko inbertsio emozionalek nazionalismoaren barreiatzea laguntzeaz gain, identitatea garatzeko bulkada baitira (*ibid.*: 76).

Hiru ondorioen munta kontuan izanik, hondarreko hamarkadetan nazionalismoek izaniko gorakada interpreta liteke¹⁸; izan ere, identitateak duen garrantzia eta identitatearen bi gauzatzeak –indibiduala nahiz kolektiboa– funtsezkoak dira, nazionalismoaren baitan. Hori dela eta, nazionalismoen areagotze bizia identitate kolektibo nahiz indibidualen beharrak asebetetzeko saiakera gisa ulertzen du Guibernauk: “I understand the present revival of nationalism as a response to a need for collective as well as individual identity” (*ibid.*: 74). Horregatik, ikerlariak dioenez, nazionalismoari berezkoa zaion solidaritate nazionala litzateke izaera bereziki sinboliko baten beharra asebetetzeko erantzuna; izan ere, kultura nahiz atxikitze partekatuan oinarrituriko erroez hornitu, eta etorkizunerako proiektua eskaintzen baitu (*ibid.*: 75).

Euskal komunitateak –*estatuko¹⁹ bertze nazio periferikoei gertatu gisa–, ondarearen berreskuratzea eta birjabetza identitate gatazka anitzarekiko borrokatu zituen; erran nahi baita 1960an abiatutako moldatze prozesua bat etorri zela identitate maila desberdinen gatazkarekin. Hortaz, frankismoaren hondarreko hamarkadetan gertaturiko “irekitzeak”, Europara begira eginiko irudi garbiketaren ondoriozkoa zenak, gero eta eskuragarriago jarri zuen identitate zabal eta berri baten hurbilpena: euskaldun

¹⁶ Guibernauk ematen duen erreferentzia: Melucci, Alberto, 1989, *Nomads of the Present*. London: Hutchinson Radius.

¹⁷ Ikusiko dugunez, 1960-1975 bitarteko nazio fasearen gunea izan zena.

¹⁸ Melucciren hitzetan, ekimen nazionalistek agerraraziko lituzketen arazoak, printzipioz, hondarreko hamarkadetan larritu egin direla pentsa liteke: “As Melucci points out, national movements bring to light two problems central to more structurally complex societies: the raise questions about the need for new rights for all members of the community, particularly the right to be different; and they claim to autonomy, to control a specific living space (which in this case is also a geographic territory)” (*Ibid.*: 91, in Guibernau 1996: 74-75). (Guibernauk emaniko erreferentzia osoa 16. oin-oharrean)

¹⁹ Ikus A eranskineko “Estatua” sarrera.

eta espainol arteko gatazkaz haratago, identitate europarraren aukera zabaldu zen. Identitate nagusiago horren baitan, estaturik gabeko nazioetan –euskaldunenean, kasu–, parada izan zen identitate berriki arnasberriaren alderdirik irekiena Europaren eraginekin bateragarri egiteko.

Lanean aitzina egin ahala ikusiko dugunez, identitate hirukoitzaren problematikak harremana izan zuen Europako eraginekin, bai 1975era bitartean, baita 1975etik aitzinako *erakundetzean²⁰ ere.

Identitatearen gauzatze nagusi biek duten garrantzia partekatua aipatuz eman diogu hasiera atal honi; segidan, definizio nagusi batetik abiatuz, ikerlariak nazionalismoen gorakada identitateekiko harremanean nola interpretatzen duten laburbildu dugu.

1.1.1. atalaren akiera dagokigun honetan, berriz ere helduko diogu hasmentan erranari; izan ere, 1960-1990 bitartean izaniko euskal kultur moldaketa prozesuan, identitatearen alderdi biek partekatu baitzuten baldintza bera: Aro Iluna jasan zutenen identitate indibiduala eta komunitate gisako identitate kolektiboa guziz baldintzatuak gelditu ziren.

Poliki-poliki ikusiko dugunez, testuinguru soziopolitikoak eraginiko Krisi Orokorrak gizartearen alderdi guztiak jotzeaz gain, abiatu egin zuen euskal komunitateko duintasunaren bilaketa gune zuen bidea; hizpide dugun prozesuarekin bat heldu zen bidea, preseski. Gune horren berreskuratzeak, hain zuzen ere, identitate hirukoitzaren problematika izan zuen kinka nagusietariko bat.

1.1.2. Nazioa

Gure helburua nazioei buruzko teorizazio nagusirik egitea ez denez, espresuki tesian zehar beharko ditugun ideiak argitzeko erabiliko dugu atal hau. Halatan, hiru alderdiren baitan harilkatu ditugu “nazio” kontzeptuari buruz bereziki baliagarri izanen diren ideia nagusiak: XIX. mendean, XX. mendean eta hondarreko hamarkadetan eginiko ekarri nagusiak. Alderdi horiek bilduko dituzte nazioaren inguruan, XIX. mendetik egun arte, izan diren hiru aldaketa nagusi. Zernahi gisaz, erran berri dugunez, ez dugu nazioen teorizazioari buruzko sintesiarik egin nahi izan, eta, beraz, lanerako espresuki adierazgarri izanen direnak bilduko dira, soilik.

²⁰ Ikus A eranskinen “Erakundetzea” sarrera.

1.1.2.a. XIX. mendea: irrika berria

XIX. mendean izaniko aldaketa identifikatu dugu “nazio” kontzeptuari eragiten dion lehen ideia nagusi gisa. Garai hartan gertatua Anthony D. Smithek laburbiltzen du (2009: 68-69), eta, azpimarratzen, sustrai historikoei irrika berri bat erantsi zitzaizela:

The eighteenth century added a novel passion for historical roots and archaeological verisimilitude as a means discovering the ‘true essence’ of the nation, the original and distinctive spirit that from its inception had animated its parts, and continued to do so, even if it was hidden from view. (*Ibid.*: 68)

Smithek biltzen duen ideiak adierazten du egiazkotasuna, originalitateaz haratago, taldeari bakarrik zegokion izaera bereziari erreferentzia egiten hasi zitzaizola; hau da: “culture values that could not be replicated and whose discovery and depiction therefore attracted a host of writers, composers and artists” (*ibid.*: 69). Aldaketa horren ondorioz, jendearen memoriak, sinboloak, mitoak eta tradizioak interesgune bihurtu ziren; gainera, nazionalismoak ulertu zuen horien jabe zen jendeak nazio esentzia irudikatzen zuela: “people who for nationalists embodied the ‘essence’ of the nation and who enabled them to unite the elites with various sectors of the larger population” (*loc. cit.*).

Smithek bildurikoei José Álvarez Junco-ren ideiak gehi geniezazkieke, hainbat xehetasun gaineratzen dituelakotz azken honek, estatu mailako batasuna aitzinez liratekeen etnietara noiz egokitu zirenari buruz (2001: 60). Batetik, aipaturiko prozesua XIX. mendean sumatuko litzatekeen arren, haren aplikazio sistematikoa egiazki atzemateko, I. Mundu Gerrara arte itxaron behar dugula gaineratzen du:

Sólo en estas últimas fases, cuando se estableció una conexión de carácter lógico o necesario entre un pueblo o etnia y su dominio sobre un territorio, puede, en puridad, hablarse de nacionalismo, una doctrina cuyo núcleo fundamental consiste en hacer de la nación el depositario del poder político supremo. (*Loc. cit.*)

Orduan hasi omen ziren estatuak, kultura partekatua bulkatuz eta ofizialduz, beren legitimitatea bermatu nahian, eta kultura hori estatuak ordezkatzeko luketen herri edo *etniarekin²¹ identifikatzeko zuketena.

Guk geronek zalantza dugu lurraldetasunaren eta etnien edota komunitateen arteko harreman hertsia ez ote zen I. Mundu Gerratik gibelaren sistematizatzen hasia izanena, baina adituendako utzi dugu halako kontuen zehaztea. Edozein gisatan, ez du iduri prozesuaren gertatzea XX. mendetik gibelaren aisa muga daitekeenik.

²¹ Ikus A eranskineko “Etnia” sarrera.

1.1.2.b. XX. mendea: “nazio asmatu” kontzeptua

“Nazio” kontzeptuari eragiten dion bigarren ideia nagusia beranduago heldu zen: nazioak “asmatuak” zirela teorizatzeak aldatu egin zuen nazio eta nazionalismoetara hurbiltzeko modua. Ernest Renan-enganaino gibelatzen ditu Smithek (1999 [1995]: 164) nazioak “asmatuak” direla aditzera ematen duten hitzak²². Zernahi gisaz, idurizko izaera horren azpimarratzeak helburu polemikoak eta satirikoak ditu, ikerlariarendako²³: nazioa agerraraztea –mozorroa kentzea– eta nazionalismoaren botere jokoak azaleratzea.

Joko horien arteko gisa identifikatzen ditu Smithek eliteak darabiltzan tresna sinbolikoak: “they involve the creation of a culture-ideology of community, through a series of emotive symbols and myths, communicated by print and the media” (*ibid.*: 165). Komunitatearen izaera, ordea, ez litzateke, soilik²⁴, asmakuntza izanen:

But in fact it is ultimately a specious community, one that parades as a collective cure for the modern disease of alienation between state and society, and operates through historical fictions and literary tropes, of the kind that Benedict Anderson and his followers have described. (*Loc. cit.*)

Idurizko komunitate bat sortu eta lantzeko moduei dagokienez, liburu kanonikoekin historia estandarizatzeari gain, bertzelako tresnak ere badirela aldarrikatzen du Smithek; hala nola, lanean hizpide izanen ditugun literatura kanonikoa eta musika²⁵. Horiek direla medio, komunitate partaideendako ez ezik, “kanpokoendako” eraikitzen da nazioaren irudia²⁶.

²² Renanen erreferentzia nagusitzat aipatu ohi da Sorbornan, 1882an, “What is a Nation” izenburupean, emaniko hitzaldian errana.

²³ “But there is a further element in the recent radical rethinking of the concepts of nations and nationalism: its insistence on the imagined quality of the national community and the fictive nature of unifying myths. There is a polemical, satirical intent here.” (Smith 1999 [1995]: 165)

²⁴ “Pero las naciones no se *inventan* con tanta facilidad. *Invencción* es un término que sugiere excesiva libertad por parte del autor: creación *ex nihilo*, a partir de cero. La fórmula ha sido útil, desde luego, para denunciar la creencia nacionalista en las naciones como realidades ‘naturales’, preexistentes y contrapuestas a entes políticos ‘artificiales’, que serían los Estados. [...] Pero estos actores [intenzio politikodunak] no obran con total libertad; no pueden ‘inventar’ identidades en contextos donde no haya elementos culturales que favorezcan su acción.” (Álvarez 2001: 276) (Azpimarrak ez dira gureak)

²⁵ “Now the standardization of history through a canonical textbook is only one, albeit a particularly important, way of forging an imagined community. There are others. The creation of a canonical literature represents another popular strategy: Shakespeare, Milton and Wordsworth; Racine, Moliere and Balzac; Pushkin, Tolstoy and Lermontov, become icons of the new imagined community, creating in their reading publics a communion of devotees and providing the national image with a textual fabric. Music can also serve this collective purpose; a Sibelius or Chopin has done as much for the image of Finland and Poland and the cultural communion of Poles and Finns as has a Runeberg or Mickiewicz.” (Smith 1999 [1995]: 166)

²⁶ “And here lies the point: these artefacts have created an image of the nation for compatriots and outsiders alike, and in doing so have forged the nation itself. Signifier and signified have been fused. Image and reality have become identical; ultimately, the nation has no existence outside its imagery and

Eraikuntza hori, ordea, nazionalismoaren tresnen ondorio dela errana dugu. “Nazionalismo” kontzeptuari berari dagokion hausnarketa ondoko atalean bildu dugu (1.1.3.). Horri ekin aitzin, ordea, terminoari eragiten dion hirugarren ideia nagusia izanen dugu hizpide; izan ere, estatudun edo estatu gabeko nazio izateak erakusten du nazioen izaera desberdinek beren garapena zenbateraino baldintzatzen duten.

1.1.2.c. Hondarreko hamarkadak: estatudun vs estatu gabeko nazioak

Hondarreko ezaugarri baldintzatzailea estatudun edo estatu gabeko nazioa izatea da. Smithek eta Juncok aipaturiko ekarriez gain, “nazio” terminoak aldaketa garrantzitsua jasan du, azkenengo hamarkadetan; hobe erran, kontzeptuak berak baino gehiago, nazioak aztertzeko ikuspegiak nahiz ikuspegi hori babesten duten ikerkuntzek: azken hamarkadetan gero eta indar gehiago hartu du nazio estatudun eta estatu gabeen izana kontuan hartzen duen ikerkuntza bideak.

Estatu gabeko nazioak estatudunetatik desberdintzeak arrazoi nagusi bat du: estaturik gabeko nazioen garapena, zenbaitetan, estatudun nazioen paretsu izan arren, sobera handia da, sarri, batetik bertzerako aldea. Hala, bada, euskal komunitatea hizpide izanen dugularik, ezinbertzean erreparatu beharko diogu estatu gabeko nazio izateagatik 1960-1990 bitartean gertatu zen garapen nagusiari.

Garapen horren giltza M. Guibernauk ematen du, estaturik gabeko nazioen ikerkuntza zehaztua aldarrikatzen duen teorialariak:

A key feature when considering nations without states is the degree of dissatisfaction felt by their members concerning their present situation. They tend to regard the state within which they are included as ‘alien’, as an ‘obstruction’ to the development of their nation, or as a ‘burden’ which takes a great deal of their resources and does not provide them with sufficient benefits. (1999: 33)

Nazioek muga horiek eta eraikuntza nagusia bideratzeko dituzten tresna nagusietarikoak da nazionalismoa; horregatik, estatu jabetzak markatzen duen desberdintzea nazionalismoan eragile izanen da, baina, beti ere, estatu jabetzak modu desberdinean eraginen dielarik. Batetik, estatudun nazioetan bideratzen diren nazionalismoek kideen eta kanpokoen arteko zedarrria muga fisikoen ezarpenarekin abiatzen dute, eta, normalki, kultur oinarriak izanen lituzke, akieran, oinarri: “En el caso

its representations. Let me give another European illustration. Recent Swiss historians have devoted some attention to the 700th anniversary of the Swiss *Eidgenossenschaft*. Their researches have revealed that both the official date for the foundation of the Confederation (1291) and the interpretation of it as a foundation myth were inventions of the nineteenth century.” (*Loc. cit.*)

español fue la monarquía la que marcó los primeros límites del grupo, al establecer unas fronteras con Francia o Portugal, a cuyos súbditos definió como ‘extranjeros’ o ‘enemigos’ ” (Álvarez 2001: 189).

Estaturik gabeko nazioetako nazionalismoak, ordea, ez omen lirateke hain lan nabarmenetan hasiko, eta elite *intelektualen²⁷ esku legoke muga gisa funtzionatuko luketen ezaugarri kulturalak sortu, asmatu edo (berriz) aurkitzea.

Durante mucho tiempo, estas marcas fueron ante todo lingüísticas o religiosas, aunque siempre complementadas con referencias históricas, es decir, con la evocación de una “memoria colectiva” de la colectividad en la que se acentuaban sus glorias y, sobre todo, sus agravios –las derrotas militares, las humillaciones, la explotación económica, las matanzas y atrocidades– recibidos de esos extranjeros o vecinos a los que las élites movilizadoras tenían interés en presentar como rivales u opresores. (*Ibid.*: 189-190)

Azpinarratu ditugun hiru ideia horiek direla medio –irrika berria, “nazio asmatua” eta estaturik gabeko nazioak–, bildu nahi izan ditugu “nazio” kontzeptuaren ulertze nahiz teorizazioan eragin nabaria izan duten aldaketak. Guziz bat heldu gara teoriariek terminoaren eta egitatearen garapenean ezarri dituzten mugari nagusiekin: nazioen ikerkuntzarako oinarrizko garapena bideratu dituzte XIX. mendean gehituriko irrikak, XX. mendean gehitu zen “asmakuntzaren” garapen teorikoak eta estatu jabetzak sortzen dituen aldeak.

Segidako orrialdeetan, nazio horiekiko atxikitzearen gauzatze nagusietarikoari erreparatu diogu: nazionalismoari. Ikusiko denez, adiera mugatua nagusitzen den arren, oinarrizko erranahiak ongi islatzen du tesian solasgai izanen den nazio-komunitatearen garapena.

1.1.3. Nazionalismoa

Tesian zehar hizpide izanen diren oinarrizko terminoen sarrera teorikoari akiera emateko, nazionalismoari buruz arituko gara. Horretarako, bi ideia nagusitan bildu dugu lanean zehar beharko den hausnarketa multzoa. Idatzian nazionalismoari erreferentzia zergatik egiten diogun ulertu ahal izateko, oinarrizko gogoeta proposatzen dugu (1.1.3.a); segidan, terminoaren egokiera aurkeztua delarik, adituek egin izan duten sailkatze nagusiaz arituko gara (1.1.3.b).

²⁷ Ikus A eranskineko “Intelektual vs *intelligentsia*, vs kultur gile” sarrera.

1.1.3.a. Nazionalismoa: adiera ideologikoa vs adiera oinarrizkoa

Nazio eta komunitate oinarrien aurkezpenarekin akitzeko, komeni da “nazionalismo” terminoak izan duen garapena eta, bereziki, erabilera hausnartzea; izan ere, nazionalismoek, funtsean, partekatzen duten “dotrina” adituek identifikatu badute ere, kontzeptuak bere baitan bi adiera nagusi altxatzen dituela agertu nahiko genuke: *adiera ideologikoa²⁸ eta *oinarrizko adiera²⁹ –intuitiboki, lehenaren oinarrian sumatzen duguna–.

Beraz, adituen erranak ekarriko ditugu gogora. Nazionalismo bakoitzak izaera desberdina izan arren, Anthony D. Smithek bortz puntutan bildu zuen nazionalismoek muinean luketen “dotrina” (1999: 188-189): mundua izaera desberdina duten nazioz osatua da; bertzetik, botere politikoaren eragile bakarra nazioa da; hirugarrenik, nazioarekikoa da bertze ezein leialtasunen gainetik dagokeena; laugarrenik, banako askatasuna nazioa dela medio soilik lor liteke; eta, azkenik, mundu mailako bake eta segurtasuna nazio askeetan oinarritua izan ahal da, bakarrik. Horiek horrela, munduaren antolaketa eta askatasun indibidual nahiz kolektiboa nazioek bideratuak dira.

Bortz ideia nagusi horiek hainbat helburuk bideratuak izan arren, zenbait motibo errepikatu egiten dira:

The *movement* that embraces these propositions strives for several goals. But certain themes recur. The nation must have a distinctive identity, a definite ‘national character’. The nation must be unified. It cannot tolerate internal divisions, territorial or social. It must exemplify *fraternite* and appear like a vast family, a family of many families. Finally, the nation must be truly free, that is, autonomous, living according to its own inner laws, without external compulsion. (*Ibid.*: 189) (Azpimarrak ez dira gureak)

Horiek kontuan izanik, honakoa proposatzen zuen Smithek:

On this basis, I would define nationalism, not as a general sentiment, but as a definite ideological movement for attaining and maintaining autonomy, identity and unity of a social group, some of whose members deem it to be an actual or potential ‘nation’. (*Loc. cit.*)

Adituek erranekin bat heldu garen arren, gure iduriko, sobera aisa jotzen dugu nazionalismoa mugimendu eta dotrina ideologiko batekin identifikatzera; hori hala gertatu arren, bada, “nazionalismo” hitzaren funtsean, adiera abstraktuagorik. Funtsezko adiera horri “adiera oinarrizkoa” deitu diogu; aldiz, normalki ulertzen dugun nazionalismoaren ideari, “nazionalismo ideologikoa”.

²⁸ Ikus A eranskineko “Nazionalismoa” sarrera.

²⁹ Ikus A eranskineko “Nazionalismoa” sarrera.

Adiera ideologikoa

Adiera ideologikoa dela medio, zera eman nahi izan dugu aditzera: normalki, nazionalismoaz dihardugunean, talde antolatu eta egituratua –ideologia bertsuaren baitan bildua– oinarrian duen ekimena eman nahi izaten dugu aditzera. Partaide sentitzen diren nazioaren autonomia maila desberdinak aldarrikatzeaz haratago, helburu hori lortu nahi izatearen inguruan antolaturiko jende taldea da, adiera honen muinean. Ziur aski, nazionalismoaren adiera honek ideologia egituratua duke ezaugarri nabariena, eta, hain zuzen ere, horren baitakotzat uler genezake Smithek aipatzen zuen “dotrina”.

Oinarrizko adiera

Oinarrizko adierari, ordea, sarri ez diogu behar adina izaera berezkorik esleitzen, normalki, ideologia egituratu bat giblean duen adierari erreparatzen baitiogu. Alabaina, atzendu egiten dugu badirela nazio bateko partaide sentitzeagatik, nazio hori bera sostengatuko duten ekimen eta errebindikazioak, baina ideologia egituratu eta bateratu gabeak izan ahal direnak.

Urrutira gabe, 1960-1975 bitarteko kultur moldatzea birmoldatze nazionalista izan zen, baina bere baitako ekimenek ez zuten –beti, bederen– ideologia nazionalista egituraturik izan, giblean. Nazioaren aldeko ekimenak biltzen dituen adiera hau, ordea, adiera ideologikoaren oinarrian da, ezinbertzean. Horregatik, egiazki “nazionalismo” hitzaren izaera oinarrizkoa onartu ezean, nekez uler liteke nazio desberdinek garai diferenteetan agerturiko jokaerarik.

Beraz, batetik, nazionalismoaren adiera ideologikoz aritu gara. Hau da, jendarte antolatu batek partaide sentitzen den nazioarekiko duen konpromisoa hiru aldetarik sortzen den lanaz: ekimen egituratu, etorkizuneko helburuetan eta, bereziki, ideologia komun batean biltzen delarik sortua. Bertzetik, oinarrizko adiera modu abstraktuan identifika genezake: nazioaren partaide sentitzearen ondorioz gauzatzen den lan bulkatzaile gisa. Aritu hori nazionalismoaren oinarrizko adiera litzateke, eta, beraz, nazionalismo ideologikoa garatzeko ezinbertzeko funtsa. Bertzerik da, abstrakzio horren izaera praktikoan, nazionalismoaren adiera oinarrizkoa ez ote den hagitz sarri gertatzen nazionalismo ideologikoaren pizkundearen aitzinpausoetarik bat gisa.

Berriz ere gurera etorriaz, nazioaren kontzientzia berpiztea, 1960-1975 bitartean, eraberritze kulturala dela medio gertatu zen; hori dela eta, “nazionalismo” hitzaren

adierarik oinarrizkoenari atxiki gatzaizkio, sarri, lanean zehar. Erran nahi baita komunitate baten oinarrizko izaera partekatua xerkatzeko, defendatzeko eta sustatzeko lan gisa ulertu dugula nazionalismoa; ez, espresuki, ideologia egituratu baten inguruan bilduriko pentsamendu eraiki moduan. Izan ere, hizpide izanen dugun euskal kultur moldaketa nazioaren suspertzea –beraz, ekimen nazionalista– izan zen arren, ez dugu doktrinadun mugimendu egituratuekin parekatu nahi izan.

1.1.3.b. Dikotomia nagusia

Nazionalismoaren ideiak adar aunitz biltzen ditu. Horien artean, bibliografia nagusian behin eta berriz errepikatzen direnak dira alde kulturala eta politikoa. Jakina denez, nazionalismoak biak izaten ditu eragile nahiz tresna. Zernahi gisaz, nazionalismo bakoitzaren izanak bulkatu izan ditu ikerlariak nazionalismo politiko edo kulturalaren gailentzea izan dela baieztatzen. Ondoko pasarteetan, nazionalismoaren bi alderdi nagusi horien arteko aldeez, balizko dikotomiez eta elkarreraginez arituko gara.

Edozein gisatan, lehenik, arestian aipatuak kontuan izanik, “nazio” eta “nazionalismo” terminoei buruzko hausnarketa bateratua egin nahiko genuke; izan ere, usu, bien aldiberekotasunak bakoitzaren izana desberdintzea lausotzen du. Nahasmen horren muina nazio eta nazionalismoak idealki bereizi ohi diren tipologian da: nazio eta nazionalismo zibiko-politiko eta etniko-kulturalen.

Nazioaren gauzatze nagusi bakoitzak bere nazionalismo baliokidea hurbil izan arren, ezin atzendu dugu hagitz hertsia dela bertze nazionalismoak dituen ezaugarriekiko elkarreragina. Alegia, nazio mota bakoitzari ez dagokio, ezinbertzean, eite bereko nazionalismorik; izan ere, arestian erran gisa, tipologia horren oinarrian, bi nazio nahiz nazionalismo molderen arteko dikotomia baita. Alabaina, errealitatea guziz bertzelakoa izan ohi da, eta batetik bertzerako jauziak eta bata bertearekiko dituen mugak aski lausoak izaten dira. Hori dela eta, nazio tipo bakoitza “legokiokoen” nazionalismoarekin bateratzera jotzen dugu, baita alderantziz ere; errealitatean, aldiz, desberdin gauzatzen dira kontuak.

1960-1990era bitartean, euskal komunitatea hagitz helburu kultural nabariak zituen komunitatea izatetik, helburu politikoek gero eta pisu handiagoa izatera heldu zen; 1975etik aitzinako prozesuan, helburu politikoek arrunt baldintzatu zuten nazioaren adar kulturalaren garapena. Ondorioz, 1960-1990 bitarteko prozesuan, euskal komunitateak ezaugarri desberdinak biltzen zituen nazio molde eta nazionalismoak

garatu zituen. Are gehiago, lanak aitzina egin ahala sumatuko denez, 1975etik aitzina, gero eta politikoagoa izan zen nazioak sostengu zuen nazio kulturalaren irudikatzea.

Nazionalismo etniko-kulturalaz orokorrean ari garelarik, kasu, sarri jotzen dugu nazio etniko-kultural batekin baliokidetzera³⁰. Guretako akats larria da nazio eta nazionalismo –lehenaren aldeko mugimendua– izateak berdintzea, nahastea edo desberdintasunik ez ezartzea. Nazio mota bat pareko nazionalismoarekin lotzeak nazionalismo batetiko begirada dugula baitakar; hots, nazionalismo mota ideal bakoitzak pareko nazio ideala proiektatuko du, baina egiazki errealitatean aurkitzen den nazioak ez du zertan bat etorri beharrik nahi edota desira horiekin.

Aitzitik, aldeak agerikoak behar lukete. Testuinguru beraren baitan, nazionalismo mota bakoitzak nazio desberdin bat irudika dezake, eta, beraz, hala behar dira sumatu nazioaren eta nazionalismoaren artekoak. Hori dela eta, bibliografian agertu ohi diren bi nazionalismo mota nagusiak laburki deskribatuko ditugu, baina horietariko bakoitzak proiektatzen edo irudikatzen duen nazioaren izana ere gaineratuz. Hartara, nazionalismo bakoitzaren muinaz haratago, uste dugu muin horren gibelean proiektu desiratua bera ere hobeki ulertuko dela.

Nazionalismo etniko-kulturala

Batetik, nazionalismo etniko-kulturala aipatu ohi da. Nazionalismo mota honen forma idealak lukeen funtsa agertzeko, baliagarria da Smithek XVIII. mendean akieran eta XIX. mendean hasieran agerturiko nazionalismo mota desberdinak azaltzeko erabiltzen duen deskribapena:

Unlike the more civic and territorial-political forms of nationalism common in Western Europe, ethnic nationalisms emphasised the importance of genealogical ties for national belonging, vernacular culture such as languages, customs and cults, a nativist ethno-history and shared folk memories, and popular mobilisation – the appeal to ‘the people’ as the ‘authentic’ voice of the nation. (Smith 2009: 67)

Ulertze horren gibelean, lege berdintasun edo hiritartasuna baino gehiago, hizkuntzaren eta ohituren gisako herri ondarea nahiz herri mobilizazioa estimatzen dira, hurrenez hurren.

³⁰ “Gurutx [Jaúregui] Bereciartu aclara que, según el nacionalismo étnico-cultural, ‘[...] el individuo va indisolublemente unido a su unidad nacional y, como tal, no tiene sentido alguno fuera de la comunidad de nacimiento.’ La nación étnico-cultural, por tanto, existe independientemente de sus miembros” (Silveira 2007: 24). Jaúreguiaren erreferentzia: Jaúregui, Gurutz, 1986, *Contra el Estado-nación: En torno al hecho y la cuestión nacional*. Madril: Siglo XIX, 68.

Gainera, Smithek nazionalismo etnikoak bertako historia kulturala eta kulturaren gauzate etnikoenak goستن dituela gaineratzen du, masa-kultura baino gehiago (1999: 190).

Hala, bada, Joan Ridao-k agertu gisa: nazionalismo kulturalarendako nazioaren esentzia da historia eta perfil kultural edota geografiko baten emaitza litzatekeen zibilizazio bereizgarria (*in* Silveira 2007: 24); nazioa kultura eta historia partekatzen duen komunitate gisa ulertzen da, senidetza loturak solidaritateak indartzen dituelarik, eta territorialitateak baino gehiago, genealogiak definitzen du nazio etnikoa (Smith 1999: 190).

Nazionalismo zibiko-politikoa

Bertzetik, nazionalismo zibiko-politikoa dugu. Banakoen onartzeak osatzen duen multzoa, legetan oinarritua eta adostua, da nazionalismo mota honen funtsa:

In this version, the individual must belong to a nation, but can choose which to join. Four features define the territorial nation: a definite, compact territorial homeland; common legal codes and the equality of all members before the law; the social and political rights of citizenship; and a shared 'civic religion' and mass, public culture. (*Loc. cit.*)

Hala, bada, nazionalismo zibiko-politikoan, nazioa kontzientzia arrazionalagoari dagokio. Oinarrian, nazioa osatu edo defendatu nahi duten pertsonen adostasuna da; beraz, leialtasuna eta bat etortzea dira balio nagusiak (Silveira 2007: 26). Gainera, Janete Silveira-k gaineratzen du bai nazioa, baita nazionalismo mota hau ere, politikaren, legeen, eremuko gisa ulertzen direla (*ibid.*: 27).

1.1.3. atalean nazio eta nazionalismoei buruzko azalpen nagusiak egin ditugun arren, kontzeptu horien erabilerak, metodologikoki, sortzen dituen arazoak azalduaz akitu nahiko genuke. Smithen nazioaren adiera historiko bikoitzaz zehaztu gisa (2009: 30), "nazio" kontzeptuak kategorizazio, definizio, bikoitza barne hartzen du:

we need to distinguish the concept of nation as an analytic category of community from its use in describing and enumerating the features of particular kinds and cases of the nation as an historical form. (*Loc. cit.*)

Nazioak, kategoria soziologiko gisa, denbora mugarik ez duen arren –"must therefore be transhistorical and cross-cultural" (*loc. cit.*)³¹, kasu zehatzen edo nazio

³¹ "By and large, nations tend to emerge, as we shall see, over long time-spans through the development of particular social and symbolic processes and their combinations, although there are significant

moten azterketetarako “need to be seen as historical forms of community which can be described and classified according to period, area or social and political context”³² (*loc. cit.*).

Kontzeptuen izaera orokor eta zehatzaren isla nazionalismoan ere sumatu dugu, nazionalismoaren azterketarako bi kategoria proposatu ditugularik: adiera ideologikoa eta oinarrizkoa.

Zernahi gisaz, bi kontzeptuok euskal komunitateak 1960-1990 bitartean jasan zuen kultur moldaketa ulertzeko baliagarri izanen dira; hain zuzen ere, hogeita hamar urte horietan komunitateak bere izana nola moldatu zuen eta zein ekimen abiatu zituen ulertzeko.

Beraz, 1.1. atalean nazio eta nazionalismoei buruz erranak bilduz, nazio mota bakoitzean momentuan momentuko ezaugarriekin bat den nazionalismoa³³ gailenduko dela ulertzen dugu, logikoa denez: “sus miembros [nazio kulturalarenak], están vinculados por el mito de un origen común y por una cultura única, que vive de acuerdo con códigos vernáculos en una tierra ancestral histórica” (Smith 2000b [1998]). Joan Ridaok, ideia berari jarraiki, nazionalismo kulturalarendako “la esencia de una nación es su civilización distintiva, producto de una historia y de un determinado perfil cultural o geográfico” (2005: 29, 192, *in* Silveira: 24).

Edozein gisatan, nazioen arteko dikotomia horren kontrako argudiatze interesgarria ageri da, Silveiraren tesian (“Conclusión: La crítica a la dicotomía”, 280.-287. or.). Silveirak dioen gisa, hainbat arazo sortzen ditu dikotomia kontrako bi izateren aurkaritza gisa aurkezteak: nazio nahiz nazionalismoei buruz hala pentsatzea bien jite dialektikoa atzentzea litzateke –sinplekeriara jotzen delarik, ezinbertzean–. Errealitatearen konplexutasunaz ohartzeko balio arren –eta errealitatea bera aunitzez konplexuagoa baita–, biko aurkaritza ez da eraginkorra. Dominique Schnapper-ek erran

exceptions, particularly in the modern period when the ‘blueprint’ of the nation and recipes for its creation become widely available.” (Smith 2009: 30)

³² “But nations are also constituted by shared memories, values, myths, symbols and traditions, not to mention the repeated activities of their designated members; and the patterning of these varied cultural elements over the long term produces a structure of social relations and a heritage of cultural forms that constitute a framework for socialising successive generations of the national community.” (*Loc. cit.*)

³³ Horretaz gain, nazionalismoen izana aldatuz joan denaren erakusgarri, Álvarez Juncok errana: “los nacionalismos del XIX tendían a la unificación, a la creación de grandes espacios estatales, al revés de lo que ocurre con los nacionalismos de finales del XX y comienzos del XXI, cuya tendencia dominante es la secesión o la reivindicación de gobiernos independientes y privilegios estatales por parte de espacios y culturas cada vez más pequeños” (2001: 524).

gisa: “las oposiciones binarias son un procedimiento analítico, pero su utilidad no garantiza que la realidad se divida de tal modo” (Schnapper 2001 [1994]: 151, *in ibid.*: 280).

Halatan, nazio mota nagusiei erreferentzia egiten zaielarik, forma idealak dira buruan, errealitatean egiazki aurkituko ez ditugunak. Bien arteko elkarreragina ezinbertzekoa da, nazioek aitzina eginen badute. Tesiaren hirugarren atalean, lotura saihestezin horri erreparatuko diogu: nazio kulturalak botere politikoa kide behar duen gisa, alde politikoa gero eta nabariago nagusitzen joan zelarik, 1975etik aitzina, laguntzarik behinena, gurean, oinarri kulturala izan zen.

Agidanez, nazio bakoitzak nazionalismo desberdinak bildu ditzakeen gisa, azken horietarik bakoitzak garatu ahalko du nazioaren irudikatze desberdina. Horrenbertzez, nazionalismo desberdinek beren ezaugarri nagusiekin bat heldu den nazioa defendatuko dute. Berariaz diogu defendatu; izan ere, nazionalismo ororen helburu nagusia irudikaturiko nazioaren babestea izaki, hura legitimatzeko beharrezko arituak garatuko ditu nazionalismoak. Nazionalismoen funtsa zera da, nazioaren izana arriskuan jartzen duen egitate eta testuinguru guzietatik gordetzea.

Hain zuzen ere, nazionalismoaren adiera horri atxiki gatzazkio lan guzian zehar; hau da, 1960tik aitzina espresuki abiatutako garaian abiatu ziren euskal komunitatearen eta komunitateak osatzen zuen nazioaren babeserako ahaleginak: guk espresuki landuko dugun alderdi kulturalak gune izan zuen sentimen nazionalista horren funtsa, nagusiki. Ikusiko dugunez, laneko hirugarren kapituluan, 60etatik abiatutako nazionalismoaren jardunbide kulturala gero eta politikoagoa izan zen; nazionalismoaren oinarri, sostengu eta abiaburu.

1.2. Kultura eta sinboloak

“Kultura” terminoa modu desberdinetara ulertu izan da, eta behatu izan zaio, garai desberdinetan. Ondoko orrialdeetan, ikuspegi nagusien berrikustea eginen dugu. Horretarako, John B. Thompsonen eskaintzen duen ibilbidearen (1990: 124-145) laburpena egin dugu (1.2.1.). Segidan, kulturaren eta sinboloen arteko harremanean erdiratuak diren ikuspegiatarik hiru aditurenak bilduko ditugu (1.2.2.); izan ere, horietarik bakoitza izan baita tesian zehar erabiliko dugun kultur ikuspegi nahiz azterketarako oinarritzko tresna –Ernst Cassirer, ikuspegi nagusia izateko; Pierre Bourdieu, Thompsonen erreferentzia nagusietariko bat delakotz; eta Thompson,

baliabide sinbolikoak aztertzeko proposatuko ditugun moldatze teorikoetarako erreferentzia nagusia baita—. Akitzeko, adituen artean, forma sinbolikoen azterketarako gune izanen dugunaz arituko gara (1.2.3.) –John B. Thompsonen—.

1.2.1. Kulturara hurbiltzeko moduak

John B. Thompsonen kulturaren ulertze eta bertara hurbiltzeko hiru modu nagusi izan direla aipatzen du: ulertze klasikoa, ulertze antropologikoa –zeinak ulertze deskribatzailea eta ulertze sinbolikoa barneratzen dituen— eta ulertze estrukturala. Ulertze sinbolikotik abiatu izan dira Clifford Geertzen ikerlanak. Thompsonen, ordea, hainbat ahulgune sumatu zituen, Geertzen ikuspegiaren formulazioan; bertzeak bertze, ikerlariak arreta gutiegi eskaintzen zuela sinbolo nahiz akzio sinbolikoak txertatuak diren gizarte erlazio estrukturaleri. Hala, bada, ordezko ulertze gisa, kulturaren “ulertze estrukturala” proposatu zuen. Ikuspegi horren arabera:

Cultural phenomena [...] may be understood as symbolic forms in structured contexts; and cultural analysis may be construed as the study of the meaningful constitution and social contextualization of symbolic forms. (*Ibid.*: 123)

Errepara diezaiogun, lehenik, kultura ulertze horietarik bakoitzaz Thompsonen argituari; hala, berrikusi ahal izanen dugu kultura kontzeptuak, historian zehar, izaniko ibilbide nagusia.

1.2.1.a. Ulertze klasikoa³⁴

Ukertze klasikoa XVIII. mendearen akiera eta XIX. mendearen hasieran ondu zen, eta, garapenaren oinarrian, filosofo eta historialari alemanak izan zituen; ulertze horren arabera: “*culture is the process of developing and ennobling the human faculties, a process facilitated by the assimilation of works of scholarship and art linked to the progressive character of the modern era*” (*ibid.*: 126, azpimarra ez da gurea). Ulertze horren funtsa gaur egun darabilgun “kultura” kontzeptuan ere ageri den arren, kontzepzio klasikoaren izaera murriztaile eta hertsiki horrek aunitz mugatzen du erabilgarritasuna; hortaz, aunitz mugatu zuten kulturaren ideia klasikoa “goi-mailako” balio eta kalitateak landu beharrean jartzen zen indarrak, erudizio nahiz arte arituekiko begiruneak eta Ilustrazioko garapenaren ideiarekiko atxikimenduak.

³⁴ “Culture and Civilization” azpiatalean erranak (Thompson 1990: 124-127).

Aldaketarik behinena XIX. mendearen akieran gertatu omen zen, kultur antropologiaren esparru berrira hurbiltzearekin batera. Garai hartan, kulturak biltzen zituen hainbat konnotazio etnozentriko alde batera utzi, eta deskribapen etnografikoen zereginetara moldatu zen. Halatan, kulturaren aztertzaileak Europaren muinean lirakeen adimen eta izpiritua goestearekin baino gehiago, Europako “bertze” ziratekeen gizarteetako ohitura, praktika eta usteak argitzearekin ziren arduratuak (*ibid.*: 127).

1.2.1.b. Ulertze antropologikoak³⁵

“Kultura” kontzeptua antropologiaren garapenari hain hurbileko gisa ulertu izan da, non, kasik bien eremuak bateratu gisa sumatu izan diren. Antropologiaren adar nagusietarik bat kulturaren azterketa konparatiboa izanik –beraz, azterketa gune garrantzitsuenetarik bat izaki–, ez da harritzeko, Thompsonek azaldu gisa, “kultura” terminoa bera modu desberdinetara erabili izana. Bi erabilera nagusi bereizten ditu ikerlariak: ulertze deskribatzailea eta ulertze sinbolikoa.

(1) Ulertze deskribatzailea

Ukertze horren arrastoa sumatzen omen da, gaurgero, XIX. mendeko kultura historiagileen idatzietan. Thompsonen hitzetan, aldeak alde, honako ezaugarriak partekatuko lituzkete kulturaren ulertze deskribatzailearen jarraitzaileek:

the culture of a group or society is the array of beliefs, customs, ideas and values, as well as the material artefacts, objects and instruments, which are acquired by individuals as members of the group or society (ibid.: 129) (azpimarra ez da gurea)

Alabaina, deskribapen horretatik abiatu, eta kulturaren ikerketak fenomeno desberdinen azterketa, sailkapena nahiz alderatze zientifikoa eskatu arren, iritzi desberdinak agertu ziren, kulturaren azterketan nola jardun beharri dagokionez. Gustav Friedrich Klemm-ek³⁶, adibidez, europarrak ez ziren gizarteentzako deskribapen etnografikoan jarri zuen fokua. Mundu guziko tribuetatik abiatuz eta deskribapen sistematikoz, gizadiaren mailaz mailako garapena azaltzen saiatu zen.

Edward Burnett Tylor-ek³⁷ ezagutzen zituen Klemmen lanak; Tylorren ikuspegiak kultura aztertzeko hainbat uste metodologiko erakutsi zituen. Bere lanetan agertu zuen

³⁵ “Anthropological Conceptions of Culture” azpiatalean erranak (*ibid.*: 127-135).

³⁶ Azterlan erranguratsuenetarikoa *Allgemeine Cultur-Geschichte der Menschheit* (1843 eta 1852 bitartean argitaratua, 10 liburukitan).

³⁷ Azterlan erranguratsuenetarikoa 1871n, bi liburukitan, argitaraturiko *Primitive Culture*.

kultura ikerketa zientifiko eta sistematikoaren begiradapean aztertu beharra, kulturaren “zientziaraztea” –“scientization of the concept of culture” (*ibid.*: 128)– gertatzen joan zelarik. Zientziarazte horrek, ordea, ez zuen lausotu terminoak jatorrian zuen aurrerabide zentzurik. Horregatik:

In addition to analysing, classifying and comparing, the study of culture should seek, according to Tylor, to reconstruct the development of the human species, with a view to re-assembling the steps that led from savagery to civilized life. (*Ibid.*: 128-129)

Hortik heldu zen, beraz, Tylorrendako, kulturaren biziraupenari³⁸ zegokion kezka (*ibid.*: 129). Tylorrek proposaturiko begirada garaiko giroari hagitz atxikia izan zen. XIX. mendearen akierako giro kulturalak, orokorrean, zientzia positiboak eremu berrietara egokitu, eta, darwinismoak eragin handia izan zuen arren, gero eta eragin gutiago izan baitzuen haren itzalak intelektualengan.

Antropologoen artean, kasu, Bronislaw K. Malinowski-k –1930-1940 bitartean idatziriko lanetan– “kulturaren teoria zientifiko”aren alde egin zuen, Thompsonen hitzetan. Antropologoak harturiko bideak ikuspegi interesgarria eskaintzen du, guretako; izan ere, bere teoriaren egituratze osoa zehazki besarkatzen ez dugun arren, giza-beharretan ezartzen baitu fokua; hau da, gertakari kulturalak giza-beharrekiko gogobetetzeari erreparatuz aztertzeko proposamena egin zuen. Malinowskirendako, fenomeno kulturalen funtzio azterketak –hots, horiek pertsona beharrak nola gogobetetzen dituzten– abiapuntu behar zuen, eboluzio eskema nahiz giza-garatzeko faseen azaltze saio orotan (*loc. cit.*).

Thompsonen kultura kontzeptuaren garapena azaltzeko marrazten duen bidean, Malinowskirena ulertze deskribatzailearen baitako bertsio gisa irudikatzen du; Thompsonen ustez, bat letorke ikuspegi deskribatzailearen ezaugarriak partekatzen dituzten intelektualekin.

Zernahi gisaz, hainbat arazo edo ahulgune sumatzen ditu ikerlariak, ikuspegi deskribatzailean. Batetik, ikuspegiko adar desberdinek, eta adar horietan diren uste asoziatuek –“associated assumptions”–, osatuko lukete ahulguneetarik bat, kulturaren ulertzeak berak baino gehiago. Ulertze deskribatzailearen indar gunea sistematikoki eta modu zientifikokian azter zitezkeen gertakari zenbaiten definitzea da; horregatik, uste horiek zalantzan jartzean, ikuspegiaren erabilgarritasuna kamustu egiten da. Bertzetik,

³⁸ “that is [“survival in culture”], with those residues of previous cultural forms which persist into the present, and which attest to the primeval and barbaric origins of contemporary culture.” (Thompson 1990: 129)

Malinowskik darabilen “kultura” kontzeptua ezpaian jartzen du, kontzeptuak eremu desberdinetarako lukeen hedadura eta erabilgarritasuna zalantzazkoak direla uste baitu.

Used to embrace everything that ‘varies’ in human life, apart from the sheer physical and physiological characteristics of the human being, the concept of culture becomes co-extensive with anthropology itself, or more precisely with ‘cultural anthropology’. (*Ibid.*: 130)

Iduri duenez, nahasmen hori saihestu nahiak bulkatu ditu antropologoak kulturaren bertzelako formulazioen bila abiatzera.

(2) Ulertze sinbolikoa³⁹

Antropologiaren eremuan, giza bizitzaren izaera sinbolikoak ulertze sinbolikoa izan du aztergune. Thompsonnek kulturaren ulertze sinbolikoa hizpide duelarik –Geertzen ikuspegitik abiatuta–, honakoa adierazi nahi izan du:

culture is the pattern of meaning embodied in symbolic forms, including actions, utterances and meaningful objects of various kinds, by virtue of which individuals communicate with one another and share their experiences, conceptions and beliefs. (*Ibid.*: 132) (Azpimarra ez da gurea)

Adiera horri jarraiki, kulturaren azterketak erranahien patroiak sumatzea ekarriko luke; hau da, forma sinbolikoei erantsiriko azalpen interpretatiboa argitzea.

Leslie A. White⁴⁰ izan zen, hain zuzen, giza-bizitzaren izaera sinboliko hori lagundu zuen azterlari lehenetarikoa. Alabaina, hark abiatutako bideak fokua kulturaren izaeraz bertzelako gaietan jarria zuen; teknologian, espresuki (*ibid.*: 131).

Ondotik, adiera hori garatu dutenen artean, Geertz aipatzen du Thompsonnek; izan ere, azken honendako, Geertz izan da, antropologiari buruzko lanen baitan, ekarririk garrantzitsuena. Geertzen jakin-minak fokua erranahian, sinbolismoan eta interpretazioan jarria zuen:

Believing, with Max Weber, that man is an animal suspended in webs of significance he himself has spun, I take culture to be those webs, and the analysis of it to be therefore not an experimental science in search of law but an interpretive one in search of meaning. It is explication I am after, construing social expressions on their surface enigmatical. But this pronouncement, a doctrine in a clause, demands itself some explication. (Geertz 1973: 5)

Geertzendako kultura egitura adierazgarrien hierarkia geruzatua izaki, banan-banan deskribatu behar lirateke ekoiztu, hauteman eta interpretatzen dituen jendearendako adierazgarriak diren geruza erranahidunak. Hortaz, kulturaren azterketa jatorrizko interpretazioen gaineko berrinterpretatzeak dira, gaugerero norbaitzuekiko

³⁹ “The symbolic conception” azpiataletik hartuak (*ibid.*: 130-135).

⁴⁰ XX. mendekoa, 40ko hamarkadan gauzatu zuen *The Science of Culture*.

baden mundu baten deskribapenak. Halatan, etnografoak –diskurtso soziala, haren adiera adierazgarria, jaso eta idatziz– oinarri finkoa ematea luke helburu; gisa berean, hori abian jartzen dituztenendako luketen erranahia ulertu nahiz. Hala, bada, garapenen eskemetatik edota erregulartasun enpirikoetatik baino gehiago, literatur testu baten gaineko interpretaziotik hurbilago legoke lana. Hori dela eta, azterketa mota honek zera eskatuko luke:

What it requires is not so much the attitude of an analyst seeking to classify and quantify, but rather the sensitivity of an interpreter seeking to discern patterns of meaning, to discriminate between shades of sense, and to render intelligible a way of life which is already meaningful for those who live it. (Thompson 1990: 132)

Hortaz, kulturaren ulertze deskribatzaile eta sinbolikoa hagitz jarduera desberdin gisa aurkezten ditu Thompsonnek. Lehenean, azterketa eta sailkapen zientifikoari loturiko uste asoziatuekin –aldaketa ebolutibo eta interdependentzia funtzionalarekin lotuak diren horiekin– erlazionatuak; bigarrean –eta, zehazkiago, Geertzek proposaturiko ikuspegian–, flora eta faunaren sailkapenak baino gehiago, testuen interpretatzetik hurbilago da ikuspegia.

Geertzen ikuspegiak berekin dakarren gakoetarik bat ulertze deskribatzaileak dakarren jarreraren kontra da:

What it [kulturaren ikerketak] requires is [...] the sensitivity of an interpreter seeking to discern patterns of meaning, to discriminate between shades of sense, and to render intelligible a way of life which is already meaningful for those who live it (*loc. cit.*).

Badu, gainera, ikuspegi horrek ekarri nagusi bat, Thompsonendako. Aditu honen ustez, Geertzek kulturaren ikerkuntza erranahi eta sinbolismorantz bideratu du, interpretazioak hurbiltze metodologiko gisa lukeen garrantzia azpimarratuz, gainera.

Zernahi gisaz, Thompsonnek hainbat ahulgune sumatzen ditu, Geertzen proposamenean. Hona horien laburpena⁴¹:

- 1) Batetik, kulturaren ulertze sinbolikoa zehazten saiatu arren, “kultura” terminoaren erranahi zehatza ematean huts egiten du, adiera batean baino gehiagotan baitarabilki Geertzek hitza. Bertzeak bertze, forma sinbolikoei erantsiriko erranahi patrietatik urruti, giza-jokabidea zuzentzen duten arau eta egitasmo gisa aurkezten du kultura:

⁴¹ (Thompson 1990: 132-135)

culture is best seen not as complexes of concrete behavior patterns—customs, usages, traditions, habit clusters—as has, by and large, been the case up to now, but as a set of control mechanisms—plans, recipes, rules, instructions (what computer engineers call “programs”)—for the governing of behavior. (Geertz 1973: 44)

the culture concept to which I adhere has neither multiple referents nor, so far as I can see, any unusual ambiguity: it denotes an historically transmitted pattern of meanings embodied in symbols, a system of inherited conceptions expressed in symbolic forms by means of which men communicate, perpetuate, and develop their knowledge about and attitudes toward life. (*Ibid.*: 89)

Ondorioz, Thompsonnek dio Geertzek hizpide duen “kultura”k, naturari buruzko ikuspegiak eta kulturari dagokion analisiak iduri baino adiera ilunagoa dutela.

- 2) Bertzetik, Geertzek oinarrian duen “testu” adiera bera ahulgune gisa deskribatzen du Thompsonnek. Geertzen lana testuaren adierarekin lotua da, eta nozio hori Paul Ricoeur-engandik hartu zuen; baina, bi modu desberdinetan darabilki Geertzek Ricoeurrengandik harturiko adiera. Kultur azterketaren eta testuen arteko lotura azaltzeko darabilzkien bi ideia horiek, gainera, problematikoak dira, Thompsonendako.

Zenbaitetan, kultur azterketaren eta testuen arteko erlazioa ezartzeko, Geertzek adierazten du etnografiaren jardura testuen ekoizpena dela; beraz, lan tresna diren “testu etnografikoek” giza-diskurtsoan errana “finkatuko” lukete. Thompsonnek “finkatu” behar horretan arazoak sumatzen ditu, ez baita ulertzen testu etnografikoek aztergai diren pertsonen diskurtsoa finkatzerik, edota finkatu beharra izaterik. Ricoeurren proposamenetan, ordea, ez da azterlari zientifikoen eta aztergaiaren artean halako erlaziorik ezartzen.

Bertzetan, argudiatu egiten du —azterketa kulturala testuekin lotua izatearen arrazoitzat— etnografoak antzeman nahiko lituzkeen erranahi patrioiak, berez, testu gisa eraikiak direla; kultura “testu multzo”, “dokumentu antzeztu” edota “giza-materialekin eraikiriko irudimenezko lan” gisa identifikatuz⁴². Zailtasunak analogia horren oinarri diren usteetan dirateke. Horren erakusgarri, Thompsonnek Geertzen iturri den Ricoeurren azalpenetara jotzen du, zuzenean:

But Ricoeur’s conceptualization of the text, his arguments in favour of treating action as a text and his theory of interpretation can all be questioned in certain fundamental respects. [...] I think that it can be shown that Ricoeur’s approach involves an unjustifiable reification of

⁴² Thompsonnek ideia honi buruz emaniko erreferentziak: Geertz, Clifford, 1973, *The Interpretation of Cultures*. AEB: Basic Books, 10, 448-449; eta Geertz, Clifford, 1983, *Local Knowledge: Further Essays in Interpretative Anthropology*. New York: Basic Books, 30-31.

action and misleading abstraction from the social-historical circumstances in which actions, utterances and, indeed, texts are produced, transmitted and received. (1990: 134)

- 3) Hirugarrenik, Geertzek ez die aski erreparatzen giza-gatazka eta botere arazoei. Garai eta testuinguru zehatzetako jendeak momentuko baliabide, botere, autoritate nahiz ahalbideekin fenomeno adierazgarriak sortzen dituztelarik, bertzeren batzuek jaso, barreiatu eta interpretatzen dituzte. Azken horren testuinguru soziohistorikoa, ordea, partikularra izanen da. Geertzen ikuspegian, zehazte horien gabezia sumatzen omen da; hau da, ez da ageri gertakari kulturalak botere harremanen adierazgarri direnik, ezta egoera zehatzetan botere harreman horien izana mantentzeko edota moldatzeko balio dutenik ere. Gainera, horiek jasotzen dituztenengan ez da ulertze desberdin, edota kontrajarri nahiz gatazkatsuen, hautematerik erreparatzen. Aitzitik, enfasia gertakari kulturek izan dezaketen erranahiean jartzen du -ez, beraz, subjektu desberdinek egin ahal ditzaketen interpretazio kontrajarri eta gatazkatsuetan—⁴³.

Hori guzia aztertutik, eta espresuki Geertzengan pentsatzen duelarik, Thompsonnek adierazten du kulturaren ulertze sinbolikoak botere nahiz gatazka arazoei eta giza-testuinguru egituratuei nahikoa arretarik jartzen ez diela. Hori dela eta, kulturaren ulertze estrukturala proposatzen du.

(3) Ulertze estrukturala⁴⁴

Erran gisa, Thompsonnek, Geertzengandik jorraturiko ikuspuntutik abiatuz, kulturaren ikuspegi estrukturalaren alde egiten du. Hurbiltze mota honek fenomeno kulturalak testuinguru egituratuen barrenean ulertzen ditu; hortaz, bai fenomeno horien izaera sinbolikoari, baita fenomenoak testuinguru sozial egituratuetan txertatuak izateari ere, erreparatzen zaio.

Idea horretatik abiatuz, hala definitzen du Thompsonnek ikerketa kulturala:

⁴³ Honek sortzen dituen arazoak argudiatzeko, berriz ere, Geertzen iturri izaniko Ricoeurren ideietara jotzen du Thompsonnek: "In this regard, Ricoeur's model of the text is likely to be somewhat misleading. For the key characteristics of the text, according to Ricoeur, is its 'distanciation' from the social, historical and psychological conditions of its production, in such a way that the interpretation of the text can be based on an analysis of its internal structure and content alone. But to proceed in this way is to ignore the ways in which the text, or the analogue of the text, is embedded in social contexts within which, and by virtue of which, it is produced and received; it is to disregard the sense that it has for the very individuals involved in creating and consuming this object, the very individuals for whom this object is, in differing and perhaps divergent ways, a meaningful symbolic form" (1990: 135).

⁴⁴ "Rethinking Culture: A Structural Conception" azpialetetik bilduriko informazioa (*ibid.*: 135-145).

the study of symbolic forms – that is, meaningful actions, objects and expressions of various kinds – in relation to the historically specific and socially structured contexts and processes within which, and by means of which, these symbolic forms are produced, transmitted and received. (1990: 136) (Azpimarra ez da gurea)

Kulturaren ulertze estrukturalak bi ezaugarri azpimarratzen ditu: gertakari kulturalen izaera sinbolikoa –“the symbolic character of cultural phenomena” (*ibid.*: 136)– eta gizarteko testuinguru egituratueta txertatuak izatea –“the fact that such phenomena are always embedded in structured social contexts” (*loc. cit.*)–. Gisa horretan, elementu sinbolikoei testuinguru sozial egituratuekin erlazioan erreparatzen zaielarik, komunikazio masiboaren nondik norakoei buruz hausnartu ahal izatea aldarrikatzen du Thompsonnek; hain zuzen ere, komunikazio mota horrek gune ditu –hein batean, bederen– lanean zehar hain sarri aipagai izanen ditugun forma sinbolikoak: beren ekoizpena eta transmisioa. Izan ere:

mass communication is concerned, in certain ways and by virtue of certain means, with the production and transmission of symbolic forms. Mass communication is certainly a matter of technology, of powerful mechanisms of production and transmission; but it is also a matter of symbolic forms, of meaningful expressions of various kinds, which are produced, transmitted and received by means of the technologies deployed by the media industries. Hence the emergence and development of mass communication may be viewed as a fundamental and continuing transformation of the ways in which symbolic forms are produced and circulated in modern societies. (*Ibid.*: 123)

Halatan, Thompsonnek zera identifikatzen du kultura modernoaren adierazgarri nagusitzat: XV. mendetik, elementu sinbolikoen ekoizpena eta zirkulazioa “become caught up in processes of commodification and transmission that are now global in character” (*ibid.*: 124).

Thompsonnek zehaztu gisa, “kultura” kontzeptua antropologiaren garapenari atxikia izan da; antropologiaren adar nagusi bat, bederen, kulturaren ikerketa konparatiboaz arduratzen baita (*ibid.*: 127). Hori dela eta, 1.2.1. atalean, antropologian kontzeptua ulertzeko izan diren adiera nagusiak laburbildu ditugu: ulertze klasikoa eta antropologikoa –deskriptiboa eta sinbolikoa–; bertzalde, gaineratu egin dugu Thompsonnek proposatzen duen ulertze estrukturala.

Segidan den atalean, forma sinbolikoen ulertze desberdinetarik, tesian erabilgarrien izanen direnak bilduko ditugu; horien artean izanen da, preseski, Thompsonen ekarria.

1.2.2. Sinboloak aztertzeo hainbat ikuspegi

Sinboloen errealitateaz aritzeko, hainbat ikerlariren lanetara jo dugu, laguntza eske. Ikusiko dugunez, ikerlari bakoitzak ikuspegi osotu indibiduala garatu zuen arren, aniztasun horretan, sinboloen baitako aldagai bertsuak sumatu ditugu. Komunitateko kideen identitateaz eta berek abiatutako kultur moldaketaz ari garelarik, ez dugu sinboloen garrantzia nazioei, identitateei edo nazionalismoei buruzko teoriekin identifikatu nahi izan; ez horrekin soilik, bederen. Hala, sinboloen indarrari eta horien eraginari testuinguru zabalago batean erreparatzen dien ikuspegia besarkatu dugu.

Nazioen garapenari buruzko azalpenek hagitik formulazio interesgarriak eskaintzen dituzten arren, zabaldu nahi izan dugu fokua; sinboloen eraginak nazio garapenen ildoaz baino aunitzez haratago jotzen duelarik, uste dugu *sinbolo amaraunaren⁴⁵ ideiak lagundu egiten duela 1960tik 1990era bitartea –eta orduetik aitzina– modu osotuagoan ulertzen. *Euskal Literatur Sistema (ELS)⁴⁶ garaikidea euskal kultur moldaketaren birmoldatzearen eta proiektu nazionalaren ondorio den gisa, hondarreko biak izan baitziren errealitate sinbolikoaren berregituratze zabalaren ondorio zuzena.

Lehenik eta behin, Ernst Cassirerrek zeinu eta sinboloak direla eta erranak laburbildu ditugu (1.2.2.a.). Ondotik, sinboloen inguruko azterketetan izan diren garapenei erreparatu diegu; hau da, esparru horren inguruko azterketek izaniko eboluzioa izan dugu kontuan. Gisa horretan, Cassirerren proposamenaz haratago, sinboloen izanari ikuspegi zabalagoz behatu izan dioten adituen lanetara jo dugu: Pierre Bourdieu-k proposaturikoak laburtzeaz gain (1.2.2.b.), espresuki landuko dugu John B. Thompsonen forma sinbolikoei buruz errana (1.2.2.c) –“1.2.3. Sinboloak aztertzeo ikuspegi bateratzailea: John B. Thompson” atalean, zabalago–; izan ere, honek eskaini baitzikigu bertze azterlarienganako lotura eta gure lanerako behar genuen fokua.

Akitzeko –sinboloen biderei hondarreko bulkada ematen diolarik, tesian–, etno-sinbolismoak baliabide sinbolikoak direla eta egiten duen proposamenera jo dugu, 1.3. atalean. Hartara, sinboloen errealitatera hurbiltzeko azalpen mugatuetatik zabalagoetara jo dugun arren, beharko ditugun tresna nagusiak bildu ditugu: espresuki aztergai dugun kultura testuinguru zehatzean lantzen lagunduko digutenak.

⁴⁵ Ikus A eranskineko “Sinbolo amarauna/sarea” sarrera.

⁴⁶ Ikus A eranskineko “Euskal Literatur Eremua (ELE) eta Euskal Literatur Sistema (ELS)” sarrera.

1.2.2.a. Cassirerren ekarpena

Beraz, batetik, antropologia filosofikoaren ikertzaileetarik baten lanetara jo dugu, oinarri teorikoen bila; hala ere, Cassirerrek erranetarik bi ideia nagusi nabarmenduko ditugu, soilik: zeinu eta sinboloen banaketa eta “sinbolo amarauna” delakoa.

Idea horiek nabarmendu izanaren arrazoiak bi izan dira. Batetik, sinboloen eta zeinuen arteko aldea landu zuelakotz, espresuki; eta, bertzetik, alderatze horri azken hamarkadetako azterlanetan garatu diren ideien aurrekaria erantsi ziolakotz: sinbolo amaraunak Historia Kultural Berrian hain aipagarri den sarearen –amaraunaren– ideia –elkarreraginean oinarrituriko harreman sarea– zuen oinarrian. Ernst Cassirerren *Gizakiari buruzko entseia: Giza kulturaren filosofiari sarrera* (1995 [1944]) liburuan aurkitu ditugu zeinuen eta sinboloen arteko sintesia nahiz “sinbolo amaraun” delakoaren teorizazioa.⁴⁷

Cassirerrek sinboloez eta zeinuez erranetatik, zazpi ideia nagusi bildu ditugu: zeinu nahiz sinboloen aldeak azpimarratzen dituzten sinboloen izanari, beren erreferentziazko elementuari, eragin-eremuari, funtzioari eta beharrari buruzko ideiak (1995 [1944]: 73-85; gaztelaniazko itzulpena⁴⁸ 1963: 32-40).

1) Sinboloak ezin dira seinale hutsetara mugatu

Diskurtoaren alde desberdinei egiten diete erreferentzia: seinaleak mundu fisikoan diren gisa, sinboloak pertsonaren zentzuaren munduari dagozkio; seinaleak operadoreak dira, sinboloak, aldiz, izendatzaileak (“operadores”, “designadores”).

2) Sinboloak, unibertsal adina aldakor

Izaera unibertsala izanagatik, hagitx aldakorak dira sinboloak. Zeinu edota seinalea, berriz, erreferentzia duen gauzarekiko modu bakar eta finkoan da harremanean, eta, beraz, zeinu zehatz eta banako bakoitzak erreferentzia egiten dio gauza jakin eta indibidualari. Sinboloen izana hagitx bertzelakoa da: ez dira zurrinak, mugikorak baizik. Pertsonon sinboloak beti berdin mantentzeak baino gehiago, beren aldakortasunak ezaugarritzen ditu.

⁴⁷ Zernahi gisaz, ikusiko dugunez, Cassirerrek sinbolo amarauna dela eta proposaturiko batasunari falta zitzaion sinboloen garatze prozesuan parte hartzen duen alde zenbait. Hortik heldu da beranduagoko ikerlarien proposamenetara jo behar izanaren arrazoibidea.

⁴⁸ Euskarazko itzulpena, zenbaitetan, sobera argia ez denez, gaztelaniazko itzulpena ere jarri dugu.

3) Erreferentziazko elementua izatea

Seinaleek elementu fisiko edo substantziala duten gisa, sinboloek balio funtzionala dute bakar-bakarrik.

4) Funtzio sinbolikoaren eragin eremua

Funtzio sinbolikoa, kasu partikularrez haratago, aplikazio unibertsala duen printzipioa da; pertsonon pentsamenduari besarkatua dena, gainera.

5) Funtzioaren garrantzia

Pertsonak ez du, bere munduaren eraikuntzan, material sentsiblearen kalitatearekiko mendekotasunik. Hala, bada, eraikuntzarako materialak berak baino gehiago, eraikuntzan duten funtzio orokorra da egiazki adierazgarri.

6) Pentsamendu sinbolikorik gabe, Platonen haitzuloan preso geundeke

Mundu idealerako sarrera itxia genuke: erlijio, arte, filosofia eta zientziarik gabe, pertsonon bizia behar biologiko eta interes praktikoetara mugatua litzateke.

7) Sinbolismoaren printzipioa, giltza gisa

Sinbolismoaren printzipioa espresuki pertsonon mundura, kulturaren mundura, hurbiltzeko giltzarria da. Gako hori izanik, ondoko garapena ziurtatua litzateke.

Sinboloen ezaugarriak zazpi ideiatan bildu ditugu; ideia horiek aski abstraktuak dira, eta batek baino gehiagok pentsa dezake sobera airean geratzen direla, gure gaietara hurbiltzeko. Alabaina, ondoko paragrafoetan erakutsiko dugunez, izaera abstraktu horren erabilgarritasuna handia da, hagitx tresna baliagarria gertatu baita, euskal komunitatearen birmoldatze kulturalaren izaera nagusia atzemateko.

Zeinuen eta sinboloen arteko bereizkuntza eta, bereziki, sinboloen ezaugarriak oinarri izanik, Cassirerrek Johannes von Uexküll biologoaren proposamenetik abiatzen du sinboloen sistemak gizakiongan duen garrantzia azaltzeko bidea. Azken honek ikerketa biologikoaren azterketa berria garatu zuen: errealitatea guziz dibertsifikatua delarik, ez da ez homogeneo, ezta bakarra ere. Aitzitik, Cassirerrek bildu gisa, "Organismo bakoitza da, nolabait esateko, izaki monadikoa" (Cassirer 1995 [1944]: 63; 1963: 25). Berezko mundua du, eta, beraz, esperientzia berezitua; hortaz, biologia espezie bakoitzaren fenomenoak transferi ezinak dirateke. Organismo bakoitza, ordea, inguruneari hagitx egokitua da, eta, horretarako, bi sistema nagusiren laguntza ezinbertzekoa du: sistema hartzailea eta sistema egilea. Bien arteko oreka ezinbertzekoa

litzateke; izan ere, elkarri hagitz lotuak izanik, sistema hartzaileak kanpotiko estimuluak jaso, eta, sistema egilea dela medio, erantzuten die. Halatan: “Uexküllek *funtzio-zirkulu* (*Funktionskreis*) modura deskribatzen dituen katea berberaren begiak dira bi sistemok” (Cassirer 1995 [1944]: 64; 1963: 26, azpimarra ez da gurea).

Idea horietatik abiatuz, ondoko galdera egiten du Cassirerrek: Uexküllen eskema baliagarria al da pertsonen mundua deskribatu eta zehazteko? Galdera horren inguruko gogoetek, gezurra iduri badu ere, sinboloen mundura eramaneen gaitu, Cassirerren eskutik:

ezaugarri berri bat aurkitzen dugu giza munduan, giza bizitzaren bereizgarria dirudiena. Gizakiaren zirkulu funtzionala ez da kantitatez bakarrik zabaldu; aldaketa koalitatiborik ere izan du horrek. Nolabait esateko, bere burua bere inguruneari moldatzeko metodo berria aurkitu du gizakiak. Animalia [*sic*] espezie guztietan aurkitzen diren sistema hartzailearen eta sistema ihardeslearen arteko lotura egiten duen beste bat aurkitzen dugu gizon-emakumeengan, *sistema sinbolikoa* alegia. Lorpen berri honek gizakiaren bizitza osoa eraldatzen du. (*Loc. cit.*) (Azpimarra ez da gurea)

Hortaz, pertsonak, inguruarekin koordinatzeko, ezinbertzeko baliabidea dute “sistema sinboliko” deritzona. Kanpo-estimuluei emaniko erantzunen bideratzaile gisa funtzionatuko luke, gure ustez; bideratzaile, kinadei testuinguruari egokituriko jarrerak, ekintzak eta erantzunak ematen laguntzen duen heinean⁴⁹. Horregatik, sinboloak gune dituen egitura honek biziraupenerako ahalbideak eskainiko lituzke; hau da, halabeharrezko baldintza da, bizirik irauteko oinarritzkoa den egokitapena lortzeko.

Hala, bada, pertsonak ezin ihes egin dio unibertso sinbolikoari; hau da, lengoaiak, mitoak, arteak eta erlijioak osatzen duten amaraunari eta bertatiko esperientziari:

Gizakiak bere pentsamenduan eta esperientzian duen aurrerapen orok findu eta indartu egiten du sare hori. Gizon-emakumeek ez daukate dagoeneko bitartekorik gabe errealitatearekin topo egiterik; ezin dute hori aurrez aurre ikusi, nolabait esateko. Errealitate fisikoa atzeraka doala dirudi, gizon-emakumeen jarduera sinbolikoak aurrera egiten duen neurrian. Gauzekin beraiekin jardun beharrean, bere buruarekin ari da nolabait gizakia elkarrizketan. Hain dago sartua hori forma linguistikoen, irudi artistikoen, sinbolo mitikoen edo erlijiozko errituen barruan, non ezin baitu ezer ikusi edo ezagutu ingurune artifizial horren bitartez ez bada. (Cassirer 1995 [1944]: 65; 1963: 26)

⁴⁹ “Ukaezinezko aldea dago gizon-emakumeen erantzunen eta bestelako organismoen erreakzioen artean. Azken horiek zuzeneko erantzun artegabee ematen diote kanpo estimulari; gizalaguna, berriz, luzatu egiten da erantzuna ematean: eten eta atzeratu egiten du hori, pentsamendu-prozesu astirokoa eta korapilatsua bitarteko” (Cassirer 1995 [1944]: 64-65; 1963: 26). Filosofoak “pertsonen erantzun” gisa izendatzen dituenetan, ez legoke erantzun bakar, egoki eta “zuzen” sistematikorik, “erreakzio organikoetan” leudekeela pentsa litekeen gisa. Aitzitik, sinboloen sistemaz ari garelarik, uste dugu sistema horrek pertsonen erantzuna bideratu, eta testuingurura egokituko lukeela.

Cassirerrek aurkezten duen sistemak guretako espresuki erranahitsu diren bi alderdi bateratzen ditu: sinboloen sistemak kanpo-estimuluen pertzepzio, erantzun eta egokitze amarauna baldintzatzen du, bai; baina, era berean, munduarekiko esperientzian behar-beharrezko bitartekoa da. Hau da, Cassirerrek sinboloen sistema aurkezten du egokitze prozesuetan funtzionalitatea bilatzen duen oinarrizko zutabeetarik bat gisa.

Adituaren azalpenak, ordea, baliabideen azterketari sobera zurrunki behatzen diola iduritu zaigu; erran nahi baita, sobera lauso geratzen dira –sinboloen errealtate partekatua egituradun kode edo arau lotu gisa irudikatu nahirik– sinboloen eraikuntzan, formulatzean, moldatzean eta birmoldatzeetan parte hartzen duten alderdietarik zenbait. Hori kopontzeko, baliabide sinbolikoen izanari espresuki erreparatu dion bertze azterlari baten lanetara jo dugu: John B. Thompsonen proposamenetara.

Thompsonen lanak kultura lantzeko modu zabala eskaintzeaz gain, aukera eskaini digu, zabaltasun horretan, sinboloek duten garrantzia, partikulariki, zehazteko. Gainera, modu koherentean baliatzen ditu sinboloen azterketan arituriko ikerlari nagusien ekarriak: Geertzen lanetatik abiatu, eta, bertzeak bertze, Bourdieuren lanetara joaz.

1.2.2.b. Bourdieuren ekarpena

Bourdieuren ekarpenak giza eta gizarte zientzien alor desberdinei modu zabalean eragiten dienez, ikerlariak berak bere aritua non kokatzen duen azaltzen abiatuko dugu bidea. Bourdieuk bere lana konstruktibista-estrukturalista edota estrukturalista-konstruktibista gisa deskribatzen du. Izendatze estrukturalistarekin ez dio Ferdinand de Saussure eta Lévi-Strauss-ek erabiliriko zentzuari erreferentziarik egiten; aitzitik:

By structuralism or structuralist, I mean that there exist, within the social world itself and not only within symbolic systems (language, myths, etc.), objective structures independent of the consciousness and will of agents, which are capable of guiding and constraining their practices or their representations. (Bourdieu 1989: 14)

Eta konstruktibismoa hizpide duelarik, zera eman nahi du aditzera:

that there is a twofold social genesis, on the one hand of the schemes of perception, thought, and action which are constitutive of what I call habitus, and on the other hand of social structures, and particularly of what I call fields and of groups, notably those we ordinarily call social classes. (*Loc. cit.*)

Ikergunea, ordea, –modu orokorrean, bederen– pixka bat muga liteke: Bourdieuren ikerlan aunitzek kultur jasotzearen eta herentzia kulturalaren arteko erlazioa aztertzea izan dute gune nagusietarikoa. Hori dela eta, kultur eremuaren

ikerkuntzarako ekarri aunitz egin ditu; alabaina, ondoko paragrafoetan agertuko ditugunak espresuki izanen dira lanean zehar hizpide diren ideietarako erabilgarriak direnak. Halatan, soziologoaren ikuspegi osotua baino gehiago, lanerako baliagarrien izan direnak soilik bildu ditugu. Hortaz, irakurleak sumatuko du kulturaren, sinboloen eta nazioen arteko harremana eta garapena ikertzeko, bertze ikerlarietarako lotura agerrarazten duten ideiak aipatuko ditugula; eta, kontrara, Bourdieuren ekarpen aunitz aipatu gabe geratuko dira.

Batetik, beti ere Bourdieuren ekarritik abiatuz, ikergai eta ikerketaren balizko subjektibitatearen mitoaz arituko gara; bertzetik, soziologiaren erabilera aipatuko dugu; azkenik, ikerlariak kulturaren ikerketari eskaini dizkion termino eta ideia nagusi zenbait laburbilduko ditugu –“*habitus*”, “osatzeko boterea” edo “power of constitution” eta “botere sinbolikoa”–. Hartara, ikerlariaren lanetako alderdi zabalez gain, hizketagai izanen ditugu kulturaren ikerketarendako egin zituen ekarri zehatzagoak ere.

Errana dugu, tesi honetan –kultur arituak azterketa gune izaki–, hainbat esparru desberdin baina osagarri erreparatu beharko diegula. Pentsatzekoa da halako aniztasuna –aniztasun horren presentzia norbanakoaren begiradaren araberrakoa da, ordea– subjektibitate-objektibitate kinkan sumatuko dutela irakurleentzat anitzek; bertzeak bertze, Bourdieuren hitzak gogora ekarriaz, gizarte zientziak –dela antropologian, soziologian edo historian– bi alderdi horien artean kokatzen dira. Hala ere, ikerlariak berak erran gisa, iduriz dira soilik bi alderdi horiek bateraezin (*loc. cit.*). Errealitatean, bata bertzeari atxikiak izan ohi dira, eta elkarren osagarri gisa parte hartzen dute, kultur sisteman: batetik, gizarte kontu eta lanak leudeke, eta, bertzetik, horietatik abiatuz, gizabanakook eraikitzen ditugun errepresentazioak, guti goiti-beheiti. Bourdieuk erran gisa:

the two moments, the objectivist and the subjectivist, stand in a dialectical relationship (Bourdieu 1977)⁵⁰ and that, for instance, even if the subjectivist moment seems very close, when taken separately, to interactionist or ethnomethodological analyses, it still differs radically from them: points of view are grasped as such and related to the positions they occupy in the structure of agents under consideration. (*Ibid.*: 15)

⁵⁰ Bourdieuk ematen duen erreferentzia: Bourdieu, Pierre eta Jean-Claude Passeron, 1977 [1970], *Reproduction in Education, Society, and Culture*. London: Sage.

Hala, bada, Bourdieuk “The ‘social reality’ objectivists speak about” pertzepziorako objektu dela aldarrikatzen du, gizarte zientziek bi-biak –errealitatea eta errealitate horren pertzepzioa⁵¹– ikergune gisa hartu beharko lituzketelarik⁵².

The spontaneous visions of the social world, the “folk theories” ethnomethodologists talk about, or what I call “spontaneous sociology,” [sic] but also scientific theories, sociology included, are part of social reality, and, like Marxist theory for instance, can acquire a truly real power of construction. (*Ibid.*: 18)

Beraz, laburbilduz, Bourdieuren ustez, soziologiak munduaren pertzepzioa aztertzen duen soziologia behar luke: “that is, a sociology of the construction of visions of the world which themselves contribute to the construction of this world” (*loc. cit.*). Ikuspegi horiek kokapen zehatzetatik helduak izaki, erlazio zuzena ezartzen du Bourdieuk espazio sozialaren eta ikuspegiaren artean: “there will be different or even antagonistic points of view, since points of view depend on the point from which they are taken, since the vision that every agent has of the space depends on his or her position in that space” (*loc. cit.*). Agenteek duten munduaren ulertze aktiboa eta munduaren ikuspegia eraikia dela ukatu ez arren, eraikuntza horiek egitura mugek eginak lirateke.

Soziologoak pertzepzio edota errealitate sozialetan aldagaitzak diren formek hainbat kontu ezkututzen dituztela baieztatzen du (*loc. cit.*): batetik, “this construction is not carried out in a social vacuum but subjected to structural constraints”; bertzetik, “structuring structures, cognitive structures, are themselves socially structured because they have a social genesis”; azkenik, “the construction of social reality is not only an individual enterprise but may also become a collective enterprise”.

Zernahi gisaz, agenteen errepresentazioak beren *habitusak*⁵³ baldintzatuak lirateke; erran nahi baita agenteen irudikatzeak beren posizioak, posizio horietatik eratorririko interesak eta *habitusak* baldintzatuak direla (*loc. cit.*). Ikerlariak proposaturiko terminoarekin, agenteen eta ingurunearen arteko harremana zehazteko

⁵¹ Pertzepzio horren isla dira, kasu, kultur moldaketan sumatzen ditugun sinbolo berreskuratze, moldatze, sortze, birmoldatze eta egokitze oro.

⁵² “social science must take as its object both this reality and the perception of this reality, the perspectives, the points of view which, by virtue of their position in objective social space, agents have on this reality.” (Bourdieu 1989: 18)

⁵³ *Habitusaren* izana dela eta, idazki berean: “a system of schemes of perception and appreciation of practices, cognitive and evaluative structures which are acquired through the lasting experience of a social position. Habitus is both a system of schemes of production of practices and a system of perception and appreciation of practices. And, in both of these dimensions, its operation expresses the social position in which it was elaborated”, “Habitus thus implies a ‘sense of one’s place’ but also a ‘sense of the place of others’” (*ibid.*: 19).

aitzina pauso garrantzitsua eman zuen soziologiak; izan ere, agertu egiten du agenteen kokaguneak eta gizarte mundua atzemateko erabiltzen den *habitusak*, funtsean, mundu horretako egiturak barneratu izanaren ondorio direla.

Edozein gisatan, ez da hori izan soziologoak kulturaren azterketari egin dion, eta gure lanerako espresuki baliagarri izan den, ekarpen bakarra; kontrara, guretzat hagitx garrantzitsua den “osatzeko botere” ideia ere argitu du Bourdieuk. Euskal komunitatean, 1960-1990 bitartean, izan zen kultur moldatze nagusiari buruz ari ginela, garrantzitsua iduritu zaigu Bourdieuk osatzeko boterea dela eta erranak honata ekartzea; izan ere, botere mota honen azalpenekin, bertze hainbat ikerlariren lanekiko harremanak ezarri ahal baitira. Gainera, lagundu egiten du erdigune dugun kultur moldaketaren nondik norakoak ulertzen.

Hala definitzen du Bourdieuk –John Dewey amerikarrarengandik abiatuz– eratzeko boterea, bere adiera filosofiko eta politikoan:

a power to preserve or to transform objective principles of union and separation, of marriage and divorce, of association and dissociation, which are at work in the social world; the power to conserve or to transform current classifications in matters of gender, nation, region, age, and social status, and this through the words used to designate or to describe individuals, groups or institutions. (*Ibid.*: 22-23)

Halatan, osatzeko boterearen eragina suma dezakegu, 1960tik aitzinako kultur prozesu guzian zehar. Bourdieuk botere honi buruz erranak geuretzat, ingurunea aldatu ahal izateko, aldatu egin behar izan ziren ingurune-mundu-errealitate hori eratzen zen modua, errealitate horren atzematea eta euskal komunitatea “egin” edota “berregiteko” ekiteak berak; zehazki, garai berrietara egokitu, eta egokitze horretatik atzemate berria garatu.

Azkenik, botere sinbolikoaren ideia hurbildu nahiko genuke. Botere sinbolikoak⁵⁴ bi oinarri nagusi ditu, Bourdieurendako (*ibid.*: 23). Batetik, funtsa kapital sinbolikoaren jabe izatean da; banaketa sozialaren ideia zehatza bertzeengan ezartzeko, ordea, aitzineko gatazkatan lorturiko eta metaturiko autoritate soziala litzateke beharrezko –hortaz, botere sinbolikoa prozesu bateko garapenaren ondorioa da–. Bertzetik, eraginkortasun sinbolikoa baldintzatuko du bai proposaturiko ikuspegiak, bai bertan gordea den errealitatearen atzemateak inguruarekiko bat egiteak –korrespondentziak–.

⁵⁴ “whose form [botere sinbolikoarena] par excellence is the power to make groups (groups that are already established and have to be consecrated or groups that have yet to be constituted such as the Marxian proletariat)” (*ibid.*: 23).

Obviously, the construction of groups cannot be a construction *ex nihilo*. It has all the more chance of succeeding the more it is founded in reality, that is, as I indicated, in the objective affinities between the agents who have to be brought together. (*Loc. cit.*)

Botere sinbolikoa, beraz, gaugero badiren gauzak konsagratzeko edo agerrarazteko boterea da; zeinahi gizarte taldek talderen pertenezia nahiz “bertze”engandik bereizteko joera agerrarazten dituelarik.

Ondoko azpiatalean ikusiko dugunez, John B. Thompsonnek Bourdieuren ekarriak erabili ditu, bere ekarri propioaren argigarri.

1.2.2.c. John B. Thompsonen ekarpena

Hondarreko ikuspegi honi buruz deus guti aitzinatuko dugu, azpiatal honetan; izan ere, segidan heldu den atalean aztertuko ditugu, xehekiro, bai Thompsonnek forma sinbolikoak direla eta proposatua, baita guk –ikerlariak erranetarik– lanerako onesten duguna ere.

Zernahi gisaz, hasiera honetatik beretik, Thompsonnek proposatzen duen ideia nagusiarekiko atxikitzea azpimarratzea komeni da. Abiapuntu gisa *Ideology and Modern Culture* liburua izan dugu, soziologoak bertan agertzen duen ideia nagusietariko batekin guziz bat gatozalarik: bat heldu gara sinboloen izaera ideologikoa berezko ezaugarria ez dela agertzen duen ideiarekin (Thompson 1990: 8)⁵⁵.

Beraz, agerikoa denez, ez dugu sinboloen izaera ideologiko berezkorik onartzen, tesi honetan; gainera, ideologiko izate horretan Thompsonnek eginiko zehazteekin ere bat heldu gara: testuinguru jakinetan forma nahiz sistema sinbolikoez egiten den erabilerak eta ulertzeak ematen diete sinboloei izaera ideologikoa. Testuinguruak duen garrantziagatik erreparatu nahi izan diogu, hain justu, testuinguru jakinak eta forma nahiz sare sinbolikoak harremanetan jartzeko zubi gisa aritzen den alderdiari: funtzionalitateari. Tesian aitzina egin ahala ikusiko dugunez, funtzionalitateak ahalbidetzen ditu sinboloen eta testuinguru jakinen arteko harremana gertatu ahal izateko egokitzeak –onartze, ezezte edota moldatzeak barne harturik beti ere, noski–. Horregatik, guretako, ezinbertzeko tresna bihurtu da funtzionalitatea; baliabide sinbolikoekin loturiko prozesuak –tradizioaren berreskuratze eta moldatze egokituak, erraterako– lantzeko.

⁵⁵ “The proposed reformulation [ideologia kontzeptuarena] also enables us to avoid the tendency, prevalent in the literature, to think of ideology as a characteristic or attribute of certain symbolic forms or symbolic systems *as such* (conservatism, communism, etc.). From the approach I develop here, it follows that symbolic forms or symbolic systems are not ideological, and the extent to which they are, depend on the ways in which they are used and understood in specific social contexts.” (Thompson 1990: 8)

Sinboloak eta sinbolikoa aztertzekeo bildu ditugun erreferentziek laguntza eskainiko digute, azterketan zehar; beraz, bidea erraztuko digute Cassirerren sinbolo sarearen ideiak eta Bourdieuk darabiltzan ikuspegi nahiz kontzeptuek. Alabaina, 1960-1990 bitarteko euskal kultur moldaketaren errealitate zabalari behatzeaz gain, espresuki komunitatearen alde zehatzagoen ikerketa egingen dugu. Horretarako, ezinbertzekoa izanen da euskal komunitatearen errealitate sinbolikoaren islel erreparatzea.

En el sentido extensivo con que aquí lo asumimos, siguiendo a Geertz, lo simbólico es el mundo de las representaciones sociales materializadas en formas sensibles, también llamadas “formas simbólicas”, y que pueden ser expresiones, artefactos, acciones, acontecimientos y alguna cualidad o relación. En efecto, todo puede servir como soporte simbólico de significados culturales: no sólo la cadena fónica o la escritura sino también los modos de comportamiento, prácticas sociales, usos y costumbres, vestido, alimentación, vivienda, objetos y artefactos, la organización del espacio y del tiempo en ciclos festivos, etcétera. (Giménez 2005: 68)

Gilberto Giménez-ek agertzen duen ikuspegian, aisa suma liteke, adibidez, hainbat eremuk erranahi kulturalen eroale gisa izan dezakeen garrantzia. Bigarren eta hirugarren kapituluetan, hain zuzen ere, literaturaz arituko gara, zehazki, baliabide sinboliko baten, tradizioaren, agergune den heinean.

Aitzinez, ordez, baliabide sinbolikoen azterketarako abiapuntu izanen den erreferentzia nagusiaz arituko gara. John B. Thompsonnek forma sinbolikoak ikertzekeo proposatzen dituen oinarri teorikoak emateaz gain (1.2.3.), horien egokitzea egingen dugu (1.4.).

1.2.3. Sinboloak aztertzekeo ikuspegi bateratzailea: John B. Thompson

Thompsonnek eskuragarri jartzen dituen tresna teorikoak guk ditugun helburuez bertzelakoetarako izan ziren pentsatuak; hizpide dugun *Ideology and Modern Culture* liburuan, teorialariak izan zuen helburu nagusietarik bat zera izan zen, ideologiaren⁵⁶ eta masa-komunikazioaren arteko erlazioa kontuan izatea (3. or.). Tresna horietarik zenbait, haatik, tesian ikergai izanen ditugun aztergaiak lantzekeo hagitz baliagarriak izanen dira.

⁵⁶ “If I take the concept and theory of ideology as my starting point, it is because I believe that there is something worthwhile, and worth sustaining, in the tradition of reflection which has been concerned with ideology. Although there is much that is misleading and much that is erroneous in this tradition, we can nevertheless distil from it a residue of problems which retain their relevance and urgency today. The concept and theory of ideology define a terrain of analysis which remains central to the contemporary social sciences and which forms the site of continuous and lively theoretical debate.” (*Ibid.*: 2)

Thompsonen “ideologia”⁵⁷ kontzeptuaren birformulatzearen mesedetan aztertzen ditu, bertzeak bertze, guretako hain argigarriak diren hainbat ideia: mota desberdinetako forma sinbolikoek erranahia nola egituratzen duten; forma sinbolikoak txertatuak diren testuinguru sozialaren izana zein den; eta menderatze erlazioek, testuinguru zehatzetan, forma sinbolikoak nola baldintzatzen dituzten, adibidez.

Bere ustez, teorialari garaikideek huts egin dute masa-komunikazioaren izana eta garapena aztertzerakoan, baita gizarte modernoetan, ideologiaren bitartekari gisa, jokatu duen papera aztertzerakoan ere (*ibid.*: 10). Zehazkiago, espezifikatzen du kultur moldaketaren narratiba nagusiak –“grand narrative of cultural transformation”–, baliagarriak izanagatik, hainbat oinarrizko alderdi landu gabe gelditzen direla: gizarte modernoaren garapenak izan duen birmoldatze kultural nagusia alde batera utzi dute. Hau da:

the rapid proliferation of institutions of mass communication and the growth of networks of transmission through which commodified symbolic forms were available to an ever-expanding domain of recipients. This is the process that I describe as the mediatization of modern culture. This process constitutes, in my view, one of the key transformations associated with the rise of modern societies. (*Ibid.*: 11)

Thompsonen, aipaturiko prozesuak egungo munduaren nondik norakoak hobekiago, edo osokiago, ulertzen lagunduko liguke; egungo mundua osatua baita komunikazio sare erakundetuen eta sinbolo sistema teknikoaren ekoizte nahiz transmisioak baldintzaturiko esperientzia pertsonalez.

Thompsonen proposatzen duen “ideologia” kontzeptua “meaning in the service of power” gisa deskribatzen duen duelarik, aldarrikatu egiten du:

I shall argue that the concept of ideology can be used to refer to the ways in which meaning serves, in particular circumstances, to establish and sustain relations of power which are systematically asymmetrical – what I shall call ‘relations of domination’. Ideology, broadly speaking, is *meaning in the service of power*. Hence the study of ideology requires us to investigate the ways in which meaning is constructed and conveyed by symbolic forms of various kinds, from everyday linguistic utterances to complex images and texts (*ibid.*: 6-7) (azpimarra ez da gurea)

⁵⁷ “In their view [“these secular belief systems which some contemporary theorists describe as ‘ideologies’ ”], the development of industrial capitalism gave rise to an ‘age of ideologies’ which was inaugurated by the French Revolution and which culminated with the radical revolutionary movements of the early twentieth century. The grand narrative of cultural transformation thus allocates a specific role to the concept of ideology [...]. The concept of ideology is used to describe the systems of belief which – this theoretical narrative alleges – filled the cultural vacuum created by the decline of religion and magic, and which provided people with new forms of consciousness, new frames of meaning, in a world undergoing rapid and unprecedented social change.” (*Ibid.*: 11)

Horretarako, forma sinbolikoen testuinguruak ikertu beharko dira, eta forma sinbolikoen erranahiak nola laguntzen duen –testuinguru jakinetan– menderakuntza harremanak mantentzen edo moldatzen –laguntzen badu, bederen–. Hortaz, forma sinbolikoei ikuspegi zehatz batetik erreparatu beharra aldarrikatzen du Thompsonnek: testuinguru jakinetan erabili edota hedaturiko gizarte harreman egituratuek ahalbidetzen dituzten ekoizte, pizte, euste edota erreproduzitzeen ikuspegitik (*ibid.*: 7).

Guk, ordea, Thompsonnek argituriko bidea bertze helburu zehatzagoen mesedetan erabiliko dugu; izan ere, ikerlariak berak aitortu gisa, ikergune desberdinak lantzeko aukera eskaintzen du bere lanak. Horietarik aunitz liburuaren hirugarren kapitulu⁵⁸ bildu ditu adituak, eta, guk geronek ere, bertan aurkitu dugu tesian zehar baliagarri izanen den tresna teorikoetarik zenbait.

Hala, bada, EKS garaikidearen oinarrien garatze eta ondoko ezartze prozesuetan –1960-1975 eta 1975-1990 bitartean, hurrenez hurren– forma sinbolikoek izaniko eragina aztertzeko erabiliko ditugu. Hala ere, aztergaia ahalik eta modu egokituenean lantzeko asmoz, Thompsonnek azaldukoen bertze hainbat zehazte egin diegu. Batetik, Thompsonnek erranak ondoko hamarkadetan gaineratu diren ekarriekin bateratuz (Anthony D. Smith 2009; Guibernau 1996, 1999), tradizioak –euskar komunitatearen baliabide sinboliko gisa– izan duen garapena eta lehen finkatzea landu ahal izanen dugu; zehazki, tradizioaren bi agergunek jasaniko prozesuak –Ahozko Ondare Kulturalak (AOK) eta *euskar literatur tradizioak⁵⁹–. Bertzetik, guk geronek, forma sinbolikoen lanketarako, baliagarri diren hainbat alderdi garatu ditugu⁶⁰.

Zernahi gisaz, Thompsonnek forma sinbolikoak direla eta erranetarik, testuinguruarekiko ezartzen duen erlazioari iritzi diogu ideia garrantzitsuenetarikoa; izan ere, ikerlariaren ikuspegiak forma nahiz sistema sinbolikoak izaera ideologiko berezkorik ez dutela agertzen du: ideologikoak izatea eta izate horren hedadura, biak,

⁵⁸ “Some of the wider issues are pursued in chapter 3, where I examine some of the features of symbolic forms and explore their relation to social contexts which are structured in various ways.” (*Ibid.*: 7)

⁵⁹ Ikus A eranskinen “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera.

⁶⁰ Batetik, Thompsonen ondoko proposamenek lagundurik, “forma sinboliko” eta “baliabide sinboliko” arteko alderatzean sakondu nahi izan dugu (1.4.2., lehenengo egokitze teorikoa); hartara, erreparatu ahal izan diegu sinboloen lanketa eta ezagutzarako beharrezko izan diren alderdiei. Bertzetik, Thompsonnek “forma sinboliko” gisa aipatzen dituenak arakatzeko eta, bereziki, AOKren nahiz euskal literaturaren azterketan sakondu ahal izateko, funtzionalitatearen garrantzia azpimarratu behar izan dugu (3.1., 4.1., 7.1.); gisa horretan, aztergaietik abiatutako behar zehatzek bulkatu gaituzte baliabide sinbolikoen izanean berebiziko garrantzia duen hondarreko alde horren garatzera.

testuinguru jakinetan forma nahiz sistema sinbolikoez egiten den erabilerak eta beren ulertzeak baldintzatuak dira⁶¹.

Idea hori, ordea, forma sinbolikoen ezaugarrietarik bat gisa aurkezten du ikerlariak, eta, beraz, ondoko orrialdeetan, tasun horien berrikustea aurkeztuko dugu, lehenik.

1.2.3.a. Forma sinbolikoen eraikuntzan parte hartzen duten alderdi nagusiak

Bortz ezaugarri hauek direla medio, forma sinbolikoak⁶² “erranahidun fenomeno” gisa aurkeztu nahi ditu Thompsonnek.

Berariazko eitea: “the intentional aspect”⁶³

Forma sinbolikoak subjektu baten eta subjektu batendako adierazpideak dira. Ekoizleak hainbat helburu bilatu, edo berak erran nahirikoa adierazi nahi du, forma sinbolikoak direla medio. Gisa berean, adierazpideak norbaiti bideratuak direlarik, hartzaileak ulertzen du forma sinbolikoak norbaitek eginak direla. Hala ere, lehen ezaugarri nagusi honi buruz, bi kontu argitzen ditu teorialariak: batetik, ekoizpen hori, nahita ekoiztua izan beharrik gabe ere, hala izanen dela pertzibitua; bertzetik, ekoizleak sortu nahi zuen erranahiak ez duela bat etorri behar forma sinbolikoarenarekin, edota berau osatzen duten elementuekin.⁶⁴

⁶¹ Hortaz: “The analysis of symbolic forms as ideological requires us to analyse these forms in relation to the specific social-historical contexts within which they are employed and take hold” (Thompson 1990: 8).

⁶² Thompsonnek, forma sinbolikoen erranahiaz: “By ‘symbolic forms’ I understand a broad range of actions and utterances, images and texts, which are produced by subjects and recognized by them and others as meaningful constructs” (*ibid.*: 59); “I shall use the term ‘symbolic forms’ to refer to a broad range of meaningful phenomena, from actions, gestures and rituals to utterances, texts, television programmes and works of art” (*ibid.*: 138).

⁶³ (*Ibid.*: 138-139)

⁶⁴ Bada ondasun kulturalen berariazko izaeraz zehaztasunak proposatzen dituenik: “Al identificar a los bienes culturales como se hace aquí, se está excluyendo a las acciones, objetos y expresiones que pueden ser interpretadas ‘como’ significativas, consideradas ‘como’ formas simbólicas, que si bien son constitutivas de la cultura (sistema-práctica), no forman parte de lo que aquí se intenta delimitar como un campo de producción cultural (y la misma intención de delimitarlo es parte de la lucha simbólica del campo, diría Bourdieu). Es decir, no se trata de la ‘intencionalidad’ que Thompson identifica como característica de las formas simbólicas [...] // Al ubicar a los bienes culturales como producidos en lo que se ha identificado como campo de producción cultural (separado del intelectual o científico), se destaca una intencionalidad explícita; esto es, que ese campo sería un campo de producción de formas simbólicas intencionalmente expresivas/comunicativas, o sea, explícitamente elaboradas para expresar/comunicar” (Ortega 2009: 21-22).

Eite konbentzionala: “the conventional aspect”⁶⁵

Gisa desberdinetako arau, kodigo edo konbentzioen erabilera eskatzen dute forma sinbolikoek, bai forma sinbolikoen ekoizte, eraikitze eta erabilera prozesuetan, baita berauek jasotzen dituztenengandiko interpretazioetan ere. Lehen prozesuan parte hartzen duten arau, kodigo eta konbentzioek “kodemate arau” izeneko multzoa osatzen dute; bigarrenak, ordea, “deskodemate arau” multzoa:

Kodemate arauak

Forma sinbolikoen eraikuntzan esku hartzen duten arau, kodigo eta konbentzioen multzoa.

Deskodemate arauak

Forma sinbolikoen interpretazioan esku hartzen duten arau, kodigo eta konbentzioen multzoa.

Bi multzoetako elementuek, ordea, ez dute zertan bat etorri, edo aldi bereko izan beharrik. Arau, kodigo eta konbentzio hauek forma sinbolikoak ulertu eta ekoizteko, modu praktikoan –eskema inplizitu eta aitzineko ideia gisa– erabiltzen dira. Hala, aipaturiko multzoaren ezagutza isilpekoa izan arren, ezaguera soziala da, gizabanako batek baino gehiagok partekatua baita, beti; gainera, aipaturiko ezaguera bertzeengandiko zuzentze eta onartze nahiz zigortzeetara irekia izaten delakotz.

Eite estrukturala: “the structural aspect”⁶⁶

Forma sinbolikoak, beren artean lotura jakina duten elementuz osatuak izaki, egitura artikulatudun eraikuntzak direla agertzen du Thompsonnek; beraz, formalki aztertu ahal liratekeen elementuak.

Zernahi gisaz, egiturari dagozkion bi dimentsio bereizi beharra sumatzen du Thompsonnek: batetik, forma sinbolikoen “egitura” eta, bertzetik, forma sinboliko zehatzetan gauzatua den “sistema”:

Egitura

Identifika daitezkeen elementu zehatzen patroia.

⁶⁵ (Thompson 1990: 139-141)

⁶⁶ (*Ibid.*: 141-143)

Sistema

Zernahi forma sinbolikorengandik bereizi existitu arren, forma sinboliko partikularretan gauzatzen diren elementu sistemikoen konstelazioak.

Lehenaren azterketan, forma sinbolikoetan diren elementu zehatzei nahiz beren arteko erlazioei behatzen zaie; bigarrenean, ordea, aztergai den formatiko abstrakzioa egin, eta hainbat elementutatik nahiz beren arteko erlazioetatik konstelazio orokorra berreraiki beharko litzateke –adibide zehatzetan gauzatzen den konstelazio baten berri ematea baita kontua–. Hala, bada, forma sinbolikoen sistema forma sinboliko zehatzekiko askea da; baina, hein berean, forma sinboliko zehatzetan gauzatua litzatekeen elementuen konstelazioa da.⁶⁷

Eite erreferentziala: “the referential aspect”⁶⁸

Ezaugarri hau dela medio, lau ideia eman nahi dira aditzera: forma sinbolikoak eraikuntzak direla, zerbait irudikatzen dutela, zerbaiti erreferentzia egiten diotela eta zerbaiti buruz zerbait erraten dela. Irudi eta adierazpenek modu desberdinetan eskuratzen dute beren zehazte erreferentziala; zenbait irudi eta adierazpenek, adibidez, testuinguru zehatzetan erabiliak izanaz eskuratzen dute. Baina:

In highlighting the referential aspect of symbolic forms, I wish to call attention not only to the ways in which figures or expressions refer to or represent some object, individual or state of affairs, but also to the way in which, having referred to or represented some object, symbolic forms typically say something about it, that is, assert or state, project or portray. (*Ibid.*: 144)

Beraz, forma sinbolikoek objektuari buruz erraten dutena nola erraten duten ere kontuan hartzen da; hau da, baieztatua, azaldua edo irudikatua ote den.

Testuinguru jakinetan txertatuak izatea: “the contextual aspect”⁶⁹

Arestian erran gisa, forma sinbolikoak testuinguru eta prozesu soziohistoriko zehatzetan kokatzen dira, bertan ekoiztu, transmititu eta jasoak direlarik. Forma konplexuek –hitzaldi, testu, telebista programa eta arte arituek, orokorrean–, gainera, behar dituzte berauek ekoiztu, transmititu eta jasotzen lagunduko duten erakundeak.

⁶⁷ Alabaina, hagitx erabilgarri izan arren, bi aldetarik da mugatua ezaugarri estrukturalen eta elementu sistemikoen azterketa (*ibid.*: 142-143). Lehenik eta behin, forma sinbolikoek berekin duten erranahia ezaugarri estrukturaletatik eta sistemako elementuetatik eratorria izan arren, kontuan izan behar da erranahi horren izana ez dutela aipaturiko ezaugarri eta elementuek behin ere akitzen. Gainera, forma sinbolikoen barne-eraketaz arduratzeak bi ondorio ezkor ditu: ez da forma sinbolikoen alderdi erreferentziala kontuan izaten, eta forma horiek berak gertatzen diren testuinguru eta prozesu historiko-sozialetatik abstraitzen ditu –beraz, urrutiratzen–.

⁶⁸ (*Ibid.*: 143-145)

⁶⁹ (*Ibid.*: 145)

Horregatik, forma sinbolikoak testuinguruetan kokatuak direla azpimarratzearekin, forma horien barne-egiturazko ezaugarrietatik haratago erreparatzen da: forma sinbolikoen baitako ezaugarriak izan ez arren, agertokiak, momentuak eta jasotze moduak⁷⁰ desberdindu egin daitezke egiturazko ezaugarri eta elementu sistemikoetatik. Desberdintze hori, ordea, bi modutara soilik ager liteke. Batetik, forma sinbolikoak aditzera ematen diren, transmititzen diren eta jasotzen diren giza-testuinguru eta testuinguru instituzional nahiz prozesuei kasu eginaz; bertetik, testuinguru horietako botere harremanak, autoritate formak, baliabide motak eta bertzelako ezaugarriak aztertzen.

Halatan, forma sinbolikoak testuinguru soziohistorikoetan ekoiztuak izaki, ekoizte momentuaren erakusgarri diratekeen aztarnak gorde ditzakete; beraz, modu desberdinetan altxatuak izan arren, ahalmena dute garai diferenteetako testuinguruen berri emateko.

1.2.3.b. Forma sinbolikoen testuinguratze soziala⁷¹

Thompsonen forma sinbolikoak testuinguru sozialean txertatuak izatea oinarri-oinarrizko ezaugarri gisa identifikatzen duenez, azalpen berezia eginen dugu, ondoko orrialdeetan.

b.1. Oinarriak

Forma sinbolikoak testuinguru sozialetan gauzatzen direla kontuan izanik, kontestualizatzek berak dakartzan hainbat ondorio nagusi aipatzen ditu Thompsonen. Forma sinbolikoak testuinguruetan txertatuak izateak berekin dakar, batetik, testuinguru bereko banakoen artean gertatzen direla transmisioaren bi alderdi nagusiak: ekoiztea eta jasotzea. Forma sinbolikoen izaera konbentzionala dela eta, elementu horien alderdi soziala azpimarratu du Thompsonen. Ideia horri jarraiki, zera gaineratzen du, forma sinbolikoak kontestualizatuak izatearen ondorioei dagokienez: forma sinbolikoak, fenomeno sozialak izaki, testuinguru jakinetako banakoen artean partekatzen direla, eta, beraz, transmititzen. Transmisio horretan, gainera, hainbat baldintza nahiz tresna teknikoren bilduma eskatuko dute.

⁷⁰ Hirugarren kapituluan, adibidez, atzemate edo parte hartze liturgikoaz arituko gara.

⁷¹ "The Social Contextualization of Symbolic Forms" (*ibid.*: 146-154).

Espresuki interesgarria deritzogu transmisioaren ideia nabarmendu izanari, hizpide dugun euskal kultur moldaketaren prozesuan garapen garrantzitsuenetarik bat izan baitzen. Transmisioan parte hartzen duten elementu desberdinei, baldintza nahiz gailu teknikoei, “transmisio kulturalako modalitate” deritze –“modalities of cultural transmission” (*ibid.*: 146)–.

Bertze ondorioetarik bat da, sarri, berauek jasotzen –edota jasotzeko potentziala– dituztenengandik etengabeki jasaten dituztela ebaluatze, balioztatze, gorazartze edota baztertze prozesuak. Hala, bada, etengabea egozten zaizkie ustezko balioak, balioztatze prozesuak direla medio.

Testuinguruaren ezaugarriari buruz ari delarik, espazioan eta denboran espezifikoak direla gaineratzen du ikerlariak; erran nahi baita testuinguru osatzen duten leku eta denbora erreferentziak osatzen dutela, hein batean, akzio eta interakzioa. Ondorioz, leku eta denborazko ezaugarri horiek jasotze testuinguruarekin bat hel litezke, gainjarriak izan, edo ez dira zertan bat etorri behar. Beraz, testuinguruak denbora eta espazio partikularrak izaten dituzte; bi dira nagusiak, forma sinbolikoei dagokienez: ekoizte testuinguru eta jasotze testuinguru.

Horretaz gain, forma sinbolikoen testuinguru sozialak modu desberdinean egitura daitezke. Zernahi gisaz, hagitz zehatza da Thompsonen “egituratze” terminoaz egiten duen erabilera (*ibid.*: 147):

Within this framework, the notion of social structure can be assigned a specific role, as a notion which highlights a certain range of phenomena and calls our attention to a certain level of analysis.

as I shall try to show, the analysis of these contexts is an activity indispensable to the study of action and interaction, production and reception, just as the analysis of contexts would be partial and incomplete without a consideration of the actions and interactions that take place within them.

Testuinguru sozialen ezaugarritze nagusia Bourdieuk garaturiko elkarreragin eremuetatik –“fields of interaction” (*loc. cit.*)– abiatzen du Thompsonen. Bourdieuk defendatzen du elkarreragin eremua, sinkronikoki, kokapenen espazio gisa, eta, diakronikoki, ibilbideen sorta gisa kontzeptualiza daitekeela –“space of positions” eta “set of trajectories”, hurrenez hurren–.

Kokapen eta ibilbide horiek baliabide edo kapital desberdinen kantitate nahiz banaketen arabera dirateke. Thompsonen, oinarrian, Bourdieuk aipagai dituen kapital motak laburtzen dituen arren, horietarik hiru sumatzen ditu bere helburu zehatzei espresuki egokituak: kapital ekonomikoa, kapital kulturala eta kapital sinbolikoa

–kapital soziala geratzen da aipatu gabe–. Hala biltzen ditu Thompsonnek Bourdieuk proposaturikoak:

Kapital ekonomikoa

“which includes property, wealth and financial assets of various kinds” (*ibid.*: 148).

Kapital kulturala

“which includes knowledge, skills and different types of educational qualifications” (*loc. cit.*).

Kapital sinbolikoa

“which includes the accumulated praise, prestige and recognition associated with a person or position” (*loc. cit.*).

Zernahi elkarreragin eremutan, batetik, helburu zehatzak lortu nahirik edota baliabide mota bat bertze gisan moldatu nahiz, aipaturiko baliabideak baliatzen dira; bertzetik, beren helburuak elkarreragin eremuetan lortzen saiatzen direlarik, gizabanakoak arau eta konbentzio desberdinetan oinarritzen dira. Bi motatakoak izan daitezke: esplizituak edo, gehienetan, esplizituak ez direnak. Aunitzez sarriago dira formulatu gabeak, informalak eta zehaztugabeak: “They exist in the form of practical knowledge, gradually inculcated and continuously reproduced in the practices of everyday life” (*loc. cit.*), etengabe birmoldatzen eta egokitzen direlarik eskemen erabilera eta aplikazioetan. Beraz, eskema malguak dira: eskema eta arau horien aplikazioak sarri dira hautatzeak eta baloratzeak eskatzen dituzten sortze prozesuak, eta aplikazio prozesuetan molda eta eralda daitezke.

Elkarreragin eremuak –eta berauek ezaugarritzen dituzten arau, baliabide eta eskema malguak– erakunde sozial deiturikoetatik bereizten ditu Thompsonnek: “Social institutions may be understood as specific and relatively stable clusters of rules and resources, together with the social relations that are established by them and within them” (*ibid.*: 149)⁷².

⁷² Orrialde berean, aitzinago: “Social institutions can be seen as constellations of rules, resources and relations which are situated within, and at the same time create, fields of interaction. When a specific institution is set up, it gives shape to pre-existing fields of interaction, and at the same time it creates a new set of positions and possible trajectories” (*Ibid.*: 149). 1975etik aitzinako fasean ikusiko dugunez, elkarreragin eremuen eta erakundeen arteko harremanaren kontrako norabideari erreparatzea ere hagitz garrantzitsua da; hizpide dugun kasuan ikusiko dugunez, elkarreragin eremu berri baten sorkuntzak

Erakundeez ari garelarik, behatu beharko litzaieke –erakunde jakin eta jalkirikoetako ezaugarriei erreparatzeaz gain– ezaugarri orokorrei, erduei edo joera zabalagoak nabarmentzen dituzten ezaugarriei; izan ere, Thompsonnek argudiatzen duen ikuspegitik, erakunde zehatzak eraten direnean, bi norabidetako ekintzek parte hartzen dute: batetik, aitzinez baziren interakzio eremuak birmoldatzen dira, eta, bertzetik, posizio eta norabide aukera berriak sortzen (*loc. cit.*).

Thompsonnek are banakuntza zehatzagoa proposatzen du; interakzio eremuen eta erakunde sozialen arteko bereizkuntzaz haratago, bi horiek osatzen duten multzoa “egitura sozial” izendaturikoetatik bereizten du.

Denbora eta espazio eremuak, “spatio-temporal settings”	
Elkarreragin eremuak “fields of interaction”	Baliabideak edo kapitala
	Arauk, konbentzioak eta eskemak
Erakunde sozialak “social institutions”	Arau, baliabide eta erlazio talde nahiko egonkorak
Egitura soziala “social structure”	Asimetria eta diferentzia nahiko egonkorak

1. taula: Testuinguru sozialen ohiko ezaugarriak⁷³

“I shall use the term ‘social structure’ to refer to the relatively stable asymmetries and differentials which characterize fields of interaction and social institutions” (*ibid.*: 150); zehazkiago, elkarreragin eremu bat egituratua dela⁷⁴ erratearekin, zera adierazten da: nahiko asimetria eta diferentzia egonkorak direla baliabide, botere, aukera eta bizi aldaketak sortzeko, eta horietara iristeko. Hala, bada:

To analyse the social structure of a field or institution is to determine the asymmetries and differentials that are relatively stable – that is, systematic and likely to endure – and to try to ascertain the criteria, categories and principles which underlie them. Hence the analysis of social structure involves in part the positing of categories and distinctions which may help to organize and illuminate the evidence of systematic asymmetries and differentials. (*Loc. cit.*)

erakunde sozial zaharrak molda ditzake edo erakunde sozial berriak (elkarreragin eremu berriko kokapen eta ibilbideei egokituak) sortu.

⁷³ “Typical Characteristics of Social Contexts”: “The concepts on the left [...] refer to different aspects of social contexts and define different levels of analysis. They enable us to grasp the social features of the contexts within which individuals act and interact” (*ibid.*: 150).

⁷⁴ “Eremu egituratu” eta “ez-egituratu” adieren oinarrian: egonkortasuna izatea edo ez izatea da. Eremua, bai, baina egituratu gabekoa –hau da, egonkortasunik gabeko eremua– izan zen euskal literaturarena, 70eko hamarkadaren bigarren erditik aitzina abiatutako prozesua iritsi arte.

Laburbilduz, beraz, espazio eta denbora nahiz elkarreragin eremuak nahiz erakunde eta egitura sozialak gizabanakoon jardun eta elkarreraginen baldintzatzaile dira, eta berauek ahalbidetzen dute testuinguru sozialen izana sumatzea.

b.2. Testuinguru sozialen eta forma sinbolikoen arteko elkarreragina⁷⁵


Testuinguru sozialak ez dira, ordea, jardun eta elkar eragiteen ekoizle, soilik, izaten, forma sinbolikoen gauzatze eta harreran ere eragile dira (*ibid.*: 152-153). Hortaz, forma sinbolikoen eraikuntzak hainbat eremuren erabilera abian jartzen duela erran genezake; bertzeak bertze, hartzaileengandik, baliabide erabilgarrien erabilera eta mota desberdinetako eskema eta arauen burutzea aipa litezke.

Thompsonen azalpenetatik abiatuta, hiru adar nagusitan bana liteke testuinguru sozialak forma sinbolikoen gauzatze nahiz garapenean duen eragina: helburu pertsonal nahiz kolektiboek dagokiena, hartzaileek elkarreragin eremuan duten kokapenarena eta erakunde sozialek osatua (*ibid.*: hirugarren kapitulua).

Hiru alderdi horiek forma sinbolikoan atzemate eta jasotze prozesuak guziz baldintzatzen dituzte. Jasotze prozesua, Thompsonek erran gisa, ez da asimilazio ariketa pasiboa izaten; aitzitik, interakzio eta ebaluazio prozesu sortzailea izaten da (*ibid.*: 153). Beraz, forma sinbolikoaren zentzua modu aktiboan gauzatu eta beretu egiten da; zentzu hori, ordea, pertsonaz pertsona alda liteke, forma sinbolikoen interpretazioak eta ulermenak tradizionalki pribilegiaturiko hainbat gizarte sektoreri egotziriko konbentzioen beharra baitute (*loc. cit.*).

Forma sinbolikoak testuinguru sozialetan kokatuak izateak bi ondorio nagusi ditu: forma sinbolikoek testuinguruetakoko ezaugarriak mantentzea –erreprodukzioa– eta elkarreragin nahiz ebaluatze prozesu aktibo, etengabeen jasaile izatea –jarraitutasunean–. Batetik, forma sinbolikoen erranahiak modu desberdinetan lagun dezake forma sinbolikoak, hain justu, sortu edota jaso diren testuinguruko gizarte harreman egituratuetakoko ezaugarriak mantentzen. Laguntza horren erakusgarri, ondoko eskema eskaintzen du Thompsonek (*ibid.*: 154):

⁷⁵ (*Ibid.*: 152-162)



2. taula: Testuinguru sozialen kopiaketa⁷⁶

Goitiko irudian (2. taula), erreproduzio sozial mota bat ageri da; testuinguru sozialen erreproduzio sinbolikoa, hain zuzen: “social reproduction mediated through the everyday understanding of symbolic forms” (*ibid.*: 153).

Bertzetik, sarri, solasgai izanen dugun *continuum* ideiarra hurbildu du Thompsonek forma sinbolikoen interpretatzea, ulertzea eta horiek besarkatzen dituen jasotzea: “In receiving and interpreting symbolic forms, individuals are involved in an ongoing process of constituting and reconstituting meaning, and this process is typically part of what may be called *the symbolic reproduction of social contexts*” (*loc. cit.*, azpimarra ez da gurea). Hala, bada, forma sinbolikoen izana eta moldatzea, balioztatze oro, etengabeko prozesu bati atxikia da, ezinbertzean. Horregatik aipatu dugu forma sinbolikoek, testuinguruetan kokatuak izatearen ondorio nagusietarik bat gisa, etengabean jasaten dituztela balioztatze prozesuak; beti baitira ebaluatze, balioztatze eta gatazka prozesuen mende.

Balioztatze mota nagusiak

Balioztatze horien baitan, hiru mota nagusi banatzen ditu Thompsonek: balioztatze sinbolikoa –“symbolic valorization” (*ibid.*: 154-155)–, balioztatze ekonomikoa –“economic valorization” (*ibid.*: 155-156)– eta balioztatze gurutzatua –“cross-valorization” (*ibid.*: 157)–:

Balioztatze sinbolikoa

Balioztatze sinbolikoak aditzera ematen duen prozesuan, forma sinbolikoak ekoiztu edota jasotzen dituzten pertsonak nolabaiteko balio sinbolikoa egozten diete forma sinbolikoei. Balioztatze mota hori baldintzatu egiten du forma sinbolikoa

⁷⁶ “The Symbolic Reproduction of Social Contexts” (*ibid.*: 154).

ekoiztu eta jasotzen dutenek egozten dioten estimuaren izanak –“that is, praised or denounced, cherished or despised by these individuals” (*ibid.*: 154-155)–.

Balioztatze ekonomikoa

Aldiz, balioztatze ekonomikoan, forma sinbolikoari nolabaiteko balio ekonomikoa egozten zaio; hau da, merkatu batean trukatu ahal izateko beharrezko lukeen balio mota, prezioa, esleitzen zaio. Hortaz, prozesu honen ondorioz, forma sinbolikoei salgai izana ematen zaie.

Bi balioztatze motetan agertzen da gatazka: dela forma sinbolikoak jaso eta ekoizten dituztenen artean baloratze sinbolikoa desberdin garatu litekeelakotz, dela balioztatze ekonomiko maila desberdinak gerta litezkeelakotz. Hala ere, forma sinbolikoak zenbat eta merkatuan egokituagoak izan –masa-erakundeetan zenbat eta finkatuagoak izan–, nabariago jorratzen dira balioztatze ekonomikoak, komunikabide erakunde osaturiko eremu instituzionaletan.

Bi balioztatze prozesuak guziz modu beregainean aztertzea hagitx zaila da; testuinguru eta harreman konplexuen baitan gertatuak izaki, gainjarriak izan ohi dira. Hala, bada, forma sinbolikoen ekoizte eta jasotze prozesuetan parte hartzen duen pertsona orok badaki, guti goiti-beheiti, balioztatze prozesu desberdinak gertatu ahal direla; are gehiago, prozesu horietan potentzialki gertatu ahal direnak moldatzen saiatzen gara, sarri: estrategia desberdinak direla medio, balio sinboliko nahiz ekonomikoa nahi gisara bideratzen saiatzen gara. Moldatze horien helburua desberdina izan daiteke: balio sinboliko nahiz ekonomikoak gehiagotzera, gutiagotzera edo bien konbinazioa lortzera bideratuak.

that is, the use of symbolic value as a means of increasing or decreasing economic value, and vice versa. [...] Cross-valorization is also part of the strategy pursued by individuals when they seek to convert their recognition in a field into a more lucrative job, or when they publicly attack or malign someone in an attempt to deprive him or her promotion or of a job. Strategies of cross-valorization thus overlap with what I referred to earlier as strategies of capital into another, and to reconvert it at a later stage in the life cycle, in order to preserve or improve their overall social position. (*Ibid.*: 157)

Beraz, Thompsonek “balioztatze gurutzatu” gisa –“cross-valorization”– izendatzen du hondarreko bideratzea.

Elkarreragin eremuetako kokapena

Oroitu, arestian erran gisa, hiru balioztatzeek eta berauek lortzeko erabiliriko estrategiek hainbat baldintzatzaile izan ohi dituztela: jendearen helburu banako nahiz kolektiboak, elkarreragin eremuan bakoitzak duen kokapena eta erakunde zehatzen garapena.

Thompsonen espresuki garatzen ditu bigarren eta hirugarren baldintzak. Norbanakoak elkarreragin eremuan duen kokapenari dagokionez, bereziki erreparatzen dio baldintza honek balioztatze sinbolikoarekiko duen harremanari. Balioztatze sinbolikoari buruz ari delarik, hainbat ohiko estrategia identifikatzen ditu; horiek lantzeko, bertzeak bertze, Bourdieuk garaturiko ideietan barrena abiatzen da. Halatan, elkarreragin eremuetako kokapenaren eta estrategien arteko harremana aurkezten du⁷⁷ (*ibid.*: 158).

Elkarreragin eremuetako kokapenak	Balioztatze sinbolikoetako estrategiak
(a) Menderatzailea	bereiztea, iseka, kondeszendentsia –“distinction, derision, condescension”–
(b) Erdi-mailakoa	moderazioa, pretentsioa, balio gutitzea –“moderation, pretension, devaluation”–
(c) Mendekoa	erabilgarritasuna, errespetuzko etsipena, ukatzea –“practicality, respectful resignation, rejection”–

3. taula. Balioztatze sinbolikoan ohikoak diren estrategiak⁷⁸

(a) Menderatzailea⁷⁹

“Individuals who occupy dominant positions within a field of interaction are those who are positively endowed with, or who have privileged access to, resources or capital of various kinds” (*loc. cit.*).

Batetik, kokapen honetan diren pertsonen, forma sinbolikoak goretsi eta ekoiztean, bereizte estrategiak erabili ohi dituzte; erran nahi baita beren burua mendeko erlazioan direnengandik bereizi nahi izaten dutela. Bertzetik, elkarreragin eremuen baitan kokapen menderatzailea dutenek isekazko estrategiak ere hautatzen dituzte: beren “azpitikoek” ekoizten dituzten forma sinbolikoak lotsagabe, trakets, heldugabe edota

⁷⁷ Euskal komunitatearen azterketan aitzina egin ahala ikusiko dugunez, elkarreragin eremuko kokapenak guziz baldintzatu zuen 1975etik aitzinako kultur fasearen garapena. “The strategies pursued by individuals are linked to the positions they occupy within particular fields of interaction. The kinds of strategies typically pursued by individuals, and their capacity to succeed in them, depend on the resources available to them and their relation to other individuals in the field.” (Thompson 1990: 157)

⁷⁸ “Some typical strategies of symbolic valuation” (*ibid.*: 158).

⁷⁹ (*Ibid.*: 158-159)

ezjakinen lantzat joaz⁸⁰. Azkenik, arinagoa, kondeszendentzia bera litzateke: onarpenak menderatzaile kokapenetan direnei beren menderatzaile gisako maila berresteko aukera eskaintzen die, baina argiki adierazi gabe, beti ere.

(b) Erdi-mailakoa⁸¹

Intermediate positions within a field are those which offer access to one kind of capital but not another, or which offer access to different kinds of capital but in quantities which are more limited than those available to dominant individuals or groups (*ibid.*: 159).

Bi modutara ezaugarritzen ditu Thompsonek erdi mailako kokapenean gerta daitezkeen konbinatzeak: kapital ekonomiko handia, bai, baina kapital kultural gutiduna izatea –“*nouveaux riches*” (azpimarra ez da gurea)– edo kapital ekonomiko guti izanagatik kapital kultural handiaren jabe izatea –“*avant-garde*” (azpimarra ez da gurea)–. Erdi-mailako kokapenetan direnek forma sinbolikoak balioztatzeko erabili ohi dituzten estrategietarik bat moderazioa da: beren eskueran direla sumatzen dituzten ondasunak positiboki baloratzen dituzte, eta, etorkizuna guziz ziur gisa hautematen ez dutenez, espresuki baloratzen dituzte beren kapital kulturala erabili eta kapital ekonomikoa gordetzen laguntzen dieten forma sinbolikoak. Bigarren estrategia nagusia pretentsioa litzateke: ez direnaren itxurak egin, eta ez duten kokapenetara ailegatzeko ahaleginak egitea –menderatzaileen mintzamen, azentu edota hiztegiak beretzeko, kasu–. Alabaina, kokapen horretan direnek menderatzailean direnekiko aski jarrera desberdina erakuts dezakete: gutiesten edota izena zikintzen saiatuz, adibidez; kokapen menderatzaileetan direnen forma sinbolikoak bereganatu baino gehiago –eta posizioa igo nahirik–, “goitiagokoen” forma sinbolikoak salatzen dituzte.

(c) Mendekoa⁸²

“Subordinate positions within a field are those which offer access to the smallest quantities of capital of differing kinds. The individuals in these positions are those who are least endowed with resources and whose opportunities are most restricted” (*ibid.*: 160).

Kokapen honetan direnek erabili ohi dituzten estrategietarik erabilgarritasuna du Thompsonek aipagarrienetakotzat: elkarreragin eremuen artean, mendeko kokapena

⁸⁰ “This attitude was evident among the courtly aristocracy of eighteenth-century Europe, who sought to protect their privileges by regarding the conduct of the rising bourgeois strata as vulgar and uncontrolled.” (*Ibid.*: 159)

⁸¹ (*Ibid.*: 159-160)

⁸² (*Ibid.*: 160-161)

duinak, bertzeak baino aunitzez modu nabariagoan, bizirautearekin dira arduratuak; beraz, espresuki atxikitzen dituzte diseinu praktikoa izan eta eguneroko bizitzan funtzionalak diren objektuak⁸³. Objektu praktikoen horien balioztatze positiboa, gainera, kokapen “garaiagoetan” direnen forma sinbolikoekiko errespetuzko erresignazioaren eskutik joan ahal da. Jarrera honen gibelean, bi alderdi gordetzen dira: batetik, Thompsonnek “errespetu” deritzonak goitiagoko kokapenetan direnen objektuak “hobe” gisa sumatzea emanen luke aditzera; eta, bertzetik, erresignazio estrategia bat da, mendeko kokapenean direnek beren objektuak ezinbertzean behe mailako direla uste baitute. Azkenik, hondarreko estrategia honen kontrara, ukatzea identifikatzen du Thompsonnek; litekeena da kokapen garaiagoetako jendearen forma sinbolikoak ukatu edota irringarri uztea⁸⁴. Hala ere, estrategia honek ez dakar berarekin mendeko kokapenean direnek goitigoko kokapenetara mugitu nahi dutenik; Thompsonnek dioenez, “given their position within the field, to try to raise themselves in this way may not be a realistic aim” (*ibid.*: 161).

Erakundeak

Orain arte, Thompsonnek aipatzen dituen forma sinbolikoak balioztatzeko estrategien laburpena egin dugu; deskribapen hori dela medio, argitu egiten du estrategia desberdinen eta gizabanakoon kokapenaren artean den harremana eta elkarreragina.

Forma sinbolikoei buruzko ikuspegi honi, ordea, erakundeek duten eragina gaineratzen dio; izan ere, berau baita, balioztatze prozesu nagusietan, hirugarren baldintza nagusi gisa identifikatzen duena. Zehazkiago, erakunde zehatzen garapenak balioztatze desberdinekiko duen harremana deskribatzen du.

Horretarako, batetik, forma sinbolikoen balioztatze prozesu nagusietan eragiten duten erakundeei erreparatu beharra sortzen da: balio sinbolikoaren esleitze nahiz birmoldatzeaz arduratzen direnei eta baloratze ekonomikoa lortzera bideratuak direnei –eskolak, unibertsitateak, museoak... eta arte areto, masa-komunikazio erakundeak... hurrenez hurren–. Bertzetik, gaineratzen du erakunde horietan norbanakoak duen

⁸³ Thompsonnek emaniko erreferentzia: “See Bourdieu’s account of the ‘taste for necessity’ characteristic of the working class in contemporary France, in *Distinction*, ch. 7” (*ibid.*: 341).

⁸⁴ “for example, that working-class boys may parody the language of authorities and may reject educational activities and ‘mental work’ as ‘effeminate’ ” (*ibid.*: 161). Thompsonnek emaniko erreferentziak: Willis, Paul E., 1977, *Learning to Labour: How Working Class Kids Get Working Class Jobs*. New York: Columbia University Press; eta Hall, Stuart eta Tony Jefferson (arg.), 1976, *Resistance through Rituals: Youth Subcultures in Post-War Britain*. New York: Holmes & Meier.

kokapena forma sinbolikoen balioztatze prozesuetan baldintzatzaille dela; izan ere, erakundeko postu bakoitzean, autoritate maila desberdinak egozten dira. Eta, beraz, erakunde horietan betetzen diren postuek, forma sinbolikoen balioztatzean, autoritate maila desberdinak emanen dizkio pertsonari.

Akitzeko, erakunde partikularren garapenaren eta eremu kulturalaren arteko harremanari behatzen dio:

Particular institutions emerge in which resources of various kinds are amassed –not only economic capital, but also accumulated forms of knowledge and prestige.

The development of institutions is also accompanied by the differentiation of cultural spheres in the sense that, with the emerge of institutions concerned with producing, transmitting and accumulating symbolic forms, different types of symbolic form emerge in relation to one another (*loc. cit.*)

Idea horren erakusgarri, hain zuzen, guretako hagitz garrantzitsuak diren eremuak aipatzen ditu Thompsonnek: literatura eta hezkuntza⁸⁵. Idatzizko testuen baitan, literatur kanonaren sorkuntza eta haren irautaraztea hezkuntza sistemaren garapenari arrunt lotua dela azpimarratzen du ikerlariak; izan ere, bertan erakundetuko baitira literatur kritika arituak. Praktika erakundetzaille horiek hainbat lan “literatura” gisa sailkatuko dituzte, eta, beraz, idatzizko eremutik bereiziko⁸⁶. Horretaz gain:

The emerge of a sphere of ‘popular literature’ was the product both of these mechanisms of exclusion, through which popular literature was constituted as literature’s ‘other’, and of the development of institutions of mass communication and mass education, which created the conditions for the large-scale production and widespread circulation of symbolic forms. (*Ibid.*: 161-162)

Ikuspegi honek gurean lukeen erabilgarritasuna bereziki landuko dugu, tesiaren hirugarren kapituluan.

1.2.3. atalean ikusiekin, bildu nahi izan ditugu John B. Thompsonnek, *Ideology and Modern Culture* liburuan, forma sinbolikoen azterketarako eskuragarri jartzen dituen tresna teoriko nagusiak; horien artean, zehazki, espresuki tesian erabilgarri izanen direnak. Forma sinbolikoen eraikuntzan parte hartzen duten alderdi nagusiak, guretako, sobera orokor badira ere, baliabide sinbolikoei buruz hausnartzeko baliagarri izanen

⁸⁵ Tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, euskal literatur tradizioak, 1975etik aitzina, bizi zuen krisiak kanonizazio prozesu erakundetzaillea izan zuen oinarrian.

⁸⁶ Thompsonnek emaniko erreferentzia: Williams, Raymond, 1961, *The Long Revolution*. London: Chatto & Windus.

dira: irudi zehatzen ikuspegi orokorraz haratago (4.1.2.a.), lagundu eginen dute literatur eremuak, baliabide sinbolikoen bilgune gisa, izan zuen eragina zehazten. (4.1.2.b.).

Gainera, forma sinbolikoen testuinguratze soziala dela eta erranak hagitzen erabilgarri izanen dira tradizioaren berreskuratze eta finkatze prozesuak zehazteko: 1960-1975 bitarteko balioztatzeak nahiz horien eragileak ikertzeaz gain (3.1.3.c.), parada emanen dute ondoko hamabortzaldian horiekin gertatuak ere azaltzeko (7.1.2.b.).

1.2. atalean erranak laburbilduz, zera erran genezake: Cassirerrek, Bourdieuk eta Thompsonek osaturiko segidan aurkitu dugula forma sinbolikoen azterketarako oinarritzko ibilbidea. Hirurek forma horien ikerkuntza gisa desberdinean garatu duten arren, bakoitzaren azterketak sinboloen ikerketarako beharrezko izan diren pausoak eman dituzte.

Cassirerren proposamenak sinboloen azterketa sarearen ideiarekin lotu zuen, sinbolo amaraunaren ideia bihurtu zuelarik sinboloen garapenerako muin. Bourdieuk, bere aldetik, sinbolo horien boterearen ideia azpimarratu zuen, *habitusaren* ideiak ordura arte giza eta gizarte zientzietan agertu gabeko elkarreraginak azaleratu zituelarik. Thompsonek, ordea, Geertzek abiatutako bideari hainbat xehetasun gehituz, sinboloek testuinguruetan txertatuak izateagatik duten izanari –beraz, garapenean horrek duen eraginari– erreparatu zion, espresuki.

Segida horren baliagarritasuna, ordea, aztergaiaren izanak baldintzatzen duela uste dugu; izanak berak baino gehiago, aztergaia erreferentzia duen komunitateak. Hori dela eta, euskal komunitatearen izana kontuan hartu, eta kulturarekin erlazioan jartzeko aukera eskaintzen digun ikuspegira jo dugu, laguntza eske: etno-sinbolismora. Ez da kontu erraza, ordea, kulturak eta literaturak, euskal komunitateko baliabide sinbolikoen bilgune gisa, izan duten garapena aztertzea –bi kapitulu nagusietan aztergai izanen ditugun eremu zabal eta zehatza, hurrenez hurren–. Izan ere, arestian aipaturiko azterlariekin gertatu gisa, forma sinbolikoei buruz erranak espresuki egokitu behar izan baititugu eremu maila desberdinetan agertzen den baliabide sinbolikora: tradizioaren azterketara.

1.3. Etno-sinbolismoa

Ondoko orrialdeetan, forma sinbolikoei, nazio birmoldatzeetan –beraz, birmoldatze horietako baliabide sinboliko orotan–, duten jarduna landuko dugu. Forma

sinbolikoen artean, zehazki baliabide sinbolikoetara jo, eta horiek komunitateen garapenarekin elkarreraginean jartzen dituen azalpen teorikoa hurbilduko dugu: etno-sinbolismoa.

Anthony D. Smithek, *Ethno-symbolism and Nationalism: A Cultural Approach* lanean, historia kulturalaren barrenean, etno-sinbolismoaren izanaz dio:

While it [modernismoa] offers an alternative paradigm of study, ethno-symbolism does not propose a novel theory. This is because, in a field so vast and complex as that of nations and nationalism, the chances of doing so in a convincing manner are necessarily limited. [...] All we can hope to achieve with such a kaleidoscope of processes, ideologies and actors is to offer some conceptual frameworks and tools for their classification and investigation and, in the spirit of Max Weber, some suggestions about partial and probable causal relationships. (1.-2. or.)

Halatan, defendatzen du etno-sinbolismoa, teoria historikoa baino gehiago, nazio eta nazionalismoen ikerkuntza alternatibo baterako tresnak eskaintzen dituen ikuspegia dela⁸⁷. Hortaz, nazio eta nazionalismoen ikerkuntzan –orain arte, bederen– nagusi izan den teoria –teoria modernista edo instrumentalista– eta etno-sinbolismoa ez dirateke teorizazio maila berean izanen: bata paradigma osoago baten oinarri teorikoa litzateke, Paradigma Modernokoa; bertzea, aldiz, Paradigma Modernoaren azalpena osatu nahian eskaintzen den ikuspegi (zientifikoki) teorizatu gabea. Azken hau, ordea, oraindik ere osatu gabea den paradigma berriago baten ekarpena dateke⁸⁸; A.D. Smithek berak aitortzen duenez: planteamendu orokorrago baten mesedetan hausnartuak izan arren, oraindik ere langartuak diren ekarpenak biltzen baititu.

Argi denez, historia ulertzeko foku mudantza da teoria modernistatik etno-sinbolismora gertatua: historia estrukturalistaren gailentzetik, historia kulturalerakoa. Idatzi honi dagokionez, historiaren eredu bakoitzak nazio eta nazionalismoaren ikerkuntzan eskaintzen dituen azalpenak izanen ditugu mintzagai. Bertzeak bertze, etno-sinbolismoak gaineratu egin baitio teoria modernistari nazioan faktore erreal, objektibo eta materialez gain, baliabide etno-kulturalak badirela eta beren eragina handia dela.

Fokua historia kulturallean jarria duten teorizazioek aukera eskaintzen dute azalpen moderno-konstruktibisten aztarnak Paradigma Estrukturalistatik urrundua den

⁸⁷ “Historical ethno-symbolism proposes one such paradigm, by undertaking a radical but nuanced critique of the dominant modernist orthodoxy. Although it offers no theory in the scientific sense, it seeks to provide some conceptual tools for an alternative approach and research programme for the study of nations and nationalism.” (Smith 2009: 13)

⁸⁸ Jesús Casquete-k Historia Kulturalaren Paradigma gisa izendatzen du (*in de Pablo et al.* koord. 2012: 23).

begiradaz aztertzeke; nazio, nazionalismo nahiz bertatik sorturiko sentimenduak, erantzun eta erreakzioak hobeki ulertzeke aukera eskaintzen dute.

Fokua gure ikerketan jartzen badugu, tesiaren bigarren kapituluan, sarri, etno-sinbolismoaren alderdi nahiz azalpen desberdinak hizpide izanen ditugu; makulu izan da, adibidez, baliabide sinbolikoak nahiz *kulturgileen⁸⁹ lanak ikertzeke (3.1.4.). Gainera, hirugarren kapituluan, arestian aitzinatu gisa, kultur moldaketa nagusiaren lehen hamabortz urteetan moldaturiko ondarearen eta funtzionalitatearen arteko gatazka –1975-1990 bitartean tradizio gatazkan islatu zena– lantzeko funtsezko ikuspegia izanen da (7.1.3.b.); tradizioa baliabide etno-kulturala dela onarturik, espresuki tradizioaren garrantzia azpimarratzen duen ikuspegiari erreparatu behar izan baitiogu, ezinbertzean. Teoria etno-sinbolistak aukera eskaini du, baita ere, errealitate osoagoaren baitan kokatzeko bai 1975-1990 bitartean agerturiko *Krisi Orokor Ñabartua⁹⁰ –sentimendu, identitate eta zalantza andana–, bai giro orokorraren lekuko den tradizioaren planteamendua.

1.3.1. Oinarriak⁹¹

Ondoko orrialdeetan, tesian zehar zutarri teoriko nagusietarikoa izanen denaren oinarriak aurkeztuko ditugu. Etno-sinbolismoa historia kulturalean kokatzen den ikuspegia izan arren, alde desberdinetarik eta modu desberdinean behatu izan zaiola ikusiko dugu. Aniztasun horretan, Anthony D. Smithek emanen du, guretako, azalpenik osatuena. Zernahi gisaz, Smith, zenbaitetan, estatudun eta estatu gabeko nazioei buruz ari ote den argi ez dugunez, Montserrat Guibernauk lagundu egingen digu –lanean zehar– estaturik gabeko nazioen azterketarako beharrezko diren hainbat alderdi eransten.

- **Etno-sinbolismoaren oinarri nagusiak**

Ikuspegi etno-sinbolista azterketa soziohistoriko kultural alternatiboa da, eta, bere baitan, aldaera desberdinak biltzen dira: John Armstrong-ek perenialismotik hurbilago den ikuspunturantz jotzen du, nazio eta identitate etnikoen desberdintasunei sobera erreparatu gabe; John Hutchinson-ek, nazionalismo modernoaren barnean, kulturala

⁸⁹ Ikus A eranskineko “Intelektual vs *intelligentsia*, vs kulturgile” sarrera.

⁹⁰ Ikus A eranskineko “Krisi Orokorra (1960-1975) eta Krisi Orokor Ñabartua (1975-1990)” sarrera.

⁹¹ Atal honetako informazioa Smith 2004tik [2001] atera dugu (76.-80. or.). Oinarrizko gai etno-sinbolisten azalpen osoagorako, ikus “Basic themes of ethno-symbolism” ere (Smith 2009: 23-40).

politikotik desberdindu, eta forma kulturalen dinamika ulertzea du helburu; Anthony D. Smith⁹², aldiz, nazioek historian izaniko paperean ardazten da: nazionalismo, ideologia, mugimendu, sinbolismo eta nazio gehienen sortze berritasuna onartu arren⁹³, *longue durée*tik abiatuz, nazionalismoaren aitzinetiko nazioak interesatzen zaizkiolarik, gehienbat –Hego Euskal Herrian (HEH), 1960-1990 bitarteko ibilbidea markatu zuen gaia, zazpigarren atalean ikusiko denez (7.2.)–.

Nolanahi ere den, badira guziek, ikuspegi beraren baitan, partekatzen dituzten lau ezaugarri. Batetik, teoria modernistaren jarraitzaileek ez bezala, fokua eliteengan soilik jarria duen azterketa alboratzen dute; alabaina, elite desberdinen eta herriaren arteko erlazioei behatzen zaie. Bertzetik, beti egin nahi izaten dira jarraibide sozial eta kulturalen epe luzerako azterketak; gainera, nazio eta nazionalismoen agerpenaren azterketa antzinako identitate kultural kolektiboekiko testuinguruan kokatzen dute –halatan, nazio eta nazionalismoak ez dira modernitateari soilik atxikiak, identitate eta nahi kolektibo zabalagoen partaide baizik–. Azkenik, pasio eta atxikimendu kolektiboekiko interes komuna agertzen dute etno-sinbolismoaren aldaera desberdinek; hau da, beraiendako, pasio hori garrantzitsua da, etnizitatea eta nazionalismoa ulertzeko.

Etno-sinbolismoaren ezaugarriak Smithek bildu ditu, orain arte espresuki etno-sinbolismoaz garatu den libururik osotuenean (2009). Aitzinez, ordea, bilduak ziren etno-sinbolismoaren muina agertzen zuten ideiak. Bertzeak bertze, Smithek berak *Memories and Myths of the Nation* (1999: 10-19) liburuan bildu zuen hainbat ideia; beranduago, sailkapen bera ageri da laburbildua Guibernauk eta Hutchinsonek, argitaratzaile gisa, ateratako *History and National Destiny: Ethnosymbolism and its Critics* lanean (2004: 1-2).

⁹² Hala deskribatzen du Smithek bere ibilbidea: “Myth, symbol, memory and value also came to occupy a central place in my own formulations. Originally, I was concerned with the various orientations - neo-traditionalist, assimilationist and reformist - of intellectuals in the formation of nationalist movements, and the way they reacted to the challenge to religion of the ‘scientific state’. But, in *The Ethnic Revival* (1981), I began to place the role of nations and nationalism in a broader historical context, and like John Armstrong, argued for the need to analyse their long-term ethnic origins. In *The Ethnic Origins of Nations* (1986), I adopted Armstrong’s concept of the ‘myth-symbol complex’ and focused on the role of *ethnies* (ethnic communities) in the formation of nations, arguing the need to examine the individual symbols, myths, memories and values of which they were composed, the *mythomoteurs* at underpinned their politics, and the different kinds of *ethnies* that formed the bases for subsequent nation formation - themes to which I shall return” (Smith 2009: 24) (azpimarrak ez dira gureak).

⁹³ Sarrionandiak berak hala biltzen du, *Moroak gara behelaino artean?* liburuan: “Euskal nazioaren ideia arras berandu asmatu zen, XIX. mendearen azkenetan” (526. or.).

Goiti aipaturiko ezaugarri nagusiak zortzi ideia nagusitan ageri dira banakatuak (Smith 1999: 10-19)⁹⁴:

- 1) *La longue durée* (Smith 1999: 10; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004)

Nazioak, fenomeno historikoak izaki, beren jatorria eta eratzea epe luzei begira aztertu beharko litzateke.

- 2) Iragan, orainaldi eta etorkizun nazionala: “national past, present, and future” (Smith 1999: 11-12; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 1)

Iragan, orainaldi eta etorkizun nazionalaren izanak errepika, jarraibide eta bereganatze errepikatuetan ikertu behar dira; Smithen ustez, modernitatean agertuak izanagatik, nazioak aitzineko egoera bati lotuak baileudeke. Horregatik: “the rubric of continuity point to the persistence of cultural components of particular nations” (Smith 1999: 11), eta berriz ere bereganatzeak irudikatuko luke “reaching back into the ethnic past to obtain the authentic materials, and ethos for a distinct modern nation” (*ibid.*: 12).

- 3) Nazioen oinarri etnikoa: “the ethnic basis of nations” (Smith 1999: 13; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 1)

Nazio modernoek nahiz aitzinetiko eratzeeen oinarria izan zen, lotura eta tradizio etniko nahiz sentimenteratiko baliabide kulturaletan.

- 4) Etnien osagai kulturalak: “the cultural components of ethnies” (Smith 1999: 14; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 2)

Komunitateen edo nazio etnikoen aitzineko osagaiak eta epe luzeko jarraitutasun aitzinexistentzialak, demografikoak baino gehiago, kultural eta sinbolikoak dira.

- 5) Mito eta sinbolo etnikoak: “ethnic myths and symbols” (Smith 1999: 15; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 2)

⁹⁴ Nahi duenak eskuragarri du, jatorrizko testuan, bakoitzari buruzko azalpen osotua: “*La Longue Durée*” (Smith 1999: 10), “National past, present, and future” (*ibid.*: 11-12), “The ethnic basis of nations” (*ibid.*: 12-14), “The cultural components of ethnies” (*ibid.*: 14-15), “Ethnic myths and symbols” (*ibid.*: 15-16), “Ethno-history” (*ibid.*: 16-17), “Routes to Nationhood” (*ibid.*: 17-18) eta “The longevity of nationalism” (*ibid.*: 18-19).

Etnizitatearen osagai kulturalen artean, bereziki garrantzitsuak dira, bateko, hautatuak izatearen nahiz jatorri etnikoaren mitoak eta, bertzeko, lurraldetasunaren nahiz komunitatearen sinboloak.

- 6) Etno-historia: “ ‘ethno-history’ ” (Smith 1999: 16; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 2)

Historialarien azterketa objektiboak baino gehiago, komunitate partaideek adierazten dute beren iragan bateratua(k) eta memoria(k) nola ulertzen eta osatzen dituzten.

- 7) Naziotasunerako bideak: “routes to Nationhood” (Smith 1999: 17; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 2)

Nazio modernoaren eraikuntzarako prozesu desberdinei egiten zaie erreferentzia.

- 8) Nazionalismoaren bizitza luzera: “the longevity of nationalism” (Smith 1999: 18; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 2)

Nazio eta nazionalismoaren botere eta iraunkortasunari egiten dio erreferentzia ideia honek.

Nationalism is a modern ideological movement, but also the expression of aspirations by various social groups to create, defend or maintain *nations*—their autonomy, unity and identity—by drawing on the cultural resources of pre-existing ethnic communities and categories. (Smith 1999: 18) (Azpimarra ez da gurea)

Alabaina, aipaturiko *Ethno-symbolism and Nationalism* liburuan, diferenteki ageri dira antolatutako ideia horiek; ideiak borts multzotan dira bateratuak. Ondoko orrialdeetan bildu ditugu ideia horiek, bidenabar, teoria modernistarekiko aldeak ere agertzen ditugularik; horiek izanen dira, lanean zehar, etno-sinbolismoaren erreferentzia nagusiztat erabiliko ditugun ezaugarriak.

• Teoria modernista vs etno-sinbolismoa

Hiru puntu nagusitan bil daitezke teoria modernistak eta etno-sinbolismoak partekatzen dituzten ideiak⁹⁵: batetik, biek ematen diote garrantzia nazioak komunitate soziologiko errealean gisa ulertzeari; bertzetik, etno-sinbolismoa bat heldu da nazioak akzioa espresuki bilatzen duten komunitate dinamiko gisa ikusten dituzten modernistekin; azkenik, biendako dira nazioak testuinguru geokultural eta historiko

⁹⁵ Bakoitzaren azalpen osoagorako, ikus Smith 2009: 13-14.

zehatzetan kokaturiko komunitate historikoak –zernahi gisaz, ez da nazioen esentziarik defendatu edo nazio nahiz nazionalismoen izana “kosifikatu” nahi–.

Ikuspegi bien artean, berdintasunak baino nabariagoak dira ideia garrantzitsuen arteko aldeak: baliabide sinbolikoak, *longue durée* delakoa, etnia nahiz nazioa, elite nahiz masak eta gatazka nahiz berrinterpretazioa desberdinki ulertu eta tratatuak dira⁹⁶. Ikus ditzagun aldeak, banan-banan, laburki:

1) Baliabide sinbolikoak

Teorialari modernista gehienek kontuan izaten dituzte, sarri, aldaketa politiko-kulturalen izanean, faktore materialen garrantzia azpimarratu arren, aldagai kultural eta politikoak: Deutsch-ek, komunikazio sozialak eta hizkuntza; Ernest Gellnerrek, hizkuntza eta kultura; Tom Nairn-ek, erromantizismo eta populismoa; Michael Hechter-ek, elkartasun kulturala; Eric Hobsbawm-ek, “tradizio asmatuak”; John Breuilly-k, estatu moderno eta erritu nahiz zeremonia ofizialak; azkenik, Anderson-ek gure denboraren kontzepzioarekin lotuak diren inprimatze teknologia nahiz kapitalismoa aipatzen ditu.

Hala eta guziz ere, eskainiriko atentzio guziak faktore kultural eta politikoak kapitalismo nahiz industrializazioaren eraginen mendeko egiten ditu. Ondorioz, ezinbertzean, azterketa instrumentalak egin, eta eliteen interesetan ardatzera jotzen da; gizarte faktore psikologikoei behar adina garrantzirik eman ez, eta faktore horiek interes materialen mendeko bigarren fenomeno gisa ulertzen omen direlarik.

Etno-sinbolistek, aldiz, komunitateak, ideologiak eta identitateak, beren osagai sinbolikoak direla medio, aztertzen dituzte: populazio unitate kulturalen ondare metaketa eratzen duten sinboloak, tradizioak, memoriak, balioak eta mitoak. Modernistek indarra domeinu material eta politikoetan jartzen dute; etno-sinbolistak, ordea, ideologia eta ekintza kolektiboen motibazioarako baliabide subjektibo eta sinbolikoetan ardatzen dira. Horrenbertzez, azken horien asmoa hautemate nahiz ikuspegi indibidualak parte-hartzaileen barne-munduan sartuz ulertzea litzateke.

⁹⁶ Bakoitzaren azalpen osoagorako, ikus *ibid.*: 14-20.

2) *Longue durée* delakoa

Teoria modernistaren jarraitzaileendako, nazioen sorburua modernitate prozesua bera izaki, Smithen hitzetan, muga kronologiko eta ebaluatze soziologikoak ezartzen dira. Modernitatearen denbora oraina eta iragan hurbila izanik, nazioa modernitatearen ondorio da, nazioa eta komunitatea moderno gisa definituak direlarik; hortaz, modernitate aitzineko gizarteak ez lirateke nazio, “zentzu modernoan”.

Aitzitik, etno-sinbolistendako, nazio modernoak aitzineko eredu kultural eta politikoen jarraipen lirateke; modernitatearen gibeledako errealitatearen jarraipen moldatuak.

3) Etnizitatea

Teoria modernistak, historian mugatzen duen aldikatzea dela eta, nazio eta nazionalismoaren azalpenetik at utzi du etnizitatea. Hala definitzen ditu A.D. Smithek etniak:

‘a named and self-defined human community whose members possess a myth of common ancestry, shared memories, one or more elements of common culture, including a link with a territory, and a measure of solidarity, at least among the upper strata’. (2009: 27)
(Azpimarra ez da gurea)

Idea horretatik abiatuz, etno-sinbolismoak nazio eta nazionalismoaren soziologia historikoaren gunean kokatzen ditu fenomeno etnikoak; hain zuzen, modernistek nazio eta nazionalismoen itxura nahiz izanaren elementu bereizgarriak buruz defendatuak baino oinarri emankorrak dakartzala argudiatuz. Hortaz, garrantzia historikoaz haratago, parte-hartzaileen barne-munduan sartzeko, eta, bereziki, nazioak sorrarazten duen debozio indartsurako, “*vital entrée*” delakoa eskainiko luke.

4) Elitismoa

Etno-sinbolismoaren defendatzaileendako, modernismoan nabarmena da goitik behehirako bulkada elitista. Smithek, ordea, zehazten du “mikro-nazionalista” berrien eskola jendearen eguneroko adierazpen nazionalisten praktika eta erakundeetan ardatzen dela –hala, modernistek elite eta ekimen ofizialen errepresentazioetan jarritako fokua bideratua delarik–. Zernahi gisaz, etno-sinbolistendako, eliteen eta estratu desberdinen arteko interakzioan da garrantzia:

behar eta ideal diferenteek, alde desberdinen artean eta identitate nahiz ideologia nazionalen eraikuntzan, duten eragina aztertu nahi da.

Horregatik, interes gunea eliteen eta geruza desberdinen arteko elkarreraginean da: batetik, idealen eta beharren artean sortzen den eraginean, eta, bertzetik, horiek berek identitate nahiz ideologia nazionalak moldatzeko eskaintzen duten laguntzan. Beraz, fokua ez dago herri praktika nazional popularrek egunerokotasunean duten eraginean; aitzitik, nazioaren ideia eliteek proposatu, eta, ondotik, sustatu duten neurrian, beren ikuspegi eta ekintzetan herriko usteek, memoriak eta kulturak zein eragin izan duten aztertu nahi da; kontrako norabidean, erreparatu nahi zaio, baita ere, elite nazionalistek proposaturiko ideiek estratu desberdinetan izaniko eraginari.

5) Gatazka eta berriz interpretatzea

Teoria modernista jarraitzen dutenendako, nazioa sortzen da modernizazio prozesutiko kapitalismo industrialetik, urbanizaziotik, mugikortasunetik, demokraziatik, estatu modernotik, heziketa sekularretik eta abarretik. Gatazka komunitate nazionalaren norabide eta izanari buruzkoa izan beharrean, uste da barne- edo kanpo-zapaltzaileengandik soilik sortua dela.

Azalpen honi jarraituz gero, etno-sinbolisten ustez, galdu egiten da nazioen baitako nahiz bertze nazioekiko gatazken ondorio sozial nahiz sinbolikoa: batetik, nazioen definizio lehiatzaileen artean, edo mitoen sorkuntzan, sortzen diren barne-tentsioak galtzen dira; eta, bertzetik, alboratu egiten da nazioko gerra kultural nahiz barne-lehiakortasun kulturaletatik mito eta memoria etnikoak nola garatzen diren behatzea.

Bortz ideia nagusi horiek aipatzen ditu Smithek, *Ethno-symbolism and Nationalism* liburuan, teoria honen oinarri gisa; ez bakarrik etno-sinbolismoaren ikuspegia islatzen dutelakotz, baita teoria modernistaren erranekiko alde nabariak bertan biltzen direlakotz ere.

1.3.1. atalean, etno-sinbolismoaren oinarriak aurkeztu nahi izan ditugu. Bi azpiataletan banatuak izan arren, funtsean, ideia berak bildu ditugu. Lehenik, etno-sinbolismoari buruzko kritika nagusiak biltzen dituen liburuko erreferentziak eman ditugu (Guibernau eta Hutchinson arg. 2004); ondotik, zehaztasunetara jo nahi izan dugu, erreferentzia

eguneratuago batetik abiatuta (A.D. Smith 2009). Hala, tresna nagusi izanen dugun ikuspegi etno-sinbolistaz gain, zazpigarren atalean espresuki erabilgarri izanen den teoriarekiko aldeak –teoria modernistarekikoak– ere nabarmendu ditugu.

1.3.2. Etno-sinbolismoaren muga nagusiak

Etno-sinbolismoak, tresna laguntzaile gisa, duen balioa –gainetik, bederen– laburbildu badugu ere, agerian utzi nahiko genituzke tresna honi buruz agertu diren hainbat zalantza edo hausnarbide. Horiez aritzeko, bi multzotan banatu ditugu ideiak: etno-sinbolismoan adituak direnen ekarriak bildu ditugu (“a. Adituen erranak”), guk geronek sumaturiko ideia bat azpimarratu dugu (“b. Baliabide sinbolikoen izaera unibertuala”). Gisa horretan, tresna teorikoaren ikuspegi osotuagoa eskaini, eta geronen zalantzak ere adituen erranekin osatu ahal izan ditugu.

1.3.2.a. Adituen erranak⁹⁷

Ondoko paragrafoetan, Montserrat Guibernauk eta John Hutchinsonek argitaraturiko *History and National Destiny: Ethnosymbolism and its Critics* liburuko ideiak agertuko ditugu; bertan, ikerlari desberdinen⁹⁸ zalantzak, proposamenak edota ekarriak ageri dira bilduak.

Aditu bakoitzak egiten dituen zehazte guziak laburtzea baino gehiago, ordea, erabilgarriagoa iritzi diogu tesian ikertzen direnekin zerikusia duten ekarriak biltzeari; halatan, aditu horietarik bakoitzak erraten dituenetarik, bortz ikerlariren ideiak laburbildu ditugu: Joshua A. Fishman (*ibid.*: 79-94), Miroslav Hroch (*ibid.*: 95-108), John Hutchinson (*ibid.*: 109-124), Athena S. Leoussi (*ibid.*: 143-160) eta Montserrat Guibernaurenak (*ibid.*: 125-142). Bertze adituen ekarria interesgarria izan arren, hautaturiko bortzen erranak gure ikergaiarekin izan dezaketen lotura edo interesagatik aukeratu ditugu; Fishmanek, Hrochek, Hutchinsonek, Leoussik eta Guibernauk, bertzelako erreferente edota koordenatuetara egokituak izan arren, aipagai dituzte tesian zehar hausnargai izanen ditugun hainbat antzeko ideia.

⁹⁷ (Guibernau eta Hutchinson arg. 2004)

⁹⁸ Liburuko parte-hartzaileak: John A. Armstrong, Bruce Caughen, Walker Connor, Thomas Hylland Eriksen, Eric Kaufmann eta Oliver Zimmer, Joshua A. Fishman, Miroslav Hroch, John Hutchinson, Montserrat Guibernau, Athena S. Leoussi, Mary Kaldor, Stein Tønnesson eta Anthony D. Smith bera, hurrenez hurren.

Joshua A. Fishman

Fishmanek corpusaren –“how the language morphologies are constructed” (*ibid.*: 6)– eta estatus plangintzaren –“the domains, public and private, in which languages are used” (*loc. cit.*)– arteko harremana aztertu, eta aurkezten ditu zernahi hizkuntza plangintza ahaleginetan behar luketen bi alderdi gisa. Estatus plangintzari dagokionez, ondoko corpus plangintzaren egiazko estimulua dela onartzen du; corpus plangintzari dagokionez, gainera, lau dimentsio bereizten ditu: “purity versus vernacularism, uniqueness versus internationalization, classicization versus *Sprachbund* dimension and *Ausbau* versus *Einbau* as directions of corpus planning” (*loc. cit.*).

Hainbat faktorek corpus plangintzan ziren aitzin-enfasiak berbideratu eta orekatzeko potentziala dutela azpimarratzen du.

It is his contention [Fishmanena] that changes in the ethnocultural and political orientation of particular societies impact upon corpus planning in order to adjust it to the objectives of the new authorities leading their respective speech-and-writing communities. (*Loc. cit.*)

Hala, bada, guretako interesgarria den gaia lantzen du; baliagarri gerta dakiguke Fishmanen ekarria, tesiaren hirugarren kapituluaren landuko den epea –nazioaren nahiz bere baitako ondarearen erakundetzeari dagokiona– hausnartzeko.

Miroslav Hroch

Miroslav Hrochi dagokionez, nazionalismoaren fase desberdinekin osaturiko sailkapenaren bidetik jotzen du, Guibernauk eta Hutchinsonek argitaraturiko lanean. Txekiar nazioaren jatorria hizpide duelarik, nazionalismoaren “A Fasetik” “B Faserako” aldaketa ikertzen du; bertzeak bertze, aztertzen du goi mailako hezkuntzaren sekularizazioak eta intelektual nahiz zientzia arloen askatzeak estatu nahiz erlijiotik ateko *intelligentsiaren*⁹⁹ sorkuntzan izaniko eragina (*ibid.*: 6-7).

Hrochen sailkapena erreferentzia nagusietariko bat izateaz haratago, bere proposamenak bidea irekitzen du, 1960-1990 bitarteko euskal kultur moldatzean, fase horietarikoren bat gailendu ote zen edo ez –eta, gailendu bazen, zertan sumatzen den– hausnartu ahal izateko.

John Hutchinson

John Hutchinson, aldiz, espresuki arduratzen da identitate modernoetako aitzinidentitate etnikoen eta nazio identitate modernoen arteko trantsizioaz: identitate

⁹⁹ Guk, oinarri gisa, hautaturiko adierarako, ikus A eranskineko “Intelektual vs *intelligentsia*, vs kulturgile” sarrera.

etnikoen enfasia nazionalismo eta nazio deritzogunen alderdi berritzaileekin guziz bateragarria dela adierazten du; zehazki: “He considers the impact of neo-classical and romantic ideas upon the national revivalists’ construction of a dynamic view of the role of ethnic communities in history” (*ibid.*: 7).

Horren erakusgarri deritze berreskuratze lanetan arituriko erromantikoek –berritzaile moralak izateaz gaindi–, krisi garaietan, bide berriak irekitzea eta erromantikoak berak aldaketan sortzaile izatea; tradizio kolektiboak errotik kenduz baino gehiago, ordea, “erregenerazioa” dela medio jarduten dutela dio. Hala, bada, nazioak asmatuak direla baieztatzen duten teorien kontra, guretako interesgarri den ideia batera jotzen du: “an overlaying of tradition” delakora (*loc. cit.*).

Idea hori, lanean zehar, behin eta berriz izanen da, bertze modura, solasgai; izan ere, egoera bertsua sumatu dugu 1960-1990 bitarteko euskal kultur moldatze nagusiaren oinarrian. Tradizio birsorkuntzaren ideiak lagun dezake hizpide dugun kultur moldaketaren nondik norakoa ulertzen: batetik, 1960-1975 bitarteko berreskuratze lanarekin bat heldu baita ideia; eta, bertzetik, erabilgarri gerta baitaikiguke 1975etik aitzina gertaturiko birmoldatze funtzionalean sakontzeko.

Athena S. Leoussi

Leoussik ikus-arteetan nazioa irudikatzen diren arazoak lantzen ditu: “She [Leoussi] argues that the participation of artists in the formulation, crystallization and celebration of ethno-cultural roots and identities succeeded in transforming modern societies” (*ibid.*: 7-8). Ikerlariaren ustez, arte nazionalaren garapena arte modernoaren garapenari lotua izan da; hau da, “visual arts” delakoek berebiziko garrantzia izan dutela nazionalismo kulturalarendako, argudiatzen baitu nazional gisa onartu, eta nazioaren sinbolo totemiko bihurtu direla (*ibid.*: 8).

Ikerlariak, garai desberdinei buruz aritu arren, artistek kultur moldaketetan izaniko eraginari buruzko informazioa eskaintzen du; beraz, bidenabar bada ere, kulturgileen rolei buruzko hausnarketetara hurbiltzeko erabilgarri izan liteke.

Montserrat Guibernau

Azkenik, Montserrat Guibernauren ekarriari egin nahiko genioke erreferentzia; izan ere, alde bitatik da interesgarri berak errana honata hurbiltzea: batetik, tesian erreferentzia garrantzitsua izanen baita Guibernau, eta, bertzetik, A.D. Smithek garaturiko tresna teorikorako hainbat zehazte proposatzen baititu –Smithek berak

erantzun eman zien, 2009an, Guibernauk erranei-. Guibernauk, bere aldetik, dio –Smithen ikuspegiarekin aski bat heldu arren– teoria klasikoan, “nazio” eta “estatu” kontzeptuen arteko aldeak markatzen huts egiten duela Smithek. Gainera, nazio identitatearen eraikuntza gune duten estrategia klasikoei globalizazioak sorraraziriko erronka berriak gaineratzen dizkie: “in particular, she [Guibernau] examines the political dimension of national identity. Guibernau locates the emergence of the nation-state, nationalism and national identity in late eighteenth century Europe” (*ibid.*: 7).

Arestian erran gisa, tesirako bere ekarria hagitz erabilgarria izaki, haren proposamena honata hurbildu nahi izan dugu; estaturik gabeko nazioen kasuistika landua du, beraz, lagungarri izanen da euskal komunitateak izaniko garapena aztertzeko.

Smithek, 2009an, Guibernaui emaniko erantzuna

Bada, ordea, Guibernau hizpidera ekarri izanaren bertze arrazoi garrantzitsu bat ere: idatzian erreferentzia nagusietarikoa den A.D. Smithekin eztabaida interesgarria sortu baitzen, 2004ko liburuan agerturikoen ondotik; zehazkiago, leporatu egiten zion Smithi, teorizazioan, estatuen eta nazioen artean nahikoa banaketa argirik ez zuela egiten. Smithek berak, 2009an argitaraturiko liburuan, erantzuten die Guibernauk planteaturiko zalantza teoriko horiei, “State and Nation” atalean (108.-110. or.):

She rightly contends that that definition [nazioari buruzkoa] was incapable of establishing a clearcut distinction between the concepts of nation and state, and hence of encompassing ‘nations without states’; and she appears to approve of Connor’s definition of a nation as a group of people who feel they are ancestrally related, although elsewhere she provides a more extended definition that includes ‘objective’ dimensions such as territory and common culture. But then, when she goes on to discuss my earlier definition of the concept of national identity, Guibernau seeks to bring the two concepts of ‘state’ and ‘nation’ together, albeit solely in relation to modern ‘nation-states’ which, she argues, often pursue policies of cultural homogenisation. (*Ibid.*: 109)

Jarraian, hainbat zehazte egiten ditu. Nazio identitatearen definizio “etno-sinbolistago” bat proposatzen du, estatu nazional modernoari erreferentziarik egiten ez diona:

as the continuous reproduction and reinterpretation of the pattern of values, symbols, memories, myths and traditions that compose the distinctive heritage of nations, and the identification of individuals with that heritage and its cultural elements (loc. cit.) (azpimarra ez da gurea)

Guibernauk proposatzen duen definizioa sobera murriztailea dela deritzo (*loc. cit.*). Gainera, ez da konbentzitu nazio kontzeptuari buruzko definizioari dagokionez; izan ere, baieztatzen du, errepresioa jasanagatik edo estatu independentearen jabetza galdua izanagatik, nazioak badirela erran dezakegula:

because their members continue to have common customs and share a distinctive culture that had been public – in the manner that Rousseau in 1772 advised the Poles to hold on to, and as stateless peoples such as the Catalans, Jews and Armenians possessed over several centuries. (*Ibid.*: 110)

Hori dela eta:

I remain unconvinced that a definition of the concept of the nation must exclude all reference to ‘politics’ in the shape of public culture (public symbols, rituals, codes and values) – as opposed to specific reference to the modern state. (*Loc. cit.*)

Azkenik, ondorio nagusi gisa, nazioaren ideia modu idealizatuan irudikatu beharko litzatekeela argudiatzen du; hau da, ohiko hitz idealetan, eta gisa partikularreko komunitate historiko gisa, behatu beharko litzatekela. Halatan, munduan zeharreko nazioak ulertze horretara hurbiltzen diren adibide gisa atzemanen lirateke.

1.3.2.b. Baliabide sinbolikoen izaera unibertsala

Zehazte garrantzitsua egin nahiko genuke, ondoko paragrafoetan; izan ere, Smithen proposamen teorikoak duen gune lausoetarik bat argitzea ezinbertzekoa iduritzen zaigu; zehazki, baliabide sinbolikoen balizko izaera unibertsalaz ari gara.

Ethno-symbolism and Nationalism: A Cultural Approach liburuan erranetan iduri du, bidenabar, baliabide sinbolikoen izaera unibertsala aditzera ematen dela: batetik, liburuan baliabide sinbolikoen zerrendatzea, beti, elementu berez osatua izateak iduripen hori osatzera bulkatzen du irakurlea; baina, bertzetik, ez da izaera horren unibertsaltasuna –edo ez-unibertsaltasuna– espresuki adierazi eta argudiatua ageri. Bi alderdi horiek baliabide sinbolikoen izaera unibertsala guziz argitzen ez dutela iritzirik, badaezpada, bereziki ikertu nahi dugu, ondoko orrialdeetan, izaera horren izana¹⁰⁰.

Gure iritziz, ez da sobera argi geratzen baliabide sinbolikoek, Smithendako, duten balizko izaera unibertsala; gainera, ez da zehaztua ageri unibertsaltasun horren mugak noraino zabaltzen edo hertsitzen diren eta zein elementurekin identifika litezkeen. Bidenabar iradokitzen da.

Baliabide sinbolikoei, zerrendatze soil batekin identifikatzeaz haratago, komunitatez komunitate eta garaiz garai erreparatu behar zaiela uste dugu. Hori argudiatu ahal izateko, A.D. Smithen berak emaniko definiziora jo dugu. Etno-sinbolisten betebeharrak ari delarik, argitzen du:

¹⁰⁰ Zernahi gisaz, ikertze lerro horren teorizatzea aski hastapenean izanik, izaera unibertsal hori espresuki adierazia ez izanagatik, baliteke guk hala sumatu izana. Hori dela eta, etorkizun hurbilean, adieraren alderdi hori jakintzat ematen zela argudiatuz, guk azalduriko bidetik zehaztuko balitz, hemen erranak ongi besarkatuko du, printzipioz, zehaztea.

[komunitate, ideologia eta mugimenduekiko atxikitzea eta intentsitatea ulertzeko] we must turn elsewhere. For ethno-symbolists, that means analysing communities, ideologies and sense of identity in terms of their constituent symbolic resources, that is, the traditions, memories, values, myths and symbols that compose the accumulated heritage of cultural units of population. (*Ibid.*: 15-16)

“Baliabide sinboliko” terminoak dakarren adiera mugatua da, ordea; elementuak komunitatearendako duen funtzionalitate eta betebeharrak mugatua. Horregatik, garai desberdinetan izaniko erlazioei erreparatu beharko zaiela uste dugu. Batetik, komunitateak Smithek aipatzen dituen elementuei emaniko funtzioa aztertu beharko da; bertetik, arakatu egin beharko da bertzelako elementuren batek betetzen ote duen baliabide sinbolikoei dagokien funtzio nagusia; hau da, Smithek aipatzen dituen elementu horiek –tradizioak, memoriak, balioak, mitoak, sinboloak– edota bertze batzuk ondare metatu gisa atzematen ote diren, kultur populazio taldeen baitan.

Smithek aipatzen dituen baliabide sinbolikoak unibertsal gisa aditzera eman izanak badu oinarri logikorik, noski; zerrendatzen dituen elementuak hagitz sarri izaten baitira nagusiak komunitate eta nazioetako ondare kultural metatua osatzen. Alabaina, komunitateek momentu batera arte hala atzeman ez izana gerta liteke, eta, beraz, hagitz ulergarria da ordura arte horien balio partekatuz ohartu ez izana. Hori dela eta, kontzientzia hartze prozesu horiek, bereziki, aztertu nahi diren kasuetan, elementu bakoitzarekiko harremana ikertu beharko dela uste dugu; momentuan momentuko komunitatearen eta elementuen arteko harremanaren oinarriak deskribatu beharko dira. Izan ere, elementuek, garai bakoitzean –komunitateko kideendako duketen betebeharratik abiatuta–, funtzio desberdina gara baitezakete, komunitatean.

Euskal nazioaren kasuan, 1960tik 1990era bitarteko prozesuan gutienez, baliabide sinboliko gisa erabili zen horietarik zenbait. Horrek ez du erran nahi –halabeharrez, bederen– komunitate edota nazio guzietan gisa horretara erabili direnik. Baliabide sinbolikoen izaera ez da unibertsala: komunitate bakoitzak, garai desberdinetan, funtzio desberdinak egokitzen dizkie ondare metatuko elementuei, eta, hain zuzen horregatik beragatik, ezin ziurta liteke baliabide sinbolikoak beti modu berean egokitzen direnik; kontrara, aldakorrak dira komunitateak, beren ideologiak eta identitate partekatua osatzen duten baliabide sinbolikoak.

Erraniko guziak kontuan izanik, tesian zehar Smithen erranak baliatuko ditugun arren, argi utzi nahiko genuke baliabide sinbolikoen izaera ez dugula unibertsaltzat hartuko. Batetik, unibertsaltasun horren mugak malguak baitira, garaiz garai eta

komunitatez komunitate; bertzetik, kultur ondarearekiko harremana birbaliozko eta berriz osatzeko prozesuak aztertzeke, Smithek ezarritako mugetatik haratago landu behar delakotz elementu horien eta komunitatearen arteko harremana.

Beraz, Smithek baliabide sinbolikoak aurkeztean ezartzen dituen mugak malgutu egin beharko ditugu; kultur ondarearen birmoldatzeak eta, bereziki, harekiko kontzientzia hartze prozesuak, berriz interpretatzeak, aztertu nahi baditugu; are arrazoi gehiagoz, noski, ikergaiak kulturaren eta komunitatearen arteko harremana berriztatzen diren garaiak eta prozesuak direnean.

Hortaz, bi aldetarik moldatu ditugu Smithen mugak: baliabide sinbolikoak komunitateen garapenean ez dira beti baliabide sinboliko, eta bertzelako elementuak ere baliabide sinboliko izan daitezke, printzipioz.

1.3.2. atalean, tesiak aitzina egin ahala, etno-sinbolismoari sumatu dizkiogun hainbat ahulgunez aritu nahi izan dugu. Adituek berek –Smithek 2009an argitaraturiko monografikoaren aitzinetik– eginiko zehazteez aritu gara, lehenik; horietan, espresuki erreparatu diogu Guibernauren idatzitik abiatuta, Smithekin sortu zen eztabaidari. Ondotik, Smithen teorizazio nagusiari sumatu diogun alde lauso bat izan dugu solasgai, eta baliabide sinbolikoen izaera ez-unibertsalaren alde egin dugu.

Beraz, tesian zutarri nagusietarik bat dugun etno-sinbolismoa lagungarri izan arren, hainbat hutsune badituela agertu dugu. Ohartze horrek izan du ondorio hagitz garrantzitsurik: ikuspegi horren alde egin arren, ez ditugu itsu-itsuan besarkatu adituek etno-sinbolismoari buruz erranak; hain zuzen horregatik, gauza izan gara aztergai zehatzen ikerketa xeherako behar izan ditugun egokitzapen eta proposamen teorikoak egiteko.

Ahulgune horiek hasiera-hasieratik eskainiaz, uste dugu lanean zehar sor daitezkeen zalantzak eta guk geronek sumatu ditugun zailtasunak laguntzeko hausnarketak eskaini ditugula.

1.3. atalean aipatu direnak kontuan izanik, etno-sinbolismoa 1960-1990 bitarteko euskal kultur moldaketa aztertzeke tresna baliotsua dela erran genezake. Baliabide sinbolikoak nazio eta komunitate kulturalen garapenarekin erlazionatzen dituen heinean, oinarrizko ikuspegia eskaini du, bai 1960-1990 bitarteko kultur moldaketa nagusia euskal

komunitatearen izaerarekin harremanetan jartzeko, bai moldaketa horren pausoak ulertzeko.

Tresna teoriko honek eskainiriko lehen balio nagusia da, zalantzarik gabe, ikergai den komunitatearen izana bere baliabideekin harremanetan jartzeko ikuspegia ematearena. Euskal komunitateak bizi izan duen aldaketa nagusietarik bati erreferentzia egingen diogularik, hagitz erabilgarria da nazioen –eta zehazkiago, estaturik gabeko nazioen– kasuistika eta errealtatea kontuan hartzen duen ikuspegia. Horretarako, funtsezko laguntza dira, A.D. Smithen ekarriaz gain, M. Guibernauk estaturik gabeko nazioen kasuez argiturikoak.

Kultur moldaketaren oinarrizko pausoen artean, 1975etik aitzina, tradizioaren auzian islaturikoa da adierazgarrien; izan ere, bertan sumatzen baita berreskuratu berria zen ondarea, funtzionalitatearen izenean, garai berrietara gehiago egokitu behar izan zela. Auzi horren garrantziaz oharturik, espresuki arituko gara horretaz, tesiaren hirugarren kapituluan; hain zuzen ere, horretarako, etno-sinbolismoak beharrezko ikuspegi zabala eskainiko digu; tradizioa euskal komunitatearen baliabide sinboliko erranahitsua izaki, haren azterketarako baliabide garrantzitsuak eskaini ditu etno-sinbolismoak.

1.4. Gure hurbiltzearen oinarriak: harilkatzea

Kulturaren eta sinboloen azterketarako tresna teorikoak aurkeztu ondotik, atal honetan, behin eta berriz hizpide izanen dugun oinarrizko abiapuntua argituko dugu. Goitiko orrialdeetan azaldu dugu garai desberdinetan proposatu diren hurbiltzeek modu diferenteetan aurkeztu dutela kulturaren nahiz kultur eremuan diren prozesu nahiz elementuen izana. Tesirako hautatu dugun bideak aditu nagusiek abiatutako bideari erreparatzen dio, baina, beti ere, aztergai zehatzera egokitu ditugularik proposamen nagusi horiek oro.

Hala, bada, ondoko orrialdeetan, hurbildu diren ikerlari nagusien ekarria laburbiltzeaz gain, EKS garaikidearen oinarriak agertu ahal izateko egin behar izan ditugun egokitze teorikoak ere bilduak dira. Lehenik, laburki, adituen ekarrietarik, aztergaiaren ikerketarako erabilgarrien diren tresnak aurkeztuko ditugu, eta, bereziki, tresna horiek lanerako duten erabilgarritasun komunaren haria emanen dugu (1.4.1.); hartara, segidan, adituen erranei, aztergai zehatzaren mesedetan, gaineratu behar izan dizkiegun ñabardurak eta proposamenak bildu ditugu (1.4.2.). Gisa horretan, tesian

diren proposamen teorikoen iturri nahiz egokitze bide nagusiak agertuko ditugu, ondoko orrialdeetan.

1.4.1. Tresna teorikoak: adituen ekarria

Lanaren helburuek eta aztergaien izanak finkatu dute tesirako hautatu diren oinarri teoriko gidatzaileen hautaketa. Batetik, EKS garaikidearen oinarriak ezarri ziren garaia aztergai izaki, kulturaren azterketa argitzen duen bidea aukeratu dugu. Bertzetik, kultura horren erreferente nagusiaren izanari erreparatu behar izan diogu; hortaz, euskal komunitatearen izaera berezia kontuan hartzen duten ekarpenak ere kontuan izan ditugu: estaturik gabeko nazio gutiratuen prozesuak hausnartzen dituztenak. Gainera, kulturen eta komunitate zehatzen arteko harremana komunitate garapenarekiko harremanean aztertzen duen ikuspegia hartu dugu. Akitzeko, zehaztasun maila horren baitan, ikertze fokua komunitatearen alderdi sinbolikoan ezarri nahi izan dugu. Horretarako, lana komunitateen baliabide eta forma sinboliko zehatzen azterketara bideratu izanaz gain, horien bilgune den kultur azpiero baten azterketa ere egingen dugu.

Lanak aitzina egin ahala, ohartu ginen bazela ekarri teorikoen eta hautaturiko ikergai nagusien –euskal komunitatearen, EKSren– arteko harremana bereziki modu espezializatuan antolatzen lagundu zigun azpiero baten; hori dela eta, azpiero horren azterketa erantsiaz, espresuki sortu zitzaigun baliabide eta forma sinbolikoen bilgune izaniko kultur eremu baten ikerketa garatu beharra. Hau da, 1960-1990 bitartean, komunitateak jasan zuen moldaketako kultur faseen izana ongi ulertzeko, kultur azpiero bati behatu behar izan diogu: eraldaketa horien gauzapean zehatzen –baliabide eta forma sinbolikoen– bilgune nagusietariko izan zen *Euskal Literatur Eremuari (ELE)¹⁰¹. Hortaz, komunitatearen eta EKSren arteko harremana aztertzeko hautatu ditugun tresna teorikoak ELSren ikerketarako ere baliatu ditugu.

Tesiak aitzina egin ahala sumatuko denez, eremu horrek islatzen ditu komunitateak maila desberdinetan jasaniko faseak: literaturak, 1960-1990 bitartean, jasan zuen eraldaketak lagundu egiten du euskal komunitatearen garapen *faseak¹⁰² ulertzen; eremuaren egituratze sistemikoaz haratago, bertan biltzen ziren forma eta

¹⁰¹ Ikus A eranskinetako “Euskal Literatur Eremua (ELE) eta Euskal Literatur Sistema (ELS)” sarrera.

¹⁰² Ikus A eranskinetako “Faseak eta beharrak: nazioaren berpizkundeko faseak eta beharrak” sarrera.

baliabide sinbolikoen eraldaketa zehatzek agertzen baitute komunitatearen garai eta behar berriendako egokitze anitza.

Beraz, ELE baliabide sinbolikoen bilgune dela onarturik, tresna teorikoak azpiero horren lanketarako geureganatu ditugu: Cassirer, Thompson eta Guibernau nahiz Smithengandik abiatuta sortu dugun hariak ELSren ikerketa ere ongi besarkatzen du.

Baliabide sinbolikoak forma sinbolikoekiko alderatu ditugunean azalduko den gisa (1.4.2.), lehenek izaera berezia dute, eta beren baitan barneratzen dituzte koherentziadun espazioa partekatzen duten forma sinboliko zehatzagoak. Ideia horretatik abiatuz, baliabide sinbolikoen besarkatze ahalmena kontuan duten tresna teorikoetara jo dugu. Horretarako, Cassirerren (1995 [1944]) sinbolo amarauna abiapuntu egokia izan da; literatura baliabide sinbolikoen bilgune zabala izaki, bere baitan forma sinboliko aunitz dituen errealitatea izanik, aukera eskaini digu haren zabaltasuna funtsezko batasun funtzional batetik ikertzeko.

Baliabide sinbolikoak testuinguru jakinetan kokatuak izateak –gauzatu, osatu, moldatu, deuseztuak izateak– testuinguru zehatzen baitako prozesuetara hurbildu beharra ekarri du, gainera. Hori dela eta, hurbiltze horren oinarrian ziren baldintza, eragile eta kausa behinenak kontuan hartu beharra sortu zaigu.

Batetik, forma sinbolikoen eta testuinguruaren arteko lotura hertsia lantzen duen garapen teorikora jo dugu: John B. Thompson (1990) soziologoaren lanetan, forma sinbolikoen eta testuinguruaren arteko harremana aztertzeko funtsezko ideiak eskaintzen dira. Ideia horiek bertze helburuendako erabiliak izan arren, bertzelako azterketendako laguntza izan daitezke; hala nola, euskal kulturaren garapena aztertu nahi dugun honetan, hagitik baliagarriak izan dira –forma sinbolikoak testuinguruarekiko harremanetan izanik– ikerlariak garaturiko ezaugarriak, balioztatze prozesuak eta hondarreko horien baldintzatzaileak. Bertzetik, literatura forma eta baliabide sinbolikoen bilgune gisa atzeman duen giza-taldeari behatu diogu: euskal komunitateari. Bere izana eta testuinguruak kontuan izanik, estaturik gabeko nazio-komunitate baten inguruko azterketa egin behar izan dugu. Halatan, izaera horri erreparatzen dioten adituen ideiak erabili ditugu. EKS garaikidearen oinarriak ulertu ahal izateko tresna teorikoak eskuratu dira, bai komunitate baten oinarritzko baliabide sinboliko eta alderdi subjektiboen garrantzia aldarrikatzen duen Anthony D. Smithen erranetara (1995, 1999,

2009), bai estatirik gabeko nazioen izaera zehatza kontuan duen Montserrat Guibernauren lanetara (1996, 1999), hurbilduz.

Hondarreko bi teorialariek hizpide duten teoria etno-sinbolistak lotura egokia eskaintzen du kultura testuinguru jakinean –komunitate eta garai zehatzak, elkarreraginean– aztertzeko; izan ere, forma sinbolikoek testuinguru jakinekin duten harreman nagusia Thompsonekin batera ikuskatuko dugun arren, etno-sinbolismoak lagundu egiten du testuinguru horren izaera zehatzaren eta baliabide sinbolikoen arteko harremana aunitzez gehiago zehazten¹⁰³; bertze modu batera erranda, etno-sinbolismoak eskaini digu euskal komunitateak literatura, baliabide sinbolikoen bilgune gisa, nola erabili duen erreparatzeko oinarritzko laguntza. Are gehiago, 1960-1990 bitarteko literaturaren garapenak erabilera horren nagusitza azaleratuko du. Azkenik, Guibernauren lanek emanen dizkigute estatirik gabeko nazio-komunitateen kasuistika espresuki kontuan hartzen duen ikerketa gauzatu ahal izateko ikuspegi eta bideratzeak.

1.4.1. atalean, erakutsi nahi izan dugu tesiko ikergai zabalenen azterketarako osatu dugun oinarri teorikoen multzoak erabilgarri izanen direla aztergai mugatuagoen azterketarako ere; euskal komunitate nahiz EKS aztertzeko baliabideak ELSren azterketarako ere erabilgarri izanen dira.

Laburturiko teoria bidean, aztergaiak ikertu ahal izateko, eredu zabalenetatik gero eta ikuspegi zehatzagoetara jo dugula sumatzen da; ikerlerroen nahiz ikerlerroan parte hartzen duten alderdien izana zabala izan arren, kasu jakinen azterketak esparru zabalak izaera zehatzetara hurbildu beharra baitakar, ezinbertzean. Hori dela eta, segidan heldu den atalean eginen diren egokitze teorikoekin, lanean zehar sarri ikergai izanen diren alderdi zehatzago horiek argituko ditugu.

1.4.2. Tresna teorikoak: egokitzeak

Tesian zehar landuko diren baliabide sinboliko zehatzak bi modutara aztertuko ditugu: batetik, baliabide zehatzen azterketa eginen dugu¹⁰⁴ –tradizioa–, eta, bertzetik,

¹⁰³ Oroitu: “For ethno-symbolists, that means analysing communities, ideologies and sense of identity in terms of their constituent symbolic resources, that is, the traditions, memories, values, myths and symbols that compose the accumulated heritage of cultural units of population. This is to privilege the domain of culture only insofar as we are dealing with the form, contents and appeal of particular ideologies and sense of shared identity” (Smith 2009: 15-16).

¹⁰⁴ Forma sinboliko zehatzak: AOK-ko forma sinbolikoek ELEN izaniko presentzia (4.1.2., a.2.), euskararen kasua (6.1.4., b.1.); baliabide sinboliko zehatzak: tradizioa (AOK, hirugarren atalean, eta literatur tradizioa, zazpigarrenean); eta etno-historiak (3.2.).

euskal komunitatearen kasuan baliabide sinbolikoen bilgune nagusi izan den azpierzemua landuko dugu –literatur eremua–. Gisa horretan, forma sinbolikoen interpretazio zehatzaz gain, euskal komunitatearen garapen osotuz ohartzeko zabaltasuna ere eskaini ahal izanen da: baliabide sinboliko batez gain, baliabide sinbolikoen bilgune garrantzitsuenetariko baten azterketa aurkeztuko baitugu.

Hori guzia egin ahal izateko, lau egokitze teoriko proposatuko ditugu. Lehenik eta behin, forma eta baliabide sinbolikoen arteko aldeak argitu beharko dira (“1. egokitze teorikoa”). Ondotik, forma sinbolikoen eraikuntzan parte hartzen duten alderdi nagusiak, Thompsonnek borts ezaugarri gisa aurkezten dituenak, baliabide sinbolikoen izaerarekin bateragarri ote diren hausnartuko dugu (“2. egokitze teorikoa”).

Lehen bi egokitze horietan, tesian zehar etengabe agertuko diren kontzeptuen oinarritzko izana azaldu nahi dugu; beraz, segidan, azalpen osotua agertu, eta lanean zehar eskainiko ditugu, sakondu ahala, egin behar izan diren ñabartze osagarriak.

Gainera, forma sinbolikoek jasaten dituzten hiru balioztatze prozesuen izaera berezitua, baliabide sinbolikoei dagokiena, ere kontuan hartu beharko da (“3. egokitze teorikoa”); alabaina, moldatze horretan, baliabide sinbolikoak agertzen eta biltzen diren kultur eremuaren eragina izan beharko dugu kontuan, eremu horrek berak eraginen baititu balioztatze prozesu propioen bidezko bideratzeak. Azkenik, balioztatze horiek baldintzatzen dituzten hiru ezaugarriak, baliabide sinbolikoen azterketari begira, doitu beharko dira (“4. egokitze teorikoa”); egokitze horretan ere, erreparatu beharko zaie eremu kulturalaren balioztatzeak baldintzatzen dituzten aldeei.

Hondarreko bi egokitzeetan, lehen biek egin ez bezala, tesian zabaltasunez garatu diren alderdi teorikoen laburpena eskaini dugu, eta xehekiago landuko dira, lanean zehar, adibideen laguntzaz.

Beraz, lau egokitze horietan, lanean gidari izan ditugun alderdi teorikoen bateragarritasuna agertuko dugu; ikusiko dugu Thompsonnek forma sinbolikoen azterketarako erran zituenak bai Anthony D. Smithek azalduriko etno-sinbolismora nahiz baliabide sinbolikoen izanera nola egokitzen diren, bai Montserrat Guibernauk aldarrikaturiko estaturik gabeko nazioen azterketara moldatzerik ba ote den.

1. egokitze teorikoa. Forma sinboliko vs baliabide sinboliko

Eremu sinbolikoa¹⁰⁵ gauzatzen den forma sinbolikoen artean, baliabide sinbolikoak definitzen ditu erreferentziatzko partaideen eta funtzioen arteko harreman zehatzak: komunitate batendako –erreferentziatzko partaide kolektiboarendako– funtzio osatzaile subjektiboa –funtzio zehatza– duten gauzatze sinboliko espezifikokoak dira; komunitate identitatearen izaera subjektiboa baldintzatzen duten baliabideak. Hala, bada, funtzio nagusia komunitateen izaera subjektiboa osatzea izaki, erreferentziatzko partaide kolektiboaren ondare metatua osatzen dute.

Izaera nagusi horrek, gainera, koherentziadun espazioa osatzen du, erreferentziatzko partaideendako: baliabide sinbolikoak oinarritzko erranahi eta atzemate koherentzia duten espazio ukiezinak dira. Eremu horien baitan, hain zuzen ere, oinarritzko koherentzia baten alderdirik behinenak partekatzen dituzten forma sinbolikoak biltzen dira. “1. Oinarri teorikoak” atalean azaldu gisa, forma sinbolikoek multzo heterogeneoa osatzen duten arren –ekintza, adierazpen eta objektu adierazkorrek osatzen dute aipaturiko talde anitza (Thompson 1990: 132)–, baliabide sinbolikoen baitako forma sinboliko zehatz guzietan partekatuko dute baliabide sinboliko besarkatzaileak ezartzen dituen lege espezifikokoak –baliabide sinboliko izaera ematen dien komunitatearen eta funtzioaren arteko harremanak ezarritako arauak osatuak–.

Erreferentziatzko partaideen eta funtzioaren arteko harremanari dagokienez, baliabide sinbolikoek eremu bereko forma sinbolikoak biltzen dituztela onartu arren, muga nagusi bat ezartzen du “baliabide” izendapenak: hitzaren erranahiak berak aditzera ematen du, berez, norbait(zu)ek zerbaitetarako, helburu edota eginkizun baten asebetetzeko, funtzio betetzea dela. Hori dela eta, bi mailatako funtzionalitatea bereiztea komeni da. Batetik, eremu sinbolikoa gauzatzen den formen artean baliabide sinbolikoak identifikatzen dituen –hau da, baliabide sinbolikoek, komunitateak osatzeko prozesuan, duten funtzioa–; bertzetik, kontuan izan behar genituzke baliabide sinbolikoek erreferentziatzko partaideendako bete ditzaketen funtzio espezifikokoak¹⁰⁶. Anthony D. Smithek, kasu, komunitate nahiz nazioak eta euren identitatea hizpide harturik, ondoko baliabide sinboliko nagusiak zehazten ditu, eragile nagusi gisa:

¹⁰⁵ “Eremu sinboliko” hitza eta “sinbolikoa” parekoak dira, guretako; oroitu 1.2.2. atalean ageri dela azaldua –Giménez aipu batez– “sinbolikoa” hitzaren erranahia.

¹⁰⁶ Lanean zehar, hagitz nabaria izanen da funtzionalitatean ezarri dugula fokua: ondare kulturalaren baitako AOKren funtzionalitateaz gain (3.1.3.), aztertuko ditugu 1960-1975 bitarteko literatur eremuarena (4.1.2.), 1975-1990 bitartekoarena (7.1.2.) eta Mikel Laboaren arituan sumaturikoa (4.2.2.).

tradizioak, memoriak, balioak, mitoak eta talde kulturalen ondare metatua osatzen duten sinboloak (2009: 15-16). Lanean zehar, tradizioa izanen da euskal komunitateak 1960-1990 bitartean izan zuen birmoldaketaren muina azaleratzen lagunduko digun baliabide sinbolikoa.

“Forma sinboliko”¹⁰⁷ delakoak, ordea, modu zabalagoan egiten die erreferentzia errealitate sinbolikoaren gauzatzei; erran nahi baita forma sinbolikoak erreferente bakanari edo multzo bati erreferentzia egin dakiokeela. Horregatik, lanean hizpide diren “baliabide sinboliko” eta “forma sinboliko” terminoen arteko alderik nabariena, goiti aitzinatu gisa, funtzioen eta erreferentziazko partaideen arteko harremana da: baliabide sinbolikoak komunitate bateko identitate kolektiboaren eraikuntzarako forma sinbolikoen multzo koherente –oinarrizko arau multzo partekatua baitute– eta zehatzak dira. Lan honetan aditzera ematen den “forma sinboliko” adierak, aldiz, ez du komunitatearen eta funtzio eratzailaren arteko harremanik ziurtatzen.

Horiek horrela, euskal komunitatea erreferentziazko partaide nagusia izanik, eta euskal kulturaren garapena ikusmiran dugunez, espresuki hartzen dugu kontuan komunitatearen eta funtzioaren arteko harreman horren espezifikotasuna agerian uzten duen banaketa. Batetik, komunitatearen eta funtzionalitatearen arteko harremana ikertu gabe identifika litezkeen forma sinboliko guti batzuk aipatuko ditugu (4.1.2.a.). Bertzetik, eremu sinbolikoaren gauzatzeen artean, komunitatearen eta funtzioaren harreman zehatza bildu (izan) duena: landuko dugun baliabide sinbolikoa tradizioa izanen da, eta, horren baitan, bi agerpen moduri erreparatuko diegu –bigarren kapituluan, ahozko ondaretiko tradizioa izanen da aztergai; hirugarrenean, literaturatikoa–.

Arestian erran gisa, testuinguruen eta komunitateen arteko harremanak baldintzaturiko baliabide sinboliko zehatzen eremuak koherente izanik, osatu egiten da komunitateak baliabide sinboliko zehatz horretarako duen egitura propioa; eremuaren arau eta egituratze lege berezkoei moldatua. Lanaren hirugarren kapituluan ikusiko denez, ELeren osatze sistemikoak halabeharrez egokitu behar izan zuen tradizioak –komunitatearen baliabide sinboliko gisa– zukeen funtzionalitatea eremuaren garapen berezitura. 70eko hamarkadatik aitzina sortu ziren literatur abangoardiek bi alderdiri

¹⁰⁷ “Forma sinboliko” vs “ondasun sinboliko”: “I shall use the term ‘symbolic forms’ to refer to a broad range of meaningful phenomena, from actions, gestures and rituals to utterances, texts, television programmes and works of art” (Thompson 1990: 138); “When symbolic forms are subjected to economic valorization, they become commodities or, as I generally say, ‘symbolic goods’ which can be bought, sold or otherwise exchange in market” (*ibid.*: 13).

begira gauzatu behar izan zuten literatur *sistema integratuaren¹⁰⁸ egituraketa: batetik, eremu berezituaren lege berezkoak kontuan izanik; bertzetik, tradizioak –euskar baliabide sinboliko gisa– komunitatearekiko zuen harremana hausnartuz. Gainera, bi alderdi horien arteko oreka, birformulatze garaikideak medio, bilatuz, noski.

Aipaturiko sailkapenak ondoko erlazioa eman nahi du aditzera, kategoria zabalenetik zehatzagorako bide nagusian:

<p>Eremu sinbolikoa / sinbolikoa</p> <p>Forma sinbolikoak: eremu sinbolikoaren gauzatzeak.</p> <p>Baliabide sinbolikoak: forma sinbolikoen artean, erreferentziatzko partaide eta funtzio zehatzak dituzten gauzatzeak.</p> <ul style="list-style-type: none">- Erreferentziatzko partaideak: komunitateak.- Funtzio zehatza: komunitatearen identitate subjektibo sinbolikoa osatzea. <p>Forma sinboliko zehatzak: baliabide sinbolikoak osatzen duen eremu abstraktuko arau eta funtzioak baldintzatuak diren forma sinbolikoak. Baliabide sinbolikoek osatzen duten eremuarekiko koherenteak diren forma sinbolikoak; baliabide sinbolikoen baitako forma sinbolikoak.</p>
--

4. taula: Eremu, forma, baliabide eta forma sinboliko zehatzak

Hau da, forma sinbolikoei –orokorrean– dagozkien alderdiak dira forma eta baliabide sinbolikoen –eremu sinbolikoaren gauzatze diren horien– izaera zehatza –testuinguruz testuingurukoa– baldintzatzzen dituztenak. Beraz, baliabide sinbolikoen baitako forma sinboliko zehatzek, baliabide horren arauari erantzuteaz gain, testuingurua dute baldintzatzailer garrantzitsu; izan ere, eremu sinboliko bera partekatzen duten forma sinboliko bateratuak dira.

¹⁰⁸ Ikus A eranskineko “Kultur sistema motak: kultur sistema integratuak eta integratzaileak” sarrera.

Eremu sinbolikoa
Forma sinboliko sarea/amarauna (A), X testuinguruarekiko elkarreraginean
Forma sinbolikoak (eremu sinbolikoarekiko, A sarearen arauetikiko, X testuinguruarekiko, koherentzian)
Baliabide sinbolikoa (a)
Forma sinboliko zehatza (a.1.)
Forma sinboliko zehatza (a.2.)
...
Baliabide sinbolikoa (b)
Forma sinboliko zehatza (b.1.)
Forma sinboliko zehatza (b.2.)
...
...
Forma sinboliko sarea/amarauna (B), Y testuinguruarekiko elkarreraginean
Forma sinbolikoak (eremu sinbolikoarekiko, B sarearen arauetikiko, Y testuinguruarekiko, koherentzian)
Baliabide sinbolikoa (c)
Forma sinboliko zehatza (c.1.)
Forma sinboliko zehatza (c.2.)
...

5. taula: Eremu, forma, baliabide eta forma sinboliko zehatzen harremana

Baliabide sinboliko bakoitzeko forma sinboliko zehatzek partekatuko dute, hein batean, sinbolo sistema edo sare komun, nagusi, bateko koherentzia; dena testuinguru nagusi batek baldintzatua delarik. Hala, baliabide sinboliko bakoitzak esparru zehatzari dagozkion arau espezifiketatik iragaziko du forma sinbolikoen sare nagusia.

Proposamen teorikoak eta erabilera praktikoa

Tesian zehar aunitz erabiliko dira argitu berri diren kontzeptuak. Alabaina, baliabide sinbolikoei gaineratuko zaizkie, bereziki, testuinguru jakinen azterketarako behar diren zehaztasun teorikoak (3.1.1., 6.1.1., adibidez).

Kontzeptuen erabilera praktikoa, noski, ugaria izanen da. Tesiko aztergai nagusietarikoa baliabide sinboliko bat izanen da: tradizioa; zehazkiago, bi agergunetan islatzen den tradizioa: AOKn (3.1., 3.1., 4.1.2.a., 4.2.) eta literaturan, literatur tradizioan, (7.1.2., 7.2.) bildutakoa. Gainera, baliabide sinboliko horren bilgune zehatz bat ere aztertuko dugu: kultur azpierreku den literatur eremua (laugarren eta zazpigarren atalak). Literaturak, euskal komunitatearen baliabide sinbolikoen biltoki eta agertoki gisa, osatzen duen eremuak berezkoak zaizkion arauetatik iragazi zuen –testuinguru nagusia dela medio– eragile izan ohi den sinbolo sarearen koherentzia (7.1.).

Lehen egokitze teoriko honetan ikusiekin, behin eta berriz hizpide izanen diren forma eta baliabide sinbolikoen izana deskribatu dugu. Irudi nagusi hori nahikoa ez

izaki, eta Thompsonnek espresuki zehaztu gabeko baliabide sinbolikoak xehekiago deskribatuko ditugu, ondoko azpiatalean. Thompsonnek forma sinbolikoendako deskribatu zituen alderdiak hizpide harturik, baliabide sinbolikoak forma sinbolikoetatik aldentzen dituzten bi tasun nagusiak azalduko ditugu.

2. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: ezaugarrien egokitzea

Bigarren egokitze teorikoa dela medio, aipatu berri den forma eta baliabide sinbolikoen arteko aldeak tesian gidari diren teoriarrien erranekin nola egokitzen diren ikusiko dugu. Horretarako, kontuan izanen ditugu bai J.B. Thompsonnek forma sinbolikoendako identifikatu dituen borts ezaugarriak, bai baliabide sinbolikoen garapen osotuena eskaini duten A.D. Smithen erranak ere.

Bi kontzeptuen bateragarritasuna ardatz nagusi baten malgutasunean oinarritua da; forma edo baliabide sinbolikoaren erreferentziaren izanean, preseski. Hau da, lehen egokitze teorikoan aitzinatu gisa, erreferentearen izana da, forma sinbolikoen artean, baliabide sinbolikoak bereizten dituen tasunik bereizgarriena; baliabide sinbolikoek beti izanik komunitatea erreferente nagusi, erreferenteen eta baliabideen arteko harremana da aztertu beharrekoa.

Euskal komunitatearen kasuan, 1960-1990 bitarteko moldaketa kulturalen, tradizioaren birmoldaketa egokitze nagusietariko bat izan zela ikusiko da. Horren erakusgarri, batetik, 1960-1975 bitartean AOK-k jasan zuen moldatze funtzionala izanen dugu hizpide (3.1.): komunitatearekiko harremana garai berrietara egokitu, eta behar maila oinarritzkoak asebate ahal izateko funtzionalitate eguneratua garatu zen, komunitatearen eta tradizio atal horren artean; bertzetik, tesiaren hirugarren kapituluan agertuko denez, tradizioak literatur eremuan jasan zuen aldaketa dela medio, garatu ahal izan ziren kultur eremuaren garapen moderno¹⁰⁹ eta literatur tradizioak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) eraikuntzarako behar zuen birmoldatze funtzionala (7.1.).

Zehaztasun horiek argitu aitzin, baliabide sinbolikoen ezaugarri nagusiez hausnartu behar. Horretarako, Thompsonnek forma sinbolikoen azterketarako zehaztu zituen tasun nagusiak (1990: 137-145) etno-sinbolismoak baliabide sinbolikoez erranekin (Smith 2009: 14-16, 90-92) bateratuko ditugu.

¹⁰⁹ Egituratze sistemikoa ahalbidetu zuena.

Baliabide sinbolikoak komunitateak, ideologiak eta identitate partekatuak eratzen dituzten gauzatze sinbolikoak badira, forma sinbolikoetatik bereizten dituzten izaera berezitutik abiatu beharko litzateke ezaugarrien zehaztea. Hori hala izanik, bi kontu nagusi nabarmendu behar: baliabide sinbolikoak gisa horretan atzematen dituen erreferentziazko partaidea eta, azken horren eraketan, baliabide sinbolikoak duen ahalmena.

Lehen tasun berezituak forma sinbolikoekiko oinarritzko lehen aldea nabarmentzen du: baliabide sinbolikoen eragina atzematen duen partaidea beti da talde bat. Are gehiago, talde horrek komunitate bateratu gisa atzematen ditu baliabide sinbolikoak aditzera emana eta bere eragina. Erreferentziaren izaera zehatz horrek sortzen du Thompsonen forma sinbolikoendako aipatzen zuen izaera erreferentzian ñabarduraren bat egin beharra, izaera erreferentzialak bertzelako izaera hartzen baitu, baliabide sinbolikoen kasuan. “Zerbaiti erreferentzia egite” hori beti izanen baita erreferentziazko komunitateari dagokion ideia, irudia edo pentsamendua; forma sinbolikoekin gertatu gisa, komunitatearekiko erreferentzia hori aldatu egin ahalko delarik, noski, testuinguru desberdinetan.

Izaera konbentzionalari dagokionez, ordea, Thompsonen forma sinbolikoendako ematen dituen argibideak nahiko ongi egokitzen dira baliabide sinbolikoen izaera berezitura; izan ere, egia da hondarreko hauetan ere ekoizteen, eraikitzeen eta erabileran arauak, kodigoak eta konbentzioak parte hartzen dutela. Tesian zehar ikusiek, ordea, ikuspegi horren ifrentzua azpimarratzea espresuki garrantzitsua dela erakutsi digute, baliabide sinbolikoek sortzen baitituzte erreferentziazko komunitatean sentitze, atzematze eta aditze arau nahiz kodigo partekatuak. Bertzerik da, forma sinbolikoekin gertatu gisa, arau horiek aldatu egiten diren; bertzeak bertze, Laboaren arituan, ikusiko denez, AOKtik helduriko ondarea gisa desberdinean atzematze aldaketa gertatu zen (4.2.2.).

Baliabide sinbolikoen bigarren tasun berezituak ere forma sinbolikoekiko bertze aldeetarik bat azaleratzen du: baliabide sinbolikoen eta erreferentziazko komunitatearen artean funtzionalitate nagusi jakin bat izaten da; baliabide sinbolikoak beti dira komunitatearen izana, ideia, ulerkuntza eta ideologiak moldatu, aldatu eta egokitzeko funtzioa duten gauzatze sinboliko partekatuak. Hori dela eta, Thompsonen aipatzen zuen egiturazko eiteari dagokionez, baliabide sinbolikoak ere lotura jakina duten elementuz osatuak dira, eta, beraz, egitura artikulatuko eraikuntzak direla erran liteke.

Egitura artikulatu horrek, ordea, maila desberdinetako loturak atxikitzen dituela ikusiko dugu. Batetik, baliabide sinbolikoen baitako forma sinboliko zehatzak beren artean eta baliabidearekiko lotzen dituen egitura da; bertzetik, baliabide sinbolikoak kultur eremu desberdinetan duen agerrerari dagokionez, eremu horietariko bakoitzari dagokion arau multzo eta konbentzio propioekiko lotura –baliabidea agertoki horretarako bateragarri egiten duena– izan behar da kontuan. 1975etik aitzina, ELEN bilduriko tradizioak, kasu, gainerako literatur eremuko forma sinbolikoekin eremuaren izaera berezitua egituratzen zuten arau berezituak partekatu zituela ikusiko da.

Hain zuzen ere, aipatu berri diren testuinguru eta prozesu soziohistoriko zehaztetan moldatu, jaso eta aldatzen dira baliabide sinbolikoak, forma sinbolikoekin gertatu gisa. Halatan, baliabide sinbolikoen barne-egituraz haratagoko ezaugarriak eta eragile baldintzatzaileak ere badira; arestian erranaren bidetik, hagitz eragile garrantzitsuak dira baliabide sinbolikoak kokatzen diren kultur eremuaren, momentu soziohistorikoaren eta erreferentziazko komunitatearen eragin banakoak nahiz horien arteko elkarreraginak.

Tradizioak, baliabide sinboliko gisa, ELEN, izaniko garapena arrunt baldintzatu zuen, ikusiko dugunez, komunitateak, jarraitutasun zabalaren baitan, jasan zuen birmoldatzeak; adibidez, ELEk berak, 1975-1990 bitartean, sistema egituratu izana eskuratu beharrez abiatu zuen prozesuak (6.1.4.). Adibide hori dela medio agerrazaraziko dugu baliabide sinbolikoak garatu eta barreiatzen lagun dezaketen indar nagusietariko bat: erakunde egituratzaile-erakundetzailen lanak berebiziko garrantzia du, komunitate garaikideek beren gune sinbolikoaz¹¹⁰ haratagoko errealitatean duketen funtzionalitate garapenean.

Proposamen teorikoak eta erabilera praktikoa

Baliabide sinbolikoen tasun berezituak Thompsonnek, forma sinbolikoendako, aipatzen dituen ezaugarriekin alderatzeak argitzen du kontzeptu nagusien izana. Hori dela eta, lanean zehar baliabide sinbolikoen izana berriz gisa honetan deskribatuko ez dugun arren, behar izanez gero, ikergaia sakondu ahal izateko xehetasunak eskainiko ditugu. Bertzeak bertze, baliabide sinbolikoen artean, AOKn bilduriko ondareak eta tradizioak izan ohi dituzten funtzionalitate nagusiak nahiz horien bideratzaileak

¹¹⁰ “Gune sinboliko” eta “gune mugatu” delakoen azalpen osotura (5.2.1.b.) ailegatu aitzin, eskuragarri da, A eranskinean, azalpenaren bertsio laburtua (“Guneak: gune eragileak” sarrera).

(3.1.3.a., 3.1.4.); edota azpiero kulturalak 1975etik aitzinako euskal baliabide sinbolikoen garapenarekiko izan zuten elkarreraginaren oinarriak (6.1.4., 6.2., 7.1.3.).

Bigarren egokitze teoriko honetan erranek, lehen egokitzearen laguntzarekin, erabilera praktikoa bateratua izanen dute, tesian:

Bigarren kapitulua (1960-1975). Bitarte honetako azterketan, kontuan hartu behar izan ditugu forma eta baliabide sinbolikoen izaera berezituak. Forma sinboliko zehatzei dagokienez, horien azterketarako baliatuko dira Thompsonen eskuragarri jarritako borts ezaugarri nagusiak (4.1.2., a.2.). Baliabide sinbolikoen kasuan, AOKren azterketa eginen dugu (4.1.2., a.1.); horretarako, ordea, Thompsonen proposamenaz gain, baliabide sinbolikoetarako proposatu dugun egokitzapeneko bertze alderdiak baliatuko ditugu (3.1.1.).

Hirugarren kapitulua (1975-1990). Garai honen azterketarako, aldiz, aztergai zehatzak aldatu egin ditugu. Forma sinbolikoei dagokienez, hizkuntza izanen da hizpide nagusia (6.1.4., b.1.). Gainera, bigarren kapituluan aztergai izaniko baliabide sinboliko bera –tradizioa– aztertuko dugun arren, AOKn islatuari behatu beharrean, literatur tradizioaz arituko gara (7.1.3., 7.2.).

Ondoko egokitze teoriko bietan agertuko direnak, aldiz, tesian zehar garatuko diren ideia multzo biren laburpena eskainiko dute: forma sinbolikoen balioztatze eta balioztatze horien eragile nagusiak baliabide sinbolikoen izanera nola egoki daitezkeen laburbilduko dugu.

3. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: balioztatzeen egokitzea

Egin beharreko hirugarren egokitze teorikoan, Thompsonen forma sinbolikoen balioztatze prozesu gisa identifikatzen dituen horiek (1990: 154-162) moldatu nahi ditugu, baliabide sinboliko eta eremu kulturalen azterketara. Horretarako, Thompsonen erranak etno-sinbolismoak lantzen dituen komunitate mailara egokitu, eta, zehazki, estatuturik gabeko nazioen ikerkuntzara hurbiltzeko tresnak prestatu ditugu.

Moldaketa hori baliabide sinbolikoak barnetatzen dituzten kultur eremuak aztertu beharretik heldu da; izan ere, balioztatzeak jasaten dituzte forma sinboliko orokorrek, komunitateen garapena aztertzeko mugari diren izaera berezitudun forma sinbolikoek –hau da, baliabide sinbolikoek– eta horien bilgune diren kultur eremuek. Hala, bada,

baliabide sinbolikoen balioztatze prozesuak ikertu nahi badira, aztertu egin behar dira, baita ere, horien bilgune diren eremu zehatzek jasaniko balioztatze prozesuak.

Maila desberdinetako balioztatze horiek aztertzeko, bi alderdi izan behar dira kontuan: (a) erreferentziazko komunitatearen testuinguru zehatza eta balioztatze ahalmena, batetik, eta (b) komunitateak jarraitutasunean duen garapen bidea, bertetik.

- (a) Lehen aldeak balioztatze prozesuak berak gertatu ahal izateko testuinguru berri ematen du: balioztatze prozesuak gertatu ahal izateko, akituak behar dute estatutik gabeko komunitatearen eta estatu barneratzailearen arteko desoreka garaiak. Erran nahi baita, estatu barneratzaileak komunitatearekiko duen jarrerak zeinahi balioztatze baldintzatzen du: batetik, komunitatetik beretik garatu ahalko liratekeen balioztatzeak akitzen baititu; bertetik, agerikoa denez, estatuaren jarrera ukatzaileak estatutiko balioztatzeak ezinezko bihurtzen ditu.

Tesian agertuko denez, 1960-1975 bitartean nekez garatu ahal izan zen kanpo-balioztatze prozesurik; aitzitik, ikusiko denez, duintasun kolektiboaren berreskuratzeak (2.2.2.) barne-balioztatze prozesu nagusia abiarazi zuen (3.1.3., c.1.).

- (b) Bigarren aldeak estatutik gabeko komunitateen *continuuma* hartzen du kontuan. Jarraitutasun horretan komunitateak daraman garapenak balioztatze prozesu bulkatzaileak lagun ditzake. Testuinguru ukatzailean barneratuak diren komunitateen kasuan, ezinezkoa den balioztatze ekonomikoaren aitzineko pauso gisa, adibidez, balioztatze sinboliko oinarritzkoak gara litezke; horien segidako balioztatze ekonomikoak nahiz estatutiko balioztatzeak lagun daitezkeelarik.

1975etik aitzinako urteetan, abiatu egin ziren euskal komunitatearekiko nahiz ondarearekiko barne- eta kanpo-balioztatze prozesu garrantzitsuak: balioztatze ekonomiko eta sinbolikoak¹¹¹ atxikiak izan ziren euskal komunitatearen bigarren behar mailari nahiz premia horietan heldu ziren prozesu nagusiei. Bertzeak bertze, ELE egituratzen hasiberriak balioztatze ekonomikoa jasan zuen, eta kanpo-balioztatze sinboliko handia abiatu zen, *Obabakoaken* sariketaren ondotik (7.1.2.b.).

Hala, bada, bi alderdi horiek agertzen dituzten balioztatzeak –baliabide, forma sinboliko eta kultur eremuek jasan ditzaketanak– hagitik lotuak dira erreferentziazko

¹¹¹ 1975etik aitzinako balioztatze sinbolikoa berriztatua izan zela ikusiko dugu (7.1.2.).

komunitatearen *behar mailei¹¹². Komunitateko lehen behar maila asebeste gabe den kasuetan, nekez garatu ahal izanen da barne-balioztatze ekonomikorik –edota kanpotiko zeinahi balioztatze–. Aitzitik, behar maila oinarritzko hori asebestea denean, aunitzez aisago izanen da kultur eremuen edo baliabide sinbolikoen balioztatze ekonomiko eta sinboliko sakonak garatzea.

Proposamen teorikoak eta erabilera praktikoa

Hirugarren egokitzearen aurkezpen laburtuan erranek erabilgarritasun teoriko nahiz praktikoa izanen dute, lanean. Egokitzapen teoriko honen garatze osotua bi multzori erreferentzia eginaz banatu dugu. Batetik, euskal komunitatearen kasuan oinarrituz, Balioztatze Prozesu Nagusia funtzionalitatearen irizpidearen arabera ikertuko dugu (3.1.3., c.1.); bertzetik, komunitatearen errealitate zehatzagoei eragiten dieten balioztatzeen egokitzea eskainiko dugu (7.1.2., b.1.).

Erabilera praktikoa, lehen bi egokitzeekin egin gisa, tesiaren bi kapitulutan izanen da erabilgarri:

Bigarren kapitulua (1960-1975). Kapitulu honetan, maila desberdinetan gertaturiko balioztatzeei erreparatuko diegu. Komunitateen errealitate osoa eragiten duten balioztatzeak direla eta, espresuki arituko gara euskal komunitateak bitarte horretan jasaniko Balioztatze Prozesu Nagusiaren izanaz, haren eraginaz eta aitzineko nahiz ondoko faseekiko izan zuen loturaz (3.1.3., c.1.). Balioztatze prozesu zehatzagoak ere aztertuko ditugu: AOK-k jasaniko balioztatze prozesuez (3.1.3., c.2.) eta literatur eremuan, ustez, islatu ziren balioztatzeez egingen dugu solas (4.1.2.).

Hirugarren kapitulua (1975-1990). Maila desberdinetako balioztatze prozesuei behatuko diegu. Hasteko, EKSren baitako balioztatzeek partekaturiko testuinguruaz ari garelarik, balioztatzeen zeinahi azterketarako beharrezko deritzogun pare bat zehazte egingen ditugu (6.1.4., b.1.). Aitzinago, ELSn maila desberdinetako balioztatzeak izan zirela agertuko dugu: balioztatze sinboliko berriztatua eta balioztatze ekonomiko berria (7.1.2., b.2.1.); gainera, balioztatze prozesuak garatzeko aukerak biderkatu izanaren zergatiak azalduko ditugu (7.1.2., b.2.2.).

Hala, bada, bi kapitulu horietan deskribatzen diren garai, kultur eta komunitate moldaketak azaltzeko, komunitate geruza desberdinetan gauzatu ziren balioztatzeak

¹¹² Ikus A eranskineko “Faseak eta beharrak: nazioaren berpizkundeko faseak eta beharrak” sarrera.

agertuko ditugu. Horiek testuinguru bakoitzean izaniko garapen zehatza marraztu, eta, komunitate garapeneko fase bien arteko alderatzea osatuz, are nabariagoa izanen da testuinguruen, balioztatze prozesuen eta komunitate errealitate desberdinen arteko elkarreragina.

4. egokitze teorikoa. Forma sinbolikoak: balioztatzeak baldintzatzen dituzten ezaugarrien egokitzea

Hondarreko egokitzapen teoriko gisa, baliabide sinbolikoen azterketara moldatu nahi ditugu Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako proposatu dituen balioztatzeen eragileak. Pauso honetarako, tesiko azterketa zehatzen gune nagusiak hartu behar izan ditugu kontuan; hau da, baliabide sinbolikoen izana, baina, bereziki, baliabide bilgune gisa jokatu duen ELE.

Erran berri dugu, hirugarren egokitze teorikoan, baliabide eta forma sinbolikoen bilgune diren kultur eremuek ere balioztatze prozesuak jasaten dituztela; hori dela eta, erreparatu beharko diegu balioztatze zabal horiek –beren baitako baliabide eta forma sinbolikoak eraginen dituztenak– baldintzatzen dituzten alderdi berezituak.

Literatur eremua bera kontuan izateak lagundu egin du euskal baliabide sinbolikoek, 1960-1990 bitartean, jasan zuten garapena zehatzen. Baliabide sinbolikoen garapenerako garrantzia duten aldeak deskribatu ahal izan ditugu: kultur eremu zehatz baten indar eragileak eta baldintzatzaileak.

Thompsonen helburuak, hartzaileek elkarreragin eremuan dituzten kokapenak eta erakunde sozialak aipatzen ditu balioztatze prozesuen baldintzatzaile nagusi gisa (1990: hirugarren kapitulua). Bigarren egokitzapen teorikoan ikusi den gisa, ordea, balioztatze prozesuak ez dira forma sinbolikoetan soilik gertatzen: izaera berezitua duten forma, baliabide sinboliko eta kultur eremuek ere balioztatze prozesuak jasaten dituztela erran dugu. Hala, bada, tesiko baliabide sinbolikoen bilgunea izan dugu kontuan; balioztatze prozesuak kultur eremuek jasateaz gain, eremu horietan biltzen diren baliabide –eta forma– sinbolikoek eremuaren izaera berezituak eragiten baitituzte.

Hau da, balioztatzeak eragiten dituzten hiru ezaugarrien laburpena aurkeztuko dugu: batetik, baliabide sinbolikoen bilgune gisa jokatzen duten kultur eremuak baldintzatzen dituztenak; bertetik, eremu horien baitako baliabide sinbolikoen agerpena baldintzatzen dutenak.

(a) Helburuak¹¹³

Forma sinbolikoen balioztatze prozesuak baldintzaten dituen lehen alde honen egokitzeak erreferentziazko komunitatea kontuan hartzeko beharra sortzen du; izan ere, kultur eremu zehatzen kasuan, erreferentziazko komunitatearen helburu kolektiboak izaten baitira eremuaren balioztatzeak baldintzaten dituzten alde nagusietarik bat.

Tesiaren bigarren nahiz hirugarren kapituluan ikusiko denez, fase bakoitzeko helburu kolektiboek guziz baldintzatu zuten ELEren garapena; beraz, baita eremu horretako baliabide sinbolikoak ere. AOK-k eta literatur tradizioak ELEn jasan zituzten balioztatzeak literatur eremuak bi faseetan izan zituen balioztatze ahalmen eta mugen mende izan ziren: 1960-1975 bitarteko fasean, duintasun kolektibo oinarritzkoenaren berreskuratze saio nagusiari lotuak, eta, 1975-1990 bitartekoan, bigarren behar mailekin garatu zen erakundetze eta kultur eremu desberdinen garapen berezituari.

(b) Elkarreragin eremuetako kokapena¹¹⁴

Thompsonek aipaturiko ezaugarri honek ere berdin-berdin baldintzaten ditu kultur eremuen –eta, ondorioz, eremu horretan ageri diren azpieremu nahiz baliabide sinbolikoen– balioztatzeak. Erreferentzia nagusia komunitatea duten forma eta baliabide sinboliko nahiz (kultur) eremuez ari garelarik, komunitatearen eta estatuaren arteko harremana biltzen duen guneari behatu beharko diogu –elkarreragin eremuez ari garenean, bederen–.

Agerikoa denez, 1975era bitartean, harreman desorekatudun kokapena izan zuen euskal komunitateak; hortaz, nekez egon zitekeen balioztatze prozesuak lagunduko zituen kokapen bulkatzailerik. Aldiz, 1975etik aitzinako prozesua aztergai denean ikusiko dugu estatu barneratzailearekiko harremana aldatu eta kapital desberdinen ahalmena guziz aldatu zela.

¹¹³ “The individuals involved in the production and reception of symbolic forms are generally aware of the fact that symbolic forms can be subjected to processes of valorization, and they may pursue strategies orientated towards the augmentation or reduction of symbolic or economic value.” (Thompson 1990: 157)

¹¹⁴ “The strategies pursued by individuals are linked to the positions they occupy within particular fields of interaction. The kinds of strategies typically pursued by individuals, and their capacity to succeed in them, depend on the resources available to them and their relation to other individuals in the field.” (*Ibid.*: 157)

(c) Erakundeen garapena¹¹⁵

Akitzeko, Thompsonen, erakundeen garapena dela medio, aditzera emana tesiko kultur eremu zehatzaren izanera moldatzeko, espresuki behatu beharko diegu erreferentziazko komunitateen eta eremuen izanari; hau da, aztertu beharko dira komunitate horren baitako kultur eremuari dagozkion erakundeen garapenak.

Komunitate garapenaren fase bakoitzean hagitz egoera desberdinak zirela ohartu gara. Tesiaren bigarren kapituluan, erakunde horien gabezia bera eragile nagusi izan zen gisa (4.1.3., a.1.; 4.1.3.c.); hirugarren kapituluan, erakundeen areagotzea agertuko zaigu eragile nagusi modura (6.1.4., a.2.). Hala ere, ikusiko dugu erakundeen garapen bideak azaleratzen duen errealitaterik erranguratsuen jatorri desberdineko kultur erakundeetan izan zela; gainera, aniztasun hori, botere iturrien jatorriaz gain, komunitate gune desberdinetatik etorri izana azpimarratuko dugu, moldatzearen oinarri nagusi gisa (5.2.2.).

Proposamen teorikoak eta erabilera praktikoa

Egokitzapen honen azalpen laburtuarekin akitzeko, erran direnek tesian izanen duten erabilgarritasuna zehaztuko dugu. Hondarreko egokitzapen honen garapen teoriko osatua 3.1.3. ataleko c.3. azpiatalean eskainiko dugu.

Aplikazio praktikoa, aldiz, bi kapitulutan izanen da erabilgarri:

Bigarren kapitulua (1960-1975). ELEko oinarrien eta balioztatze prozesuen eragileen arteko harremana aztertuko dugu (4.1.3.c.), nazio garapenari lotua izan zen neurrian. Horretarako, aitzinez deskribatuko ditugu: helburu kolektiboak (2.2.1.a., 2.2.2.), komunitateak –estatuarekiko harremanaren ondorioz– elkarreragin eremuan zuen kokapena (2.1.1.) eta indar egituratzailearen jatorria (3.1.4.).

Hirugarren kapitulua (1975-1990). Kasu honetan ere, maila desberdinetako balioztatzeen eragileek ELEN izaniko indarra aztertuko dugu (7.1.2., b.2.2.). Gainera, aldaketa garrantzitsuen jasaile izanen ziren baldintzatzaileei behatuko diegu: helburu kolektiboak (5.1.2.); komunitateak, estatuarekiko harremanaren ondorioz, elkarreragin eremuan zuen kokapena (5.1.1., 5.2.1.); eta erakunde

¹¹⁵ “the ways in which such strategies may be affected by the development of institutions which are concerned in part with the ascription and renewal of symbolic value (e.g. schools, universities, museums, etc.) or by the development of institutions which are orientated essentially towards the economic valorization of symbolic forms (art galleries, institutions of mass communication, etc.)” (*Ibid.*: 161)

sozialen kopuruaren eta botere iturrien jatorria (5.2.2.). Beraz, ELEko oinarrien eta balioztatze prozesuen eragileen arteko harremana guziz desberdina izan zela ikusiko dugu (7.1.3.c.) –nahiz eta berdin izan zen nazio garapenari lotua–.

Gisa horretan, bi kapituluetan hiru baldintzatzaileak, zehazki, zertan ziren ikusirik, tradizioak eta bere bilgune nagusi gisa aurkeztu dugun euskal literaturak jasaniko balioztatze maila desberdinak deskribatu ahal izanen ditugu; hain zuzen, banaka nahiz elkarrekiko eraginean.

Kasu honetan ere, hirugarren zehazte teorikoarekin gertatu gisa, komunitate zehatzen azterketarako hagitx erabilgarriak diren ñabardura teoriko eta praktikoak eskuratuko dira. Ikusiko denez, balioztatze horietan, komunitatearen izaerari erreparatu, eta, izaera horretara egokitzeaz gain, ezinbertzekoa da prozesu nagusiek gizarteko errealitate desberdinetan gauzatze zehatzak jasan ditzaketela ohartzea.

1.4.2. atalean, lanaren ikuspegi nagusiaren oinarri teorikoak argitu ditugu: forma eta baliabide sinbolikoak, horien balioztatze prozesuak eta baldintzatzaile nagusiak. Baliabide sinbolikoen izanaz gain, horien artean, tradizioak izan duen bilgune nagusietarik bati behatu aitzin, funtsezko ideien argibideak eskaini ditugu; horien artean, espresuki garatu ditugu, forma sinbolikoen azterketa eta izaera bereizirako, Thompsonnek eskaini zituen hainbat alderdiren egokitzea.

Baliabide sinbolikoen adiera zabalenetik hizpide den lanerako bide nagusiak komunitateen eta baliabideen arteko harremanean jarriko du fokua: ardaztu egin gara komunitate bateko partaideek –euskal komunitateko partaideek–, beren izana josi, mantendu eta sostengatzeko, beharrekiko eta eginkizunekiko dituzten harremanetan.

1.4. atalean, tesian erabiliko ditugun tresna teoriko nagusiak aurkeztuak genituela, bildu nahi izan ditugu azterketan aitzinatzeko egin behar izan ditugun egokitze teorikoak. Horretarako, garrantzitsua iduritu zaigu EKSren oinarriak, 1960-1990 bitartean, nola egituratu ziren ulertzeko hari teoriko nagusia eskaintzea. Halatan, hautatu ditugun adituen arteko harremana agertu dugu, lehenik; hau da, Cassirer, Thompson eta Guibernau-Smithen artean ezarri dugun ikuspegi bakarra islatu nahi izan dugu.

Ondotik, egokitze teoriko nagusiak argitzeari ekin diogu. Thompsonnek, forma sinbolikoen azterketarako, proposatzen dituen tresnak gure aztergaira egokitu ditugu.

Lehenik, “forma sinboliko” eta “baliabide sinboliko” kontzeptuen arteko aldeez aritu gara; bigarrenik, zehaztu dugu forma sinbolikoen ezaugarri gisa identifikatzen dituen bortz ezaugarriak baliabide sinbolikoen azterketara nola egokitzen diren; hirugarrenik, aztertu dugu forma sinbolikoek jasaten dituzten balioztatzeak baliabide sinbolikoen azterketarako nola egokitzen diren –hau da, baliabide sinbolikoek zein balioztatze prozesu jasaten dituzten–; azkenik, agertu dugu balioztatzeak –forma sinbolikoek jasaten dituztenak– baldintzatzen dituzten hiru ezaugarriak baliabide sinbolikoen azterketara nola egokitzen diren.

Gainera, zehazte teoriko bakoitzak maila espezifikokoago baten azterketa laguntzen duela sumatu dugu: baliabideen eta forma sinbolikoen arteko desberdintasunek fokua ikergaiaren gunean, komunitate garapenean, jartzeko aukera eskaintzen dute; gainera, garapen horretan mugarri diren baliabide sinbolikoen ezaugarriak zehazteak lagunduko du euskal komunitatean, 1960-1990 bitartean, baliabideek izan zuten betekizuna sumatzen. Thompsonnek forma sinbolikoen balioztatze gisa proposatuak komunitate mailako bertzelako baliabideek ere jasaten dituztela ikusiko dugu; baliabide sinbolikoek eta horiek barneratzen dituzten kultur eremuek, hain zuzen. Azkenik, balioztatzeak jasaten dituzten maila desberdinetako baliabideen baldintzatzaileez aritu beharko gara.

II. KAPITULUA

EUSKAL KULTUR SISTEMA GARAIKIDEA: OINARRITZEA (1960-1975)

2. TESTUINGURUA (1960-1975)

Euskaltasunari atxikitzeke arrazoia ez dago iraganeko esentzietan, ez iragan horren ustezko zahartasunean ere, are gutxiago haren izaera idilikoan.

Iragana garenaren dimentsio bat bada, baina. Garen hau fluxu bat da, eta iragana ikertzea beti da jakingarri. Eta zergatik ez, batzuetan inspiratzaile. Gurea bezala bizi-kinkan eta motibazio-tentsioan dagoen komunitate batean, inspirazioak eta indarrak inoiz ez daude soberano.

(Sarasua 2013: 58)

Atal honetan, euskal komunitateak 1960-1975 bitartean jasan zuen testuinguru nagusiaren irudi orokorra eskaini nahi dugu. Horretarako, lehenik, testuinguru soziopolitikoaren muineko egoera agertuko dugu (2.1.); zehazki, egoera politikoak bideratua zuen errealitatea islatuko dugu, garai hartan nagusitzen zen sentimen sozialari erreparatuz: egoeraren izaera zabalenetik, estatutik (2.1.1.), Krisi Orokorrak agertzen duen egoera zehatzera joko dugu (2.1.2.).

Ondotik, euskal komunitateak testuinguru horretan abiatu zuen prozesu nagusiaren izanari erreparatuko diogu; hau da, kolektibitatearen duintasun oinarrikoaren berreskuratzeari (2.2.): komunitateak 60ko hamarkadan abiatu zuen moldaketa nagusiaren nondik norakoak, berpiztearen zutarrak (2.2.1.) eta 1975etik aitzina segida izanen zuen moldaketaren guneak (2.2.2.) deskribatuko ditugu.

Hala, atal honetan bilduriko testuinguru nagusiaren eta komunitatearen garapena ulertzeko argibideekin, hirugarren atalean hizpide izanen diren azterketa zehatzetarako abiapuntua eskainiko dugu. Orduan agertuko denez, bai testuinguruaren izanak, bai komunitateak abiatutako garapen prozesuak, guziz baldintzatu zuten –60ko hamarkadatik aitzina– hain garrantzitsua izan zen ondare kulturalaren berreskuratzea. Horren erakusgarri gisa, euskal ondare kulturalaren azterketa eskainiko dugu, baina, espresuki, moldatze funtzionalaren azterketa eginen dugu.

2.1. Testuinguru soziopolitikoak: Krisi Orokorra

Aunitz erran da 60ko hamarkadatik diktadura akitu bitarteko urteetan sortu zen giroaz. Giro horren oinarrian ziren aldetaren bat sufritzen hasia zen botere absolutua eta gizartean zabalduriko ezinegon zabala.

Tesi honen helburua 1960-1990 bitarteko Euskal Kultur Sistemaren (EKS) garapen bidea agertzea izaki, espresuki azpimarratuko ditugu garapen hori gartzeko erabili ziren alderdiak. Hala, bada, euskal kulturaren lehen moldatze fasearen (1960-

1975) muina azaltzen duen alderdiari erreparatuko diogu: euskal komunitateak, 60ko hamarkadan, abiatu zituen duintasun bilatze nahiz berreskuratze prozesuei.

Horretarako, espainiar estatuak inposatua zuen egoera nagusiaren alderdi zenbait agertu (2.1.1.), eta Aro Iluna hasiz geroztik jendea sufritzen hasi zen sentimena azalduko dugu (2.1.2.) –Krisi Orokorra–. Sentimen hori agerrarazteko, ordea, 1960-1975 bitarteko egoera soziopolitikoaren azalpen zehatza baino argigarriagoa da aitzinez gertatuari behatzea; zehazki, hamabortzaldi horren aitzingaraiarekin eta 1975etik prozesuarekin izaniko harremanari, segidaren izanari, erreparatzea.

Beraz, atal honetan erranen ditugunak bi aldetarik dira lagungarri: batetik, 1960-1975 bitarteko egoeraren izaera nagusia agertu ahal izanen dugu; eta, bertzetik, azalpenek argitu egingen dute hurrengo fasean (1975-1990) jarraipen egokitua izan zuen Krisi Orokorren bidea.

Gainera, hamabortz urte horiek ondoko urteekiko izan zuten segidaz adituek errana bilduz, hirugarren kapituluan erabilgarri izanen den ideietarik bat aitzinatuko dugu; hain zuzen, ondare eta komunitate arteko harremanak aztertze gune den *continuum* edo jarraitutasunarena (6.1.2.).

2.1.1. Inguratze orokorra: estatua eta komunitate barneratuak

Euskal komunitateak, 1960tik 1975era bitartean, biziriko egoerak eragile eta ondorio nagusi bana izan zituen: Aro Iluna eta haren ondorioz sorturiko behar maila oinarritzkoa. Premia horien asebetetzeak, hain zuzen, komunitatearen ernatzea ekarri zuen:

Gure erriaren esnaera bat dagoela ez du gaur inork ukatzen: bere buruaz lotsatu bearrean, Euskal Erriak bere burua altxatu nai du, bere erri-nortasunari ekin nai dio; eta itz batez, bere izkuntza egin nai du bere erritarren arteko tresna eta mintzabide. (Kepa Arbiza, “Itzei utzi bear”, *Zeruko Argia*, “Gazte naiz” atala¹¹⁶, 1966, 187: 7).

Alabaina, euskal komunitate mailako behar horiek arazo sozial zabalagoekin bat egiten zuten, bai denboran, baita pertsona mailan ere. Hori dela eta, garaiko belaunaldi gazteenak biak –herri nortasunaren berreskuratzea eta arazo sozialen defentsa– borrokatu beharra azpimarratu zuen:

Anhitzek, euren buruak euskaltzaletzat dauzkatena, euren ideiak errealdadean finkatu gabe dituzte, herri arazoa sozial problemagandik bereizi nahirik ez dute erakundeen, estrukturaen

¹¹⁶ Hemendik aitzina, jakintzat emanen dugu “Gazte naiz” *Zeruko Argia* aldizkariko atala dela.

aldaketarik planteatzean. Herri, izkuntza, etorkizuna, oiturak, dituzu holakoen buruausterik aundiena.

[...] Herri eskubideen arrazoia, zapla, ateratzen dute, etnia bat osatzen dugunok gaude geude bizibidea aukeratzeko dugun eskubidea, “letra aundiakin” idatzia bai dago.

Bitartean, sozial problema, elkarrekin osatzeko eskubidea, diru irabaziak banatzeko obligazioa, (obligazioa esan dut, eta ez karidade izena ematea), herri kultura, libertatea, t.a., ez al dira metro berdiñakin neurtu behar? jarraitzea? zertarako izkuntza, bizi denboraren erdia lanean madarikatzen jarraitzekotan? Barkatu, bainan ez nago zuekin, zenbaitzuk besteen odola EUSKERAZ txukatzea nahi izatera elduko giñake. Eskubideak osorik edo bestela deusez.

[...]

Txalogarria benetan hauen [langilea norbait izan dadin ari direnen] jokabidea, ikusten bai dute ekonomiak herriaren etorkizunean emanen dion indarra. Bainan ez nago ados bide ontatik egin ditezken gehiegikeriekin, egonmiekin itxuturik, herri nortasuna ta zakera aintzat artzen ez dutenekin, ondo eraturako “erdalerrria” eratu ta ezarri nahi digutenakin. [...] Justizia bakarra da, ta bere osotasunean ez artze ezkeroz alperrik ari gera. (Arrieta, “Betaurreko billa”, “Gazte naiz” atala, 1966, 198: 7)

Gazte horiendako, oinarritzko beharrak ez ziren, soilik, komunitate mailako identitatean ardatzen; aitzitik, bazuten izaera zabalagorik ere.

Izaera zabal horren oinarriak argitu nahiz, arazo horien iturburuei erreparatuko diegu, ondoko azpiataletan: Aro Ilunetik herrestan heldu zen egoerari (2.1.1.a.) eta estatu nahiz komunitate arteko harremanari (2.1.1.b.).

2.1.1.a. Aitzineko eragileak eta gibelego urteak: jarraitutasuna, argigarri

1960-1990 bitarteko epea bi aldi nagusitan bereizteko erabakia hartu dugu. Banaketa horretan, ordea, mugak hagitz lausoak dira; bertzeak bertze, hirugarren kapituluari hizpide izanen dugun Trantsizioa¹¹⁷ 1960-1975 bitartek arrunt baldintzatu zuen:

Que la Transición española se consiguiera llevar a cabo con tanta calma y optimismo colectivo, también se debe a que ya en el tardofranquismo se habían ido formando y asentando las bases ideológicas, económicas y sociales de lo que vendría después (Vilarós 1999: 7)¹¹⁸. (Luengo 2004: 94)

Frankismoaren hondarreko urteetako aldaketak hausnartu, eta ondoko urteetan izan zuten eragina ulertzeko, nagusiki, Ramón Buckley-ren *La doble transición: Política y literatura en la España de los años setenta* (1996) liburura jo dugu, ondoko paragrafoetan. Honata moldatua sarrera laburra izanagatik, Buckleyk defendatzen duen ikuspegiari atxikiaz, 1960-1990 bitartean zedarrituriko epealdiaren malgutasuna

¹¹⁷ “Trantsizioa” (1975-1982) “trantsizio” egoeretatik bereizi nahian, espresuki idatziko dugu, lanean zehar, letra larriz, 1975etik aitzina abiatuturiko prozesua.

¹¹⁸ Teresa M. Vilarós-en erreferentzia zehaztu gabe ageri da.

agerrarazi nahiko genuke; izan ere, egileak, Espainiako Trantsizioa ulertzeko, 1968ko Iraultzara jo behar dela argudiatzen du, bertan. Gisa horretan, 68ko gertakizunen oihartzunean aurkezten ditu hizpide den garaiaren aurrekari eta ezaugarri nagusiak –estatu mailan, bederen–.

Espainian, 1968ko “errebolta” ahalbidetu zuen, 70eko hamarkadan, eragin ideologiko nahiz politiko handia izan zuten ideologia biren agerpena: libertarioa eta feminista (*ibid.*: sarrera, XII). Pentsamendu libertarioak –Trantsizio aitzineko urteetan indartu arren (1970-1975)– gainbehera jasan zuen, Francoren heriotzarekin; alabaina, emakumezkoen eragina kanpotik heldu zenez, ez ziren Trantsizioko marko politikotik at, ezta barne ere, gelditzen: ez zuten estatu berririk goraiatzeko, ezta anarkisten gisa ezeztatzen; prozesu politikoak beren aldarrikapenak jaso gabeak zituenez, ez ziren barrenean ere. Horregatik, Buckleyk dioen gisa: “las mujeres podían erigirse así en árbitros de la transición misma” (*ibid.*: sarrera, XIV).

Bi trantsizio identifikatzen ditu egileak: Mendebaldeak bizi zuena –postindustrial eta postmodernitatezkoak– eta, artean, Espainiara ailegatu ez zena –demokratikoa–. Bi aldaketa horien desfaseak eragin zuzen-zuzena izanen zuen, Espainiako Trantsizioan; izan ere, Francoren urteek demokraziarako trantsizioa tenorez ez ailegatu izana baldintzatu zuten arren, gaurgero agerikoak ziren Europatik eraginak. Beraz, estatuan bizi zen Trantsizioaren klabea garaz heldu ez ziren aldaketetan bilatu behar omen da: Mendebaldea trantsizioan zen arren, Espainian gibeletik zen gizartea, demokraziarako bidea egin gabea baitzuen estatuak (*ibid.*: sarrera, XI).

Desfase kronologiko horren isla kulturalak XIX. mendearen akieran izan zuten aurrekari parekidea. Orduan, Europatik heldu zen estetika modernoak talka egin zuen soziologikoki, ekonomikoki eta politikoki egoera aski ezegonkorrean zen Espainiarekin. Europak, industrializazioa barneratua izanik, modernitatean arrunt sartua eta, beraz, gaurgero “trantsizionatua” zen; Espainiarendako, aldiz, trantsizio hura gehiago zen utopia, etorkizuneko proiektua baino (*ibid.*: 78-79). Desfase hori bera izan zen XX. mendean, 70eko hamarkadan, bizi zena: marxismoaren etsai sekularra hiltzorian zelarik, oposizioa ezker ideologiatik heldu zen. Espainiako baino gehiago, europarra zen ezker hark faxismoaren kontrako betebeharrak ezeztatzen zuten. Hortaz, maiatz frantsesaren eraginpean zen ezkerak –“trantsizionatua” zenak– trantsiziora ailegatu gabea zen Espainian defendatu behar izan zituen aldarrikapen propioak (*ibid.*: 79).

Testuinguru horretan jaio zen Espainiako Trantsizioa. Botere batek bertzea aldaketa sakonagorik gabe ordezkatu zuen, ordea: egitura eta baldintzak aldatu arren, ez zuen politikoen izana moldatu. Pertsona batzuetatik bertzeetara, erakunde zaharretatik berriagoetarako egokitzea bertzerik ez zen izan. Ana Luengo-k zioen gisa:

Con la muerte de Franco no llegó, como se había esperado, una revolución de todos aquellos principios políticos ni una renovación de raíz, pero tampoco otra lucha fratricida y violenta como algunos habían vaticinado. El final de la dictadura dio lugar, por una parte, a un pacto de silencio y, por otra, a una euforia colectiva como muestran las manifestaciones posmodernistas de la “movida madrileña” con sus variantes miméticas periféricas. Sí existía un ajeteo cultural y vital, sí una época de explosión de creación artística, sí una revolución, por decirlo de alguna forma, moral en un país tan arraigado al catolicismo.

[...]

Pero, [...] una falta de reflexión intelectual de carácter político. (2004: 94)

Idea berdinari jarraiki, Santos Juliá-k, Espainiak, 1956tik eta 1962tik aitzina, jasaniko aldaketa soziopolitikoak¹¹⁹ kontuan hartu ez zituzten kritikoei buruz ari delarik:

Se dijo entonces que el franquismo y sus valores autoritarios, antipolíticos y antipartidistas habían penetrado tan profundamente en la cultura política de los españoles que cínicamente acabaron acomodándose al mal menor de ser conducidos a una democracia por la misma clase política que había gestionado la dictadura. (*In* Mainer eta Juliá 2000a: 16)

Zernahi gisaz, Juliák berak eransten du errebolta nagusirik gabeko aldaketak ekarri zuela askatasun aroaren hasiera:

Ahora bien, que la instauración de la democracia no fuera el resultado de una revolución política al estilo de la Primera República, ni de una fiesta popular revolucionaria al estilo de la Segunda, no quiere decir que no se viviera como un estallido de libertad. En el nuevo clima creado en ese corto y denso periodo que va de la muerte de Franco a las primeras elecciones, con la supresión de la censura de espectáculos implantada desde la guerra y la recuperación de la libertad de prensa, perdida con el triunfo de Franco, fueron posibles fenómenos tan dispares como la producción de películas en el borde de la pornografía y la salida de periódicos de calidad como *El País*. De hecho, la transición se vivió como una recuperación de libertad después de cuarenta años en los que las manifestaciones culturales estuvieron siempre sometidas a censura. (*In ibid.*: 54)

¹¹⁹ Hala laburbiltzen du Torrealdaiak, euskal liburuek jasaniko zentsurari buruzko liburuan, 1956-1975 bitarteko aldia: “Aldi honetako lehen gobernu-aldaketa 1957koa da. Francoren bosgarren gobernualdia da. Espainiako gizartean gorantz doan klase sozial berriaren ordezkari gisa-edo, Opuseko kideen sarrera ekonomiko-industrialei egiten die jaramon, eta ez, kasurako, informazioari. Horrela, Arias Salgado segitzen du MITeko [Ministerio de Información y Turismoko] buru, lehen bezain gogor. Seigarren gobernualdian, 1962koan, bai gertatzen dela aldakea! Arias Salgado ultrakontserbatzaile eta integrista kendu eta Manuel Fraga Iribarne jartzen du MITen Francok. Gaztea da, eta dinamiko eta berritzailearen fama dakar Fragak. Beoni zor zaio Fragaren lege izenaz ezagutzen den Ley de Prensa e Imprenta (LPI). Aurreko legea, gerra lege zen, 1938koa, bana aldaketarik gabe 1966 bitartean iraun du, 28 urtez. LPI honek aldaketa handizkoak dakartza, baina ez da lege liberala, ezta gutxiago ere” (2000: 101).

Halatan, boterea izan ezik, dena zen aldatua, Espainian; beraz, itxuraz aldaketa guzizkoak jasanak ziren estatuan, deus ere aldatu gabea zenaren iduripena zabaldu zen, gizartean. Bide horri jarraiki, Trantsizio politikoaren ezaugarri nagusietarik bat izan zen boterearen goitik behekitarako dinamikaren jarraipena (Buckley 1996: 104-105).

1960-1975 bitarteko testuinguruak, beraz –berezko izana eduki arren–, lotura handia izan zuen aitzineko eta ondoko urteetan gertatuekin; lan guzian zehar errepikatuko dugun gisa, *continuum*ean gertatzen baita testuinguru eta komunitateek denboran duten existentzia. Are gehiago, oinarrizko abiapuntua da jarraitutasunera, zeinahi komunitateren azterketarako eta, gure kasura hurbilduz, zeinahi komunitate eta ondarearen arteko azterketa egiteko. Hain zuzen ere, garrantzia horren erakusgarri, guk geronek ere *continuum*aren ideia proposatu dugu, tesiaren hirugarren kapituluan, harreman hori aztertzekeko puntu nagusietarik lehenengo gisa (6.1.2.).

Izaera jarraitu horrek ahalbidetzen du, preseski, 1960-1975 bitartean gailenduriko Krisi Orokorren izana are adierazgarriago bihurtzea, ondoko urteekiko alderatzean. Erran nahi baita 60ko hamarkadan, estatu mailan, abiatutako aldaketa sozialen prozesua hobeki ulertzen dela, hamarkada aitzineko eta gibealeko aldiak behatuta.

Behin estatu mailako egoera nagusiaren ezaugarriak, eragileak eta ondoko urteekiko kateatzearen irudi orokorra eginga dugularik, hertsitu egingen dugu fokua: ondoko azpiatalean, azterketa nagusia euskal komunitatean egin ahal izateko, erreparatu egingen diogu estatuaren baitako komunitate barneratuekiko harremanari.

2.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: krisien iturburua

Estatuaren eta euskal komunitatearen arteko harremana testuinguru bortitzak baldintzatu zuen, eta harremanak hagitz zaila izaten jarraitu zuen, 60ko hamarkadaren akieran:

Aldi honetako [1956-1975] hirugarren gobernu-aldaketa, 1969koa, birmoldaketa da, izan. Gobernuaren kartera guztiak Oposen eskuetara pasatzen dira. Manuel Fraga erori egiten da, Matesako eskandaluaren erruz, omen. Fragaren tokian Sánchez Bella ultrakontserbatzailea jarriko du Francok. Borroka eta istilu urteak dira hauek, alde guztietatik: langile, ikasle, intelektual, talde armatu (ETA, FRAP)... 1970ekoa da Burgosko epaiketa. (Torrealdai 2000: 102)

Giro horretan ardazturiko testuinguruak maila desberdinetan eragin zion gizarteari. Hori dela eta, eraginen ikuspegi nagusia eskainiko dugu, ondoko orrialdeetan.

Lehenik, estatuaren eta euskal komunitatearen arteko harreman desorekatu zabalaz arituko gara, eta, segidan, desoreka horren eragin hertsiaz.

- **Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana**

Estatuarekiko harremana ezagutzea. Harreman horrek estatuaren jarreraren berri emanen du, noski, baina, era berean, barneratua den komunitateak estatuak duen botere motarekiko izan duen jarrera agerrarazten du. Hori dela eta, Espainian zen erregimenaz, botere motaz eta euskal komunitateak izan zuen partaidetzaz arituko gara, ondoko paragrafoetan.

Ikusiko dugunez, bai espainiar estatuak, baita euskal komunitateak ere, jarrera desberdina izan zuten, denboraren poderioz¹²⁰; beraz, lanean zehar, erreparatu beharko diegu estatu mailako erregimenaren eta euskal komunitatearen arteko harremani.

Hala deskribatzen zuen Mikel Ugaldek, 1967an, diktadoreek estatuak eraikitzeke sortzen duten sistema:

Ideiak bada historiaren motorra ditugu. Bañan ez uste denak aurrerapena berekin dutenik. XX'garren gizaldi oni, giza-eskubideen gizaldia deitzen diote, ez nago oso konforme. Gizakiak eta herriak zapaltzen gaituzten sistimak indar aundiegia dute gure artean. Begira diktadoreen jokabidea. Euren ideiak izan duten oiartzuna aundia izan da. Lehen sistema bat pentsatu dute, ez errealidadeari dagokiona bere interesak, aginte egarria aseko duana baño. Gero sistema orri forma bat eman die, guztia justifikatuko duan motibua. Batzuek abendaren garbitasuna, herriak munduan bere egitekoa bete dezan lenen mundua bere menpean jarri, badira badira baita ere motibu hori erlijioaren egoera larrian finkatu dutenak, erlijioa aitzakitzat artu dutenak. Ortik aurrerakoa ez die buruauste aundirik eman. Propaganda guztia euren eskutan nola duten jendea lilluratu ondoren errealidadez kanpo sortutako ideiak herriak bereganatu, ditu, herria mito hauen menpean iraungo du. ("Mitoak", "Gazte naiz" atala, 204: 7)

Frankismoaren izaera nagusia Ugalderen hitzetan islatzen den oinarri totalitarioak baldintzatu zuen. Oinarri hori, ordea, hainbat ikerlariren eskutik, bertzela deskribatu izan da.

Juan José Linz-ek, kasu, nazioartean aski sona lortu zuen sailkapena proposatu zuen: sailkatze horretan, erregimen politiko totalitarioen eta autoritarioen arteko bereizketa egiten zuen (1990). Lehenetan, gizartearen alderdirik barrenekoenak eragiten zirela azaltzen zuen, azken helburu gisa, gizarte nahiz pertsonen alderdi oro indarrez aldatu nahi zelarik; bigarrenetan, aldiz, indarra zatekeen, ordena jakina mantentzeko

¹²⁰ "Erregimenaren hasieratik 40ko hamarkadaren erdialdera arte gutxienez, gidatzaile edo 'dirigista' zen zentsura. Gerora, pixkana, aldatzen joan zen . [sic] Zer egin behar den esatetik zer ez den egin behar esatera pasatu zen." (*Ibid.*: 28)

erabili arren, demokraziarako aldaketa posiblea. Sailkapen horretatik abiatuta, erregimen autoritarioen adibideetarik bat gisa identifikatu zuen frankismoa.

Aditu batek baino gehiagok egiten dio erreferentzia frankismoari erregimen “autoritario” gisa, baina desberdintasun handia da horien eta Linzek egiten duen sailkapenaren artean; izan ere, ez dute diktaduraren izaera totalitarioa ukatzen. Luengok, adibidez:

La situación fue, por lo tanto, que todo ese auge de la utopía de signo marxista nacida de la nostalgia de la época de entreguerras, en una sociedad con un régimen autoritario y controlado por las clases altas, coincidió con los ecos de la revoluciones de los últimos años de la década de los sesenta (2004: 92)

Horregatik, ezin nahasi da Linzen proposamenean “totalitario” hitzak aditzera ematen duena bertze aditu zenbaitek diktadura frankistaz solas egiteko darabilten terminologiarekin.

Lan honetan, ez zaio sailkapen horretan proposatuari zilegitasunik emanen, aski frogatua¹²¹ baitute gaian adituek frankismoaren izaera, diktatoriala izateaz gain, guziz totalitario eta absolutista izan zela. Bertze aunitzen artean, 36ko Gerra Zibilaren¹²² ondoko nazionalismo espainolaz:

era una nacionalización forzada, brutal, y basada en la anulación y el aplastamiento de medio país. No hay autor que no esté de acuerdo en este diagnóstico: la política nacionalizadora de los vencedores no se fundó en la integración sino en “la represión y el adoctrinamiento coactivo”; “la nacionalización española que el franquismo quiso imponer [...] era tan agresiva como grosera”¹²³ (Álvarez 2001: 606)

Absolutismo horren bidea antzinako estatu homogeneousatzailean suma liteke. José Álvarez Juncok *Mater dolorosa* liburuan agertzen duenez, gibeletik heldu zen homogeneousaziorako¹²⁴ joera:

¹²¹ Hizpide dugun corpusean ere erreprezio egoeraren adibideak topatu ditugu; ikus B eranskinetako zentsura taula (“B.2. Testuingurua (1960-1975)” azpiatala, “*Anaitasuna* 1960-1975: zentsura, erreprezio eta debeku adibide zenbait”).

¹²² “Gerra Zibila” edo “Gerra” aipatzen ditugunean, beti egingen diogu erreferentzia 1936ko Gerra Zibilari.

¹²³ Álvarezek ematen duen erreferentzia: “ ‘Reflexiones, problemas y líneas de investigación sobre los movimientos nacionales y regionalistas’, ponencia presentada en el I Congreso de Historia Contemporánea (Salamanca, abril 1992), publicada más tarde en extracto como ‘Aproximación al nacionalismo español contemporáneo’ ” (43. or., zehazki).

¹²⁴ Are gehiago, XVIII. mendearen irudi orokorra deskribatzeko, kulturaren homogeneousatze garai gisa biltzen du mende hartan gertatua: “La cultura homogénea y oficial potenciada ahora por las reales academias y otras instituciones ilustradas quería ser la representación de la entidad colectiva, de ‘España’, esa nación cuya realidad justificaba la existencia del Estado” (Álvarez 2001: 82). Paraleloki, administrazioaren homogeneousatze eta zentralizatzea gertatu zen, gainera (*loc. cit.*).

los decretos de Felipe V incluyeron medidas encaminadas a imponer el castellano como idioma exclusivo de uso oficial, y se decidió el traslado de la Universidad de Barcelona a Cervera, donde las clases se impartían obligatoriamente en castellano.

A las prohibiciones y sanciones contra el uso de idiomas locales se añadieron otras, de carácter incentivador, en favor de la lengua castellana y toda una cultura que comenzó a ser considerada –aunque tampoco recibiese aún este nombre– la *oficial* del Estado. (79. or.) (Azpimarra ez da gurea)

Solasgai den diktaturak izaera totalitarioa hamarkada guzietan zehar mantendu bazuen ere, bi fase izan zituela erran ohi da: Europara begira eginiko “itxuraldaketa” litzatekeen horretik aitzinakoa eta gibelegoa. Irudi garbitze horren gibelean, Europako demokraziengandik onargarritasuna lortzea zen helburua. Montserrat Guibernauk errana duenez: “The opposition movement took advantage of all possible openings to actively advance its resistance. The later stages of the regime saw an increase in the number of ‘solidarity actions’¹²⁵” (1999: 117).

Aldaketa horrek hainbat ondorio izan zituen, baina boterearekiko harremana deus guti aldatu zen. Hala, Europatiko turismo goititzeak, industrializazioaren garapenak eta nazioarteko blokeoaren malgutzeak bertze herrialdeekiko harremanak, zertxobait, ireki bazituen ere, “la sociedad española no estaba acostumbrada a la participación democrática y su relación con el poder era, cuándo más, la de pertenencia o la de ‘adicción’ al Movimiento, o la de clandestinidad y rechazo” (Luengo 2004: 94).

Nazio periferikoez, komunitate banako gisa, boterearekin zuten harremana, noski, ez zen nazioek behar edo nahi bezainbertze malgua. Kontrara, homogeneizazioa aspalditik ezaguna zuen estatuak gogor jo zituen botere zentralarekiko desadostasuna eta ezinegona erakusten zuten nazio barneratuak.

The articulation of such feelings provokes the emergence of nationalist movements with differing political aims ranging from devolution and autonomy to secession and independence. Such movements are based upon the denunciation of an unsatisfactory situation with regard to economic, social, political or security matters stemming from the relationship between the state and its national minority or minorities. (Guibernau 1999: 33)

Estaturik gabeko nazioek halako erregimenetan jasaten dituzten prozesuak kontuan izanzen ditugu lanean, hagitx lotuak baitira espainiar estatuko nazio barneratuek garatuko zituzten –edo zitzaketen– birformulatze saioei; hala nola, hizketagai izan dugu, behin baino gehiagotan, abertzaletasunak euskal kulturaren moldaketan izan zuen eragina.

¹²⁵ Ikus, ekintza solidarioei buruz, 2.2.1. ataleko “b. Aurkaritza moduak” azpiatalean errana.

Estatuaren eta euskal nazio barneratuaren artean bizi zen desorekaren erakusgarri nagusietariko bat zentsura izan zen. Torrealdaik¹²⁶ hiru momentu nagusi banatzen ditu euskal liburugintzak, 1936-1983 bitartean, jasan zuen zentsura frankistaren baitan: “1936-37ko lege sortzaileak lehenik; 14/1966 Legea, hots, Fragaren Legea bigarrenik; eta Antilibelo Legea, hau da, 24/1977 Erret Dekretu-Legea” (2000: 31):

1936-37ko legeaz:

Liburuari buruz Francoren Estatu Berriak atera dituen lehen disposizioak –berriz diot– zapalkuntzaren bidetik doaz, zigortzaileak dira. Liburu *errepublikazalea*-ren aurka sortuak dira. Egia da 1936ko abenduko 23ko Dekretuak ‘produkzioa, komertzioa eta zirkulazioa’ hartzen dituela bere baitan; baina ez da gezurra batez ere komertzializazio eta zabalkundeari buruz antolatzen dela zentsura. (*Ibid.*: 32) (Azpimarra ez da gurea)

Fragaren Legeaz:

Ley de Prensa e Imprenta (LPI, 4/1966 Legea) izenekoan bigarrena izan da, urtetan, artikulua eztabaidatuena. Idazketa zabala du, espreski mugagabea eta anbigua, benetako zein ustezko infrakzioak kabitzeko moduan antolatua. (*Loc. cit.*)

Antilibelo Legeaz:

Trantsizio garaian jada, 1977ko apirilaren bateko Dekretu-Legeak (24/1977 Dekretu-Legea) adierazpen askatasuna arautzen du. Aurrekoa baino askoz ere zehatzagoa da hau: Administrazioak bere gogoaren arabera jokatzea asko mugatzen da, eta eskuhartze administratiboa arunt txikiagoa da.

[...]

Dekretu-Lege honetatik aurrera adierazpen askatasunaren mugak lau ardatzen jira-biran ezartzen dira: Espainiako Batasuna, Monarkia, Indar Armatuak, Pornografia. (*Ibid.*: 33)

Legealdi hauek estatuak komunitate barneratuarekiko ezarri zuen harremanaren erakusgarrietarik bat bertzerik ez dira.

- **Desorekaren eragin zehatza**

Alabaina, ikuspegi zabalagoari behatuz, diktaduraren izanak maila pertsonalean eta maila kolektiboan sorturiko kalteek –ondoko atalean azalduko dugun Krisi Orokorra osatzen duen multzoak– berebiziko eragina izan zuten, 60ko hamarkadatik aitzina euskal komunitateak bizi zuen berpiztean. Hala, bada, diktaduran ezarri zen boterearen eta nazioen arteko harremana eragile nagusi izan zen 1960-1990 bitarteko kultur moldaketan.

¹²⁶ Esperientzia pertsonalaz ari delarik: “Unerik gorena, niretzat, 1969koa izan zen, Fraga Iribarnek, ministro gisa azkenetan zegoenean, *Jakin* aldizkaria debekatu zueneko” (Torrealdai 2000: 63).

Diktaduran euskal komunitateak, estaturik gabeko nazio periferiko gisa, boterearekiko izan zuen harremana –eta harreman horren ondorioz sorturiko bideak– ulertzeko, modu orokorrean erreparatu behar zaie estatuen eta nazioen arteko harremanei. Montserrat Guibernauk estaturik gabeko nazioen eta estatu barneratzaileen arteko harremanak¹²⁷ bi ardatz nagusiren baitan biltzen ditu: estatuaren izanak nazio gutituen estatusa¹²⁸ determinatzen du, eta mugimendu nazionalista gutituen indarrak estatuarekiko erlazioaren birmoldatze posibleengan eragiten du (1999: 33-34).

Guibernauk aipatzen dituenen artean, ukatze edo errepresioa –“denial or repression”– izanen dugu, 1975era bitarteko epean, hizpide nagusi, eta, ordutik aitzina, egoera historikoaren aldaketak abiatutako aldaketa; hau da, hizpide izanen dugu nazio gutitua barneratzen duen estatuak nazio horren izana eta existentzia onartzen ez duen egoera¹²⁹. Ukatze egoera horietan, onartze gabeziak gain, gizartearen homogeneizatzeko eta ezaugarri bereizgarrien erauzketa ohikoak izaten dira (*ibid.*: 34).

Hizpide izan berri ditugun bi ardatzen arteko harremanak bideratu zuen, maila indibidualean nahiz kolektiboan, Krisi Orokorra. Horregatik, Krisi Orokorren deskribapenak lagundu egingen digu ulertzen bai estatuaren eta euskal komunitatearen artean sortu zen harremana, bai desorekak ekarri zituen ondorioak ere.

2.1.1. atalean, 1960-1975 bitarteko egoera nagusia ulertu ahal izateko lehen datuak eskaini ditugu. Horien artean, espainiar estatuaren eta euskal komunitatearen arteko harremana ulertzen lagunduko digutenak hautatu ditugu: 1960aren aitzineko urteetan gertatuei behatzeaz gain, espresuki erreparatu diegu komunitateen eta estatuen artean sor daitezkeen harremanei. Gisa horretan, aztergai ditugun hogeita hamar urteen

¹²⁷ Estaturik gabeko nazioen mugimendu nazionalistei eskaintzen zaizkien erantzunen artean, sezesiorik eragiten ez duten hiru forma nagusi bereizten ditu: onartze kulturala, autonomia politikoa eta federazioa (Guibernau 1999: 33-61); “Cultural recognition, political autonomy and federation presuppose the acceptance of democracy understood in a broad sense and the readiness of the state to recognize varying degrees of difference within itself. There are many intermediate solutions to the three main political scenarios I wish to study. In this sense, I will consider regionalization, devolution, and decentralization as variations either within cultural recognition or political autonomy depending upon each case” (*ibid.*: 34).

¹²⁸ Autonomia mailaren bat egokitzen zaien kasuan ere, estatutik heldu da komunitate barneratu horietariko ondare kulturalaren estatusa. Euskal komunitatearen kasuan, 1975etik aitzinako fasean, Espainiako Konstituzion agertzen ziren komunitate ondarearen onarpen edo ukatzeak (ikus, horretarako, 5.1.1.eko “a.1. Espainiako Konstituzioa” azpiatalean bilduriko artikulak).

¹²⁹ Egiakzi hala gertatu zela euskal kulturaren nola agertu zen ikusi nahirik, *Anaitasuna* aldizkarian botere nagusiaren eskutiko errepresio, zentsura edo debeku adibide zenbait bildu dugu, B eranskinetako zentsura taulan.

aitzineko egoera nahiz ondoko garapena ikertzen hasteko oinarrizko ideiak eskaini ditugu.

Orokortasun horren eragin zehatzagoaz arituko gara, ondoko atalean; 1960-1990 bitartean, jendartean zabalduko sentimenari erreparatzea dagokigu. Behatze horrek estatu mailako egoeraren isla soziala erakutsiko du: testuinguru zabalak jendartean izaniko eraginaz arituko gara, euskal komunitateari, bereziki, dagokion azterketa zehatza hasi aitzin (2.2.).

2.1.2. Krisi Orokorra

1960-1975 bitartean euskal komunitatearen eta estatuaren arteko harremana, laburki, zertan zen ikusi ondotik, sentitze kolektiboen mailara eginen dugu jauzi; komunitatearen eta estatuaren arteko harremanak eta Aro Ilun guzian zehar sufrituriko egoerak bulkatu zuten sentitze kolektibora. Krisi Orokor gisa izendatu dugun sentimenak lagundu eginen digu testuinguru soziopolitikoaren eta duintasun bilatze kolektiboaren arteko lotura azaltzen.

“Krisi Orokorra” izendapenarekin ez dugu azalpen teoriko iraultzailerik proposatu nahi izan; aitzitik, “krisi” terminoa erabiltzearen arrazoia aski xumea izan da: 1960tik aitzinako eta Trantsizioan zeharreko gizarte egoeraren izana, ahal bezain hobekien, islatzen duen hitza erabili nahia gailendu da. Garai zehatz bateko egoera korapilatsuak bideratu zuen nahasmena bildu nahi luke kontzeptuak. Batetik, diktaduraren hondarreko hamabortz urteetan azaleratuz zihoan bilaketa banako nahiz kolektiboa. Bertzetik, aditzera eman nahiko genituzke testuinguru zabal baten ondorioak: erregimen totalitarioaren akierarekin ailegaturiko prozesu historikoen mutazio bortitz, aldaketa anitz –ideologiko, identitatezko, kultural eta politikoak– eta bide potentzialen aniztasunak sortu zituztenak; noraeza, bilaketa eta nahasmena biltzen zituen gizarte egoera, preseski.

Krisi Orokorrak izan zuen, ordea, *continuumean*, jarraipenik. Tesiaren hirugarren kapituluaren ikusiko dugu 1975-1990 bitarteko krisiak izaera berezitua, testuinguruaren izaerari egokitua, izan zuela –Krisi Orokor Ñabartuaz arituko gara, 5.1.2. atalean–. Krisi Orokorra 1960-1975 eta 1975-1990 epealdietako eragile nagusitzat identifikatu dugun arren, –komunitateen garapena eta garapen horretan gertatzen diren prozesu

zehatzak aztertzeo puntuak¹³⁰ kontuan izanik– bi alditan banatu dugu terminoak aditzera ematen duen egoera. Izan ere, testuinguru zehatzek komunitate garapenean izan ditzaketen eragin berezitez ohartzea hagitx garrantzitsua da; are gehiago, zeinahi komunitate eta ondare arteko harremanak aztertzeo hirugarren aztergune nagusi gisa proposatuko dugu testuinguruaren eragina (6.1.4.). Hortaz, *continuum*aren baitako izanagatik, testuinguru zehatzei egokituriko krisialdi berezituak gertatu ziren, euskal komunitate mailan: Krisi Orokor eta Krisi Orokor Ñabartua –1960-1975 eta 1975-1990, hurrenez hurren–.

Atal honetan, beraz, 1960-1975 bitarteko epeari begira zehaztuko ditugu Krisi Orokorraren izana eta haren eragina. Aro Ilunaren akieran hasi zen Krisi Orokorraren eraginak lagunduko du azaleratzen, errealitatearen izaerarik zabalenaz gain, estatuaren baitako komunitate barneratuen egoera.

Azken maila horretan, talde nahiz banako identitate urratuak berreskuratzea –edota berreraikitzea, sarri– izan zen prozesurik erabakigarrienetarikoa; bertzela erranda, identitatearen bi alderdi horien eraikuntzak goitik beheitira baldintzatu zuen euskal komunitatearen garapen kolektiboa. Baina baita alderantziz ere; izan ere, kultura partekatuen jabe izateak eta, bereziki, haren kontzientziazte eta berreskuratzeak banako identitatearengan onurak izan ohi dituzte:

Pocas cosas hay más comprensibles que la identificación con el cuerpo, con el nombre, con la lengua, que poseemos –o que nos poseen– desde niños; pocas, más humanas que la necesidad de sentirse protegido por una comunidad, de tener raíces y creer que se comparte hasta una memoria histórica con otros semejantes. La inserción en una cultura proporciona a los niños dos sentimientos cruciales en la formación de la personalidad: la identidad y la autoestima; y muchos adultos siguen aferrándose a esas referencias colectivas, más que a sus méritos individuales, para sentirse alguien. (Álvarez 2001: 18)

Edonola ere, teoriarari bakoitzak eginiko proposamenak aztertzea baino gehiago, identitate banakoak berak dituen ondorioak dira, guretako, interesgarri; euskal identitate bateratua berregituratzen hasi zen garaian, banako identitatearen egokitzeak berak eragina izan baitzuen lan kolektiboan.

Bertzeak bertze, Roy F. Baumeister-ek hiru funtzio nagusi egozten dizkio norbanakoak lortzen duen identitate horri: aukerak egiten lagundu, bertzeekiko erlazioak posible egin, eta indarra nahiz iraupena ematen dizkio pertsonari (Baumeister 1986: 7, *in* Guibernau 1996: 73). Hala, bada, Krisi Orokorraren eragina identitate maila

¹³⁰ Hirugarren atal nagusian proposatuko ditugu jarraitutasuna, autokontzepzio kolektiboa eta testuinguru (6.1.1.-6.1.4.).

bietan izaki, Baumeisterrek aipatzen zituen onura horiek izanen zuten –nolabaiteko– presentziarik, euskal komunitatea dela eta hizpide dugun prozesu kolektiboan; aski zaila da, ordea, beren arteko elkarreraginari mugak jartzea.

Zernahi gisaz, eta zailtasunak zailtasun, aski argi da identitatearen alderdi banakoaren eta nazio identitate partekatuaren bizipen berriak azaleratu zirela, 1960-1975 bitartean: horien nahia eta gogo horretatiko jarduera kolektibo berriztatua. Bertzalde, eragin truke horretan, guneko sentimen bihurtu zen estimua, Paulo Agirrebaltzategiren ondoko hitzek agertzen duten gisa:

Giro hortan [Gerrako garaileen giroan], baserriarren edo zenbait buruberoren «patois» bat, erdi-hizkera bat bihurtu zen euskara. Izan ere, propaganda garaile batek zabaltzen zuen, euskara ez zela dialektu itxusi bat besterik; eta espainiarren buruetan eta euskaldunenetan ere sartua zuen, euskaraz egitea lotsagarria zela. Horregatik, nik neuk, euskaraz bakarrik ez zekiten baserri-baserrietako neskatoei erdaraz parra-parra (!) egiten entzuten nien bazterretan. (“Ez dago euskara ikasi beharrik!”, *Anaitasuna*, 1975, 307: 1)

Norbere buruaren hautematea komunitate taldeari zaion estimuari arrunt lotua izaki, beren kultura orokorki errespetatua sentitzen ez duen komunitatean, mehatxatuak sentituko dira kideak (Margalit eta Raz 1990: 447-449, *in* Guibernau 1999: 153-154). Hori dela eta, euskal komunitateak –60tik aitzinako bidean– duintasunaren berreskuratze orokortua abiatu izanak aunitz lagundu zion banako estimuari; hain zuzen ere, erranak bilduz, elkarreragin etengabea izan baitziren talde nahiz banako identitatearen garapena eta beren hautemate positiboa.

Nolanahi ere den, identitate nazionalaren eraikuntza eta esperientzia ulertzeko, espresuki garrantzitsuak izan ohi diren alderdi biri erreparatu behar omen zaie. Guibernauren hitzetan, “community of culture” eta “unity of meaning” deritzanei (1996: 73). Bi-biak hagitz hertsiki dira lotuak komunitateen baliabide eta forma sinbolikoei, tresnak direlaketz komunitate izaera eta izaera hori bera osatzeko erranahi batasuna lortzeko. Bertzeak bertze, tesiaren hirugarren kapituluan agertuko den gisa, euskal komunitateak, 1975etik aitzina abiatu prozesuan, erakundetzea izan zuen aldaketa nagusietarikoa. Aldaketa horren baitan, preseski, 60ko hamarkadan abiatu ziren aldaketei jarraipena eman zitzaizen; 1960-1975 bitarteko hamabortzaldian berreskuratzen hasiriko ondare kulturala, kasu, baliabide eta forma sinboliko berriztatu –forma eta funtzio aldetik– gisa egokitu zen, testuinguru berrian. Txertatze horrekin eraikiaz joan zen egiturak eman zien izaera berria, hein batean, Guibernauk aipatzen zituen

“community of culture” eta “unity of meaning” delakoei: egoera eta helburu nahiz proiektu berriei egokituriko egiturarendako kola zirenei.

Adituak aipatzen zituen bi alderdi horien garapena, era berean, talde identitateak definitzen dituzten alderdi nagusi biren mende izaten da: jarraitutasuna eta bertzeengandiko desberdintzea. Bi alderdi horiek eskaini zuten euskaldunek identitate partekatua finkatzeko oinarria; zehazki, kultur komunitate gisa bermatzeko erranahi bateratua eta sumatze hortatiko sistema koherentea egituratu ziren.

Jarraitutasuna

Identitate kolektiboak, jarraitutasunari dagokionez, iraunkortasuna eskaintzen dio komunitateari; hiru denbora erreferentzia kontuan dituen iraunkortasuna. Erran nahi baita, iragan partekatuaren, orainaldi bateratuaren eta etorkizunera begiratzen duen proiektu komunaren bizipen jarraitua eskaintzen ditu. Gisa horretan, 60etako euskal komunitatearen berpizte saioak hiru denbora koordenatu horietan zuen funtsa: iragan bateratutiko berreskuratze presenteetan eta etorkizuneko proiektu posibleetan. Koordenatuen erabilera koherentzian gertatu zen: iraganeko kulturaren –eta haren jabe zen komunitatearen– bizipenaz kontziente izaki, haren birjabetza saiatu, eta, oinarri horren baitan, etorkizunaren plangintza osatuz. Bertzerik da, 1975etik aitzinako fasean, oinarri horien mutazioa gertatu, edota beren balizko ezinbertzekotasuna bertzelako helburuen mesedetan moldatu ote zen.

Adibidez, biziraupenezko jarraitutasunaz bertzelako dinamikan sartzeko pauso garrantzitsua izan zen galduriko eremu publikoaren berreskuratzea¹³¹.

Euskal kultura bi jokalekutan banatua dago gerraren ondorioz. Exilio bikoitza dela esan genezake: barne exilioa eta kanpoko.

Hego Euskal Herrian egoera tristea da oso, beltza. Euskararen presentzia publiko guztiak ezabatu egin dira: utikan erregistroetatik, kaletik, etxe-izenetatik, itsasontzietatik, elizatik, kanposantuetatik. Exilioan eslogan gisa erabili ohi zen esaldiak egoki zioean: frankismoak sehaskatik kanposanturaino pertsegitu du euskara. Eta gainera, hori gutxi ez balitz, prentsa frankista eraso batean aritu zen hiruzpalau urtez euskararen aurka. (Torrealdai 2000: 69)

Torrealdai Aro Ilunaren hasierako urteez (1936-1948) erranek ongi irudikatzen dute eremu publikoaren debekuak nola kamustu zituen euskal errealitatearen izana eta duintasuna.

¹³¹ Gerra Zibila akitu ondotik, “euskararekin, euskal kulturarekin edota euskal nortasunarekin lotura zuen arrasto oro gogoz eta gogor jazarria izan zen agintari frankisten partetik. Eta euskara eremu publikotik zokoratuta gelditu zen” (Iza 2010: 22).

Koherentzia

Denboran zeharreko segida komun horren baitan, erranahi batasuna ezinbertzeko lotura izan zen, Trantsizio aitzinean; euskal komunitatearen irudikatzea oinarrizko erreferente batzuen gaineko interpretazio bateratuan oinarritu zen. Hala, 1960-1975 bitartean indarturiko atzemateak eskaini zuen autonomien sistemak abiatutako helburu berrietarako oinarria.

Nolanahi ere den, komunitatearen baitako koherentzia edukiez eta ideiez haratagoko alderdiek bulkatu behar izan zuten: komunitatea lotura arrazionalaz haraindiko atxikitze emozionalez dohaturik, nabariago agertu ziren “bertze”ekiko aldeak¹³²; nolabait erratearren, azalpen arrazionalez gaindiko inplikazio emozionalez.

“Bertze”ekiko desberdindu beharraren indarra Joseba Arregik “Euskaldunen psikologia” izeneko artikuluan (*Anaitasuna*, 1973, 266: 1-2) izan zuen hizpide. Bertan egiten zuen deskribapen nagusian, euskal munduan “adoleszentismorako”¹³³ zen joeraren erakusgarri, “geure burua beste herrietatik ahalik eta zorrotzen bereizi beharra” (*Anaitasuna*, 1973, 266: 2) aipatzen zuen. Hala, bada, identitatearen alderdi horrek “bertze”ekiko desberdintzea gaineratzen zion talde izanari: bakartasuna. Bakartasun horren adibide nagusietarikoa euskararen jatorri ezezaguna eta antzinatasuna izan dira, sarri:

Euskerea maite dogu, geuria da ta maite izan biar; baiña bestela euskerak goragarri gutxi dauka. Antxiñakoa dala ta gaur beintzat senide ezagunik bakoa. Onetxek dira batez be gure berbetaren gauzarik baliotsuenak, izkuntza jakintsuak arreta andiz beroni begira ipinten dituana.

Bai, auxe da gure euskeraren zerik goragarriena: beste guztiengandiko berezitasuna. Iñoren antzik ez eukitea. (“Kamiñazpi” [Jose María Etxaburu]¹³⁴, “Euskerea zelan erabili bear dogu gaur?”, *ibid.*, 1966, 132: 4)

¹³² Gaztelarekiko alderatzea ere agertu zen, sarri xamar, garaiko aldizkarietan; bertzeak bertze, X. Kintanak “64ko belaunaldia” zeritzon gazte taldearen laugarren ezaugarri nagusitzat identifikatzen zuen, gaztelaniak ezin eskaini zuen informazio bidetzat, hiketa: “Agian beste ezaugarri bat, azken urteotan nabaritzen hasi zaikuna, hauxe dukek: hikaren birbaloratzea. Dakianez, ordea, hika –euskarak maskulinoa eta femeninoa markatzeko beste erarik ez duenez gero– estilistikazko baliabide ezin ederragotzat jotzen diagu, erdarak ez duen informazioa ematen baitaiku” (“Nori gabeko eskutitzak”, *Anaitasuna*, 1972, 235: 6).

¹³³ Aitzinez, Mikel Lasak aipatua zuen, *Jakin* aldizkarian argitaraturiko “Euskal kulturaren kinka larria I” artikuluan (1969, 34: 34-39). Bertan, kritika egiten zien, bere ustez, euskal kulturaren ordura arteko hiru akats nagusiei; hau da, adoleszentismoari (37. or.), diletantismoari (37.-38. or.) eta erakunde edo organizaziorik ezari (38. or.).

¹³⁴ Ezizenen lehen agerraldian bakarrik jarriko dugu jatorrizko izena, kortxete artean; ondoko agerraldietan, idazleak sinaduran erabilitakoa jarriko dugu, kakotx artean. Salbuespenak: Aitzol, Atxaga, Basarri, Bilintx, Txillardegi, Txirrita, Uztapide eta Xenpelar ez ditugu kakotxen artean jarriko, ezizenez hagitz ezagunak –edo ezagunagoak– baitira.

Alderatze horretan, kultura partekatuaren indarra areagotzen den gisa, partaideen arteko lotura eta erranahi bateratu desberdinaren karga gehiagotzen dira: “Differentiation stems from the consciousness of forming a community with a shared culture, attached to a concrete territory, both elements leading to the distinction between members and ‘strangers’, ‘the rest’, and ‘the different’ ” (Guibernau 1996: 73).

Diktaduraren garapenak ereiniko identitate gatazka maila hirukoitzean¹³⁵ azaleratu zen –identitate hirukoitzaren problematika–:

Esta misma dinámica –ser europeo o cosmopolita sin haberse sabido ser antes de una identidad de *menor* grado como gallego– tiene su traducción en lo que podría llamarse el dilema identitario, esto es, la disyuntiva de elegir entre una identidad demasiado amplia, donde nos diluimos tanto que no nos encontramos, y una identidad local que siendo demasiado estrecha termina por asfixiar. [...] En el primer caso, la nacionalidad del pasaporte con el que viajamos es una característica decorativa, mientras en el segundo somos absorbidos y reducidos a esa misma nacionalidad (Aguado 2010: 162).

Alabaina, estatu espainiarreko nazio periferikoetan, espresuki gailendu zen identitate bereziaren bilaketa; hau da, erregimenaren hondarreko urteetan Europari geroz eta nabarmenago begiratzen zitzaizalarik (Xabier Mendiguren, “Europa eta eskualdeak”, *Anaitasuna*, 1974, 278: 1-2), identitate espainiarraren eta euskaldunaren arteko gatazkari gehitu zitzaion identitate europarraren zailtasuna.

Europarekikoak, ordea, inbertsio emozionalaz bertzelako atxikitzea eskatzen zuen –eta du, oraindik ere–:

A mi modo de ver, la identidad europea debería definirse, al menos en su fase inicial, como una identidad «no emocional» emergente, en contraste con las vigorosas y emocionales identidades nacionales de nuestros tiempos.

En su forma actual, no creo que la identidad europea despierte sentimientos comparables a los que suscita la identidad nacional. Tampoco preveo la aparición de un nacionalismo europeo suficientemente poderoso como para movilizar a las masas en aras de Europa. Sería difícil encontrar causas e intereses comunes que unieran a los europeos y les alentarán a sacrificar sus propias vidas por el bien de la Unión Europea. (Guibernau 2009 [2007]: 177)

Halako sakrifizioak¹³⁶ egiteko, 60-70etan, sobera sartua zen euskal komunitatea identitate gutituaren berreskuratze prozesuan. Horretarako, hausnartze prozesu nagusian, identitatea definitzen zuten irizpideak maila orokor eta zehatzean behar izan

¹³⁵ Zernahi gisaz, identitate hirukoitzaren gatazka Trantsiziotik aitzina nabariagoa izan zen. Berriki abiatutako identitatearen berreskuratzeak estatu mailako identitatea izan zuen gatazka gune nagusi, eta Europa zabala, balizko helduleku.

¹³⁶ Hirugarren atalean ikusiko dugunez (3.1.3., b.3.), sakrifizioaren sentimen nazional hori hagitz lotua izan zen, 60eko eta 70eko hamarkadetan, euskal kulturagileen profesionalizatzeko gatazkari.

ziren aitzinatu –1975-1990 bitarteko fasean gertatu gisa, sistema nagusi bat eraiki nahi bazen, bederen–.

2.1.2. puntuan erranak bilduz, erran dugu 1960-1975 bitarteko Krisi Orokorrak euskal komunitateak bizi zituen ardura gune nagusiak biltzen zituela. Diktaduran zehar zanpatua izan zen identitate banakoaz gain, elkarreraginean zen euskal identitate kolektiboaren gatazka bera ere larria izan zen. Guibernauk aipatzen zituen “community of culture” eta “unity of meaning” alderdiek identitate nazional horren eraikuntza lagundu bazuten, 1960-1975 bitartean forma eta baliabide sinbolikoek jasaniko birmoldatzeari eskerrak izan zen. Moldaketa horri eskerrak antolatzen joan zen egiturak –hasieran soilik izaera sozialeko zenak– garai berrietarako gaitu zuen euskal komunitatearen identitatea.

Prozesua, ordea, malkarra izan zen; izan ere, komunitateetako identitateek eragiten dituzten jarraitutasunak eta bertzeekiko desberdintzeek identitate gunearen bilaketa zaildu egiten dute, lagundu adina. Hala, bada, estatuan zehar identitate hirukoitzaren gatazkak agerraldirik izan bazuen ere, euskal komunitateak –1960-1975 bitartean, bederen– identitatearen berreskuratzea izan zuen lan nagusia.

Poliki-poliki ikusiko dugunez, hizpide izaniko prozesuan, giltzarri izan zen erreferenteen birdefinitzea: iraganeko elementuak nahiz beren erranahia bereganatu, hizkuntza nahiz haren erabilera egokitu, eta forma sinboliko berrien irakurtze bateratua bideratu. Izan ere, identitate nazionala sentimen kolektibo bat izaki, berau sendotuko zuen eta eutsiko zion formulatze kultural berria ezinbertzeko izan zen; formulatze berri horrek autokontzepzio kolektiboa guziz aldatu, eta doitu egin zuen komunitatea, 1975etik aitzinako faserako. Ondorioz, kolektibitateak komunitateaz zuen ideiak guziz baldintzatu zuen ondarearekiko harremana; horregatik, preseski, proposatuko dugu autokontzepzio kolektiboa ondareen eta komunitateen arteko harremana aztertzeko ongi ikertu beharreko alderdietarik bat gisa (6.1.3.).

Lehenago ere (hirugarren atala) arituko gara forma sinbolikoek, formulatze kultural horretako moldatze eta indartze zehatzetan, izan zuten garrantziaz, baita horien baliagarritasunari loturiko inplikazio emozionalei buruz ere. Aztergai izanen dugun baliabide sinbolikoaren kasuan, adibidez, inplikazio emozionala laguntzen zuten

aldaketa, jarrera eta ekintza banakoen nahiz, bereziki, kolektiboen mende izan ziren funtzionalitatea eta indarra.

Aitzinez, ordea, Krisi Orokorrak aldi horretan, komunitate maila kolektiboan, eragin zuen garapen nagusiari erreparatuko diogu: duintasunaren bilaketari (2.2.). Hau da, komunitateetan, ziklikoki, gertatu ohi den saio zehatz bati: euskal kulturaren birformulatzean izan zen abiapuntu eraikitzaileari.

2.2. Identitate nazionala: duintasunaren bila

Ikusi berri dugu, testuinguru nagusiaren baitan, komunitate beharrak pausoka garatuz joan zirela. Hots, nazio berpizteak fase desberdinak¹³⁷ jasan zituen, eta horietariko bakoitzak behar maila diferenteei erantzuten zien. Atal honetan, komunitate beharren artean lehenei erreparatuko diegu, espresuki –“lehen beharrak” deituei–. Izan ere, nazioaren berpizte fase honi egiten baitzaio erreferentzia, “Euskal Kultur Sistema garaikidea: oinarritzea (1960-1975)” kapituluan zehar.

Arestian erran dugu Krisi Orokorraren eragin nagusietariko euskal identitate kolektibo partekatuaren berreskuratzea izan zela; estatuan¹³⁸ zehar, tokian tokiko identitateak maila desberdineko identifikatzeekin borrokatzeaz gain –oroitu, arestiko atalean, identitate hirukoitza dela eta errana–, aldibereko behar izan ziren identitate tiki horien iragana berreskuratzea eta etorkizuneko helburuak kontuan izatea (Colmeiro 2005: 100). Hain zuzen ere, bi alderdi horien isla, garaiko aldizkari nagusietan, etengabekoa izan zen; halatan, ikusiko dugu etengabea izan zela iragana berreskuratzea helburu zuten arituen isla eta aritu horiek etorkizunean proiektatu ahal izateko bideen bilaketa.

Egoeraren garrantziaz oharturik, lanean zehar behin baino gehiagotan egingen diogu erreferentzia komunitatearen “behar maila desberdinak” gisa izendatuei. Modu horretara, aditzera emanen dugu mailakatuak izan zirela, 1960-1990 bitartean, euskal komunitateak izan zituen premiak: hasieran, identitate periferikoaren izana bermatzeko beharrak gailendu ziren arren –lehen mailako beharrak–, prozesuan, gero eta presentzia

¹³⁷ Argigarri –eta hirugarren atal nagusira ailegatu aitzin–, A eranskinean bildu dugu bi berpizte epealdiei, nahiz bakoitzaren baitako behar espezifikoak, buruzko informazio nagusia.

¹³⁸ Estatuak, aspaldi, ahal gisa mantendu zuen duintasun kolektiboa: “Por muchos que fueran los golpes recibidos por la autoimagen de los españoles en el difícil siglo XIX, el recuerdo de la Guerra de la Independencia serviría para mantener un mínimo nivel de dignidad colectiva” (Álvarez 2001: 144).

handiagoa izan zuten komunitate izaera soilaz edota izaera horren isla berehalakoaz haratago begiratzen zuten ekimenek –bigarren mailako beharrak–.

Zernahi gisaz, behar maila desberdinen auziari dagokionez, eta deskribapen zehatza hasi aitzin, bi kontu argitzea komeni da. Batetik, hemen egiten dugun proposamena euskal kulturak 1960-1990 bitartean, espresuki, biziriko kultur moldaketari egokitzen zaiola; akaso bertze hainbat komunitatetako prozesuei moldatuko litzaiekeen deskribapena izan arren, lanaren mugek ezinezko bihurtu dute halako paralelismoen azterketa osotua. Bertzetik, azpimarratu nahi genuke mailakatzea ez dela garrantziaren araberako sailkapena; erran nahi baita behar fase desberdinei egiten diela erreferentzia, eta, beraz, ez dela munta irizpide. Beraz, “pauso” zentzuan darabilgu “maila” hitza.

Segidan diren bi ataletan, identitate partekatuaren garapenaren bi islei erreparatuko diegu: orokorrean, komunitateek lehen mailako beharretatik abiarazi ohi dituzten ekintzei (2.2.1.) eta, zehazki, ekintza horien guzien gibelean, euskal komunitateak zuen bilaketa nagusiari (2.2.2.); hau da, euskal identitatea berreskuratzeko lehen faseari eta fase horretan muin izan ziren behar nahiz prozesuei.

2.2.1. Nazio berpiztearen lehen fasea: komunitate beharrak eta ekintzak

Hasierako birmoldatze kulturalak (1960-1975) emozioen erabilera eta kudeaketa garrantzitsua ekarri zuen, komunitatearendako, eta, kudeatze horren baitan, talde partaidetzaren sentimena guneetarik bat izan zen. Sentitze horren garapena hiru puntu nagusitan bildu zen: “berezko” kultura oinarri harturik, indartu egin ziren elkartasun sentimena eta babes bilatze bateratua. “Berezko” kultura hori zein ote zen eta nola moldatu behar zen auzian jartzen zuten eztabaidek –iragan komuna erakutsi eta berau jabetzea helburu zutenak– garaiko artikuluetan agertuz joan ziren.

Segidan, espresuki arituko gara testuinguru berean bat egiten duten oinarrizko beharrez (2.2.1.a.) eta aurkaritza moduez (2.2.1.b.).

2.2.1.a. Oinarrizko beharrak

Euskal komunitateak 1960-1975 bitartean asebate behar izan zituen beharrak ulertzeko, bi alde erreparatuko ditugu; batetik, partaidetza sentimena zer den eta nola garatzen den (a.1.), eta, bertzetik, espresuki 1960-1975 bitartean azaleratu zen behar maila (a.2.).

a.1. Partaidetza sentimenaren garapena

1960-1975 bitarteko errealtate konplexuaren indarra erakusten dute iragana helburu zuten artikuluen ugaritasunak nahiz garapenak, eta, horiekin batera, batasun kontzientzia sendotu beharra¹³⁹ aldarrikatzen zuten idatziek.

Batetik, “berezko” kultura hori berreskuratzeko egin ziren ahaleginak aipa litezke; gai nagusietarik bat izan zen kulturaren ezagutza, euskal dantza, kantu eta bertzelako ondareez haratago, horietan guzietan zen euskal “esentzia”, arima, aurkitu beharra izatea. Hori dela eta, euskal kulturaren eta ondarearen ezagutza laguntzen zuten arituez gain:

Begiak zabalduz batera ikusten dogu gaur egunean euskal kulturari buruz zeozer zaletasun ba dagoala. Baiña bear bada ez dira ezagutzen bear dan bestean euskal kultura onetan lan egin dabenak. Ori dala-ta, gure asmoa, Bizkaiko kultura onetan papel inportante bat jokotuten dabenak ezagutzen emotea da. (A. Ajuria, “Juan Antonio Mogel”, *Anaitasuna*, 1967-06, 146. zk.)

Ezagutza horrek lagunduko zukeen, Karmen Ibarrek adierazi gisa, herriarekiko maitasuna:

Orregaitik bear dogu *erri jakintza* bat. Erritik datorrena ta errira doana. Ainbat eta geiago ezagutu, geiago maitatuko dogu erria, jakintza orrezaz jaubetzen bagara. Erri jakintzak erriratu egiten gaitu; ezi egiten gaitu, eta onetarako gaztediak, gizonak beti ikasten egon bear dogu.

Onetarako ugaritu bear doguz artu-emonak, kursilloak, ibilketa kulturalak. Era guztietakoak lortu bear doguz, utsune ori bete ta gizartean gizonari jagokon bizitza egiteko. (“Gaztedia Jakintzaren Aurrean”, *ibid.*, 1967-06, 146. zk.) (Azpimarra ez da gurea)

Bigarrenik, ahalegin horren garapena aldizkarietako atal desberdinen garapenean sumatzen da: aldizkarietan agertuz doazen atalek duintasuna berreskuratu beharra agertzeaz gain, euskal komunitatearen zentzu bateratua eta lokarri komunak finkatzeko nahia islatzen dute; bertzeak bertze, *Anaitasuna* aldizkarian, 1965etik aitzina, agerturiko “Erriz erri” eta “Euskalerriko ipuiñak”, hondarreko orrialdeetan agertzen ziren herrikirol¹⁴⁰ nahiz herriei¹⁴¹ eskainiak ziren atalak.

¹³⁹ *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak direla eta ikusiko dugunez (4.1.3., b.1.), batasun horren kontzientzia laguntzeko tresnak ez ziren soilik batasun horren kontzientzia zuzena aldarrikatzen zuten testuak izan. Erraterako, lagungarri agertu ziren, helburu horretan, Euskal Herriko errealtate langartuaren ezagutza partekatua laguntzera heldu ziren aldizkari atalak. Halakoak ziren, bertzeak bertze: *Anaitasuna* aldizkariako “Erriz erri” atala, edota IEHri erreferentzia egiten zioten “Ipar aldetik bi berri” nahiz “Iparraldea iparlehiohotik”; *Zeruko Argiako* “Euskal errietatik” –non Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako albiste motzak biltzen ziren– eta “Ipar aldetik bi berri”, IEHri erreferentzia egiten ziona.

¹⁴⁰ *Anaitasuna* aldizkarian, adibidez, kirol desberdinen gorazarrea laguntzen zuten lanak argitaratu ziren: idi-proben antzinasun nahiz nortasuna agertzen zuten idatziak (1965, 124: 8) eta euskal kirolen historia bat egiteko ahaleginak (“Pelota txapelketaren istoria”, 1965, 126: 8).

¹⁴¹ Euskal herri edo lurraldeei eskainirikoa zen 1967tik aitzinako “Ezagutu zure erria”; “Ezagutu g[e]ure [H]erria” bihurtu zen, 1969an, J.L. Lizundiaren eskuetan –1971eko maiatzera bitarte–.

Ondare horren berreskuratzeak eta, noski, “esentziadun” ondare hori garai berrietara nola moldatu beharko zatekeen eztabaidatzeak azaleratu zituen euskaltasuna gordetzeko ikuspegi desberdinak. Hartara, modu batera edo bertzera, batasunaren aldeko kontzientzia bulkatu nahi izan zen, kultur proposamen eraberritu gisa izanik ere¹⁴²: “Batasun kontzientzia iratzarri behar dogu gure barruan. Kontzientzia hau, apur bat, Euskal Erria ezagutzearekin biztuten da” (J.M. Torrealdai, *ibid.*, 1969, 174: 7). Hala, euskal herriaren ezagutza, herriarekiko maitasuna laguntzeko bulkada gisa agertzeaz gain –oroitu arestian Karmen Ibarak, 1967an, agerturikoa–, batasun kontzientzia laguntzeko tresna gisa sumatzen da.

Hirugarrenik, komunitateak, sentimen komun horretatik abiatuta, proiektu komunen inguruan bilatu zuen babesa: herriaren duintasuna sendotzen zuten proiektu komun horietan parte hartuz, helburu nagusi batzuen inguruan bildu ziren indar kolektiboek lagundu egin zuten momentuko babes kolektiboa eta etorkizunerako zutarrien segurantza.

Horregatik, dela Torrealdairen gisako diskurtsoekin, dela euskara batuaren proiektua aitzinera eramatearekin, erraterako, ahaleginak egin ziren euskal komunitatearen bateratzea ekimen desberdinekin lortzeko. Gisa horretan, talde partaidetzak kanpo-erasoetatik babesteko nahia ekarri, eta komunitateko kideekiko senidetza partekatua bulkatu zuen; baina, era berean, kultura partikularrak baldintzatu zituen herrikide nahiz bertzeekiko erlazioak (Guibernau 1999: 93-94).

a.2. Lehen behar maila asebetetzeko pausoak

Euskal komunitatearen lehen behar maila asebetetzeko pausoak eman ziren, preseski, aipatu berri ditugun hiru alderdien inguruan.

Nazio berpizkundearen lehen faseari atxikia, euskal identitate etno-kulturalaren behar primarioen aldia da lehen behar maila; beraz, iragan, hizkuntza, ohitura, erreferentzia kultural eta abarren bizipen partekatu gabeziak sortzen dituen premietatik eratorria. Oinarrian, komunitate beraren partaide sentitu nahia izaki, alderdi afektiboak¹⁴³ animaleko garrantzia izan zuen, aldi horretan; sentimen horien kudeaketa, hein batean, kulturgileen eskuetan izan zen. Are gehiago, ezinbertzeko laguntzaile izan

¹⁴² Oroitu Euskal Musika Berriaren baitako gisa agertu ziren abeslariekin –eta, beranduago, Ez Dok Amairurekin– izaniko iskanbilak.

¹⁴³ Denborarekin, sentimenduez haratago aritu beharra aldarrikatu zen; bertzeak bertze, hori baitzen kultur mailara iritsi eta profesionalizazioa garatu ahal izateko baldintza (Angel Ugarteburu, “Betiko arriskuak”, *Anaitasuna*, 1969, 172: 7).

ziren kulturgileak, guti batzuen ekimenak jende zabalari ailegatze eta mantentze lanetan. Pisu horren erakusgarri, kulturgileen rolari buruz arituko gara, bereziki, 3.1.4. atalean; ikusiko dugu euskal kantarien aritua, bai barreiatze, baita jarraipen lanetan ere, hagitx garrantzitsua izan zela.

Gaurero ohartua izanen da irakurlea etengabeko loturak ezartzen ditugula atal honen (“2. Testuingurua (1960-1975)”) eta segidan denaren artean (“3. Euskal ondare kultural metatuaren moldatze funtzionala (1960-1975)”); izan ere, 60ko hamarkadatik aitzina hauspoturiko aldaketek garaia izan zuten –iragana nahiz presentea–, bere osotasunean, baldintza nagusi. Horiek horrela, euskal kultura berpiztea eta mantentzea lehen epealdiko helburu nagusi bihurtu zen, komunitatearendako; horregatik erran dugu emozioen kudeatzea, taldeko partaide sentitzea eta iraganeko oinarri komuna atxikitzea ezinbertzeko baldintzak izan zirela, kultur moldaketan. Zernahi gisaz –euskal kulturaren berpizteak hasiera garai horietan berreskuratze lana behar nagusi izan zuelarik–, euskal kulturaren ezagutza ondarearen alderdi bati atxiki zitzaion, gehienbat; gibelean atzenduak ziren dantza, musika, kontakizun eta abarren berreskuratzeak ekarri zuen euskal kulturaren izaerarik folklorikoena azaleratzea.

Alabaina, komunitatearen lehen beharrei buruz ari garenez, argitu nahi genuke izaera horren balioaz haratagoko beharra ere aski agudo aldarrikatu zela. Durangoko II. Liburu eta Diskoen Azoka dela eta, J.M. Torrealdaik erran gisa:

Aitortu daigun garbi: ez daukogu euskal kontzientziarik, erri-kontzientzia sendorik, kultura-kontzientziarik. Errezenena jotzen dogu beti: folklorea edo... “gora gutarrak” batzuk esatera... ta orrekin, pott. Kontuz: ez diñot olakorik bear eztanik. Baiña ez aztu: eukaldun lez aurrera jarraitu gura badogu, sendotu daiguen izkuntza, egin daigun kultura. (“Euskal Liburu ta Diskoen Bigarren Azoka Durangon”¹⁴⁴, *Anaitasuna*, 1966, 141: 1)

Hala, bada, beharra sumatu zuen komunitateak –oinarrizko beharren artean, euskal identitatearen pizgarri eta sostengu ziren alderdi kulturalen atzemate folklorikoaz gaindi– ondarea etorkizunerako erabilgarri eginen zuen duintze prozesua abiatzeko; eta halaxe agerrarazi zuten premia, aldizkarietan, kulturgileek ere.

Edozein gisatan, garrantzitsua da Torrealdairen hitzetan islatua; hau da, folkloreak balioa gutietsi ez izana. Hagitx garrantzitsua izan zen¹⁴⁵ ondare galduaren berreskuratzeak ekarri zuen corpus bilketa, eta corpus horren erabilerak erabilpen

¹⁴⁴ Jatorrizko izenburua, letra tikian: “euskal liburu ta diskoen bigarren azoka durangon”.

¹⁴⁵ Hirugarren atalean aipatuko dugunez (3.1.3.a.), corpusaren bilketa lana, XX. mendearen lehen erdira arte, gutiengo ikasi baten esku izan zen, eta bere barreiatzea ez zitzaion herriari iritsi.

folklorikorako joerak bulka zitzakeen. Errate baterako, X. Gereñok, euskal kantari berriak¹⁴⁶ hizpide zituen artikulu batean, zioen gisa:

Euskerea sartu da, ba, gaurko ritmoetan; eta itxurea danez, gaztediak onartu egin dau. Noraino helduko dan, datorren illetan ikusiko dogu, udan. Nire ustez, guztiok laguntzen badogu, abestiaren bidez gureganatuko dogu gaztedia, len gaztedi horren talde andi bat folkloreaken bidez gureganatu genduan lez. (“Gaurko abestiak euskeraz”, *ibid.*, 1968, 159: 3)

Euskal ondarearen alderdi folklorikoena atzemateaz haratago joan beharra agertu zen, eta, beraz, “kultura” eta “folklore” arteko aldeak gero eta gehiago nabarmenduz joan ziren¹⁴⁷. Alderatze horren zama jasan zuen lehen kultur saio nagusia Durangoko Azoka izan zen. Hala agertzen zen, 1965eko azaroan, *Anaitasunan*, Gerediaga Elkarrean antolaturiko lehen Durangoko Azokari buruz:

Jai au ez da izan gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jai bat. Euskal Jaia esaten danean folkloreako gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu izan gura dau. Folklore gauzak ezetsi gura barik¹⁴⁸, euskal kultura adierazi, indartu ta zabaldu izan gura dau. (Egile ezezaguna, “Durango kulturaren alde”, 129: 1)

Premia horien jatorria, ordea, estatuarekiko erlaziotik heldu zen, nagusiki; estatu barneratzailearen politika homogeneousatzaile¹⁴⁹ gogorrek sustatu egin zituen kontrako hainbat jarrera, euskal komunitatearengan. Zalantzarik gabe, Aro Ilunean zeharreko erregimena izan zen euskal komunitatearen lehen behar maila, oinarritzkoena, itxuratu zuen indar nagusia; Gerra Zibiletik Francoren diktadura akitu bitarteko garai iluna.

Estatu barneratzaileen inposaketei kontra egiteko hainbat egoera, edota ekintza nahiz multzo arketipo aipatzen dituzte adituek. Hizpide dugun komunitatea kontuan izanik, aski egokia iduritu zaigu erregimen beraren agindupean izaniko komunitate baten adibidea. Edozein gisatan, logikoki, diktadura molde berak azpiratu izanak ez du

¹⁴⁶ Horiei buruz ere, folkloreaken baitako euskal ondareak kanpokoendako zirela: “Azkenean guk ere geure ikusgarriak ba ditugu, guretzako eginak, egiazki bizi direnak, gutaz, geure biziaz eta geure Herriaz mintzo zaizkigunak. // Orai arte, «spectacles folkloriques» delako horietarik, turistentzako eginikako hoietarik baizik ez zen” (“entzule bat” sinadurapean, “Geure kantariak ba ditugu guk ere”, *ibid.*, 1972, 237: 11, jatorrizkoa *Herria* aldizkarian agertu zen, 1972-06-01ean).

¹⁴⁷ Aldizkarietan irakurriei behatuz, “folkloreak” barneratzen duen ondareak iduri du, etorkizuneko proiektuetan, baliabide edo tresna erabilgarri gisa garatzea saihesten duela; baliagarritasun ezak, komunitatearen garapena laguntzen duen tresna gisa ez garatzeak, folkloreaken eremura mugatzen du ondarea. Aitzitik, “kultura”ren baitako ondareak –hala emana, landua eta atzeman denak– denboran eta bere euskaltasunean aitzina egiteko laguntza eskainiko lioke komunitateari.

¹⁴⁸ Hemen, berriz ere, onartu egiten da, Torrealdei eta Gereñoren hitzekin gertatu gisa, folkloreaken alderdi positiboa, denbora bateko beharrezkoa. Halatan, arestian erraten genuenez, alderdi folklorikoaren garapenak kultur moldaketaren hasiera-hasierako beharrei erantzuten zien: euskal ondarearen berreskuratze prozesuaren oinarriei. Gero helduko da berreskuratze horren eta garaikidetasun nahiz etorkizunarekiko bateratzearen artean gertatu zen kinka.

¹⁴⁹ Oroitu, goiti, diktaduraz ari ginela, estatu homogeneousatzaileei buruz errana; estatu espainiarrak helburu homogeneousatzailea aspaldi abiatu zuela ikusi dugu.

erran nahi –ezinbertzean, bederen– komunitate azpiratu horiek jazarpen beren jasaile izan zirenik; baina uste dugu berdinak izan zirela, hein batean. Hortaz, begietan eduki dugu Kataluniako kasua; zenbaitetan abiapuntu, bertzetan erakusgarri, prozesuen aldakortasunaz kontziente izan gara.

Montserrat Guibernauk identifikatu ditu –komunitate katalanaren adibidetik abiatuz, preseski– estatutiko homogeneizazioaren kontrako bi estrategia nagusi: Erresistentzia Kulturala eta Borroka Armatua (1999: 114-148).

Komunitate beharren lehen fasean sumatzen diren behar kolektiboek, nahiz berauek asebetetzeko eginiko saiakerek, agerian uzten dute euskal komunitateak estatuarekiko izan zuen jarrera: homogeneizazioaren eta errepresioaren kontrako estrategia gisa Borroka Armatua nahiz Erresistentzia Kulturala erabili zituen euskal herriak. Tesian zehar, euskal kultur moldaketa nagusiaren ondorioak hizpide izanik, eta fokua bigarren erresistentzia motan jarria dugularik, euskal komunitatearekiko diren korrespondentziak begiztatu ditugu.

Guibernauk erresistentzia hori dela eta ematen dituen azalpenetatik (*ibid.*: 115-123), funtsezko hiru ideiatan bil liteke Erresistentzia Kulturalaren muina: Erresistentzia Kulturalaren erreferenteek, beren helburuek eta lortzen diren ondorioek agerrarazten dituzte euskal komunitateak, 60-70etan, abiatutako bidearen oinarriak.

Errepara diezaigun, polikiago, hiru puntu horien izanari eta horietariko bakoitzak hizpide dugun garai nahiz prozesuarekiko dukeen harremanari:

1. zehaztea

Batetik, Erresistentzia Kulturalak erreferentzia egiten dio kultura eta hizkuntza partikular jakinak lantzeari eta eremu publiko nahiz pribatuan komunitate horren erakusgarri liratekeen sinboloak erabiltzeari.

Euskal komunitatearen kasuan, birmoldatze kulturalaren fase bietan, oinarritzko abiapuntua euskararen berreskuratzea eta lanketa izan ziren; hala nola, euskara galdua zen eremuetara hurbiltzea¹⁵⁰, euskarak eskolak hartzea eta euskara bera kultura eremuetarako gaitzea, alfabetatze kanpainarekin batera. Durangoko Azokak eremu publikoaren lehen garaipen nagusia irudikatu zuen. Bertan gertatuak islatzen zuen euskal komunitateak kulturarekiko zuen harremana, eta, beraz, kulturgileendako

¹⁵⁰ Torrealdaiak, euskararen belaunaldiz belaunaldiko irakaspen-katea kasik akitua zela eta, Nafarroa ez atzendu beharra oroitarazten zien irakurleei (*ibid.*, 1969, 174: 7). Bigarren fasea aztertzen dugunean, argituko dugu eremu publikoa bereganatzea izan zela, 1975-1990 bitarteko erakundetze-egituratze prozesuan, funtsezko aitzina pausoa.

termometro izateaz haratago, arazo eta kritiketarako bide nahiz planteamendu berrien sorgune izan zen¹⁵¹.

2. zehaztea

Erresistentzia Kulturalak, bertzetik, larderia tresna nagusi duten estatuen jasaileak ditu helburu; hau da, politika berdintzaileen jasaile diren kultura eta hizkuntza jakinak babestea eta, ahal dela, garatzea du xede.

Hain zuzen ere, euskal aldizkarietan, behin baino gehiagotan, islatu zen egoera antzekoetan bizi ziren herrialdeetako informazioa; nazioarteko komunitateen egoerak hurbilduz¹⁵², adibidez. J. Azurmendik sarri ekarri zituen hizpidera diktadurapean edo errepresio egoeren mende ziren herrialdeetako gertakariak, *Anaitasunako* “Mundu biribila” atalean; Jugoslaviar aritzen ziren idatzietan (“Yugoslavia 1970: politikazko desegokitasuna”, 1970, 189: 3), edota “Alemaniako demokrazia erritarra” (1968, 170: 10) artikuluan, non Berlineko egoera diktadura gisara deskribatzeaz gain, euskaldunei egoera hori bera ezaguna zitzaiela zioen. Estatu mailako bertze komunitate gutituei erreferentzia eginaz¹⁵³, agerian uzten zen estatu espainiarraren politika berdintzailearen izana, edo, hobe erran, haren kontzientzia; *Anaitasunan*, kasu, agertu ziren demokraziaren ezaugarriak hizpide zituzten idatziak (“Demokraziak kontserbatzen”, 1973, 266: 9; “Demokraziaren baldintzak”, 1975, 296: 3) eta garaiko botere monarkikoarekiko jarrera disidenteak (1975, 299: 3) agerrarazten zituzten iritziak¹⁵⁴.

3. zehaztea

Azkenik, erran liteke, errepresio egoeretan, Erresistentzia Kulturaletako ekimenek lortzen dutela eremu publikoan estatuak duen kontrola –modu sinbolikoan, bederen– haustea. Gainera, zalantzan jartzen dute komunitateen garapenean hain garrantzitsua den irudikatzea: estatuak aldarrikaturiko batasunaren eta berdintasunaren irudiak borrokatzen ditu Erresistentzia Kulturalak.

¹⁵¹ Erresistentzia Kulturalaren lehen alderdi honen erakusgarri, *Anaitasunaren* 1960-1975 bitarteko corpusetik abiatuta, euskal adibideak bildu ditugu (“*Anaitasuna*. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (lehen zehaztea)”, B eranskina, B.2. azpimultzoa).

¹⁵² Eranskinean, errepresio egoeran ziren atzerriko nazioei buruzko artikuluen adibide gehiago bildu ditugu (“*Anaitasuna*. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (bigarren zehaztea)”, B eranskina, B.2. azpimultzoa).

¹⁵³ Euskal Kanta Berriak militantziarekiko behar zukeen harremanari buruz artikulua aunitz kaleratu ziren; horien artean, Kataluniako egoera hurbiltzen, eta gurearekiko alderatzen, zuten lanak ere izan ziren. Bertzeak bertze, X. Kintanaren “Joan Manuel Serrat-eri” (*ibid.*, 1968, 157: 7). Katalan nazioari buruzko informazioa eta estatuarekiko problematika ere biltzen zen, “ ‘Catalanismo y revolución burguesa’ liburua” artikuluan bezalaxe (*ibid.*, 1970, 191: 8).

¹⁵⁴ Bi-biak 1974ko maiatzaren 31tik (276. zk.) aitzina agerturiko “Iberia express” atalean argitaratuak.

Garaiko aldizkarietan, indar sinbolikoz beteak ageri ziren, komunitatearendako, historian zehar adierazgarriak izanak ziren leku nahiz irudiak. Hala nola, Gernikako Arbolaz gain, Gernika bera biziraupen nahiz herri sendotasunaren sinbolo gisa agertzen zen (*Anaitasuna*, 1967, 144: 10, 12), eta errepikatu egiten da –60ko hamarkadan zehar, *Anaitasuna* aldizkarian– Gernikari buruzko informazioa (1967, 144: 12). Arantzazu bera ere euskarak batasunerako eman zuen pauso nagusien gune nahiz irudi bihurtu zen (*ibid.*, 1969, 179: 7; are belaunaldi oso baten sinbolo gisara agertu ere: *ibid.*, 1970, 200: 4). Hala zioen, 1968ko Euskaltzaindiaren batzar nagusiaren berri ematen zuen artikuluko argazki-oinak: “Arantzazu, ainbeste euskaltzale emon dauan tokia”¹⁵⁵ (*ibid.*, 1968, 168: 8). Halatan, adibidez, azaltzen joan ziren euskal komunitatea zazpi probintziekin irudikatzen zituzten mapen iragarkiak: “Euskalerriko mapea” (*ibid.*, 1969, 173. zenbakitik aitzina, noizean behin)¹⁵⁶.

Hiru zehazteekin irudikatzen da euskal komunitateak Gerra Zibiletik aitzina biziriko egoera eta, noski, 60-70etan jasana; izan ere, Erresistentzia Kulturalak biltzen du komunitateak 60etan abiatutako ekintza anitzen funtsa: estatu berdintzailearen boterea jasaten zuen gizarteak aitzina egiten zion botere horri, nahiz bertan biltzen zen estatu irudiari. Hala, bada, aisa konprenitzen da Erresistentzia Kulturalak euskal komunitatean izan zuen presentzia prozesu mota horiek –botereari nahiz hark bilduari aitzina egitea– sortu ohi diren testuinguruen berdintasunetik heldu dela: egoera errepresiboa, estatu homogeneizatzailea eta berreskuratu beharreko kultura zanpatua.

Hain zuzen, lan honen lehen helburua kultur moldatzeaz aritzea izaki, espresuki izan da argigarri Erresistentzia Kulturalaren ideia:

Cultural resistance refers to the cultivation of a particular culture and language, where there is one, and to the use of all sorts of symbols of a national minority’s identity in the public as well as in the private sphere. Its objective is to preserve and, whenever possible, to develop a specific language and culture which are under threat by the homogenizing policies implemented by a state which does not acknowledge or encourage internal difference. In a situation of repression, such actions symbolically break the state’s control of the public arena and challenge the unitary and homogeneous image put forward by the state. (Guibernau 1999: 115-116)

Garrantzitsua izanen da erresistentzia horretan birgaitu zen euskal corpusaz, hari emaniko zentzu berriaren izanaz eta ekimen horren sustatzaile nagusiez ohartzea. Hiru

¹⁵⁵ Hurrengo zenbakian, aldiz, A. Pérez Bilbaok agertu zuen Oteizaren eskulturak bide bazterrean zirela, Arantzazun (*ibid.*, 1968, 169: 4).

¹⁵⁶ Erresistentzia Kulturalaren hirugarren alderdi honen erakusgarri, eranskinean, *Anaitasuna* 1960-1975 bitarteko corpusetik abiatuta, euskal adibideak bildu ditugu (“*Anaitasuna*. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (hirugarren zehaztea)”, B eranskina, B.2. azpimultzoa).

alderdi horien behaketa hagitz baliagarria izanen da euskal komunitateak, 1960tik aitzina, irabazi zuen lorpenaz ohartzeko; beraz, euskal komunitateak eremu publikoan presentzia beretzeko jorratu zuen bidez ohartzeko.

2.2.1.a. azpiatalean erranak bilduz, komeni da bi estrategien arteko elkarreragina –Erresistentzia Kultural eta Borroka Armatuarena; aldeko nahiz kontrakoa– handia izan zela ohartzea; eta, etorkizunean, bi erresistentzia moldeen arteko harremanaz –60etatik euskal komunitateak jasaniko birmoldatze nagusia bere osotasunean ulertu nahi badugu, bederen– aritu beharko gara.

Erresistentzia Kulturean, ordea, ekimen mota desberdinak bana litezke. Ondoko azpiatalean, mota bakoitzari buruzko informazio bildu dugu. Kataluniaren adibidetik abiatuz, M. Guibernauk identifikatu ditu –egile, helburu eta ekintza motak kontuan izanik– eremu publikoan jorraturiko lau Erresistentzia Kultural: ekintza sinbolikoak –“symbolic actions”–, tartean sartze ekintzak –“interference actions”–, elite ekintzak –“elite actions”– eta ekintza solidarioak –“solidarity actions”–.

2.2.1.b. Aurkaritza moduak

Euskal komunitateak, 60etatik aitzina, bizi zuen ernatzean, erregimenaren kontrako jarrerak, modu desberdinetan eta –bereziki azpimarragarri delarik– geroz eta taldekoagoa zen partaidetzan, abiatu zituen. Aditu edo kulturgileek sustaturiko abiatzeak oihartzun handia izan zuen herrian, eta korrespondentzia horrek berak ahalbidetu zituen bai moldaketa kulturalaren arrakasta, bai ondoko fase nagusirako oinarrien finkatzea ere. Erresistentzia horien baitan, ordea, ekintzen norabidea arrunt baldintzatu zuen erregimenaren aldian aldiko izaerak.

Kataluniak diktaduran izaniko jarrerei erreparatuz, Francoren erregimenean eta segidako urteetan, eremu publikoan lau erresistentzia mota –“opposition forms”– identifikatu ditu Guibernauk¹⁵⁷. Horiei erreparatuz, guk hizpide izanen dugun euskal birmoldatze kulturala ere kontrako jarrera horien artean edo, hobe erran, kontrako jarrera desberdinen biltze gisa, identifika genezake.

¹⁵⁷ Ezarri ditugun erreferentziak Guibernauk 1999an argitaratu zuen liburutik ateratakoak diren arren, 1996ko liburuan, gaurgero, aipatzen ditu lau ekintza mota horiek; laburki, ordea. Lehendabizi eginak diren erreferentzia horiei behatu nahi dienarendako, ikus orduko “Cultural resistance” atala (104.-105. or.).

Ekintza sinbolikoak¹⁵⁸

Hala definitzen ditu Guibernauk ekintza sinbolikoak:

By ‘symbolic action’ I mean a single and usually isolated action carried out by a small group or even a single individual whose main objective is to break the control of the public space in the hands of the oppressive regime. (*Ibid.*: 116)

Horietarikoa deritze adituak grafiti eta bandera –ikurriña, kasu– erakustaldiei; kale edota bertzelako eremu publikoetan gertatu ohi direnei. Ekintza bat baino gehiago, eremu publikoan agertzeko modu desberdin bat izan arren, 60-70etako aldizkarietan, Euskal Herriko mapa agertzean, zazpi probintziak erakustea adibidetzat har genezake.

Tartean sartze ekintzak¹⁵⁹

Hala definitzen ditu Guibernauk tartean sartze ekintzak:

By ‘interference actions’ I refer to single actions executed by small groups during the course of public events. The task of such actions is to challenge the regime at its core by disrupting rituals and ceremonies whose aim is precisely to prove that homogeneity and control have been achieved. ‘Interference actions’ imply a high degree of risk, since security measures designed to prevent any sort of disturbance are strongly implemented on such occasions. ‘Interference actions’ envisage a double reception: on the one hand, they are addressed to those attending the public event, but on the other, they seek the attention of ‘alien’ observers, such as the international press or foreign representatives, partially or completely unaware of the national minority’s situation. (*Loc. cit.*)

Idea horretatik abiatuz, mota honetako adibide anitzez irudikatzen du teorialariak herri katalanak frankismoan agerturiko oposizioa; espresuki aipatzen du 1960an, Palau de la Música Catalana eraikinean, Joan Maragall poetaren mendeurrena ospatzeko kontzertua. Hasieran “El cant de la senyera” debekatu zuten arren, Francoren kabinetetik bertaraturiko lau kideek, akieran, entzun behar izan zuten kanta, jende guziaren ahotan; izan ere, ikusleria guziaren nahia zen abestia.

Elite ekintzak¹⁶⁰

Elite ekintzak, aldiz:

By ‘elite actions’ I refer to actions and activities carried out by a small but devoted intelligentsia. Their objective is the maintenance and, when at all possible, the development of the nation without state’s high culture. ‘Elite actions’ are primarily concerned with the protection of the language. (*Ibid.*: 117)

¹⁵⁸ (Guibernau 1999: 116)

¹⁵⁹ (*Ibid.*: 116-117)

¹⁶⁰ (*Loc. cit.*)

Ekintza horien erakusgarri, Institut d'Estudis Catalans aipatzen du Guibernauk. 1939an desegina, 1942an berrantolatu zuten Josep Puig i Cadafalch-ek eta Ramon Aramon i Serra-k; beren isilpeko lanen artean, medikuntza, zientzia eta bertzelako gaietarako buruzko liburu nahiz artikuluak argitaratu zituzten. Edota Omnium Cultural, 1964ko erakunde erdi-isilpekoa, 1967an legalki aintzatetsia. Guibernauk berak dioenez, Frantziako 68ko Maiatzak eta Pragako Udaberriak unibertsitatearen inguruko erakunde erradikalen ugaritzea bulkatu zuen; gainera, nazionalisten aldarrikapenak burgesztatatzeman ziren, eta, beraz, ez ziren bueltatuko unibertsitateko testuingurutik desagertu, eta Franco hil arte. Idazleen Batzarrak edota Euskaltzaindiak eginiko ahaleginak, adibidez, erresistentziaren adibide mota honetan sar genitzake.

Ekintza solidarioak¹⁶¹

Azkenik, ekintza solidarioak aipatzen ditu:

By 'solidarity action' I mean an action that is usually prepared or instilled by a small elite but whose aim is to mobilize a larger number of people, to achieve mass participation. The objective of a 'solidarity action' is to show the strength of the opposition by focusing upon a particular demand and presenting it as something that cannot be denied due to the massive support it receives. (*Loc. cit.*)

Krisi Orokorren aurrekariez ari ginela –diktaduraz, zehazkiago– deskribaturiko aldaketak lagundu zuen ekintza solidarioen ugaritzea. Zernahi gisaz, teorialariak zehaztu gisa, akzio sinbolikoak eta tartean sartzekoak ekintza solidarioetatik bereizteko ideia bati erreparatu behar zaio; akzioak gauzatzen diren testuinguruari dagokion funtsezko desberdintasun bati: “The latter attempt to break the control of the public sphere in the context of a highly repressive discipline surrounding all public activities” (*ibid.*: 117-118). Beraz, solidaritate ekintzak erregimenaren izaera zanpatzailea laxatzen den garaietan soilik gertatu ahal dira; gizartea elkarrekin ausartu ahal delarik estatuaren boterea zalantzan jartzera.

Diktadura frankistaren akierako hondatzeak testuinguru egokia eskaini zuen, halako arituendako: Europara begira irudi “demokratikoa” eman nahiak hainbat alderdiren “beratze” aukera –sobera, ez; ezta aski ere, noski– eskaini zuen¹⁶².

¹⁶¹ (*Ibid.*: 117-118)

¹⁶² Guibernauren beraren hitzak aunitzez egokiagoak dira, egiazki: “An eroded dictatorship striving to present itself as democratic has to use force in a carefully calculated way. A demonstration cannot be dealt with by shooting people” (*ibid.*: 118).

‘Solidarity actions’ are addressed to the officials of the regime who are forced to acknowledge the power of the ‘different’ but at the same time such actions are designed to appeal to the media and to foreign observers who will be attracted by their magnitude. (*Ibid.*: 118)

1977an, katalanek Bartzelonan egin zuten aldarrikapena, berendako autonomia-estatutuarena, solidaritate ekintza bat izan zen; 1976ko “24 ordu euskaraz” ekimenaren gisa.

Espresuki gurera etorriaz, estatu espainiarrak erregimen frankistaren eskutik beharturiko homogeneousazioaren kontrako estrategiak dira tesian zehar hizpide izanen ditugunak. Ekintza horietan identitate kolektibo bereziaren aldarrikapena ageri zen. Euskal kultur moldaketak Erresistentzia Kulturala izan zuen gune nagusi; eta –komunitatearengan izan zuen eraginak berak ahalbidetuta, hirugarren kapituluaren agertuko denez– erresistentzia horrekin garatu ahal izan zen gero eta helburu politikoagoetara bideratua zen moldaketa.

Edozein gisatan, errepresioaren kontrako jarrerak testuinguru zabalagoko nahiekin bat egiten zuen, erresistentzia horretan. Euskal kantarien aritua, kasu, hagitz lotua izan zen estatuan barnako jarrera anti-frankistari, estatu mugimendu nagusiekin bat egin zuelarik euskal Erresistentzia Kulturalak. Are gehiago, estatuz haratagoko arituekin ere bat egin zuen:

Sus canciones [60-70etako kantautoreenak] mantenían una fuerte conexión con la realidad circundante inmediata y conllevaban una carga de relevancia social y urgencia política. Al mismo tiempo, el movimiento de cantautores formaba parte de un movimiento musical transnacional, contracultural y anti-imperialista, que utilizaba las canciones como actos colectivos de resistencia contra la opresión. Los cantautores españoles absorbieron la rica tradición de la canción francesa (Jacques Brel, Georges Brassens, Leo Ferré), la canción protesta norteamericana (Peter Seeger, Joan Baez) y el movimiento neofolk latinoamericano (Atahualpa Yupanqui) (González Lucini 1989: 1, 173)¹⁶³, y se mezcló con las raíces tradicionales autóctonas españolas, construyendo así un vínculo entre el legado del pasado y las formas nuevas del presente. (Colmeiro 2005: 98-99)

Euskal komunitateak erregimenari aitzina egiteko inspirazioa eta haren ondorioz garaturiko indarra iturri desberdinetako arituetatik jasotzen zuen: munduan zehar barreiatuak ziren komunitate gutituen ernatzeetatik edanaz edo diktadura beraren mende ziren komunitate periferikoekin bat etorriaz, olatu berean.

Nolanahi ere den, erran gisa, erresistentzia horrek izan zuen, gurean, alde berezizgarriak: errepresioaren ondorioz espresuki garatu zen komunitate identitate bereziaren duintasun bilaketa espezifikoak. Hortaz, errepresioaren kontrako jarreraren, bi

¹⁶³ Emaniko erreferentzia: González Lucini, Fernando, 1989, *Veinte años de canción en España (1963-1983)*. Madril: Ediciones de la Torre.

estrategia nagusiak ahalbidetu ziren, Euskal Herrian –Erresistentzia Kulturala eta borroka armatua–; baina, estatuko joera anti-frankistarekin bat egiteaz gain, nazio gutitu modura, duintasunarena izan zelarik bilaketarik behinena.

Testuinguru horretan hasi ziren eskaintzen oinarrizko identitate kulturalaren sentipenerako baliabide sinbolikoak. Bertzeak bertze, argudiatuko dugu, ondoko atalean, Ahozko Ondare Kulturalaren (AOK) berrinterpretazioak baliabide sinboliko horiek eskaini zituela –berreskuraturiko corpusa garai berrietara moldaturik, gainera–. Oroitu baliabide sinboliko diren mito, memoria, balio, tradizio eta sinboloek komunitateen identitate bakanaren oroitarazle kolektibo gisa jokatzeko dutela; 1960-1975 bitartean zedarritu dugun lehen beharraldi honetan, hain justu, finkatu egin zen –kulturgileen ekimenari eskerrak eta komunitate premiekin bat etorriaz– baliabideen funtzionalitate sinbolikoa.

Edonola ere, bi behar epealdien banaketa zurruna baino gehiago, bakoitzaren zentzua da axola diguna¹⁶⁴; bateko eta bertzeko behar nahiz moldaketak ez ziren modu ordenatuan eskaini, eta, gainera, batetik bertzerako iragaitea prozesu nahasia izan zen.

Lehen epealdian garaturiko beharren garrantzia mugatua dela pentsa lezake irakurleak: 60-70etako beharrei atxikiak, edota komunitatearen behar etno-kulturaletarako soilik zirela erabilgarri. Hala ere, hainbat kulturgileren kasuan, AOKren funtzionalitate sinbolikoa finkatu izana abangoardiazko ulergarritasunaren lagungarri¹⁶⁵ izan zen.

2.2.1.b. azpiatalean ikusi dugu komunitate azpiratuen eta azpiratzaileen arteko harremana modu desberdinean gauza litekeela. Testuinguruak eta, bereziki, komunitate azpiratuarekiko jarrerak aunitz baldintzatzen du erresistentzia ekimenen izana. 1960-1975 bitartean dagokionez, euskal komunitatearen lehen behar maila asebate beharra bat heldu zen Erresistentzia Kulturala dela medio azaleratzen ziren ekimenekin. Ekintza horien izana nondik heldu den ulertzeko, ezinbertzean sakondu beharko dugu lehen

¹⁶⁴ Laboak, adibidez, aski goiz ekin zion bigarren behar maila asebetetzeko laguntza ziren lanak eskaintzeari; hau da, “Lekeitio”ak lantzeari (4.2.2.b.). (“Lekeitio” desberdinak *Lekeitioak* diskotik bereizteko, modu desberdin horietan eginen diegu erreferentzia)

¹⁶⁵ Laboaren kasuan, lehen behar epealdiko prestatzea “Lekeitio”ek lortu zuten onarpenerako ezinbertzeko izan zela sumatzen da: sentsibilitate berriarekin, AOKrekiko “sortu” berria zen lotura afektiboak komunikazio hari komuna eskaini zuen, “Lekeitio”etan; corpus horrekiko harremana finkatua baitzen: AOK-ko elementuekiko sentsibilitatean hezitua –heztzen hasia– zen entzuleria. Hala, bada, euskal ondarearen erabilera berriz balioak arrangura unibertsalen baitan kokatu zituen etxeko kezkek.

behar maila kolektiboan asebeste nahi ziren premietan; zehazki, premia nagusiaren izaera zehatzari behatu beharko diegu: duintasunaren baitako behar multzoari.

2.2.1. atalean, euskal komunitatek 60ko hamarkadan abiatua zuen bidearen norabide nagusia marraztu dugu. 1960-1990 bitartean jasan zuen birmoldatze sakonaren oinarria duintasun kolektiboa berreskuratzea izan zen. Erresistentzia arituek lehen fasean agertu ziren oinarrizko beharrak asebetetzeko premia bazela erakusten duten; bertzeak bertze, eremu publikoaren bereganatze bidea lagundu zuten Erresistentzia Kultural saiakerak izan ziren. Aritu horien gibelean, izaera berezituaren kontzientzia zuen komunitatearen ahaleginak ziren, eta, horien ondorio nagusi gisa, 1975etik aitzinako fasean oinarrizko helduleku izan ziren forma sinbolikoak garatu, moldatu eta berrizatu ziren.

Erran liteke estatuaren eta euskal komunitatearen arteko harremanak lagundu zuela 1960-1975 bitartean hasierako kultur moldaketari izaera berezitua ematen; diktadurak ongizate indibidualaz haratagoko bilaketa sorrarazi zuen, euskaldunengan: ondoko atalean hizpide izanen den komunitate duintasunaren bilaketa.

2.2.2. Duintasuna, gune

1960-1975 bitarteko behar nagusiak identifikatu eta ulertzeko, komunitatearen garapena bideratzen duten hiru ardatzei buruz arituko gara. Ideia horrekin erlazioan, ardatzen zeharkako eragileaz arituko gara. Gisa horretan, kultur moldaketaren lehen fasea –beraz, kultur ondarearen nahiz sistemaren moldaketa oro– goitik beheitira baldintzatu zuen baldintza deskribatuko dugu: duintasunaren bilaketa.

Arestian erran dugu lehen behar epealdian talde partaidetzaren sentimena funtsezkoa izan zela. JosAnton Artzek “Baga, Biga, Higa... sentikaria” dela eta erranetan ageri gisa: “Herri batekoak izateak, garai honetako giroan bizitzeak, eta xede berdintsuekin lan egiteak, uste dugu, halako batasun bat ematen diotela gure ekintzari” (“Baga, Biga Higa... sentikaria. Ez dok amairu”, *Anaitasuna*, 1970, 201: 1).

Sentimendu horren piztea hiru alderdi nagusik lagundu zuten: kultura eta hizkuntza partikularrak, kideen arteko solidaritateak eta “kanpokoengandik” taldean babestu nahiak. Lagungarri izan ziren, batetik, kultura partikularrak baldintzatu eta definitu ohi dituelakotz komunitateko kideen arteko harremanak, baita bertzeekikoak eta testuinguruarekikoak ere; gainera, hizkuntza partikularraren erabilerak areagotu egiten du balio eta praktika komunen partekatze sentimena (Guibernau 1999: 93). Bertzetik,

nazioko partaide izateak komunitateko kideekiko solidaritatea berekin ekarri izanak, hein batean, kideen artean loturak sendotu zituen; honek sakrifizioa¹⁶⁶ eskatu, eta maitasun nahiz afektua eskaini ohi dizkie komunitateko partaideei (*ibid.*: 94). Azkenik, talde partaidetzak berak nazioa kanpo-erasoetatik babestu nahia dakarrenez, erregimenarekiko eta diktadura sostengatzen zuen guziarekiko arbuioa bizi zituen komunitateak.

Komunitate batasunaren sentipenerako, kultura nahiz hizkuntza partikularraren eragina hagitz nabaria izan zen. Horren erakusgarri dira lan honetarako arakatu ditugun aldizkarietan hagitz sarri ageri diren erreferentziak; hala nola, komunitateko sektoreek, denek, egin beharreko esfortzu gisa azaltzen zen –hizkuntza komunitatearen oinarritzko ezaugarri gisa agertzen zela– euskara ezagutzea, erabiltzea¹⁶⁷ eta kultur eremurako gaitzea¹⁶⁸.

Kideen arteko solidaritatea ere, talde partaidetza sentimenaren lehenengoetariko heldulekua izan zen. *Anaitasuna* aldizkarian sarri agertu ziren senitartekotasun hori azpimarratzen zuten artikuluak. Errate baterako, 1968an Galdakaon izan zen Euskal Jaiei buruz, artista eta entzuleak “erritar anaiak” zirela erraten zen; sentimen triste eta sufrimenduzko batean, berebean, bilduriko anaiartea: “samintasun triste baten biak batera [kantari eta entzuleriak] kantatzen eben «Erria dago negarrez»” (Angel Zelaieta, “Galdakanoko euskal jaia”, 1968, 171: 6). Elkartasun horren lagungarri, aldizkari berean, komunitatearen ezagutza laguntzeko atalak eta arituak txertatuz joan ziren, dela inguruko herrietako informazioa zekartenak bilduz, dela gero eta urrutiagoko euskaldunen informazioa ekarriaz¹⁶⁹.

¹⁶⁶ Sakrifizioaren eta militantziaren ideiek garrantzia handia hartu zuten, 60etatik aitzina. Hainbertze, non, birmoldatzeak aitzina egin ahala sendotuz zihoan kultur eremuak zailtasunak izan baitzituen militantzia eta sakrifizio nazionalaz bertzelako aritu eta helburuak garatzeko. Hau da, kultur eremuaren autonomia lortzeko.

¹⁶⁷ “Euskera barik, zertarako euskaldunak izateak?” (Imanol Berriatua, *Anaitasuna*, 1963, 102: 6).

¹⁶⁸ Horretarako behar nagusietariko bat goi mailako irakaskuntza euskaratu beharra zen: “Gure izkuntza goora-beera, gauza askotan gaude atzeratuak; baiñan irakaskintzari dagozkanetan, areago; eta goi-maillako irakaskintzari buruz, oraindio larrugorritan gaudela esango nuke” (Patxi Altuna, “Euskera Goi-Maillako irakaskintzan”, *Zeruko Argia*, 1966, 200: 9).

¹⁶⁹ Errana dugunez (139. oin-oharra), *Anaitasunako* atal desberdinetan, Bizkaiaz haratagoko euskaldunen errealtatea hurbiltzeko joera hartu zuten, pixkana: Bizkaiako herrietako berriak zekartzan “erriz erri” txokotik, Bizkaiko herrietatik Araba nahiz gainerako Euskal Herrira mugak zabaldu zituen “Ezagutu zure erria” eta IEH hurbiltzen zuen “Ipar aldetik bi berri” atalekin, kasu.

Azkenik, kanpoko eraso nagusi bati aitzina egiteko elkarteak¹⁷⁰ bulkatu zituen modu bateratuan jarduteko ekintzak eta ideiak. Hala sentitu izanaren agertoki nagusietarik bat aldizkariak izan ziren.

Aipaturiko hiru alderdi horiek, adibide desberdinetan ikusi gisa, euskal komunitate kidetasuna eta talde partaidetzaren oinarria, sentimendua, ezartzen lagundu zuten; sentimen hori landua zelarik, euskal komunitateak finkapena etorkizuneko proiektuan sostengatuko zuen sarea eraikitza jo zuen, tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez.

Hortaz, goiti erran gisa, behar epealdietarik lehenean, sentimenen inbertsio¹⁷¹ handia izan zen, eta, gisa berean, sentimenduak sortzea eta eragitea sarri izan zen kultur aritutik gehien balioetsitako aldea; adibidez, Jose Luis Bengoa Zubizarretak adierazi zuen, 1968ko Euskal Abestiaren IV. Jaialdia dela eta, musikaren balioa bera baino gehiago, hunkiberatasuna izan zela L. Iriondoren arituak izaniko baliorik handiena (“Easo Abestaldea ta Mari Lurdes Iriondo Bilbaon”, *ibid.*, 1968, 154: 11). Horretarako, urrunduriko euskal mundua eta ondarearen ezagutza desberdinak bihurtu ziren bulkada nagusi. Ikusi, bertzenaz, nola agertzen zen euskal herrien ezagutza, *Anaitasuna* aldizkarian –“Ezagutu zure erria” atalean–, maitasunaren oinarriaz haratago bulkatzaile gisa:

Aldizkari onetan gaur guk arazo barri bati eldu gura deusagu. Bizkaia oso maite dogu geure lurraldea dalako, baiña ba-dakigu erri bat maitatzeko nai ta naiezko bera ezagutzea dala lenengo. Ezautzatik maitatzera.

Ori dala-ta zenbaki bakotxean eri bat eta bertako barriak ekarriko deusueguz amabostero. (“Salatari” [Angel Zelaieta], “Bermeo”, *ibid.*, 1967, 143: 12, 10)

Halatan, talde partaidetzaren sentimena gune izanik –eta kultura nahiz hizkuntza partekatuak oinarri hartuta–, solidaritatea geroz eta nabariagoa zen. Gainera, etsai komun¹⁷² baten aitzinean –haren kontra, bateratuki– babesa bilatzen zuen komunitatea zen, ordukoa.

¹⁷⁰ Ikus 152. oin-oharra.

¹⁷¹ “Hizkuntza bat mintzo dutelarik gizonak herri bat osatzen dute, zeren eta hizkuntzak emaiten bidu herritasun giroa; herritar kontzientzia. Fenomenu hau ez dago lojikaz bakarrik begiratzerik. Askotan sentipen bat da; bibentzi bat.” (Agirre, “Hizkuntzaren gain”, “Gazte naiz” atala, 1967, 214: 7)

¹⁷² Espainiaren XIX. mendeko egoeraz ari dela, Álvarezek: “la existencia de enemigos comunes, y el surgimiento de una identidad colectiva tanto propia –impuesta por el enemigo– como de lo ‘ajeno’, tuvo que crear lazos de unión y coadyuvar al surgimiento de una identidad colectiva que pronto habría de llamarse nacional, como los especialistas en Edad Moderna han demostrado que ocurrió en otros casos europeos” (2001: 49).

Edozein gisatan, etsai komuna agerikoa zen arren, berez, komunitateak modu bateratuan hala sumatu izana da espresuki garrantzitsu. Kontu hau dela eta sobera luzatuko ez garen arren, etsaia euskal komunitateak modu bateratuan aurkari gisa identifikatu eta bizi izana munta handikoa izan zen; garrantzitsuena izaten baita, egiazki etsai horren izana eta existentzia bera baino gehiago, etsai hura nola sentitu den¹⁷³.

Eragile nagusi batek baldintzatu zuen solasgai dugun epealdi guziaren garapena: duintasunaren berreskuratzeak¹⁷⁴. Hau da, 1960-1975 bitartean, nazio gisa, aipaturiko komunitate ardatzak abian ziren arren –kultura, solidaritatea eta babesa–, izan zen kultur moldaketa, komunitatearen garapena eta aitzinatzea goitik beheitira eragin zituen baldintzatzaile nagusiagorik: duintasunaren berreskuratze kolektiboa; zehazkiago, kulturaren bidea jorratuko zituzten komunitate duintasunaren atzemateakb eta erabilera berriak.

Hori dela eta, komunitate duintasuna berreskuratzeari buruz arituko gara, ondoko paragrafoetan; komunitatearen lehen behar maila betetzeko beharrezko izan ziren puntu nagusiei buruz. Izan ere, maila horren gogobetetzeko abiapuntu izan ziren duintasunaren kontzientzia eta haren aldarrikapenak behartu zituen birmoldatze kulturala –hain zuzen, hirugarren kapituluaren ikusiko dugunez, birmoldatze instituzional-egituratzaile andana bilakatuko zirenak, 1975etik aitzina, bereziki–.

Ondoko paragrafoetan agertuko dugun gisa, hiru ardatz nagusiren baitan identifika liteke euskaldunen duintasun berreskuratzea: denboran, talde izanean eta sendotasunean. Ardatz horietarik bakoitzean biltzen dira partaideek, talde gisako garapen bateratuan, aitzinatu behar izan zituzten pausoak.

¹⁷³ Bertzeak bertze, Álvarezek Espainiako Independentzia Gerra dela eta erranak aski ongi biltzen du atzemate kolektiboaren garrantzia: “Cualesquiera que hubieran sido los verdaderos motivos que habían impulsado aquel conflicto, el hecho de que se recordase como una guerra de liberación contra el intento de dominación extranjero parecía dejar patente la existencia de la nación” (*ibid.*: 146).

¹⁷⁴ Duintasunaren berreskuratzeak duen garrantziaz, espainiar duintasuna dela eta, dio Álvarezek: “Por muchos que fueran los golpes recibidos por la autoimagen de los españoles en el difícil siglo XIX, el recuerdo de la Guerra de la Independencia serviría para mantener un mínimo nivel de dignidad colectiva. No por casualidad se convirtió el Dos de Mayo en fiesta nacional y se erigieron monumentos a los mártires de aquella sublevación, primer y principal símbolo público de significado político en el siglo, frente a las estatuas de los reyes, único legado de la era anterior” (*ibid.*: 144-145). Agerikoa denez, duintasunaren berreskuratzeak denboran aitzinago eraginen duten ondorioak sor ditzake; duintasunaren pizteak sorturiko sinboloen eragina edota sinbolo horiek beren etorkizunean proiektatuko duten duintasun sentimena.

Denbora

Komunitate senidetza lortzeko oinarritzko denbora erreferentzia iragana da. Iraganak antzinatasuna ematen baitio taldeari, eta haren birjabetzak aitzineko belaunaldienganako jarraitutasun sentimena eskaintzen.

Iraganaren eta orainaren arteko jarraitutasun horri erreferentzia egiten diote elkarren aski segidan agertu ziren *Anaitasunako* zenbaki bik. Batetik, 1969an kaleratu zen 173. zenbakian, iragarki modura aurkeztua: “«Azkue, dino Antonio Tovar-ek, errikotasun zentzu aparta bat eukan. Barren barrenerarte ezagutzen da. Lehenagoko gauzak ez dauz ikusten behin pasatutako zerbait legez, ezpabe ze bera be tarteko ta gerorako kate maila bat lez [...]»” (“Azkueren ‘cancionero popular vasco’ ”, 10. or.). Bertzetik, hilabete batzuen buruan, I. Sarasolak, literatur tradizioa hizpide duen artikulu batean, folkloreaken metatzetik haratagoko jarraitutasunaz ari zela: “Literatureaz mintzatzeko, tradizino bat behar da, hau da, kate etenbako bat, gizaldiz gizaldi. [...] Gure mendeko euskal idazleen eginbeharrik beharrezkoena, galdu dogun tradizino hareri jarraitzea da” (“Literatura tradizinoaz”, 176: 6).

Hizpide dugun kultur moldaketa garaian, aitzinez ondare metatzaileek gorderiko corpora erabili zuten, sarri¹⁷⁵; alabaina, corpora, metatu baino gehiago, harekiko katea bizitu egin zen, 60ko hamarkadatik aitzina; funtzional bihurtu.

Garai bateko denbora partekatuaren moldatzeak jarraitutasun sentimena kolektiboki lortzen laguntzen du. Ernest Renanek, 1882an, Sorbonan, erranikoek ederki islatzen dute komunitate batasunean iragan eta etorkizun bateratuak, nahiz aldi bakoitzeko sufrimendu bateratuek, lortzen duten atxikimenduaren intentsitatea:

More valuable by far than common customs posts and frontiers conforming to strategic ideas is the fact of sharing, in the past, a glorious heritage and regrets, and of having, in the future, [a shared]¹⁷⁶ programme to put into effect, or the fact of having suffered, enjoyed, and hoped together. These are the kinds of things that can be understood in spite of differences of race and language. I spoke just now of ‘having suffered together’ and, indeed, suffering in common unifies more than joy does. Where national memories are concerned, griefs are of more value than triumphs, for they impose duties, and require a common effort. (Renan 1882: 19, *in* Bhabha arg. 1990: 19)

Hala ere, iraganarekiko jarrera desberdina izan daiteke, komunitate birmoldatze bakoitzean. Hizpide dugun garaian, kasu, iragana errealitate kultural partekatu baten

¹⁷⁵ Ondareaz eta ondare antolatzaileen jardueraz arituko gara, 3.1.3. atalean; zehazki, komunitateko partaide talde desberdinen eta ondarearen arteko harremanetik abiatuta, corpusaren funtzionalitateez arituko gara.

¹⁷⁶ Homi Bhabha-ren liburuan hala ageri da.

bilaketan ardaztu zen, ohorezko gertakarien bilduma berreskuratzean baino gehiago; hau da, ez zen *golden age* direlakoen birjabetza gailendu, batasun kulturalaren kontzientziarena baizik: senidetza sentimena eta batasun partekatua aditzera ematen zituen iragan kultural komuna berreskuratu nahi ziren. Hori dela eta, iraganaren eta orainaren arteko erlazioa eta, bereziki, iraganaren –nahiz iragan horren helduleku zatekeen ondarearen– ezagutza ezinbertzekotzat agertu zen. J.M. Barandiaranek, adibidez, antzinako euskal gizonari buruz, zera zioen: haren, bere munduaren, ezagutzarik edo bertatiko garapenik gabe ezin zitekeela izan ez euskal kulturarik, ezta Euskal Herririk ere (“Lehen euskal gizona”, *Anaitasuna*, 1972, 237: 1).

Baina iragan hori ez mitifikatzea eta ezagutza horren izana zehaztea aldarrikatzen zuten ahotsak ere agertu ziren:

Ezin daiteke geroaz zuzen iharduki, baldin kondairaren determinatze osoaz ez bagara jabetzen. Geure historiaz zinezko ikuspegi horrek zientifiko izan beharko du: hau da, errealitate iragana bere hartan jaso beharko du. Materia, materia bezala, eta izpiritua materia bortxatua bezala. (“Holtz” sindaurapean¹⁷⁷, “Deserrotuak”, *ibid.*, 1972, 234: 11)

Zernahi gisaz, iraganeko eta orainaldiko sufrimendu parekatu eta bateratuek ezinbertzean lortu zuten, Renanek zioenaren haritik, komunitate partaideen arteko batasuna. Gaietan adituek, preseski, aldien eta komunitate partaideen artean sortzen diren lotura horiez, argudiatu izan dute iragan historiko partekatuak eta etorkizuneko proiektu partekatuak¹⁷⁸ komunitateko kideen arteko lokarria sendotzen dutela (Guibernau 1996: 76).

Batetik, iragan berreskuratua indarra komunitateak emaniko funtzioan izan zen, batez ere. Bertzeak bertze, euskal komunitatearen iraganeko errealitatea eta errealitate hori islatzen edo gordetzen zuen ondarearen ezagutza, euskaltasuna, sumatu ziren Euskal Herria eta euskal kultura aitzinatzeke ezinbertzeko pauso gisa. Oroitu, adibidez, Barandiaranek lehen euskal gizona eta bere mundua ezagutzea euskal herri bat –eta bere baitako eremu desberdinak– eraiki eta garatzeko ezinbertzeko ezagutza gisa aldarrikatu zuela, eta euskara¹⁷⁹ bera atzeman zela antzinako bizimoduaren gordeleku gisa: “Gure euskerak ba-ditu amaika berba gure antziñeko istori aurretiko bizitza

¹⁷⁷ Egileen izena edo ezizena ote den zalantza izan dugunean, “ ‘XXX’ sinadurapean” zehaztu dugu, badaezpada.

¹⁷⁸ Proiektu zehatza partekatua izan ez arren, tesiaren hirugarren kapituluaren ikusiko dugu 1975etik aitzinako prozesuak proiektzioaren ideia partekatu izanak bereziko garrantzia izan zuela.

¹⁷⁹ Gainera, alderdi mitiko, ezezagun eta berezia jatorriaren ezagutza ezak bulkatu zuen, 60ko hamarkadaren hasieran: “Euskera, izkuntza izkutua” goiburukoan islatu gisa (Sebastian Belaustegi, “Euskalherri, Europaren oinarririk”, *Anaitasuna*, 1965, 122: 3-4).

adierazten deuskuezanak” (Sebastian Belaustegi, “Euskalerra, Europaren oiñarri”, *Anaitasuna*, 1965, 122: 3). Hala, bada, iraganeko ondarearen ezagutza oinarrizko pauso izan zen herriarekiko maitasuna¹⁸⁰ –atxikitzea– garatu, eta euskal gizartearen eremu desberdinak “euskaltasunean” garatzeko¹⁸¹.

Lehen alderdi horri dagokionez, ordea, estatuaren eta nazioaren arteko harremanak guziz baldintzatu zuen iragana ikusi, berrikusi eta etorkizunean baliotu ahal izateko hausnarketa bidea. Beldurraren eragina hagitz eraginkorra izana zen, denbora luzean zehar:

Orain dela hogeita hamazazpi, hogeita hamar, hogeita bost urte, beldurrez izututa omen zegoen euskara, eta euskararekin batera euskaldunak. [...]

Garai hartan gudu garaileen legea zen lege. Eta horrek erabakia zuen nonbait, euskara subertsiboa zela, eta debekatu ere egin zuen. [...]

[...] Euskara maitatzen eta erabiltzen zutenentzat, diskriminazioa eta bereizkeria zen lege gizartean. (Paulo Agirrebaltzategi, “Ez dago euskara ikasi beharrik!”, *ibid.*, 1975, 307: 1)¹⁸²

Beraz, kontzientziatzearen agerpena zentsura eta errepresio egoerak zanpatua izaki, ez zen aisa azaleratzen iragan horren alderdi zenbait. Hala ematen zuen aditzera “Bat” delako harpidedunaren eta *Anaitasunaren* artean sortu zen elkarrizketak:

Azkeneko bi numeroek mindu egin naute [...] Euskal Herriak 36.etik honera mementorik garratzenak bizi izan ditu. Nik bezala dakizue zuek. Periodikorik gehienetan honetaz zerbait hitz egin izan da. Berriak, nola edo hala, eman izan zaizkigu. Eta ANAITASUNA-k ez du gure berrien berririk eman. Zergatik ez? Beldurra duzuelako? Periodismo teknikarik eza? Ala abertzaletasunaren hotza?

Zuen lege berdinen pean izango da, noski, ZERUKO ARGIA ere. Baina, halaz eta guztiz ere, astekari honek bere obligazioa, zuek ez bezala, bete du.

Euskal abertzaleok periodiko sendoak eta profesionalak behar ditugu. (Izenbururik gabe, 1971, 203: 4)

Aldizkariak hala erantzun zion “Zuzendaritzaren oharra”n: “Legearen aurrean, gure zeregina «Información y divulgación religiosa» da. Eta hori, oraingo Zuzendaritzak hamabosteroko honen kargua hartu aurretik” (*loc. cit.*).

Bertzetik, aldiz, etorkizuneko proiektu komunari dagokionez –hirugarren kapituluan ikusiko dugunez–, EKSren garapena erdiz erdi baldintzatu zuen etorkizun bateratuaren proiektuak. Hala, bada, iragan denboraren berreskuratzea funtsezko izan

¹⁸⁰ “Gaztedia Jakintzaren Aurrean” (Karmen Ibarra, *ibid.*, 1967, 146: 8).

¹⁸¹ Paulo VI.aren hitzak biltzen zituen “Errien aurrerakuntza. Populorum progressio” idatzian (*ibid.*, 1967, 148: 1), olerki bat txertatzen zen, non, ondarearen antzintasuna euskarak sendotzen zuela ematen zen aditzera.

¹⁸² Artikulu berean: “Garai hartan, garaileen «kristau» hizkuntza erdara zen. Eta kristaua izan beharrik ez zeukan euskara maitatu, bizi eta landu nahi zutenek, alde egin behar izan zuten, edo ezkutatu, edo beldurrez nolabait eutsi beren hizkuntzari” (1. or.).

arren, espresuki garrantzitsuak izan ziren sufrimendu komunaren kontzientzia eta oinaze horretatik abiatutako proiektua. Iraganaren garrantziaz haratago, etorkizuneko proiektu komunaren nahiari eta, bereziki, haren gauzapenerako sakrifizio eta saio indibidual zein kolektiboei eskerrak lortu baitzen euskal kulturaren erakundetzea. Kulturaren erakundetze pausok –haren aldarrikapenek– etorkizuneko begirada aldatua zela erakutsiko digute: euskal komunitatea biziraupen hutsean bizitzeaz gaindi, munduan toki propioa zuen herri gisa sumatzen hasi baitzen. Testuinguru horretan, garaiko aldizkarietan, munduan zeharreko eraginak beretu nahia azalera zuten hainbat idazlek¹⁸³, eta, beranduago, literatur eremuko abangoardia nagusiek.

Denbora erreferentziak, beraz, garrantzia handia izan zuen euskal komunitateak abiatu zuen duintze prozesuan; garrantzia hori, ordea, iraganaz gain, etorkizunerako begiradak ere baldintzatua zen. Erran nahi baita iragan bateratuaren kontzientziak etorkizuneko proiektuendako baliagarri eta ez-mugatzaile zen neurrian zuela baliorik handiena.

Talde izana

Aro Ilunean zehar eragin gibelatzaile desberdinak izan ziren. Batetik, Gerra aitzineko nahiz ondoko egoerari eragin zion ideologia –lanean zehar “*ikuspegi zaharra”¹⁸⁴ delakoaren baitan bildua–, adibidez, eragin kamusarazlea izan zuen, euskal komunitatearengan. Kamuste horren erakusgarria da ideologia horrek Gerra ondoko euskal literaturari lagundu ez izana Aro Iluneko egoera gaitzari aitzina egiten:

gerra galtzarekin batean, eratzen ari zen mugimendu kulturala desegina gertatu zen. Honekin euskal literatura bera deseginik eta husturik geratzen da [...] ideologia hark [guk ikuspegi zaharraren baitan bildu duguna, eta Sarasolak S. Aranaren ideologiarekin identifikatua] bakarrik betetzen eta gauzatzen baitzuen hura. Fenomenoak bi alde izan zuen. Alde batetik, giroa aski okertua eta gaiztotuta zegoen lan koherente bat egiteko. Bestetik, idazle asko galdu eta hondatu zen, eta geratu ziren urriak gertakariak ahuldurik aurkitzen ziren, egoera berriak eskatzen zuen planteamoldeak egiteko gauza ez zirelarik. Haien gogo guztia gerra aurreko egoerara nolabait birritzultzea zen. [...] Ez zen aktitate hau aurrerabide bat aurkitzeko egokiena. Honetarako, gerra aurrea bizi izan ez zuen jenerazioa heldu arte itxadon behar izanen da. Bitartean, euskal literaturak iraganaren imitazioan oinarritzen den bizitze ilun eta apal bat ezagutuko du. (Sarasola 1971: 69)

¹⁸³ Rikardo Arregi eta Joxe Azurmendiren artikuluek nazioarteko gaiak hurbiltzen eginiko ekarpena aski ezaguna da, eta, literaturari dagokionez ere, batean eta bestean literatura mundutiarraren ezagutza gabezia ere agerrarazia izan zen; adibidez: “Egun batean guztiok hippi izan gaitezke” (Joanes Zuhatsuko, *Anaitasuna*, 1971, 203: 7).

¹⁸⁴ Ikus A eranskinetako “Ikuspegi zaharra vs ikuspegi berria” sarrera.

Gainera –noski, Aro Ilunaren eragin ukatzailearen ondorioz–, indar bikoitzez agertu zen duintasun partekatuaren beharra. Premia horren baitan, esentziari buruzkoa izan zen nazioei berezkoa zaien galdera nagusia: “euskaltasuna”, “jatortasuna” eta “berezko izana” ziren auzian. Alegia: “what constitutes the nation, indeed of the composition of the nation’s population, raising questions of ‘who we are’ and of ‘our place’ in the world” (Smith 2009: 34).

Esentzia horren aurkitzeaz haratago, gainera, kultur aritu eta maila desberdinetan agertu beharrekoa zen, “euskal aritu” izango bazen. Jaiei zegokienean, adibidez, *Anaitasuna* aldizkariko “erriz erri” atalean, Undurraga eta Ipiñaburu auzoetako San Pedro eta Santiagoez: “Jaialdi bi oneik, euskal usaiñean prestau dabez bertako gazteak. [...] Jenteak –zaar eta gazteak– benetan be, bere beretzat artu ditu jai oneik” (Zeanuriri buruzko txokoa, 1968, 166: 2). Horretaz gain, hezkuntzan bertan ere sumatu zen derrigorrezko euskaltasun horren presentzia; hezkuntza sarea osatuz joan ahala, irakasleen prestakuntza bideratu nahi izan zen, espresuki, “euskaltasun” horren prestaketara. Horretarako behar litzatekeen heziketa bereziaren premia idatzi desberdinetan agertu zen, “Andereñoak mito?” artikuluan (*ibid.*, 1970, 187: 6) erran gisa. Aski jakina denez, garai hartan modernitatearen kontrako jarrera identifikatu oi zen, euskaltasunaren gordeleku gisa. Estitxu kantariari buruz, hondarreko ikuspegiaz: “euskaltasuna ta aspaldikeria gauza bakar bat zala iruditzen jaken, zoritxarrez, gure arteko askori” zioen (“Larresoro” [Jose Luis Álvarez Enparantza], “Eskerrik asko, Estitxu!”), *ibid.*, 1968, 166: 3, *Zeruko Argiatik* bizkaieratua).

Hala, bada, aurkitu, ulertu eta garai berrietara egokitu beharra izan zen; hots, nazio izanaren bilaketak hiru prozesu kasik sinkroniko gauzatu beharra ekarri zuen: xerkatu, beretu, eta egoera berrietarako gaitu.

Bilaketa horren erakusgarri dira 60etan zehar argitaraturiko aldizkarietan ageri diren sariketa kopurua eta, bereziki, beren izana. 60ko hamarkadaren lehen erdian gailendu ziren txapelketa eta sariketek euskaltasunaren bilaketa nahiz sustatzea lagundu zuten; hura izan zen euskal dantza, abesti, kanta... zeinahi “euskal” ariturako txapelketen edo saritzeen garai nagusia. Sariketak –eta txistulari, musikari, abeslari, dantzari eta abarren inguruan antolatutako ekimenak, eskuarki– euskal nortasuna zatekeenaren erakustaldiak ziren. Hots, “euskaltasun” erakustaldiak bulkatu eta saritzeko guneak ziren txapelketak.

Bertzeak bertze, Euskal Abestiaren Sariketak¹⁸⁵, dantza txapelketak (Sebastian Angoitia, “Zabaletako euskal dantzazko txapelketa”, *ibid.*, 1967-10, 151. zk.) eta abarrek “euskal” horren baitako esentzia mantentzen zuen abestia, dantza edo aritua bilatu eta agerraraztea zuten helburu. Urteek aitzina egin ahala, ordea, “euskal” esentzia horren izana, nahiz izanera horren isla behar lukeen kultur aritu oro, zalantzan jarri ziren, oinarrizko planteamendu beretik hasita.

Euskarari dagokionez, erraterako, hizkuntzaren egiazko balioa berriz baliotu beharra agertzen da, Rikardo Arregiren hitzotan:

Gizongintzan, gure gizartearen gizonagotzean burrukan gabiltzanontzat bakarrik eduki leike benetako sentidu bat euskereak. Ez da izkuntza zaarra dalako, ohea edo okerragoa dalako, izkutzalarientzat interes aundia daukolako, beste gauza bategaitik baiño: gizon konketuak gareanez, gareana aaztu ezin daikegulako, gure gizatasuna aaztu ezin daikegulako. (“Debaldeko gauzak”, *ibid.*, 1968, 157: 6)

Nahiz eta sarri jotzen den arrazoiak haraindiko argudioetara, Arregiren beraren hitzotan agertu gisa: “Euskerea, debaldeko gauzea da. Orrexegaitik gagoz beraren alde. Beste mailla baten aztertzen dogulako, eta ez diruaren eta merkatuaren maillan” (*loc. cit.*).

1960-1975 bitarteko moldaketan izan zen iraganarekiko erlazioari erreparatuz, zeraz ohartu gara: goiti erran gisa, ez zela gertakari handien bilaketa gune izan, eta ez zela jatorri noble eta nazio bikaintasuna baieztatu nahi ere –modu hagitz nabarian, bederen–. Kontrara, arestian erranari jarraiki, garai komun partekatuaren kontzientzia piztuko zuen corpusa zen iraganetik berreskuratua: arbasoen existentzia oroitu, eta, jakite horren baitan –hainbat kasutan, kontzientziaren lekuko–, egoera gatazkatsuak gogoratzen zituena. Eguneratze horretan, ordea, taldearen egiazkotasuna “deskubritzea” pauso nagusietarik bat izan zen.

Zernahi gisaz, nazioaren muina aurkitu nahia ziklikoki gertatu ohi den prozesua izan ohi da. Gurean, urrutira gabe, gai bertsuak izan zituen, oinarrian, XIX. mendearen hasierako euskal berpizkundeak; are gehiago, arakatze berrien jomuga izan zen euskal nortasunaren izana biltzen zituzten elementuen, ideien eta irudien bilduma, 1960-1975 bitarteko epean.

¹⁸⁵ *Anaitasuna* aldizkarian, Euskal Abesti Sariketaren deialdiak agertu ziren: III. Sariketa (sariketako antolatzaileak, “Aurrera doa Euskal Abestiaren Irugarren Sariketa”, 1967, 143: 11; “Kantale” sinadurapean, “Euskal Abestiaren Irugarren Sariketa: «Txoria kaiolan» abestiaren egilleagaz”, 1967, 146: 11), IV. Jaialdia (egile ezezaguna, 1968, 154: 10), haurrendako euskal abestiaren txapelketa (Kakel Aramendi, “erriz erri” atalean, Ibarri buruzko txokoan, 1968, 169: 2), eta abar.

Hortaz, euskal identitatearen funts bilaketa bera baino gehiago, bi bilaketa prozesu horietan miatu eta hautetsi edota baztertu nahiz birmoldatu ziren elementuak dira adierazgarrien¹⁸⁶. Alderatze horrek emanen liguke euskal identitatea egoera eta belaunaldi nagusi berrietara moldatu beharrak izan zituen alderdi biri buruzko informazio: zein izan ziren espresuki balioturiko baliabideak eta hala zergatik izan zen hausnartzeko aukera.

Tesian, ordea, ezin hain alderatze zabalik burutu; zernahi gisaz, lanaren hirugarren kapituluan izanen dugu hizpide mendearen hasierako moldatze saioa: saio horrek erakutsiko digu aztergai dugun epearen guneak identifikatzeko eta alderatze nagusia egiteko bidea (6.1.1.-6.1.4.).

Talde izanari buruz erranak bilduz, garaiko aldizkariak 1960-1975 bitartean gailendu zen duintasun kolektiboaren bilaketa agertu zutela ikusi dugu. Iragan garaian goraiatze itsuaz haratago, “euskaltasunaren” izana aurkitzeko kultur ekimenak izan ziren; sariketa eta txapelketa ugariekin izaera bilaketaz gain, agerpena bera saritu eta laudatzen ziren. Gisa horretan, talde izana komunitate partaidetza kolektiboarengandik abiatua izan zen.

Sendotasuna

Euskarri baten laguntzak ziurtasuna ematen dio komunitate orori. Euskarri guziak, ordea, ez dira segurtasun bera emateko gauza izaten; ez, bederen, mota bereko segurtasunik emateko gai. 60-70etako hamarkadetan, euskal duintasuna berreskuratzen lagundu zuen corpora anitza izanagatik, bada, corpus horren baitan, goiti aipaturiko “denbora” eta “talde izana” gotortzeko balio izan zuen alderdirik. Corpusaren atal horrek komunitate duintasuna berreskuratu ahal izateko bi zutabeak –denbora erreferentzia eta taldearen izana– sendotzeko potentzial handia zuen: AOK-k¹⁸⁷, preseski.

AOK aldakortasun handiko corpora izan arren, beharren eta testuinguruaren arabera, haren existentziak eta harekiko hurbiltze bateratuak euskarri gisa funtziona

¹⁸⁶ Etno-sinbolismoa egokia da komunitatearen eta iraganaren arteko harreman horiek aztertzeko: “Whether in the form of reappropriation, continuity or recurrence, the relationship of the ethnic past or pasts to the national present is central to the concerns of ethno-symbolism. That is why historical analysis over the *longue durée* is indispensable to investigation into the characteristics, formation and persistence of nations and nationalism, and why the modernist insistence on a single modern period for study appears unduly restrictive and arbitrary” (Smith 2009: 39).

¹⁸⁷ Ikus, AOKren baitako bertsolaritzak garaiarekiko zuen egokitasunaz, Bernardo Atxagak [Joseba Irazu], 1972an, argitaraturiko “Bertsolaritzaz pentsatzen” artikulua (*Anaitasuna*, 234: 16).

dezake, komunitateen baitan; izan ere, izaera anitz horrek berak ematen dion malgutasuna da ondare hori komunitateendako hagitz erabilgarri egiten duena; are gehiago, malgutasun horrek berak bihurtzen du AOK jarraitutasunean mantentzeko gauza.

1960-1975 bitartean berreskuratu zen corpusaren barrenean, AOK-k funtzio garrantzitsua izan zuen: hagitz aldakorra izan, eta erreferentzia bertsuaren oroitze desberdinak agertu arren, Aro Ilunetik gibelesko errealitate partekatua erakusle izan zitekeen. Atzendua, urrutikoa eta arrotua izanik ere, corpus horrekiko alienatua zen komunitateak hamarkadetan zehar ukatua izaniko batasunaren gordailu gisa atzeman zuen.

Bertsolariak –hain zuzen, AOK horren baitako aritua sortzen zutelakotz– komunitatearen etno-historiaren lekuko eta agerle gisakoak ziren. Abel Enbeitak hala zioen, bertsolariei buruz:

Euskalerriak, sortzetik, erri bat danez, gorabeera batzuk izan dauz. Gorabeera orreekaz batera bertsolaria dator. Bere munduko, Euskalerriko, sorkunde aretako problemak abestiz diñotsaz erriari. Aintxiña, atzo ta gaur auxe izan da bertsolariaren lana: momentuko, abestuten ari dan sasoiko gorabeerak erriari esatea. (“Bertsolariak atara ala itto?”, *ibid.*, 1968-02-15, 155. zk.)

AOKren izanak bazuen, gainera, duintasuna berreskuratzeko aproposa zen bertze alde bat: lilura sorrarazteko ahalmena. Urrutiko historia edo istorioek, hotsek, soinuek eta hitzek irudikatu zuten, euskal komunitatearengan, ezkutuko euskal izanaren dimentsio partekatua. Ildo beretik, euskalkietan sumatzen zen aniztasunaz, Juan Gorostidik erran gisa: “Gure tradizioak zabala eta zaharra behar zuen izan derrigor, zeren barietate handikoa sumatzen genuen belarrietan eta, zentzu horretan, ulertzeko zailtasunak gehigarri bat ematen zion altxorrari” (2011: 45). Hitzotan, komunitatearen jarrera aldaketa sumatzen da; ondarearekiko jarrera positiboa eta, haren ondorioz, komunitateko partaideek lortu zuten duintasun sentimena. Batetik, jarrera aldaketak ondare horrekiko distantzia murrizteko aukera zabaltzen zuen; bertzetik, pertsona bakoitzaren hautematea bere nazioarekiko estimuari lotua dela azaldu dugu, arestian. Egin kontu: “«si una cultura no es objeto de un respeto generalizado, entonces la dignidad y la autoestima de sus miembros se verán también amenazadas»” (Margalit eta Raz 1990: 447-449, *in* Guibernau 2009 [2007]: 254).

Sendotasuna lortzeko bide nagusietarikoa euskara batuaren garatze, lantze eta onartze saio nagusia izan zen. Komunitate sendotasuna, ez soilik presentean lortzeko, etorkizunean bermatzeko indarra izan zen euskara batua: hizkuntzaren ikaste eta batasun

eratze saioek jendartearen elkartasuna nahiz elkarrekintza helburu nagusi baten inguruan biltzeaz gain, euskara zen, etorkizunean, komunitateko kideek helduleku gisa erabili ahalko zuten erreferentzia.

Euskara euskaldunon duintasunaren kontrako indarren jomuga nagusietarik bat izana zen, eta horrek, bidenabar bederen, lagundu egin zuen euskara etsai komunaren kontrako jomugatzat agerrarazten. Paulo Agirrebaltzategik hiru ideiatan ardaztu zuen euskararen duintasun galera, 1975/11/15 dekretua dela eta idatziriko artikuluan batean (“Ez dago euskara ikasi beharrik!”, *Anaitasuna*, 1975, 307: 1, 16): eskoletan gaztelaniaz egitera behartuak izateak eskolaren eta etxearen artean sortzen zuen banaketa, garaileen legeak euskararekin zerikusia zuen edozeri ezarri zion debekua eta baserritar ez-eskolatuen “dialekto” irringarri gisa sumarazi izana. Hiru atal horien garaipenak, euskararen duintasuna lortzeaz haratago, ahalbidetu zituen norbanakoaren nahiz talde identitatearen indartze sakona.

Halatan, hizkuntzaren berreskuratzeak, indartzeak eta etorkizunerako gaitzeak berezibiko indar kolektiboa eman zioten duintasunari. AOKren baitako ondareak jarraitutasunaren sentimena areagotu, eta sendotasuna biderkatu egin zuen, euskaldunengan.

Horrek guziak zentro baten –iragan katalizatzailea– abstrakzioa egituratu zuen, komunitatearengan: komunitate gisako batasuna eta haren irudikatzea. Tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, abstrakzio maila hori komunitate ordezkari-tza bereizi batean egikaritu zen: *gune sinboliko¹⁸⁸ izendatu dugun ordezkari-tzan (5.2.)¹⁸⁹.

2.2.2. atalean, euskal komunitatearen duintasuna kolektiboki barneratua izateko zutabeak izan ditugu solasgai: denbora, talde izana eta sendotasuna. Horien bermea hagitz garrantzitsua izan bazen ere, identitate nazionalaren beretzea bera izan zen duintasun iturri nagusia, euskaldunendako; klase, genero, lorpen, estatus edota adinaren araberako bereizketarik gabeko duintasuna eskaintzen baitu, printzipioz, nazioarekin bat etortzeak:

Al identificarse con la nación, las vidas finitas de las personas son trascendidas y la nación llega a ser venerada como una entidad superior. Una de las características más singulares de la identidad nacional es su capacidad para superar las divisiones de clase y fortalecer un sentimiento de

¹⁸⁸ Ikus A eranskinen “Guneak: komunitatearen ordezkari-tza guneak” sarrera.

¹⁸⁹ Bortzgarren atalean azalduko dugu gune sinbolikoa eta gune mugatua izan zirela ordezkari-tza modu nagusiak (5.2.1.), eta horietariko bakoitzak erakundetze prozesu berezitua (5.2.2.), gunearen izanari egokitua, jasan zuela.

pertenencia a un tipo artificial de familia extensa, es decir, la nación. (Guibernau 2009 [2007]: 253)

Halatan, iraganeko denbora, talde izana eta sendotasuna komunitate indarra lortu, eta haren bidezko duintasuna garatzeko ezinbertzeko abiapuntu izan ziren; baina duintasun iturri garrantzitsua izan zen, hagitx, horiek irmoturiko identifikatze nazionalaren sentimena bera.

Duintasun oinarritzko horren lorpenak arrunt aldatu zuen euskal komunitatearen autokontzepzio kolektiboa: orainaldian aitzina egiteaz gain, etorkizunerako gaitzen zuen komunitatea. Hau da, aldaketa horrek berebiziko garrantzia izan zuen, bai 1960-1975 bitarteko fasean, noski, baina baita 1975etikoa ere; hondarrekoan garatu zen ondarearen eta komunitatearen arteko harremanak ezinbertzeko bulkada izan zuen lehen fasean abiatutako duintzea. Are gehiago, tesiaren hirugarren atalean ikusiko denez, berebiziko garrantzia du, zeinahi komunitateren eta ondarearen arteko harremana aztertzeko, proposatzen ditugun ideietan sakontzeak; zehazki, espresuki erabilgarria da duintasun oinarritzkoaren eskuratzeak autokontzepzio kolektiboarengan duen eragina ikertzea (6.1.3.). Euskal komunitatearen kasuan, 1960-1975 bitartean berreskuraturiko duintasunak ahalbidetu zuen 1975etik aitzinako autokontzepzio kolektibo berria.

Krisi Orokorrak euskal komunitatearen baitan izan zuen izaera berezituari behatu ondotik (2.2.1.), izaera berezitu horretan gune izaniko alderdiari erreparatu diogu, 2.2. atalean: komunitatearen duintasun maila oinarritzkoenari. Horretarako, Montserrat Guibernauk estatuen eta komunitate azpiratuen arteko harremanean sumatu dituen erresistentzia kultural moduei buruz aritu ondotik, duintasun oinarritzkoaren premiak ekarri zituen aldaketa nagusiei buruz aritu gara.

Edozein gisatan, denbora erreferenteak, talde izanak eta sendotasunak 1960-1975 bitarteko komunitate garapena bideratu arren, hiru zutabe horien erabilera izan zen euskal komunitatea garai berrietarako gaitu zuena. Hirugarren kapituluaz azalduko dugunez, zutabe horien erabilera zehatzak ahalbidetu zuen komunitateak, 1975etik aitzinako testuinguru berrian, garatu zuen birgaitze funtzionala.

Bigarren faseak zekartzan premia berriek, lehen fasean doituriko komunitate sentimena abiapuntu izan zuten arren, helburu desberdinak bulkatuak ziren. Hori dela eta, tesiko kapitulu bakoitzean landu ditugun faseei egokitu dizkiegu oinarri teorikoak. Bigarren kapituluaz, hizpide izan ditugu estatuen eta komunitatearen arteko harremana

hagitz desorekatua den egoeretako erresistentzia kulturalak eta duintasunaren berreskuratze prozesuak; aldiz, hirugarren kapituluan, espresuki erreparatuko diegu, duintzearen hurrengo fasean, komunitatearen identitate nazionalan, zehazki, garaturiko aldeei: komunitateko *kontrol egituren¹⁹⁰ eta gune desberdinen garapen bereiziari (5.2.).

Beraz, bigarren atalean, testuinguru eta prozesu zabalek euskal komunitatearen birmoldatze sakona abiarazi zutela azaldu nahi izan dugu. Edozein gisatan, egia da zabaltasun horrek, bere horretan, ez duela prozesuak izan zuen sakontasuna sobera agertzen; eginiko laburpenaren balioa erreferente eta aztergai zehatzak lantzeko baliagarritasunean datza. Kontrara ere, aunitzez balio gutiago luke euskal komunitatearen azterketari, bai, baina gertaera zabalagoei erreferentzia egiten ez dien azterketak.

Hori dela eta, ikerketa testuinguru nagusiari erreparatuz abiatu dugu, eta, segidan den hirugarren atalean, xehekiago behatuko diogu euskal ondare kulturalak –duintasun oinarritzkoaren berreskuratze prozesuaren baitan– 1960-1975 bitartean jasaniko moldaketari.

¹⁹⁰ Ikus A eranskineko “Kontrol egiturak: parametro zehatzen bermea lortzen duten botere egiturak” sarrera.

3. EUSKAL ONDARE KULTURALAREN MOLDATZE OINARRIZKOA (1960-1975)

the analysis of culture has nothing to do with the formulation of laws and predictions, let alone with the construction of grand evolutionary schemes; it is more like interpreting a literary text than observing some empirical regularity. The analyst is seeking to make sense of actions and expressions, to specify the meaning they have for the actors whose actions they are, and, in so doing, to venture some suggestions, some contestable considerations, about the society on which these actions and expressions are part.

(Thompson 1990: 131-132)

Aunitz dira aitzineko atalaren eta honen arteko loturak. Batetik, duintasuna berreskuratzearen eskutik helduriko birmoldatze kulturala bera; arestian erranak bilduz, Krisi Orokorraren ondorioz hasi zen identitate nazionalaren ongizaterako ezinbertzeko bilaketa: duintasunarena. Ekite horrek eragin nabaria izan zuen euskal ondarean, eta, segidan ikusiko dugunez, kultur ondare atzendu edo gibelatuaren berreskuratzea jarduera nagusi izan zen, 1960-1975 bitarteko euskal komunitatean. Bertzetik, hirugarren atal honen gibeiko ideia nagusia guziz lotzen zaio bigarrenari; “community of culture” eta “unity of meaning” direlakoak identitate nazionalaren eraikuntza eta esperientzia garatzeko ezinbertzeko alderditzat aurkeztu baditugu ere, orain arituko gara, egiazki, bi alderdi horiek euskal prozesuan izan zuten izanaz: euskal ondare kultural metatuaren birmoldatzea hizpide dugularik, euskal komunitatearen izanaz eta taldearen erranahi batasunerako prozesu kultural nagusiaz arituko gara.

Hortaz, bigarren atalean nazio identitatearen lehen mailako beharrez eta horietariko ekintza nagusien nolakotasunaz aritu ondotik, fokua –geroz eta nabarmenago– euskal prozesuan jarri, eta xeheki erreparatuko diogu alde kulturalari.

Birmoldatze kulturala bere osotasunean ulertzeko, ordea, hainbat kontu nagusi aztertu behar. Lehenik, prozesuaz beraz arituko gara, berrirakurtze saioaz: 60etan abiatua, euskal komunitateak bizirik egoera berri-berria ote zen aztertuko dugu; gisa horretan, bertzelako saiorik izan bazen, balizko aldagai errepikatuak hausnartu ahal izanen ditugu (3.1.1.). Ondotik, fokua espresuki hizpide den garaian jarriaz, 1960-1975 bitartean birmoldaturiko corpusari erreparatuko diogu. Hau da, zer eta nola moldatu zenaz haratago, corpusak 60-70ekiko zuen egokitasuna behatuko dugu (3.1.2.). Gainera, kultur berpizkundeetan nagusi diren baliabide sinbolikoak eta, zehazki, euskal corpusaren izaera arakatuko ditugu; hain zuzen ere, funtzionalitate zaharberritua

(3.1.3.). Hala, pixkana, corpusaren eta funtzionalitatearen egokitze prozesua zehaztu ahal izateko behar adina datu bilduko dugu: komunitateko kideen jarrera hasiberriaren eta erabilitako baliabideen indarrari buruz aritzeaz gain, horien harremanak sortu zuen atzemate berria ere ikertuko dugu (3.1.4.).

Gisa horretan, zehaztasunetik xehetasunetara jotzen duen bidea eratu dugu: 1960-1975 bitarteko berrinterpretazio kulturalaren izaera testuinguruarekin erlazioan jarri, corpusak eskuraturiko funtzionalitate berrietara jo, eta corpusaren nahiz funtzionalitate berrizatuaren moldaketako eragile nagusiei buruz arituko gara. Hala, bada, gero eta errealitate konkretuagora hurbildu, baina, gisa berean, euskal identitatearen moldaketan parte hartu zuten alde kulturei erreparatu.

Akitzeko, prozesu horretan eragile nagusi izan ziren komunitate partaideei erreparatu diegu; ondarearen eta komunitatearen arteko harreman berriztatua bideratu, moldatu edota eraberritu zuten kideei (3.2.).

3.1. Kultur ondarearen birmoldatze funtzionala

Euskal kulturaren birmoldatzea arrunt lotua izan zen aipaturiko komunitate duintasunari; egiak, herri gisa bereganaturiko iragan eta senidetza partekatuak lagundu zuten ongizate pertsonal nahiz taldekoa lortzen. Ondoko ataletan, iraganetik berreskuraturiko ondareari erreparatuko diogu; preseski, birjabetza horren muinari eta horien izanari. Izan ere, 1960-1975 bitarteko euskal ekimenek iraganeko ondare kulturala hurbiltzea eta haren eguneratzea izan zituzten ekintza nagusi.

Ondare kultural horretatik, garrantzia handia izan zuen corpusa hautatu dugu, ikergai: AOK. Corpus horren hiru alde lagunduko digute euskal kulturaren garapen garaikiderako zimenduak agertzen; AOK-k ziklikoki izaniko presentziak, corpus horren funtzionalitate desberdinen garapenak eta 60-70etan izaniko egokitzapenak azaltzen dituzte EKS garaikidearen oinarriak.

Iraganetik berreskuraturiko ondare horretan, ordea, hagitx garapen desberdina jasan zuten multzoak sumatu ditugu; AOK-ko hainbat elementu eta bat-bateko bertsolaritzak izanikoak, hain justu. Alde horren balioari ere erreparatuko diogu; adibide zehatzen erabilgarritasunaz haratago, garaiko kultur moldatze nagusiaren izana zehaztu eta ulertzeko baliagarria izan baita. Ikusiko denez, kultur birmoldatzearen baitan, kezka beren jasaile izan ziren biak.

Beraz, AOK aztergai izatearen arrazoi nagusia prozesu nagusiaren muina agerrarazten lagundu izana da; erran nahi baita AOKren berreskuratzeak ekarri zituen aldaketa, moldatze, eztabaidatze eta abarrek islatzen dutela komunitateak oinarritzko beharren asebetetzeko egin zituen aldaketak; ondoko fase nagusirako abiapuntua ezarri zuten moldaketak. Aldaketa horiek, ordea, EKSren oinarritzko funtzionamendua zedarritu zutela ikusiko dugu.

Hori dela eta, kultur sistema garaikidearen oinarriak nola egituratu ziren ulertzeko tresna teorikoak eta adibide zehatzak aurkeztuko ditugu, atal honetan. Horretarako, aitzineko ataletan erranak kontuan izanik, euskal kultur moldaketako alderdi gero eta zehatzagoetara joko dugu. Gisa horretan, uste dugu prozesuan moldaturiko baliabide sinbolikoen bilgune nagusi eta kultur gile erreferentziazko banaren arituak aztertzeo nahikoa laguntza eskainiko dugula –literatura (4.1.) eta Mikel Laboaren aritua (4.2.), hurrenez hurren–.

3.1.1. Forma eta baliabide sinbolikoak aztertzeo bidea

Atal honetan, forma eta baliabide sinboliko zehatzen azterketa egin ahal izateko tresna teorikoak argitu, eta bide nagusia proposatuko dugu; euskal ondare kulturalak 60ko hamarkadan abiatu zuen moldaketa aztertu ahal izateko, kasuistika zabala argitzeo gauza diren tresnak behar izan baititugu.

Ondarearen 1960-1975 bitarteko azterketan aitzina egiteo, hiru tresna multzo nagusi proposatzen ditugu¹⁹¹. Batetik, Ernst Cassirer antropologoaren ekarrietarik –aunitz izan arren– sinbolo sarea, funtsezko polaritatea eta funtsezko batasun funtzionala izanen dira lan honetarako, bereziki, adierazgarri; bertzetik, John B. Thompsonek forma sinbolikoen ezaugarriez aipatzen duen *contextual aspect* tasuna izanen dugu lagungarri; azkenik, azterketan topatu ditugun zailtasunei aitzina egiteo, laguntza izanen dira guk geronek behar gisa sumatu ditugun bi ideia: *oreka komunikatiboa¹⁹² eta funtzionalitatea.

Lehenik, beraz, Cassirerren ekarria euskal ondare kulturalak 1960tik aitzina bizirik moldaketa aztertzeo lagungarri izanen da. Kultur moldaketan aritu zirenen lana irudikatzeo, komunitatean berebiziko eragina izan zuen eraldaketa nagusiari

¹⁹¹ Hirugarren kapituluaren deskribatzeo dugun faserako, aldiz, hamabortzaldi hartako prozesu baldintzatzaile zehatza agerrarazten duten ardatzak proposatzeo ditugu.

¹⁹² Ikus A eranskineko “Oreka komunikatiboa” sarrera.

behatu behar: sinbolo amaraunaren¹⁹³ berregituraketari. Ikusiko dugunez, sare horren oinarrian ezarri ziren euskal identitate partekatua, moldaketa kulturala eta garapen garaikidea gidatu zuten harroinak nahiz horien guzien arteko erlazioak. Beraz, lehenik, sinboloen garrantzia bakanaz haratago, sinboloen sistemak duen garrantziaz aritu beharko gara¹⁹⁴.

Tresna teorikoetan aipatu gisa (1.2.2.), sinboloek parte hartzen duten sarearen ideia izan zen Cassirerrek garatu zituen ideietarik garrantzitsuenetarikoa. Sinboloen funtzionamendua hala irudikatu eta deskribatu izanak aukera ematen digu sinboloek testuinguruarekiko duten harremana begiztatzeko. Horregatik, sinbolo amaraunak osatzen duen erranahi koherente multzoak komunitate bateko aldaketa nagusiak aztertze aukera eskaintzen du. Argiago errateko, gure kasuan, euskal komunitateak 60ko hamarkadatik aitzina jasaniko kultur moldaketa ulertzeko aukera ematen digu: orduan, guti goiti-beheiti, abiatutako kultur moldaketak komunitatearen errealitateko sinbolo sarearen¹⁹⁵ berregituratzea izan zuen ondorio nagusi. Sinboloak ulertzeko eta jabetzeko arauak mudatu egin ziren, aldatu nahi ziren testuinguru eta egoera berrietara egokitze bidean.

Egokitze horren oinarrian, hain zuzen, Cassirerrek eskuragarri jartzen duen bigarren ideia funtsezko polaritatearena da. Hau da, betidaniko zaharraren eta berriaren, ezagunaren eta ezezagunaren arteko oreka:

Gizon-emakumeen ekintza guztietan halako funtsezko polartasuna aurkitzen dugu, era ezberdinez deskriba daitekeena. Hitz egiten ahal dugu egonkortasunaren eta bilakaeraren arteko, bizitza-forma finko eta egonkorretarako joeraren eta eskema zurrun hori hausteko bestelako joeraren arteko tirabiraz. Bi joera horien artean etenbeharrean aurkitzen da gizakia¹⁹⁶: bata forma zahar guztiak gordetzen ahalegintzen da, bestea forma berriak sortzen saiatzen da. Horra etengabeko borroka, tradizioaren eta berritasunaren arteko, errepikapen- (*reproduction*) eta sorkuntza-indarren artekoa. Kultur bizitzaren eremu guztietan aurkitu ohi dugu bikoiztasun hori; bata bestearen kontrako eragileen arteko proportzioa da aldatzen. Orain eragileetako bata, orain bestea nagusitzen direla dirudi. Bataren ala bestearen nagusitasunak zedarrizten du neurri handi batez kultur forma

¹⁹³ Oroitu sinbolo, forma sinboliko eta baliabide sinbolikoei buruz errana (1.4.2.); gainera, A eranskinean eskuragarri da termino horien alderatze orokorra (“Forma eta baliabide sinbolikoak” sarrera; sinbolo sarea, aldiz, “Sinbolo amarauna/sarea” sarreran).

¹⁹⁴ Sinboloen garrantzia azpimarratu nahi dugunez, Ernst Cassirer filosofo alemaniarren *Gizakiari buruzko entseia: Giza kulturaren filosofiari sarrera* (1995 [1944]) lanera jo dugu. Liburuko lehen atalaren bigarren kapituluan –“Giza izatearen gakoa: Sinboloa” (62.-66. or.)–, sinboloen sistemak pertsonaren eta ingurunearen arteko korrespondentzia eta, bereziki, biziraupenerako egokitzean duen garrantzia agertzen du.

¹⁹⁵ 60etatik aitzina, sinbolo amarauna garai, behar eta helburu berriekiko koherentzia berregituratu egin zen, arauak aldatuz eta finkatuz.

¹⁹⁶ “El hombre gira entre estas dos tendencias” ageri da, gaztelaniazko itzulpenean (Cassirer 1963 [1944]: 193).

bakoitzaren izaera, eta ematen dio tankera berezia horietako bakoitzari. (Cassirer 1995 [1944]: 330)

Cassirerren hitzak, abstraktuak izanagatik, ongi egokitzen zaizkio 60ko hamarkadan abiatu zen berregituratze prozesuari; izan ere, zeraz ohartu gara: pertsonon batasun substantziala batasun funtzionala delarik, euskal komunitatearen sinbolo amarauna –sistema bera– osorik eraberritu zela, hizpide den garaian¹⁹⁷.

Azkenik, hirugarren ideia nagusizat azpimarratu behar Cassirerrek aipatzen duen funtsezko batasun funtzionala. Ideia horretatik abiatuz, aitzineko ideia bien irakurtze bateratua egin liteke: funtsezko polaritateak sinbolo sarearen oinarritzko oreka aldakorra mantentzen duen gisa, batasun funtzionalak bideratua izanen da oreka aldakor horretan parte hartzen duten elementuen arteko harremana.

Sinbolo sarearen ideiak duen baliagarritasunaz gain, Cassirerengandik harturiko bertze bi ideiek ere badute, gure lanean, erabilerarik. Pertsonon ekintzen oinarrian aurkitu ohi den funtsezko polaritatea egonkortasunaren eta garapenaren arteko tentsioan islatzen denez, AOK, tradizio edo forma sinboliko zehatzen azterketara jo dugu; forma edo baliabide sinboliko berrien segida eta zaharren eraikuntza –nahiz atzemandaren birformulazioa– nola gertatu zen behatzera. Batasun funtzionalaren ideia literaturan –forma sinbolikoen eraberritze eta berrinterpretazioan– sumatzen da.

Halatan, Cassirerren ekarriek euskal ondarearen moldaketa hobeki zehazten lagunduko dute: moldaketa nagusiko forma eta baliabide sinboliko solteak baino gehiago, elkarreragin arauak, testuinguru zabal batekiko korrespondentzian, aldatu zituen sarea irudikatzen. Cassirerren erranek, formaz formako araubidez gain, arau horien eta komunitate partaideen arteko elkarreragina begitatzeko funtsezko ikuspegia, irudi nagusia, ematen dute; bertzeak bertze, ondare kulturalaren moldaketa funtzionalak eta oreka komunikatiboak duten garrantziaz ohartzeko ikuspegia (3.1.4., b.2.).

Oreka komunikatiboari eta honen ondorioei buruz jakin nahirik, bereziki, bertzelako proposamenetara ere jo dugu, osagarri, tesian zehar. Bigarren tresna teoriko nagusia Thompsonnek aipagai duen “contextual aspect” delakoa eta aipatu orekaren goiti-beheitiak baldintzatzen dituzten aldagaiak izanen ditugu solasgai –4.1.2. atalean izanen da alderdi hau hagitx erabilgarri–.

¹⁹⁷ Bigarren eta hirugarren ataletan eraberritze horren ikuspegi zabala ematen saiatu garenez, gauzapean zehatzetara joko dugu, 4.1. eta 4.2. ataletan: literatur arloan izaniko moldaketaz eta moldaketak Mikel Laboaren izaniko islaz arituko gara, hurrenez hurren. Hala, bada, sinbolo sistemaren barrenean, espresuki literaturaren arloan eta kultur gile batengan izaniko moldaketaz arituko gara.

Hirugarrenik, sinbolo sarearen eta komunitatearen arteko harremana eta, bereziki, egokitzea guziz baldintzatzen dituzten bi alderdi proposatuko ditugu, tresna gisa: oreka komunikatiboa bera eta funtzionalitatea. Bi ideia horiek kultur moldaketaren gauzapean zabal nahiz zehatzak, hertsia goak, azaltzeko ezinbertzeko laguntza izan dira.

Batetik, oreka komunikatiboa AOKren eta funtzionalitatearen arteko egokitasuna nola gauzatu zen agertzeko erabili dugu (3.1.3., 3.1.4.); gainera, Mikel Laboak kultur gile gisa eginiko kultur moldaketa eta honen egokitzea ulertzeko hagitz lagungarria izan da (4.2.2.). Bertetik, funtzionalitatea, baliabide sinboliko zaharberriak eta komunitate harremana, modu zabalean, irakurtzeko baliagarri izateaz gain, literaturak kultur sarean izan zuen jokabide zehatza marrazteko baliatu dugu –3.1.4. eta 4.1.2., hurrenez hurren–.

Ikusiko dugunez, oreka komunikatiboaren ideia modu desberdinetara agertu arren, sarri izan da, ikerlarien artean, hizpide.

Set in the stream of time, listening becomes a dialectic between aesthetic expectations and musical innovations. It is a continuous negotiation conducted at the boundaries of the musical sense. Change occurs when music accessible enough to meet listeners' criteria for meaning is at the same time innovative enough to prod them into revising and expanding those assumptions.

Intellectuals writing on the relationship between text and reader have called the mental set that orients the reading of a given generation a horizon of expectation. That phrase should also be applied to listening¹⁹⁸. (Johnson 1995: 3)

Aditzera ematen dugun kontzeptuak James H. Johnson-ek, *Listening in Paris* ikerketan, solasgai duen berri eta zahar arteko orekaren oinarria oroitarazten digu.

Beraz, 3.1.1. atalean erranak bilduz, sinbolo sarea, funtsezko polaritatea eta batasun funtzionala, forma eta baliabide sinbolikoen azterketarako oinarritzko abiapuntu izanen dira; alabaina, hiru ideia horien gibeledu harremanak eta baldintzatzeak xeheki aztertzeko, hagitz garrantzitsuak izanen dira John B. Thompsonen eta James H. Johnsonen ekarriak. Horien zehazteak kontuan izanik, oreka komunikatiboaren eta funtzionalitatearen garrantziaren alde eginen dugu, lanean; ideia horiek biltzen baitute, hobekien, euskal ondare kultural metatuaren moldatzeak, 1960-1975 bitartean, izaniko garapena.

Segidan heldu den atalean, aztergai den birmoldatzearen aitzinetik saiorik izan ote zen begiratuko dugu. Gisa horretan, forma eta baliabide sinbolikoak aztertzeko

¹⁹⁸ Oin-oharrea, Hans Robert Jauss, E.H. Gombrich eta Reinhart Koselleck ematen ditu, erreferentzia gisa.

proposatu ditugun tresna teorikoak garai desberdinak aztertzeke molda daitezkeela ikusiko da; gainera, tesi guzian zehar erabiliko dugun ikuspegia, jarraitutasunarena¹⁹⁹, azpimarratuko dugu.

3.1.2. Berrirakurtze ekimen kateatua

Komunitate kulturelek etengabeak eta ziklikoak diren epe larrietan jasaten dituzte birmoldatze garaiak. Naturalki jasaten dituzte berrirakurtze nahiz moldatze prozesuak, eta partaideen lanari nahiz eraginari ezin zaie, erratu gabe, guk irudikaturiko muga zurrunik ezarri. Hala, bada, guretako, epe zehatz bati egokitzen zaizkion berrinterpretazioak *continuum*eko intentsitate aldaketak izanen dira, eta ikuspegi horretatik behatu diogu euskal kultur moldaketak, 1960-1990 bitartean, jasan zuen birmoldaketari.

Ikuspuntu honetan ardazu izanak euskal komunitateari dagozkion bi alde nabarmenarazi ditu. Batetik, tesian aztergai den epearen baitako fase desberdinak –1960-1975 eta 1975-1990 gisa identifikatu ditugunak– jarraitutasun bakarrean gertatu zirela: birmoldatze nagusi bateko aldiak direnez, testuinguru zehatzagoari egokitzen zaizkien bertze hainbat alde agertuko dira, partekatzeaz gain, fase bakoitzean²⁰⁰. Bertzetik, jarraitutasunaren ikuspegiak aukera eman digu, aztergai den garaiaz haratago, euskal komunitateak epe luzean zehar jasan dituen moldaketak agerrarazteko. Tesiaren bigarren eta hirugarren kapituluetan, 60ko hamarkadan abiatu zen prozesuak eragile nagusia aitzineko moldaketa izan zuela ohartuko gara. Aro Ilunaren eraginez biziraupenera kondenatua zen komunitate antzinatea islatzeaz haratago, eragin handia izan zuen XIX. mendearen akieran eta XX. mendearen hasieran izaniko berpizkunde kulturalak²⁰¹; poliki-poliki ikusiko dugunez, aztergai ditugun fase bakoitzean, aitzineko moldaketa saioari erreparatu zitzaion arren, modu desberdinetan bereganatu zen saio horren muina.

Kulturaren berpizte saio nagusi batez ari garelarik, prozesuaren balizko berezitasunez hausnartzea egokia iduritu zaigu; 60ko hamarkadatik aitzina euskal komunitateak izaniko berpizteak berezko izana bazuen ere, ez baitzen hura ordura

¹⁹⁹ Jarraitutasun motei buruz espresuki arituko gara, hirugarren kapituluko 6.1.2. atalean.

²⁰⁰ Moldaketaren bi faseetan, euskal komunitatearen garapen mailek izaniko eragina aipatuko dugu, partekatze nagusi gisa; aldean artean, berriz, ondarearen berreskuratze funtzionala (1960-1975) eta erakundetze prozesua (1975-1990).

²⁰¹ Tesian, laburtzearen, sarri eginen diogu erreferentzia “XX. mendearen hasierako saio” gisa.

arteko saiakera bakarra izana. Berpizkunde saio nagusi bat baino gehiago izanak ziren XX. mendean; gainera, saio horien artean, korrespondentziak ezezik, hausnargai bertsuen errepikapena gertatu zela iduri du²⁰².

XX. mendean bi saio gailentzen dira, beti ere euskal komunitatean, intentsitate nabarmenez: XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitartekoa eta hizpide dugun garaikoa –1960-1990–. Euskal ondarearen berpizkunde saio horiei erreparatuz, ondare kulturalako elementuetarik baten presentzia espresuki hausnartu eta moldatu nahi izan dela ohartu gara: bi saioetan kulturgileek mantendu, berreskuratu edo birgaitu zuten corpuseko giltzarri gisa atzeman zuten bertsolaritza. Dela bat-bateko bertsolaritza, dela idatzizko bertsoa, behin baino gehiagotan izan dira euskal kultur moldaketa garrantzitsuetan solasgai nagusietarik bat.

Edozein gisatan, gure helburua ez da bertsolaritzaren ibilbideari, espresuki, erreparatzea; bertsolaritzaren adibidea euskal kultur berpizteen arteko balizko antzekotasunak, korrespondentziak, erakusteko aitzakia da. Beraz, bertso moldeak erabili ditugu euskal kulturak, *continuumean*, biziriko moldatze ziklikoen adibide gisa –helburu nagusi ez zirelarik–.

Kultur moldaketa saio bietan euskal kulturaren funtsa bilatu, berpiztu eta eguneratu nahi izan zen; ekimen horien baitan ulertzen da, bertzeak bertze, bertsolaritzaren funtzionalitatea giltzarri izan zela.

Lehen saioan, bertsoei dagokienez, Aitzol [Jose Ariztimuño] (Tolosa, 1896-1936), bertze hainbat kulturgilerekin batera, Gerra Zibilaren aitzinetik lanean aritu zen²⁰³ –lehenengo bi txapelketen sustatzaile nagusia izan zen bera (Garzia 2012: 56; Etxebarria eta Kalzakorta 2009: 54)–. Garai hartan, bertsolaritzak berpizkundera izan beharreko garrantziaz agerturiko iritzien artean, Aitzolek ardatz gisa aldarrikatu zuen bertsolaritza. Aritu horren ideia erromantikoa ageri da, *Literatura Terminoen Hiztegia* (2008), J.M. Lekuona zenak (Oiartzun, 1927-2005) bertsolariari buruz erranetan: “azkarra eta bere buruaren jabe bat-bateko jardunean; bihotza, adimen zorrotza, hitz azkarra, memoria harrigarria eta irudimen aberatsa bere poema sortzean eta interpretatzean” (“Bertsolari” sarrera, 121. or.). Alabaina, Joxerra Garziak Aitzolez zehaztu gisa:

²⁰² XIX. mendearen akieraren eta XX. mendearen hasieraren arteko saioan, AOKren funtzioa garrantzitsua izan zela iduri du; alabaina, etorkizunerako utziko dugu balizko parekidetasun horren azterketa. Tesian, 1960-1990 bitarteko moldaketaren funtsa ulertu ahal izateko parekidetasunez mintzatuko gara, bakarrik.

²⁰³ Aipatu berri dugun *continuum* ideari jarraiki, ekimen honen prozesua Lore-Jokoekin hasia zatekeen.

Gaiari buruz idatzi zituen artikuluetako batean, bertsolariak “janzki zaharren zantzu xumez” tabladuratzeko proposamena egin zuen, horrela bertsolariak “xerlo distiratsuko trobadore erromantikoen” itxura izan zezan; era berean, deklamazioen mimikaren alde egin zuen, edota dekorazio prosaikoak erabat aldatzearen alde...

Neurri horiek ez hartuagatik, aipamenak argi uzten du bertsolaritzari, onenean, balio instrumentala ematen zaiola, eta ez berezkoa, barnekoa (Garzia: *basqueliterature*)

Berezko balioak azpimarratu beharrea, funtzionalitatea eta balio instrumentalak eman zizkion bertsolariari, hitz horietan, bederen. Halako begiradapean, aski zaila izanen zen arituaren berezko balioetan oinarrituriko biderik egitea, ahozko ondarearen atal horrek helburu zehatzetarako mendekotasuna ageri zuela iduri baitu; bertso arituaren izanari egokitzen zitzaizkion baliabideak moldatu baino gehiago, irudi baten mesedetan eta adierazkortasun identitarioa aditzera emateko erabiltzen zen.

Identifikatu dugun bigarren saioak, hagitz bidegile garrantzitsuen laguntza izana zuen, aitzinetik; *continuum*aren ideiarri jarraiki, 60etako goititzeak ezinbertzeko baldintza izan zuen bidegileen lan etengabea: euskal AOK-k XX. mendearen bigarren erditik aitzina jasaniko berpiztea hainbat aitzindarien lanari eskerrak gertatu ahal izan zen. Aipaturiko lehen susperraldiari eskerrak, bertzeak bertze, bat-bateko bertsoak kopia egin ziren, mendearen hasierako lehiaketetan; gainera, banako pertsonak mendearen zehar eginiko esfortzuek eta ekarriek aunitz lagundu zuten ahozko arituak ondare kultural garaikidearen moldaketan izan zuen eragina.

Adituek aipatzen dituztenetarik soilik bi ekarri ditugu honata. Manuel Lekuonari (Oiartzun, 1894-1987) zor diogu “ahozko literaturaren birgaitzea oro har, eta bat-bateko bertsolaritzarena bereziki” (Garzia 2012: 52); osabaren bideari jarraiki, Juan Mari Lekuona ere eremu bertsuetan lagungarri izan da, hagitz (Etxebarria eta Kalzakorta 2009: 23). Berantago, 50eko hamarkadaren hondarrean, bulkada handia eman zion Euskaltzaindiak bat-bateko bertsolaritzari: Euskal Herrian zehar bertsolarien bila ibili, eta Txapelketa Nagusia antolatu zuten, 1960an (Garzia: *basqueliterature*).

Orditik aitzina, bat-bateko bertsolaritzaren eta bertso paratuena²⁰⁴ bidea paraleloki moldatu zen: ondare kulturalaren berrinterpretazio modernoan, bakoitzak funtzionalitate desberdina garatu, eta toki diferentea lortu dute, EKS garaikidean. Ekimen horiek guzkiek eragin handia izan zuten bertsolaritzaren eta, orokorrean, AOKren birgaitzean.

²⁰⁴ Bertso paratuak bat-batekotasunetik at, idatzirik, sorturiko bertsoak izendatu ditugu; beraz, bai bertso paper gisa, baita bertzelako agerturiko idatzizko bertsoek ere, osatzen dute bertso paratuena multzoa.

3.1.2. atalean ikusienez, forma eta baliabide sinbolikoak aztertzeko tresna teorikoak erabili, bai, baina ez dugu ikuspegi nagusiaren argitasunetik sobera urrundu nahi izan. Erran nahi baita 3.1.1. atalean proposaturiko tresnak azterketako ezinbertzeko izan arren, komunitate eta kultur moldaketak jarraitutasunezko bidean begiztatzea dela garrantzitsu. *Continuum*aren ideiak ematen duen ikuspegiak gabe, 1960-1990 bitarteko saioari sobera isolatuki behatuko genioke, eta, beraz, saioak izan zituen eragile nagusiak bistatik galduko genituzke –1960-1990 bitarteko faseek mendearen hasierako saioa modu desberdinean bereganatu zutela, kasu–.

Ondoko orrialdeetan, preseski, bi saioetan garrantzia izan zuen ondareaz arituko gara: AOKz. Ondare zati horrek 60etan abiatutako birmoldatzeak Euskal Kultur Sistemako (EKS) erreferentzia zenbait eragin zituela ikusiko dugu.

3.1.3. Iraganeko ondare kulturalaren berreskuratzea: AOKren funtzioak

Atal honetan, 60ko hamarkadatik aitzina kulturaren garapenean berebiziko garrantzia izan zuen corpusari erreparatuko diogu: AOKri. Ondare horren berriztatzeak eta zaharberritze horretarako azaldu ziren hausnarketek eragin handia izan zuten, 60etatik aitzinako euskal kulturaren garapenean. Gainera, corpus hori oinarri harturik abiatutako ekimenek –euskal kantarienak²⁰⁵, erraterako– nazioaren identitatea gorpuzteko euskarria eskaini zioten komunitateari.

AOK-k, 60etan abiatutako prozesuan, izan zuen eraginaz oharturik, bada, corpus horren izanari ginetik behatzeaz gain (“Ahozko Ondare Kulturala”), garaiarekiko zukeen egokitasunaz arituko gara (“Hautatzearen arrazoiak”), segidan.

- **Ahozko Ondare Kulturala**

Tesian lantzen den garaiaren zabalak ezinbertzean behartu gaitu fase desberdinetan zererran handia izan zuten corpusak ikertzera. Aniztasun horren barrenean, bi corpus nagusiri behatuko diegu: “AOK” eta “lan garaikideak” gisa izendatuei.

“AOK” izendapenak euskal herriaren iraganeko ahozko ondareari egiten dio erreferentzia, eta, beraz, iraganen sortua eta ahozkotasunari lotua den ondarea

²⁰⁵ Kantariak edota musikak berak nazioen birmoldatzeetan izaniko garrantzia gauza ezaguna da: XIX. mendean Italian eta Alemanian izaniko prozesu nazionalizatzailean, adibidez, musikaren eremutiko laguntza izugarri eraginkorra izan omen zen (Álvarez 2001: 258).

barneratzen du. Aldiz, “lan garaikideak” 1960-1990 bitartean sorturiko lanak izendatzeko erabili dugu; hau da, olerkarien lanak, garaiko aldizkarietako idatziak edota Mikel Laboaren “Lekeitio”ak²⁰⁶ gisako arituak²⁰⁷. Hau da, batetik, iraganeko oihartzuna osatzen duen corpus nagusia –sorburuko transmisio moduagatik ahozkotasunean espresuki gauzatua– eta, bertetik, langai den garaiko orainalditik sorturiko lanak.

1960-1990 bitarteko euskal kultur moldaketa argitzeko oinarrizko corpus zatiak dira biak. Azpiatal honetan, ordea, AOKri erreparatuko diogu, nagusiki; izan ere, iraganetik berreskuratu zen corpora bera moldatu izanaz gain, 60-70etako lan garaikideen eragile nagusietarik bat izan baitzen AOK²⁰⁸. Hala, bada, kultur gile garaikideen arituak ikertzeko aitzineko pauso garrantzitsua da ondare horren izaera nagusia, nahiz jasan zituen aldaketaren nondik norakoak, aztertzea.

Bi alderdi azpimarratu nahi ditugu, ondoko orrialdeetan: jatorri kronologikoa eta ahozkotasunarekiko hurbiltasuna. Biek AOKren izaera nagusia deskribatzeaz gain, corpusaren azterketa baldintzatu duten alde nagusiak aurkezten lagunduko dute, azterketaren fokuak eta hurbiltze moduak bideratu dituztelakotz:

- Batetik, iraganetik helduriko corpora izateak garaiarekiko harremana eragin ote zuen aztertu behar izan dugu, espresuki. Gaurgero errana denez, komunitate garapenean eta, bereziki, berreskuratze garaietan, iragana zama handiko erreferentzia izan ohi da; bertzeak bertze, komunitatearen lehen helduleku komuna bihurtzeko potentzial handia baitu denbora erreferentzia horrek. Horiek horrela, AOKren jatorri kronologikoak ezinbertzean behartu gaitu corpusaren eta komunitatearen arteko harremanari erreparatzera.
- Bertetik, AOK-ko elementuek partekatzen dituzten ezaugarriek aztergunera hurbiltzeko modua baldintzatu dute; ahozkotasunarekiko hurbiltasun bikoitza izaki, bikoiztasunaren gauzatze zehatzei erreparatu behar izan diegu.

Bi alderdi horiek 60-70etan euskal komunitatearen identitatea ontzeko hautagai ezin hobea bihurtu zuten AOK. Pixkana-pixkana agertuko denez, ahozko ezaugarriek

²⁰⁶ Oroitu “Lekeitio” desberdinak *Lekeitioak* diskotik bereizteko, modu desberdin horietan eginen diegula erreferentzia.

²⁰⁷ Lanean zehar landuko diren hainbat lanen artean, 4.1.2. eta 7.1.3. ataletan arituko gara olerkarien lanez; garaiko aldizkarietako aritua 4.1.3. (b.1.) eta 7.1.3. (a.2. eta a.3.) ataletan izanen dugu aztergai; Mikel Laboaren “Lekeitio”ei 4.2. eta 7.2. ataletan zehar behatuko diegu.

²⁰⁸ Corpus hori hautatu izanaren arrazoibide osotua segidan den “Hautatzearen arrazoia” azpiatalean garatu da.

kantarien birmoldatzeetara eta hartzaileak zain zirenera egokitzeko aukera egokia eskaintzen zuten, eta urruneko oihartzunak identitatearen birformulatzean iraganeko erreferente komun izan ziren.

Hortaz, corpusaren izana garaiarekiko harremanean aztertzen ari garelarik, garbi da AOKra modu jakinean hurbilduko gara: komunitatearen moldaketan corpusak izaniko rola hausnartu nahi dugunez, fokua funtzionalitatean jarriko dugu. Ondorioz, ez diogu hautaturiko corpusaren literaturtasunari begiratu, aski izan baita AOK-ko elementu izatearekin; izan ere, komunitateen norabideak baldintzatzen dituzten baliabide sinbolikoak beren funtzioagatik eta eraginagatik dira, guretako –hemen–, interesgarri, ez bertzelako irizpideengatik.

Bidenabar hizpide izanen dugun bat-bateko bertsolaritzaren literaturtasunari buruzko auzia ere arrazoibide beragatik utzi dugu eztabaidatik kanpo²⁰⁹. Ideia horri jarraiki, “ahozko euskal kultura” eta “ahozko ondare kulturala” izendapenekin ikerketa honetarako baliagarri ez diren sailkapenak –eta sailkatze horietarako erabiltzen diren irizpideak– berariaz alboratu nahi izan ditugu; ahozko kulturarekin aritu molde zabala kontuan hartzeko aukera atxiki nahi da, literatur balioan baino gehiago, funtzionalitatean ardaztea baita giltzarri. Gisa horretan, hautaturiko terminologiak, bat-bateko bertsolaritza eta bertso paratuak multzo bereko izan arren, aukera ematen du bakoitzaren tasunak lausotu gabe aintzat hartzeko.

Corpusera hurbiltzeko modua bera AOK-ko elementuek partekatzen dituzten elementuek bideratu dute: ahozkotasanak, iraganeko jatorriak eta bat-batekotasunik ezak. Horien garrantziak ezinbertzean baldintzatu du azterketa; izan ere, ahozko ondareak berezko ezaugarria baitu ahotsaren bidez belarrirako transmisioa, eta jarraipen mota horrek ematen dio, komunitatean, funtzioa.

Hortaz, AOK bi zentzutan da ahozkotasunetik hurbileko: herriari ailegatzeko eta herriak altxatzeko moduari erreferentzia egiten diolarik, transmisio moduz ari baikara; tasunetan espresuki ahozkoari dagozkion molde eta baliabideetatik hurbileko ondarea

²⁰⁹ Jakina denez, behin baino gehiagotan jarri izan da zalantzan bertsolaritza moldeen barrenean bat-batekoa literatur aritua ote den: “Pero ¿puede el *bersolarismo* ser considerado como parte de la *literatura* oral? O, dicho de otro modo, ¿tiene el *bersolarismo* carácter literario? En cualquier caso, la respuesta sería dudosa. Es innegable que se trata de algo distinto de la transmisión de técnicas, fórmulas y procedimientos métricos y retóricos tradicionales. Al contrario de lo que sucede con la literatura tradicional, el sujeto del *bersolarismo* es siempre un *especialista*”, “El carácter literario del *bersolarismo* depende casi exclusivamente de la mayor o menor cultura literaria de cada improvisador (y ésta, por lo general, no suele ser demasiado rica). Lo que ha venido a complicar la cuestión es la existencia de una literatura –en sentido estricto– vinculada al *bersolarismo*” (Juaristi 1987: 25) (azpimarrak ez dira gureak).

delakotz, baita ere. Hain zuzen, adiera horretan diren errepikapen, erritmo, arrazoiak haratagoko ulermen eta abarrek corpusaren atzemate sinbolikoaren alde jokatu zuten, 60-70etan.

Ahokotasunaren lehen adierak arazo nagusi bat du, guretako: AOK-k ahozko transmisioa berezko altxatzeko modua badu ere, euskal herriaren zabalak galdua zuen, 60etarako, berezko transmisio modu naturala. Mounir Bouchenaki-k izaera materialik gabeko ondareari buruz erranak oroitzuz:

Mientras que el patrimonio cultural material está destinado a sobrevivir mucho tiempo después de la muerte de la persona que lo hizo o lo mandó hacer, el destino del patrimonio inmaterial está mucho más ligado a sus creadores y depende, en la mayoría de los casos, de la transmisión oral. (In UNESCO 2004: 10)

Urteetan zehar, gisa horretan mantendu eta erabilia izan bazen ere, orduko komunitatearen baitan ez zuen halako bizirik, kideen arteko transmisioa bera aski galdua baitzen²¹⁰. Mikel Laboak corpus horrekiko urruntze kolektiboa agerrarazi zuen, 1965ean:

(Galdetzailea) [sic] Uste duzu aski dala abesti zaharrez baliatzea, gaur eguneko musika bat lortzeko?

(Laboa) –Abesti zahar auek oso gutxiak ezagutzen dituzte, nik uste dut beharrezkoa dala jendeari ezagutu araztea. Gainera hori lehendabiziko pausoa da, bigarrena berriak eratzia litzake.

(Elkarrizketatzaile ezezaguna, “Personaje billa. Mikel Laboa”, *Zeruko Argia*, 1965, 127: 4)

Ahokotasunaren bigarren adierak, ordea, indarra zuen, artean, 60etan; erran nahi baita ahokotasunari espresuki atxikitzen zaizkion ezaugarriak altxatzen zituztela kultur elementu horiek; are gehiago, tasun horiek berek lagundu egin zuten funtzionalitate berrien garapena.

Beraz, AOK-ko baliabideez ari garelarik, beren jatorri kronologiko eta ahokotasunagatik beragatik, funtzionalitatearen gauzatze momentu biri erreparatu beharko diegu; hau da, AOK-k iraganean zukeen funtzionalitatea garai modernoetan izan zuenetik bereiztea komeni da. Alderatze horretan sumatzen diren aldaketa nahiz moldatzeak dira gune interesgarrienetarikoa bat²¹¹. Aztarna horiek agerraraziko dute

²¹⁰ Kasu eman elementu horiek “tradizio elementu” gisa izendatzean erran nahi denarekin. Komunitate baten tradizioan biltzen den ondare kulturalak belaunaldiz belaunaldiko transmisioa baitu ezaugarri. Aztergai den garaian, corpusa osatzen duten AOK-ko elementuen transmisio hori akitua zen, gehienetan. Beraz, tradiziozko elementu horien izana zalantzazkoa litzateke, epe horretan zehar, bederen. Aski da modu horretako baieztapenak egitean berreskuratze bat egon zela kontuan izatearekin.

²¹¹ 4.2. atalean, hiru interesgune ditugu: Laboak eskainiriko AOK-ko elementuek iraganean zein funtzionalitate zuten, birmoldatze garaikidean zein eskuratu zuten eta berreskuratzea gertatu ahal izateko egin ziren moldatzeak.

AOK-k, baliabide sinboliko gisa, euskal komunitatearen *continuum* kulturalean, izaniko garrantzia.

- **Hautatzearen arrazoiak**

Hiru arrazoiengatik hautatu dugu AOK, bigarren kapitulurako ikergai gisa: 1960-1975 bitarteko euskal kulturaren berreskuratze gune izan zelakotz, Mikel Laboaren garapena islatzen duen alderdia delakotz eta euskal literaturak, orduan nahiz ondoko epaldian, izaniko ibilbidearen erdigune garrantzitsu izan baitzen.

Batetik, herri identitatearen garapenean klabe izaniko sinbolo aunitz bertatik hartu zirela izan behar dugu kontuan. Ahozkotasunak berak, 60-70etan ez ezik, moldaketaren bigarren fasean hartu zuen zamak zerikusi handia du AOK-k gordetzen dituen hainbat ezaugarri eta irudirekin. Gainera, corpusak fase desberdinetan herriaren beharrek izaniko garapenez ohartzen laguntzen du: AOK-k 60-70etan eta 80etan izaniko moldaketak hagitz desberdinak izan ziren.

Bertzetik, euskal identitate nazionalaren garapenean, guneko aritueta, hagitz presente izan zen: euskal kantari berrien arituan hagitz eraginkor izateaz gain, berreskuraturiko AOK literatur arituan txertatu zen. Bertso molde idatziarekin gertatu gisa, iraganeko ondarearen berriztatzeari eguneratze desberdina emanaz, baina komunitatearen ziklikotasuna jarraitutasun funtzionalean oinarrituz (4.1.2.a.); ondare hori lehen mailako premiak asebetetzen espresuki ongi egokitu zen.

Azkenik, kultur moldaketaren jarraitutasuna agerrarazteko aukera eman du corpus honek. Prozesuaren bigarren faserako lotura eskaini du, eta corpus hori dela eta azaleratu ziren hausnarketek²¹² lagundu digute Euskal Literatur Sistemako (ELS) fase bakoitzeko ideiak, modu bateratuan, irakurtzen. Beraz, lehen fasearen azterketarako, bertso idatziaren berriztatzea dela eta agerturiko goiti-beheitiak baliagarriak dira; eta, bigarren fasean, XX. mendearen hasierako tradizioa eta ahozkotasuna dela eta abangoardiek hausnartu zituztenak (zazpigarren atala).

Zernahi gisaz, bigarren kapituluan, corpus gisa, AOK hautatu izanaren munta handieneko arrazoiak honakoa izan da: AOK espresuki ongi moldatu zela euskal komunitateak zituen lehen beharrei eta, bereziki, horiek guzietan gibelego zuten duintasunaren berreskuratze prozesuari.

²¹² Basarriren eta Arestiren arteko eztabaida entzutetsua, kasu (*Zeruko Argia*, 1963).

AOK-k herri duintasun kolektiboa berreskuratzeko ardatz nagusiak eskaintzen zituenez, aski konprenigarria da 1960-1975 bitartean izan zuen eragina; lehenago erran gisa, hagitz hurbileko zituen corpusak denbora iragana, talde esentzia eta sendotasunarekin loturiko duintasun berreskuratzea²¹³.

- Batetik, iraganeko denboraren erreferentzia eskaintzen zuen. Komunitate partaidetza iragan kultural bateratuan sumatzeko aukera eskainiaz, talde sentimen partekatua izaniko komunitate kultural gisa agertzen ziren euskaldunak. Iraganaren eta orainaren arteko lotura kulturalak euskal komunitatea *continuum*aren baitan kokatzen zuen. Modu horretan, izaera propioa aurkitzea baino gehiago, berreskuratze beharra gailendu zen, ikuspegi honek berak komunitateari duintasuna ematen ziolarik.
- Bertzetik, talde izanaren, haren esentziaren, gordeleku gisa aditu zen ahozko ondarea. AOKren baitan antzina euskaldunok genukeen bizimodua, elkarbizitza eta, bereziki, errealitate partekatuaren urrutiko oihartzunak atzeman zituen 60ko euskal gizarteak. Han altxatuak oraina eta iragana lotzeko balio zuen; AOKn sumatuak orainaldiko identitate xehatuaren oinarrian sinisteko parada eskaintzen zuen, ordura arte ukatua izan zen identitate kolektibo nahiz indibidualaren indartze iturri bihurtuz. Gainera, corpusaren izanak lotura arrazionalaz haratagoko batasuna erdiesteko potentziala zuen.
- Azkenik, AOK-k aditzera ematen zuen iragan kultural bateratua euskarri komun gisa agertu, eta, beraz, komunitate sendotasunerako tresna bihurtu zen. Antzinako errealitate bateratuaren irudi psikologikoak kideen egiazkotasuna azpimarratu zuen. Horrenbertzez, izaniko komunitatearen erakusgarri izaki, haren nahia eta aldarrikapena berezko eskubide gisa sentitu ziren. Komunitate ziurtasunak eta hari eskerrak lorturiko sendotasunak etorkizuneko proiektu berriendako bulkada eman zioten komunitateari.

²¹³ Duintasunaren hiru alderdi nagusien azalpen zehatzerako jo, berriz ere, 2.2.2. atalera. Bertan, komunitate mailako duintasuna lortu ahal izateko giltzarriez ari baginen ere, horiek AOKrekin izan zuten erlazioa laburbildu dugu hemen. Hortaz, azalpen osotuaren aplikazio zehatza bertzerik ez da, hemen, bildua.

AOK-k komunitateak bere izana aldarrikatzeko oinarri nagusiak bildu zituen: bertan sumatu zen iragan bateratuak, altxatu zen identitateak eta biltzen zen errealitateak duintasuna berreskuratzeko arrazoiak –eta horietatik irudikaturiko eskubideak– eskaintzen zituzten; izan ere, iragana berreskuratu beharra zen, ez “deskubritu”. Talde izanaren gordeleku izaki, iraganaren eta orainaren arteko lotura praktikoa ezartzeko balio zuen; bertzalde, erreferente komun gisa atzemana, nazioaren irudikatze psikologikoan makulu, taldearen sendotasuna areagotu zuen.

Ondoko azpiatalean, funtzionalitateez hausnartuko dugu. Gogoeta horrek AOK-k komunitate garapenean izaniko funtzioetan sakontzen lagunduko digu, eta komunitatearen garapenean hagitx garrantzitsua izan zen eremua, literaturarena, lantzeko lanabesak ere aurkeztuko ditugu.

3.1.3.a. Ondare kulturalaren funtzionalitateak

Azpiatal honetan, Thompsonen begirada kulturalari sobera garatu gabeko alderdia erantsi nahiko genioke; izan ere, Thompsonek, forma sinbolikoen ezaugarritze eta gauzatze nagusiarri buruzko bideak argitu zituen arren, forma sinbolikoen funtzionalitateari nahikoa erreparatu ez ziola uste dugu. Soziologoak forma sinbolikoak testuinguru jakinetan txertatuak izatea azpimarratu zuen ezaugarri nagusietarik bat gisa; euskal kulturaren oinarriak ulertu ahal izateko, bederen, agudo sumatu dugu forma nahiz baliabide sinbolikoek testuinguru jakin horietan dituzten funtzionalitateei ere behatu beharra.

Funtzionalitatearen bidea izanen da, hain zuzen, forma sinbolikoen izana eta ezaugarriak, testuingurua eta testuinguruetan sumaturiko ereduak elkarren arteko harremanean ulertzen lagunduko duen irizpidea. Gisa horretan, Thompsonek forma sinbolikoen ezaugarri nagusitzat zituenak, hari komun baten laguntzaz, harremanetan jarriko ditugu. Aldagai bat gehitzea baino gehiago, hemen errana adituek aipatu izan dituztenak begirada nagusi batean biltzeko lagungarri izanen da.

Beraz, komunitateen ondare kulturala aztertzeko bideetarik bat hautatu dugu: funtzionalitatearen baitan egituratzen dena. Bi arrazoiengatik aukeratu dugu irizpide hori. Batetik, 1960-1990eko kultur berrinterpretazioa iraganeko nahiz ondoko berpizte saiakeren eta prozesu erakundetzailen parean ezartzen duelakotz; alegia, aukera eskaintzen baitu euskal ondare kulturala berpizteko izan diren aitzineko saioak –XX. mendearen hasierakoa, kasu– eta egungo EKSrekiko erlazioa irizpide beraz

erreparatzeko²¹⁴. Bertzetik, funtzionalitatea gune duten prozesuetan komunitateak izaniko parte-hartzea hagitx garrantzitsua delakotz: kultur gileen lana funtsezkoa izanik ere, gainerako komunitatearen inplikatz, onartze eta beretze prozesurik gabeko eraldatzea kultur moldaketa antzua litzateke; beraz, funtzionalitateak ezartzeko prozesuan, eragile nagusiak komunitate partaideak dira.

Hala, bada, 60etan abiatutako ekimena prozesu iragazgaitz gisa ulertu beharrean, ondarearen birmoldatze ziklikoen baitako epe gisa sumatu ahal izanen dugu: komunitate kulturalak, *continuum*aren baitan –krisi garaietan, bereziki–, naturalki izan ohi dituzten eguneratze eta egokitze prozesu gisa.

Komeni da, funtzionalitateari erreparatzen badiogu, irizpide berari loturiko bi aurpegi kontuan izatea: komunitatean sumaturiko funtzionalitate mota nagusiak –baliabide eta forma sinbolikoen funtzionalitate *teorikoa²¹⁵, *praktiko-soziala²¹⁶ eta *sinbolikoa²¹⁷– eta aipaturiko funtzionalitate horien baitan agertzen diren harremanak. Erran nahi baita, aztergai den elementuak komunitatearendako duen erabilgarritasunaz haratago, erabilgarritasun bakoitzean bertze elementuekiko eta komunitateko kideekiko ageri diren menderakuntza eta autonomia harremanei ere behatu beharko diegu.

Funtzionalitatea irizpide nagusi duen kultur bidea agertzeko, lehenik, ondare kulturalak eta, zehazki, AOK-k komunitateetan izan ditzakeen funtzionalitate nagusiak bildu ditugu (“Funtzionalitate nagusiak”). Hartara, hobeki adituko da euskal AOK-k, 1960-1975 bitartean, jasan zuen funtzionalitate aldaketa (3.1.3.b.).

- **Funtzionalitate nagusiak**

Ondare kulturalak erreferente duen komunitatearekiko harremanari erreparatuta, hiru funtzionalitate nagusi sumatzen dira: funtzionalitate teorikoa, funtzionalitate praktiko-soziala eta funtzionalitate sinbolikoa.

Horietariko bakoitza garatu ahala, funtzionalitateok baliabide eta forma sinbolikoek erreferentziazko komunitateekin dituzten harremanak agertzeko ere aplikagarriak direla ohartu gara. Hori dela eta, beheiti deskribaturiko funtzionalitateak komunitateek kultur ondarearekiko izan ditzaketan hiru erlazio posibleren abstrakzioa

²¹⁴ Tesiaren helburu nagusia egungo EKSren oinarriak identifikatu eta aztertzea izanik ere, ikerketak etorkizuneko lan gehiagotarako baliagarri izan nahiko luke. Hala, bada, sarri sumatuko du irakurleak solasera ekarritako teoriak, azalpenak eta interpretaziorako proposamenak nahiz tresnek eremu zabalagoak erreparatzeko aukera eskaintzen dutela.

²¹⁵ Ikus A eranskinetako “Funtzionalitateak: AOKren funtzionalitate nagusiak” sarrera.

²¹⁶ Ikus A eranskinetako “Funtzionalitateak: AOKren funtzionalitate nagusiak” sarrera.

²¹⁷ Ikus A eranskinetako “Funtzionalitateak: AOKren funtzionalitate nagusiak” sarrera.

dira. Fokua espresuki AOKn jarri dugun arren, bai baliabide, baita forma sinbolikoen azterketarako ere, erabilgarri dira hemen zehaztuak. Beraz, euskal komunitatearen corpusetik abiatua izanagatik, aplikatze zabalagoa eman dakioke sailkapenari.

Edozein gisatan, euskal AOKri dagozkion adibideak hautatu ditugu ondoko orrialdeetan; funtzionalitatea irizpide harturik, euskal komunitatearen eta AOKren arteko harremanak ezarri ditugu, erakusgarri gisa. Komunitateak elementu horiei egotzitako balioen abstrakzioa egiteak, ordea, imajinazioa eskatzen du, eta aski zaila da ariketa bateratua. Horregatik, balio horien zehaztea hizpide den corpuseko elementuen erabileretan bilatzea proposatzen dugu: elementuak erreferentziazko komunitatearen informazioa biltzeko, helburu sozialei –arazo, behar ideologiko, kultural nahiz estetikoek– erantzuna emateko edo agerikoa ez den adierazgarritasun baten berri emateko baliatzen ote diren. Hala, ikusiko denez, erabilera zehatzak mugatzen ditu AOK-ko elementuen hiru funtzio posibleak:

Funtzionalitate teorikoa

Kasu honetan, gaurgero funtzionalitate sozial guti izanik, ikergune gisa erabiltzen da ondarea; are gehiago, komunitateak corpusarekiko lukeen aldentzeak ahalbidetuko luke ondarearen azterketa. Soilik funtzionalitate teorikoa duen ondare kulturala arrotza da erreferentziazko komunitatearendako, eta bertara hurbiltzen diren adituek antzinako moldeen, aztarnen, gordeleku gisa atzematen dute corpusa: bizirik ez diren tasunen biltegi gisa²¹⁸.

Alabaina, funtzionalitate honek, transmisioa etenagatik, galduriko funtzionalitate desberdin baterako laguntza eskaini lezake. Bertzeak bertze –euskal komunitateari, 60etan, kanta zaharrekin gertatu gisa–, corpusa biltzeko interesa piztu liteke, eta funtzionalitate teorikodun corpus horrek eskaini ahal dio aitzinez jasotako bildumari berantago heldu ahal izateko oinarria.

²¹⁸ “Ainbeste kantu ditugu erriak berak egiñak, benetan errikoiak, erriaren aotatik artuak. Zergatik orduan ez ditu erriak kantatzen? Zergatik gelditu dira R. M. Azkue ta A. Donosti’ren museoetan” (Julian Lekuona, “Euskal musika berri”, “Gazte naiz” atala, 1966, 166: 7); “Kultura ez da museoetan gordeta dagon zerbait: bein sortu ta bereartantxe gelditzen dan zeozer. Kultura eguneroko, garai bakoitzeko bizitzak egiten du. Ta guk, lehen esan bezela, antziñakoengandik, gure aurrekoengandik naiz kultura bat jaso izan, hori ez da or bukatzen, gaurko gizon eta emakumeok ere badegu kulturadun izateko eskubidea, ta badugu gañera, kultura aberasteko obligazioa” (Mari Karmen Garmendi [Garmendia] Lasa, “Gazte naiz” atala, 1966, 200: 7).

Funtzionalitate praktiko-soziala

Komunitateak ondare kulturalako elementua bere alde darabilenean; hau da, bere beharrak asebetetzeko erabiltzen duenean. Komunikaziorako tresna gisa baliatzen diren elementuek funtzionalitate hau beteko lukete; ez guziak, ordea. Funtzionalitate sinbolikoarekin alderatuz sumatzen da, adibidez, gakoa komunikazioan elementuari ematen zaion balioan dela. Balio sinbolikoa duten AOK-ko elementuek, komunikazio egoeretan parte hartu arren, funtzionalitate praktiko-soziala gailentzen denean, erabiltzen dira komunitatearen nahiak –desirak–, beharrak –ideologikoak, estetikoak, kulturalak– eta kexak –aldatzeko irrikak– agertzeko; baita horiek guziak bideratzeko helburuz ere. Beraz, balioa atxikimendu emozionalaz bertzelakoa da.

Errate baterako, soziala zen, nagusiki, bertso-paperak XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasieran zuten funtzionalitatea; euskal hiztunendako, komunikazio modu nagusietarikoa izan baitzen (Garzia 2007a: 56), eta, horregatik, jendearen nahiak, beharrak, kexak, desirak eta kritikak agerrarazteko, gainerakoei jakinarazteko eta zabaltzeko bide garrantzitsuenetarik bat zen.

Funtzionalitate sinbolikoa

Funtzionalitate honek espresuki eragiten dio elementu kulturalen eta komunitateko partaideen arteko loturetan arazoiaz haraindikoenerari. Adierazgarritasun sinbolikoa da funtzionalitate sinbolikoa nagusi den ondareko balio nagusia. Funtzionalitate hau duen ondareak komunitatekoa ez den partaide batendako deus guti adieraz lezake; baina, agerian duen erranahia baino aunitzez sakontasun handiagoko inplikazio emozionalak ditu, erreferentziazko komunitate partaideendako. Funtzionalitate hau adierazi ezkutuaren interpretaziotik eratorria da; hain zuzen, AOKren balio kultural eta historikoen eraikitako ulertzetik eratorria.

60ko eta 70eko hamarkadetan, musikaren arloan, funtzionalitate sinbolikoarekin erlazioan izan zen hitzez haratagoko konpromiso emozionala: nazio identitatearen berreskuratze hastapeneko ekimenetan, bat-bateko bertsolaritza saioetan eta, bertzeak bertze, Mikel Laboaren kantagintza performanceetan, sortzen zen entzute zeremoniatsuak lagundurik.

Hiru funtzionalitate horiek, ordea, ez dira konpartimentu estankoak, ondare kulturalako elementuetan hiru alderdiek baitute presentzia; batik bat, baliabide sinboliko

gisa bizirik irauten dutenetan. Kasu horietan, biziraupenerako beharrezko dira funtzionalitate batetik bertzerako kulunkatzeak.

Horregatik, aipaturiko hiru funtzionalitateak bere horretan ezinezko diren abstrakzio idealtzat ulertu behar dira, ez erreferentzia burujabe gisa. Baliabide sinbolikoak, *continuumean* irauteko, behar-beharrezkoa du funtzionalitate bilakaera, eta, gehiago edo gutiago, baita aldiberekotasuna ere. Hala, bada, garaiz garai, funtzionalitate bakoitzaren zamak intentsitate desberdinez eraginen dio elementuen eta komunitate partaideen arteko harremanari. Aldiberekotasun horren oinarrian, ondare kulturalako elementuek dituzten alderdi kultural eta historikoa dira²¹⁹. Batetik, ondareko corpusa kulturala da, balio kulturalaz osatua delakotz; bertzetik, corpus horretako elementuak historikoak dira, horiekiko asoziazioak, denboraren poderioz, aldatu egiten baitira. Bi alderdi horien izana funtzionalitateak baldintzatua da; hau da, ondareko elementuek erreferente diren komunitate kulturalan duten funtzionalitateak baldintzatua.

Funtzionalitatea irizpide gisa erabiltzearen alderik interesgarriena da, komunitate kultural beraren barrenean, ondareko elementu bakoitzak aldi bakoitzean izaniko bilakaera, jarraitutasun gisa, ulertzen laguntzen duela; errate baterako, euskal komunitate kulturalaren identitate kulturalak hondarreko mendean izaniko garapena perspektibaz begitatzeko balioko luke. Sarri, xehetasunen zurrumbiloan erortzen gara, eta prozesuen ibilbidean izaniko eten, moldatze eta aldatze zakarrak bide jarraituan gertatzen direla atzendu egiten dugu.

Ondoko azpiatalean solasgai izanen den ondare kulturalako atala AOK izanen da. Erran berri ditugunak kontuan izanik, corpus horren balio kulturalak eta garai desberdinetan garaturiko asoziazioak euskal komunitateko partaideek egotziriko funtzionalitateari lotuak behar lukete. Funtzionalitate horietariko bakoitzaren gibelean atzemate desberdinak izan zirela ikusiko dugu, komunitateak elementu komun horiek interpretatzeko eta atzemateko moduak garatu baitzituen. Bertzeak bertze, 60etatik aitzina iraganaren eta orainaren artean eraiki zen erlazioa eragile izan zela azalduko dugu; hain zuzen ere, harreman horrek baldintzatu zuela AOK-ko elementuek funtzionalitate sinbolikoaz bertzelako bidea garatu izana.

²¹⁹ Bi alderdi horiek, printzipioz, baliabide sinboliko guzietan parteka ditzaketzen arren, AOK-ko elementuekiko –beraz, bertan agertzen den tradizioarekiko, erran nahi dugu–, soilik, landuko ditugu, hemen; izan ere, baliabide sinboliko gehiagok partekatzen dituztela argudiatzeak sobera luzatuko bailuke lana. Etorkezinean helduko diogu kontuari.

3.1.3.b. Euskal ondare kulturalaren funtzionalitate berriztatuak

Goiti, ondare kulturalako elementuek, baliabide sinboliko direnek nahiz ez direnek, izan ditzaketen funtzionalitateak ikusi ditugu. Orain, kasuistika hori aztergai den 1960-1975era bitarteko kultur moldaketaren faseari aplikatu behar. Horretarako, 60ko hamarkadan iraganetik berreskuratu zen AOK-ko elementuen izanari eta komunitatean garatuz joan ziren funtzioei erreparatuko diegu; hau da, komunitateak AOK-ko elementu horiek nola atzeman zituen, eta zertarako bereganatu ziren.

Lehenik, iraganetik berreskuratu zen corpusaz eta corpus horrek jasan zuen birmoldatze nagusiaz arituko gara (b.1.). Ondotik, AOK-ko bertsolaritza bat-batekoaren kasuari behatuko diogu (b.2.); izan ere, adibide horrek agerraraziko du AOKren baitako bi alderdik, garai berean, funtzionalitate garapen hagitz desberdina jasan zutela. Akitzeko, kultur ondarearen funtzionalitate aldaketak militantziarekiko ekarri zuen eztabaidaz arituko gara (b.3.).

Gisa horretan, 1960-1975 bitarteko AOKren berriztatzea –funtzionalitateari dagokionez, bederen– anitza eta konplexua izan zela ikusiko dugu.

b.1. Iraganeko fosilak: funtzionalitate sinbolikoa

60etan abiatutako birmoldatze kulturalan euskal ondare kulturaletik berreskuratu ziren elementuei erreparatzen bazaie, agerikoa da zenbaiten funtzionalitatea gaugerero hagitz urria zela.

Batetik, koplak zahar²²⁰, hitz-joko eta genero epiko-lirikoak alderdi teorikora bakarrik zokoratua zuten behinolako funtzionalitatea, aspaldidanik:

Ordura arte [60ko hamarkadara arte], kantu horiekin gertatutakoa guztiz normala da inguruarekin alderatzen denean: arkeologia kultural baten parte baino ez ziren. Han eta hemen norbaitek gogoratu eta kantatzen omen zituen, baina gehienbat ahaztuak ziren, ez bada Azkue edo Donostia eta gainerako erregistratzailearen gordailuetan. (Gorostidi 2011: 45)

Bertzetik, kanta zaharrek erabilera hagitz mugatua zuten gisa, bertsopaperek ere berebiziko aldaketa jasana zuten, XX. mendearen hasieratik hizpide den garaira bitartean. Bertso modu horrek funtzio komunikatibo handia izana zuen: “Their use remained widespread from 1820 right up to the 1960s” (Garzia 2007a: 56),

²²⁰ Koplak zaharrek funtzionalitate mugatua dute gaur egunean ere; kasik poesia idatzian eta musikarien hitzetan soilik erabiltzen dira; “Processional *koplak*, on the other hand, remain alive in many parts of the county” (Garzia 2007a: 55).

the *bertso-paperak*, there can be no doubt that their value transcends that of their texts. For more than a century, *bertso-paperak* were the main (and practically the only) means of communication for the Basque-speaking community. (*Ibid.*: 56)

60etarako, ez zuten kasik funtzio praktiko-komunikatiborik, herriaren gehiengoan, eta iraganeko komunikazio modu baten arrastoak ziren, nagusiki.

Alabaina, 1960-1980 bitartean berreskuratu ziren AOK-ko elementuei bertze funtzio nagusi bat gaineratu zitzaien: kanta edo koplak zahar eta baladek funtzio sinbolikoa eskuratu zuten, orduko komunitatearen zati batendako. Komunitateak, iraganetik heldu ziren hitz ezezagun horiekin, arrazoiak haraindiko atxikitzeak, taldekako bizipen emozionalak eta iraganeko garaien irudikatzeak bizi zituen.

Bertsopaperekin ere gauza bera gertatu zen; kasik akitua zuten funtzionalitate praktiko-sozialari funtzio sinbolikoa gaineratu zitzaion. Iragan bateratuaren atzemate iturri izateaz gain, etno-historiaren gordelekua zen corpus hori:

The variety of the subjects dealt with by the *bertso-paperak* is astounding: sporting exploits, events from distant wars, whale-hunting, love affairs, mythological genealogies, and soon; everything that concerned or mattered to the community was reviewed in the written *bertsos*. Together the corpus of *bertso-paperak* constitutes a comprehensive manual of oral history, and in this sense it is an obligatory reference for anyone not content to settle for the official version of events. (*Ibid.*: 56-57)

AOK-tik berreskuraturiko ondarearen –iraganeko errealitatearen–, funtzionalitate sinbolikoaren eta hitzez haratagoko entzutearen arteko harremana ulertzeko, argigarri dira Gorostidiren ondoko hitzak:

60-70eko hamarkadetako eztandak beste kanta-mundu zahar baten leihoa zabaldu zigun. [...] Euskaraz kantatuak ziren, bai, eta horrek egiten zituen gure, baina asko eta askotan ulergaitzak zitzaizkigun, edo ulertzeko oso zailak behintzat. (2011: 45)

Balio sinboliko hark hitzen ageriko erranahiaz gaindiko iraganeko elkartasuna aditzera eman, eta orainaldiko piztea lagundu zuen, komunitateko kideen eta entzuleen kontzientzietan. Gorostidik berak hitz hauetan aditzera eman gisa, “altxor” ziren, berendako: “Gure tradizioak zabala eta zaharra behar zuen izan derrigor, zeren barietate handikoa sumatzen genuen belarrietan eta, zentzu horretan, ulertzeko zailtasunak gehigarri bat ematen zion altxorrari”²²¹ (*loc. cit.*).

²²¹ Hitzotan, ondoko atalean aipagai izanen dugun jarrera aldaketaren arrastoak sumatzen dira: Oteiza eta Arestiren adibideekin irudikatu dugun euskal ondarearekiko jarrera positiboa eta, haren ondorioz, komunitateko partaideek lortu zuten duintasun sentimen kolektiboa; izan ere, pertsona bakoitzaren hautematea bere nazioarekiko estimuari lotua da.

Gainera, sakontasuna eman zien funtzionalitate sinbolikoak. Komunitateak arrazoimenaz haratagoko loturaz hornitzen ditu funtzionalitate eta balio sinbolikoak, eta, euskal komunitatearen kasuan, kanta edo koplak zahar, balada eta bertso paratuak –bertsopaper gisa edo bertzela emanak zirenek– iragan komunarekiko lotura eta sustraiak zituzten; helduleku kultural gisa atzemanak, iraganeko aldi komunaren oinarri gisa eskaini eta hauteman ziren.

b.2. azpiatalean ikusiko denez, ordea, izan zen bertzeko funtzionalitate garapena nagusi izan zuen AOK-ko alderdirik.

b.2. Bat-bateko bertsolaritza: funtzionalitate praktiko-sozialerantz

Bat-bateko bertsolaritzaren²²² 1960-1990era bitarteko garapena tesiaren atal honetara ekartzea garrantzitsua iduritu zaigu; izan ere, euskal birmoldatze kulturalaren baitan, baliabide sinbolikoen aldaketak eta, espresuki, egokitzeak sumatzeko adibide aski garbia da; ondare kulturalaren funtzionalitateak berriki hizpide izan ditugu, eta bat-bateko bertsolaritzarekin gertatuak funtzionalitate horiek jasaniko moldaketak argitzen ditu.

Bertsolaritza molde biek –bat-batekoak eta paratuak– euskal kulturaren zituzten kokaguneak trukatzeko joan ziren; bertso paratuen artean, bertsopaperek, mendearen lehen herenetik hasita, bazterrerara jo zuten, eta bat-bateko arituak, aldiz, gune aldera. Bat-bateko bertsolaritzak eta kantarien corpusak ere funtzionalitate sinbolikoa bilatzen zen garaia partekatu izanagatik (1960-1970), iragan eta orainaldi asoziazioak guziz baldintzatu zuen AOK-ko elementuen bide paraleloa –80etik aitzina hasia, bereziki–.

Bat-bateko bertsolaritza funtzio praktiko-soziala berreskuratuz joan zen, 60etatik aitzinako moldatze kulturalen. “Biziraupen aroan” (1945-1960) nagusi ziren Basarri [Inazio Eizmendi] (Errezil, 1913-1999) eta Uztapidek [Manuel Olaizola] (Deba, 1909-1983) “ezer gertatu izan ez balitz bezala kantatu behar dute, iraganeko eta uneko gertakizun asko aipatu gabe” dio Joxerra Garziak (*basqueliterature*); aldiz, “Erresistentzia aroan” (1960-1979), bertsolariek herriari entzun nahi zuena eman zioten:

Bertsoak xumeak eta sinpleak izango dira: txapelketetan gutxitan entzungo da lau puntu baino gehiagoko bertsorik.

²²² Informazio nagusia bat-bateko bertsolaritzan adituak direnen lanetatik atera dugu, eta, gehienetan, Joxerra Garziaren lanak izan dira iturri (2007a, 2007b, 2002, 2012).

Txapelketa horietako bat-bateko bertsoetan dentsitate poetiko handiko ahapaldiak aurkitu nahi dituenak sekulako ezustea jasoko du. Bertsolariei jartzen zaizkien gaiak topiko-arketipikoak dira batik bat. (*basqueliterature*)

Aritu horren gibelean, 60-70etan euskal ondarearekiko, orokorrean, bizi zen harreman sinbolikoa zegoen: komunitatea euskal identitate kulturalaren baieztapena laguntzeko adierazgarrien egarri zen, hamarkada horietan.

Ordutik aitzina, garaiak berak bideratu zuen parte-hartze zeremoniatsuaz haratago egin zuen bat-bateko bertsolaritzak, partaidetzaren giro liturgikoan ardaztua izatetik, bide zabalagoetara joaz. Erran nahi baita barne-balioen ahalmenean oinarririk, funtzionalitate garaikidea lortzeko eraldaketak sorrarazi zirela, bat-bateko bertsolaritzaren baitan.

Prozesu horretan, funtzionalitate praktiko-soziala bertsolaritzaren balio sinbolikotik gero eta askeago ageri zen: euskal kulturak garai berrietara egokitze hartu zituen bideetan barna, bat-bateko bertsolaritza balio sinbolikotik askatu, eta publiko anitzagoari aritzeko moduan garatu zen. Beraz, bat-batekoak bide propioa, bere baitako elementu eta ahalbideei begirakoa, nabarmen aitzinatu zuen: Bertsolari Elkarteak (1986, 1987an Bertsozale Elkarte bihurtua), “Hitzetik hortzera” saioak (1988), Amuriza eta Egañaren ekarriak eta abarrek erakusten dutenez.

Denbora berrietara egokitze horretan, medien munduan sartzen jakin izanak sostengu garaikidea eman zion bat-bateko arituari; iraganeko elementu ukiezina baino gehiago, adierazpide kultural garaikide bihurtuz joan zen: “Herriari kantatzetik publikoari kantatzera” aldian (1980-1998), balio sinbolikoaren zamatik askatuz, funtzionalitate praktiko-sozialaren moldatze garaikidean bete-betean barneratu zen bat-bateko bertsolaritza.

Bat-bateko bertsolaritzak sostengatzen zuen identitate kulturala zabalagoa izaki, balio sinbolikoaren “zamatik” askatzeko aukera izan zuen. Orduan, balio sinbolikoaren karga funtzionalitate praktiko-soziala bereganatzeko zailtasun izan zen; horregatik, funtzio egokitzeak gertatu ziren, hartzaileen aniztasuna²²³ agertzearekin batera eta balio sinbolikoaren beharra gutitu ahala.

Funtzionalitate horien gailentzeak komunitateak, kultur moldatzean –eta AOK dela medio–, iraganaren eta orainaren artean zein erlazio garatu zuen agerrarazten du; *continuuma* nola berregituratu zen, alegia. Lehen fasean, gaurgero urrutikoak ziren

²²³ (Etxebarria eta Kalzakorta 2009: 60; “Herriarentzat abestetik publikoarentzat abestera: 1980-1998”, in Garzia 2012: 76-89; Garzia *basqueliterature*)

baliabideak eskaini zitzaizkion komunitateari, eta beren jabe egin zen jendea: komunitateak AOK-ko elementuetan balio sinbolikoa bilatzen zuelarik, funtzionalitate sinbolikoa beretu zuen ondare horrek, nagusiki. Bigarren fasean, lehen pausu horretaz gain, ondarearen izaera berezkoaren izanarekin bat heldu ziren bideak, berezituak, garatu behar izan ziren.

Hala, bada, elementu kultural berak garai desberdinetan izan dezakeen garapena agerikoa da: Mikel Laboak eskaini zituen AOK-ko elementuak –kanta edo koplak zaharrak– berreskuratze saiorako fosilduak izanagatik, beren baliotzea abiatu zen. Hots, kantariak garaiko kideekin eginak euskal ondare kulturalaren zati bat marjinalitateetik atera zuen; jadanik funtzionalitate teoriko hutsean, guti batzuen eskura, geraturiko AOK-ko elementu horiek funtzionalki marjinalak baitziren komunitatearendako. Denboraren poderioz, komunitatean onartze eta finkatzeak sendoagoak izan ziren heinean, AOK-ko baliabideetan funtzio sinbolikoaren garapena desberdina izan zen; bat-bateko bertsolaritza eta AOK-ko “fossilak” desberdin bilakatu, eta Euskal Kultur Eremuan (EKE) kokagune diferenteetan jokatzerara heldu arte.

b.3. Militantziaren eta kultur garapenaren arteko kinka

Alabaina, kultur ondarearen berriztatzeek aldaketa sakonak ekarri zituzten, eta, horietarik zenbait, ez ziren aisa onartu. Sortu ziren kinka nagusi horietariko bati erreparatu nahiko genioke, ondoko orrialdeetan; izan ere, ondarearen berriztatzea lagundu zuten kulturgileek arazoak izan baitzituzten beren izaera profesionala eta berrikuntza uztartzen.

Ikusiko dugunez, militantziak kultur eremu oro eragin zuen, eta haren presioa hagitz nabaria izan zen, tradizioa mantentzearen edo berritzearen arteko kinka agertu zuten eremuetan. Hori dela eta, eztabaida horrek kultur eremuari osotasunean nola eragin zion laburbildu nahi izan dugu. Horretarako, garaiko *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak corpus gisa erabili ditugu.

Errana dugu, jadanik, nazio berpizkundeetan –nazionalismo molde orotan²²⁴– sakrifizioaren ideia eta ideia horretatik ekintza nahiz sentimenak oinarritzekoak izaten direla (Guibernau 1999: 94). Ekintza eta sentimen horien arteko zubia sakrifizioaren ideiak, nahiz ideia bera biltzen duten sentimenez, osatzen dute. “Forma” aunitz har

²²⁴ Oroitu, nazionalismo molde desberdinen izanaz, oinarri teorikoen atalean egin diren zehazteak (1.1.3.ko a. azpiatala, bereziki).

ditzake, ordea, eta ez da beti modu berean ezarria izaten. Euskal komunitateak 60ko hamarkadatik aitzina biziriko berpiztean, kasu, komunitateko kideek kulturgileei eginiko eskakizun nagusietarik bat izan zen sakrifizioa; eskakizun horren mugak, haatik, kultur mailan –eremu espezifikokoetako garapen berezituaren mailan ere– aitzina egitearekin kinkan agertu ziren.

Batetik, beraz, inplikazio hori, naturalki, nazioaren aldeko jarreratzat agertu zen, hasieran:

Gaurko gazteak dana erderaz kantatuten dabe musika ariña edo ritmo modernoa bada beñepein. Zergaitik Euskalerrian be euskerazko musika nago geure gazteren bat musika eriña egiten eta euskeraz kantatuten asiko ba-litz, Euskalerriko gazterik txalotuena eta maitatuena izango litzakela.

Aurrera musikaalri [*sic*] gazteok, Euskalerrria zeuen zain daukazue! (Egile ezezaguna, “Euskaldun gazteok, itxartu!”, *Anaitasuna*, 1966, 133: 3)

Modan ziren ereduak hurbiltzea euskal komunitatearendako onura izan zitekeen, beren gabezia handia baitzuen euskal munduak. Zernahi gisaz, ez zen euskal komunitatean soilik hala bizi. Aski jakina da Katalunian ere antzeko inplikazioak, sentimenak eta ekintzarako nahiak izan zirela nagusi, eta euskal aldizkarietan ere izan zuen islarik:

bere musika [Raimon-ena], musika ariña da, gure egunetako musika. Baiño musika bikaiña, jatorra, batez be berbarekin batean entzuten danean. Dena katalanez abestuten dau. Berak diñonez orain erderaz kantatutea, bere erriari traiziño bat egitea litzake. Denpora gitxian 70.000 disko saldu dauz Raimon'ek.

Gazte zintzoa eta txalogarria benetan geure Raimon jatorra!” (Egile ezezaguna, “Raimon. Askatasunaren eske garrasika”, *ibid.*, 1966, 133: 3)

Denborak aitzina egin ahala, ordea, inplikazio²²⁵ hori eskakizun bilakatu zen, eta ugariak izan ziren, garaiko aldizkarietan, bi nazioengandiko eskakizunaren islak.

Halatan, konpromisoarenak uste ziren sakrifizioak euskaltasunaren ezinbertzeko baldintza gisa atzematen ziren. Xabier Kintanak, *Eurovisión* dela eta, J.M. Serrat-i erranikoetan, adibidez, saldukeriaren itzala ageri zen, baldintza horietarik bati kale egiten zion kantariarendako zigor gisa:

Egia esan, Joan Manuel, ez zeunkan bide askorik ofizialtasunaren aldetik. Kataluiñarra ziñan, benetako gizon bat. Ez zenduan agertu nai zeurea ez zan izkuntza eta arima bat; orrexegaitik ez zenduan erderaz abesten. Ta orrexegaitik ez zenduan laguntasunik euki.

Zeure errian errespetatua izan ziñan, ori bai. Ta baita beste toki askotan bere. Zapaltzaille kontzientzirik ez daukenak maite izan zaitue, Serrat.

²²⁵ “Euskal Herria, danon ardura.” (Xabier Kintana, “Zer dogu Euskal Herria?”, *Anaitasuna*, 1966, 141: 4)

Baiña guzti ori udabarriko aize epela biurtu deuskuzu, Joan Manuel: erderaz kantatzen asia zara.

[...]

Zugan ezin dot diru goserik ikusi. Poetatzat euki zaitut. Diruak eta famak iruntsi ete zaitu? Ez neuke pentsatu gura beintzat. (“Joan Manuel Serrateri idazki idigia”, *ibid.*, 1968, 157: 7)

Sakrifizioak harturiko adiera horretan, garaiak berak hala bulkaturik, hizkuntza eta kultura bakarrarekiko atxikitzea eskatzen zitzaion abeslariari. Ideia bera dakar “Estitxugaz Alkarrizketan. Katalandar abestiaren arriskuak” artikuluak, non, Joan Fuster-en hitzak hizpide harturik, katalandar abestiaren akiera azaltzeko arrazoien artean, honakoa ematen den: “protestalari ziran abeslari gehienak, euren arimak, deabruari saldu deustoezala (honeek be, Fuster-en itzak dira), ta euren abestien itzak bigunduz, burgesiaren aurrean makurtu dirala” (Xabier Gereño, *ibid.*, 1969, 174: 6). “Saldukeria” horren gibelean, bere nazionalitatea bertzelako helburuen mesedetan saldu zukeen kulturgilea zen; bereziki, nazio gutitua eta estatu nagusiaren magaleko kultura aurkari eta kontrajarri gisa bizi baitziren, hagitx, diktadurapeko hamarkada horietan.

Hala, bada, kultur eremuaren baitako aritu oro nazioarendako eginkizun gisa sumatzen zuen komunitatearen zati batek:

ANAITASUNA aldizkari onetan edo beste edozein aldizkari baten parte artzen ez da “ondo dagon jolas bat”, egin bear bat baiño. Gure erritarrak, gure inguruetako beste errietakoak, mundu guztikoak eskatzen deuskuen eginkizun bat da. Gure adimen ta borondateak erriaren alde jokatzeko bidea erakutsi bear deuskue. (Angel Ugarteburu, “Gaztediari deia”, *ibid.*, 1966, 138: 5)

Euskal munduaren aldeko borroka kulturalak, euskal ondarearen lanketaz gain, espainiar kulturaren bazterketa ekarri behar zuen. Gisa horretan, euskal komunitatearen duintasuna berreskuratzeko ekimena estatuaren babespeko kulturari kontrajarria balitz bezala ulertu zen.

Edonola ere, zenbaitendako, eginkizun horren mugak itogarriak ziren; hortaz, militantziaren monopolioarekiko jarrera desberdinak agertzearekin zabaldu zen aldaketa: fokua kultur eremuaren profesionalizazioarekiko kinkan jarriaz, militantzia zalantzan jarri zen.

Lourdes Iriondok presio hura kritikatu, eta kulturgileek beren aritua aitzinatu ahal izateko sentitzen zuten itolarria agertu zuen:

Gure izkuntza, gure artea eta gure artistak, poliki polikim [*sic*] il egiten ditugu. Gauzatxoak organizatuz jostaketan ibiltzea gustatzen zaigu. Antzerki egitera jostatu, bertso egitera jostatu, akistola [*sic*] goraberekin jostatu, euskaldun izatera jostatu... Baiñan egitazko laguntza sario [*sic*] eta praktiku bat emateko garaiean, orduan txanponak bakarrik botatzen ditugu «txinotoen» boltsara. Jaialdi bat eratu, sos batzuek atera, eta aurrera, beste bat arte.

Badirudi gure eguneroko bizitza gauz bat dala, eta euskal-bizitza beste bat. Gure bizimodua itxuratzeko garaiean, lana sendo egin, diru asko irabazi, etorkizuna ondo moldatu. Euskaldun izateko garaiean berriz, jostatu, limosna eman; ortik aurrera, irripaz asko, malko merke asko, eta kitto.

Ikastola baten gastoak ordaintzeko jaialdi bat eratu dala, ta bertara kantatzera joatea oso gauza polita da. Baiñan Euskalherriko abeslari, poeta, idazle, pintore, musiku-eta gañerako artista guziak, bere bizitza «arte» egiñaz jostatzen pasatzera beartuak egongo ote dira, beren herrian jateko aiña ere eskuratzen etzaielako?” (“Euskalherriko eskaleak”, “Gazte naiz” atala, 1967, 205: 7)

Kulturgileengandiko aldaketaren jatorri nagusia komunitate beharrak garatzetik heldu zen. Hori dela eta, bigarren behar maila zenbat eta indartsuago, orduan eta nabariagoa izan zen problematikaren agerpena: “Ez da naikoa herri baten jakindurua [sic] apaintzeko, lehen esan bezela, ixtori, tradizio, herri-nortasun eta orrelako gauzak bakarrik eskeintzea. Zibilizazioak behar berriak sorturik, erantzun bat eskatzen du” (Mari Karmen Garmendia, “Irakurgaiak”, “Gazte naiz” atala, 1966, 200: 7).

Beraz, zenbat eta behar horien kontzientzia handiagoa –komunitate garapenaren pauso nagusietariko balitz bezala–, iritzi talka gero eta gehiago laxatu zen; ez zen, bederen, hasieran adina bortitza.

Monopolio horren akiera kultur maila guzietan –hau da, militantzia gidari indartsu izana zen kultur eremu guzietan– azaleratu zen; horren akierak izan zituen ondorioak kantari, dantzari, bertsolari, idazle eta abarrengan sumatu ziren. Are gehiago, gizarte talde orokorragoei eginiko erreferentzia zuzenak ere agertu ziren: sarri, gazteei lehen egiteko nagusitzat oroitarazten zizkieten euskara eta Euskal Herriarekiko konpromisoa nahiz sakrifizioa (“Morga”, “Gaztediari dei bat”, *Anaitasuna*, 1970, 199: 11); unibertsitarioei herriari zor zioten mesedea itzultzeko eskatzen zieten (Jose Ramon Etxebarria, “Euskera teknikoa dela eta”, *ibid.*, 1972, 233: 7); edo, *Zeruko Argia* aldizkariko “Gazte naiz” atalean, Saizarbitoriak egin behar izan zuen errebindikazio bildumak berak erakusten duen itolarria (“Ez naiz jatorra”, 1965, 126: 9).

Dantzariei dagokienez, “ye-ye” delako dantza euskal dantzarendako mehatxu gisa bizi zen (“Karmel”, “Gure folklorea ‘ye-ye’-kin naastu?”, *Anaitasuna*, 1966, 134: 1, 3). Bertsolariak, berriz, beren antzinako balizko betebeharrarekiko aldeztu zituzten, eta, gisa berean, herriarekiko zordun gisa agertu:

Ta erriaren alde, bizi dogun momentuko erriaren alde, azaltzen ez danak, ez dau betetzen bere eginbearra, bertsolariaren eginbearra. Bertsolaria artista bat da. Beste erri batek ez daukon artista. Baiña artistatasun ori erriak emon deutso ta erriari deutso zor; bizi daben momentuko erriari, inguruari. (Abel Enbeita, “Bertsolariak atara ala itto?”, *ibid.*, 1968-02-15, 155. zk.)

Idazleen mundua bera, gainerako kulturgileekin egin gisa, bertsolariek aitzinatu izana zuten rolarekiko alderatu zen: denek behar zuten herriaren ahotsa izan²²⁶; hala, olerkarien betebeharra herriaren kezkei erantzutea zen (Joseba Arrieta, “Patxi Uribarren, Euskal Olerkaria”, *ibid.*, 1969, 173: 6-7). Hain zuzen ere, herriaren ahotsa izate hori kulturgileei, modu orokorrean, exijitu zitzaien, nabarmen: kulturgileei herriaren ahotsa izatea eta beren arazo eguneratuei ahotsa jartzea nahiz konponbidean laguntzea eskatzen zitzaien.

Betebehar hori, ordea, autonomiaren kontra heldu zen; Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) bera poeta gisa ezin bizi zitekeela eta, beraz, bizitzeko bertze lanbide bat behar zela kexaka ageri zen (“Poetei emandako pagua”, *Anaitasuna*, 1970, 190: 6). Joxe Azurmendik, “Non egon behar dau idazleak?” artikuluan (*ibid.*, 1970, 194: 7), idazle askatasunaren eta konpromisoaren arteko kinka ekarri zituen hizpidera: munduan zeharreko adibideak hurbilduz, askatasuna eta konpromisoa elkartzea hagitz zaila omen, idazleendako.

Hala ere, momentuan sona handiena lortu zuen eztabaida kantariena izan zen.

gauza bat dago argi: Erriak ez daukala nahi, informazino ta turismoko talde bat lez, diru trukez eksibizino eder bat egiten dauan euskal kantari talderik. Erri sentitzen dan taldea nahi dau; eta ona bada, mila bider obeto. Ta Erri sentitzeak, bere konpromisutxoak daukaz; ez bakarrik euskerea sartzen dan arloan, baita diru arloan bere, eta gehiago oraindino euskerea, Erritasuna ta dirua alkartuta agertzen diranean. (Imanol Badiola, “Ez dok amairu, ez eta ez”, *ibid.*, 1970, 180: 3)

Hau da, kulturgileen betebeharrak nazioarekiko sakrifizioari atxikia behar zuen. Zernahi gisaz, arestian erran bezala, ezin ahantz liteke kultur eremu desberdinetarik sortua izan zela aldaketa, eta, zabaltasun horregatik, militantziarekiko mehatxu gisa sentitu zen euskal kultura jomuga desberdinetatik landu nahia.

Hala, bada, sakrifizioaren beharra profesionalizazioarentzat muga gisa sumatu zuten komunitateko kide eta kulturgileetarik zenbaitek²²⁷; artistaren izaera euskalduna eta amateurismoa gainditu behar izan ziren. Artista euskaldunaren esentziari komunitateari zor zion sakrifizio sentimenetik behatu zitzaion; hartara, kulturgileen “euskalduntasuna” sakrifizio ekonomikoari zen, printzipioz, atxikia.

²²⁶ Herri ahots izan beharraz, Angel Zelaietaren “Galdakanoko Euskal Jaia” (*Anaitasuna*, 1968, 171: 6-7).

²²⁷ Testuinguru horretan, preseski, hainbat behar nabarmendu ziren; bertzeak bertze, euskaraz idatzia gehiago erreparatzea, txukunago idaztea eta idazle aritua zaintzea (Gaztañaga, “ ‘Zenbat korrejidu bear dauan idazleak...’ ”, *Anaitasuna*, 1968, 169: 5, *Zeruko Argia* aldizkaritik bizkaieratua).

Profesionalizazioak inplikatzeko zuten autonomia ekonomikoak²²⁸ –lanbideari dagokion horrek– muga handiak zituen: “euskal liburuak argitaletxeari dirurik uzten ez dion bitartean, profesionaltasunik lortzea gaitz izango da. Ezinezko, hobeto esanez. Liburugintzaren aparatua amateurismoan segitu beharko du” (aunitzen artean, *ibid.*, “Hementxe denok” atala, 1975, 190: 10-11).

Amateurismoa gaintzea, beraz, kultura goititzearekin eta aitzina egin nahiarekin zen, zuzenki, kontrajarria: aitzinatze hori ezinbertzekoa zen, euskal komunitatearendako. Pauso horrek duintze prozesuaren segida naturala maila bat jaso, eta etorkizun egonkorrago baterako oinarriak ezarriko baitzituen. Segida horretan, kultura izateko eta jendea horretara eramateko ezinbertzeko bihurtu ziren bai euskara batua (Gereño, “Euskera ilgo ote da? Ez, hala nahi ez badogu”, *ibid.*, 1970, 190: 1), baita Mendigurenek aipatzen zuen “asfaltu euskara” ere (“Asfaltu euskara”, *ibid.*, 1974, 274: 1-2). Hala, euskara batua euskal gizarte moderno baterako eta etorkizuneko proiektio bizia izateko sinbolo bihurtu zen, komunitatean: etorkizun bateratu eta kultur maila gorenerako oinarritzeko tresna²²⁹.

Gisa horretara, militantziaren eta profesionaltasunaren arteko kinkan gune izan ziren alderdiak –artisten euskaltasuna autonomiarekiko kontrajarpenean bizi izana, batetik, eta kulturaren garapena amateurismo merkearekiko kontrajarpenean izatea, bertetik– nazioaren sakrifizio sentipenari arrunt lotuak izan zirela ikusi dugu.

Halatan, militantziaren gaia bi norabidetarik izan zen atzemana: galduriko ondarea eta duintasuna berreskuratzeko oinarritzeko sentimendu kolektibo gisa agertu zen; baina, hein berean, kultur mailan aitzina egiteko muga gisa sumatu zuten aunitzek. Bertzela erranda, militantzia ondarearen berreskuratze, mantentze, moldatze eta eguneratzearekiko kinkan bizi zen, edota profesionalizazioarekiko kinkan.

Joan Mari Torrealdai militantziaren monopolioarekiko kritika herriak behar desberdinak izatean ardazten zuen (“Euskal kantariak opio ote dira?”, *ibid.*, 1969, 177:

²²⁸ Kantarien autonomia ekonomikoarekin gertatu gisa, bertsolarien saioak ordaindu beharrez ere ikamika izan ziren (Igorren izaniko saio bat dela eta, kasu, *Anaitasuna*, 1967-06, 146. zk.).

²²⁹ Paragrafo honetan aipaturiko bi ideiak –kulturan goititzea eta euskara batuak horretan izan zuten eragina– *Anaitasuna* aldizkari 157. zenbakian (1968) hagitx ongi islatuak ageri dira. Bertan, euskara batua kultur sistemarako ezinbertzeko agertzeaz gain, kulturaren beharra aldarrikatzen zen, etorkizuna nahi duen komunitate batendako ezinbertzeko baldintza gisa. Etorkizuna ikusmiran, duintze lanaren ondorioak eragiten hasiak zirela sumatzen dugu.

6)²³⁰; beraz, hain zuzen ere arestian aipaturiko ideiarda hurbilduz, herriaren premia mailak asebetetzeak monopolio horretatik askatu beharra eskatzen zuen.

Laxatu beharreko militantzia horren helduleku gisa suma liteke Joseba Arregik, “Euskal psikologia” artikuluan, aipagai zuen adoleszentismoa (*ibid.*, 1973, 266: 1-2):

Orain dela zenbait urte, euskal kulturaren kritika egin nahiz, kultura honen akatsetako bat bezala, adoleszentismoa aipatu zuen M. Lasak (Jakin 34). [...]

[...] Euskal kulturaren adoleszentismoa geroztik ere aztertua izan da (J. Azurmendi), eta ukatzerik ez dagoen gauza dela uste dut. [...]

Euskal kulturaren adoleszentismoa: gauzak absolutizatu nahi gabe ere, gazteen eta gazte taldeen gauza bihurtu da euskal kultura. (1. or.)

Arregik, 1973aren akieran –kasik 1974an–, erranari militantzia hala bizi eta eskatu izanaren gibelego arrazoi pare bat gehitu beharko litzaizkioke: batetik, kulturgileen eta herriaren arteko distantziaren –momentu zehatzetan izaniko distantziaren, erran nahi dugu– erakusgarri dela; eta, bertzetik, euskal komunitateak zituen oinarrizko behar horien garrantziaren sintoma izan zela militantziakeria hura.

3.1.3.b. azpiatalean, etno-sinbolismoak espresuki erreparatzen duen harremanetarik bat landu dugu: iraganaren eta orainaren arteko harremana (Smith 2009: 39). Beraz, euskal komunitatearen *continuum* kulturala nola gauzatu zen hausnartzeko aukera izan dugu; berreskuratu ziren AOK-ko elementuei erreparatuz, agertu dugu komunitateak, kulturalki, iraganarekiko ezarri zuen erlazioa birjabetzan, jarraitutasunean edo errepikan oinarritua izan ote zen. Ikusiek orainaren eta iraganaren artean –kulturalki, bederen– birjabetzan oinarrituriko harremana ezarri zela erakutsi digute.

Batetik, AOK-ko baliabideen funtzionalitate garapenari behatuz, komunitatea –1960-1975 bitartean– iragan kultural komuneko corpusa berreskuratu eta hurbiltzeko lanean aritu zela sumatu dugu (b.1.); iraganaren eta orainaren arteko erlazioa berriz aurkitu eta irudikatzeaz gain, horietaz kontzientziaztea ekarri zuen prozesuak. Berreskuratze prozesuan, corpusaren balio materialaz haratagoko lotura sortu zen: balada, kanta edo koplak zahar, hitz-joko, bertso paratu eta abarretan ageri zen edukia komunitate partaidetza komuna sostengatuko zuen bideratzaile bihurtu zen, iragan heroiko baten erreferentzia baino gehiago.

²³⁰ Euskal komunitatearendako “opiazioen” efektuari alde desberdinetarik behatu zitzaion (Mikel Ugalde, “Gezurtiak”, “Gazte naiz” atala, 1966, 199: 7)

Bertzetik, iraganaren eta orainaren arteko harremana, funtzionalitateari dagokionez, paraleloki garatu ahal izan zela agertu dugu, bertsoen adibidetik abiatuta (b.2.). 80etatik aitzina, iraganaren erreferentzia nagusia AOK-ko elementu batzuei eman zitzaien. Herriko kantak eta bertso paratuak, corpuseko gainerako AOK-ko elementuekin batera, iraganarekiko erlazioan ziren identitate beharrekin lotu ziren; hau da, iraganeko errealitate komun bateko arrasto izaki, ezkutuko izaerarekin, errealitatearekin eta atxikitzeekin erlazioan. Bat-bateko bertsolaritzak, ordea, komunitatearen orainaldiko errepresentazioa bereganatu zuen: lehenik 60-70etan gailenduriko parte-hartze liturgikoaren mugetan gauzatua, eta, 80etatik aitzina, muga sinboliko-afektiboez haratago, barne-baliabideen birmoldatze garaikidea garatuz. Beraz, iraganaren eta orainaldiaren arteko erlazioa bat izanagatik, AOK-ko elementuek funtzionalitate desberdinekin finkatu ahal izan zuten birjabetza saioa.

Akitzeko, birjabetzan oinarrituriko denbora harremana funtzionalitateari atxiki zitzaiola azaldu dugu; horregatik, kulturgileen profesionalizazioarekiko borroka nabaria izan zen, harremanaren garapenean.

3.1.3.c. Euskal ondare kulturalaren balioztatzeak

Ondoko bi azpiataletan, euskal ondare kulturalak jasan zuen birmoldatze funtzionala ulertu ahal izateko oinarriak eskainiko ditugu. Batetik, balioztatze prozesuez berez arituko gara –1960-1975 bitarteko balioztatze nagusiaz (c.1.)–; bertzetik, AOK-k jasan zuen balioztatzeari buruz arituko gara, espresuki (c.2.); azkenik, balioztatzeetako eragileen egokitze teorikoa osatuko dugu (c.3.). Hala, kultur maila zabalenera eragin zion balioztatzea agertzeaz gain, komunitatearen lehen fasean gune izan zen ondarearen azterketan sakonduko dugu: AOK-k jasaniko balioztatzearen oinarriak zehaztuko ditugu, eta prozesuaren eragileei buruz arituko gara.

c.1. Euskal ondare kulturalaren balioztatze nagusia: Balioztatze Prozesu Nagusia

Ondare kulturalaren funtzionalitatei buruz, orokorrean, aritu ondotik, aztergai dugun garai eta komunitatei behatuko diegu. Ondareak jasaniko funtzionalitate bihurteten eskutik joan zen aldaketa garrantzitsuenari erreparatu nahi diogu: EKEK jasan zuen Balioztatze Prozesu Nagusiari. Behatze horrek lagunduko digu berriztatze zehatzen gainetiko prozesuaren garrantziaz ohartzen; funtzionalitateen koherentzia

agerrarazteaz gain, kultur eremuen garapen indibidualak²³¹ zehazteko aukera eskaintzen du.

Funtzionalitate eraldaketak ez dira, beti, maila berean gertatzen. Goiti hizpide izan ditugunak, kasu, kultur ondarearen ataletan gertatu zirela aipatu dugu; AOKren baitako bat-bateko bertsolaritza eta kanta nahiz koplak zahar eta abarren arteko bide paraleloez aritu gara, hain justu. Bertze maila bateko prozesu eta eraginak izanen ditugu, orain, solasgai: komunitatearen garapen maila orori eragin zion Balioztatze Prozesu Nagusiari lotuak. Hau, ikusiko dugunez, kulturaren funtzionalitate berriztatzearen eskutik garatu zen.

AOK berriztatua, komunitatearen gauzatze kulturala ez ezik, koherentzia propioa nahiz eremu izaera zuen errealitatearen baitakoa zen: EKEkoa. Alabaina, ondare kulturalak –komunitatearen gauzatze gisa– kideekiko zuen harremana aldatu egin zen, 60etan zehar: komunitatearen izaera berezitua islatzen zuen neurrian, hamarkadetan debekatua izatetik, berreskuratu beharreko ondare alienatua izaten hasi zen.

Bihurtze horren oinarrian, batetik, EKEen bilduriko isla kolektiboaren baliagarritasuna zen: eremuan biltzen zen ondarean, identitate kolektiboaren garapenerako erabilgarri izan zitekeen errealitatea zegoen. Bertzetik, baliagarritasunaren bulkada lagundu zuten komunitateko arituak, kulturgileak eta gainerako kideak ere bihurtzearen gibelean ziren; eremuaren zati aktiboa osatzen zuten, beren lana ere ezinbertzekoa izan zen.

Kultur eremuaren eta komunitatearen arteko harreman aldaketak izan zuen ondorio nagusirik: kultur eremuaren baitako ondareak eta aditzera emaniko errealitateek funtzionalitatea irabazi ahala, gero eta maila kolektiboagoan garatuz joan zen EKErekiko balioztatze nagusia. Kulturgileek AOK hurbiltzeko egin zituzten ahaleginek, erraterako, alienatua zen iraganarekiko hurbiltasuna lagundu zuten; hurrentasuna, bai ezezaguna edo atzendua zen garai bateko bizimodua agertzen zuelakotz ondare horrek, bai ondare horren funtzionalitatea garai berrietara egokitu zelakotz ere.

Mikel Laboaren arituan, erraterako, nabaria da hurbiltasun bikoitz hori. 4.2. atalean ikusiko dugunez, kantariak 60etan abiatu eta 90ak bitarte izan zuen ibilbidean, AOK arrotza eskuragarri jarri, eta corpusaren erabilera hagitz garaikidea egin zuen; hau da, “Bereterretxen kanthoria”, “Oi Pello, Pello”, “Urtsuako kanta”, “Goizuetan” kantak

²³¹ Laugarren atalean, kultur eremuaren Balioztatze Prozesu Nagusiak eremu horretan izan zuen eragin berezitua izanen dugu solasgai (4.1.3.a.). Hirugarren kapituluaren aldiz, 1975etik aitzina ELEn abiatu ziren balioztatze zehatzak izanen ditugu aztergai (7.1.2.b.).

eta bertze aunitz eskainitzeaz gain, erabilera eta interpretazio berriak osatu, eta eskaintzaren birmoldaketa gauzatu baitzuen. 4.2. atalean erranen direnak laburbilduz, hitzen erranahiaz haratagoko komunikatze prozesuen azterketan, erabilera berriztatuz agerrarazi zituen “Baga-biga-higa” hitz-jokoa, “Haika mutil” doinua²³² eta “Xori erresinula üdan da khantari”ren hondarreko estrofa.

Hain justu, funtzionalitate berriztatze horien gisakoetan datza EKEk, bere osotasunean, jasan zuen Balioztatze Prozesu Nagusia; izan ere, prozesu horren muinean, kultur eremuko atalek lortu zuten baliagarritasuna izan baitzen. Bertzela erranda, euskal komunitateak gaurgero erabilgarri ez zen ondarea berreskuratu zuelarik, ondare horren helduleku nagusia zen eremu zabalaren erabilgarritasuna ere bulkatu zen. Gisa horretan, elementuen baliagarritasun bakanduen artean sortutako elkarreraginak, metaketak eta hartzaileengan izaniko arrakastak EKErekiko jarrera aldatu zuten: euskal kultura komunitateko kideendako erranahitsu bilakatu bai, baina, gainera, garai berrietarako erabilgarria zela sentitu zuen jendeak²³³.

Are gehiago, EKEko Balioztatze Prozesu Nagusiaren bulkatzaile funtsezkoena izan zen eremu horretako atal zehatzen funtzionalitate berriztatua. Euskal kanta nahiz koplak zahar, balada eta bertso paratuek eskuratu zuten funtzio sinbolikoak (3.1.3., b.1.) edo bat-bateko bertsolaritzaren funtzionalitate praktiko-sozialerantzako aldaketak (3.1.3., b.2.), aritu horiek berak besarkatzen zituen eremu zabalaren balioztatze nagusia lortu zuten, eta, bereziki, sendotu. Horregatik, kultur arituen baliagarritasunaz haratago, errealitate osoago bateko ondare –eta, beraz, errealitate komun– gisa sumatu ahal izan zen, printzipioz, langartua iduri zuen balioztatzea.

Euskal komunitateak modu partekatuan garatu zuen EKEren Balioztatze Prozesu Nagusia, komunitateko kideek, kulturgileek nahiz aritu horien hartzaile ziren kideek partekatzen zutelakotz; bertzetik, eremuko alde desberdinen aldibereko berriztatzea baitzen. Musikariek emaniko kontzertuek²³⁴ edo bat-bateko bertsolaritza saioek²³⁵

²³² Marmarrak kantuak bezainbertzeko indarra lortzen zuen, esperimendazio lanen entzuleengan.

²³³ Sentimen horren lagungarri izan ziren, iraganeko ondare fosilduaren berriztatzea hurbiltzeaz haratago, baliagarritasun horren erabilera garaikide nahiz abangoardiazkoa egin zutenen lana (zehaztasun gehiagorako ikus 4.2.2. atala).

²³⁴ “Elkarrekin goxatzeko parada emaiten daukute” (“entzule bat” sinadurapean, “Geure kantariak ba ditugu guk ere”, *Anaitasuna*, 1972, 237: 11, jatorrizkoa *Herria* aldizkarian agertu zen, 1972-06-01ean).

²³⁵ Alabaina, Joxerra Garziak berak “Urruntze bertsolaritza: Andoni Egaña” atalean agertu gisa (Garzia 2012: 90-102), denborarekin esperientzia partekatu horren oinarriak aldatu egin ziren; garaiak aldatu ahala, partekatzearen muina bertzelako zutarrietan finkatu zuten bertsolariek (“Herriarentzat abestetik publikoarentzat abestera: 1980-1998”, *in ibid.*: 76-98). “Entzuleria zatitu baten aurrean, balio partekatuak aipatze soilarekin emozioak eragiteko aukera nabarmenki murrizten da. Batzuentzat pozgarria dena beste

esperientzia partekatua eskaintzen zuten, jende artean bizi izanaz gain, esperientzia bera baitzen bizitua: “Bertsolariak, hirurogeiko hamarkada honetan, eta baita hirurogeita hamarrekoaren lehen urteetan ere, mundua eta funtsezko balioak ikusteko eran, berarekin bat datorren publiko batentzat kantatzen du” (Garzia 2012: 66). Oinarrian, emozioen eta hunkiberatasunaren gailentzea sumatzen dugu, alderdi sinbolikoak zuen indarraren²³⁶ erakusgarri:

Euskeraz ulertzen ez dauan edozein kritikalarik esango leuke, Mari Lourdes ez zala ondo egon. Nire ustez, bere abestiak ez dauke teknikarik, ez dabe gauza aundirik balio musikearen aldetik. Nire eritxiz, bere abestien bolioa [sic], musikan barik, beste leku baten jarri bear dogu: euskeran, euskeraz azaltzen direan pentsamentuetan, Mari Lurdesek berak berba baxotxean ipinten dauan emotibidatean. Ortxe dago euren balioa, eta orrexek berotuten dau publikua. (Jose Luis Bengoa, “Easo Abestaldea ta Mari Lurdes Iriondo Bilbaon”, *Anaitasuna*, 1968, 154: 11)

Iriondoren aritua dela eta Bengoak agertu gisa, hunkiberatasuna izan zen 60ko hamarkadan, eta 70en hasieran, gailendu zen balio kulturala. Hortaz, emozioen beratzea lortzeko, musikaren berezko balioaz bertzelako teknikak izan ziren nabarmenduak, urte luzez. Kulturgileen profesionalizazioari buruzko eztabaidak, preseski, arrazoiak haraindiko ikuspegiaren gailentzea izan zuen eragile nagusietarik bat (oroitu 3.1.3., b.3.; ikus, baita ere, 4.1.3., b.1.).

Gisa berean, komunean bizirikoa saio bakoitzak EKEko zatiren bati eragiten zion, eta, beraz, ondorioak zituen eremu zabalaren osotasunean; izan ere, Balioztatze Prozesu Nagusian eragiten baitzuen.

Akitzeko, EKEren Balioztatze Prozesu Nagusia abian zela erakusten duen hondarreko adibidea aipatu nahiko genuke, Durangoko Azokak²³⁷ aski ongi islatzen baitu eremuak jasaniko balioztatzearen prozesua bera. Bertaratuek sumatzen zuten esperientzia komunaz gain, han biltzen zen “euskal kultura” gisa, urteetan zehar, ulertzen zenaren muina; gainera, hirugarren kapituluaren ikusiko denez, azoka izan zen 70eko hamarkadan, nabarmen, aitzina egin zuten bertzelako balioztatzearen agertoki garrantzitsuenetarikoa (7.1.3., 7.2.).

batzuentzat mingarria da. Gauzak horrela, urruntzea metodo bihurtzen da, baina metodo horrek beste gaitasun osagarri bat exijitzen du: zorrotasuna, bertsolariari, gai konprometigarri edo korapilatsuenaren aurrean ere, ‘irtenbidea’ (ateraldia) aurkitzea ahalbidetuko diona” (*ibid.*: 92).

²³⁶ Alderdi sinbolikoak zuen indarraren azalpen osotua 4.1.3. ataleko “a.2. Prozesuaren segida: jarraitutasun sinbolikoa” azpiatalean garatuko da.

²³⁷ 1965ean izan zen, Gerediaga Elkarteak antolatutako, lehen ekitaldia. Andra Mari elizaren babesean –1967an salbu, Andra Mari elizan konponketak egiten ari baitziren– ospatu zen 1974a arte; orduan hasi ziren Merkatu Plazan biltzen.

Bilduma soilaz haratago, artikulugileek euskal kulturaren muina agerrarazten zuen ekitaldi gisa sumatzen zuten azoka, eta urtero-urtero egiten zen, prentsan, azokari buruzko hausnarketa. *Anaitasuna* aldizkarian, estreinaldiari buruz agerturiko lehen erreferentzian, bi ideia azpimarratzen ziren: batetik, liburu eta disko azokan “euskal gaidunak” bakarrik ziren “hogetabost argitaraldiek” parte hartu zutela; eta, bertzetik, azokak euskal kultura biltzen zuela adierazi arren, folkloreakiko distantzia nabarmentzen zen:

Jai au ez da izan gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jai bat. Euskal Jaia esaten danean folkloreako gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu izan gura dau. Folklore gauzak ezetsi gura barik, euskal kultura adierazi, indartu ta zabaldu izan gura dau. (Egile ezezaguna, “Durangoko kulturaren alde”, *Anaitasuna*, 1965, 129: 1)

Distantzia horren oinarrian, liburuak aipatzen zituen aldizkariak. Urtero-urtero azokan ikusiaren laburpena biltzeaz gain, euskal kulturaren egoera nagusia hausnartzeko gogoeta gune eta aitzaki bihurtzen zen ekitaldia bera²³⁸. Gisa horretan, euskal kulturaren balioztatzea –azoka gisa– sustatuko zuten ekimen gehiago izan baziren ere²³⁹, Durangoko Azoka izan zen nagusia²⁴⁰. Halatan, Azokaren inguruan biltzen ziren esperientzia partekatuek laguntzen dute EKEren Balioztatze Prozesu Nagusiaren nondik norakoak, zabalkundea²⁴¹, urtez urteko aldaketak eta norabideak zein ziren –eta zeintzuk nahi ziren– sumatzen; partekatze fisikoek, identitatezkoek edo sentimenezkoek bat egiten zuten ekimenen azterketekin, nagusiki.

²³⁸ *Anaitasun*an, adibidez: “Durangoko kulturaren alde” (egile ezezaguna, 1965, 129: 1); “Durango-ko azoka. Izar bat gabea” (Gotzon Garitaonandia, 1966, 142: 3); “Euskal disko ta liburuen III feria” (egile ezezaguna, 1968, 171: 3); “Durangoko Kultura Azokea” (Joan Antonio Aroma, 1969, 176: 1); “Durango. Euskal Liburu ta Diskoen Laugarren Azokea” (Julian eta Angel Zelaieta, 1969, 176: 7); euskarazko liburuen gutia “Durangoko Azoka Ondoren, hauxe dinot: Noizarte holan?” (Joseba Arrieta, 1969, 177: 7) idatzian gaitzetsi zen; “Durangoko liburu azokan” (Xabier Gereño, 1971, 222: 6-7); “Durangoko liburu azokako aipamenak” azpisarrera (Xabier Kintana eta Angel Zelaieta, izenbururik gabe, “Euskaldungoa” atala, 1972, 244: 4); “Durangoko Andre Mari elizpean” (Xabier Gereño, 1972, 244: 6); “Durangoko Euskal liburu eta diskoen azoka” (“Armendaritz” [Xabier Kintana], 1973, 264: 7); “Durangoko Liburu eta Diskoen IX. Azoka” idatzian (aunitzen artean, 1974, 285: 5) aipatzen da Lur bertaraten ez den euskal argitaletxe garrantzitsu bakarra dela; “Durangoko Azokak hamar urte” lelopean argitaraturiko zenbaki berezia (1975, 305. zenbakia) eta “Joan Alzibar”ek [Joan Mari Torrealdei] eginiko “Liburu Azoka 1975” kronika (1975, 306: 16).

²³⁹ Arrasateko Euskal Liburu eta Diskoen II. Azoka bertan behera geratu zen (eratzailerek, “Mondragoeko Euskal Liburu ta Diskoen Azoka”, *ibid.*, 1970, 202: 8) –nahiz eta hurrengo urtean izan zen (Josu Torre, “Arrasateko liburu eta diskoen azoka”, *ibid.*, 1971, 225: 8)–, baita Gasteizko Euskal Liburu Azoka ere (Eusebio Osa, “Euskal Liburu Azoka Gasteizen”, *ibid.*, 1974, 268: 10).

²⁴⁰ Azokaren indarra garaian nagusi zen identitaterako balioan atzematen da: “Hona, euskal nortasunaren kontzientziaz jabetzeko beste bide bat” (J.M. Torrealdei, “Durango hiru egunetan euskal kulturaren hiriburu”, *ibid.*, 1975, 305: 9).

²⁴¹ “– Euskal liburuak saltzeko – Euskal kultura zabaltzeko – Baiña azoka onek ez dira naiko” (“Euskal azokak zertarako?”, *ibid.*, 1966, 136: 1).

1960-1990 bitarteko moldaketaz jabetzeko, komunitatearen eta ondarearen arteko harreman aldaketak sortu zituen ondorio zehatzez jabetzea komeni da. Horretarako, 4.1. atalean azalduko direnez gain –ELeren eta komunitatearen arteko harremanaz arituko gara–, tesiaren hirugarren kapituluan ere, solasgai izanen ditugu balioztatze prozesuak –kapitulu horretan, ordea, 1975etik aitzinako fasean abiatutako balioztatze prozesu zehatzei erreparatuko diegu, modu teoriko (7.1.2., b.1.) nahiz praktikoan (7.1.2., b.2.)–.

Horri ekin aitzinetik, AOK-k, 1960-1975 bitartean, jasan zuen balioztatzeaz arituko gara: ondare horrek garaiarekiko zuen egokitasuna hizpide harturik, Thompsonnek proposatzen dituen balioztatzeetarik zein gailendu zen argituko dugu, segidan.

c.2. AOKren balioztatzea

AOK-k jasaniko balioztatze prozesu espezifikoak, hizpide den lehen fasean, eite sinbolikokoa izan zen. Aipatu berri dugun Balioztatze Prozesu Nagusiaz erranak kontuan izanik, aisa uler liteke AOKn islatutako balio sinbolikoen –tradizioak, zehazki– prozesu nagusi horren baitan jasan zutela balioztatzea; baina, era berean, AOKren izanari egokituriko prozesua izan zen.

Hori dela eta, AOK-k jasan zuen balioztatze sinbolikoaz ari garelarik, kontuan izan behar dugu zeinahi balioztatzeren alderdiak eta alderdi zehatzagok nahasten dituen prozesu batez ari garela; beraz, zehazki, euskal komunitateak, 1960-1975 bitartean, AOKri egokituriko balio sinbolikoaz dihardugula. Prozesu hori, gainera, AOK ekoiztu eta jasotzen zuen jendeak emaniko estimuak²⁴² –hainbertzetan solasgai dugun duintasunak– baldintzatua izan zen.

Hiru balio nagusi zituen AOK-k, hain zuzen, eite sinbolikoko balioztatzea orduan garatu ahal izateko: (1) iraganeko ondare urruna izatea, (2) garairako egokiak ziren tasunen jabe izatea eta (3) orainaldian lotura bat bizirik mantentzea.

(1) Iraganeko ondare alienatua

J.M. Barandiaranen ondoko hitzetan, iraganaren ezagutzari garrantzia handia ematen zitzaion:

²⁴² Balioztatze sinbolikoa egokituriko estimuari lotua dela zehazten du Thompsonnek: “Symbolic value is the value that objects have by virtue of the ways in which, and the extent to which, they are *esteemed* by the individuals who produce and receive them – that is, praised or denounced, cherished or despised by these individuals” (1990: 154-155) (azpimarra ez da gurea).

Euskal Herriko lehen gizakiak eta berauen hezierak ikasi nahiaz ere, azterlari asko dabiltza lanean. Egitamu ederra: lehen bizibideak, antze-tresnak, ertilanak, jainkozko irudi eta bitxiak, milaka urtez urrundurik ditugun lagunen gogoetak eta jokoak susmatzea eta jakitea: euskal ethniaren sustraiak, alegia.

Aspaldiko sustrai eta kimuak, geroztik albizitzen, hazten eta hostotzen jarraiki dutenak, noski. Hauetan da euskal hezieraren ardatza. Hemen hesoinduak eta mamituak ez diren «kultura» eta herria ez dira ez euskal kultura ez Euskal Herria. (“Lehen euskal gizona”, *Anaitasuna*, 1972, 237: 1)

AOKren kasua, ordea, nahiko lausotu eta distortsionatua iristen den ondare azterketa izan ohi da, eta, beraz, Barandiaranek aipatzen zuen “susmatze” horren presentzia areagotu egin daiteke, potentzialki. Izan ere, balio sinbolikoa irudikatze aukerak biderkatu egiten dira alienatua den ondarea gune denean²⁴³; are gehiago, AOKrekin gertatu gisa, haren bilketa ahoz ahokoa den kasuetan. Hori dela eta, ezagutza zuzenerako musikarien gisako ekimenak hagitz lagungarriak izan ziren: errealitate ezezagunaren isla zen corpora moldatu beharko zen, garaian atzemana izan ahal izateko. Irudikatze aukerak biderkatu ahala –ondarearenganako hurbiltasunak eta ezagupen gabeziak lagundurik–, balio sinbolikoa komunitateak nahi eta behar gisara moldatzea aisago gertatzen zen.

(2) Garaiko egoerara egokitzeko tasunak izatea

AOKren berezko tasunek 1960-1975 bitarteko musika berriaren erdigunean jarri zuten ondarea; izan ere, komunitate batasuna iraganeko errealitatean biltzeaz gain, garaiko musikarien laguntzaz, esperientzia bateratua izateko aukera baitzen:

Holaz, gure oraiko kantariak edozein adinetako entzulek nahi dituzte aditu eta ikusi. Zergatik? Zerbait norbaiti erraiten diotelakotz, berek sinesten duten zerbait, berek maite duten zerbait, eta erraiten gure mintzaira goxoan, euskaraz, gure adibidean. Kantaldi baten ondotik, jendeak sendi du hunkia dela, iharrosia, eta ez dela hotzik egoiten ahal, edozein adinetako izanikan ere.

[...]

Elkarrekin goxatzeko parada emaiten daukute (“entzule bat” sinadurapean, “Geure kantariak ba ditugu guk ere”, *ibid.*, 1972, 237: 11, jatorrizkoa *Herria* aldizkarian agertu zen, 1972-06-01ean)

Bertzela erranda, AOK-k garaiko zanpaketari aitzina egin ahal izateko potentziala zuen, ahalbideak. Momentu jakinari atxikia izatea –beraz, iragankorra; bertan izan ezean, atzemateko zaila– eta mezu subliminalak kolektiboari altxatzeko ahalmena izatea hagitz tasun erabilgarriak ziren, balioztatze sinbolikoaren garapenerako.

²⁴³ Txalapartarekin gertatu gisa, aukerak aniztu egiten dira: “Gure aurrekoen bizitzan ez dakigu ziur zer funtzio beteko zuen tresna honek. Baserritarrek elkarri abisuak pasatzeko izango ote zen; rito batzuen osogarria, agian” (Kepa Urrotz, “Ez Dok Amairu. Disko berriak”, *Zeruko Argia*, “Gazte gera, gazte...” azpiatala, 1968, 287: 7). (Hemendik aitzina jakintzat emanen dugu “Gazte gera, gazte...” *Zeruko Argia* aldizkariako azpiatala dela)

(3) Oraindik ere lotura garaikide batek bizirik irautea

Garaika ahul²⁴⁴ izanik ere, bertsolaritzak AOKrekiko lotura finkatzeko bidea lagundu egiten zuen: iraganeko errealitatearen haria bizirik mantentzen zuen –edo hala atzeman zen, bederen–, eta aitzinez izana zuen betebeharra espresuki egokitzen zitzaion 1960-1975 bitartean komunitateak zuen behar zenbaiti:

Euskalerrriak, sortzetik, erri bat danez, gorabeera batzuk izan dauz. Gorabeera orreekaz batera bertsolaria dator. Bere munduko, Euskalerriko, sorkunde aretako problemak abestiz diñotsaz erriari. Aintxiña, atzo ta gaur auxe izan da bertsolariaren lana: momentuko, abestuten ari dan sasoiko gorabeerak erriari esatea. Ta gaur zetan gagoz? Atzoko ala gaurko problemak abestuten...? Edo tabernako kontuak esaten...? (Enbeita, “Bertsolariak atara ala itto?”, *ibid.*, 1968-02-15, 155. zk.)

Halatan, iraganeko errealitate baten hariari jarraitzeaz gain, antzinako betebeharra bat heldu zen euskal komunitateak 60-70etan zuen premia nagusietariko batekin: ahotsa goititzearekin.

AOK balioztatze sinbolikoa jasateko hautagai espresuki egokia bihurtzen zuten aldeak aitzinez izan ditugu solasgai, bigarren eta hirugarren ataletan zehar. Iraganeko denborak komunitateen garapenean duen eraginaz solas egin dugu, bigarren ataleko 2.2.2.a. azpiatalean; gainera, AOKren tasun jakinek garaiarekiko zuten egokitasunaz hausnartu dugu, 3.1.3. atalean; azkenik, bertsolaritzaren 60etako presentzia garaikideaz aritu gara, atal honetako 3.1.3.b. azpiatalean. Beraz, iraganeko denborarekiko loturak, AOKren berezko tasunek eta errealitate garaikidearekiko lotura bizia mantentzeak lagundu egin zuten AOKren balioztatze sinbolikoa, 1960-1975 bitartekoa, gauzatzen.

AOKren balioztatze sinbolikoaren kontzientzia osoa izateko, ordea, bertze alderdi bati erreparatu behar zaio, ezinbertzean: balioztatzearen eragileei. Izan ere, horiek ematen dute 1960-1975 bitartean ondareak jasaniko balioztatze prozesuaren aditze osotua: balioztatze hori agertzeaz gain, ondare horrek izaera ekonomikoko balioztatzerik zergatik ez zuen jasan azaltzen dute.

Hortaz, ondoko azpiatalean, alde horri erreparatuko diogu: balioztatzeen eragileen egokitze teorikoa agertu, eta, bidenabar, horien eragina jasan zuten hainbat kultur mailari eginen diogu erreferentzia –AOKri eta ELERI–.

²⁴⁴ “Diaz de Ulzurruneri gutun idekia” (“Deun Oro” [Deunoro Sardui], *Anaitasuna*, 1971, 212: 12).

c.3. Baliabide sinbolikoen baldintzatzaileak (egokitze teorikoa)

1960-1975 bitarteko balioztatze nagusia azaldua delarik, balioztatze horren eragina sumatu zuten errealitate zehatzagoei behatu nahi diegu, behatze zehatz horiek lagunduko baitute prozesu zabalaren eta jakinen arteko zubia agerrarazten. Horretarako, hirugarren atalean hizpide izan dugun AOK eta laugarrenean aztertuko dugun Euskal Literatur Eremua (ELE) uztartzen dituen alderdiaz arituko gara: balioztatze prozesuen baldintzatzaileak osatzen dutenaz. Eragile horiek ELEren balioztatze prozesuan izan zuten eraginak, preseski, eremuaren baitako AOKren presentzia baldintzatu zuela ikusiko dugu.

- **Egokitze teorikoaren ikerguneak**

Hala, bada, ELEren baitako forma eta baliabide sinboliko zehatzak baldintzatu zituzten eragileak izanen ditugu hizpide: errealitate zehatzago horien –Balioztatze Prozesu Nagusiak eraginiko errealitatea baino zehatzagoen– balioztatze prozesuenak. Hau da, eragileen erabilera bikoitza egingen dugu: batetik, literatur eremuak –baliabide sinbolikoen bilgune gisa– jasaniko balioztatze prozesuen ezaugarri baldintzatzaileak landuko ditugu; baina, bertzetik, eragile horiek berdin balioko dute baliabide sinbolikoen –tradizioaren agergune den AOKren, kasu honetan– gauzatze nahiz jasotzea azaltzeko²⁴⁵.

Eragile horiek AOKn nahiz ELEn izan zuten garrantzia agertzea, ordea, ez da kontu erraza izan; nagusiki, Thompsonen forma sinbolikoen eta testuinguruaren arteko harremana deskribatzeko faktore nagusi gisa aurkezten baititu baldintzatzaile horiek. Hala ere, gure iduriko, forma sinbolikoen baldintzatzaile nagusi gisa, *Ideology and Modern Culture* liburuan, agertu zituenak aski ongi egokitzen zaizkie ikerguneei: ELERI eta, beraz, baita bere baitan biltzen ziren forma nahiz baliabide sinbolikoei ere.

Atal teorikoan aitzinatu gisa, forma sinbolikoen eta testuinguruaren arteko harremanaren deskribapenean, hiru balioztatze nagusi bereiz litezke: sinbolikoa, ekonomikoa eta gurutzatua (1.2.3., b.2.). Edozein gisatan, balioztatze horiek forma sinbolikoei modu zehatzean erreparatzeko hagitik baliagarri badira ere, ohartu egin gara prozesu horietan parte hartzen duen bertze alderdi bat ere landu behar dela: forma zehatz horiek barneratzen dituzten baliabide sinboliko nahiz eremuen azterketarako,

²⁴⁵ Ikusiko denez, lehenengo atalean egin den laugarren egokitzapenaren (1.4.2.) azalpen osotua eskainiko dugu.

ikertu egin behar dira balioztatzeen baldintzatzaileak ere²⁴⁶. Izan ere, balioztatze horiek ELeren garapena baldintzatu zuten arren, prozesu horietariko bakoitza baino gehiago, balioztatze horiek modu bateratuan eragin zituzten alderdiak dira –guretako, azterketaren fase honetan– adierazgarrien: komunitatearen helburu kolektiboak, elkarreragin eremuaren baitako kokapenak eta erakundeen garapenak EKEko mailen garapena irudikatzen dute. Are gehiago, AOKz nahiz literatur eremuaz haratago, kultur eremuaren garapen zabala irudikatzeko alderdi nagusiak direla erran liteke: EKeren mailaz mailako garapena agertzen duten alderdiak.

Beraz, ulertzekoa da balioztatze prozesuen eragile nagusietan ardaztu izana, eragile horien balioa bikoitza baita, tesiaren aztergaietan aitzina egiteko. Batetik, forma eta baliabide sinboliko zehatzei ezartzen baitizkiete mugak, muga horiek berek ELEk jasaniko garapenean izan zutelarik eragina eta isla. Bertzetik, agerrarazi egiten baitituzte komunitatearen bi faseen arteko desberdintasun nagusiak: 1975etik aitzinako prozesuan –ordura arte ez bezala–, helburu kolektiboak aldatu egin ziren; elkarreragin eremuan komunitateak zuen kokapena ere bihurtu egin zen; eta, gainera, eztanda egin zuen botere iturri desberdinetatik edaten zuten erakunde zehatzen garapenak. Hots, komunitatearen helburu kolektiboek, elkarreragin eremuetako kokapenak eta erakunde sozialen garapenak ELeren garapena arrunt baldintzatu zutela ikusiko dugu²⁴⁷, eta, era berean, garapen horrek ahalbidetu zuela hainbat baliabide sinbolikoren egokitze garaikidea –egoera hori tesiaren hirugarren kapituluaren agertuko dugu, literatur tradizioari dagokion azterketan (7.1.2., 7.1.3., 7.2.)–.

Hori dela eta, Thompsonen forma sinboliko zehatzen azterketarako nabarmendu zituen baldintzatzaileak atal honetako –nahiz laugarreneko– aztergaira egokitu ahal izateko, hainbat zehazte egitea proposatu dugu (hurrengo azpiatalean zehaztu ditugu); egokitzapen teorikoa gauzatu beharra sumatu dugu, bai baliabide sinbolikoak ikertu, bai baliabide horien agerguneak eta bilguneak landu ahal izateko ere: tradizioan, haren

²⁴⁶ Lehenengo atalean bildutakoa gogora ekarriaz: “Oroitu [...] hiru balioztatzeek eta berauek lortzeko erabiliriko estrategiek hainbat baldintzatzaile izan ohi dituztela: jendearen helburu banako nahiz kolektiboak, elkarreragin eremuan bakoitzak duen kokapena eta erakunde zehatzen garapena” (1.2.3., b.2.).

²⁴⁷ Tesiaren bigarren kapituluaren 1960-1975 arteko epea aztergai izan arren, hirugarren kapituluaren ere nabarmen sumatuko da hiru alde horiek ELen, 1975-1990 bitartean, izan zuten eragina (7.1.2., b.2.). Batetik, komunitate garapeneko faseen eragina agertuko dugu –duintasunaren bigarren mailak izan zuena, zehazki–; bertzetik, estatuarekiko harremanean, komunitateak jasan zuen kokapen aldaketaz arituko gara –mendekoa izateari utzi zion kokaguneaz–; azkenik, ELeren garapena guziz eragin zuen erakunde egoera izanen dugu hizpide –erakundeen izanean nahiz roletan izan ziren bihurtzeak–.

agergune diren AOKn nahiz literatur tradizioan eta ELE bilgunean sakondu ahal izateko.

Horretarako, oinarrizko egokitze legea honakoa izan da: prozesuaren erreferentziazko partaideari –banako zein kolektiboari– erreparatzea. Aipatu baldintzatzaileak ELeren azterketara bihurtzeko, maila kolektiboan gertaturiko prozesu eta ondorioetan pentsatu behar da, nahitaez. Kontuan izan, forma eta baliabide sinbolikoen arteko desberdintasunez ari ginela, bi alderdi nabarmentzen genituela: baliabide hori erreferentzetzat zuen komunitatearen izana –kolektiboa– eta baliabideak komunitatearekiko zein funtzio betetzen zuen (1.4.2., lehenengo egokitze teorikoa).

Horiek horrela, Thompsonen hitzetatik abiatuta proposatzen dugun egokitzapena lagungarria izanen da komunitateak eta komunitate garapenak aztertzea helburu duten lanetarako. Beraz, lehenik, AOKren azterketarako egokitze teorikoak ere bide berari jarraitu beharko dio: erreferentzia gisa kolektibitate bat hartzen delarik, aztertu beharko dugu euskal komunitateak AOKren balioztatze sinbolikoa garatzeko zein eragile nagusiri egin behar izan zion aitzina. Bigarrenik, egokitzeak lagundu egingen du –ELeren ezaugarri bereizgarriak zehazteaz haratago– eremuaren nahiz bere baitan agerturiko baliabide sinbolikoen garapena ulertzen; izan ere, hizpide den garaian, ELeren ezaugarri bereizgarria izan zen forma sinbolikoen baldintzatzaileek eremua hagitx modu sakonean eragin izana. Hiru alde baldintzatu zuten, guziz, 1960-1975 bitarteko ELeren garapena: komunitatearen helburuek oinarrizko behar kolektiboan asebetetzea mugarri izateak, komunitate eta estatu arteko harreman desorekatuak eta erakunde berezituak gabeziak.

Are gehiago, tesian eginiko egokitzapenak kasuistika zabaleko kasuak aztertzeko lagungarri izan litezke; bertzeak bertze, ondoko orrialdeetan ikusiko denez, bigarren baldintzatzaileari –elkarreragin eremuko kokapenari– eginiko egokitzapena estaturik gabeko nazio-komunitateen ikerketetarako da, bereziki, baliagarri. Kasu gehiagoren azterketarako baliagarritasuna sostengatzeko, Thompsonen ideiez gain, bertze bi alderdi biltzen dituen proposamena osatuko dugu, segidan: Smithek nazio eta komunitateen garapena aztertzeko ikergune gisa identifikatuak izanen ditugu aztergai, eta, gainera, kontuan izanen dugu Montserrat Guibernauk sarri aldarrikatu duen moldaketa. Hau da, hurrenez hurren, Smithek –etno-sinbolismoari buruzko idatzietan– aipatzen dituen baliabide sinbolikoak izanen ditugu hizpide, eta, bertzalde, estaturik gabeko nazio eta komunitateen errealitatera moldatu beharraz arituko gara.

Gainera, literatur eremuek, orokorrean, baliabide sinbolikoen bilgune gisa, izan dezaketen garrantziaz hausnar eginen dugu; hori dela eta, jasotze gune izateaz gain, baliabide sinbolikoen egokitzapen prozesuetan izan dezaketen eraginaz arituko gara. Gure aztergaira etorriaz, gogoeta eginen dugu, zehazki, ELEk AOKren egokitze prozesuan, beti ere 1960-1975 bitartean, izan zukeen eraginaz.

Egokitzapenaren aplikazio praktikoa bigarren kapituluko laugarren atalean eta ELE, berriz ere, aztergai den tesi zatian (zazpigarrenean) eginen dugu; izan ere, guziz desberdina zen baldintzatzaileek bi faseetan –1975etik gibelera eta ordutik aitzinera– zuten egoera; pixkana agertuko dugunez, aldaketa horiek lagundu zuten, preseski, ELS garaikidearen oinarriak finkatzen.

- **Egokitze teorikoaren oinarriak**

Horretara iritsi aitzinetik, ordea, alde teorikotik erreparatu behar zaie eragileei. Horietarik bakoitzean, bi ikerguneri behatuko diegu, bereziki: AOKri eta ELERI. Hartara, bigarren eta hirugarren kapituluetak aztergai komunak –tradizioa eta ELE nahiz EKE– nahiz bereziak –tradizioaren gauzapean zehatzak: AOK eta literatur tradizioa– ikertzeko oinarriak eskainiko ditugu. Batetik, baliabide sinboliko beraren gauzatze berezia lantzeko argibideak emanen ditugu; AOKri buruzko argibideek lagunduko dute hirugarren kapituluko tradizio gauzatze espezifikokoaren –literatur tradizioaren (7.1.2., b.2.2.)– azterketarako ideiak hurbiltzen. Bertetik, AOKren nahiz literatur tradizioaren balioztatzeak besarkatzen zituen eremuari erreparatu eginen diogu; alegia, ELERI. Gisa horretan, ELEk baliabideen gauzatze zehatzak nola eragin zituen ulertzeko giltzarriak zehaztuko ditugu; bai ELEk berak, bai ELERen tasun multzo bereizgarriak, izaniko eraginak ikertuko ditugu.

Horretarako, Thompsonek forma sinbolikoen balioztatzeak baldintzatzen zituzten hiru eragileez erranak estaturik gabeko nazio eta komunitateen errealitatera egokituko ditugu.

(1) Jendearen helburu banako nahiz kolektiboak: komunitate helburu kolektiboak

Lehenik eta behin, jendearen helburu kolektiboak ikergaietara moldatzeko, komunitate mailako helburuak ikusmiran izan beharko ditugu.

AOKri dagokionez, erran liteke bertan bilduriko ondarearen balioztatze sinbolikoa guziz baldintzatu zutela komunitatearen helburu kolektiboek. Ondare horren atzematea atxikia izan zen komunitatearen lehen behar maila asebetetzeari: iragan bateratuaren

aztarna izateaz gain, orainaldia eta etorkizuna bideratzeko zen lagungarri. Izan ere, Antonio Pérez-ek, *Gizadiaren historia* liburuaz zioen gisa, iraganaren ezagutzak etorkizunerako ateak irekitzen zituen: “«Gizadiaren Historia» onek ba dauko anbiziño bat: irakatsi gizoneri, euren «len» aren alkartasuna daukaela, eta orrexegaitik euren «gero»arena be bai” (“Artza” [Antonio Pérez], “Garrantzi handiko liburua. ‘Gizadiaren historia’ ”, *Anaitasuna*, 1968, 162: 4). Hortaz, iraganeko ahots eta errealitate bateratzaile komun gisa atzeman zen AOK; hau da, helburu kolektiboek lagundu egin zuten AOK-k balioztatze sinbolikoa jasan izana.

Literatur eremuari dagokionez, ELEk helburu kolektiboak baldintzatzaile nagusi izan zituen, 1960-1990 bitarteko garapen guzian zehar. Lehenago ere errana dugunez, 60ko eta 70eko hamarkadetan komunitatearen duintasuna garatzeko pausoek bereziki eragin zieten kultur moldaketa nagusiari nahiz honek ekarri zituen prozesu nagusiei; bertzeak bertze, literaturaren jasotzeari. Duintasunaren berreskuratzea gailendu izanak mugatu egin zuen literaturak kultur moldaketa nagusian izaniko rola; hain zuzen, horren lekuko da euskal kulturaren rol aldaketa, kultur eremu desberdinen autonomia zekarrena, eraso gisa bizi izana. Egia erran, literatur arituarekin loturiko kulturgileek moldatze nagusian izaniko eginkizuna, orokorrean, aski ardaztua izan zen; beren rola dela eta agertuko dugunez (3.1.4.), indar erakundetzailaren ordezkoko gisa aritu ziren, 1975era bitarteko fasean.

Helburu kolektiboen eragina adibide zehatzetatik abiatuta ikertuko dugu, bai laugarren atalean (4.1.3.b., 4.1.3.c.), baita tesiaren hirugarren kapituluan ere (7.1.1.c., 7.1.3.c.). Zernahi gisaz, komunitate mailako helburuek izan zuten eraginaren indarra bereziki adierazgarri eta ikusgarri bihurtuko da ondorioak elkarren segidan, eta elkarreraginean, irakurtzen ditugunean (zortzigarren atala); orduan nabarmenduko baita komunitatearen garatze fase desberdinei guziz makurtua izan zela euskal kulturak, 1960-1990 bitartean, jasaniko moldatze sakona.

(2) Elkarreragin eremuetako kokapena: estatuarekiko harremana

Bigarrenik, elkarreragin eremuetako kokapena hizpide duen ideia egokitu nahian, Thompsonen proposamena modu abstraktu edo zabalean hausnartu beharra sumatu dugu. Erran nahi baita elkarreragin eremuetako kokapena kapital desberdinen elkarreraginak baldintzatua dela; aldiz, baliabide sinboliko nahiz horien bilgunez ari garelarik, ezin hain eredu zehatzak zuzenean atxiki. Hori dela eta, elkarreragin eremuen

muineko ideietarik tiraka, euskal komunitatearen eta AOKren arteko harremanari, nahiz komunitatearen eta ELERen artekoari, egokituriko “eremu” bat irudikatu ahal izan dugu.

Eremu horren funtsa estatu barneratzailearekiko harremanak agerrarazten du: euskaldunok, komunitate gisa, izaniko kokapenari erreferentzia eginaz, nagusiki, estatuarekiko harremanean ulertzen den elkarreragin eremua litzateke. Eremu horren abstrakzioa eginaz, komunitate bateratuek estatuarekiko erlazioan sortzen den eremuan duten kokapena litzakete.

AOKri dagokionez, ondare horrek, 1960-1975 bitartean, jasaniko balioztatze sinbolikoa elkarreragin eremuko kokapenak ere baldintzatu zuela erran liteke; izan ere, euskal komunitateak zuen mendeko kokapenak aunitz mugatu zuen komunitatearen ahalbide oro. Zedarriztapen horren eraginez, AOKren balioztatze sinbolikoa ekimen nagusiago bateko prozesua izan zen: mendeko kokapenak –eta kokapen horrek Aro Ilunean zehar izan zuen mugatze zanpatzaileak– aunitz gutitu zituen balioztatzeak gertatu ahal izateko bitartekoak. Euskal kultur arituek beren eremuaren baitako autonomia garatu ezinak islatzen du, adibidez, balioztatze ekonomikoa gertatu ahal izateko mugen hertsia.

Bizkaian urtero bertsolari batzar bat egiten da. Batzar honetan (hamargarrena ospatuko da aurten) urtero proposamendu ugari egiten da; baina gutxi edo ezer gutxi egitea lortu. Ba dira sei bat urte, bertsolarien elkar laguntza bezala, urtero diru apur bat eman eta beharizan gorritan inor aurkitzen zanean laguntza egiteko, kutxa bat egitea aipatu zala; baina bertsolari goikoek, diru banaketa zaila izango zala ta, ezeztu egin eben ideia hau. (“Deun Oro” [Deunoro Sardui], “Diaz de Ulzurruneri gutun idekia”, *Anaitasuna*, 1971, 212: 12)

Gainera, mendeko kokapenak ondarearen eta komunitatearen arteko harremanaren alderdi ukiezinari ere eragiten dioenez, AOKren balioztatze sinbolikoa gertatu bazen ere, prozesua baldintzatu egin zuen; AOKren berreskuratzea duintasunarenari atxikia izan zen, bertzeak bertze. Ukazioan oinarrituriko kokapenaren eraginez, balioztatze sinbolikoaren prozesua barne-balioztatzea izan zitekeen, soil-soilik, ahalbideen mugatzeak ez baitio errealitate fisikoari, bakarrik, eragiten; aitzitik, komunitatearen eta ondarearen arteko harremanaren alderdi ukiezinean ere sor ditzake ondorioak.

Maila ukiezinari eragin zion alde nagusietarik bat, hizpide den garaian, debekuenan izan zen. Aski jakina denez, zentsura maila desberdinak jasan zituen euskal komunitateak, Aro Ilunean zehar. Barne-zentsura, adibidez, estatuarekiko elkarreragin eremu horretan, denbora luzez, jasaniko mendekotasunaren ondorioa izan zen; mendeko egoera horren oinarri ukatzaileek gogor eraso zieten komunitatearen balioztatze

ahalmenei. Bertzelako zentsurek ere antzutzea erakusten dute: mendeko kokapen horretan egoteak eskuragarri jartzen zituen bitartekoak hagitz urriak izaki, nekez gara zitekeen AOKrekiko barne-balioztatzeaz bertzelakorik. Musikariek jasaniko debekuek, adibidez, barne-balioztatzeari berari jartzen zioten muga (ikus B eranskineko “*Anaitasuna 1960-1975: zentsura, errepresio eta debeku adibide zenbait*”).

Literatur eremuari dagokionez, 1975era bitarteko fasean, komunitatearen elkarreragin eremuko kokapena komunitatetik kanpoko botereek indarrez bideratua izanik, harremanaren desorekak zeinahi balioztatze lagun zezakeen bulkada oro akitzen zuen. Hau da, elkarreragin eremuko kokapena mendekoa zen garaian, zeinahi balioztatze hagitz mugatua zen –elkarreragin eremuetako posizioari lotuak diren balioztatze sinbolikoak, bereziki (Thompson 1990: 157-158)–. Aitzina egin zuen prozesu bakarra Balioztatze Prozesu Nagusiko barne-balioztatze sinbolikoa izan zen: literaturak prestigioa eta garai berrietarako bulkada ematen zion euskal munduari: “Literatureak emoten deutse izkuntzeri nortasuna, indarra ta prestijioa. Ta ez ori bakarrik, baita bizitza luzeago baten laguntzea be” (J. San Martin, “Euskerearen batasunaz. Euskaltzaindiaren asmoa”, *Anaitasuna*, 1968, 163: 1).

Ezin atzendu dugu, ordea, kapitalen egokitzea izan zela: ELEk zituen kapital ekonomiko, sinboliko eta kulturek baldintzatu zuten estatuarekiko harremana gibel-errealitate zuen kokapena. Kokapen horren eta kapitalen arteko elkarreraginek, nahiz horiek jasaniko aldaketek, preseski, kultur moldatze nagusiaren garapena bi faseetan baldintzatu zutela ikusiko dugu.

(3) Erakunde zehatzen garapena

Azkenik, erakundeen garapena gurera egokitzeko, euskal komunitatearen garai hartako garapenari loturiko erakundeei behatu behar zaiela nabaritu dugu. Thompsonek egiten zuen deskribapenetik abiatuta²⁴⁸, AOKri nahiz ELeri espresuki egokituriko erakundeen egoerari erreparatu beharko diegu: batetik, AOKren balioztatzeak lagundu zituzten iturriez eginen dugu hausnar (4.1.2.a.), eta, bertzetik, ELerenak eragin zituztenez (4.1.3.a.).

Printzipioz, hizkuntzaren batasuna eta ofizialtasuna²⁴⁹, hezkuntzarekiko harremana nahiz horien merkatuarekiko erlazioa egituratzen zuten erakundeak behar

²⁴⁸ “Social institutions can be seen as constellations of rules, resources and relations which are situated within, and at the same time create, fields of interaction.” (Thompson 1990: 149)

²⁴⁹ Zenbaitelk eliza identifikatu zuen hizkuntzaren ofizialtasuna egituratu zuen erakunde horietarik bat gisa: “Erakunde batzuk euskal pizkundearen aitzinean jarri dira, eragille ere ez gutxitan gertaturik. [...] //

lirateke aztertu. Alabaina, 1960-1975 bitarteko zeinahi euskal arlotako erakunde gabezia hagitzen nabaria zen:

Euskereagaz ezin kulturarik artu, ezin emon, orretarako erakunderik ez daukagulako; umeentzako ikastola batzuk geien be, eta eurak legearen aurka. Erdereagaz bakarrik artu geinke kulturea: eskola, kolejio, batxiller, lan eskola, Unibersidade, praille ta abadegai etxe..., danak erderazkoak diralako.

Izkuntza ta kultura arloa baiño ez dogu ikutu; baiña bardin jazoten da beste arlo guztietan be. Euskalerrria erdalkeri gogor baten menpean dago. Eta erdalkeri au egiten dagoz, erdal erakunde orre in buruak eta orrei indarra emoten dabilzanak. Gaur Euskalerrriak, kultura erakunde geiago bear ditu; baiña ez erderazkoak, euskerazkoak baiño. Erderazkoak gitxitu, eta euskerazkoak ugaritu bear dira. (Julen Kalzada, "Euskaltasuna ta erdalkeria", *ibid.*, 1968, 164: 4)

Hori dela eta, garaia kontuan izanik, erakunde in oinarrizko behaketa egin beharko dugu: ba ote ziren, izatekotan, zein egonkortasun ote zuten²⁵⁰ eta, bertze hainbat konturen artean, botere antolatzaile-egituratzailearen iturria nondik heldu zen. Izan ere, horiek izan ziren euskal literaturan biltzen ziren baliabide sinbolikoen garapenak²⁵¹ —eta eremuak berak bilgune gisa jasan zuen moldaketa— guziz baldintzatu zituzten alderdiak. Hortaz, tesian aitzina egin ahala, sumatuko dugu nola, 1960-1975 bitartean, AOK-k nahiz ELEk jasan zuten balioztatze sinbolikoa erakunde finkeen gabeziak —edo horien ahulak— baldintzatu zuen.

AOKri dagokionez, erakunde ofizialen gabeziak aunitz baldintzatu zuen 60etako balioztatze sinbolikoa; eragite horren isla zuzena da ahozkotasunari loturiko ondarearen egituraketa, gainerako ondare guzietan gertatu gisa, komunitatearen ekimenetatik bakarrik heldu izana:

Aspaldi honetan ba dakigu ondoegi euskaldunok —bizitzeak asko irakasten deusku bere kolpeekin— ez dogula inoren laguntasunik eukiko, eta egin behar dan guztia geuk egin beharko dogula. Ba leiteke lehen bestean eta lehen baizen ahul ta makal izatea; baina orain behintzat, ba dakigu zerutik ez ifernutik ez jakula etorriko ezer; eta hau asko da, zeredozar jasoteko, geuk egin behar ditugula lan guztiak erakusten deusku ta. (X. Kintana, "Danok Ikastera", *ibid.*, 1969, 178: 1)

Ondarearen balio sinbolikoa komunitateak eman izanaz gain, haren bideratzea kulturgileengandik heldu zen; 3.1.4. atalean azalduko dugunez, kulturgileak izan ziren, AOKri dagokion balioztatze sinbolikoaren erakundetzea, adibidez, gauzatu zutenak.

[...] urrats aundiak ematen ari da Eliza liturjiaren aldetik, eta liturjiatik kanpo ere, euskeraren batasunean eta bizitasunean: apaiz askoren lana txalogarria da" (Kepa Arbiza, "Itzei utzi bear", "Gazte naiz" atala, 1966, 187: 7).

²⁵⁰ Horretarako, honako puntuak izan beharko ditugu kontuan: erakundeek komunitatearekiko zuten harremana nahiz harengan sortzen zuten eragina eta ibilbide luzeko erakunde in izatea.

²⁵¹ Tesian, AOK eta literatur tradizioa medio hurbildua, tradizioa izan dugu hizpide.

ELEn ere, garatu gabeko sarea izaki, erakunde gabezia handia zen; ondorioz, sariak bizirauteko bide ziren, erakundetzaille baino gehiago. Luis Haranburu-Altunak, Arantxa Urretabizkaiari eginiko elkarrizketa batean ideia, hori ageri da bildua:

- Idazleek nahiko problema larria dute diruaren aldetik. Orduan niri iruditzen zait, sariketarako literatura promozionatzeko era bat direla.
- Bai. Ez dut uste, idazleek beren lanak argitaratzeko problemarik dutenik. Editorialek originalak falta dituzte. Sarietek izena... ez dute izenik ematen. Dirua litzateke haietara presentatzeko arrazoina. (“Arantza Urretavizcaya”, *ibid.*, 1972, 238: 8)

Elkarrizketaren tarte horretan ageri da, hain zuzen ere, erakundetze boterea murriztua zela, garaiko ELEn: sariketarako ez zuten garatu gabeko eremu batendako sostengu eskasa bertzerik eskaintzen. Hortaz, normalki, literatur eremuetan kanonik bideratzeko bide nagusietarik bat izaten diren sariak guti laguntzen zuten eremuaren autonomiaranzko garapena.

Edozein gisatan, espresuki literatur eremuaren arauetara egokituriko erakundeak izan ez arren, izan ziren ELEren egituraketa eta antolaketa lagundu zuten bi *gune eragile²⁵² nagusi²⁵³: Euskaltzaindia izan zen ELEren gauzatze eta jasotzea, 1960-1975 bitartean, goitik beheitera baldintzatu zuen erakunde nagusia; eta, bertze modu batean, aldizkariak ere parte hartu zuten, eremuaren egituraketan –4.1.3.b. atalean agertuko dugu aldizkariak izan zirela idazleen lehen trebagune eta bideratze komunaren bilgune nagusia–. Hala, bada, idazketa komunaren egituratzaile gisa jokatu zuten.

Azpiatalean aurkeztu dugun egokitzean, agerikoa denez, komunitate mailako baldintzatzaileak hartu ditugu kontuan; horretara bideratu dute moldaketa bai AOK jendarteari zegokion ondare izateak, baita literatura komunitate osoari zegokion baliabide sinbolikoen bilgune izateak ere.

Egokitze horretatik bi ondorio nagusitara iritsi gara. Batetik, EKEren maila desberdinetan azter litezkeela balioztatze prozesuen eragileak. Oinarri teorikoen atalean agertu gisa, baliabide sinbolikoak forma sinboliko zehatzak baino egitura zabalagoak dira, eta eremu osatu gisa osatzen dira –eremuko arauak izanen direlarik bere baitako forma sinboliko zehatzak mugatuko dituztenak–. Ondorioz, forma sinbolikoen gauzatze eta jasotze prozesuetan baldintzatzaile diren irizpide nagusiak baliabide sinbolikoen bilgune diren –literaturaren, kasu honetan– ikerkuntzara egokitu ahal izan ditugu.

²⁵² Ikus A eranskineko “Guneak: gune eragileak” sarrera.

²⁵³ Hirugarren kapituluan, aldiz, interakzio eremu berriak eratzeaz gain, zaharrak berregituratu eta aitzinez ez zirenak osatu izana nabarmenduko dugu (5.2.1.).

Hala, bada, horietarik bakoitzak forma sinbolikoen eta testuinguruaren arteko harremana finkatu zuen gisa, berdin-berdin eragin zuen literatur eremuaren izana bera.

Bertzetik, agerikoa da fokua eite bakarreko balioztatzean jarri dugula: balioztatze sinbolikoa aipatu dugu behin eta berriz; balioztatze ekonomikoa, ordea, alde batera utzi dugu. Hala agertu izanak badu arrazoibiderik: arestian erran gisa, balioztatze ekonomiko nagusirik ez zen gertatu, eta, gainera, balioztatze ekonomikoa kinka gisa bizi zen. Hau da, kultur azpieremuen baitako balioztatze ekonomikoak militantziarekiko kinkan bizi ziren.

3.1.3. atalean²⁵⁴, ondare kulturalaren eta erreferentziako komunitatearen artean sor daitezkeen harremanen berri eman dugu. Horretarako, batetik, ondare kulturalak komunitateko kideendako bete ditzakeen funtzioez, modu orokorrean (3.1.3.a.), aritu gara; ondotik, espresuki euskal ondare kulturalak, 1960-1975 bitartean, jasan zituen bi birmoldatze izan ditugu solasgai (3.1.3.b.). Hain zuzen ere, iraganeko fosil nahiz bat-bateko bertsolaritzak hamabortzaldi horretan jasaniko funtzionalitate berriztatze berezituak eman dute aukera, zehaztasunez haratago, EKEk Balioztatze Prozesu Nagusia jasan zuela ohartzeko (3.1.3., c.1.).

Zernahi gisaz, balioztatze zabal horren garrantziaz kontziente izan arren, kultur maila zehatzagoetan gertaturiko balioztatzei (3.1.3., c.2.) nahiz horien eragilei (3.1.3., c.3.) ere erreparatu diegu (3.1.4., c.2.).

Ondoko atalean ikusiko denez, 1975era bitartean kulturgileek garaturiko rolak funtzionalitatea hagitik abiapuntu garrantzitsua izan zuen arren, oreka komunikatiboak berebiziko eragina izan zuen berreskuratzen hasi berria zen ondarea modu arrakastatsuan atzematen eta barreiatzen; izan ere, ondare kulturalaren eta komunitatearen arteko harremanaren funtsa, funtzionalitatea, baldintzatu zuen.

Segidan, euskal ondare kultural metatuaren moldatzeak, 1960-1975 bitartean, izan zuen garapenerako oinarritzko bi ideia izanen ditugu hizpide: funtzionalitatea eta oreka komunikatiboa. Gainera, bi alderdi horien zama bideratu zuten kulturgileei eta prozesua egikaritu zuen komunitateari behatuko diegu.

²⁵⁴ 3.1.3.c. azpiataleko ondorioak 3.1.3.koekin batu ditugu.

3.1.4. Kulturgileen eragin egituratzailea, kultur berreskuratze prozesu funtzionalean

Ondoko orrialdeetan, euskal kultur moldaketaren lehen faseko prozesuetan parte hartu zuten eragile nagusiei behatuko diegu; izan ere, aitzinez azaldu ditugun prozesuek eta laugarren atalean espresuki landuko ditugun forma eta baliabide sinbolikoek jasanikoek hainbat sustatzaile nagusi izan zituzten.

Hala, bada, estaturik gabeko nazioen identitateak sustatzen dituzten faktore nagusiei erreparatuko diegu. Nazio hori barneratzen duen estatuaren izana da horietarik bat –identitate aniztasunarekiko jarrera da espresuki erranahitsua–. Bertzetik, identitate banakoa bermatzeko argudio kultural, historiko eta ekonomikoak aldarrikatuko lituzkeen intelektual taldearen presentzia ere faktore garrantzitsua da (Guibernau, *in* Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 133-134); kulturgile horiek, egitura ofizialetik ateko alternatiba proposatuz, estaturik gabeko nazioaren identitate banakoa sostengatzen lagunduko lukete; nazio identitatea²⁵⁵ bermatzen.

Euskal nazioaren kasuan, XX. mendean identifikatu ditugun bi saio nagusiek –mende hasierakoa eta tesian hizpide nagusi dena– faktoreetarik lehena arazo izan zuten. Bigarren berpizte saioan, estatu nagusiaren jarrera –lehen faktorea– aniztasun kulturalaren guziz kontrakoa izan zen: Francoren diktadurak espresuki borrokatu zituen espainiar identitatea sostengatzen ez zuten adierazpen eta sentimenak. Kulturgileen ekimenak –bigarren faktoreak–, ordea, estaturik gabeko nazioak arnas hartzeko behar zuten bidea lagundu zuen.

3.1.4.a. *Continuuma*: *Quosque tandem* Et Dok Amairura

Azpiatal honetan, 60etan abian jarririko ekimen kulturalak euskal herriarengan izan zuen bideetarik batez arituko gara: Oteizaren *Quosque tandem* liburuaren eta Ez Dok Amairu taldearen oinarriek agertzen dutenari. Zernahi gisaz, batari zein bertzeari buruz gauza aunitz erran izan direnez, lan honen garapenerako espresuki garrantzitsuak diren alderdiak bakarrik izanen ditugu solasgai; ekimen kultural horiei buruzko xehetasunetan aritu baino gehiago, euskal AOKren moldaketari erreparatu nahi baitiogu. Horregatik, bi ideia agertuko ditugu, nagusiki: Oteizak abiatutako

²⁵⁵ Nazio identitateari erreferentzia egiteko honako adibidea garbia iduritu zaigu, estaturik gabeko nazioen identitatea barneratzen duelakotz: “*the continuous reproduction and reinterpretation of the pattern of values, symbols, memories, myths and traditions that compose the distinctive heritage of nations, and the identification of individuals with that heritage and its cultural elements* –a definition that does not refer to the modern national state” (Smith 2009: 109) (azpimarra ez da gurea).

interpretazioan euskal ondarearen barrenean bertsolariak izan zuen indarra eta, eskultoreak ereindako jarrerak lagundurik, Ez Dok Amairuko kideen agerpena²⁵⁶.

- *Quosque tandem (1963)*²⁵⁷

Jorge Oteiza (Orio, 1908-2003), nagusiki, eskultore gisa aipatu ohi den arren, euskal kulturaren esparru guzian zehar zabaldu zen haren eragina. 1959an, eskultore lana akitua zuela iritzirik²⁵⁸, lanbide hartan garaturiko ideiak euskal kultur ondarearekiko hausnartu zituen. Gogoeta horien idatzizko emaitza nagusia *QUOUSQUE TANDEM...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca* izan zen. Bertan, euskal harrespila²⁵⁹ euskaldunon arimaren interpretazioa izatea eta galduriko euskal arima –nahiz bertatiko bizitza– berreskuratzea beharra aldarrikatu zituen; biziari aitzina egiteko tradizio molde eta tankera euskaldunak –“estilo vasco”– oroitu beharra oihukatu zuen.

Euskaldunon bereizgarri litzatekeen estilo horren jabetza berriak, preseski, arte garaikidearen moldeetara hurbilduko gintuela argudiatu zuen; iragan atzenda oroitzeak berezkoa genukeen tankerara hurbiltzeaz gain, 60etako gizarte modernoaren bizipenera hurbilduko gintuzkeela. Hots, helburu nagusi gisa euskal estiloaren izana, bere originaltasuna eta eragina ulertu nahi ziren arren (*QT*: 25), berreskuratze lan soilaz haratago, mundu berrirako oharmena lortu nahi izan zuen (*QT*: 61).

Oteizaren ekimenek sarri zuten inplikazio edo foku zabala: euskal bizipen berezkoaren aldarrikapenak mundu garaikidearen erritmo eta moldeetara hurbiltzeko balioko zuen gisa berean, euskal kulturaren berpizte nagusiak tankera eta esparru diferenteetako lanak uztartuko zituen. Ekimen horren indarra kulturatik, gizartetik, kolektiboki gauzatu beharko zen –Kultur Frontea–. Hala, komunitateak bere

²⁵⁶ Bertzelako informazioa bibliografiako erreferentzietan eskuragarri du irakurleak.

²⁵⁷ Erabili dugun argitalpena: Oteiza, Jorge, 1994⁽⁵⁾ [1963], *QUOUSQUE TANDEM...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Iruñea: Pamiela. “*QT*” gisa aipatuko dugu, hemendik aitzina, eta Oteizak berak ezarritako zenbaketari eginen diogu erreferentzia.

²⁵⁸ Hala azaltzen zion Joseba Intxaustiri, 1960an: “He terminado mi escultura experimental cuando he logrado vaciar este hueco en el espacio natural, cuando he desocupado formalmente la estatua convirtiéndola en un mueble metafísico, en un espacio interior receptivo, espiritualmente habitable. La Naturaleza vuelve a mí” (*Jakin*, in *QT*: “Tercera parte”).

²⁵⁹ “el cromlech vasco, es un pequeño cromlech interiormente vacío, construcción estética (estatua vacía) de protección espiritual, con el que finaliza el proceso artístico de nuestra prehistoria” (*QT*: 36); “[...] Hoy nombro a Lascaux, a Altamira y -como descubrimiento personal y concluyente- a la estatua vacía de nuestro cromlech neolítico, para nuestro reconocimiento del alma vasca espiritual y creador.” (“Interpretación estética de la Estatuaria megalítica americana” Madril 1952, in *QT*: 29)

osotasunean behar zuen helduleku komunaren bilatze eta berreskuratzea abiatu nahi izan zituen oriotarrak:

El problema gravísimo y fundamental que entre nosotros [“nuestro pequeño país”] sólo nosotros podemos y debemos afrontar, es que carecemos de una nueva sensibilidad espiritual común, que nos impide entre nosotros espiritualmente conversar y entendernos. (*QT*: 86)

Jarrera aktibo komun horren aldarrikatzeak euskal gizartearen sakoneko beharrak azaleratzen zituen; bertzeak bertze, euskal kontzientzia kolektiborako tresna eta helduleku sendoen beharra; hau da, komunitatearen izana bermatuko zuten baliabide sinbolikoak. Bide horrek berak, euskal idearioaren atxikitze dogmatikoa baino gehiago, jarrera bulkatzaile indartsua izan zuen, euskal kulturgileen artean. Erran nahi baita Oteizaren interpretazioak ideia zehatzetatik haratagoko eragina lortu zuela euskal kulturaren, eta ekarpen garrantzitsuenetarikoa jarrera bera izan zela: ordura arte negatiboki behatuak izan ziren euskal ezaugarriak diferenteki aitzina egin, eta irtenbidea aurkitu ahal zitzaizela aldarrikatu zuen; euskal munduak duintasuna zuela.

Hortaz, *QT*n ez zaio iraganari soilik erreparatzen; aitzitik, euskaldunon dimentsio orori behatzen dion interpretazioa izaki, garai guzietan begirako hausnarketak bildu zituen. Batetik, euskal estiloaren jatorria –iragana– Neolitoko euskal harrespilean kokatu zuen; hau da, berezko euskal estiloaren bilaketan, tradiziozko izaeraren erakusgarri liritekeen antzinaren lekukotasunak behatu, eta, atzenduak izanik, hilak genituzkeen sentsibilitate existentzialaren bizipenak izan zituen aztergune (*QT*: 4).

Bertzetik, segida hori hautsiagatik, kulturak orokorrean euskal munduan zuen isla garaikidea eta, espresuki, isla horren indarra nahiz betebeharra aztertu zituen –oraina–; hau da, gizartearen jarrera, kulturarekiko harremana eta berezko izanak euskaldunekiko erlazioan jasotzen dira, artistaren lanean. Hala nola, artearekiko ardura eza gaitzetsi, eta, ulertze komunaren izenean, artearen aitzinatzeak heziketa egokiaren eskutik behar lukeela baieztatu zuen (*QT*: 87).

Azkenik, euskal estiloaren jatorria identifikatu, eta, orduko euskal gizarteak esentzia horrekiko zuen harremanaren “diagnostikoa” eginik, etorkizunerako proposamena egin zuen. Horretarako, berreskuratu beharrekoa identifikaturik –euskal tankera–, atzendua edo memoriatik kendua (*QT*: 108) berriz ekarri beharra defendatu

zuen; edozein gisatan, lan egiteko bideak metodo egokian²⁶⁰ –ez latindar tradiziokoan, egokituan baizik– eta irudi gordetzailean behar zuen oinarritua.

Hala, euskal berezkotasunaren berrinterpretazio eguneratua da *QT*. Saiatze horretan, Oteizak metodo egokiaren gabezia euskal tankera ulertu eta, praktikan, naturaltasunez bizitzeko traba nagusizat zuen: euskaltasuna ezaugarri gutitzaile gisa sumatu beharrean, positibotzat atzeman ahal izateko tresneria behar zen.

Alabaina, antzinako euskaltasunaren segida²⁶¹ da lan honetan espresuki landuko duguna. Oteizarendako, oroitu beharreko euskal pentsamenduaren giltza nagusia bat zen: haren praktikatzailea litzatekeen bertsolaria. Adibide gisa, hara zer zioen Xenpelarren [Frantzisko Petrirena] (Errenteria, 1835-1869) “Gu gera iru Probintzi/ lengo legeari eutsi/ ez oraindikan etsi/ naiz anka bana autsi/ jaioko dira berriak/ Gu gera Euskal-erriak...” erranak aipatu ondotik, oin-oharreen:

En este canto, en el que se refiere Xenpelar al final de la guerra carlista, apreciamos el auténtico estilo vasco que mal interpretando se considera incoherente y descabellado, y que en este trabajo tratamos de interpretar estéticamente. (*QT*: 6)

Irauteari baino gehiago, modu eta tankera euskaldunaren berreskuratzeari eman zion garrantzia Oteizak: “hemos preferido la felicidad (que es lo aburrido) de durar y ahora hemos de recuperar nuestro Ser (que es recuperar nuestro honor)” (*QT*: 21). Azken hau berrinterpretatu, eta begirada positiboz behatu zitzaion: ezintasunak positibo²⁶² gisa aurkeztuz eta euskaldunon kokagunea emankorki²⁶³ sumatuz.

²⁶⁰ “Este nuevo hacer (estilo vasco y tradicional) como si no se hiciera (y no se hace de los modos anteriores) ha desorientado a los propios historiadores vascos de nuestro arte y de nuestra literautra [*sic*], que no han entendido, no han podido entender nuestra propia tradición espiritual, ya que han venido utilizando los criterios clásicos (uno y dos), digamos del estilo latino y occidental, para penetrar (no penetrando) en nuestro estilo-no-estilo (no latino clásico y occidental) y que precisaba de una indagación previa de nuestra originalidad cultural y de un método apropiado para su correcto entendimiento y para su estética, literaria y poética explicación.” (*QT*: 26)

²⁶¹ “No tendría sentido mi tesis del origen vasco del cromlech como creación estética ni, por tanto, mi argumentación sobre la tradición de un estilo existencial vasco desprendido de esa elaboración final del arte prehistórico, si el pueblo vasco actual no fuese su continuidad como grupo étnico.” (*QT*: “Rh, factor” “Breve diccionario...”). Tradizioaren inguruko prozesuek biltzen dutenez jarraitutasunaren zati nagusietarik bat, baliabide sinboliko horren bilgune –literatur eremua– eta agerguneak –AOK eta literatur tradizioa– ikertzea hautatu dugu, tesian.

²⁶² “Yo creo que cuanto más fuerte es la presencia del *bertsolari* en el idioma, es más evidente la dificultad para emplear correctamente un idioma distinto al vasco. Se comprueba cuando un auténtico *bertsolari* escribe en castellano.” (*QT*: 129)

²⁶³ “En España tratamos hoy firmemente de nivelarnos [*sic*] con Europa. Yo entiendo en lo cultural (es de lo que hablo) y sé que podemos.” (*QT*: 171)

Eskultore gisa, euskal bizipenaren jatorria aurkitu zuelarik, etorkizunaren eta orainaren oinarria Neolitoan sorturiko euskal estiloa berriz ekartzea zen. Horretarako, arestian erran gisa, bertsolariaren irudia zen giltzarri:

En una primera reflexión sobre esta huella en la formación de nuestro carácter, nos parece hallar en la documentación etnológica una sorprendente unidad en el estilo del comportamiento vasco. Es un estilo puesto en tiempo, contrageométrico, vitalista, espacialmente continuo, fluvial y directo, un estilo naturalizado automáticamente en la conciencia. No, no es esto común en el hombre. Está y es un mismo estilo, que se revela en nuestra tradición popular, tanto para habitar nuestra soledad individual como para convivir políticamente, como para jugar, como para sentir o para pensar; es el mismo que se encuentra en la estructura mental del *bertsolari*, como en el estilo literario de Baroja. (*QT*: 101)

Beraz, Oteizak proposatzen zuen euskal originalitatearen berreskuratzea bi zutarri nagusitan oinarritua zen: batetik, galduriko originalitatearen ulerkuntzarako ezinbertzeko ziren begirada, ikuspegi eta metodo egokiak²⁶⁴ behar ziren; eta, bertzetik, erreferentziatzko hondarreko pertsonaren berrinterpretazioa aldarrikatu zuen, bertsolariarena²⁶⁵. Gisa horretan, metodologia egokiak euskaltasun galduaren izana ulertzen lagunduko zukeen, beharrezko bailitzateke euskal tankeraren adibide bakanaren –bertsolariaren– mundua, pentsaera eta bizimoduak atzemateko.

Bertsolariaren irudia euskal herriaren islarik garaiena gisa atzeman zuen; espiritualki, herriaren barren-barreneko egia kultural puru eta koherenteenaren isla gisa (*QT*: 9, 124). 60etako euskal gizartea ez zen bere baitako euskal tankera ulertzeko gauza; ezintasun horrek –eskultorearen begirada zabalari jarraiki–, euskal bizipena hertsitzeaz haratago, arte moderno garaikidea sumatzeko ezgai bihurtzen gintuen euskaldunak:

Todo el arte contemporáneo está entrando en ese silencio-cromlech, en una imaginación interior que es el tipo de nuestra coherencia desde el dominio complejo del hombre. El que no se disponga a vivir en esta coherencia espiritual nueva, le resultará incoherente lo verdadero del mundo actual y lo más viejo y verdadero del estilo nuestro. (*QT*: 125; “silencio-cromlech” ideia *QT*: 45, 77)

²⁶⁴ “Si sabemos cómo es fundamentalmente el hombre espiritual que sale del cromlech, tenemos que reconocer que hay un estilo de interpretación estética que le corresponde” (*QT*: 122), “para que la voz del bertsolari que habla empiece a cantar, para que todo lo que diga nos parezca coherente y natural [...] no usaremos más la interpretación clásica (que es razonamiento en el espacio) sino que habremos de tratar de hacerlo con un TRATAMIENTO DEL TIEMPO (que es el que aquí ensayamos) y que conviene al estilo vasco, culturalmente a nuestro estilo de hombre natural.” (*QT*: 53).

²⁶⁵ “Con la comprensión visual del silencio-cromlech, el estilo vasco se identifica con el de la naturaleza exterior, en cuya voz, en cuyo canto, podemos reconocer hoy el canto que conduce el monólogo interior del *bertsolari* lo mismo que el comportamiento como de río, como de canción natural, que está en nuestra vida y en nuestras tradiciones.” (*QT*: 129)

Hala, euskal estilo originaletik urrundu izanak ez zuen euskaldunaren bizipen berezkoa, soilik, mugatzen, gizarte garaikidearekiko erlazioa bera ere mugatu egiten zuen (*QT*: 59). Gisa horretara, euskal tankeraren berreskuratzea euskalduna bere baitarako nahiz munduarekiko erlazioan jartzeko saio bihurtu zuen Oteizak; ekimena, euskal nazioaren beharrez haratago, munduarekiko berezkoa lukeen harremanean ere ezarririk.

- **Ez Dok Amairu (1966-1972)**

Aunitz idatzi da Ez Dok Amairu taldeari buruz. Gaugerero erranak direnak bere horretan errepikatu nahi ez, eta goiti aipaturiko Oteizaren eta ondoko ekimen banakoen arteko zubi lan gisa erreparatu diogu taldeari; izan ere, Ez Dok Amairuko kideek Oteizaren jarrera bildu izanaz gain, euskal kantagintza garaikideari bideak ireki izana baitute, bertzeak bertze, meritu.

Oteizak kulturgile gazteak kitzikatu izanak euskal kulturaren moldatzean lagundu egin zuen. Ez Dok Amairu da, ziur aski, eskultoreak aldarrikaturiko lan bateratua sona handiz gauzatu zuen lehen euskal talde kulturala, eta haren izena berak proposatu omen zuen (Ornoz 2000: 30). Laboak haren eragina giro kultural zabalaren barnean sumatu zuen:

60ko hamarkadan kultur leherketa bat izan zen Euskal Herrian. Jorge Oteiza zen motorea, baina hor ziren Ez Dok Amairu, Jarrai taldea... Une hartan eskultoreak zeuden Oteiza, Txillida, Mendiburu... Artista oso interesgarriak zeuden, eta eragin zidaten, eta orduz geroztik ere eragin didate beste alorretako artistek. (Laba 2006, Gorka Erostarbek eginiko elkarrizketa)

Edozein gisatan, talde honen hagitz erreferentzia zuzen guti aurkitu ditugu eskultorearen lanetan²⁶⁶. Oteizak langartua sumatzen zuen gizartea:

Bakoitza bere alderditik dabil. Euskal errealitatearen benetazko analisa sakon baten faltan gaude. Taldetxoetako ekintza arruntetan gelditzen gara. Ez dakigu Euskal Herria zer dan. Helbururik ezean galduta gabiltza. Batasunaren beharrea aurkitzen gara! Bakoitzaren ideologi estu eta ttipiak baztertuta, batu egin behar dugu. Lanean helburuan bat izan behar dugu. Geure lanak batasun begiaz ikuspegitu behar ditugu. Eta analisa jator batek eraginda arduratu behar dugu. Ni aspertu naiz. Neure itxaropen bakarra zuek gazteok, zinaten baina gazteriak huts egin du. Eta orain norengan itxaro behar dut? Zaharrengan? Utikan!... (Luis Haranburu-Altunak eginiko elkarrizketa, *Zeruko Argia*, 1971, 433: 1)

²⁶⁶ *Ejercicios espirituales en un túnel* liburuan aipatzen du Laboa eta Artze ari direla “Estok amairu” taldearen inguruan, euskal Kultur Frontean (199., 239. eta 244. or.). Eskerrik asko, Marisol Bastidari, erreferentzia zehatza ematen lagundu izanagatik.

Hitzok argitaratu zirenetik bi hilabetetara, hain zuzen, Oteizak aldarrikaturiko bateratasun horri buruz, zioen JosAnton Artzek:

(Galdetzailea) - Zuk esan duzun arrazoi harrengatik berorrengatik sentikaria ez ahal da gehienbat bilduma bat? Batasun bat baino gehiago ez ahal da bilduma bat?

(JosAnton Artze) - Begira, puntu hontaz ez diot oraindik iñori itzegin eta benetan interesgarria da. Gu, lehen urratsak ematen ari gara. Zuk esaten duzun batasun hori ez da oraindik lortu. Hortarako lan asko, ikaragarri egin behar da. Batasun hori sortzea oso zalila [*sic*] da. Horrengatik "Baga biga" gauza lortu bat baino urratsa bezala du bere garrantzia. Aukeratu dan bidea da inportanteena. Gauza aundirik ez da lortu oraindik. Egin dana, gauza oso ximplea izan da.

(Egile ezezaguna, *ibid.*, 447: 1)

Hitzok agerian uzten dute arestian aipaturiko Oteizaren eragina; izan ere, sentikaririkideek batasun guzizkorik izan ez arren, gibelean jarrera berria eta ekimen bateratua abiatu nahia baitzen. Oteizaren ekarpenik garrantzitsuenetarikoa jarrera izan zela berretsi egiten da; baina, era berean, Ez Dok Amairuk komunitateak behar zuen aritze komuna irudikatu eta aditzera ematen asmatu zuela. Identitate kultural berezkoaren bilaketak partaidetza sentimen bateratua zuen oinarrian; Ez Dok Amairuko arituen hartzaileek, taldearen barne-kohesioaren nondik norakoez urruti, euskaltasunaren berreskuratzea talde ekimen moderno gisa atzeman ahal izan zuten.

Nolanahi ere den, partaideen batasun goiti-beheitez haratago, taldean aritzeak bi alderdi positibo berri ahalbidetu zituen: biziraupena ziurtatu zien kideei²⁶⁷, eta, jendeak behar zuen aritu moldea izaki, bateratuki erantzun zion komunitateak, multzo gisa. "Baga, biga, higa..." sentikariaren (1969-1972) esku-programan erranari jarraiki: "Reflejo y embrión de una tarea colectiva, somos un grupo y seguimos trabajando en grupo" (*in* Oronoz 2000: 78); halaxe atzeman zuen hartzaile andanak, eta gisa berean, bateratuki, erantzun. Eskaintzen zen corpusak eta partaideen erranek²⁶⁸, tradizioaren berreskuratzea abiapuntu bakarra baino gehiago, fokua kantagintza modernoa egin nahian ere paratu zutela islatzen dute; nazioartean egin gisa, kanta tradizionalen berreskuratzea kanta modernoak jotzearekin bateratua baitzen. Sentikaria izan zen horien guzien agertoki nagusia. Belén Oronozek tesian garatua du lanaren izana; hala nola, taldekideek genero desberdinak –kantua, poesia, antzerkia, dantza...– testuinguru berrian ezarri izana aztertzen du:

²⁶⁷ Julen Lekuonak: "Gu bakarka hasi ginen eta ziur aski garaiko giro komertzialarekin ez genituen hiru hilabete iraungo; taldearen eraginez, urte luzeetan zehar iraun genuen" (Ornoz 2000: 76).

²⁶⁸ "Guk ez genuen halabeharrez tradizioetik abiatu nahi, kantu herrikoietatik alegia, baina ahal zen neurrian tradizioa ere birreskuratu nahi genuen eta ezagutzera eman, Mikel Laboaren kasuan nabarmen ikus daitekeenez." (Xabier Letek, *in ibid.*: 76)

Esango nuke formalki euskal antzerki tradizionala dakarrela gogora, Zuberoako antzerkigintza zaharrena (pastoralak kasu), hartan bezala kantua, dantza tradizionala, musika, gorputz-adierazpena... lantzen zirelako. Aitzitik, edukiari dagokionez, garaiko gizartearen kezkek, arazoak, islatzen saiatzen zen (2011: 234)

Hortaz, euskal ondare kulturalaren berreskuratzea alderdi aunitzetarikoak izan zen; bertzeak bertze, gaurgero Laboak banako bidean landuak zituen –*Azken* (1964), *Urtsuako kanta* (1966), *Haika mutil* (1969)– AOK-ko elementuak, testuinguru moderno bateratu batean, koherentzia komunikatibo bakarraren baitan, eskainiak ziren. Aitzinago aipatuko dugunez, halako emanaldietan AOKri eman zitzaizkion trataerak eta kokaguneez lagundu zuten, 60ko hamarkada akieran eta 70eko hasieran, hartzaileengan lotura afektibo-sinbolikoak eraikitzen.

Beraz, Oteizak aldarrikatzen zuen talde lana islatu, eta eskultoreak berak euskal izanarekiko lagundu zuen jarrera positiboak izan zuen nolabaiteko segidarik. Jarraipen hori, ordea, zuzeneko eragina baino gehiago, prozesu gisa biziriko eraldatzearen ondorioz gertatu zen: batoren jarrerak –Aresti bera giltzarri izan zen²⁶⁹–, bertzearen proposamenek –antzerki taldeek, argitaletxeek– eta abarrek Ez Dok Amairu gisako ekimena ahalbidetu zuten: aritu modernoaz gain, ondare kulturalaren berreskuratzea testuinguru berrietan eskaintzen zuten saioek euskaltasunaren duintasuna ernaldu zuten. Hala, bada, tradizioaren transmisioa etengabeko sorkuntza prozesua izaki (Burke 2006a [2004]: 123-124), elementuen izana aldatu, eta garai berrietara moldatzeko hautatze nahiz alboratze lan eraikitzailea gauzatu zuten.

Beren lana, ordea, ez zen, inolaz ere, ekimen isolatua izan; kideek taldeka nahiz banakako arituetan eskaini zuten euskal ondare kulturalaren moldatzea komunitatearen ibilbide ziklikoaren baitan zen. Ideia honen azpimarratzeak, 1960-1970 bitarteko kulturgileen lana gutiestea baino gehiago, balioaren zentzua komunitatearen *continuumaren* barrenean kokatzea du helburu. Izan ere, komunitate kulturalendako ezinbertzeko dira beren ondarearen etengabeko hausnartze eta birmoldatzeak; ekimen naturalak dira, komunitatearen izaera berezkoaren bizirautea ziurtatu nahi bada, bederen. Laboak, Ez Dok Amairuko lanari buruz ari zelarik, erran gisa:

Herri musikaren erroak bilatu eta eguneratzeaz gain, eduki garaikidea duen ikuskizuna sortu nahi dugu, euskal gizartearen isla izango dena –nahiz hondo tradizionala eduki– eta gure ideia zein musikarekin batera aurrera joko duena [...]. Gure esperientzia ez da berria. Antzeko mugimenduak

²⁶⁹ Gaurgero aipatu dugu bertsoen eta koplak zaharren erabilera berriztatutako aditzera ematen duen jarrera: ihartzan hasiak edo jadanik fosilduak ziren baliabideen erabilera eguneratuak euskal kulturaren funtzionalitate garaikidearen aldeko saioak ziren.

egon dira XV. mendean edo Berpizkundean, eta egun AEB edo Ingalaterran. Abestia mistifikatzean, jendeak bere erroak bilatu izan ditu eta folklorera (nolabait deitzearren) itzuli izan da herri musikaren bila. (Angulo, *La Gaceta del Norte* 1971-II-25, in Oronoz 2011: 237)

Oronozek bilduriko hitzetan, ederki islatzen da 60-70etako ekimen kulturalaren orainaldia, etorkizuna eta iragana. Euskal identitatearen berreskuratzea orainaldiko helburuetan bildua ageri da: iraganeko ondare kulturala momentuko euskal gizartearendako funtzionala izateko moduan aurkezten dute Ez Dok Amairukoek. Gainera, esperientziaren ziklikotasunaz ohartua da kantaria. Beraz, hitz guti horietan, ondare kulturalaren biziraute prozesuaren muina biltzen da, ondarearen moldatzea belaunaldi berriendako funtzionala eta hurbilekoa izateko gisan eskainia baita.

Kulturgileen aritua funtsezkoa izan zen, berreskuraturiko ondarea belaunaldi berriendako funtzional bihurtzeko prozesuan. Oteizaren gisako ekimenek jarrera aldaketa bulkatu zuten, eta, ikuspegi berriztatuen bulkada baliatuz, komunitate partaidetzaren lehendabizikotako erakustaldia Ez Dok Amairurena izan zela erran liteke. Talde barreneko kohesioa zeinahi zelarik ere, kultura zanpatuaren berreskuratze modernoan batera aritu ziren, hartzaileendako. Behar horien inguruan sortuko zen, preseski, “sumatze edo atzematze liturgiko” deitu dugunaren indarra: arrazoiak haraindiko dimentsioaren indarra sostengatzen lagundu zuten parte-hartze zeremoniatsuak; jarrera eta intentzioa erranaren gainetik izaten zutenak.

4.2. atalean erranen duguna pixka bat aitzinatuz, kantarien artean, Mikel Laboak komunitateari AOKren eskaintza berriztatua eman ziola ikusiko dugu. Iragan komunaren adierazgarri ziren kanta zahar eta abarrak eskuragarri jarri zituen, bai, baina, lehenik, haren pertzepzio zeremoniatsua laguntzen zuten zuzeneko emanaldi, errepikapen eta hizkuntza arrotzaren erabileraz lagunduak; ondotik, olerkari gero eta gazteagoekin batera, kokapen eguneratuan zirelarik.

Laboaren aritu zehatza aztertu aitzinetik, kulturgileek kultur moldatzean izaniko rolaz solastuko gara. Ikusiko dugunez, aipatu berri dugun atzematze zeremoniatsuak izan zuen rola oinarriarekiko –oreka komunikatiboarekiko– loturarik.

3.1.4.b. *Continuuma*: kulturgileen rol desberdinak

Arestian aipatu dugu Oteizak ekarpen nagusi bat egin ziola euskal munduari: jarrera. Jarrera horren oinarrian, euskal kulturarekin, ahozkotatasunarekin eta euskal identitatearekin loturiko ezaugarrien balio nagusia zen: duintzea. Begirada positibo

horren ondorioz, kulturgileek “egiaz merezi zuen” identitate baten berreskuratze lanetan batzeko aukera aldarrikatu ahal izan zuten, baita ondotik ekimen horren ekarpen banakoak egin ere.

Ekarpen horiek lagundu zuten, hain zuzen, 60etatik aitzina berregituratu zen euskal kulturaren eraikuntza²⁷⁰: ondare kulturalako elementuak berreskuratu, bertako iruditeria eguneratu eta etorkizuneko abiapuntu izan ziren. Izan ere:

Desde una perspectiva simbólica, «la cultura es una estructura de significados plasmada en unas formas simbólicas, que incluyen acciones, expresiones y objetos significativos de diversa índole, en virtud de los cuales las personas se comunican y comparten sus experiencias, concepciones y creencias». El proceso de identificación con los elementos de una cultura específica implica una fuerte inversión emocional. Las personas nacen dentro de culturas que determinan el modo en que ellas se perciben a sí mismas y se organizan en relación con los demás y la naturaleza. (Guibernau 2009 [2007]: 143)

Zenbait kulturgilerengan –kitzikagarrien izan zirenengan–, hiru fasetan identifikatu ahal ditugun alderdiak sumatzen dira –ez kasu guzietan–; alabaina, komunitateak –modu zabalean, bederen– pauso horiek diferenteki garatu zituen: banan-banan eta aitzinekoak ondokoaren gauzatzea ahalbidetzeko oinarria eskaintzen zuelarik.

Hala, bada, kulturgileen rolaz dihardugun azpiatal honetan, hau litzateke lehendabiziko ideia nagusia: birmoldatze kulturala sustatu zuten kulturgile nagusien eta beren lana beretu zuen komunitatearen faseak diferenteki kateatu zirela.

Idea horren muina agertzeko, bi azpiatal banatu ditugu. Lehenik, euskal komunitateko kulturgileek 1960-1975 bitartean izan zuten jarduna nazio berpizte garaian izaten diren faseekin alderatuko dugu (b.1.); horretarako, hagitz lagungarri izanen dira estaturik gabeko nazioak eta nazio berpizteak kontuan dituzten adituen erranak (Guibernau 1999). Ondotik, hain zuzen ere aditu horien erranak euskal komunitatearen azterketara egokitu ahal izateko, bertze alderdi nagusi bati behatu beharra proposatuko dugu –kasu honetan, adituen lanak (Johnson 1995) ere lagungarri izanen dira–; hau da, kulturgileen eta gainerako komunitateko kideen arteko harremana aztertzeke, euskal kasuan bederen, garaiko helburu nagusiei erreparatu behar zaiela uste dugu (b.2.).

²⁷⁰ Mikel Laboaren aritua egituratze berri horretan izan zen. Ikusiko dugunez, irudi eta molde sinbolikoak, beren erabilera eta erabilera horretatik abiatutako atzemate berrizatuak kantariaren arituan hagitz garrantzitsu izan ziren. Hiru alderdi horien lantzeak ahalbidetu du euskal oinarri kultural berrizatuaren bidea sumatu, eta bide horren lan bateratua atzeman ahal izana: batetik, poetek, euskal ondare kulturaletik eguneraturiko irudiez gain, bertso moldeak berak baliatu izana; bertetik, ahozko baliabideen erabilera modernoa; azkenik, baliatze berrizatu horretatik sortutako atzematearen abangoardiazko eskaintza. Denak arlo desberdinetako kulturgileen lanari eskerrak lortuak, eta Laboak aitzina eramana.

Gisa horretan, bi azpiataletan erranek, estaturik gabeko nazioetan, kulturgileen eta komunitatearen artean sortzen diren elkarreragin nagusiak aztertzeko oinarriak agertuko dituzte.

b.1. Nazionalismo faseekin alderatzea

Kultur birmoldaketan parte hartu zuten bidegileek, beraz, euskal ondarearen berpizkundera, nazioarena, jorratu zuten, eta, gisa berean, sustatu; sustatze horretan bildu zen, hain zuzen, komunitate zabalarekin batera gauzaturiko moldaketa kulturala.

Kulturgileen rolari dagokionez, estatudun edota estaturik gabeko nazioen bereizkuntzari erreparatzea komeni da; izan ere, egoeraren desberdinak kultur eremuaren ahalmena eta ahalmen hori aitzinatze bideak nahiz bidegileak guziz baldintzatu ohi ditu.

Eragite horren garrantziaz oharturik, Guibernauk, estaturik gabeko nazionalismoen²⁷¹ berpizte faseetan, bi aldi nagusi bereizi behar direla argudiatzen du (1999: 98): nazionalismoa hasiberria den garaia eta mugimenduak aski arrakasta lortzen duenean abiatutako aldia. Azken hori litzateke –beti ere, Guibernauren azalpenean– intelektualen lanak partidu politiko batera, edota bat baino gehiagotara, bideratzen direneko aldia; alderdi horiek boterearekiko luketen erlazioa, ordea, ez litzateke, ezinbertzean, predestinatua. Erran nahi baita alderdi politiko horiek nazioaren norabidea kokagune desberdinetarik landu ahalko luketela: nazioak, nolabaiteko autonomia politikoa eskuratua dutelarik, botere nagusiaren kokagunean izan litezke; edota, autonomia gradu hori lortu dutelarik, agintebide nagusitik at izan.

Guibernauk azaltzen dituen aldiak hizpide dugun kultur moldaketari egokitzen zaizkio. 1960-1975 bitartean, kulturgileek eta intelektualek²⁷², nazioaren ernatze hasieran, parte hartze aski kolektiboa izan zuten; 1975etik aitzina abiatutako bidean, aldiz, anitzagoa izan zen botere arautzailearekiko izan zuten erlazioa.

Hortaz, 1960-1975 bitartea ekimen nazionalistetariko baten lehen urratsa dela ulerturik, eta baieztapen horrekin adierazi nahi denaren oinarriak finkatuak ditugula, rolen eta nazionalismo fase horren arteko harremanaz espresuki aritu ahal gintezke; izan

²⁷¹ Oroitu tesian “nazionalismo” hitza terminoak duen oinarrizko adierara jo dugula. Hala egin izanaren arrazoitze nagusia 1.1.3. atalean argitu dugu.

²⁷² “Intelektual” eta “kulturgile” kontzeptuak espresuki desberdinduko ditugu, tesian (ikus A eranskinetako “Intelektual vs *intelligentsia*, vs kulturgile” sarrera).

ere, Guibernauk ez du soilik nazionalismoen fase bakoitza deskribatzen, horietarik bakoitzean intelektualek rol desberdinak izan ohi dituztela azaltzen du.

Intelektualek ekimen nazionalistetan duten parte-hartzeaz ari dela, nazionalismo prozesuen hasiera garaietan duten rolari dagokionez, hiru puntu nagusi bereizten ditu (*loc. cit.*): komunitatearen historia, hizkuntza, mitoak, kultura eta ezaugarri berezkoak lantzen dituzte; kultura gutituaren eta estatu barneratzailearen arteko aldeak azpimarratzen; eta momentuko ordenari buruzko diskurtso kritiko eta subertsiboa eratzen dutela adierazten du, altruismoa²⁷³ abiatzeetan hagitz ohikoa dela gaineratuz.

Guibernauk, hasteko edo hasiberria den nazionalismoan, hiru zeregin horiek sumatzen ditu, intelektualengan; edo, bertze era batera erranda, rol bikoitza sumatzen du: mugimendu nazionalaren arkitekto gisa jokatzera eta iraultzaileak izatea, momentuko ordenaren deslegitimazioa aldarrikatzen duten diskurtsoa eratzen baitute:

On the one hand, they act as architects of the nationalist movement by providing cultural, historical, political and economic arguments to sustain the distinctive character of the nation and a legitimation of its will to decide upon its political future. Intellectuals, as Martin²⁷⁴ writes when analysing their role in revolutionary institutions, are seen as fulfilling a special function of social initiative, creativeness, and leadership in the pre-revolutionary and revolutionary situation. The intellectual is the creator of the common myth that guides the revolution. The same could be said about the intellectual's position at the dawn of a nationalist movement.

On the other hand, as we have already mentioned, intellectuals are subversive and construct a discourse which undermines the legitimacy of the current order of things. They denounce the nation's present situation within the state and offer an alternative to it by promoting the conditions and processes of conflict. In so doing they become 'creators and leaders in the production of new state structures, new Gestalts of power and ideology'²⁷⁵. (*Ibid.*: 99)

Euskal herriaren baitan kulturgileek, 1960-1975 bitartean, izaniko jarrera eta arituari erreparatuz, ohartu gara aipaturiko hiru zereginak eta horietan sumatzen diren bi rolak agertzen direla. Mugimendu nazionalaren arkitekto gisa, modu orokorrean, kulturgile guziak aritu zirela erran liteke, beraiek eman baitzizkioten gero eta alde politiko nabariagoak zituen nazioari berpizkunderako oinarrizko identifikazioa, atxikitzea eta horiek errotzeko muina.

Muin horretan ziren, hain zuzen, lanean behin eta berriz hizpide ditugun forma sinbolikoak: txoriaren irudia, ama-herriarena, euskara, iragan galdua eta ukatua... Forma

²⁷³ Diskurtso kritiko artistikoa izan zen Ez Dok Amairurena, kasu; altruismoa mugatzearekin sorturiko eztabaidak, ordea, autonomiarako bidearen malkarra islatzen du, arazoak izan baitziren profesionalizatzeko prozesuan.

²⁷⁴ Guibernauk ematen duen erreferentzia: Martin, W.C., 1987, "The Role of the Intellectual", "The Role of the Intellectual in Revolutionary Institutions", in Mohan, Raj P., (arg.), *The Mythmakers: Intellectuals and the Intelligentsia in Perspective*. Westport, Connecticut: Greenwood Press, 61-77. (62. or., espresuki)

²⁷⁵ Berriz ere, Martinen idatziari egiten dio erreferentzia (73. or.).

sinboliko zehatz horiek –nahiz inguruan garaturiko atzemate liturgikoak eta interpretazio sare bateratuak– ondoko hamarkadetan nagusituko zen oinarri nazionala lantzen, garatzen eta barreiatzen lagundu zuten, finkatzen. Arestian aipaturiko adibideak, berriz ere, hizpidera ekarriaz, Oteizak, Arestik, Ez Dok Amairuk eta testuinguruan kokaturiko kulturgileek komunitateak hasiberria zuen garapen prozesurako oinarriak ezarri zituzten: atxikitze emozionalerako oinarrizko sinbologia, iraganeko eredu bateratuaren irudia, eskaini zuten; eta, bereziki, haren erreferentzia eguneratua nahiz etorkizuneko proiektua bidezkozteko ondarea eskuratu, eskuragarri egin, eta barreiatu zuten²⁷⁶. Gainera, zenbaiten diskurtsoekin, garaiko ordenari espresuki kontra egiten zion solasa²⁷⁷ garatu zen.

Momentuko ordenaren aurkako solasa, era berean, komunitatearen ezaugarri berezkoak goraiatzearekin eta azpimarratzearekin bat heldu zenez, bereizgarrien lanketak botere azpiratzailearekiko aldea nabarmendu zuen. Aurkituriko adibide anitzen artean, Oteizaren aritura hurbildu nahiko genuke, eskultoreak erranikoetan, botere azpiratzailearekiko aldean azpimarratzea agerrarazteko ahalegin desberdina sumatzen baita.

Komunitateak bateratuki botere harekiko desadostasuna aski modu zabalean agertu aitzinetik, *QT* liburuan, metodologia eta kriterio egokien erabilera aldarrikatuz, ageri dira argudiatuak botere azpiratzailearekin loturiko errealitatearekiko aldeak; bereziki, alde horiek euskal komunitatearen errealitatea aztertzeke luketen egokitasuna zalantzan jartzen zuen: originalitate galduaren ulerkuntzarako ezinbertzeke ziren begirada, ikuspegi eta metodo egokiak²⁷⁸ behar ziren; gainera, erreferentziazko hondarreko pertsonaren berrinterpretazioa aldarrikatu zuen, bertsolariarena. Hala, tradizio latindarra desegokia zen, ikerkuntza horretarako (ikus 260. oin-oharra).

Are gehiago, kriterio horien egokitasunak “gure” eta “bertzeen” arteko aldeak azpimarratzen lagunduko luke:

²⁷⁶ Balada, kanta, koplak eta bertso zaharrek iraganaren irudia ezagutarazi zuten gisa, horiek komunitateari eskaintzeke moldeek –kontzertuek, olerki eta koplak berriztatuz osaturiko liburuek– eguneratze eta atzemate bateratua lagundu zuten.

²⁷⁷ Ikus “La canción de autor, una alternativa cultural contrahegemónica” (Torrego 1999: 130-144).

²⁷⁸ “Si sabemos cómo es fundamentalmente el hombre espiritual que sale del cromlech, tenemos que reconocer que hay un estilo de interpretación estética que le corresponde” (*QT*: 122), “para que la voz del bertsolari que habla empieza a cantar, para que todo lo que diga nos parezca coherente y natural [...] no usaremos más la interpretación clásica (que es razonamiento en el espacio) sino que habremos de tratar de hacerlo con un TRATAMIENTO DEL TIEMPO (que es el que aquí ensayamos) y que conviene al estilo vasco, culturalmente a nuestro estilo de hombre natural” (*QT*: 53).

Se entiende ya (es que también importa mucho no esperar más) que necesitamos partir de nuevas ideas, contar con nuevos teoremas, con nuevos principios teóricos, que mejoren y enriquezcan los ejercicios de interpretación de nuestro pasado y nuestro presente, entre nosotros y entre los de fuera (*QT*: 26)

Hala, bada, behar-beharrezkotzat ageri da “bertze”enganako aldearen azpimarratzea.

debemos pensar con mayor satisfacción en la importancia de la aparente pobreza de nuestra aplicación artística secundaria. Debemos relacionar mejor los documentos que encontramos, antes que con los objetos semejantes *de los demás*, con la naturaleza espiritual de nuestro cromlech, donde el hombre crea y domina una nueva mentalidad. (*QT*: 120) (Azpimarra gurea da)

Beraz, euskal esentzia aztertzeko kriterio eta metodologiak baloratzen dira; ez euskal izana soilik, baizik eta izaera hori aztertzeko eta ulertzeko “originalitatearekin” bat heldu liratekeen kriterioak. Baliotze horren oinarrian, ordea, “bertze”ekiko aldea espresuki azpimarratzen da: “egiazki” desberdina zatekeen ezaugarri eta errealitate partekatuz haratago, bertzeen kriterioek baliorik ez dutela agertuz.

Hori dela eta, botere azpiratzailearen bertze adarretarik baten eraginari egiten zaio aitzina: modu zabalagoan ari dela, euskal komunitatearen izanetik urrutiko den “bertze” errealitateko kriterioak baztertzen dira (*QT*: 112, 114), haien erabilgarritasun eza aldarrikatuz. Gisa horretan, berezko ezaugarrien azpimarratzeaz gain, izaera berezko horrek metodologia zehatza erabili beharra agerrarazten zuen; hain zuzen, botere azpiratzailearen bideetatik urrundua zatekeen metodologia. Halatan, euskal komunitatearen izaite banakoaz gaindi, izaite horrek biltzen zuen errealitatea modu “egoki”an ulertzeko begirada eta azterketa propioak aldarrikatu ziren.

Euskal kulturgileen rola hagitik modu eta diskurtso sinbolikoetan agertzen ziren, usu. Ezaugarri horrek espresuki azaltzen du estatuaren eta komunitatearen arteko erlazioaren nondik norakoa: zenbat eta erregimen totalitarioagoa izan, aniztasun kulturalarekiko zenbat eta zorrotzago agertu, orduan eta aritu sinbolikoagoak garatzen dituzte komunitate azpiratuek. Euskal komunitatearen kasuan, estatuko bertze komunitate periferikoek egin gisa, eredu sinbolikoetara jo zen.

Edozein gisatan, kulturgileek 1975etik aitzina abiatu zen faserako ezinbertzeko oinarriak ezarri zituzten arren, oinarri horien arrakasta ez zen, bakarrik, komunitate beharren eta asebetetzeen arteko harremanean izan; aitzitik, ondoko atalean agertuko dugunez, atzenda eta arrotua zen ondarearen eta komunitatearen arteko harremana modu orekatuan berregituratu izanak berebiziko eragina izan zuen.

b.2. Oreako komunikatiboa, kulturgileen rolaren oinarri

Goiti, kulturgileek nazionalismoen hasiera garaian dituzten rol nagusi biak hizpide izan ditugun arren, 1960-1975 bitarteko euskal egoeratik hurbilago den interpretazioa dela medio, osatu egin nahiko genuke Guibernauk errana; garaian eta komunitatearen arteko harremana hagitik zehatza dela jakinik, ikerlari nagusien ekarria adibide zehatzetara egokitzea komeni dela uste dugu. Hori dela eta, rol nagusi bien deskribatzeaz haratago, hagitik garrantzitsua iduritu zaigu –euskal komunitatearen kasuan– kulturgileen, ondarearen eta komunitatearen arteko harreman horretan sumatzen diren helburu nagusiak, gaintik bederen, agertzea.

Tesiaren bigarren kapituluaren solasgai dugun hamabortzaldian –komunitate beharren lehen fasean–, bi helburu nagusitan bil liteke euskal sorkuntzan parte hartu zuten kulturgileen zeregin nagusia²⁷⁹: euskal ondarearen funtzionaltasuna bilatzea eta, noski, ondare hori funtzionaltasunez moldatzea –hortaz, agerikoa denez, euskal ondarearen birmoldatze funtzionala gauzatzea zuten xede–.

Orain arte, euskal ondare kulturalaren moldatzea solasgai genuela, funtzionaltasunaren garrantzia azpimarratzera jo dugu: funtzioak izan zuten eraginaz aritu gara, dela ondaretik berreskuraturiko corpusaren funtzionalitate berriztatzea azalduz, dela berriztatzearen oinarrian duintze prozesuak zuten garrantzia azpimarratuz –oroitu Oteizaz errana–. Ondoko paragrafoetan, ondarearen jabetza partekatuen zutarriari erreparatuko diogu: oreako komunikatiboari.

Ondare kulturalaren jabetza jarraituak, belaunaldiz belaunaldi eginak, eskainiaren eta hartzaile berrien arteko harremana konpentsatua izatea eskatzen du. Hau da, batetik, berritasunaren eta ezagunaren arteko oreako mantendu behar da; bertzetik, eskainiak momentuko garaian egokitua izan behar du, eta, garai horretan hartzaile nagusi den belaunaldiarendako, funtzionala. Hala, bada, berreskuraturiko kulturak, guziz arrotza den izaeraren agertoki izan beharrea, hurbileko oihartzuna izan behar du; belaunaldi berriendako nolabait ere ezagunak diren erreferentzien oihartzuna.

Zaharraren eta berriaren arteko oreak, preseski, ezartzen duen harremana izendatu dugu “oreka komunikatibo”. Harreman horren oinarrian, James H. Johnsonen, *Listening in Paris* (1995) liburuan, azalduko ideia da: proposatzen diren berrikuntzek

²⁷⁹ 4.1.2. atalean ikusiko dugunez, kulturgileen zeregin nagusiek, gainera, harreman berezitua izan zuten, euskal literaturarekin; izan ere, kultur moldatze nagusian parte hartu zuten kulturgile nagusietariko zenbaitek, euskal literaturarekin izan zuten harremanagatik beragatik, eragin sinboliko nabaria izan zuten, eremuarengan.

hartzaileekin komunikazioa mantentzeko adina lotura behar dute; gainera, eskaintzen den arituak aski berriztatua behar du izan, bai berrinterpretatzeko, bai begi desberdinez behatu ahal izateko ere (*ibid.*: 3).

Beraz, ezagunaren eta berriaren arteko orekak proposamenen eta hartzaileen arteko komunikazioa nahiz elkar aditzea oinarritzen dituzenez, lehen bi aldeen harremana funtsezko bihurtzen da. Horretaz gain, funtzionala behar du izan; bertzenaz, komunitatearendako ulertezinako identitatea hurbildu, eta bere jabetza ezinezkoa izaten da, partaideendako²⁸⁰. Funtzionaltasunak eskatzen duen hartzailearen eta hartuaren arteko egokitasunean, euskal kulturgileak izan ziren, preseski, bideratzailerik behinenak: euskal izana berreskuratzeko ekimenean hautaturiko kultur elementuek hurbiltasuna lortu zuten, ordurako aski arrotza zen identitatearenganako. Bertzeak bertze, AOK-k eskaini zuen eraikitze bidean zen sistema sinbolikoaren eta euskaldunen mundu mentalaren arteko zubia: euskal kulturgileek, AOKtik abiatuta, kideen pentsamendura egokitzen zen iruditeria josi zuten.

Zernahi gisaz, kulturgileek –kultur birmoldatzearen lehen fasean– garaturiko oreka komunikatiboak izan zuen bertze alderdi nagusirik: goiti aitzinatu gisa, oreka komunikatiboa ezartzeko ahaleginetan, sarri bilatu zen bertze komunitateetako eskaintza garaikideekiko parekidetasuna; korrespondentzia garaikidea. Moldatzearen lehen fasean agertu zen joera horrek islatzen du oreka komunikatiboaren legeak, hain justu, euskal komunitatean izan zuen gauzatze banakoaren ezaugarritze espezifikoa.

Oteizarengan, kasu, hagitz nabaria izan zen arte garaikidearekiko loturaren beharra. Hark aldarrikatzen zuen metodologiak euskal “originaltasunari” lotua izateaz gain –beraz, bertsolariari, hein batean (*QT*: 124)–, arte garaikidearekiko norabideekin bat etorri behar zuen:

La poesía y la literatura en los momentos actuales (que es preciso conocer, si queremos un poco más de comprensión para nuestro estilo) está desbordando y concluyendo la larga tradición latina de ese tipo superficial de coherencia que nos empeñamos en buscar en nuestro estilo. Todo el arte contemporáneo está entrando en ese silencio-cromlech, en una imaginación interior que es el tipo

²⁸⁰ Identitate asmatuek sortzen dituzten jabetza arazoez: “Sabemos que desde el siglo XVIII las élites reformistas habían adoptado un proyecto modernizador que entraba en colisión con la identidad anterior, construida en el periodo contrarreformista. [...] emprendieron a continuación la reelaboración de la cultura en términos nacionales” (Álvarez 2001: 275), “el problema de los reformistas o revolucionarios españoles [izan zen]: que basaron sus llamamientos a la movilización en una identidad que habían inventado de manera un tanto arbitraria, en el vacío, recurriendo a una combinación de elementos culturales poco creíble o directamente incomprendible para una gran parte de la población. Y a la hora de ponerlo en funcionamiento se comprobó la incompatibilidad entre el artilugio cultural propuesto por los liberales y el mundo mental popular, en especial campesino” (*ibid.*: 277).

de nuestra coherencia desde el dominio complejo del hombre. El que no se disponga a vivir en esta coherencia espiritual nueva, le resultará incoherente lo verdadero del mundo actual y lo más viejo y verdadero del estilo nuestro. (QT: 125)

Halatan, euskal errealitatearen azterketa arte modernoaren azterketaren norabideetan jarriz eta horretarako baliotuz. Gainera, hitz horietan, arestian aipaturiko “gu-bertze” alderatzea azpimarratzeko zerabilzkien arte modernoarekiko korrespondentzia, metodologia eta kriterio beren partekatzea. Ondare urrutiratuak, iragan bateratua altxatzeaz gain, garai berriekiko zukeen baliagarritasunak etorkizunerako proiektuetarako potentziala biderkatzen zuen. Hots, ondarea nazio funtzional eta eguneratu, baina, aldi berean, sustraituarendako gaitzen zuten, adibidez, bertso molde zaharkituen eguneratzeak eta doinu nahiz kanta zaharren abangoardiazko erabilerak²⁸¹.

Oreka komunikatiboaren oinarriak gauzatu ezean, akitua izanen zen hartzaileen eta kulturgileen arteko komunikazioa; hau da, zaharraren eta berriaren arteko harreman orekatua eta berriztatze funtzionala zaindu gabe, nekez lortu izanen zen –1975era bitarteko fasean– ondarearen berreskuratzerik. Momentuan, komunikazioa lortzeko eta etorkizunerako proiektio bide izateko baliotu eta gaitu izanak, gainera, oreka komunikatiboaren finkatze praktikoa –sormenezko erabilgarritasuna, adibidez– bulkatu zuen.

Julian Lekuonak, erraterako, hiru arrazoi eman zituen, kanta herrikoiak herriak zergatik abesten ez zituen azaltzeko (“Euskal musika berri”, “Gazte naiz” atala, 1966, 166: 7):

- Corpus ezezaguna: “Erriari kantu oiek erakutsi ez dizkie/olako. Ba liteke. Nola nai dela ere, iruditzen zait, erriak berak galdu dituela abesti oiek”.
- Garai berrietara moldatu gabea: “Kantu oiek oraingo musikaren eran ez daudelako”.
- Errealitate horrekiko distantzia:

Letrak ezer esaten ez dielako.

Iñolaz ere ezin giñezke orain uso txuriaren historia tristea kantatzen asi, ori baño tristeagoak ba daudelako. Uso txuria gure euskal errietako tximenietako keak aspaldi beztu zuen. Ezin giñezke beraz erromantizismo batean bizi. Ezin giñezke gauza politak bakarrik kantatzen ibilli. Erriak gizarte batean bizitzera esnatu bear du. Eta kantuak indar aundia duela iruditzen zait euskaldunen artean jendea pixteko; jendea dagoen egoetatik esnatzeko.

²⁸¹ Arestiren kopia zaharrak eta Laboaren “Lekeitio”ak aipa genitzake, hurrenez hurren.

Herriaren eta corpusaren arteko distantziaren isla ziren hiru puntu horiek oreka komunikatiboa akitzen zuten errealitateetarik bat erakusten dute.

3.1.4.b. azpiatalean erranak laburbilduz, ikusi dugu, lehenik (b.1.), aipaturiko bi rol nagusien gibelean –arkitekto eta iraultzaile–, Guibernauk nazionalismoen hasiera garaietan agertu ohi diren arituak sumatzen direla; halatan, kulturgileek, hain justu, euskal komunitateak 1975etik aitzina abiatu zuen fasearen oinarriak ezarri zituztela erran genezake. Hau da, erakundetze bidea sostengatuko zuten oinarriak landu, eta jendearengan barreiatu zituzten.

Ondotik (b.2.), kulturgileen rolean oreka komunikatiboa gunean zela azaldu dugu. Batetik, 1960-1975 bitarteko kultur moldaketan, ezin izan zen belaunaldien artean sobera jauzirik izan, eta berritasunaren eta “ezagunaren” arteko oreka gorde behar izan zen. Bertzetik, garai modernoekiko lotura izan zen kulturgileek euskal ondare atzenduaren eta komunitatearen artean ezarri behar izan zuten oreka komunikatiborako zutarri nagusietarikoak; ezagunarekiko lotura ezinbertzekoaz gain, duintasunaren asebetetzea izan zen hala gertatu izanaren arrazoia. Erran nahi baita kultura modernoarekiko korrespondentzia euskal kulturaren erabilgarritasun eguneratua azpimarratzeko ezinbertzeko oinarri izan zela.

3.1. atalean²⁸², euskal ondare kulturalak, 1960-1975 bitartean, izan zuen moldaketaz aritu gara. Prozesu nagusi horretan komunitatearen eta ondarearen arteko harremana guziz aldatu zela ikusi dugu. Gertakari horren erakusteko, harremana agerrarazteko irizpide nagusietariko bati behatu diogu: funtzionalitateari.

Irizpide horrek ondarearen eta komunitatearen arteko harremana berreskuratze prozesuan den garaiarekiko korrespondentzian aztertze aukera eskaini digu; izan ere, funtzionalitateak bereganatze baliagarri baten ekimena baitakar berekin, eta, beraz, bereganatze hori harremanaren abiapuntutzat den garaia aztertze lagungarri da. Gainera, hain zuzen ere laguntza hori bertze komunitateen lanketarako doitu nahirik, ondarearen funtzionalitateen kasuistika orokorra aurkeztu dugu.

Akitzeko, AOK-k jasan zituen pare bat funtzionalitate aldaketen adibideak azaldu ondotik, bihurketa horietan eragin handia izan zuten komunitateko kideez aritu gara. Hondarreko azpiatalean, kulturgileen lana kultur moldaketaren arrakastarako funtsezkoa

²⁸² 3.1.4.ko ondorioak 3.1.ekoekin bildu ditugu.

izan zela ikusi dugu; eskaintza bera baino gehiago, oreka komunikatiboaren oinarrietara egokitu izanak aunitz lagundu zuen euskal ondare kulturalaren bereganatze funtzionala.

Tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, euskal ondarearen funtzionalitate berrizatuak aldaketa handia jasan zuen, 1975etik aitzina; funtzioaren auzia distantzia murriztua zuen ondare batekiko hausnartu zen, eta helburu berriei egin behar izan zitzaien aitzina.

Segidan heldu den atalean, 1960-1975 bitarteko kultur moldaketak euskal komunitatearen garapenarekin izan zuen harremanari erreparatuko diogu, espresuki. Horretarako, hagitz lagungarriak izanen dira 3.1.4. atalean bildu ditugun ideiak. Bat-bateko bertsolaritzaren funtzio aldaketaz, arestian, erranikoen azalpenak argituko ditugu: bat-bateko bertsolaritzaren funtzio aldaketak ondarean gertaturiko funtzionalitate nagusien birformulazioa irudikatzen duelarik, aunitzez aisago eginen dugu, ondoko ataletan, kultur moldaketa nagusiaren barnako bidea. Gainera, AOK-k garaiko komunitate garapenarekiko zuen harremanean sakontzeko, espresuki erreparatuko diegu ondare horrek garaiarekiko izan zituen egokitasunei; hala, bada, AOKren balioztatze sinbolikoaren izaera logikoa azaltzeko agertuak baliagarri izanen dira, komunitate garapenaren eta AOKren arteko harremana argitzeko.

Beraz, 1960-1975 bitarteko ondare moldaketaren eta komunitate garapenaren arteko harremanari erreparatuko diogu, segidan. Hirugarren kapituluan, aldiz, 1975-1990 bitarteko komunitate helburuen eta ondare moldaketaren arteko harremanari: ondarearen balioztatze eta atzemate sinbolikoek kulturaren baitako azpieremuen garapen berezitua lagundu zutela ikusiko dugu (6.2.).

3.2. Ondorioak: ondarearen moldatzea, nazio garapenaren eskutik

Atal honetan, 3.1.1.-3.1.4. bitartean erranak biltzeaz gain, euskal komunitateak 1960-1975 bitartean jasaniko kultur moldaketaren interpretazio bateratua eginen dugu. Horretarako, aitzinataletan hizpide izan ditugun oinarriak ideia nagusi batean harilkatu ditugu: euskal ondarearen eta komunitate beharren arteko korrespondentzian. Hau da, AOK-k zuen adierazgarritasunaren eta erabilgarritasunaren gibleko izaera marjinalak emanen dute ondoko ataletan hizpide izanen ditugun ideiak orain arte erranei atxikitzeko aukera.

Halatan, laburpen soilaz haratago, laugarren atalean landuko ditugun adibide espezifikoak ulertzeko ideia lagungarriak –atal batetik bertzerako lotura

nabarmenarazten dutenak– aipatuko ditugu: etno-historiak, oreka komunikatiboak eta funtzionalitateak lagunduko digute, atal honetan, modu teorikoagoan, landu diren ideien gauzapen zehatzak argitzen.

1960-1975 bitartean, AOKren izana eta haren arrakasta komunitatearen lehen behar mailari lotuak izan ziren. Bertan biltzen zen edukia garaiko komunitate premiei egokitzeaz haratago –etno-historiak–, ezinbertzeko izan ziren, onarpen prozesuan, corpusaren berezko baliabide –ahozko–, herri jarrera –positibo– eta atzemate –parte-hartze zeremoniatsu– berriztatuak²⁸³. Alegia, ondarearen eta beharren arteko korrespondentziaren egokitasunak bi oinarri nagusi zituen: ahozko baliabideek balio afektiboak laguntzeko zituzten herriarenganako hurbiltasuna, batetik, eta erabilgarritasuna, bertetik; komunitateak horiekiko identifikazioa sumatu izana funtsezkoa izan zen. Corpus horren barrenean, bertso moldeak hurbiltasunerako tresna bihurtu –poeta gazteen erabileran, kasu–, eta bertsolariak komunitate kontzientzia horren “agertoki” gisa sumatu ziren²⁸⁴. Hala, bada, AOKtik berreskuraturiko gainerako corpusarekin batera, bertso moldeak iraganaren ulertzea laguntzeko tresna bihurtu ziren.

AOK-k garaiarekiko zuen egokitasunetarik lehena hurbiltasunak ematen zion adierazgarritasuna izan zela aipatu dugu; hau da, komunitateak AOK herriagandik hurbileko corpus gisa atzeman ahal izateko potentziala eta haren gauzapena. 60etarako euskal komunitateak corpus hori urrutiko²⁸⁵ zuen arren, haren bizipenak bilduak zituen, eta ibilbide horren kontzientziak ondarearekiko jarreran eragina izan zuen. Gainera, “herriarenganako hurbiltasun” gisa deskribatuak komunitate modernoak bilatzen zuen balio sinbolikorako potentziala zuen: batetik, komunitateak iraganean, funtzionalitate praktikoz, erabiltzen zituen elementuak ahaidetasun eta izaera “esentzial” baten oihartzun izan baitzitezkeen; bertetik, edukiak marjinean geraturiko herri-istorio nahiz -historiekin baitzuen harremana. Hau da, Historia nagusiaz kanpoko etno-historiekin.

Hurbiltasun horren erakusgarri gisa ulertu zen irudietarik bat bertso munduarena izan zen. Bertso molde eta bertsolarien irudiarengan bi ideia horien elkargunea sumatu

²⁸³ Lau alderdi horiek sakonki landuko ditugu, forma eta baliabide sinboliko zehatzak aztertuko diren ataletan (4.1.eta 4.2.).

²⁸⁴ Bat-bateko bertsolaritzak 80etan izan zuen bidea ulertzeko, adituek hartzaile aniztasuna aipatzen dute. Bihurtze horrek bat-batekoaren balio intrintsekoaren garapena eta aritu horrek garai berriendako moldatzen izan zuen abilezia ulertzen laguntzen du.

²⁸⁵ “Bai, egia da, euskal musika herrikoia bezalako musika gutxi dira munduan, baina inor gutxi kantatzen du: koroak, zortzikoteak eta ondo jan eta edan ezker... edozeñek, edozonek. (‘Boga-boga’ behintzat, eta pixka bat estutu ezker ‘Antero txaparrotia’. Ortik gora gutxi).” (Julian Lekuona, “Gazte naiz” atala, 1966, 166: 7)

izan du komunitateak, behin baino gehiagotan. Gaurgero errana dugu XX. mendeko euskal kultur berpizte saio nagusietan bertsolariaren auzia giltzarri izan dela: XIX. mendearen akieran eta XX. mendearen lehen hamarkadetan, bertso moldeen egokitzea, bertso gileen izana eta herri izpirituarekiko harremana hizpide izan ziren gisa, berriz agertu ziren 60etatik aitzinako moldaketan ere –oroitu Arestiz nahiz Oteizaz errana–. Alabaina, garai bakoitzeko egoerak diferenteak izaki, bertso paratuak eta bat-bateko bertsolariak XX. mendearen hasieran ez bezalako garapena izan zuten, frankismoaren ondotik; bertso aritu bakoitzaren berezko balioak, eta horiek berak garai berrietara moldatzeko abileziak, XX. mendearen hasierako egoera arrunt aldatu zuten.

Zein da, ordea, kultur *continuum* horretan bertsoen nahiz bertsolarien gaiak izan zuen presentzia errepikatuaren arrazoia? Konstantzia horren arrazoibideak ulertzeko, herri hurbiltasuna aditzera emateko erabili ditugun ideiak dira, berriz ere, giltzarri: euskal “esentzia” nahiz ahaidetasun “funtsezkoa” eta marjinalitatearekiko identifikazioa nahiz lilura. Bi ideia horiek, batetik, bertsolariak kultur moldaketetan izaniko konstantzia eta AOK-k 60-70eko birdefinitzean izaniko garrantzia ulertzen laguntzen dute. Bertzetik, hizpide den moldaketa nagusian, euskal ondarearen berreskuratze eta hurbiltze prozesuak nola garatu ziren aditzeko dira lagungarri: lehen fasean, ezezagunarekiko lilurak eta arrazoiak haraindiko atxikitzeak bulkada nagusia lagundu zuten; bigarren fasean –hirugarren kapituluan ikusiko dugunez–, ondarearen baitako eremu autonomoak egituratzen joan ahala, zehazki, baliabide nahiz forma sinbolikoem eta kultur ondare nahiz arituen balio propioak gailendu ziren, barne-potentziala medio areagotuak.

Euskal esentziaren bilaketa funtsezkoa izan zen, frankismo akieran nahiz ondoko urteetan: “Gure izaera guztiak, ekonomikoak, gizartearekikoak, kulturarenak zalantzan jarriak daude. Orregatik gure poesia, gure literatura, gure pintura etab. eten gabeko galdera bat izango: zer da euskaldun izatea? Zergatik euskaldun irau?” (Rikardo Arregi, “Euskal kultura gure gaurko gizartean”, *Zeruko Argia*, 200: 5). Normalki, gisa horretako xerkatzeetan, nazio izana bermatuko duten oinarriak bilatu ohi dira; 60etan izan zen berpizte saioak duintasuna izan zuen, espresuki, helburu nagusien erdigune: frankismoak zanpatu zituen euskal identitatearen, nahiz berau aditzera ematen zuten adierazleen, duintzea.

Identitatearen gordeleku gisa sumatzen den ondarea berreskuratzeke, harekiko begiruneak herriarengandik hasia behar izaten du, jarrera positiboaren ondotik helduko

bailizateke aldarrikatzea. Duintze prozesu horretan, baliabide zaharren moldaketa, sinbologia berriztatuaren eskaintza eta horiek babesten zituen iragan komuna bilatu, eta aldarrikatu ziren, euskal komunitatean: AOK eta bere jabe zen herria historia partekatu(ar)en baitan babestu ziren²⁸⁶.

Zernahi gisaz, jakina denez, horien hautatzea ez zen aisa gauzatu²⁸⁷, eta euskaltasunarekiko jarrera positiboak hainbat pauso eman behar izan zituen, garai hartan. Goiti errana dugu euskal izanarekiko begiruneak herriaren duintasun kolektiboa lagundu zuela, baina, duintze prozesuan, euskaltasunaren modernizatzeak ere eragin handia izan zuela azpimarratu beharko litzateke. Puntako kulturgileek euskal nazioaren gaitze moderno ezinbertzekotzat sumatu zuten; Arestik zioen gisa: “Gure euskera dignifikatu behar dugu, gaurko bizitze modernoarentzat tresna sufiziente bat izan dadien, gizonaren pentsamenturako bide egoki bat izan dadien” (“Astos y astokillos edo aldapa behera arin batean azken pauso bat”, *ibid.*, 1967, 218: 3). Garaiko molde eta helburu berrietara moldatzearen eta euskal “esentzia” berreskuratu berriaren arteko oreka etengabeko eztabaidagai izan zen, garaikoendako²⁸⁸. Testuinguru horretan, bertso paratuak komunitatearen molde gisa sumatu ziren, eta bat-bateko aritua nahiz bertsolariak komunitate kontzientziaren ikur.

Juan Mari Lekuonak, 1967ko Bertso Txapelketa Nagusian Xalbadorrekin [Fernando Aire Etxart] (Urepele, 1920-1976) gertatuaz²⁸⁹ ari zela, euskal “jatortasuna” atzematen zuen, bat-bateko emanaldietan: “Jaialdia, –bai ote du beste bat Euskalerrriak jatorragorik, zainberetiagorik?–”, “Bertsolariak ez dira bakarrik erri-buru, pentsamen eta sentipen aldetik. Oraingoan, gizatasunean ere eman dute esenplu ederra” (“Bertsolarien txapelketa, 1967. Maiburuko baten pentsakizunak”, *ibid.*, 1967, 226: 1).

²⁸⁶ Tesiaren hirugarren kapituluaz azalduko dugunez, duintze prozesuak ekarri zituen aldaketak izan ziren euskal literatur garaikidearen oinarriak –sistema integratu gisa bereganatuko zituenak– ezartzeko oinarritzko abiapuntua. Ondarearekiko atxikimenduak lagundu zuen bulkadaz haratago, komunitateak helburu berrietara eta erakundetze prozesura moldatu behar izan zituen aitzinez emanak. Testuinguru horretan, kulturgileen artean, belaunaldi gazteenak aldi berrirako kultur saioa abiatu zuen.

²⁸⁷ “gizon eta herri bezala, frakaso nardagarri bat izan gara euskaldunak. Zeren gure obligazioa betetzetik ihes egiteko, edozer gauza ametitu eta onartu dugu gure herritasun eta gizontasunaren ezaugarritzat.” (Aresti, “Astos y astokillos edo aldapa behera arin batean azken pauso bat”, *Zeruko Argia*, 1967, 218: 3)

²⁸⁸ Ikus Arestiren eta Basarriren arteko eztabaida (*Zeruko Argia*, 1963); “Aresti eskola zaharrekoen alde paratu zen. Xenpelar eta Txirrita, beren herrikoitasun kutsagabea, mila aldiz gehiago dira kulturaren distirak igurtzita agertu nahi dutenak baino” (Aldekoa 1998a: 85) –eztabaidaren kronologia, laugarren ataleko 411. oin-oharrea–; Inozentzio Oleak, bertsoan, Patxi Altunari erranak, *Goierriko lorak* liburuan jasoak (1970: 232-236).

²⁸⁹ *Zeruko Argia* aldizkarian gaiari buruz ziharduten hainbat artikulu idatzi ziren; bertzeak bertze, 1967an, 227. zenbakiko “Gazte naiz atalean” (7. or.), “Alkartasuna” (Itziar Bikendi) eta “Hemen, gazteagoak” azpiatalean izenbururik gabe agerturiko idatzi izengabea. (Hemendik aitzina, jakintzat emanen dugu “Hemen, gazteagoak” *Zeruko Argia* aldizkariako “Gazte naiz” ataleko azpiatala dela)

Komunitatearenganako hurbiltasun horren oinarrian, ordea, arestian aipaturiko marjinalitatearen ideia zen, hein batean.

Hain zuzen, AOK-k garaiarekiko zuen bigarren egokitasuna erabilgarritasunaren gibelego izaera marjinallean izan zen. Azalpen horrekin aitzina egin beharrean, hobe izanen dugu marjinalitatearen zein adierari erreparatzen diogun azaltzea; izan ere, gizartean bertsolariak eta bertsoek zuten presentziari eta herriak harekiko izan duen atzemateari egiten diogu erreferentzia, ez “behe-mailako” izaera aditzera ematen duen erranahiari edota antzeko balorazioei. Hala, bada, bi fokutan arduz litezke ezarri dugun bertsolaritza eta marjinalitatearen arteko harremana eta harreman horrek 60-70etako kultur moldaketan izan zuen oihartzuna: bertsolarien atzematean²⁹⁰ eta bertso moldeetan, urteen poderioz, jaso izan den edukian.

Atzematea diferentea izan da, eta, aldakortasun horren barrenean, komunitate guneko ez, eskolagabe edota jokabide “bereziko” pertsona gisa deskribatu izan dira, usu²⁹¹, bertsolariak. Atzemate horren erakusgarri negatibo interesgarria da Basarrik, bere “Nire bordatxotik” atalean, bertsolari gisa, islatu zuena:

Garai batean bertsolariak, zoritxarrez, bekoeneko mallan ziran; tentelu bazuri par eragiñaztea beste elbururik etzuten gizonak.

Miñ artu izan det Euskalerriko jende ikasiak, Euskalerriko jakintsuak, bertsolaritza ankapean zeukatela jakinda; [...]

Enaiz batere arritzen ordea. [sic] garai artako bertsolarien jokabidea ikusita, jende eskolatuak begi onez ez ikustea.

[...]

Bertsolarien aotatik Kristorenak eta bi entzuten ezpaziran, entzule aiek etzuten gozamenik izaten.

Eziera jatorreko pertsonak, edukazio pixkabat berengan zutenak, bertsolariengandik zenbat eta urrutiago, orduan eta pozikago.

Aitortu nai duenak aitortu, ta nai eztuenak ez, au zan bertsolaritza izakera orain berrogei urte.

Taberna zulotan eta sagardotegietan ba-zituzten entzuleak, baña jende prestua bildu ziteken tokietatik etzan deirik izaten.

[...]

[...] Onek ondatu zituen zearo. Lokaztegitik lokaztegitara ibiltzeak; lotsa galtzeak eta ajolagabekeriz gañezteak.

[...]

Len, jende ikasia ta edukatua bertsolariengandik nundik igesiko ibiltzen zan. Gaur berriz, bertsolarien atzetik dabill [...]

²⁹⁰ Azterketa sakonagorik gabe, ezin bat-bateko bertsolariekin soilik gertatzen denik baieztatu. Iduri du mito bihurturiko bertsolarien irudia, sarri, bat-bateko arituaren testuinguruarekin lotua izan dela; testuinguru horien interpretatzeekin, akaso: tabernak, edana, besta... Baina Martin Larralde lapurtarraren gisako kasuek bertso paratuekin espresuki ezagun egin diren bertsolarien kasuak ere aztertu beharko direla ematen dute aditzera. Akaso, ustezko bizimoduarekin lotua ote den ikertu, bederen.

²⁹¹ Gabilondo 1999 eta Etxebarria eta Kalzakorta 2009: 54, bertzeak bertze.

[...]

Iñola ontzat artu ta ametitu ezititekena lengo jokabidea da; erriaren parregarritzat barrika zar biren gañean bertsolariak jarrierazi, ta, batek aundia ta besteak aundiagoa, errespetuko jende guzia plazatik iges bialdu erazten.

[...]

Etzituzten ezagutu [garaian bertsolaritzari buruz idazten zuten hainbat gaztek] lengo bertsolariak; eztakite zein era negargarrira jetxi zan bertsolaritza. (“Bertsolaritza dala-ta”, *ibid.*, 1964, 83: 6)

Nazioen mito originalarekin gertatu bezala, bertsolarien izana egiaz halakoa ote zen baino gehiago, harekiko sortzen zen sentimena eta elkartasuna dira, egiazki, garrantzitsu.

Whatever the elements of imagination that go into the making of nations, the result is much more than a construct and a discursive formation. Because, once created, national communities have ‘lives of their own’: that is, they have real consequences, and their members act in certain ways which they did not or would not were there to be no nations. (Smith 2009: 13)

Bertsolarien atzemate horretan, pertsonaia subalternoaren irudia modernitaterako bide bihurtu zen: botere ofizialak isilarazia zuen herriaren lekukotza bizia.

[*sic*] Gaurko Euskalerrriak ze bertso-tankera eskatzen dauala uste dozu, bertso-gaieri begiraturuz batez be?

- Gaurko Euskalerrriak gaurko gaiak eta gaurko bertsolariak gura ditu. Bertsolaria barre eragiteko bakarrik ezta, batez be erriaren itxartzalle baño. Eta erririk ezin leiteke itxartu gai sakonak eta gaur-gaurkoak sarriago erabilli ezik. (Xabier Amurizak Lopategiri eginiko elkarrizketa, “Yon Lopategui, Bertsolari Aundia”, *Anaitasuna*, 1967-10, 151. zk.)

Lekukotza hori, ordea, ez zen pertsonaren irudiari soilik lotua. Bat-batekoaz bertzelako bertso moldeetan ere bilduak izan baitira, aunitzetan, komunitatearen etno-historiak: “ ‘ethno-histories’ – the stories told by the members of a national community to each other, which distil shared memories, values, myths and traditions handed down through the generations of a community” (Smith 2009: 74).

Etno-historia horien oinarrian, aipaturiko bi tasun nagusiak biltzen ziren: ahozko ezaugarriak²⁹² eta herriarekiko hurbiltasuna, komunitatearenak izateaz haratago, berendako eta beren artean emanak baitziren.

AOK-k komunitatearen etno-historiak kontatzen zituela sumaturik, erabilgarritasun horren kontzientziatik heldu da, nolabait, 60-70etan corpusari eman zitzaion, eta lortu zuen, balio sinbolikoa. Historia nagusiak kontatzen ez zituen bizipenak altxatuak izaki, kultur identitate bateratuaren gose zen komunitateak iragan komunaren gordeleku gisa atzeman zitzaiken. Egin kontu komunitateak,

²⁹² Ezaugarri horiek altxaturiko ondarearen izaerari lotuak, noski.

ahozkotasunetik zenbat eta hurbilago, orduan eta harreman estuagoa izanen duela ondare horrekiko; baina, gaurgero erran dugun gisa, harreman hori aski hautsia zen, hizpide dugun garairako, eta jakintza horren kontzientzia 60-70etan berpiztu zen. “Artifizialki” lagundu zen kontzientziatze horretan, AOKren balio sinbolikoa biderkatu egin zen: corpus horrekiko harremana aldentzetik heldua, berariazko saiakeren ondorioz lortu zen haren hurbiltasuna²⁹³.

Ahokotasunari lotuak diren ezaugarriei dagokienez, corpusak ahokotasunean biziriko ondareari zegozkion baliabideak islatzen zituen: errepikak, erritmoa laguntzen zuten errimak, ulertze arrazoizkoa iluntzen zuten erranahi ezkutu edo zaharkituak, eta abar. Horiek guzietan, 60-70etako behar kolektiboekin bat heldu zen aritu bihurtu zuten kantariena, euskal komunitatearen identitate nazionala maila afektiboan garatzeko laguntza eskaini baitzuen. AOKrenganako garatu zen atzematearen gibelean, baliabide zaharren eguneratzea –oreka komunikatiboa mantenduz– izan arren, Gerra ondoko euskal gizartearen norabidea arrunt aldatua zen: corpus horrek funtzionalitate praktikoa zuen garaian –fosildurik ez zen garaian–, ahokotasunaren zama handia zen, komunitatean; aldiz, 60etan, halako gailentzerik ez, eta, gainera, komunikabide baliabideen eragina sumatzen hasia zen²⁹⁴. AOKren eta komunitatearen arteko harremanak ahokotasuna izana zuen berezko testuinguru; hizpide den epean, ordea, oroimena eta jakintza modu desberdinean antolatuta izaki (Rodríguez 1988: 180), harremana aldi berrietara birmoldatu behar izan zen.

Horrenbertez, corpusaren balioaz gain, ahozko baliabideen birgaitze garaikidea tresna –eta eztabaidagai, noski– bihurtu zen, kultur gileendako: batetik, errepikak, errimak eta doinuak euskal identitate kulturalaren oinarriak sendotzeko baliabide bihurtu ziren, eta, bertzetik, bertso moldeen eguneratzea auzi nagusietarik bat izan zen. Kantariendako, kasu, iraganeko oihartzunak barneratzeko eta horiekiko arrazoiak bertzelako loturak sortzeko baliabideak izan ziren. Gisa horretan, komunitatearen baitan, AOK-ko elementuen presentzia eta eginkizuna bermatzeko tresneriak –antzinga,

²⁹³ Horri guziari espresuki behatuko diogu, Laboaren aritua aztergai den 4.2. eta 7.2. ataletan.

²⁹⁴ Joseba Gabilondok, bat-bateko bertsolaritzaren eta telebistaren arteko egokitzeari buruz, sumatua: “it seems that *bertsolaritza* represents the natural extension of the community occupation of the public space during the summer festivities now also reaching the private sphere organized in the households around the television set. At the same time, the participative dimension of *bertsolaritza* (when the public sings along and memorizes) as well as its competitive format, where poets or *bertsolaris* compete against each other, already made this oral genre a perfect transitional program for television. The fact that topics are popular and not intellectual or derived from high literature completes the picture of the televisive success of *bertsolaritza*” (1999: 35).

mnemotekniaren mesedetan erabilia zenak²⁹⁵– corpusaren atzemaite “mistikoa” lagundu zuen; beraz, ahozko baliabideen birgaitze eguneratua identitate nazionalaren oinarri afektiboaren eraginkortasuna sostengatzeko erabilgarri izan zen.

Ahozko baliabide zaharberrietuek nazio identitatearen oinarritzko iragan partekaturako, haren jarraipenean partaide sentitzeko eta senitarterako lotura bideak lagundu zituzten. Hortaz, corpusaren adierazgarritasunaren indarra garatzeko, ezinbertzeko izan ziren bi prozesu: euskal kulturarekiko jarrera aldatzea eta bera finkatzeko atzemaite dinamika berria sortzea –atzemaite horren erabilera berriztatu egin zuen, ikusiko dugunez, Laboak, “Lekeitio”etan–.

Beraz, bai etno-historien bilgune izateak, baita finkatzea lagundu zuten ahozko tasunek nahiz horietiko atzemaite zeremoniatuak ere, komunitatearen lehen behar maila asebetetzeko corpus egoki bihurtu zuten AOK. Hala, bada, ondare kulturalaren zati horri egokitu zitzaion funtzionalitate berriztatua lehen beharrei egokitua izan zen: lehen beharren muineko duintasuna lortu ahal izateko, AOK-ko elementuen funtzionalitatea eguneratu egin zen; alegia, AOK-k zuen potentzialak funtzionalitate berriztatuak bereganatu ahal izateko aukera eskaini zion corpusari.

1960-1975 bitarteko ondare kulturalaren moldaketan kulturgileen eta gainerako komunitatekideen arteko harremana ezinbertzekoa izan zen; atzemaite, galduriko, ondarea hurbiltzeaz gain, komunitatearen izana duintzen zuen molde eta ikuspegi garaikideez moldatu zen. Ondoko atalean, hain zuzen ere, bihurteta horren adierazgarri zehatzen azterketa egingen dugu; bigarren eta hirugarren ataletan azalduriko oinarriak forma eta baliabide sinboliko zehatzen garapenean nola gauzatu ziren ikertuko dugu.

²⁹⁵ “memoria ahalmena babesteko esandakoaren errepikapenaren beharra, joera nagusia dugu ahozkotasunean.” (Rodríguez 1988: 83)

4. FORMA ETA BALIABIDE SINBOLIKOAK: ONDAREAREN MOLDATZEA

Gaizki egindako azterketa, alienazioa. Azterketa gabeko ekintza eskapismoa.
(M. Ugalde, "Ekintza nolakoa?", "Gazte naiz" atala, 1966, 196: 7)

Atal honetan, 1960-1975 bitarteko testuinguruari eta moldatze prozesuari buruz erranek kultur eremuko ondare zehatza nola eragin zuten aztertuko dugu; bigarren eta hirugarren ataletan emaniko argibide orokorrek lagunduko digute kultur azpiero zehatzen garapenek, ondare birmoldatuek eta aritu zehatzek izaniko harremana agerrarazten.

Kultur moldaketaren eta literatur eremuaren arteko harremana aztertuko dugu (4.1.). Horretarako, harremanaren izana eta garapena agertzen lagunduko duten hiru azterketa maila eginen ditugu. Batetik, eremuaren eta prozesu nagusiaren lotura oinarritzkoenaz arituko gara (4.1.1.); zehazki, lanean hain sarri hizpide diren forma sinbolikoez: hizpide dugun kultur moldaketarekin eta literaturarekin izan zuten harremana izanen dugu solasgai.

Bertzetik, kultur moldaketa nagusiaren eta Euskal Literatur Eremuaren (ELE) elkarreragina bideratu zuen gune eragile nagusietarikoari erreparatuko diogu (4.1.2.); hau da, ELEren garapena nondik eta nork bulkatua izan zen ikertuko dugu: aitzineko atalean bidegileen lana bereziki landu dugularik (3.1.4.), AOKtik berreskuraturiko erreferentziak forma sinboliko zehatz nola bihurtu ziren ikertu dugu; sinbolo zaharren eguneratzean eta berrien eraikuntzan gune izan zen AOKri behatuko diogu.

Hirugarrenik, ELEren garapenean ardaztuko dugu ikerketa (4.1.3.). Hala, eremuaren hasierako ezaugarriak identifikatu, eta ezaugarri horien islei behatuko diegu. Garaiko aldizkarien arakatzeak lagunduko digu, aitzinez, modu zabalagoan, aztertu dugun eremuaren eta kultur moldaketaren arteko harremana zehatzen. Gainera, kultur moldaketaren eta ELEren arteko harremanaren hondarreko maila gisa, bi eremu horiek besarkatu zituen prozesuaz arituko dugu: nazio garapena.

Akitzeko, 4.2. atalean, aritu zehatz baten azterketa eginen dugu: Mikel Laboaren aritua ikertuz, zaharren eta berriaren arteko orekaren erabilera desberdinak nazio garapenearen eskutik joan zirela ikusiko dugu.

4.1. Euskal ondare kulturalaren eta literaturaren arteko harremana

Orain arteko guzia literatur jardunarekin eta, espresuki, Euskal Literatur Sistemaren (ELS) oinarriekin harremanetan noiz jarriko dugun arituko da pentsari irakurlea. Aski arrazoizkoa da, bitarteko erranetan, behar hori sumatu izana. Alabaina, lana hala egituratu izanak badu arrazoibiderik; izan ere, literatur garapenaren garrantzia aunitzez adierazgarriagoa baita gainerako eragile eta prozesu guzien argipean. Ikusiko dugunez, euskal kultur moldaketaren zabalak azalarazten du, ongien, ELS garaikidearen abiatzea.

Batetik, literaturak jasaniko prozesuari erreparatu nahi diogularik, prozesu hori baldintzatu duten kondizio nagusiak deskribatu nahi izan ditugu; bertzetik, baldintza horietan, eta baldintza horiek direla eta, sortu zen kultur prozesu nagusiaren izanari behatu egin behar izan diogu. Hartara, azpiatal honetan, baldintza horietan onduriko kultur moldaketa nagusiak, partikulariki, euskal literaturarekin izan zuen harremana aztertuko dugu.

Arestiko atalean erranak hizpidera ekarriaz, Guibernauk intelektualengan bi rol nagusi identifikatzen zituela azaldu dugu: mugimendu nazionalaren arkitekto gisa aritzea eta momentuko ordenaren deslegitimatzaile gisa jokatzeko. Errana dugu rol horien nahastea izan zela euskal kulturgileengan sumatu duguna; baina, zernahi gisaz, rol horietan ELE finkatu gabeak izaniko parte-hartzeari xehekiago behatu nahiko genioke. Izan ere, parte-hartze hori bi modu nagusitan gauzatu zela ohartu gara: batetik, euskal literaturara iritsi ziren eragile berriek kultur eremu zabalaren moldaketa izan zuten bulkada; eta, bertzetik, espresuki literaturarekin loturiko pertsonaiek aldaketa nagusian izan zuten eragina. Halatan, bi parte-hartze mota horiek aitzakia harturik, euskal literaturak, ELSren aitzingarrietan, berregituratzen ari zen EKSn izaniko funtzionalitatea arakatuko dugu.

Funtsezko helburua amaraun horrek euskal literaturan izan zuen eragina aztertzea da; euskal kulturaren birmoldatze saio nagusian birdefinitu zen sinbolo amaraunak –nahiz bertako arau, lege, konbentzioek– ELSn finkatuko ziren ereduak garatzen lagundu zuen. Ikuspegi horren osotzea, ordea, Thompsonen hitzetan aurkitu dugu; izan ere –ikerlariak forma sinbolikoen izanean testuinguruaren garrantzia azpimarratzen duelarik–, euskal kasuan, sinbolo sareak –testuinguruarekiko erlazioan– izan zuen eragina agerikoa da. Horretaz gain, testuinguruaren izana zehazteko, etno-sinbolismoak

euskal komunitateak –kolektibo gisa– izaniko jokabideari eta baliabideen erabilerari xeheki behatzeko aukera ematen du.

Tresna horiek –nahiz guk geronek ikergaiaren izanera egokituriko bertze hainbat– baliaturik, hiru ideia nagusitan bildu dugu euskal literaturak, 60ko hamarkadatik 1975era bitarte, jasaniko aldaketa: sinbolo sarearen birformulatze zabalak ELEn izaniko korrespondentzia (4.1.1.), literaturak kultur sarearen baitan izaniko funtzionalitatea (4.1.2.) eta, azkenik, bi ideien ondorioz eremu finkatu gabearen eraikuntzan euskal literaturak abiatu zuen bidea (4.1.3.).

Lehenen, erran gisa, 1960-1975 bitartean moldatzen hasiriko EKSri eta, zehazkiago, sistema horren barrenean egituratzen joan zen sinbolo sarearen izanari buruz aritu behar; izan ere, sarearen egituratze berria izan baitzen ELSren aitzingaraia baldintzatu zuena: egokituriko harremanek eta interpretazio berri(tu)ek ELSren garapenak moldaturiko izana arrunt baldintzatu zuten.

4.1.1. Literatur eremua, moldatze zabalean

Tesian baliabide sinboliko nagusi bat aztertzen dugu: tradizioa. Orain arte –eta heldu diren ataletan–, AOK agergune izan zuen tradizioaz aritu gara, nagusiki; hirugarren kapituluan, aldiz, literatur tradizioa agergune izan zuen tradizioari erreparatuko diogu (7.1.2., 7.1.3., 7.2.). Edozein gisatan, bi agertzeko moduek ELEren garapenarekiko, fase bakoitzean, izan zuten harremanaz ere arituko gara. Hori dela eta, 4.1.1. atalean, tresnak eskaini nahiko genituzke, kultur moldaketaren isla gisa aurkezturiko AOKren eta ELEren arteko harremana ikertzeko.

Hori lortu nahiz, lehenik, laugarren atalean zehar erabiliko diren oinarri teoriko nagusiak aurkeztuko ditugu (“4.1.1.a. Oinarri teorikoen aplikazioa”); segidan, ELEk 1960-1975 bitartean zituen ezaugarri baldintzatzaille nagusiak azalduko ditugu (“4.1.1.b. Eremu berezitua aztertzen: izaera bereziturik gabeko eremua”). Hortaz, kultur moldaketa nagusiaren eta literaturaren arteko harremana –ELEren garapenak berak islatzen duena– ikertu ahal izateko azalpenak emanen ditugu.

4.1.1.a. Oinarri teorikoen aplikazioa

Azpiatal honetan, eskuragarri jarriko ditugu laugarren atalean aztertuko diren forma eta baliabide sinbolikoen ikerkuntzarako tresna baliagarriak. Zehazki, aurkeztu

eginen ditugu ELEk gainerako kultur eremuekiko harremana eta bere baitako forma sinbolikoen kudeaketa nolakoak izan ziren ulertzeko tresna teorikoak.

Cassirerrek zerabilen sarearen ideia sinboloen azterketarako ezinbertzeko abiapuntua izan dela azaldu dugu, lehenago (3.1.1.), bere azalpenek forma sinbolikoek parte hartzen duten prozesu osoa baitute, printzipioz, kontuan. Hala, bada, lan honetarako, ikusmolde interesgarria eskaintzen du, forma sinbolikoez gain, baliabide sinbolikoak ere prozesu nagusien baitan kokatzeko lehen hurbiltze egokia eskaintzen duelakotz. Forma sinbolikoei dagozkien azterketek ezinbertzean erreparatu beharko diete sinbolo batez haratagoko erranahi, ulertze nahiz moldatzeei, eta, horregatik beragatik, amaraun zabaletara jo beharra sumatzen dugu, sarri.

Ekarri nagusi deritzogun ikuspegiaren zabala, ordea, ahulgune gisa suma liteke. Batetik, prozesu guzia zabaltasun nagusi baten baitan barneratu nahiak, kurioski, ikuspegiaren alderdirik hertsiena azalerazten baitu. Sinbolo sareen baitan diratekeen loturek bertzelako eragileen indarra lausotzen dute, sinbolo amaraunaren izana guziz eragiten duten alderdiei dagokiena baino garrantzi gutiago aitortzen zaielarik. Bertzetik, lehen mugatze horrek berak bulkaturik, sarearen ideiak –bere horretan azalduak, bederen– azterketa zehatzetarako beharrezko diren tresna gehiagoren beharra azaleratzen du: testuinguru jakinetan, sinbolo sareak aditzera ematen duen errealitate abstraktuak egitate zehatzak baldintzatzaile edota eragile izaten ditu. Hala nola, sinbolo sareen –nahiz bertako azpierrealtateen– sortze, egokitze eta akitze prozesuetan parte hartzen duten eragile nagusiak; testuinguruz testuinguruko moldatze egokitua ahalbidetzen dutenak.

Bertzeak bertze, arazo horren erakusgarri dira oreka komunikatiboa eta funtzionalitatea. Bi alderdi horiek sinbolo sarearen moldaketetan duten garrantziaz haratago, lan honetan, komunitateen eta sinboloen elkarrekiko egokitzea guziz baldintzatzen dutela defendatzen dugu; hortaz, oreka komunikatiboa eta funtzionalitatea forma sinbolikoen eta komunitateen arteko erlazioa aztertze gune garrantzitsu gisa proposatzen ditugu (3.1.1.).

Hala, bada, Cassirerren sinbolo amaraunaren ideia geuretu arren, tresna teorikoen zakua bertzelako ikuspegi teorikoekin osatu behar –eta nahi– izan dugu: azterlana sendotu egin dugu, batetik, Thompsonen ideiak hurbilduz, eta, bertzetik, guk geronek beharrezko sumatu ditugun alderdiak gehituz. Izan ere, sinboloen eremua aztertze gune aldagai desberdinei xehekiago behatu beharra sortu da, forma sinboliko, baliabide

sinboliko eta sinbolo sare terminoez aritu garenean; hain zuzen, testuinguru zehatzetan txertatuak izateak forma sinbolikoak nola baldintzatu eta barneratzen dituen aipatu dugun heinean.

Gainera, aipatu harremana –testuinguruaren eta forma sinbolikoen artekoa–, kultur eremuaren eremu, esparru bakoitzari dagozkion legeak mugatuko dute; hortaz, testuinguru nagusiaren baitako eremu desberdinek arau propioak ezarriko dizkiete forma sinbolikoei.

Eremu horiek, hain zuzen, baliabide sinbolikoen bilgune izaten dira, sarri. Bertzeak bertze, komunitate batek bere izana bermatzeko helburuarekin mugatu dugularik “baliabide” terminoa, komunitate izana oinarritzeko baliabideen bilgune gisa joka dezake hizpide dugun literatur eremuak. Hots, euskal komunitateak, 1960-1990 bitartean, jasaniko moldaketa aztertuz ohartu gara ELE baliabide sinbolikoen bilgune izan zela, kultur prozesu guzian zehar; komunitatearen bigarren mailako beharrekin lotua den erakundetze prozesuan ez ezik, aitzinez ere baliabide sinbolikoen bilgune gisa funtzionatu zuen euskal literaturak.

Horiek horrela, literaturak osatzen duen bilguneak eremuari berezkoak zaizkion arauetatik iragaziko du testuinguru nagusitiko sinbolo amaraunaren koherentzia nagusia²⁹⁶; 1960-1990 bitarteko kultur moldatzearen bi fase nagusietan, EKEren arau propioek eremuaren baitako izanera moldatu zituzten testuinguruetan nagusitzen joan ziren forma sinbolikoak. Arestian, testuinguruz testuinguru eta ikergaiz ikergai zehaztasunak gehitu beharri erreferentzia egiten genionean, honakoa eman nahi genuen aditzera: bai testuinguru bakoitzak ezartzen dituen baldintzatzaileak, bai baliabide sinbolikoen bilgune bakoitzak ezartzen dituen arau bereizgarriak, gisa berezitan aztertu behar dira. Hori dela eta, teorialarien ekarriak tesiko aztergaietara moldatu behar izan ditugu, eta proposamen teoriko gisa defendatu.

Horiek horrela, euskal kasuaren azterketan, ELE baliabide sinbolikoen bilgune zela ohartuak izaki, esparru horren arau propioek eremuko forma nahiz baliabide sinbolikoen moldatzea nola baldintzatu zuten ere aztertu beharko dugu; aztertze horretan, ordea, sistematizatu gabeko eremu baten baldintzatzea sumatuko dugu. Hortaz, ezin pentsa liteke sistema egitura duen literatur eremu batek lukeen baldintzarik

²⁹⁶ Hau da, sinboloen amarauna sistema nagusi gisa bateratzeaz gain, atzemate nahiz birmoldatze bateratuaren oinarriak azpieremuetan ezartzen dituzten legeak eta konbentzioak.

edirenen dugunik; ezinbertzean erreparatu beharko diogu ELEk, garai zehatz hartan, espresuki, zuen egoerari.

Hartara, bilduko ditugu sinbolo amaraunaren moldatze orokorrak euskal literaturan izan zuen garapen propioa identifikatzeko –nahiz ulertzeko– eta balizko mugak aztertu ahal izateko klabeak –muga nagusia egitura sistematikorik gabeko eremua zen–. Hori dela eta, Thompsonnek forma sinbolikoen balioztatze prozesuak aztertzeko deskribatzen dituen baldintzatzaileak gure ikergaiaren azterketara moldatzea izan da, egokitze lanei dagokienez, egin dugun proposamen teoriko nagusietariko (3.1.3., c.3.). Egokitze teoriko horrek aunitz lagunduko du ELEren 1960-1975 bitarteko garapena zehazten.

Beraz, Thompsonen azalpenak kontuan izan behar; alabaina, soziologoak eskaintzen duen azalpenak eremuei modu orokorrean eragiten dienez, ondoko paragrafoetan, literaturaren eremuari dagozkion legeen bahetik behatuko diegu adituaren erranei. Hark azalduak literaturaren eremura nola egokitzen diren eta, zehazkiago, 1960-1975 bitarteko ELEri nola egoki dakizkiokeen azalduko dugu. Hori eginaz, eskuragarri jarri nahi genituzke ondoko azpiatalerako oinarritzko tresnak.

Azkenik, 4.2. atalean ikertu dugun aritu zehatzean sakontzeko ere erabilgarri izanen dira hemen bilduak; Mikel Laboak, kultur gila, eremuen arteko komunikadura egin ote zuen, eta, egin bazuen, nola gauzatu zuen hausnartzeko informazioa lortuko dugu.

Hala, bada, agerikoa denez, ELSren oinarriak aztertuz sorturiko beharrek bulkatu gaituzte tresna teorikoen hautatzera; lehenago aipaturiko bide teorikoa berrikusiaz, zera proposatu dugu: Cassirerren sinbolo sarearen ideia oinarritzko abiapuntu izan arren, forma sinbolikoen azterketarako, horien alderdi ez-berezkoari ere erreparatu beharko zaio; alegia, testuinguru jakinetan parte hartzen duten alderdi zehatzei behatu beharko zaie. Horretarako, J.B. Thompsonnek forma sinbolikoei buruz zehazturikoetara jo dugu. Hala ere, ELSren azterketa osatzeko, ezinbertzeko idurituriko alderdia ere garatu behar izan dugu: forma eta baliabide guzien izana baldintzatzen zuen funtzionalitatearen ideia.

Sinbolo amaraun horretan, euskal literaturak modu desberdinetan parte hartu zuen; urgazle funtzionalitatea izanaz, baina harremanak molde desberdinetan gauzatu, kultur moldaketa nagusiarekiko. Ondoko orrialdeetan agertuko dugunez, funtzionalitate horren muga nagusiak eremu berezituaren izaeratik heldu ziren.

4.1.1.b. Eremu berezitua aztertzen: izaera bereziturik gabeko eremua

Erran berri dugunez, ezinbertzekoa iduritu zaigu ELERI 1960-1975 bitartean berezkoak zitzaizkion arauak, nahiz horiek baldintzatzen zituzten eragileak, aztertzea; izan ere, ezinbertzeko pausoa da euskal literaturan isla izan zuten sinboloek –kultur moldatze nagusiaren prozesuaren ondorioz ailegatu eta garatuek– ELSren oinarriak ezartzearekin izan zuten korrespondentzia aztertzeko. Hots, ondoko orrialdeetan laburbildurikoa hiru punturen jabekuntza osoturako oinarritzko abiapuntua da; moldatze nagusiaren eragina euskal literaturan nola gorpuztu zen ulertzeko, zergatik gertatu zen jakiteko eta korrespondentzia horrek kultur moldaketaren hurrengo fasean izan zuen eragina (7.1. atalean) aztertu ahal izateko.

Zerk baldintzatuak izan ziren, beraz, ELERen baitako arauak? Hiru ideia nagusitan bildu ditugu ELERen garapena goitik beheitera baldintzatu zuten alderdiak. Lehenik, (1) finkatze ezak guziz baldintzatu zuen eremuaren prozesuak eraginiko arauen izana; bigarrenik, (2) testuinguru sozialak eremuaren norabidea zuzendu zuen; hirugarrenik, (3) balioztatze prozesuen baldintzatuak ELERen barne-arauak mugatu zituzten.

Hiru alderdi horiek, ELERen arauak ezarri zituztelarik, eremuaren baitako ekoizteak, bihurketak eta jabekuntzak guziz moldatu zituzten –arestian erran gisa, hala nola, eremuko forma nahiz baliabide sinbolikoen garapena–. Segidan, ELERI espresuki zegozkion alderdi bereizgarriak deskribatuko ditugu; alderdi horiek lagunduko dute bai sinbolo amaraunari eremuan ezarri zitzaion bahe berezitua, bai eremuko prozesuei ezarririko arau berezituak, deskribatzen. Hartara, ELEk kultur sarearen baitan izaniko funtzionalitatea (4.1.2.) aunitzez modu koherenteagoan ulertu ahal izanen dugu.

(1) Finkatu gabeko eremua

ELEk, eremu berezitu gisa, hizpide dugun garaian zuen lehen ezaugarri nagusia finkatu gabeko eremu izatea zen; gabezia horrek sorrarazi zituen, hain zuzen, eremu bereizi gisa zituen arauetarik eraginkorrenak. Egoera hori, ordea, komunitateak aitzinez izana zuen ibilbidearen ondorio zen; erran nahi baita komunitateak partekaturiko iraganaren isla zela literatur eremuak, 60etan, zuen finkatze gabezia. Euskal komunitateak iragan horretan zehar garaturiko izanaren ondorioz sortu zen, preseski, garai modernoan bizirauteko hainbat alderdi garatu beharra.

Hiru alderdi sumatzen dira, finkatze gabeziaren erakusgarri gisa: erreferentziazko nahiz oinarritzko corpus nagusirik eza, hizkuntzaren finkatzean nahiz alfabetatzean arazo zabala eta egitura finkatzaile ofizialen gabezia.

Lehen alderdian bildu nahi izan ditugu literatur eremu garaikideek –XX. mendean zehar nahiz ordutik aitzina egituratuek, gutienez– dituzten bi corpus nagusiak. Batetik, literatur eremu modernoetan oinarritzko erreferentzia den iraganeko corpusa; corpus horren izanak eta aberastasunak interpretazio garaikide nahiz ibilbide nagusiak baldintzatzen dituen, “erreferentziako corpus” gisa izendatu dugu, lanean. Bertzetik, “oinarrizko corpus” delakoarekin, eremuko parte-hartzaile nagusi –hartzaile nagusi– den komunitatearen beharrei erantzuteko osatzen den corpusari egiten diogu erreferentzia; behar mailak asebetetzeko helburuarekin osaturiko literatur corpusari, hain zuzen.

Finkatu gabeko eremuaren erakusgarri den bigarren alderdiak, aldiz, eremuaren oinarritzko ezaugarri bihurtu zen erreferentziari erreparatzen dio: euskarari. Hizkuntzaren finkatze gabeziak eta gabezia horrek errazturiko ofizialtze ezak ELEren lehen pausoak arrunt baldintzatu zituzten. Are gehiago, eremuaren garapena ezaugarri honekiko guziz mende izan zela ikusiko dugu²⁹⁷: ELEren abiatzea eta erakundetze prozesua hizkuntzari, nahiz hizkuntza horren inguruan garaturiko hezkuntza sistemari, lotua izan zen, alde guzietarik –corpus oinarritzkoaren osatzea, kasu, alfabetatze beharrei makurtua izan zela ikusiko dugu–.

Akitzeko, hizpide den garaian, egitura finkatzaile, bideratzaile edota erakundezatzaile nagusirik gabe izateak finkatu gabeko eremua islatzen du. Hain zuzen ere, horren asebetetzea izan zen, Euskaltzaindiarekin eta Idazleen Elkartearekin, lehen pauso nagusietariko (7.1.2., b.2.2.). Hala ere, elkarte horietatik pausoek eremuaren garapena, berriz ere, eremuari ez zegozkion bertze helburu batzuekiko mendekotasunean zela agerrarazten dute; indar finkatzaile nagusia hizkuntzaren arautze bideetatik heldu zen, eta harekiko atxikitzeak bideratu zuen ELEren norabidea. Garaiko aldizkari nagusiek, erraterako, egoera hori islatu zuten: literaturaren aitzinatzea euskara batua atxikitzeari guziz lotua ageri zen, horietan²⁹⁸.

Hiru gabezia horien asebetetzea izan zen ELEren abiatzea, eta, helburu nagusiak horiek izanik, testuinguru sozialak eta balioztatze prozesuetan parte hartu ohi duten baldintzatzaileek norabide nagusia koherentzia batean egituratu zuten; zehazkiago,

²⁹⁷ Kultur sistemaren mendekotasunaz arituko gara, 5.2.n.

²⁹⁸ Juan San Martini, Idazle Elkarteari buruz, eginiko elkarrizketa batean, bi oinarri nagusi aipatzen zituen “Bata idaz-neurriena, eta batasun-arauena bestea”, “Luis Mitxelenak Arantzazun esan zuana: autoak ezkerretik ala eskubitik joan ditezela berdin da, baina doazela denak berdinetik. Guk ere bat aukeratu behar dugu. Bat hori, zein? Idazleen Alkarteak, Arantzazun errekomendaturikoa behartu egin behar du. Euskaltzaindiak ezin du behartu berak ez du literatura egiten-eta. Asmoetako Alkarte honek bai” (Joan Mari Torrealdaik eginiko elkarrizketa, *Zeruko Argia*, 1969, 332-333: 12)

garaiari, komunitate beharrei eta etorkizun bateratuari erantzun zion komunitate koherentzian.

Zernahi gisaz, literatur eremua finkatu gabea izateak izan zuen garrantziaz oharturik, espresuki erreparatu diogu ELEren ezaugarri propio honi 4.1.3. atalean (“a.1. Abiapuntua: euskal literatura, egitura finkatzailerik gabeko eremu”). Hori dela eta, hemen ez dugu aipatze labur hau bertzerik egin, eta gerorako utziko dugu garapen osotua.

(2) Testuinguru soziala²⁹⁹

ELEren baitako ezaugarri berezituak moldatu zituen bigarren alderdia, zalantzarik gabe, testuinguru soziala izan zen; zehazkiago, testuingurua, eremuaren egituratzean eragile izateaz gain, eratzailea izan zen, eremuaren alderdi komunikatiboan –eremuaren jabetza eta atzemateari dagokion horretan–.

Testuinguruaren eta eremuaren arteko harremana hala sumatu izana, ordea, Thompsonek testuinguruaren eta forma sinbolikoen arteko harremana deskribatzeko erabili zituen hitzei zor diogu: “If the characteristics of the social contexts are constitutive of the production of symbolic forms, they are also constitutive of the ways in which symbolic forms are received and understood” (1990: 153), zioen hark.

Thompsonen hitzetan islatu gisa, testuinguruaren ezaugarriek forma sinbolikoen ekoizpena osatzen dute, eta, gisa berean, forma sinbolikoak nola atzeman eta ulertzen diren moldatzen, hein batean. Literaturaren kasuan, baliabide sinbolikoen bilgune gisa, testuinguruak baldintzatu zuen komunitatean izanen zuen harrera eta ulerkuntza; diktaturapeko nazio gutituaren berpizte garaia izaki, euskal nazioaren garapenaren itzalpetik atzeman eta ulertu zen ELEren garapena.

Garatzeko modua testuinguru sozialak mugatua izan zen, zalantzarik gabe: aldizkarietan trebaturiko idazleen garaia izan zen ELEren abiatze nagusia. Hau da, literatur eremuari espresuki ez zegokion eruedetan gaituriko abiatzea izan zen, ELEk izan zuen ezaugarri bereizgarria osatu gabea izatea baitzen: eremua osatzeko ezinbertzeko ziren oinarrizko alderdiak hutsik ziren.

Eremuren funtzionamendurako partaide nagusiak falta ziren, eta horrek eremuaren ezintasuna askatzea gero eta zailagoa zen bidean mantentzen zuen: “Irakurlerik ezak,

²⁹⁹ Testuinguru sozialak duen eragin konstante baina dinamikoaren –egokitze ahalmena akitua ez delarik– erakusgarri, tesiaren hirugarren kapituluan (6.1.4.), testuinguruaren eragina izanen dugu solasgai; 1975etik aitzina, euskal kulturaren nahiz ELEn izaniko eragina hagitz desberdina izan zela ikusiko dugu.

arpidedunak urritzen ditu gure argitalpenen kaltean, beren bizitzaren iraupena larritasun gorrian ifiniatz” (J. San Martin, “Irakurleak urri”, *Zeruko Argia*, 1964, 83: 3). Gainera, partaideak eremuaren arauetara bihurtuko zituen babesak ere hagitik eskasak ziren: ez zen eremuaren izaera beregaina lagunduko zuen arau, ez lege, ezta instituzio boteredunik ere.

(3) Baliabide sinbolikoen baldintzatzaileak

Akitzeko, baliabide sinbolikoen baldintzatzaileak izan ohi direnei egin nahi genieke erreferentzia; izan ere, 3.1.3. ataleko c.3. azpiatalean hizpide izan ditugun eragile horiek izan ziren ELEko arauak bideratu zituzten hirugarren alderdi nagusia.

1960-1975 bitarteko ELEk garatu zituen arauen izana baldintzatu zuten komunitatearen garapenari loturiko helburuek, estatuarekin partekaturiko elkarreragin eremuko mendeko kokapenak eta eremuaren izaera berezituari egokituriko erakunde gabeziak. Hiru eragile horien izaera nagusia ikusia dugunez (3.1.4., c.3.), espresuki ELEren barne-arauen eraketari nola eragin zieten azpimarratuko dugu, segidan.

Komunitateak duintasuna berreskuratzea helburu nagusi zuelarik, euskal literaturaren funtzioa, sarri, premia hori asebetetzearenganako makurtua zen. Horrek ELEren barne-arau mailan izan zuen ondorio nagusietariko zera izan zen: ELEren garapen berezitua –eremuaren sistema izanera nahiz autonomiara eramanean zuena– premia horien asebetetzearekiko kinkan bizi izana ekarri zuen. Are gehiago, kinka horren fokua zabala izan zen; erran nahi baita, literatur sorkuntzaz haratago, literatur eremuan parte hartzen zuten bertze hainbat alderdi ere borroka horren baitan sumatzen ziren. Literaturaren konpromisoaz, orokorrean, Azurmendik zioen:

Egiazko literaturaren konpromisoak ez luke bukatu beharko, ez besteren alorretan amateurismo merkea egitera sartuz eta ez utopiak predikatuz. Aitzitik, literaturak gizonari bere egiazko egoera argitu behar lioke

Idazlea gizarte honen ez beso, ez kanta eta ez mailurik da. Izpiritua bakarrik da. Izpiritua bezain ahul, eta munduari arrotz. Nietzschek igarri zion moduan, modak ez dio laguntzarik eta erraztasunik behin ere ekarri. Konpromiso politikoaren modak, lehenagoko beste edozeinek bezain gutxi.

Benn [Gottfried Benn] dixit. (“Literatura ez da ezertarako”, *ibid.*, 1972, 492: 6)

Kinka gisa bizi izanak berak, hain zuzen, arau horren bihurteta ematen du aditzera.

Gainera, espainiar estatuak baliagai berezitu guti garatzeko aukera ematen zion ELERI: komunitateak –estatuak partekatzen zuen elkarreragin eremuko kokapenaren

eraginez– aitzinez ukatuak ziren baliabideen balioztatze prozesu berritik, oinarrizkotik, abiatu beharra zuen. Hortaz, ELEk komunitatetik bertatik soilik abia zitekeen balioztatze prozesurako barne-arauak eratu zituen. Hala, literaturaren garaikidetasuna iraganaren ezagutzak bermatua behar zuen³⁰⁰; hots, komunitate ondarearen duintasunean oinarritua.

Azkenik, erakunde berezitzen gabeziak ELeren barne-arauak, hasieran, lausoak izatea ekarri zuen: ELeren arau nagusiak, luzez, corpus baten eskaintzak eta eremuaren partaideak nahiz ekoizleak izanen zirenen trebakuntza izan ziren. Hori dela eta, eremutiko ekoizpenak –argialetxe, idazle, banaketa eta abarrenak– aitzina egin ahala, segidan sumatu zen antolatze beharra (Torrealdaik San Martini eginiko elkarrizketa, “Idazleen Alkartea”, *ibid.*, 1969, 332-333: 12). Torrealdaik zioen gisa: “Laguntza ofizialik gabe, inongo erraztasunik gabe egiten ari da euskal kultura” (“Euskal kultura idatzia 1974”, *Anaitasuna*, 1974, 288: 16). Beraz, eremuaren oinarrizko parte-hartzaileak eta ekimen horiek guziak –testuingurua osatu ahala– bideratu nahiz elkarrekiko harremanean gorpuztuko zituzten barne-erakundeen beharra zen.

4.1.1.b. azpiatalean erranak ikusita, 1960-1975 bitartean, ELEk, ez sistema integratu gisa, ez *sistema integratzaile³⁰¹ gisa ere, garatzeko barne-araurik gorpuztu ez zuela erran genezake. Batetik, ELEk ez zuen Espainiar Literatur Sistemaren (Esp.LS) baitan egituratu ahal izateko araurik garatzeko aukerarik izan; testuinguruak eta elkarreragin eremuko kokapenak ezinezko bihurtzen zuten sistema integratu gisa arauak garatzerik. Bertzetik, ELEk ez zuen bere izaera autonomoari egokituriko berezko arau antolatzaile-egituratzaileak finkatzerik lortu; alegia, sistema integratzaile gisa, ekimenek aitzina egin zuten arren –literatur autonomia dela eta sorturiko kinkak, erraterako–, ez zen horien finkatzerik lortu –herri-ekimenaren kontrako eraso gisa atzemateak sobera zama izan zuen, lehen fasean–.

4.1.1. atalean agertuekin, ELEk 1960-1975 bitartean jasan zuen prozesu nagusia aztertzeke tresna egokituak hurbildu ditugu. Batetik, laugarren atalean zehar lagungarri izanen diren adituak aurkeztu ditugu; Cassirerrek eta, bereziki, Thompsonnek forma

³⁰⁰ Ikus, *Anaitasuna* aldizkariaren garapen nagusian, sormenezko literaturari buruz errana (“(b) Literatur lanak”).

³⁰¹ Ikus eranskineko “Kultur sistema motak: kultur sistema integratuak eta integratzaileak” sarrera.

sinbolikoak aztertzeko eskuragarri jarritako oinarri teorikoak zertarako erabiliko ditugun argudiatu dugu (4.1.1.a.).

Adituen erranek tesiko aztergaietan aitzina egiteko duten erabilgarritasunaz aritu gara, segidan. Horretarako, ELEk 1960-1975 bitartean zituen ezaugarri berezituak –bere baitako forma sinbolikoen atzematea eta moldaketak baldintzatzen zituzten alderdiak– identifikatu ditugu (4.1.1.b.). Gainera, aitzinez osatu dugun egokitzapen teorikoetarik bat ere erabili dugu: balioztatze prozesuen baldintzatzaileena.

Egokitzapen teoriko horren balioa, ordea, ez da euskal komunitatearen egoerari soilik dagokiona. Forma sinbolikoen gauzatze eta jasotzean eragile nagusi diren baldintzatzaileak baliabide sinbolikoen bilgune nagusietariko baten azterketara moldatu ditugu; beraz, printzipioz, moldatze horren funtzionalitatea bertze hainbat komunitateren azterketetarako erabil liteke. Are gehiago, egokitze horren gibeledu abstrakzioak lagundu du forma edo baliabide sinbolikoen eta horien bilguneen arteko aldeak zehazten eta bakoitzaren dimentsioak –nahiz dimentsio horietako parte-hatzaileen izana– identifikatzen.

ELEren ezaugarri nagusiak ikusirik, honako galdera heldu zaigu burura: zergatik, 1960-1975 bitartean, literaturan, forma sinboliko eta kultur gile batzuen arrakasta eta bertzeen arrakastarik eza? Badu horrek ELEk garai hartan zituen ezaugarri nagusiekin zerikusirik?

Ondoko orrialdeetan azalduko dugunez, komunitatearen lehen beharrak asebeteko zituen militantziaren baitako lanak eta proposamenak nahiz arituak hobetsi ziren. Hala, bada, militantzia(kulturala)k babesten zuen eta militantzia babesten zuen literatura izan zen, garai hartan, arrakastatsuen. Testuinguru horretan ulertzen da, hain zuzen ere, balioztatze sinbolikoak nahiz kapital sinbolikoak, bertze balioztatze nahiz kapitalekin alderatuta, izaniko garrantzia.

4.1.2. Literatur eremuaren funtzionalitatea, kultur moldaketaren baitan

Atal honetan, goiti aipaturiko birformulatzearen baitako aldaketa nagusiei foku zehatzetik erreparatuko diegu: erreferente edo forma sinboliko zaharren segidak literaturan izan zuten presentziari. Izan ere, 1960-1975 bitartean sorturiko forma sinbolikoak garrantzitsu izanagatik, iragana sostengatuko zuten baliabideak eskaini behar izan ziren, erreferente birmoldatuek egiazki komunitatearengana iritsi eta eragin

nahi bazuten, bederen. Hala, komunitate duintasunaren berreskuratzea oreka komunikatiboarekin eta *continuum* sentipenaren baitan lortu ahal izan zen³⁰².

Segidako orrialdeetan, bada, euskal literaturak kultur moldatze nagusian izaniko parte-hartzeari behatuko diogu. Parte-hartze horretatik abiatuz, forma sinbolikoen eta komunitateen arteko harremana aztertzeko behar-beharrezkotzat proposatu dugun funtzionalitateaz hausnartuko dugu. Horretarako, ELEk kultur moldaketan izan zuen partaidetza bi sail nagusitan banatu dugu: kultur moldaketa zabalak ELera ekarririko eraginak (4.1.2.a) eta euskal literatur lanetan aritzen ziren kultur gileek kultur moldaketa zabalean, literatur eremuaz haratago, izaniko eragina (4.1.2.b).

Biek osatzen duten osoguneak emanen digu euskal literaturak moldaketan izaniko funtzionalitatearen irudi nagusia.

4.1.2.a. Birformulatze nagusiaren isla, literaturan

Azpiatal honetan, EKE zabalean gertatzen ari zen moldaketatik ELera iritsi ziren aire berriez, bulkadaz, arituko gara. Urrutira gabe, bereziki eragin zuen kultur ondarea AOK izan zela erran liteke: berau berreskuratu zen, noski; eta garai berrietara moldatzeko ekimenak kulturaren alderdi hagitz desberdinak ukitu zituen. Ondorioz, jakina, ELEn ere izan zuen ondorioz. Hala nola, ondorio nagusietarikoak izan ziren iraganeko elementuen –abesti zaharrak, corpus ihartua–, horien formaren –bertso moldeak– eta horietan agerturikoen –irudiak, forma sinbolikoak, horiek iradokirikoak– berreskuratzea; eta horienganako jarrera –positiboa– eta, nola ez, guzien pertzepzioa –liturgikoa–. Aldaketa horiek guziek euskal literaturaren eta bere eremu osoaren garapena erdiz erdi baldintzatu zuten.

Lehen harreman talde horretan, molderik adierazgarriena forma sinboliko eta erreferente zaharren birmoldatzea izan zen; moldatze hori EKEko aritu osoan hedatua izanagatik, izan zuen euskal literaturan isla zehatzik ere. Horren erakusgarri, EKE nagusian birformulatu ziren, eta euskal literaturaren birmoldatzean eragin zuten, forma sinboliko zaharberritu guti batzuen bilduma egin dugu.

³⁰² Egin kontu, normalki, erreferente eta forma sinbolikoen eraikuntzan mantentzen eta berriztatzen diren alderdiak erabakitzea ez dela kontzienteki formulatzen den egitasmoa izaten.

a.1. AOKren zama

Multzo honetan, iraganeko elementuek –nahiz horien formen birformulatzeak– euskal literaturan izan zuten isla nagusietarik bat multzokatu dugu –bigarrena, irudien sinbolizatzea, ondoko azpiatalean izanen da aztergai (a.2.)–. Lehenago aitzinatu gisa, euskal ondare kulturaletik berreskuratu zen corpus nagusietariko AOK izan zen. Berreskuratze horren baitan gertatu zirenak azaltzeko, hainbat zehazte egitea komeni da.

a.1.1. AOKren bereganatzea: bi sail

AOKren bereganatzea bi talde nagusitan bana liteke: corpora bera eta corpus horretan nagusitzen zen moldea. Lehenik, beraz, AOK osatzen zuen corpusaz aritu behar: balada, kanta eta koplak zahar nahiz bertsopaperen berreskuratzeak ordura arte atzenduriko garaien hurbilpena ekarri zuen. Hurbiltze horrek hainbat balio nagusi izan zituen. Batetik, corpusaren birjabetzak iragan bateratu baten kontzientzia ekarri zuen, zalantzarik gabe. Bertetik, corpus horren anitzak euskal komunitatearen egoera garaikide zatituaren irudia nabarmendu zuen; lehenengo ekarriarekiko kontraposizioan, Euskal Herriko ingurune diferenteetako lanak elkarrendako ezezagun gisa agertzeaz gain, euskalkien arteko aldeak zatiketaren kontzientzia areagotu zuen³⁰³. Gainera, egoera garaikidea aldatzeko eta etorkizuneko proiektuak borrokatzeko indarrarentzat heldulekua eskaini zuen AOK-k³⁰⁴. Azkenik, aberastasun kultural handiaren kontzientzia suspertzeko hagitz bulkada handia lagundu zuen.

Halatan, euskal komunitateak, 1960-1975 bitartean, berreskuratu zuen corpus nagusian ediren zuen nazioaren duintasuna garai desberdinetan zehar, koherenteki, argudiatzeko haria. AOK osatzen zuen corpusak iragan kultural bateratuaren isla eta testuinguru partekatuaren bizipena erakutsi zituen, eta orainaldian beharrezko zen izaera berezitua sostengatuko zuen oinarria, eskaini. Akitzeko, eduki, molde eta antzinasunak lagundurik, etorkizuneko proiektuak bermatuko zituen corpus gisa sumatu zen AOK. Gisa horretan, AOK iragan lausoaren eta 1960-1975eko komunitate sendotasunaren³⁰⁵ funtsezko sostengu izan zen.

Bigarrenik, corpus horretan bilduriko moldeei dagokienez, bertso moldeari dagokion moldaketak hagitz hausnarketa adierazgarria azaleratu zuen. Garaiko

³⁰³ Oroitu tesiaren kapitulu honetan bertan bildu diren Gorostidiren hitzak, non, euskalki desberdinak ulertzeko zailtasunak agerikoak ziren (2011: 45).

³⁰⁴ Oroitu Guibernauk iragan historiko partekatuak eta etorkizuneko proiektu komunak identifikatzen zituela komunitateko kideen arteko lotura sendotzeko baliabide gisa (1996: 76) (2.2.2.).

³⁰⁵ 2.2.2.n aipatzen genuen, komunitate duintasun kolektiboaren hirugarren alderdi nagusi gisa.

tradizioaren eta eguneratzearen arteko kinka aski ongi bildu zuen eztabaida sortu zen: bertso idatzia, koplak berriekin gisa, euskal moldeak modernitatera egokitzeko era gisa atzeman zuten zenbaitek. Bertso moldearen inguruko auzi nagusietarikoa Basarriren eta Gabriel Arestiren artean sorturikoa izan zen.

Aresti poetak bertsolaritzaren birmoldatzean praktikoki eta teorikoki parte hartu zuen: bertsoan eskribitu zituen bere lanetarik zenbait (Aldekoa 1998a: 86-87), eta poesiaren³⁰⁶ nahiz bertso moldeen mugei buruzko hausnarketak plazaratu zituen. Horien artean, aski ezaguna da Basarriekin, 1963an, izaniko debatea. *Zeruko Argian* argitaratu ziren artikulu horiek bertsolaritzaren moldatzea zuten gai nagusi; bertsolaritzak orduko egoeran eta gizartean tokia nola aurkitu behar ote zukeen. Iñaki Aldekoak argitu gisa: “Aresti eskola zaharrekoen alde paratu zen. Xenpelar eta Txirrita, beren herrikoitasun kutsagabea, mila aldiz gehiago dira kulturaren distirak igurtzita agertu nahi dutenak baino” (*ibid.*: 85).

Eztabaida zehatzaz haratago, bidenabar, artisten betebeharrak aritu zen Aresti. Gisa horretara, AOK berreskuratzearen nondik norakoak eman zituen aditzera: “Nik uste det artistaren aurreneko ogligazioa [*sic*] hori dala, lengo bide zarrak obetu, eta bide berriak billatu. Bestela artistaren inspirazioa modu ezagunetan itoko da”³⁰⁷ (Arestik Basarri erantzuna, “Nire ofcinatik Basarri bertsolariari”, *Zeruko Argia*, 1963, 43: 4). Ikuspegi horretatik eskaini zituen poetak hainbat idatzi, eta horietarik bi agudo hautatu zituen Laboak bere kantagintzarako: “Apur dezagun katea” eta “Egun da Santi Mamiña” –biak *Urtsuako kantan* atera ziren, bertze bi abesti herrikoirekin batera–.

Bertso paratuen berreskuratzea corpus apaingarri baten eskaintza baino gehiago izan zen, 60etan; tresna gisako erabilera garaikide, sortzaile eta funtzionalaren auzia plazaratzen zuen. Identitate birjabetzaren garaian, herriarekiko harremana zen hizpide: herriari itzuli nahi zitzaizkion izana eta ahotsa. Aunitzendako, bertsoak ziren garai bateko bizipenak biltzeko³⁰⁸ eta oraingoak aditzera emateko komunitateak “esentziatik”

³⁰⁶ Poesiaren eguneratzeaz: “Gaurko Euskal poesia” (*Zeruko Argia*, 1965, 100: 9).

³⁰⁷ Xabier Martinek, *Real politik* (2006) diskoari buruz ari zirela, Joseba Tapiaren hitzok bildu zituen: “Arestiri ikasi diot trikiti munduak baliabide handiak eskaintzen dituela gauzak poetikoki adierazteko. Baserri mundukoa izateak ez duela atzerakoi izan behar derrigorrez. Eta konplexuz beteriko mundu horretan beste norabide batean lan egiteko pista asko eman dizkit”, “eskerrak Mikel Laboak kantu bihurtu zituen [*Harri eta Herriko trikiti koplak*], trikitilariok ez baikinenteratu ere egin. Baina berez, guretzat egindako letrak dira” (Martin 2006).

³⁰⁸ J.M. Lekuonak, *Harri eta Herriko bertsolariaz*: “Arestirentzat, nere iduriko, bertsolaria teknika bat ezezik, batez ere giza-tematika errikoa ta egiazkoa da; falsifikaziorik gabeko giza-legea. Erriaren kezka ta istori bizia. Erriaren ispillu egiatia” (Zelaieta 1976: 187-188, *in* Aldekoa 1998a: 86).

hurbileneko zuen aritua; gainera, bat-bateko bertsolariek frankismoan erran nahi zirenak zentsurapean ezkutatu beharrak euskal komunitatearen egoera islatuko zuen.

a.1.2. AOKren birjabetza: bi bereganatze

AOKtiko corpus eta moldeak argituak ditugula, jabeturiko ondarearen gibelego birjabetza motak argitzea komeni da: corpus nahiz moldeen berreskuratzeak nazioaren osotasunean eragiten zuen birjabetza, eta, bertzetik, literaturaren ekoizte nahiz jasotzean. Ikusiko dugunez, biek euskal literaturari eragin zioten arren, lehen birjabetza motak ELEko arituez haratagoko eragin zabala izan zuen.

Lehen birjabetza motarekin, komunitatearen kohesioan eta kontzientzian izaniko eragina bildu nahi genuke. Nazioak gauzaturiko birjabetza oinarrizkoa izan zen: duintasunaren funtsezko alderdiei lotua³⁰⁹. Corpora dela eta azaldu gisa, AOKren hurbiltzeak iraganeko erreferentzia –kultur eta bizimoduari dagokiona– bereganatu ahal zela erakusten zuen; ohartze horrek jabekuntzaren alderdi negatiboa azaleratu zuen arren –atzen eta bazterturiko ondarearen, nahiz bertan bildurikoaren, kontzientzia–, konturatzearen alderdi positiboak ekintza nagusietarako indarra piztu zuen. Erran nahi baita, iragan galduaren birjabetzak nazioendako oinarrizko denbora “objektibatzea” lortzen zuen: ezin ukatu ziren iragan hura aditzera ematen zuten corpus eta moldeak, iragan horren izatea eta izana.

Garaiko egoerari aitzina egiteko armak eskuratu zituen komunitateak; horren ohartzea izan zen, preseski, komunitatearen esparruetan eragile bihurturiko birjabetza abstraktua. Zernahi gisaz, abstraktua izanagatik, berebiziko garrantzia izan zuen, ELEn ez ezezik, komunitatearen bertzelako eremuetan ere eragina izan baitzuen. Hortaz, hagitz eragin emankorra izan zen; eremu desberdinetarako oinarrizko asebetetzea eskuratu ahal izateko duintze funtsezkoa lagundu zuena, azken finean.

Bigarren birjabetza moduak, aldiz, espresuki literaturaren ekoizpen eta jasotzeari egin nahi dio erreferentzia. AOKren birjabetzak literaturaren ekoizte prozesuetan izan zuen eragina presentzian ardaz liteke, nagusiki; garaiko idazleek beren ekoizpenetan sarri erabili zuten AOKtik edaten zuen tradizioa. Bertzeak bertze, belaunaldi desberdinek ahozko tradiziotik hurbileko arituak berrizatzeko egin zituzten ahaleginak nabariak izan ziren; goiti aipaturiko Arestiren arituz gain, moldaketaren bigarren

³⁰⁹ Tesian zehar behin eta berriz ari gara duintasunaren garrantzia aipatzen; zernahi gisaz, komunitate duintasunak izan zuen muntaz haratago, alderdi horren nonahikotasunaz –mailaz mailakoaz– oharrarazi nahi genuke irakurlea.

fasean bidegile izaniko idazle gazteen saiakera ere agerikoa izan zen³¹⁰. Bernardo Atxagak [Joseba Irazu], kasu, hizpide den urteetan argitaratu zituen hainbat testuk entsegu hori islatzen dute; batetik, *Anaitasunan* argitaratu zituen artikulu zenbaitek aditzera ematen duten hausnarketa; bertzetik, *Literatura* 72 bilduman agerturiko sorkuntza lana ere, “Borobila eta puntua” antzerkia (225.-251. or.), saio horren ebidentzia zen.

Anaitasuna aldizkarian, Atxagak argitaraturiko idatzien artean, “Bertsolaritzaz pentsatzen” (1972, 234: 16) saioa eta “Euskal Herriko bertsolari hilezinen batzar harrigarriak” (I, 1973, 253: 4; II, 1973, 256: 8) sorkuntza aipa litezke. Lehenean, bertsolariak eta bertsolaritzak garaiarekiko zuten egokitasunaz nahiz erabilgarritasunaz hainbat ideia bildu, eta, bigarreanean, denboran barnako bidaia irudikatu zuen. Horietan agertuetarik, bertsolaritzaren egokitasuna da, guretako, aipagarrien:

Ene ustez, bertsolariak dohai asko daduzka, lehen esan ditudan eginkizunak³¹¹ betetzeko. Alde batetik, zentsuratzan eta galerazten zailenetakoa da, edozein leku eta mementotan bota baititzake bere bertsoak. Oso herrikoia eta demokratikoa da, zeren behartsuenengana ere erraz hel eraz baitezake bere boza. Oso zuzena eta direktoa delako, erantzuna emateko guztiz aproposa da, problema sortu den tokian bertan kanta baitezake. Gainera, arteak eta mintzabide guztiek daramazkiten tendentzien erdian sartuko litzateke. Izan ere, zineman (beste askoren artean Losey), antzerki berrian (horra hor Nancy-ko festibala), eskulturaren (Oteiza, ez da hala?), halako ximpletasun batera jotzen ari dira, gauzak erraz erakutsiz, bakoitzari «hau edo bestea» aukeratzeko askatasuna emanez, alferrikako hitz edo elementurik sartu gabe, eta abar.

Jakina, bertsolaritza forma aparta izan arren, forma horren jabe den pertsona konkretua, eta beronek erabiltzen dituen gaiak, sentsibilitate, zorrotasun, jakituri eta ez dakit zer gabekoak baldin badira, forma horren efektibitatea zeharo galtzen da. (“Bertsolaritzaz pentsatzen”, 1972, 234: 16)

Hirugarren atalean agertu gisa, AOK-k kultur ondaretik berreskura zitekeen multzo, potentzialki, baliagarria gorpuzten zuen: oinarrizko duintze kolektiboa berreskuratzeko lehen faseetan zen komunitatean, behar-beharreko ziren ardatzak asebetetzeko aukera eskaintzen zuen; “2.2.2. Duintasuna, gune” eta “3.1.3. Iraganeko ondare kulturalaren berreskuratzea: AOKren funtzioak” ataletan azaldu eta garatu gisa, denbora erreferentzia, talde izana eta sendotasuna laguntzeko tresna hagitz egokia zen.

AOKren birjabetzak literaturaren jasotze prozesuan izaniko eragina, aldiz, sorkuntza lanekin eginiko balioztatze prozesuan suma liteke; izan ere, aisa atzeman baitzitekeen AOKtik hurbileko zeinahi ekoizpen euskal kulturaren gauzatze gisa: euskal

³¹⁰ Beraz, hemen erranek tesiaren hirugarren kapituluaren bidegile gisa aurkeztuko diren arituen aitzinlanak agertzen dituzte.

³¹¹ “kultura zabaldu nahi bada, kontzientzia sortu, gertakariak zinez esplikatuz, jendea poztu eta beste zenbait gauza egin” zioen artikuluan, lehenxeago.

komunitatearen ondare garrantzitsua AOKtik hurbilekoa izanik, eredu horretara moldaturiko aritu oro ondare haren ondorengo zatekeen. Halatan, Arestiren kopia zaharren erabilera berriztatua edota bertso moldearen eguneratzea euskal ondare garaikidearen ikur bihurtu ziren. Mikel Laboaren kasuan azalduko dugun gisa (4.2.2.), iraganaren gordeleku zen kultura berreskuratu, eta erabilera berriztatu zen, komunitatearen hedatze berrien mesederako. Zailtasunak, garaiari zegozkionak: moldatze horren balioa eta zilegitasuna.

4.1.2.ko a.1. azpiatalean hizpide izan ditugun bi alderdiak –AOKren bereganatze eta birjabetza– komunitatearen eta garaiaren arteko harremanaren ondorio zuzena izan ziren. Komunitateak bizi zuen garaiarekiko, testuinguruarekiko, arrunt lotuak izan ziren, eta, beraz, AOK-k literaturan izan zuen eraginkortasunaren erakusgarri dira biak; izan ere, esentziaren bilaketaz gain, helduleku sendorako gune izan ziren: iragan bateratuan oinarriturik, orainaldia aupatu, eta etorkizunerako arrazoibidea emanen zuen gunea. Hala, bada, berriz ere komunitatearen duintze prozesuarekin bat heldu diren birmoldatze aztarnak sumatzen ditugu; oraingoan, ordea, aztarna horiek ELEren garapenari nola lotzen zaizkion aztertu dugu.

Euskal kultur moldaketa nagusiak euskal literaturan izan zuen eraginik nabariena testuinguruak baldintzatua izan zen, zalantzarik gabe; are gehiago, AOKtik hurbilduriko corpusak eta moldeak komunitatearen duintze prozesuari arrunt lotuak izateaz haratago, hurbiltzeko modua ere testuinguruak baldintzatua izan zen. Arestian erran gisa (3.1.4.b.), aipaturiko parte-hartze liturgiko eta zeremoniatsua harreman horren erakusgarri da.

Hortaz, Euskal Kultur Sistemaren (EKS) moldaketak, komunitatearen sinbolo sarearen berregituratzeak eta, noski, horiek literaturan izan zuten islek zera erakusten dute: kultur moldatze nagusiak, lehen fasean –1960-1975 bitartean, guti goiti-beheiti–, komunitate duintasunaren berreskuratzea izan zuela baldintzatzaile nagusi. Halatan, euskal sinbolo sarearen izanak duintasun hori berreskuratu ahal izateko berrinterpretatzeen lortzea izan zuen abiapuntu.

Edozein gisatan, aitzina egin ahala ohartuko garenez, sinbolo sarea –nahiz, jakina, bere interpretatzea– finkatu ahala, mendekotasun horren gailentzea gutiagotu egin zen: EKEk erakundetzea lortu ahala, azpieremuek izaera autonomoagoa eskuratzearekin batera, duintasuna berreskuratu beharraren zama intentsitate desberdinez agertu zen.

a.2. Irudien sinbolizatzea

Ondoko paragrafoetan, iraganeko elementuetako tresnak berreskuratzeari egin nahi diogu erreferentzia. Birjabetza horrek aitzinako irudiak erreferente sinboliko berriztatu bihurtu zituen, moldatzen hasi berria zen euskal sinbolo sarearen baitan. Iraganetik heldu ziren irudiei garaiari egokituriko interpretazioa gaineratu zitzaien; hala, amaren irudia, etxearena, txoriarena, nahiz bertso moldeena... izaniko garai baten erakusgarri bateratzaile gisa sumatu ziren. Hortakotz, AOKn altxatua iragan bateratu urrutikoaren isla izaki, corpus horren birbalioa komunitatearen izatea berreskuratzeko lan bihurtu zen; *continuum*aren eusle ziren irudi horiek komunitatearen birgaitzea lagundu zuten.

Komunitatearen iraganeko izaeraz haratago, izaera horren balio garaikidea –bere funtzionalitate garaikidea– agerian uzten zuen ondarea zen. Gisa horretan, irudi horien sinbolizatze garaikidea dela medio, iraganaren eta orainaren arteko lotura ezartzen zen; iraganeko errealitate bateratuaz gaindi, garai harekiko *jarraitutasun sinbolikoa³¹² ezarriaz. Jarraitutasun mota hori estatutik gabeko komunitateen duintzearekin lot liteke; izan ere, estatuaren babesik gabeko komunitateek –zalantzarik gabe, beren izana estatu barneratzaile edota ukatzaile batek ezeztua denean– komunitate partaideen arteko lotura nahiz izaite bateratu horren izana, sarri, ondare partekatuaren interpretatze sinbolikoan oinarritu beharko baitituzte.

a.2.1. Forma sinbolikoen interpretazio zehatzak

Irudi horiek, potentzialki bederen, garaiko testuinguruarekiko korrespondentzia altxa zezaketen, edo hala interpreta zitekeen, bederen. Guzietarik gailendu zirenak euskal herriaren izaneko alderdi sentimentala bulkatzen zutenak izan ziren; erran nahi baita komunitatearekiko arrazoiak haraindiko atxikitzea laguntzen zuten interpretatzeak nagusitu zirela.

Zein zen, ordea, iragan bateratuaren gordeleku gisa atzemaniko AOK zehatza eta, zehazkiago, bertako irudien berrinterpretatze komuna? Izan al zen halakorik? Ikusiko dugunez, balio sinbolikoa bereganatu zuten irudi aunitzek komunitatearen iraganarekiko loturaren bat altxatzen zuten. Iragan desberdinak izanagatik, komunitatearen izaera bateratuari edo izanari berari lotzen zitzaion forma sinbolikoa. 60-70etan eraiki, eta

³¹² Espresuki garatuko dugu jarraitutasun honi dagokion azalpena 4.1.3.ko “a.2. Prozesuaren segida: jarraitutasun sinbolikoa” azpiatalean. A eranskineko “Jarraitutasun sinbolikoa” sarreran ere bildu dugu oinarritzeko adiera.

garaiko arauen arabera berrirakurri ziren irudiek³¹³ komunitateko iraganaren proiektzio presentea egin zuten –duintasunaren bilaketa nagusi zenaren seinale–.

Hautatu ditugun forma sinbolikoak guti batzuk diren arren, iduritu zaigu kultur moldatze nagusiaren, testuinguruaren eta komunitatearen arteko harremana eta elkarreragina argien irudikatzen duten adibideak direla. Aipatuko ditugun sinboloen muinean ziren senidetza sentimena, askatasun beharra, iragan partekatua, garapenaren eta euskaltasunaren arteko harremanaren berrinterpretazioa eta abar.

Senidetza: “ama”, “aita”, “etxea”³¹⁴

Lehenik, senidetza oinarri zuten sinboloen artean, “ama”, “aita” eta “etxea” aipa litezke. Gaurgero errana dugu nazioen oinarrizko batasunerako bide nagusietariko senidetza sentimena izaten dela. 1960-1975 bitartean, “ama”, “aita” eta “etxea” euskal komunitateko partaideen senidetzari, alde desberdinetarik, erreferentzia egiteko forma sinboliko izan ziren. Amaren galera, gurasoengandiko –arbasoengandiko– oinordetza –komunitate mailakoa– eta etxea sentikortasuna kitzikatzeko oinarrizko dei bihurtu ziren; hau da, nazio berpizteetan nagusi diren arrazoiak haraindiko atxikimenduen bizkortzaile eta oinarrizko ekintzen bulkatzaile.

Zeren adierazle	Familia, sorburua; babesa. Beraz, inplikazio eta konpromiso emozionala eskatzen duena.
Alde emotiboa	Babestu beharrekoa. Arrazoiak haraindiko atxikimendua; kate emozionalak. Sakrifizioa.
Adibideak	Aresti: “Nire aitaren etxea”.
Iraganarenganako lotura	Arbasoekiko lotura eta oinordetza altxatzen duen senidetza, akierarik gabeko iraganarekin lotua. Belaunaldien jarraipena.

6. taula: “Ama”, “aita”, “etxea”

Hala, bada, nazio baten garapenerako ezinbertzeko den senidetza eta sakrifizio sentimenen agertoki ziren forma sinboliko horiek.

Askatasun beharra: “txoria” (vs “arranoa”)

Bigarrenik, askatasunari loturiko sinbolo nagusia txoria izan zela erran liteke. Nafar erresumaren ikurra arranoa izanagatik, garaiarekiko koherentzian, askatasunik gabeko txoria, harrapatua eta ahula –sarri, malenkoniaz oroitua– jabetu zen euskal giroko

³¹³ Komeni litzateke, etorkizunean, XX. mendearen hasierako euskal kulturaren moldatzean literaturak irudi horiek zertarako, zeren adierazgarritzat eta zein generotan erabiltzen ziren aztertzea.

³¹⁴ “Ama”, “aita” eta “etxea” delakoen irudikatzea Sarasuak azaldua du, *Hiztunpolisa* lanean (2013: lehen ataleko bigarren kapitulua).

jaialdi eta kontzertuetan. Garai bateko arranoarekin kontraposizioan, babestu beharreko txoria agertu zen.

Zeren adierazle	Egan egin nahi eta ezina; askatasun egarria. Vs “arranoa” ³¹⁵ : garai bateko indar ekonomikoaren –baina, bereziki, politikoaren– erakuslea; JosAnton Artzek iragan garaiak, gerrak eta isuririko odolaren erakusle diren olerkietan agertzen du.
Alde emotiboa	Berezkoa zaion askatasun egoera ebatsia duenari preso egoteak sortzen dion sentimena; berezko izanaren ukazioak sortzen duen mina, kinka.
Adibideak	Artze eta Laboa: “Txoria txori”.
Iraganarenaganako lotura	Nafarroako erreinuari lotua, iragan politiko-administratibo autonomo partekatu batenganako lotura. “Arrano” izatetik “txoria” izatera igaro arren, berezkoa duen askatasuna, hegan egiteko ahalmena, berdin-berdin errepikatzen delarik irudi bietan.

7. taula: “Txoria”

Nazioaren errealitate gutiratua eta etorkizuna irudi berean bateratzen zituen forma sinbolikoa: antzinako kohesioaren, orainaldiko egoeraren eta etorkizuneko nahiaren isla.

Iragan bateratuaren erakusgarriak: “bertsolaria”, bertso moldea

Hirugarrenik, iragan bateratuaren eta antzinako kultur berezkoaren erakusgarritzat atzeman ziren pare bat forma sinboliko gailendu ziren. “Bertsolaria” antzinako egoera kultural baten lekuko eta herriaren nahiak agerrarazteko ahots gisa atzeman zen; gainera, bertso moldearekin batera, euskal komunitatearen bereizgarritzat sumatu zen. Zernahi gisaz, bi sinbolo horien garrantzia handia izan bazen ere –edo izan zelakotz, hain zuzen–, birmoldatzea ikaragarria izan zen. Bertso munduak, osotasunean, jasaniko moldaketa eta eguneratzea garai eta komunitate beharrei gehientsuen egokituriko aldaketa kulturala izan zen.

Zeren adierazle	Esentziaren eta jatorrizko moldeen erakusle. Herriaren ahots: behar eta kexa partekatuen bozeramaile.
Alde emotiboa	Iraganetik heldu den ahotsa, galduriko mundu baten hondarrak.
Adibideak	Atxaga: “Bertsolaritzaz pentsatzen” (<i>Anaitasuna</i> , 1972, 234: 16). ³¹⁶ Oteiza: <i>QT</i> (9, 22, 53, 124, 140 eta, 6an eta 139an, Xenpelar). ³¹⁷
Iraganarenaganako lotura	Garai bateko komunitate egoeraren erakusgarriak; egoera garaikidea bideratzeko birmolda zitekeen aritu molde erabilgarria.

8. taula: “Bertsolaria”, bertsoa

Kultur eta ondare nahiz komunikazio, ohitura, bereizgarrien erakusgarria: iragan bateratuan, partekaturiko ezaugarri bereizgarrien gordelekua.

³¹⁵ Arrano beltzak, sinbolo gisa, izan duen garapenez, ikus Iñaki Iriarte López-en “Arrano beltza” (*in de Pablo et al.* koord. 2012: 155-165).

³¹⁶ Ikus 4.1.2.ko a.1. azpiatalean bildu berri dugun testu zatia.

³¹⁷ Ikus 3.1.4.a. eta 4.2.1.eko a.2. azpiataletan erranak.

Errana dugu tesi honetan ez dugula forma sinboliko zehatzen azterketa sistematiko sakonik egin nahi; alderantziz, testuinguru zehatzean maila desberdinetako errealitate sinbolikoak izaniko garrantziari erreparatu nahi izan diogu. Munta hori maila desberdinetan islatua izaki, ikuspegi orokor baina koherentea ematen duten mailak aztertu ahal izanen ditugu. Kasu honetan, gainera aipaturiko forma sinbolikoak, garai hartan, nagusituriko errealitate sinbolikoaren erakusle zehatzak dira: sinbolikoaren eragin nabariaren gauzatze zehatzak³¹⁸.

a.2.2. Forma sinbolikoen ezaugarri partekatuak

Beraz, alde batera utzi ditugu forma sinboliko zehatzen azterketa sakonak. Horretarako, John B. Thompsonnek berak proposatzen zuen metodologia, hermeneutika sakonari dagokiona (1990: 277-291), erabil liteke. Azterketa horrek bakarrik, ordea, tesi bat egiteko adina lan emanen luke; hermeneutika sakonak, forma sinboliko bakoitzeko, hiru mailatako ikerkuntza eskatuko bailuke: azterketa soziohistorikoa, azterketa formala edo diskurtsiboa eta interpretatze nahiz berrinterpretatzea, bakoitza azpisail aunitzez osatua zatekeelarik, gainera.

Zernahi gisaz, Thompsonnek, modu orokorrean, aipatzen dituen ezaugarriak, hein batean, argigarri iduritu zaizkigu. Horiek goitiko sinboloen interpretazio orokor bateratuari erantsiaz, aitzinez agertu zaizkigun hainbat ideia baieztatu ahal izan ditugu: kultur moldaketan iraganak izan zuen eragina eta eremu sinbolikoaren garrantzia. Hortaz, hagitx laburki, bederen, ezaugarrien eta sinboloen arteko interpretazio bateratua biltzen duten ideiak ekarri ditugu, ondoko paragrafoetara.

Idea bat nagusitzen da, interpretazio bateratuaren oinarrian: bertso molde eta irudiei esleituriko balio sinbolikoek eragile nagusi izan zituzten forma sinbolikoen eraikuntzan parte hartzen duten ezaugarri nagusiak. Alegia, aipagai izan ditugun irudi guztiak forma sinboliko bihurtu ziren hizpide den garaiko euskal komunitatearen baitan, eta, horietariko bakoitzari erranahi berezitua egokitu zitzaion arren, forma sinbolikoen eraikuntzari berezkoak zaizkion ezaugarri nagusiak partekatu zituzten. “1. Oinarri teorikoak” atalean solasgai izan ditugun borts ezaugarriak, Thompsonnek espresuki zehaztuak, irudi horien sinbolizatze prozesuaren isla dira. Are gehiago, hemen aipaturiko forma sinbolikoak guti batzuk izanagatik, garaian egituratu ziren forma

³¹⁸ Oroitu sinbolikoaz, Gilberto Giménezen hitzetatik abiatuta, errana (1.2.2.c.).

sinbolikoek ere borts ezaugarri horiek partekatuko zituztela pentsa liteke³¹⁹; gainera, testuinguru nagusia partekatu zuten, modu bertsuan bideratu zen sinbolo horien atzemate eta erabilera.

- Batetik, berariazko eiteari dagokionez, aipaturiko forma sinbolikoek ekoizleen eta hartzaileen arteko oinarritzko harremana sortu zuten; forma sinbolikoak norbaitek sortuak izateaz gain, horietariko bakoitza jasotzen zuena ekoizle horren existentziaz jakitun baitzen. Hizpide ditugun adibideetan, hartzaile kolektibo batek pertzibitu zuen sinbolo horietariko bakoitzaren erranahia, modu bateratuan; ekoizleak zeinahi adiera buruan izanik ere, goiti aipaturiko erranahi banakoak komunitateak osatu baitzuten.
- Bertzetik, eite konbentzionalari erreparatzen diogunean, forma sinbolikoek jasaten dituzten prozesuetako arau, kodigo eta konbentzioez ari gara. Multzo mugatzaile horrek, ordea, bi norabidetatik erabilera autonomoa duenez, “ama” edo “aita”, “etxe”, “txori”, “natura” eta “bertsolari” nahiz bertso moldeez aritu garenean, ekoizte prozesuan parte hartu zuten kodetze arauak, batetik, eta jasotzean eragile izaniko deskodetze legeak, bertzetik, desberdindu beharko lirake; eraketan eta jasotzean –atzemate prozesu osoan– eragiten zuten legeak, preseski. Arau horiek guztiak ezaguera sozialak mugatu zituen, arauen ezagutzaz gain, horien onartze eta moldatzeak ere partekatuak baitziren³²⁰.
- Hirugarrenik, sinboloen eite estrukturala aztertze ere, bi dimentsio bereizi beharra zehazten du Thompsonen. Egiturari dagokionez, irudi sinboliko zehatz bakoitzaren elementu zehatzak aipatu beharko lirake; sistemaz edota eremuez ari garelarik, aldiz, forma sinboliko zehatzetan gauzatzen diren elementu sistemikoen konstelazioei erreparatu behar. Hain zuzen ere, konstelazio horiek forma sinbolikoetan abstraituz lortuko lirake.
- Gainera, goiti aipaturiko sinboloek eite erreferentziala partekatzen zuten. Thompsonen berak bi alderdi nagusiri behatu beharra argitzen zuen: erreferentzia egiten zaionari erreparatu, eta horri buruz aditzera emana aztertu. Goitiko forma sinbolikoen kasuan, bakoitzak eite erreferentzial berezia izan zuen, noski.

³¹⁹ Guk aipatu ditugun forma sinbolikoen eta garaiko bertze adibideen azterketa zehatza etorkizunean egin beharreko lana izanen da.

³²⁰ Kodetze eta deskodetze arau horien ikerkuntza izanen da etorkizunean egingen dugun ikerkuntzaren alderdiarik bat.

Alabaina, iduri du hagitz garrantzitsua den aldea partekatu zutela, erreferentzia egin edo irudikatzeaz haratago, erreferentzia egiten zaionarekiko jarrera ematen baitute aditzera. Hots, duintasun oinarrikoaren berreskuratze garaian gailendu zen saioarena; ukazio nahiz gutiespenak, garaiko behar eta desirekin, kitatzea gune zuen ekimenarena.

- Azkenik, testuinguruan txertatuak izateak ahalbidetu zuen lan honetan behin eta berriz aipatu diren forma sinbolikoak momentuko prozesu soziohistorikoen agertoki izatea; lekukotza ahalmen horrek, hain zuzen, forma sinbolikoen barne-egituratik ematen du kanpoko mugen berri: testuinguru sozial nahiz instituzionalari buruz eta testuinguruan ziren botere harreman nahiz formei buruz.

Bortz ezaugarri horiei modu bateratuan erreparatu, ideia nagusi batez ohartu gara: testuinguru nagusi partekatua –forma sinbolikoen prozesu oro inguratzen duena– bera dela, zeinahi prozesurako. Hortaz, adibideetan aski argia denez, testuinguru nagusiak forma sinbolikoen ekoizte eta jasotze prozesuak ulerkuntza nagusi beraren baitan bildu zituen. Errealitate zabal horrek forma sinbolikoen ekoizte eta jasotze prozesuetako baldintzatzaileak elkarrekiko harreman eragilean jarri zituen. Hori dela eta, 1960-1975 bitartean indartsu agerturiko forma sinbolikoak sinbolo sare bateratuko gauzatze zehatzak izan ziren; sare horren kodetze nahiz deskodetze araeuakiko koherenteak zirenak, hain zuzen.

Badira, ordea, orain arte aipaturikoak kontuan izanik, birformulatze nagusiak literaturan izan zuen islari erreparatu, identifika daitezkeen bi ondorio orokorrako ere. Batetik, kultur birformulatzearen isla literarioak osatzen dituzten bi sailak alderatu –AOK-ko molde eta irudiak (4.1.2., a.1.1.)–, iraganarekiko lotura sumatzen da, lokarri nagusi gisa. Ez zen hala, bertzerik gabe, gertatu; aitzitik, komunitate duintasunaren berreskuratze kolektiboarekin arrunt lotua zen tasun hori. Beraz, gisa honetara laburbil liteke goiti errana: kultur moldatzeak euskal literaturan izan zuen eraginak baldintzatzaile nagusietarikotzat izan zuen komunitate duintasunaren berreskuratzea.

Bertzetik, komunitate garapena hagitz maila sinboliko desberdinetan eragile izan zela ohartu gara. Forma sinboliko zehatzen azterketak lagundu du nazioaren garapena –lehen fasean duintasuna aipatu dugularik, oinarriko berreskuratze gisa– eremu sinbolikoaren maila aunitzetan eragile nagusi izan zela baieztatzen.

4.1.2.a. azpiatalean³²¹, ELEk kultur moldatze nagusian izan zuen parte-hartze nagusietarik bat izan dugu aztergai. AOKren bereganatze nahiz birjabetza modu desberdinek eta forma sinbolikoen interpretazio zehatz nahiz ezaugarri komunek erakutsi dute maila zabalean bereganatzen ari zen AOK-k literaturan eragin handi eta anitza izan zuela. Segidan heldu den azpiatalean, ELEren bertze parte-hartze nagusiari erreparatuko diogu. Gisa horretan, literaturak izan zituen bi partaidetza mota horietatik abiatuta, literaturak 1960-1975 bitarteko fasean izan zuen funtzionalitatearen abstrakzio osotua egin ahal izanen dugu (4.1.2., b.2.).

4.1.2.b. Eragin sinbolikoaren garrantzia (zuzeneko eta zeharkako eraginak)

Kultur moldaketa nagusiaren, ELEren eta forma sinbolikoen arteko harremanak izan zuen bertze gauzatze modu nagusirik. 4.1.2.a. azpiatalean deskribaturiko harremanaz gain, ELEk kultur moldaketa nagusiarengan izan zuen eragina ere aztertu beharko dugu. Ardazte horrek bulkatu gaitu, preseski, segidako orrialdeetan solasgai dugun eragin motaren garrantzia aztertzeraz.

Harreman maila zehatzago hori agertzeko, bi ideia nagusi azpimarratuko ditugu: batetik, kultur gileek –literaturarekiko harremanean– garatu zituzten zeharkako nahiz zuzeneko harremanak zer diren aurkeztuko dugu (b.1.); eta, bertzetik, aritu horien alderdi komunak agerrarazten duen literatur funtzionalitatea (b.2.).

Ikusiko dugunez, ELEk, 1960-1975 bitartean, kultur moldaketa nagusiarekiko izan zuen harremana aztertzeko, literatur eremuak moldaketa zabalean izan zuen eraginean sakondu beharra dugu. Eragite horretan, harreman modu bat zen nagusi: *eragin sinbolikoa³²². Hori dela eta, 1975era bitartean ELEk kultur moldaketan izan zituen bi eragin nagusiez arituko gara; hau da, *zuzeneko eta *zeharkako eraginez³²³.

b.1. Zuzeneko eta zeharkako eraginak

ELEren eta kultur moldaketa nagusiaren arteko harremanean, bi eragin mota sumatu ditugu: zuzeneko eragina eta zeharkako eragina. Ondoko orrialdeetan azalduko dugunez, biak agertu ziren literatur eremuaren eta moldaketa zabalaren arteko harremanean; zehazki, erlazioak izan zitzakeen bi norabideetan. Azalpenarekin, b.2.

³²¹ Hemen bildu ditugu 4.1.2., a.2. azpiataleko ondorioak.

³²² Ikus A eranskineko “Eraginak: zuzeneko eta zeharkako eraginak” sarrera.

³²³ Ikus A eranskineko “Eraginak: zuzeneko eta zeharkako eraginak” sarrera.

azpiatalerako tresnak eskainiko ditugu; ELEk kultur moldaketa zabalean izan zuen eragin simbolikoa eta funtzionalitatea ikertzeko beharko ditugun lanabesak.

4.1.2.a. azpiatalean, kultur moldaketa zabalak ELEN izan zuen eraginaz aritu gara; orain, ELETik kultur moldatze nagusirako eragina nola gertatu zen aztertzea dugu helburu. ELEk kultur moldaketan izan zuen eragin nagusietariko bati erreparatu, harremanaren alderantzizko bidea azpimarratzen duen eraginari behatuko diogu.

Horretarako, ELEN, azterketak aitzina egin ahala, sumatu diren bi parte-hartze motari behatu beharko diegu. Parte-hartze horietariko bakoitzak islatzen du ELEren eta kultur moldatze nagusiaren arteko elkarreraginak hartu zuen norabide bana. Hala eta guziz ere, pixkana agertuko dugu bakarria izan zela ELEk, norabide bikoiztasun horren gibelean –1960-1975 bitarteko moldaketa nagusian–, izan zuen funtzionalitatea (b.2.).

Beraz, euskal literaturaren funtzionalitatea zabaltasunaren baitan zein izan zen argitu ahal izateko, lehenik eta behin, ondoko orrialdeetako azterketan erabiliko ditugun tresnak aurkeztu behar; bitarte horretan gertatua aztertzeko, “zuzeneko eragin” nahiz “zeharkako eragin” gisa izendatuak proposatzen ditugu, lanabes³²⁴. Poliki-poliki, eragin horien azterketak lagunduko du ELEk, hamabortzaldi hartan, izan zuen funtzionalitate nagusia azaleratzen.

Modu aski eskematikoan bada ere, erran liteke badutela eragin zuzenekoek eta zeharkakoek bereizgarria den tasun nagusirik: eraginaren helburu gisa eremu jakin bat izatea edo ez izatea eta bertan eragina lortzea. Beraz, eremu horri sor dakizkiokeen eraginaren bidea da, kasu bakoitzean, desberdina.

Zernahi gisaz, adiera zabala izanagatik, proposatzen ditugun definizioek aukera ematen dute ELEren eta moldaketa nagusiaren arteko harremanaren norabide desberdinak modu zehatzean deskribatzeko:

Zuzeneko eragina

Zuzeneko eraginaz ari garelarik, kultur eremu batean –haren egiturari edo arituetari– zehazki eragiteko asmoz sortzen diren eraginak aipatzen ditugu. Adibidez, literatur eremuan –egiturari nahiz arituetari– espresuki eraginiko aldaketak izanen ditugu solasgai; zehazki, eremuaren baitan eragiteko asmoz sortu, eta eragitea lortzen

³²⁴ Hirugarren kapituluari, aldiz, 1975-1990 bitarteko garaia aztergai dugularik, espresuki bitarte horretarako lanabes egokiak proposatu ditugu; ELSrantzako bidearen eta komunitate garapenaren arteko harremana agerrarazteko tresnak: zuzeneko eta zeharkako babesak. Horiek izanen dira ELEk komunitate garapenaren bigarren fasean izan zuen eragin finkatzailea agertzeko euskarrietariki bat.

dutenak. Gainera, ELEk moldaketa nagusiarenganako izan zuen eragina ikertzeko ere erabilgarria da kontzeptua.

Zeharkako eragina

Hauek, aldiz, zehar-ondorio gisa sorturiko eraginak dira. Literatur eremuaz ari garelarik, eremu hori ez den bertze fokuren batean eragiteko helburuz sortuak izan arren, bertan isla duten aldaketa eratorriez ari gara. Kasu honetan ere, ELEk kultur moldaketa nagusian izan zuen eragina aztertzeo hagitz erabilgarria izanen da kontzeptua. Are gehiago, aukera izanen dugu harremanaren norabide horretan sumatutako eragina zehazteko, zeharkako eragin espezifikoz batez, *eragin sinbolikoaz³²⁵, aritzeko parada izanen baitugu.

ELEk kultur moldaketa nagusian izaniko eraginen artean, bada bat, zeharkako eraginen baitakoa, espresuki iradokitzailea: euskal munduan entzutea zuten pertsonen, literaturarekin lotuak zirenek, kultur moldaketan izan zutena; horiek literaturarekiko izan zuten harremanetik eratorririko eragina da, preseski, ELEk moldaketa nagusian izaniko presentziaren alde nagusietarik bat.

Kasu horietan, zeharkako eragina zen pertsona horiek, euskal kulturaren zuten agerpenagatik, ELEren izana moldatzeko izan zuten eragin eratorria; izan ere, literaturarekin nolabait lotuak ziren aritu edo pertsonengandik abiatu baitziren kulturaren esparruetako aldaketa garrantzitsuak. Bertzeak bertze, kantarien arituek aunitz lagundu zuten poeta garaikideen lanak –forma eta edukiaren aldetik berritzaileak– jendartean zabaltzen.

Zeharkako eragin horri eite sinbolikoa atzeman diogunez, “eragin zeharkakoa” edo “eragin sinbolikoa” iritzi diogu. Beraz, ELEk kultur moldaketan izaniko “zeharkako eragina” “eragin sinbolikoa” izenarekin guziz trukagarria da, guretako, eta halaxe erabiliko ditugu biak, lan honetan; eragin sinbolikoa izan zuten kulturgileak baitziren ELEk kultur moldaketa nagusian izan zuen eraginaren muinean.

1960-1975 bitarteko pertsona nagusietariko zenbaitek lotura handia izan zuten literaturarekin. Hori dela eta, eragin sinbolikoa handia lortu zuten, bertzelako eraginez gain, ELEn nahiz kultur moldaketa zabalean; beren aritua literaturaren esparruan ere gauzatzen zelakotz –Aresti, Lete...–, edota literatura beren esparru nagusian baliatu zutelakotz –Laboa nahiz gainerako kantariak, antzerki taldeak...–.

³²⁵ Ikus A eranskinetako “Eraginak: zuzeneko eta zeharkako eraginak” sarrera.

Hemen, ELEk kultur moldaketa nagusirenganako izan zuen bidea izanen dugu aztergai. Harremanaren norabide horretan, ELEk eragin sinbolikoa izan zuen kultur zabalarenganako; eta garaiko diziplinartekotasunak zerikusi handia izan zuen horretan, eklektizismoa gibelesko ahulezia nagusien ondorio izan baitzen (4.1.3.). Alabaina, egia da kulturgileen arituak, printzipioz, lagundu zuela kultur azpieren arteko behar lukeen lan bateratua.

Edozein gisatan, literatur eremuarekin nola edo hala lotuak ziren kulturgile horiek eragin zeharkakoa izan bazuten, ELEk kultur moldaketan izaniko funtzionalitatea hausnartzea dagokigu. Horretarako, bai kulturgileen arituari, bai aritu horietan literaturarekin eginari ere, behatu beharko diegu. Ondoko azpiatalean azalduko dugunez, bigarren mailako eragile iduri lukeen literaturak bidegile gisa parte hartu zuen, 60etatik aitzinako moldaketan.

Funtzionalitate horren arduradunak kulturgileak izan ziren. Gogoratu Montserrat Guibernauk, intelektualek nazionalismoaren garapenean duten rolari buruz ari delarik, hiru lan nagusi bereizten dituela (1999: 98): batetik, komunitatearen historia, hizkuntza, mitoak, kultura eta ezaugarri berezkoak lantzea; bertetik, kultura gutituen eta estatu barneratzaileen arteko aldeak azpimarratzea; eta, azkenik, momentuko ordenari buruzko diskurtso kritiko-subertsiboa erabiltzea.

Hala ere, horien gibelean, bi rol nagusi bereizten zituen adituak: mugimendu nazionalaren arkitekto gisakoa eta momentuko ordenaren deslegitimatzaile izatearena. Tesian, hori guzia lehenengoz azaldu dugunean, euskal kulturgileengan rol horien nahastea egon zela aitzinatu dugu (3.1.4., b.1.). Orain, aldiz, argibide horri ñabardura bat gehi dakioke, literatur eremu finkatu gabeak izaniko rola bi modu nagusitan gauzatu baitzen: hondarreko orrialdeetan solasgai izaniko eragin zuzena eta sinbolikoa –edo zeharkakoa– medio.

Kulturgileen eragin zeharkakoari behatuz ekin diogu, azpiatal honetan, ELEren eta kultur moldatze nagusiaren artean ezarririko erlazioak laburtzeari. Segidan, kulturgileek, oinarrian, ezintasun multzo partekatua zutela ikusiko dugu.

b.2. Ezintasun komunitario arituak

Goiti aipaturiko kulturgileek komunean zuten bertze kultur arituarekin harreman estuan izatea, diziplinarteko saioetan jardutea eta literaturaren autonomia guzizkorik gabe lanean aritzea. Hau da, literaturaz bertzelako helburuenganako mendekotasuna

gainditu ezina zuten kulturgileek, ELerekiko harremanean, mugarri³²⁶. Ezintasun multzo partekatu horrek ezarririko mugaketa agertu nahian, ezina islatzen duten kulturgileen kasuistika nagusiari behatuko diogu; hau da, EKEN zeharkako eragin simboliko nabaria izan zutenei.

Hiru talde nagusitan banatu dugu literaturaren bigarren parte-hartze molde nagusiko partaideen kasuistika: batetik, (1) kulturgintzaren esparru nagusiak lantzeaz haratago, literaturan ekoizle ez ezik, aitzindari nagusi izaniko aritua islatu nahi dugu; bertzetik, (2) aitzindaritzea agertu arren, espresuki literaturaren ekoizpen pertsonala jorratu gabeko aritua izanen dugu solasgai; hirugarrenik, (3) literatur jardun pertsonala eginik ere, belaunaldi berriaren pisua agerian uzten duen aritua deskribatu dugu.

Gisa horretan, ELEren eta kultur moldaketaren arteko harreman nagusiaren baitan aritu molde desberdinik izan ote zen aztertuko dugu.

(1) Gabriel Aresti

Garaiko kulturgile nagusietarik bat izanik, kultur esparru desberdinen jorratzea izan zen bere ezaugarri nabarmenatarikoa. Batetik, euskara batuaren finkapenean lan handia egin zuen: Euskaltzaindian izan zuen parte-hartzea –1957an euskaltzain urgazle izandaturia–, *Batasunaren kutxa* (1970) gramatika liburua eta *Hiztegi tipia* (1973) lana –X. Kintanarekin batera– erakusgarri guti batzuk dira. Bertzetik, literaturaren esparrua bera jorratu zuen, sorkuntzaren aldetik –liburuak, artikuluak, antzerkiak–, kritikaren aldetik –garaiko aldizkarietan agertuak– nahiz bulkatzaile lana eginaz –antzerki taldeekin lanean, literatur belaunaldi berriekin harremanean– eta abar³²⁷. Hala, bada, ELEn bidegile izateaz gain, Aresti garaiko eragile oso nagusietarik bat izan zen.

(2) Mikel Laboa

Musikaria izan arren, kantuan bertzelako arteetako jendearekin harreman handia izan zuen, eta bere arituaren ezaugarri nagusietarik bat diziplinartekotasuna izan zela erran liteke. Kultur arituen arteko elkargune gisa jokatu zuen: diziplinen artekoaz

³²⁶ Alderantziz, hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, 1975etik aitzinako faseak EKEren izaera moldatu zuen: sistema integratu-integratzaile bihurtzeko prozesua hasi zuen eremuak. Bertzerik da eremuaren “autonomia” hori zertan zen, eta alde baterako “autonomiak” bertze zenbait alderekiko mendekotasuna gararazi ote zuen (zazpigarren atala).

³²⁷ Aritu hagitz zabalaren erakusgarri guti batzuk dira *Maldan beheara* (1960), *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko Herri Hau* (1970) poesia lanak; *Mundu-munduan* (1964) nobela; *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (1961), *Justizia txistulari* (1967), *Beste mundukoak eta zoro bat* (1969) eta *Lau teatro arestiar* (1973) antzerkiak; Nazim Hikmet-en *Lau gartzelak* (1971) eta *Boccaccioren Dekamerone tipi bat* (1979) itzulpenak; *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian* argitaraturiko artikulu eta kritikak; Kriseilu antzerki taldearekin eginiko lana; eta garaiko idazleekin izaniko lankidetzak, kasu.

gaindi, kulturgile belaunaldien arteko jauzia *continuum* gisa bideratu izana nabarmen genezake, balio nagusietarik bat gisa. 4.2. atalean espresuki arituko gara Laboaren lanaz, eta azalduko dugu musikan izaniko aitzindaritzaz gain, garaiko euskal poeten lanak –unibertsalagoak diren bertze zenbaitekin batera– eskaini zituela; hala nola, ELS garaikidearen sorkuntzan –1975etik 1990era bitarteko fasean– berebiziko garrantzia izan zuten idazleenak: Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxagarenak. Hortaz, ELSren oinarri-oinarrietan, parte-hartzaile; erakundetzean, egituratzaile; eta, kanonaren finkatzaile izan ziren idazleendako, bulkatzaile izan zen, Aresti bezala.

(3) Xabier Lete

Multzo honetan, literatur sorkuntza garrantzitsua eskaintzeaz gain, belaunaldi berri baten zama islatzen duten arituak deskribatu nahi genituzke. Adibide argigarria da Xabier Leterena. Honek literaturan egin zuen ekarriak alde aunitz ditu azpimarragarri. Horien artean, bi aipatuko ditugu guk, ELEk kultur moldaketa nagusian izan zuen eraginaren erakusgarri gisa. Batetik, poesiaren arloan egin zuen saio praktiko eta teorikoa –dela poesia liburuetan, dela artikuluetan³²⁸; bertzetik, sumatzen zen irudia: belaunaldi berri baten gidaritzan parte hartu zuen kulturgilearen zeharkako eragina –Ez Dok Amairu taldean parte hartuz, adibidez–.

Aresti	Laboa	Lete
Literatur sorkuntza: bai	Literatur sorkuntza: ez	Literatur sorkuntza: bai
Kulturgile aitzindari nagusietarikoa: bai	Kulturgile aitzindari nagusietarikoa: bai	Kulturgile aitzindari nagusietarikoa: bai
Literaturarekin harremana: sortzaile + laguntzaile	Literaturarekin harremana: laguntzaile	Literaturarekin harremana: sortzaile
Diziplinartekotasuna: bai	Diziplinartekotasuna: bai	Diziplinartekotasuna: bai

9. taula: Zeharkako eraginaren adibideak

Erabiliriko adibide bakoitza literaturak euskal kultur moldatze saioan jokatzeko izan zuen modu desberdin baten erakusgarri izateko asmoz hautatu dugu; beraz, adibide

³²⁸ Bertzeak bertze, *Egunetik-egunera orduen gurpillean* (1968) nahiz *Bigarren poema liburua* (1974) poesia lanak eta *Zeruko Argian* argitaratu zituen artikulua. Tesian zehar aipatuko ditugun artikuluez gain, kantagintzaz hainbat idatzi eskaini zituen, erraterako: “Kanta herrikoia problema bezala” (*Zeruko Argia*, 1970, 400: 10), “Kanta herrikoia problema bezala (II). Musikal formazioa eta doinuen egitura” (*ibid.*, 1971: 410: 8), “Kanta herrikoia problema bezala (III). Zer esan, nola esan” (*ibid.*, 1971: 411: 6), “Kanta herrikoia problema bezala (IV). Lanaren saria dela ta” (*ibid.*, 1971: 414: 6).

zehatzek molde nagusien abstrakzioa –koordinatu nagusiak– irudikatu nahi dituzte, lan honetan. Parte-hartzaileak aunitz izan ziren arren, etsenplu guti horiek direla medio, moldaketa nagusiaren baitan literaturak izan zuen presentzia nagusien abstrakzioa aurkeztu nahi izan dugu, eta gisa horretan uler litezela nahi genuke.

Arestian aitzinatu gisa, bada, kasuistika horren barrenean, literatur arituek partekatzen duten alderdirik: batetik, literatur eremua zatekeenaren autonomia ezintasuna eta, bertzetik, testuinguru nagusian nahiz bertze arte arituekiko harremana. Bi alde horiek zera ematen dute aditzera: euskal komunitatea lehen beharren asebetetzea lortu nahian zela, eta, lehen fase horretan, literaturak bidegile gisa, bai, baina mendeko³²⁹ funtzionalitatea izan zuela. Funtzionalitate hori lehen fasean garatu izanak, ordea, ez du bertze faseetan zehar gisa horretan mantenduko zenik erran nahi. Ikusiko denez, ELEk nabarmen aldatu zuen 1975etik aitzina, komunitateko baliabide sinbolikoen bilgune gisa, bere funtzioa (7.1.2.); hau da, komunitateak bigarren mailako helburuak nabarmenago asebate ahala.

Zernahi gisaz, ELEren rola hasieran irudika genezakeenetik desberdina izan zela ohartu gara; eremu autonomo gisako parte-hartzea ez izanagatik, euskal kulturaren esparrua garatu ahal izateko laguntza eskaini baitzuen: dela idazle nagusi, belaunaldi berri edo bertze kultur esparruetan eskainiriko lana dela medio, euskal kultur jarduerak aitzina egiteko zutarri izan zen.

Hortaz, berriz ere funtzionalitatearen auzira bueltatu behar; baina, zehazki, 4.1.2. atalaren garapena baldintzatu duen bi norabidetako eraginaren ideia; hau da, kultur maila zabalak ELEren baitan izaniko eraginera (4.1.2.a.) eta, kontrako norabidean, ELEk euskal kulturaren izan zuenera (4.1.2.b.).

Ulergarria da aipatu ideia garrantzia, kultur moldaketak komunitatearen lehen mailako beharrak asebetetzea izan baitzuen pausorik behinena. Asebetetze horrek ezinezko bihurtu zuen ELEren autonomia guzizkoa lortzerik. Egin kontu komunitate zanpatuen berpizteek faseak jasaten dituztela; euskal komunitatearen kasuari erreparatu badiogu, bederen, kasik ezinezkoa iduri du duintasun kolektiboa berreskuratu nahi duen komunitateak –ekimen nazionalistaren hasieran– esparru artistiko baten autonomiari lehentasuna ematerik. Alderantziz, gizarteko arlo aunitz erabiliko dira, nola edo hala, komunitate duintasuna berreskuratu nahian, bitarteko gisa.

³²⁹ Funtzionalitateen kasuistikaz gain –teorikoa, praktiko-soziala, sinbolikoa–, funtzionalitateen izanari ere erreparatu behar izan diogu, kasu honetan. ELEren funtzionalitatea aztertzeke, bertze helburu nagusiago batzueganako mendekotasuna aipatu behar baita, 1960-1975 bitartean, bederen.

Egiazki hala gertatu, eta, ondotik, bertzelako garapena –eremuen autonomiarakoa– abiatu izanaren lehen aztarna musikarien profesionalizatzeko aldarrikapenari buruzko iskanbilak³³⁰ islatzen du; zehazkiago, beren profesionalizatzeko nahia aldarrikatzen zuen manifestua³³¹ bera da fase batetik bertzerako jauzia hasi izanaren isla. Zer erranik ez, tesiaren hirugarren kapituluaren hizpide izanen dugun abangoardia zenbait.

4.1.2.b. azpiatalean, ELE eta kultur moldaketa nagusiaren arteko harremanaren norabide zehatzetarik bat zehazten saiatu gara: ELEk kultur moldaketan izan zuen eragina, preseski. Horretarako, kultur moldaketa nagusiak ELEN izan zuen esku-hartzeaz bertzelako ideia deskribatu dugu: literatur eremuarekin harreman estua zuten kulturgileek kulturaren izan zutena. Solasgai izan ditugun hiru esku-hartze moduren abstrakzioak, gainera, eraginaren aniztasunaren baitan ezaugarri nagusi partekatua identifikatzen lagundu du; izan ere, ELEekin harremanetan ziren kulturgileek EKEN izan zuten eraginak islatzen baitu garaiko ELEren ahulgune garrantzitsuenetarikoa: autonomiarik eza.

4.1.2. atalean ikusietarik, 1960-1975 bitarteko ELEren ezaugarri eta jokabide nagusiak ondorioztatu ditugu: 1960-1975 bitarteko ELE laguntzaile gisa aritu zen, autonomiarik gabeko eremua zen, eta diziplinartekotasunean parte hartu zuen.

Ondorio horiek, gainera, hondarreko azpiatalean hizpide izan dugun harremanean islatzen dira; hau da, kultur moldaketan parte-hartzaile izan ziren kulturgileen eta ELEren artekoan. Aresti, Laboa eta Leteren arituak, desberdintzen zituen baina gehiago, partekatzen zutena da, bereziki, interesgarri. Azterketa zehatzek kasuistika zabalaren berri emanen liguketen arren, ELS garaikidearen aurrekariez gehiago diote, momentuz, adibideen arteko berdintasunek.

ELEren izaera islatzen duten hiru ezaugarri horiek eman digute aztertu ditugun kulturgileek partekatu zuten aitzinELSren isla osotua: lehenetsiak ziren bertze helburuen mesedetan erabilia –bigarren ataletik aipagai dugun beharren lehen maila–,

³³⁰ Aunitzen artean: “Raimon. Askatasunaren eske garrasika” (egile ezezaguna, *Anaitasuna*, 1966, 133: 3), “Joan Manuel Serrateri idazki idigia” (Kintana, *ibid.*, 1968, 157: 7), “Estitxugaz elkarrizketan” (Gereño, *ibid.*, 1969, 174: 6), “Ez dok amairu, ez eta ez” (Imanol Badiola, *ibid.*, 1970, 180: 3).

³³¹ “ez dok amairu: agiria gure jokabidearen berri” (*Zeruko Argia*, 1970, 358: 11), “Ez dok amairu. Agiria” (*Anaitasuna*, 1970, 181: 1, 8) eta “Ez dok amairu: Agiria (bigarren zatia)” (*ibid.*, 1970, 182: 7).

eremu finko eta sistematizatu gabea³³² zen 1960-1975 bitarteko ELE; eta, beraz, baita bertan aritu ziren kultur gile aunitzen aritua ere.

AitzinELSren deskribapenari erreparatuz, funtzionalitate urgazlea zuen eremua agertu da: autonomia guzizkorik gabekoa izan arren, kultur eremuaren –beraz, ezinbertzean, ELEren beraren– garapena lagundu zuen eremua. ELEren autonomia gabezia bikoitza izan zen: bertze eremu batzuekiko harremanean izatearen ondorioz edo literaturaz bertzelako helburuekin bat heldu zelakotz.

Ondorioz, EKEn eta ELEren arteko harremana kontuan izanik, euskal kultura berreskuratu berriaren eremu mendrea komunitatearen lehen beharrak asebetetzeko gune bihurtu zela sumatzen da; eta, gisa berean, asebetetze horretarako beharrezkoa zen corpusa eta ulertze nahiz interpretatzeak sortu eta ugaltzeko espazio.

Ondoko orrialdeetan, ELEren autonomiarik eza nahiz autonomiarako bidearen jorratzea erakusten duten adibideak landuko ditugu.

4.1.3. Literatur eremua, oinarritze bidean: zutarrien eta komunitatearen arteko egokitzea, auzian

Atal honetan, ELEren 1960-1975 bitarteko izanaren erakusgarri zehatzagoei erreparatuko diegu. Literaturaren –baliabide sinbolikoen bilgune horren– azterketarako egokitu ditugun ezaugarri baldintzatzaileak izan dira 4.1.3. atalaren egitura sakona moldatu dutenak. ELEk zuen egoeraz jabetzeko, eremuaren balioztatzeak berak baino gehiago, horien baldintzatzaile liratekeen hiru alderdiei xehekiago erreparatu diegu.

Ikusiko denez, 1960-1975 bitartean, ELEk –kultur eremu nagusiaren baitan izaki– jasan zuen Balioztatze Prozesu Nagusia (3.1.4.c.) hiru alderdik baldintzatu zuten. Batetik, erakunde ofizial gabeziak iraganaren eta orainaldiaren arteko harremana jarraitutasun sinbolikoan, espresuki, oinarritu izana lagundu zuen; gainera, jarraitutasun horren gidarritza erakunde ofizial egituratzaileez kanpoko arituen esku geratu zen (4.1.3., a.1.). Hala, bada, ELEk jasaniko Balioztatze Prozesu Nagusian, estaturik gabeko nazio barneratuetan iraganarekiko gailendu ohi den harreman mota garatu zela ikusiko dugu (4.1.3., a.2.). Bertzetik, ELEren garapena komunitatearen lehen behar maila asebate beharrekiko harreman mailakatuan gauzatu zela –eta, ondorioz, eremuaren berezko arauetatik kanpoko helburuek eremuaren balioztatzean eragina izan zutela– agertuko

³³² 4.1.3.n zehaztuko dugu tasun horren izana, eta, tesiaren hirugarren kapituluaren, erakundetze prozesuak eraginiko aldaketak deskribatuko ditugu (6.1.4.).

dugu (4.1.3., b.1.). Azkenik, hain zuzen ere mailakatze horren erakusgarri diren kinkek emanen dute ELEk estatu barneratzailearekiko zuen kokapenaren berri (4.1.3., b.2).

4.1.3.a. Literatur eremu finkatu gabea, eraikitze bidean

Azpiatal honetan, orain arte erranak kontuan hartuz, fase berri baten lehen aztarnei erreparatuko diegu. Lehenik, ELEren balioztatzean baldintzatzaile izaniko alderdietarik bat nabarmenduko dugu: erakundeei dagokiena (a.1.). Ondotik, eremuaren balioztatze nagusia bideratu zuen eragile nagusiari erreparatuko diogu: jarraitutasun sinbolikoari (a.2.).

Arestian erran gisa, euskal literaturak, kultur moldaketa nagusian, urgazle gisako funtzionalitatea izan zuen, hein batean. Testuinguru horretan, ordea, komunitate mailako harreman egituratzaile nagusi baten partekatzea izan zen: euskal komunitateak iraganarekiko ezarri zuen harremana jarraitutasun sinbolikoak baldintzatua izan zela ikusiko dugu, segidan. Jarraitutasun horrek orain arte hizpide izan dugun oinarri sinbolikoaren gailentzea sostengatzen lagundu zuen, iraganarekiko harremanak ondare kulturalerako erreferenteen atzemate eta erabilera sinbolikoa aunitz eragin baitzuen.

Hau da, ELEk jasaniko balioztatze nagusia eite sinbolikokoa izan zen, bereziki, 1960-1975 bitartean; hala gertatu izanaren eragile nagusia, komunitatearen maila zabalean gailenduriko jarraitutasun sinbolikoa izan zen. ELEren balioztatze nagusia izaera sinbolikokoa izatea lagundu zuen jarraitutasun sinbolikoaz gain, ordea, izan zen balioztatze nagusi hori eragin zuen baldintza nagusirik ere: Thompsonek hizpide zituen erakundeak, hain zuzen.

Hala, bada, erakunde gabeziak literatur eremuaren balioztatze prozesua nola eragin zuen aztertu ondotik (a.1.), jarraitutasun sinbolikoak emanen du eragin horren izaera sinbolikoa hobeki ulertzeko gako berri (a.2.). Gainera, gailentze sinbolikoaren mugatze prozesuari behatuko diogu: jarraitutasun sinbolikoaren eragin nabaria komunitate helburuak asebetetzearekin lotua zen, eta, beraz, xede horiek aldatu ahala, jarraitutasun mota horren gailentzea ere mugatzen joan zen.

Mugatze horren hasiera pausoa aurkeztuz, komunitateak 1960-1990 bitartean jasaniko berregituraketa *continuumean* harilkatzeko tresnak eskaini nahiko genituzke; zernahi gisaz, atal horretan, hondarreko helburua EKS garaikidearen oinarriak islatzen dituen eremua aztertzea izanik, ELEren garapena eragin zuten alderdiak landuko ditugu, nagusiki.

a.1. Abiapuntua: euskal literatura, egitura finkatzailerik gabeko eremu

Printzipioz, orokorrean literatur eremu oro modu zabalean aztertu ahal izateko tresna teorikoak erabil litezkeela pentsa lezake irakurleak; alabaina, literatur eremua aztertzeko erabili ohi diren hurbilketa teorikoek hagitx oinarri hertsia ezartzen dute, zenbait ikergai zehatzen inguruan: literatur eremuak, eskuarki, egitura sistemikodun eremu gisa ulertu ohi dira, eta, beraz, halakoetan indar egituratzaile nagusi izan ohi diren erakunde ofizialen existentzia susmatzen da. Ideia horrek arazo handiak sortzen ditu, euskal komunitatearen antzeko egoeran diren kasuen azterketan; izan ere, euskal literaturak 1960-1975 bitartean zuen egoera ikertzeko, literatur eremu egituratu edo literatur sistema integratu bat baino gehiago, literatur sistema baten zimenduak izanen zirenen aitzinegoera aztertu behar baita.

Hori dela eta, egituratze integratu-integratzaile³³³ horren aitzinegoera deskribatu ahal izateko lagungarri diren ikusmira eta tresnak behar ditugu, 1960-1975 bitarteko ELE aztertzeko. Batetik, eremuaren balioztatze nagusia baldintzatu zuen ezaugarri nagusietarik lehenaren existentziaz ohartu behar: erakunde egituratzaile ofizialen gabezia; bertetik, sistema integratu-integratzaile baten aitzinegoera aztergai izanik, ohiko erakunde berezitez bertelako indarririk bat ote zen erreparatu behar. Bi alde horien hausnarketa bateratuarekin, euskal kulturaren Balioztatze Prozesu Nagusiaren baitan, ELERen eragile nagusietariko baten izaera berezitua deskribatu ahal izanen dugu: hirugarren kapituluaren erantzunak izanen ditugun sistema ofizialaz bertelako indar egituratzaileak.

Hala, bada, 1960-1975 bitartean ELEk zuen egoera deskribatzeko, sistema integratu-integratzaileen funtzionamenduan klabe izaten diren erakunde gabezia azpimarratzeaz gain, alderdi teoriko bat gaineratu beharra sumatu dugu: ELERen balioztatze nagusia erakunde gabeziak baldintzatu zuela ohartu arren, egitura ofizialez bertelako indar parekorik egon ote zen behatzea hagitx erabilgarri izan daiteke.

ELSren aitzinegoera dela eta, lanaren hasiera-hasieratik arazo izan dugu sistematizatzeko "berankorra": euskal literaturak orain dela gutxi lortu zuen sistema integratu-integratzaile izaera. Hala gertatu izanak aunitz zaildu du sistema gisa aztertzeko baliabideak edota azterbideak aplikatu ahal izatea. Alabaina,

³³³ Sistema integratu-integratzaileen izanaz, ikus 6.1.4.ko b.2.2. azpiatala.

gaiztasun horrek hizpide den garaiko EL Eren –eta 1975etik aitzina³³⁴ egituratzen hasi zen ELSren– oinarriak ezaugarritu zituen; beraz, eremuak izaniko bihurtze berezitua ulertzen lagundu du, zalantzarik gabe. Horregatik, 1960-1975 bitarteko epea jarraitutasunaren baitan ulertu behar da.

Garai hartan euskal baliabide sinbolikoen bilguneak ezarririko bahea 1975etik aitzina garatuko zen ELSrenaren bertzelakoa izan zen. 1975etik aitzinako fasea erakundetze prozesuak baldintzatu bazuen, ELSren aitzingaraiaren eremua baldintzatzatzen zuen –eta, beraz, forma eta baliabide sinbolikoak eremura egokitzea nahiz eremuaren beraren balioztatze nagusia baldintzatzatzen zituen– ezaugarri nagusia bat izan zen: egitura erakundetzailerik eza.

Gabezia horrek eremuaren finkatze gabea jartzen du agerian: eremuari legozkiokoen iragazte arauak aski lausoak, edota bertze eremu finkatuago batzuekiko mendekotasunean, izatearen arrazoi nagusia huraxe izan zen. Erakusgarri aipa liteke, adibidez, garaiko kulturgileek erakundeen betebeharrak eratzailerik eta berrestailerik bete izana; sistema integratuaren egiturarik gabeko eremua izaki, ELEk ez baitzuen erakundetze lan egituratzailea bideratuko zuen egitura finkaturik. Horren ordez, aitzineko atalean deskribatu gisa (4.1.2.), herriarengandik hurbil ziren kultur gileek nahiz berauei egotziriko eragin sinbolikoak lortu zuten gabezia horren osatzea.

Erakunde egitura finkoaren gabeziak bi ondorio nagusi izan zituen: forma eta baliabide sinbolikoen –nahiz beraienganako– jokabidea baldintzatzeta eta ELEk jasan zitezkeen balioztatze prozesuak mugatzea.

Batetik, erakunde gabeziak kultur moldatze nagusiko forma eta baliabide sinbolikoen egokitze literarioa baldintzatu zituen; bereziki, bertze kultur arituekiko harremanak, barreiatzeak eta erabilerak. Hortaz, bertze kultur arituekiko mendekotasuna nabaria izan zen. Musikagintzarekin izan zen harremana, erraterako, argigarria da; 60etan, euskal literaturak kultur maila zabalean gertatzen ari ziren aldaketak, hein batean, musikarien bidez bereganatu zituen, Mikel Laboa, Xabier Lete, Aresti eta JosAnton Artzeren arituekin sumatzen den gisa.

³³⁴ Hirugarren kapituluan ikusiko denez, 1975etik aitzinako prozesuan lortu zuten bai euskal kulturak, baita literatur eremuak ere, sistema integratu izaera (6.1.4., b.2.).

Laboak, aitzineko AOK-ko oihartzunak hurbiltzeaz gain, garaikide ziren idazle berritzaileen lanak hurbildu zituen³³⁵: Arestik AOKtik berrerabili zituen molde zaharkituak hurbildu zituen³³⁶, adibidez, “Apur dezagun katea” eta “Egun da Santi Mamiña” kantetan; Artzeren “Zilbor-hesteak” (“Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak”, *Bat-hirun*), *Bat-hiru* bildumako “Ama hil zaigu”, “Baztan”, “Nire juaneteak”, “Zaude lasai”, “Gernika - Lekeitio 4” (Artzeren “Arrano beltza” olerkiduna) eta “Geure bazterrak” nahiz “Txoria txori” mitikoak; *Euskal kanta berria* (1972) bilduman txertatuak; nahiz Leteren “Bedeinkatua”, kasu.

Mendekotasun horrek garai hartan ELEk zituen bi alde nagusi nabarmentzen ditu: kulturgintzan nagusi zen diziplinartekotasuna eta bertze kultur arituen babesa ezinbertzeko bihurtu izana, eremu egituratzaile lirakeen erakundeen gabeziagatik beragatik.

Birmoldatzeak aitzinatzen zituzten kulturgileen langintzan ere sumatzen da mendekotasun hori. Euskal literaturak, garai hartan, bertze kultur eremuekiko izan zuen mendekotasunaren isla da, adibidez, literatur lanak argitaletxe guti batzuen esku izatea eta, bereziki, ELEN bidegile izanen zirenak aldizkarien inguruan abildu izana; aldizkariak, luzez, belaunaldi zaharraren eta, bereziki, berrienen trebatoki nagusietarikoak izan ziren³³⁷.

Bertzetik, erakunde egitura finkatuen gabeziak ELEk jasan zitzakeen balioztatze prozesuak mugatu zituen: Balioztatze Prozesu Nagusia kultur maila zabalean gertatua zenez, euskal komunitate nahiz ondarearengandik eratorria zen balioztatzea, eta ez literatur eremuaren izaera oinarri zuen balioztatze gisa.

Balioztatze zabalak literaturaren jorratze bideetan izan zuen eraginaren adibide izan litezke, erraterako, Bernardo Atxagaren lehenengoetariko lanetan ahozkotasuna –ikusit dugunez, arrazoi desberdinengatik, 60etatik aitzina puri-purian zen gaia– landu izana. “Bertsolaritzaz pentsatzen” (*Anaitasuna*, 1972, 234: 16) artikuluan eta “Borobila eta puntua” antzezlanean (*in Euskal literatura* 72: 225-251) ahozkotasunaren erabilera praktikoaz hausnartu, eta literatur lanera egokitu zuen. Hala, bada, idazleak

³³⁵ Aipatuko ditugun kanta guzien erreferentzia –diskoaren eta plazaratze urtearen datuekin osatua– 4.2.1. ataleko b.1. azpiatalean bildu dugu.

³³⁶ Hala nola, Arestiren lanak, musika dela medio, plazaratzeko lan handia egin zuen Oskorri taldeak, *Gabriel Arestiren Omenez* (1976) bildumak erakusten duenez.

³³⁷ Tesian zehar aztergai ditugun epe, idazle eta aldizkariak bakarrik kontuan izanik ere nabaria da egoera hori: G. Arestik, B. Atxagak, R. Saizarbitoriak, I. Sarasolak eta J. Sarrionandiak, aunitzen artean, *Anaitasuna*, *Pott*, *Ustela* edo *Zeruko Argia* izan zituzten, bertzeak bertze, agergune.

bertsolaritzaren erabilgarritasuna dela eta emaniko argudiatzea bera baino gehiago, 60-70etan, AOKrekiko izan zen hurbiltzea da, guretako, momentu honetan, adierazgarrien.

Erakunde sistema finkaturik ez izateak, ordea, ez zion ELERI soilik eragiten; izan ere, tasun horren gibelean zetzan baldintza euskal komunitate osoarendako zen eragile: testuinguru soziopolitikoak arrunt eragin zuen euskal komunitatearen garapen oro; hots, kultur moldatzea nahiz moldatze horretatik garaturiko bideak. Oinarri teorikoen atalean (1.4.2., laugarren egokitze teorikoa) aitzinatu eta atal honetan bertan (4.1.1., b.3.) osatu gisa, John B. Thompsonnek testuinguru sozialen eta forma sinbolikoen arteko harremana ideia baten baitan harilkatzen du. Soziologoarendako, testuinguru-sozialak forma sinbolikoen gauzatze eta jasotzean duen eraginak hiru baldintzatzaille nagusi ditu: helburuak, hartzaileek elkarreragin eremuan duten kokapena eta azpiatal honetan hizpide ditugun erakundeak.

Komunitatearen izana berrestera bideraturiko erakunde guti ziren, 1960-1975 bitarteko euskal komunitatearen baitan –horien artean egitura nabariena zutenak ikastolak–, eta ez zen egitura finkaturik. Horren ordez, komunitate partaideengandik heldu zen forma eta baliabide sinbolikoen eraikitze, moldatze eta barreiatzea: forma sinbolikoek jasan ahal zitzaizketen balioztatze sinboliko, ekonomiko nahiz gurutzatuak herriarengandik soilik heldu ahal ziren³³⁸.

Hala, bada, Thompsonnek eragile gisa identifikatzen zuen erakunde multzoari zehaztasun bat gehitzea komeni da: erakunde sozial ofizial finkaturik gabeko komunitatea izanagatik, horiek luketen indarra –bertzelako ezaugarriak hornitua, noski– izan liteke. Azpiatal honetan ikusten hasi garenez, 60ko hamarkadan, euskal jendartean zen erakunde horien ordezkariak, eta, 4.1.3.b.n azalduko dugunez, argialetxeek eta aldizkariak lan handia egin zuten, ekimen horretan. Horregatik, Thompsonnek balioztatze prozesuen eragile gisa erakundeak definitzen dituenen, bi kontu bereizi beharko lirakeela uste dugu: sistema egituratueta finkatuak izaten diren erakundeak, batetik, eta erakunde horien eragin pertsua izan dezaketena arituak, bertzetik.

Azken eragin hori, estaturik edota nazio egitura autonomorik gabeko komunitateetan –bai gutirituak, bai autonomia mailaren bat duten egoeretan–, egitura ofizialetatik ateko jendarteak –testuinguruak ahalbidetzen duen antolakuntza gehiago

³³⁸ Oinarri teorikoetan, espresuki aipatu dugu forma sinbolikoak testuinguru sozialetan kokatuak izateak bi ondorio nagusi dituela, Thompsonendako: batetik, testuingurueta ezaugarriak mantentzen dituztela eta, bertzetik, elkarreragin eta ebaluatze prozesu aktibo eta etengabea jasaten dutela. Azken horiek dira, hain zuzen, balioztatze prozesuak: balioztatze sinbolikoa, ekonomikoa eta gurutzatua (1.2.3., b.2.).

edo gutiagorekin– bete dezake, zalantzarik gabe³³⁹; urrutira gabe, azterturiko kasuan ageri gisa, herriarengandik hurbileko jendarteak direla medio gauzatu zena.

a.2. Prozesuaren segida: jarraitutasun sinbolikoa

Jarraian, estaturik gabeko nazioen duintasuna mantentzeko, edota berreskuratzeko, alderdi nagusietarik bati erreparatuko diogu; izan ere, estaturik gabeko nazioek, estatu barneratzaileen baitan duintasuna aurkitu nahi dutelarik, komunitatearen jarraitutasun jakinetara jo beharra suerta liteke. Jarraitutasun sinbolikoak, preseski, ELEk jasaniko balioztatze prozesuaren izaera sinbolikoa nondik heldu zen ulertzen lagunduko digu. Gainera, hurrengo azpiatalean gibel-ideia nagusia izanen denarekiko lotura agerraraziko du: komunitate beharrek nahiz helburuek ELEren garapen nahiz balioztatzea eragin zutela (4.1.2., b.1.).

“Jarraitutasun jakin” delakoarekin, komunitate batek bere iraganaren eta orainaren artean ezartzen duen segidari egin nahi diogu erreferentzia. Segida horren izana, testuinguruaren arabera, desberdina izan daiteke. Azpiatal honetan, molde nagusietarik, espresuki aipatu nahiko genuke iraganaren eta orainaren arteko segida oinarri sinbolikoaren baitan ezartzen den kasua. Hau da, bai erreferenteen interpretazio sinbolikoa eginaz, bai gertakari historikoekiko begiradan funts sinbolikoa bilatzen delakotz, edo iraganaren gordeleku gisa sumatzen den zeinahi ondarearen atzemateak hala bideraturik, alderdi sinbolikoa nagusi denean.

Ondoko orrialdeetan ikusiko dugunez, oinarri sinbolikoaren indarra komunitateen lehen behar mailaren aldiari espresuki lotua dateke, eta haren zama lausotu egiten da, erakundetze prozesuan islatzen diren bigarren behar mailak lortu ahala. Hirugarren kapituluan, argiago sumatuko dugu aldaketa hori; bertzeak bertze, komunitate garapenaren lehen fasean hain garrantzitsua izan zen gune sinbolikoaren indarra ahuldu egin baitzen, 1975etik aitzinako prozesuan (5.2.1.b.).

Hala ere, jarraitutasun sinbolikoaren ezaugarriak deskribatzen hasi aitzinetik, terminoak aski alde eta gauzatze abstraktuak besarkatzen dituenez, kontzeptuaren funtsa zein den argitu nahi genuke: izendatze horrek, erran gisa, erreferentzia egiten dio komunitateek iraganaren eta orainaren artean ezartzen duten erlazioari. Bereziki aztertu nahi izan dugu komunitateen iraganaren eta orainaldiaren segida hori 1960-1975

³³⁹ Hirugarren kapituluan ikusiko denez, komunitatearen gune sinbolikoak sarri izan dezake halako indarren laguntza bidegile (5.2.1.b.).

bitarteko euskal komunitatean nola egituratu zen; hain zuzen, lehen faseko duintzean gertatu ziren berreskuratze, egituratze nahiz moldatzeetan gainjarritako balioztatze nagusiaren zama sinbolikoa aztertu nahi izan dugu: Balioztatze Prozesu Nagusia. Hirugarren kapituluaren, aldiz, ez diegu maila horretan gertaturiko balioztatzei behatuko: Balioztatze Prozesu Nagusia egina zelarik, ikusiko dugu 1975etik aitzina, balioztatze sinboliko berriztatua –*Euskal Literatur Tradizio Krisiarekin³⁴⁰ azalduko duguna– eta balioztatze ekonomiko berria –ELERI egokituriko merkatu eta obra-merkantzia bidez azaldua– abiatu zirela (7.1.2., b.2.)³⁴¹.

Horiek kontuan izanik, jarraitutasun sinbolikoaren alderdi bereizgarrienak lau dira: iraganeko elementu gisa identifikatuak ikuspegi sinbolikotik erreparatzea; orainaldiaren eta iraganaren arteko jarraitutasuna oinarri sinbolikoak katalizatua izatea; komunitatearen eta iraganeko ondarearen arteko harremanak jarraitutasun sinbolikoaren garrantziaren berri ematea; eta, azkenik, duintze prozesuen garapenak jarraitutasunaren mugetan aldaketak sortzeko joera izatea.

Lau alderdi horiek agerrarazten dituzte euskal komunitateak, 1960-1975 bitartean, izan zituen garapenaren eta kultur ondarearekiko harremanaren berezitasunak.

1- Komunitateko kideen begirada nagusia, iraganeko ondarearekiko. Batetik, iraganaren erakusgarritzat sumaturiko elementu orori ikuspegi sinbolikotik behatzea gailentzen da, jarraitutasun sinbolikoa nagusi den garaietan; corpusetan ulerturiko gertakari historikoak, bilduriko formak eta baliabideak. Hau da, iraganaren erakusgarritzat atzematen diren elementu eta errealitateen, edota beren baitako erreferenteen, interpretazio sinbolikoa egiten da.

Ziur aski, lehen ideia horren agergarriak nabariena 60-70etako atzemate liturgikoa izan zen, corpus eta ondare kulturalaren atzematea ikuspegi sinbolikotik heldu baitzen.

Gaur egun, musika berezi bat egiten da bere [txalapartaren] birtutez. Ol batzuek medio direla, zartadaka, «ttakun-ttakunka», ritmo barrenkoi baten lillurak alkartzen gaitu denok, bizitz-patxara, bizitz-izate paregabe baten borobiltasun sakratuan murgilduaz. (Kepa Urrotz, “Ez Dok Amairu. Disko berriak”, “Gazte gera, gazte...” azpiatala, 1968, 287: 7)

³⁴⁰ Ikus A eranskinetako “Literatur tradizio krisia: Euskal Literatur Tradizio Krisia” sarrera.

³⁴¹ Gainera, balioztatze aniztasun horren azalpen teoriko osotua eskainiko dugu (7.1.2., b.1.), oinarri teorikoei eskainitako atalean (1.4.1., hirugarren egokitze teorikoa), aitzinatu dugun laburpenaren argibide zabaldu gisa.

Kontzertu eta bertso saioetan bizi zen atzemate mota horrek berreskuratzen hasia zen ondarearekiko –beraz, komunitatearen iraganaren erakusgarri zen denborarekiko– harremana funts sinbolikoan oinarrituriko atzemate partekatuan oinarritzen zuen.

- 2- Denboren arteko lotura, bideratzaile nagusia. Bertzetik, jarraitutasun sinbolikoak inplikatzeko duen komunitateko iraganaren eta orainaren arteko loturan, bereziki garrantzitsua da oinarri sinbolikoa. Komunitateko partaideek iragan horren erakusgarri den ondarearekiko duten lotura oinarri sinbolikoak espresuki lagundurik heldu dela erran berri dugu. Honek, ordea, ez du erran nahi iraganaren eta orainaren arteko harremanaren fokua oinarri horretan soilik denik –ezta gutiagorik ere–, baizik eta denbora aldi horien arteko jarraitutasuna oinarri sinbolikoak katalizatua dela. Nagusigo horren efektua bi denboren arteko harreman ororen ginetik da, baldintzatzaile gisa jokatzeko duelarik.

Hala, bada, arestian aipaturiko atzemate liturgikoa berriz ere hizpide harturik, iraganeko ondarearen eta komunitateko partaideen artean, iraganaren ezagutza nahiak, orainaren gozamenak eta abarrek parte hartzen zuten arren, 60-70etan, komunikazio ekintza kolektibo horien gauzaperen maila oro oinarri sinbolikoak besarkatzen eta bideratzen zuen. Bertzela erranda, saio horien bizipena alde sinbolikoaren baheak baldintzatzen zuen.

- 3- Jarraitutasun sinbolikoak komunitate bateko garai zehatz batean duen garrantziaren berri zerk ematen duen. Gainera, oinarri sinbolikoaren isla komunitatearen ondarearekiko harremanean suma daiteke, hobekien; erran nahi baita komunitateak iragan bateratuaren isla deritzon ondarearekiko ezartzen duen harremanak ematen duela jarraitutasun sinbolikoak lukeen garrantziaren berri. Kultur maila zabalean jokatzeko duen ondareari eragiteaz gain, kultur azpierzemuek ere eragin hori, beren izaera berezitua izanagatik, jasaten dutenean, kasu, jarraitutasun sinbolikoaren garrantzia handia dela erran liteke: kultur eremuaren geruza desberdinei, azpierzemuetako ezaugarri berezkoei moldatuta izanik ere, eragiten baitie.

Jarraitutasun sinbolikoaren eragin esparru zabalenetariko bat komunitate ondarearena da, eta ELEk, 1960-1975 bitartean, izaniko garapenak ere euskal ondarearekiko harreman sinbolikotik helduak zirartekeen baldintzatze aunitz jasan zituen. Garaiko euskal literaturan ondarearekiko ezarri zen harremanaren isla hala

deskriba liteke: euskal komunitateak kultur mailan, lehen mailako beharren aldian, iraganarekiko ezarri zuen harremanak³⁴² oinarri sinbolikoa zuen, eta honek espresuki eragin zion ELeri. Hau da, komunitate iraganaren eta orainaren arteko lotura kulturala alderdi sinbolikoaren eskutik heldu zen; horrek jarraitutasun sinbolikotiko euskal ondare kulturalaren atzematea, nahiz atzemate hortatiko berriztatze kulturala, baldintzatu zituen. Hala nola, euskal literaturan, lehen beharraldi garaian, jarraitutasun sinbolikoaren nagusitza nabaria izan zen; bertso moldeez erran ditugunez gain (3.1.2., a.1.), aitzinaxeago ere azalduko dugu AOK-ko hainbat elementu eta molderi adierazgarritasun sinbolikotik behatu zitzaizela, nagusiki³⁴³ –etno-historiez/istorioez arituko gara (4.2.1., b.2.)–.

- 4- Jarraitutasun sinbolikoak komunitate garapenarekiko duen harremana. Azkenik, hondarreko ideiarri jarraiki, komunitatearen duintze prozesuak garatu ahala –edota, modu orokorrean, komunitatearen bide nagusiak moldatu ahala–, jarraitutasun sinbolikoaren eraginkortasunaren mugak alda litezkeela gaineratu behar da.

Euskal komunitatearen kasuan, duintze prozesuaren bigarren faseko erakundetzean jarraitutasun sinbolikoaren gailentzea gutitu egin zen, nabarmen, hirugarren kapituluan ikusiko dugun gisa. Batetik, katalizatzaile izateari utzi, eta bai ondarearen, bai kultur eremuko azpideremuen, izaera bereizgarriari lotuagoak ziren garapenak gailentzen joan ziren. Aldaketa horren berri ematen dute bat-bateko bertsolaritzak “Herriarentzat abestetik publikoarentzat abestera: 1980-1998” aroan (Garzia 2012: 76-98) hasiriko bideak eta ELEk, 1975etik aitzina, izaniko garapenak. Bertzetik, komunitatearen ordezkariak sinbolikoa zuen guneak, gune sinbolikoak (5.2.1.b.), nagusitza galdu zuen.

Horiek horrela, logikoa da estaturik gabeko edo estatu barneratzaile batek zantaturiko nazioengan jarraitutasun sinbolikoaren zama gailentzeko aukerak biderkatzea, jarraitutasun mota hori egoera ukatzaileetan diren, edo izan diren, komunitateendako tresna egokia baita. Beraz, jarraitutasun sinbolikoa iraganaren eta orainaren arteko katalizatzaile gisa erabiltzea hagitz baliagarri izan liteke, arrazoiak haraindiko argudiatze nahiz sentipenak sostengatzeko eta indartzeko.

³⁴² Egin kontu euskal literaturaren garapena baldintzatu zuten alderdiei behatzen diegula, tesian zehar, beti ere, errealitate sinbolikoa dugarik ardatz.

³⁴³ Nagusitza horrek, ordea, indarra galdu zuen komunitatearen bigarren mailako beharrak asebate beharra gailendu ahala, hirugarren kapituluan ikusiko denez –jarraitutasun sinbolikoaren laugarren ideia bereizgarriak atxikitzen du halako garapenen probabilitatea–.

Horiek guziak kontuan izanik, euskal komunitateak, 1960tik aitzina, abiatu zuen duintze prozesua lantzen ari ginela, zeraz ohartu gara: iraganarekiko *continuuma* ezartzerakoan, balioztatze sinbolikora jo zela, nabarmen. Bertzela erranda, Balioztatze Prozesu Nagusiaren eragin sinbolikoa ondarearekiko harremanaren baldintzatzaile izan zen.

Hain zuzen ere, euskal komunitateak iraganarekiko lotura ulertze sinbolikoaren baitan abiatu izanak bulkatzaile nagusi bat izan zuen: estatuaren babesik gabeko nazio azpiratua izatea. Horrek bi ondorio izan zituen: batetik, ondarearekiko alienazioa zegoen, beraz, harekiko ezagutza eta bizipena –espazio pribatura, gehienez ere, mugatua zena– urrundua izaki, berreskuratzen hasiriko ondarearen gainean begirada sinbolikoa gailendu izana erraztu zen; bertzetik, hamarkadetan zehar bizitako ukazioak sinbolikotik heldu ziren baliabideen erabilera behartu zuen.

Lehen ondorioari dagokionez, AOK komunitatearen antzinako garaien –kultura eta ondare bateratuaren– sinbolo bihurtu zelarik, herriaren etno-(h)istorien gordeleku gisa atzeman ziren corpus horretan bilduak. Hala, erranek berek baino gehiago, aditzera emanak eta gibleko mezuak zuten indarririk handiena, sarri; iradokiak. Aski garbi da hala gertatu izanaren arrazoibideetarik bat, bederen, testuingurua izan zela: espainiar estatuak bideratzen zuen diktaduraren jasaile izaki, alderdi sinbolikoaren garrantzia handia izan zen. Bertzeak bertze, forma sinboliko partekatuek berezko ezaugarri baitute beren interpretatzea talde baten ulertze partekatutik heldu dela; hortaz, “bertze”, arerio, komun horrekiko aldeak nabarmenduz, partaidetza horretatik kanpoko pertsonendako ezezaguna izatea ulertze horren nondik norakoa. Forma sinbolikoen interpretazio partekatuak taldearen batasuna sendotu egiten zuen, “bertze”ekiko alderatzea azpimarratzen baitzen. Ideia horren gauzapezik nabariena, 60-70etan, AOKren birmoldaketa izan zen; lehenago errana dugun gisa (3.1.), hartan bilduriko corpusak nahiz forma zaharrikuek “bertze”ekiko alderatzea nabarmentzeko balio zuten; Oteizak, *Quosque tandem* liburuan, erraten zuen gisa, “berezko” bizimodu eta agertzeko moduen erakusgarri izan ziren, garaiko komunitatekideendako. Gisa horretan atzeman izana ahalbidetu zuena, ordea, ondare horrekiko alienazioa bera izan zen³⁴⁴.

Bigarren ondorioari dagokionez, aisa ulertzen da estaturik gabeko nazioak iraganarekiko jarraitutasunaren lehen oinarria –berreskuratze garaietan, bederen–

³⁴⁴ Ondare horren erabilera berrizatuak, noski, ondarearekiko erabilia zen begirada sinbolikoa eraldatu egin zuen: hasieran katalizatzaile izaniko oinarri sinbolikoa ondarearen beraren balio intrintsekoen garapenera makurtu zen –oroitu bat-bateko bertsolaritzaz errana (3.1.3., b.2.)–.

jarraitutasun sinbolikoaren baitan harilkatu izana. Historian zehar, zeinahi egoera politiko izana delarik ere, orainaren eta iraganaren arteko segida –beraz, komunitate existentzia– alde sinbolikoak laguntzeak badu saririk: komunitateko kideendako, ukazioa oinarri duten bertzelako argudiatzeak –“arerio komun”arenak, kasu³⁴⁵ baliogabetzen ditu.

Oroitu, erraterako, forma sinbolikoez ari ginela errana: beren oinarrian arrazoiak haraindiko ulertze eta pertzepzioa izaten da. Forma sinboliko batekiko harremana –eta harreman horretan sostengatzen diren ulermen banako nahiz kolektiboak– sinbolo horrek dakarren errealitatea partekatzen dutenen arteko kontsentsua da. Beraz, zentzu horretan, arbitrarioa; forma sinbolikoarenganako hitzarmena kidetasun horren oinarrian da, eta, ondorioz, parte-hartze horretan izan ezean, ez da pertsona(taldea) hitzarmen horrek berekin dakarren sisteman txertatzen. Halatan, sinboloak partekatzea lotura gune den gisa berean, “bertze”ekiko bereiztea azaleratzen da, sinbolo horrenganako akordioa onartzen ez dutenak aparteko gisa atzematen baitira.

Euskal komunitatean –1960-1975 bitartean– gailendu zen jarraitutasun sinbolikoaz erranak laburbilduz, 1975era bitarteko fasean, jarraitutasun mota hori, espresuki, aitzina egiteko tresna izan zela erran liteke. Euskal adierazpide mota oro debekatua izanik³⁴⁶, alde sinbolikoak erran beharrekoak modu subliminalean agertzeko aukera eskaintzen zuen. Horri, gainera, arrazoiak haraindiko sentimendu eta ideien hauspotzaile gisa lagundu izana gaineratu behar:

Txapelketa horietako bat-bateko bertsoetan sakontasun poetiko handiko testuen bila doanak desilusio latza jasango du. Bertsolariei proposatzen zaizkien gaiak gehienbat topiko-arketipikoak dira. Bertsolariak badaki euskaltasunaren baieztatze hutsak, ezkutuena dela ere, bertso saioaren inguruabar ia liturgikoetan (*performancea*), emozio sakona eragingo duela bere entzulerian. Badaki entzulea bat datorrela kristau fedearekin eta balio tradizionalekin: amatasuna, lana, zintzotasuna... (Garzia 2012: 66) (Azpimarra ez da gurea)

Egin kontu ukazio egoerek berekin dakartenez, definizioz, komunitate izanaren ezeztatzea, bi ondorio nagusi izaten dituztela: batetik, erran gisa, komunitatearen iraganarekiko harremana urrundua izatea eta, bertzetik, komunitate iraganarekiko

³⁴⁵ Sarri, izaera sinboliko horrek bihurtzen ditu, kideak ez diren “bertze”endako, erakusgarri baliogabe.

³⁴⁶ Joxerra Garziak debekatze horren islak bertsolaritzaren garapenean izan zuen isla eta eragina biltzen ditu, “Erresistentzia Aroa” izendaturiko garaian: “Euskal sentimenduak garbi adierazteko askatasunik ez dagoenez, gai eta balio tradizionalak, horien artean erlijioa gailentzen dela, ahalbidetzen diote bertsolariari entzuleengan emozio sakonak eragitea bertso soilen bitartez, balio eta erreferentzia horiek aipatze hutsarekin. Txapelketetan ere apenas erabiltzen den lau errimatik gorako bertsoirik” (“Erresistentziako bertsolaritza: 1960-1979”, in 2012: 66).

alienazioa dela eta, berreskuratzeak arrazoiak haraindiko inplikazio emozionalen inbertsio handia eskatzea. Prozesu horretan, oinarri sinbolikoak garrantzia handia du.

Hala, bada, duintze prozesuaren hasieran, bederen, arrazoiak bertzelako arrazoitze nahiz atxikitzeak sustatzen dira. Berreskuratzen den ororen gainean, arrazoiak haraindiko inplikazioa funtsezkoa da, eta oinarri sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du, oinarri kultural bateratuak eta haren ulertze sinbolikoak arrazoiak haraindiko loturak ezartzen baitituzte, kideengan; ondare kulturalaren adierazkortasunak lagundurik, bizipen garaikideen nahiz iraganen sinbolizatzeekin, kasu. Ukatze egoeretan jasaniko ezeztatzeak –fisiko, psikologiko, banako, kolektibo, instituzional eta abarrek– ondorio nagusietarikoak dute komunitatearen iragan berezitua eta horrekiko lotura ofizialki garatu beharra; horien garapen askea, esparru pribatutik hasi eta publikoraino, akuita izaki, horien atxikitze kolektiboaren lehen pausoen eskutik heldu da jarraitutasun sinbolikoaren garrantzia.

4.1.3.a. azpiatalean, lehenik, erakunde gabeziak ELERen balioztatze nagusian izaniko eraginaz aritu gara; segidan, erakunde gabezia hori eta aitzinez hizpide izan dugun kultur eremuaren Balioztatze Prozesu Nagusia bateratuki ulertzen lagundu duen jarraitutasun sinbolikoaz.

Edozein gisatan, literatur eremuak jasaniko balioztatze prozesu berezitua –kultur maila zabaleko Balioztatze Prozesu Nagusiaren isla berezitua zena– osoki agertzeko, ez da nahikoa eragin horri, bakarrik, behatzea. Thompsonengandik abiatuta proposatu dugun egokitze teorikoan aitzinatu gisa (1.4.2., laugarren egokitze teorikoa), bertze bi baldintzatzaile nagusiri erreparatu behar zaie: helburu kolektiboari eta elkarreragin eremu(eta)ko kokapenari. Biak segidan heldu den 4.1.3.b. azpiatalean azalduko ditugu: helburuek ELERen balioztatzean izan zuten eragina, b.1. azpiatalean, eta elkarreragin eremuetako kokapenari dagokiena, b.2.n.

4.1.3.b. Euskal literatura, nazio garapenari nahiz behar kolektiboari atxikia

Aitzineko orrialdeetan ikusitakoaren errepassoa eginda, ideia bat zehaztu beharra sumatu dugu: 1960-1975 bitartean “tesi-literatura”³⁴⁷ akuitu, eta euskal literaturaren askatzea hasi zela pentsa daitekeen arren, hainbat gertakarik egoera hain askea ez zela

³⁴⁷ Hala definitzen zituen Sarasolak gisa honetako lanak: “Helburu baten edo tesis baten serbitzuan dagoen obra” (1971: 63).

agertzen dute. Poliki azalduko dugunez, 1960-1975 bitarteko ELEk komunitate garapenarekiko mendekotasun handia zuen.

Aipatu loturaren garrantzia agertzeko, harremanaren indarra erakusten duen corpora arakatuko dugu. 1960-1975 bitarteko aldizkari biri erreparatuko diegu, zehazki: *Anaitasuna* eta *Zeruko Argiari*. Corpus horren lanketak garaiko ELEren egoera zehazteko aukera emanen du. Batetik, ELEk lortu beharreko askatasuna eragin hagitik zabalaren gauzapean zehatz gisa ulertu ahal izanen dugu (b.1.); bertzetik, literaturaren eta komunitatearen arteko harremana zein elkarreraginaren baitan oinarritua izan zen ulertzen lagunduko digu (b.2.) –harreman horrek azalaraziko du literaturaren askatasun neurria–. Hartara, hirugarren kapituluaren hizpide izanen den bigarren fasearekiko alderatzea nabariago egiten duten ezaugarri berezituak, garaiari egokituak, identifikatzeko lagungarri izanen da corpora (4.3.1.eko b.2. eta c. azpiatalak).

Gainera, 4.1.1. atalean aurkeztu dugun ikuspegi teorikoa osatu ahal izanen dugu; erran nahi baita Thompsonen forma sinbolikoen balioztatze nagusien baldintzatzaile gisa identifikatu zituen hiru aldean azterketa egokitua osatuko dugula. Hala, bada, erakunde gabeziak ELEren balioztatze nagusian izaniko eragina ikusia dugularik (4.1.3., a.1.), bertze bi aldeak aztertuko ditugu b.1. eta b.2. azpiataletan: Thompsonen balioztatze prozesuaren baldintzatzaile gisa aurkezten zituen helburuak eta elkarreragin eremu(eta)ko kokapena(k) (1.4.2., laugarren egokitzea). Hau da, euskal komunitatearen helburuek ELEn zer-nolako eragina izan zuten begiratu, eta harreman horren ondorioz –estatuarekiko harremana gauzatzen zen elkarreragin eremuan– garatu ziren ezaugarri berezituaren islari behatuko diogu.

Gisa horretan, 1960-1975 bitarteko ELE eragin zuen balioztatze prozesuaren hiru alde baldintzatzaileen ideia orokorra emanen dugu, laugarren atalean. Zehazte horiek ELEk garai hartan izan zuen funtzioa komunitatearen garapenaren mende izan zela erakutsiko dute. Hirugarren kapituluaren, harreman horrek zer-nolako segida izan zuen hausnartu beharko dugu.

b.1. Aldizkariak (1960-1975)

Euskal komunitateak aldizkariak izan zituen bere komunitate beharrak agerrarazteko lehen ekimen kolektibo nagusia. Horregatik, 1960-1975 bitarteko

aldizkari nagusietariko bi³⁴⁸ izanen ditugu hizpide: *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*. Aldizkariaren deskribapen orokorra egin ondotik (“Deskribapen nagusia”), bakoitzaren garapen nagusia aztertuko dugu (“Garapen nagusia”). Gisa horretan, hondarreko helburua izanen da hizpidera ekarritako adibideak euskal komunitatearen beharaldien garapenarekin harremanetan azaltzea eta interpretatzea (4.1.3.c.).

b.1.1. Anaitasuna

Anaitasuna aldizkariak fisikoki jasan zuen aldaketarik nabariena atalen egituraketan izan zen³⁴⁹; atalen gutikako finkatzea, hain zuzen, aldizkariaren helduarora³⁵⁰ bitarteko eta ordutik aitzinako garapenaren erakusgarri da.

Hori dela eta, garapen horren adierazgarri gisa, esku artean dugun corpusaren lehen bortsu urteetan (1960-1965) agertu ziren atal zenbaiten datuak bildu ditugu (“Deskribapen nagusia”); “Garapen nagusia” delakoan, aldiz, 1965etik aitzinako helduaroan aldizkariak izan zuen garapena aztertuko dugu, xehekiago.

- **Deskribapen nagusia**

1960-1965 bitarteko corpusari erreparatuta³⁵¹, atalen izaeran eta agerpen moduan sumatzen da urtez urte³⁵² garapen nagusi bat izan zela.

1960: erlijioa

Erljioak aldizkarian zuen garrantzia ikaragarria zen, eta guti ziren, atal gisa, nolabaiteko maiztasun sistematikoz eta izaera koherente bateratua mantenduz, egokitzen ziren idatziak; adibidez, “Dakar aldetik” (68: 5; 74: 4), bertsoei eskainiriko atala (68: 8; 69: 8; 71: 5-8), Kuba solasgai zuten “Cuba” (72: 4-5; 73: 7-8) nahiz “Kubako barriak” (74: 6-7).

³⁴⁸ 60ko hamarkadaren hasieran, *Anaitasuna*, *Goiz-argi* –baserriari buruzkoa–, *Jakin* eta *Zeruko Argia* agertzen dira aldizkari nabarmen gisa.

³⁴⁹ Aldaketa fisiko nabaria izan zen orrialde kopuruena ere: 1967tik aitzina, zortzi orrialde izatetik, hamabi izatera heldu zen –1970eko 194. zenbakira arte–; 195. zenbakitik aitzina, hamasei orrialdeko aldizkaria izan zen.

³⁵⁰ *Anaitasuna* aldizkariaren helduaro gisa identifikatu dugu –beti ere, corpusa 1960-1975 bitartekoa dela jakinik– 1965etik aitzina –eta, bereziki, behin 1966ko urtea hasia zelarik– aldizkariak hautaturiko bidea.

³⁵¹ 1960-1966 bitarteko zenbakien orrialdeak zenbatu gabe dira.

³⁵² Urte bakoitzean agertu ziren adibide gehiago bildu ditugu, B eranskinean (“4.1.3., b.1.1. Deskribapen nagusia (*Anaitasuna*)”).

1961: euskal herriari buruzko informazioa

Erljioak zuen garrantziari HEHko hainbat gairi buruzko informazioa –beti erlijio kristauaren ikuspegitik behatua³⁵³– gaineratu zitzaion arren, artean, atal finko guti ziren, aldizkarian: “or, an, emen” (75: 8; 76: 8), Aita Imanolen txokoa (“Dakar aldetik”, 75: 4-5; 77: 4-5; “Aita Imanol-ek Irlandatik”, 80: 4-5; 81: 4-5; 82: 4-5; “Aita Imanol-ek Paris-etik”, 83: 5-6; “Aita Imanol-ek Bermeotik”, 85: 4-5), “Gertatutakoak”/“Gertakerak”³⁵⁴ (81: 6-7; 82: 8). Zernahi gisaz, nabaria denez, guti horiek aitzinurtean baino aunitzez modu sistematikoagoan agertzen ziren.

1962: gozamenerako idatziak

Erljioaren garrantzia eta euskal herriko kontuak –erlijiozko gaiak lantzeko ziren heinean, kasurik gehienetan³⁵⁵– mantentzeaz gain, astia emateko eta gozamenerako idatzi gisa identifika genitzakeenak, gutinaka bada ere, agertuz joan ziren³⁵⁶. Hala, bada, Aita Imanolen kronikei –“Aita Imanolek Sierra Leonatik” (88: 4-5; 90: 4-5); “Aita Imanol-ek Liverpool-etik” (92: 4-5); “Aita Imanol-ek Irlandatik” (93: 4-5; 94: 4-5)– eta “or, an, emen” atalari (86: 2-3; 88: 3, 5; 89: 8) gaineratu zitzaizen “Buruko-miñak kentzeko” (93: 8; 94: 6-7) atal aski finkoa.

1963: monografikoak

Aldaketa berri nabaria sumatu dugu: gaikako zenbakiak nagusitu ziren, urte honetan, eta, gai horien artean, hiru nagusitu ziren. Batetik, hagitz nabarmen, familia, beti ere erlijio katolikoaren moralaz zipriztinduak ziren idatzietan; beraz, seme-alabei buruzkoei (98: 1; 100: 6; 101: 3) ezkontzaren gaineko “irakaspenak” gaineratu zitzaizkien (106: 2; 107: 3). Bigarrenik, baserriari eskainiriko atalak nabarmendu ziren (97: 3; 99: 6-7). Hirugarrenik, arrantza edo arrantzaleen biziaren ingurukoak (99: 3-4; 100: 7), bereziki nabarmen daitekeelarik 102. zenbakia. Azkenik, Kontzilioaz ariturikoen artean (105: 1-8; 106: 3, 6-7), 105. zenbakia izan zen gai horren inguruan zabaldu aritu zena.

1964: sistematizaziorik gabeko gaiak

Familia eta baserri nahiz arrantzaren gaiak nabariak izan arren, lanarena gaineratu zitzaizen. Aunitz izan ziren seme-alabei (110: 7; 112: 6), ezkontzei (111: 6-7; 113: 2;

³⁵³ Atalik sistematikoenetarikoa, hain zuzen ere, Aita Imanolen kronika biltzen zuena izan zen.

³⁵⁴ Urteko hondarreko zenbakian ez da “Gertatutakoak”/“Gertakerak” atala ageri.

³⁵⁵ “Familia ta Konzilioa” (“Anai Jon Zabalgo” sinadurapean, 1962, 88: 2-3), “Kaleko arriskuak” (“Anai Yon Zabalgo” sinadurapean, 1962, 91: 8).

³⁵⁶ Segidarik gabeko “Zergatik...” (“Txiki” sinadurapean, 92: 6), adibidez.

ezkongai garaiaz, 115: 6; 116: 7-8), baserritarrei (110: 3; 112: 7), arrantzaleei (114: 4; 116: 4-5³⁵⁷) buruzkoak eta lanaz aritzen zirenak (109: 7-8; 110: 8). Baina, hala ere, ez ziren atal finkatueta egituratu.

1965: finkatzea

Bereziki hasi zen aldizkaria atal finkoak eskaintzen. Urte honetan hasi ziren, 1965etik aitzina abiatutako bidean, garrantzia izan zuten norabideen erakusgarri diren atalak, formatuak eta ordena nahiz irekidurak –erlijioaren nagusitasuna akituz–. Ordutik aitzinako bidearen oinarriak agertzen dituzten hiru atal aipa litezke. Batetik, herriaren batasunaren jabekuntza lagundu zuten atalak; “erriz erri” (122. eta 126.-130. zenbaki bitartean) eta gero eta zabaltasun handiagoz hurbildu ziren herri eta geografia guneen informazioa (124: 7), kasu. Bertzetik, fokua euskaltasunaren aurkikuntzan jarria zuen herri-kirolen atala³⁵⁸ (123: 8; 124: 8) edo “Euskalerriko ipuiñak” (124: 6; 125: 6) agertu ziren. Azkenik, munduan zeharreko errealitatea hurbildu zuen “mundua mundu” (130: 6), erraterako.

1966tik aitzina, hausnar-bideak aunitz ireki ziren. Tonua erlijioarekiko hainbertzeko mendekotasunean izatetik askatu egin zen, nabarmen, eta 1965ean zehar agertuz joaniko atalen sistematizatzeko estrategia finkatu zen –bai forma, baita edukien aldetik ere; hau da, aldizkariaren maketazioari gehiago hurbildu, eta edukiak modu ordenatu, baina anitzagoan, agertuz joan ziren–.

Segidan heldu den atalean azalduko dugu aldizkaria argitu egin zela, ideia, eduki eta formaren aldetiko koherentzia aldizkaritzara egokituz.

- **Garapen nagusia**

Anaitasuna aldizkariaren 1960-1975 bitarteko garapenak lau alderdi nagusi izan zituen: batetik, gaien zabalkundea, komunitatearekiko hurbilpena eta kultur sarearen aberastea (“Edukiak, distantzia, aberastasuna”) eta, bertzetik, literatur sorkuntzarekiko harremana (“Sormenezko literatura”). Lau alderdi nagusi horien aitzinamenduak biltzen du aldizkariak, pixkana, izan zuen garapen nagusiaren ibilbidea. Bide hori bi atal

³⁵⁷ Erlijioarekin lotuz, hagitz sarri.

³⁵⁸ Denboraren poderioz, hondarreko orrialde hori bertzelako hausnarketa zientifikoagoetarako gune ere izan zen. Bertze hainbaten artean, Arantxa Urretabizkaiaren “Ekonomia eta historia (3)” (1972, 246: 16) eta J.R. Etxebarriaren “Zientziaren hastapenak: Egipto” (1973, 263: 16) artikulua; “Zientzia” azpiatala ere sarri agertu zen, hondarreko orrialdean (“Olhuts” sinadurapean, “Robotak”, 1973, 248: 16; Txillardegik, “Depresinoen azterketaren ondorioak”, 1973, 254: 16; J.R. Etxebarria, “Erlatibitatearen teoria eta filosofia”, 1973, 260: 16; J.R. Etxebarria, “Atomo erlojuen erantzuna”, 1973, 262: 16).

nagusitan banatu dugu: gaurgero aipatua den 1960-1965 bitarteko epea eta “helduaro” izendatu duguna. Helduaroaren gunea bilduko dugu, preseski, ondoko orrialdeetan. Horretarako, 1965etik aitzina nabarmen aitzinatu ziren alderdiak eta 1970etik aitzina gaineratu zirenak izanen ditugu hizpide. Beraz, agerikoa denez, helduaroan ere azpimuga bat ezarri dugu.

Edukiak, distantzia, aberastasuna

(a) Gaien zabalkundea

Gaien zabalkundeari dagokionez, erlijioaren agerpen anitzetatik³⁵⁹ askatzea izan zen aldaketarik nabariena, baina egia da modu desberdinetan lortu zela askapen hori. Zabaltze horretan, mugari izan ziren nazioarteko gaien hurbiltzea eta alderdi kritikoa³⁶⁰ landu zuten idazle nahiz aldizkari atalak.

Hala, bada, batetik, erlijioaz bertzelako gaien agerrera areagotu egin ziren; erraterako, erlijiotik aldentzen ziren hausnarketa sakonak (Joxe Azurmendi, “Neomarxismoa”, 1967-12, 152. zk.)³⁶¹ eta halako agerkizunen finkatzea –Joseba Ariznabarretaren “Soziologia ta kultura” atala (“Teilagorri” ezizenez, 1969an, 172.-175. zenbakietan)–. Denborarekin, aldizkariaren hasieran agerrezinak ziratekeen artikuluak agertuz joan ziren (Markox Amundarain “laikoa” sinadurapean, “Ez ditut gabonak maitatzen”, 1969, 179: 1).

Bertzetik, munduko errealitatea hizpidera zekarten idazle finkoen eta atalen agerrera lagundu zuen, bereziki, berri horien sistematizazioa eta egonkortasuna; aipagarrienen artean, Rikardo Arregik, 1968an zehar, idatzi zuen “Uste izan” atala (156.-160., 166. eta 168.-169. zenbakietan) eta Joxe Azurmendiren ekarriak. Azken horrenak dira “Alemaniatik” atala (1967-09, 150. zk.)³⁶² eta Jugoslaviako errealitatea hizpide zuten “Yugoslaviako Errealidadea” (1969, 177: 3), “Yugoslavia. Ekonomiazko gorabehera batzuek” (1969, 178: 7) nahiz “Serbiarren hegemonismoa politikan

³⁵⁹ Aitzinatalean aipatu gisa, zeinahi gairen jorratzea erlijio katolikoaren moralara, pentsamendua nahiz mandatuak agertzeko aukera zen.

³⁶⁰ 1971ko “Saioak” atalean, kasu (207., 209., 210., 212. eta 214. zenbakiak).

³⁶¹ Irakurketa ez oztopatzearen, adibide bakarra txertatu dugu, testuan, eta gainerakoak oin-oharretan gehitu ditugu. Goiti aipagai genuen kasurako adibideak: “Poetearen lurrak” (X. Lete, 1969, 175: 7), “Lehen euskal gizona” (Jose Migel Barandiaran, 1972, 237: 1).

³⁶² (1968, 161: 6; 1968, 163: 5)

Yugoslavian” (1969, 179: 8)³⁶³. Zurutuzaren “Mundua mundu” atalak (lehen aldiz, 1966, 131: 4)³⁶⁴, ordea, iraupen laburragoa izan zuen.

Munduan zeharreko berri solteak ere aunitz ugaritu ziren; 68ko iskanbilak hurbiltzen zituzten berriak –Frantziako egoeraren hurbiltzea³⁶⁵ eta “Chile komunismorantz?” (Carlos Santamaria, 1970, 199: 3) modukoak, kasu. Albiste horien egokitzea berri motzek ekarri zuten. Izan ere, horiek erraztu zuten interpretazioa, artean euskaraz irakurtzera guziz ohitua ez zen irakurle multzoarendako; herrialdeei buruzko berri motzak (“Alemanian”-“Frantzian”-“Suezian”, 1968, 154: 5; “Italian”-“USAn”-“Frantzian”, 1968, 159: 8), adibidez.

Zernahi gisaz, atalek³⁶⁶ berek finkatu zuten 1965etik aitzinako helduaroan mugarri izaniko egonkortasuna –aipatu berri diren idazle txokoez gain, noski–.

(b) Komunitatearenganako egokitzapena

Komunitatearenganako egokitzapenari dagokionez, bertze bi alde nagusi sumatzen dira: batetik, irakurleen eskarienganako moldaketa; eta, bertzetik, herriarekiko distantzia murrizteko egin zen egokitzea: beharrezko ziren aldaketak egin izana, herri errealitatea etorkizuneko proiektu batean murgiltzeko.

Lehen aipamenarekin, gaurgero hizpide izan dugun ideietarik bati egiten diogu erreferentzia. Hau da, “Zuek eta gu” gisako ataletan, irakurleek –agertzen zituzten iritzien eraginez– bulkatu zituzten aldaketei: aldarrikatu egiten zen herriagandik hurbilagoko gaien premia, irakurgai errazak agertu beharra, eguneroko arazo eta gertakariei erreferentzia egiten zieten albiste motzen presentzia nabariagoa, eta abar –“Erriko problemak ikusi nai doguz errebista ortan” (aunitzen artean, izenbururik gabe, 1965, 125: 7)–.

³⁶³ 1970ean jarraitu zuen: “Yugoslaviako nazino-izkuntzak” (181: 3), “Yugoslavia 1970: industriako larrialdiak” (184: 3), “Yugoslavia 1970: politikazko desegokitasuna” (189: 3), “Yugoslavia: Tito? Diktadura bat” (190: 3), “Yugoslaviako Alderdi Komunista” (191: 3), “Yugoslaviako Alderdi K. (II)” (192: 3), “Greziako iraultzaren poeta errikoiak” (193: 7), “Non egon behar dau idazleak?” (194: 7) eta “Yugoslaviaren kondaira gogorra” (197: 6). Bertzelako gaiak ere landu zituen Azurmendik, 1970ean: “Batasunaren kutxa” (196: 8), “Soljenizyn idazlea. Sarirako kandidato” (199: 10) –Euskal Herriaz kanpoko errealitatearekin lotua ez zen Nobel sariaz–, “Beste idazle Sobietar bat. Andrei Amalrik” (200: 6), “Hegel” (201: 7) eta “Komunismoaz idatzi” (202: 3).

³⁶⁴ Gainerakoak: 1966ko 132. zenbakia eta 1967ko 143.-145. eta 147.ak. Noizbait, J. Barrutiarekin batera (1967, 156: 3).

³⁶⁵ “Estudianteekin” (egile ezezaguna, 1968, 164: 1, “Baionako Seminarioko «TXANTXIKITIN» aldizkaritik artua”), “Pariseko erreboluziñoa” (Hernandorena, 1968, 164: 6), “Zer diño frantsesak eurak ikasleen mobimenduagaitik?” (*La Vie Catholique* aldizkariko idazleak, 1968, 164: 7), “Pariseko gertaerak direala ta” (Hernandorena, 1968, 165: 7), “Europa, Frantziako maiatzetik urtebetetera” (“Ibar” sinadurapean, 1969, 176: 3).

³⁶⁶ Ibilbide motzeko sail aunitz izan ziren, baina horiek ere bulkada izan ziren garapena aitzinatzeko orduan. Adibidez: “Eguzkialdeko barriak” atala (1968an zehar 165., 166., 169. eta 171. zenbakietan).

Horretarako, espresuki eliz gizonen bertzelako idazleak ere agertu beharra eskatzen zen, hasieran:

Nik konpreniten dot zuek prailleok daukazuena emon bear dozuela, ba iñok eztau emoten eztaukanik. Baiña, ze demontre! eztozue zuek erakurten teoloji edo jaungoikozko gauzak besterik ala? [...] Ortarako nik uste dot erriko gizonak, prakadunak, ez litzakezala txarto etorriko artikulua orrean egille. Olan, errikoak, erriko gauzak esango leukez eta gustorago irakurriko geunke errebista au. (“Mikel” sinadurapean, izenbururik gabe, “Zuek eta gu” atala, 1965, 125: 2)³⁶⁷

Horiek horrela, “herri usaina” zuen aldizkaritzat agertzen zen *Anaitasuna*, hala nahi baitzuen irakurleriak (A. Zubizarreta, “Gernikatik Anaitasunaren zuzendariari: Bakea ta Ona”, 1965, 126: 2). Beraz, komunitatearenganako egokitze ideiarekin, erreferentzia egiten diogu, lehenik, halako eskariak asebetetzeko egin zen egokitzapenari.

Dena den, komunitatearekiko egokitzapenak izan zuen, erran gisa, bigarren alderdi nagusirik: komunitate garapenari loturiko moldaketena, preseski. Egia da sarri agertzen zirela herriaren egunerokotasuna hurbiltzen zuten albiste motzen atalak –“erriz erri”³⁶⁸– edo egoera garaikidea agerrarazten zuten artikulua (egile ezezaguna, “Arratia eskualdearen urigintza”, 1969, 177: 1)³⁶⁹. Gainera, aldizkaria hurbildu egin zitzaion momentuko belaunaldi kinkaren guneetariko bati, indar bulkatzaile nagusietarikoa izan zen gazteriari; idatzi aunitz agertu ziren gaiari buruz (Angel Ugarteburu, “Gaztedia deadarka”, 1966, 136: 5)³⁷⁰.

Gazteek beren iritziak eta hausnarketak espresuki plazaratzeko eskaini ziren guneetarik, “Zutunik”³⁷¹ izan zen beren ahots goititza hobekien agertu zuena. Atal horren lehen agerraldian, ederki azaltzen da zein behar, nahi eta helburuz osatu zuten muina:

Aurrerantzean Bizkaia-ko gazteok –ez bizkaikoak garalako, gazteak garalako baiño– ANAITASUNA aldizkari onek eskeindu deuskuzan orri bi onetan gure kezka adierazoko doguz. Lenegoz itxi eidazu esaten orri onek zergaitik izendatu doguzan “ZUTUNIK” berba onegaz.

³⁶⁷ Hala erantzun zioten, aldizkaritik: “Errazoi asko daukazu zure eskutitz ortan. Alegiñak egingo doguz ba, zuk eta nik eta beste arpidedun guztiak errebista au obeagotuten” (“Gure arpidedunetatik” atalean, 1965, 125: 2).

³⁶⁸ Bigarren orrialdean, 1966ko zenbaki guzietan (131.-142. bitarteko zenbakiak); salbu 138. zenbakian, 2. eta 7. orrialdeetan, eta 139.-140.etan, 2., 10. eta 11. orrialdeetan.

³⁶⁹ “Gure itsasoko aberaskuntza” (S. Larrea, 1970, 189: 8), “Markinako eskualdearen hurigintza dala ta” (“D. Amaitermin” [J.L. Lizundia], 1971, 206: 1, 3).

³⁷⁰ Karmen Ibarren “Gure errietako gaurko gaztediaren egoera” (1967, 144: 9) eta “Gaztedia jakintzaren aurrean” (1967, 146: 8), “Gaztedi berria” (Julen Calzada, 1967, 146: 10), “Gazteak umetzat ez har!” (Karlos Santamaria, 1970, 195: 7), “Gaztediari dei bat” (Morga, 1970, 199: 11)...

³⁷¹ Zenbaki berean: “Anaitasuna aldizkariak gazteoi orrialde bi eskaini deuskuz. Esan leiteke gaztedia arduratzen doiala Bizkaia aldean be” (Angel Ugarteburu, “Gaztediari deia”, 1966, 138: 5).

Gaurko gazteok iñoiz baiño geiago egiaren zain gagozala esan dot. [...] Gura ta konbenidu dana lenengoko planoetan azaldu eta beste illunpean gorde bada ezpadan be iñor konturatu ez daian. Ara or garbi esan da eguneroko ta aldizkari askoren sensazionalismo zantar ori! [...]

[...] egia kantatzeko kaleko gizona, gizarteko artu-emonetatik³⁷² auldu barik urten dauana, au dago –nire ustez– egia kantatzeko erarik onenean. Zergatik? Zer galdu ez daualako. Andiak eta enren [‘euren’] alboan bizi diranak, burgesak, kortesanoak, kaleko gizon ez diranak berba baten, euren dirua, euren puestoa... edo... galduko ete daben beldur egoten dira beti. [...] errealidadea nok ezagutuko dau obetoago kaleko gizonak baiño? [...]

Gizarteko gizonak bananduterik balitz, klase bi oneitan banandu litzakezala pentsatzen nago: gizarteko artu-emonen menpetasunean bizi diranak, batzuk; besteak, oraindik ZUTUNIK dagozan ezkerro, egia eskeiñi ta edozeiñeri kantatzeko prest dagozanak. Oneek errietako kanpatorren lez tinko ta gartsu bizi diranak, oneek bakarrik dagoz gertu egia edonon ta beti esateko. Oraindik ZUTUNIK dagozan oneri, biotzez eta adimenez gazte diran oneri deadar bat egin gura neuskioe orretarako iñor izan ez arren euren bide garratz ortatik jarraitu daien. Ortarako sortuak dira izan be ZUTUNIK deritxoguzan orri bi oneek, naizta egia askotan mingotza izan, kantatu bear danean kantatzeko.

Ara or ZUTUNIK izen onen esan-naia. (J. Legarreta, “Beti egiaren atzetik”, 1966, 138: 4)

1966ko 138.-142. zenbakietan soilik agertu zen atala, ordea; hau da, lau zenbakietan³⁷³ “sistematizatu” zen atalaren agerpena. Ez zen halako gunea gazteendako soilik egokitu; irakurleek beren tokia izan zuten aldizkarian, “Irakurleen eritxia” atalean, adibidez –1968. urtean zeharreko atal nahiko sistematikoa: 155., 157.-164., 166.-167. eta 169.-170. zenbakietan agertua–.

Hortaz, komunitatearekiko egokitasunak irakurleendako txokoak finkatzea ekarri zuen, 1965etik aitzina; irakurleri zabalaz gain, garaiko ahots ernatze nagusietarikoa izan zen gazteriari zehazki egokitua ere. Alabaina, egokitze horrek izan zuen bertzelako ildo zehatzik, komunitatearen etorkizuneko proiektzioa oinarritzea bilatzen zuten atalak. Horien artean, komunitateko kideen elkarrekiko ezagutza eta komunitatearekiko atxikitze nahiz jabekuntza bulkatzen zutenak: “Euskalerriko ipuiñak” (Teri Ibarrolari bildua, 1966, 131: 7)³⁷⁴, “Ezagutu zure erria” (Angel Zelaietak 1967ko 143. zenbakian hasi, eta, 1968an zehar, 166. zenbakira arte³⁷⁵), komunitatean gertatzen ziren gertakariei buruzko albiste bilduma (“Euskaldungoa”³⁷⁶ atala, kasu), euskal idazle klasikoei buruzko informazioa zekarten artikulua (A. Juria, “Juan Antonio Mogel”, 1967, 146: 7)³⁷⁷, eta abar.

³⁷² Herrera hurbildu beharraren garrantzia, gazteek berek besarkatua.

³⁷³ Egin kontu 139. eta 140. zenbakiak batera argitaratu zirela, zenbaki bakarrean.

³⁷⁴ Adibidez, “Eiztaria ta deabrua” (Errose Bustintzak, Jaime Kerexetaren ardurapean, 1966, 132: 7).

³⁷⁵ Ordutik aitzina, euskal kantariei buruzko elkarriketa eta informazioak eskaini ziren, eta, 1969an (173. zenbakitik aitzina), “... ezagutu gure erria” bihurtu zen, J.L. Lizundiaren eskutik.

³⁷⁶ 1970ean hasi –183. zenbakitik 202.era bitarte, 196. zenbakian salbu– eta 1971n nahiz 1972an zehar.

³⁷⁷ “Urkiaga” tar Estepan ‘Lauaxeta’ ” (“Zabale” sinadurapean, 1967-09, 149. zk.), “Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’ ” (“Zeleta” [Juan Garmendia], 1967-12, 152. zk., Labaienen *Orixe-omenaldi* liburuko erranak bilduz), “Kirikiño euskal idazle ospetsua” (Jose Antonio Yurrebaso eta Anizeto Ajuriagojeaskoa, 1968-

Komunitatearen garapen ideia berari lotua, batasunerako deia egiten zuen Torrealdaik:

Baiña ez gara konturatu oraindiño, bakoitza bere aldetik joanik, ez daitekela orretara gaurko munduan aurreratu? Ez jaku, antza, Euskalerrriaren bizitza ardura, geurea baiño. Batasuna dogu bearrezko. Erri lez, gaiñera, bizitzeko baldinkizun, kondiziño, jaku diñogun alkartasun ori.

Ta ain zuzen, orixe da falta jakuna.

Zer gertatzen da ekipoan lanean asteko orduan? Konpondu-eziña, ikusi-eziña, batu-eziña, alkartu-eziña. Au dana, ta geiago. Ara: neiko aldizkari (txiki ta ez ain txiki) dago Euskalerrrian... Batak bestereakin eztauko zer-ikusirik. Ori da egia. Bizkaia emen dago, Gipuzkoa an, Lapurdi arantzago... Ba daukogu alkarren ezagutzerik?” (“Ikusten eta ikasten”, 1967-09, 150. zk.)

Edozein gisatan, jakintza emari hori kulturgileengandik abiatua zen, eta –garaian euskararen batasuna zela eta bizitzen ari zen kinkak larrituta, zenbaitetan– herriaren eta kulturgileen arteko distantzia sobera handia egiten zitzaion *Anaitasuna* aldizkariko irakurleriari. Horregatik, Jose Maria Etxaburuk, 1966an: “Erriagandik ez gara urrun ibilli biar idazliok, baiña ez da bere bide okerrari orpoz orpo jarraitu be” (“Kamiñazpi”, “Euskerea zelan erabilli bear dogu gaur?”, 1966, 132: 4-5)³⁷⁸.

Hortaz, aldizkariaren komunitatearenganako hurbiltze saiakerari erantzuten dion bigarren alderdi hori, irakurleengandik abiatua beharrean, komunitatearen bertze sail nagusietarik bati egokitua izan zen: kulturgileei. Hasieran irakurleengandik heldu ziren eskariak –“herriarenak”– asebate nahi ziren, eta horiek eskaintzea izan zen irakurleen eta aldizkariaren arteko harremanaren muina. Irakurleen eta aldizkariaren arteko egokitzapenaren oinarria, ordea, osatu egin zen, gutika.

Kulturgileak izan ziren –kultur maila “goitiagokoa” laguntzeko atal, idazle eta kritikak hizpidera ekarriaz– abiapuntu, eta irakurleria “goitiagotik” heldu ziren arituekiko egokitu behar izan zen. Bigarren fase hori kulturgileen ekimenetik heldu zen, eta, beraz, herriarendako, aitzindari gisa, bidegile gisa, jokatu zuten kulturgileek: gidari gisa. Hala, bada, herri eta kulturgileak, fase honetan, bederen, banatuak izan zirela sumatu dugu.

Beraz, aldizkariak 1965-1970 bitartean jasan zuen herriarenganako egokitzapenak bi eragile nagusi izan zituen –irakurleak eta kulturgileak–; baina guretako are adierazgarriagoa da aldaketa horrek aditzera ematen diguna. Izan ere, euskal kultur moldaketa nagusiaren baitako aldaketek, momentu batetik aitzina, kulturgileak izan

02-15, 155. zk.), “Orixe. Euskerearekin ezkondu eta euskerearentzat izan zan gizona” (“Zeleta”, 1969, 179: 3).

³⁷⁸ Ideia hori azpimarratzen ez bazuen ere, “Jakintsuak diño” (egile ezezaguna, 1966, 132: 5) artikuluan, kulturgile liratekeen horiekiko desberdintzea ageri da islatua, izenburuan bertan.

zituzten gidari nagusi, eta herriak gidari horiek jorraturiko bideak –kultur maila “gorenetera” ailegatzeko beharrezkotzat sumatu zituztenak–, urrun eta ezezagunagoak, berriagoak, bereganatu zituen.

(c) Kultur sarearen aberastea

Bide horrek *Anaitasuna* aldizkariaren garapenean hirugarren alderdi gisa identifikatu duguna azaltzen du: kultur sarearen aberastea. Kulturgileak gidari nagusi izan zituen aldaketa multzoak ez zituen, jadanik, herriaren ahotsa eta bera dela medioko eskaera zehatzak abiapuntu –nahiz eta kontuan izaten zituen–; aitzitik, kulturgileek herri beharren abstrakzioa egin, eta behar mailak asebetetzeko rola agertu zuten, berauek baitziren komunitatearen etorkizunerako proiektzioa sostengatuko zuten zutarriak osatu, barreiatu eta finkatzeko betebeharra hartu zutenak. Behar horiek asebetetzera heldu dira kultur sarearen aberastea eta, bereziki, garapena helburu izan zuten ahaleginak.

Ekimen horiek euskararen gaia, modu desberdinetan, jorratuz izan zuten, aldizkarian, isla³⁷⁹. 1965-1975 bitartean euskara batua lantzearen aldeko idatziak (Villasante, “Batasunaren arrazoiak”, 1968, 166: 5)³⁸⁰ eta euskara batua landu ahal izateko atalak gero eta nabariagoak izan ziren. Hondarreko lan finkatzaile horren adibide dira *Anaitasunak* hiztegi nahiz aditz lanketari eskainiriko atalak³⁸¹: “Aberastu zure euskerea” (1968-02-15, 155. zk.n, lehen aldiz)³⁸² –zeina 1969an “Ikasi zure izkuntzea” bihurtu zen (1969, 173.-179. zk.)³⁸³– eta “Hiztegia” ataletan eskainiriko laguntzak, nahiz aditza langai zuten atalak –“Adiztegia”, 1970eko 195. zenbakian, bertzeak bertze, orrialdeen behe-itiko aldean txertatua³⁸⁴–. Egin kontu Bizkaia aldean

³⁷⁹ Euskararen batasuna –prozesua nahiz beharrezkotasuna– solasgai zuten artikulu aunitzen artean: “Euskaltzaindiaren agiria euskal berbeeri buruz” (“Kamianazpi”, 1966, 132: 4), Eusebio Urkiaga euskaltzainak sinaturiko “Euskaltzaindiaren deia. Euskal aldizkariaren zuzentzaileei eskaria, idazle batzuen zabarkeriz” idatzia (1967-09, 149. zk.), “Euskerearen batasuna” (“Kamianazpi”, 1968, 160: 4), “Euskaltzaindiaren asmoaz” (San Martin, 1968, 163: 1), “Ta ekin batasunaz” (Kintana, 1969, 175: 1) eta “Euskaltzaindia 1970” (egile ezezaguna, 1970, 193: 1).

³⁸⁰ Edo Xabier Gereñoren “Euskera batu baten alde” gisakoak (1968, 157: 1).

³⁸¹ Atal horiez gain, euskara batuan agertzen hasiriko idatzietan, “Euskara batuan idatzia” oharra gehitu zen –1970. urteko 192. zenbakitik aitzina–.

³⁸² (1968, 156: 11)

³⁸³ (1970: 180.-202. zk.)

³⁸⁴ *Batasunaren kutxa* (1970) liburutiko aditz taulak (Aresti eta Kintana, “Jakin eta Ekin” atalean, 1970, 189: 6-7). 1973-1974 bitartean, aditza dela eta, sarri izan zen hizpide Axular, “Ikas zeure hizkuntza” atalean: “Aditz infinitiboa Axularrengan” (egile ezezaguna, 1974, 273., 274., 275., 278., 279., 280., 281., 283., 286. zk.; 1975, 297., 304. zk.).

nahiko “traumatikoki” bizi izan zela euskara baturako egokitzea, hasieran –agian denok ezagunen dugun kinka nagusietarikoa izan zen “h”aren ingurukoa³⁸⁵–.

Bertzetik, alfabetatzea bulkatzen zuten ideiak gero eta argiago agertu ziren. Alfabetatzea nazio garapenarekiko erlazioan jartzen zuten idatziak argitaratu ziren, adibidez:

Israel naziñoa etzan formatu arduraz gauzak artu barik. Ebreo eraz ia 2.000 urtean etzan iñun be egiten. Baiña gaurko naziño ori formatu ebenak gogoz eta arduraz artu eben euren berbeta ori. [...]

Euskalduntasuna gorde nai ba-dogu, euskerea sendotzen alegindu bearko dogu. Ta ez gaur arte besteeri itxi erazo guzti ori. (“Jesus Mari” sinadurapean, “Euskerea ala erdere”, 1966, 132: 5)

“Alfabetatze kanpaina aurrera eroateko bidea” (Kintana, 1969, 179: 6) eta “Euskal alfabetatzearen mugak” (“Alfabetatzeakook” sinadurapean, “Irakaskintza” atala, 1973, 251: 4)³⁸⁶ gisakoak ere argitaratu ziren, non, irakurleria aitzinera zihoan proiektu partekatu horretan –garapenean– inplikatzeari lortzen zen³⁸⁷. Bide horren ifrentzua euskarari buruzko sobera artikulua agertzea izan liteke, “Euskarari buruz artikulua gehiegi” idatzian, J.L. Aiestaran donostiarrak agertu gisa (1972, 234: 3).

Azkenik, argitaletxeen problematika agertzen zuten artikuluek ere bihurtzen zuten komunitatearen zabala euskal kulturaren berpizte hasmenetan izan ziren zailtasunen jakitun, partaide eta konplize (Kintana, “Euskal editorial gazteez”, 1971, 223: 9).

Sormenezko literatura

Zernahi gisaz, 1965etik aitzina –*Anaitasunaren* helduaroa hasi zenetik aitzina– 1975era arte garatuz joan ziren alderdiak berrikusi ditugun arren, 60ko hamarkadaren akieran eta 1975era bitartean ELERen garapena zertan zen ohartzeko, aldaketa garrantzitsu zehatz bati erreparatu behar zaio. Izan ere, 60ko hamarkadaren akieratik aitzina, literaturaren eta, bereziki, sormenezko literaturaren agerpenak ugari egin zirela ohartu gara.

Hazte hori hiru modutan islatu zen, nagusiki: (a) sormenezko literaturara, nolabait, atxikiak ziren pertsonen idazlanak –literaturari buruzkoak izan zein ez–, (b) lan literarioei buruzko gogoeta nahiz kritikak eta (c) literatur eremuaren norabideei, helburuei nahiz egoerari buruzko hausnarketak. Ondoko orrialdeetan ikusiko dugunez,

³⁸⁵ Eztabaidak zuen eraginaren eta iraupenaren erakusgarri: “Yon Etxaideri, baketsu” (“Amatiño” [Luis Alberto Aranberri], 1970, 188: 6). Bertan, Jon Etxaide Ithartek Etxahunen liburua ezin salduz ibili zela azaldu, eta problematikaren gunea zein zen agertzen du: “H non jarri baino, H bera da auzia”.

³⁸⁶ Alfabetatzearen garrantziaz, Joxe Manuel Odriozolaren “Euskal alfabetatzea zertarako?” (1973, 262: 4).

³⁸⁷ Eusebio Osaren “Helburu hurbila eta azken helburua elkarrekin joan behar” artikuluan (“Euskaldundu eta askatu” atala, 1972, 230: 6), alfabetatzearen izaera “osatua” ageri da, kasu.

finkatuak ziren ataletan agertu ziren, hein batean: “Liburua(k)”, “Literatura”, “Literatura eta gizartea historian” eta “Kritika” atalek, nagusiki, bildu zituzten garaiko literaturaren isla horiek³⁸⁸.

(a) Sormenezko literaturara, nolabait, atxikiak ziren pertsonen idazlanak

Beraz, batetik, idazle gisa ezagunak zirenen idatziak ugaritu ziren, edo, hobe erran, agerpenak finkatu ziren. Bertze aunitzen artean, Xabier Gereño³⁸⁹, Txillardegi [Jose Luis Álvarez Enparantza] eta Gabriel Aresti iraunkorrek izan ziren, eta, gutiagotan, Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi³⁹⁰ eta Xabier Lete³⁹¹, adibidez.

Segidan, hiru idazle³⁹² aipatuko ditugun arren, gehiago izan ziren bitarte honetan parte hartu zutenak; zernahi gisaz, *Anaitasunak* 1970-1975 bitarteko ELeren garapenean izan zuen partaidetza agertzeko hagitz egokiak dira.

- Jose Luis Álvarez Enparantzak, “Larresoro” ezizenez: “Nazio kultura ta hizkuntza arriskuan” (“Mundu biribila” atala, 1970, 200: 7), “Argiago ala ilunago” (1970, 201: 3), “Aurrekoetxeari eta Anatsani erantzunez” (1971, 218: 9).

Euskal literatura berriztatu zuen belaunaldiko kide, modernizazioa ekarri zuen bere lanekin, eta, gainera, belaunaldi gazteenarekin aritu zen (ikus “Gazte naiz” atalean izaniko agerpenak).

- Gabriel Arestik argitaratu zituen aunitzen artean: “Poetei emandako pagua” (1970, 190: 6), “Bi aste honetako liburua. Larresoro: Sustrai bila: Irakur Sail” (1970, 194: 6), “Joan Mirande: Haur besoetakoa. Lur” (“Arestiar”³⁹³, 1970, 195: 10).

Arestik euskal literaturari eskainiko zizkion sorkuntza lanez gain, momentuko gai eta eztabaida nagusietan parte hartu zuen³⁹⁴. Idazle belaunaldi berriarendako erreferentzia nagusia bihurtu zen. Aldizkariari egonkortasuna eta “aldizkari izpiritua”

³⁸⁸ Atal horietan agertu eta tesirako garrantzitsuak diren artikuluen zerrenda, atalka antolatua, B eranskinean bildu dugu (“4.1.3., b.1.1. Garapen nagusia (*Anaitasuna*)”, “Atalkako antolaketa”).

³⁸⁹ Gereñok aunitz idatzi zuen, 1971an abiatutako “Neure lantokitik/lantegitik” (223. zenbakitik aitzina) atal finkoan, adibidez.

³⁹⁰ “ ‘Asfixiatzen duen kultura’ ” (“Mundu biribila” atalean, 1970, 195: 6), “Nahigabeen alegia” (zuzendaritzak hautatako testua, 1971, 204: 1).

³⁹¹ “Poetearen lurak” (“Jakín eta Ekin” atala, 1969, 175: 7).

³⁹² Txillardegi eta Arestiren adibide zerrenda aunitzez luzeagoa denez, B eranskinean bildu ditugu gainerako erreferentziak (“4.1.3., b.1.1. Garapen nagusia (*Anaitasuna*)”, “Sormenezko literaturara, nolabait, atxikiak ziren pertsonen idazlanak” azpiatala). Aldiz, Urretabizkaiarenak gutiago direnez, testu nagusian bildu ditugu guziak.

³⁹³ “Arestiar” ezizena sarri erabiltzen zuen Gabriel Arestik.

³⁹⁴ Arestiren jakintzaz: “Gabriel Arestiren ‘Bernat Etxepare’ idazlanari buruz ohar bi” (K. Agirre, “Irakurleak idazle” atala, 1971, 214: 12).

eman zioten atal aunitzetan parte hartu zuen; zenbaitetan, ordea, “Bi aste honetako liburua(k)”³⁹⁵ atalarekin gertatu gisa, denbora guti iraun zuten agerpen horiek.

- Arantxa Urretabizkaiak: 1972ko “Arantza Urretavizcaya” elkarrizketaren (Haranburu-Altuna, 1972, 238: 8-9) ondotik, urte berean, hiru idatzi argitaratu zituen, “Ekonomia eta historia” atalean: “Produktu beharrezkoa” argitaratu zen, 243. zenbakian (13. or.), eta, 245.-246. zenbakietan, “Lanaren berezkuntza sozialaren hasiera” (3. or.) eta “Neolitiko garaiko iraultza” (16. or.), hurrenez hurren.

Kurioski, Saizarbitoriak *Zeruko Argian* argitaratu zituen lehen idatzietan bezala³⁹⁶, Urretabizkaiak ez zuen literaturarekin zerikusia zuen gairik landu, aldizkarian argitaratu zituen lehen idatzietan. Aitzitik, bere hiru artikuluak argitaratu aitzinetik, hain justu, Luis Haranburu-Altunak egin zion elkarrizketan, literaturaz egiten zuen solas. Belaunaldi gazteeneko kide izan zen, eta ELS garaikidean erreferentziazko idazle bihurtu da, gainera.

(b) Literatur lanak

Bertzetik, 1970etik aitzina, literatur lanei buruzko artikuluak aunitz ugaritu zirela sumatzen da. Euskal literaturaren ikuspegi nagusia osatuz –eta eskainiz– joan ziren *Anaitasunan* parte hartzen zuten idazleak, bai idazle klasikoen ezagutza (“Arestiar”, “Etxeberri Ziburukoa: Noelak”, “Liburu-kritika” atala, 1971, 206: 12)³⁹⁷–, bai idazle garaikideen ekarriak, hurbilduz (“ ‘Isturitzetik Tolosan barru’ liburua”, “Mundu biribila” atala, 1970, 201: 6)³⁹⁸.

Gainera, literatur lan unibertsalei buruzko idatziak ere ugaritu egin ziren, ELE itzulpengintzan, espresuki, ematen ari zen pauso garrantzitsuen erakusgarri (Xabier Amuriza, “Bai mundu berria”, “Liburua” atala, 1971, 225: 23, Amurizak eginiko

³⁹⁵ Lehen agerraldian atal izan gabe, bertze bietan, bai: “Bi aste honetako liburua. Larresoro: SUSTRAI BILA: Irakur Sail” (“Jakin eta ekin” atala, 1970, 194: 6), “Joan Mirande: HAUR BESOETAKOA. Lur” (“Bi aste honetako liburua” atala, 1970, 195: 10), “José de Arteche: El abrazo de los muertos. Itxaropena” (“Bi aste honetako liburuak” atala, 1970, 198: 9).

³⁹⁶ 1963an bertan agerturiko “Erdozia’tar Peli’rekin Izketaldia” idatzia (“Saizarbitori’tar Erramon” sinadurapean, 14: 5) edo “Kirolak” ataleko “Kirola munduan” txokoan idatzi zituenak (erraterako: “Erramon Saiazarbitoria tar” sinadurapean, 1965, 118: 9).

³⁹⁷ Edota Arestik berak, 1971n, idatziriko “Bernat Etxapare (XVI mendekoa)” (211: 8-9) eta “ ‘Asaba zaharren baratza’ - Lizardi (I)” (216: 8-9), adibidez.

³⁹⁸ Erraterako, Luis Haranburu-Altunaren “Gabriel Arestiren Harriak (Lehen Parte)” (“Literatura” atala, 1971, 221: 8-9) eta “Gabriel Arestiren Harriak. (Bigarren parte)” (“Kritika” atala, 1971, 223: 6); Txillardegiren “Xabier Kintanaren azken liburuaz” (“Larresoro”, “Kritika” atala, 1971, 222: 10-11) eta San Martinen “X. Kintanaren ‘Behin batean’ ” (“Kritika” atala, 1972, 238: 7).

hitzaurrearen laburpena)³⁹⁹. Munduan zeharreko idazleei buruzko idatziak ugarituz joan ziren (Azurmendi, “Beste idazle Sobietar bat. Andrei Amalrik”, 1970, 200: 6)⁴⁰⁰ eta “Kritika” edo “Liburua(k)” atalek halako testuen egonkortasuna lagundu zuten.

Literatura eta liburuei buruzko informazio aunitz plazaratu zen, urte hauetan (Gereño, Haranburu-Altuna eta San Martin, “Ibon Sarasola: Euskal Literaturaren Historia”, “Liburu bat, hiru iritzi” atala, 1971, 217: 16, 10-11)⁴⁰¹.

(c) Literatur eremuaren norabideei buruzko hausnarketak

Azkenik, literaturak, 70eko hamarkadan, irabaziriko garrantzia erakusten duen hondarreko erakusgarria hausnarketa saioak izan ziren. Ugariak izan ziren ELEren informazio nagusia⁴⁰², zabala, eskaini –literatur lanei buruzko hausnarketak eta kulturgileen erranak⁴⁰³ bilduz, erraterako–; eremuaren bidea, norabide garaikideak, argitzen saiatu (Josu Torre, “Lur editoriala”, “Liburuak” atala, 1973, 249: 9)⁴⁰⁴; eta eremuko partaideen arteko konfliktuez –“Ez nator bat” (1970, 192: 7), non, *Anaitasuna* aldizkariaren barne-iskanbidez aritzen zen Imanol Laspiur– ziharduten lanak.

Juan San Martinen urtez urteko liburuen bilketa (“1969-ko Euzkerazko Liburuak”, “Jakin eta Ekin” atala, 1970, 182: 6)⁴⁰⁵ eta literatur norabideen oinarriei buruzko

³⁹⁹ “Bai mundu berria (lehen parte)” (Haranburu-Altuna, “Kritika” atala, 1972, 235: 10), “ ‘Bat bitan banatzen da’ liburuaren tesi politikoa” (Manolo Pagola, 1975, 303: 12-13, Andoni Iralak idatzitako liburuaren itzulpena goiraipatzen da).

⁴⁰⁰ “Liburu berria ‘Lau gartzelak’ ” (Kintana, 1971, 211: 10), “Aldous Huxley-ren «Brave new world» nobelaren itzulpenari buruz” (Amuriza, 1971, 217: 6-7), “Ideia batzuk W. Benjamin idazleari buruz” (Amaia Lasa, “Literatura” atala, 1971, 224: 6), “Bai mundu berria (bigarren parte)” (Haranburu-Altuna, “Kritika” atala, 1972, 236: 10).

⁴⁰¹ Aunitzen artean: “ ‘Umeen deia’ liburua” (“A. Apat-Etxebarne” [Aingeru Irigarai], 1971, 214: 14), “Physikazko lehen euskal liburua” (J.R. Etxebarria, “Irakaskintza” atala, 1973, 253: 16), “Jose Lasaren azken liburua” (Jon Urrujolegi, 1974, 271: 10, *Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vascuence: Las Ikastolas y otros propósitos* liburuari buruz), “ ‘Euskara Batua zertan den’ liburuaz” (Kintana, 1974, 273: 10), “Liburu berriak” (Gereño, 1974, 282: 14-15).

⁴⁰² “Pundu batzuk argitzen. Gipuzkoaren ekonomia eta XVIII. Mendeko literatura” (San Martin, “Literatura” atala, 1971, 219: 8-9), “Literatur Sariak” (egile ezezaguna, 1974, 273: 2).

⁴⁰³ “Euskal liburuak plazan” (Josu Torrek Varelari eginiko elkarrizketa, “Elkar hizketa” atala, 1972, 232: 16, 14), “ ‘Marx eta Nazioa’ liburuaren inguruan. Gotzon Garaterekin hizketan” (Hormaetxe, 1972, 230: 8-9), “Ukroniaren inguruan. Xabier Kintanarekin elkar hizketa” (Gereño, “Liburuak” atala, 1972, 241: 8-10).

⁴⁰⁴ “Euskal erdal liburuak” (“Trauko” [Xabier Kintana], “Kultur saiakerak” atala, 1971, 204: 10), “Euskal literaturari ere txokotxo bat eskaintzen zaio” (“Egurentarra” sinadurapean, 1971, 214: 3), “Bertsolaritzaz pentsatzen” (Atxaga, “Ahozko literatura” atala, 1972, 234: 16). Euskal kulturari buruzko hausnarketa zabalak agertu ziren, 288. zenbakian –“Euskal liburugintza 1974 (2)” (Mendiguren Bereziartu, “Hementxe denok. Euskal Herria” atala, 1974: 5), adibidez–. “Noizko euskal literaturari aldizkaria?” (“Perugorria” sinadurapean, 1974, 270: 4), “Liburu Azoka 1975” (“Joan Altzibar”, 1975, 306: 16).

⁴⁰⁵ “1970. urtean euzkeraz argitaratutako liburuak” (“Literatura” atala, 1971, 204: 8-9), “1971. urteko euskarazko liburuak” (1972, 230: 1, 4), “1972. urteko euskarazko liburuak” (1973, 249: 1-2) eta “Euskal liburugintza 1974 (1)” (“Hementxe denok. Euskal Herria” atala, 1974, 288: 4-5) artikuluetan bildu zituen J. San Martinek liburuen erreferentziak.

hausnarketak islatzen zituzten idatziak aipa litezke; azken horietako adibide garbia dira, adibidez, literatur tradizioaz agerturikoak (Kintana, “Literatur tradizio baten bila”, 1970, 189: 1)⁴⁰⁶.

Anaitasuna aldizkaria arakatu ondotik, ideia bat ageri da, argien: 1960-1975 bitartean jasaniko garapenak euskal gizartearen aldaketa izan zuen motore nagusi, eta, beraz, aldizkarian moldatu ziren ezaugarriak –aldizkariaren garapena bera baldintzatu zutenak– euskal gizartean bertan gertatzen ari zirenen isla izan ziren. Hala, bada, hasieretako gaiak soilik baserria eta erlijioa izatetik, euskaldunen bizi aldaketetara gehiago hurbiltzen ziren gaietara hurbilduz joan zen aldizkaria.

Laburbilduz, euskal gizartearen beharretara moldatu zen aldizkaria dugu *Anaitasuna*. Hori dela eta, ezin aproposagoa iduritu zaigu beharren eta moldatzearen arteko harreman hori nola garatu zen, azpiatal honetan, xeheki, erreparatzea. Hartara, euskal gizartearen behar mailak sortuz joan zirela sumatzeaz gain, garapen horren isla hausnartzeko aukera izanen dugu.

b.1.2. Zeruko Argia

Zeruko Argiari dagokion azpiatala, *Anaitasunarekin* egin gisa, bi zatitan banatu dugu: deskribapena eta garapena. Gisa horretan, forma, ordena eta edukiari buruzko ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu.

Aldizkariaren bidean, aldaketa nagusietariko batek emanen digu *Zeruko Argian* barnako azterketaren hari nagusia: mugarri gisa “Gazte naiz” atala harturik, aldizkariak 1975-1990 bitartean izaniko bidea marraztuko dugu. Muga horrek, batetik, aitzinez *Anaitasuna* dela eta erranak alderatzen lagunduko du, eta, bertzetik, espresuki aztergai dugun ELEko aldaketa garrantzitsuak nabarmentzeko baliagarria izanen da.

- **Deskribapen nagusia**

Zeruko Argiaren 1963-1975⁴⁰⁷ bitarteko bide nagusia agerrarazten duten alderdi formal nabarmenei erreparatuko diegu; horretarako, “Gazte naiz” azaldu bitartean

⁴⁰⁶ “Euskal Literaturan behar duguna” (Gereño, “Jakin eta Ekin” atala, 1970, 192: 7), “ ‘Papillon’ literatura” (Azurmendi, 1970, 192: 1).

⁴⁰⁷ *Zeruko Argiak* 1963an abiatu zuen fase berria, beraz, 1963-1975 bitarteari erreparatuko diegu.

(1963ko 1. zenbakitik 1965eko 119.era arte) aldizkariak bildu zituen ezaugarriez arituko gara⁴⁰⁸.

Aldizkariak *Anaitasuna* dela eta zehazturikoez bertzelako ezaugarriak izan zituen –corpusa osatzen duen lehen urtetik beretik–, eta horietarik hiru dira, guretako, aipagarrien: atalkatzea, sistematizazioa eta, horren baitan, bertze aldizkariak espresuki landu gabeko atalen finkatzea. Alderdi horietariko bakoitzak aldizkariaren norabide nagusiren bat agerrarazi, eta aldizkariaren nortasun berezia islatzen du: aldizkariaren atalkatzea hasieratikoa izan bazen ere, poliki-poliki, espezializatuz joan zen, eta sistematizazioak egitura sendotu zuen; gainera, izaera bereziaren erakusgarri ziren interes guneek, atal finko bihurtuko zirenek –guk antzerkia izanen dugu aipagai–, *Zeruko Argiaren* bide banakoa nabarmentzen dute.

1963: atal sistematikoak

1963ko lehen zenbakitik sumatzen da aldizkariak garbi bereizten zituela atalak; gehiago dena, atal aunitzen sistematizazioa hasiera-hasieratikoa izan zen. Zenbaki aunitz, eta are atal gehiago, arakatu ditugun arren, “Nere bordatxotik”, “Eusko jolasen txokoa” eta “Nazio-arteko unea” izanen ditugu solasgai. Atal horiek aldizkariaren garapen bidea islatzen dute; hortaz, espresuki hautatu ditugu, prozesu nasaiaren erakusgarri gisa.

“Nere bordatxotik”, Basarri⁴⁰⁹

Batetik, *Zeruko Argiak* euskal ondarearen berreskuratzean guneko izan zen bertso mundua bildu zuen, “Nere bordatxotik” txokoan. Basarri bertsolariak idatzia, euskal ondare kulturalaren inguruko nahiz bertzelako gaiak agertzen zituen, hasieran; lehen agerpenean, kasu, bertsolaritzaz gain, “aizkolartza” eta idi-probak izan zituen solasgai (5: 5). Baina, hala ere, bertsolaritza hagitz presente izan zuen, noski (“«Pello Errota»”, 7: 5)⁴¹⁰.

⁴⁰⁸ Garaiko errepresioa ere jasan zuten, bertan aritu zirenek: “Debekuaren mehatxua ere ez zen urruti ibiliko. // Gogoratzen dut Santo Tomas egunean aldizkaria saltzera joanda atxilotu egin gintuztela. Bi harrapatu gintuzten, Tomas Arozena eta ni. Galdezka aritu zitzaizkigun, zer zen banatzen ari ginen hori-eta. Hamazazpi urte izango genituen” (Rafa Eguigureni eginiko elkarrizketa, Euskal Idazleen Elkartearen, EIE, webgunea).

⁴⁰⁹ Atalean agertu ziren edukien eta erreferentzien laburpena B eranskinean bildu dugu (“4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)”, “‘Nire bordatxotik’ atalaren erreferentzia eta edukien laburpena (1963)” azpiatala).

⁴¹⁰ Txirritari (J.M. Lujanbio) buruz (“Txirrita’ren omenez”, 12: 5), Xenpelarri buruz (“‘Xenpelar Bertsolaria’”, 14: 5), Bilintxi (G.J. Indalezio Bizkarrondo) buruz (“‘Bilintx’ bertsolaria”, 15: 5), bertsolaritzaz (20: 5; 1963, 22: 5), Manuel Lasarte bertsolariaz (21: 5), “Bertsolaritzari buruz” izenburupean (32: 5; 33: 5; 34: 5) eta bertsolaritzaz, orokorrean (36: 5; 38: 6; 39: 6).

Idatzi horiek aldizkariaren garapenarekiko koherentea zen kokagunean agertzen ziren: “Kirolak” atalean hasi ziren, eta, 38. zenbakitik aitzina, “Ikusmirak. Eguneroko gaietatik” delakoan. Hasmenta garaiak izaki, atal nagusi bakoitzaren espezializazioa lausoa zen; aitzina egin ahala, ordea, lehen zenbakitik, sistematikoki, agerturiko “Euskal errietatik”, “Erriak eta gizonak”, “Ikusmirak. Eguneroko gaietatik” eta “Kirolak” atal zabaletako edukia berezitzen joan zen.

Azkenik, aipagarria da “Nire bordatxotik” txokoa modu desberdinetan agertu zela gaurkotasanari lotua. Orduko euskal komunitatearen errealitateari erreferentzia egiten zioten idatziez gain, momentuan euskal kulturako bulkatzaile garrantzitsuekin kinkak izan zituen Basarrik. Horien artean, ezagunena, Arestirekin izana⁴¹¹.

“Eusko jolasen txokoa”, Guillermo Etxeberria

Bertzetik, Guillermo Etxeberriak abian jarritako “Eusko jolasen txokoa” aipatu nahiko genuke; izan ere, txoko horretan bilduek ekarri baitzuten euskal ondare kultural arrotzuen hurbiltzea, irakurle aunitzendako.

Lehen aldiz, 38. zenbakian agertu zen atala (7. or.); hain zuzen, Basarrik “Kirolak” atal nagusia utzi, eta “Ikusmirak. Eguneroko gaietatik” delakoa hartu zuenean. Orduan hasi zen bertsolaria kirolaz bertzelako gaietan lerratzen, eta, Etxeberriaren txokoan, Basarrik –aitzinez– sarri xamar hizpide zituen “euskal jolasak” landu zituen. Txokoaren lehen agerraldian aipatu zituen –bertzetan solasgai izan zituen aizkolari eta harri-jasotzaileez gain– bertsolariak. Idazki hartan agertu zuen “jolas” horiek, ordura arte atzendu xamarak izanagatik, goititze bideetan zirela: “Itz bitan, Eusko-jolas eta joerak goratzen eta indartzen ari dira berriro. Nik, ala uste beintzat. Gure esku dago, oni eustea” (38: 7).

Ondotik heldu ziren idatzietan, aurkezpenean aipaturikoak izan zituen solasgai⁴¹² (38.-44. zenbaki bitartean). Batetik, kirolen berri eman zuen: korrikalari (39: 7) eta harri-jasotzaileei (40: 7) buruzkoak. Bertzetik, jai garrantzitsuetan biltzen ziren arituak ere izan zituen solasgai: aizkolariez gain, Madrilen eginiko euskal-jaija edo San Tomas jaiak –bertako “eusko-jolas” nahiz antzerkiak– (41: 7) eta, idi-apustu edo aizkolariez gain, San Tomasak berriz ere hizpide zituen idatzia (43: 9). Gainera, jardueren egutegia, etortzeko ziren ekitaldien aitzinjakinarazpena, egiten zuen –adibidez, abenduan,

⁴¹¹ “Basarri bertsolariari” (Aresti, 38: 4), “Gabriel Aresti jaunari” (Basarri, “Nere bordatxotik” atala, 40: 6), “Nire ofcinatik Basarri bertsolariari” (Aresti, 43: 4), “Nire ofcinatik (Jarraipena) Basarri bertsolariari” (Aresti, 44: 4).

⁴¹² Bertsolariak, ez, ordea. Horien ardura Basarrik hartu zuela iduri du.

Tolosan, izanen ziren ekitaldien berri emanez (43: 9)–, eta, urteko hondarreko zenbakian, kronika gisara aurkeztu zuen aizkora-apustu batean gertatua (44: 7).

Halatan, kirol horiek jasaniko aldaketaren berri ematen du; ezezagunxeak izateari utzita, gero eta ezagunagoak izatera eman zuten jauzia.

“Nazio-arteko unea”, Rikardo Arregi

Akitzeko, munduan zeharreko albiste nagusien berri ematen zuen “Nazio-arteko unea” ahotan hartu behar, ezinbertzean. Atal honek eskuragarri jartzen zuen irakurleriarendako estatu mugez haraindi zen errealitate politiko-ekonomiko-sozial nagusia. Rikardo Arregi izan zen, 34. zenbakitik aitzina –1963an hamaika idatzi guzira; urte akiera bitarte argitaratu zen zenbaki bakoitzeko bana–, testu motz eta bizietan, munduan zeharreko albisteen berri, bere txoko finkatutik, eskaintzen lehena –1964a hizpide dugularik ikusiko denez, bertze hainbatek ere parte hartu zuten, txoko berean–.

Idatzi horietan agertu ziren lehen zortzi artikulua izenbururik gabeak ziren, baina 42., 43. eta 44. zenbakietan jarririkoek ongi biltzen dute informazioa nongo lurraldeez eta zeri buruzkoa zen: “Demokrazia Italia’n eta Venezuela’n” (42: 5), “Kenya-ren askatasuna” (43: 5) eta “Bolivia’ko gora berak” (44: 5)⁴¹³.

1964: atalen berezitzea

1964ari dagokionez, 1963an finkatzen hasiriko bideari jarraitu zion aldizkariak; aitzinez sistematizaturiko atalek eta aldizkariaren nortasun bereizia islatzen zuten gaien agerrera noizbehinkakoek jarraipena izan zuten. Batetik, “Nere bordatxotik”, “Eusko jolasen txokoa” eta “Nazio-arteko unea” sistematikoki agertu ziren⁴¹⁴. Bertzetik, ordea, *Zeruko Argia* aldizkariaren interes berezituak agerrarazten zituzten bertzelako atalak gaineratu zitzaizkien; erraterako, zinemari edo antzerkiari⁴¹⁵, espresuki, eskainirikoa.

Egia da aldizkariak antzerkiaren inguruko informazio eta albisteak bildu zituela, 1963ko zenbakietan zehar; baina, 1964an, sistematikoagoa izatearen alde egin zuen.

⁴¹³ Gainerakoak: 34: 3; 35: 5; 36: 3; 37: 5; 38: 5; 39: 5; 40: 5; 41: 5.

⁴¹⁴ Egonkortasun horren erakusgarri gisa, “Nazio-arteko unea” atalaren 1964an zeharreko erreferentzia guztiak bildu ditugu B eranskinean (“4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)”, “‘Nazio-arteko unea’ atalaren erreferentziak (1964)” azpiatala).

⁴¹⁵ “Ikusketa” atalaren lehen agerraldian: “Luzaroan itxoegin deguna iritxi degu. Ta nola ez, gure izkuntzan era bat, kanpoko eta barrengo, teatro-zine goraberak ikuskatu? [...] Asmoa ; [sic] gure teatro ta besteen zine gayak aztertu” (Tolaretxipi, 1963, 7: 6). Erreferentziak B eranskinean dira, eskuragarri (“4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)”, “‘Ikusketa’ atalaren erreferentziak (1964)” azpiatala).

Hasieran, kokagune askean⁴¹⁶ agertu arren, gero eta finkoagoa izan zen antzerkiari eskainiriko tokia. Xabier Tolaretxipik, Antonio Maria Labaienek eta Iñaki Beobidek –nahiz bertzeren batek, gutiagotan– argitaratzen zituzten artikulua libreak egileen konstantziak finkatzen zituen gisa, “Antzerki txokoa”⁴¹⁷ atalak aunitz lagundu zuen, tinkatze horretan.

1965: mugarrria

1965ean, “Gazte naiz” atalaren agerpena ezarri dugu aldizkariaren ibilbide nagusian mugarri lanak egin zituen aldaketa modura. Edozein gisatan, orain arte 1963-1964 bitartean erranak bide bera jarraitu zuen; horren erakusgarri dira atalek mantenduriko finkatzea; “Nazio-arteko unea”rena eta “Antzerki Txokoa”rena, kasu⁴¹⁸.

Beraz, 1963tik “Gazte naiz” atala agertu bitarteko bidean, atalen espezializazio eta sistematizazioa aski finkoak zirela ikusi dugu. Egituraren aldetik egonkorra izan arren, gainera, aldizkariak hainbat gai bereziki lantzeko aukera eskaini zuela ikusi dugu, eta horiek osatu zuten, preseski, *Zeruko Argiaren* alde berezietarik bat.

• Garapen nagusia

Zeruko Argia aldizkariak literatur eremuaren garapena ulertzeko hainbat gako ematen ditu. Hori dela eta, 1963-1965 bitarteko deskribapen nagusia egingo dugularik, fokua EL Eren garapenerako bereziki garrantzitsu izan ziren alderdi horietan jarriko dugu. 1963-1965 bitarteko atalkatzeak, sistematizazioak eta gaien lanketa zehatzak ematen dute aldizkariak, 1975era bitartean, izan zuen izaera formalaren berri; segidan aipatuko direnek, aldiz, edukiei dagokien garapena agertuko dute: atal honetan aztergai nagusi den EL Eren garapenaren berri, zehazki.

⁴¹⁶ Erreferentziak B eranskinean dira, eskuragarri (“4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)”, “Antzerkiari buruzko idatziak, kokagune askean (1964)” azpiatala).

⁴¹⁷ “Teatro/Antzerki-Txokoa” delakoan agertu ziren artikulua izenbururik gabe argitaratu zirenez, artikuluen lehen hitzak jarri ditugu, erreferentzia gisa. Adibidez, Beobideren “Zorioneko da Euskal-Antzerki...” (64: 6), “Aurrez genion bezela...” (74: 7), “Gure txokorik gabe...” (79: 7), “Datorren illaren...” (81: 7), “Agonaren 20an...” (84: 7), “Ill onen 12’an...” (87: 7), “Azkeneko aldi...” (91: 7), “Bete betean...” (94: 6) edo sinadurarik gabeko “Ondarrua’ko jaietan...” (69: 1). Urte berean, bertze atal-izenburu zenbait ere argitaratu ziren, modu solteagoan; adibidez, “Euskal-teatroa” (“Ibalan” [Antonio Maria Labaien], “Iru-alaba”, 58: 4), “Gure teatro gaiz” (Tolaretxipi, “Labayen jaunak, gure galderari erantzun dio” 78 [77. zenbakiz ageri da, gaizki zenbaturik]: 4) eta “Teatro gaiak” (Augustin Zubikarai, “Nire tanbutxutik zelataka”, 71: 6).

⁴¹⁸ Azpimarratu ditugun alderdien erakusgarri biren lagina, “Gazte naiz” agertu bitartekoa, bildu dugu B eranskinean (“4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)”, “‘Gazte naiz’ agertu bitarteko ‘Nazio-arteko unea’ atalaren erreferentziak (1965)” azpiatala) eta “Antzerki Txokoa” (“‘Gazte naiz’ agertu bitarteko ‘Antzerki Txokoa’ atalaren erreferentziak (1965)” azpiatala) delakoena.

Horretarako, garaiko belaunaldi gazteenaren trebagune izaniko “Gazte naiz” atalari behatuko diogu: (a) atalaren oinarriak laburtu, eta (b) horiek garaiko kinka nagusiekin nola bateratu ziren. Bertan biltzen dira garaiko ELEren behar oinarrizkoak, garapen funtsezkoa eta ekimen nagusiak.

(a) Oinarriak

“Gazte naiz” atalaren hasieran, hamabigarren agerraldira bitarte⁴¹⁹, banakoek osaturiko artikulua idatzi ziren; zehazki, Ramon Saizarbitoria⁴²⁰ eta Arantxa Gurmendirenak. Ordutik aitzina, orrialde oso bat eskaini zitzaion atalari, eta, bertan, gazteek beren ikuspegia plazaratu zuten. Atalaren oinarriak agertzeko, 1965-1968 bitartean zehar argitaratu ziren hainbat artikulua izanen ditugu solasgai; konkretuki, atalaren funtsa erakusten dutenez gain, espresuki ELerekiko harremanaren funtsa isla dutenak bildu ditugu.

1965ean agertu ziren idatzietan biltzen da “Gazte naiz” atalaren muina; hau da, idazleen jarrera, helburuak eta ikuspegi nagusiak. Atalaren muina gazteen pentsaera, sentimendu eta jarrera erakustea zen; beraz, belaunaldi gazteenak ordura arteko ideia, molde, pentsamendu eta jarrerarekiko zituen desadostasun nahiz ezinegonak agertzea. Hala, bada, atal horretan islatu zen kultur eremuan –eta, zehazki, literaturarenean– nagusitzen joan zen ekinaren funtsa. Belaunaldi horrek euskaltasuna bizitzeko eta aditzera emateko zuen beharra agertu zuen: 60etako abiatze kulturalarekin indarra hartuz zihoan jarrera eskapista eta mugatzaileari, zeinak euskaltasunaren ulertze hertsia bulkatzen zuen, aitzina egin beharra sumatu zen.

Beraz, atalaren izanak fokua belaunaldien arteko kinkan jarria zuela erran liteke. Bi agerraldik islatzen dute belaunaldi kinkaren indarra. Batetik, ekimenari batu zitzaion “Hemen, gazteagoak” azpiatala⁴²¹ (lehen aldiz: Zumalabe, “Bi salbadore”, 1966, 179: 7); bertzetik, “Gazte gera, gazte...” delakoan (lehen aldiz: “Larresoro”, “Cohn Bendit eta Waldeck Rochet”, 1968, 282: 7), hain gazte ez zirenek ere parte hartu zuten.

⁴¹⁹ 1965ean argitaraturiko “Jaiak, atsedean” (Saizarbitoria, 119: 8), “Gazte zaharrak” (Saizarbitoria, 121: 8), “Ye-ye gaztedia” (Gurmendi, 122: 4), “Eginbearrak” (Saizarbitoria, 123: 7), “Etxetik urrun” (Gurmendi, 125: 4), “Ez naiz jatorra” (Saizarbitoria, 126: 9), “ ‘Zinemak sortutako mitoak’ ” (Gurmendi, 127: 4), “Bake nahia” (Saizarbitoria, 128: 4), “Erantzun bat” (Gurmendi, 129: 4), “Zergatik lotsatu” (Gurmendi, 131: 4), “Lan Motak” (Saizarbitoria, 132: 9) eta “Idazkitza” (Saizarbitoria, 134: 9).

⁴²⁰ “Jarraiko Saizarbitoria” gisa sinatu zuen, sarri.

⁴²¹ Oroitu “Hemen, gazteagoak” “Gazte naiz” ataleko azpiatala dela, eta, beraz, *Zeruko Argian* argitaratua.

“Gazte naiz”en bildu zen ikuspegiaren oinarriak Ramon Saizarbitoriak defendatu zituen, “Ez naiz jatorra” izeneko artikuluan (1965, 126: 9). Bertan, jendeak gazteekiko zuen gaitzespenaren zergatiak azaltzen zituen:

- a) Itxura zehatz batekin identifikatuak izateaz haratago, “euskal itxura” zatekeen horretatik urrunduak izateagatik: “Euskaldun bikain baten itxura ez dutalako [...] Illea berriz, luse samarra ibiltzea gustatzen zait, horrek esaten dutenez ‘ye-ye’ itxura ematen dit”.
- b) Euskal “esentzia” horren irudi tradizionalaren sinboloekiko apurketa irudikatzen zutelakotz: “txapelak buruan geizki ematen bai dit eta gañera, zelan baster guzietan aastuta usten dutan [...]”.
- c) Euskal oinarri kanoniko eta tradizionalekin bat ez zetozelakotz: “... Euskal ikuskizun asko (bertsolariak esate baterako) etzaizkidalako gustatzen (zergatik?) eta nola oietara joatea etzaiten lana iruditzen lasai lasai joan gabe gelditzen naizelako... eta gañera, egitazko lanak zeintzuk diran esaten dutalako...”.
- d) Euskal ondare folklorikoarekin ez zirelakotz bat heldu: “...Erromeriak ezaizkidalako geiegi gustatzen, eta saltoka ibiltzea baño nahiago dutalako, lanik egin ez duan Herri bat zelan dibertitu liteken pentsatzia...”.
- e) Hizkuntza estandarraren jarraipena egin arren, honen mugek ez zutelakotz, beti, solasen arau naturalekin bat egiten: “...Zelan nere ama Goierrin etzan jaiio, aregandik S eta Z erabiltzen ikasi ez dutalako...”.
- f) Lehen behar mailak inplika zezakeen gorai patze itsuaren kontrako jarrera agertzen baitzuten: “...Euskaldunak gure RH ta guzti beste edozein bezalakoak, edo txarragoak gerala esaten dutalako”⁴²²; baita inguruarekiko desadostasuna ere: “Ez naiz jatorra, neronekin eta mundu guziarekin asarre negoelako...”.
- g) Arazo sozialen kontzientzia agertzen zutelakotz: “...Gaurko egunian, Euskal Herrian problema Soziala dagoela esan ta idatzi dutalako”⁴²³.

⁴²² Hau da, bigarren behar maila asebetetzea gero eta hurbilago sumatzen zen: gorai patze itsuak –hasieran– bulkadaren bat, komunitatearen zatiren batean, eman bazezakeen ere, balioa mugatzen joan zen. Euskaltasunak izan zitzakeen bertze balioen aurkikuntza garaia hasia zen: irekitasun eta erabilgarritasun eguneratuak lortu ahal izateko aldaketen errebindikazio garaia.

⁴²³ Ideia hori sarri errepikatu zen, atalean zehar. Adibidez: “Gaurko egunean gizon guziak, langille izan ala ez, bañan areago langille bada, komodidade batzuek behar beharrezkoak lituzke. Bidezkoa litzake ta ori lortu bitartean, nagusiak ez lukete kontzientzia pakean eduki behar, bainan... zori txarrez geienak lasai gelditzen dira, naiz jakin onelakoak eta alakoak berak ematen dionarekin ezin bizi litezkeala”, “Euskal Herrian jauntxo asko daude beren menpean euskaldun asko dituztenak. Mito batzuek autsi beharra dugu, onako auek bezelakoak: ‘emen langillea ta nagusiak mai berean jaten dute’, ‘emen ez da gizarteko problemarik’ eta abar . [sic]” (Saizarbitoria, “Eginbearrak”, 1965, 123: 7).

- h) Artearen erabilera hutsal eta eskapistari kontra egiten ziotelakotz: “...Gaur eguneko antzerki, nobela ta musika egilleeri, gaur eguneko gaiak erabiltzea eskatzen dietelako...”.

Hala, gaitzespeneraren eragileak gazte belaunaldiak “Gazte naiz” atalean bilduko zituen jarrera, ideia eta ikuspuntuaren kontrakoak ziren, preseski. Ikuspuntuaren gunean euskaltasuna desberdin bizi zuen gazteria izaki, “euskaltasun esentziala”ren eraso gisa sumatu zen bulkada berria (a-e). Horretaz gain, aitzinbelaunaldiarekin identifikaturiko konformismo ez-dinamikoa salatzen zen (g-h).

Ataleko gazteen idazkerari hagitz lotua zen jarrera komun batek biltzen zituen oinarri horiek guziak; ezinegona sentiturik, ernatze deia egiten zutenena, preseski. Errealitatearen kontzientziak –hau da, ihes egin nahia alde batera uzteak– sortzen zuen ezinegonak (Saizarbitoria, “Pake nahia”, 1965, 128: 4) bazuen, gainera, hagitz kritikatu izan zen alderdik: tristezia (*loc. cit.*). Irakurle batek bidalitako eskutizari erantzunez agertu gisa:

Beak dio [Karmele izeneko irakurleak] gu oso hillunak gerala eta gure problemak ez dirala gazteen prolemak, geienenak behintzat.

Ez nago akort zurekin ni gaurko gazte bat naiz 21 urte eta nere idaz lagunak ere gazteak dire. Alaiak gera izan behar dugunean, bainan erresponsabilidade bat hartzean (idaztea) serioski jokutzen dugu. Gertatu liteke, gu bezalakoak ez diran alai horiek, lan egiteko gogo gutxi edukitzea orrela beti gu, illunak, agertu behar izatea.

Zer nahi duzu orri bakar bat eduki eta txorakerietan galdu? (Saizarbitoria, “Idazkitza” azpiatala, 1965, 138: 7)

Oinarri eta jarrera horietatik idazten zutenei bi ezaugarri nagusi egotzi zitzaizkien: jatortasunik eza⁴²⁴ eta zaharkituak izatea. Zaharkituak izatea lotua zen ataleko kideek eskapismoaren kontrako jarrera gisa identifikatzen zutenarekin: errealitatea bere gordinean atzemateak berekin zekarren iluntasunarekin.

Zahartu egin gera, guztiz zahartu, joan ziraden amazazpi urte haien oroitapena buruan darabilkigun gazte denok. Zergatik, gaztetasuna eta zartzarua mugatzen ditun ataka señalatzen asi ezkeru, ataka hori ilusioa dela esan berko genuke. Ilusio eta esperantzeta persona bizi den arteraño, gazte da. Eta ilusioa ta esperantza desegiten zaizkion egunean, doakabea!, zahartu egiten da, guztiz zahartu, munduko iñungo elixirek bizituko ez dun ahaljegetasun pixu baten menpe. Edo ta, bestela, atzeneko oportunitadearen aurrean topatzen da bat, [...]

⁴²⁴ Aski agudo, Gurmendi balizko jatortasun horren izanaz aritu zen: “Egia diozu esatean, euskaldun geienak gazte bat jatortzat artzeko garaian, bereala bereziki egiten dutela zure ‘adiskide’ orrek dion bezela gorpuzkerari; euskal jolas eta dantza zaletasunari bakarrik begiratzen diote. // Orduan, zer da euskaldun izatea? Jator izateko beoiek diotenez bear diran kualidadeak gogoan izan ezkeru, au izan bear luke erantzuna: Euskaldun izatea, axalekiko persona bat izatea da” (“Erantzun bat”, 1965, 129: 4).

Ez gaitu bizitzak goxoki tratatu, eta gure ilusio ta ametsak egun batez errukirik gabe apurtu zizkigun. Ez dira gure denborak atsedean denborak, eta gure bizitzaren historia ez da histori lasai eta uniforme izandu. Milla influentziak markatuta, oso goizik sentittu genuen gure nortasunaren berezikizunak argitzeko premia, eta bide zabala utzirik, estrata txigorretan barrena abiatu gera bein eta berriz, oiñak nekatu belaunak odoletan larrutu zaizkigun arteraño.

Ilunpeko ibiltariak, beraz. [...] Illunpe honetan ez giñan gu sartu, sartu egin giñuzten. (Lete, “Zahartu egin gera”, 1965, 142: 7)

Jarrera eskapistak zekartzan alderdiei aitzina egin beharra aldarrikatzen zen: batetik, arazo sozialei aitzina egin beharra; eta, bertzetik, sarri solasgai izan zen folklore nahiz folklokeria dela eta, euskaltasuna errealitate folklorikoan oinarritzearen kontra agertu ziren.

Hortaz, erantzukizunaren eta borrokaren ideiak⁴²⁵ hagitik presente ziren, idatzietan:

Etzakela boligrafoa txupatu. Saiatu adi ire barrena agertzen, ba duk indarra. Esnatze hori ez dadilla une bateko gauza izan burukatu adi, ire gorputza menderatu zak, emaiok aurpegia beti errealitateari. Burukatu adi bai, bainan ez bakarka gaur ik gure beharra izango duk, bihar guk irea... Sua ezin diteke itzaltzen utzi, batak eta besteak babestu egin behar dugu. (Beobide, izenbururik gabe, “Idazkitza” azpiatala, 1965, 146: 7, Larraitzetik idatzi zuen “R.A.”ri)

Horretarako, ezinbertzekoa zen ataleko kideek helburu nagusietarik bat gisa finkatu zutenaren lanketa: “Guk ez dugu idazten euskal irakurleak geitzeagatik bakarrik, euskal irakurleak esnatzeagatik baizik” (egile ezezaguna, izenbururik gabe, “Idazkitza” azpiatala, 1965, 145: 7).

1966an, abiatze urtean agerturiko jarrera, ikuspegi eta oinarriak finkatzen joan ziren. “Gazte naiz” atalaren urteurrenean, helburu eta nahiak azaldu zituen, berriz, Saizarbitoriak:

Gure asmoa? Ainbesten hartean ez nuke zeatz esango zein zen inportanteena. Herriaren mentalidadea ikusten genuen eta etzen zailla gure taldearenaren desberdiña zela nabaitzea. Euskal gazteria folklorismoaren bideetatik ateratzea zen bat behintzat, gaztea ta bere errealidadea aurrez aurre jartzea, konzientziak eskatzea, eskapismoak desegitea, gaztea moralez egitera behartua dagoen lana aaztutzen ez uztea. (“Gazte naizek urte bete egin du”, 1966, 170: 7)

Horretarako, borrokatu beharra ere agertu zuten (“Ane Garin”⁴²⁶ [Begoña Arregi Aranburu], “Rebeldia”, 1966, 162: 7; Arregi, “Gauzak ez dira aiñ ximpleak!”, 1966, 162: 7). Bertzalde, belaunaldi talka hagitik presente izan zen, gibel-errealitate zabal gisa. Ibon Sarasolak, erraterako, UNESCOko zuzendariaren –René Maheu-ren– hitzak erabiliaz, adierazi gisa:

⁴²⁵ “ik nik bezela kultura gosea daukak, prolemak aztertu ta soluzio bat emateko behartasuna.” (Saizarbitoria, “Polipaso, Errekalde...”, 1965, 142: 7)

⁴²⁶ “Ane Garin” gisa sinatzen zuen arren, “Ana Garin” ageri da, behin (1967, 215: 7).

«[...] ...Hace siglos y miles de años que la misma espera se produce en cada generación. Cada generación espera que sus mayores le abran la puerta de una historia que no sea para ella una prisión. Y llamo prisión a un destino cerrado; llamo prisión a un mundo sin amor...».

Euskaldun guztien dan gaurko Euskalherri hontan ere horrela jokatu behar izanlukete [*sic*] gure gurasoak. Gainerantzeko gaztediarenganako taktika eta jokabide guztiak ez dira jatorrak. Euskalherriaren etorkizunaren izenean mintzatzen naiz. (“Homo viator”, 1966, 165: 7)

Horretaz gain, euskal kulturak –eta, beraz, literaturak– zituen beharrak argiki agertu zituzten, bigarren urtean zehar. Batetik, oinarriak erabakitzeari buruz, kultur batzordeak osatzeaz eta planifikazioari ekin beharraz aritu ziren (Beobide, izenbururik gabe, “bestelakoak al gera?” azpiatala, 1966, 151: 7). Bertzetik, belaunaldi berriak espresuki borrokatu zuen, euskal nortasunaz gain, arazo sozialak kontuan hartu beharra:

Anhitzek, euren buruak euskaltzaletzat dauzkatena, euren ideiak errealidadean finkatu gabe dituzte, herri arazoa sozial problemagandik bereizi nahirik ez dute erakundeen, estrukturaen aldaketarik planteatzean. Herri, izkuntza, etorkizuna, oiturak, dituzu holakoen buruausterik aundiena.

Bitartean, sozial problema, elkarte osatzeko eskubidea, diru irabaziak banatzeko obligazioa, (obligazioa esan dut, eta ez karidade izena ematea), herri kultura, libertatea, t.a., ez al dira metro berdiñakin neurtu behar? jarraitzea? Zertarako izkuntza, bizi denboraren erdia lanean madarikatzen jarraitzekotan? Barkatu, bainan ez nago zuekin, zenbaitzuk besteen odola EUSKERAZ txukatzea nahi izatera elduko giñake. Eskubideak osorik edo bestela deusez.

[...] ⁴²⁷ Justizia bakarra da, ta bere osotasunean ez artze ezkeroz alperrik ari gera. (Arrieta, “Betaurreko billa”, “Gazte naiz” atala, 1966, 198: 7)

Hori lortu ahal izateko, hiru zutarri, bederen, sumatzen zituzten: intelektualengandiko erantzukizuna (“Goihenetxe” [Jose Luis Álvarez Enparantza], izenbururik gabe, “Astetik astera” azpiatala, 1966, 152: 7), alfabetizazioa (Beobide, izenbururik gabe, “bestelakoak al gera” azpiatala, 1966, 154: 7)⁴²⁸ eta munduaren, errealitatearen, kontzientzia (Beobide, izenbururik gabe, “bestelakoak al gera?” azpiatala, 1966, 161: 7; Saizarbitoria, “Krisellu bat Bilbaon”, 1966, 165: 7).

Jarrerari dagokionez, tristeziak⁴²⁹ eta pesimismoak izan zuten, 1966an ere, tokirik: “Kultura, hizkuntza, ohiturak, gizartea, horra hor gure saila ta arlo latza. Egia, hobe

⁴²⁷ “Txalogarria benetan hauen [langilea norbait izan dadin ari direnak] jokabidea, ikusten bai dute ekonomiak herriaren etorkizunean emanen dion indarra. Bainan ez nago ados bide ontatik egin ditezken gehiegikeriekin, egonmiekin itxuturik, herri nortasuna ta zakera [*sic*] aintzat ez dutenekin, ondo eraturako ‘erdalerrria’ eratu ta ezarri nahi digutenakin.” (Arrieta, “Betaurreko billa”, “Gazte naiz” atala, 1966, 198: 7)

⁴²⁸ Proposamena ere egiten dute.

⁴²⁹ Sentimen horren zergatia Saizarbitoriak, arestian aipaturiko urteurrenean, argudiatu zuen.

dugu olgetan ta kantari egon baiña gero zer? etorkizunean nola? Ta hori baldin etorkizunik ba'lego..." (Kintana, "Iraun-eziña ta alperkeria", 1966, 156: 7)

Azkenik, *Zeruko Argian*, orokorrean, gertatu gisa, urte hartan folkloreaken gaiak presentzia handia izan zuela azpimarratu nahi genuke; izan ere, belaunaldien arteko kinkan euskaltasuna modu desberdinean bizitzen zuen ikuspegia eztabaidagune zela, aldatu egin zen "euskal esentziaren" gordeleku gisa atzemana zen folkloreaketik jarraera⁴³⁰: "Orain gaztediari lan egiteko beharra heldu zaika, baiña oso gutxi dira benetako salbatzean hari diranak. Folklore ugari ta zalapartatsu ta... sakontasunik ez" (*loc. cit.*).

(b) Garaiko kinka nagusiak

1967an, euskal kulturarekin loturiko arloen beharra⁴³¹ eta belaunaldi kinka⁴³² gisako ideia nagusiak, berriz ere, solasgai izateaz gain, bi ideia errepikatu ziren, sarri: alienazioa eta kulturgileen profesionalizatzea.

"Gazte naiz" atalaren oinarriak agertu zituen idatzi bateko ideiei jarraiki (Arregi, "Narzisoak", 1966, 161: 7), mitoaren eta alienazioaren arteko harremana azaleratu zuen Mikel Ugaldek⁴³³:

Bildur naiz gu ere mitoak nolabait kutsatuak ez ote gauden. Hori dakusgu zenbait itzaldi eta postura analizatzen ditugunian. Jakiñeko itz batzuek besterik ez ditut aipatuko. Pakea, Batasuna, herriaren kristau izaera, t.a. bere onetik ateratako itzak dituzu egizko sentidu gabeak, mitoak.

Eta ez degu urrutira joan bearrik, gure arteko zenbait gertaera aztertzen asiko bagiña alienazio gogor baten menpean gaudela konturatuko giñake. Mitoaren ondoren garratzena alienazioa dugu ta.

Beraz utikan mitoak. (Mikel Ugalde, "Mitoak", 1967, 204: 7)

⁴³⁰ "Naiz, beraz...?" (Saizarbitoria, 1966, 162: 7) eta "Gezurriak" (Mikel Ugalde, 1966, 199: 7), adibidez. Urte horretan bertan agertu zen folkloreaki buruzko eztabaida: "Bizkaitarrak eta giputzak sokatiran" (Saizarbitoria, 173: 7), "Ez dago sokatirarik" (Miguel A. Etxarte, 175: 7), "Ez, ez dago sokatirarik" (Saizarbitoria, 176: 7), "Saizarbitoria'ri karta agiria" (Gereño, 178: 7) eta "Oarra" (Saizarbitoria, 178: 7).

⁴³¹ Kulturako arlo eta ekimen eguneratueta ondu beharraz: "Ez giñezke egon neska ta mutil zahar eta Ameriketako osabaren kontura negar edo par egiñaz. Garaian garaikoa. Gaur egunean beste gai batzuek erabilili bear ditugu ta, gaiberriak antzesten iaioak diran taldeen lan au bearrezkoa da erri-koskorreta ere zabaltzea. Antzes-gai berrien gora-bera onetan ez da berriz arrazoia ta gutxiagorik ere, jendea antzerkia berria artzeko gaitua ez dagola esatea. Beste gauz guzietan bezelaxe, ontan ere erriari ikasketa bidea eman bear zaio" (Mari Karmen Garmendia, "Antzerkia", 1967, 202: 7).

⁴³² "Gaur egunean, geure Herrian, ideoloji aldetik bi jenerazio ikusten ditut. // Lenengoak... zaharrak; geure gurasoak dire. Eak biziizan dituzten gertakizun batzuekin, markatutakoak. Gertakizun auek, euren bizitzan, sentidu konformista onartzen dun jenerazio bat, ondorio edo eredu utzi digute. // Bigarren talde barruan, gaurko gaztedia ikusten dut. Eure justizi ta askatasun gosea, ase nairik, dabillen gaztedi jatorra. Euren Herriaren egoera, gogoan arturik, bera jaso naiean dabiltzen gazteak." (Imanol Landeta, "Konformistak edo...", 1967, 215: 7)

⁴³³ Ugaldek, aitzinago: "Eusko gazteak oso sakabanaturik gaituzute, gehiena loak arturik eta erabat alienatuak" ("Eusko gazteak parregarri", 1967, 251: 7).

Profesionalizazioa ere eztabaidagai nagusietariko bat izan zen; baina, atal honetan, bederen, kulturgileek agertu zuten beren ustea:

Nola nai dugu gure abesti, antzerki edo irratiak berriak eta kalidadekoak izatea, bear bezela laguntzen ez badiegu? Euskal artistak bere bizi guzian gratis eta efizioz lana egitera kondenatua egon bear al du? Gure ikastolak aizezkoak egin al litezke? Euskal antzerkia bost edo sei afizionatuk jarri bearko ote dute, bere laneko orduetatik kanpora? (Lourdes Iriondo, “Euskalerriko eskaleak”, 1967, 205: 7)

Lourdes Iriondoren hitzek ezinegon handia sortu zuen gaietarik bat islatzen dute. Tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, halako aldarrikapen eta kexak EKEn sistematizazioa gertatzeko pauso garrantzitsua izan ziren.

1968an akitu zuen bidea “Gazte naiz” atalak. Haren lekukoa, edo, “Gazte gera, gazte...” atalak hartu zuen. Aitzinez bertze hainbat idatzitan “gazte gera, gazte...” esaldia aipatu⁴³⁴ zen arren, atal gisara, 282. zenbakian agertu zen, lehen aldiz. Orduetik aitzina, “Gazte gera, gazte...” lelopean, hain gazte ez ziren idazleak ere⁴³⁵ aritu ziren.

Desberdina zen atal berria. 1968an zehar atal aitzindariak ideia bertsuak argitaratzen jarraitu zuenez, ondoko atalari buruz bi ideia nabarmendu nahiko genituzke: musika gaien gailentzea⁴³⁶ eta idazleen artean jarrera zehatza, espresuki, nagusitu ez izana. Orokorrean, musikagintza berriari zegokion albiste aunitz agertu ziren, ez ziren hainbertze kanpoko berri biltzen, hain “gazte” ez zirenak nagusi ziren, umore grafikoa txertatu zuten –komiki edo biñetak– eta abar.

b.1.2. azpiatalean, *Zeruko Argia* aldizkariak 1963-1975 bitartean izan zuen garapena laburbildu nahi izan dugu. Horretarako, ELEn garapenean zutari izan ziren belaunaldi desberdinen isla nagusietariko bati erreparatu diogu; hau da, “Gazte naiz” atalari. Lehenik, atala agertu bitartean aldizkariak finkatu zituen oinarri formalenak ikusi ditugu; bigarrenik, hain zuzen ere fokua atalean jarri, eta belaunaldi berrienaren oinarriak bildu ditugu, urtez urte.

4.1.3.b. azpiatalean erranak ikusirik, ondorio nagusi bat atzeman dugu: ELEn berriztatzean nagusi izan ziren idazleak eta kulturgileak aldizkarietan trebatu zirela. Gainera, kulturgile horien arituetan bertan agertzen diren behar nagusiak kontuan

⁴³⁴ Bertzeak bertze: “Eusko gazteak parregarri” (Mikel Ugalde, “Gazte naiz” atala, 1967, 251: 7), “Mitxelena jauna ta Unibersidadea” (Gereño, “Gazte naiz” atala, 1967, 266: 7) eta “Gazte gera gazte...” (egile ezezaguna, *Zeruko Argia*, 1968, 268: 3).

⁴³⁵ Saizarbitoriak ere parte hartu zuen, kasu.

⁴³⁶ Oroitu Lourdes Iriondok abestutako “Ez gaude konforme” (*Lourdes Iriondo*, 1968).

izanik, ELeren ezegonkortasuna agerikoa da: 1960-1975 bitartean ELEk jasan zuen aitzinatzea literatur arituarekin espresuki lotuak ez ziren aldizkarietako trebatzeari eskerrak gertatu ahal izan zen.

Idazmena landu izanaz haratago, eremuaren beharrak euskaltasunaren atzemate berriztatzaile batekiko harremanean agertu ziren, aldizkarietan, eta, bereziki, *Zeruko Argian*. Hau da, ELEk komunitatearen beharrak –testuinguru aldakorrean, funtzionalitatez– asebetetzeko bidea aldizkariari eskerrak gauzatu ahal izan zuen.

Segidan heldu den azpiatalean, ELeren ezegonkortasunaren aztarna zehatzak aztertuko ditugu. Hartara, eremuak zuen egoeraren isla aldizkarietan –trebagune izan ziren horietan– nola islatu zen ikusteaz gain, espresuki identifikatuko ditugu isla horiek azaleratzen zuten errealitatearen ezaugarriak.

b.1. azpiatalean erranak bilduz, 1960-1975 bitarteko *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian* euskal komunitateak bizitzen zituen kinka nagusien isla biltzen dela ikusi dugu. Aldizkari bata nahiz bertzeak komunitate garapenaren lehen faseari loturiko aldaketak jasan zituzten.

Hirugarren kapituluan ikusiko denez, EKEk –1960-1975 bitartean– jasan zuen exijentzia laxatu egin zen, ezinbertzean. Helburu kolektibo nagusiak aldatuak izanik –balioztatze prozesuen eragileak aldatuak zirela–, garaira egokitzeak eskakizun zehatzak ekarri zituen: kultur azpieremuen izaera berezituak garatzea zailtzen zuten loturei desberdinki aitzina egin behar zitzaie; adibidez, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argian* eztabaidagai izan zen profesionalizazioari. Komunitatearen aldeko sakrifizioa eremuen garapenarekiko kontraposizioan atzematea, bada, alde batera utzi behar zen.

Ondoko azpiatalean, EKEk jasaniko militantziakeriak ELEN, espresuki, izan zuen eragina aztertuko dugu. Horretarako, eragin hori ezezik, eremuaren ezaugarri nagusiak testuinguruan –komunitatearen lehen behar mailarekiko elkarreraginean– ulertu ahal izateko zehaztasunak eskainiko ditugu.

b.2. Euskal Literatur Eremua

Arakaturiko corpusari eskerrak, errealitate zabala hurbildu ahal izan dugu; corpusak aukera eman digu, ELeren garapenaz gain –ez soilik literatur lanek osatzen duten corpusarena–, komunitatearekiko harremana eta harreman horretan ELEk zuen funtzioa hausnartzeko. Hori dela eta, corpusa osatzen duten aldizkarietatik abiatuta,

ELeren garapena arrunt baldintzatu zuten kinkez arituko gara; zehazki, arazoak, eztabaidak eta, nagusiki, garaikideek ELeren egoera nola atzematen zuten islatuko ditugu, segidan diren azpiataletan.

b.2.1. Alde nagusien islatzea

Herriaren ahotsetik heldu ziren eskariak eta kulturgileek proposatzen zituztenak, hasieran, kontrajarriak ziren, hein batean. Hori dela eta, bien arteko bateragarritasun eta ulerkuntza helburu nagusi izan ziren:

benetan, herriaren kultura jaso nahi baldin badugu, ahalegina egin behar dugu, ahal dugun irakurle gehienengana irixteko. Eta, beharbada, «goimailako jakintzaz» egindako idazlanak irakurtzeko ahalmenik ez dutenek izango dute premia haundiena. Gure gaurko literatura guztia aztertzen badugu, jaramonik gutiena Herri horri egiten diogu. Nola ailega hoiengana? (Hormaetxe, “Euskal idazle-irakurleen zirkulua. Autokritika antzera”, *Anaitasuna*, 1972, 228: 16)

Beharrezko, bereziki, kultur proiektu komuna nahiz etorkizun kultural bateraturako oinarritzko aldaketak proposatzen hasi ziren momentutik aitzina; hau da, euskara batua, alfabetatzea, unibertsitatea⁴³⁷, argitaletxeen norabidea eta literatur lanen garapen berezitua aldarrikatzen hasi ziren momentutik aitzina. Herriaren eta kulturgileen arteko egokitze⁴³⁸ horretan, militantziaren gaia gunegunear izan zen.

Beharren, eskarien eta eskaintzaren arteko harremana –militantziaren zama beti presente zela– nola moldatu zen irudikatzeko, ELeren hiru alderdi nabarmeni erreparatzea proposatzen dugu: (1) euskal literaturan gidaritzat sumatzen ziren idazleak, (2) heterogeneotasun nahiz aniztasunetik agerturiko lanak eta (3) 70eko lehen erdian agerturiko berritasun nahia.

(1) Gidariak

Denbora distantziak ematen digun ikuspegitik abiatua baino gehiago, adierazgarriagoa deritzogu garaikide zirenek izen nagusiak eta gidariak nola sumatzen

⁴³⁷ “Errez da ‘Nahi duenak ikasi beza ‘esatia’. Euskera ez dakianak baditu klaseak, euskal kultura aldetik jantzi nahi duenak, baditu liburutegiak. Ezin eskatu zaio jeneralidade bateri heroe izatea; karrera bat ikasi bitartean dibertitzeko garaiean, estudiatzen jarraitzea. Erreztasunak behar dire eman, ez laguntzea debekatzea baita, esan diteke beraz hemen euskal kulturari dagokionez, erakusketa debekatua dagoela. // Honek badu erremedioa noski. Hor dabilz zenbait intelektual problema honeri soluzio bat arkitu nahiean, ikusiko ditugu erabakiak eta bere garaiean analizatuko. Nirearekin jarraituaz, soluzioa euskal unibersidadea litzake; baina kontuz ; [sic] Euskal unibersidadea esan dut, ez euskalerrian eginitako erdal unibersidade bat, hori ez litzake soluzio bat, hemen, han edo inpernuan eginitako euskal kutsu, giro eta intenzioko unibersidade bat baizik.” (Saizarbitoria, “Unibersidadea: Soluzio bakarra”, “Gazte naiz” atala, 1966, 186: 7)

⁴³⁸ Jon Etxaide Itharteren hitzotan ageri gisa: “Idazleok erriaren jakintza mallara makurtu ala euskerari solki begiratzuz bera landu ta aberastu erriari jaramonik egiteke?” (*Alos-Torrea*: 9. or., in Sarasola 1971: 75).

zituzten agertzeari. Hori dela eta, Xabier Kintanak orduko egoera nola atzematen zuen agertzen duen artikulua hartu dugu, garaikoen pertzepzioa agertzeko makulu adibide gisa (izenbururik gabe, “Nori gabeko eskutitzak” atala, *Anaitasuna*, 1972, 235: 6).

Edozein gisatan, idazki desberdinetan aurkitu ditugu Kintanarenean diren ideiak; idazleen arteko koordinazio falta, literatura helmuga duen batasun beharra eta abar aldarrikatzen zituzten artikulugileek. Ideia horien adibide hagitz garbia da, erraterako, X. Gereñok bere “Neure lantokitik” atalean eskainiriko “Euskal Idazleen Elkarte” artikulua:

Lan bikaina egin zuen elkarte honek euskararen batasunaren lehen mementoetan; baina gero moteldurik ibili da.

[...] asko konpondu beharrekoak. Adibidez, idazle bakoitzak jakin egin behar luke, besteak zeintzuk liburu idazten ari diren⁴³⁹. Behin baino gehiagotan gertatu da, idazle bik itzulpen berbera egitea. CINSAk «Robinson Crusoe» euskaratzeko enkargua eman zion idazle bati; eta lana amaitu eta hilabete batzuk geroago enteratu ginen, lan hori beste idazle batek egina zuela, eta, argitaratzeko, editorial baten zain zegoela.

Euskara batua finkatzeko, informazioak trukatzeko eta abar, elkarte hori berriztatu egin behar litzateke. (*Ibid.*, 1973, 259: 5)

Xabier Kintanaren adibidera itzuliaz, idazleen eta literaturaren arteko harremanaren hutsuneak agertu zituen: idazleen arituaren izana bateratuki hausnartu beharra eta horien lana euskararen batasunaren mesedetara makurtu izana⁴⁴⁰ aipatzen zituen; garaikide zenbaitek literatur arituaren koordinazio falta gaineratzen zuten, Gereñoren aipuan islatu gisa.

Eremu horretan parte hartzen zuten idazleak hiru talde nagusitan banatzen zituen Kintanak: batetik, beren inguruan eskola antzeko bat utzi zuten idazleena; bertzetik, beren inguruan halakorik –ordura arte, bederen– ez zutenek osatua –“independente” zirenak– eta, azkenik, lehenengo horiek baino gazteago zirenena.

Lehendabiziko taldean, nagusiak ziren –harendako– Aresti, poesian, eta Txillardegia, prosan. Garaiko literatur arituaren ezaugarri gisa –aipaturiko gidarien lanak eragileztat agertu arren–, ekimen bateratua gazteek bulkaturikoa izan zela gainera genezake; izan ere, gazteen esku egon zen eremuaren lanketa nagusia eta, bereziki, gidariek eskainitako aitzina-pausoen garapena: “gauzak absolutizatu nahi gabe ere, gazteen eta gazte taldeen gauza bihurtu da euskal kultura. Gazteen –esan ohi den

⁴³⁹ Beraz, elkarren ezagutza gabezia; hain zuzen ere, koordinazio falta hori erakunde egituratzaile finkaturik ez izatearen (4.1.3., a.1.) ondorioetarik bat izan zen.

⁴⁴⁰ Artikuluan dio fokua gramatika eta hiztegi gintzaren arloan izateak literaturaren lanketa murriztu zuela.

bezala– kontizientzi [sic] hartzeak posibilitatu du euskal kulturaren azken urteetako berritze koskorra”, zioen Joseba Arregik (*ibid.*, 1973, 266: 1).

Bigarren talde nagusiaren erakusgarri, Jon Mirande, Txomin Peillen, Jose Antonio Loidi, Juan San Martin eta Jon Etxaide aipatu zituen Xabier Kintanak. Egin zuen deskribapenaz gain, bigarren talde honetako hainbat izen, garaiko aldizkarietan, gidari izaniko idazleen aitzineragiletzat agertu izan ziren; are gehiago, tesiaren hirugarren kapituluan ikusiko dugunez, aitzineragile horietarik zenbaiten aldarrikatze sakona egin zuten literatur abangoardiek. Hala, Miranderen erreibindikazioa eta marjinalitatearekiko begirunea Pottteko kideen agerpena baino lehenago hasi zen; Peillenek “Idazle marjinatu baten defentsa” (*ibid.*, 1972, 235: 14) idatzia argitaratu zuen, Gereñok Mirande eta Peillen ez atzentzearen aldeko “Mirande eta Peillen” artikuluxka (*ibid.*, 1972, 237: 12) kaleratu zuen, eta Miranderen bazterrekotasuna agerian uzten zuen “Noizko Miranderen lan osoak?” ere aipa liteke (“Armendaritz” [Xabier Kintana], *ibid.*, 1973, 250: 7). Gainera, San Martinek azaldu zuen –“Jon Mirande joan zaigu” artikuluan (*ibid.*, 1973, 250: 3)– Miranderen eragina G. Aresti, J. Azurmendi, J.M. Lekuona, “Otsalar” [San Martin bera], M. Lasa eta abarrengan zela.

“64ko belaunaldia” bataiatu zen gazte taldearen agerkari nagusia *Zeruko Argia* astekariaren “Gazte naiz” atala izan zen. Talde horren baitan, ikuspegi desberdinetako ahotsak agertu arren, lau ezaugarri komun sumatzen zituen Kintanak:

1. Talde bezela, hizkuntza berriztapen bat ekartzea: hots, euskal literaturari euskara batua eskaintzea. Hau, ene ustez, aski dukek, talde hau belaunaldi berezitzat hartzen hasteko.⁴⁴¹
2. Hiztegiaren ez dituk puristak. Hasiera batez mordoilo xamarrek baziren ere –ez ahanzt, gehienak kaletarrak eta euskaldun berriak direnik–, gero eta hobeki ikasi diate joskera erabiltzen. Lexikoan, idazle klasikoak –hain zuzen ere, aurreko belaunaldiek mespreziatu zituztenak– kontuan harturik, ez diate alferreko erdal hitzik erabiltzen, teknikan eta zientzian joera unibertsalekoak izan arren.
3. Gaiaren aldetik, Euskal Herrikan kanpoko arazoak tratatzen ditiate; beti euskaraz, ordea.
4. Agian beste ezaugarri bat, azken urteotan nabaritzen hasi zaikuna, hauxe dukek: hikaren birbaloratzea. Dakianez, gerra aurreko idazleengan hika idaztea oso gaizki ikusia izaten zuan, berau ijitoen hizketa zela eta. Gaur, ordea, hika –euskarak maskulinoa eta femeninoa markatzeko beste erarik ez duenez gero– estilistikazko baliabide ezin ederragotzat jotzen diagu, erdarak ez duen informazioa ematen baitaiku. (Izenbururik gabe, “Nori gabeko eskutitzak” atala, *ibid.*, 1972, 235: 6)

Belaunaldiari buruz ari den artikulugileak iduri du, literatur arituaren kritika baino gehiago, idazleen euskara aztertu, eta interpretazio osotu bat egiten duela: hagitz guti

⁴⁴¹ Lehen ezaugarri hau literatur belaunaldi gisa ulertzeko irizpide aski izatea hagitz adierazgarria da; berriz ere euskara batua euskal kulturaren, nahiz bere baitako eremuen, garapenerako oinarritzko pauso gisa agertzen da. Gainera, literatur berritasuna eta garaikidetasuna belaunaldi berri horren ezaugarri izaki, euskara batua aitzina pauso horretarako ezinbertzeko jauzi gisa ageri da, batasun modernoaren ikur.

zabaltzen du kritika (1.) euskara batuaren erabileraz erranekin, (2.) atentzioa lexikoan ardaztearekin –hori erabiltzen duelarik literatur joera unibertsalen kontrako irizpide gisa– eta (4.) hiketaren berrerabilera laugarren ezaugarritzat erabiltzearekin batera, (3.) literatur eremuari dagokion berritasuna hizpide duenean.

Beraz, lehen, bigarren eta laugarren ezaugarriek aitzineko belaunaldiekiko kontraposizioa agertzen duten arren, hizkuntzari dagokion alderdian ardazten dira, hirugarrena hankamotz geratzen delarik. Hartara, hizkuntzaren erabilera belaunaldia mugatzeko oinarrizko irizpide –argudiatu, bederen– zelarik, irizpide literarioen zama aunitzez indar tikiagoz ageri, eta hizkuntzaren erabilerari dagozkion berritasun multzoa gailentzen zen.

Azkenik, bigarren ezaugarria dela eta, kaletar eta euskaldun berri izatea gehiago nabarmendu ez izana azpimarra liteke. Are gehiago, kaletar izatea arrazoiz izan baitzitekeen “gidaritzat” agerturiko horiekiko jarraipenaren ezaugarri komun nagusi bat; idazleen jatorriaz haratago, beren lanetako gai, leku, denbora, ikuspegi eta abarretan eragiten zuelakotz, partikularki.

(2) Heterogeneotasuna

Hizpide den garaian, ELEk zuen bigarren ezaugarri nagusia heterogeneotasuna izan zen.

X. Gereñok, 1966-1972 bitarteko euskal liburuen produkzioaren gorakada agertu zuen, “Nire lantokitik” atalean (*Anaitasuna*, 1973, 256: 5). Bilduriko datuetan, 1966-1972 bitartean argitaraturiko euskal liburuen kopuru nahiz inprimaketaren berri ematen zuen (ikus 10. taula, “1966-1972 bitarteko argitalpenak”).

Euskarazko liburuen produkzioak goiti egin izana euskara batuaren garapenari egozten zion Gereñok, eta inprimatzeen goititza, beraz, batasunaren lorpenari. Produkzio horren baitan, ordea, heterogeneotasuna agertzen zen; horren adierazgarri zeritzon Kintanak, adibidez, *Euskal literatura 72* liburuari (“Euskal literatura 72, Zenbait idazlek, LURen”, “Gure Munduko Albisteak” atala, *ibid.*, 1973, 247: 7).

	Tituluak	Aleak
1966	39	67.800
1967	31	270.000
1968	50	94.000
1969	56	212.000
1970	58	395.000
1971	73	666.000
1972	70	1.228.000

10. taula: 1966-1972 bitarteko argitalpenak

Heterogeneotasun horren giblean eremu finkatu gabea izanagatik, baldintzatzaile nagusia corpus garrantzitsurik gabeko eremuaren premiak asebate beharra zen; erran

nahi baita egiteko zen eremua osatu beharra izan zela heterogeneotasun horren arrazoi nagusia –eremu finkatu gabearen erakusle–.

(3) Berritasun nahia

Azkenik, berritze nahia aipa liteke aldizkarietan islatu zen ezaugarri gisa. Literaturaren alde egin nahia gero eta nabariagoa izan zen. Helburu horren aldarrikapenean muga garrantzitsua *Panpina Ustela* (1975-1976) aldizkaria izan zen. Hala zioen aldizkariaren agerpenaz, *Anaitasunan*, mintzo zen idatziak: “Bidea ibiliz egiteko asmoarekin, eta, garai berean, bidea markaturik, literatura onaren aldeko garrasi bat izan nahi luke honek” (egile ezezaguna, “«Panpina Ustela» edo literaturaren aldeko garrasi bat”, 1975, 291: 7-8). Literaturaren baitako mugen aldarrikapena garaiko literatur eremuaren kontra agerrarazi zuten Koldo Izagirrek eta Bernardo Atxagak, “Ez dezagula konposturarik gal, halare” manifestuan:

Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa, berezia. Gure poemagintza Europan egiten direnen parekoa omen da: guk ez dakigu zer esan nahi duen honek, eta oraindik ez digu inork erakutsi (agian geu gara egun-egungo poesia europearra ezagutzen ez dugun bi tonto bakarrak). (*Ibid.*: 1975, 291: 8)

Gisa horretan, beren helburuak agertzearekin batera, garaiko, ordura arteko, ELEren gabeziak azaleratu zituzten: kritika espezializatu gabea, indar erakundetzaileen oinarria literatur mundutik atekoa, literatura bertzelako helburuetara makurtua, eta abar. Horien guzien berrikuntza zen ELEko ahots gazteek, gazteenek, aldarrikatzen zutena: eremuaren egitura –eremuaren berezko izanari egokitu gabea zena, komunitatearen lehen behar maila asebetetzeari sobera makurtua– berritu beharra –eraiki, tesiaren hirugarren kapituluaren espresuki hizpide izanen diren abangoardiekin agertuko den gisa–.

b.2.2. Ezegonkortasunaren erakusgarriak

Corpus guziaz arakaturik, eremuaren egoera ezegonkorra⁴⁴² hiru puntu nagusik erakusten dutela ohartu gara: “argialetxeen problematika” deritzogunak, kulturagileen eta herriaren arteko distantziak eta literatur sistema egituratu baten funtzionamendurako ezinbertzeko diren partaideen beharrak.

Literatur sistema batentzat hagitik pauso garrantzitsua da argialetxeen garapena. Alabaina, 60etako eta 70etako hamarkadak sistemaren aitzingaraia zirenez,

⁴⁴² *Anaitasuna* aldizkariaren 184. zenbakian (1970), egoera bera islatzen da, modu zabalean.

azaleraturiko hainbat ezaugarri argialetxeen norabidea korapilatu zuten –militantziak, kasu; bereziki, konpromisoaren eta profesionalizatzearen arteko kinkak–. Norabide horren garapena hainbat alderdiren konbinaziotik heldu zen: beharraz kontziente izan arren, sorturiko koordinazio gabeziak zaildu egin zuen argialetxeen rola ELEren baitan aisa definitzerik.

Noski, 1960tik 1975era bitartean, argialetxeei zegokien problematika aunitz aldatu zen, eta, hain zuzen ere hainbertze aldatu zelakotz, garatu ahal izan ziren, ondoko fase nagusian –tesiaren hirugarren kapituluan hizpide izanen dugun horretan–, eremuaren oinarritzko pausoak.

Argitaratzaileen beharra agertzen zuten ahotsak ugariak izan ziren; bertzeak bertze, Jon Etxaidek Xabier Gereñori zuzenduriko eskutitz batean zioenez, ez zuen aurkitu *Gorrotoa lege* eta *Etxahunen bertsoak* plazaratzeko argitaratzailerik (*Anaitasuna*, 1970, 184: 2), eta kexa bertsoa zekarren J. Elortzaren “Juan San Martinen Uhin berri” artikuluxkak ere (*ibid.*, 1970, 184: 7).

Euskarazko argitalpenak hasieran zituen arazoez ohartzeko, hagitz adierazgarria da aldizkariak eta argialetxeak zuten bazkidetza sistema ere: harpidedunak oinarri zituen sistema izaki, aski mugimendu hertsietara mugatua zen euskarazko argitalpenaren mundua⁴⁴³:

Irakurleak ezak, arpidedunak urritzen ditu gure argitalpenen kaltean, beren bizitzaren iraupena larritasun gorrian ifiniatzen. Ori gañera, arpidedun askok, artzen dituztenak ere ez dituztela irakurtzen. Baizik, laguntza emate alde, artu bakarrik. Ta ola ezin ditzake indartu iñungo literaturarik. Ta ori gabe, kultura ere urri. Beste askok, bai irakurtzen eta bai idaztean, euskera artzen dute objetibo, bidetzat artu bearrean. Ta era orrek, idazkera nekegarria izatetik aparte, sortzen ditu makiña bat izkanbilla, bide eta objetu bezela artzen dituztenen artean. Ta larriago da oraindik era bien bereizkuntzarekin ez konturatzea” (San Martin, “Irakurleak urri”, *Zeruko Argia*, 1964, 83: 3)

Gainera, diru-galeraren⁴⁴⁴ arazoari aitzina egiteko ihesbide gabe uzten zuen “merkatua”. Harpidetza sareak arrisku handiak bizitzeko potentziala zuen, militantziaren baitan sostengaturiko literatur eremua –bertako merkatua– gara baitzitekeen, soil-soilik.

Arazo horiek konpontzeko, alfabetatzea eta hezkuntza euskaraz egitea oinarri-oinarritzko abiapuntu ziren: ikastolak –hizkuntzaz haratago erakusten omen zutenez–

⁴⁴³ Ikus Hormaetxeren “Euskal idazle-irakurleen zirkulua. Autokritika antzera” (*Anaitasuna*, 1972, 228: 16).

⁴⁴⁴ Galera hori bera zuen hizpide Xabier Kintanak “Euskal erdal liburuak” artikuluan (“Trauko”, *ibid.*, 1971, 204: 10); bertan, kritika egiten zuen euskaraz soilik argitaratzeak galerak sortzen zizkiela argudiatzen zuten argialetxeei, euskara hutsez bizi zirenak ere bazirela argudiatuz.

nortasunaren garapena, hizkuntza eta kultur eremu bateratua garatzeko oinarrizko abiapuntu gisa agertu ziren. Hori dela eta, “euskal heziketadun” andereñoen beharra⁴⁴⁵ aldarrikatu zen, aldizkarietan.

Urteek aitzina egin ahala, argialetxe kopuruak goiti⁴⁴⁶ egiten zuen arren, beren arteko koordinazio beharra aldarrikatu zen:

«LUR» eta «Irakur Sail» editorial etxeak alkarrekin tratatu egin behar leukeela eskatzen dau jendeak, alkarri trabarik jarri barik, bakoitzak liburu mota berezi edo ezberdinak argitaratzeko konponketa bat eginaz, euren onerako eta baita erriarenerako bere. (Angel Zelaia, “Euskaldungoa” atala, *Anaitasuna*, 1970, 191: 4)

Beti ere, euskal kulturaren nahiz herriaren mesedetan sakrifikatu beharko litzateke argialetxe bakoitzak zukeen norabidearen erabaki propioa. Koordinazio beharra premia nagusietariko bat gisa sumatu zen. Kintanak, erraterako –“Euskal editorialen koordinazio beharra” artikuluan (*ibid.*, 1971, 204: 16)–, laburbildu zituen, haren iduriko, arazo horren funtsa eta argialetxeen lanaren garapenari zegokion proposamena.

- Batetik, behar desberdinak izaki, Itxaropenak eta Auspoak betetzen zuten hutsunea moldatu beharra aldarrikatu zuen; bertetik bi zeregin nagusi behar liratekeela zehaztu zuen: euskal gaiak euskaraz ematea eta bertzelakoak euskarara itzultzea, gaztelaniarekiko morrontza galduz –kultur hiztegia finkatu, eta ikastoletarako laburpenak egiteko materiala osatu– eta munduko gaiak hurbilduz –teknikako hiztegia finkatuz, “ordutik aurrera denok metalengoaia tekniko hori modu berean erabil dezagun”–.
- Ondotik, autore klasikoak eta literatura unibertsala nahiz gazteendako klasikoak leudeke; hala, itzultzaile profesional taldea eratu beharra zen.
- Azkenik, euskaraz, oinarrizko kulturari loturiko lan originalak argitaratu beharko ziratekeen. Alabaina, momentu hartan argialetxe bakoitzak atal zehatz batzuetan espezializatu beharra zuela argudiatu zuen Kintanak. Beraz, itzulpenari eta kanpoko jakintzak ekartzeari lehentasuna emanaz, oinarrizko jakintzaz gain, hiztegi berezituak finkatu, eta, ondotik, helduko zatekeen euskal kreaioa.

⁴⁴⁵ “Berrogei neska artu litezke ‘Zabalaegin’n’ ikastaro bakoitzean” (“Miren Olarreaga” [Mari Karmen Garmendia], *Zeruko Argia*, 1965, 109: 4); “Erriko Maixtra” (“Aizarna-zale” sinadurapean, *ibid.*, 1965, 114: 3); “Andereñoak mito?” (Jose Antonio Aranburu, *Anaitasuna*, 1970, 187: 6).

⁴⁴⁶ “Euskal erdal liburuak” (“Trauko”, *ibid.*, 1971, 204: 10).

Pare bat urte beranduago, aldizkarietan, arazoaren agerpen gero eta gordinagoak agertuz joan ziren. Batetik, “Editorial etheen arazoa” gisako idazkiekin, argitaletxeen problematika eremu publikoan islatzen zela agertu zen:

Zenbait hilabetez gero, euskal editorialen arazoak bereak eta bost egiten dihardu. Hor dabilta, elkarki piztiak botatzen. Beraz, koordinaziorik eza, beste hark zioenez.

[...] ez baikenuen LUR editorialaren libururik inondik ere ikusi [Errenteriako Euskal Kultur Astean]. Anitz aldetara jo genuen, horren zergatikoa jakin nahirik; baina pikotara igorri gintuzten aire freskoan behin eta berriz. (“Antzar” sinadurapean, *ibid.*, 1973, 253: 2)

Bertzetik, argitaletxeen barne-istiluak agerian uzten zituzten aipamenak agertu ziren; bateko salakuntzek, bertzeko argitaletxe aldaketek, erakusten dute barne-borrokek eremu publikoan isla izan zutela⁴⁴⁷.

Hala, bada, deskribaturiko egoera gorabeheratsuagatik izendatu dugu “argitaletxeen problematika” ELEk 1960-1975 bitartean izan zuen ezegonkortasunaren lehen erakusgarria.

Zernahi gisaz, argitaletxeen egoera gatazkatsu hori, azken finean, bertzelako beharren sintoma zen, eta behar horiek ziren eremuaren ezegonkortasuna islatzen zuten bigarren ezaugarri nagusia: kulturgileen eta herriaren arteko distantzia moldatzeko premia. Aldizkarietan, komunitateko partaide multzoen arteko distantzia, zenbaitetan, desberdina izan zela sumatzen da.

Kulturgileen eta herriaren artean sor zitekeen distantzia bi aldetarik errepara liteke: gehiengo edo gutiengo batendako literaturaren itzalpetik sor daitekeen distantziari –lanaren eduki eta formaren ondoriozkoa– behatuta, eta argitalpen sistemaren ondorioz sor daitekeen distantzia potentzialari begiratuta –aldizkari nahiz argitaletxe guneen eta hartzaileen arteko harremanaren ondoriozkoa–. Tarte horiek garaikideek berek atzeman zituzten, aldika.

Hasieran, aldizkarietako irakurleriak artikulugileekiko distantzia gaiaren aldetik edo euskara batuak ezarririko distantziatik heldu zela sumatzen zuen, adibidez. *Anaitasuna* aldizkarian, erraterako, erlijioaz bertzelako gaiak eta herriagandik hurbilago zirenak irakurri nahia behin baino gehiagotan aldarrikatu zuten irakurleek: “erriko problemak ikusi nai doguz errebista ortan” (“Gure arpidedunetatik”, 1965, 125: 2).

⁴⁴⁷ Hurrenez hurren, Etor argitaletxeak, E. Aierberen salakuntzak faltsuak zirela argitzen zituen idatzia (*Anaitasuna*, 1973, 254: 6), eta X. Kintanak, ideia desberdinak izateagatik, Lur argitaletxetik joana zela argitzen zuen albiste laburra (*ibid.*, 1973, 253: 7), kasu.

Horren laguntzaz, 60ko bigarren erditik aitzina, aldizkariak erlijioarekiko zuen atxikimendu guzizkoa laxatu egin zuen, eta bertzelako idazki “lurtiarragoetarako” tokia eskaini. Bertzeak bertze, espresuki irakurleek eginiko eskaerekin bat heldu zen “erriz erri” atala txertatuz, non, inguruko herrietako berri motzak agertzen hasi ziren:

Aita Villasantek lengoan emondako iritxia be, neure ustez, kontuan artzekoa da. Errebisteak erri usaintxo be eroan daiala. Ortik eta emendik, batean erri batetik eta bestean bestetik batutako kaskarrillotxoak be asko arintzen eta bizkortzen dabe olako orri bat. Errikoak diran lez bera leiduten dabenak, zeozer eurena be topa daiela, eurak be bere orri artean sartu, saltzan, euren gauzari ukitu. (A. Zubizarreta, “Gernikatik Anaitasunaren zuzendariari: Bakea ta Ona”, *Anaitasuna*, 1965, 126: 2)

Azken finean, euskaraz irakurtzera ohitua ez zen jendeari interpretazioa lagunduko zion testu bilduma eskaini behar zitzaion⁴⁴⁸.

Hala ere, denborak aitzina egin, eta literatur eremua osatu ahala, argialetxe nahiz literatur arituekiko sortu zen distantziak bertzelako oinarriak izan zituen. Izan ere, aldizkariak euskarazko irakurgaiak herriari hurbiltzeko egin zuten ahalegina handia izan bazen ere, EKE aitzinatzeko denetariko gai eta moldetan idatziriko euskal testuak sortu beharra zen. Hori dela eta, literatur testuen sorkuntzak herriaren zati handi batenganako distantzia ekarri zuen, hastapenean, eta halaxe sumatu zuen komunitatearen alderdi batek. Horren erakusgarri, “goi-literatura” eta “behe-literatura” nahiz “minoriendako literatura” dela eta, handik eta hemendik, hainbat eztabaida agertu ziren.

Debate horietan, kultur mailaren goititzea, ezinbertzean, minoriendako literatura egitearen eskutik heldu zela agertzen zen:

Minorientzat egin dala [Sarasolaren *Poemagintza*]? Ta zer? Minorientzakerik ba ez ote dogu egin behar? Ta egiten ez bada, zelan jaso kultura mailea? Zelan eta non ase euren egarria begira dagozan poeta errezoak?

[...] gu beti poeta errezoak irakurtzera kondenatuak egongo ginan, holako libururik argitaratuko ez balitz. LUR-en arpedun askok sorkunde mugetara begira dagoan poesiaren lorratzik be ez leuke artuko; eta, era honetara, aukera hori eta gure bezalakoei goragoko kultura mailea lantzerantz laguntzen deusku. Eta era guztiak lantzeak emoten deutso edozein edozein izkuntzaren literatureari nortasunezko aberastasuna. (San Martin, “Sarasolaren ‘Poemagintza’ dala ta, Zotaletari erantzuna”, *ibid.*, 1970, 184: 6)⁴⁴⁹

⁴⁴⁸ A. Zubizarretak, artikuluan berean, *Vida Nueva* aldizkariaren lehen orrialdearen gisako idazkiak aipatzen zituen, eredu gisa: “Eskatuko neuskizuen beste gauza bat auxe izango litzake. Uste dot len be bein edo bein esan deusuedala: obeto, atsegingarriago ta mamitsuago urtengo leukela, artikuluan laburragoak eta ugariagoak egingo bazendukiez. Esate baterako, *Vida Nueva* errebista orren lengo orrialdearen modura. Au asko be gatzagoa da, eta biarra asko geitzen iatzue, baña asko irebaziko leuke orriak”.

⁴⁴⁹ San Martinek *Anaitasunaren* aitzineko zenbakian Eñaut Zotaletak idatziriko “Ibon Sarasolaren ‘Poemagintza’ dala ta zenbait eritxi” artikuluan emaniko erantzuna da. Hala zioen Zotaletak: “txalogarria poesia arloan Ibonen bide barriak irigi nahia. Beldur naiz, barriegiak izanik, askori gutxi esango ote deutseen. Esprika nadin. // ‘LUR’ editorialaren asmoa, euskaldun guztiokana eltzea izango da nonbait. Egia esan, orainarteko liburuekin lortu dauala uste dot elburu hori. Baina ale barri hori, euskaldunon

Zorionek, zenbaki berean (“Arantza Artean. Gereñoren Nobelea”, 7. or.), “edozeinek irakurtzeko moduan” eginak diren liburuen eta “gizon sakonentzako baino” eginak ez direnen arteko aldea azpimarratzen zuen. Alde horren oinarria herriaren beharretan ardadzen zuelarik, gainera:

Gaur egun, euskerazko lan bat zein beste edozein lan egitean, gauza bat gogoan euki behar dala uste dot: zeintzuk diran gure erriaren lehen mailako beharrianak. Inok ukatu ezin leikena da, gure erria ezjakintasunetik urteteko ahaleginak egiten ari dala. Edonon ikusi leiteke alfabetazino talde bat, edonon euskeraz ez dakien asko euskeraz ikasten. Nire eritxian, mugimentu honeri laguntzeko, ez da uste dan besteko euskal libururik idazten. Material beharrea aurkitzen gara. Honekin ez dot esan nahi, “Elsa Scheelen” edo “Egunero hasten delako” liburuen antzekorik behar ez dogunik. Holakoak bere, benetan behar ditugu. (*Loc.cit.*)

Komunitatearen premiak asebetetzeak, ordea, hainbat alderdi lantzea zekarren, eta literaturaren aitzinatzeak komunitatearen zati nagusi batendako arrotzak ziren moldeak sortu beharra azaleratzen zuen. Sorkuntzaren eta komunitatearen arteko distantzia horren atzemateak fokua irakurleriaren izanean jarria zuen, sarri:

Zirkulu hitxi hori [harpidedunek lanak irakurtzea] zabaldu egin behar da. Herria aipatzen dugu sarritan. Herriarentzat idazten omen dugu. Baina herria ez gara, idazten eta irakurtzen dugunok bakar bakarrik. Gehienak zirkulu tipi horretatik kanpo gelditzen dira, zoritxarrez. (Hormaetxe, “Euskal idazle-irakurleen zirkulua. Autokritika antzera”, *ibid.*, 1972, 228: 16)

Halatan, ELEn, irakurleria eskasa izateaz gain, eremuaren ekoizle nagusiak berak ziren hartzaile, sarrien.

Deskribaturiko bi distantzia molde nagusiek, beraz, ELEren ezegonkortasuna agerrarazten dute: biek literatur eremu funtzionaletan behar-beharrezko diren bi parte-hartzailearen arteko ezin ulertua eta harreman ahula ematen dute aditzera. Hala, bada, komunikazioa guziz akitzeko arriskua zen:

Idazle baten helburua izan daiteke, euskara edozertarako gai egitea. Oso ederki iruditzen zait. Eta horretara iritxi behar dugu. Baina idazle horrek noizentzat idazten duen ahaztu egiten badu, beharbada edozer gauzaz hitz egingo du; baina oso gutik irakurriko dute, hark hain ederki idatzi duena. (*Loc. cit.*)

Azkenik, aipaturiko lehen sintomaren eskutik, eta bigarrenaren haritik, literatur sistema baten funtzionatzeko behar-beharrezko diren parte-hartzaileen gabezia izan zen ELEren egoera ezegonkorraren eragile nagusi; kritikoen, erakunde nagusi finkatuen eta

arteko minoria batentzat egin dalakoan nago. [...] Danok dakigu euskal liburuak banaka ateratzen dirala. Gauza okerra litzake, urritasun hori ikusita, minoria batentzat egin izatea” (183: 6).

irakurleen gabeziak⁴⁵⁰ arazo sakonak sortu zituen, literatur eremuaren abiatze garaian. 1963ko Euskaltzaindiaren bileran gaurgero hasiak ziren gaiari zegokion garrantziaz ohartzen; hara zer zioen Juan San Martinek, gabezia horren eragileez⁴⁵¹:

Loyolan izan berri ditugu euskeltzale billerak. Aurtengo onetan, Euskaltzaindiak, euskal irakurleak geitzeko bideak aztartzea izandu bere oñarrizko gaia. Gai nekeza euskaldunen artean ondorio onik lortzeko.

Euskaldunak beti izan du irakurtzeko zaletasun gutxi. Gaitz hau, euskal literaturarentzat kaltean izan bada ere, ezta euskeraz bakarrik bertatzen dana. Erderaz ere ez baita larregirik irakurtzen. [...] Euskalerriko semeen izakerazko jokera bat da alde batetik. Beti praktikotasunari begira artea ukatu du gure erriak. [...] Bestaldetik, giro horren bultzadak [beti praktikotasunari begira izateak] edo eraginda, gurasoak ez dituzte beren semeak irakurle izatera beartu. Europako erri askotan familitik beartzen dituzten bezela. Jatorrizko tradizio ori falta degu irakurletzarako. (“Irakurleak urri”, *Zeruko Argia*, 1964, 83: 3)

San Martinen hitz horietan, batetik, gabeziaren bi jatorri nagusi azaltzen dira. Bertzetik, “bertzetasuna”, kasu honetan, ez da espainolekiko ezartzen, Europarekiko baizik; gisa horretan, “euskaltasunak” lukeen “izaerazko” alderdia Europarekiko alderatzean nabarmentzen da. Hala ere, aitzinago, testu berean, espainiarrekiko alderatzean, bertze alderdia nabarmentzera jotzen du idazleak:

Ibiñagabeitiak esaten du euskaldunak analfabetoak dirala beren izkuntzan. Ta egia da. Etzaio errazorik falta. Baña, erderaz geiago irakurtzen bada ere, ez geiegi. Irakurtzen jakitzea ezta naikoa irakurtzen ez bada. Maiz aditu degu arro xamar, Espainiako irakurleen nibelean aurreratuak gaudela. Eta uste faltsu orrek tristuratzen gaitu. Zergaitik, Europako edozein nazioaren atzekaldetik gaude, Iberian aurre xamar egonarren.

Hala, bada, irakurleen, kritikaren eta erakunde sarearen gabezia izan ziren eremuaren abiatzea guziz baldintzatu zuten premiak. Irakurleen beharrak faseak jasan zituen; guzien oinarrian, ordea, euskarazko testuak irakurri ahal izateko alfabetatze premia gailentzen zen. Ibon Sarasolak, harreman horretaz, literatura bi alderdi nagusitan

⁴⁵⁰ “Eleberri gutxi ditugulako al gaude irakurlez urri, ala, irakurle gutxi ditugulako ez dira idazten, idazten diran baiño eleberri gehiago? Ez bat eta ez bestea. Ez gaitzen isatsari ozka asi. Egilleak dakar egitea, baiña emen (idazleak eta irakurleak), danok bear dugu izan egille, gure euskal literatura gain-gora eramatea ba’da gure amets.” (J.A. Loidi, “Euskal nobela gaur”, *Zeruko Argia*, 1966, 200: 25)

⁴⁵¹ Honako irtenbidea emanaz akitzen du artikulua: “Gaur, al degunaren barnean, irakurleak ugaritzeko bideetariko bat, gauzak aliñ eta laburren eta garbien esatean dago. Eta ez, dotoretasun naian, idea lastoz estaliaz. Euskeltzaleen prejudizio gabe, euskaldunak irakurle egitera joan bear gera. Euskera gauzak esateko bidetzat artuaz” (San Martin, “Irakurleak urri”, *ibid.*, 1964, 83: 3). Proposatutako bidea, 60ko hamarkadan eta 70ekoaren lehen erdian, bederen, nagusitu zen kazetaritzaren idazte-dinamikara egokitzen zitzaien. Urteek aitzina egin ahala, ordea, erakarri beharreko irakurleria bertzelakoa zen, edota helburu nagusien asebetetzeak bertzelako idazte-irakurtze dinamikari egokitu beharra eskatzen zuen –bertzeak bertze, euskara idazmolde eta maila guzietara zabaldu beharra, adibidez–.

banatua zela agertzen zuen: kreatzailea eta “osterantzekoa”⁴⁵². Horien arteko kinka ageriko egin zuen Sarasolak: alfabetatzea eta euskara batua gehien lehentasuna izanik, literaturak beheiti egin zuen. Horren arrazoitzat, euskara batuaren kontuaz gain, guk hizpide izan ditugun problemak aipatzen zituen, preseski: irakurlerik eza, aldizkarietako giro txarra, eta abar⁴⁵³.

Beraz, irakurle gabezia⁴⁵⁴ kulturaren arloan aitzina egiteari atxikia ageri zen: “Euskerak idazleak behar ditu; baina irakurle masa haundi bat beharrago, idazten dena irakurria izan dadin, euskal liburuak Euskal Herriko zokondo guztietara hel daitezen, hitz batez, euskera kultura arloan landua izan dadin” (Gereño, “Euskal Literaturan behar duguna”, *Anaitasuna*, 1970, 192: 7).

Sorkuntzak aitzina egin ahala, kritika arituaren beharra hagitz agerikoa egin zen; izan ere, literatur eremuetan hartzailerik gabeko ekoizpena antzua den gisara, ekoizpen horren lantze kritikoa beregain hartuko duen aditu taldearen gidaritza behar-beharrezkoa da; bereziki, eremuaren sorkuntza garaietan –gabezia, behar eta hutsuneak bideratzen lagunduko baitu kritikarien lanak–. Hala agertzen zuen behar hori Juan San Martinek:

Bere funtsezko esentzian bat gatoz. Euskal literaturak egun hartu duen bidea, gaiak ugaltzea eta ideologia era guztietatik lantzea, hizkuntzaren eta beronen jabe den herriaren kultur iraupenerako eta politikazko etorkizunerako behar beharrezkoak dira. Herri baten kulturarentzat proiezio bakar hutsa bait da, luzera begiraturik, bere izate guztiaren galbidea.

Argi dago, kritiko premia handian gaudela, ni ere kritikotzat jartzen nautelarik. Horrela izendatze honek, beste gabe, kritika egitera behartzen nau; baina, alferrik nahi izan behar bezalako aburuak egitea, ez naiz sentitzen behar lukeen mailatik hartzeko ahalmenez. Parterik gehienean ados nator, batez ere argudioetan. Eta argiegi ikusten ez dudan zenbait puntu, egilearen beraren eta irakurlearen argibiderako adieraziko ditut. Inoiz egileari laguntzeko, eta hurrengo kontra egiteko. Hau bait da, Ibonek berean markatu dautan bidea. Beraz, bere baimena dut. (“I. Sarasola: Euskal Literaturaren Historia. Kritika solas”, *ibid.*, 1971, 216: 16)

Hainbat urte beranduago, Perugorriak Euskal Idazleen Elkarteak euskararen batasunean ardaztetik haratago joan behar zuela agertzen zuen; gainera, oinarri faltak

⁴⁵² Sarasolak mahai-inguru batean agertu zituen ideia horiek; Arrasateko Euskal Disko eta Liburuaren Azokan (1972-12-18, 19) bildu ziren: “Presidentzian, mahai luze batean, erreskadan, «mahai biribileko» hizlariak: Jose Luis Lizundia moderatzaile, Andoni Lekuona giputz apaiza, Jose Maria Satrustegi nafar apaiza, Juan San Martin eibartar idazlea eta Ibon Sarasola donostiar literatoa” (Angel Zelaia, “Euskal kultura mahai biribilean”, *Anaitasuna*, 1972, 226: 6).

⁴⁵³ Are gehiago, behin eta berriz *Anaitasuna* aldizkarian agertu den ideiarri eusten dio; hau da, Euskal Idazleen Elkartearen batasun arazoari begira sortu zelarik, ez ziola literaturari begiratu. Arestian aipatu dugun artikuluetarik batean, Xabier Kintanak ideia bera agertzen zuen (“Nori gabeko eskutitzak” atalean, *ibid.*, 1972, 235: 6).

⁴⁵⁴ “Euskal irakurleok, eskaraz idatziriko liburuak irakurtzen ditugunok, bakar batzuk besterik ez gara. Editorialen jokoak bada, elkarren arteko lapurketa bat dugu, nolabaitekoa bederen. Irakurle lapurketa: prezioak merkatuz, gai aproposak hautatuz eta seriozki ikertuz.” (“Antzar” sinadurapean, “Editorial etxeen arazoa”, *ibid.*, 1973, 253: 2)

beregainki lantzen zituen aldizkari nagusi baten beharra agerraraziaz: literaturaren estilistikaz ziharduten lanak, kritikaren arlokoak nahiz kreatiozkoak modu askean argitaratzearen behar larria agertu, eta irtenbide azkarra aldarrikatzen zuen (“Noizko euskal literaturlarien aldizkaria”⁴⁵⁵, *ibid.*, 1974, 270: 4). Izan ere, artean, euskal literatura euskara batuaren linguistikazko beharrak asebetetzeari makurtua zen, 1974an:

Ezin uka, euskal produkzioaren kurbatura gorantz doan arauera, kritik [sic] eskasia nabarmen bat ageri dela gutartean. Literatur arloa, beraz, ezin daiteke, “hizkuntza eredu bateratu eta gero”⁴⁵⁶ aztertzeke laga. [...]

Euskal Idazleen Elkartek du orain hitza. (*Loc. cit.*)

Azkenik, erakundeen gabezia aipa liteke literatur eremuetan parte hartu ohi duten partaideen arteko gabezia nagusietarik bat gisa. Hala atzeman zuten garaiko idazleek eta irakurleek, erakundeen beharra bi alderditarik baitzen garrantzitsu: lege babes eman zezakeelakotz eta balizko indar erakundetzailak literatur eremuko ekoizpenaren eta hartzaileen arteko harremana “egituratzen” lagun baitzezaketen.

Lehen alderdiak garaian bertan, testuinguruan, hartzen du garrantzia; erran nahi baita diktadurapeko nazio gutiratu baten testuinguruan hartzen duela bere egiazko garrantziaren zama⁴⁵⁷. Bigarrenak, ordea, egitura sistematizaturik gabeko literatur eremu baten beharrak azaleratzen ditu: irakurleria urri eta, gehienbat, hagitz definituarendako ekoizpenean indar erakundetzailak behar mailak asebetetzeko kanonak finka zitzaketen, baita arlo desberdinetan literaturak izan beharreko garapenaren gidaritzaz ere. Joan Mari Torrealdai, erakundeen lehen alderdi horrekin lotua, euskal kulturaren laguntza ofizialik eza agertzen zuen: “Laguntza ofizialik gabe, inongo erraztasunik gabe egiten ari da euskal kultura” (“Euskal kultura idatzia 1974”, *ibid.*, 1974, 288: 16). Segidan, EL Eren beharrak laburbiltzen zituen, non, liburu ekoizpenari zegozkion premiak eta egunkaririk gabeko kazetaritza izatea baitziren premia nagusiak. Halatan, euskal kultura idatziak aitzina egin ahal izateko behar-beharrezko lituzkeen aldaketak aipaturiko erakundeen arlora bideratu zituen, hein batean, eta horien zerrenda eginaz akitu zuen artikulua:

⁴⁵⁵ Artikuluan, kurioski, delako aldizkari horretatik abangoardiak agertuko zirela iragarri zuen Perugorriak, etorkizun hurbilean agertuko ziren literatur aldizkariaren izana asmatuz.

⁴⁵⁶ Kintanaren hitzak ditu ahoan.

⁴⁵⁷ Alfabetatzea oinarritzko pauso izanik, jasan zuen babes ofizial falta sarri ageri da aldizkarietan islatua: “Honetarako [euskara kultur eremuetara goititzeko] laguntza ofiziala ere behar dugu. Oso guti egin genezake, baldin agintariengandik ostopo besterik hartuko ez bagenu. Gaur arte, egia esan, nahiko urri eta ttipia izan da jaso dugun laguntza” (Karlos Agirre, “Hizkuntzaren alde egin beharko”, *Anaitasuna*, 1970, 201: 9).

- Instituzioa politikoei haintzat eta ontzat har dezatela euskal kultura, horretarako behar diren ekonomiazko laguntzak eskainiz.
- Kulturgintzaren planteamendu oso bat egin, jomugak eta bideak eta epeak ongi bereiziz eta xedatuz.
- Jendea libera, bai idazteko, bai itzultzeko, bai banakuntza sare bat sortzeko.
- Liburgintzaren planteamendu osoa egin.
- Unibertsitatea argitaletxeekin lan egiteko bidetan jar.
- Eta abar.

Hau da, eremuaren ordena eta hori egituratuko zuen indarren beharra islatzen ziren.

Denborak aitzina egin ahala, tesiaren hirugarren kapituluari ikusiko dugunez, babes instituzionala izan zen eremua egituratuko zuen parte-hartzaile multzoa finkatu ahal izateko oinarritzko sostengua; zehazki, botere politikoen gerizan, babes instituzionalek proposaturiko sistematik heldua: hezkuntzatik, preseski.

Beraz, ikusi dugu aldizkarietan islatzen ziren argitaletxeen problematikak, kulturgileen eta herriaren arteko distantziak eta hainbat parte-hartzailearen beharrak erakusten dutela ELEk 1960-1975 bitartean zuen ezegonkortasuna. Horiei 4.2. atalean solasgai izanen ditugun hainbat kontu gaineratuz gero, ELEren ezegonkortasunak bertze dimentsio bat hartzen du; kontuan hartzen badugu kantagintza literatur aritu aunitzen oinarri nagusietarikoak izan zela, eta literaturaren eta herriaren arteko zubi lana egin zuela, egonkortasun kontuak baino gehiago, ELEren sistema izaera bera hagitz zalantzan jartzeko arrazoiak agertzen dira.

Hirugarren kapituluari azalduko dugunez (6.1.4.), literatur eremuaren sistema izaera 1975etik aitzinako testuinguruan –elkarreragin eremuko kokapen berriak bideratua– izan zen, soilik, posible.

b.2. azpiatalean, ELEk komunitate moldaketaren lehen fasean zuen izaerari behatu diogu. Horretarako, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietako corpusa laguntza gisa harturik, eremuaren alderik ahulenak agertu, eta ondorio nagusi batera iritsi gara: komunitateak, 1960-1975 bitarteko fasean, lehen mailako premiak asebeste beharrak aunitz mugatu zituen literatur eremuak, eremu berezitu gisa, gara zitzakeen alde zehatzak.

Ondoko azpiatalean, aipatu berri ditugun ideiak kontuan izanik, komunitate beharren eta eremu garapenaren arteko harremanaz arituko gara, espresuki. Gisa horretan, eremuaren 1960-1975 bitarteko izaera nagusia aurkezteaz gain, izaera

berezituari dagokion alderdietarik bati ere erreparatuko diogu: literaturaren eguneratzeari.

4.1.3.c. Literatur eremuaren oinarriak, nazio garapenari lotuak: helburuak, elkarreragin eremuetako kokapena eta erakundeak

Euskal literaturaren eta nazio garapenaren arteko erlazioa aztertu nahi izan dugu aitzinataletan, eta eremuaren garapena nazioarenari lotua izan zela ohartu gara. ELEren garapena aztertzeke, ikerlana liburuez bertzelako corpusera bideratu dugu, gainera, eta 4.1.3.a. nahiz 4.1.3.b. azpiatalen azterketak helburu kolektiboak balioztatze prozesuetan eragile nagusiak izan zirela agerrarazi du; hala, literatur garapenaren isla izaniko aldizkariak ere ikertu beharreko corpus izan dira.

Komunitate garapenaren eta ELEren arteko harremanaren eragin osoaz kontziente izateko, ordea, komunitatearen lehen faseak euskal literaturaren garapen berezitan, espresuki, izan zuen eragina hausnartu beharko dugu; hau da, komunitate garapenak ELEren izaera berezituari zegokion eguneratzea nola baldintzatu zuen. Mugaketa zehatz horretaz ohartzeko, nazio garapenarekiko morrontza islatu zuten bi alderdi zehatzi erreparatuko diegu: (1) hizkuntza estandarraren hautatze prozesuari eta (2) literaturaren eguneratze bideei. Azken alde horrek aukera emanen digu, preseski, (3) ELEren garatze berezitua baldintzatu zuen eragile nagusiaren deskribapena, elkarreragin eremuko kokapenarenarena, txertatu eta azaltzeko.

(1) Hizkuntza estandarraren hautatze prozesua

Batetik, hizkuntza estandarraren eta estandarra izateko bidetik urrun zegoen lapurtera klasikoaren⁴⁵⁸ artean gertatuari beha dakiok; zehazkiago, hautatze horren borroka jasan zuten idazle nagusi zenbaiten garapenari. Jon Mirande 1975etik aitzinako abangoardiak arte guti baliotu ez izana, adibidez, adierazgarria da. Miranderen heriotzarekin, hainbat artikulua agertu ziren, *Anaitasuna* aldizkarian: heriotzaren berri eman⁴⁵⁹, eta haren marjinalitatea⁴⁶⁰ nahiz eragina agertzen zutenak. Xabier Kintana

⁴⁵⁸ “Krutwigen asmoek erreka jo zuten zenbait arrazoiengatik: 1. Hark proposatutako eredu kasik leizarragatarra jarraitzeko zaila zen; 2. Ez zuen obrarik argitaratua; eta erakusten zuen literatur ereduak ez zuen aski erakarmenik, eta 3. Ez zuen lortu kazetarik bere euskara eredu hedatzeko –saiatu zen *Gernikako* euskarazko artikulua «gidatzen», bere ereduaren arabera zuzentzen, baina huts egin zuen, eta gainera 1952an jada erbestera jo behar izan zuen, gorago agertu dugun arrazoiagatik, hots, Eliza Katolikoaren euskararekiko zabarkeria eta aurkakotasuna zorrotz salatzeagatik–.” (Sudupe 2011: 62)

⁴⁵⁹ Nahiz eta albistearen berri hilabeteko gibelatzearekin izan –Mirande 1972ko abenduaren 28an hil zen–.

(“Armendaritz”, “Jon Mirande hil da”, *ibid.*, 1973, 249: 6), Xabier Gereño (“Peillen eta Mirande”, *ibid.*, 1972, 237: 12)⁴⁶¹ eta Juan San Martinek agertu zituzten, bertzeak bertze, Miranderen aldeko idatziak. San Martinenak dira ondoko hitz argigarriak:

Idazle bakan honen lanek bizirik iraungo dute. Beste inori ez beste zor diogu gudate ondoreneko euskal literaturaren eragintzaren hastapena. Orduan hasi gineno, Europako haize berriak zekarzkiguten haren poesiek, haren ipuinek. Gure egoera itsuan, diktadura gogor baten menpean, literatur molde zaharregien gurpilean, aspaldi joanak zirèn⁴⁶² Lizardi eta Lauaxetaren imitatzaileren artean, ez zen hain erraza arnasa hartzea. Lizardi eta Lauaxeta gogoko bagenituen ere, hain landua utzi zigutèn alor berean, ezer berririk sortzeke jira-biraka zebiltzatenen erak hain ziren aspergarriak! Orduan, hain nekez eta isilka eskuratzen genituèn euskal aldizkariak, egarriaren egarritz laster irensten genituen. Gogoak bere bideak dituen, Jon Miranderen kezka eraginkorrek eskaintzen zigun zerbait. Inoiz, Iratzeder, Salvatore Mitxelena eta besteren batenak ziren pizgarri. Haik bai urte latzak, euskaraz kulturazko gaietaz idaztea arriskugarria baitzen! Gizaldi berrikoen artean gozoz irakurtzen genuèn idazlea zen Jon Mirande.

Era berrien hazi ereile izan genuen. Idazle bakan honek ipuin beltzak zituen gogoko, eta honetakoak lehen aldiz ekarri zituen euskal literaturaren alorrera. Baina bereziki poesian izan genuen eraginik handiena. Berak erakutsi baitzigun, formak eta esateko erak zutèn garrantzia. Gai biziak harturik eta era berriez baliatuz sortu zituen bere olerki atseginak. Egungo poesia berriaren iturriak hargan aurkitzen direla, lasai esan genezake. Honen berri ondo dakite Aresti, J. Azurmendi, J. M. Lekuona, Otsalar, M. Lasa eta gainerakoek, berok ekarri duten pizkunde berriaren iturburuetako bat Mirande zelako. Euskal literaturan toki berezi bat merezi du eta bertan bizirik iraungo du, euskara den arteraino, heriotzarekin baketu den gizonak. (“Jon Mirande joan zaigu”, 1973, 250: 3)

Idazlearen bertzelako ezaugarriek ere eragina izanen bazuten ere⁴⁶³, hizkuntza estandarizatuaren aldeko jarrerak ez zuen lagundu Miranderen arituarenganako jarrera laxatzen. Iduri du komunitatearen etorkizuna ziurtatzeak lagundu zuela jarrera

⁴⁶⁰ Miranderen lanak argitaratu beharraz: “Noizko Miranderen lan osoak?” (“Armendaritz”, *Anaitasuna*, “Gure Munduko Albistek” atala, 1973, 250: 7).

⁴⁶¹ “Dominique Peillen eta Jean Mirande, Parisen bizi diren euskal idazle handi bi. «Gauaz ibiltzen dana» (Peillenek *Kuliska Sorta-n*) eta «Haur besoetako» (Mirandek *Lur-en*), haiek argitaratu dituzten Liburu bakarrak. // Euskal letren berpizte honetan ez ditzagun ahantz, gure literatura goi mailako lanekin aberasteko gai diren idazle bi haiek.”

⁴⁶² Honakoa gaineratzen zuen zuzentzaileak, artikulua akieran: “Zuzentzailearen oharra: Artikulu hau irakurri ondoren, pentsa beza irakurleak, ez ote den mesedegarri, iraganeko zenbait aditz formatan azentu grabea jartzea”.

⁴⁶³ Ezin atzendu dira Miranderen idatziek euskal munduan sortu zuten inpaktua eta haren izaera polemikoaren itzala –paganismoaren gorazarrea, gaiak lantzeko zuen adierazkortasuna eta abar–. Hala zioen Xabier Kintanak, Miranderen heriotzaren berri ematen zuen idatzian: “Bizi zèn garaian, etorkizuna agian aleman nazien aldetik zetorkegulakoan, beste batzuekin batera, haien alde jokatu zuen, Euskal Herriaren ona lortu nahirik. Erljioz agnostikoa zen, eta Elizak Euskal Herrian egindako bidegabekeriak (gaur elizgizonek ere aitortuak) suminez salatzen saiatu zen; ez zuen horregatik kontrakar ttikia lortu sasoi batetako klerikalen aldetik! Parisen beste euskaldunek uko egiten zioten aspaldi honetan eta beronek euskal kultura alde batera uztera bultzatu; ez zuen horregatik utzi euskara, berak besterik esan arren, alde batera zokoraturik. Bere barneko egoera larri horren berri oso ongi ematen zeraukun, azken urteotan bidali zerauzkigun eskutitzetan. // Euskal Herriak idazle on bat galdu du” (“Armendaritz”, “Jon Mirande hil da”, *Anaitasuna*, 1973, 249: 6).

heterodoxoaren⁴⁶⁴ ikur izaniko lapurtera klasikoaren aldeko aritua marjinalitatean geratzen.

Nazio garapenaren aldeko morrontzak Arestiren literatur garapenean eragina izan zuen; bertzerik da eragin horren ondorioek literatur sorkuntza hobetu, edo garapen hagitik baliotsua bideratu ote zuten –lan honetan ez dugu halako juzgurik eginen, gure helburuetarako antzu baitira–. Lehen epealdian erabili zituen hizkuntza modua eta poetika birplanteatu zituen⁴⁶⁵, komunitatearenganako distantzia –hizkuntza, forma nahiz gaiei dagokienez– gutitu, eta komunitatearen beharrei egokitzeko.

Maldan Beherakoa ilun-argiz iritsi zaigun mintzoa dugu; poema horretan argi antsiak ez dira ilunbe eta itzaletik bereizten. *Harri eta Herri* eta ondorengo harri sailean ez dago ilunik, aurreko poemako laino eta itzalak argi bortitz eta kolorebakanekeo mintzo bilakatu baitira. Esan beharrik ez dago *Maldan Beherako* mintzo horren argia, leunagoa izan arren, koloreantza ere bazela eta, horregatixe hain zuzen, konplexuagoa eta ilunagoa ulermenerako. (Aldekoa 1993: 45)

Garbi dagoena da, bi poesia konbentzio ezberdini begira idatzitako poemak direla, eta nahitaez, eite ezberdinekoak ere izan behar. (*Ibid.*: 47)

Poesia sinbolistatik poesia sozialerantzako bide horrek euskal komunitatearen lehen behar maila oinarritzkoenaren asebetetzea izan zuen alderdi bulkatzaileetarik bat.

Ez zen, ordea, Aresti izan aldaketa horiek hautatu zituen egile bakarra; bertze idazle aunitzek ere apustu bera egin zuten: ulergarritasunaren izenean, jendearekiko distantzia gutitu nahian eta oreka komunikatiboaren mesedetan gertaturiko lerratzea izan zen. 60-70etako literatur norabideak komunitatearen behar maila oinarritzkoenak asebetetzen lagundu zuen.

Hain zuzen ere, premia horiek asebate beharra sumatzen zuten garaiko kulturgileek. Hala zioen Sarasolak, orduan egiten ari zen antzerkiaz:

Hamar urtetako isilgunea hautsiz gero 1946-ean hasi zen gerra ondoko euskal teatroa ez da oraino bizitze normal batetara heldu.

Isilgune honen ondoren, euskal teatroa gerra aurreko berbera da, tematikaz eta are kalitatez. Orduko azken urteetan hasi zen ohitura teatroa nagusitzen da orain. Alzagarena bezala, Labayen, Karraskedo, Monzon, Zubikarai eta gainerakoien teatroa, molde errazez baliatzen da, errazegiz, balioko obrak prestatzeko. Hauen teatroa, zaletasunik gabe urtean behin herriko festetan muntatu

⁴⁶⁴ Jarrera horren haritik zihoan idatziren bat ere, Txomin Peillenen aldekoa, agertu zen (Pariseko euskarazale batzuk, “Idazle marjinate baten defentsa”, *ibid.*, 1972, 235: 14).

⁴⁶⁵ “Euskal poesia berria finkatu zuen liburu hura [*Harri eta Herri*], sei poetaren lan isilak egin zuen posible: Iratzeder, Mirande, Azurmendi, Otsalar, Mikel Lasa eta batez ere Aresti berberaren aurreko lanak. Hizkuntza poetikoaren eraberritzea Iratzeder, Mirande eta Arestiren aurreko lanen ondorio izan zen” (Sarasola 1971: 85-86). Hala gaineratzen du, ideia horri dagokion oin-oharrean: “Zehazkiago mintzatzeko, Mirandek berriztapenaren parte bat egin zuen, purismoa bazterturik «hitzdi» dotore bat eraikiz. Arestiren lana askozaz ere inportanteago izan zen: hizkuntza poetikoa herriaren hizkuntza arruntaz baliaturik eraikitzea” (*ibid.*: 86).

ohi den teatro saiora joaten den publiko ezjakinari zuzentzen zaio, kapazitate kritikorik ez duelarik, barre egiteko prest edozein lelokeriaren zai dagoen jende esijenteari. Joera hau, egoera gaiztoa aldatzen saiatu beharrean, haren finkatzaile bilakatzen da, hots, autoreak honetaz ohartzen ez baziren ere, haien teatroa alienatzaile gertatzen da. Adierazten duten Euskal Herriaren (edo konkretukiago, euskal baserriaren) irudia faltso da zeharo X. Letek «Zeruko Argia»-ren 100-gn. numeroan zioen bezala. Alde honetatik ere gerra ondoko teatro aurrekoaren pare da, baina faktore larritzaile batekin: Herriak bizi duen egoerari buruz eskapismoko joera makur bat ezartzen duela.” (1971: 73).

Are gehiago, aritze horiek antzerkiaren garapenean muga zirela gaineratzen du, lana garapenik gabeko bidean biltzen zituztela: “Kalitateari buruz, publikoaren nahiz talderen aldetik nabari den egintza kritiko baten eskasiak, «arrakasta» giro oker bat sortzen du obren inguruan, azken finean teatroaren beraren kaltetan gertatzen dena” (*loc. cit.*).

(2) Literaturaren eguneratze bideak

Bertzetik, euskal literaturaren eguneratzea⁴⁶⁶ lortu ahal izateko behar –eta eskatzen– ziren aldaketek agerrarazten dute literaturaren abantzuak komunitate garapenarekiko izan zuen morrontza. Euskal komunitatea egoera garaikidera egokitzeak eta etorkizunerako trebatzeak nahiz aberasteak ezinbertzean behartzen zuen literatura aldaketa eguneratzaileak jasatera. Eguneratu behar horren gibelean, preseski, euskal komunitateak elkarreragin eremuan zuen kokapenaren eragina zen; Thompsonnek balioztatzeen eragiletzat identifikatzen duen bigarren alderdiaren garrantzia nabarmentzen da: euskal komunitateak, estatuarekiko zuen harremanaren ondorioz, elkarreragin eremuan zuen kokapenak guziz baldintzatu zituen Balioztatze Prozesu Nagusia nahiz honen eraginpeko azpieremuen balioztatzeak.

Literaturan forma eta edukietan izaniko aldaketak –gai berrikuntza, tradizioaren berrinterpretazio funtzionala, forma irakurleri berria zain zenera egokitzeko ahalegina–

⁴⁶⁶ “Euskal literaturan banakaren bat izan dira beren mendean ondo finkaturik jardun diranak ; [*sic*] gutxi batzuk aurrerapenaren bidetik joan diranak ; [*sic*] ta gure literatura iñork aintzakotzat artu ez badu, egon seguru ori izan dala errazoi nagusia. Beraz, gaurkotasunezko lanetatik urri gabiltzala aitortu bear” (San Martín, “Gure literatura. Gaurko egoera etorkizuneruntz begira”, *Zeruko Argia*, 1966, 200: 3”). Salbuespen gisa aipatzen ditu: poesian, Lizardi eta Lauaxetaren ondotik, ekialdeko Iratzeder eta Mirande, “zerbait arnasa” eman zioten S. Mitxelena eta N. Etxaniz, baina, bereziki, Aresti (*Harri eta Herri*, 1964) eta haren ondoko X. Lete, I. Sarasola, J.M. Lekuona eta J. Azurmendi; saiakeran, S. Mitxelenaren *Unamuno ta abendats* (1958), Villasanteren *Kristau fedearen sustraiak* (1962), Jakin Taldearen *Europa* (1965), S. Onaindiaren *Gure bertsolariak* (1964) eta, bereziki, Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz* (1965); antzerkian, eragile nagusiaz –Arestiz (*Mugaldeko Tobera*, 1961; *Etxe aberatseko seme galdua*, 1962)– gain, Xalbador Garmendiaren *Historia triste bat* (1964); nobelan, polizia nobelaren bidean, Loidiren *Hamabost egun Urgainen* (1955) eta Izetaren *Dirua galgarri* (1962) lanez gain, Erkiaga eta Peillen aipatzen ditu, eta, bereziki, Etxaide Itharte (*Joanak-joan*, 1955) eta Txillardegi (*Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957); akitzeko, ipuinetan, ezagutzen zuen garrantzizko bakarra Jean Etchepareren *Mendekoste gereziak eta beste* (1963) omen zen. Behin baino gehiagotan izan zuen hizpide eguneratze beharra (“Bearrezko gaurkotasuna”, *ibid.*, 1964, 60: 3).

euskaldun garaikide(potentzial)ari⁴⁶⁷ –irakurleria horren egoera garaikideari– egokitzeko ahaleginaren ondorioz sortu ziren. Literaturak, 60en hasieran, uztartzeko zail ziren bi alde bateratu behar izan zituen: komunitate behar kolektiboei lotua izan behar zuen, eta proiektzioa nahiz segida⁴⁶⁸ sostengatuko zuen aritua eskaini.

Euskal komunitatearen duintze beharra asebetetzeak eskatzen zuen alderdi nagusietarik bat honakoa izan zen: diktaduraren itxitasunarekin, klaustrofobiarekin eta marjinalitate kulturalarekin akitzea. Hala zioen San Martinek: “Aurreruntza zer egin? Etorkizunera begira lana egin nahi duanak, aipatutako lanak⁴⁶⁹ ezagutu bear ditu. Era berriko idazle geiagoren premian gaude. Joandako urak ez du errotarik mugitzen” (“Gure literatura. Gaurko egoera etorkizuneruntz begira”, *Zeruko Argia*, 1966, 200: 3). Horretarako, EL Eren garapen berezituari loturiko bi prozesu ziren ezinbertzeko: kanporaginak hurbiltzea eta, bereziki, eragin horiek euskal literaturak beretzea eta eraginkor bihurtzea. Gisa horretan, euskal literaturaren duintzea bikoitza izanen zen: “barrengoendako” nahiz “kanpokoendako” duina bihurtuz, “bertze”ekiko parekagarria eginaz.

Baiña, gure iritziaz gaiñera, ardaldunen iritzia nai nuke nik jakin; ia gure eleberriak, beste izkuntzetara itzuli ta beren lanen ondoan jarriaz zer mailletan geratzen diran. Saio au egiteko, jakiña!, gaiaz aberatsak diranetatik asi bear ko genduke, lotsagarri geratu ez gaitezen; gaiari begiratuko bait’diote geien erdal-irakurleak. Orduan jakingo genduke ziur kukurrukuka asi gintezken gure eleberri-soroan. Ez bait’litzake bidezko gure eleberriak euskeraz daudelako bakarrik, irakurtzeko eskatzea. Berez, bere edertasunez, eta bere gaiaz batez ere, bear bait-dut sortu gure eleberriak irakurleen artean, “gure euskera gaixoa” lantzeko asmo bakarraz, euskal-irakurtzeko irrika. (J.A. Loidi, “Euskal nobela gaur”, *ibid.*, 1966, 200: 15)

Hitzotan, elkarreragin eremuko kokapenak kamusturiko bideetarik bat islatzen da: itzultzaile sistema garatzeko hizkuntza lanketa, ezagutza eta trebatzea, urtetan zehar debekatua izanik, nekez gara zitekeen, ordura arte, itzulpengintza sistema sendorik. Tesiaren hirugarren kapituluaz azalduko dugunez, itzultze zerbitzuaren garatze eta finkatzea erakundetze prozesuarekin heldu ziren, komunitateak abiatu baitzuen, 1975etik aitzina, elkarreragin eremuko kokapen mendekoa bihurtzeko prozesua.

⁴⁶⁷ Potentziala, artean finkatu gabeko eraikitze, erabakitze, moldatze eta barreiatze prozesuan murgildua baitzen gizartea, eta, beraz, hagitik moldagarria zen berrinterpretazioa gertatzen ari zen, euskal identitateari dagokionez.

⁴⁶⁸ Etorkizuneko proiektu komuna izatearen indarra aipatu dugu, aitzinez (2.2.2., “Denbora”).

⁴⁶⁹ Ikus 466. oin-oharrean bilduriko artikulua zatia.

(3) Elkarreragin eremuko kokapena

“Bertze”ekiko parekagarri bihurtze horretan, Balioztatze Prozesu Nagusiaren aitzineragina ezinbertzekoa izan zen: prozesuarekin abiatutako moldaketak estatuarekiko erlazioak kamusten zituen bideak bertzela aitzinatzeak aukera eman zuen. Hau da, estatuarekiko kokapenaren eraginez, “bertze”engandiko duintasuna garatzea ezinezkoa zenez, harreman eremu horretatik kanpoko ahaleginak ahalbidetu zuten literaturaren duintze bikoitza: barnetiko nahiz kanpotiko duintzea⁴⁷⁰. Bertzela erranda, Balioztatze Prozesu Nagusiak ireki zuen komunitateak elkarreragin eremuko kokapenetiko mugei –nahiz horien ondoriozko ezintasunei– aitzina egin ahal izateko bide paraleloa.

Beraz, bide paralelo horren gauzapenean, gakoa Thompsonen balioztatze prozesuen eragile nagusietariko gisa aipatzen zuen elkarreragin eremuko kokapena da. “c.3. Baliabide sinbolikoen baldintzatzaileak (egokitze teorikoa)” (3.1.3.) azpiatalean, eremu horri dagozkion bi alderdi nabarmentzen genituen. Batetik, elkarreragin eremuetako kokapenak balioztatze prozesu oro eragin, eta, bereziki, balioztatze sinbolikoak eremu horietako kokapenarekin zuen erlazioa (Thompson 1990: 157-158) azpimarratzen genuen; gainera, balioztatze sinbolikoak erabiliriko estrategiak eta horiek elkarreragin eremuetako kokapenarekin zuten harremanaren sailkapena (*ibid.*: 158) biltzen genituen. Bertzetik, azalpen horren euskal interpretazioa eginaz, zehazten genuen euskal komunitatearen eta estatuaren arteko harremana, 1960-1975 bitartean, mendeko kokapenean oinarritua zela, elkarreragin eremu horretan.

Thompsonen hitzak literaturaren eguneratzea baldintzatu zuen duintze bikoitza azaltzeko dira, bereziki, erabilgarri. Erabilgarritasun hori ondoko hitzetatik heldu da: “Subordinate positions within a field are those which offer access to the smallest quantities of capital of differening kinds. The individuals in these positions are those who are least endowed with resources and whose opportunities are most restricted” (*ibid.*: 160). Izan ere, hitz horiek euskal komunitatearen eta, bereziki, euskal literaturaren garapen berezitua baldintzatu zuen alderdi nagusi bat argitzen dute: euskal literaturaren garapena, 1960-1975 bitartean, elkarreragin eremuko kokapenak baldintzatu izan zen; zehazki, mendeko kokapenak komunitateari eskaintzen zizkion

⁴⁷⁰ Barne-balioztatzeak –endozentrikoak– eta kanpo-balioztatzeak –exozentrikoak– duten garrantziaz arituko gara, polikiago, 1975etik aitzinako ELE lantzen dugunean (7.1.2., b.1.).

aukerak baldintzatua. Balioztatze Prozesu Nagusiak aukera horien gabeziari bilaturiko bide paraleloa lagundu zuen.

Thompsonen ideia euskal komunitatearen eta EKEren, nahiz azpierzemuen, azterketara moldatzeko, ondoko egokitzea egin dugu: elkarreragin eremuetan mendeko kokagunean diren komunitateek kapital motak eskuratzeko parada guti dute, eta, baliabide gutiz dohatuak direnez, kideen aukerak murrizak dira. Hala, bada, 1960-1975 bitartean euskal komunitateak estatuarekiko elkarreragin eremuan zuen kokapena mendekoa izaki, bi ondorio nagusi izan ziren. Batetik, kostata aitzinatzen zen barne-balioztatzearendako beharrezkoa zen duintze prozesua; Balioztatze Prozesu Nagusiak irekiriko bide paraleloak ahalbidetu zuena. Bertzetik, ezin gara zitekeen balioztatze sinbolikoaren bulkadarako bertze alderdia: duintasun bikoitzaren “bertze” horretatikoa, kanpotikoa⁴⁷¹.

Balioztatze sinbolikoaren gibeledako estrategia nagusiak identifikatzeko ere, Thompsonen erranak egokitu behar izan ditugu. Kokapen mendekoan diren balioztatze sinbolikoak “practicality”, “respectful resignation” edota “rejection” estrategiek ezaugarritzen dituztela zehazten du adituak. Alabaina, 1960-1975 bitartean euskal komunitateak –eta EKEren baitako azpierzemuek; beraz, ELEk ere– jasaniko balioztatze sinboliko nagusia bertzelako ezaugarri berri nabariak bulkatu zutela sumatu dugu. Zehazki, ELEk jasaniko balioztatze strategiak ulertzeko, ezinbertzean erreparatu behar izan diogu estrategien eta komunitateak elkarreragin eremuan zuen kokapenaren elkarreragina argituko duen alderdiari: *continuum* iraultzaileari⁴⁷².

Euskal komunitatea –elkarreragin eremuan mendeko kokapenean izanagatik– jarraitutasun iraultzailean izateak ahalbidetu zuen 60ko hamarkadan abiatu zen balioztatze sinboliko nagusiaren indar zabal eta azpierzemuz azpierzemukoa. 60-70etako kultur moldaketa ezin gauza zitekeen jarraitutasun iraultzaileak berezkoak dituen aldakortasun eta aldaketa giro nahiz ekimenik gabe.

Euskal literaturari dagokionez, elkarreragin eremuko kokapenak eskuragarri jartzen ez zituen kapital eta baliabideen gabezia jarraitutasun iraultzaile horren bulkadak lagundu zuen: estaturik gabeko komunitate azpiratua izaki, balioztatze prozesu paraleloa, barneko duintze prozesutik heldu zena, abiatu zen. Beraz, *continuum*

⁴⁷¹ Tesiaren hirugarren kapituluaren ikusiko dugunez (7.1.2.b.), komunitateaz kanpoko duintzeari dagokionez, literaturan inflexio puntua *Obabakoak* liburuarekin heldu zen.

⁴⁷² Tesiaren hirugarren kapituluaren, komunitatearen errealtate diakronikoa aztertze bide gisa, *continuum* motak proposatu ditugu. Segidan informazio gehiago behar duenak jo dezala 6.1.2. atalera.

iraultzailearen baitako errealitatean murgilduak izateak ahalbidetu zuen elkarreragin eremuko kokapenaren eraginez ezinezkoak ziren aitzinatzeak, balioztatzeak, bertze bidetik gauzatzea. Elkarreragin eremutik literaturara ezin heldu zen asebetetzea bide paralelotiko balioztatzeak ahalbidetu zuen. Egin kontu ELeren garapenerako zentsura formal nahiz edukizkoek eta egitura nahiz erakunde propioen garapenerako mugek literaturaren garapen berezitua kamuts utzia zutela, 60ak arte; hala, bada, hamarkada hartan abiatutako jarraitutasunak elkarreragin eremuak bideratzen zuen egoeraren alderantzizkatzea ekarri zuen: literaturaren garaikidetasuna eta errealitate zabalean jarduteko erabilgarritasun funtzionala bilatzen zituen aldaketa.

Bide horren logika *continuum* iraultzaileak soilik argitzen du; kontrara, elkarreragin eremuetan mendean direnek erabili ohi dituzten estrategiek (1.2.3., b.2.) ez dute, euskal komunitatea kokapen horretan izan arren, 60-70etako Balioztatze Prozesu Nagusia azaltzen. Hori dela eta, Thompsonen erranei *continuum* motaren aldagaia gaineratu behar zaiola uste dugu. Hobe erran, ikerlariak erranek komunitate dinamikak kontuan hartzen ez dituztenez, jarraitutasunaren baitako dinamikak azalpenetik kanpo geratzen dira; hori dela eta, Thompsonek erranak egia badira ere, behar-beharrezkoa da erreferentziazko komunitateak testuinguru zehaztuta duen dinamikari behatzea. Bertzenaz, finko gisa atzeman daitezke balioztatze sinbolikoak eta elkarreragin eremuetako kokapena elkarreraginean, hain zuzen ere, islatzen duten errealitateak.

Berriz ere literaturara espresuki hurbilduz, aipatu egoerak euskal literaturaren eguneratzea guziz baldintzatu egin zuela sumatzen da: elkarreragin eremuko kokapenaren ondorioz, komunitate barreetik beretik hornitu behar izan zen euskal komunitateak zuen baliabide urritasuna. Hau da, ELeren eguneratzea heldu zen, soilik, estatuaren mugak –dela komunitateari egokituriko erakundeak ezin antolatuagatik, dela errepresio bide nabariagatik edota legeen bide “arautuetatik”–, Thompsonen hitzetan baliabide eta aukera murrizketak lirakeenak, jasaten zituzten argitaletxe, aldizkari, liburu eta ekimenetatik.

Literaturaren garapen eta eragin gibelatua agertzen dute, erraterako, Arestiren *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967) eta *Harrizko Herri Hau* (1970) liburuek jasaniko zentsurak⁴⁷³:

⁴⁷³ “1960 eta 1961 artean, Arestik Joan eta Mirenen [*Maldan Behera*] historiaren ustezko hasiera argitaratzen du, eta zentsuragatik (eta ez Mitxelenak ironiaz zioen bezala, bertsoak gaizki neurturik zeudelako) zati batzuk baino ez dira agertzen *Zuzenbide debekatua* izenburuarekin; frankismoaren kontrako jarrera nabaria da, betiere literatura gailentzen zaiolarik. Lana 1985ean argitaratu zen osorik.”

Euskal Harria-k zentsura latza jasan zuen, ehun eta hogeiki olerkitatik hirurogeita hamar soilik argitaratu ahal izan baitziren (1986 urte arte ez zuen argitaratze osoa ezagutu). Eta azken liburuan, *Harrizko Herri Hau*, bigarrenean zentsuratutako hainbat olerki ezagutzera eman zituen Arestik, [sic] hori-dela eta nahiko anakronikoa gertatzen da. (Ornoz 2011: 77)

Eragin eguneratzaile gibelatua izan zen, hain zuzen ere, errepresio mugatzaile horren, zentsuraren⁴⁷⁴, ondorio; adibide aunitz dira gibelatze horren erakusgarri: JosAnton Artzeren *Laino guztien azpitik* (1973) nahiz *Eta sasi guztien gainetik* (1973), Saizarbitoriaren *100 metro* (1976) –1973rako akitua izan arren, 1976ra arte gibelatu zen argitalpena–, eta abar⁴⁷⁵.

Hala agertu zen, *Anaitasuna* aldizkarian, JosAnton Artzeren bi liburuen berri ematen zuen albistearen oin-oharrean: “Oharra: Azken orduan jakin dugunez, J. A. Artzeren liburu hau poliziak bahitua izan da, bai liburudendetan⁴⁷⁶ eta bai egileari zuzenik eskatu ziotenen etxe guztietan ere” (“Armendaritz”, “«...laino guztien azpitik...», «...eta sasi guztien gainetik...»: J. A. Arze eta J. L. Zumeta”, 1974, 268: 6).

4.1.3.c. azpiatalean, literaturaren eta nazio garapenaren arteko harremana agerrarazten duten bi alderdiri erreparatuz abiatu dugu azterketa: hizkuntza estandarraren eta literatur eguneraketaren bideek lagundu dute komunitate garapenak ELEn izan zuen eragina

(*Euskal Literaturaren Hiztegia*, Arestiri dagokion sarrera, Jon Kortazar, <http://www.ehu.eus/ehg/literatura/>)

⁴⁷⁴ Gainera, maila desberdinetatik eragiten zuen zentsurak: “Zentsurak izugarri mugatu du euskal produktzioa. Mugatze hori neurtzea oso zaila da. Ondorio horiek ez dira kuantifikatzen, ezinezkoa delako. Zentsuraren ondorio larri bat autozentsura da. Autozentsura ikaragarria egon da. Gu guztiok ezagutu dugu. Horrela idazleak zerbait idazteko orduan pentsatu behar zuen idatzi behar zuena aurretik beste norbaitek onartu behar zuela, eta idatzitakoaren arabera, zigor bat jaso zezakeela. Hori dela eta, idazteko orduan, guk beti zentsuratzaile bat genuen aurrean. Autozentsurak ikaragarri mugatu ohi du idazlea. Orduan, frankismoaren garaian eztabaida politiko, ideologiko eta kulturala ezabatuta geratu ziren, ezin baitzen horiez hitz egin. Beraz, pobretze handia, basamortu kulturala ekarri zuen zentsurak. Hori 40 urtetan baino gehiago eman zen, ez bakarrik liburugintzan, baita komunikabideetan ere. Gero kontuan hartu behar da, euskarazko kulturak beste traba batzuk ere bazituela. Izan ere, edukiaz gain hizkuntza bera ere zentsuratu zen” (Ainhua Irazuk, 1999an, J.M. Torrealdaireginiko elkarrizketa, *Euskonews&Media* webgunea).

⁴⁷⁵ Aipaturiko hiru idazleek jasan zuten zentsura adibide zenbait bildu dugu, B eranskineko “4.1.3.c. Zentsuraren islak” atalean.

⁴⁷⁶ Hala zioen María Dolores Arbelaizek, Manterola liburu dendako –1955ean, Donostian, irekia–arduradunak: “Guk ez genuen behin ere jakin nork esaten zien etortzeko, baina etortzen ziren. Norbaitek esaten zien. Salatariren bat zegoen. Eta etorri egin behar! Hemen bazen inspektore bat, gure aitak lehenagotik ezagutzen zuena, Librería Internacional-en garaitik. Nik ez dakit historia osoa, gure aitak ez zigun eta horretaz askorik hitz egiten. Denbora pasa eta norbera konturatzen da nola ziren gauzak. Tira, inspektore harena ere xelebrea izan zen: behin, Artzeren liburuak bahitzera etorri zen. *Sasi guztien gainetik* eta *Laino guztien azpitik*. Bada, inspektore hura bera, erretiratu eta gero, askotan etortzen zen hona, euskal liburuak erostera. Ez zekien euskaraz, baina euskal liburuak maite zituen, benetan. Egunkari zaharrak, aldizkariak eta liburuxkak irakurtzea gustatzen zitzaion”; “Zer zeukaten Artzeren liburuek? Zergatik bahitu?” “Oso arraroak zirela, besterik ez. [...] Horrek adierazten du zer zen garai hura. Artzeren liburuak? Poesia abangoardista, ulertzen ez genuena. Ez genuen gaztelaniaz ulertzen, eta are gutxiago euskaraz” (Miel Anjel Elustondok María Dolores Arbelaizari, 2006an, *Argian*, eginiko elkarrizketa).

irudikatzen. Bigarren erakusgarriaren lanketak ahalbidetu digu kultur eremu zabala –ELEz gain– goitik beheitera baldintzatu zuen alderdi nagusietariko batean sakondu ahal izatea: euskal komunitateak estatuarekiko elkarreragin eremuan zuen kokapen mendekoak guziz baldintzatu zuen Balioztatze Prozesu Nagusiaren garapena.

Thompsonen elkarreragin eremuen eta balioztatze sinbolikoen artean identifikatzen zituen estrategia nagusiei, ordea, zehazte garrantzitsua egin beharra sumatu dugu: erreferentzia nagusia komunitate bat izanik, kide talde horrek jarraitutasunean zuen dinamika motari, *continuum* motari, espresuki erreparatu behar zaiola ohartu gara.

Halatan, euskal literaturak 1960-1975 bitartean jasaniko balioztatze sinbolikoa –elkarreragin eremuan komunitateak zuen kokapen mendekoaren ondorioz– *continuum* iraultzailearen eraginpean izateari eskerrak gauzatu ahal izan zen; gainera, ELEren garapenean eta duintzean nahiz balioztatze bide paraleloan oinarri izan zen jarraitutasun hori.

4.1.3. atalean ikusi dugu literaturak, kultur moldatze nagusiaren baitan, garaturiko funtzionalitateak eta eremuaren beraren eraikuntza bideek bihurtu zutela ELE nazioaren garapen beharrei erantzuten zien eremu. Beraz, 1960-1975 bitartean euskal literaturak jasaniko “askapena” orain arte egin dena baino gehiago zehaztu beharko litzateke: ELE, euskal ikuspegi eta errealitate tradizionalen helburu, forma, irudi eta forma sinbolikoetatik askatua izanagatik, nazioaren eraikuntza prozesuari guziz atxikia izateaz gain, haren mesedetan garaturiko eremua izan zen, 1960-1975 bitartean.

Aldizkarien arakatzean ikusiek (4.1.3.b.) eta segidan den 4.2. atalean azalduko direnek literatur belaunaldi berria nazio garapenarekiko mendekotasunean zela agerrarazten dute, eta, beraz, literaturaren garapena bertze arloen meneko gisa aurkezten. Horren ohartzeak ez du tesi-literatur lanen akiera izan zenik ukatzen; nolana ere den, horrek egiazki 1960-1975 bitartean euskal literaturaren egoera, funtzionalitatea eta eremuaren izana nahikoa agertzen ez dutela iritzirik, espresuki agertu nahi izan ditugu eremuaren izaera berezitutiko abantzuak, moldaketaren lehen fasean, jasan zituen zailtasunak (4.1.3.a.). Zailtasun horien gibel-eragile nagusietariko batez, elkarreragin eremuko kokapenez, aritu gara, hondarreko azpiatalean (4.1.3.c.).

4.1. atalean, 1960-1975 bitarteko euskal literaturaren eta kultur moldaketaren arteko harremana deskribatu dugu. Horretarako, aitzinez kultur moldaketa nagusian gertatzen ari zirenei buruz erranak ELEren garapenera hurbildu ditugu; literaturak EKEren moldatze nagusian izaniko eraginari erreparatu diogu; gainera, ELEren garapena deskribatu nahi genuenez, eremuaren egoera eta aitzinerako bidea agerrarazten zituzten aldizkariari behatu diegu.

Horiek guziak kontuan izanik, hiru ondorio nagusitara iritsi gara. Batetik, euskal literaturaren indarberritzea kultur saiatze nagusian babestu zela ikusi dugu. Euskal komunitateak, duintze prozesuaren lehen aldian, jarraitutasun sinbolikoa izan zuen iraganarekiko harremanean ardatz nagusietarik bat; kultur moldaketa nagusian iragan bateratuarekiko lotura, hein batean, alderdi sinbolikoak sostengatu zuen. Sostengu horren tresna garrantzitsuak izan ziren ondarean pilaturiko irudien sinbolizatze prozesua nahiz sinbolizatze horren bermatzea. Berme emate horretan, preseski, euskal literaturak esku-hartze garrantzitsua izan zuen, komunitatean barnako zabalkuntzaren zati bat euskal literatura nahiz euskal literaturarekin harreman estuan ziren kulturgileak direla medio gauzatu baitzen. Tesiaren hirugarren kapituluan, hain zuzen ere, alderdi sinbolikoaren indarra komunitatearen baitan mantendu ote zen begiratuko dugu; hala nola, funtsezkoa izanen da ez bakarrik jarraitutasun sinbolikoari, baizik eta gune sinbolikoak 1975etik aitzina izan zuen presentziari ere, erreparatzea.

Bertzetik, ELE komunitate garapenari hagitz atxikia izan zela baieztatu dugu: komunitatearen beharrak eta behar horien garrantzia mudatu ahala, ELE finkatu gabea ere aldaketa horiekin bat heldu zen. Duintasun oinarritzkoa asebate ahala, etorkizuna bermatuko zuten aldaketak izaera autonomorik gabeko kultur azpieroan abiatu eta partekatzen zirenez, maila bateko pausok urrats parekidea zuten bertzean. Erran nahi baita moldaketa nagusian pentsatuek ELEn isla parekidea, eskutik zihoana, izaten zutela. Errate baterako, ELEn parte-hartzaile multzo nagusietarik bat, irakurleria, sortu eta bereganatu beharrak ikusi dugu euskara batuaren beretze eta finkatzea izan zuela makulu. Hortaz, momentura arte, bederen, tesiaren hasieran buruan genuen hipotesia baieztatu ahal izan dugu.

Akitzeko, egitura erakundetzailerik ez izateak kulturgileei rol eta lan desberdinak izateko aukera biderkatu zien: sarri, bertzelako egoeretan erakunde ofizial liriatekeen lana bete zuten. Aldiz, tesiaren hirugarren atalean ikusiko denez, kultur azpieroak izaera berezitua bereganatu ahala, rolak espezifikokoak izan ziren; ELSn, kasu,

baliabide sinbolikoen erakundetzeari lotuagoak izan zirela azalduko dugu; literatur tradizioaren kanonizazioaz arituko gara, espresuki.

4.2. Kultur moldaketa, komunitate garapenaren eskutik: M. Laboa, baliabide sinbolikoen birmoldaketan, aitzindari

Atal honetan, espresuki izanen dugu kontuan Mikel Laboak, kultur moldaketan, izan zuen parte-hartzearen dimentsio bikoitza: eskainiriko lana kolektiboki ezagutu, egiaztatu nahiz definitu zuen kulturgilearena eta ekarri hori bereganatu zuen komunitatearena.

Horrenbertzez, fokua Laboaren kantagintzan jarri arren, HEHn, 60etatik aitzina, izaniko ekimen nagusia izanen dugu hizpide: euskal ondare kulturalaren birmoldatzea eta haren pertzepzioa. Kantariaren lanari perspektibaz eta euskal gizartearen moldatzearekiko harremanean behatzeko, hari nagusi bat finkatu dugu: ahozkotasunetik hurbileko aritua. Hortaz, bigarren kapituluan zehar solasgai izan dugun baliabide sinbolikoari eutsiko diogu, tradizioari; gainera, AOKn gauzaturiko tradizioaz arituko garenez, hirugarren atalean zehar azalduak hagitz lagungarri izanen dira.

Ez dugu, beraz, Laboaren ibilbidea laburtuko, ezta Euskal Kantagintza Berria nahiz beragandik sorturiko ekimen nagusiarena ere; aitzitik, 1960-1975 bitarteko moldaketaz erran ditugunak aritu espezifikoko baten baitan aztertuko ditugu. Gainera, kantariak eginiko ekarri banakoaz xehetasunak emanen ditugu; izan ere, 1975etik aitzinako fasean gailendu ziren beharrak asebetetzeko eskaintza lehenagotik egin baitzuen Laboak.

Ideien segida bi atal nagusitan banatu dugu. Lehenean (4.2.1), Laboak 1960tik aitzinako moldaketa nagusian izan zuen bidea ulertzeko tresnak eskainiko ditugu. Batetik, abiapuntu teorikoari eta testuinguruari dagozkien datu nagusiak zehaztuko ditugu (4.2.1.a.); bertzetik, kantariak AOKren moldaketa nola gauzatu zuen aztertuko ikertu dugun corpusaz arituko gara (4.2.1.b.). Bigarren atalean (4.2.2.), ordea, ondare moldaketaren azterketa zehatzari ekinen diogu. Kantariak AOKrekin lortu zituen birgaitzei behatuko diegu: AOKren balioztatze funtzional nagusiaz gain (4.2.2.a.), balioztatze horrek abangoardiazko arituekin zuen harremana ikertuz, abangoardiazko erabileraren birgaitze bereizian sakondu ahal izanen dugu (4.2.2.b.).

Horretarako, aitzinez hizpide izan ditugun hainbat ideia berrerabiliko ditugu: Laboaren kantagintza analizatzeko tresna nagusiak izanen dira AOKren

funtzionalitatez (3.1.3.a.), funtzionalitate horien berriztatze paraleloez (3.1.3.b.) eta oreka komunikatiboaz (3.1.4., b.2.) erranak.

Gisa horretan, euskal kultur moldaketari maila zabal eta zehatzean eginen diogu erreferentzia. 4.2.1. atalean, kultur moldaketaren izaera nagusiaren erakusgarri diren hainbat ideia Laboarengan nola gauzatu ziren ikusiko dugu; aldiz, 4.2.2. atalean, orokortasun horretan Laboak AOK nola birgaitu zuen ikusiko dugu. Hala, testuinguru zabalenetik fokua gero eta gehiago hertsituz, kantariak AOKren birmoldatzeari eginiko ekarpen pertsonala, bertze kulturgileengandik bereizita, agerraraziko dugu.

Giroaren mamitze izaki, Laboaren kantagintzako corpusa eta haren funtzionalitatea garaiarekiko elkarreraginean sumatzeko moduan harilkatu ditugu. Hala, bada, corpusaren izanaz gain, ondarearen funtzionalitate desberdinei buruz orokorrean aritu garelarik, adituen lanak eta garaiko aldizkarietako idatziak hagitz baliagarriak izan dira. Hartara, Laboaren aritua garaiko kultur moldaketa nagusiaren baitan kokatu arren, ez dugu bere indibidualtasuna atzendu.

4.2.1. AOK birgaituaren ulermenerako arrastoak

Segidan, Mikel Laboak AOKn bilduriko tradizioa nola moldatu zuen ulertzeko tresna nagusiak eskainiko ditugu. Hasteko, tesiko lehen nahiz bigarren kapituluetan agerturiko oinarri teoriko erabilgarrienen laburpena eginen dugu (4.2.1.a.): aitzinez agerturiko ideia teorikoek (“1. Oinarri teorikoak”) kantariaren moldaketa ulertzeko laguntza eskaintzen dutela ikusiko dugu; gainera, emana dugun testuinguruan irudian, (“2. Testuingurua”) kantariaren aritua kokatu eginen dugu. Bigarrenik, erreparatuko den corpusaz arituko gara (4.2.1.b.): fokua bigarren kapituluan aztergai izan den tradizioan jarriaz –AOK–, corpusaren izaera nagusiaren aurkezpena eginen dugu. Horretarako, 60etan berreskuratzen hasiriko ondareari buruz erranikoen artean (“3. Euskal ondare kulturalaren moldatze oinarrizkoa (1960-1975)”), AOKren izanari eta garapenari buruz erranak –bertsolaritzaren garapen berezituarekiko alderatzea, kasu (3.1.3.b.)– izanen dira, espresuki, erabilgarri.

4.2.1.a. Abiapuntu teorikoak eta testuingurua

Erran gisa, lehen azpiatalean (4.2.1.a.), Mikel Laboaren kantagintzari erreparatzeko oinarriak ezarriko ditugu. Horretarako, lanean zehar erabili diren ikuspegi eta tresna teorikoetarik erabilgarri izaneren direnak bilduko ditugu. Ondotik (4.2.1.b.),

testuinguru nagusia izanen dugu hizpide: kantariak bizi izan zituen garai eta ekimen kultural zabal nahiz lokalei buruz arituko gara, laburki. Gisa horretan, hasieratik izanen da eskuragarri 4.2.2. atalean landuko dugun edukiari buruzko informazioa: kantariaren moldaketak nondik nora abiatuak izan ziren eta zertarako diren hausnargai.

a.1. Abiapuntu teorikoak: historia kulturala eta etno-sinbolismoa

Egun, ezein komunitate kulturek ezinbertzekoa du historia kulturalari erreparatzea. Alabaina, Peter Burke-k berak behin baino gehiagotan aitortu duenez (Burke: 2006b), 80etatik aitzina izan duen arrakastagatik beragatik, gero eta zailagoa da historia kulturalaren ikergunea identifikatu, eta metodologia zehatzen deskribapenik egitea.

Ikuspegiaren zabalak eskaintzen duen aniztasunagatik etengabe garatzen dira ikergune eta norabide kulturalen inguruan argudiatze desberdinak: kultur prozesuetan parte hartzen duten mugimendu, komunitate, atxikitze, sinbologia eta erritualen aniztasunak ezinezko egiten du teoria eta metodologia bakarraren erabilerarik (Smith 2009: 131). Aniztasun horren baitan proposatzen dugun bidea aurkeztuko dugu, ondoko orrialdeetan. Alabaina, Laboaren aritura egokituriko sarrera teorikoa sobera luzatu nahi ez dugunez, segidan, atalaren norabidea ulertzeko ideia nagusiak, soilik, aipatuko ditugu: komunitate kulturalen, nazioen, ondare kulturalen, transmisio eta moldatze saioen kateei espresuki behatzen dietenak.

Mikel Laboaren aritua gune duen atalaren helburua hauxe da: baliabide sinboliko nagusietariko baten azterketa zehatza egitea; bertzela erranda, aritu zehatz batetik abiatuta egitea AOKn bilduriko euskal tradizioak jasan zuen moldaketaren azterketa. Horretarako, Laboaren aritua hautatu dugu gune, eta tesian zehar hizpide izan diren tresna teorikoek lagundu egingen ditugute azterketan aitzina egiten.

Horretarako, historia kulturalaren ikuspegiak baliatu gara (Burke 2006a [2004]), etno-sinbolismoa izan delarik tresna laguntzaile (Smith 2009, 2000b [1998]; Guibernau eta Hutchinson arg. 2004); izan ere, tesian, euskal nazioaren historia kulturala egiteko pausoak (Smith 2009: 40) aitzinatzen ari gara. Bide horretan, etno-sinbolismoaren zeregin teoriko nagusia nazioen historia kulturala egitea da, beti ere nazioak komunitate kultural historiko gisa ulertzen direlarik (*ibid.*: 39). Etno-sinbolismoak nazio eta nazionalismoen alderdi kulturean jartzen du fokua, ikuspegi kultural batetik osatuz nazioaren aldatze prozesuak eta krisi garaietan azaleratzen diren auziak –hizkuntza,

tradizio, literatura, identitate, sinbolo, erreferente eta ondare kulturalak, orohar-, nahiz beren berrinterpretatze eta egokitzapenen hausnarketa. Halatan, komunitateen bizirautea eragiten duten faktoreak interesatzen zaizkie etno-sinbolistei; faktore politiko, ekonomiko eta kulturei erreparatzen diete, prozesu baldintzatzaile nagusien artean, nazionalismoen eragina ere aztertzen dutelarik.

Orain arte bildu ditugunei behatuta, ez du iduri etno-sinbolismoak aitzineko eredu teorikoei –modernismoak, nagusiki– deus gaineratzen dienik nazioen, nazionalismoen edo komunitate kulturalen azterketan; aitzitik, arrunt aldatuak dira fokua eta ikergunearekiko begirada. Interesgune komunak gibelean, baliabide sinbolikoen garrantzia azpimarratzen baitu etno-sinbolismoak: baliabide sinbolikoak lantzen dira⁴⁷⁷ identitate kolektibo, komunitate eta nazioen formakuntzan hain garrantzitsu den ondare kulturala ikertzeko.

Beraz, ondare horren baitan funtzio sinbolikoa duten baliabide kulturei egiten zaie erreferentzia: memoria, mito, balio, sinbolo eta tradizioei. Gisa horretan, denboraren poderiozko eraldaketa ziklikoek tresna teorikoaren ikuspegi zabala besarkatzen dute. Horrenbertzez, komunitatearen ondarearekin loturiko alde afektiboak gune nagusi gisa ageri da: baldintza politiko-ekonomikoei eskaintzen ez duten atxikitze oinarrien helduleku.

Ikuspegi horrek bi balio nagusi ditu, tesiaren atal honetarako⁴⁷⁸. Batetik, komunitateen historia kulturalerako elementuen garrantzian jartzen duela fokua; Laboak birmoldatu zuen tradizio gauzapenean –AOKn–, kasu. Bertetik, aukera eskaintzen duela krisi egoera sakonetan komunitateek jasaten dituzten eraldatze prozesuei, *continuum* gisa, behatzeko; komunitateen ondare kulturalaren eraldaketak intentsitate desberdineko prozesu zikliko gisa erreparatu, eta dimentsio afektiboari ere kasu eginaz. Gurera etorriaz, kantariak AOKren birmoldatzea fase desberdinetan gauzatu zuela sumatzeko eta nazio garapenarekiko faseekin alderatzeko aukera eskainiaz.

Laboaren azterketan, ordea, ez dugu tresna honen erabilera itsu-itsuan besarkatu; lantzen den ikergaia hain anitza izanik, kasuistika guztiak besarkatuko dituen azalpen bakarraren alde egitea akats larria iduritzen zaigu. Horregatik, argi utzi nahiko genuke

⁴⁷⁷ Aldiz: “Here [modernismoan], the emphasis is on the state-building component, with the national community subordinated in an adjectival position. In contrast, for ethno-symbolists, it is the community of the nation that must occupy centre stage and, as a result, symbolic resources merit much greater attention” (Smith 2009: 82).

⁴⁷⁸ Hirugarren kapituluaren erdian dugu ikuspegi etno-sinbolistaren erabilgarritasuna (7.1.3., b.4.); kasu horretan, ordea, 1975-1990 bitarteko literatur tradizioan –tradizio agergune gisa– tradizioak zuten presentzia aztertzeko egokitasunaz arituko gara.

etno-sinbolismoa etnia, nazio eta komunitate kulturalen azterketarako hagitx tresna baliagarria izanik ere, azterketa politiko-ekonomiko-sozialekin osatzea ezinbertzekoa dela; bertzeak bertze, etno-sinbolismoak aztergai dituen baliabide sinbolikoak, sarri, garapen politiko-ekonomikoan giltzarri direlako (Guibernau, *in* Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 126).

Smithek berak azpimarratu du, nazioen eratzean eta jarraitutasunean etnizitateak lukeen eragina sumatzeko, eutsi egin behar zaiola faktore ekonomiko, sozial eta politikoen azterketari; kulturak eta lotura etnikoek baldintzatu egiten dute, sarri, nazioen sortze nahiz birmoldatze prozesuetan munduari behatzeko modua, edo politikak eta erakundeek modelo etniko baten inguruan ezartzen dute beren eragina (Smith 2009: 27-29). Ulertze horretatik abiatuz, euskal nazio-komunitateak, 1960-1990 bitartean, bizirik moldaketa kultural zabalari erreparatzen diogu. Etno-sinbolismoaren helburua komunitateen ondare sinboliko-kulturala aztertu, azaleratu eta berriz leitzea nola gertatu den sumatzea izaki, Laboaren arituko berriztatzeak aztertu ahal izanen ditugu.

Iraganeko errealitatearen eta ahozko moldeen berrinterpretatzea zertan den ulertzeko, Smithen nazioaren adiera zabala islatzeko darabilen azalpena lagungarria da: “a precipitate of certain social and symbolic processes that are variable in extent and intensity, rather than as having an ‘essence’ that is either present or absent” (*ibid.*: 110). Izan ere, aipatzen dituen prozesuen murrizteek ez baitute nazioaren galera inplikatzeko. Hala, Francoren diktadurapean jasaniko errepresioak euskal nazioa akitu ez izana ulertzeko lagungarria da⁴⁷⁹ azalpena. Fokua Laboaren kasuan izanagatik, ez dugu begien bistatik galduko prozesu kulturalaren ikuspegi zabala, gizarteko giro eta egoera sinbolikoaren izana nahiz intentsitate maila guziz aldatzen joan baitziren, 60ko hamarkadatik aitzina. Ondorio gisa, euskal komunitatearen baitan gertaturiko birmoldatzeak egungo sistema kulturalaren oinarriak ezarri eta bideratu zituen.

Beraz, ondarearekiko harremanaren intentsitatea galdu(arazi)a izanagatik, komunitateak segida izan dezake. Mantentze horretan, ordea, transmisioaren gordetze-etete nahiz moldaketek eragin handia izanen dute: “reinterpretation has meant revival and renewal, as well as alteration and rejection” (*ibid.*: 35). Hortaz, belaunaldi belaunaldiko transmisio egoera –galdua izatea, kasu– erabakigarria da, komunitateen identitate kulturean; beharrezko moldaketak egin eta garai berrietara egokitzea: funtzionalitatea aurkitzea, ondare kulturalaren transmisioan klabea da, belaunaldi

⁴⁷⁹ Bertzerik da, akitua ez den arren, ondarearen birmoldatzean eskaintza “artifizialak” egin behar izana.

berriendako funtzionala izan dadin. Ikusiko dugunez, krisi garai sakonetan, komunitate kanpoko arrazoiek behartutako eteteek ondare arrotuaren eskaintza “artifizialak” bideratu ahal dituzte. Egokitze mota horien baliagarritasuna funtzionalitatearekin da erlazioan: komunitateak ondare kulturalan funtzionalitatearik sumatzen ez badu, kasurik muturrekoenean, alboratu egiten baitu ondarea.

Funtzionalitateari erreparatzeko, bi aztarna izan ditugu kontuan: batetik, corpusak iraganean izaniko funtzionalitatea; bertetik, hizpide dugun garaian funtzionalitateak izaniko garapena. Hala, bi faseen arteko erlazioari behatuz, euskal ondare kulturalako elementu hautatuaren ibilbide funtzionala aztertu ahal izanen dugu. Zehazkiago, Laboaren kantagintzan biltzen den AOKren moldatze garaikidea 60etan hasiriko ekimenaren bidean dela sumatu, eta moldatze horren nondik norakoak atzeman ahal izanen ditugu: zer moldatu zen, zein aldaketa jasanaraziz, nola, nork eta norendako.

a.2. Testuingurua: Laboa, gizon garaikide

Estaturik gabeko nazioen identitateak sustatzea hainbat faktoreren esku dela erran dugu, aitzinez (3.1.4.); 1960-1975 bitartean lehen faktorea –estatuaren jarrera– kontra zela genioen, eta, aldiz, bigarrena –kulturgileena–, alde.

Laboak, bertze kulturgileen ekimenekin batera, komunitatearen lehen behar maila asebetetzen lagundu zuen. Segidan heldu diren orrialdeetan, kantariaren aritua ekimen zabal horren testuinguru nagusiarekiko (“Testuinguru zabala ardaztuz”) eta euskal *continuum* kulturalaren hariarekiko (“Berrirakurtze ekimen kateatua”) harremanean deskribatzen saiatuko gara. Gisa horretan, bigarren kapituluko “2. Testuingurua” eta “3. Kultur ondarearen birmoldatze oinarritzak” ataletan emaniko ideietarik zenbaiten baitan kokatuko dugu kantariaren aritu zehatza.

• Testuinguru zabala ardaztuz

Lanean zehar, bereziki, euskal komunitatean garaturiko kultur moldaketaz aritu garen arren, ezin atzendu dugu ekimen zabalagoetan kokatu zela kantariaren lana (Colmeiro 2005: 98-99). Laboak berak zioenez, kantagintzan barnako bidea Atahualpa Yupanki eta Violeta Parra kantatuz hasi zuen, 60etan:

Ximun Haranek grabatutako zinta bat ekarri zidan orduan lagun batek. Pelotari honek edonora joanda ere magnetofonia eramaten zuen, tabernetan kantatzen zena biltzeko asmoz. Gerora disko bihurtu zen kanta herrikoi bilduma entzun bezain pronto konturatu nintzen bide hura zegokidala eta ez ordura artekoa. (Laboa 1990, Garbiñe Ubedak eginiko elkarrizketa)

Nazioarteko eraginak tokian tokiko egoera soziopolitikoaren baitan izan ziren irakurriak. Hori dela eta, estatuan zehar, “Nueva Canción” mugimendua frankismoaren kontrako aldarria izan zen, eta, gainera, “Canción de Autor” delakoaren funtsezko ezaugarri bihurtu zen (Torrego 1999: 27, 38); baina, era berean, 36ko Gerratik diktaduraren errepresiopean bizirautean zuten identitate periferikoek behar espezifikoetara hurbildu zituzten nazioarteko lan horiek.

Kantarien mugimenduak biltzen zituen bi alde horien garapenean testuinguruak eragin handia izan zuen, eta diktaduraren hondarreko hamabortz urteetan agertu izanak arrunt baldintzatu zuen tokian tokiko erabilera. Egin kontu 60etan zehar, eta 70en hasieran, kantariak lorturiko arrakastaren oinarrian pasiozko sentimendua zela –oroitu nazio berpizte garaietako inbertsio emozionalari buruz erranak (2.2.2.)–; aldiz, handik gutira hasi zen pasio horiekin zerikusi gutiago zuen Trantsizioa. Hala, 1975a arte aski gisa berean atzemaniko ondare kulturala funtzio berrietarako espresuki birgaitu beharra sortu zen: oinarrizko berreskuratze funtzionalean bereganaturiko AOK⁴⁸⁰, komunitate partaidetza bateratuaren balio sinbolikoaz haratago, munduan zeharreko arituen pareko izateko gaitu behar zen; hau da, helburu hurbileko nahiz urrutikoetarako ahalbidetu. Hortaz, komunitatearen lehen behar mailaz gain, asebate beharreko bigarren maila azaleratzen hasi zen; proiektzioa eragile nagusi zuen maila, preseski.

Hala, bada, kantagintzarekin berreskuraturiko ondarea Trantsizioeko eraikuntza politikoaren balioetara moldatu behar izan zen. Moldatze horren gibelean, ondare kultural periferikoen funtzionalitate aldaketa –60-70en hasieran ez bezalakoa– izan zela azalduko dugu, idatzian zehar. Hain zuzen ere, atal honetan birgaitze adibidea Laboaren kantagintza izanik, AOKren oinarrizko moldaketa funtzionalaz haratago zihoan ekimenetariko bat aztertuko dugu: Laboaren saioa izan zen, identitate periferikoen berpiztean, AOK-k garaturiko funtzionalitate sinbolikoa –lehen behar mailari lotua– helburu unibertsalagoen baitan lantzeko ekinetarik bat. “Lekeitio”ak sailarekin bi gauza lortu zituen kantariak: ondare berreskuratze berria abangoardiazko arituetan kokatzea (4.2.2.a.) eta AOK abangoardiarako arituen oreka komunikatiboa lortzeko tresna bihurtzea (4.2.2.b.).

Hirugarren kapituluaren ikusiko dugunez, ardura lokalen beharrak asebetetzen joan ahala, erabaki behar ziren –Trantsizioarekin abiatutako eraikuntzan– bertako eta

⁴⁸⁰ Hemen AOKri erreferentzia zuzena egiten diogun arren, egia da euskal ondare guzian sortu zela birgaitze horren beharra.

urrutiko harremanen izana nahiz horien sostengua: egitura politiko-ekonomiko-kultural ofizialak eraikitzeko momentua izaki, komunitate kultural gisa egitura ofizialen neurrira egokitze garaia zen. Gisa horretan, kasik sinkronikoki, identitate mailak hausnartu eta sostengatzeko garaia heldu zen (Aguado 2010: 162).

Beraz, euskal identitate kulturalaren berpiztean, euskaltasunarekiko jarrera positiboa eta haren ondoriozko duintzea ezinbertzekoak izan ziren. Lan horretan, motore nagusietarik bat izan zen 3.1.4.a. azpiatalean aipaturiko Oteiza eskultorea. Laboak ekiniko birgaitze prozesuak, ordea, kulturgilearen arituaren izanari jarraitzen dion kronologia propioa du; ikusiko dugunez, tesian komunitate beharren bigarren maila 1975etik aitzina mugatu dugun arren, Laboak hasia zuen, lehenagotik, behar horiek asebetetzen lagunduko zuen aritua: “Lekeitio”ak.

- **Berrirakurtze ekimen kateatua**

Oteizaren bulkadak erakusten du, bertzeak bertze, 1960tik aitzinako kultur moldaketa *continuumean* gertatu zela: aitzinez euskal kulturaren mantentzea –ahal moduan– lortu zutenez gain, ondotiko hauspotze saioek ahalbidetu zuten ondare ezezagunaren hurbiltze funtzionala. Kateatze hori kulturgileen⁴⁸¹ ekimenek –elkarreraginean, bereziki– osatu zuten.

Laguntza aldi nagusi horren baitan, ordea, baziren pausoz pauso lortu beharreko garaipenak –berariaz diogu “garaipenak”, galduriko eremuen bereganatzea izan baitzen, ordukoa⁴⁸². Esparru horiek hiru eragin aldi nagusirekin parekatu ditugu. Kultur ondarearen berrinterpretazioa etengabe gertatzen den prozesua dela onarturik, 60etan abiatutako kultur birmoldatzeak hiru eragin aldi nagusi izan zituela ederki sumatzen da: euskal ondare kulturak duintasuna lortzea –identitate duintasunari atxikia, beraz–, begirada positibo horren bulkadaz baliaturik jendeari hurbiltzea eta berrinterpretazio propioen aldia litzatekeena.

Horietariko bakoitzean, zeregin garrantzitsua izan zuten kulturgileek, eta eraberritu egin zituzten kulturaren berreskuratze partekatua gauzatu ahal izateko baliabideak. Batetik (a), kultur eremuko corpusa xerkatu zuten; bertzetik (b), lanaren

⁴⁸¹ Gaugerero azaldua dugu nazioen garapenari buruzko lanetan espresuki aipatu ohi diren “intelektualak” ez ditugula hizpide izanen, eta “kulturgile”ez arituko garela; lehen terminoak bigarrenak ez dituen hainbat konnotazio izan ahal baititu, eta, hizpide dugun aldirako, garbiagoa iduritu zaigu “kultur egile” hitzen erranahia.

⁴⁸² Ondare kulturala osatzen zuen corpusaz gain, haren atzematea eta erabilera behar ziren bereganatu; hala nola, eremu publikoan behar zuen presentzia.

alderdi indibidualenari komunitatearengana hurbildu ahal izateko moldaketak eta eransteak egin zizkieten; azkenik (c), nazioko kideek partekaturiko oinarri horien gaineko berrirakurtze propioak, helburu zabalagoei begirakoak, gauzatu zituzten.

(a) Xerkatzeak

Oteiza izan zen duintasuna berreskuratzeko prozesuan eragileetarik bat. Moldaketa nagusian parte-hartzaile izaniko J.M. Lekuonak zioenez:

Esan dezakegu, Oteiza, ikuspegi jakingarri bat eskainiz, gure ahozko literaturaren, eta bereiziki herri-poesiaren sendogarri gertatu dela, eta aberasgarri eta eragingarri. Sendogarri, gure urduritasunak uxatuz; aberasgarri, kultur ikuspegi bestelakoez hornituz, literatura egin, gozatu eta aztertzerakoan; eta eragingarri ere bai, arteak ikerketarik asko duela erakutsi digulako, berritzera behartu gaituelako, eta gure intra-historiarekin harreman berriagoetan jarri gaituelako. (*In Garzia 2002: 796*)⁴⁸³

Eskultore lanak akitzean, lorturiko gailurra euskal nortasun nahiz tradizioarekiko hausnartu zituen Oteizak: Neolitoko euskal harrespilaren interpretaziotik euskal tankera eta bizimodu “berezko”aren nondik norakoak bilatu, eta landu zituen. Hain zuzen, euskal izaera horren interpretazioak baldintzatu zituen goitik beheitera *Quosque tandem* liburuan ageri diren ideia eta argudiatzeak: metodo egokiaren beharrak, ikuspegi berriak eta esentziaren gordetze praktikoak argitu zuten ilunpean bizirik euskal gizartea (3.1.4.a.).

Ondare kulturala bildu eta deskribatzeaz gain, bere izana hausnartu eta kolektiboki landu beharra aldarrikatu zuen, gainera (*QT: 6*). Ekimen nagusi horretan, euskal arimaren eta bizimodu berezkoaren bilatze, aurkitze eta berreskuratzeak ziren nagusi:

Hace tiempo que nuestro motor espiritual se ha parado. Es necesario apurarnos por interpretar el funcionamiento de ese motor, por comprender qué se nos ha averiado y por intentar repararlo, de pie, tirados por el suelo (lo que no podemos es seguir escribiendo sentados) (*QT: 6*)

Izan ere: “juzgo la soledad en el investigador como el más grave obstáculo para la interpretación no solamente en el propio investigador sino en los demás” (*QT: 115*). Oteizaren solasak komunitatearen adoretatzea pizten lagundu zuen; garaiko kulturgileendako pizgarri, birmoldatze kulturalarendako behar zen aitzinpauso garrantzitsuetarik bat izan zen.

⁴⁸³ Garziak emaniko erreferentzia: J.M. Lekuona 1998: 52.

(b) Moldaketak

Bigarrenik, euskal kulturaren berrirakurtze positibo horren segidan –inkontzienteki bada ere–, artea⁴⁸⁴, 60-70etan, herriarekin komunikatzeko eta herria sentimen partekatuan batzeko komunikazio tresna gisa hurbiltzen hasi zen. Mikel Laboak kantagintzari buruz erranak oroituz:

(Galdetzailea) [*sic*] Uste duzu euskal abesti berri bat sortuko dala?

(Laboa) –Bai garai batian beste ritmo batzuekin gertatu zan bezela, orain ere sortuko da euskal abesti berri eta berezi bat, latindarra eta anglosajondarren desberdiña. Bere seillo berezi bat izango duana esan nahi dut. Gainera bere gaia mamitsua izatea lortu behar litzake (alegia problema espiritualekin, sozialekin ta...) tamala bai da jendeari iristeko, orrelako bide on bat alperrik galtzea. (Elkarrizketatzaile ezezaguna, “Personaje billa. Mikel Laboa”, *Zeruko Argia*, 1965, 127: 4)

Eskultorearen hausnarketek denboran proiektzio hirukoitza izanik, orduko euskal gizartearendako bulkada izan ziren arituatarik bat izan zen Oteizarena: orainaldirako erabilgarria izateaz gain, etorkizuna bermatzeko gauza zen iragan duina irudikatzen zuen.

(c) Berrirakurtze propioak

Hirugarrenik, kulturagileek begirada positiboaren bulkada baliatu zuten –Ez Dok Amairuk, kasu– jendearengana hurbiltzeko. Saiatze horretan, komunitateak kulturagileen talde indarra sumatu, eta, ondotik, ekimen horien banako aldia indartu egin zen. Kulturagile bakoitzak ondarearen moldatze propioa⁴⁸⁵ egin zuen, bere gustu eta ardura estetikoetatik hurbilekoa zena. Ez Dok Amairukoak, erraterako, banako lanaz gain, sentsibiltate komuna partekatzen zen talde tikiagoetan banatu ziren –Zazpiri Bai taldea eta *Ikimilikiliklik bidekidekariaren ingurukoa*⁴⁸⁶–.

⁴⁸⁴ “Esta Casa de la cultura y un boletín periódico o este mismo periódico nuestro y local, que es ‘El Bidasoa’ (pero no *desinteresadamente* al lado de nuestras preocupaciones espirituales, sino con apasionada resolución), son los dos medios fundamentales para la expresión de nuestro pensamiento en el arte y para comunicación entre nosotros y con nuestro pueblo.” (*QT*: 90) (Azpimarra ez da gurea)

⁴⁸⁵ Laboaren corpusa bide horretatik hurbil da: eguneratze lan etengabeen bilduriko jarrera eta ideiak izan arren, ikuspegi indibidualetik sorturiko proposamenak ere badira. Kantariak 60etan abiatu zuen bidean, euskal ondarearen ekarriaren oinarrian, ahozkotasuna azpimarratu zuen, dela AOK moldatuz, dela esperientziaz kantuetan egin zuen birbaliotze abangoardiazkoekin. Iraganetik berreskuratu zuen herri ahotsa ahozkotasunak berdintzen zuen, kanta nahiz koplak zahar, balada eta bertso paratuek ezaugarri hori partekatzen baitzuten.

⁴⁸⁶ “Zazpiri Bai taldea: Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Lourdes Iriondo Iparraldeko kantari batzuekin elkartu ziren (Pantxika Erramuzpe, Peio Ospital eta Pantxoa Carrere, Manex Pagola, Ugutz Robles-Arangiz...)”, “*Ikimilikiliklik bidekidekaria*: JosAnton Artze, Mikel Laboa, Jose Mari Zabala eta Jesus Mari Artze (Jose Luis Zumeta margolariaren laguntzaz)” (Oronoz 2011: 118). Marisol Bastidak solasaldi batean zehaztu zidanez, Jose Mari Zabalak ez zuen parte hartu.

4.2.1.a. azpiatalean, ondare kulturalaren berrinterpretatze saioa hagitx saio zabala izan zela erran dugu, eta, eraldaketa nagusi horren baitan, ondare kulturaleko elementu aunitzi behatu ahalko litzaiekela. Ondoko orrialdeetan, Laboaren ekimen indibiduala komunitate kulturalaren eraberritze zabalean aztertuko dugu. Kantariak hautatu zituen moldeetan kanta nahiz koplak zahar eta bertsolaritzaren balizko zamak izan zuten garrantzia, hautua bera eta interpretatzea izanen ditugu ikergune. Beraz, hautaturiko erreferenteak lantzeko eta horien eguneratzearen zergatia ulertzeko ezinbertzean erreparatu diogu bigarren kapituluaren zehar deskribatu dugun garaiari. Horretarako, historia kulturalaren bideetatik, etno-sinbolismoak aztergune duen baliabide sinboliko batez arituko gara; espresuki aztertuko dugu AOKn islatutako tradizioa Mikel Laboak nola eguneratu zuen.

Laboaren kantetan, eguneratze etengabearen bilduriko jarrera eta ideiak izan arren –AOKren oinarritzko berriztatze funtzionala–, ikuspegi indibidualetik sortutako proposamenak ere badira –AOK lan abangoardistetarako tresna gisa erabiltzea–. Euskal ondaretik ahozkotatasuna azpimarratu zuen, AOK moldatuz edo esperimentazio kantuetan egin zuen birbaliotze abangoardiazkoekin. Hala, iraganetik berreskuratu zuen herri ahots anitza ahozkotatasunak berdintzen zuen: kanta nahiz koplak zahar, balada eta bertso paratuek ahozkotatasuna baitzuten komunean.

Gainera, ondare horrek lagunduriko atxikitze emozionala bulkatu zuen Laboak. Ikusiko dugunez, irudi nahiz molde sinbolikoak birgaitu zituen, eta, gainera, horien erabilera eta erabilera horretatik abiatutako atzemate berriztatuak eskaini zituen. Hau da, poetek euskal ondare kulturaletik eguneraturiko irudiez gain, bertso moldeak berak baliatu zituen Laboak; ahozko baliabideen erabilera modernoa egin, eta sortutako atzematearen abangoardiazko eskaintza egin zuen. Denak arlo desberdinetako kulturagileen lanari eskerrak lortuak, eta Laboak aitzina eramanak.

Segidan heldu den azpiatalean, horiek guztiak zein corpusetan ikertuko ditugun aurkeztuko dugu.

4.2.1.b. Corpus nagusia: AOK

Taldean sortutako ekimenek indarra agerrarazi zuten, ikusleriaren aitzinean. Arestian erran gisa, indar horren oinarriak hainbat kulturagileen ekarpen ziztatzaileei eskerrak abiatu ahal izan ziren; hau da, abian zen nazioaren identitatea –edota bere oinarriak– indarberritzeko asmoa zuen kulturagile taldeari eskerrak: Oteizak bulkatutako

jarrera positiboak euskal identitate zanpatuaren balorazioa eta esperantza sustatu zituen, eta Ez Dok Amairu taldeak herriarengan eragina izateko indarra eskaini zuen; Arestiren lana, bertze hainbat kulturgilerekin batera, jarrera beraren bulkatzaile izan zen. Testuinguru horretan kokatua da Laboaren lana.

Segidan, corpusaren izanaz ohartzeko, honako bidea proposatzen dugu: (b.1.) 1960-1990 bitartean kaleraturiko kantak⁴⁸⁷ bildu ditugu, eta, ondotik, (b.2.) corpusaren barrenean bertsolaritzak duen presentziaren nondik norakoez arituko gara.

b.1. Kantak

Laboak aipatzen zuen eztanda kulturalaren lehen fasean (*Zeruko Argia*, 1965, 127: 4), taldeko ekimen kulturelek kantarien lanari indarra eta merkatuan mantendu ahal izateko modua eskaini zioten. Gainera, ikusleriak lan banakoak aisago ulertzeko eta hobeki bereganatzeko espektatibak eratu ahal izan zituen: “talde ekimena” deiturikoan, hartzaileak ondu egin ziren, corpus berri baten jasotzeko. Lehendabiziko fase horretan, herriaren eskaera eta behar orokorrak bideratzen hasiak zirelarik, hasia zen, komunitatearengan, sentsibilitate berria bereganatzeko heziketa: haren entzute, atzemate eta interpretazio kolektiboak abian ziren. Bigarren fase batean, kultur ondarearen birmoldatze indibiduala espresuki garatu zuten Ez Dok Amairuko kideek. Hala, komunitatearen lehen behar orokorretatik aldenduz, kulturgile bakoitzaren pertzepzioetik hurbilagoko mugatzeak sortu ziren.

Segidan ikusiko dugunez, Laboaren corpusa bi alde horien erakusgarria da: AOK garaiko poeta gazteen –eta hain gazte ez zirenen– lanekin, esperimentazioarekin eta performanceekin batera landu zuen. Horrenbertzez, iraganeko euskarriei molde eta dimentsio garaikide modernoa eman zien; euskal ondarearekiko izpiritua barreiatua izaki, haren garapen eta moldatze banakoen garaia abiatu zen.

Aztergai izanen dugun corpusa kantariaren 1960tik 1990era bitarteko lanek osatua da; zehazkiago, euskal ondare kultureko elementuetan jarriko dugu fokua. Hortaz, 1960-1975 bitarteari bakarrik erreparatu beharrean, euskal kultur moldaketaren bi faseak barne hartzen dituen epea aztertzea erabaki dugu. Batetik, Laboak tesian zehar hizpide ditugun hogeita hamar urteetan nolako bidea egin zuen islatu nahi izan dugulakotz; bertzetik, finkatu ditugun muga kronologikoen malgua agertzen duelakotz:

⁴⁸⁷ Atal honetatik aitzina, disken argitaratze dataren erreferentzia ez dugu berriz zehaztuko.

kantariaren ekarri banakoa izan zen, preseski, 1975etik aitzinako beharrak asebetetzeko saioa lehenagotik eskaini izana.

Zehaztu ez ditugun musikak herrikoiak dira, eta horien moldaketak, Laboarenak⁴⁸⁸, bertzela zehaztu ezean; bertze kasuetan –hitz, doinu edo musikaren egilea jakina denetan–, espresuki aipatu dugu egilea.

60ko hamarkada

Lau herri kanta (Azken) (1964): “Amonatxo” (hitzak eta musika, J. Barbier-ek), “Bereterretxen kanthoria”, “Aurtxo txikia” eta “Oi Pello, Pello”.

Mikel Laboa (1966): “Urtsuako kanta”, “Apur dezagun katea” (hitzak, G. Arestik; musika, Laboak), “Goizuetan”, “Egun da Santi Mamiña” (hitzak, G. Arestik; musika, J.M. Arrizabalagak). (*Urtsuako kanta* gisa ere ezaguna da diskoa)

Bertolt Brecht (1969a): “Munduaren esker ona” (hitzak, Bertolt Brecht-ek; musika, Laboak), “Gaberako aterbea” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Denak ala inor ez” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Lilurarik ez” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak).

Mikel Laboa (1969b): “Haika mutil”, “Iturengo arotza”, “Zure begiek” (hitzak, D. Landartek; musika, Laboak), “Zilbor-hesteak” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak). (*Haika mutil* gisa ere ezaguna da diskoa)

70eko hamarkada

Bat-Hiru (1974): “BAT”en, “Txinaurria”, “Lanikan ezin egin”, “Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Haize hegoa” (hitzak, T.M. Olasok; musika, Philippe Oyanburuk), “Ama hil zaigu” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Urtsua. Uda” (Laboa), “Baztan” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Pasaiaiko herritik” (hitzak, Xenpelarrek), “Bedeinkatua” (hitzak, X. Letek; musika, Laboak), “Nere juaneteak (Larraitz 2)” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Geure bazterrak” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Baga-biga-higa - Lekeitio 2”⁴⁸⁹ (hitzak, herri ondareko bi

⁴⁸⁸ Espresuki aipatzen dira “Pasaiaiko herritik”, “Baga-biga-higa - Lekeitio 2”, “Haika mutil”, “Bereterretxen kanthoria”, “Bentara noa”, “Ihesa zilegi balitz”, “Gaztetasuna eta zahartasuna” eta “Lore sortu orduko” kantetako musikak, Laboak interpretaturiko doinu-musika herrikoi gisa.

⁴⁸⁹ “Lekeitio”en urteak disko guzietan zehazten ez direnez, erreferentziak bateratzearen, *Lekeitioak* (1988) diskoaren kantak aipatu ondotik jarri dugun oin-oharrean (492.ean) bakarrik zehaztu ditugu.

“poematxo”; Laboa); eta, “HIRU”n, “Haika mutil”, “Txoria txori” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Zaude lasai” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Bereterretxen kanthoria”, “Xori erresiñula”, “Oies errondan dabil”, “Gernika - Lekeitio 4” (JosAnton Artzeren “Arrano beltza” olerkia; Laboa).

Lau-Bost (1980)⁴⁹⁰: “LAU”n, “Kantuz” (hitzak eta musika, Jose Mendiagek⁴⁹¹), “Liluraren kontra” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Nahiz eta heriotza” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Xoxo beltza”, “Izarren hautsa” (hitzak, X. Letek; musika, Laboak), “Besterik ezagutu ez eta” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Komunikazio-Inkomunikazioa - Lekeitio 5” (artista desberdinen lanak dira esketxean zehar; bertzeak bertze, J.S. Bach-en *Pasioa San Mateoren araberatik* harturiko zatiak; Laboa); eta, “BOST”en, “Ama” (hitzak, Jules Moulier “Otsobi”k), “Dialektikaren laudorioa - Lekeitio 3” (hitzak, Brechtek; Laboa), “Oi Pello, Pello”, “Langile baten galderak liburu baten aurrean” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Herria eta hizkuntza” (hitzak, Xalbadorrek; Brassens-i gorazarre; musika, Laboak), “Haizea dator ifarraldetik” (hitzak eta musika, X. Letek), “Xoxo beltza”, “Orreaga - Lekeitio 6” (Laboa), “Martxa baten lehen notak” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak).

80ko hamarkada

6 (Sei) (1985): “Bentara noa”, “Ihesa zilegi balitz” (hitzak, X. Letek), “Estudioa” (D. Fortea - Laboa), “Gaztetasuna eta zahartasuna” (hitzak, J.B. Otsaldek), “Denbora galduaren bila (Doneztebe)” (Laboa), “Negu hurbilak” (hitzak, X. Letek; musika, Laboak), “Lizardi” (hitzak, B. Atxagak; musika, Laboak), “Sorterriko koblak” (hitzak, J. Sarrionandiak; musika, Laboak), “Haika mutil” (musika herrikoia ren moldatzea, Iñaki Salvadorrek), “Itsasoa eta lehorra (Haizearen orrazia) - Lekeitio 7” (Laboa).

Euskal kanta berria (1987): “Egun da Santi Mamiña” (hitzak, G. Arestik; musika, J.M. Arrizabalagak), “Goizuetan”, “Urtsuako kanta”, “Apur dezagun katea” (hitzak, G. Arestik; musika, Laboak), “Munduaren esker ona” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Liluraren kontra” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Haika mutil”, “Iturengo arotza”, “Zure begiek” (hitzak, D. Landartek; musika, Laboak), “Zilbor-

⁴⁹⁰ 1980an kaleratuagatik, 70eko hamarkadan landuriko corpus gisa landu dugu.

⁴⁹¹ (*Bertsolaria*, 1932, 38: 241)

hesteak” (hitzak, JosAnton Artzek; musika, Laboak), “Denak ala inor ez” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Gaberako aterbea” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak).

Lekeitioak (1988): “Baga-biga-higa - Lekeitio 2” (hitzak, herri ondareko bi “poematxo”; Laboa), “Dialektikaren laudorioa - Lekeitio 3” (hitzak, Brechtek; Laboa), “Haika mutil”, “Gernika - Lekeitio 4” (*Bat-Hirun*, JosAnton Artzeren “Arrano beltza” olerkia ere erreztatzen zen; Laboa), “Trikitixa” (musika, J. Tapiak), “Komunikazio-inkomunikazioa - Lekeitio 5” (artista desberdinen lanak erreztatzen dira esketxean zehar; bertzeak bertze, J.S. Bachen *Pasioa San Mateoren arabera* harturiko zatiak; Laboa), “Orreaga - Lekeitio 6” (Laboa), “Itsasoa eta lehorra (Haizearen Orrazia) - Lekeitio 7” (herri ondareko “Xori erresiñula” poemaren ahapaldia; Laboa).⁴⁹²

12 (Hamabi) (1989): “Lore sortu orduko” (hitzak, Harlouchi-k), “Kirru” (Laboa), “Gaberako aterbea” (hitzak, Brechtek; musika, Laboak), “Round Midnight” (Thelonius Monk), “Lili bat” (hitzak, J. Sarrionandiak; musika, Laboak), “Galderak” (hitzak, B. Atxagak; musika, Laboak), “Antzinako bihotz” (hitzak, B. Atxagak; musika, Laboak), “Cherokee - Lekeitio 8” (Laboa).

Corpus horretan, lehen begiratuan, bi ideia dira azpimarragarri. Batetik, AOK-ko elementuetan genero epiko-lirikoaren⁴⁹³ gailentzea sumatzen da: kanta nahiz koplak zaharrak, baladak, herri kontakizunak eta kondairak biltzen dituen corpora –salbuespen adierazgarria “Baga-biga-higa” hitz-jokoa da, baina bere garapena 4.2.2. atalean eginen dugu–. Bertzetik, bertsolaritzaren presentzia dugu; 1960-1990 bitarteko EKSren finkapenean, bertsolaritza molde biek bide arrunt paraleloa eraman zutela errana dugu (3.1.3.b.), eta Laboaren kantagintza paralelismo horren argigarria izanen da.

Beraz, corpusean, genero epiko-lirikoaren eta bertsolaritzaren karga sumatzen da. Alabaina, bertsolaritzaren presentziaren nondik norakoez zehazterean bat eginen dugu, segidan.

⁴⁹² “Lekeitio” guziak: “Lekeitio 1” (1968) gorde gabea, “Baga-biga-higa - Lekeitio 2” (1969), “Dialektikaren laudorioa - Lekeitio 3” (1971n estreinatua, baina, zentsura arazoengatik, 1980a arte grabatu ez zena), “Gernika - Lekeitio 4” (1972), “Komunikazio-inkomunikazioa - Lekeitio 5” (1977), “Orreaga - Lekeitio 6” (1978), “Itsasoa eta lehorra - Lekeitio 7” (1985), “Cherokee - Lekeitio 8” (1989), “Mugak - Lekeitio 9” (1992), “Kiromantzidxa - Lekeitio 10” (1998).

⁴⁹³ Generoen bat-batekotasuna aintzat hartzen duen sailkapena J. Garzia 2007a, 2007b). Bertan, ipuin eta elezaharrak edo kondairak dira genero epiko-lirikoan dudazko bat-batekotasuna dutenak; bertzeak, batere gabe zehaztu ditu.

b.2. Bertsolaritzaren balizko zama

AOK-ko elementuen artean, bertsolaritzaren aztarnari erreparatu nahi diogu; izan ere, munta handiko auzia izan zen 1960-1990 bitarteko euskal ondare kulturalaren birmoldatzean. Gainera, auzia bera AOKri buruz, orokorrean, sortu zen eztabaidaren erakusgarria da; hots, elementuen balioaren eta erabilgarritasunaren birmoldatzeari buruzko iritziak AOKren egokitzea hausnartu izanaren lekuko dira.

Oteiza ezarri dugu kulturaren moldatzean mugarritarik bat gisa, eta bi ideia azpimarratu ditugu, garrantzia horren erakusgarritzat: bere jarrerak garaiko kulturgileak ernarazi, eta bertsolariaren irudia nahiz aritua euskal ondarearen gunetzat ezarri zuen. Bertsolaritzaren lokarri horri jarraituz, Laboaren AOK-ko corpusera joko dugu: zehazkiago, corpus horretan bertsolaritzak izan zuen presentziari behatu nahi diogu.

Lokarri horren segida, ordea, garaiko poeta batek emanen digu: Gabriel Arestik. 60etan azaleratu ziren zalantzen arten, bertsolaritzak –bat-batekoak eta bertso paratuek– garai berrietara nola moldatu beharko zukeen hausnartu beharra sortu zen. Euskal ondare kulturala berreskuratu, bai, baina AOK-ko elementuen arteko aldeek beren indartzea baldintzatu egin zuten. Hala, bada, bat-bateko aritutik kanpoko bertso moldeari bi modutara behatu zitzaion: komunitate iraganaren helduleku zen aldetik, corpora nola eskaini –eguneratu eta egokitu– pentsatzeaz gain, corpus berrien sorkuntzarako tresna gisa erabiltzeko aukera ere eztabaidatu zuten garaikideek.

Bi alderdi horien eguneratzeak, bertsoan –neurri berezietan, sarri– eginak ziren iraganeko balada eta kanta nahiz koplak zaharrak eskaintzeaz gain, euskal ondare kulturaleko baliabideetarik baten birmoldatze modernoa lagundu zuen: bertsoarena. Eguneratze horretan, antzinatek berreskuratu nahi ziren arituen eta modernitatearen heldulekutzat zirenen arteko talka sortu zen; bertzeak bertze, olerkarien eta bertsolarien artekoa. Lehen bi hamarkadetan espresuki azaleratu zen eztabaidaren oinarrian, identitate zanpatuaren bilatze eta eguneratze indarren sinkronia izan zen.

Erabilgarritasunaren bide horretan, Aresti Laboaren lanetan trantsizio izan zen; erran nahi baita –Laboak eginiko AOKren birmoldatzean– poetak markatu zuela bertsolaritza idatziaren erabilera garaikidea, eta, ondotik, 60-70etako olerkariak eginiko bertsoen erabilera garaikidea ere eskaini zuela kantariak. Alegia, Aresti izan zen AOK-ko elementuak bakarrik berreskuratzetik (*Lau herri kanta*), gazteen olerki eta bertsoekin bateratzera arteko zubia: 1964ko diskoan, AOK-ko corpora zen arrunt –egile zehatza zuen bakarra Barbierren “Amonatxo”–; *Urtsuako kantan*, Arestiren bi olerkirekin,

AOK-ko bertze biga agertzen ziren; *Haika mutilen*, Landarten “Zure begiek” nahiz Artzeren “Zilbor-hesteak” poemak ziren; eta, ondotik, Leterenak batuko ziren, 70etan.

Beraz, gainetiko interpretazio bat eginaz, Mikel Laboaren kantetan, bertsoak bi modutara ageri dira berriztatuak. Batetik, iragan ondaretik berreskuraturiko corpusa kantatuz⁴⁹⁴; bertzetik, berreskuraturiko corpusaz gain, bertsoen erabilera garaikidea egin zutenen lanak ere barne hartu zituela⁴⁹⁵.

Iraganetik berreskuraturikoei dagokienez, bertsopaperak –“Pasaiako herritik”– eta hitz jokoak –“Baga-biga-higa”–, bai, baina, bereziki, genero epiko-lirikoko corpusa hautatu zuen; hau da, bertsotan gorderiko baladak, kanta gisa mantenduriko herri poesia eta istorioak –adibidez, hurrenez hurren: “Bereterretxen kanthoria”; “Txinaurria”, “Haika mutil”; “Urtsuako kanta”, “Goizuetan”–.

Generoen arteko mugak⁴⁹⁶ labainkorrak direnez, ez gara zehaztasun gehiagotan sartuko, hizpide dugun azterketarako aski baita Laboaren corpusak dituen hiru tasunen kontzientzia izatearekin: ahozketasuna, bildu ziren momentura bertso moldean ailegatu izana eta herriko ondarea –istorioak eta bizipenak– altxatzea dira corpusaren ezaugarri partekatu nagusiak. Testuinguru batu horretan biltzen ziren gaiak, ordea, sarri ageri dira eguneratuak: Laboaren kantetan, baserri munduaz gain, industria garapenari loturiko mundua ageri den gisa, etengabe agertuko dira lanarekiko ezinegon nahiz morrontza, emakumearen garrantzia eta amatasuna –iraganeko AOKn edo olerki garaikideetan islatuak⁴⁹⁷–.

Bat-batekoan espresuki ezagun izaniko bertsolarien lanak eskaini zituen kantariak –Xenpelarren “Pasaiako herritik”, Xalbadorren “Herria eta hizkuntza”–; eta, bertso

⁴⁹⁴ Bertolt Brecht, *Euskal kanta berria* –bilduma–, eta *Lekeitioak* lanetan salbu: *Azkenen*, Barbiarren “Amonatxo” kanta eta “Aurtxo txikia” sehaska kanta; *Urtsuako kanta*, “Goizuetan” edo “Berdabioko kanta”; *Haika mutilen*, “Iturengo arotza”; *Bat-Hirun*, “Txinaurria”, “Lanikan ezin egin eta”, Xenpelarren “Pasaiako herritik”, “Xori erresiñula” eta “Oies errondan dabil”; *Lau-Bosten*, Jose Mendiageren “Kantuz” abestia, “Xoxo beltza”, Otsobiren “Ama” eta Xalbadorren “Herria eta hizkuntza”; *Sein*, “Bentara noa” eta Otsalderen “Gaztetasuna eta zahartasuna”; azkenik, *12n*, Harlouchiren “Lore sortu orduko”.

⁴⁹⁵ *Urtsuako kanta*, Arestiren “Apur dezagun katea” eta “Egun da Santi Mamiña”; *Haika mutilen*, D. Landarten “Zure begiek”; *Lau-Bosten*, Leteren “Izarren hautsa” eta “Haizea dator ifarraldetik” –bai musika, baita hitzak ere, Leterenak ziren, jakina denez– eta JosAnton Artzeren “Martxa baten lehen notak”; *Sein*, Leteren “Ihesa zilegi balitz” nahiz “Negu hurbilak” eta Sarrionandiaren “Sorterriko koblak”.

⁴⁹⁶ Goiti aipatu dugu (493. oin-oharra) sailkapen posibletarik bat proposatu duela Joxerra Garziak; bertan, bat-batekotasun eta bizitasunari erreparatzen zaie. Hizpide dugun corpusaz aritzeko, irizpide horien indarra, bai iraganean, baita 60etako moldaketarekiko ere, aztertu beharko lirake: bakoitzaren mailak nahiz aldaketak eta transmisio moldeek izaniko birformulatzea. Aitzinerako utziko dugu zehazte hori.

⁴⁹⁷ Lanaren gaia jorratuz: “Txinaurria”, “Haika mutil”, B. Brechten “Langile baten galderak”, Artzeren “Nire juaneteak” nahiz “Ama hil zaigu” eta Leteren “Bedeinkatua”. Amaren maitasunaz eta amatasunaz, kasu, Otsobiren “Ama”, “Aurtxo txikia” eta Artzeren “Zilbor-hesteak”, kasu.

paratuetako hautuan, bertsolaritzaren aski alderdi desberdinak hurbildu zituen. Batetik, gisa alaitsuan moldaturiko gertakari arruntei, irri arazleei, leku egin zion –“Pasaiako herritik”–; hala, hautatu zituen bertso paratuen artean, tokia egin zion bertsolaritzarekin sarri lotu izan den alde alaiari ere. Bertzetik, 60-70etako balio sinbolikoaren behar nagusien bidetik, euskal komunitatearen aldarrikapen topikoak ere eskaini zituen –“Herria eta hizkuntza”–. Azkenik, antzinako bertsoetan kezka unibertsalek zuten tokiari ere erreparatu zion –“Gaztetasuna eta zahartasuna” bertso paratuetan⁴⁹⁸ ageri gisa–.

Ondorioz, iraganeko corpuseko bertsoen balioa ideia eta molde aski desberdinei egokiturik aurkeztu zuen: herriaren historia(k) eta istorioak biltzeaz gain, pertsonen kezka nagusiak agertzeko balio zutela islatuz. 60ko eta 70eko hamarkadetan bat-bateko bertsolaritzari⁴⁹⁹ eskatzen zitzaion diskurtsoaz gain, bertsoak aitzineko erabileraz baliatu zituen: AOKtik berreskuraturiko bertso moldeetan kezka eguneroko nahiz unibertsalak eta herri gertakari historikoen bizipenak agertzen ziren gisa, kantariaren garaikoak irudikatzeke ere balio zuten bertsoek. Gainera, aldi desberdinetan gai berak errepikatzeak komunitatearen iraganeko kezkek garaikide zirenekin lotzen zituen, bidenabar, komunitatearen jarraitutasun sentimena sendotuz (ikus 497. oin-oharra).

Baliatze horren egokitzea poeta garaikideek eginiko erabilera gaurkotuan zen. Arestik, lehenik, Letek eta Artzek nahiz Sarrionandiak, ondotik, bertso moldeak erabili zituzten, sorkuntzarako, eta halaxe bildu zituen Laboak, bere grabaketetan. Hori dela eta, adiera desberdineko bertsoak hautatu, eta molde bat-batekoa ez zenaren erabilera zabala baliatu zuen kantariak. Bertso paratuak transmisiorako corpus izateaz haratago, moldearen erabilera eguneratua bulkatzen zuten aritu gisa bildu zituen –oroitu Sarrionandiaren koplak–.

Alabaina, bertsoaren erabilera garaikidea eginagatik, aitzineko generoen erabilera funtzionala arrunt akitua zen: bertsoak tresna gisa erabili, bai, baina aitzindenboretan

⁴⁹⁸ (Otsalde, *Eskualduna*, 1932, 1707: 4)

⁴⁹⁹ J. Garziak, 60ko hamarkadako txapelketez ari delarik: “Hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarkearen zati batean, bertsolariak eta publikoa oinarritzko balio zehatz batzuk eta munduaren ikuspegi berezi batek lotzen ditu. Testuinguru horren oinarrian euskal herritarrek eta euskarak bizi dituzten zapalkuntza dago. Oinarri horretan, hizkuntzaren biziraupena berma lezakeen edozein elementuk berez sekulako emozioa sorraraziko du, aparteko testurik edo baliabiderik behar izan gabe. Euskal sentimenduak zuzenean adierazteko askatasunik gabe, gizarte-gaiek eta balio tradizionalak (horien artean erlijioak) aukera emango diote bertsolariari bertso xumeen bidez emozio handiak sortzeko entzuleengan, balio eta erreferentzia horiek aipatze hutsez” (*basqueliterature*). Ideia berari erreferentzia eginaz: “Ez daukate aparteko sorkuntzarik egin beharrik entzuleak bereganatzeko, euskaraz jardutea bera nahikoa dute euren artean lotura sendoa sortzeko. Darabiltzaten gaiak ezagunak dira maiz eta, beraz, literatura balio handiegi bakoak batzuetan” (Etxebarria eta Kalzakorta 2009: 58).

molde horretan egokiturikoak funtzionalitate sinbolikotik atzemanen ziren. Bertso-paperek, adibidez, artean funtzio hagitz garrantzitsua zuten, XX. mendearen hasieran, komunitatearen barrenean: Historia nagusiak erraten ez zituenak kontatzeko, herriaren ikuspegia aditzera emateko eta egitura ofizialetik at geratzen zirenak azaleratzeko erabili izan baitzituen komunitateak.

everything that concerned or mattered to the community was reviewed in the written *bertsos*. Together, the corpus of *bertso-paperak* constitutes a comprehensive manual of oral history, and in this sense it is an obligatory reference for anyone not content to settle for the official version of events. (Garzia 2007a: 57)

Ahozko kultura komunikazio modu nagusi zuen herriarendako bidea izan zen, ahozkotetasunak, orain dela guti arte, bazterreko estatusa izan badu ere. Gerora, ordea, guziz bertzelakoa izan zen bertso molde horien garapena (3.1.3., b.1.).

Erraniko guziak kontuan izanik, zer dela eta bertsoaren presentzia Laboaren corpusean? Hiru arrazoi nagusi sumatzen ditugu: corpusaren zati handi bat bertso moldeetan izatea, bertsolaritzak 60etatik aitzina sortu zuen miresmena eta etno-(h)istori(ar)en bilgune gisa atzeman izana.

Batetik, beraz, corpusak moldearekiko zuen loturaren garrantzia; hau da, euskal AOK osatzen duen corpusak bertso moldeekiko izan duen ageriko harremana. Bertzetik, “bertsolaritzarekiko miresmen” gisa izenda genezakeena: kulturgile zenbaitek identitate kolektiboaren bilaketa bertsolaritzan ardazu zuten, bai herriaren ahots gisa, bai euskaltasun “egiazko”aren gordeleku gisa, sumatu nahi izan zelakotz; herriaren bizipen paralelo ez-ofizialak bertan bildu, eta iraganeko ahotsak bertso moldeetan gordeak izanak ziren, denbora luzez. Azkenik, etno-(h)istori(ar)en bilgune gisa atzeman izanak ere eragina izanen zuen: errealitate horien agerpenaz haratago, komunitate isilduaren ahotsa gaitzeko tresna kultural gisa ulertu ahal izan zen. Hau da, bertsolaritzaren marjinaltasuna abangoardia seinaleztat berrinterpretatu zen, 60-70etan: atzemate berri horretan nahasi egiten ziren herriaren bazterreko ahotsa, iragan atzendua eta bertsolariaren irudi mitifikatua.

Beraz, Laboaren kantetako bertso berreskuratuen eta garaikideen arteko harremanak euskal komunitatearen jarraitutasun sentimena sendotzeko aukera ematen zuen; hala nola, garaiei egokituriko gai bertsuak, komunitate berarekin, islatzeko aukera zen. Hala, bada, bertsoen presentzia nahiko “halabeharrezkoa” dela erran genezake: AOKren zati bat bertsoei atxikia izanik, ulergarria da corpus horren berreskuratze prozesuek molde hori hautatzea ekarri izana.

Horrek ez du eragozten, ordea, kantariak –bertze hainbat kulturgilerekin batera– hautatu zituen AOK-ko elementuak garaiko euskal komunitatearen beharretara espresuki egokitzen ez zirenik. Are gehiago, 4.2.2. atalean ikusiko dugunez, Mikel Laboak AOKrekin egin zuen birgaitzean, egokitasun hori bihurtu zen guneko tresna: abangoardiazko arituak komunitatearekin oreka komunikatiboa lortzeko behar zuen tresna nagusietarik bat izan zen AOK.

4.2.1. atalean⁵⁰⁰, Mikel Laboaren aritutik abiatuta, 60etan abiatutako moldaketaren ondare kulturalaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa gertatu ahal izateko aldaketa eta eguneratzeak egin zirela ikusi dugu. Transmisioaren auzia, preseski, hagitx kontu garrantzitsua da, berau baita komunitate baten tradizioa sostengatzen duen bide naturala: bizirauteko berezko bidea eta komunitate onarpenaren muina. Horregatik, Aro Iluna hasi zenetik, bederen, AOKren belaunaldiz belaunaldiko transmisio naturala nahiko akitua zela jakinik, corpusaren funtzionalitatea ere arrunt bilakatu zela pentsatu behar da: herriak –Aro Ilunean– balada, kanta nahiz koplak zahar eta bertsoaritzarekiko zuen harremana mugatua zuen, belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren askatasun naturala hertsitua izana baitzen.

Komunitateko etete horrek funtsezko ondorioak izan zituen: corpusaren berreskuratzea artifizialki abiatu, eta belaunaldi nahiz garai berrietara egokitu beharra sortu zen. Hau da, komunitatearen baitakoak ez diren arrazoiak direla eta, tradizioaren transmisio naturala “eratu” egin behar izan zen, 60etatik aitzina: herriarendako helduleku izanen zen tradizioa eskaini behar zen. Haratago joanaz, komunitateari eskainiriko helduleku hori artifizialki eman zela erran liteke: espresuki bilatu, hautatu eta berreskuratu beharra izan baitzen.

Lan horretan eta funtzionalitate berrien garapenean Mikel Laboak lagundu egin zuen: AOKtik berreskuratu zuen corpusari funtzionalitate sinbolikoa ematen laguntzeaz gain, komunitateak behar mailak garatu ahala, helburu zabaletan tresna gisa ahalbidetuz (4.2.2.a., 4.2.2.b.). Hau da, berriz baliotu zen AOK, ageriko erranahiaz gairik adierazgarritasuna zuen baliabide gisa.

⁵⁰⁰ 4.2.1.b. azpiataleko ondorioak 4.2.1.ekoekin bildu ditugu.

4.2.2. AOKren berreskuratze birgaitua

1960tik 1980ra bitartean, eta ordutik aitzina, AOK-ko elementuek bide desberdina egin zutela ikusi dugu (3.1.3.b.). Mikel Laboaren arituan, komunitatean AOK-ko corpus gisa finkatuz zihoanak funtzionalitate sinbolikoaz haratagoko erabilera lortu zuen. Horregatik, AOK-ko elementuen birmoldatze ekimen nagusiaren baitan, Laboaren ekarpena hurbildu nahiko genuke; izan ere kantariaren ekarpen garrantzitsua izan zen funtzionalitate sinbolikoaren eta iraganaren adierazpide gisa sumaturiko AOK orainaldiko behar eta arte ikuspegi zabaletarako birgaitzea.

Beraz, ekarpen horri erreparatuko diogu, espresuki. Lehenik (4.2.2.a.), bat-bateko bertsolaritzak eta Laboaren AOK-k 60-70etan partekatu zuten giroari erreparatuko diogu: funtsean, garaturiko funtzionalitatea musikaren pertzepzio moduarekin hagitz lotua zela aztertuko dugu; gainera, AOK-ko elementuei kantariak emaniko abangoardiazko izaeraz arituko gara. Segidan (4.2.2.b), abangoardia horrek lagundurik, preseski, kantariak komunitatearen behar mailak asebetetzeko eskaintza egin zuela argudiatuko dugu. Bertzeak bertze, AOKrekiko jarrera eta haren atzematea komunitate bilakaeraren erdigunean izanagatik, kantariak iragana eta oraina dimentsio berean uztartzeko izan zuen abilezia ekarpen indibidual gisa ikertuko dugu.

4.2.2.a. Iragana eta oraina, dimentsio berean uztartuak: abangoardia

Laboaren ekarri nagusietariko bat iraganeko errealtateko oihartzunak abangoardiarekin uztartu izana da; horretarako, ordea, aitzinpauso garrantzitsua izan zen baliabide kultural horienganako atzemate aldaketa. Segidan, bi ideia horiez arituko gara: atzemate aldaketaren zabalaz (a.1.) eta AOK-k abangoardiako arituarekin izan zuen harremanaz (a.2.). Hartara, 4.2.2.b. azpiatalean espresuki jarriko dugu fokua abangoardia horren erabilera berriztatuan.

a.1. AOK, baliabide sinboliko

Komunitate kulturalen garapen, biziraute eta aldaketa prozesu nagusiak osoki ulertzeko, faktore ekonomiko-politiko zabalez gain, ezinbertzean erreparatu behar zaio dimentsio sinboliko-afektiboari ere (Smith 2009: 18). Dimentsio horrek kultur identitateen *continuum*erako intentsitatea ezartzen du, aitzineko errotzeak moldatu, aldatu eta lotura berriak ezarriaz kideen artean. Are gehiago, baliabide sinbolikoek ondare kulturalaren jarraipena zilegiztatzen dute, baita ondare horrekiko atxikitzea ere.

Horregatik da hain garrantzitsua memoria, balio, erritual, mito eta tradizioen azterketa: komunitate partaideen artean kohesio eta identitate propiorako barne-lotura eskaintzen baitute.

1950-1975 bitarteko moldaketak aldaketa handiak eragin zituen, herriarengan; bihurtze horiek, ordea, iragan konpartituak eskaintzen zituen baldintza sinboliko-afektiboekin izan zuten loturarik handiena; zehazkiago, kulturgileek eskainiriko AOK munta handiko euskarria izan zen, bai orduko, bai ondotik finkatuko zen EKS garaikidean.

Aztergai dugun Laboaren corpusa testuinguru horretan kokatzen da. Baina, nola liteke ordura arte herriaren gehiengoarendako urrutiko zen ondarea identitate kulturalaren oinarritzko abiapuntu, edota helduleku, bihurtu izana? Zein faktorek lagundu zuen AOKren atzematean balio afektibo-sinbolikoak garatzen?

Jarraitutasun sentimen partekatua eragileetarik bat izan zen: iragan partekatuak komunitateko partaideen artean sorrarazten dituen babes eta lotura sentimenez jokatu zuten identitate kulturalaren oinarritzko helduleku gisa. AOK iragan konpartitua azaleratzeko corpus egokia izaki, bertan sumatzen ziren elementu kulturalakiko inplikazio sentimentala garatu zen.

Identitate nazionalaren azterketan, emozio zama horrek bi ondorio nagusi izan ohi ditu (Guibernau 2009 [2007]: 29): batetik, partekaturiko kultura mesedegarri izaten da, komunitate partaideen artean solidaritate sentimenak sorrarazteko –izan ere, material hori dela medio, nazio bereko partaide gisa identifikatu, eta beren komunitatea berteengandik desberdina dela imajina baitezakete–; bertzetik, kultura jakin batean gizarteraturiko pertsonen euren parte gisa barneratzen dituzte bertako sinbolo, balore, uste eta ohiturak –hau da, ondare kultural partekatuko baliabide sinbolikoak–.

Beraz, kulturarekiko identifikatzean zama emozionalak esku hartzen du, eta, era berean, alderdi afektiboaren indarra lagundu ahal duten eragileak izaten dira, sarri. Haatik, hizpide den garaian, iragan kulturalak jarraitutasun sentimena lortzen lagundu bazuen ere, garrantzi handia izan zuten bertzelako eragileek ere: corpusarekiko inplikazio emozionalerako ezinbertzeko izan zen kulturgileen emanaldi nahiz aritueta sorturiko atzematea. “Harzabal”ek [JosAnton Artze] hala gonbidatzen zituen “Baga, biga, higa” sentikarira *Anaitasunaren* irakurleak: “Aurkezpen hau egiteko eskatu didate. Zenbait gauza aurreratu dizkitzuet, zuek kilikatzeke asmoz eta etor zitezene festa honetan parte hartzera, entzutera, ikustera, sentitzera, hots, sentikaria” (“Baga, biga, higa...

sentikaria. Ez Dok Amairu”, 1970, 201: 10). Bestaz haratagoko sentitze partekatuetan sumatzen da balio emozionalaren garrantzia.

Baldintza emozional horien atxikitzea corpusarekiko atzemate prozesuari arrunt lotua izan zen. Beraz, AOK-k komunitatearenganako lortu zuen hurbiltasuna ulertzeko, corpusaren harreran eragin zuten faktoreei ere erreparatu behar zaie; hautematea ulertzen laguntzen baitute corpusaren entzutea baldintzatzen zuten faktore estrukturalak, hartzailen espektatibak eta bien artean sortu zen harremanak.

James H. Johnsonek *Listening in Paris: A Cultural History* lanean (1995) aztertu zuen –musikaren entzuteen artean– XVIII. eta XIX. mendeetako entzuleriaren parte-hartze zaratatsutik parte-hartze isilerako aldaketa; horretarako, entzuleriaren erantzun eta erreakzioak baldintzatzen zituzten kategoria biri erreparatu zien (*ibid.*: 4). Hark aipaturiko “kategoria estrukturalak” gizarte egitura nagusiari, maila zabalenera, egiten dio erreferentzia; botere egitura bermatzen duen estruktura politikoari, hain zuzen. Egitura maila hori Guibernauk aipatzen zituen faktoreetarik bati lotua da: estaturik gabeko nazioen identitateak sustatzeko faktoreetan lehenari; estatu barneratzailearen jarrerari, hain justu. Beraz, solasgai dugun aldian, diktadura izanen litzateke musika atzemateko modua baldintzatu zuen lehen egitura nagusi hori⁵⁰¹.

Errepresio egoeraren bizipenak euskal kulturarekiko harreman naturala aski mugatua zuen. 1960-1975 bitarteko kulturgileen ekimen ernatzaileak egokitu egin behar izan ziren hartzailen behar eta espektatiba zehatzetara; hala, diktaduraren bizipenetik eratorriak ziren espektatiba estetiko eta sozialak hagitik kontuan izan zituzten, beren komunikazioan.

Oinarrian, identitate kultural zanpatuen berreskuratze-berpiztearen baitan, euskal izana bermatuko zuen aritu kulturala nahi zuen komunitateak; baina, etorkizun desberdinaren esperantza partekatuan oinarritua:

Herri batekoak izateak, garai honetako giroan bizitzeak, eta xede berdintsuekin lan egiteak, uste dugu, halako batasun bat ematen diotela gure ekintzari; baita ere uste dugu, batasun hori nabari behar lukeala nahiz taldekoaren, nahiz bakoitzaren agerpenetan.

Geuron artean, bata bestearekin ukan ditugun esperentziei esker, jendearekin ukanen ditugun harremanak hestuagoak izanen direlakoan gaude. (“Harzabal”, “Baga, biga, higa... sentikaria. Ez Dok Amairu”, *Anaitasuna*, 1969, 201: 1)

⁵⁰¹ Etorkizunean, urteek aitzina egin ahala estatu demokratikorako bidean izaniko aldaketak aztertu beharko ditugu. Bertzeak bertze, 1978ko Konstituzioak, autogobernua ezarri arren, ez baitzituen autonomia-erkidegoak kulturalki, eta nazioari zegokion ezaugarrien arabera, desberdinu (Guibernau 2009 [2007]: 76). Hala, bada, testuinguru horretan finkaturiko EKSk bere izana ezaugarri horien bermatzean oinarritu ote zuen ikertu beharko dugu, sarri.

“Baga, biga, higa” sentikariko kideen hitzek behar horien sinkronia ematen dute aditzera. Identitate kulturala, bai, baina, era berean, mundu-gose zen jendea, diktaduraren murruek kanpoko eraginekiko harremana hertsitua baitzuten.

Diktaduraren hondarreko hainbat baldintza sozialen aldiberekotasunak aldaketak sorrarazi zituen, partaidetzan. Bertzeak bertze, testuinguru berean eragile izan ziren erroen bilatzea, euskal ondare kulturalaren berreskuratzea, iraganeko ahots urrunatzen hurbiltzea⁵⁰², identitate hirukoitzaren hausnarketa sakona –estatu zentralistaren itzala, euskal identitatea eta Europatik heldu ziren erreklamoak– eta entzute kolektiboa –sarri, zuzeneko–. Horiek guziek lagundu zuten entzuleriak euskal kultur adierazpideen atzematea kasik zeremonia bateko erritual gisa bizi izana.

Beraz, identitate periferikoen behar kolektiboak asebetetzeko lana, hein batean, kulturgileen eskutik heldu zen. Hau da, Guibernauk aipatzen zuen bigarren faktorea, kulturgileena, kasu honetan, aldeko zen, abian baitziren, erro partekatuekin berriro batzeko aukera eskaintzeaz haratago, partaidetza kolektiboaren sentipena sostengatzeko kultur lanak.

Garaiko prentsan ageri da komunitateak kulturgileen lana nazioaren mesedetan sumatzen zuela: “Oteiza, Txillida, Lete eta Iriondo, Bonifazio, Lertxundi... eta, beti bezala, hauen lan etengabe, serio eta zintzoaz ohartu naiz, eta orobat nolako arreta duten beren kreazioak gure herria zerbi dezaten” (Edorta Kortadi, “Gure artistak eta beren jokaera”, *Zeruko Argia*, 1974, 581: 6). “Zerbitze” horren atzematea, ordea, exigentzia zenbaiten trukean izan zen, luzaroan⁵⁰³.

Hala, Laboaren kasuan, iraganeko ahotsen eskaintza helduleku partekatua hurbiltzea izan arren, faktore garrantzitsua izan zen –AOKren prozesu sinbolizatzailean– corpusaren atzematea elkartasun sentimenaren giroan gauzatu izana.

Kantagintza emanaldietan eta bat-bateko bertsolaritzan sumatzen dira AOKren barneratzea elkartasunean egin izanaren eraginak: berauek gertatzen ziren giro nahiz atzemate zeremoniatsuan eta bertan eskaintzen ziren baliabide sinbolikoekiko inplikazio emozionalean. Hango giroak eta ondarearekiko jarrerak parte-hartzea bera saio liturgiko

⁵⁰² Mikel Laboak *Argian*: “Garai hartan [60en hasieran] gure kanta zaharrak ez ziren ezagunak Hegoaldean. Ximun Haranek grabatutako zinta bat ekarri zidan orduan lagun batek. Pelotari honek edonora joanda ere magnetofonia eramaten zuen, tabernetan kantatzen zena biltzeko asmoz” (Laboa 1990, G. Ubedak *Argian* eginiko elkarriketa).

⁵⁰³ Artisten profesionalizatzeko eztabaidarako ikus Ez Dok Amairuk *Zeruko Argia* eta *Anaitasunan* kaleratutako agiria (“ez dok amairu: agiria gure jokabidearen berri”, *Zeruko Argia*, 1970, 358: 11; “Ez dok amairu. Agiria”, *Anaitasuna*, 1970, 181: 1, 8; eta “Ez dok amairu: Agiria (bigarren zatia)”, *ibid.*, 1970, 182: 7).

baten gisako bihurtzen zuen, parte-hartze hark senidetasun eta partaidetza kolektiboaren sentimenak sostengatzeko balio zuelarik.

Hala, AOKren atzemate zeremoniaturako aldaketak corpusaren funtzionalitate sinbolikoa finkatzen lagundu zuen. Iraganeko ahotsak identitate kulturala sostengatzeko mugarri ziren, antzinasun bereko partaide bihurtzen baitzituen entzuleak: baladetan agertzen ziren gertakari historikoak –“Bereterretxen kanthoria”, B. Lertxundik eskainiko zituenak...–, iraganeko pertsonaien kontaketa urrunak –“Oi Pello, Pello”, “Goizuetan”, X. Leterenak...–, eta abar.

Identitate bilaketak sorturiko beharrez gain, emanaldietako baldintzek eta horien grabazioek aditzera ematen dute entzuteak eta parte hartzeak zuten izaera zeremoniatsuen indarra:

La abundancia de grabaciones en directo es muy indicativa de la enorme importancia de la experiencia comunal de este fenómeno [60-70etako kantautoreena], reflejando el acto colectivo de participación en los conciertos. Este aspecto casi litúrgico se reflejaba en la estructura participativa de los conciertos, los diálogos de los cantautores con el público, las repeticiones corales y la expresión colectiva de eslóganes y gritos de protesta. Casi todo cantautor de relieve publicó al menos un álbum en vivo en aquellos años (Colmeiro 2005: 101)

Laboaren musika eta doinu iradokitzaileek ere ondare eta hitz arroztuen entzutea zeremoniatsu bihurtzen lagundu zuten: edukiaz haratago, AOK-ko fosilen kasuan –“Xori erresiñula”, “Haika mutil”–, komunitate sentimen partekatuak sortzen zituen kantagintza-performancea baitzen; eta irudien eguneratze sinbolikoak, gainera, parte-hartze hura finkatu zuen.

Hala, corpus horrek entzule bakoitzaren lotura indibiduala talde partaidetzaren baitan babesten zuen⁵⁰⁴, identitate indibidualari babes kultural komuna emanaz. Babes horren sentitzea euskal identitatearekiko jarrera positiboak ahalbidetu zuen gisa, identitate gutituaren balorazioak norbanakoaren balioeste nahiz ongizatea lagundu zituen. Hori dela eta, identitatea maila bitan heltzeko eta indartzeko baldintzak sortu ziren, 60-70etan.

Jarraitutasun eta bateratasun sentimen horren babesa bat heldu da Anthony D. Smithek elementu kulturalen garrantzia azpimarratzeko erabiltzen dituen argudioekin

⁵⁰⁴ “Para las personas, la identidad nacional es sumamente valiosa porque les proporciona un sentimiento de dignidad sin distinciones por motivo de clase, género, logros, estatus y edad. Al pertenecer a la nación, la gente se identifica con los éxitos de sus connacionales y hasta cierto punto los considera propios. Al identificarse con la nación, las vidas finitas de las personas son trascendidas y la nación llega a ser venerada como una entidad superior. Una de las características más singulares de la identidad nacional es su capacidad para superar las divisiones de clase y fortalecer un sentimiento de pertenencia a un tipo artificial de familia extensa, es decir, la nación.” (Guibernau 2009 [2007]: 253)

(2009: 25). Hiru argudiotan biltzen du –elementu kulturalen artean– sinbolo, mito, memoria, balio, erritual eta tradizioek etnizitate, nazio eta nazionalismoen azterketarako duten garrantzia: batetik, egitura sozial eta kulturei forma ematen diete, kohesio eta kontzientzia partekatua ezarriaz sektore desberdinetako jendearen artean; bertzetik, komunitate bakoitza errepertorio kultural bereizgarri batez hornitzen dute, erlijio, hizkuntza, ohitura eta erakundeek “bertze”ekiko diferentziak agerrarazten dituztelarik; azkenik, iragan belaunaldiekin jarraitutasun sentimena lortzeko laguntza dira.

Hiru argudio horietan biltzen da aipaturiko elementu kulturek komunitateen azterketarako duten garrantzia. Hau da, kantarien zuzeneko emanaldietan sumatzen ziren kohesio partekatua, izate berezia eta jarraitutasun sentimena hagitz lotuak dira eskaintzen ziren iraganeko ahotsei eta atzemate kolektiboari. Etorkizunerako begirada bateratuak lagundu zuen jarraitutasun sentimenaren indarra: herrikideek komunitate gisa parte hartzen zuten euskal kultur emanaldietan, eta AOK-ko elementuetan bilduak espresuki ongi egokitu ziren garaiko beharrei. Beraz, corpusak komunitate partaideen artean lokarri horiek sortzeaz gain, parte-hartze bateratuak aunitz lagundu zuen iragan kultural berezi eta atzenduarekiko hautemate zeremoniatsua.

Parte-hartze mota horren eragina euskal kultur ondarearekiko zabaldua zen, ordea. Kantagintzan berreskuratzen ziren bertsopaper, hitz-joko eta genero epiko-lirikoko corpusaz gaindi, AOK-ko arituak hartzaileak zain zirenetara egokitu behar izan ziren; duintasunean partaide sentitzearen beharrari, nagusiki. Hala, bat-bateko bertsolariek ere hartzaileekiko harreman baldintzatu bertsua garatu zuten, giro liturgikoaren baitan (ikus 499. oin-oharra).

Joxerra Garziaren erranekin ohartu gara atzemate liturgikoak euskal errealitatean zuen balio zabalaz (2012: 66). Nolanahi ere den, euskal ondare kulturalaren moldatze hasieran –gauza bertsuen zain ziren entzuleei aritu arren–, funtzionalitate desberdinak garatu zituzten bat-bateko bertsolaritzak eta kantariak berpizturiko AOK-k.

Mikel Laboak, kultur garapenaren lorpenean parte hartzeaz gain, nabarmen egin zuen komunitatearen antzinako nahiz orainaldiko dimentsioak osatzearen alde. Segidan, kantariak alde bi horiei loturiko lanak nola uztartu zituen hausnartuko dugu.

a.2. Funtzionalitate berriztatua

Beraz, parte-hartze liturgikoa garai eta komunitate behar zenbaiti lotua zen; zehazki, atxikitze emozionalari⁵⁰⁵ –arrazoiaz gaindiko arrazoiei– lotuak ziren premia nagusiei: segurtasun, erro eta helduleku sinbolikoak behar izateari. Hau da, komunitate senidetza bideratuko zuten baliabide sinbolikoak eskuratu beharrari. Behar horiek, atzemate zeremoniatsurekin batera, AOK-ko elementuen funtzionalitate sinbolikoa tinkatzen lagundu zuten; nazio identitatearen baitan, iraganeko erreferentzia partekatuen eta partaidetza sentimenaren oroitzarako baliabide bihurtu ziren.

Komunitate beharrez haratago, corpus moldaketaren garrantzia azpimarratu nahiko genuke, orain; izan ere, Mikel Laboak komunitatearen beharrak asebetetzeko corpora eskaini izanaz gain, hagitz berrinterpretazio eguneratua egin zuen. Ondare kulturala ez da ahaleginik egin gabe atxikitzen; belaunaldiz belaunaldiko jarraipenak etengabeko moldaketa behar izaten du, haren jarraipena mantenduko bada; funtzionalitate eta erabilgarritasunaren izenean, belaunaldi berrira eta garai desberdinetara egokitzea ezinbertzeko prozesu baita. Kantariak eskaintzen zuen AOK-k funtzionalitate sinbolikoa izan arren, aski hasieratik eskaini zion corpusari dimentsio berria ere.

Berritasun horren alderdiak ez ziren berdin atzeman, ordea, eta komunitateak ez zuen aisa beretu AOK abangoardiara hurbiltzeko ahalegina:

Mikelek Gernikan estreinatzen du kantu hau 1972an. Sor dezakeen erreakzioagatik kezkatuta badago ere, emanaldiaren bukaeran 1937ko bi lekuko hurbilltzen zaizkionean eskreturik sentitzen da kantua entzutean nolako emozioa sentitu duten agertzen diotenean. Aitzitik, garai hartan ematen duen beste kontzerturen batean jendarteko batzuk txistu egiten diote beren gaitzespena erakusteko: kantua arraroa eta desatsegina iruditzen zaie, eta “kantu normalak” kantatzeko eskatzen diote. (*Lekeitioak* liburuxka, 2007, “Gernika. Lekeitio 4 - 1972”, zenbatu gabe)

“Baga, biga, higa” (1970-1972) eta “Ikimilikiliklik”⁵⁰⁶ (1970-1975) lanetan, AOKren moldatze garaikidea agerikoa⁵⁰⁷ izan zen, eta, banako bideari dagokionez, sarri aipatu izan da kantariaren abangardia. Bertzeak bertze, adituek abangoardiaren erakusgarritzat identifikatu izan dituzte gitarra klasikoaren erabilera, ahotsaren tinbrea,

⁵⁰⁵ “La identidad nacional promueve la cercanía, la empatía y la solidaridad entre los connacionales. Al enfatizar lo que hace única a una nación específica, se la distingue de las demás y se genera un vínculo sentimental hacia ella.” (Guibernau 2009 [2007]: 254)

⁵⁰⁶ “Ez dok Amairu desegitean oinarrian Artze anaiek eta Mikel Laboak (tarteka Jose Mari eta Jose Luis Zabala anaien laguntzaz, Bixente Kardarenaz edota Jose Luis Zumetarenaz) ikuskizun berri bat sortu zuten: *Ikimilikiliklik* bidekidekaria.” (Oronoz 2011: 251)

⁵⁰⁷ Laboak berak “Ikimilikiliklik” proiektuan “*media*” eta baliabide berri desberdinak baliatu zituztela aipatzen du: diapositibak, marrazkien proiektzioak, argien jokoak... (*Mikel Laboa (1934-2008)* DVDan).

arrazoiak kanpoko –itxuraz, bederen⁵⁰⁸ solasa zena, soinu berri distortsionatzaileak (Aurtenetxe 2011: 389), musikaren sinpletasuna (Joseba Tapia, *in* Martin 2006) eta abar.

Horiek espresuki AOKrekiko erreparatuz, abangoardiarekiko harremana modu bitara gauzatu zela ohartu gara: kantariak corpusari eman zion kokagunearekin –lan garaikideen artean bildua– eta corpora lantzeko moduarekin –esperimentalizazioetan, lanerako tresna eginaz–.

Gisa horretan, 1960-1990 bitartean kaleratu zituen grabaketetan, euskal AOKrekiko iraganaz haratagoko erlazioa sortu zuen: iragan kultural partekatua helduleku eta sinbolo izateaz gain, hausnartze eta aritze garaikideekiko baliagarritasuna agerrarazi zuen. Lastima izan arren, deus guti landu dugu, hemen, zuzeneko arituen izana⁵⁰⁹. Helburu nagusia kultur moldaketari buruz erranak egiazki aritu zehatzetan sumatzen direla erakustea izaki, oinarririk finkatuenera jo dugu; LP, disko eta CDetako grabaketetara. Zernahi gisaz, hemen erranak zuzeneko emanaldien azterketarako baliagarri liratekeela uste dugu; izan ere, grabazioetan islatuak aitzinez, jendartean, izana baitzuen garapena, eta emanaldi horien azterketak aski bateragarriak dira, ziur aski, hemen erranen direnekin –beraz, izan daitezela eginen diren lanetarako bulkada–.

AOKren kokagune abangoardiazkoari dagokionez, poliki ondu zuen kantariak bidea. Hona hemen garapenaren laburpena:

- 60etako disketan ez ziren AOK-ko elementuak garaiko poetekin batera, segidan, eskaini: *Lau herri kantan* iraganeko corpora, soilik, bildu zuen arren, *Urtsuako kantan* Arestiren bi idazki eskaini zituen; hirugarren lana, *Bertolt Brecht*, Brecht idazle unibertsalaren olerkiez osatu zuen, eta *Haika mutilen* ageri dira J.A. Artzeren “Zilbor-hesteak” –lehen aldiz formatu iraunkorrean– eta D. Landarten “Zure begiek” olerkiak. Agerikoa da lehendabiziko hamarkada horretan AOK-ko elementuak, pixkana, gero eta proposamen garaikideagoekin eskaini zituela.
- 70etan bi bilduma kaleratu zituen: *Bat-Hiru* eta, 1980an kaleratu arren, 70ekotzat dugun *Lau-Bost* bilduma. Bigarren hamarkada honetan, aitzinez abiatutako bideari

⁵⁰⁸ Laboak berak azaltzen zuen komunikazioaren bertzelako moduak aztertzen zituela “Lekeitio”etan (Laboa 1990, G. Ubedak *Argian* eginiko elkarrizketa).

⁵⁰⁹ Aurtenetxek erran gisa: “Bere obra [Laboarena] ez zen kantuan soilik oinarritzen, oholtza gainean erabilitako argiak, mugimenduak, keinuak, musikariekiko jarrera, soinuekiko tratamendua eta publikoarekiko jarrera pertsonala arte lanari berak eman nahi zion zentzua ematen zioten, helburua publikoarekiko komunikazio prozesua izanik” (2011: 396).

jarraiki, Euskal Kantagintza Berriaren inguruan –nahiz harekin ziren poetekin– jarraitu zuen lanean; hala, gaurgero aitzinbelaunaldietakoak ziren idazleez gain –Brecht unibertsala, Mendiage⁵¹⁰ eta Telesforo Monzón euskaldunak–, 60etako kultur moldaketan berebiziko garrantzia eta presentzia lortu zuten bidelagunak –eskarmentu handia zuen Aresti, Artze, Lete– hurbiltzen ditu AOK-ko elementuen ingurura.

- 80etan, aldiz, diferentzia nabarmena sumatzen da, poeten lanei dagokienez; izan ere, ordura arte aitzinbelaunaldi edota 60etako kultur moldaketan bete-betean arituriko olerkari kideen lanak txertatu bazituen ere, orduantxe hasiko baitzen poeta gazte berrien lanak, formatu iraunkorrean, eskaintzen; orduetik aitzina, Sarrionandia eta Atxaga⁵¹¹ sarri izan ziren Laboaren arituan partaide. *Lekeitioak* bildumaren lehen bertsioan izan ezik, hamarkada horretako 6 eta 12n agertu ziren. Gisa horretan, AOK-ko elementuak iragan hurbilarekiko nahiz orainarekiko are harreman estuagoan ezarri zituen.

90etan, eta orduetik aitzina, 80ko hamarkadan hasitako bideari segida eman zion⁵¹². Zernahi gisaz, jakina da disketan bilduak aitzinetik eskainiak zituela kantariak, zuzeneko arituetan; Marisol Bastidak 1972-1980 bitartea “musika-jarduera handiko” aldia izan zela errana du (2009: zenbatu gabe). Horregatik, etorkizunean, lehen hurbiltze honetan sumatuak zuzeneko emanaldietako eskaintza konplexuaren azterketekin osatu beharko lirakekeela azpimarratu nahi dugu, berriz ere; lehendabiziko hamarkadetan jendartean garatu baitzuen Laboak bere aritua, ondoko pauso gisa disketako egonkortasuna emanaz.

⁵¹⁰ Laboak abesturiko “Kantuz” kanta *Zazpiak bat: eskualdun kantuak* liburuan agertu zen. “*Euskal Herria* argitalpena zaharraren ordeiz *Haitza* astekaria sortu zen 1899.ean Buenos Airesen J. Sescosse zenaren zuzendaritzapean, eta honen lehendabiziko urteurrena ospatzeko aitzakipean *Zazpiak bat: eskualdun kantuak* Mendiagueren liburua azaldu zen 81 kantekin: «Ene hoberena liburu hontan eman dut eta nahiz bertze guzien artean ene botza indar gutikoa den, ene egina ez dut neurtu izan dezaken balioan, baina bai nik eskuarari diotan amodioan.» (Bidador, *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-09-26)

⁵¹¹ Iñaki Salvador musikariarekin ere orduantxe hasi zen lanean: “1984: Iñaki Salvador pianistarekin hasten da elkarlanean, entsaioetan eta emanaldietan. Une horretatik aurrera, musikagile gazte hau, batez ere jazzaren munduan mugitzen dena eta akordeoia, sintetizadorea etab. jotzen dituen, garrantzi handiko lankidea izango da Mikelentzat”, “1987aren inguruan Josetxo Silguero saxofonista hasten da Mikelekin jotzen, eta hura, Mikel Salvadorrekin batera, Mikelen beste taldekide garrantzitsu bat izango da” (Bastida 2009: zenbatu gabe). Ideia bera, Aurtenetxe 2011: 397.

⁵¹² Lan honetan aztergai izan ez arren: 14 (1994), *Mikel Laboa* (1995), *Zuzenean* (1997), *Gernika-zuzenean* (1999an grabatua eta 2000n kaleratua), 60ak + 2 (2003), *Xoriek 17* (2005) eta *Lekeitioak* (2007).

Poeta eta kulturgile gazteekiko harremanak AOKren eguneratzearekin lotura gutixko duela iduri badu ere, hagitx pauso garrantzitsua izan zen: kantariaren jarreraren lekuko da, eta idazki garaikide horiek AOK-ko elementuak babestu zituzten; gainera, bermatu egin zuen baliabide sinbolikoen –bertako iruditeriaren izana eta indarra– berriztatzea. Olerki garaikideak landu zituen arren, ondare metatuko jakintza ez zen lekuz kanpo gelditu: testuingurua partekatzeaz gain, dimentsio berean batu zituen, iragana eta oraina artearen eremuan uztartuz eta, kantariaren langintzan, bide-bazterrean utzi gabe. Bertzalde, poeta gazteen lanari ere gune garrantzitsua eskaini zien.

Zernahi gisaz, goiti aitzinatu gisa, aritu esperimentalarekin izaniko harremana ez zen maila horretan, soilik, gauzatu, AOKtik berreskuraturiko elementuak tresna ere izan baitziren esperimentalizazioan, “Lekeitio”etan. Hala, hitzen erranahiaz haratagoko komunikazio prozesuen azterketetan agerrarazi zituen “Baga-biga-higa” hitz-jokoa, “Haika mutil” doinua⁵¹³ eta “Xori erresiñula üdan da khantari”ko hondarreko estrofa. Errepara diezaiogun, polikixeago, kontuari.

Komunikazioaren azterketa propioa abiatu zuen 1968an (*ibid.*). “Lekeitio”ak sail esperimentalari buruz kantariak berak zioenez:

Ez naiz oso ondo gogoratzen nola hasi nintzen metalengoaia horretan. “Lekeitio”k gerra garaian ezagutu nuen Lekeitioko baserri batekin zerikusi handia du, hortik dator, hain zuzen ere, tituloa. Bertako berbaren musikalitatea inpakto handikoa izan zen neretzat. Geroztik maiz joan izan naiz baserri hartara. Fonema eta espresibitate diferenteak ikusirik, ohartu nintzen komunikatzeko bide desberdinak daudela konbentzionaletik aparte, irrintziak... gorputzarekin ere komunikatzeko biderik badugu. Neri ahotsa bidezko komunikazioa ateratzen zait gehienetan. (Laboa 1990, G. Ubedak eginiko elkarrizketa)

Aztertze nagusi horretan, AOK-ko elementuak ere hurbildu zituen: corpus horretako hitzek ageriko zentzu arrazionala galtzen zuten, testuinguru berrietan kokatuz, beren erritmo nahiz doinuekin konbinazio desberdinak sortuz eta musika trataera diferenteekin berrirakurriz. Esperimentalismo horren barrenean, alderdi aunitz dira interesgarri, baina kantariak AOKtik berreskuratu zituenak aztergune izaki, horien birmoldatzeek iraganarekin ezarritako harremanei soilik erreparatuko diegu, oraingoz; izan ere, harreman horiek AOK-k –70en akieran eta 80etatik aitzina, bereziki– jasaniko funtzionalitatearen berriztatzea hausnartzen lagunduko dute⁵¹⁴.

⁵¹³ Marmarkako kantatzeak hitzezko kantua zelarik adina indar lortu ahal zuen, jendartean.

⁵¹⁴ Hala nola, komunikazioari buruzko hausnarketa esperimentalen barrenean, AOK-ko elementuen alderdi desberdinak iduri du euskal iragan urrutikoaren pasarteak biltzeko, transmititzeko eta publikoarekin konektatzeko baliagarri direla (4.2.2.b.). Segidan azalduko dugu “Baga-biga-higa” “Lekeitio”an –errepikapenaren balio liturgiko gisa– “Haika mutil” doinuarekin eta “Xori erresiñula”ko

Hiru “Lekeitio”tan sumatzen da euskal AOKren presentziarik nabarmenena: “Baga-biga-higa - Lekeitio 2”, “Gernika - Lekeitio 4” eta “Itsasoa eta lehorra - Lekeitio 7”n. Lan horietan, AOKren erabilgarritasun berriztatua agerian utzi zuen Laboak: baliagarri bihurtu zuen hitzez haratagoko komunikazioan eta iraganaren alderdi biren azterketan.

- Corpus horretako doinu, hitz multzo eta testuak hitzen ageriko zentzuaz gaindiko komunikazio bilaketarako balioak ageri dira; hala, zentzu berria ematen diote multzo osoari. Bigarren “Lekeitio”an “Baga-biga-higa” hitz-jokoa zen –J. Garziak “educational pastimes” gisa izendatu zituenetik bat (2007a: 50)–. Lan goiztiar horretako pasartea batere erlijiosoa izan ez arren, ironikoki, arestian aipaturiko entzute liturgikoa lortzen zuen kantariak –horra parte-hartze liturgikoak balio erlijiosorik ez duenaren zantzua–. Izaera horren isla *Lekeitioak* liburuxkan ageri da:

Laboak bi poematxoak [Manuel Lekuonaren *Literatura oral vascan*⁵¹⁵ diren tradiziozko bi poema onomatopeiko] batu egin zituen eta musika jarri zien, eta soinu fonetikoaren jokoak inprobisatzen ditu *crescendo* luze batean obsesiboki kateatuz eta, letania arraro eta misterioz baten eran, denboraren gainetik eramaten gaitu garai primitiboetatik gailur gorenetarantz. (Zenbatu gabe) (Azpimarra ez da gurea)

Laugarren “Lekeitio”an, “Haika mutil” testuari egotziriko doinua hautatu zuen, iraganeko ahotsak berriz ere oroitzu, akiera alderako; lehenagotik emana zuen I. Salvadorrek abestiaren alderdi musikala *Seiko* bertsioan, eta “Lekeitio”en 1988ko bilduman bertsio instrumentala agertu zen, “Haika mutil” izenburupean. Azkenik, zazpigarren “Lekeitio”an, txalapartarekin batera, zubererazko “Xori erresiñula üdan da khantari” anonimoaren hondarreko ahapaldia abesten zuen. Hala, “Lekeitio”en esperimentazio saio nagusiaren baitan, AOK-ko elementuen erranahia eta horiekiko komunikazioa –elkar ulertzea, beraz– hitzen erranahiaz haratago ahalmenu zituen.

“Kantu tradizional” gisa izendatu ohi direnei buruzkoak leituz ohartzen gara komunikazioaren ardura aski aitzinetik zuela kantariak. Tradiziozko kantei buruz ari zela:

La sencillez y belleza de algunas de esas melodías me encantaron, pero a la hora de elegirlas también me importa la letra, y si era muy larga resumía tratando de recoger lo que para mí era

estrofrarekin 60-70etan lorturiko funtzionalitate sinbolikoari erabilgarritasun berria eman zuela kantariak. Hain zuzen ere, AOK abangoardiarekin batu izanaren alderdirik nabariena funtzionalitate sinbolikoaren berriztatzea dela uste dugu: iraganeko elementu partekatu gisa hauteman izanaz haratago, egokituriko funtzionalitate sinbolikoak abangoardiazko arituen lanketan baliagarritasun berriztatua zuela erakutsi baitzuen.

⁵¹⁵ (1964)

esencial. Creo que en general he elegido las letras que “me decían algo”, me gustaban, me divertían (el humor siempre ha sido importante para mí) o, en un sentido más amplio, me servían para expresarme. (Aurtenetxek 2008-2-21ean eginiko elkarrizketa pasarte, *in* Aurtenetxe 2011: 389)

- Bertzetik, “Lekeitio”etan baliabide sinbolikoak komunikazioaren hausnarketa sakonaren baitan kokatzeaz gain, AOK-ko elementu horiek iraganaren alderdi biren azterketarako ere baliatu zituen; iraganaren alde desberdinei erreparatzeko, elkarren lagungarri, erabiltzen ziren: euskaldunek biziriko gertakari historikoei “ahotsa” paratuz –“Gernika - Lekeitio 4” eta “Orreaga - Lekeitio 6” lanetan–, euskal historia hurbil eta urrutikoaren kontaketa alternatiboa egin zuen. Iragan horri kultura partekatua gordelekuek, baliabideek, laguntza eskaintzen zioten: bigarren “Lekeitio”an, kasu, “Haika mutil” doinuak, iragan denboretara eraman arren, seinale du bere balio afektibo iragangaitza.

Baliabide sinbolikoen onartze eta bereganatze prozesuak ez dira naturalki zilegizatuak izaten; komunitateaz kanpoko faktoreek baliabide sinbolikoekiko harremana bortizki moztua denetan, prozesu konplexua izan ohi da ondare kulturalaz berriz jabetzea. Izan ere, ondare hori bilatzea, hurbiltzea eta harekiko loturak berreraikitzea testuinguru konplexuetan gertatzen dira; ukatuak izaniko identitateen eta askatasunen beharra denetan, preseski.

Zapalkuntza egoeretan, nahiz ondotik azaleratzen diren arnasberritzeetan, etsai partekatua irudia identitatea sendotzeko hagitz eragile garrantzitsua izaten da: zampaketa jasaniko komunitateko kideek are batasun sendoagoak eta senidetza hurbilagokoak sentitzen dituzte, foku beraren inguruan ezartzen baitituzte iragan hurbilean nahiz urrunean biziriko bidegabekeria eta nahigabeak. Gerra, inbasio, terrorismo, bazterketa –berdin idurizkoak nahiz errealak– edo presioek komunitate sentimenaren garapena laguntzen dute (Guibernau 2009 [2007]: 37).

Prozesu horiek berek eragina izan zuten hizpide dugun epean, euskal identitatea bermatzen zuen aritu oro espainiar identitate bakarrarendako arrisku gisa sumatzen baitzen, frankismoan. Hala, bada, AOKrekiko harreman kolektiboa kantari-kulturgileek “erraztu” egin behar izan zuten; multzoari hurbildu, beren emanaldi eta arituak direla medio. Gainera, ondare horrekiko lotura afektiboa berez emana ez zelarik, onarpen prozesurako ezinbertzeko izan zen corpus horren eguneratzea. Laboak, corpusaren onarpena abangoardiazko testuinguruan giltzarri bihurtuz, pauso bat haratago eraman zuten prozesua.

4.2.2.a. azpiatalean, Laboak iraganetik heldu ziren elementuak aritu garaikidean bateratu zituela ikusi dugu; AOK metatuko corpusaren eskaintza gisa hasiriko bideak, pixkana, norabide berrienekin elkartzera egin zuen. Modu horretan, iragana eta oraina dimentsio berean uztartu zituen kantariak: kokagune eta trataera eguneratzeaz gain, iraganeko corpusaren erabilera abangoardiazkoa eginaz.

Ahalbidetze horrek AOKren balio sinbolikoa egiteko berrietara moldatu zuen; corpus hori dela medio 60-70etako komunitateak iragan bateratuarekiko lotura lortu bazuen ere, Laboak abangoardiaz zipriztindu zuen AOK, bai orduan, baita ordutik aitzina ere. Hala, soilik funtzionalitate sinbolikoa zutela iduri bazuen ere, kanta nahiz koplak zahar, doinu eta testu fosilduek abangoardiarekin bat egin zuten. Bertan baliagarri bihurtuz, gainera: corpusaren esperimentazioek erranahiaren –hitzezko nahiz hitzik gabekoaren– komunikazio ahalmen iragangaitza baliotu zuten.

Ondare horren komunikazio ahalmena aztertu zuen Laboak: iraganeko hitz eta doinuak moldatze berriekin uztartuz, eskaintza berrien ondoan paratuz eta hitz garaikideei doinu herrikoiak egokituz; gainera, alderdi ororen esperimentalizazio bateratuan –“Lekeitio”ak–. AOKren erabilera horietan hitzezko testuen –“Baga-bagahiga”–, doinuen –“Haika mutil”– eta testu zabaletako pasarteetan –“Xori erresinula üdan khantari”– baliagarritasun garaikidea frogatu zuen.

Beraz, ondare partekaturako helduleku izateaz gain, funtzionalitate sinbolikoaz haratagoko erabilera pertsonala egin zuen Laboak: bide berria eskaini zien funtzionalitate sinbolikoa fosildurik mantentzeko arriskua zuten baliabideei. Partitza, ordea, ez zen aisa izan. Hasieran ulertzeko zail izan arren, komunitateari lehenagotik eskainiak zitzaizkion baliabideak erabili zituen: parte-hartze liturgikoetako errepikapenak, doinuak eta balio sinbolikoa zuten pasarteak. Hau da, ahozkotasanaren baliabideak horietarik aunitz.

Ondoko azpiatalean, ideia horien garrantziaz arituko gara. Izan ere, Laboaren kantagintzako balada, kanta zahar, bertso paratu eta doinu herrikoiek komunitatean izaniko afinitatea behar eta interes materialez gaindikoa izan zen; hots, bitarteko ezagunen erabilerak ahalbidetu zuen funtzionalitate sinbolikoaren birbalioztatzea.

4.2.2.b. Hartzaileak, ikusmiran: abangoardia, haratago

Orain arte erranetan, AOK-ko elementuek Mikel Laboaren 1960-1990era bitarteko kantagintzan duten presentziaz aritu gara. Batetik, corpus horren izaera

zehaztu dugu: kantariak, euskal ondare kulturalaren baitan, ahozkotasunetik hurbileko elementuak hautatu zituen (4.2.1.b.). Ondotik, AOK-k, pixkana, komunitate partaideendako funtzionalitate sinbolikoa bereganatu zuela erran dugu (4.2.2., a.1.). Azkenik, corpusean oraina eta iragana nola uztartu ziren ikusi berri dugu (4.2.2., a.2.); hau da, zehaztu egin ditugu 60ko eta 70eko funtzionalitate sinboliko berrituaren bi alde abangoardistak: AOKren kokagunea eta corpus hori bera “Lekeitio”etan tresna gisa erabili izana.

Jarraian, kantariak proposamenetan –balioztatze sinbolikoan nahiz erabilera abangoardiazkoan– hartzailea hagitik kontuan izan zuela ikusiko dugu: batetik, komunitatearen beharrak asebate zituen; bertzetik, kontuan izan zituen –segidan onarpena lortu ez zuen abangoardiazko arituan– hartzaileen ezaugarriak. Kontuan izate horren egiaztapena aritu esperimentaleko oreka komunikatiboak ematen duela ikusiko dugu.

Behar mailen garapena, preseski, abangoardiazko arituen oreka komunikatiboa lortu ahal izateko prozesu klabea izan zen. 60ko hamarkadan eta 70ekoaren hasieran, komunitateak zituen behar etno-kulturalak identitate kolektiboaren oinarritzko finkatzeari lotuak ziren –eta, ikusia dugunez, harreman handia izan zuten lotura afektiboekin–. Beharren asebetetzean parte hartu zuen AOK-k lagundu egin zuen, hain zuzen ere, “Lekeitio”etako oreka komunikatiboa mantentzen.

Lotura horretaz hobeki ohartzearren, lehenik, euskal komunitateak izaniko behar mailak birpasatuko ditugu (“Behar maila nagusiak”); ondotik, corpusak hartzaileak zain ziren horretarako zukeen egokitasunaz arituko gara (“Oreka komunikatiboaren erabilera eguneratua”). Gisa horretan, nabarmenago ikusiko dugu AOK-k, beharren ondorioz, garaturiko funtzionalitatearen garrantzia, hark ezarri baitzuten abangoardiazko aritu esperimentaletarako oinarria: lehen fase bateko moldaketek eskaini zieten kulturgileei ondoko garapenerako abiapuntu sendoa.

Beraz, atalaren muinari jarraiki, AOK eta bere adierazgarriak –doinuak, marmarrak, pasarte solteak...– izanen ditugu hizpide.

- **Behar maila nagusiak**

AOK-k Laboaren kantagintzan izaniko garrantzia osoa sumatzeko, indar hori ahalbidetu zuen oinarriari erreparatu behar zaio; izan ere, kantariak AOKren eskaintza eraberritua egin bazuen ere, funtsezkoa izan zen hartzailearekiko komunikazioa aunitz

zaindu izana. Abangoardiazko lanen onarpenean, hartzaileen, eskaintzaren eta igorleen arteko ulergarritasuna zaindu izanak lagundu zuen, bereziki, AOKren funtzionalitate sinbolikoaz bertzelako erabilera. Hala, bada, partaideen arteko komunikazioan oreka izan zen oinarrizko abiapuntua: hartzaileak zain ziren eskaintza sinboliko-estetikoen eta corpus eraberrituaren artekoa.

Ulergarritasuna ziurtatu eta hari bera mantendu ahal izateko, euskal komunitatearen premietara egokitu beharra zen; hori dela eta, laburbildu egingen dugu gaurgero azalduak diren behar epealdien eta kantarien arteko harremana.

Lehen mailako beharren aldia

Komunitateen lehen mailako beharrek gutieneko duintasunaren lorpena dute oinarrizko helburu. Premia horren asebetetzeko, komunitateen batasuna iraganean ez ezik, orainean ere islatzen duten baliabide sinbolikoak, ekimenak eta forma sinbolikoak behar izaten dira.

Behar maila honen lorpenean aunitz lagundu zuten 1960-1975 bitarteko kulturgileek. Horietarik, lehenengoetariko erakustaldi ngusia izan zen Ez Dok Amairurena: talde barreneko kohesioa dena delakoa izanik ere, kultura zanpatuaren berreskuratze modernoan batera aritu ziren, hartzaileendako. Behar horren inguruan sortuko zen, hain zuzen, sumatze liturgikoaren indarra: parte-hartze zeremoniatsuak lagundu egin zuen arrazoiak haratagoko dimentsioaren indarra sostengatzen. Hau da, errana baino gehiago, jarrera zen garrantzitsua, arituan.

Laboak AOK berriztatua eskaini zion komunitateari –iragan partekatuaren adierazgarri ziren kanta zaharrak eta abar–; baina, haren pertzepzio zeremoniatsua laguntzen zuten zuzeneko emanaldien, errepikapenen eta hizkuntza arrotzuen erabileraz lagundua zelarik. Ondotik, corpus bera jarri zuen olerkari gero eta gazteagoen ekarriarekin, kokapen eguneratuan.

Bigarren mailako beharren aldia

Komunitateen bigarren mailako beharrak, aldiz, duintasun oinarrizkoaz gaindikoak dira. Hauek asebate ahal izateko, komunitatearen batasuna antolatu eta egituratuko duten sistemak ezinbertzeko dira, horiexek izanen baitira etorkizuneko proiektzioa plangintza baten baitan bermatuko dutenak.

Euskal kantarien banako aroan eginiko eskaintzak egokitzen dira bigarren aldi honetan ere. Lehendik eskainiriko bateratasun irudiari gaineratu egin zitzaion kantari

bakoitzak, bere mundu ikuskerarekin lotuagoak ziren kezka zabalekin batera, landu ahal izan zuen ondarea; hots, musikariek eskaini egin zuten euskal komunitatearen proiektzioan lagunduko zuen aritua. Etorkizunari erreparatu, eta, beraz, mundu zabalera irekiak ziren lanak sortu ziren, banako aroan.

Mikel Laboari dagokionez, komunitateko behar unibertsalen hausnartzea da aipagarrien; horregatik, espresuki solasgai izanen ditugu, ondoko orrialdeetan, komunikazioari buruzko azterketa esperimentalak.

Alabaina, bi epealdien arteko harremana hagitx estua da; batetik bertzerako iragaitea graduala izan zen, eta, gainera, lehenak lagundu zuen bigarrenaren garapen nahiz finkatzea.

Segidan ikusiko dugunez, Laboaren arituak islatzen du, hain justu, lehen epealdiko beharrek –horien asebetetzea lortu ahal izateko saiakerek– gerora izan zuten garrantzia. Bere lanetan sumatu egiten da AOKren funtzionalitate sinbolikoaren finkatzeak abangoardien ulergarritasuna lagundu zuela; zehazki, lehen epealdiko prestaketa ezinbertzekoa izan zen, “Lekeitio”ek lortu zuten onarpenean: sentsibilitate berriarekin “sortua” zen AOKrekiko lotura afektiboak eskaini zuen komunikazio hari komuna, “Lekeitio”etan; corpus horrekiko harremana finkatua baitzen: AOK-ko elementuekiko sentsibilitatean hezitua zen entzuleria. Hortaz, euskal ondarearen erabilera berriz ere balioituak arrangura unibertsalen baitan kokatu zituen etxeko kezkak.

- **Oreka komunikatiboaren erabilera, eguneratua**

Beraz, goiti erran berri ditugunak kontuan izanik, AOK-k beharren asebetetzean izaniko garrantziaz ohartzeko, komunikazio orekari erreparatu behar zaio; izan ere, kantarien eta hartzaileen arteko elkar ulertuan, behar-beharrezkoa da zain den “horren” –aitzinusteez edo aitzinirudikatzeek sorturiko horren– eta eraberritu den corpus zatiaren arteko oreka.

Johnsonek azaldu gisa, proposatzen diren berrikuntzek hartzaileekin komunikazioa mantentzeko adina lotura izan behar dute; eta, era berean, eskaintzen den arituak berrinterpretatzeko eta begi desberdinez behatu ahal izateko aski berriztatua behar du izan (1995: 3). Ezagunaren eta berriaren arteko orekak proposamenaren eta hartzailearen arteko komunikazioa oinarritzen du; hortaz, funtsezko bihurtzen da bi alderdi horien harremana.

Laboak AOKrekin egin zituen eskaintza nagusi bietan –AOK berriztatu, eta abangoardiazko tresna gisa erabili– mantendu egin zuen oreka hori.

Beharren lehen mailari dagokionez, AOK-ko iraganeko elementuak eskaini zituen. Hasieran, horiek bakarrik –poeta garaikideen arituekin batera–; kokagune abangoardiazkoan, gutinaka. Corpusarekiko harremana arroztua izanagatik, moldaketekin, entzuleriak behar zituen sinbolismo eta efektuak lortzen zituen: atmosfera jakina sorrarazten zuten iraganeko doinuekin –“Xoxo beltza”, “Xori erresiñula”, “Txinaurria”, “Goizuetan”...– eta entzuleak inplikazio emozionalaren trantzera biltzen zituen errepikapenekin –“Haika mutil”, “Oi Pello, Pello”...–. Denborarekin, kokagune garaikidean ezarri zituen: lehenik, komunitatearendako ezagunak ziren kideen lanekin eskainiaz –Aresti, Artze, Lete–; eta, ondotik, poeta gazteenek lagunduta –Sarrionandia, Atxaga–. Hala, garaiko poeta gazteenen olerkiak AOKren bide finkoari gehitu, eta, kontrara ere, finkaturiko AOKri kokagune eguneratua ematen zitzaion: berriztatuak ageri ziren AOK-ko corpusa nahiz bertako iruditeriaren balioak.

AOKren moldatze horretan, agerikoa da ezagunaren eta berriaren arteko oreka hagitx zaindua zela: ezagun eta finkatua zenak oinarritzko bidea markatzen zuen –herriko ondare berreskuratutak–, eta berriak, baliagarritasuna biderkatzen –poeten arituak–. AOK-ko elementuetako iruditeriari nazioak zituen premien arabera behatzen zaio, eta poeten olerkiek sarri eguneratzen dute iruditeri horren segida garaikidea ere.

Arestian aipatu gisa, lana, amaren presentzia eta paisaia bukolikoak presente⁵¹⁶ dira, ondare metatu eta lan garaikideen segidan (ikus 497. oin-oharra); gainera, horiek aditzera emana nazioaren irudi sinboliko gisa atzematen da. Akaso, adibiderik ezagunenak “ama” eta “txoria” izan dira; erraterako, “Xoxo beltza”, Otsobiren “Ama”, “Xori erresiñula”n den ama-txori bat egitea edo Artzeren “Txoria txori” adierazgarriak. Baina naturak eta paisaiak ere, noski, indar sinboliko handia izan zuten; kanta zaharretan agertzen zirenez gain –Laboaren kantagintzan Nafarroako paisaiak gailentzen dira: Ituren, Urtsua, Baztan, Goizueta–, olerki berrietan erreferentzia sinboliko nagusiak izan ziren natura eta paisaiak –bertzeak bertze, Leteren “Haizea dator ifarraldetik”, Artzeren “Baztan” eta “Gure bazterrak” –.

⁵¹⁶ Lanari dagokionez, “Oi Pello, Pello”, “Txinaurria”, “Nire juaneteak”; amari dagokionez, “Ama”, “Zilbor-hesteak”; paisaiei dagokienez, “Baztan”...

Bigarren mailako premien asebetetzeari dagokionez, komunitatearen behar etniko espezifikoek gain, AOK-ko elementuen abangoardiazko erabilera eskaini zuen, munduratzeko beharrei begirakoak direnetan: komunitatean oihartzuna zuten AOK-ko elementuen alderdiak baliatu zituen hitzaren erranahi agerikoaz haratagoko lanketan. Gaurgero emana zenaren eta berritasunaren arteko oreka hagitik kontu delikatuak zen, AOKren erabilera esperimentalean, halako ekimenek berezkoa izan ohi baitute hartzaileekiko distantziamendua eta espektatiba estetikoekiko haustura; sarri, adiera eta eragin berriak sortzeko haustura horiez baliatzen delarik artista.

AOKren indarra Laboak hausnartu zuen hitzez haratagoko komunikazioarekin harremanean zen, beraz: abangoardiazko berrinterpretatzean, berritasunaren eta entzuleriaren arteko komunikazioa mantentzeko orekan, behar-beharrezkoa izan baitzen lehen eskaintza nagusiaren nolabaiteko finkapena. Corpus horrekiko sortua zen sensibilitateak proposamen berritzaileak testuinguru komunikatibo funtzional batean kokatzen lagundu zuen. Iragan partekatuari atxikia, AOKren funtzionalitate sinbolikoa komunitatearendako lokarri izan zen.

Lotura horren erabilera da “Itsasoa eta lehorra - Lekeitio 7” eta “Gernika - Lekeitio 4” lan esperimentaletan. Euskal komunitateak 60-70etan bere egin zuen corpusaren erabilera berriak ageri dira; hitzen ageriko komunikazioaz haratagoko lanetan berriz baliotzen⁵¹⁷ ziren hartzaileengan gaurgero ezagunak eta landuak ziren loturak: “Xori erresiñula üdan da khantari”ren hondarreko pasartearekin eta “Haika mutil” doinuarekin lortuak; hau da, testuinguru berri eta abangoardiazkoa izanik ere, hartzaileendako erreferentzia ezagunak zirelarik.

Halatan, agerian geratu zen hitzez gairikiko komunikazioa AOK-ko elementuen alderdi desberdinekin ere lor zitekeela: lehendabiziko kasuan, pasarte bakarrak lortzen zuten kanta berriaren baitan; eta, bigarrean, doinuaren marmarrak komunikazio eraberritua erdiesten zuten, kanta berriaren akieran. Dena den, ahalmen hori ezinezkoa izanen zen komunitatearen lehen beharrak asebetetzeko abiatu zen aitzinekimenik gabe. Hori dela eta, “Lekeitio” horietan, komunitatearen lehen premien testuinguruan barneratu ziren loturak bertzelako testuinguruan birbaliotzen dira; hitz ezagunez gain, –entzute zeremoniatsuan atzemanak ziren AOK-ko elementuen erabilera berrituan– helburu zabalagoen mesedetan erabili zen erreferentzia horien adierazgarritasuna.

⁵¹⁷ Berariaz diogu “baliotu” eta ez “baliatu”, ageriko erabileraz gain –beraz, baliatzeaz gain–, balio desberdina eman zitzaizkion, abangoardiazko arituetan oreka komunikatiboa lortu ahal izateko baliabide gisa.

Helburu zabalago horien kontzientziak, preseski, komunitate partaideen arteko lotura emozionala indartu zuen. Memoria kolektibo partekatuak komunitatearen batasuna laguntzen duen gisa berean,

la experiencia de compartir el presente y una misión colectiva que incluye un proyecto de futuro, refuerza el vínculo sentimental que une a los connacionales. Por supuesto, la intensidad y el contenido específico de este sentimiento varían entre las personas, pero, pese a ello, prevalece un fuerte sentimiento de comunidad. (Guibernau 2009 [2007]: 259)

Proiektu komun hori euskal komunitatearen finkatze prozesurako pausoa zen: erakundetzerako nahiz haren eskutik heldu zen proiektuziorako bidea. Etorkizun horren oinarrian parte hartu zuen 60etatik eskainiz eta onartuz zihoan baliabide sinbolikoak: tradizioak.

4.2.2.b. azpiatalean erranak kontuan izanik, AOK-k 1960-1990 bitarteko kultur moldaketan izan zuen baliagarritasuna, orokorrean, hausnartu beharra sortu da; izan ere, “Lekeitio”etan ikusitakoaren abstrakzioa eginaz, Mikel Laboak AOK bi maila nagusitan birgaitu zuela ohartu gara: AOK corpus gisa eskaintzeaz gain, moldaketan lorturiko atxikitze afektiboak eta baliabide komunikatiboak berriz gaitu zituen, oreka komunikatiboaren lagungarri.

Kantariak AOKrekin lorturiko ekarri nagusietarik bat, hain zuzen, birgaitze horri balio abangoardista eman izana da, gure ustez. Arestian erran gisa, AOK-ko corpusa berreskuratzeko ageriko lanaz gain, moldatzearen lehen faseetan garaturiko entzute zeremoniatsuak, lotura afektiboak eta erranahi sinbolikoak tresna bihurtu baitzituen, lan esperimentaleko oreka komunikatiboa lortzeko: corpusak berezko zituen bitartekoak birformulatu egin zituen, gaurgero ahozkotasunean oinarrituriko harremana galdua zuen komunitatearendako –doinu tradizionalen marmar indartsuaren eta pasarteen adierazgarritasuna dela medio–.

4.2.⁵¹⁸ atalean ikusi dugu 1960tik 1990era bitarteko saioan jende aunitzek parte hartu zuela, baina Mikel Laboaren kantagintzak moldaketaren alderdi nagusi biri erreparatzeko aukera eskaini digu: batetik, kantariaren ekarpena testuinguru nagusian ekarri banako gisa aztertu, eta, bertzetik, nazio eta komunitate kulturalen baitako prozesu nagusietarik zenbait identifikatu ahal izan dugu. Hala, nazioek jasan ohi

⁵¹⁸ 4.2.2.ko ondorioak 4.2.koetan bildu ditugu.

dituzten eraldaketak euskaldunok berriki bizi izan ditugula ikusteaz gain, aritu garrantzitsuetarik bati erreparatu ahal izan diogu, espresuki.

Orokorrean, euskal baliabide sinbolikoen birmoldatzeetako konstanteek 60etan gaitu ziren sinboloen arrakasta eta bertsolaritzaren garapen garaikidea ulertzen laguntzen dutela uste dugu; izan ere, komunitatearen esentziak eta identitatearen ezaugarri bilaketek erdiz erdi baldintzatu izan dute ondarearen eta komunitatearen arteko harremana. Bereziki sumatu ahal izan dugu bi ideia horien eta, noski, erantzunen birformulazioek *continuumean*, ziklikoki, itxuratu izan dutela euskal AOK. Ideia horien indarra arrunta da nazioen birformulatze saioetan; estaturik gabeko nazioen kasuan, zehazki, estatu bereganatzailearen jarreraren arabera, gibelean utziriko baliabide sinbolikoetara jotzea normala da. Honi dagokionez, 1960-1990 bitartean, euskal komunitatearen moldaketak ez du izaera berezirik izan: baliabide sinbolikoen artean, iraganeko ondare kultural aski atzenduak identitatearen helduleku eta etorkizunerako oinarri gisa funtzionatu zuten. Baliabide sinbolikoek nazio-komunitate kulturalen birformulatze eta iraupenean izan ohi duten garrantzia hagitz nabaria izan da, preseski, azterketa guzian zehar. Laboak, bertze hainbat kulturgilerekin, hautaturiko baliabide sinbolikoek komunitatea batu eta kultur sentimen partekatua birsortzeko ahalmen handia zutela sumatu da: AOK-ko tasunek garaiko beharrak asebetetzeko potentzial handia izaki, ahozko baliabide, eduki nahiz horien atzemate berrizatuak AOK komunitatearen moldaketarako egoki bihurtu zuten.

Zernahi gisaz, elementu horien onarpen prozesuan, berezko izanaz haratagoko baldintzek eragin handia izan zuten: duintasun nahiz jarrera positiboa garatu ahal izateko garai berrietara egokitzea funtsezkoa izan zen. Hain zuzen, komunitate behar eta egokitzetiko atzemate berriak ziurtatu zuten baliabide berriztatuen garapena; hala, bada, entzute zeremoniatsuen eta AOKren arteko harremanak komunitatearen berpizte kulturala identitatea berreskuratzearen eta garapen emozionalaren baitan babestu zuten. Hari horri jarraituz ohartu gara –entzuleriak espero, behar nahiz eskatzen zuenaren eta Laboaren kantutegiak eskaintzen zuen edukiaren tasun-moldeak alderatuz– entzute liturgikoaren eta baliabideen arteko harremana handia izan zela.

60etan berreskuratzen hasi ziren AOK-ko baliabideak, ordea, diferenteki egokitu ziren, komunitatearen baitan: aztergai izaniko corpusak eta bat-bateko bertsolaritzak modu desberdinean bideratu zuten hasierako balio sinbolikoaren karga. Lehena, komunitatearen iraganeko erreferentzia fosildu gisa txertatu eta onartu zen,

komunitatean; bigarren aritua, aldiz, balio intrintsekoen garapenak ahalbideduriko bide propioan abiatu zen. Gisa horretan, baliabide guziak AOK metatuaren parte izan arren, denboraren poderioz, EKS garaikidean hagitz kokagune desberdina bereganatu dute: Laboaren corpuseko ondareak, komunitatearen batasuna iragan denborekiko erlazioan oinarrituz, funtzionalitate sinbolikoa nabarmen mantendu duelarik, bat-bateko bertsolaritza etengabe garapenean eta birsortze prozesuan den baliabide kulturala bihurtu da. Halatan, komunitateetan eta nazioetan zernahi transmisio eten bada ere –edota funtzionalitate praktikoaren galera jasanagatik–, baliabide sinbolikoek –eta, beren artean, AOKn den tradizioak– komunitateak “komunitate” gisa sentitzeko ahalmen garrantzitsua dutela baieztatu ahal izan dugu.

Mikel Laboaren aritua ibilbide nagusi horretan kokatu zen: lehenik, 60-70etan, AOK-ko hainbat ideia eta irudi indartu eta birgaituz; ondotik, irudien birgaitze horretaz haratago, ondare kultural metatuko baliabideak birmoldatuz –bertsoak, kasu–. Kantariaren arituan, ordea, baliabideen birgaitzeak dimentsio berriak arakutzen zituela uste dugu: AOKren tresnak berriztatu ahal izateko atzemate liturgikoa diferenteki birgaitu izanak hausnarketa sakona ematen du aditzera. Ondare kultural metatutik, funtzionalitate marjinala zuen AOKren eremutik, hautatu zuen corpusa; corpus horren marjinalitatearekiko harremanak, komunitateak berak bizi zuen egoera soziopolitikoagatik, erakartze afektiboa eta indar bateratua lortzeko potentziala zuen. Edozein gisatan, birmoldatze modu indibidualak ere animaleko garrantzia izan zuen, bereganatze prozesu horretan: dimentsio garaikidean eta eremu abangoardiazkoaren baitan kokatu zuen Laboak AOK. Gainera, corpus horrenganako garatu zen atzematea abangoardiazko lanen mesedetan, ulermenerako oinarritzko lokarrietarik bat gisa, birgaitu zuen.

Hain zuzen “Lekeitio”ei erreparatuz ohartu gara AOK-ko baliabideen erabilera berrituaz: AOK-ko elementuen, birbaliotzean erranahi semantikoaren sugerentziaz haratago, ahozkotasanaren tresnak bereziki garrantzitsuak izan ziren; hau da, ahozkoan biziriko ondarearen errepikak, hitzen arrazoiz haratagoko formulak eta beren ulertze partzialak –doinu eta ariketa mnemoteknikoa laguntzen zutenak– tresna garaikide gisa birgaitu ziren. Horiek guziak, hain zuzen, landuak zituen euskal komunitateak: zuzeneko emanaldi nahiz bertze kantarien arituek baliabide horien guzien hurbiltasuna bereganatua zuten, aitzinez. Hala, tresna horien erabilerak eta erabilera hurbileko egin zuten pasarte nahiz doinuek erraztu egin zituzten 60etatik ezagunak ziren balio

sinboliko, lotura afektibo eta kontzientziak. Abangoardiazko arituak izan arren, komunitatearen kontzientzia kolektiboan ereinak ziren baliabide eta corpusak komunikaziorako lotura gune izan ziren: ulermen eta berritasun arteko oreka mantendu ahal izateko laguntza. Lotura horrek komunitatearen behar maila desberdinak asebetetzeko aukera eskaintzen zuen: nazioaren ibilbide hurbilekoaz gain, harreman berrituak hausnarketa zabalei ere begiratzen zien. Hala, bada, Laboak ez zuen soilik euskal komunitatearen sentimen bateratua sortzen lagundu, nazioa bera eguneratu zuen.

Kantariaren ekarpenen abstrakzioa eginaz zera erran genezake: AOKren baliagarritasun diferenteak erakutsi zituela Mikel Laboak. Batetik, gainerako kulturgileekin batera, komunitatearen identitate helduleku gisa balio zuela agertuz. Bertzetik, AOK hitzez haratagoko komunikazio tresna baliagarri gisa gaituz: hartzaileengan, 60-70etan, ondu zen lotura sinboliko-afektiboa komunikazio bide berriendako tresna gisa erabili zuen. Azkenik, AOK-ko elementu desberdinek herriaren historia kontatzeko zuten funtzioari erabilera berria eman zion: AOK-k bere baitan gorderiko etno-historiak nahiz horiekiko sortua zen atxikitzea, bereziki, kontaketa berriendako birgaitu zituen. Elementu horietan, hitzez erraten zena baino gehiago, bertzelako elementuekin batera –sentimendu eta zentzumenetatik abiatu–, Historiak isildu zituen bizipen kolektiboak azaleratzeko laguntzarako tresna gisa, adibidez.

Hori guziaz dela eta, Mikel Laboaren aritua ondare kulturalaren hagitz berrirakurtze saio ondua izan zela ohartu gara: dimentsio artistikoko komunikazio azterketa esperimentaletan, AOK gainerako elementu guziekin batera ibili zuen; hala, baliagarritasun esperimental horiendako ahalbidetuz baliabide sinboliko multzoa. Kantariaren ekarriaz konturatuta –AOK-k euskal komunitatearen identitatea eraikitzeke edukia bera izatea baino gehiago, orokorrean–, bi ondorio garrantzitsuago izan zirela iduritu zaigu: batetik, 60-70etako jarrera eta etorkizuneko ilusioa mantendu zituen kantariak, baita indar kolektiboa hauspotu ere; bertzetik, AOK-ko corpusak eskaini zituen, Trantsiziotik aitzina abiatu bidean, instituzionalizaziorako behar ziren komunitate partaidetza bateratuaren sentimen eta etorkizuneko begiradak.

Smithen *National Identity* liburuan erranikoei jarraiki, eta ideia berari helduz, Guibernauk komunitateko partaideek, iragan bateratuaz gain, etorkizuneko proiektu komuna partekatzeak senitate sentimena espresuki indartzen duela azpimarratzen zuen. Partekatze horretan, historiaren eta kulturaren artean lotura sakonak sortzen direla azaltzen du ikertzaileak:

pues los elementos cruciales en la cultura de cualquier comunidad, tales como los símbolos, la lengua, los lugares venerados, los héroes, los himnos, las leyendas y las tradiciones, están estrechamente ligados a la historia de la comunidad. (2009 [2007]: 143)

Horixe bera azaleratu zen 1960-1990 bitartean. AOKtik berreskuraturiko iragan partekatua etorkizuneko proiektuari egokitze horretan, Mikel Laboak proposamen osotua egin zuen: desberdinaren eta unibertsalaren arteko bide komuna hausnartuz, iragana eta oraina harremanatzen zituen zubia eraiki, eta etorkizunerako ateak ireki zizkion nazioari. Euskal ondarearen erabilera abangoardistak kezka komunikatibo unibertsalekin uztartuz, komunaren eta banakoaren arteko elkarrizketa lortu, eta haren itzulpen musikala eskaini zuen.

Jarraian heldu den tesi kapituluan ikusiko dugunez, zeharo emanen du buelta euskal literaturaren egoerak, 1975etik⁵¹⁹ aitzina; izan ere, komunitatearen beharrek lehen mailako izatetik bigarren mailakoak izatera eginen dute jauzi. Garapen horren oinarrian belaunaldi berrien agerpena hagitik garrantzitsua izan zen, horiek izan baitziren literatura bertzelako helburuetarik urrundu, eta literaturaren autonomia aldarrikatu zutenak. Alabaina, aldarrikatze horretan, “literatur eremu” sistemiko baten erreibindikazioa zela ikusiko dugu; hortaz, ikusiko denez, euskal literaturaren “askapena” erakundetzearekin –haren hertsitasunera bideratzeko prozesuarekin– bat heldu zen.

⁵¹⁹ Oroitu datak, zurrunki aipatuak izan arren, malguak direla berauek direla medio aditzera eman nahi ditugun prozesuak, eta, beraz, muga hetsirik gabeko *continuum* gisa ulertu behar dugula prozesua.

III. KAPITULUA

EUSKAL KULTUR SISTEMA GARAIKIDEA: FINKATZEA (1975-1990)

5. TESTUINGURUA (1975-1990)

The recognition of internal difference, be it in the form of cultural recognition, political autonomy or federation, is bound to provoke opposition from those who sustain a closed image of the state as a political institution which aims at the annihilation of difference, within itself. In many multinational states we encounter what I call a 'colonization of the regions'. By this I mean a process of active assimilation of regions to the mainstream culture and language. The presence of the state's representatives in the administration and the army contributes to the consolidation of such policies.

(Guibernau 1999: 36)

Hirugarren kapituluan gune diren urteetako giro soziokulturala Gerra Zibiletik herrestan heldu ziren urte frankistek arrunt baldintzatua izan zen. 1975era bitarteko testuinguruak eragin zuen Krisi Orokor Ñabartua eta honen ondorioak hobeki ulertarazi nahian, 1990era bitartean egokitu zen bilatze garaiko bi alderdi funtsezkoen azalpena eginen dugu: ikuspeirik orokorra legeen hustuketak emanen du (5.1.), eta errealitate zehatzagoa, aldiz, nazio identitatearen bigarren faseak (5.2.).

Lehenik (5.1.), estatu eta komunitate arteko harremana agerian uzten duten legeak aurkeztuko ditugu (5.1.1.a.); edozein gisatan, harreman horren izana Trantsizio aitzinak guztiz baldintzatua izan zela zehaztu beharko dugu (5.1.1.b.). Testuinguruaren alderdi idorrenak aukera emanen digu 1975era bitartean gailendu zen Krisi Orokorak, ordutik aitzina, jasan zuen eraldaketa ulertzeko (5.1.2.). Bigarrenik (5.2.), testuinguruak identitatean izan zuen isla zehatzari erreparatzeko, legeen bi ondorio nagusitaz arituko gara: erakundetze prozesuaz (5.2.1.a.) eta kontrol egituren berrantolaketaz (5.2.1.b.). Gisa horretan, gero eta gertakari zehatzagoetarako bidea proposatzen dugu: legeen izaera abstraktuenetik abiatu, eta, horiek praktikan izan zituzten bi ondorio funtsezko argituta, hobeki azalduko dugu EKSren garapena guztiz baldintzatu zuen erakundetzearen aniztasuna (5.2.2.).

Horiek deskribatuta, seigarren eta zazpigarren ataletako zehaztasunek partekatzen dituzten alderdiak argitzeko informazioa eskainiko dugu; euskal komunitateak jorratuak zituen funtsezko erreferente eta helburu kulturelek jasaniko erakundetzea ulertu ahal izateko ikuspegia eskainiko dugu.

5.1. Testuinguru soziopolitikoak: eraikuntza ofiziala (EAE)

Ondoko azpiataletan, 1975-1990 bitarteko testuingurua baldintzatu zuten alderdi nagusi biren erreparatuko diegu. Lehenik (5.1.1.), bitarte horretako aldaketen isla eta iturburu nagusietarikoak izan ziren lege multzoei buruz arituko gara; segidan (5.1.2.), testuinguru nagusi horretan euskal komunitatearen egoera nagusia deskribatuko dugu, Krisi Orokor Ñabartua dela medio.

Hartara, horien deskribapena egin ondotik, aisago ekinen diogu identitate nazionalaren eta komunitate garapenaren artean sortu zen harreman zehatzaren azterketari (5.2.).

5.1.1. Inguratze orokorra: estatus eta autonomia-erkidegoak

Zaila da 1975etik aitzinako lehen urteetan gertatua laburbiltzea, eta, hautatzen diren datuen gibelean, bertze hainbertze informazio eta interpretazio gelditzen dira, ezinbertzean, bazterturik.

1975eko azaroaren 20an Franco hil zen, ia 40 urteko diktaduraren ondotik. Eta diktadorearen heriotzarekin batera, aro berri bat abiatu zen Espainiar Estatuan nahiz Hego Euskal Herrian, gertaerak bata bestearen atzetik kateatuz. 1976ko uztailaren 3an, esaterako, Adolfo Suarez izendatu zuten Espainiako presidente berria; 1976ko abenduaren 15ean, berriz, Erreforma Politikoaren Legea babesteko erreferenduma egin zen estatu osoan; 1977ko urtarrilaren 19an, ikurrina legeztatu zen; 1977ko Aherri Egunean, alderdi politiko baten azken legeztapena eman zen (Espainiako Alderdi Komunistarena, hain zuzen); 1977ko ekainaren 15ean, diktaduraren ondorengo lehendabiziko hauteskundeak burutu ziren... (Iza 2010: 99)

Franco hil ondotik aldaketa handiak sortu ziren, estatuan. Orduetik aitzina sortuz joan ziren legeek aldaketen izana ulertzen laguntzen dute. Hori dela eta, ondoko orrialdeetan, maila desberdinetako aldaketak, bereziki tesirako erabilgarri direnak, laburbildu ditugu. Helburua ez da, ordea, lege horien hustuketa sakon edo interpretazio zehatza egiterik. Kontrara, lege horietan ageri diren hainbat ideia nabarmenduz, testuinguruaren izaera nagusiaz oharrarazi nahi dugu irakurlea.

Hala, bada, legeen erreferentzia zehatzak bertan jarri ditugu, testuak bere osotasunean irakurri nahi dituenarendako, eskuragarri; bertzelakoan, tesiaren hirugarren kapitularako erabakigarrienak izanen direnak, soilik, hurbildu ditugu.

5.1.1.a. Legeen bidezko oinarriak

Tradizioaren birmoldatzeak eta forma sinbolikoen sorkuntzak nahiz moldaketak bidea abiatua zutelarik, egitura kulturalaren erabilera politikoa saiatzeko garaia heldu

zen: diktaduraren akieratik aitzina, forma sinbolikoen sistema finkatuko zuten tresna politikoez gain, sistema politikoaren eta sistema bera bermatuko zuen kulturaren arteko elkarrenergina finkatuz joan zen. “Laguntza” horren abiapuntu izan ziren ondoko pasarteetan hizpide izanen ditugun legeak.

Hiru lege multzo nagusi aipatuko ditugu: batetik, Espainiako Konstituzioa (1978); bertzetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (1979) eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legea (1982); eta, azkenik, Euskararen Legea (1982) eta Euskarari Buruzko Foru Legea (1986). Horietariko bakoitza euskal komunitateak, 1975etik aitzina, Hego Euskal Herrian (HEH) garatu zuen egituraren eragile izan zen.

Legeek islatzen duten testuinguruan, egitura nagusi horretan espresuki kultur ondareaz ari garelarik, sistema politikoak osatu zuen arlo desberdinetako kulturgileek bideraturiko eraikuntza kulturala. Horretarako lehen pausoa estatu mailatik heldu zen: Konstituzioak estatuko komunitateen autonomiak, eskubideak eta betebeharrak ezarri zituen; muga horien barrenean, komunitate mailako legeek –estatutuek– erakunde amaraun berezitua eraikitze oinarriak finkatu zituzten; hartara, sistema politiko berria bermatuko zuten egitura nagusiak antolatzeko bidea ireki zen, printzipioz.

Autonomia-erkidego mailako erakundetze berezituen bideak, ordea, bi aldetarik hertsituak ziren; erran gisa, zalantzarik gabe, estatu mailako legediak mugak ezartzen zituen, eta, gainera, komunitateen egituratze berriak berak egoera aitzinautonomikoarekiko zuen bateragarritasunaren problematika agertu zen.

Zehaztasun horietan sartu aitzin⁵²⁰, ordea, lege multzo bakoitzaren deskribapen orokorra eginen dugu, segidan. Hala, bada, legediaren xehetasunak laburtzen sobera denbora galdu nahi ez dugunez, multzo bakoitzaren oinarrizko fitxa bertzerik ez dugu aurkeztuko.

a.1. Espainiako Konstituzioa (1978)

1978ko Konstituzioak⁵²¹ biltzen dituen arlo guzien artean, espresuki lanean zehar garrantzia izanen duten hainbat ideia argitzen dituztenak soilik laburbilduko ditugu. Hiru ideia dira tesiaren hirugarren kapituluan zehar bereziki azpimarratu, eta Konstituzioak, nola edo hala, ukitzen dituenak: estatuko komunitate-erkidegoen

⁵²⁰ “5.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: legeen aitzin eta gibeletik zer?” azpiatalean helduko diogu, berriz ere, mugatze bikoitzaren kontuari.

⁵²¹ 1978ko abenduaren 29an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, agertu zen testua lantzeko, EHUK (2006) argitaratu zuen bertsioa erabili dugu.

autonomia maila, horiendako eskuragarri jarriko liratekeen egitura propioak eta autonomia nahiz estatuarekiko mendekotasuna bateratzean sortzen ziren mugak.

Estatuaren eta bere baitako erkidegoen arteko harremanaren mailarik zabalenean, zera dio Konstituzioak: “Lurralde-antolamenduari dagokiola, udalerriz, probintziaz eta era daitezen autonomia-erkidegoez osaturik dago Estatua. Entitate horiek guztiek autonomia dute zeinek bere interesak kudeatzeko” (VIII. titulua. Estatuaren lurralde-antolaketa. Lehenengo kapitulua. Printzipio orokorrak, 137. artikulua, 125. or.). Autonomia-erkidegoaren eta estatuaren artean ezartzen den harremanari dagokionez: “Autonomia-erkidegoen estatutuen arteko desberdintasunek ezin ekarriko dute ondorioz, ezein kasutan, pribilegio ekonomiko edo sozialik” (138. artikulua. 2.-, 125. or.). Hala, bada, estatuko biztanleak eskubide bereko espainiar gisa definitzen dira: “Espainiar guztiek eskubide eta betebeharrak dituzte Estatuaren lurraldeko edozein tokitan” (139. artikulua, 1.-, 125. or.). Bigarren kapituluan, estatuak autonomia mailari eman beharreko bermeaz dihardu: “Konstituzioak bermatzen du udalerrien autonomia” (Toki-administrazioa, 140. artikulua, 127. or.).

Segidan den kapituluan, autonomia-erkidegoei buruz ari da, espresuki. Batetik, autogobernua lortu ahal izateko ezaugarriak zehaztu ziren:

1. Konstituzioaren 2. artikuluan aitortutako autonomia-eskubidea erabiliz, autogobernura iritsi eta autonomia-erkidego gisa eratu ahal izango dira: historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri erkideak dituzten probintzia mugakideak; uharte-lurraldeak, eta historiaz eskualde-izaera duten probintziak. Hartarako, Titulu honek eta kasuan kasuko autonomia-estatutuek diotenak agintzen du.

(Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 143. artikulua, 127. eta 129. or.)

Autonomia maila hori lortzen zuten lurraldeek, ordea, mugak zituzten, bai beren kideekiko –autonomia maila bertsukoekiko–, baita estatuarekiko ezartzen ziren harremanei zegokienean ere:

1. Ezein kasutan ez da onartuko autonomia-erkidegoen artean federaziorik sortzea.

2. Estatutuek aurreikusi ahal izango dute zer kasutan, zer betekizunekin eta zeren arabera egin ditzaketen autonomia-erkidegoek elkarrekiko hitzarmenak, berei dagozkien zerbitzuak kudeatzeko eta emateko; orobat aurreikusi ahal izango dituzte Gorte Nagusiei egin beharreko jakinarazpenaren izaera eta efektuak. Gainerako kasuetan, autonomia-erkidegoen arteko lankidetzak-akordioek Gorte Nagusien baimena beharko dute.

(Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 145. artikulua, 129. or.)

Muga horien, nahiz eskubide eta betebeharrak nagusien isla legeztatua estatutuak eman zien:

1. Konstituzio honek xedatzen duenaren barnean, estatutuak izango dira autonomia-erkidego bakoitzaren oinarritzko arau instituzionala; Estatuak bere ordenamendu juridikoaren partetzat aitortu eta babestuko ditu estatutuok.
2. Autonomia-estatutuek barne hartu beharko dituzte:
 - a) Erkidegoaren izena, haren nortasun historikoari egokien datorkiona.
 - b) Lurraldearen mugak.
 - c) Autonomia-erakunde propioen izena, antolamendua eta egoitza.
 - d) Zer eskumen hartzen dituzten, Konstituzioak ezarritako esparruan, eta zer oinarri jartzen dituzten eskumenoari dagozkien zerbitzuak eskualdatzeko.
3. Estatutuen erreforma, berek ezarritako prozedurari atxikiz bideratuko da, eta, edozein kasutan, Gorte Nagusiek onespena eman beharko dute, lege organikoz.

(Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 147. artikulua, 131. or.)

Gainera, autonomia-erkidegoen eskumeneko gaien zerrenda egin zen, Konstituzioan; hau da, erkidego bakoitzari emaniko autonomia mailari egokituak. Horien artean, gure lanerako adierazgarrien izanen direnak:

- 1.- Honako gai hauetan hartu ahal izango dituzte eskumenak beren gain autonomia-erkidegoek:
 - 1) Beren autogobernu-erakundearen antolamendua.
 - 2) Beren lurraldeko udal-mugarteen aldaketak, eta, oro har, toki-erakundearen gainean Estatuaren administrazioari dagozkionak izanik toki-araubideari buruzko legeriak eskualdatzea onartzen duen funtzioak.

[...]

 - 13) Autonomia-erkidegoko ekonomiaren garapena bultzatzea, nazio-politika ekonomikorako jarritako helburuen baitan.

[...]

 - 15) Autonomia-erkidegoaren intereseko museo, liburutegi eta musika-kontserbatorioak.
 - 16) Autonomia-erkidegoaren intereseko monumentu-ondarea.
 - 17) Autonomia-erkidegoaren kultura, ikerketa eta, hala badagokio, hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.

(Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 148. artikulua, 131. eta 133. or.)

Baita estatuaren eskumen eskusiboaren zerrenda ere:

1. Estatuak eskumen eskusiboa du honako gai hauetan:
 - 27) Prentsa, irrati eta telebistari eta oro har hedabide guztiei buruzko oinarritzko arauak, alde batera utzi gabe haiek garatu eta betearazteko orduan autonomia-erkidegoei dagozkiekeen ahalmenak.
 - 28) Espainiako kultura-, arte- eta monumentu-ondarea esportaziotik eta espoliaziotik babestea; Estatuaren titulartasuneko museo, liburutegi eta artxiboak, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoek kudeatzea haiek.

[...]

 2. Alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoek beren gain hartu ahal izango dituzten eskumenak, Estatuak funtsezko betebeharrak eta atribuziotzat hartuko du kultura zerbitzatzea, eta bideak jarriko ditu autonomia-erkidegoen arteko kultura-komunikaziorako, haiekiko adostasunez.

(Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 149. artikulua, 135. eta 139. or.)

Azkenik, xedapenen atalean, lurralde forudunei buruzko hainbat zehazte gaineratu ziren:

Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak.

Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da.

(Xedapen gehigarriak, lehena, 155. or.)

Iraganean autonomia-estatuturen bat plebiszituan baieztatu duten eta Konstituzio hau aldarrikatzen den garaian behin-behineko autonomia-araubidea duten lurraldeek berehala joka dezakete 148. artikulua 2. zenbakian adierazten den moduan, hala erabakiz gero, gehiago absolutuz, autonomia-aurreko kide anitzeko organo gorenak, eta Gobernuari jakinarazi. 151. artikulua 2. zenbakiak ezarritakoaren arabera prestatuko da estatutu-proiektua, kide anitzeko organo autonomia-aurrekoak deia eginik.

(Xedapen iragankorrak, bigarrena, 157. or.)

1. Nafarroaren kasuan⁵²², Euskal Kontseilu Nagusian edo hura ordezkatu duen euskal autonomia-araubidean sartzeari dagokionez, Konstituzio honen 143. artikulua ezartzen duen ordez, foru-organoren eskudunari dagokio ekimena, eta osatzen duten kideen gehiengoz hartuko du hark erabakia. Ekimen hori baliozko izateko, beharrezko izango da, gainera, foru-organoren eskudunaren erabakia berretsia izatea horretarako berariaz eginiko eta baliozko botoen gehiengoz onetsirik onetsirik erreferendum batean.

(Xedapen iragankorrak, laugarrena, 159. or.)

Akitzeko, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foruak berresten zituen 1839ko Legea indargabeturik geratu zen: “Oraindik ere inolako indarrik duen heinean, behin betiko derogatuz jotzen da 1839ko urriaren 25eko Legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei eragin liezaiekeen guztian” (Xedapen derogatzailea, 2.-, 163. or.).

Laburbilduriko puntuen aurkezpena idorra izanagatik, hainbat ideia garrantzitsu argi uzten dituela uste dugu. Estatuaren egitura nagusia eta egitura horretako herrialdeen egituraketa zehaztu zen, eraikuntzaren izaera nagusiaz gain, maila desberdineko egituren arteko harremana ere ezarri zelarik. Hala, autonomia-erkidegoen aurkezpenaz gain, horiek eskuratzen zituzten eskubideak nahiz betebeharrak erkidego mailari eta estatuari begira mugatu ziren.

Autogobernuen ezaugarriek estatuaren bermea lortu zuten, baldin eta Konstituzioaren legezko mugak gainditzen ez bazituzten, bederen. Testuinguru nagusi horretan, autogobernuaren eskutan geratu ziren erakunde hainbat eskumen dira, guretako, momentu honetan, adierazgarrien: 16. eta 17. puntuek (148. artikulua) nahiz 27. eta 28.ek (149. artikulua) komunitate ondareari zegozkion betebeharrak, eskubide eta ikuspegi nagusiak biltzen zituzten.

⁵²² Nafarroa dela eta: “1978ko [sic] Konstituzioaren ebazpena kolpe handia izan zen aldarrikapen nazionalistezko, autodeterminazioa eta Nafarroa gainerako hiru herrialdeekin batzeko aukera ez baitzuten behar bezala jasotzen. Erreferenduma egin zenean, lau herrialdeetako ezeinetan ere ez zen heldu %50era baieztatu behar bezala. Horrenbestez, Konstituzioa euskal gizartearen gehiengoak errefusatu zuen, eta, hain zuzen ere, Konstituzioari uko hura izan zen, urte askotan zehar, nazionalismo mota biak bildu zituzten konbergentzia esparru nagusietakoa” (Mateos 2000b: 27).

Horiek guziak indarrean jarri ziren, testu ofiziala “Espainiako gainerako hizkuntzetan ere” –estatuko Aldizkari Ofizialean– argitaratzearekin batera (azken xedapena, 163. or.).

a.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (1979) eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legea (1982)

Konstituzioak mugatzen zituen arauetara moldaturik, HEHko lurraldeetan Estatutu edota Foru Legeak osatu eta onartu ziren. Aitzinez, ordea:

Autonomia Estatutua onartu bitartean, 1978ko Otsailean [sic] Eusko Kontseilu Nagusia⁵²³, behin-behinekoa, jarri zen abian. Hura osatzeko lege dekretuak Hegoaldeko lau probintziak barnehartzea ahalbidetu zuen, halaxe erabakiz gero Nafarroako foru instituzioek eta gainerako hiru herrialdeetako Batzar Orokorrek. Azken hauek baizik ez zuten onartu, ordea, Eusko Kontseilu Nagusira biltzea, eta urruntzen hasi zen Nafarroa proiektu hartara batzeko itzaropena.

1979ko Ekainean [sic] osatu zen Eusko Kontseilu Nagusi berria. Autonomia Estatutuaren onespina lortzea izan zen haren zeregin garrantzitsua. Estatutu proiektuak negoziazio prozesu istilutsua jasan zuen Madrilan, Konstituzioaren edukiaren kontra zihoalakoan. Finean, onetsia izan zen erreferendumaren pean jarriko zen erabateko testua. (Mateos 2000b: 27)

Euskal Autonomia Erkidegoarendako egokitu zen Autonomia Estatutuak⁵²⁴ EAERI zegozkion alderdi zabalak nabarmendu zituen: autonomiaren izaera nagusia; ezaugarri berezi nahiz horien bermatzeari buruzko zehaztasun orokorrak; espresuki euskararen ezagutzari eta irakaskuntzari buruzko berme nahiz eskubide oinarritzkoenak; administrazio-herrikidetasuna zutenen “euskal herritar” izaera politikoa; EAEko botereen eskumen bereziak, estatuarekiko behar zuten kidetzan; bertze lurraldeekiko harremanak; eta abar.

Guk, horiez gain, EAERen garapenerako ezinbertzeko izan ziren bi egiturei loturiko artikulua aipatuko ditugu, espresuki; izan ere, hirugarren kapituluaren ikusiko dugunez, hezkuntza eta komunikabideen kudeaketak berebiziko garrantzia izan zuen euskal ondarearen birmoldatzean.

“Atariko titulua” deritzon atalean, batetik, EAERen izaera nagusia deskribatzen zen; izena, estatuarekiko harremana, erkidegoa osatzeko eskubidea zuten lurraldeak eta ikurrina nahiz bertzelako bandera eta ezaugarri bereziak onartzen zirela zehaztu zen:

⁵²³ “EAEko Estatutuak bilduko zituen hezkuntza eskumenak artean zehaztu gabe zeudelarik, lurralde horretako eraketa aurreautonomikoko organo gorena zen Eusko Kontseilu Nagusiak *Ikastolen Titularitate Publikoaren Arautegia* onetsi zuen 1979ko Urrian [sic]. Zabal hedaturik zegoen eta ikasle kopuru esanguratsua biltzen zuen ikastola sareari behin-behineko irtenbidea eman zitzaion horrela, arazo ekonomikoak koloka [sic] jartzen ari baitziren ikastola askoren biziraupena.” (Mateos 2000a: 480)

⁵²⁴ Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak argitaraturiko bertsioa erabili dugu.

Euskal herriak, bere naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua iristeko, Autonomia Erkidego gisa eratzen du bere burua Espainiako Estatuaren barruan, Euskadi zein Euskal Herria izenez, Konstituzioarekin eta oinarrizko erakunde-arau duen Estatutu honekin bat.

(Atariko titulua, 1. artikulua)

1.- Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak dute, Nafarroak bezala, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa osatzeko eskubidea.

2.- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoez, gaur egungo probintzien muga berberetan, osatuko dute Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldea; baita Nafarroakoak ere, baldin eta Konstituzioaren Aldibaterako Laugarren Xedapenean finkatutako jardunbideari jarraituz partaide izatea erabakitzen badu.

(Atariko titulua, 2. artikulua)

1.- Euskal Herriko ikurrina gurutzebikoa da, hondo gorrian zeharkako gurutze berdea eta gainean gurutze zuria dituena.

2.- Orobat onartzen dira Autonomia Erkidegoa osatzen duten herrialdeen bandera ta [sic] ezaugarri bereziak.

(Atariko titulua, 5. artikulua)

Hizkuntzaren alorreko zehazte nagusiak azaldu ziren, 6. artikuluan. Euskara ageri zen “euskal herriaren” hizkuntza propio gisa, baina koofizialtasuna Euskadin soilik onartzen zitzaion; hizkuntza bi horien erabilera, ezagutza eta ofizialtasuna bermatu beharra agertu, eta Euskaltzaindia onartu zen, erakunde aholkulari ofizial gisa:

1.- Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

2.- Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguisikoa [sic] kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.

3.- Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

4.- Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial da.

5.- Euskara beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturazkoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren Estatuarekin kulturazko harremanak bideratzeko itun-hitzarmenak izenpetu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

(Atariko titulua, 6. artikulua)

Beraz, euskararen estatusa, gaztelaniarekin batera, ofizial gisa finkatu zen, lurralde horretan. Konstituzioak zioenaren aldetik, gaztelania ez ziren bertze hizkuntzak, lurraldekoak, ezagut zitezkeela errateaz haratago, ezagutu, ikasi eta jarduteko eskubidea bermatzen zen, EAEko Autonomia Estatutua dela medio.

Segidan, EAEn administrazio herrikidetasuna zuten pertsonen “euskal herritar” izaera politikoa ematen zitzaizela agertu zen:

1.- Euskal herritar izaera politikoa izango dute, Estatutu honen ondorioetarako, Estatuko lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.

(Atariko titulua, 7. artikulua)

EA Eren izaera nagusia –lurraldeak, berezitasunak, euskararen ofizialtasuna, kideen herritartasuna, ikurrak eta abar– argituak zirelarik, “Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarenak” soilik ziren eskumenen zerrenda egin zen:

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan:

[...]

5.- Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetako foru-zuzenbide zibil eta berezia, dela idatzia ala ohiturazkoa, gorde, aldatu nahiz garatzea, eta indar izango duen lurraldea finkatzea.

6.- Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administrazioakori dagozkion arauak.

7.- Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko jabetza publikoko eta ondareko ondasunak⁵²⁵ eta bere eskumeneko gaietako zorgune publikoak.

[...]

13.- Irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza-, eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, beren egitekoak nagusiki Euskal Herrian betetzen dituzten bitartean.

[...]

17.- Kultura, Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

18.- Arte Ederren sustapenari eta irakaskuntzari lotutako erakundeak. Eskulangintza.

19.- Historia-, arte-, monumentu-, arkeologia- eta zientzia-ondarea, Autonomia Erkidegoak bere gain harturik ondare hori espropiazioaren eta lapurretaren aurka babesteko Estatuak ezar ditzan arau eta betebeharrak betetzea.

20.- Estatuaren izenean ez dauden artxibategi, liburutegi eta museoak.

[...]

27.- Barne-merkataritza, baina prezio-politika orokorrari, Estatuko lurraldean ondasunen joan-etorri askeari eta lehiaren babeserako legeriari kalterik egin gabe. Barruko feria eta azokak. Jatorrizko deiturak eta publizitatea, Estatuarekin elkarlanean.

[...]

38.- Ikuskizunak.

39.- Komunitatearen garapena. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.

(I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak, 10. artikulua)

Eskumen horietan, izaera anitzeko gaiak barne hartzen ziren; hala nola, berezitasunen kudeaketari buruzkoak. Eskumen horietan, estatu zuzenbidea osagarri gisa erabiliko zatekeen: “Bakarreko eskumenen gaietan Euskal Herriak emandako zuzenbidea lehentasunez da erabilgarri beste edozeinen aurretik eta horren ezean besterik ez da erabiliko, osagarri, Estatuaren zuzenbidea” (I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak, 21. artikulua).

⁵²⁵ “Euskal Herriaren” ondareari dagokionez, “Eusko Legebiltzarraren lege batek arautuko du Euskal Herriaren ondarearen administrazioa, babesa eta iraunaraztea” (III. titulua. Ogasuna eta ondarea, 43. artikulua, 3) eta “Eusko Legebiltzarra ukiezina da” (II. titulua. I. kapitulua. Eusko Legebiltzarra, 2.-).

Bertze lurraldeekiko harremani zegokienean, hitzarmen eta lankidetzak akordioak kontuan hartu ziren:

2.- Autonomia Erkidegoak hitzarmenak egin ditzake beste foru-lurralde historiko batekin beren eskumeneko gaiei buruzko zerbitzu propioak kudeatu eta emateko, Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaiela. Jakinarazpena egin eta hogeigarren egunean sartuko dira indarrean hitzarmenok.

3.- Autonomia Erkidegoak lankidetzak akordioak ere egin ditzake beste autonomia-erkidegoekin Gorte Nagusien alde aurreko baimenarekin.

(I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak, 22. artikulua)

Azkenik, xedapenen atalean, batetik, “historiaren haritik” zetozkeen eskubideen eta Estatutuen arteko harremana argitzen zen, printzipioz: “Estatutu honetan finkatutako autonomia-araubidea onartu izanak ez dakar Euskal herriak bere historiaren haritik herri gisa dagozkiokeen eskubideei uko egiten dienik, legediak agintzen duenarekin bat gaurkotu ahal izango dituenak” (Xedapen gehigarria). Bertzetik, EAEn garapenerako berebiziko garrantzia izan zuten egiturak aipatzen ziren; zehazki, aitzinago solasgai izanen ditugun hezkuntzaren eta komunikabideen kudeaketari zegozkien hainbat alderdiri egiten zitzairen erreferentzia:

1. Irakaskuntzaren alorrean egin beharreko transferentziak, Estatuak Euskal Herrian dituen zerbitzuak betetzeko gaur egun erabiltzen dituen ondare- nahiz pertsona- baliabideena, aldibaterako bigarren xedapenean sortutako Bitariko Transferentzia-batzordeak finka ditzan egitarau eta egutegiaren arabera gauzatuko dira.

2. Irakaskuntza-zerbitzuak Autonomia Erkidegoari eskuratuko zaizkio ala, hala badagokio, foru-aldundiei.

(Aldi baterako xedapenak, hirugarrena)

Estatuak bere titulartasuneko telebista-kate berriren baten erabilera, propio Euskal Herriko lur-esparruan emititzeko sortua, Euskal Autonomia Erkidegoari emakida bidez eskuratuko balio izango da erabilgarri 19.2 artikuluan aurreikusitako betearaztearen koordinazioa, emakidak berak aurreikusi dezan moduan.

(Aldi baterako xedapenak, seigarrena)

Konstituzioaz ari ginela aipatu gisa, langartze administratiboak ezarri zituen zailtasunen isla da, hain zuzen ere, laburpen hau osatzeko, EAEn zegokion informazioaz gain, bertze bi multzo banatu landu beharra. Nafarroari dagokionez:

1982an, Nafarroa eraketa autonomikoaz hornitu zen. Prozedurak, Foruaren hobekuntzaren bitartez egina zela medio, ez zuen erreferendumik izan. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan ez bezala, esplizituki baieztan da bertan Nafarroa espainiar nazioaren zati dela eta inolako aipamenik ez da agertzen gainerako hiru herrialdeekin bat egiteko aukeraz. (Mateos 2000b: 27)

Hala, bada, 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzkoa⁵²⁶ dela medio, Nafarroako Foru Erkidegoa (NFE) hiru hizkuntza eremutan banatu, eta eremu euskaldunean euskara hizkuntza ofizial gisa ezarri zen:

1. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
 2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta, Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.
- (Atariko titulua. Xedapen orokorrak, 9. artikulua)

Azkenik, Ipar Euskal Herriari (IEH) dagokionez, ezin espainiar estatuan sortu zen egituratze berriarekin aldera, bertze estatu baten mende baitzen –eta, baita–.

Laburbilduz, hizpide izanen ditugun arazo nagusiak susmatuz, hainbat ideia azpimarratu nahi ditugu, soil-soilik. Abiapuntua euskal hiztun komunitatearen langartze administratiboak ematen du; alabaina, banaketa horrek ekarri zituenak, eta ez zituenak, aitzinago landuko ditugu. Tesian aztergai nagusi dugun EAEko Autonomia Estatutuari dagokionez, bi ideia nabarmendu nahiko genituzke. Batetik, euskal komunitatearen identitate oinarri nagusia izateko bidean zen hizkuntzari duintasuna itzuli zitzaioela: gaztelaniarekin koofizialtasuna partekatzen zuenez, gaztelaniak adina balio emanaz. Bertzetik, eremu publikoaren bereganatze eta egituratzerako oinarriak ezarri ziren: hezkuntzari eta komunikabideei zegozkien aldaketez gain, administrazio publikoek euskararen ezagutza eta erabilera bermatu beharra zuten.

Hain zuzen ere euskararen inguruko betebeharrak segidan aipatuko ditugun 1982ko Euskararen Legeak eta 1986ko Euskarari Buruzko Foru Legeak finkatu zituzten, EAEn eta NFEEn, hurrenez hurren.

a.3. Euskararen Legea (1982) eta Euskarari Buruzko Foru Legea (1986)

EAEko Estatutuan euskararen ofizialtasuna islatzen zen arren, euskararen legedia –lege hori bera bermatzera behartzen zuena– Euskararen Legearekin⁵²⁷ garatu zen: 1982/10 Legea, azaroaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko Legea.

Lehen paragrafoetan euskarak komunitatearekiko zuen harremana definitzeaz gain, Euskararen Legea osatzen zuten titulu eta kapitulu desberdinen edukia laburtzen

⁵²⁶ *navarra.es* webguneko bertsioa erabili dugu.

⁵²⁷ Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak argitaraturiko bertsioa erabili dugu.

zen. Ondoko orrialdeetan, kapitulu horietariko bakoitzaren muina eta sarrera modura ageri diren azalpenak bildu ditugu.

Beraz, lehen-lehenik, euskarak komunitatean zituen izaera, erabilera eta funtzioak deskribatzen ziren: gaztelaniaren presentzia eta ofizialtasuna aipatu arren, espresuki garatzen zen euskara –herriaren ondarean baita– garrantzia handiko gordailu zela; “Erkidegoaren” nortasun ezaugarri behinena zela; eta, arestian aipaturikoaz gain, integrazio tresna ere bazelarik, funtzio bikoitza zuela:

Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteen esku jartzen dute euskararen erabilera normalizatzeraz eta garatzeraz bideratutako neurriak hartzea, bere bi ikuspegiak kontutan hartuz: bai euskal herriaren kultura-ondarearen funtsezko osagai denez eta bai, gaztelaniarekin batera, Autonomia Erkidegoko lurraldean erabilera ofizialeko hizkuntza denez.

Horretaz, bada, euskara gure Erkidegoaren nortasunaren ezaugarri nabarmenena eta objetiboena dela ezagutzen dugu eta, euskara jakinez eta erabiliz, gizakiak erkidegoan bete-betean txertatzeko tresna dela.

Euskara euskal herriaren hizkuntza propioa izateak eta gaztelaniarekin batera hizkuntza ofizial izateak, arrazoi bat ala beste dela-eta euskara erabili ezin duten herritarren eskubideei inongo kalterik ez die ekarri behar, inondik inora, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua 3. zenbakian propio esaten denarekin bat.

Hizkuntza Euskal Herriko herritar guztien integrazio-tresna gisa aitortuz gero, euskal herritarrek hizkuntza arloan dituzten eskubideak lege-antolamenduan jasotzeko ekin behar zaio eta, bereziki, hizkuntza ofizial bietako edozeinetan hitz egitekoa eta euskal herria gordailu duen kultura-ondarearen funtsezko zati den aldetik gure hizkuntzari zor zaion babesaren ziurtasuna.

(Sarrerako hitzak)⁵²⁸

Ondotik, atal bakoitzaren laburpena ageri da. Atal bakoitzari dagokion sarrera, ia beti, osorik bildu dugu; kasuren batean, testu zatiren bat gehitu dugu –oin-oharretan, normalki–, argigarri.

Legearen oinarri diren printzipio orokorretatik abiatuta, Atariko Tituluak euskara Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren hizkuntza propio gisa aitortzen du eta euskara eta gaztelania bere lurraldean hizkuntza ofizial gisa. Titulu berean hizkuntza-arrazioengatik [sic] bereizkeria galarazten da.

(Sarrerako hitzak)

Kurioski, lehen tituluaren laburpena motza bada ere, honi dagozkion artikulua zehatzetan agertzen dena hagitz garrantzitsua da, bai ondoko legeen garapen, baita tesian aipatuko diren hainbat konturendako ere. Hala dio: “Lehen Tituluak hizkuntzaren

⁵²⁸ “Atariko tituluak” atalera arte izenbururik gabeko testua denez, “sarrerako hitzak” izendatu dugu.

Atariko tituluak. 2. artikulua: “Euskara da Euskal Herriko hizkuntza propioa”; 3. artikulua: “Euskara eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan”; 4. artikulua: “Herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte”.

alorreko herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak ikutzen ditu” (“sarrera hitzetan”)⁵²⁹.

Zerrendatze horren segidan, lehen tituluan erraten denaren haritik, eremu publikoan euskara erabiltzeko eskubidea aitortzen da, bigarren tituluan, baita euskararen garapenerako ezinbertzeko izan den itzultzaile zerbitzu ofiziala ere:

Bigarren Tituluak herri-aginteen jarduera arautzen du. Lehen kapituluak euskararen erabilera herri-administrazioan aipatzen du eta bertan Autonomia Erkidegoaren herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen da.

Erregistro publikoetan dokumentuak lerrotatzea ere arautzen da eta agintzen da arau-xedapen zein administrazio-ebazpen eta -ekintza orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko duela argitaratzeko, jakinarazpen eta adierazpenak bezala.

Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiei esku ematen zaie beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izateko.

Autonomia Erkidegoko herrien eta, orohar, toponimo guztien izen ofizialak finkatzeko eskumena Jaurlaritzari, lurralde historikoetako foru-organoei edota toki-erakundeei aitortzen zaie.

Bide-seinale eta mezuak nola idatzi arautzen da.

Bi hizkuntza ofizialen arteko zinpeko itzultzaile titulua lortzeko eta emateko baldintzak arautzeko ahalmena Jaurlaritzari ematen zaio eta, [sic] halaber, itzultzaile zerbitzu ofiziala sortzekoa.

Herri-aginteez erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko direla zehazten da, eta baita Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan ere.

Herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak aurriztatu dira.

(Sarrerako hitzak)⁵³⁰

Bigarren eta hirugarren kapituluek tesiaren hirugarren kapituluan garrantzitsu gisa aurkeztuko ditugun egitura mailei egiten diete erreferentzia; hezkuntza eta hedabideei, hain zuzen ere. Horien inguruko eskubide eta bermatze arauak euskara behin baino gehiago azpimarratu dugun eremu batera hurbildu zuten: eremu publikora.

⁵²⁹ Lehen tituluak, Kapitulu bakarra, Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean, 5. artikulua: “1.- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz”; “2.- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie: a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitatearekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz. b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea. c) Aldizkariak eta irratitelebistetakoko eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea. d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea. e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea”; “3.- Herri-aginteez eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten”.

⁵³⁰ Bigarren tituluak, Herri-aginteen jarduera. Lehen kapituluak, Euskararen erabilera herri-administrazioan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lur-eremuan, 6. artikulua: “1. Herritar guztiei aitortzen zaie, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa”; 12. artikulua: “2. Halaber, itzultzaile zerbitzu ofiziala sortuko du, Autonomia Erkidegoko herritarren eta entitate publikoentzat lan egingo duena, itzulpenen zehaztasuna eta baliokidetzat juridikoa ziurtatzeko”; 14. artikulua: “2. Herri-aginteez finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea”.

Bigarren kapituluak euskararen erabilera irakaskuntzan arautzen du. Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea eta aukeratu ez duen hizkuntza ofizialaren derrigortasuna arautzen da.

Irakatsi beharreko hizkuntza-ereduak finkatzeko ardura Jaurlaritzari ematen zaio, eta baita ikasleek bi hizkuntza ofizialak benetan menperatzera bideratutako neurriak hartzea ere eta ikasketa-planen egokitzapena.

Irakaslegoaren prestakuntzari dagokionez, irakasleek euskara eta gaztelania erabat menperatu ditzaten beren ikasketa-planak egokituko dira. Euskararen irakaskuntzan salbuespen posibleak ere aurriztatu dira.

(Sarrerako hitzak)⁵³¹

Hirugarren Kapituluak euskararen erabilera hedabideetan arautzen du, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortuz. Jaurlaritzari egozten dio euskara Autonomia Erkidegoko hedabideetan sustatzeko ardura eta Espainiako Irrati-Telebistan bultzatzeko eta euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartzea irratian, egunkari eta aldizkarietan, irudiaren eta soinuaren grabaziotan eta abarretan.

(Sarrerako hitzak)⁵³²

Laugarren kapituluak, euskararen normalkuntzarako bertze hainbat alderdi lantzen dira; helduen euskalduntze eta alfabetatzea, kasu:

Laugarren Kapituluak euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi ukitzen ditu; helduen euskalduntzea eta alfabetatzea eta haibat [*sic*] alorretan euskararen erabilera bultzatzeko ardura Jaurlaritzari egozten dio eta Lege honen aplikazioa eta garapena bateratzeko Jaurlaritzak topagune bat sortuko duela aurriztatu du.

(Sarrerako hitzak)⁵³³

Hondarreko kapituluak, Jaurlaritza ageri da euskararekiko begirunea, zaintza eta legeen bermea zainduko dituen erakunde gisa: “Bostgarren Kapituluak Jaurlaritzari egozten zaio euskararen batasuna eta normalizazioa begiratzea, hizkuntza ofizial komunenez” (sarrerako hitzak)⁵³⁴.

Akitzeko, xedapenen hiru atalak heldu dira. Horietan, batetik, Jaurlaritzari egozten zaio EAEtik kanpoko lurraldeetan euskararekiko lotura duten elkarteekin harremana

⁵³¹ Bigarren kapituluak. Euskararen erabilera irakaskuntzan, 15. artikulua: “Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmila guztietan”.

⁵³² Hirugarren kapituluak. Euskararen erabilera hedabideetan, 22. artikulua: “Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko eskubidea. // Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino”.

⁵³³ Euskararen gizarte-erabilera eta erakundeen alorreko beste zenbait alderdi, 26. artikulua: “Euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduerak guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten”; 28. artikulua: “Jaurlaritzak helduen euskalduntzea eta euskaldunen alfabetatzea bultzatuko ditu, horretarako erakunde publiko bat sortuz. Eusko Legebiltzarraren lege batek finkatuko du horretarako araubidea”.

⁵³⁴ Euskararen erabilera hizkuntza idatzi ofizial gisa, 30. artikulua: “Jaurlaritzak euskararen batasuna eta normalizazioa begiratu du, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan idatzizko hizkuntza ofizial komunenez, Euskal Herriaren kultura-ondarearen funtsezko zati diren euskalkieei bizirik diren tokietan zor zaien begirunea gora behera”.

zaintzea: “Xedapen Gehigarriak Jaurlaritzari egozten dio Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo jardunik, euskararekin loturiko lana egiten duten erakunde edo aginteeikiko harremanak bideratzea” (sarrerako hitzak)⁵³⁵; bertzetik, Legearen aplikazioz hainbat zehazte egin dira: “Aldibaterako Xedapenak gaur egungo egoeratik Lege hau bete-betean aplikatu era garatu ahal izan daitezten egoerara zubi egiten du, Legearen izpiritua beste lege eta araudietan gatzatu artean arau-hutsunerik egon ez dadin” (sarrerako hitzak)⁵³⁶; “Legeak Xedapen Indargabetzailea eta Azken Xedapen bat ere baditu, non eta eskua ematen zaion Jaurlaritzari Legea erregelamendu-mailan garatzeko” (sarrerako hitzak)⁵³⁷.

NFERen kasuan, arestian aipaturiko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoan agertuaz gain, 18/1986 Euskarari Buruzko Foru Legea⁵³⁸ aipatu behar⁵³⁹. Bertan, euskararen ofizialtasuna eremu desberdinei egokitzen zaie. Hiru eremu banatu, eta horietarik bakarrean ageri zen euskara hizkuntza ofizial gisa:

1. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroak ondoko eremu hauek ditu:
 - a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua: Abaurregaina/Abaurrea Alta, [...]
 - b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, [...]

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Arangurengo, Belaskoaingo, Galarko eta Noain-Elortzibarko udaletara, baldin eta toki korporazio horietako bakoitzeko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.
 - c) Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.
2. Aurreko atalean zehaztutakoa berrikus daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraikiz.

⁵³⁵ Lehenengoa.- “Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, Autonomia Erkidegoaren lurraldetik kanpo jardunik, euskararen ikerketan, babesean eta sustapenean lan egiten duten erakunde edo aginteeikiko kultura harremanak bideratuko ditu.”

⁵³⁶ Bigarrena.- “Jaurlaritzak, tokiko herri-aginteeik eskaturik eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa bereziki kontutan hartuz, aldi baterako salbuetsi ahal izango du, bere eskumenen esparruan, Lege honetako artikuluren aplikazioa, beti ere Konstituzioaren edo Estatutuaren aginduz derrigorrezkoak ez badira.”

⁵³⁷ “Indargabetuta geratzen dira Lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko ala beheagoko xedapen guztiak.”

⁵³⁸ Erabili dugun bertsioa: *euskarabidea* webgunean ageri dena.

⁵³⁹ “Nafarroan, Foru Eraentza Legea 1982an sartu zen indarrean eta Nafarroako eremu euskaldunetan ofizial egin zuen euskara. 1986an Euskararen Legea onartu ondoren, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza eratu zuen 1988an, 1991n, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bilakatu zena. Gobernuak eremu euskaldunetarako hartu zituen neurriek irakaskuntza-sisteman euskararen ikaskuntza bideratzea eta herri-zerbitzuetan, kultur jardueretan eta komunikabideetan euskara erabili ahal izateko esparru instituzionalak ezartzea zuten helburu” (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, EBPN: 17). “Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak 1998ko ekainaren 24an EBPNren testua onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeari aurkezteko. Gobernu Batzordeak berriz urte horretan bertan, uztailaren 28an, EBPN onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea erabaki zuen. Azkenik, 1999ko abenduaren 10ean Eusko Legebiltzarrak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen” (*euskadi.eus* webgunea).

3. Nafarroako Gobernuak aldian-aldian euskararen errealitate soziolinguistikoari buruzko azterlanak egiteko aginduko du, eta horien berri emanen dio Parlamentuari.

(Atariko titulua. Xedapen orokorrak, 5. artikulua)

Lehenean, euskara ofizialtzat⁵⁴⁰ hartzen da, gaztelaniarekin batera; bigarrean, euskara ez da ofiziala –hala ere, NFEko herri administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eta eskoletan euskaraz ikasteko eskubidea izanen zuten eremu horretako biztanleek, hala erabakiz gero–; hirugarrenean, hizkuntza ofizial bakarra gaztelania da.

Hala, euskara eremu publikoan sartu arren⁵⁴¹, eremuka zen mugatua eskubide hori. Langartze hori agerikoa da, bai Legearen aplikazioan –II. kapitulua. Erabilera ofiziala eremu euskaldunean; III. kapitulua. Erabilera eremu mistoan; IV. kapitulua. Erabilera eremu ez-euskaldunean–, baita toponimoei dagokien aplikazioaren gisako adibideetan ere:

1. Foru Komunitateko toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskarazkoa izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz; hala, bada, biak erabiliko dira.

b) Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskarazko izendapen desberdin, jatorrizko eta tradizionala baldin badute, biak erabiliko dira.

(I. titulua. Erabilera arrunta eta ofiziala. I. kapitulua. Xedapen orokorrak, 8. artikulua)

IEHko egoera ez zen xamurragoa: hizkuntza ofizial bakarra frantsesa izan zen, eta da.

1951n, “Deixonne Legea” zela eta, eskualde-hizkuntzen irakaskuntza baimendu zen, baldin eta ikasleek Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak araututako eskola-programa frantsesa betetzen bazuten aldi berean. Dena den, hori aukerakoa zenez, ez zen diru-baliabiderik jarri frantseseko derrigorrezko programaz gain euskarazko irakaskuntza ematen zuten Estatuko ikastetxeentzat. Beraz, gurasoek jartzen zuten horretarako behar zen diru guztia: eraikinen kostua eta mantenimendua, irakasleen soldatak eta eskolagarraioa. Baina 1994an, frantsesez eta euskaraz irakasteko gaitasunagiria zuten Hezkuntza Nazionaleko irakasleen soldatak ordaintzea erabaki zuen Gobernu Zentralak. 1990ean eraturako Euskal Kultur Erakundeari urtero ematen zaion diru-kopurua kenduta, Frantziako Gobernuak ez du bestelako neurririk hartu. (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, EBPN: 18)

⁵⁴⁰ Atariko titulua. Xedapen orokorrak, 2. artikulua: “1. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea”; “2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere ofiziala da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikuluan eta foru lege honetan aurrez ikusitako eran”.

⁵⁴¹ I. titulua. Erabilera arrunta eta ofiziala. I. kapitulua. Xedapen orokorrak, 6. artikulua: “Aitortu egiten da herritar guztiek administrazio publikoekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela, ondoko kapituluetan ezarritako eran”.

Oro har, EAEko eta Nafarroako gobernuek bultzatutako soziolinguistikazko ikerketak euskararen aldeko hizkuntza-politikak gauzatzeko duten borondatearen erakusgarri dira. Frantziako Gobernuak, ostera, 1992an aldarrikatu berri du frantsesa dela Frantziako hizkuntza ofizial bakarra. Espainiak ez bezala, ez du izenpetu Hizkuntza Gutxiengotuen aldeko Europako Ituna. (EBPN: 19)

Laburtuz, euskararen erabilerari buruzko arau bilduma honetan, ideia nagusi bat da, berriz ere, nabarmen: langartzea. Dela estatu desberdinetan, dela estatu berean izaniko erkidego edo erkidego bereko eremuen sailkapenak medio, euskarari hagitz estatus desberdina eman zitzaion, euskal hiztun komunitatearen baitan.

Zernahi gisaz, 1982ko Euskararen Legearekin, euskararen estatus ofiziala eta plangintza soziolinguistikoaren beharra argi geratu ziren, eta mugaz haraindiko lankidetzak bulkatzeko saioen bermeak IEHrekin lankidetzan aritzeko atak erdi irekiak uzten zituen, printzipioz.

5.1.1.a. azpiatalean ikusietarik, bilduriko lege bakoitzak islatzen duen eduki zehatzaz haratago, interpretazio bateratuak nabarmentzen dituen ideia bat da azpimarragarri; gaurgero, legeen hustuketan ari ginela, aipatu dugun langartzea. Ikusiko dugunez, euskal hiztun komunitatearen –zeina euskal nazioaren muina baita, tesi honetan– azterketan, behin 1975etik aitzinako prozesua abian zela, bertze inoiz baino arrazoi gehiagoz erreparatu beharko diogu muga geopolitikoek haratago komunitate errealtateari –muga horiez gaindiko botere guneei, baliabide sinbolikoei, literatur arituei...–; izan ere, autonomia mailen ezarpenak lukeen alde askatzaileak ez baitu euskal komunitatearen errealtate osoa barne hartzeko aukerarik ematen.

5.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: legeen aitzin eta gibeletik zer?

Testuinguru horretan, erakunde bakanak baino gehiago, elkarren arteko lotura eta eskariaren eta eskaintzaren arteko harremana bermatuko zituzten egiturak behar ziren; hala nola, administrazioa, hedabideak eta, bereziki, sistema politikoaren oinarri kulturalak bermatuko zituen hezkuntza. Hau da, sinbolo, historia, memoria kolektibo, hizkuntza, literatura eta abar partekatuak eta kanonikoak nahiz horien gidaritza bateratua bideratuko zituztenak.

Saretze lan hori, ordea, ezin legeetatik bakarrik heldu. Horretarako, ezarriaz zihoazen legeak aitzinez abiatuak ziren komunitate bideetara egokitu behar ziren: 60etatik, bereziki, identitate bateratuaren sentimena irudikatzen ziharduten erakundeei,

herri-ekimenei⁵⁴² eta kulturaren berreskuratze nahiz kontzientziatze saioei. Hala, bada, autonomien sistemak biltzen zituen aldaketen arrakasta aitzineko lan horrekiko korrespondentzian eta egokitasunean soilik zen funtzional; harekiko segida lortu ezean –eta langartze administratiboa, bereziki, buruan dugula–, nekez agertuko zen komunitateko kideen artean sentimen bateratu eta emozionalik; hala, arestian aipatu dugun hertsitze bikoitzak⁵⁴³ ez zuen batere lagundu.

Aitzineko bidearen eta sistema berriaren arteko korrespondentzia posibleen eta balizko egokitasunen garapenak ulertzeko bi ideia dira garrantzitsu: estatutiko eskuordetze ofiziala eta onarpen kulturala. Bi alderdi horiek 1975etik aitzinako prozesuaren mailak elkarlanaren bidez egitura nagusi bat eraikitza, edota porrotera, eramán zitzaketen. Komunitatearen jarraitutasuna sobera aldaketa traumatikorik sortu gabe gertatu behar zen, printzipioz; testuinguru eta helburu berrien handitasunak uzten zuen neurrian, gaurgero ibiliak ziren bideekiko koherentzia behar zen lortu. Hori dela eta, 60ko hamarkadatik loratuz zihoazen komunitate kontzientzia nahiz identitatearekiko jarraipen emozionalak mantentzea izan zen, prozesuan, gako⁵⁴⁴.

Beraz, sentimen horien agerleku ziren zernahi saio sistema berriaren egiturari egokitze ekinaldi hagitz garrantzitsua izan zen. Bertzeak bertze, ikastolekin eginiko saioak egokitze saio horren adibide dira. 1975eko prozesua hasi orduko hagitz bide malkarra egin zuen ikastolen mugimenduak; eginiko lanarengatik eta inguruan biltzen zen komunitatearengatik haren egokitzea EAeko buruek egin beharreko ahalegin nagusietarikoa izan zen. EAeko Estatutuan zehazten ziren eskumenen aitzineko egoeran, Eusko Kontseilu Nagusiak Ikastolen Titularitate Publikoaren Arautegia argitaratu zuen; bertan zioen:

Ondorio praktikoa askotan, beraz, ikastola gehienak zentro publiko bezala arituko ziren, baina, juridikoki, hirugarren sare bat osatu zuten, ikastetxe *publiko ez-estatal* bilakatu baitziren; hots, zentzu estuan publiko edo pribatu ziren ikastetxeetatik bereizirik. Ikastolak, halaber, *ikastola* bezala mantendu ziren eta, adibidez, barne antolamenduak eta euren arteko koordinazioak bere

⁵⁴² “Euskalgintza moderna, azken mende erdian euskara biziberritu duten estrategia eta azpiegituren multzoa, neurri esanguratsuan gizarte antolatuan oinarritu da, hor du bere motorra eta azpiegitura-sare nagusia, eta une honetan ekonomia soziala deitu dezakegun esparrutik ari da lanean.” (Sarasua 2013: 164)

⁵⁴³ Oroitu “5.1.1.a. Legeen bidezko oinarriak” azpiatalaren sarreran errana: “Autonomia-erkidego mailako erakundetze berezituaren bideak, ordea, bi aldetarik hertsituak ziren: erran gisa, zalantzarik gabe, estatu mailako legediak mugak ezartzen zituen; gainera, komunitateen egituratze berriak berak egoera aitzinautonomikoarekiko zuen bateragarritasunaren problematika agertu zen”.

⁵⁴⁴ José Álvarez Juncok, Cádizeko Konstituzioa dela eta, nazioarekiko sentimenei dimentsioa zaindu eta bulkatu beharra hagitz garrantzitsua zela azaltzen du: “No todo era, por otra parte, cuestión de doctrina o principios. También había que suscitar emociones. Lograr la identificación y la lealtad de los individuos hacia la nación requería un esfuerzo previo de imaginación que convirtiese en visible esa personalidad colectiva a la que tanto poder se atribuía” (2001: 193).

hartan jarraitu zuten oso-osorik. Egoera bitxia zen hura, dudarik gabe, eta ordutik aurrerako urteetan administrazio autonomikoa ikastolen erabateko estatus juridikoa ezartzen saiatu zen. Saio hori ez da izan norabide bakarrekoa; administrazioaren baitako indar politikoen arteko oreka ezberdinak, ordea, baldintzatu du hein handiz. (Mateos 2000a: 481) (Azpimarrak ez dira gureak)

Autonomien sistema ezarri aitzineko errealitatearen eta ondotik eraiki beharreko testuinguru berriaren arteko egokitasuna ulertzeko, lehenik, estatuak Konstituzioan onartu zuen eginkizun eskuordetzea aipatu behar da. Guibernauk agertu gisa: “The Spanish Autonomous System stands as a good example of how devolution works once it is applied to the whole territory of a state” (1999: 42). Izan ere, estatuaren mugetan barreiatuak ziren komunitateei autonomia politikoa⁵⁴⁵, hein batean bederen, onartzen zitzaien:

The makers of the Constitution opted for a model based upon symmetry, what has been called ‘coffee for everyone’ (*café para todos*), and instead of directly responding to the nationalist claims of Catalonia and the Basque Country as nations, they decided to implement a system which would allow for the creation of seventeen autonomous communities, some historically and culturally distinct – Catalonia, the Basque Country and Galicia – others artificially created where no sense of a separate identity had ever existed – La Rioja and Madrid among many others. (*Loc. cit.*)⁵⁴⁶

Alabaina, eskuordetze horretan estatuaren baitako lurraldeei autonomia politikoa onartu arren, bana ezina zen estatu bateratua bermatzen zen, legedi bera medio:

Once full autonomy is achieved, however, the Constitution makes no distinction between the communities. This involves assuming the indissoluble unity of Spain while recognizing and guaranteeing the right to autonomy of its nationalities and regions. (*Loc. cit.*)

Bigarrenik, ibilbidea gaurgero aski aitzinatua zuen euskal egitura zenbait sistema berrian egokitzeko pauso garrantzitsua izan zen, baita ere. Konstituzioan estatuko “dibertsitate” delakoez egin zen onarpena. “Dibertsitate” hori, ordea, modu desberdinean uler liteke. Aniztasunaren adierarik zabalenean, kasu; guti goiti-beheiti Guibernauk dioenaren bidetik:

⁵⁴⁵ Konstituzioa. Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 143. artikulua: “1.- Konstituzioaren 2. artikulua aitortzen duen autonomia-eskubidea egikaritzeko, probintziek, mugakide izanik eta historia-, kultura- eta ekonomia-ezaugarri berdintsuak edukita, uharteetako lurraldeek eta herrialde-nortasun historikoa duten probintziek beren autogobernua lor dezakete, autonomia-erkidegoak eratuz, titulu honetan eta kasuan kasuko estatutueta agindutakoaren arabera”.

⁵⁴⁶ “the right to autonomy of the nationalities and regions forming Spain materialized into what is called the Autonomous Communities System (*el Sistema Autonómico*). Yet, while Catalonia, the Basque Country and Galicia, which had ratified statutes of autonomy during the Second Republic, could immediately initiate the process towards full autonomy (*régimen autonómico pleno*), other regions had to fulfil a five-year ‘restricted autonomy’ period (*régimen autonómico restringido o mínimo*) before initiating it.” (Guibernau 1996: 107)

The acknowledgement of certain cultural traits as specific characteristics of a territorially-based national minority, which the state may refer to as ‘region’, ‘province’, or ‘département’, stands as a ‘soft’ option in the state’s process of recognizing its internal diversity. (*Ibid.*: 34)

Konstituzioan, zehazki, gaztelaniari ematen zitzaion estatuaren gidaritza nagusia, eta, eremu geografiko horretako bertze hizkuntzak “ondare” gisa atzemanik, babestu beharra onartzen⁵⁴⁷ zen:

- 1.- Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
- 2.- Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraitako estatutuekin bat etorritik.
- 3.- Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

(Konstituzioa. Atariko titulua, 3. artikulua)

Abiapuntu horrek, lausoa izanagatik, EAEko Autonomia Estatutuan aniztasun eskubide horren bermea defendatzeko aukera eskaini zuen⁵⁴⁸. Hau da, Guibernauk aipatzen zuen onarpen kulturala ezinbertzeko abiapuntu izan zen hizpide dugun egokitze prozesuan.

Guibernauk berak, hain zuzen ere, onarpen kulturala gertatu ohi den testuinguruetako bi alderdi nabarmentzen ditu. Batetik, estatuak barne hartzen dituen kultura horiekiko pertzepzioa aipatzen du:

cultural recognition presupposes the existence of a unitary state which excludes the possibility of considering its internal diversity as the outcome of more than one nation living under the umbrella of a single political institution. Almost invariably, the state promotes a common language and culture through a more or less efficient national education system. In this context, internal differences do not pose a threat to the state’s integrity, rather, they are incorporated into the state’s culture and are considered as part of it. (1999: 35)

Bertzetik, onarpen kulturala gertatzeko baldintzez mintzo da:

cultural recognition seems to work wherever national minorities have a weak sense of identity, or are unwilling to articulate or prevented from articulating social and political movements in defence of their specificity. (*Loc. cit.*)

⁵⁴⁷ Konstituzioa, Bigarren kapitulua, Lehenengo atala, Oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak: “3.- Legeak arautuko ditu estatuaren nahiz bestelako erakunde publikoen menpeko gizarte-komunikabideen antolakuntza eta parlamentu-kontrola, eta adierazgarri diren gizarte-talde eta talde politikoei bermatuko die haietan parte-hartzea, Espainiako gizarte-aniztasuna eta hizkuntzak errespetatuz”.

⁵⁴⁸ Ikus aitzinataleko “Atariko titulua, 6. artikulua”n bildutako aipuak.

Ikerlariak sentimen horren arrazoitzat aipatzen dituen hiruretarik⁵⁴⁹ bigarrena da hizpide dugun egoerari egokitzen zaiona; hau da, komunitate bat denbora luzez gutiratua eta errepresiopean egon den testuingurua besarkatzen duen aukera (*loc. cit.*).

Estatuak barne hartzen dituen kulturekiko atzemate nahiz onarpen kulturalen jatorri posibletarik bigarrenetan aipatzen diren alderdiak, beraz, hizpide dugun testuinguru eta aztergaiari egokitzen zaizkio; euskal komunitateak Aro Ilunean zehar jasaniko zanpatze eta errepresioak bulkatu zituen mantentze garaietako⁵⁵⁰ dinamika iraunarazlea eta 1960tik aitzinako prozesuan indartu zen kontzientziazte kolektibo berriztatua.

Hori dela eta, aitzinez hagitz modu badaezpadakoan, ezkutuan eta zanpaturik izanak ziren euskal egitura klandestino edo babesik gabeak sistema legezatu baten babespean besarkatzeko aukera sortu zen, aspaldian ez bezala⁵⁵¹. Testuinguru horretan, onarpen kulturalak berekin ekarri ohi dituen puntu nagusietarik zenbait garatuz joan zen: deszentralizazioa eta kultura berezituaren babeste nahiz sustatzea (Guibernau 1999: 35-36)⁵⁵². Horretarako, duintasun eremuak berreskuratzeko bulkada handia gertatu zen; eremu publikoaren berreskuratzeko eskubideez EAEko Autonomia Estatutuan ageri zen bidea: komunikabide, administrazio eta hezkuntzari zegokien bermea, adibidez⁵⁵³.

Horretan eragin handia izan zuen berregituratze politikoak, 1975etik aitzina, ekarririko botere berrantolaketak; izan ere, legeek estatuaren eta euskal komunitatearen arteko botere harremana birpentsatzeko aukera eskaini zuten, iduriz, eta hausnarketa horren eskutik, preseski, botere iturrien dinamika berregituratu zen. 5.2. atalean ikusiko

⁵⁴⁹ “But how are we to explain a weak national self-consciousness? Three main causes can be identified: (1) a successful assimilation programme implemented by the state which has resulted in a considerable degree of integration of the national minority involved; [...] (3) historical accident. This last refers to unspecified circumstances which can be considered entirely as a matter of chance. For example, the death or lack of a successor to the crown and the need to find a new monarch outside the nation; a high influx of migrants taking over the economy and, later, the political system; or the massive migration of young members of the nation forced to find work elsewhere.” (Guibernau 1999: 35)

⁵⁵⁰ Ikus komunitate jarraitutasunean gara litezkeen *continuum* mota desberdinak “6.1.2. *Continuum*aren presentzia” atalean.

⁵⁵¹ “The Spanish Second Republic (1932-39) had already implemented some progressive policies and was seeking to construct a state within which national minorities were taken into account and which conferred a substantial degree of cultural and political autonomy upon them.” (*Ibid.*: 60)

⁵⁵² “Cultural recognition involves a minimal degree of decentralization, if any” (*ibid.*: 35); “Cultural recognition usually involves the protection and promotion of the regional language, if there is one, and culture” (*ibid.*: 36).

⁵⁵³ Ikus “5.1.1.a. Legeen bidezko oinarriak” azpiatalean bilduriko artikuluen artean: Estatutuko Autonomia-erkidegoen eskumeneko gaien zerrenda (Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 148. artikulua) eta Euskararen Legearen sarreratik bilduriko paragrafoak.

dugunez, komunitatean eragina zuten botere iturri zaharrek, beren bidea moldatzeaz gain, iturri berriekin partekatu behar izan zuten ahalmena.

Gogoeta horretan sartzen da, hain justu, 1975etik aitzinako prozesuaz jabetzeko gune nagusietarik bat: hiztun komunitatea kontuan hartzen duen errealitatearen dimentsioa. Hasieratik garbi adierazi dugu euskal komunitateaz ari garenean, tesian, hiztun komunitateari egiten diogula erreferentzia. Horregatik, komunitate honen kasuaz ari garelarik, muga politiko-administratiboez haratagoko errealitateei buruz hausnartu beharra sortzen da, ezinbertzean; hortaz, euskal hiztun komunitatearen azterketak Hego nahiz Iparraldeko euskaldunak behar lituzkeela kontuan izan, bederen. Egitura administratibo zatikatua izateak eraman gaitu, euskal komunitatearen gidaritzaz aritzeko, muga geopolitikoez gaindiko guneei buruz gogoeta egitera (5.2.).

5.1.1.b. azpiatalean, 1975etik aitzina estatuaren eta autonomien artean eraiki zen harremanari erreparatu diogu. Autonomien sistemarekin finkatu zen harremanak autonomiaren bi aurpegi agerrarazi zituen: askatzailea eta mugatzailea. Guibernauk aipatzen zituen onarpen kulturala eta eginkizunen eskuordetzea alde atseginenak ziren; aldiz, langartze politiko-administratiboak, erraterako, hiztun komunitatearen bateragarritasun zaila finkatu zuen. Autonomien sistemak estatuaren batasuna bermatzen zuenez, autonomiaren “emateak” langartze politiko-administratibora kondenatu zuen hiztun komunitatea. Hala, HEHko lau probintzietan, hiztun komunitate beraren errealitate desberdinak mugatu egin ziren: EAE euskal errealitatearen gunea izanen zen, eta NFE EAEn hainbat alderditan bazterretik parte hartzen zuen komunitate zatia.

Azpiatalean erranetarik berariaz azpimarratu nahi izan dugu ideia hori. Batetik, hain justu, hirugarren kapituluan zehar sumatuko baitugu euskal komunitatearen azterketa egiteko gune sinbolikoaren izanaz, funtzioaz, egituraz eta beharrez hausnartu beharra; bertzetik, Trantsizioa dela eta aipatu ohi diren aitzina pausoen alderdi ilunaz ere kontziente izaten laguntzen baitu.

5.1.1. azpiatalean, 1975-1990 bitarteko komunitate garapena baldintzatu zuten legeak laburbildu ditugu (5.1.1.a.). Gainera, oinarri berri horiek maila desberdinetariko harremanak berregituratzeko aukera eskaini zutela ikusi dugu (5.1.1.b.): estatuaren eta

komunitatearen arteko harremanaz gain, komunitateko erakunde zaharrak, halaber, moldatu egin behar izan ziren egoera berrira.

Segidan heldu den atalean, modu orokorrean deskribatu dugun testuinguruaren izaera gizatiarragoa islatuko dugu. Ikusiko dugunez, 1975era arte onduriko Krisi Orokorak testuinguru berriari egokituriko eraldaketa jasan zuen: “Krisi Orokor Ñabartua” izendatu duguna. Ondoez horren gibelean, 1960tik aitzina abiatutako duintasun berreskuratze kolektiboaren bigarren fasea zen eragile; hain zuzen ere, komunitatearen izana duintzeaz gain, munduan, gainerakoekiko parekidetasunean, aritzeko prozesuak eskatzen zituen prozesu konplexua.

5.1.2. Krisi Orokor Ñabartua

Krisi Orokor Ñabartuaren baitan, hainbat ideia azpimarra litezke; ideia horietan, euskal komunitateak, 1975etik aitzinako fasean, jasaniko kinka nagusietariko zenbait bildu nahi izan ditugu. Ikusiko dugunez, ideia horiek guziaz komunitate duintze prozesuaren garapenari izan ziren arrunt lotuak.

Ondoko paragrafoetan, “Krisi Orokor Ñabartua” izendapenak biltzen duena laburbilduko dugu: oinarrian diren komunitate beharren, garapenaren eta moldaketa nagusien arteko harremana aurkeztuko dugu, laburki. Horretarako, Krisi Orokor Ñabartuaren izana agerian uzten duten lau punturi erreparatuko diegu: erakundetzeari, parekidetasun beharrari, identitate krisiari eta abertzaletasunen eraginari. Lau alderdiek bigarren faseko gunearen nondik norakoa agerraraziko dute; 1975etik aitzinako komunitatearen duintze prozesu espezifikoarenak, hain zuzen.

Komunitate beharren, garapenaren eta moldaketaren arteko harremanen oinarrian, urte luzez jasaniko egoera zanpatzaitetik askatu nahia zen. Aro Ilunaren isolamendu orotik atera nahiak bere garapena jarraitzen zuen, 1975etik aitzinako testuinguru berrian ere; izan ere, kanpoko eraginen nahiz harremanen behar eta nahiak bazirauten, testuinguru berrian egituratze sistemaren beharra agertu zelarik gizartearendako behar-beharrezko pauso gisa. Egardia asetu, bai, baina, gainera, testuinguru berrian zen komunitateak gainerako herrialdeekiko egoera paretsutik agertu beharra ere sumatu zuen. Hori dela eta, estreinatu berria zen autonomia mailari loturiko erakundetzea garatzeko premia gero eta nabariagoa izan zen: erakundetze horrek Europa mailan duintasunez bere burua aurkezteko aukera handiagoa eskaintzen zion euskal komunitateari.

Hagitz lotua izan zen prozesu hori 60ko hamarkadatik aitzina abiaturiko duintasun berreskuratze kolektiboari; izan ere, Krisi Orokor Ñabartua, azken finean, 60etan abiaturiko duintasun berreskuratzearen garapen egokitua izan baitzen: testuinguru hurbil nahiz urrunei eta komunitate beharrei egokitua –diktadura ondoko prozesuari, Europan nahiz Europatik aunitzez modu askeagoan parte hartzeko aukerari eta komunitate duintasunaren izaera garaikideari⁵⁵⁴ egokitua–.

Erran nahi baita, 1960-1975 eta 1975-1990 bitarteko komunitate premien garapena jarraitutasun naturalean gertatu zen. Komunitate garapenaren lehen fasean, duintasun kolektiboaren oinarriak berreskuratu behar izan ziren; aldiz, behar horiek asebate ahala, eta zorioneko testuinguru aldaketaren bulkadaz, duintasun maila konplexuagoak⁵⁵⁵ –komunitatetik haratagoko trabek aunitz zailtzen zuten lorpen oro– asebetetzeko saioak bideratu ahal izan ziren. Horien artean, tesiaren hirugarren kapituluaren hizpide nagusi den erakundetze prozesua izan zen garapen guziak nola edo hala moldatu zituen baldintzatzaile garrantzitsuena.

Erakundetze prozesuak bi alde nagusi bateratu zituen. Batetik, komunitatearen bigarren behar mailari erantzun behar zitzaion. Euskal komunitatean, gizarte logikatik sortutako erakundeen ugaritasunak kontrakoa pentsarazi badezake ere, euskal komunitatearen esparruei izaera “ofiziala”, egituratua eta bideratua emanen zien egituren beharra sumatzen zen, 70eko hamarkadan; hau da, koordinazio ekimen nagusi batetik komunitate gidaritza zen beharrezko. Bertzetik, ordea, estatu nagusiaren nahiak betearaztera heldu zen erakundetze mugatua zen hura: aitzinez erran dugun gisa, estatutik bideraturiko komunitateen sistema estatu batu eta ez sobera langartua bideratzeko moduan antolatua zen.

Komunitatearen behar maila “berriak” izan zuen, prozesuan, isla zehatzik: eremu publikoaren⁵⁵⁶ berreskuratzea, preseski. Aro Ilunean zehar zokoratua eta eremu

⁵⁵⁴ Garai hartan –eta gaur arte, bederen– mundu garaikidean parte hartzeko beharrezkoak ziren premiei egiten diegu erreferentzia (7.1.3.c. azpiatalean arituko gara literatur eremuek, egun, dituzten premiei buruz); bertzeak bertze, erakundetze prozesuari beharrezkoa deritzogu, halako gizarteetan, gainerako parte-hartzaileek adina ahalmenez aritzeko.

⁵⁵⁵ Duintasun maila konplexuak komunitate barnetik duintzearekin, egun, soilik, sostenga ezin diren bi alderdi gehiago barneratzen ditu: komunitatearen proiektzioa mundu garaikidean lagunduko duten balioztatze exozentrikoak eta barne-egitura bermatzaileak.

⁵⁵⁶ Euskal komunitateak esparru publikoa modu ordenatuan, legez eta eskubide aitortuz, bereganatzeko pausoak eman behar zituen. Hain zuzen ere, esparru publiko eta pribatu hautaketa dela eta, arazo nagusi bi identifikatu ditu Mateosk: eremu publikoaren eta pribatuaren banaketa normatiboa dela, egun, (Mateos 2000a: 593) eta, ikerketari dagokionez, ikerlariak hezkuntza publikoaren definizio bati eutsi behar diola, beti (*ibid.*: 594). Ondorioz, Socorro Mateosen abiapuntua zera izan da: “Hezkuntza publikoa [...] estatuaren edota maila administratibo ezberdinen jabetzakoa dela izan da gure abiapuntua. Gainerako

pribatuan, bakarrik, bizirautera kondenatua izana zen kultura, ondare nahiz euskal errealtate oro eremu publikora atera nahi zen, berriz ere. Horretarako, Aro Ilunean zehar estatuak erabiliriko egitura ukatzaileak akitu behar ziren:

debekuekin batera, gazteleraren inposiziorako tresna instituzionalak ezarri eta erabili zituen Francoren diktadurak: administrazioa, komunikabideak eta eskola. Eskolan, adibidez, milaka maisu-maistra kanporatuak izan ziren, eta, haien orde, militar ohiak nahiz erregimenaren aldekoak izendatu zituzten irakasle.

Eskola, beraz, estatu berriaren doktrinamendurako tresna bihurtu zen; kontrol politiko eta ideologikorako eta ideologiaren birsorkuntzarako tresna. (Iza 2010: 31-32)

Horretaz gain, autonomien sistema dela medio eskaintzen zen autonomia ahalmenetik ekin behar zitzaion eremu publikoan euskal bizia pizteari:

Euskara, beraz, galbidean eta jazartua zegoen. Heriotz motel eta planifikatu batera zigortuta, museoetako pieza izatera kondenatuta. Eremu publikotik kanpo zegoen, eta soilik esparru pribatuan erabiltzen zen euskara, beti isilean eta ezkutuan: senide arteko harremanetan eta erlijioan alegia. (*Ibid.*: 32)

Nolanahi ere den, pizte hori ez zen aski, 70eko bigarren erdian Europak eta gainerako herrialdeek partekatzen zituzten merkatu eta kultura harremanetan duintasunez aritzeko; hau da, bertzelako neurriak behar ziren, testuinguru berrituan dignitatez eta gainerako herriekiko parekotasunean, aritzeko. Horretarako, ezinbertzekoa zen eremu publiko horren berreskuratzea egitura berezituaren, komunitate eremu bakoitzari zegokion erakundearen, eskutik antolatzea⁵⁵⁷ –euskal literatura aztertzen dugun atalean espresuki erreparatuko diogu moldaketa horren gauzatze zehatzari (6.1.4., 7.2.)–.

Identitate krisiari dagokionez, irekitasun egarriak berak hainbat identitate maila jarri zuen kinkan: euskaltasuna, estatu mailatik heldu zen identitate “berriztatua” eta

guztiak pribatu direla esan dugu, abiapuntu ideologiko ugari, estatus juridiko ezberdinak eta administrazioaren kontrol eta finantzazio maila altuak eduki ditzaketan arren” (*loc. cit.*).

⁵⁵⁷ Egitura bakoitzak zegokion abiapuntutik eratorriak zituen premia berriak. Ikastolen kasuan: “Egoera erabat ezberdina bizi zuen ikastolen mugimenduak, 60ko hamarkadan helburuak zirelako sortu, hasi, bultzatu eta eustea estatuek utzitako zirrikituak nahiz bestelako bitartekoak erabiliz. 70eko hamarkadan, berriz, lehentasunak ziren hazi, zabaldu, prestigioa irabazi, legeztapena eskuratu, diru laguntzak lortu, eraikin berriez hornitu, material propioak ekoiztea... Ziklo berri bat izan zen, bai, eta Bidasoaren bi aldeetan eman zen” (Iza 2010: 77). “1987an, ordea, egoera bestelakoa zen. Ekimena hartu eta bide propio bat garatzeko barne kontzientziarekin batera, ikastolen mugimenduak erabaki zuen iritsi zela federazioen federazioa pasatzeko unea. ‘Gure arteko harremanari egitura juridikoa eman nahi zitzaion. Eta ez soilik bilerak egiteko, edo soilik bileren bitartez federazioen harremanak indartzeko; zerbait gehiago lotuko gintuena izango zen Konfederazioa, bata besteari zerbitzuak pasatzeko eta abar. Azken finean, antolakuntza hobetzeko eta eraginkortzeko tresna’, gogora ekarri du Antonio Camposek. ‘Baina beti bi arazorekin topo egiten genuen: batetik, Espainiako Estatuan, bi administrazio diferente genituela; eta bestetik, Iparraldearen kasuan, beste estatu bat’ ” (*ibid.*: 138). Ikastolen mugimenduak erakundetze prozesu berritik lor zezakeen laguntzarik handiena finantziarioarena zen, nagusiki.

Europari atxikia zena eragile izan ziren. Identitate maila desberdinen kinkan hezkuntza sistemak eta nazionalismo egituratuek⁵⁵⁸ eragin handia izan zuten.

The protection and encouragement of a regional language which is only spoken by a small minority, or relegated to a private sphere, is more controversial⁵⁵⁹. The degree of controversy is directly connected to the strength and resources allocated to this end, and to the social impact of an increasing use of the language in the public sphere. Wherever the regional language has been lost, difference is maintained by other distinctive features of the community such as law, religion, etc., but undoubtedly, wherever a language still exists, it becomes one of the most prominent features of identity. (Guibernau 1999: 36)

Segidan azalduko dugunez, komunitate identitateen eragile eta sostengu nagusi izan ohi den hezkuntza sistemaren eta, garaian, nagusi ziren bi abertzaletasunen arteko harremanak ez ziren errazak izan.

Hain zuzen ere, Socorro Mateos-ek, bere tesian, espresuki aipatzen du estaturik gabeko nazionalismoek identitatea irekitzerakoan erabili ohi dituzten alderdiak. Estaturik gabeko nazionalismoak bi alderdi nagusitan sustatzen du nazio identitatea. Alde batetik, kultur ezberdintasuna aipatzen du: diferentzia horren muina, elementuak berak baino gehiago, “aukeratutako ezaugarrien eraginkortasun soziala”⁵⁶⁰ da (2000a: 591). Bertze aldetik, azpi politiko argiagoa duten lurraldeak eta lurraldeko biztanleen borondatea leudeke: “Lurraldearekin batera, gizarte modernoetako biztanleen heterogeneotasunak aldarrikapenak haien borondatean sustatzera bidera dezake nazionalismoa” (*ibid.*: 591-592).

Espresuki euskal komunitatearen kasuaz ari garelarik, bi arrazoiengatik behatu behar zaie garaiko abertzaletasun nagusiei. Batetik, bi abertzaletasunen arteko tirabirek komunitatearen garapena alderdi guzietarik zipriztindu zuten. Adibidez, espresuki euskal ondare kulturalaren garapena hizpide dugularik, euskararekin –nahiz euskararen gauzapekin– zerikusia zuten arituak alderdi politikoen eta bi abertzaletasunen

⁵⁵⁸ Kasu honetan, oinarri teorikoen aurkezpenean “nazionalismo” hitzari buruz erranak kontuan izanik, adiera ideologikoari egiten diogu erreferentzia; ez oinarrizkoari.

⁵⁵⁹ Aitzineaz aipatua: “Cultural recognition usually involves the protection and promotion of the regional language, if there is one, and culture. It is relatively easy and uncompromising for the state to sponsor some folklore events which reflect the specific traditions of the area and present them as a constitutive part of the nation-state’s broad culture. Such manifestations are aimed at pleasing those members of the region who consider themselves satisfied with this level of recognition” (Guibernau 1999: 36).

⁵⁶⁰ Mateosek aurkezten dituen alde horietarik lehenak, ondoko azpiataletan agertuko dugunez, lotura handia du, komunitateen eta ondareen arteko harremana dela eta, aipagai dugun puntu batekin: egokitasunarekin, hain zuzen. Oroitu AOKren egokitasunaz errana (3.1.3.ko “Hautatzearen arrazoiak” azpiatala).

–abertzaletasun historikoaren eta berriaren⁵⁶¹– goiti-beheitiek baldintzatuak izan ziren. Bertzetik, hezkuntza sistemak komunitateen identitate garapenean duen garrantzia kontuan izanik, abertzaletasunek hezkuntza sistema berria izan zuten eraginari ere erreparatu beharko diogu, gaineratik, bederen.

Mateosek bi abertzaletasun nagusien arteko tirabirak laburbilduak ditu (*ibid.*: 600-602); euskarari eta euskal hezkuntzari dagokionez, zehazki, bi abertzaletasun nagusien arteko kinken eta barne-krisialdietatik eratorriak ziren hausnarketen eraginak agertzen ditu. 80ko hamarkadaren erdira arte bi abertzaletasunok ardatz ideologikoak banatzen zituela zehazten du. Batetik, “ezkerreko” abertzaletasun deritzonak ikastola aparteko sare gisa garatzea errefusatu zuela; “moderatu” gisa deskribatzen duen abertzaletasuna –lanean zehar “abertzaletasun historiko” gisa izendatu dugun horrek– administrazioaren kontrolpean izanik ere, ikastola sarea mantentzearen alde agertu zen. 80ko hamarkadaren erditik aitzina, ordea, ezkerrean banaketa aunitz gertatu zen, bilakaera ideologiko eta testuinguruaren beraren eraginez.

Hala, bada, ardatz ideologikoaren arabera⁵⁶², bi aldi nagusi banatzen ditu ikerlariak (*ibid.*: 601-602). Lehenengo aldiari dagokionez, Eusko Alderdi Jeltzalearekiko (EAJ) areriotasunak bildu zituen Herri Batasuna (HB) eta Euskadiko Ezkerra (EE): ikastolaren balizko *ghettizazioa* –dio Mateosek– gaitzetsi, eta euskal eskola publiko bakarra aldarrikatu zuten (*ibid.*: 601). Bigarren aldian, euskal mugimendu nazionalistako indarren kokapen politiko berriaren arabera garatu ziren adostasun eta desadostasun konplexuak; hala nola, ikastolak sare publikoan sartzeari buruz erabili ziren arrazoi nagusiak bi multzo nagusitan sailkatzen ditu Mateosek: ikastolaren “baterakuntza vs integrazioa” eta “normalkuntza vs borroka” kinkak (*ibid.*: 602)⁵⁶³.

⁵⁶¹ “Abertzaletasun historikoa” izendatu dugu, XIX. mendearen akieratik hasita, EAJrekin batzen den nazionalismoa; aldiz, “abertzaletasun berria”n, XX. mendean abiatu ziren bertze adarrak eta abertzaletasun berriak bildu ditugu.

⁵⁶² “Antolaketa aurreautonomikoa ezarri zenetik EELP [EAEko Euskal Eskola Publikoaren Legea, 1993] ebatzi arte garatu zen ikastolen publikazio prozesuan, era askotako aldaerek hartu zuten parte. Hartara, erakunde nazionalistek unean-unean hobetsi zuten jokaera eta, honen ondorioz, euren artean gauzatu ziren aliantzak eta aurkamenduak, batik bat, ardatz biren inguruan uler daitezke: ardatz ideologikoa eta sindikala, batetik; eta ardatz politikoa, bestetik. Euskarari buruzko ikuspegiaren arradikalitasun [sic] mailak –alegia, ardatz linguistikoak–, ostera, ez zuen muga zehatzik marraztu ikastola edo eskola publikoa hobesteko orduan, Euskal Eskolaren eraikuntza abertzale ororen abiaburua izan zen eta; baina euskarari emandako garrantziak indar abertzaleak eta ez-abertzaleak ipini zituen aurrez aurre.” (Mateos 2000a: 600-601)

⁵⁶³ Erakunde abertzaleak “normalizazio vs borroka” diskurtsoaren inguruan lerratu ziren; Eusko Alkartasuna (EA) erdibidean kokatu zen; HB eta Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) “normalizazio vs borroka” diskurtsoaren bertze aldean kokatu ziren eta abar (*ibid.*: 602).

Edozein gisatan, abertzaletasun batetik bertzerako aldeak ez ziren ideia bakar baten ingurukoak izan: “Publikotasunari buruzko ikuskerez gain [...] euskarari, nazio integrazioari eta lurraldeari emanikako garrantziak abertzaleen hezkuntza pentsakerak bereizi dituzte” (*ibid.*: 600). Errana dugunez, hezkuntzaren gidaritzaren instituzionalaren jabe izateak berebiziko garrantzia izaten du, zeinahi nazio edota estatu motaren garapenean⁵⁶⁴; eta, noski, bi abertzaletasunen arteko kinkak ere izan zuen eraginik euskal hezkuntzari zegokion gatazkan ere.

Hezkuntza sistema berriztatuaren egituraketan izan zen gatazka nagusietarikoak ikastolaren eta eskola publikoaren arteko moldaketatik sortuak izan ziren: aitzinean euskal hezkuntza sistemaren bidea hasia zuen egiturari egitura berria gaineratu izanaz gain, bien arteko harremana eta autonomien sisteman izanen zuten funtzioa nahiz tokia erabaki behar ziren. Hori dela eta, abertzaletasun bide orok hezkuntza pribatu ala publikoa hautatu behar izan zuen:

Mugimendu abertzaleak hezkuntza publiko ala pribatuaren artean egin beharreko benetako hautua frankismoaren amaierak eta ondorengo eraketa autonomikoak taxututako egoera berrian gertatu da. Zehazkiago, 1993an EAEn ebatzitako EELPren [EEPL] ondorioz, ikastola sare publikora biltzeari buruzko erabakia hartu behar izan zuen; hau da, ikastola ala eskola publikoa aukeratzera derrigortuta egon zen. Une horretan hobetsi ziren jokaerak ulertzeko, mugimendu nazionalistaren baitako aldaketak eta ikastolaren zein eskola publikoaren bilakaera hartu behar dira kontuan. (*Ibid.*: 598)

Hagitz nabaria izan zen, beraz, bi abertzaletasun nagusien arteko kinkak egitura berri nagusiaren garapenean izan zuen eragina, baita egitura erakundetzailerik nagusiek abertzaletasunaren norabideetan izan zuten eragina bera ere⁵⁶⁵.

5.1.2. azpiatalean hizpide izan dugun testuinguru nahasian, hirugarren kapituluan zehar aipagai izanen diren komunitate kinkak borrokatu behar izan ziren; hots, erabaki eta plangintza sendoz hornitu behar izan ziren bai eragin, errealitate nahiz jabekuntza berriak, bai mantendu nahiz berreskuratu nahi ziren komunitate alderdien arteko mugak. Horietan guzietan, gizarte mailako aldaketa nagusiak eragile izan ziren, noski.

⁵⁶⁴ “herritarren sozializazio nazionalistan hezkuntzak duen ahalmenaren kariaz, estaturik gabeko nazionalismoa hezkuntza sistemaren kontrola erdiesten saiatzeko da” (*ibid.*: 593)

⁵⁶⁵ Abertzaletasunaren eta hezkuntza sistema bikoitzaren arteko elkarreragin etengabearen irudi: “EAERI dagokionez [...] benetako hezkuntza gatazka gorpuztu da eraketa autonomikoa indarrean jarri zenetik aurrera. Bateko, EAeko administrazioaren ardurapeko eskola publikoaren arian ariko euskalduntzeak eta, besteko, ikastolak jasotako onespenez instituzionalak ekarri dute hezkuntza sare bi horiek lehiakide bihurtu izana abertzale askoren begietara. *Bata ala bestea* aukeratzeko garaia heldu dela aldarrikatu du zenbaitek eta, ondorioz, frankismoan gorpuztu zen ikastolarekiko erabateko atxikimendua birpentsatu beharra ekarri” (*ibid.*: 599-600) (azpimarra ez da gurea).

“Krisi Orokor Ñabartua” terminoak islatzen duen nahasmenaren irtenbide nagusietarikoa baliabide nagusi batek gidatu zuen: euskara bihurtu zen komunitateak bizi zuen birmoldatze nagusiaren maila orotan abiapuntu nagusi. Bateko nahiz bertzeko interesek zipriztindua izanagatik, hizkuntza euskal komunitatearen identitate oinarri nagusi gisa finkatu zen; dela komunitatetiko egitura sozial eta herri-ekimenek bulkatuta, dela autonomien sistematiko instituzioen interesak hala nahirik, erabakigarria izan zen euskararen –nahiz hizkuntzaz hornitzen eta baliatzen ziren egituren– norabidea, komunitate moldaketaren bigarren fasean.

Komunitate zanpatuaren arnagune izateaz haratago, orainaldirako tresna funtzional eta etorkizuneko oinarri gisa sendotuz joan zen, 60ko hamarkadan abiatutako bideari jarraiki:

Euskarak bizi zuen debekua nahikoa ez, eta etorkinen etorrera handiak euskararen atzerakada areagotu zuen, baina baita abian zen kontzientzia-hartzea bizkortu ere: hizkuntzak euskal nortasunaren baitan jokatu beharreko papera aldatu zen, hizkuntza bihurtuz euskal nazioaren ardatz edo zutabe. (Iza 2010: 35)

Halatan, diktaduraren ezarpenaren ondorioz garatu zen bidean, nazio identitatearen paper nagusia hizkuntzari eman zitzaion (Mateos 2000a: 597).

Beraz, behar zenbaiten ondorio ziren, Krisi Orokor Ñabartua dela medio, aipatu ditugun premiak –duintze oinarrizkoaren ondoko fasekoak–, garapenak –eguneratzearenak– eta krisiak –identitatezkoak–: munduari erreparatzen zion komunitatearen garapenerako beharren ondorio.

5.1. atalean, tesiaren bigarren kapituluan egin gisa, testuinguruaren giro orokorra agerrarazten dituzten datuak bildu ditugu. 1975etik aitzinako fasea erakundetze mailak antolatu zituzten legeek bideratu zituzten, eta lege horien gibelego errealitateak 1960-1975 bitarteko krisiaz bertzelako ezinegona altxatzen zuen: komunitate mailako erakundetzearen egokitzapenak, estatutik haratagoko errealitatera hurbildu nahi zuen gizarteak, muga geopolitiko langartuetan banaturiko komunitate krisiak eta abertzaletasunen arteko tirabirek Krisi Orokor Ñabartua zipriztindu zuten.

Hortaz, krisiaren aldi berrian, Krisi Orokorak ez zuen ñabardura sumatzen dugu: komunitatearen bermea, barne- nahiz kanpo-harremanei begira, hornitu eta sostengatuko zuen egituratzearen bilaketak sorturiko ezinegona; hau da, komunitatearen proiektzioa mundu garaikidean funtzionalitatez eta parekidetasunez aritzeko aldaketek eta erabakiek sorturiko ondoeza.

Ondoko atalean ikusiko denez, testuinguru horretan euskal identitateak jarraitu zuen garapena erakundetze prozesuari, bai, baina, gisa berean, independentziaz bertzelako kontrol egiturei atxikia izan zen. Gune horien arteko aldean larritzeak komunitatearen erreferente sinbolikoen garrantzia areagotu zuen, zalantzarik gabe.

5.2. Identitate nazionala: eraikuntzaren jarraipena

5.1. atalean, euskal komunitateak 1960-1990 bitarteko moldaketan jasan zuen bigarren fase nagusia izan dugu, gainetik, hizpide: 1975etik aitzinako fasea ulertzen laguntzen duten lege multzoek eta Krisi Orokor Ñabartuaren azalpenek testuinguruaren ideia nagusia marrazten lagundu dute.

Segidan heldu den atalean, komunitate garapenaren alde zehatzagoei eginen diegu erreferentzia. Horretarako, bigarren fasean gune izaniko erakundetzea eta kontrol guneen kudeaketa izanen ditugu langai: 1975etik aitzina euskal komunitateak jasan zuen erakundetzea aztertuz, prozesuaren alderdi nagusiak aurkeztu, eta horiek komunitate garapenarekiko –nahiz 60etatik heldu zen jardunarekiko– izan zuten harremana agertuko dugu. Gainera, prozesuak berak bulkaturiko egituratze berriari erreparatuko zaio; zehazki, gune eragileen egituratze berriari. 1975etik aitzinako komunitate garapena erdiz erdi moldatu zuten bi alderdiok azalaraziko dute erakundetze nagusiaren izaera berezitua, euskal komunitatearen eta testuinguruaren arteko harremanari egokitua.

Gisa horretan, 5.1. atalean agerturiko testuinguru zabala komunitate garapenaren alderdirik bereizgarrienari egokituko diogu; bi azpiatalek irudikatzen duten egoera nagusiak agertuko du ondare kulturalaren, baliabideen eta forma sinbolikoen azterketa zehatzerako (seigarren eta zazpigarren atalak) oinarrizko abiapuntua.

5.2.1. Nazio berpiztearen bigarren fasea: erakundetzea eta kontrol egiturak

Euskal komunitateak 1975-1990 bitartean jasaniko aldaketak bi oinarri nagusi izan zituen: erakundetze prozesua eta horrekin lagunduriko kontrol guneen kudeaketa.

Horien deskribapenak bi helburu ditu: batetik, seigarren eta zazpigarren ataletan zehar landuko ditugun aztergaiak testuinguru nagusi bateratuan kokatzea (5.2.1.a.); bertetik, atal nagusi horietan bertan ikertuko ditugun eremu nahiz baliabide zehatzen azterketarako tresna zenbait eskuragarri jartzea (5.2.1.b.).

5.2.1.a. Erakundetzea

Euskal komunitatearen izaera bermatzeko ezinbertzeko prozesua izan zen erakundetzea. Edukiak berak –kultura dugu guk hizpide nagusi– erakundetu⁵⁶⁶ behar ziren; baina, bereziki, komunitatean zehar homogeneousazioa barreiatu eta sostengatuko zuten erakundeek ahalbidetu zuten erakundetzea⁵⁶⁷. Pentsamendu, sinbologia eta edukien partekatzea bideratuko zuten erakundeen eraikuntza komunitateen sistemak eginiko lanik eraginkorrena izan zen, ziur aski.

Prozesu horren gunea tesiaren bigarren atalean azalduari lotua da, hagitx. Erran nahi baita testuinguruarekin batera, aitzina egin ahala, behar berriak sortu, eta egoera desberdinetara egokitu egin behar izan zuela komunitateak. Egokitze horren azterketak erakutsi digu erakundetzea bi alderen arteko elkarrekintzan gauzatu zela: komunitatearen beharrak asebetetzea eta testuinguru berriarekiko egokitzea modu orekatuan lortzeko zubia izan zen prozesua. Testuinguruari egokituriko duintasun fase berriak, ondorio kultural nagusietariko gisa, 1960-1975 bitarteko bidea egokitu beharra ekarri zuen, eta, era berean, pausoak komunitateen sistema ezezagunera egokitu behar izan ziren.

Arestian, Krisi Orokor Ñabartuak Krisi Orokorrarekiko izan zuen alde nagusia beharretan izan zela erran dugu; zehazki, komunitatea etorkizunerako proiektatze lanek eskatzen zuten erakundetze prozesuaz aritu gara, guziak osatzen zuelarik komunitate duintasunaren bigarren pauso nagusia lortzeko bidea. Behar maila horren gailentzeak berreskuratu berria zen ondare kulturalaren birmoldatze berriztatua eskatu zuen. Hau da,

⁵⁶⁶ Ikus A eranskinetako “Erakundetzea” sarrera.

⁵⁶⁷ Espainiako estatua adibide harturik, Álvarezek jendartearen batasuna lortzeko erakunde homogeneousatzaileek izan duten garrantziaren berri ematen du (2001: 76-77). Aro Moderno espainiarrean zehar, identitate nazional aitzinekoa eraikitzeke izan ziren arazoaren artean, monarkiaren batasunik eza aipatzen du, nagusietariko gisa; Erdi Arotik helduak ziratekeen identitate anitzek batasun horri mugak jartzen zizkioten. Gainera: “la España de los Habsburgo apenas presenta peculiaridad alguna en relación con los demás entes políticos del Antiguo Régimen, pues en definitiva todos ellos participaban de este tipo de organización descentralizada y llena de excepciones y privilegios, ya que el método de acumulación de territorios había sido similar. Pero no es menos cierto que a quien más se asemejaba el complejísimo sistema de los Habsburgo españoles era al sacro imperio de sus primos austríacos, más tarde convertido en imperio austro-húngaro; y que aquella fue una de las grandes unidades políticas del Antiguo Régimen que, incapaces de transmutarse en Estado-nación, acabaron estallando en mil pedazos en la era contemporánea” (*ibid.*: 75-76). Alabaina, monarkia espainiarrak homogeneousotasunez batzen zuen hainbat berezitasun bazuela zehazten du: “Había, para empezar, instituciones comunes a todos los reinos, como la Inquisición, de probada capacidad para moldear hábitos y creencias colectivos [...] Se asentaba también aquel conglomerado de poder sobre una base o sede central, que era el reino de Castilla [...] Y las contribuciones castellanicas se vieron complementadas muy pronto con las riquezas de las minas y el comercio americanas, que dotaron al gobierno central de aquella monarquía de mayores recursos –y mayor independencia respecto de las instituciones representativas del reino– que los poseídos por otras potencias rivales” (*ibid.*: 76).

batetik, helburu berriendako funtzionala izanen zen ondare kulturala behar zen eskuratu eta eskaini; bertzetik, etorkizuna, mundu globalizatuan, ziurtatuko zuten egokitzapenak gauzatu behar ziren: ondare kulturalaren funtzionalitatea berriztatu, hezkuntza sistema proiektu berrira egokitu, eta medietara jauzia ziurtatu, adibidez.

Beraz, komunitatearen berpizteak bigarren fase nagusia hasi zuen, diktaduraren akierarekin batera. Aldi horren muina mundu modernoan bizirauteko oinarrizko garapena izan zen, eta erakundetzea, hain zuzen ere, hori lortzeko ezinbertzeko pauso. Gainera, autonomien sistemarekin egokituriko legeek babes eremu mugatua estreinatu zuten. Delako babes horren nondik norakoa, ordea, goiti aipaturiko abertzaletasun nagusi bien lehiak baldintzatu zuen.

Hortaz, 1975era bitarteko moldaketa kulturalean orainaldiaren eta iraganaren arteko harremana oinarriztat genuen gisa, 1975-1990 bitarteko fasearen gunea zera izan zen: aitzineko lan nagusiaren ondorio izaki, 1960-1975 bitartean ereiniko proiektioarekiko koherentzian garatu behar izana. Kateatze horretan, etorkizunerako proiektuaren beharra⁵⁶⁸ gibleko bulkatzaile nagusia izan zen, eta abiatu berria zen bidearen egokitzeak ardatz aunitz landu beharra sortu zuen; horietarik nagusietarikoak, ziur aski, 1960-1975 bitartean berreskuratu berria zen ondarea egoera nahiz helburu berrietara egokitzea eta kultur azpieroemu bakoitza aro berrirako doitzea.

Akieran aipatu ditugun bi ardatz horiek izanen dira, preseski, hemendik aitzina xehekien aztertuko ditugun gunek. Batetik, lehen fasean berreskuraturiko ondarearen egokitze funtzionalari behatuko diogu; funtzionalitateari egokituriko prozesua izan zela jakinki, tesian bigarren kapituluari egin gisa, aldagai horren eragin zehatzari erreparatuko diogu (seigarren atala). Bertzetik, 60ko hamarkadan arnas hartzen hasiriko kultur eremu ez sistemikoen egokitzea aztertuko dugu; horretarako, Euskal Literatur Sistemaren (ELS) garapenean sumatu ditugun pausoei erreparatu diegu; eredu zehatzaren lanketak

⁵⁶⁸ “Pero la realidad es dura. Un Estado –o una maquinaria política que aspire a convertirse en Estado– no puede sobrevivir en hibernación ni justificarse a partir de glorias pretéritas. Los proyectos nacionales, por mucho que pretendan rendir culto a la historia y ampararse en ella, sólo tienen viabilidad si sirven a metas políticas actuales, es decir, de futuro. Por muy disfrazados que vengan de retorno a un pasado idealizado, es en función de ese objetivo de futuro como dinamizan a la sociedad, y de ahí su necesidad de adaptar o reinventar esa historia sobre la que dicen apoyarse para adecuarla a las necesidades del momento. Si no existe tal programa actualizado, como no existía en el nacionalismo español a finales del XIX, se deja el campo libre para competidores que no le van a hacer la vida fácil; que van a desvelar ante el mundo que esa aparente ‘nación’ en una especie de caminante sonámbulo.” (*ibid*: 585)

kultur eremuek autonomia lortu beharra helburu nagusi izan zutela agerraraziko du (zazpigarren atala).

Laburbilduz, tesiaren hirugarren kapituluan, euskal komunitatearen duintze prozesuaren *continuuma* aztertuko dugu: komunitate eta kultur eremu zehatzen garapenak aztertuz, komunitate beharren eta testuinguruaren arteko oreka nola egokitu zen ikertuko dugu.

Jarraian den azpiatalean, azterketa zehatz horiek egin ahal izateko oinarriko informazio eta tresna teorikoak eskainiko ditugu.

5.2.1.b. Estatu eta autonomia mailak egokitzea: independentziaz bertzelako kontrol egiturak (estaturik gabeko nazioetako ordezkariak)

Ondoko paragrafoetan, estaturik gabeko nazioetan ager litezkeen ordezkariak gunez arituko gara. Horretarako, kontrol modu –estatu mailakoak edota maila mugatuagokoak, nagusiki– desberdinetako ordezkariak guneak aipatuko ditugu, eta, zehazki, horietan biltzen den ordezkariaren izanaz eta ahalbideez arituko gara.

Horretarako, Montserrat Guibernauren lanetara jo dugun arren, zehazte nagusi bat proposatu beharra sortu da: Guibernauk aipatzen dituen botere egiturez gain –hezkuntza eta komunikabideak–, egungo estaturik gabeko nazioen azterketarako garrantzitsua deritzogun hirugarren bat erantsi beharra sumatu dugu; konkretuki, ordezkariak sinbolikodun gune egituratzailea. Funtsean, Guibernauk erranei gure beharrak asebetetzeko zehaztapenak eginaz, estaturik gabeko nazioetan agertzen diren ordezkariak moduak bi mota nagusitan sailkatu ditugu: gune mugatu(eta)tik⁵⁶⁹ sorturiko ordezkariak eta gune sinboliko(eta)tik datorkeena.

Sailkapen nagusiari ezarri zaion deiturak nahasmena sor lezakeela uste izanik, egoki iritzi diogu, ur sakonagoetan sartu aitzin, izendatze hori agertzeari:

Gune mugatua⁵⁷⁰

Komunitateak gune honetan atxikitzen duen ordezkariak, espresuki, mugatua izanen dela islatu nahi izan dugu: bertan biltzen diren botereek komunitate

⁵⁶⁹ Errana dugunez, 1975etik aitzinako prozesuak langartzea finkatu egin zuen, komunitatea helburu desberdinak zituzten estatu eta erkidegoetan atxikiaz. Ikusiko dugunez, komunitatearen gune instituzional zentralaren rola, nagusia, EAEk hartu zuen.

⁵⁷⁰ “Gune mugatu” izendapena, testuinguru zehatzaren azterketa egiten ari garenez, balio pluralean erabili beharko genuke; nolana ere den, gauzak erraztearren, EAE, NFE eta IEH gune mugatuak barne hartzen dituen gune zabalaren balioarekin –balio kontzeptualarekin, egitatezkoarekin baino gehiago– erabiliko dugu.

errealitateak duen izaera mugatuari eragiten diote. Ordezkaritza partzial horretan, potentzialki, komunitatearen izaera kulturaletik ateko arrazoiek ezartzen dute identitatearen muga.

Gune sinbolikoa

Komunitatearen erreferentzia abstraktuagoari atxikitzen zaio: errealitatean izaera eta balio konkretua ez duenari, ordezkari abstraktuagoari. Gune honek, lehenak ez bezala, komunitatearen erreferentzia espaziala muga abstraktuetara irekitzen du, eta komunitateko errealitateetik abiatzen du ordezkari.

Beraz, “gune mugatu” eta “gune sinboliko” izendapenekin, gune horietan komunitateek atxikitzen duten autoerreferentzia abstraktuaren eta konkretuaren arteko aldea agerrarazi nahi izan dugu, bertzerik ez; izan ere, gune mota horietarik bakoitzean ordezkari desberdina lortuko dute komunitateek (ikus 11. taula, “Komunitate ordezkariak”).

Gune mota	Erreferentziako komunitatea	Komunitatearen adiera	Identitatearen muina
Gune mugatua	Komunitatearen erreferentzia alderdi fisikoak mugatua.	Komunitatearen adiera eta ordezkari hertsia.	Identitatearen muina alderdi politiko-administratibotik mugatua. Muga espaziala.
Gune sinbolikoa	Komunitatearen erreferentzia alderdi fisikoak mugatu gabe.	Komunitatearen adiera eta ordezkari zabala.	Identitatearen muina komunitate ezaugarri ez-politiko-administratiboek hertsitua. Muga espazialik ez.

11. taula: Komunitate ordezkariak

Ikusiko dugunez, ordezkari mugatuaren eta sinbolikoaren arteko aldeek berebiziko garrantzia izaten dute, zatikatze geografiko-administratiboa jasaten duten komunitateengan; izan ere, kasu horietan muga geografikoez haraindiko autoirudiak eta, bereziki, haren erreferentzia bateratua dukeen guneak funtzio nagusiak beteko babiluzkete.

Terminologiarekin gaizki-ulertuak saihestu ditugula, estaturik gabeko nazioetan diren kontrol modu eta ordezkari gunez arituko gara.

Lehen-lehenik, estaturik gabeko nazioen kasuistikan, komunitateek independentzia politikoaz bertzelako iraute moduak badituztela argitzea komeni da:

We must then conclude that for their cultures to survive, nations require either a state of their own or a set of institutions able to function as a state. I argue that independence is not the only way forward for nations without states. Alternative political arrangements may be satisfactory if they

attain a sufficient degree of autonomy and are grounded upon the acceptance of the nation's right to self-determination. (Guibernau 1999: 102)

Zernahi gisaz, independentziaz bertzelako autonomia horietan, estatuaren eta komunitate gutituaren arteko harremanak⁵⁷¹ guziz baldintzatuko ditu gobernu modua eta kontrol guneen izana.

Estatuak gabeko nazioek, beren kultura mantendu eta aitzinatzeko dituzten egituren artean, autonomia maila desberdineko bi gune nagusi izan ditzaketela aipatzen du Guibernauk: hezkuntza eta komunikabidek (*loc. cit.*). Horien helburua hizkuntza partikular, balio, tradizio eta bizimoduak direla medio gizabanakoak gizarteratzea izaki, normalki, estatuak beren balio eta ideologiak barreiatzeko erabiltzen dituzte; hori dela eta, Guibernauk espresuki garrantzitsu deritzo komunitate mailako lider politiko eta intelektualek egitura horien kontrola lortzen saiatzeari (*loc. cit.*).

Hala, bada, hezkuntza sistemaren eta komunikabideen kontrola izateak, horien antolatze eta egituratzearen jabe izateak, kasu, guziz baldintzatuko du estatuaren nazionalismoen indar eta eragite ahalmena. Bertzeak bertze, gutiengo mugimendu bat izatetik, masa-mugimendu jauzirako behar den ahalmena eskuratuko bailukete (*loc. cit.*); gainerakoan, nazionalismo horiek egunerokotasunari dagokion eremuaren kontrola galduko lukete.

Egin kontu egunerokotasunaren eremuaren kontrolak berebiziko garrantzia duela, euskal komunitatea gisako nazioendako. Potentzialki, gune funtzional nagusietarik bat izan liteke, bertan sor baitaiteke komunitateko kideen arteko lotura sentimentalaren hari nagusia, belaunaldiz belaunaldiko transmisioaren erabilera behinena.

Alabaina, arestian erran gisa, estatuaren eta nazioen arteko harremana eredu desberdinetan oinarritua izan liteke, eta, beraz, autonomia gradazio horretan, aipatu egiturek presio mailak jasan behar izaten dituzte. Estatuak nazio gutituak aintzatesten ez dituen kasuetan, botere nagusia saihesten duten baliabideak asmatu behar. Komunikabideei dagokienez, kasu, klandestinitatera jo ohi da; estatu barneko ahalegin klandestinoez gain, kanpoko herriekiko harremana ere baliatu izan delarik errealitate azpiratuaren arnagune gisa:

As I have already mentioned, during the Francoist regime (1939-75), Catalan nationalism was banned and Catalan culture and language were proscribed from the public sphere. Nationalist

⁵⁷¹ Espainiako Bigarren Errepublikaren indarrean jarri zenean, 1931tik aitzina, ikastola berriak zabaldu eta ugaritu ziren, Nafarroan barne (Iza 2010: 21). 36ko Gerrarekin, aldiz, ikastola guzien atak itxi egin ziren (*ibid.*: 22).

groups created their own pamphlets and journals, which, once discovered by state agents, were closed down and their representatives severely punished. Some nationalist messages involving a critique of the regime were occasionally broadcast from foreign locations. Thus, the state's attitude towards its nations determines to a large extent their access to the media, and the possibilities they have to disseminate their particular nationalist messages. (*Ibid.*: 109)

Guibernauk aipatzen zituen bi botere gune horiek marrazten duten egitura multzoan, ordea, hutsune nagusi bat sumatzen dugu: hezkuntza sistemak eta komunikabideek estaturik gabeko egoeretan komunitatearen ordezkariak partziala soilik lor dezakete, sarri. Hau da, Guibernauk proposatzen dituen egiturek komunitatearen ordezkariak mugatua izanen dute, administratiboki zatituak diren hiztun komunitateetan. Estaturik gabeko nazioek erreferentzia garrantzitsuenetarikoa izan ohi duten gune nagusietarik bat falta da, hain zuzen: ordezkariak sinboliko nagusiari erreferentzia egiten diona. Ordezkariak horren funtsa komunitatearen identitatea sinbolizatuko lukeen ezaugarri komune(t)an legoke, muga fisikoetatik haratago barreiatzen den ezaugarri(et)an. Ezaugarri horren izana, noski, testuinguruaren arabera finkatzen du komunitateak; aldagarria da, printzipioz.

Hori dela eta, estaturik gabeko nazioetan komunitatearen botere gune garrantzitsuena –potenzialki indartsuena– hirugarren kontrol gune nagusia dela uste dugu; komunitatearen ordezkariak sinbolikoa, bai, baina identitate ez-politiko-administratiboaren ordezkariak lukeena.

Horren aitzinean, komunitatearen gune sinbolikoko erreferente nagusiak politiko-administratiboki zatituriko komunitatearen batasuna sostengatuko luke: estatuak estatu, legeak lege, komunitate bereko partaide izateko gunea litzateke. Ondoko azpiatalean ikusiko dugunez, zatiketa dela eta, isla bateratu horren gidaritzak ezinbertzean beharko luke sinboliko.

Hiru ardatz nagusi ditu ordezkariak gune honek:

1) Muga fisiko-politiko-administratiboak, gaindituak

Gune honetan biltzen den botereak komunitatearen zernahi zatikatzeren muga fisikoak gainditu, eta are muga horiek berak indar iturri gisa erabiltzeko ahalmena du. Administrazio zatikatua duten nazioek, adibidez, gune sinbolikoaren ordezkariak nagusian antzeman ahal dute komunitatearen gidaritzak nagusia islatu eta bideratuko duen botere sinbolikoa; gune partekatua.

2) Komunitate fase bakoitzari egokitzen zaion oinarria

Komunitateen eta testuinguruaren arteko harremanari egokitzen zaio gune sinbolikoa: botere horren muina komunitateak bizi duen egoera eta proiektioari egokitu ahal dakioke. Hala, bada, oinarria komunitate beharren arabera aldatu edo moldatu, osatu, egin liteke.

Botere sinboliko horren muina, ordea, nazio bakoitzean desberdina izan ahal daitekeenez, azterketetan aitzina egiteko pauso garrantzitsua izanen da gune sinbolikoak momentu bakoitzean nagusi izan duen erreferentea zehaztea; testuinguru bakoitzeko komunitatea, denbora eta espazioa kontuan izanik, muina zein den identifikatzea.

3) Botere autonomoa

Zeinahi autonomiadun komunitatetan, momentuan momentuko botere politikoaren helburuetatik at dagoke gune sinbolikoa, baita haren ordezkariak biltzen duen ezaugarri komunaren izana ere.

Euskal komunitatearen kasuan, adibidez, 1975etik aitzinako prozesua hausnartzeko alderdi garrantzitsua da honakoa; komunitate garapena baldintzatu zuten abertzaletasunen arteko borrokari gune sinbolikoarekiko harremanean behatzeak aunitz lagun dezake 1990etik aitzina sumatu ditugun hainbat komunitate behar ulertzen.

Hiru ardatz horiek estaturik gabeko komunitateen azterketarako hagitx tresna erabilgarria bihurtzen dute gune sinbolikoa. Hirugarren kapituluan zehar ikusiko dugunez, euskal komunitateak, 1975etik aitzina, abiatu zuen prozesuan, gune sinbolikoko erreferentearen –euskara– eta gune mugatuaren botere langartuaren –komunitate eta estatuen eskuetatik– gidaritza zuten erakundeek kointziditu zuten; Euskaltzaindiak, ikastolak, hezkuntza sistema berriak... euskal komunitatearen ordezkariak desberdineko egiturak ziren, baina guzkiek izan zuten komunean ardatz bera: euskara.

Laburbilduz, 5.2.1.b. azpiatalean, Guibernauren proposamenetik abiatuta, estaturik gabeko nazioetan komunitate mailako hainbat egitura kontrolatzeak botere handia ematen duela ikusi dugu. Alabaina, hark proposatzen dituen botere guneek –hezkuntza sistemak eta komunikabideek– hainbat egoeratan komunitatearen ordezkariak partziala

islatzen dutela oharturik, hirugarren gune bat proposatu dugu: komunitatearen ordezkariak zabala –muga geopolitikoetatik askea– duten guneek garrantzia handia dute, estaturik gabeko nazioetan.

5.2.1. atalean, 1975-1990 bitarteko testuinguru zabal adina bihurrian, interesgarri iduritzen zaizkigun hainbat puntu azpimarratu nahi izan ditugu. Garaiari buruzko bibliografia zabala, sakona eta zehatza dela uste dugunez, beharrik lanetan faltan sumatu ditugun ideiak nabarmendu nahi izan ditugu. Batetik (5.2.1.a.), seigarren eta zazpigarren ataletan ikergai nagusi izanzen ditugun aztergaiak testuinguru zabalean –eta elkarrekiko harremanean– aurkezteko aitzakiarekin, erakundetzearen funts gisa nabarmendu nahi izan dugu aitzineko fasearekiko egokitzapen koherentea egin beharra. Bertzetik (5.2.1.b.), 1975etik aitzinako erakundetzeak ekarri zituen egitura berrien artean, espresuki erreparatu nahi izan diogu modu sistematikoan aipatzen ez den komunitate errealtateari: gune sinbolikoari dagokiona. Gune sinbolikoko boterearen jabeak indar politiko nagusiei ihes egiteko parada eskaintzen duenez, garrantzitsua izan da, hagit, ordezkariak sinbolikoaren gune gisa deskribatu ditugun egiturek jarraitutasunean duten funtzioari erreparatzea. Izaera erreferentzialaz haratago, komunitatearekiko harremana egituraturik duen gunea izateak eta erakunde berezkoak edukitzeak, kasu, komunitateen identitate sinbolikoaren jarraitutasuna sostengatzen lagunduko lukete.

Ondoko azpiatalean, bi ordezkariak mota nagusitan banaturiko guneek euskal komunitatean izaniko presentzia zehatzaz arituko gara; 1975-1990 bitarteko kulturaren moldatze fasea erdigune izanik, euskal komunitatearen ordezkariak mugatuaren eta sinbolikoaren agerkari nagusiei behatuko diegu.

5.2.2. Jatorri anitzeko erakundetzea, gune

Euskal komunitateak, 1975etik aitzina, jasaniko erakundetzea aztertzeke hiru alderdi izan behar dira kontuan: (1) estaturik gabeko komunitateen eta estatuaren arteko harremana⁵⁷², (2) eraikuntza instituzionala osatu zuten egitura nagusien izana eta, akitzeko, (3) 1975etik aitzinako erakundetzean parte hartu zuten egitura nagusiak. Lehen bi alderdiek komunitate eta testuinguru arteko harremanaren irudirik orokorrenari

⁵⁷² Zeinetan, arestian erran gisa, estatuak komunitate gutituaren estatusa determinatu, eta mugimendu nazionalistek baldintzatzen baitute erlazio hori (Guibernau 1999).

egiten diote erreferentzia; eraikitzen hasi berria zen EAEn eta estatuaren arteko erlazioaren deskribapena laburtu ondotik, egitura nagusien botere iturria aztertze oinarri teorikoa aurkeztuko dugu. Hirugarren alderdiak, aldiz, euskal komunitateak jasaniko erakundetzearen irudi zehatzagoari erreparatzen dio: egitura jakinen parte-hartze konkretuari.

Hiru alderdi horietatik abiatuta, euskal komunitateak, 1975-1990 bitartean, jasaniko moldaketa komunitatearen bigarren behar mailari lotua izan zela ikusiko dugu; maila horren funtsa, hain zuzen ere, erakundetzea izan zen, eta prozesu hori aitzina eramane zuten egitura nagusiek eragin desberdina izan zutela nabaritutako da.

(1) Estaturik gabeko komunitatearen eta estatuaren arteko harremana

Lehenik, beraz, eratzeko hastapenean zen euskal komunitatearen eta espainiar estatuaren arteko harremanari erreparatu behar. Erakundetze prozesuak aztertze, ezinbertze abiapuntua da erreferentziatzko komunitatearen –erakundetze horren erreferentziatzko komunitatearen– izanari erreparatzea; izaera horrek, hain zuzen, erakundetze prozesua ulertzen laguntzeaz gain, garapena aldaketa nagusiagoetan kokatzen baitu.

EAEk eta NFEk estatuarekiko harremana autonomien sistema dela medio egituratu zutela azaldu dugu, testuinguruari zegokion lehen azpiatalean; egituratze nagusi horretan, erkidegoetako botere nagusietarikoak izan ziren bi egitura aipatu behar dira: hezkuntza sistema eta komunikabideak. Edozein gisatan, egitura horien jabeak EAE mailako kontrol gune garrantzitsuak eskaintzen bazuen ere, euskal komunitateak 1960tik aitzina jasan zuen garapena ulertzeko, gune sinbolikoaren existentziari erreparatu behar zaiola azaldu dugu.

Estaturik gabeko nazioen kasuetara moldatzen diren zehaztasunei dagokienez, estatu nagusi baten egiturez bertzelakoak kontrolatu beharra sortzen da: independentziaz haratagoko egiturak kontrolatu beharra. Izan ere, estaturik gabeko nazio baten kulturak irauteko ez du estatu baten beharrik; aitzitik, independentziaz gaineko bertze motatako egiturek ere kulturaren mantentzea zilegiztatu dezakete. Hizpide dugun kasuan, autonomien sistemak, printzipioz, EAEko euskal komunitatearen kultura babesteko hainbat oinarri eskaintzeko aukera eman zuen⁵⁷³.

⁵⁷³ Bertzerik da, lehen azpiatalean azaldu gisa, estatu osoan zehar komunitatez komunitate eginiko banaketa politiko-administratiboak helmuga berdintzailea –estatu barneko lurraldetasunak parekatzen zituena– izan ote zuen oinarrian. Gainera, ezin atzendu dugu Nafarroarekiko mugaren finkapena.

Kontrolatu beharreko egiturak funtsezkoak ziren, euskal erakundetze prozesuan: hezkuntzaren eta komunikabideen kontrolak⁵⁷⁴ euskal komunitatearen finkatze boterea eman zion alderdi politiko nagusiari. Hala ere, aitzina egin ahala ikusiko denez, proposatzen dugun hirugarren egituraren hausnarketak –komunitatearen ordezkaritza sinbolikoa lukeenak– egiteko garrantzitsua izan dezake politiko-administratiboki langartuak diren komunitateendako.

(2) Egituren izana

Bigarrenik, estatuaren eta estaturik gabeko euskal komunitatearen arteko harreman ofiziala kudeatzen zuen sistema identifikatua dugularik, erakundetze garapena bulkatu zuten egituren izanari erreparatu behar, laburki bederen. Horretarako, hezkuntza, komunikabideak eta ordezkaritza sinbolikoaren izana zehazteko tresna teorikoa aurkeztuko dugu, ondoko paragrafoetan.

Jon Sarasuak euskal egituren azterketa egiteko botere iturrien nondik norakoaz⁵⁷⁵ jabetzea garrantzitsua dela aldarrikatu du. Hau da, euskal komunitatearen azterketa egiteko, garrantzitsua da botere erakundetzaileen iturriari erreparatzea; izan ere, iturri horietariko baten nagusitza baita, ziur aski, euskal komunitatearen sistema instituzionalak duen, eta izan duen, ezaugarri berezituena –berezitasun horren garrantzia komunitatearen iraganeko eta etorkizuneko garapena ahalik eta hobekien ulertu eta antolatzeke balio duen neurrian zaigu adierazgarri–.

Hala, bada, botere iturrietan oinarriturik, herri bateko erakundearen sailkapena hiru multzo nagusitan bana liteke, Sarasuaren hitzetan; logika lukratibotikoak, logika administratibotikoak eta gizarte logikatik heldu direnak⁵⁷⁶:

Hiru logika-multzo desberdinetan bana ditzakegu herri bateko erakundeak. Multzo horietako bakoitzak oinarri desberdineko erakundeak sortzen dituela esan dugu gorago. Logika lukratiboak⁵⁷⁷ sortutako erakundeek jartzen dute gizarte honen eustazpia. Logika administratiboak kudeatzen ditu estatuaren sarea osatzen duten erakundeak. Eta bi logika horietatik kanpo dauden gainerako gizarte-logikek sortzen dituzte gizarte antolatuaren trama osatzen duten erakundeak. Hiru logika hauek, aldi berean, hiru botere-iturri dira. Botere-iturri ezinago asimetrikoak, jakina.

⁵⁷⁴ “eskola eta komunikabideak bere esku dituen herriak edozein hizkuntza eredu ezar dezake nahi izanez gero. Askotan pentsatu izan dut, eskola eta komunikabideak ez izana –eta, jakina, berrogei urteko diktadura beltzenaren zama itogarria, zauriaren gainean pikoak– izan zirela sabindarren iraultzaren porrotaren arrazoiak.” (Ibon Sarasola, *in* Pagola 2005: X)

⁵⁷⁵ Botere jatorriekin lotua den gune eragileen azterketa zehatza 6.1.4.a. azpiatalean egingen dugu.

⁵⁷⁶ Laburki arituko gara hiru horiez; erran berri dugunez, 6.1.4.a. azpiatalean zehaztuko baitugu horiek ondare kultural metatuaren erakundetze prozesuan izaniko eragina.

⁵⁷⁷ “Oin lukratibodun esparruan, ez dago kapital-interesetik edo bulkada lukratibo batetik euskararen garapenerako sortu den erakunderik. Berariazko eragile aktibo baino gehiago, jorratu beharreko alor moduan ikus ditzakegu: bai beren barne-funtzionamenduan euskalduntzeari begira, era bai beren diru-ekarpenei begira, erantzunkizun [*sic*] soziala deitutako horren bidez.” (Sarasua 2013: 170)

Lehen bietan bakarrik pentsatzera garamatza sistemak, eta hala dago instalatuta euskal progresian ere. Estatu bere logika administratiboarekin, eta kapitala bere diru-logikarekin. (2013: 162)

Logika horietako bakoitzaren pean, helburu eta jokamoldeak garatzen dira. Ondoko orrialdeetan ikusiko dugunez, 1975etik aitzina, euskal komunitateak berregituraketa zabal adina garrantzitsua jasan zuen egitura nagusiei zegokien logiketan.

(3) 1975etik aitzinako egiturak

Hirugarrenik, erakundetzean logika horien partekatze nagusia izan zuten egituren egoera nagusia berrikusi behar dugu, euskal komunitatearen garapenean gune izan ziren egitura zehatzen kokapenez ohartzea baita helburu. Egoeraren deskribapenak aunitz lagunduko du baliabide eta forma sinbolikoen azterketa zehatzean. 5.2. atalean eskainiaz joan garen tresna teorikoak nahiz informazioak eta horietatik interpretazioek ondoko ikerketa guneendako oinarriak ezartzen dituzte; euskal komunitatearen forma eta baliabide sinbolikoen berrinterpretazio funtzional berrizatuaren ulertze osotuaosatzen dute azpiatal honetan erranek.

(a) Hezkuntza

Hezkuntzari dagokionez, denondako hezkuntza publikoaren eragina nabarmendu behar da. Hezkuntza modu horrek, komunikabideekin batera, forma sinbolikoen barreiatze eta eratze nagusirako baldintzak sortzen ditu (Thompson 1990: 162). Hezkuntza sistemak tokian tokiko botere nagusiaren balioak, helburuak eta ideiak, modu zabalean, finkatzeko aukera eskaintzen ditu. Estatuaren balioak sostengatzeko egitura gisa sumatzeaz gain, ordea, estatuaren eta estaturik gabeko nazio barneratuen arteko kinka gune ere izan liteke. Hori dela eta, estaturik gabeko nazioen kasuan, zernahi autonomia politikodun komunitatek duen hezkuntza publikoaren oinarriak erreparatzea hagitx garrantzitsua da; bertan garatuko baita komunitatearen –gune mugatuaren, bederen– sostengu izanaren diren jende nahiz oinarritzko identitate ezaugarrien ezagutza eta haiekiko jarrera bera ere.

Euskal komunitatearen kasuan, munta handiko egitura izan zen 1975etik aitzina bilakaturiko hezkuntza sistema: euskal hiztunak kuantitatiboki gehiagotu ziren, baina, era berean, aitzinez lanean ziharduen hezkuntza ere egoera berrira egokitu behar izan zen. Hala, bada, hezkuntzaren erakundetzean bi ezaugarri dira espresuki adierazgarri: hezkuntzaren ardura jasoko zuen egitura nagusi berri baten agerrera eta egoera berriaren ondorioz sorturiko ardura sistemaren berregituraketa.

EAEko Autonomia Estatutuaren 16. artikulua unibertsitatez besteko irakaskuntza arautzeko gaitasun osoa eman zion Eusko Jurlaritzari, Konstituzioak gobernu zentralarentzat gorde zituen eskumenak izan ezik. Estatutuak adierazitakoari jarraiki, 1981eko Urtarrilean [sic] eskuratu zituen gobernu autonomikoak hezkuntza arloko eskumenak, eta ordutik aurrera, lege mailako hainbat arategi kaleratu izan dira, Estatutuak berak dioenez, hezkuntza sisteman elebitasunaren orokortze etengabeari eusteko asmoz. Gobernu autonomikoak, horrela, derrigorrezko eskolatzea amaitu eta gero, ikaslearen aldetik hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa bermatzeko neurriak hartuko zituelako konpromisoa azaltzen zen aipatu legearen 17. artikuluan. Orduan iragarritako lehen neurri biak ondokoak izan ziren: batetik, Unibertsitate Irakasle Eskoletako ikasketa plangintzaren eraberritzea, bertako ikasleen hizkuntza bien gaitasuna ziurtatzeko helburuz; eta, bestetik, hezkuntza sistemako irakasleak euskalduntzeko bitartekoak ezartzea. (Mateos 2000a: 474-475)

Erakundetze prozesua hasi arte, euskal komunitatearen botere iturri nagusia gizarte logikatik heldua zen; hori dela eta, erakundetzeak abiaraziriko prozesuan bi alderdiren erakundetzea osatu zuen hezkuntza mota nabarmendu zen: gizarte ekimenetiko ikastolek ez ezik, hezkuntza sistema publikoak ere hartu zuen euskal komunitatearen ordezkartza partzialari zegokion hezkuntzaren ardura –EAERI zegokiona, noski, eta NFEko zati batena–. Bigarrena, EAERen eraikuntza ofiziala osatu zuen aparatuen baitan kokatua zen; lehena, aldiz, ordura arte botere publiko edo administratiboaren logikaz kanpokoak, baina, prozesu berrian, EAE egituratiko laguntzak jasoko zituena eta gizarte antolatuen eremukoak.

Beraz, eremu publikoari zegokiokeen helburu nagusietariko bat, hezkuntzarena, bi botere iturri nagusietatik antolatu zen, euskal komunitatean: hezkuntza publikoa eta gizartearen ekimena oinarri zuen ikastolen sistema. Edozein gisatan, biek izan zuten botere iturri aniztasuna lortzeko abilezia; Hezkuntza Sailak bideratua zen bide publikoak gero eta gizarte ekimeneko bulkada –elkartasunean oinarrituriko babes– handiagoa lortu zuen, eta gizarte ekimenetiko laguntzari sostengu publikoa –sostengu ekonomikoa oinarri zuen babes– gaineratu zitzaion, ikastolen kasuan.

Horretaz gain, eskola publiko berriztatua abian jarri zenetik, irakasle euskaldunen gabezia izan zen arazo nagusietarikoak. “Eskola publikoetako irakasleen euskalduntzea” taulan hori islatzen dute datuek. Hala zioen Mateosek datu horiez:

Aldaketa zinez ohargarria, aintzat hartzen badugu 1976/77 ikasturtean EAEko eskola publikoetan irakaskuntza euskaraz helarazteko gai ziren irakasleen kopurua %5ean jartzen zela. Irakasleen hizkuntza gaitasun egokia ahalbidetzeaz gain, Hezkuntza Sailak mota ezberdinetako egintzak bideratu ditu urteotan zehar euskarazko irakaskuntzaren inguruan eta eskoletako eguneroko jardunean euskara txertatzeko helburuarekin; hala nola, ikasliburu eta ikus-entzunezkoak ekoiztu, edota ikastetxeetako errotulazio elebiduna arautu (ik. Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioa 1990)⁵⁷⁹. (*Ibid.*: 477)

Urtea	Irakasle euskaldunen ehunekoa
1983	% 22
1985	% 28,2
1988	% 36,6
1990	% 41,81

12. taula: Eskola publikoetako irakasleen euskalduntzea⁵⁷⁸

Agerikoaenez, hezkuntza sistemaren berriztatzeak hainbat zailtasuni egin behar izan zion aitzina: irakasle euskaldunen hornikuntzari⁵⁸⁰, egitura erakundetzailer berriarekiko harremanari eta abertzaletasunek irudikatzen zuten identitate proiektuarekiko egokitzeari, bertzeak bertze.

(b) Komunikabideak

Komunikabideei dagokienez, Guibernauk estaturik gabeko nazioen kasuak aztergai dituelarik, bi alderdi azpimarratzen ditu: “First, I study the nationalist leaders’ use of the media and their particular relation with the audience. Second, I consider the process of appropriation of and reaction to mediated nationalist messages” (1999: 109). Zehazki, batetik, hiru alderdi azpimarratzen ditu: ordura arte ez bezalako ikusgaitasuna lortzea, komunikabideek audientzia nahiz buruzagi arteko distantzia handitzea eta nazionalismo mugimenduari dimentsio berria eranstea (*ibid.*: 109-111). Bertzetik, kontuan ditu komunikabideen bidezko mezuak etengabe baloratzea, estaturik gabeko nazioek komunikabideekiko duten harremana estatuaren jarrerak determinatzea eta mezu nazionalistak barreiatzeko modu berriak sortzea (*ibid.*: 112-113).

Komunikabideei dagokienez, 1975etik aitzinako euskal panorama, orokorrean begiratuta, aitzinekoaren desberdina izan zela erran liteke. Kudeaketa berriarekin autonomia mailako irrati eta telebista kateak jarri ziren eskuragarri. Hala laburbiltzen du Sarasuak, 80ko hamarkadatik aitzina, komunikabideek jasaniko bidea:

⁵⁷⁸ Datuen iturria, Mateos 2000a: 476-477.

⁵⁷⁹ Honako erreferentzia dakar, bibliografian: Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioa, 1990, *Euskal irakaskuntza: 10 urte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

⁵⁸⁰ Tesiaren bigarren kapituluak, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan arazo honi buruzko aipatze aunitz bildu ditugu. Bertze aunitzen artean: irakasleei euskara irakatsi beharraz (egile ezezaguna, “Euskeraren aldeko erabaki aundi bat Donostiako ‘Escuela de Magisterio’ Etxean”, *Zeruko Argia*, 1963, 41: 1), andereñoen beharraz eta beren prestakuntzaz (Juan Antonio Aranburu, “Dei zoli bat”, *Anaitasuna*, 1970, 182: 1; Juan Antonio Aranburu, “Andereñoak mito?”, *ibid.*, 1970, 187: 6), euskal irakasle eskolaz (Gereño, “Bilboko euskal irakasle eskola”, *ibid.*, 1974, 271: 1, 16) eta abar.

Trazo loditan esanda, telebistan, telebista publiko baten monokultiboaren apustua egin zen. Irratian, irrati publiko bakarra egon da baldintza onetan, eta gainerako irratiak espazio partzialak betetzen baldintza eskas xamarretan. Prentsa idatzian, euskarazko prentsa idatziaren pisua gizarte-ekimeneko erakundeek hartu dute, oro har baldintza kaxkarretan. Interneten, aurreko hauek bakoitzak bere aldetik eta eragile berriek, ahal dutena egin dute. (2013: 113)

Garapen horren gibelean, autonomien sistema ondotik hasi ziren “marko politikoaren legitimazioaren inguruko eten politikoak” identifikatzen ditu, baldintzatzaile nagusi gisa; halatan, komunikabideen garapen nagusia etenaren eragin zeharkakoak baldintzatua izan dela adierazten du Sarasuak:

Eten horrek zeharka determinaturik jokatu dute gizarte-ekimeneko erakundeek eta erakunde publikoek. Bietan eragiten saiatu dira hautu politiko bietakoak, espazio bakoitzean modu desberdinetan. (*Loc. cit.*)

Are gehiago, eten nagusi horretan sumatzen du euskarazko hedabideen espazioak, hasiera-hasieratik, garatu zuen izanaz gain, bertzelako aukerak landu ez izana (*loc. cit.*).

Azkenik, hedabideen funtzioak direla eta, bi alderdi nabarmen litezke. Batetik, garaiari egokituriko forma eta ondasun sinbolikoak⁵⁸¹ barreiatzeko bide berriak eratu ziren; forma eta ondasun sinbolikoek, 1975etik aitzina, EAEn eta NFEn izaniko garapenak sortu zituen komunikabideak –HEHko autonomia maileri egokituak eta, hein batean, deszentralizatuak– garatzeko ezaugarriak. Masa-hedabideen ezaugarrien artean, Thompsonnek nabarmentzen dituenak⁵⁸²:

mass communication involves several distinct characteristics: it involves the institutionalized production and diffusion of symbolic goods; it involves an instituted break between production and reception; it involves the extension of availability of symbolic forms in time and in space; and it involves the circulation of these forms in a public domain. (1990: 103)

Bertzetik, Sarasuak hedabideek hizkuntzaren estandarizazioan, hizkeren nagusitzan, komunitatearen autoirudian eta autokonfiantzan duten funtzioa azpimarratzen du (2013: 311); gure ustez, ordea, autoirudi eta autokonfiantza horiek zein guneri begira eraikiak diren hausnartu beharko litzateke; EAEn sistemapeko egituretatik etorriak badira, adibidez, muga geografikoei dira hertsituak –telebista kateak, adibidez–. Aldiz, segidan aipagai dugun gune sinbolikoaren erreferenteak muga horietatik at litzatekeen eremu komuna eskainiko luke, une oroz.

⁵⁸¹ Ondasun sinbolikoak forma sinboliko espezifikoak dira guretako –ideia hori bera agertzen du Luis María Ortegak (2009: 16)–; espezifikotasuna da Bourdieuk “ekoizpen kulturalaren eremu” gisa identifikatzen duen eremu sozial batean ekoiztuak izatea.

⁵⁸² Garapen osaturako ikus *Ideology and Modern Culture* liburuko bortzgarren kapitulua (216.-271. or.).

(c) Ordezkaritza sinbolikoa

Ordezkaritza sinbolikoaz goiti erranez gain, euskal komunitateak, 1975-1990 bitartean, ordezkaritza horrekiko garatu zuen harremanari erreparatuko diogu, laburki; izan ere, hagitx nabaria izan zen autonomien sistemak oinarri gisa hautatu zuen komunitatearen identitate ikurra, hizkuntza, lurralde administratibo desberdinetan zatitua zela; sistema horrek gaurgero bi estatutan banaturiko komunitatearen langartzea nabarmen larritu zuen.

Langartze horren eragin nagusia zera izan zen: autonomien sistemak, euskal identitate kulturala sustraituko zuen egitura administratiboaren ordez, lurraldetasunari atxikirikoa bulkatu zuen. Poliki-poliki ikusiko dugunez, 1960tik 1975era bitarteko moldatze kultural nagusiak –gizartetiko bulkada nagusia zuenak– hizkuntzan ezarri zuen euskaldun komunitatearen identitate oinarria, baina autonomien sistemak frustratu egin zuen identitate kultural horren nagusitza osoa. Hots, euskara izan zen bai 1960-1975 bitartean gailendu ziren gizarte ekimenek, baita 1975etik aitzina partekatu behar izan ziren botere erakundetzaileen foku berriek ere, espresuki bulkatutako oinarria; alabaina, EAEn aparatutik sortutako bulkada erakundetzaileak oinarri horren onuradun gisa euskaraz mintzo zen komunitatearen alde partzial bat bakarrik sostengatzen zuen.

Hori dela eta, egoera kontraerankorrak epe motz eta luzera ondorio nagusi bana izan zuen. Batetik, euskal hiztun komunitateak erreferentzia nagusi berarekiko harreman desberdina garatu behar izan zuen, halaberrez; identitate kultureko funtsa euskara izanik ere, harenganako eskubideak diferenteki bulkatu zituzten EAEk eta NFEk. Bertzetik, egoera kontraerankor horren ondorioak gerora agertu direla uste dugu; autonomien sistemak ez zion, eta ez dio, eusten euskarari ardazturiko identitate euskaldunaren oinarriari.

5.2.2. atalean, 5.2.1.en erranak 1975-1990 bitarteko prozesuan zertan ziren laburbildu dugu. Orokorrean bada ere, erakundetzearen funtsa islatu dugu: botere iturri eta komunitate gune anitzak izan zituen prozesuak. 1960-1975 bitarteko fasean mamituz joan ziren aldaketa eta saioenganako koherentzia mantentzea ez zen lan erraza izan: gaurgero abian ziren ahaleginei –ikastolei, kasu– kontrol egitura berriak gaineratu zitzaizkien. Hezkuntza sistemak eta komunikabideek, ordea, autonomien sistemak babesten zuen gune mugatua bakarrik besarkatzen zuten. Hala, aitzineko

hamabortzaldiko moldaketan zutarria izan zenarekiko esperientzia, hain justu, bertzelako identitate mugatuak bulkatzen zituzten egituren mende gelditu zen.

Egoera horretan, segidan heldu diren bi atal nagusietan azalduko dugunez, komunitatearen errealitate sinbolikoari lotuak ziren baliabideek –literatur tradizioak–, balioztatzeak –sinbolikoa nahiz ekonomikoa; azken hau, bere ondorioengatik–, eremuek –baliabide sinbolikoen bilgune izaniko Euskal Literatur Eremua (ELE)– eta guneek –gune sinbolikoa– funtzio garrantzitsua izan zuten. Ikusiko ditugunak sobera aitzinatu nahi ez baditugu ere, erran genezake errealitate sinboliko horren hainbat alde mugarri izan zela eta bertzeren bat lausotuz joan zela.

5.2. atalean ikusi dugu erakundetzearen baldintza nagusia komunitate beharren bigarren maila izan zela, baina prozesu horren nondik norakoak autonomien sistemak finkatu zituen: egituraketa berriak ezarri zituen estatuaren eta EA Eren arteko mugen izana eta kudeaketa. Bigarren kapituluan ikusietan, kontrara, bertzelako premiak izan zirela ikusi dugu: nazio identitatearen oinarritzko duintasunaren bilatze eta berreskuratze saioa izan zen hura. Beraz, bi kapituluetan agertu ditugun behar mailak desberdinak izanik, ikusiko dugu seigarren eta zazpigarren ataletan aztertuko dugun ondareak jasan zituen prozesuak laugarren eta bortzgarren ataletan ondorioztatuz bertzelakoak izan zirela.

Erakundetze prozesuan, botere nagusia izan zuten egiturak hezkuntza eta komunikabideak izan ziren; hezkuntzaren barneko irakaskuntza ereduak –sistema publikoak eta ikastolak– botere iturri anitzetatik edaten zuten egiturak ziren. Aniztasun horrek, preseski, kultur eremuko aztergai zehatzagoen inguruan ere halakorik gertatu ote zen pentsatzera eman gaitu. Hori dela eta, espresuki landuko dugu iturri aniztasunaren ideia, 6.1.4.a. azpiatalean.

Beraz, adituen erranak ezinbertzeko laguntza izan arren, zenbaitetan, ikerketan sakon aritzeko, hainbat egokitze egin behar izan dira. Moldatze teoriko horiei eskerrak egin ahal izan ditugu, hain zuzen, ondoko atalean –baita zazpigarrenean ere– euskal komunitatearen eta ondarearen arteko harremanaren lantze zorrotzak; bertzeak bertze, 1975-1990 bitarteko testuinguruan, euskal ondareak komunitatearekiko izan zuen elkarreaginaren izaera agertu ahal izan dugu. Hurbiltze horrek lagunduko du ondare kultural berreskuratu berriak jasaniko moldaketa berriztatua EA Eren antolatze nagusiaren baitan atzematen.

Segidan, bortzgarren atalean marrazturiko egoera nagusian euskal komunitateak eta ondareak prozesu nagusia, erakundetzea, nola jasan zuten ikertuko dugu; zehazkiago, komunitatearen eta ondarearen arteko harremanari erreparatuko diogu. Izan ere, harreman horren oinarrian eta eragileetan sumatzen baita, hobekien, euskal kulturaren moldatzea nazio garapenaren bigarren fasearen eskutik garatu zela.

6. EUSKAL ONDARE KULTURALAREN MOLDATZE INSTITUZIONALAK (1975-1990)

“La cultura de una nación reclama su expresión pública, y hace surgir un simbolismo político.”

(Smith 2004 [2001]: 51)

Testuinguruaren alderdi nagusiak identifikatuak izanik, euskal ondare kulturalak 1975etik aitzina abiatutako bide zehatza lantzeari ekinen diogu, segidan. Horretarako, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana ezaugarritzen duten guneei –elkarreragina islatzen dutenei– erreparatuko diegu.

Gune nagusien aurkezpen orokorra egin ondotik (6.1.1.), krisi garaietan eraldatu ohi diren gauzapean –ondarearen eta komunitatearen arteko harremanarenak– hausnartuko ditugu: aitzinegoerarekiko –gure kasuan, 1960-1975 bitarteko fasearekiko– jarraitutasuna gauzatzeko moduak badirela ikusiko dugu (6.1.2.); komunitateek, iragan hurbilarekiko harreman horretan sor daitezkeen gertakizunetan, dinamika desberdinetaranzko norabidea duten autokontzepzioak gara ditzaketela proposatuko dugu; akitzeko, testuinguru zehatzak kultur ondarearen antolaketan behartu ahal dituen berrantolaketan artean, espresuki erreparatuko diogu eragin sistematizatzaileari –hori baita 1975-1990 bitarteko fasearen muina–. Hirugarren atalean, aldiz, ondare zati nagusi batean jarri dugu fokua –AOK–, eta, zehazki, aztergai genuen fasean gertatu zen moldaketaren izana islatzen zuten alderdiak proposatu ditugu. AOKren eta komunitatearen arteko harremanean izan zen aldaketa nagusia: birmoldatze funtzionala (3.1.1.-3.1.3.); gainera, indar antolatzaileari ere erreparatu diogu, baina hamabortzaldi hartakoari, kulturgileek izanari, espresuki (3.1.4.).

Gainera, bidenabar bederen, aipatu dugun ideia bati helduko diogu; izan ere, euskal kulturak, XX. mendean zehar, bi inflexio puntu izan zituela ohartzeak aztergai dugun moldaketaren izaera orokorraz ohartzen lagunduko digu. Orain arte, deus guti erran dugu bi saio horien arteko harremanean sumatu dugunaz. Ondoko azpiataletan, zehatzago arituko gara, inflexio horien alderatzeak azterketaren bi alderdi garrantzitsu agertzen lagunduko baitu: ikuspegi nagusiek –XX. mendearen hasieran, ikuspegi zaharrak; 1960tik aitzinakoan, ikuspegi berriak– euskal komunitatearen garapenean izan duten garrantzia nabarmenago sumatu, eta ondarearen eta komunitatearen arteko

harremana aztertzeke puntu nagusien –*continuuma*, auto kontzepzio kolektiboa eta testuingurua– erabilgarritasuna aisago atzemanen dugu.

Alabaina, alderatze hori bera baino gehiago, kultur ondareen eta komunitateen arteko harremana eragiten duten puntuak argitu nahi ditugu (6.1.1.-6.1.3.); hain zuzen, hautaturiko guneen erabilgarritasun zabalaren erakusgarri, makulu, erabiliko dugularik XX. mendearen hasierako moldaketarekiko alderatzea. Hala, bada, bi garaien arteko alderatzeak, pentsamendu nagusien eragina agertzeaz gain, frogatuko du proposatzen ditugun azterguneek garai desberdinetako kultur krisien ikerketak egiteko duten baliagarritasuna.

Gisa horretan, komunitateen eta ondareen arteko harremana aztertzeke tresnak eskuragarri jartzeaz gain, hondarreko helburu dugun euskal kasuaren ikerketa bera eskainiko dugu, pausoz pauso.

6.1. Kultur ondarearen birmoldatze funtzionala

Tesiaren bigarren kapituluan egin gisa, testuinguru nagusiari erreferentzia egin ondotik, ondare kulturalaren azterketari ekinen diogu. Horretarako, berriz ere, garaiarekiko funtzionala zen birmoldatzeari erreparatuko diogu, lehenik (6.1.), eta, segidan, ondare moldaketa nagusiaren eta komunitate garapenaren arteko harremana bilduko dugu (6.2.).

Goiti erran gisa, hondarreko mendean euskal komunitateak jasan zituen birmoldatze kultural saioak XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera artekoa eta 1960-1990 bitartekoa izan ziren. Lehen saioa aztertzea helburu ez badugu ere, alderatze orokorrak, 1975-1990 bitarteko fasea argitzeaz haratago, lehen fasearekiko lotura *continuum* gisara ulertzen lagunduko digu. Hala, 1975-1990 bitartekoa argitu nahian, bidenabar, tesian zehar aztertzen ari garen birmoldatze saioaren iturburu-kontrapuntua mendearen hasierako moldatzetik heldu zela ikusiko dugu. Beraz, bi saioen arteko alderatzea laburtuko dugun arren, tesiko aztergai nagusiaren bigarren faseari dagozkion ezaugarriak –eta horien eragin zabala– azpimarratuko ditugu, espresuki.

Ondarearen eta komunitatearen arteko harremana aztertu ahal izateko proposatzen ditugun hiru puntuak bigarren kapituluko denbora tarteaz aztertzeke ere berdin-berdin dira baliagarri; are gehiago, 1960-1975 bitarteko ondare krisia aztertzen ari ginela, erreferentzia laburrak egin dizkiegu hiru puntuei. Gure helburu nagusietarik bat, lanaren

sarreran aitortu dugunez, etorkizun hurbilean eginen ditugun ikerketetarako tresna ahalik eta gehien –eta egokienak, noski– eskaintzea izan da. Hori dela eta, 1960-1975 bitarteko kultur moldaketa zehatzean gune izaniko ondarearen –AOKren– izanari ahalik eta gehien egokituriko tresnak bildu nahi izan ditugu, bigarren kapituluan. Orain, aldiz, ondareari modu zabalagoan erreparatzeaz gain (6.1.2.-6.1.3.), zehazki 1975etik aitzinako prozesuan gertatuak aztertze alderdiak txertatu ditugu (6.1.4.).

Hala, lanabes gehiago eskaintzeaz gain, izaera zehatzagoko ondareari egokiturikoak hausnartu ahal izan ditugu.

6.1.1. Ondare krisiak aztertze bidea

Euskal kultur moldatzearen bigarren fasea aztertze, hiru ideia nagusitan oinarrituriko interpretazioa proposatzen dugu: *continuuma*, komunitatearen autokontzepzioa –autopertzepzioa funts duena– eta testuinguruaren eragina. Horietan oinarrituz –eta hondarreko mendean izan diren bi kultur moldatze nagusien antzekotasunak, hein batean, kontuan izanik–, 1975-1990 bitarteko euskal ondare krisia aztertze tresnak hurbilduko ditugu.

Halatan, garaien arteko parekotasunez gain, testuinguru bakoitzaren izaera berezitua sumatu ahal izanen dugu. Batetik, proposaturiko alderdiak ondare krisi nagusietan balizko parekotasunak eta aldeak sumatzeko izanen dira baliagarri; bertetik, parekotasun horiek saio eta fase desberdinen artean ezartzen duten lotura –jarraitutasuna– nabarmenduko dugu; azkenik, aitzinez azaldiriko ideia horiek baliatuz, ikuspegi bateratu behinena eskuratuko dugu: bai 1975-1990 bitarteko fase moldaketa, baita lehen fasean gauzatua ere, aunitzez modu zehatzagoan ulertzeko ikuspuntua.

Proposatzen ditugun hiru alderdiak zeinahi komunitateren eta ondarearen arteko harremana zehazteko, hausnartzeko eta aztertze puntu nagusiak dira; zehazkiago, ezinbertzeak dira harreman horretan aldaketa nagusia nabaria den garaien azterketarako. Hori dela eta, horietariko bakoitzak, modu orokorrean, komunitateen eta ondarearen arteko harremanak aztertzen lagun badezake ere, hiruren interpretatze bateratuak eskainiko du deskribapenik osatuena. Gainera, euskal komunitatearen kasu zehatza aztertze bidea ere bada, 1975-1990 bitartean bizirik ondare krisia agertzeko baliagarria baita proposaturiko ibilbidea.

- **Continuuma**

Komunitateen ondare krisiak lantzeko behatu beharreko lehen alderdia *continuum* edo jarraitutasuna da; hots, komunitateen existentziaren oinarrian izaten den gisa desberdinetako *continuum*a.

Lanean zehar sarri aipatu izanak berak agertzen du, urrutira gabe, ideia honek duen garrantzia. Komunitateen eta prozesuen garapena beti gertatzen da *continuum*aren baitan. Alabaina, ikuspegi horren baliagarritasun zehatza azpimarratu nahiko genuke; erran nahi baita, *continuum*aren ideiak komunitateen ibilbidea ulertzen laguntzen badu ere, modu berezitan izan dela interesgarria, tesi honen gauzatzeko: 1960-1990 bitarteko kultur moldaketaren jatorri nagusietarikoa identifikatzeko, ezinbertzekoa izan da XX. mendearen hasierako kultur saioaren izana nahiz harekiko harremana ulertzea⁵⁸³. Bi saioen arteko loturak erakusten du euskal *continuum*aren oinarrian, bitarte horretan bederen, kultur fluxua izan zela. Alegia, Aro Ilunean zeharreko iraunaldian oinarritzko jarraitutasuna mantendu zelarik, saio nagusi bien arteko hariari eutsi egin zitzaion; eta, beraz, lehen saioaren oihartzunak *continuum*aren segidarako sostengu izan ziren.

Tesiaren hirugarren kapituluak aitzina egin ahala, jarraitutasun etengabearen ideiak agerraraziko du bigarren saioaren zutarrak lehenaren kontraposizioan garatu zirela; zehazkiago, segidan hizpide dugun autokontzepzioaren ideiak 6.1.3. atalean aztertuko diren ideia nagusietarako oinarria eskainiko du: lehen saioan garaturiko komunitatearen kontzepzioa –nahiz haren eragile zen ikuspegi zaharra– 60ko hamarkadatik aitzina garaturiko pertzepzioaren kontraposizioa izan zela ohartuko gara.

- **Autokontzepzio kolektiboa**⁵⁸⁴

Ondarearen eta komunitatearen arteko harremanean ondorio eta eragile, aldi berean, denari erreparatzea proposatzen dugu: komunitateak bere buruaz duen pertzepzioari. Irudi kolektibo horrek komunitatea maila guzietan eragiten duen gisa

⁵⁸³ Bigarren kapituluan, ikuspegi zaharraz (2.2.2.) eta haren kontrako jarreraz aritu gara (4.1.3.). Zazpigarren atalean ere agertuko da gibela begiratu behar hori, 70eko hamarkadaren bigarren erdian pizturiko abangoardiek aitzinsaio hura izan baitzuten euskal literatur tradizio “berria” eraikitzeke erreferentzia nagusi. Haatik, literatur tradizioaren proposamen bakoitzak modu aski desberdinean behatu zion erreferentziari (7.2.).

⁵⁸⁴ Tesian, bi modutara islatuko da autokontzepzio kolektiboa. Batetik, ondare krisiak aztertzeke bertze alderdiekin elkarreraginean, adierarik teorikoena eskaini dugu, seigarren atalean. Bertzetik, testuinguru zehatzak aztertzeke ere ekarri dugu hizpidera, beharrek hala eskatu dutenean: bigarren kapituluan, duintasun oinarritzkoaren lorpenak autokontzepzio kolektiboan izan zuen eraginaz aritu gara (2.2.2.); hirugarrenean, 1975etik aitzinako fasean izan zituen ondorioez arituko gara (6.1.3.).

berean, maila guziek eragiten dute kontzepzioa bera. Are gehiago, bigarren alderdi hau hagitz baliagarria da, garaiz garai, ondareen eta komunitateen arteko harremanean, zein funtzio harreman –baldin bada, bederen– ezarri eta finkatzen den aztertzeko. Ondarearen eta komunitatearen artean ezar daitezkeen funtzio horiek ematen dute oinarritzko harreman patroien berri: garai desberdinetako komunitate pertzepzioek modu aunitzetan biderarazten baitute kultur ondarearen erabilera.

Euskal komunitatearen kasuan, ondareen krisia aztertzeko proposatzen dugun bigarren ideia aitzinekoaren eskutik heldu da; *continuum*aren ikuspegiak ahalbidetu duen kontzientziatik, preseski. Hau da, XIX. mendearen akierako eta XX. mendearen hasierako ikuspegi aranistaren eraginez gorpuztu zen 1960tik aitzinera moldatzen hasitako autokontzepzioa. 1975-1990 bitarteko kultur moldatzea indartu zuen guneetarik bat izan zen, zalantzarik gabe, ikuspegi zaharraren kontrako –erlijio katolikoan, euskaltasunean eta landan oinarrituriko hautemateak bulkaturiko ikuspegiaren kontrako⁵⁸⁵– jarrera.

Hala, bada, euskal komunitatearen autokontzepzio zaharra eta berria bana litezke: XIX. mendearen akieran eta XX. mendearen hasieran ondua eta 1960tik aitzina gorpuztuz joan zena.

- **Testuinguru soziohistorikoa**⁵⁸⁶

Azkenik, testuinguruari ere erreparatu behar. Egoera soziohistorikoez ematen dute aldaketetako komunitateen, ondareen eta aztarnen arteko harremanaren berri, eragileen nahiz intentsitate ez tandem ikuspegi orokorra ematen baitute. Hortaz, hagitz garrantzitsua izanen da ondareen eta komunitateen artekoak testuinguru zehatzetan behatzea; ezen, moldaketa zehatzen kasuistika ulertzeko oinarritzko abiapuntu izateaz gain, testuingurua ezinbertzekoa da aldaketa horiek sare zabalagoak eragiten dituzten moldaketen baitan sumatu ahal izateko.

⁵⁸⁵ “[...] gerra aurreko garbizaletasuna euskaldungotik ezabatu zuena, gerra ondorengo abertzaletasun berria izan zen. Zehazkiago, belaunaldi horren alderdi kulturalki erradikalena, [...] Anaitasuna [*sic*] aldizkariaren inguruan bildu zena. Talde horrentzat euskara batua ezartzeak hizkuntza-iraultza bat eskatzen zuen. Gerra aurreko “garbizalekeria” suntsitzea iraultza horren alderdi nagusietakoa zen.” (I. Sarasola, *in* Pagola 2005: X)

⁵⁸⁶ Ondare krisiak aztertzeko alderdi hau, testuinguruari dagokiona, lan guzian zehar aipatu dugu, eta aipatuko dugu; izan ere, testuinguruak baldintzatzen baitu komunitateetako kultur ondare ororen zernahi eta nolanhiko azterketa. Zabaltasun horretaz oharturik, testuinguruak ondarearen eta komunitatearen arteko harremanean eragiteko duen gaitasun zehatz bati egin diogu erreferentzia, 6.1.4. atalean: eragin sistematizatzaileari.

Euskal komunitatearen kasuan, aldaketa handiak gertatuak ziren, bi saioetako errealitate sozialean. Lehenean, industrializazioaren eskutiko aldaketek gizarte estratu berriak sortu, eta gizarte taldeen arteko antolaketa eta behar berriak ekarri zituzten⁵⁸⁷; landaz kanpo, industrialde eta hirien inguruan finkaturiko langileriaren presentziak erakutsi zuen euskal errealitatea aldatzen ari zela. Bigarren saioan, diktaduraren kontra heldu zen solidaritatea zabalduz joan zen: estatu mailan, erregimenaren kontrako jarrera zabaldua ez ezik, egoera errepresiboetan ziren herrialdeekiko solidaritatea ernatu zen; horregatik, nazioarteko eraginak tokian tokiko egoera soziopolitikoaren baitan irakurri ziren⁵⁸⁸.

1975etik aitzinako prozesuak lehen fasean aitzinatuari egitura politiko-administratibo berria gaineratu zion, eta hondarreko honek euskal kulturak proiektu berrian zukeen maila guziz aldarazi zuen: euskal kulturak sistema integratuaren izaera bereganatzeko “baimenak”⁵⁸⁹ eskuratu, eta azpisistema osagarrien antolakuntza abiatu zuen. Hain justu, 1975etik aitzinako ondarearen eta komunitatearen arteko harremanean erakundetzea gune izan zenez, espresuki erreparatuko diogu, 6.1.4. atalean, testuinguruaren eragin sistematizatzaileari.

6.1.1. atalean, *continuum*a, autokontzepzio kolektiboa eta testuinguru aurkeztu ditugu, komunitate baten ondare kulturalaren krisiak aztertze oinarritzeko puntu gisa, eta testuinguruak ondarearen izana –sistamarantzako bihurtzea eman dugu aditzera, zehazki– guziz eraldatzeko ahalbidea eman dezakeela gaineratu dugu. Erranikoen osagarri, bidenabar, euskal komunitatearen hondarreko bi kultur moldaketa nagusiak aipatu ditugu, adibide gisa.

Ondoko azpiataletan, euskal komunitatearen bi kultur moldatze saioekiko harremanean, xehekiago, aztertuko ditugu hiru alderdiok: *continuum*aren presentzia

⁵⁸⁷ Orain guti, Álvarez Juncos –1898ko Espainia pesimista, 1914 inguruan, Europa zale izatera aldatzeko zer gertatu zen galdetu ziotenean– zera adierazi zuen: “Pasó la guerra y la llegada de generaciones jóvenes. El proceso de industrialización, de urbanización, de alfabetización, de modernización, se desata a partir del 98. La idea de que hay que modernizarse, hacerse europeos, de que hay que cambiar muchas cosas, empieza a entrar en las conciencias después de la Primera Guerra Mundial. La economía española, entre 1900 y 1930, se transforma de una manera radical como consecuencia de las políticas regeneracionistas. Se construyen escuelas, carreteras; se regenera la Armada... Todos están de acuerdo en que hay que regenerar el país, en que España no puede seguir siendo tan rara dentro de Europa, pero éramos un país bastante normal dentro del continente, muy parecido a Italia, a Grecia, a Ucrania, a Polonia...” (Álvarez 2014, Tomás Val Sáez-ek *Mercurion* eginiko elkarrizketa).

⁵⁸⁸ Oroitu, horri buruz, 4.2.1.eko a.2. azpiatalean (“Testuinguru zabaldua ardaztuz”) errana.

⁵⁸⁹ Bortzgarren atalean aipatu ditugun eskuordetze ofiziala eta onarpen kulturala estatuak, legeen bidez, eskuetsi zituen ahalmenekin bat heldu ziren.

(6.1.2.), autokontzepzio kolektiboa (6.1.3.) eta testuinguruaren eragina (6.1.4.). Horietan erranek 1975-1990 bitarteko moldaketan parte hartu zuten forma eta baliabide sinboliko zehatzak testuinguru zabalean kokatzen lagunduko dute. Akitzeko, alderdien ulertze bateratua laburtu dugu (6.2.).

6.1.2. *Continuum*aren presentzia

Komunitateek modu batera baino gehiagotara euts diezaiokete beren iraupenari; zenbaitetan, testuinguruak hala beharturik edota bertzelako arrazoiengatik, komunitatearen biziraupena gailendu egiten da, jarraitutasunaren oinarritzko molde gisa; bertzetan, ordea, iraupen soilaz haratagoko jarraipena gertatzen da: garai berrietara moldatu ahal izateko kreatibitatea duena, alegia.

Kasuistika horren eragina komunitateen garapenean –eta, bereziki, estaturik gabekoen kasuan– hagitx garrantzitsua dela sumaturik, *continuum* nagusien abstrakzioa eskainiko dugu: (1) mantentze *continuuma*, (2) *continuum* iraultzailea eta (3) *continuum* normalizatua aurkeztuko ditugu. Errealitatean agerraldi pururik izatea zaila bada ere, erranek bi aldetatik lagungarri izatea dute helburu: batetik, lagungarri izanen dira euskal komunitatearen XIX. mendearen akieratik hizpide dugun kultur moldaketa modernorainoko jarraitutasunaren aztarnak sumatu eta interpretatzeko; bertzetik, proposatzen dugun eskema nagusia bertze komunitateen azterketarako baliagarria izan daitekeela uste dugu. Gisa horretan, tesian zehar proposatu ditugun bertze hainbat ideia multzorekin batera, komunitate zehatzaren azterketaz haratagoko erabilgarritasuna duen abstrakzioa aurkezten saiatu gara.

(1) Mantentze *continuuma*: “antzia”

Mantentze *continuum*etan gailentzen den bulkada ez da kreatzailea, “antzia” baizik. Erran nahi baita, komunitateen jarraidura iraupenean oinarritua denetan, nekez sor daitekeela aritu kreatibo aitzinatzaileak. Gabezia horrek komunitatearen aitzinerako garapena eten egiten du, eta garai berrietara moldatzeko antzu bihurtu –zentzu horretan deritzo “antzu”–. Egoera horren luzapenak duen arriskurik nabariena immobilismoa da; dela komunitateaz kanpoko testuinguruak hala beharturik, dela komunitateari soilik dagozkion arrazoiengatik, komunitatea ez aitzina ez gibela mantentzen du egoera honek. Beraz, komunitateak existitzeko duen funtzionamenduan aldaketarik izan ezean, egoerak komunitate dinamika fosildu, eta talde izaera berezitua biltzen dituzten oinarriak akitzera eramán ditzake.

Halako *continuumean* pausatua zen euskal komunitatea, Gerra ondoko aldi luzean. Horrek estatismoa ekarri zuen, eta 60etako belaunaldi gazteenek ere hala sumatu zuten beren aitzinbelaunaldien⁵⁹⁰ bidea:

Hemen ageri da nabarmenki oraingo gaztearen ezin egona ta zalantza. Konturatu baida, bere zer egin haundiatzaz, ta pasatako generazioen gelditasunaren aurrean aurkiturik, ezin bere errebeldi bortitza disimulatu. (Rafa Egiguren, “Gazteria 66”, “Hemen, gazteagoak” azpiatala, 1966, 198: 7).

Jarraidura horren oinarriak, iduri lukeenaren kontra, ez ziren frankismoaren ondorio bakarrik izan; kreatibitate aitzinatzailearen gabezia ikuspegi zaharraren baitako pentsamendu aranistak, XIX. mendearen akieratik, abiatutako pentsamendua zuen bertze eragile nagusia. Pentsamendu hark euskal komunitatea bere baitara hertsitzen zuen, komunitateari “irtenbide” gisa hizkuntza⁵⁹¹ eta ideologia lege kamutsak⁵⁹² eskaintzen zizkiolarik.

Hortaz, Aro Ilunean zehar –errepresiopean– eremu pribatuan, ezkutaturiko jarduna erakusgarri ilun bakarrenetarikoa izanik, diktadurak eta XIX. mendearen akieran abiatutako euskal pentsaerak arnagune aitzinatzaile guti utzi zizkioten euskal kulturari:

Francok ez zuen lortu erabat itzaltzea euskal irakaskuntzaren aldeko sua. Txikitu edo arindu, bai; ez, ordea, guztiz amatatu, frankismoan zehar sugar ezberdinak piztu baitziren Euskal Herrian, euskara eta euskal hezkuntza bultzatzeko asmoz. Erbestean zeudenak, Ipar Euskal Herrian babestu zirenak eta Hego Euskal Herrian, bereziki elizaren aterpean bildutakoak izan ziren argizaria bizirik mantendu zutenak. Handiagoak batzuk, txikiagoak besteak; baina sua pizturik mantentzeko, baliagarriak guztiak. Izan ere, herritar askoren artean oso zabalduta baitzegoen zerbeit egin behar zegoen ustea, euskarak eta euskal hezkuntzak bizirik iraungo bazuten. (Iza 2010: 22)

Bataren errepresioak eta bertzearen barne-hertsitzeak bizi irautera estutu zuten euskal kultura; iraute horren garrantzia, ordea, berebizikoa izan zen: “Saio horiek [...] ez zuten koordinaziorik edo loturarik izan elkarren artean. Saioak berak irautea nahikoa zen” (*loc. cit.*).

⁵⁹⁰ 60etako aldizkarietan nabarmendu zen belaunaldien arteko kinka agertzeko moduak, zenbaitetan, aditzera ematen du gazteen aitzinbelaunaldia estatiko gisa atzeman zela; hau da, aitzinbelaunaldia mantentze *continuumean* zela: “Geure zaharren konformismoari buruz, ba’ dabilzkit zenbait pentsakizun” (Imanol Landeta, “Konformistak edo...”, “Gazte naiz” atala, 1967, 215: 7).

⁵⁹¹ “Dena dela, eta 1970 inguruko urteetan *Anaitasunako* orrialdean behin baino gehiagotan kontrakoa esan bazitzaigun ere, sabindarren hizkuntza-iraultza ez zen izan munduaren historian bakarturik agertzen den aberrazio bat. Aitzitik, sabindarren garbizaletasuna, garai bertsuan edo lehenxeago Europako hainbat herritan –eta Kemal Atatürk-en Turkian– abertzaletasunaren pizte edo berpiztearekin batera gertatu ziren eraberritzeen bidetik doa, eta ez da inondik ere itxuragabeena. Hor dugu, esaterako, Estonian Aavik-en lana, estoniera morfologian nahiz hiztegian sakon itxuraldatu zuena. Aavikek horretarako erabili zituen bideen aldean Aranarenek ia eskolome baten saioak dirudite.” (I. Sarasola, *in* Pagola 2005: IX-X)

⁵⁹² “Arraza” kontzeptuak bere lanetan izan zuen zama gune kamuts nagusietarikoa izan zen. “Arraza” terminoak bere idatzietan zuen erranahiaz ikus, aunitzen artean, Paulo Iztuetaren “Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean” (*in* Euskaltzaindia 2004: 35-116).

Continuum mota hori gailentzen den garaietan, beraz, bizirautea bera garrantzitsua izaten da, batetik; bertzetik, zubi lanek laguntza handia ematen diote, iraute lan horren garapenean, jarraitutasunaren izana aldatu ahal izateko ahalmenari. Hala ulertzen du Izak Elbira Zipitriaren lana:

Elbira Zipitriak bultzaturiko etxe eskolen ekarpenik handiena: gerraren aurreko euskal eskolen tradizioa berreskuratzea eta gerraren aurreko saioak eta 60ko hamarkadan sorturiko eredu berriak harremanetan jarri zituen. Bien arteko zubia, gaur egungo ikastolen kimua, Zipitria eta etxe eskolak izan ziren. (*Ibid.*: 29)

Zipitriaren ekimenaren gisakoek, iragan emankorraren eta orainaldiko irautearen arteko jarraitutasun ahula hauspotzeaz gain, etorkizuneko proiektzioa kontuan hartu izana dute beren arrakastaren eta indarraren iturri nagusi; izan ere, etorkizunean, iraute soilaz haratago, jarraitutasun dinamikorako pausoak aitzinatu ahal izateko ahalbideak biderkatzen dituzte –60ko hamarkadan, Aro Ilunaren hondarreko hamarkadan, izaniko hainbat ariturekin gertatu gisa–.

Zernahi gisaz, mantentze *continuum*etan, funtzio teoriko nagusia duten bilketa lan eta ekimen guti batzuen nahiaz haratago, deus guti egin ezina logikoa da⁵⁹³. Hala, bada, euskal komunitateak –Aro Ilunean biziriko egoera dela eta– kreatibitate aitzinatzaileko eskubideak errotik urratuak izaki, hondarreko hamabortz urteak arte kasik hedapenik gabeko *continuum*a izan zuela erran liteke⁵⁹⁴.

Alta, ezin ahantz liteke iraupen *continuum*a bera dela ekarri; izan ere, ondoko garaietan mantentze hori erabilgarri bihur daiteke komunitateendako, euskal komunitateari 60ko hamarkadatik aitzinako kultur moldaketan gertatu gisa.

(2) *Continuum* iraultzailea: belaunaldien arteko kinka jarraitua

Euskal komunitateak 60ko hamarkadan abiatutako bidea deskribatu beharrak behartu gaitu, nagusiki, jarraitutasun mota hau zehaztera; izan ere, 1960-1975 bitartean komunitateak izan zuen *continuum*a Aro Ilunaren aitzineko urteetakoaz bertzelakoa izan zen. Berebiziko garrantzia izan zuen dinamika aldaketa gertatu zelarik, komunitate

⁵⁹³ *Jakin* aldizkaria dela eta, Izak berak: “Gisa honetako ekintza solteak, ordea, etsipenaren basamortu hartan, itxaropen izpiak ziren ilunpean zeuden euskaltzale askorentzat; aldi berean, XX. mendearen hasierako Euskal Pizkundearen bidea XX. mendearen erdiko urteetan etenik gabe jarraitzeko ahalegina bazen” (2010: 35).

⁵⁹⁴ Sarasuak hedapen horren bertze aldean marrazten du: “Euskararen komunitatearen ondarea, hedapenean hain kaxkar, beste dimentsio batzuetan da aberatsagoa, iraupenezko ondarean, erresistentziatzko ondarean, porrotezko ondarean, liseriketazko ondarean. Beste posizio existenzial bat izan du mendetan. Bere kokamodu existenzialari bestelako etika dario partzialki. Beste emozionalitate edo gogo-aldarte multzo bat sortzen da, eta iturri batzuk, eta sorkuntza bat. Beste mundu zati bat sortzen du” (2013: 39).

jarraitutasunak hizpide diren atal honetan ere, kanbiamendu hori islatzeko beharra sumatu dugu.

Continuum mota honetan bada, beraz, aitzinekoak ez duen mugikortasunik; bai komunitateko, bai testuinguru zabalagoari dagokion, aldakortasun giroaren gailentzea irudika liteke. Hau da, gakoa komunitatean aldaketak gertatu ahal izateko mugimendua gertatzea da. Hala, bada, mugimendu horren jasailea komunitatea izan arren, eragile nagusia komunitateaz kanpokoak izan daiteke, *continuum* iraultzaileak aditzera ematen duen komunitate dinamikan.

Euskal komunitateak 1960-1990 bitartean jasaniko moldatze kultural nagusia hizpide harturik, *continuum* iraultzailearen kasuistikan koka daitezkeen bi aldi bereiz litezke. Batetik, 1960-1975 bitartean gertaturiko belaunaldi kinka; urte pizgarria horietan, belaunaldi berriaren helmuga nagusiak –aldaketa zabalagoen ardaztea izan zirenak– Gerra aitzinetik finkatu ziren ikuspegi zaharra eta euskaltasunaren kontzepzioa izan ziren. Bertzetik, 1975-1990 bitarteko belaunaldi eztabaida bikoitza aipa liteke. Gaurgero errana dugu 1975etik aitzinako fasearen oinarria 60ko hamarkadan hasi zela eraikitzen; halatan, 1975etik aitzinako belaunaldi berrienak borroka jomuga bikoitza izan zuen: Gerra aitzinetik finkatu zen pentsamendu gibelarazleari kontra egiteaz gain, 1960-1975 bitarteko saioek lortu ez zuten “autonomia” –nahiz autonomia gabezia horren zutarriak– borrokatu zituen.

(3) *Continuum* normalizatua: kinka iraultzaile nagusirik gabekoaldiak

Arestian aipaturiko belaunaldi kinka iraultzaileen gisakorik gabea, bi alderdi altxatzen ditu *continuum* normalizatuak. Batetik, komunitatearen mantentze-egokitze oreka dinamikoa izatea gerta liteke; baina, bertzalde, erosotasunean oinarrituriko geldialdi aroak ere gara litezke, *continuum* molde honen barrenean. Finkatzearen izanak ematen du batetik bertzerako jauzia: lehenaren kasuan, komunitate dinamikan mantentze eta egokitzea orekatzen duten barne-arau antolatzaileak izan litezke oreka horren finkatzea bermatzen dutenak; bigarren kasuan, aldiz, finkatzearen oinarrian diren barne-legeek errepikapen ez kreatiboa, komunitatearen proiektioari erreparatzen ez dion errepikapen hutsa, bulka dezakete, komunitate dinamikan.

Egoki iritzi diogu, tesian aztergai ditugun muga kronologikoetatik at izan arren, euskal komunitateari dagokion adibidea hurbiltzea, 90eko hamarkadatik aitzinako aroari, laburki berderen, erreparatzea. Komunitateak, preseski, halako geldialdi aroa bizi du 90eko hamarkadatik gaur arteko bidean. Lanean aitzina egin ahala, gero eta

nabariago sumatu dugu 1975-1990 bitarteko erakundetze kulturalak egituratze berri baten premia duela. Hori dela eta, batetik, erakundetze horren hausnarketa kritikoa egin beharko genuke; iraganari behatu, garai berrietara nahi gisa egokitzeko. Bertzetik, etorkizunean sor litezkeen egoerak aurreikusi, eta horien araberako proiektzioa irudikatuko duen komunitate egitura eta proiektu kultural gidatzailea garatu beharko ditugu, muga geopolitikoek haraindiko komunitate gidaritzan.

Eremu nagusi bera partekatzen duten azpieremuek, garai berean, egoera diferentea jasan dezakete, ordea. Hala deskribatzen du Sarasuak gizarte-ekimeneko euskalgintzak, 1997 aldera, zuen egoera:

Euskalgintzako erakundeak ez ziren EGE [Euskararen Gizarte Erakunde] moduan bisualizatuak ere gizartean. Bakoitza bere aldetik zebilen. Ez zegoen diskurtso eraginkor bat euskararen norabideaz. Ez zegoen kohesiorik euskalgintzako gizarte-erakundeen artean. Botere-kontrabotere lehiak bakoitza bere modura ukitzen zuen, eta grabitate-indar politiko desberdinen artean jardun behar zuten euskalgintzako erakundeek. Oroz gainetik, euskalgintzaren arloetan (hedabide espazioa, euskalduntze-alfabetatzea, kulturgintza, unibertsitate proiektua...) ez zegoen arnas luzeko estrategia bateratuak mamitzeko ez baldintzarik eta ez gunerik ere. (2013: 176)

6.1.2. atalean egin gisa, komunitateek jasaten dituzten *continuumen* modu idealei erreparatu ondotik, komeni da komunitatearen eta ondarearen arteko harremana egituratzen duten bertze alderdiekin lotura hausnartzea; erraterako, *continuumaren* moldeak hertsiki lotuak baitira komunitateen autokontzepzio kolektiboari.

Kontzepzio horren izanak, ikusiko dugunez, guziz baldintzatzen du komunitateak garatzen duen *continuum* moldea: *continuum* iraultzaileen edo normalizatuen gibelean, kasu, ezinbertzekoa da *eragin aitzinatzaileen⁵⁹⁵ oinarrituriko autokontzepzioaren jabe izatea; harreman eragile horrek zaharraren eta berriaren nahiz jabetuaren eta jabetzeko denaren arteko oreka aitzinatzaile dinamikoak ziurtatzen baititu⁵⁹⁶.

Jon Sarasuak “jarraidura eta irekiduraren arteko oreka dinamikoa” aipatzen du hiztun komunitateen oinarritzko behar gisa (2013: 129, 133, 135). Hori gertatzeko baldintzak ulertu ahal izateko, ondoko azpiatalean lantzen dugun alderdiari erreparatu behar zaio (6.1.3.): autokontzepzio kolektibo aitzinatzaileak jarraidurari eusteaz gain, testuinguru berrietara moldatu ahal izateko irekidura bermatzen du. Aldiz, mantentze

⁵⁹⁵ Ikus A eranskineko “Eraginak: eragin aitzinatzailea eta eragin gibelatzailea” sarrera.

⁵⁹⁶ “Jarraidura huts dena, ez da jarraidura, berehala da fosiltzen. Irekidura huts dena, ez da irekidura, atoa da besterentzen, alienatzen. Hiztun komunitate baten bizi-ariketa biak txirikordatzea da.” (Sarasua: 133)

continuumean, moldatze gaitasun hori gabe, oinarritzko jarraitutasunaren haria mantentzen da, bakarrik.

Hain zuzen ere, euskal komunitateak, 1975etik aitzina biziriko aldaketan, jarraiduraren eta irekitasunaren artean lorturiko orekak ahalbidetu zuen 6.1.4. puntuan solasgai izanen dugun prozesua: ondarearen birmoldatze funtzionala EKSren antolaketan eta egituraketan oinarritu zenez, ezinbertzekoa izan zen, garai berrietara egokitu ahal izateko, aldaketaren eta mantentzearen arteko oreka dinamikoa.

6.1.3. Autokontzepzio kolektiboaren funtzio nagusiak, nazio garapenean

Sarri aipatu dugu, lanean zehar, iraganak zama handia izan duela euskal komunitatearen garapenean; dela denbora horren interpretazio interesatuak, dela kateatze emozionalak⁵⁹⁷ nahiz bertzelako erabilera berezituak, iragan denborak komunitatearen garapenean izaniko eragina erakusten dute. Komunitateen errealitate presentea, ordea, ez da iraganeko denborak soilik baldintzatua izaten; kontrara, etorkizuna ere hagitx adierazgarria izaten da.

Atal honetan ikusiko dugunez, komunitateen bideak bai iraganak, bai etorkizunak, baldintzatuak izaten dira; gisa desberdinetan, ordea. Komunitateko denbora erreferentzien aldakortasuna autokontzepzioaren azterketan azaleratzen da, bertzeak bertze; hori dela eta, komunitateen eta ondareen arteko harremanaren ikerketarako proposatu dugun bigarren alderdi honek azaleratzen ditu komunitate batek orainalditik iraganarekiko eta etorkizunarekiko bizi dituen oinarritzko tentsioak. Iraganak komunitatearendako oinarria –erreferentziazko garaia– eskaini dezakeen gisa, etorkizun irudikatuak⁵⁹⁸ komunitatearen plangintza nahiz asmoak bidera baititzake.

Bi denbora erreferentzia horiek komunitateak ondarearenganako dituen asmoak eta egokitzen dizkion funtzio nahiz moduak moldatzen dituztela ikusiko dugu.

Autokontzepzio kolektiboaren azalpen orokorra eginaz hasiko gara; hartara, berau egituratzen duten bi eragileak aurkeztu ondotik (6.1.3.a.), horien izanak sortzen dituen eragite moduak argiago deskribatu ahal izanen ditugu (6.1.3.b.).

⁵⁹⁷ Oroitu kateatze horri buruz “5.1.1.b. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremana: legeen aitzin eta gibeletik zer?” azpiatalean errana.

⁵⁹⁸ Emilio Lamo de Espinosa-k “etorkizun birtual” ideia aipatzen du, bere lanetan (2001: 10; *in* Bustos 1996).

6.1.3.a. Eragile nagusiak

Euskal komunitateak hondarreko mendean izaniko bi birmoldatzeak aztertuz, nazioak garai horietan izan duen komunitate ideia bi ardatz nagusirekiko mendekotasunean eraikia izan dela ohartu gara: sentitze eta ikuspegi banarekiko. Hau da, garaian garaiko egoera, pentsaera eta helburuak arrunt desberdinak izanagatik, bi eragilek baldintzatu zituzten komunitateak bere “buru kolektiboaz” –kolektibitateaz– garaturiko ideiak: duintasun sentimenak eta komunitatea etorkizunean irudikatze proiekzioak bideratu dituzte, hein handi batean, euskal komunitateak XIX. mendearen akieratik 1990era bitarte garatu dituen kolektibitate irudikatze nagusiak.

Duintasuna

Kolektibitatearen izana bera, existentzia, argudiatzeko oinarrizko sentimenduekin lotua da. Nagusiki, iragan denborarekin erlazionatua dela pentsa liteke, komunitateen oinarriak iraganean bilatu ohi baitira; alabaina, errana dugun gisa (2.2.2., “Denbora”), komunitate duintasunak bi aurpegi besarkatzen ditu. Batetik, komunitatearen zimenduak eta oinarrizko bulkadak iraganaren ezagutza nahiz erabileran oinarri litezke; bertetik, horien ondoko prozesuei behatu behar zaie. Horien artean, erraterako, hondarreko mendearen erdian munduan zeharreko komunitateen artean gailendu den duintze prozesu nagusietarikoa aipa liteke: erakundetzea. Egun, mundu globalizatuaren funtzionamendupeko herrialdeetan, erakundetzea bihurtu da komunitateen duintasun garaikidearen ikur, eta, ondorioz, baita behar behinena ere.

Euskal komunitatearen kasuan –beti ere hizpide ditugun kulturaren moldatze saio biak kontuan ditugula–, garai bakoitzean duintasunaren ulerkuntza eta erabilera desberdinak izan ziren arren, berebiziko garrantzia izan zuen momentuko irizpide hobetsien araberrako duintasun berezitu horren lorpenak; izan ere, euskal nazioko partaideek kolektibitateaz zuten ideiarekin garapenari arrunt atxikia izan baitzen duintasunaren lorpena, bai XX. mendearen hasieran, baita 1960-1990 bitarteko eraldatze nagusian ere. Duintasunak kolektibitatearen ideia eragin zuen gisa, bien harremanak –norabide anitzeko interakzioak– garai bakoitzean ezarritako helburuak baldintzatu zituen.

Proiektzioa

Kolektibitateak bere izana testuinguruarekiko funtzionalitatean mantentzea ahalbidetuko lukeen ikuspegia da proiektzioa⁵⁹⁹; bere adierarik osotuenean, etorkizuneko existentzia laguntzeko oinarritzko ideia multzoaz gain, horren lorpenari egokituriko plangintza ere bilduko lukeena⁶⁰⁰. Nolabait erratearren, komunitatea etorkizunean irudikatze horrek berekin dakar komunitatearen oraina etorkizunean pentsatzeko eta aitzina eramateko, printzipioz, behar litzatekeen plangintzarako oinarria –eta, beraz, ahal den neurrian, ekimenak– abian jartzea: komunitatearen etorkizun irudikatuak kontuan izanik abiatzen den –ez bada, ez den– garapena. Plangintza edo aitzinirudikatze horien gabezia izan liteke egungo komunitateen etorkizuneko existentziak zapuz ditzakeena.

Proiektzioaren iturburu izan daitezkeen komunitatekideen esku-hartzei ere erreparatu beharko zaie.

Bi eragile horien arteko elkarreraginari modu zabalean behatzen bazaie, ohartuko gara garai eta testuinguru diferenteetan desberdin ulerturiko duintasunak komunitate existentziaren eskubideak oinarritu, bai, baina ez duela zertan berekin etorkizuneko existentziarik ekarri beharrik. Hots, duintasunak iraganeko denboraren proiektzio garaikidea oinarritu arren, ez du, zuzenean, komunitateak etorkizuneko denboran lukeen existentziarik sostengatzen. Horretarako, ezinbertzekoa da etorkizunerako proiektzioaren kontzientziak berekin dakarren indarra: etorkizunean ere funtzionaltasunez existitu nahi horren gibelean, oinarritzko behar kolektiboek haratagoko irudikatzea altxatu, eta horiek, zenbait kasutan, ekimenak bidera ditzakeen plangintza osotua baitakar.

Irudikatze horrek, ezinbertzean, komunitate garapenari loturiko saioak hagitz modu desberdinean sortu eta egokitzea dakar: irudikatze kolektiboaren mugek komunitatearen iraganaren erabilera, bai orainaldiarekiko, baita etorkizuneko erabilpenerako ere, baldintzatzen dute.

Ondoko azpiatalean ikusiko dugunez, duintasunak eta proiektzioak zererran handia dute komunitate prozesu nagusiek hartzen duten norabidean. Bertzeak bertze, etorkizunerako proiektzioaren indarra iraganen soilik oinarritua denetan, nekez izanen

⁵⁹⁹ Proiektzioaren azalpen hau Guibernauk (1996: 76) komunitatekideen arteko lokarria sendotzeko, iragan historiko partekatuz gain, aipatzen duen proiektu komunaren ideiatik abiatuta garatu dugu; hau da, 2.2.2. ataleko “Denbora” azpiatalean aipatzen genuen ideien osatzea da.

⁶⁰⁰ Proiektzio maila baxuetan, irudikatzea da soilik eskuragarri; kasu horietan, irudikatze horretaz kanpoko arazo eta zailtasunek plangintzaren gauzatzea litzatekeen pausoa ematea galaraz dezakete.

baitu proiektzio horrek bideraturiko komunitate ideiak funtzio aitzinatzaileerik; aitzitik, proiektzioa, iraganarekiko mendekotasunean soilik ez, etorkizuna ere helburu izanik osatzen bada, funtzio aitzinatzailea duen komunitate irudia gara liteke. Beraz, garapen horretarako tresna egokituagoak –arestian aipaturiko plangintza kontuan izanik garatuak– sortzeko aukera gehiago izanen lirateke.

6.1.3.b. Eragin mota nagusiak

Euskal nazioak hondarreko mendean jasan dituen birmoldatze garrantzitsuenetatik abiatuta, bi baldintzatzaile nagusi sumatu ditugu: duintasun sentimena eta proiektzio ideiarene kontzientzia nahiz egituratzea. Horien arteko elkarreraginei erreparatuz, nazioaren garapena testuinguruek, *continuumek* eta komunitate autokontzepzioek moldatzen dutela are argiago sumatu ahal izan dugu. Batetik, komunitateen duintasunaren eta proiektzioaren garapen berezituak testuinguru zehatzetan gertatzen dira; bertetik, nabaria da garaien alderaketan nabarmentzen diren komunitateetako autokontzepzio eraldaketak komunitate moldaketa jarraituetan, prozesu gisa, gertatzen direla.

Ondoko paragrafoetan, kontzepzio kolektibo horrek komunitate garapenean izan ditzakeen oinarritzko funtzioak proposatuko ditugu: kontzepzioaren eragin aitzinatzailea eta *eragin gibelatzailea⁶⁰¹. Horretarako, komunitate garapenean autokontzepzio kolektiboak izan ditzakeen funtzioak aztertzeko funtsezko ideiak bildu ditugu: duintasuna, proiektzioa eta gune eragileei dagokiena.

Nabaria denez, aitzinez aipatu ditugun duintasun eta proiektzioari “gune eragile”⁶⁰² ideia gaineratu diegu. Horrekin, komunitatearen garapenean fokua jartzen, bideratzen, duen gunea izanen dugu kontuan: helburua autokontzepzio kolektiboaren funtzio posibleak laburbiltzea izaki, gune eragileekin, funtzio horren gauzapena bideratzen duten komunitateko partaideak eta beren arituak biltzen dituzten eremu eragileei erreparatuko diegu. Zehazki, bi alde nabarmenduko ditugu: gune eragilearen izana bera eta gune eragile horretako partaideek bertze komunitatekideekiko duten harremana⁶⁰³.

Ikusiko dugunez, gune horietatik ekimenek komunitate kontzepzioaren baldintzatzaile zabalena –duintasuna eta proiektzioa– bulkatzen dituzte. Horregatik,

⁶⁰¹ Ikus A eranskineko “Eraginak: eragin aitzinatzailea eta eragin gibelatzailea” sarrera.

⁶⁰² “Gune eragile” terminoaren azalpen zehatza 6.1.4. azpitaleko “a.1. Gune eragileak” azpitalean eta A eranskineko “Guneak: gune eragileak” sarreran bildu dugu.

⁶⁰³ Gune eragileen kasuistika zehatzagoa “6.1.4. Testuinguruaren eragin sistematizatzailea, kultura berreskuratu berriaren birmoldatze funtzionalean” atalean eskainiko dugu.

alderdi horietatik abiatuta, komunitateak bere garapenean jasan ditzakeen bideratze –eragin aitzinatzailea eta eragin gibelatzailea– nagusiak identifikatu, eta horietan autokontzepzio kolektiboak izan dezakeen eragina laburbildu dugu.

Beraz, duintasunak, proiektzioak eta gune eragileen izanak eragin bateratu diferenteak sortuko dituzte, eragin bateratu bakoitzak ondorio desberdinak sorraraziko dituelarik, komunitate garapenean.

- **Eragin aitzinatzailea: garatze bidea**

Aitzinez erranei zehaztasun handiagoa emanaz, eragin aitzinatzailea identifikatzeko aztertu beharreko aldagaiak honakoak direla erran liteke: duintasun nahiz proiektzioaz gain, gune eragileen eta komunitate kideen arteko distantzia.

Duintasunari dagokionez, eragin aitzinatzailea izateko ezinbertzeko baldintza da komunitateak gutieneko duintasuna lortua edo lortze prozesuan izatea. Gaurgero errana dugunez, komunitateko kideen duintasun banako nahiz kolektiboa zernahi garapen gauzatzeko abiapuntua da. Hori dela eta, duintasuna da eragin aitzinatzailearen oinarritzko abiapuntu eta bertze edozein aldagairen gibelego bulkada kolektiboaren iturri.

Duintasunaren balio praktikoak etorkizuna ahalbidetzeko, ordea, komunitatearen proiektzioak barne hartzen dituen ideia eta ekimen multzoak dira behar-beharrezko. Komunitateak bere buru kolektiboa etorkizunean irudikatu, eta irudikatze horretarako beharrezko diren aldaketak, ekintzak eta garapenak gauzatzeko bidea da eragin aitzinatzaileak bulkatzen duena. Nabaria denez, halako saiakeren muina duintasun oinarritzkoenaren lorpenetik abiatua da, ezinbertzean, eta etorkizunari aitzina egin ahal izateko ikuspegia eskaintzen du proiektzioak –duintasun lorpenaren hurrengo pausoa–.

Zernahi gisaz, eragin aitzinatzailearen mugak ez dira proiektziotik soilik heldu. Kontrara, komunitatearen norabide nagusiak antolatzen dituzten bulkatzaileek ere zererran handia dute, horretan. Bulkatzaile horiek eratzen duten ekimen eremua “gune eragile” gisa izendatu dugu, arestian. Gune horren funtzioa hagitz garrantzitsua da eragin aitzinatzailean: ekimen garatzaileak bideratzeaz haratago, guneko partaideen kasuistika nagusiak ekimen horien helburuak eta egitura baldintzatuko ditu, nabarmen⁶⁰⁴. Hala, bada, interesgarria da, hagitz, gune eragile desberdinetako kideei

⁶⁰⁴ 1960-1975 bitarteko aldizkarietan islatu zen komunitatearen eta kulturgileen arteko distantziaren adibideetatik abiatuta (laugarren atala), adibidez, ondoriozta liteke, gune eragilean diren kideen aritu

erreparatzea; Bourdieuk kultur eremuko identifikatzen zituen kulturgileengandik edota eremu horretatik kanpo datekeen herriarengandik heldu ote diren erreparatzea, adibidez.

Gune eragileko kideen artean bertzelako jatorria duen batasunik sumatzen badugu ere, kasuan kasuko kulturgileen eta herriaren arteko distantziari ere behatu beharko zaio; izan ere, proiektzioaren ideiak lukeen arrakasta distantzia horren laburtasunari atxikia izan daiteke –duintasunaren berreskuratze prozesua jasan berria denean, kasu—. Hala, bada, indar bulkatzaileen eta komunitatearen arteko distantziak proiektzioaren funtzionalitatea baldintzatzen du: hondarreko hamarkadetan, munduan zehar, komunitateen proiektzioaren oinarritzko bidea erakundetzea bihurtu delarik, hagitx bide laburra luke erakunde horien saioa onartzen eta beretzen ez duen komunitatetik abiatutako proiektzioak.

Beraz, laburbilduz, duintasunaren, proiektzioaren, gune eragileetako partaide nagusien izanaren eta horiek gainerako komunitatekideekiko duten distantziaren eragin bateratuak sortua da, zehazki, komunitatearen garapen funtzionala laguntzen duen eragin aitzinatzailea.

- **Eragin gibelatzailea: trabatze bidea**

Eragin gibelatzailea ere, duintasun eta proiektzioaz gain, gune eragilean nagusi direnen izanak eta horiek gainerako komunitate kideekiko duten distantziak sortutako eragin bateratutik heldu da. Hala eta guzti ere, eragin aitzinatzailean ez bezalako gauzatze eta dinamikak sortzen dira, horien artean, eta, beraz, eragin diferentea sorraraziko dute komunitatearen garapenean.

Duintasuna dela eta, eragin aitzinatzaileari buruz erranak egokitu egin behar ditugu. Egia da duintasunak neurri berean baldintzatzen duela eragin gibelatzailea, komunitate garapenaren oinarri-oinarritzko bulkada baita; baina, eragin gibelatzailea gailentzen den aldietan, komunitateak duintasun maila urria, hagitx minberatua edota ukatua izaten du. Hori dela eta, bertze aldagaien bulkatzaile nagusi behar lukeena traba da, kasu honetan.

Hortaz, duintasunak bidera zezakeen balio praktikoa –irudikatze eta ekimenak bideratuko lituzkeena– neurri berean da hertsia; ondorioz, proiektzio ahalmena da hagitx mugatua. Batetik, balizko etorkizuneko egoerak irudikatzea hagitx saiakera eskasa da;

nagusiaren jatorria kulturazkoa denean, bertze komunitate kideekiko distantzia bateragarri egiteko zailtasunak –prozesuaren momentuaren batean– izan daitezkeela.

edo, balizko komunitate iraganari itsuki kateatua izaki, komunitatearen ideia nagusiak irudikatze hori distortsionatzen du. Bertzetik, lehenaren ondorioz, preseski, etorkizun irudikatu horren gabeziak komunitatea garai berrietara egokitzeko ekimenak akitu, edo, iraganarekiko kateatzea dela eta, baliogabetu egiten ditu.

Hala, eragin gibelatzailearen mugak, hein batean, iraganeko denborari atxikiak dira: denbora erreferentzia nagusia iraganari soilik dagokio, eta harekiko mendekotasun ez funtzionalean eratzen du oraina. Iraganaren erabilera mugatzailea egiten da eragin gibelatzailea nagusi den garaietan; erran nahi baita komunitate iraganari egokituriko funtzioak, haren erabilerak, mugatu egiten duela komunitateak etorkizunean izan dezakeen izana –euskal komunitateak XIX. mendearen akieratik aitzina onduriko kontzepzioak hori erakusten du⁶⁰⁵–. Begirada iraganera bideratu, eta haren erabilera gerarazlea egiten delarik, balizko etorkizunaren irudikatzea eta egoera horietara komunitatea egokitzeko saioak akitu egiten dira. Hori dela eta, komunitatearen garapen ahalmena antzutu egiten da.

Halatan, iraganari erreparatzeaz haratago, denbora horrekiko mendekotasuna bulkatzen duen eragina da. Erran nahi baita iraganera begiratzeak ez lukeela, berez, komunitatearendako, indar gibelatzailearik ekarriko; baina egia da, behatze horren erabilerak eta egokituriko funtzioak dinamika gerarazlea lagun dezaketela. Adibidez, eragin gibelatzaileak bulka dezake komunitatea, hautaturiko iragan horren “egiazkotasunean” edo “jatortasunean” oinarriturik, berezkoa lukeen aldakortasun naturalaren kontrako jarrera orokorrera.

Arestian erran gisa, gune eragileek ere zererran handia dute, mugatze honetan. Horien identifikatzeak, batetik, indar aitzinatzailearekin gertatu gisa, eraginaren nolakotasunak, helburuak eta saio moduak baldintzatzen ditu. Zernahi gisaz, hagitz normala litzateke garapen saio nagusi batean, momentu desberdinetan, guneen ekimenak eta guneak berak trukatu edo elkarreraginean aritzea. Bertzetik, eragin gibelatzailea moldatzen duten aldagai zehatzek gune eragile aktiborik izatea kasik ezinezkoa da –edo eraginkorrek izatea, bederen–.

Azkenik, gune horien eta gainerako komunitate partaideen artean sorturiko distantziak ere zerikusia du eragin gibelatzailearen garapenean. Baina, eragin

⁶⁰⁵ Tesian hizpide dugun kultur moldatze saioa abiatu arte, ikuspegi zaharrak –mendearen hasieratik komunitatearen garapena herrestan eraman zuenak– komunitatearen aitzinatzea eragotzia zuen. 60ko hamarkadan abiatutako moldaketak, ordea, ikuspegi zaharra alde batera utzi, eta komunitatearen garapena ahalbidetu zuten ideiak ekarri zituen.

aitzinatzailearekin gertatu ez bezala, gune eragileetako partaideen eta gainerako komunitate partaideen arteko distantziak molde nagusi bat du, kasu honetan; eragin gibelatzaileak aski berezkoa baitu komunitatearekiko distantzia. Bi modutako distantzia izan liteke. Batetik, gune eragileen eta komunitatearen artekoa; bertzea, komunitate garapenez bertzelako helburuek edo garapena ukatzen dutenek sortzen dutena. Erran nahi baita eragin eremu nagusiaren helburua herria izanagatik, helburu horren nolakotasunek herriaren etorkizuna arriskuan jar dezaketela⁶⁰⁶; arestian azaldu gisa, proiektzio gabeziak eta iraganarekiko atxikitze gerarazleak akierara kondenatzen baititu, egun, komunitateak. Nazioaren egokitze funtzionala, garai eta behar berriei begirakoa dena, hondatu eta akitzen baitu.

6.1.3. atalean, nazioen bizitza osasuntsurako bai duintasun sentimena, baita proiektzioa ere, ezinbertzeko direla erran dugu. Are gehiago, mundu globalizatuan, bertze nazio edo estatuekin parekidetasunez aritzeko, nazio baten duintze prozesuaren pausoetarik bat bihurtu da proiektzioa bera; egungo mundu globalizatuan, aisago da legezko oinarri edo oinarri instituzional egituratu sendorik gabeko komunitateak barneratzea eta horien izaera banakoa lausotzea. Kasu horietan, proiektzio ikuspegiaren jabe den komunitateak erresistentziarako eremua duke.

Duintasunaren eta proiektzioaren elkarreraginaren dinamikan osatzen da komunitate irudia –ondorioz, baita irudi horrek ahalbidetuko dituen baliabideak ere–, eta, bidenabar, komunitatearen identitateari emaniko funtzioa egokitzen: aipaturiko indar aitzinatzaileari lotua, funtzio garatzailea, eta indar gibelatzailetik eratorria, gerarazlea.

Hala, bada, 1975etik aitzinako fasean, euskal oinarrien berrinterpretazioa egin izana baino gehiago, gaurgero 1960tik aitzina horien –edo horietan oinarrituriko autokontzepzio kolektiboaren– funtzionalitatea eta erabilera eraberritu izana deritzogu interesgarrien; izan ere, mendearen hasierako ikuspegiak euskaltasuna ulertzeko zuen

⁶⁰⁶ Berriz ere ikuspegi zaharrak islatzen du gune eragile eta komunitate artean sor daitekeen distantzia immobilistaren eredia; hala nola, komunitatearen garapen aitzinatzailea akitzen duten irizpide gibelatzaileen artean ezagunena garbizalekeria litzateke. Alabaina, testuinguruaren arabera, arrakastaren eskutik hel liteke jarrera garbizalea: “Interesgarria da [...] turkieraren kasua. Kemal Atatürk-en iraultzak hizkuntza ere hartu zuen mendearen. Helburua, jakina, turkiera erotik garbitzea zen, arabiar eta iraniar maileguak hizkuntzatik ezabatuz. Horretarako, sabindarrek bezala, hainbat bide erabili zituzten. Esaterako, gure *eskola*-ren ordain berria sortzeko turkierazko *oku* ‘irakurri’ eta frantsesezko *école* nahasi zituzten lasai-lasai: *okul* izan zen emaitza... // Kontua da estonieran, eta orobat turkieran, eraberritze ‘itxuragabe’ horiek erabateko arrakasta izan zutela bai hizkuntza idatzian bai ahozkoan” (I. Sarasola, *in* Pagola 2005: X) (azpimarrak ez dira gurea). Ikus sabindarren iraultzaren porrotaz 574. oin-oharra.

moduak komunitatearen garapena akitzen zuen, etorkizunean porrotera kondenatu. Aldiz, 1960-1990 bitartean gertaturiko ikuspegi aldaketak –ikuspegi zaharraren gailentasuna akitu, eta aniztasuna zabaldu izanak– ahalbidetu zuen euskaltasun hori etorkizuneko proiektuak argudiatu ahal izateko indartzaile gisa atzeman izana; ideia horretan oinarrituriko autokontzepzio kolektiboa, iragan bateratuaren erakusgarri izateaz gain, etorkizuneko bidea eraiki ahal izateko baliabideen iturria izan zen: aitzina egin ahal izateko eraldaketa autokontzepzio kolektiboaren balioan bertan izanik, garairako funtzional bihurtzea izan zen komunitatearen saio zabalena.

Ondoko atalean, eite aitzinatzaile horren eragin nagusietarik bati erreparatuko diogu: egituraketa sistematizatzaileari. Horretarako, 3.1.4. atalean egin gisa, garaiko euskal kulturak jasan zuen antolaketa saioari behatuko diogu; kasu honetan, kulturgileen ekimenaz, ez, testuinguruak bulkaturiko antolatze sistemikoaz arituko gara.

6.1.4. Testuinguruaren eragin sistematizatzailea, kultura berreskuratu berriaren birmoldatze funtzionalean

Segidan heldu diren azpiataletan, euskal ondare berreskuratu berriak 1975etik aitzina izaniko birmoldatzea, zehazki, goitik beheitira baldintzatu zuten gertaera nagusiei erreparatuko diegu: euskal kulturaren sistematizatzaren baitako erakundetze prozesuei eta antolakuntzari.

Horiei buruz aritzeko, “6.1.4.a. EKSren antolaketa: gune eragileetako ahalmenaren banaketa” azpiatalean, bi alderdi izanen ditugu ikusmiran: lehenik (a.1.), erakundetzea ahalbidetu zuten gune eragileez arituko gara, eta, bigarrenik (a.2.), herritiko botereari behatuko diogu. Segidan, “6.1.4.b. EKSren egituraketa: euskal kultur mailek jasaniko prozesuak” delakoan, euskal kulturaren antolakuntzaz arituko gara, espresuki: maila desberdinetako balioztatzeak agertzeaz gain (b.1.), egituratze sistemikoaren oinarriak aztertuko ditugu (b.2.).

Hartara, EKSren egitura nagusia aurkezturik, barne-antolakuntzaren abiatzea baldintzatu zuten alderdi nagusiak, zazpigarren atalean aztertuko dugun literatur eremua ikertzeko beharrezkoak, izanen ditugu eskuragarri.

6.1.4.a. EKSren antolaketa: gune eragileetako ahalmenaren banaketa

Lehen pauso honetan, euskal kulturak eta ondare berreskuratu berriak, 1975etik aitzinako testuinguru berriaren eraginez, jasaniko aldaketa zabalena izanen dugu

hizpide: euskal kulturaren izaera sistemikoaren oinarriak ezartzea nola gertatu zen begiratuko dugu.

EKSk 1975-1990 bitartean zuen egituraren izanaz ohartzeko, erran gisa, “gune eragile” terminoa izanen dugu abiapuntu. Horretarako, erranahi nagusiaren gibelean den kasuistika deskribatu, eta kontzepzio horretara iritsi ahal izateko beharrezkoak diren oinarritzko ideiak agertuko ditugu. Gisa horretan, komunitatearen eta ondarearen arteko harremana aztertzeke proposatu ditugun bertze bi alderdiekin egin gisa (6.1.2., 6.1.3.), euskal komunitatearen eta ondarearen arteko harreman zehatzaz haratagoko erabilera zabala duten tresnak eskainiko dira. Hala, proposamen teoriko zabalerako oinarriak eskainiko ditugu, hasiera-hasieratik.

a.1. Gune eragileak

Erran berri dugunez, moldaketaren bigarren fasean –1975-1990– erdigune izaniko prozesuaren oinarrietarik bat argitu nahi genuke: EKSn egitura. Horretarako, ezinbertzeke abiapuntua iduritu zaigu komunitatearen egituraketa eta erakundetzea bulkatu zituzten gunez aritzea; izan ere, nazio-komunitatearen 1960-1990 bitarteko moldaketaren azalpena osatzeko, behar-beharrezkoa da mota desberdinetako guneek euskal komunitatearen garapen garaikidean izan zuten eragina ulertzea.

Gune eragileen kasuistika zabala izaki, eta zabaltasun horrek berak sor lezakeen nahasmena saihestu nahirik, horiei buruzko zehazte nagusi bat eginaz ekinen diogu lanari (“Definizioa”). Euskal komunitateak, hondarreko mendean, jasaniko bi birmoldatzeetatik abiatuta, arestian aipaturiko *continuum*aren eta ahalmen erakundetzaile-egituratzailearen arteko harremana kontuan izanik, bi gune eragile mota nagusi bereizi ahal izan ditugu: ahalmen edo botere egituratzaile-erakundetzailedunak eta ahalmen edo botere hori gabeko gune eragileak. Ondotik, Sarasuaren “ahalmen-gune” terminoarekiko alderatzea egingen dugu (“ ‘Ahalmen-gune’ekiko alderatzea”).

- **Definizioa**

Ahalmenaren adiera egituratzaile eta erakundetzailea kontuan hartu izanak badu bere arrazoia. Egin kontu lan honetako abiapuntua beti dela nazio-komunitateetako⁶⁰⁷

⁶⁰⁷ Euskaldunak, komunitate gisa, biltzeko oinarritzko irizpidetzat hizkuntza hartu dugula kontuan izanik –oroitu A eranskinean “komunitate” kontzeptuari buruz errana (“Komunitatea” sarrera)–, pentsatzen dugu lanean zehar erranak erabilgarri izanen direla oinarritzko batasunaren ezaugarri gisa oinarri kulturalak dituzten komunitateen azterketarako. Beraz, komunitate kulturalen azterketarako.

gertakariak ulertzea. Hala, bada, ahalmen egituratzailea dela medio, eskuragarri jarri nahi izan dugu estaturik gabeko nazio eta komunitateetako antolakuntza moduak ulertu ahal izateko ahalmen/botere⁶⁰⁸ nagusietarik bat. Botere mota honen oinarrian, ideia eta helburu nagusi batzuetan bilduriko agenteek⁶⁰⁹ erreferentziazko komunitatea ordenatu eta bideratzearen ekina dagoenez, uste dugu estaturik gabeko nazio-komunitateen kasuistikan aurki litezkeen prozesuak argitzeko tresna agertuko dugula. Antolakuntza horri izaera erakundetzailea gaineratzearekin, aldiz, egungo estatu eta nazioetan nagusitzen den egituratze moduari egin nahi diogu erreferentzia; izan ere, errana dugun gisa, mundu globalizatuan parte hartzen duten estaturik gabeko komunitateek erakundetzea dute beren existentziaren izana –“banakoa”; hau da, komunitateko partaideek “kide” sentitzeko hala atzematen duten izana– defendatzeko modu garrantzitsua.

Beraz, botere egituratzaile-erakundetzailedun gune eragileek eta gabeek, biek, eragiten dute komunitateen garapena, baina, ahalmen desberdinen jabe izanik, testuinguruarekiko elkarreragin desberdina dute.

Ahalmen egituratzaile-erakundetzailerik gabeko gune eragileak: *gune ez-egituratzaileak⁶¹⁰

Hauek dira mantentze *continuum*etan eta *continuum* iraultzaileetako testuinguruaren aitzinetik –edota lehen faseetan– komunitatearen jarraipena mantentzen duten gune eragileak. Egin kontu mantentze *continuum*aren existentziak berekin dakarrela, kontrako egoera pasibo edo aktibo⁶¹¹ larria pairatzen duen komunitatearen existentzia; hori dela eta, ulergarria da estaturik gabeko nazioek, momenturen batean, halako gune eragileak soilik izatea. Aldeko ez den egoera horrek komunitateen sistema ofizial egituratzaileen gabezia, edota akitzea, ekarriko

⁶⁰⁸ Botereak ahalmena dakarren neurrian, eta ahalmenak boterea ematen, lan honetarako berdin da botere edo ahalmen gune izendatu.

⁶⁰⁹ “Agente” hitza “egiten dutena” zentzuan darabilgu, “egile”.

⁶¹⁰ Ikus A eranskineko “Guneak: gune eragileak” sarrera.

⁶¹¹ Kontrako jarrera aktiboak botere barneratzailearen aldetiko neurri espresuki ezeztatzaileak erabiltzea dakar –debekuak, erraterako–; kontrako jarrera pasiboa litzateke, ordea, komunitate barneratuaren izana galtzera daraman jarrera hartzea –sostengurako neurriak ez hartu, eta akitze bidea saihestuko lukeen neurririk ez hartzea–. Hizkuntzekiko jarreraren mugari gisa aipatu ohi den Deixonne Lege ezagun, zaharkituaz: “Las actuaciones más tempranas de apoyo a las lenguas regionales se producirán en el ámbito de la enseñanza. Para el sector se irán adoptando textos normativos en su conjunto faltos de «unidad conceptual» que contemplarán esas lenguas como objeto o vehículo de instrucción opcional para el alumno y los profesores: la Ley Deixonne, de 11 de enero de 1951, autoriza la enseñanza facultativa en los distintos niveles del sistema educativo (de primaria a la enseñanza superior) de «las lenguas o dialectos locales», que enumera expresamente (bretón, vasco, catalán y lengua occitana), y que varios decretos posteriores han ampliado –curso (1974), tahitiano (1981), malasio (1992)” (Fabeiro 2004: 223).

luke; komunitate mailako ahalmen egituratzaile posibleak murriztuak lirateke, eta erakundetzaileak liratekeenak, akituak, halako gune eragileak soilik nagusi diren testuinguruetan.

Goiti aipaturiko *continuum*etatik abiatuta, mantentze *continuum*etan iraute eragina luketen gune eragileak nagusituko dira, eta, *continuum* iraultzaileetan, aldiz, eragin bulkatzaileak –ahalmen antolatzaile-egituratzaile osoa ez izanik ere, aldaketarako abiapuntua laguntzen dutenak–.

Ahalmen egituratzaile-erakundetzailerik gabeko gune eragile hauei “gune ez-egituratzaile” deituko diegu, lanean zehar.

Ahalmen egituratzaile-erakundetzailea duten gune eragileak: *gune egituratzaileak⁶¹²

Testuinguru kaltegarriak lasaitu ahala, ahalmen egituratzaile-erakundetzailea duten gune eragileek gero eta botere handiagoa izateko aukera dute. Bertzela erranda, *continuum* iraultzaile eta normalizatueta agertu edo indartu ohi dira intentsitate eta ahalmen desberdineko ahalmen egituratzaile-erakundetzailea duten gune eragileak. Ondoko azpiatalean ikusiko dugunez, 60etatik aitzinako aldaketak eta, bereziki, 1975etik testuinguru berriak ahalmen horren jabe ziren gune eragileen jatorria aniztu egin zuen, euskal komunitatean.

Zernahi gisaz, eragite egituratzaile-erakundetzaile egonkorra gertatzeko, ezinbertzekoa da mantentze *continuum*etan izan ohi den egoera orekatua⁶¹³: estatu barneratzailearen eta estaturik gabeko nazioaren arteko harremana orekatu ezean, ezinezkoa izanen da zernahi ahalmen egituratzaile ofizial edo instituzional indartsu eta sistematikorik agertzea.

Ahalmen egituratzaile-erakundetzailearen jabe diren gune eragileei, gauzak erraztearren, “gune egituratzaile” deituko diegu, lan honetan; izan ere, erakundetzea, azken finean, egituratze mota ordenatu bat baita. Beraz, hemendik aitzina, termino

⁶¹² Ikus A eranskineko “Guneak: gune eragileak” sarrera.

⁶¹³ Edo oreka horretarako pausoak ematea, *continuum* iraultzaileetan gertatu ahal den gisa. “Orekatu” terminoarekin, egoera orokor eta abstraktua eman nahi izan dugu aditzera; zentzu orokorra, soilik, da aditzera emana, ez errealitate zehatzetan agertzen den egoera jakina. Aski da “harreman orekatua” erratean estaturik gabeko nazioaren izana suntsitzen ez duen eragina aditzera eman nahi dela argi izatearekin; kontrara, “harreman desorekatuan”, estatu nagusiaren eragina estaturik gabeko nazioaren oinarritzko komunitate zentzuaren kontra heldu litzateke. Oreka gertatzeko lehen pausoa, beraz, estatuak komunitatearen izaera berezitua onartu, eta berau ordenatzeko sistema autonomia maila batez legezkatzea da.

horrek beti eginen die erreferentzia ahalmen egituratzaile-erakundetzailearen jabe diren gune eragileei⁶¹⁴.

Gune eragile mota	Ahalmen egituratzaile eta erakundetzailea	<i>Continuum</i> mota nagusia	Jarraitutasunarekiko harremana: eragite mota nagusia	Estatu eta estaturik gabeko komunitate harremana
Gune ez-egituratzailea	ez	mantentze <i>continuuma</i>	mantentzea	desorekatua
	ez	<i>continuum</i> iraultzaileen lehen pausoak	eragin pizgarri eta bulkatzailearen lehen eraginak	desorekatua
Gune egituratzailea	bai	<i>continuum</i> iraultzailea	pizgarri eta bulkatzailea	oreka pitzatua
	bai	<i>continuum</i> normalizatua	garatze kontrolatua, ofizializatzailea	orekatua

13. taula: Gune eragileak

XX. mendearen hasieratik 1975era bitartean, izaera desberdineko gune eragileak izan ziren, euskal komunitatean. Testuinguru soziohistorikoak hala beharturik, eragin egituratzaile-erakundetzaile guti edo batere gabeko garaia izan zen, kasu, 36ko Gerra ondotik 1960ra bitartekoa; aldi luze horretan, mantentze *continuuma* nagusitu zen komunitatean, eta komunitate mailako zeinahi ahalmen aitzinatzaile akitua zen, kasik.

Aldiz, Aro Ilunaren hondarreko hamabortz urteetan, eragin bulkatzaileaz haratago, ahalmen egituratzailea beretu zuen gune eragile bat gailendu zen: 60ko hamarkadaren hasieratik 1975a bitarte, beti erakunde gisa antolatua ez zen herriagandiko ekimena nabarmen indartu zen. Gisa horretan, ondoko “a.2. Herritiko ahalmenaren osatzea: aparatu instituzionala” atalean ikusiko dugunez, ahalmen egituratzaile-erakundetzailea eremu desberdinen aldetik garatuz joan zen, 1975tik aitzinako fasean.

Hala, bada, gune eragileen izanari erreparatu ondotik, bi ondorio nagusitzen dira. Batetik, komunitateen garapena aztertzeko, gune eragileen eskutik hainbat eragite mota bereizi behar da: mantentzailea –biziraupenari lotua–, bulkatzailea –aldaketa nagusien garaiei lotua– eta finkatzailea –komunitatearen momentuko izaera antolatuari dagokiona–, gutienez; hain zuzen ere, komunitatearen *continuum*aren izaerak ahalbidetzen dituen eragiteak hirurak. Alabaina, agerikoa denez, errealitatean, batetik bertzerako mugak ez dira hain finkoak. Bertzetik, gune eragileek botere egituratzaile-erakundetzailearen jabe izatea ahalbidetzen duen baldintzatzaile nagusia testuingurua

⁶¹⁴ Orain arteko deskribapena “Gune eragileak” taulan laburbildu dugu (13. taula).

dela ohartu gara; zehazkiago, testuinguru horretan erreferentziazko komunitateak bizi duen egoera da. Aipaturiko lehen eragina, mantentzailea, komunitateek kalterako testuinguruetan bizi dutenean agertzen da, eta, bigarrena, bulkatzailea, pairatze horren indarra zalantzan jarria denean edo egoera normalizatuetan garatzen da; azkenik, ahalmen finkatzaileak estatuaren eta komunitatearen arteko harreman orekatua aitzinsuposatzen du: dinamika hori izan ezean, nekez osa dezake estaturik gabeko nazio-komunitateak eragite ofizializatzailea duen sistemarik.

- **“Ahalmen-gune”ekiko alderatzea**

Behin gune eragileen kasuistika zabala irizpide baten arabera –ahalmen egituratzaile-erakundetzailearen arabera– erabiliko dugula argitua dugularik, euskal komunitateari, espresuki, egokituriko interpretazioa egitea dagokigu; izan ere, euskal komunitatean, 1975etik aitzina, gune egituratzaileen artean sortu zen antolaketa –eta, beraz, elkarreragin– berriztatuak epe labur eta luzera eraginak⁶¹⁵ sortu zituen. Are gehiago, moldaketaren bigarren faseko prozesuaren arrakasta, ikusiko dugunez, bideratu ere egin zuten gune eragile nagusien arteko dinamika sortu berriek.

Horri ekin aitzinetik –a.2.n arituko gara horretaz, espresuki–, ordea, gune moten ideia nondik heldu den azaldu nahiko genuke, iturri nagusi bat izan baitute proposatu ditugunek. Jon Sarasuaren *Hiztunpolisa* liburua leituz ohartu gara gune eragileak banatzearen garrantziaz. Hala dio berak, erakunde izaeradun ahalmen guneen azterketa dela eta:

Gure gizarteetan egikaritzen diren ahalmen-guneen analisia egiterakoan, on egiten digu ahalmenaren iturrietan elementu desberdinak bereizteak. Estatu botere iturri nagusi duten erakundeak, kapitala botere iturri duten erakundeak, eta gizarte antolatuko edozein sare botere iturri duten erakundeak ez dira gauza bera. (68. or.)

Guk erran berri ditugunak Sarasuarekin alderatuz, hiru desberdintasun nabarmentzen dira. Batetik, guk “gune eragile” erabili dugula, Sarasuak darabilen “ahalmen-gune” hitzaren ordez. Kontu sinplea da: gune eragileak, eragile diren neurrian, ahalmenen baten jabe direla ulertu dugu, lan honetan; beraz, gune eragileetan

⁶¹⁵ Epe laburrak hizpide dugun urte bitarteari erreferentzia egiten dion arren, tesiaren ondorioetan agertuko dugunez, epe luzera islatu diren ondorioak –artifizialki finkatu dugun 1990eko mugaren ondutikoak– kontuan izatea hagitz garrantzitsua izanen da.

ahalmen desberdinak ager litezkeela pentsatzen dugu⁶¹⁶, hirugarren desberdintasunaren deskribapenean argudiatuko dugunez.

Bertzetik, “ahalmen-gune”en artean erakunde izaera dutenez mintzo da, soilik, Sarasua. Alabaina, estaturik gabeko nazio-komunitateen azterketarako, hobe da halako mugarik ez ezartzea, kontuan izan behar baita, estaturik gabeko nazio-komunitateek bizi ahal dituzten jarraitutasunen artean, erakunde izaerarik gabeko “ahalmen-gune”ak –aldaketa prozesuetan, bereziki⁶¹⁷– ager daitezkeela. *Continuum* iraultzaileetan, kasu, ahalmen egituratzaile-erakundetzailerik gabeko gune eragileak, bertzelako ahalmenak dituzten gune ez-instituzionalak, izan daitezkeela pentsa liteke; erraterako, segidan den a.2. azpiatalean azalduko dugunez, 60ko hamarkadan, herriaren ekimenek halako lana agertzen dute.

Sarasuaren erranen eta gureen arteko azken aldea, hirugarrena, azterketan sakondu ahal izateko sumatu dugun behar batetik heldu da; 1960-1990 bitarteko urteen ikerketa zehatza egiteko, irizpide bat gehitu behar izan diogu Sarasuaren proposamenari: gaurgero aipatu dugun botere egituratzaile-erakundetzaileraren irizpidea. Egia da Sarasuak botereen jatorria –beraz, eragina bera– aunitzez modu osotuagoan aztertzeke azalpenak eskaintzen dituela:

Kapitalaren botere eta logikapean funtzionatzen duten erakundeek, bistakoa den moduan, ahalmenaren zati handia hartzen dute gure gizartean. Estatuaren botere eta logikapean funtzionatzen dutenek ere, beren mailaketa osoan gobernuetatik udaletaraino, funtzio berebizikoak betetzen dituzte. Estatuak, gainera, besteak arautzeko ahalmena du teoriarik, gero askotan besteok estatua bera determinatzeko ahalmena erakusten badute ere, makroan nahiz mikroan. Hirugarrenik, ez kapitalaren logika lukratiboaren arabera eta ez estatuaren logika administratiboaren arabera funtzionatzen duten gainerako eraketa sozialak daude. Gizarte antolatua esparrua da, gizarteko pertsona multzo txiki, ertain edo handien helburu partekatuen arabera sortutako mota guztietako eraketak. Mota askotako logika baloratiboak mugitzen dira gizarte antolatua esparru honetan, botere-maila, eragin, asmo eta funtzio desberdineko eraketak sortzen dituzte, eta edozein kasutan herri ateko gizarte zibilaren energia eta arkitektura erakusten dute. (*Ibid.*: 68-69)

Deskribapen nagusiaz haratago, botere guneen arteko aldeek erakundetze moduetan, helburuetan eta modu horien arrakastan izan dezaketen eragina ulertzen laguntzen dute, zalantzarik gabe. Alabaina, proposatzen duen irizpidea baliagarria izanagatik, lan honetako aztergaien lanketan aitzina egiteko, aretxabaletarraren erranak egokitu behar izan ditugu. Horretarako, kontuan izan ditugu 1960-1990 bitarteko ahalmen iturri boteretsuenak –estatu eta autonomien sistematikoak– eta 1975etik

⁶¹⁶ Oroitu azaldu berri dugula ahalmen egituratzaile-erakundetzailerik hartu dugula, tesian, irizpide.

⁶¹⁷ Zapatuak diren testuinguruetako komunitateek, nekez, garatuko dute mantentze *continuum*etan “ahalmen-gune”rik; are gutiago antolakuntza egituratua duen gune eragilerik.

aitzinako kultur errealitatea baldintzatu zuen botere nagusia –egituratzaile-erakundetzailea–. Hori dela eta, ahalmen zehatz baten jabe diren guneen analisia egiteko erabili dugu Sarasuak aipatzen zuen botere iturrien irizpidea: ahalmen egituratzaile-erakundetzailea⁶¹⁸, espresuki, duten guneak aztertzeke erreparatuko diogu iturriari. Gainera, beheiti argituko dugunez, 1975etik aitzinako egoera berria deskribatzeko, estatuaren botere eta logikapeko iturriak bi multzotan banatu behar izan ditugu. Estatuaren botereak, euskal kulturaren 1960-1990 bitarteko birmoldaketaren faseetan, iristeko bi bide izan zituela ikusiko dugu (6.1.4., a.2.).

Sarasuaren bidetik abiatuta proposaturiko gune eragileek ahalbidetu dute, preseski, 1975etik aitzinako testuinguruak euskal kulturarengan izan zuen eragin sistematizatzailearen garapena, osoki, ulertu ahal izatea. Segidan agertuko dugunez, 1960-1975 bitarteko bulkada nagusia herria izan zen; 1975. urtetik aitzina, ordea, gune egituratzaileak emendatu egin ziren, bai kuantitatiboki, baita ahalmen iturrien aniztasunari dagokionez ere: gune egituratzaileak sortu, eta erakundetze boterea iturri desberdinetatik heldu zen.

Ahalmen iturri horien izanak guziz baldintzatu zituen gune egituratzaile bakoitzak abiatutako erakundetze prozesuaren garapen nahiz arrakasta eta komunitatearekiko harreman modua.

a.2. Herritiko ahalmenaren osatzea: aparatu instituzionala

Gune eragileen izana modu orokorrean –gune eragileak– eta zehatzagoan –gune egituratzaileak eta ez-egituratzaileak– deskribatua dugularik, aisago atzemanen du irakurleak 1975etik aitzinako fasean gune eragileek jasaniko aldaketaren garrantzia.

Euskal komunitateak, 1960tik aitzina, biziriko birmoldatzean, hasiera-hasieratik, gune eragile bat gailendu zen: herria jatorri zuena⁶¹⁹. Herriagandiko eragitea guziz nagusi zen errealitatean, ordea, bertzelako ahalmen iturriak⁶²⁰ zituzten gune

⁶¹⁸ Botere egituratzailea definitzeko “ideia eta helburu nagusi batzuen baitan bilduriko agenteek erreferentziazko komunitatea ordenatu eta bideratzea” aipatzean agertu gisa, komunitatea ordenatu eta bideratzeko ahalmena, beraz.

⁶¹⁹ Bigarren kapituluan, herriagandik, bai, baina, horren baitan, multzo desberdinek –60etan abiatutako fasearen hasieran– egiteko banatuak izan zituztela ikusi dugu (3.1.4., 4.1.4.b.). Errate baterako, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aztertzen ari ginela azaldu gisa, kulturgileak –moldaketaren abiatze urteetan– herriaren orokortasunetik bereiziak sumatu izan ziren; komunitatearen norabidea bideratzen zuten, eta bulkatzaile nagusitzat atzeman ziren, zenbaitetan.

⁶²⁰ Ahalmen iturrien aniztasunean, gizarte antolatuaeren logika ereduetatik sorturiko erakundeek euskal errealitate garaikidean duten garrantzia dela eta: “Labur esateko, gizarte antolatuaeren logika-ereduetatik sorturik (ez logika lukratibotik eta ez logika burokratikoetik), politika publikoetan eta merkatuan leku

egituratzaileak gaineratu ziren, 1975etik aitzina, bereziki. Testuinguruak ezegonkortu egin zuen euskal komunitatearen ordezkartza posible bakarra⁶²¹ zena, gune sinbolikoari zegokiona: gizartetiko logikatik abiatutako ekimenen erreferente zen ordezkartza kolokan jarri zen, komunitatearen gune mugatua erreferentzia nagusi zuen egitura instituzionala abian jartzearekin batera. Hau da, autonomien sistemarekin, hitzuen komunitatearen gidaritza boteretsuena gune mugatuen esku geratu zen; estatu eta erkidego desberdinen esku.

Testuinguru berriaren agertutako erakundetze mota nabarmenduz, ez diogu aitzinean hainbertzeko garrantzia izana zuen herri mugimenduari muzinik egin nahi; kontrara, egituratze-erakundetze egitura berriak, botere iturri desberdina zutenak, batu zitzaizkiola adierazi nahi dugu.

Egitura eta ekimen sozialek berebiziko garrantzia izan zuten, testuinguru berri horretan ere. Bertzeak bertze, Mateosek erran gisa:

eskola publikoaren euskalduntze prozesua ez da izan ekimen administratibo hutsa, eta aipatu urteotako eskola publikoan euskarak irabazi duen [1985-1990 bitarte] gero eta presentzia handiagoa, administrazioaren zereginaz gain, dudaezineko zorretan dago irakasleen eta ikasleen gurasoen ahaleginekin. Hainbat eskolako D ereduaren finkapena, adibidez, sektore bi horien presioaren ondorio bezala ulertu beharko litzateke, sarritan Hezkuntza Sailaren planteamendu uzkurak gainditurik ere. (2000a: 477).

Testuinguru horretan garatu zen erakundetzeak hainbat berezitasun izan zituela oharturik, eta berriz ere Sarasuaren proposamenera bueltatuz, aretxabaletarraren proposamenak estaturik gabeko nazioen egitura ofizialak behar adina modu zehatzean kontuan hartzen ez dituela uste dugu; hori dela eta, botere gunez ari delarik, “estatuaren botere eta logikapean funtzionatzen” dutenak aipatzen dituen arren (2013: 68), arestian erran gisa, bi azpisail banatu beharra sumatu dugu: estatu nagusiaren botere nahiz logikapean funtzionatzen dutenak eta erkidego mailako sistemaren botere nahiz logikapean egiten dutenak. Noski, hagitz nabaria da estatu nagusi eta erkidego mailako botereak mendekotasun harremanean izaten direla sarri, eta, gainera, estatuko boterearen indarra disimuluan izaten dela oinarrizko gibelindar.

garrantzitsua betetzen duten errealitateak ditugu Euskal Herrian. Horiek dira, nolabait, gure argazki instituzionaleko berezitasun aipagarrienak. Industrian, finantzetan, kontsumoan, hezkuntza arautuan eta hizkuntza biziberritzeko erakundeetan (guztiak ere gizarteko arlo zentraletakoak), gizarte antolatutik sortutako sareak daude martxan” (Sarasua 2013: 164).

⁶²¹ Estu-estu begiratuta, Aro Ilunean zehar, estatua izanen zen ordezkari, baina ez euskal komunitatearena, estatuko jendartearena baizik.

Edozein gisatan, horren guziaren jakitun izan arren, hizpide dugun garaiaz aritzeko hagitz garrantzitsua iduritzen zaigu oinarrizko banaketa hori egitea; 1960-1990 bitarteko eraldatzeak inflexio puntu izan baitzuen 1975etik aitzinako autonomien sistemaren sorkuntza. Estatu eta erkidego mailako botereen banaketa azpimarratuz, eta, bereziki, erkidego desberdinetan izaniko botere banaketa nabarmenduz, testuinguruari hobeki atxikitzen gatzaizkiola uste dugu; nagusiki, euskal komunitatearen egitura ofiziala langartu zela islatzen baitugu. Estatuarekiko harremana arautzen zuen sistema nagusi baten pean izanik, euskal ondarearekiko harreman “askea”rekiko –Aro Ilunean zehar ez bezalako autonomiaz erabaki, antolatu eta finkatu zitekeena– bizipena desberdin arautu zen, komunitatean⁶²². Autonomien sistemak gune sinbolikoko gidaritzaren egitura finkoa osatzea nahiz zabaltzea zaildu, eta gune mugatuari lotuagoa zen bizipena bulkatu zuen; erkidegoetako helburuak gune mugatu desberdinen gidaritza zehatza arautzera ziren ardaztuak.

Estatuko botere eta logikari erkidego mailako sistema jaioberriak gehitu zitzaizkiolarik, aisa ulertzen da hiztun komunitatean eragiten zuten ahalmen guneen aniztasunak, 1975etik aitzina, izan zuen eztanda: gune egituratzaileak kuantitatiboki eta kualitatiboki eraldatu ziren. Gune egituratzaile gehiago agertu ziren, eta, kualitatiboki, aitzinez arituak ziren guneen eragite ahalmena moldatu zen. Ondorioz, herritiko ekimenak ahalmen egituratzailea gune egituratzaile sortu berriekin partekatu behar izan zuen.

Egoera horren gauzatze zehatza eskaintzeko, 5.2.1.b. azpiatalean erranak hagitz baliagarriak dira. Azpiatal horretan gune sinboliko eta gune mugatuari buruz erranak kontuan izanik, 1975etik aitzina abiatutako autonomien sistemarekin, gune egituratzaile nagusi desberdinak osatu, eta bakoitzaren helburuak komunitatearen gune bati bideratuak zirela sumatzen da: EAEko eta NFEko botere egiturak, komunitatearen gune mugatuari –kasuan kasuko muga geografikoetako jendarteari–; aldiz, komunitatearen gidaritza sinbolikoaren ereduari atxikiak ziren egiturek –gizarte ekimena iturri nagusi zutenek– bertze komunitate erreferente bat, gune sinbolikokoa, zuten ikusmiran. Hizkuntza erreferentzia komun nagusitzat zuten egitura gisa aipa genezake, adibidez, ikastolek osaturiko sarea⁶²³.

⁶²² Horren erakusgarri dira 5.1.1. atalean bildu ditugun legeak, noski.

⁶²³ Tesian landu ez dugun arren, Bertsozale Elkartearen ibilbideari ere erreparatu beharko diogu, etorkizunean.

Edozein gisatan, gune mugatuaren gidarritza banatuen indarra gailendu zela iduri du, eta gune sinbolikoaren gidarritza lausotu egin zen. Zehazkiago, autonomien sistema sostengatzen zuten egitura ofizialek, pixkana-pixkana, botere egituratzaile-erakundetzaile nagusia eskuratu zuten; hain zuzen ere, 5.2.1. atalean aipatzen genituen kontrol egitura biren zuzendaritza medio: hezkuntza eta komunikabideen bidez.

Aitzitik, arestian aitzinatu gisa, gune eragileez aritzeko, beren ahalmena baldintzatzen duten iturriei behatzea ezinbertzeko deritzogu. Sarasuak zioen gisa:

Gauza askotarako da komenigarria gizartearen egitura instituzionala logika desberdineko eraketa eta ahalmen-guneen ikuspegi horretatik ikustea. Eta, bereziki, euskal hiztun komunitatearen politikaz eta garabideaz jarduterakoan ezin saihestuzko ikuspegia da, gure errealitatearen egituragatik. (2013: 68-69)

Iturri horien ezagutzak EKS garaikidearen zutarriak nola garatu ziren, modu osotuan, azaleratzen du; izan ere, irizpide horri erreparatuta ohartu gara, 1975etik aitzina, ahalmen iturrietan dinamika aldaketa nagusia gertatu zela.

Batetik, herriagandiko ekimena nagusi zuen gune eragilea autonomien sistematiko boterearen babesa jasotzen hasi zen; ikastolek jasotako diru laguntzak direla eta, Iban Izak –diru laguntza herrikoien garrantziaz gain (2010: 37)– erakunde ofizialengandiko laguntzak lortzeko bidea aipatzen du “4.1.3. Ikastolen Titulartasun Ofizialerako Arautegia” (*ibid.*: 106-110) eta “4.1.4. Nafarroako Foru Diputazioarekin emaitza antzuak” ataletan (*ibid.* 110-113)⁶²⁴. Bertzetik, kultur azpieremuen botere logika, autonomia lortu ahala, aldatzen joan zela ikusiko dugu; ELSren garapena aztertzeak erakutsi digu (zazpigarren atala), 1975era bitarte mugatu dugun epean, gizarte logikapetik ziharduen eremu maingua⁶²⁵ izatetik, merkatuaren eta autonomien sistemaren –hezkuntzaren, nabarmen, ikusiko dugunez– logikari ere erantzuten zion sistema izatera iritsi zela. Halatan, ELSren ahalmen egituratzaile-erakundetzailea gorpuzten zuten iturriak aldatuz joan ziren.

6.1.4.a. azpiatalean, 1975etik aitzinako fasean gune eragileak kuantitatiboki eta kualitatiboki aldatu zirela azaldu nahi izan dugu. Horretarako, gune eragileen izanaz aritu ondotik, 1975era arte nagusi izana zen botere iturriaz –gizarte logikapekoaz– gain, bertzelako logikak zituzten gune eragileak antolatzen joan zirela ikusi dugu. Dinamika

⁶²⁴ Ikus, baita ere, *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publikazioa* liburutik, 6.2. atalaren ondorioetan, bildu dugun aipamena (Mateos 2000a: 539).

⁶²⁵ Antolakuntza sendorik eta egitura finkatzailerik gabeko eremua baitzen.

aldaketa horretan, inflexio puntua autonomien sistemak ezarri zuen; sistema horrek bulkatzen zuen komunitate gidaritza langartuak, espresuki.

Gainera, Jon Sarasuak boterea aztertu ahal izateko egiten zuen proposamenari bi egokitze egin dizkiogu: batetik, ahalmen zehatz bati dagozkion iturriei erreparatu diegu –ahalmen egituratzailearen jabe ziren gune eragileei–; bertzetik, “estatu botere eta logika” zeritzonaren baitan, bi azpisail banatu ditugu –estatu eta komunitate sistemari zegozkienak–. Gisa horretan, komunitatearen gune mugatuaren gidaritzak gailendu zirela eta gune sinbolikoaren antolaketa egituratua zaildu zela zehaztu ahal izan dugu.

Halatan, euskal komunitatea bideratzen zuten gune eragileetan eta botere iturrietan dinamika aldaketa handia izan zela erran genezake: gune egituratzaileak –botere erakundetzailea zuten gune eragileak– ugaltu egin ziren, eta, osatzen hasiriko egitura horretan, botere iturriekiko harreman desberdinak agertu ziren; berregituratu egin ziren gizarte logika oinarria zuen ahalmenarekiko, kapitala oinarri zuenarekiko eta autonomien sistemak zuenarekiko –aitzinez estatuarekiko bakarrik izana zenarekiko– harremanak.

Ondoko azpiatalean, gune egituratzaileen eta ahalmen iturrien aldaketa kuantitatibo eta kualitatiboen ondorioz gertatu zen balioztatze prozesu andanaz arituko gara. Balioztatze prozesu berriek atal honetan azaldukoak oinarri izan zituzten, eta, gisa berean, baldintzatu zuten 6.1.3. atalean hizpide izan dugun identitate kolektibo berrizatuaren izana.

6.1.4.b. EKSren egituraketa: euskal kultur mailek jasaniko prozesuak

Espresuki komunitatearen ondareaz ari garelarik, aipatu botere guneen eraginagatik gertatu ahal diren balioztatze konkretuei erreparatuko diegu. Horretarako, lehenik (b.1.), ondarearen izaera orokorraz argitze nagusi bat egin –ukigarri vs ukiezin–, eta ondareen balioztatze zabalaren kasuistika orokorra berrikustez gain, euskal kulturaren, 1975etik aitzinako fasean jasaniko balioztatzeen irudi orokorra egin dugu. Bigarrenik (b.2.), kultur sarearen hirugarren mailari behatu diogu, euskal kulturak mundu garaikidean parte hartzea ahalbidetu zuen mailari: kultur eremu berezituaren sistematizatzeari.

Halatan, balioztatze prozesuak maila desberdinetan gauza daitezkeela ikusiko dugu, ondoko azpiatalean: elementu kultural zehatzetan ez ezik, kultur sareek ere jasan ditzaketela. Euskal komunitatearen kasuan, maila horien guziena baldintzatzaile komuna

–kultur mailetan gertaturiko balioztatzeak besarkatzen dituen eragile komuna–
testuingurua izan zela ohartuko gara. Hau da, ondareen eta komunitateen arteko
harremana aztertzeke proposatu dugun hirugarren alderdia, preseski.

b.1. Kultur maila zabala eta maila zehatza: testuinguruan bat etorririko balioztatzeak

Balioztatze prozesuak kultur maila desberdinei eragiten dietela azaldua dugu
(3.1.3.c.). Bigarren kapituluan, Balioztatze Prozesu Nagusiaren izaera zabalak lagundu
digu Euskal Kultur Eremuan (EKE) gertatu zen balioztatze orokorra –1960-1975
bitartekoa– azaltzen; gainera, eragin horrek sistema izaerarik gabeko kultur
azpieremuen garapenean eragina izan zuela genioen. Hirugarren kapitulu honetan, aldiz,
1975etik aitzinako erakundetzeak bertzelako izaera gararazi zuen, azpieremu horietan;
eta, hortik abiatuta, sistematizatzen hasitako azpieremuetako balioztatze prozesuak
bertzelakoak izan zirela ikusiko dugu.

Horretarako, lehenik (b.1.1.), zeinahi ondarearen balioztatze prozesuez aritzeko
alderdiak aurkeztuko ditugu; ondarearen izanak, balioztatze prozesuek eta testuinguruak
elkarreragin hagitz garrantzitsua osatzen dutela agertuko dugu. Bigarrenik (b.1.2.),
euskararen azterketatik abiatuta, 5.1.2. atalean aipatu ditugun guneen eta balioztatze
prozesuen arteko harremanaz arituko gara; hain justu, euskararen azterketak azaleratzen
duen erakundetze maila bikoitza azaltzen lagunduko digute.

b.1.1. Ondare izanaren, balioztatze prozesuen eta testuinguruaren arteko elkarreragina

Ondare kulturalaren eta komunitatearen arteko harremanaren hezurdura bi
ideiatan bil liteke. Batetik, ondare kulturalak komunitateen oinarritzko mailen
egituratzaile izateko duen dohaina da garrantzitsu:

El patrimonio, una especie de simbología social para el mantenimiento y la transmisión de la memoria colectiva, está constituido por los bienes representativos de cada sociedad. Y se puede afirmar que los fenómenos patrimoniales revisten una triple dimensión: física, social y mental; es decir, material y simbólica.

El patrimonio intangible está en todos los aspectos de los bienes culturales. Y es la base de la identidad, la creatividad y la diversidad cultural. Es un patrimonio vivo, continuamente recreándose, que cobra vida a través de los seres humanos y de sus prácticas y formas de expresión. Mediante las manifestaciones patrimoniales significativas la gente recuerda y reconoce su pertenencia a un grupo social y a una comunidad; si bien la identidad cultural no es sólo una, sino múltiple, y siempre relacional y contextual; es decir, dinámica y procesual. (Marcos 2010: 2)

Ondare kulturala komunitatearen iragana, oraina eta etorkizun(irudikatu)a harremanetan jartzeko tresna da. Hori dela eta, komunitate gidarien helburu nagusietarik bat izan ohi da haren eskuratzea bideratuko duen egituraren jabe izatea –bortzgarren atalean hizpide izan ditugun kontrol egiturak, hain zuzen: hezkuntza, komunikabideak eta gune sinbolikoa–.

Bertzetik, sarri sailkapenetan hala banatua ageri den arren, ondare ukiezinaren eta ukigarriaren arteko banaketa hagitz zaila da; praktikan, dimentsio biak elkarri lotuak baitira:

Aunque habitualmente se establece una separación instrumental entre el patrimonio material e inmaterial, existe cierta dificultad para disociarlos, hasta tal punto que a veces se torna algo arbitrario o resulta artificial. Los valores culturales intrínsecos de los bienes culturales derivan, por una parte, de su dimensión material (los procesos de trabajo y las técnicas, las habilidades, el diseño y el marco contextual); y de otra, de los usos y las funciones, así como de los significados. De tal suerte tan sólo operativamente podemos desligar lo material de lo inmaterial; pues los bienes culturales deben valorarse de una manera interrelacionada. De hecho el patrimonio material refiere en sí mismo todo un conjunto de formas de vida, creencias, valores, emociones y significados que proporcionan sentimiento de identidad y pertenencia. De manera que el patrimonio cultural inmaterial⁶²⁶ no puede abstraerse totalmente del patrimonio material. (*Ibid.*: 4)

Hondarreko ezaugarri horrek ondarearen baliagarritasuna eremu eta dimentsio desberdinetara zabaltzen du; elkarreragin konplexuagoak, baina osatuagoak, erakusten dituzten harreman sareetara.

Ondare kulturalaren bi ezaugarriok –komunitate mailetakoko beharrak asebetetzeko ahalmena eta ukiezintasun-ukigarritasun banatze ezina– ondarearen berreskuratze, atzemate eta moldaketa prozesuak guziz baldintzatzen dituzte; hau da, *continuum*ean berezkoak diren mugimenduak eragiten dituzte. Hortaz, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana moldatzen duten garaietako, krisi garaietako, bereganatze, atxikitze eta lantzeak ere baldintzatzen dituzte.

⁶²⁶ “Ahora bien, algunas características los diferencian: el patrimonio inmaterial suele ser un patrimonio vivo y por ello en continua transformación; se transmite de generación en generación, intergeneracionalmente, y está permanentemente variando. Porque siempre la transmisión de los conocimientos y los procesos sociales de aprendizaje, por ejemplo las técnicas de las artesanías, o las prácticas y los usos sociales, rituales, etc., son inmateriales y se hace por vía oral, mediante la lengua, el gesto o la imitación. ‘La artesanía es material, no inmaterial. Pero la transmisión se hace por vía oral. En la artesanía, por ejemplo, está el objeto; pero también el trabajo sobre el objeto, que son la palabra, los gestos, las técnicas, los ritos’ (Condominas 2004)” (Marcos 2010: 4). Ematen duen erreferentzia bibliografian bildu dugun Unescoren (2004) argitalpenean da: George Condominas-en “Investigación y Salvaguardia del Patrimonio Inmaterial” (22.-32. or.).

Euskal komunitatearen kasuan, argigarria da, hagitx, 1960-1990 bitartean euskararekin gertatua; hori dela eta, ondare kulturalaren baitan, AOKren alderdi garrantzitsua den hizkuntza izanen dugu, b.1.2. azpiatalean, hizpide.

Thompsonen proposamenetik abiatuta, preseski, euskal ondare kulturalaren erakundetze prozesuak ekarri zituen balioztatzeak ager litezke: balioztatze ekonomikoa, sinbolikoa eta gurutzatua. Hala eta guziz ere, prozesu horien azterketa egin ahal izateko, Thompsonek ematen dituen argibide orokorrak egokitu egin behar direla uste dugu: batetik, arestian aipaturiko ondarearen izaera kontuan izan behar dugu, eta, bertzetik, balioztatzeek testuinguru zabalarekiko duten harremana ulertu.

Kasu honetan, Thompsonen argibideei testuinguru eta aztergai zehatzen ikerketarako beharrezko diren zehaztapenak eginen dizkiegu: adituak erranaz gain, erreferenteen izanari eta balioztatzearen eta testuinguru zabalaren arteko harremanari xehekiago behatu behar zaiela argudiatuko dugu. Gainera, hirugarren kapituluan bertan, balioztatze prozesuen egokitze teoriko osotua eskainiko dugu, 7.1.2.a. azpiatalean⁶²⁷.

Egiten dugun proposamenaren oinarria eragite harremanean da; izan ere, hizpide ditugun euskal komunitatearen eta garaiaren kasuan, eragite harremana norabide bikoia, bederen, izan zela sumatzen da. Hau da, balioztatze prozesuak ez ziren soilik ondarearen izanak baldintzatuak izan; ondarearen izanak testuinguruaren moldatze ahalmena –printzipioz, lukeen potentziala– baldintzatu izanaz gain, testuinguru soziohistorikoak berak mugatu zuen ondarearen ahalmen potentziala; helburu, eraikuntza eta egoera zehatzek osatzen zuten koordinatu multzora moldatu ere.

Azterketa praktikoari begira, zera erran nahi du horrek: euskal ondare kulturalako zeinahi elementuk, 1975-1990 bitartean, izan zituen balioztatzeak aztertze, batetik, elementuaren izana kontuan izan behar dela; eta, bertzetik, erreparatu egin behar zaiola balioztatze horrek, maila desberdinetan, korrespondentziarik izan ote zuen⁶²⁸. Korrespondentzia horiek testuinguruaren eragin nagusietan behatuta aurkituko ditugunez, hagitx kontuan izan beharko dugu testuingurua bera.

Testuinguruak arrunt baldintzatu zuen, hain justu, euskal komunitatearen garapen maila oro. Hortaz, 1975etik aitzinako berregituratze zabalaren garrantziak balioztatze

⁶²⁷ Thompsonek proposatzen dituen balioztatzeak forma sinbolikoen lanketarako pentsatuak izaki, zazpigarren atalean espresuki egokitu ditugu Thompsonen erranak ELSren azterketara (7.1.2., b.1.), eta eremuan izan ziren balioztatze nagusiak aurkeztuko ditugu (7.1.2., b.2.1., b.2.2.).

⁶²⁸ Hori dela eta, baliabide sinbolikoen bilgune –literatur eremu– eta baliabide sinboliko zehatzen –tradizioaren agergune den literatur tradizioaren– azterketara egokituriko proposamenari tarte bereizita eskaini diogu: Thompsonen ideietatik abiatuta, balioztatze zehatzen korrespondentzia zabalak kontuan dituen proposamen teorikoa eta azterketa eginen ditugu (7.1.2.b.).

prozesuen izaera berezitua lagundu zuen, eta komunitatea –Aro Ilunaren ondotik, estatutik– egokituriko autonomia mailara doitu beharra baldintzatzaile nagusia izan zen.

Egokitze prozesu hori izan zen balioztatzeak, komunitate maila zabalean, eragin zituena. Hala nola, ordura arte euskararen balioztatze sinbolikoa muga fisikoez haratagoko komunitate batasunetik eta hartzaile multzotik abiatua izana bazen, 1975etik aitzina, bertzelako ekoizle nahiz hartzaile multzoa “egokitu” zitzaion: artifizialki, komunitate ezaugarri nagusiaz bertzelako irizpideetatik abiatuta, komunitate partzialari zegozkion kontrol egiturek bereganatu zuten⁶²⁹ gune sinbolikoaren gidaritza izaten hasia zen erreferentearen kudeaketa orokorra.

Bertzela erranda, gune sinbolikoari erreparatzen zioten komunitate indarrak nagusi izatetik, gune mugatuak ikusmiran zituzten proiektuen indarrak hedatzera jo zen. Autonomien sistemak ezartzen zituen helburuek hagitz zail bihurtu zuten euskara oinarri zuen komunitatearen bateratze egituratua. Hori dela eta, segidan heldu den azpiatalean azalduko dugunez (b.1.2.), ordura arteko euskarak jasana zuen balioztatze sinbolikoa, komunitate maila zabalari zegokiona, kontraerranean agertu zen 1975etik aitzinako komunitate egitura langartuarekiko.

Beraz, testuinguru nagusiaren garrantziak baldintzatzaile gisa jokatu zuela diogunean, autonomien sistemak abiaraziriko prozesuak ditugu buruan, bereziki; sistema horrek egitura berriak nahiz horien funtzionalitatea bermatuko zuten eremuak garatzea ekarri zuen. Halatan, komunitateko autonomia zatituaren jabekuntzak prozesu zehatzak –paraleloak eta, zenbaitetan, kontraerriak– abiatu zituen; EA Eren azterketan ardaztu garenez, erkidego horren irudi berria maila guzietan sostengatuko zuen erreferente, ideia nahiz sinboloak hautatu zirela zehaz liteke, eta horiek bermatzeko egiturak ezarri behar izan ziren.

Moldaketa horretan, eta beti ere mundu globalizatua ikusmiran, euskal komunitateak bere osotasunean errealitate zehatzaren baitako eremu kulturelei egokitu ohi zaizkien balioztatze prozesuak jasan zituen. Kulturaz ari garelarik, merkatuaren sorkuntzak balioztatze ekonomiko berria ekarri zuen, eta estaturik gabeko nazio izateak –nahiz Aro Iluna akitu berria izateak– balioztatze sinbolikoak aitzina jarraitu⁶³⁰ izana erraztu zuen.

⁶²⁹ Ohar bedi irakurlea “egiturek” diogula; beraz, komunitateko hartzaile nahiz ekoizle multzoak alde batera utzi ditugula.

⁶³⁰ Oroitu balioztatze sinboliko prozesu zabala 60ko hamarkadan hasia zela.

1975etik aitzina euskal kulturak, maila zabalean, izan zituen balioztatze prozesuak testuinguru berri nagusi horrek baldintzatu zituen. Hala, bada, maila nagusian gertatzen ari zen aldaketa horretan ulertu behar dugu kultur elementu eta baliabide jakinek jasaniko balioztatze zehatza. Balioztatzeen eta testuinguruaren arteko harremanaren ikuspegi nagusi horrek ahalbidetzen du maila desberdinetako prozesuak xeheki aztertzea; alabaina, azpiatal honetan argudiatu dugunez, prozesuak jasaten dituen ondare zehatzaren izana ere kontuan izan beharko dugu.

Batetik, euskal kulturak –bere osotasunean– jasan zuen balioztatze prozesu nagusia dela eta, azpiero kulturalen berrantolaketa izan zela ikusiko dugu (6.1.4., b.2.); gaurgero abiatuak zirenen sistematizazioak eta erakunde egitura berrien agerrera guziz baldintzatu zuten euskal ondareak jasaniko balioztatze ekimen orokorra. Bertetik, ondare zehatzek jasaniko balioztatzeak ere hagitik garrantzitsuak izan zirenez, erran berri direnek errealitatean izan zuten presentzia agertu nahiz, euskarak izan zuen balioztatzeari erreparatuko diogu, b.1.2. azpiatalean.

b.1.2. Euskararen kasua

Balioztatze prozesuak maila desberdineko ondare azterketara egokitzen direla ikusteko, balioztatze nagusien erdigune izan zen aztergaiari behatuko diogu. Horretarako, euskal komunitateak 60ko hamarkadan hasiriko prozesu nagusiaren ibilbidea kontuan izanik, fase bietan gune izan zen ondarea hautatu dugu: euskara.

Bi alderdik baldintzatu zuten euskararen balioztatze prozesua: ondare izanak eta testuinguruak –hau da, b.1.1. azpiatalean agertu berri dugunez, zeinahi ondarearen balioztatzeak aztertzeko espresuki kontuan izan behar direnak–. Batetik, hizkuntzari kultur moldaketaren bigarren fasean esleitu zitzaizkion funtzioen eta lehen fasean lortu zituen arteko jarraitutasunaz aritu beharko gara; ikusiko dugunez, lehen fasean esleituriko funtzioak, 1975etik aitzina, komunitatearen gune desberdinek –eta gune horietariko erakundeteez– erabili zituzten. Bertetik, 1975etik aitzina eraikiaz joan zen egitura instituzionalaren eragina kontuan izanen dugu; gune mugatuak zituen kontrol egiturak botere handikoak ziren, eta gune sinbolikoaren antolakuntzak ez zuen hain egituraketa sendorik lortu.

1975etik aitzinako funtzio praktiko-sozialaren oinarria, gainera, testuinguru berriak bulkaturiko komunitate langartuaren berregituraketan zen. Erran nahi baita euskal identitateak egitura politiko-ekonomiko-administratibo berriekiko kinkan jarraitu

zuela muga fisikoez haratagoko gune sinbolikoa egonkortzeko lana; identitate zabal hori autonomien sistemak bulkatzen zuen partitzeari kontrajarria zen, nonahitik begiratuta ere.

Bitasun hori sumaturik, erakundetze prozesuan, bi mailatako eraginak kudeatu behar izan zirela erran liteke. Batetik, autonomien sistemak ezarritako muga fisikoei egokituriko prozesuak izan ziren, komunitatearen gune mugatuei egokitzen zitzaizkienak: autonomien sistemak bideratu nahi zituen identitate langartuei egokituriko kultur sareak, hezkuntza sistemak, eta abar. Antonio Campos-ek Ikastolen Konfederazioa sortzeko izaniko bi arazo nagusiak langartze horretan identifikatu zituen: “beti bi arazorekin topo egiten genuen: batetik, Espainiako Estatuan, bi administrazio diferente genituela; eta bestetik, Iparraldearen kasuan, beste estatu bat” (*in* Iza 2010: 138).

Egitura ofizial horiek aitzinez abiatua zen gune sinboliko ahularen gainetik ezarri ziren; ahula diogu, kultur eremuaren erakundetzea kontrol egitura sendoekin bermatzen zituzten gune mugatu antolatuen aldean. Zernahi gisaz, bertzetik, autonomien sistemak bulkaturiko erakundetze prozesua moldatu zitzaion, hein batean, euskal komunitatearen erreferente, baliabide sinboliko eta mugari ez-fisikoei zegokien mailari ere. Ikastolen kasuan, adibidez, gune sinbolikoaren zabalari zuzenduak izan arren, “barneratze” aukerak bilatu ziren, EAEn eta NFEn.

Bi maila horien kudeaketa goiti azaldu ditugun komunitate gune moten eta erakundetze prozesuen arteko harremanean oinarritu zen. 5.2.1.b. azpiatalean azaldu gisa, independentziaz bertzelako autonomia mailetan komunitate ordezkariak desberdina duten guneak aurki litezke. Hizpide dugun kasuan, gune horietariko bakoitzak modu desberdinean garatu zuen testuinguruarekiko harremana: gune bakoitzak moldatu egin zuen testuinguruak bulkaturiko erakundetzea bere izanera eta komunitate helmugara. Ondorioz, euskal komunitateak, 1975etik aitzina, jasaniko moldaketa kulturalen, bi erakundetze mota nagusi bereiz litezke:

Erakundetze mugatua

Gune mugatutik eta gune mugatuaren mesedetan bideraturiko erakundetze prozesuari egin nahi diogu erreferentzia.

EAEko eta NFEko egiturei egokituak ziren erakundetzeak gune mugatuak izan ziren: hiztun komunitate zati, adiera eta identitate batzuen muina biltzen zituzten –partziala, hertsia eta alderdi administratibo-politikotik mugatua, hurrenez hurren–.

Erakundetze zabala

Gune sinbolikoaren antolaketatik edo/eta gune mugatuaren laguntzaz, gune sinbolikoari mesede egiten dion erakundetze prozesuari egiten diogu erreferentzia.

Hizpide dugun kasuan, komunitatearen ordezkariak sinbolikoari egokitua zen erakundetzeak hiztun komunitatea biltzen zuen –alderdi administratibo-politikoak mugatu gabea–.

Nabaria denez, gune mota bakoitzari erakundetze bana dagokio; halatan, 5.2.1. atalean azaldurikoak hagitz baliagarri izan dira, 1975etik aitzinako euskal erakundetze mailak deskribatzeko. Gune horien izana hausnartu ezean, nekez uler zitekeen erakundetze bikoitzaren nondik norakoa.

Egungo ikuspegitik behatuta, bikoiztasun horrek berak izugarri garrantzitsu bihurtu zuen euskal komunitatearen maila sinbolikoa, bai orduko, baita ondoko komunitate garapenerako ere⁶³¹; izan ere, funtzio, ondare eta gune sinbolikoen potentziala zuten, eta dute, administratiboki eta politikoki botere nagusiek banaturiko komunitatea biltzeko.

Aztergai dugun garaian, erakundetze horiek izaniko garapena puntu honek bereizi zuen: gune sinbolikoak ez zuen gune mugatu langartuak adina antolakuntza eta egituraketa sendorik lortu. Edozein gisatan, desorekatua izanagatik, bi erakundetze maila izan zituen euskarak; izan ere, autonomien sistemak ezarritako mugak gainditzen zituzten elkarteek hizkuntza partekatu zuten, eta, beraz, sistema berriak mugez haratagoko komunitate izaera batzen zuen –funtzio praktiko-sozialaz gain, funtzionalitate sinbolikoa ere bazuenaren seinale–.

Euskararen erakundetze mugatua islatzen duen adibidetzat har liteke hezkuntza sistema publikoaren bidea; EAeko Estatutuak biltzen zituen eskubide eta bermeak izan arren, ezinbertzean zituen hartzaile eta onuradun EAeko hiru lurraldeak. Beraz, euskal hiztun komunitatearen zati bat bakarrik besarkatzen zuen⁶³². Komunitate errealtate partzial horren gidaritza gune mugatutikoa izaki, erakundetze mugatua izan zen hura. Erakundetze zabalean, aldiz, ikastolen ibilbidea da, bertzeak bertze, aipagarri. Ikastolen

⁶³¹ Tesiaren aztergaraitik kanpo izan arren, komunitate beharren bigarren mailaren egokitze premia ulertzeko hagitz garrantzitsua da puntu horri; izan ere, bikoiztasun horren alderdi bakarra landuz gero, komunitatearen bertze erreferente multzoa hankamotz geratzeko arriskua baita. Euskal komunitatearen kasuaz ari garelarik, gune sinbolikoari atxikiriko erakundetze zabala nahikoa garatu ez izanak komunitate identitate ez-administratiboa ahultzeko arriskua biderkatu egin du.

⁶³² Bertze gainerako errealtateaz, legeen hustuketari eskainiriko atalean (5.1.1.), azaldu dugu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legeak Nafarroan bilduriko komunitatea hiru hiztun eremutan zatitzen zuela eta, Iparraldean, ofizialtasunik gabeko hizkuntza izan dela euskara.

ibilbideak, 1975eko prozesuaren ondoriozko langartze administratiboaz haratago, euskal hiztun komunitatea estatu bitan banatzera daramakien testuinguruaren mugak gainditzen ditu: Ipar nahiz Hego Euskal Herrian bizi den euskal hiztun komunitatea oinarri-oinarrizko identitate ezaugarriaren baitan biltzen da, euskaraz eta euskararen irakaskuntza partekatzen duen hezkuntza sistema berean. Alabaina, egia da erkidegoen botere gunetik laguntzak jaso zirela⁶³³ –eta dituela–; beraz, paradoxikoki, gune mugatuaren izana bulkatzen zuen egitura instituzionalak gune sinbolikoaren logikari erantzuten zion egitura nagusietarik zenbait sostengatu zuen⁶³⁴.

Euskarak gune horiengandik lortu zituen funtzioetan sumatzen da, hain zuzen ere, Thompsonek aipatzen zituen balioztatzeekiko lotura. Funtzioen lorpena balioztatze prozesuren batekiko korrespondentzian eta mendekotasunean izaki, gune bakoitzaren erakundetzearekin eginiko funtzioen esleitze berriak, batetik, balioztatze zaharrak izan zituen oinarri, eta, bertzetik, balioztatze prozesu berriak izan zituen eguneratzaile.

Euskararen kasuan, funtzionalitateen eta Thompsonek aipatzen zituen balioztatzeen artean ondoko harremana sumatu dugu: bi erakundetzeek finkatu zituzten funtzioak garatu ahal izateko, ezinbertzekoak izan ziren euskararen balioztatze ekonomiko eta sinbolikoa; gainera, balioztatze horien garapenak euskararen balio teoriko soila guziz gibelean uztea ekarri zuen.

Euskarak abiatutako funtzioen garapena balioztatze sinboliko nagusi bati eskerrak gertatu zen. Thompsonek balioztatze mota horri buruz erranak gogora ekartzen baditugu, euskarak 1960tik eta 1975etik aitzinako faseetan lorturiko tokiak, funtzioek eta atxikimenduek balioztatze mota hori oinarri-oinarrizko abiapuntu izan zutela ulertzen da:

it is the process through which symbolic forms are ascribed a certain ‘symbolic value’ by the individuals who produce and receive them. Symbolic value is the value that objects have by virtue of the ways in which, and the extent to which, they are *esteemed* by the individuals who produce and receive them – that is, praised or denounced, cherished or despised by these individuals. (1990: 154-155) (Azpimarra ez da gurea)

Euskal komunitateak euskararekiko garatu zuen harreman berrian, 60ko hamarkadatik aitzina landuriko horretan, balioztatze sinbolikoa mugari izan zen; hari eskerrak, hagitz makaldua zen euskararekiko lotura arrazoiaz haraindiko argudioek

⁶³³ Horren azalpen osoturako Mateos 2000a eta Iza 2010 erreferentziak eman ditugu.

⁶³⁴ Kontraerrana iduri duen horrek gune sinbolikoaren izana bermatzen duela argudiatuko dugu, ondorio nagusietan.

babesteko sostengu gehiago garatu zen. Hizkuntzarekiko atxikimendua berariaz hautatu beharreko erabakiak sostengatua izaki, espresuki garrantzitsua izan zen euskararen balioa alderdi sinbolikotik babestea. Balioztatze sinbolikoaren gerizan, komunitatearen ezaugarri komun gisa abiatua zuen bideak aitzina jarraitu zuen. Bertzalde, 1975etik aitzinako erakundetze bikoitzak balioztatze sinboliko horren itxura nagusia aldatu egin zuen; ordura arte komunitate maila zabaletik abiatua zen balioztatze sinbolikoa komunitate partzialaren gidaritza administratiboetatik heldu ziren egiturek ere bereganatu baitzuten –beti ere HEHko bi erkidegoez ari garela kontuan izanik–.

Kontraerran horren gibelean, testuinguru berriari egokitzen zitzaion balioztatzeak euskararekiko arauak moldatu egin zituen.

Economic valorization is the process through which symbolic forms are ascribed a certain ‘economic value’, that is, a value for which they could be exchanged in a market. Through the process of economic valorization, symbolic forms are constituted as *commodities*; they become objects which can be bought and sold on a market for a price. (*Ibid.*: 155) (Azpimarra ez da gurea)

Euskarak, 1975etik aitzinako berregituraketan, komunitate egitura berriekin harreman berriak garatu zituen. Hala, balioztatze sinbolikoaz gain, merkatuan helburu militantez haratagoko interesak nabariagoak ziren zirkuito(et)an bidea abiatu zuen, ELSren garapena dela eta ikusiko dugunez.

Hala, bada, euskararekin egin gisa, denborarekin aztertu egin beharko dira ondare kulturalako elementuen funtzionalitateen eta balioztatze prozesuen artean gerta daitezkeen harremanak. Printzipioz, batetik, funtzionalitate teorikoaz bertzelakorik garatzeko, balioztatze prozesuak gertatu behar direla iduri du; bertzetik, egungo ikuspegitik begiratuta, mundu globalizatuan zernahi funtzio ez-teoriko garatzeko balioztatze ekonomikoaren gailentzea gero eta handiagoa dela iduri du. Zernahi gisaz, hipotesi horiek azterketa gehiagorekin osatu beharko ditugu.

b.1. azpiatalean erranak bilduz, euskal komunitateak, 1975etik aitzina abiatu bidean, erakundetze bikoitza bizi zuela erran daiteke: erakundetze mugatua eta erakundetze zabala. Horietariko bakoitzak zegokion gune mota bulkatzaile nagusi izanen zuela iduri bazuen ere, gune sinbolikoari mesede egiten zioten erakundeek gune mugatutiko laguntza ere eskuratu zuten –ikastolen kasua aipatu dugu–. Edozein gisatan, erakundetze bakoitzak komunitate erreferentzia bana izan zuen jomuga nagusi.

Testuinguru berak baldintzatua zen prozesu bikoiztasun horren gibelean, ondare kulturalaren izanak zererran handia izan zuen; AOKren baitako zen hizkuntza bi

erakundetzeen tresna nagusi bihurtu zen. Ondorio gisa, hizkuntza bera izanagatik, erakundetze bakoitzak hizkuntzaren balioztatzea modu desberdinean kudeatu zuela ohartu gara. Zehazkiago, erakundetze bakoitzak zegokion guneari egokituriko balioztatze eta funtzioak garatu zituela.

b.2. EKEren egituratze sistemikoa: EKSren abiapuntua(k)

Ondare kulturalak jasan ditzakeen balioztatze nagusiez aritu gara, b.1. azpiatalean. Euskal komunitateak 1975etik aitzina jasaniko prozesua aztertzeko, ordea, balioztatze horiek bideratu zituen egitura berri nagusiari behatu behar, ezinbertzean. Erran nahi baita euskal komunitatea garai eta helburu berrietara egokitu beharrak bulkatu zituela, batetik, ondarearen balioztatze berriztatuak, eta, bertzetik, kultur eremuen egitura sistemiko modernoak –egun merkatua gune dutenak–.

EKEko elementu eta egituren berregituratzeak euskal kultura berreskuratu berria⁶³⁵ hurbilarazi egin zuen Europako gainerako herrialdeen errealitatera: euskal kultura finkatu gabeko eremu izatetik EKS integratua izatera heldu zen. Nolanahi ere den, botere politikoen antolakuntzaren mendean barreiatua zen euskal kultura, eta, beraz, langartua jarraitzen zuen kultura horren eragile, egile eta hartzaile multzoak⁶³⁶: egitura politiko-administratibo desberdinetan egituratzen zen arren, eta hiztun komunitatearen ehunekoia lurraldez lurralde desberdina izanagatik, EKS bereko parte-hartzaile multzoa zen; EAE gune izanen zuena. Edozein gisatan, egoera horretan, antolakuntza identifikatzaile eta egitura egokituak finkatu egin ziren euskal kulturari –ikastolak, kasu–.

Ondoko orrialdeetan, EKEk jasan zuen egituraketaren garapenari ikuspegi sistemikotik behatu ahal izateko oinarrizko informazioa eskainiko dugu. Horretarako, lehenik, ikuspegi sistemikoaren kriterio nagusiak laburbilduko ditugu⁶³⁷ (b.2.1.). Hartara, ondoko azpiatalean (b.2.2.,) 1975etik aitzina EKSk espresuki garatu zuen antolakuntza ulertzeko hainbat oinarrizko zehazte egingen dira.

b.2.1. Ikuspegi sistemikoaren kriterio nagusiak

⁶³⁵ Oroitu berreskuratzeak bi alderdi ekartzen dituela: kultura osatzen duen ondarea hurbiltzea –bai fisikoki eskuragarri jarriaz, bai jendartera egokituz, funtzional bihurtuz– eta kultura horren kontzientzia izatea eta barneratzea.

⁶³⁶ Aski jakina denez hizpide dugun garaia 90eko hamarkadara bitartekoa da; hortaz, EKSren izaerari buruz orokorrean dihardugunean, bertzerik erran ezean, hizpide dugun garaiari egiten diogu erreferentzia.

⁶³⁷ Kriterio horien azalpena, bertzerik agertu ezean, Mirko Lampisen “La semiótica de la cultura: hacia una modelización sistémica de los procesos semióticos” (Lampis 2009) artikulutik egin dugu.

1960-1975 bitarteko garapenari jarraiki, 1975-1990 bitartean lortu zuen euskal kulturak testuinguru berrian bizirauteko ezinbertzeko zuen izana: sistema funtzionamendua zuen eremu izatea. Segidan, “sistema” izaera horrek berekin zer dakarren behatu nahiko genuke; horretarako, izate sistemakoa espresuki lantzen duen ikuspegiaren kriterioak deskribatuko ditugu: hau da, ikuspegi sistemikoarenak.

Ikuspegi horrek sistemak, egitura nagusiagoen baitan izanik, irekiak eta aldakorrak direla onartzen du, sistemei funtzioak egiturak berak ematen dizkielarik. Mirko Lampis-ek erran gisa, ikuspegi sistemikoarekin:

solemos indicar un tipo específico de actividad epistémico-crítica, una determinada manera de investigar e interrogar los procesos del conocimiento, la conformación de la realidad y el funcionamiento y los fundamentos de ese conjunto de prácticas cognoscitivas y objetivadoras que comúnmente llamamos “ciencia”. (2009: 31)

Horretarako, hainbat ideia nagusi hartzen ditu kriterio gisa, eta ideia horietan biltzen da, hain zuzen ere, sistema izaera duen egitura erlazionalaren muina.

Modu orokorrean bada ere, interesgarria da Mirko Lampisek ikuspegi horren oinarritzko alderdi gisa identifikatzen dituen bederatzi ideia, prozedura eta interpretazio bideei erreparatzea; izan ere, ikuspegi sistemikoak abiapuntu gisa dituen alderdiek EKEk, 1975etik aitzina, lehen fasearekiko erlazioan, jasan zuen garapena hobeki ulertzen lagunduko dute (erreferetzia guztiak Lampisen artikulutik atera ditugu).

1) Behaturiko gertakarien dimentsio sistemiko, holistiko edo ekologikoa (31. or.)

Sistema integratuez⁶³⁸ ari garelarik, sistema osoak bere baitako atal desberdinen batuketa soilak ez bezala jokatzeko duela ulertzea da oinarritzko, “y que estas partes, si es que se admite su existencia autónoma, se vuelven *cualitativamente* nuevas cuando entran en las dinámicas de la totalidad” (azpimarra ez da gurea). Ondorioz, sistema bat osatzen duten elementuak eta horien funtzionamendua ezagutzeko, ezinbertzekoa da sisteman bertan duten jarduna, parte-hartzea eta elkarreaginak ulertzea. Horretaz gain, sistema ororen jarduna eta elkarreagina unitate integratu gisa bakarrik uler liteke; eremu sistemiko nagusiago baten baitako elementu gisa.

⁶³⁸ “es decir, conjuntos organizados de elementos que interactúan con más intensidad o frecuencia entre sí que con lo que los rodea” (1. or.).

2) Erlazioen dimentsioa (31.-32. or.)

Pentsamendu sistemikoak objektu eta elementu bakar nahiz multzoak osatu, elkartu eta desberdintzen dituzten erlazio nahiz interakzioetan jartzen du fokua. Horregatik, objektuen erlazio sareetako parte-hartzeaz haratago, izateari, formari eta garrantzia beren dinamikei behatzen die; harreman sareen identifikazioa, hain zuzen ere, kontuan izaniko erlazioaren arabera izanen delarik. Ondorioz:

lo que identifica a cualquier objeto y a cualquier sistema de objetos es, en otros términos, un patrón relacional que participa o se inserta en una red más extensa de relaciones; cobra especial relevancia, en esta óptica, la noción de *frontera* (o *límite*, o *interfase*), el conjunto de las estructuras y procesos que, siendo parte integral del sistema, lo separan de su red operacional y a la vez lo conectan a ella (32. or.) (azpimarra ez da gurea)

Hala, bada, sistema oro unitate integratu –“operacionalmente clausurada (Maturana y Varela, 1984)⁶³⁹” (azpimarra ez da gurea)– eta eremu sistemiko zabalago bateko partaide gisa eratzten da.

3) Antolaketa (32. or.)

Lampisen hitzetan, sistema bat identifikatzen duen barne-erlazio patroia edo konfigurazioak sistema horren antolaketa osatzen du. Antolaketa horri atxikiak diren bi kontzeptu argitzen ditu ikerlariak: antolaketa –“organización”– eta egitura –“estructura”–⁶⁴⁰. Biak banaezinak izanagatik, pentsamendu sistemikoak lehenak⁶⁴¹ omen ditu nahiago; izan ere, “antolaketa” delakoak sistemaren existentzia eta izaera berezkoa hautatzen dituzten funtsezko erlazioak biltzen ditu.

4) Prozesalitatea (32. or.)

Aldakorrak diren operazio inguruneekin elkarreraginean izateaz gain, denboran aldakorrak diren sare integratuak dira sistemak; ez, beraz, egitate autonomo eta aldagaitzak. Prozesu historikoak dira, eta bertan parte hartzen duten erlazio sistemak eta egiturak aldatuagatik, sistema identifikatzen duen antolaketa mantentzeko ezinbertzeko diren erlazio patroiek iraun egiten omen dute. Beraz, patroia horiek desagertzen direnean, sistema, unitate gisa, akitu egiten da.

⁶³⁹ Lampisek emaniko erreferentzia: Maturana, Humberto eta Francisco Varela, 2003 [1984], *El árbol del conocimiento: Las bases biológicas del entendimiento humano*. Buenos Aires: Lumen.

⁶⁴⁰ Gu ere saiatu gara banaketa hori, lanean zehar, hein batean kontuan izaten.

⁶⁴¹ Aldiz, “egitura” delakoak: “ ‘sólo’ remite al conjunto de componentes físicos que con sus interacciones realizan la organización, componentes que pueden (y a veces, incluso, deben) variar a fin de que la organización siga existiendo (a fin de que el sistema perdure en el tiempo)” (2. or.).

5) Dinamismoa (32. or.)

Sistema baten izana aztertzeko, bi dimentsio direla erran genezake: dimentsio dinamikoa eta dimentsio estatikoa. Pentsamendu sistemikoa dimentsio dinamikoaz⁶⁴² arduratzen da, gehienbat. Hori dela eta, pentsamendu sistemikoarentzat sistema zergatik aldatzen den, zertara bideratzen den eta, aldaerarik bada, aldaketan zehar horiek zergatik mantentzen diren jakitea da garrantzitsuena. Hau da, egoera batetik bertzerako prozesu diakronikoan gertatzen den trantsizioa iduritzen zaio, bereziki, garrantzitsu⁶⁴³.

6) Kausalitate zirkularra (32.-33. or.)

Sistema integratu batean prozesu kausalak ez dira, normalki, zuzenak eta norabide bakarreak izaten; kontrara, norabide aunitzetan mugitu, eta etengabe gibeletkatzen⁶⁴⁴ dira, beren baitara bihurtu, gurutzatu eta gainjarriaz. Halatan:

con frecuencia conforman un intrincado complejo sincrónico (aunque no necesariamente armónico) de relaciones causales circulares (o circuitales, o autorreferentes); es de este complejo causal que depende, en última instancia, tanto la *autorregulación* del sistema como su deriva estructural en el tiempo (33. or.) (azpimarra ez da gurea)

7) Sortzea (33. or.)

Sistema integratuek beren baitako atalek modu bakanduan ez dituzten hainbat propietate agertzen dituzte. Propietate horiek sistemaren antolakuntza orokorretik heldu dira:

propiedades que *emergen* de la organización global del sistema mismo, del conjunto de interacciones estructurales y causales que ligan el operar de sus microcomponentes en pautas extensas de macroactividad (azpimarra ez da gurea)

⁶⁴² Guk geronek kulturaren azterketarako proposatu dugun ikuspegia bezalaxe (ikus A eranskinen "Kultura" sarrera).

⁶⁴³ Sistema baten dimentsio estatikoak, aldiz, sistema horren egoera baten –dena delako bilakaera izanik ere– eite sinkronikoari egiten dio erreferentzia.

⁶⁴⁴ Zera zehazten du Lampisek, oin-oharrean: "La noción de *retroalimentación (feedback)* es uno de los grandes legados teóricos de la cibernética. En el ámbito de la cibernética clásica, sin embargo, se estudiaron casi exclusivamente los procesos de *retroalimentación negativa*, es decir, aquellos en los que la actividad del sistema influye en (retroalimenta) el funcionamiento del sistema mismo mientras no se alcancen determinadas condiciones internas (así en las máquinas autorreguladas y así en el sistema nervioso de los animales). Pero en las últimas décadas ha venido despertado un gran interés también la noción de *retroalimentación positiva*: los efectos de un proceso se propagan hasta potenciar el proceso mismo, generando un bucle causal autoalimentado que altera el estado del sistema hasta alcanzar un nuevo equilibrio global (así en muchos sistemas físicos, químicos y biológicos alejados de las condiciones de equilibrio, incluidos los procesos reorganizativos que comportaron la emergencia de la vida y la deriva de los seres vivos)" (32.-33. or.) (azpimarra ez da gurea).

Bertzela erranda, sortzen ari den propietate –“propiedad emergente”– bat sistemaren funtzionamendua, bere antolakuntza prozesuan, gobernatzen duten harreman jarraibideen emaitza da⁶⁴⁵.

8) Konplexutasuna (33.-34. or.)

Sistema integratuek sarri izan ohi duten izaera sistemiko konplexuak hiru alderdi nagusi dakartza berekin: heterogeneotasuna, malgutasuna eta jokabidea aitzinez ezin jakina. Batetik, heterogeneotasunari dagokionez, sisteman parte hartzen dute modu diferenteetan elkarri lotuak diren eta deriba modalitate desberdinak dituzten sare eta azpisare integratuek. Bertzetik, multzoaren oreka orokorra –“su *homeostasis*, cierta invariancia relacional sin la que la organización del sistema no se realizaría” (33. or.)– mantendu nahian sistemako interkonexio eta egiturek duten aldakortasunak izaera malguaren berri ematen du. Azkenik, sistemaren jokabidea aitzinez ezin sumatu denez, ezin formalizatu edo konputagarria da. Ezjakintasun horren arrazoiaren artean, aldagai potentzial guztiak ezagutzeko zailtasuna dago; gainera, hasiera egoeretako zernahi aldaketak sor dezakeen aldakortasuna ere garrantzitsua da; are gehiago, elementu eta erlazio zenbaiten egoteek eta ez egoteek eragin handia dute; azkenik, adierazgarria da banaketa aleatorioaren ondorioz sistemaren dinamikaren gibelean den indeterminazioa bera.

9) Erlatibismo epistemikoa (34. or.)

Lampisek, R.H. Maturana-ren (1996)⁶⁴⁶ hitzak gogora ekarriaz, zera azaltzen du: jakite oro ezagutzen duen egitura antolaketaren mende bada –eta hori dela medio determinatua–, ezagutua ez da inoiz subjektu kognitiboa denarekiko eta egiten duenarekiko independentea.

Pentsamendu sistemikoa ikuspegi objektibista –errealista– nahiz subjektibistaren –idealisten– kontra dago:

⁶⁴⁵ Oin-ohar gisa, Lampisek: “A veces, como ejemplos de fenómenos emergentes, se proponen el calor o la solidez de los cuerpos. No me parece *totalmente* correcto. Propiedades como el calor o la solidez son sí propiedades de alto nivel causadas por interacciones microscópicas (interacciones y movimiento moleculares), pero pueden ser reducidas completamente a tales interacciones y a sus efectos en nuestro dominio operacional. La emergencia, en cambio, comporta la formación de propiedades sistémicas *que no se pueden reducir linealmente* a ninguna clase específica de micro-relaciones: ejemplos de fenómenos emergentes serían, en este sentido, la vida, la conciencia o la semiosis” (33. or.) (azpimarra ez da gurea).

⁶⁴⁶ Lampisek emaniko erreferentzia: Maturana, Humberto, 1996, *La realidad: ¿objetiva o construida? II. Fundamentos biológicos del conocimiento*. Bartzelona: Anthropos.

según la primera, la estructura cognoscente capta y manipula estímulos y señales procedentes de un entorno preexistente e independiente de lo que ella hace; según la segunda, la realidad percibida es una creación autónoma de la estructura cognoscente, la cual está totalmente encerrada en sí misma

Bi horien ordeaz, ikuspegi erlatibista –“o *dialéctica*, o *enactiva*” (azpimarra ez da gurea)– du pentsamendu sistemikoak, eta, gainera, “sujeto cognoscente” delakoa eta errealitate ezaguna elkarrekiko interakzioan –elkarrekiko akoplamenduan– soilik existitzen direla defendatzen du⁶⁴⁷.

Ikuspegi sistemikoak sistemen izaeraz argitzen dituen ideiak laburbildu ondotik, EKEk 1975etik aitzina izaniko garapenaren abiapuntu nagusiei erreparatuko diegu. Horretarako, EKEk izan zuen garapenaren abiatzeari irizpide sistemikoen arabera behatzeko, bi harreman maila nagusi izan zirela kontuan izanen dugu: abiapuntu den euskal kulturak testuinguruarekiko izan zuen harremana eta bere baitako antolakuntza berrian garatu ziren aldaketek sorturiko harremanak.

Bi harreman maila horien garapen sistemikoan mugarri izan ziren alderdi zenbait azpimarratuz, euskal kulturaren antolaketa moldatu zuten oinarriak agerraraziko ditugu: “autonomia” kontzeptua, komunitate islak –guneak– eta sistema ez-integratuen izana hausnartzuz, EKSren antolaketa berriaren funtsezko abiapuntuak agertuko dira; hau da, denborarekinn EKSren egitura izanen zenaren ardatzak.

Alderdi horiek hautatu izanaren arrazoiak bi izan dira: batetik, sistema izaera eta antolakuntzaren garapenak hausnartzeko baliagarri baitira, bai modu zabalean, baita EKSri dagokionez ere; eta, bertzetik, zazpigarren atalean hizpide izanen ditugun baliabide sinboliko zehatzaren azterketarako lotura eskaintzen dutelakotz.

b.2.2. EKS integratuaren abiatzea

Euskal kulturak 1975-1990 bitarteko testuinguruarekiko izan zuen harremanak ematen du kultura horrek, sistema integratu gisara, antolatzeko jasan zuen aldaketa nagusiaren berri.

Lampisek sistema integratuak zer diren azaltzeko darabilen definiziotik abiatuta, 1975etik aitzinako euskal kulturaren eta testuinguruaren arteko harremana deskriba

⁶⁴⁷ Lampisek aipatzen dituen erreferentzia bibliografikoak: Lewontin, R.C., 1998, *Gene, organismo e ambiente: I rapporti causa-effetto in biologia*. Erroma: Laterza; eta F.J. Varela 1998ko erreferentzia testuan agertu arren, bibliografian, Varela, F.J., 1990 [1988], *Connaître: Les sciences cognitives, tendances et perspectives*. Paris: Éditions du Seuil.

dezakegu: EKEk barne-elementu multzo antolatua osatzeko eta finkatzeko prozesua jasan zuen⁶⁴⁸; hau da, interakzio intentsitate edo elkarreragin maiztasun handiz –beren artean, inguruko elementuekiko baino gehiago– aritzen ziren barne-elementu multzo antolatua osatzea –eta egituratzea, denboraren poderioz– lortu zuen.

Sarri erran dugun gisa, 1975etik aitzina, testuinguru berria agertu, eta euskal komunitatearen maila orok aukera izan zuen kokapen eta helburu nahiz funtzio berriak garatzeko. Aukera nagusi horietarik baten osatzea izan zen, hain zuzen ere, EKEk bizi zuena: euskal kultura, aspaldi ez bezala⁶⁴⁹, sistema nagusiago baten partaide gisa onartu, eta legezatu zen. Egoera berri horrek euskal kultura bide berrietatik antolatzea ekarri, eta sistema integratu onartu gisa aritzera eraman zuen: 1975etik aitzina, euskal kulturak sistema integratu onartu gisa egituraketa berria garatu behar izan zuen. Testuinguruak bulkaturik, lege oinarrietatik abiatuta, sistema nagusiago batean txertatu zen EKE, Esp.KS nagusiaren baitako azpisistema gisa⁶⁵⁰. Egun, bertzelako ikuspegi eta garapenak agertzen dituzten ahotsak badira ere, hala agertu zen, garai hartan, euskal kulturaren lehen kokapen integratua; hortaz, baita kokapen horretatik abiatu zen antolakuntza eta egituraketa berrien garapena ere.

Ordura arte kultur sistema zabalagoak ukaturiko kultura izaki, hagitz pauso garrantzitsua izan zen hura, sistema integratu gisa bidea hobeki eraiki ahal izateko; urrats horri euskal komunitateak garatu beharreko alderdiak eta horien arteko elkarreragina gaineratzen bazaizkio, aisa uler liteke –EKSren antolakuntza berrian– egitura erakundetzailerak izan zuen garrantzia.

Sistema nagusiago batean txertatua izan arren, ordea, autonomia maila bat baino gehiago garatu zituen EKEk; izan ere, sistema integratu gisa finkatzeko proiektuak lagundu egin zuen sistema oro ezaugarritzen duten alderdi biren garapena: finkatze lanek ekarri zuten EKE eremu sistemiko zabalago baten baitakoa izatea (Lampis 2009, lehen kriterioa); gainera, EKSk elementuen batuketa soila, tai gabe, sistema osoaren izaera eta funtzionamenduari desberdina izatea. Bertzela erranda, EKS, 1975etik aitzina abiatutako bidean, Esp.KSko azpisistema gisa antolatu zen: haren baitako

⁶⁴⁸ Ikusiko dugunez, sistema integratua gisa horretan definituz, alboratua geratzen da euskal kulturak aitzinfasearekiko –1960-1975– jasan zuen aldaketa nagusien multzoa; izan ere, emaniko azalpenak ez baitu kontuan hartzen pareko eremu zabalagoan –kultur eremu zabalago batean, kasu honetan– integratuak ez diren sistemen egoera.

⁶⁴⁹ Hagitz gibela begiratu behar, Gerratea hasi aitzineko egoerara, EKEn izaera aski antolatu “onartua” aurkitu ahal izateko.

⁶⁵⁰ 1978ko Konstituzioko: Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 143. artikulua, 127. eta 129. or.; eta Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 148. artikulua, 131. eta 133. or.

izanagatik, abian jarri ziren azpisistema bateratu bereizia izateko beharrezko ziren barne-aldaketak.

Zernahi gisaz, ezin atzendu da testuinguruak berak bulkatu zuela EKSren garapena; beraz, legeek eskuragarri jartzen zituzten autonomia egiturek⁶⁵¹ berek lagundu zutela, sinkronikoki, EKS identifikatzen zuten barne-erlazio patroien sortze eta finkatzea. Egin kontu barne-erlazioen patroia edo konfigurazioa dela sistemen antolaketa osatzen duena (Lampis 2009, hirugarren kriterioa); beraz, konprenigarria da EKSren abiapuntua izan zela testuinguru aldatuak, 1975etik aitzina, eskuragarri jarri zuten identifikazio sistema berria⁶⁵². Ordura arte –Aro Ilunean zehar–, kontrara, euskal kultura ezin zen azpisistema integratu gisa identifikatu, sistema ez-integratu gisa garatu zuten elementu eta erlazioek osatua izaki.

Beraz, euskal kulturak 60ko hamarkadan abiatu eta, 1975etik aitzina, finkatu zuen bide kulturala trantsiziozkoa izan zen; antolaketa sistemikorik gabeko eremu egituratu gabea izatetik, sistema integratu eta integratzaile izatera jasan zuten trantsizioa. Berebiziko garrantzia du, euskal kulturaren eta garaiaren arteko interakzio hura ulertzeko, preseski, trantsizio egoera horretaz ongi ohartzeak. Batetik, EKS garaikidearen oinarriak orduan antolatu eta egituratu baitziren; bertetik, eremu sistemikoen garai bateko antolakuntzak baldintzatu ohi dituelako sistemaren kanon erreferentzialak –mundu globalizatuan, gerora, dituen kokagune, berme edo ukazioak–.

Lampisek berak solasgai duen hirugarren kriterioan, dinamismoari dagokion horretan, aipatzen da ikuspegi sistemikoan trantsizio egoerak direla interesgarri; bereziki erranahitsua da, adituarendako, sistema bat nola eta zergatik aldatzen den ohartzea, zein antolakuntza modu bihurtzen den eta barianteak –baldin badira– zergatik mantentzen diren jakitea. Azpiatal honetan egiten ari garen azalpen orokorrean, hain zuzen ere, EKEk 1960-1990 bitartean izan zuten aldaketa kualitatiborik garrantzitsuena laburbiltzen ari gara: EKEk sistema ez-integratu izatetik integratu eta integratzaile izatera jasaniko trantsizio bidea. Zazpigarren atalean (7.1.2.b.), aldiz, trantsizio horretan euskal baliabide sinboliko nagusien bilguneetariko batek izan zuten bide zehatza landuko dugu, ELERena; gainera, literatur tradizioan agergune duen baliabide sinboliko baten, tradizioaren, balioztatze nagusiak ere aztertuko ditugu.

⁶⁵¹ 1978ko Konstituzioko: Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 147. artikulua, 131. or.; eta Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 148. artikulua, 131. eta 133. or.

⁶⁵² ELS dela eta ikusiko dugunez, euskarazko hartzaileen gehiengoa EAEn bildua izan arren, bertze estatu edo erkidegoetan ziren hartzaile, sortzaile eta erakundeak ere baziren.

Hortaz, sistema integratu eta integratzaile gisa identifikatzen duten autonomia mailez ohartzeak agerrarazten du euskal kulturak, hizpide den fasean, jasan zuen bihurketako trantsizio bidea:

Sistema integratu mailako autonomia

Maila honetakoa da, EKSren osaeran, Esp.KSren baitan, barne-erlazio patroï antolatuekin elementu multzoek osaturiko antolakuntza.

Sistema integratzaile mailako autonomia

EKSren azpisistemekiko erlazio antolatuan izanik, eremu bereiziko elementu multzoek jasan dezaketen autonomia espezializatua dugu maila hau.⁶⁵³

Autonomia maila bikoitz horrek sistemako elementu oro oinarritzko erlazio-patroïen mende jarri zuen, sistema integratu mailan. Gure helburuetatik urruti gelditzen da, ordea, patroï horien xerkatzea, eta, beraz, lan proiektu gisa utziko dugu azterketa hori.

EKSko azpierenen autonomiari dagokionez, maila horren ondorio ziratekeen azpisistema bakoitzaren antolakuntza legeei, espresuki, egokituriko azpiantolakuntza –beraz, barne-erlazio patroï nahiz konfigurazioa– eta azpiegitura osatu ziren: kanon, merkatu, ekoizpen eta lege nahiz egitura egokituek EKSko azpierenen sistemikoen identifikazioa finkatu zuten; aunitzen artean, ELSrena.

Euskal kulturak 1975etik aitzina jasan zuen sistematizazio prozesua ulertzeko, EKSren barne-antolakuntza mailari espresuki eragiten dion harreman multzoari erreparatu behar zaio. Horretarako, ondoko paragrafoetan, azterketa konkretua (zazpigarren atalean garatua) gauzatzeko beharrezko izan diren hiru zehazte eginen ditugu. Hiru ideia horien oinarrian, euskal kulturaren egoerari bereziki moldatzen zaizkion zehazteak agertuko ditugu: “autonomia” kontzeptuari, komunitatearen isla nagusiari eta sistema integratu nahiz ez-integratuei buruzko hausnarketek EKSren garapen bereizia agertzen lagunduko dute.

1. zehaztea

Lehenik eta behin, erran gisa, “autonomia” kontzeptuari erreparatu behar. Orain arte, azpiatal honetan zehar ikuspegi sistemikoaren azalpenak hizpide genituela, berariaz saihestu dugu, ahal izan dugunetan, “autonomia” kontzeptua; izan ere, guziz

⁶⁵³ Horien artean izanen da, bertzeak bertze, zazpigarren atalean hizpide izanen den ELS.

zehatzak izateko, autonomiaren erabilera orokorrean, “eremu sistemikoen identifikaziorako erlazio patroiak” bereizi beharko genituzke. Azken hauek sistema integratu bakoitzaren erlazio antolakuntzari eta konfigurazioari egiten diote erreferentzia; hau da, sistema zehatz bati soilik dagokion antolakuntzari, nahiz bere baitako azpisistemei modu desberdinean eragiten dienari.

Ikuspegi sistemikoaren kriterioak hizpide izanik, abiapuntu garrantzitsu honek nahasmena sor dezake, sistemen “autonomia”ri dagokionez. Goiti, Lampisen testutik abiatuta, prozesalitateari buruz zehazturikoez ari gara:

los sistemas no son hechos autónomos e inmutables, sino redes integradas que *derivan* (cambian) en el tiempo mientras interaccionan con entornos operacionales también cambiantes; son, en otros términos, *procesos históricos* en los que, por un lado, varían las redes relacionales y las estructuras que en ellos participan y, por otro, se perpetúan aquellos patrones relacionales indispensables para la conservación de la organización que identifica al sistema (cuando estos patrones desaparecen, el sistema, entendido como unidad, deja de existir) (ikuspegi sistemikoaren laugarren kriterio nagusia, Lampis 2009: 32) (azpimarrak ez dira gureak)

Beraz, testuinguru aldakorrekiko elkarreraginez gain, sistema integratuak berak denbora aldakorrean aldagarri izateak ezinezko bihurtzen du, Lampisen hitzetan, sistema integratuak autonomo edo aldagaitzak izaterik; baina, beti ere, testuinguru eta aldakortasunari buruz ari dela kontuan izan behar da.

Badaezpada, tesian zehar erran ditugunek eta aztertuko direnek zein “autonomia”ri erreferentzia egiten dioten argi izatea komeni da. “Autonomo” izaera dela eta, behin baino gehiagotan aritu baikara, lanean zehar: tesiaren bigarren atalean, kasu, euskal kultur garapenaren ustezko autonomiaz eta militantziaz aritu gara (3.1.3., b.3.); hizpide dugun kultur moldaketaren bigarren fasean ere, euskal kulturak, EKS integratu berri gisa, eskuratu zuen autonomiaz arituko gara. Bi kasuetan aztergai dugun “autonomia”ri, ordea, ez diogu behatzen sistema integratuak sistema izateagatik berea lukeen ezaugarri gisa; kontrara, sistema integratuak eskuratu ahal dezakeen ezaugarri edo propietate gisa ulertzen dugu.

Hala, bada, EKSren autonomiak sistemaren barne-erlazio eta konfigurazioaz, antolakuntzaz, bertzelako iturria luke; baina, gisa berean, sistema integratuaren nahiz bere baitako azpisistema ororen barne-erlazio antolaketa guziz baldintzatuko lukeen propietatea da, guretako, autonomia. Beraz, ez litzateke Lampisek erranari kontrajarria.

“Autonomia” kontzeptuaren mugak lausoak izan ziren, hizpide dugun garaian; aitzingaraietan ez bezalako autonomia lortu zuen EKEk, ziur aski, aukera ideologiko-politikoak bereak zituen eremu propio gehiago izatearen ondorioz. Zailtasun

handienetariko bat, egun –oraindik ere– gainditu gabea dena⁶⁵⁴, militantziarena izan zen, eta euskalgintza eremuak abertzaletasun nahiz politikarekiko zukeen autonomia hagitz zailki nabarmen liteke.

Halatan, autonomia lortu izana baino gehiago, kultur eremuan autonomia horren izaera, mugak eta ahalmena, eraldatu egin zirela uste dugu: garai berrietako autonomiaren ulerkuntzara moldatu izana da lan honendako adierazgarrien; beraz, xeheki landuko dugu alderdi hau, zazpigarren ataleko aztergai zehatzen kasuan (7.1.1.).

Zaila da, edozein gisatan, euskal kulturak 1975etik aitzina bertze arloekiko autonomia eskuratu, eta soilik eremu berezitu gisa lege propioak garatu zituenik erratea; are gehiago, gezurra litzateke. Alabaina, bada erraterik eremuaren berezko izanaren eta testuinguru berriaren artean sorturiko harremanak ahalbidetu zuela autonomia mailaren bat; eremuen garapen berezitua ahalbidetzen zuen neurrian, bederen.

Komunitatean barna euskal kultura finkatu eta garatzeko funtsezko egitura begiztatzen zuten garai berriek; gainera, egitura politikoez bermatu egin behar zuten autonomien sistematik ezarririko helburu desberdinei egokitzea⁶⁵⁵.

2. zehaztea

Bigarrenik, euskal kulturaren azterketa berezitua egin nahi dugun honetan, “autonomia” terminoaz erranikoez gain, bertze zehazte bat egin beharra agertu da: berriz ere komunitatearen bi isla nagusiri behatu beharra sumatu dugu. Hau da, gune mugatuari eta gune sinbolikoari begiratu beharra; izan ere, bi gune horiei egokitu baitzitzaizkien EKSkoko azpisistemen izaera berezitua agertzen zuten elementu nagusietarikoak: kanonak. Azpisistema horietariko baten kasua, EKSkoren, ikertuko dugu, bereziki, zazpigarren atalean.

Kanonak dira⁶⁵⁶ azpisistema integratu horietariko bakoitzaren antolakuntza –EKS zabal integratzailearen antolakuntzari kontrajartzen ez zela– komunitate garapenarekiko interakzioan zela agerrarazten duten etsenplu nagusietarikoak. Bertzela erranda, 1975etik aitzina, EKSkoko azpisistemek finkatu zituzten kanonak dira hizpide dugun

⁶⁵⁴ “Familia abertzale baten grabitate indarretatik erabateko autonomiaz pentsatzeko gaitasuna oraindik euskalgintzak frogatzeko dauka sektore batzuetan. Frogatzen ez duen bitartean, zaila izango da arlo batzuetan apustu estrategikoak lotzea. Ez litzateke harriztekoa berriro ere euskal hiztun komunitateak behar dituen apustu batzuk bide erdian geratzea.” (Sarasua 2013: 179)

⁶⁵⁵ EAEko Estatutua: Atariko titulua, 6. artikulua; I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak, 10. artikulua; Aldi baterako xedapenak, hirugarrena. NFEko Estatutua: Atariko titulua. Xedapen orokorrak, 9. artikulua.

⁶⁵⁶ Azpisistema horietariko bakoitzak zituen barne-erlazio patroiz eta konfigurazioei egokituriko irizpideen arabera baitziren.

sistema antolakuntza eta beti gibelsolas dugun komunitate garapena elkarreraginean agerrarazten dituzten kultur elementu nagusietarikoak. Horren adibide argigarria, eta xeheki landu duguna, 7.2. atalean aurkeztuko dugu: EKSren garapenak kanonean jarri zuen literatur tradizioa komunitate garapenarekin bat heldu zela ikusiko dugu.

Aipatu elkarreragin horren funtsa behar, helburu eta nahi kolektibo nahiz banakoagoen eragina izan zen. Hiru alderdi horiei komunitatearen isla nagusi bietatik behatu behar zaie, ordea: gune mugatu eta gune sinbolikoan behar, helburu eta nahi kolektibo nahiz banakoaren eraginari behatu behar, isla horietarik bakoitzak komunitate garapenarekiko interakzioari alderdi desberdinetarik eutsi baitzion. Ondorio gisa, gune bakoitzari zegokion erakundetze berezituaz gain, kanon gidatzaile diferenteak egokitu ziren gune sinbolikoan eta gune mugatuan.

(a) Gune mugatuaren antolakuntzari egokituriko kanon kulturalak –beti ere EKSri nahiz haren baitako azpisistemei dagozkionak– gune sinbolikoak ez bezalako mugak zituen: estatuarekiko eta egitura langartuarekiko mendekotasuna, zabalena; guziaz EAEk –NFEk EAEn zuen EKSren muina– erkidego banako gisa egituratzeko behar ziren premietatik helduak. Hau da, autonomien sistemak egokituriko egituraren bermeak baldintzatua zen kanon kulturalaren funtsa; kanon horrek EKSrekin zuen interakzioa autonomien sistemak bideraturiko helburu eta tresna erakundetzailerik moldatua zen.

(b) Gune sinbolikoaren antolakuntzari egokituriko kanon kulturala lausoagoa da, printzipioz, atzematen; izan ere, euskal hiztun komunitatearen ordezkartza abstraktuari erreferentzia egiten dion gunea izaki, kanon hagitz zabal bat soilik identifika liteke 1975-1990 bitarteko kanon nagusi gisa: hizkuntza oinarri zuen euskalgintza, aritua. Kanon nagusi horretan bildua zen EKSkoa, bai, baina komunitatearen gune sinbolikoa ordezkartzen zuen eremu geografikoki indefinitua. Eremu horrek euskal komunitatearen ordezkartzak zukeen kanona euskaraz⁶⁵⁷ bizitzearen inguruan bildu zuen.

Beraz, gune sinbolikoan, muga geopolitikoek haraindiko kanon nagusi bat zen nagusi: euskaragintza⁶⁵⁸. Zernahi gisaz, gune sinbolikoak 1960tik aitzinako garapenean

⁶⁵⁷ Ikus 658. oin-oharra.

⁶⁵⁸ Hala definitzen du Sarasuak kulturgintza: “Ideien jolasa, hitzen inpaktua, sentimenduen zirkulazioa, erritualen bidezko destilazioa, umorea, gozamen espiritual apur bat, fisiologikoki adierazia, ospakuntza. //

izan zuen zailtasun nagusi gisa sumatu dugu, 6.1.4. atalean (a.2.), gune horren erakundetze-egituratze norabideak ez zuela gune mugatuarenak adina bulkadarik izan.

Gune bakoitzaren kanonak modu idor eta orokorrean aurkeztu ditugun arren, hagitz harreman interesgarria agertuko dugu, zazpigarren atalean, gune mugatuaren kanonak gune sinbolikoarenarekin izan zituen interakzioei buruz; espresuki, kanon horien arteko kontraerrianak eta elkarreraginak 1975etik aitzinako ELSrengan izan zuen eraginari behatuko diogu.

3. zehaztea

Azkenik, orain arte modu aski irristakorrean gibelatu dugun hondarreko zehazte bat egin nahi dugu; izan ere, euskal kulturak 1960-1990 bitarteko faseetan jasaniko trantsizioa eta trantsizio hori bera osatzen duten aldaketak aztergai ditugunez, eta euskal kulturaren izanera egokitzen den xerkatzea egin ahal izateko, azken zehazte bat da beharrezko: sistema ez-integratuei dagokiena.

Sistema integratuen existentziak integratuak ez diren sistemak ba ote diren hausnartu beharra ekarri du. Lampisen definizioa abiapuntu hartzen badugu –“conjuntos organizados de elementos que interactúan con más intensidad o frecuencia entre sí que con lo que los rodea” (2009: 1)–, bi ideia dira “integratu” izatearen oinarrian: antolatuak diren elementuen multzoa izatea erreferentzia eta multzo antolatu hori osatzen duten elementuen arteko interakzioa inguruko elementuekikoa baino intentsitate edo maiztasun handiagokoa izatea.

Sistema integratuen izanak bi baieztapen horiek abiapuntu izanik, sistema ez-integratuak direla eta, zera pentsa liteke: sistema ez-integratu baten existentzia definituko lukeela, batetik, erreferentzia behar lukeen elementu multzoak antolakuntzarik ez izateak edo/eta, bertzetik, inguruko elementuekiko interakzioan intentsitate eta maiztasun alderik ez sumatzeak.

Bi alderdi horiei, ordea, sistema ez-integratuaren existentzia ezaugarritzen duen berezko tasunen bat erants geniezaieke. Erraterako, sistema ez-integratuetako elementuen artean erlazio patroia antolatu⁶⁵⁹ bat izanagatik, bere baitako gisa besarkatuko, integratuko, lukeen sistema zabalagorik ez izatea. Gisa horretan, barne-

Hori kulturgintza da. Ez: hori da kulturgintza. Goiko parrafoko zazpi gauza horiek asko dira, horietatik pittin bat dastatuta ere. Gero bestelako jardunetan, idazle edo musikari gisan jardun duten bertsolariak badakite nekez ikusi dutela bestelako generoetan zazpi elementu horien bizipen erreal gehiago bertso-jardunean baino” (2013: 301-302, “Trafikoa”). Halatan, Sarasuak aipaturiko alderdiak euskara oinarri dutelarik osatzen dugu euskaragintza.

⁶⁵⁹ Antolaketa horretan, maila desberdinei behatu beharko litzaieke, noski.

erlazio patrioiak dituzten elementu multzoak izanagatik, dena delako arrazoiengatik, sistema zabalago bateko azpisistema integratu ez diren sistemen egoerak ere bilduko genituzke.

Idea hori irudikatzeko, ikuspegi sistemikotik abiatuta garaturiko ideia hauek tesian zehar erreferentzia nagusietarikoa den ikuspegi teorikoetara hurbiltzea hagitz baliagarria dateke. Are gehiago, goiti erranak estaturik gabeko nazioen izanari eta garapen prozesu bereiziei –estatudunek izan ahal dituztenen bertzelakoei– egokitzen saiatzen bagara, zeraz ohartzen gara: estaturik gabeko nazioen kasuistikan –estatu barneratzailearen eskutik ukazioa jasaten duen nazio barneratuen kasuan– hagitz zaila dela kultur sistema integratuen⁶⁶⁰ garapenik. Eta, beraz, kasu horietan, sistema ez-integraturik baden begiratu beharko litzatekeela.

Euskal kulturaren kasuan, Aro Ilunaren eraginez ukatu eta gutiratua izanik, nekez uler liteke euskal kultura Esp.KS ofizialak besarkaturiko azpisistema zenik, eta isolamendu nagusiak ez zuen bertzelako errealitate zabalagoetara hurbiltzeko aukerarik ematen; kontrara, duintasun maila oro ukatua izanik, ukatua zen sistema integratua lortzeko ahalbide oro. 1975etik aitzinako testuinguruan, ordea, espainiar estatutik bideratu nahi ziren egitura eta antolakuntza nagusiek –zeinetan kultur eremuari zegozkionak izan ziren mugari nagusietariko– sistema nagusian bertzelako azpisistema integratuak onartu eta garatzeko oinarri legezkatua eskaini zuten⁶⁶¹.

6.1.4.b. azpiatalean⁶⁶² erranak bilduz, Thompsonek aurkezten dituen balioztatzeak erabilgarriak iduritu arren, testuinguru zehatzetan gerta litezkeen kultur balioztatze prozesu zabalei nahikoa erreparatzen ez diela uste dugu. Hutsune horrek balioztatze zehatzak maila zabaletik at uzteko arriskua duela uste dugu; kultur elementu material nahiz ez-materialen azterketa sakonaz haratago, komunitateen garapena ulertu ahal izateko ezinbertzekoa iduritzen zaigu, zehaztasun horiek gertatu bitartean, maila zabalagoan diren prozesuei behatzea.

⁶⁶⁰ Integratuko lukeen sistema nagusiagoa estatu barneratzailetik heldu ez balitz ere, lan gaitza litzateke. Urrutira gabe, euskal komunitatearen kasuan bertan islatzen da zailtasun hori. Aro Ilunean zehar ukatua izanik, ez bakarrik estatuarekiko, estatutik kanpoko errealitate zabalarekiko harremanak baitziren mugatuak; frankismoak ezarri zuen isolamenduak ez zuen bertzelako aukerarik ematen. Modu orokorrean hausnartuta, ukazio egoera horietako botere ukatzailearen jokabide orokorrak –bertze komunitate, estatu eta sistema zabalagoekikoak– ezartzen dituen mugei behatu beharko zaie.

⁶⁶¹ 1978ko Konstituzioa: Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 147. artikulua, 131. or.; Hirugarren kapitulua. Autonomia-erkidegoak, 148. artikulua, 131. eta 133. or.

⁶⁶² 6.1.4. eta 6.1.4., b.2. mailatako ondorioak 6.1. eta 6.1.4.b. mailakoekin bildu ditugu, hurrenez hurren.

Uste horretatik abiatuta, euskal kultur elementu(multzo)ek, 1975etik aitzina, jasaniko balioztatze prozesuak bi mailatan aztertu ditugu (b.1.): maila zabalean eta hertsian. Lehenarekin, kultur maila zabalean izaniko balioztatzea ikertu nahi izan dugu; horretarako, testuinguruaren oinarriak, 1960-1975 bitartean ezarriak, kontuan hartu, eta 1975etik aitzinako berregituratze nagusiei behatu diegu. Hartara, ondotik aipatu dugun maila zehatza ere hobeki irudikatu ahal izan dugu: kultur elementu banakoen azterketa zehatzaz gain, aldaketa horiek kultur balioztatze zabalarekiko harremanetan jarriaz, interpretazio osotua egin dugu; hau da, hizkuntza balioztatze prozesu zabalean eta testuinguruarekiko harremanean jartzen zuen interpretazioa.

Gainera, EKEren antolaketa sistemikoa izan dugu hizpide (b.2.): euskal kulturaren, bai testuinguruarekiko –autonomien sistemarekiko, nagusiki–, bai barne-erlazioen garapenean –azpierzumen osatzean eta horien integrazioan–, sorturiko harremanak EKS integratu-integratzailearen oinarriak finkatu zituen. Prozesu horren osotasunaz ohartzeko, ordea, hainbat zehazte egin behar izan dugu: “autonomia” terminoak sistema izanarekiko zukeen harreman ez-lotesleaz aritu gara, komunitate guneek garaturiko kanonen izaera desberdinei erreparatu diegu, eta sistema ez-integratuen izanari behatu diogu; horiek ahalbidetu dute EKEtik EKSRantzako aldaketa zehaztea.

6.1. atalean, erakundetzea, 1975etik aitzinako testuinguru berrian, euskal kulturaren eragile nagusia izan zela ikusi dugu; testuinguru berrira egokitu behar horretan, komunitatearen eta ondarearen arteko harremana birdefinitu behar izan zen: ondarearen izaera funtzionala erakundetze prozesu nagusikoa izanik, EKEk bere izaera egituratzea, antolatzea, egokitzea eta aitzina eramateko tresnak garatzea izan zen lan nagusia.

Ahalegin horretan, komunitatearen gune desberdinei egokitzen zitzaizkien egitura eta baliabide antolatzaileak sortu ziren. Guziaren gainetik, komunitatearen eta ondarearen arteko harreman krisiak ikertzeko ideia nagusiak bildu ditugu: *continuum*aren, autokontzepzio kolektiboaren eta testuinguru soziohistorikoaren behaketak harremanaren aitzinegoeraz, egoera presenteaz eta etorkizunerako proiektioaz ohartzeko abiapuntua izan dira. Hiru alderdi nagusi horien garapenean aurkezturiko tresnak zazpigarren ataleko aztergaiak lantzeko lanabesak izan dira.

Horien artean, komunitatearen gune mugatuaren eta gune sinbolikoaren egituratzea jorratzen zituzten gune eragileak izan ditugu hizpide. Ahalmen iturrien irizpidea kontuan izanik, gune banaketa horrek erreferentziazko ondare partekatuan

–eta, bereziki, hizkuntzan– izan zuen eraginaz aritu gara. Gainera, EKE zehaztu gabeak sistema integratu izateko jasan zituen antolakuntza aldaketak hausnartu ditugu; teoria sistemikoaren oinarriak hizpide harturik, euskal kulturak sistema integratu eta integratzaile izaera garatu zuela ikusi dugu.

Komunitatearen eta ondarearen arteko harremana aztertu dugun pareko atalean –bigarren kapituluko hirugarren atalean–, ordea, tresna teoriko desberdinak izan dira lagungarri; izan ere, 1960-1975 bitartean harremanaren muina oinarrien berreskuratzeak baldintzatua izaki, komunitateek prozesu horretarako ondareari egokitzen dizkioten funtzioak izan ditugu solasgai (3.1.). Hirugarren kapituluan, oinarrizko beharrez haratagoko premien asebetetzea azaltzeko lagungarri diren tresnak baliatu ditugu; balioztatzeek kultur ondarean dituzten eraginak (Thompson 1990), ahalmen iturrien izana (Sarasua 2013) eta eremuen izaera sistemikoa (Lampis 2009) izan dira aztertu nahi genuen komunitate fasea ikertzeko laguntza nagusiak. Hiru tresna horiek aztergaiaren izaera zehatzera egokituz, prozesu nagusia, antolaketa mailan, atzeman ahal izan dugu.

6.2. atalean, azalduak diren ideien kateatze nagusia egingen dugu. Gisa horretan, euskal kulturaren moldaketa nazio garapenaren eskutik joan ote zen behatzeaz gain, zazpigarren atalerako beharko ditugun ideien gida nagusia bilduko dugu.

6.2. Ondorioak: ondarearen moldatzea, nazio garapenaren eskutik, berriz ere

Ondoko orrialdeetan, 1975-1990 bitarteko euskal kultur ondarearen birmoldatze fasea argitzeko proposaturiko bidearen laburpena eskainiko dugu. Horretarako, 6.1.1.-6.1.4. puntuetan azalduko ideia nagusien kateatzea egiteaz gain, kultur moldaketaren azterketarako eginiko proposamen zabalak ere bildu ditugu, funtsezko kateatze gisa. Bidean, hain zuzen ere azalpen horien kateatzea erabiliaz, zazpigarren atalerako lotura ideia izanen diren bi ondorio nagusi agertuko dira. Batetik, gune sinbolikoaren eta mugatuaren arteko aldea larritu egin zen 1975etik aitzina, bakoitzak komunitate erreferente desberdina zuelarik, nabarmen, ikusmiran –horrek 80ko hamarkadan zehar areagotuko zen desoreka sortu zuen–; bertzetik, euskara bihurtu zen euskal komunitatearen eta ondarearen arteko harremana bideratu zuen elementua.

Euskal kulturaren moldaketako bigarren fasea aztertu nahi genuenez, 1960-1975 bitartean berreskuratuz eta bereganatuz hasierako ondareak 1975etik aitzina jasaniko eraldaketaren norabideak argitu nahi izan ditugu, aipatu aitzinpuntuetan. Horretarako,

batetik, zeinahi kultur ondareen azterketarendako mugarri diren alderdiei erreparatu diegu; bertzetik, euskal komunitate eta ondare harremanaren azterketak aitzina egin ahala sumatu dugun konstanterik behinena ere kontuan izan dugu: komunitate garapena. Hau da, bai euskal komunitatearen garapen nagusiaren, bai kultur ondareen, azterketak egiteko beharrezkoak diren irizpideak erabili ditugu. Beraz, komunitate garapena eta kultur ondare moldaketa elkarrekiko harremanean sumatzeko alderdi beharrezkoak ikuskatu ditugu.

Euskal komunitateak izaniko garapena jarraitutasunezko ikuspegitik abiatu nahi izan dugu; beraz, kultura bera ikusmolde horretatik beretik ulertu dugu, Gilberto Giménezek proposatzen duen definizioan⁶⁶³ azpimarraturiko ikuspegi dinamikoa barne hartuz, nolabait:

La cultura podría definirse [...] como el proceso de continua producción, actualización y transformación de modelos simbólicos (en su doble acepción de representación y de orientación para la acción) a través de la práctica individual y colectiva, en contextos históricamente específicos y socialmente estructurados. (2005: 75)

Hala, bada, komunitateen eta ondareen harremanaren elkarreragina aztertzeke lehen jomuga izan da horien garapena jarraitutasun aldakorrean ardatzea, aztergai bien gauzatze bikoitza agerrarazten baitu lehen alderdi honek: jarraitutasunaren ikuspegitik abiatzeak agerrarazten ditu zeinahi komunitateren nahiz ondareen garapen indibidualak eta elkarreraginean sorturiko dinamikak; jarraitutasunetik abiatzeak laguntzen du komunitateen edo ondareen azterketa sobera langartuekin islatzen diren garapen hertsituez haratago, bien arteko dinamikak marrazten. Izan ere, *continuumean* ager litezkeen dinamikek ondarearen eta komunitatearen arteko harremana oinarritzen dute.

Ondareen eta komunitateen arteko harreman horien abstrakzioa hiru dinamikatan banatu dugu: mantentze *continuumean*, *continuum* iraultzailean eta *continuum* normalizatuan. Horien deskribapenean, komunitateek jarraitutasunean jasan ditzaketen indar eta bulkada nagusien deskribapen zabala egin dugu. Hau da, alderdi horrek, komunitateen garapenei behatzeko lehen zutarri nagusia izanik, azterketendako ikuspegi behar-beharrezkoa den osotasuna jarri du eskuragarri.

Euskal komunitatearen azterketa zehatzean sumatu dugu gune mugatuan eta gune sinbolikoan maila desberdinetako egituraketa bideratzeko tresna nagusiak hezkuntza eta

⁶⁶³ Giménezek Eunice R. Durham aipatzen du ikuspegi dinamiko horren iturri gisa, eta antropologoaren ondoko hitzak dakartza, erakusgarri: “Contrariamente a Geertz, referimos el concepto de cultura menos a los modelos que a su proceso de continua producción, utilización y transformación en la práctica colectiva” (Eunice R. Durham 1984: 75, in Giménez 2005: 75, 104. oin-oharra).

euskara bihurtu zirela: ikastolek⁶⁶⁴ nahiz hezkuntza publikoak, gune eragile desberdina izanagatik, euskara erdigune zuten proiektuak bideratu zituzten.

Gisa horretan, gaurgero bortzgarren atalean hizpide izaniko komunitate gune desberdinak banatu izanaren erabilgarritasuna jarri da agerian; komunitatearen bi erreferentzia horiek euskal ondarearen birmoldaketari eta euskal komunitatearen garapenari elkarreraginean erreparatu ahal izateko laguntza izan dira. 1975etik aitzinako fase berrian sortu ziren beharrek eta helburuek komunitatearen bi guneek ordura arte zuten existentzia gehiago banatu zuten; izan ere, gune mugatuaren eta gune sinbolikoaren egiturazkeek komunitate errealtate desberdina baitzuten erreferentzia.

Jarraitutasunaren ideia agerturik, komunitate eta ondareen garapena aztertzeko, bertze bi alderdi gaineratu ditugu: autokontzepzio kolektiboa nahiz testuingurua. Alderdi horiek komunitateen eta ondareen azterketarako duten erabilgarritasun zabala agertu ahal izateko, bietan erreparatu diogu funtzioaren garrantziari. Tesian behin eta berriz hizpide izan dugun parametro honek *continuum* espezifikokoak identitate kolektibo nahiz testuinguru zehatzekiko elkarreraginean aztertzeko bidea ireki du.

Autokontzepzio kolektiboari dagokionez, komunitate errealtateetan lukeen balizko eraginkortasunari behatu diogu: eraginaren izaera aitzinatzaile edota gibelatzaileari. Zehazte horrek komunitateen eta ondareen arteko harremanen garapena aztertzeko ikuspegi zatikatua soilik ematen zuen, ordea; hori dela eta, osagarri, autokontzepzio kolektiboaren beraren eragileez mintzatu gara –duintasunaz eta proiektzioaz–. Halatan –komunitateen eta ondareen garapenak *continuum*ean kokaturiko dinamiketan lotuak direla kontuan izanik–, jarraitutasunaren indar aitzinatzaile edo gibelatzaileen iturria prozesu osoago baten baitan kokatu ahal izan dugu.

Abiaburutzat doituriko osotasun eta jarraitutasun ikuspegi horiek ahalbidetu dute, hain zuzen ere, jarraipena ematea euskal komunitatearen lehen behar mailako premia nagusi gisa identifikatua genuen duintasun berreskuratzeari. Erran nahi baita 1960-1975 bitartean nagusitu zen duintasun bilaketari gaineratu ahal izan diogula behar eta helburu

⁶⁶⁴ “Franco hil eta ondorengo bi urteetan Hego Euskal Herrian jazotako aldaketen testuinguru hartan, handia zen ikastolen itzala. Izan ere, ikastolek ia 20 urte zeramatzaten martxan, egindako lana, etengabe, pedagogia modernoarekin eta etorkizunarekin lotuz. Ondorioz, aldaketa politikoa abiatzen, hainbeste itxarondako etorkizuna marrazten hasi zenean, ikastolak sortzeko trabak desagertu zirenean... ikastolak alternatiba gisa agertu ziren gizartearen aurrean. Arrakasta izandako alternatiba gisa, hain justu, euskal hezkuntzaren panoraman ez zegoelako beste inor euskaraz ari zenik, euskal pedagogia berri bat diseinatu eta garatu zuenik... Ikastola bezalako planteamendurik ez zegoen, eta ikastolek horixe islatzen zuten gizartean: modernitatea, euskal sinbologia berria, euskal identitatea, demokrazia...” (Iza 2010: 99).

berrien norabidea agertzen duen bektorea: proiektzioaren ikusmira. Beraz, komunitatearen lehen fasea dela eta agerturikoari erantsi ahal izan diogu 1975etik aitzina abiatutako bigarren fasean gailendu ziren behar, nahi eta dinamika berrien sintesia biltzen duen ikusmira berria.

Azkenik, zeinahi komunitate eta ondarearen nahiz kulturaren azterketa gauzatzeko beharrezko den izaera berezituari erreparatu diogu. Horretarako, jarraitutasunaz gain, autokontzepzio kolektiboaren gibeleragile zehatza denaz aritu gara: testuinguruaz. Komunitateen eta ondareen arteko harremanak aztertzeko hirugarren alderdi honek ikerketen kasuz kasuko eta garaiz garaiko azterketak ahalbidetzeak ez du saihestu, ordea, aldi horietariko bakoitza jarraitutasunean gertaturiko fase gisa identifikatzerik.

Espresuki euskal komunitateak 1975etik aitzina izaniko testuingurua ikusmiran genuelarik, bigarren fase horretan nagusi izan zen erakundetze prozesuaz aritu gara. Hortakotz agertu ditugu kulturaren erakundetze prozesuak, bereziki, ulertzeko alderdi nagusiak: gune eragileen banaketaren eta kultur eremuaren balioztatze berezituaren azalpenek lagundu dute testuinguruak izan dezakeen eragin erakundetzaile-egituratzailea agertzen.

Halatan, garai aldaketak euskal komunitatera ekarri zituen helburu berriek kulturarengan izan zuten eragin nagusiaz aritu gara: testuinguruaren eragin antolatzaile berezituaz, sistematizatzaileaz. 1975etik aitzina izaniko garapenean, egituratze nagusi horren eraginkortasuna aitzinez aipaturiko alderdiek, *continuum* motak eta autokontzepzio kolektiboak, baldintzatu zuten; bertzeak bertze, EL Eren azterketan agertuko dugu baliabide sinboliko baten aldaketa guzizkoa ekarri zutela.

Hiru alderdi horiekin agertu dugun ondarearen eta komunitatearen arteko egokitze nagusiaren baitan, euskara garrantzia handiko elementu bihurtu zen. Batetik, euskal kultur ondareko elementuen artean euskara bihurtu zelakotz EAEko proiektuan gune nagusietarik bat; bertzetik, komunitatearen gune sinbolikoari begira, komunitatearen identitate oinarri gisa finkatu baitzen. Horretarako, EKEren antolaketarekin heldu zen egituraketak –eraikuntza bidean zen EKSrenak– indar bideratzaile eta finkatzailea markatu zuen.

Beraz, euskara bihurtu zen euskal komunitatearen eta euskal ondare kulturalaren arteko harremana bideratu zuen ondarea.

euskararen aldeko erreibindikazioak [sic] banaketa argi samarra ezarri du abertzale eta ez-abertzaleen artean, eta, ildo honetatik, euren arteko aurkamenduan funtzio sinboliko inportantea

bete duela esan liteke. *Argi samarra* izan dela diogu, kontuan hartu behar delako ikastolen publikazioaren azken aldian PSE-PSOE eta EAJren arteko gobernu koalizioa indarrean zegoela, eta, beraz, euren arteko balizko desadostasunak askoz izkutuago [*sic*] garatu zirela. Hala ere, dudarik ez dago, adibidez, *Eskola Ituna* sinatzeko egon zen oztoporik handiena euskararen trataerari buruzko iritzi diferentziak izan zirela. Geroago –alegia, EELPren [EEPL] testua adosteko orduan– alderdi biek onartu zuten ezinezkoa izan zela aurreko legeriak ezarritakotik harago joatea, eta beste momentu baterako utzi behar izan zutela eskola publikoko euskararen presentziari buruzko arau multzo berri baten erabateko osaketa. (Mateos 2000a: 539) (Azpimarrak ez dira gureak)

Mateosek aipatzen duen errealitatea, hain zuzen ere, “funtzio sinboliko” horren gibelean euskarak hartua zuen funtzio nagusiak ulerrarazten du: euskal komunitatearen identitate oinarri bihurtua zen euskara, eta, beraz, hala erabiltzen zuten, alde edo kontra, identitate molde bat edo bertzea bulkatu nahi zuten alderdi politikoeak.

Ondorioz, euskal komunitatearen eta ondarearen arteko harremana maila aunitzetako egituratze nagusiaren ondorio izan zen; 1975-1990 bitartean, euskal komunitateak egitura politiko, ekonomiko, administratibo desberdinekiko eta bertzelako ageriko egiturekiko harremanak eraikitzeaz gain, komunitatearen alderdi ez-mugatuari zegokion egituraketa-antolaketarekiko bateragarritasuna kudeatu behar izan zuen.

Ondoko atalean, erakundetze nagusi horrek garaiko baliabide sinboliko zehatz batean izaniko eraginaz arituko gara. Gainera, ikusiko dugu komunitate duintasunaren pauso berriak bideratzen zituen proiektzioak kultur azpieremuen izaera berezitua –azpistemaren arauetara berei egokitua– garatu zuela. Literatur tradizioan bilduriko tradizioaz eta ELSz arituko gara.

7. FORMA ETA BALIABIDE SINBOLIKOAK: ONDAREAREN ERAKUNDETZEA

Como las vías de dominación, las vías de autonomía son complejas, cuando no impenetrables. Y las luchas en el seno del campo político [...] pueden resultar indirectamente de utilidad para los intereses de aquellos escritores más preocupados por su independencia literaria: éstos pueden conseguir de la protección de los poderosos los medios materiales o institucionales que no pueden pretender del mercado

(Bourdieu 1995: 86)

Atal honetan, bortzgarren eta seigarren ataletan azalduko testuinguru erakundetzailerak izan zituen ondorioak aurkeztuko ditugu. Hari nagusi gisa azaldu berri dugun erakundetze prozesua harturik –eta bigarren kapituluko laugarren ataleko eskema berari jarraiki–, kultur azpiero baten garapenera eta aritu zehatzei erreparatu diegu.

Lehenik, 1975-1990 bitartean ELEk jasan zuen erakundetzeari behatuko diogu (7.1.). Literatur eremuan ardazteak aukera emanen digu kultur moldaketaren bigarren fasearen eta kultur azpieroaren arteko korrespondentziak nola gertatu ziren ohartzeko. ELSren antolatze eta egituratze nagusietatik abiatu arren, azpiero horren egituratze berezitua lortzeko pauso jakinen ibilbideaz arituko gara; bertzeak bertze, literatur tradizioaren inguruan sortu ziren eztabaidek iraganarekiko harremana birpentsatu behar izan zela erakutsiko dute.

Bigarrenik, hain zuzen ere literatur tradizioaren auzitik tiraka, hiru idazleren arituak aztertuko ditugu (7.2.). Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Jon Juaristiren lanetatik abiatuta, ELSren garapenean funtsezko izan zen alderdia agertuko dugu: euskal literaturaren autonomiak iduri lukeena baino lotura hertsia izan zuen bortzgarren eta seigarren ataletan hizpide izan dugun komunitate garapenera.

Hala, bada, laugarren ataleko aztergai berak izanen ditugu. Batetik, baliabide sinbolikoen bilgune nagusi beraren ikerketa egingen dugu: ELEk garaiko prozesu nagusiarikiko –erakundetzearikiko– eta komunitate fasearikiko –bigarren fasearikiko– izan zuen harremana xeheki landuko dugu. Bertzetik, eremu horretatik abiatuta, preseski, bigarren kapituluan aztertu dugun baliabide sinbolikoa, tradizioa, landuko dugu; alabaina, kasu honetan, tradizioaren agergunea AOK izan beharrean, literatur tradizioa izanen da.

Gainera, Montserrat Guibernauren eta Anthony D. Smithen ekarri teorikoek lagunduko digute John B. Thompsonen tresna teorikoetatiko proposamenak moldatzen.

7.1. Euskal ondare kultural moldatuaren eta literaturaren arteko harremana

Euskal identitate eraikuntzaren bide berriek Krisi Orokor Ñabartutiko beharrak izan zituzten oinarri. Testuinguru berri horretan, euskal literaturaren garapena guziz baldintzatua izan zen; hau da, ordutik aitzinera, euskal literaturaren bilakaera, berriz ere, komunitatearen helburu eta behar berrien mende izan zen. Abangoardiek gizarte egoerarekiko eta testuinguru ezarri berriarekiko deserosotasuna aditzera eman zuten gisa, kulturak berak rol berria eskuratu zuen, 1975etik aitzinako garaian. Literaturari dagokionez, izaera kontrajarria egokitu zitzaion: gune mugatuetatik finkatzen zen arren, gune sinbolikoko oinarriekin bat heldu zen. Ikusiko dugunez, autonomien sistemak erkidego bakoitza bere aldetik finkatzera eraman bazuen ere, ELeren dinamika gune mugatuaren esparruetatik ateko erreferenteek eta partaideek sostengatu zuten.

7.1. atala osatzen duten azpiataletan, hain zuzen ere, izaera kontrajarri horren oinarriak –edo oinarri horiek azaltzen laguntzen diguten ideiak– ikertuko ditugu. Hiru azpiatal nagusi banatu ditugu, laugarren atalean egin gisa. Lehenean (7.1.1.), ELEk 1975-1990 bitarteko moldaketa nagusiarekiko izan zuen harremanaz arituko gara; erakundetze prozesuarekiko harremanari behatuz, testuinguruak eremuaren garapena guziz baldintzatu zuela ohartuko gara. Ondotik (7.1.2.), ELeren eta testuinguruaren arteko harremanaren izaera zehatza deskribatzeko, tesian zehar hainbertzetan irizpide izan dugun funtzionalitateari erreparatuko diogu; bigarren kapituluan egin gisa, norabide biko elkarreraginaren azterketa egingen dugu. Akitzeko (7.1.3.), ELEk hamabortzaldi hartan jasan zuen aldaketa nabariaren adibide bati behatuko diogu; eremuak jasan zuen erakundetzearen erakusgarri gisa, literatur tradizioan islaturiko gatazkaz arituko gara.

Gisa horretan, bigarren kapituluko 4.1. atalean egin gisa, bi alde agertuko ditugu: ELEk –ELS garaikidearen egituraketan, 1975-1990 bitartean– jasan zituen aldaketarik nabariaren aztertu, eta komunitatearen bigarren fasearen eta aritu zehatzen azterketarako (7.2.) beharrezko izanen diren tresnak eskainiko ditugu.

Horretarako, tesian zehar tresna teoriko nagusi direnak erabiliko ditugu: Smithek baliabide sinbolikoei buruz erranak literatur tradizioaren azterketarako ezinbertzeko euskarri izanen dira; Guibernauk estatirik gabeko nazioen azterketarako eskaintzen dituen zehaztapenek ELeren garapen berezitua ulertzeko xehetasunak emanen dizkigute; eta Thompsonen forma sinbolikoei buruz erranak baliabide sinbolikoen eta horien bilgune den literatur eremuaren ikerketara egokituko ditugu.

Hala, bertze idatzi zati guzietan egin gisa, atal honi dagokion kapituluazaldurikoak aztergaien ikerketa zehatzerako eta proposamen moldatuetarako erabiliko ditugu.

7.1.1. Literatur eremua, erakundetze zabalean

Atal honetan, euskal komunitateak, 1975-1990 bitartean, garatu zuen fase berria ulertu ahal izateko abiapuntua eskainiko dugu; zehazkiago, espresuki EL Eren garapena, bitarte horretan, ulertu ahal izateko oinarriez arituko gara.

Horretarako, 7.2. ataleko azterketa zehatzak aitzinatzeko tresna eta informazio nagusiak eskainiko ditugu. Lehenik, bertze bi ataletan erabiliko ditugun ikuspegi eta tresna teorikoen aurkezpena egingen dugu; gisa horretan, ikuspegi nagusi beretik abiatu, eta tresna teorikoak non, nola eta zertarako erabiliko diren argi geratzen dela ziurtatu nahi genuke (7.1.1.a.). Bigarrenik, oinarri horiek aplikatuko diren eremuren egoera zehazten lagunduko duten alderdiak landuko ditugu; Krisi Orokor Ñabartuaren eragina, ELEk garai hartan zuen izana eta balizko abangoardiak hausnartuko ditugu. Hala, erakundetze nagusiaren eta EL Eren arteko harremanean, alderdi baten isla zehatzenera jauzi egin ahal izanen dugu (7.1.1.c.); momentuko egoerak EL Eren antolaketan izan zituen eragin zehatzei behatuko diegu.

Hiru atal horiek EL Eren eta testuinguruaren arteko harremanaren bertze alderdia (7.1.2.) aztertzeke oinarria eskainiko dute.

7.1.1.a. Oinarri teorikoen aplikazioa

Azpiatal honetan, zazpigarren atalean zehar egingen ditugun azterketetarako ikuspegi eta oinarri teoriko nagusiak aurkeztuko ditugu. Ikusiko denez, hiru alderdi nagusik bateratzen dute atal osoan zehar egingen dugun azterketa, eta, era berean, bigarren kapituluaz agertuekiko alderatzea egiteko aukera eskainiko dute.

Edozein gisatan, literatur eremuaren azterketetarako oinarri teoriko nagusiak aurkeztuak ditugunez (laugarren atala), espresuki 1975-1990 bitarteko epeaz aritzeko gaineratu, egokitu edo zehaztu behar izan ditugun ideiak eta erreferentziak aurkeztuko ditugu, segidan. Hau da, EL Eren EL Srantzako garapena azaltzen lagunduko diguten ideiak laburbilduko ditugu.

Batetik, (1) 1975etik aitzinako prozesua garatzeko gertatu behar izan zen ikuspegi aldaketa aipatuko dugu; alderdi honek lagunduko baitigu –espresuki 70eko

hamarkadaren bigarren erditik aitzinako ELEren garapena guziz baldintzatu izanaz haratago– komunitatearen lehen fasearekiko jarraitutasunaren garrantziaz ohartzen. Bertzetik, (2) 1975-1990 bitarteko ELSren garapenerako oinarriak izanen ditugu solasgai; ELEren moldaketa funtzionala, tesi-literaturaren nagusitza akitzea eta munduarekiko irekitzea ELSren garapenean funtsezko izan zirela agertuko dugu. Azkenik, (3) ELSren oinarriztea ulertzeko, literatur tradizioaren inguruan sortu zen hausnarketaz arituko gara; bigarren kapituluari egin gisa, baliabide sinboliko aztergaitzat tradizioa hartu, eta haren agerpen nagusietariko baten azterketa egingen dugu: literatur tradizioarena.

(1) Ikuspegi aldaketa nagusiaren oinarriak, euskal literaturan

Ikuspegi aldaketak 1975-1990 bitartean izan zuen eragina sumatzeko, bereziki argigarria da komunitatearen jarraitutasunari erreparatzea; 6.1. atalean aitzinatu gisa, aunitz laguntzen du euskal komunitatea –XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitartea eta hizpide dugun kultur moldaketaren bi faseak– jarraitutasunean lantzeak.

Euskal literaturak 1975etik aitzina izan zuen garapen berezitua ulertzeko, ezinbertzean behatu behar zaio 1960-1975 bitartean egon zen ikuspegi bihurketari. Kanbiamendu horren argitzeko, hagitz adierazgarria izanen da –lehenago egin gisa (6.1.1.-6.1.4.)– euskal komunitateak XIX. mendearen akieratik XX. mendearen akiera arte jasan dituen bi birmoldatze nagusien alderatzea; horretarako, ikergai dugun kultur moldaketa lehen pertsonan bizi zutenen erranak –Ibon Sarasolarenak eta aldizkarietan agertuak– hagitz lagungarri izanen dira.

Bi garaiekin arteko alderatzeak ikuspegi aldaketa nagusia izan zela islatzen du, eta ikuspegi zaharretik berrirako aldaketa horrek, noski, literaturan eragin zehatza izan zuen. Lehen birmoldatzean –XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitarte–, Sabino Arana Goiriren eraginez sorturiko “triumfalismo harro” delakoak euskal literatur zaharraren kaltetan jokatu zuen (Sarasola 1971: 51); erdaretatik “kutsadura” saihestu nahirik, euskal literatura zaharra zokoratu egin zen: “Nabari zenez, literatura zahar guztia arbuatuz gero, zerotik hasi bear zen. Euskeraren eta literaturaren arloan dena egiteko zen. Klasikorik ez baitzegoen, euskera berriaren gidaria logika izanen zen” (*ibid.*: 52).

60ko hamarkadatik aitzina, aldiz, ikuspegi aniztasunak euskal mundua ulertzeko ikuspegi zaharraren gailentasuna akitu zuen. Ikuspegi aldaketa horrekin heldu zen, hain

zuzen ere, aitzinez aipagai izan dugun autokontzepzio kolektiboaren berriztatzea (6.1.1., 6.1.3.). Horregatik, ikuspegi nagusi horietarik bakoitzari atxikia zen autokontzepzioak literaturan izan zuen eragina, jakina, desberdina izan zen.

Ibon Sarasolak euskal literaturak XX. mendean, 70eko hamarkadara arte⁶⁶⁵, izan zituen bi data nagusiak gertakizun politiko biri lotuak zirela adierazten zuen: “1901-eko kasoan, Euzko Alderdi Abertzaleari⁶⁶⁶, 1964-ekoan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren ideia berriei” (*ibid.*: 49). Bi kasuetan, ordea, kontu politikoekin loturiko gertakariak baino gehiago, urteetan zehar euskal komunitatearen izana eta garapena, maila guzietan, baldintzatu zuten ikuspegi nagusiak dira, gure usterako, nabarmengarriagoak. Sarasolak berak aipatu gisa:

Lehen kasoan, Euzko Alderdi Abertzalearen ideologia politikoak, praktikan, «Jaungoikoa eta Lege Zarrak» perpausan gorputzen den bloke monolitiko homogeen eta agiri bat osatzen duela esan daiteke. Bigarren kasoan, ezinbestean, ideologia monolitiko bat baino areago, zenbait korronte desberdin aurki daiteke. Korronte hauek, idea oso jeneral eta abstrakto bat besterik ez dute komunean; negatibitate batetan, hots, aurreko ideologiaren ukazioan soilik datoz ados ia. (*Loc. cit.*)

Aldaketa horren ondorengo da tesiaren zazpigarren atalean zehar ikergai dugun literatur garaia: 1975etik aitzinako epealdian, ELeren izaera berezitua, eremuari espresuki egokitua, garatzeko oinarritzko aldaketak sortu ziren.

(2) Literaturaren barne-garapena gertatzeko oinarritzko aldaketak

Literaturaren, eremu berezituaren, garapena lortzeko aldaketa ezinbertzekoak eremuaren garapen berezitua ahalbidetzen zuten horiek izan ziren. Bertzela erranda, ELeren moldaketa funtzionala –hau da, momentuan munduan zehar ziren literatur eremu nagusiek partekatzen zituzten oinarriak eskuratzea– lortzeko aldaketak gertatu behar izan ziren: balioztatze prozesu berezituak garatu eta mundura irekitzea, nagusiki. Ikusiko dugunez, balioztatze sinboliko berriztatu eta ekonomiko berri horien baldintzatzaileek funtsezko eragina izan zuten, eskuratze horretan (7.1.2.).

Azalpen horietarako abiapuntua Thompsonen funts teorikoa izan da; hala ere, hainbat zehazte egin behar izan ditugunez, egokitzapen teorikoaren oinarriak (7.1.2., b.1.) eta horietatik interpretazio argigarriak, adibide zehatzetatik abiatuak (7.1.2., b.2.), eskaini ditugu.

⁶⁶⁵ Egin kontu Sarasolaren *Euskal literaturaren historia* liburua 1971n argitaratu zela.

⁶⁶⁶ Honakoa gehitzen du, oin-oharrear: “Euzko Alderdi Abertzalea 1895-ean fundatu zen. «Euzkadi» aldizkariaren lehen numeroa 1901-ean agertu zen” (*ibid.*: 49).

Irekitzearen aldeko aldatetari dagokionez, tesi-literaturaren nagusitza akitzea lagungarria izan zen, eta, nagusiki, aipatu berri dugun ideologia aldatetaren ondorio izan zen. Tesi-literaturaren balioa bera aski irristakorra izan liteke, aunitzendako; zenbaiten ustez, tesi-literaturaren balioa tesia liburu kanpotik ezartzean gutituko litzateke (*ibid.*: 63). Hau da, euskal literatur garaikidearen garapena, berriz ere, ideologiaren zamari lotua izan zen; oinarriak ideologia zehatz baten mesedetan eraiki zituen literaturak, hein batean, lehen saioan.

Lehen birmoldatze nagusiko ikuspegi zaharrak Europatiko literaturari zion arbuioaz mintzo da Sarasola (*ibid.*: 67); arbuio hori kentzea izan zen, zalantzarik gabe, 60tik aitzinako euskal literaturaren punta-puntako lanak ahalbidetu zituen ezinbertzeko baldintza. Are gehiago, ELSren garapena deskribatzeko banatu ditugun bi fase nagusien artean –komunitatearen garapenarekin aski bat heldu diren horietan–, zubi nagusia horixe izan zen: Europa eta munduarekiko irekitzea.

Bortz arrazoi nagusik agertzen dute irekitze horren zama. Lehenik, literatura molde berriak hurbildu ziren. Bigarrenik, ideologia⁶⁶⁷, moral, errealitate desberdinak hurbildu zituen. Hirugarrenik, belaunaldi berri-berriaren eta aitzineko idazleen arteko zubia Europatiko corpusak ezarri zuen –Arestirengandik Potterako bidean T.S. Eliotek garrantzia izan zuen gisa–. Laugarrenik, euskal literaturaren autonomiarako –eta, beraz, sistemaren sortzerako– oinarritzko jakintza ekarri zuen: euskal literaturaren balioa munduko literaturen artean behatu ahal izan zen, kritikoki. Ondorioz, behar nagusi larrien kontzientzia eskuratu eta proiektu garatzaile berriak antolatzeko oinarritzko ikuspegia garatu ahal izan zen. Begirada kritikoaren zorroztea ere Europatiko literatura hurbildu izanaren balio nagusietarikoa izan zen, garai hartan. Azkenik, militantziaren hauspotik alde egiteko aukera eskaini zuen: militantzia kulturalak itotako arituak literatur kokapen batetik gauzatzeko aukera eskaini zuen.

(3) Tradizio gatazka

Azken puntu honekin, ELEren garapena komunitatearen garapenaren eskutik joan zela agertuko dugu; izan ere, tradizio gatazkak euskal literaturan izan zuen eraginak hagitx ongi islatzen du literatur eremuak nazio eraikuntzarekiko izan zuen paralelismoa. Bi zatitan banatu dugu azalpen hori: 7.1.3. atalean, 1975etik aitzinako fasean tradizio berreskuratu berria euskal literaturan nola egokitu zen landu dugu, eta, 7.2. atalean,

⁶⁶⁷ Oinarri teorikoak hizpide izan ditugun atalean azaldu gisa (1.2.3.), Thompsonen “ideologia” kontzeptua adiera zehatzean erabiltzen zuen (1990: 6-7); guk, ordea, ez diegu zehaztasun horiei jarraitu.

komunitate garapenaren eta literatur tradizioaren arteko paralelismo horren isla zehatzak aurkeztuko ditugu.

Tradizio desberdinak argitu nahirik, tradizioaren auziaz jarduteko, nazioen eta nazionalismoen eraikuntzari buruz diren ikuspegi nagusi biri erreparatuko diegu; teoria modernistak eta etno-sinbolismoak dituztenei, hain zuzen. Horiek baliaturik, frankismo ondotiko lehen hamabortz urteetan Espainian nahiz European gailendu zen ikuspegi modernistak euskal (literatur)tradizio⁶⁶⁸ auzian izan zuen isla ikusiko dugu; gainera, haren gainean eraikiriko kritika teoriko berriagoek eskaintzen duten interpretazio posiblea izanen dugu tradiziora hurbiltzeko bertze prisma nagusia.

Teoria horiek lanera hurbiltzearen helburua bikoitza izan da. Batetik, 7.2. ataleko corpusean sumaturiko hainbat garapen eta ezaugarri azalpen eman ahal izateko teoria bateko zein bertzeko kontzeptu eta ideiak eskuragarri izatea; bertzetik, idatzi honen haritik, etorkizunean, sor daitezkeen azterketetarako bide teoriko komuna proposatzea eta oinarri nagusiak agertzea. Helburu horiek behar desberdinei erantzun nahian definitu ditugu: Juaristi eta Sarrionandiaren lanetan agertzen den teoria modernistaren hurbiltze eta aldentzeak aztertze, ezinbertzekoa izan da teoria horren ezaugarri orokorrenak hizpide izatea. Idazle bakoitzaren proposamen indibiduala testuinguru zabalago batean, 1975-1990 bitarteko garaiarekin elkarreaginean, kokatzen lagunduko duen tresna behar izan dugu: etno-sinbolismoak euskal (literatur)tradizio gatazka testuinguru nagusiagoan kokatzen lagunduko digu. Hala, lan honen mugak aztertze erabilgarri izateaz gain, etorkizunean, hizpide den garaian gauzaturiko eraikuntzako aldaketak eta aukera kultural nagusiak aztertze laguntza egokia izanen da.

Beraz, ELEk, 1975-1990 bitartean, izan zuen bilakaera agertzen lagunduko dute ikuspegi aldaketak –ikuspegi zehatz eta nagusiekiko mendekotasuna galdu egin zen, 1975etik aitzinako ELeren garapenean–, eremuaren garapen bereziturako pausoek –balioztatze prozesu berezituak nahiz horiek gertatzeko behar izan ziren eragileen bihurtetek– eta literatur tradizio gatazka nahiz proposamen berriek –komunitatearen bigarren behar mailari erantzuten zioten iragana hautatu, eta horiek berak proiektiodun proiektuan funtzionalki txertatzeak–.

⁶⁶⁸ Tradizioak eta literatur tradizioak duten harremanaz espresuki arituko gara 7.1.3.ko a.1. azpiatalean.

7.1.1.b. Eremu berezitua aztertzen: ELSren garapena

José-Carlos Mainer-ek 1973tik 1980ra bitarteko fase kulturala autoanalisirako, intimitatearen deskubrimendurako, iragan hurbilarekin kontuak egiteko eta literaturaren autonomiarako garai gisa definitu du (*in* Mainer eta Juliá 2000: 87). Gauzak hala, atal honetan ikergai den denbora tartean euskal literaturak jasaniko garapena aztertu nahi dugu. Horretarako, Trantsizioan sorturiko literatur planteamenduez haratago, ELSren gauzapenean eragin zuzena izanen zuten alderdi biri erreparatuko diegu: 60ko hamarkadan hasiak ziren ekintza kulturalaz gain, 1975etik 1990era bitartean erakundetu zen ELS modernoaren abiapuntuko ezaugarri orokorrenak deskribatuko ditugu. Gisa horretan, ELEk, 90era bitarteko bigarren fasean, jasan zuen moldaketaren hasierako egoera nagusiaren berri emanen dugu.

b.1. Krisi Orokor Ñabartua, euskal literaturan

Frankismo garaian sufrituriko errepresio eta beldur etengabeak (Silver 1988: 110-111) identitatearen espazio barren-barrenekoa aunitz murriztu zuenez, bai herri mailan, baita instituzionalki ere, banakoen nahiz talde estutu horien izana berrantolatu behar izan ziren, Trantsizioan; izan ere, frankismoan, gizartearen eta boterearen arteko urrutiratzeak identifikatze posibleak ukatzen zituen. Santos Juliák, hain zuzen, Trantsizioan sumaturiko estatismoaren erroak frankismoak bulkaturiko kulturaren eta gizartearen arteko erlazioan identifikatzen ditu:

Se ha visto en esta fuerte presencia de «no contesta» la carencia de una cultura cívica, el resultado más notable del régimen autoritario: desmovilización y pasividad de una mayoría que parece ausente y que predomina en el medio rural, entre mujeres y mayores, en los niveles educativos bajos; una mayoría que no se siente nada interesada por la política y que muestra una carencia de información muy elevada; no se identifica positivamente con el régimen, pero su falta de convicción en la influencia que pudieran tener sus actitudes o sus acciones la mantiene alejada de la política; prefiere, como dice, no meterse en líos. (*In* Mainer eta Juliá 2000: 36)

Sarri gertatu ohi den gisa, garai berrietarako egokitze prozesua ezinbertzekoa izan zen, krisiaz haratago gizartearen jarraipena mantenduko bazen (Steiner 2002 [1972]: 196). Euskal gizarteak hainbat eztabaida agertuz, frankismoaren ondoko errealitate berriaren izana antolatzeari ekin zion.

7.2. atalean azalduko dugunez, B. Atxaga, J. Sarrionandia eta J. Juaristik euskal gizartearen antolatze berrirako beharrezko izan ziren hausnarketa nagusietariko bati erreparatu zioten; kasuan kasuko gauzapean teoriko nahiz praktikoak direla medio, literatur tradizioaren izana tradizioari buruzko eztabaida nagusiaren baitan landu zuten:

euskal mundu tradizionalen elementuen betierekotasuna pentsatuz, Juaristik⁶⁶⁹; garai berrietarako nahi zen euskal tradizioaren barne-elementu kohesionatzaileen mugak birplanteatuz, Sarrionandiak; eta tradizioaren berrinterpretazioa 80ko hamarkadako gizartearen begietara moldatuz, Atxagak.

Hain zuzen, egokitzapen hori gertatu zelakotz iraun zuen euskal gizarteak: Krisi Orokor Ñabartuak egokitzapena ekarri zuen, garai eta egoera nahiz helburu berriei egokitu beharrean zen gizarteak zalantzan jarri zituelarik antzinatek higituak heldu ziren elementu tradizionalen izana eta berezko rola. Autonomien sistema eraikitzeak heretura horien bideratze eta egokitzapen praktikoan berebiziko eragina izan zuen; gatazka indibidual nahiz sozial horien isla da, hain zuzen, Espainiatik bideraturiko autonomien sistemak identitate periferikoei buruz barneratu zituen ideia eta erabaki politikoen eta kulturalen multzoa -7.1.1.eko b.1.2. azpiatalean aztertuko dugu, zehazkiago, zalantza eta arrangura pertsonal nahiz kolektiboen funtsa HEHn zein hiru gunek kulturaletan bildu zen-. Autonomien sistemak Konstituzioan oinarrituriko⁶⁷⁰ baldintzei jarraitu ziren; beraz, identitate periferikoak identitate nagusi zentzualan agertu ziren:

La Constitución, tras un largo y duro debate que a punto estuvo de romper el consenso, introduce por primera vez el término nacionalidad: «reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones», pero inmediatamente reafirma con énfasis «la indivisible unidad de la patria». (Juliá, *in* Mainer eta Juliá 2000: 50)

Krisi Orokor Ñabartuaren ezaugarrietarik, frankismoarekin jasaniko heste eta bakartasunetik atera nahia da azpimarragarrien; euskal literaturak idatzian zuen gibelatzeari Aro Iluneko egoerak bertze hainbertzeko desfasea erantsi zion: “Gu bai ahalegindu ginela idazten. Idatzi bakarrik ez, literatura egiten ahalegindu ginen, atzeraturik genbiltzala jakinda” (Sarrionandia 2010: 525). Euskarari eta euskal munduari ezarritako murruek ez zuten garapenaren haria soilik mendratu, hainbat estaturekiko eta Espainiako bertze lurraldeetatiko eraginekiko bakartasuna ere handia

⁶⁶⁹ Hobsbawmek Juaristik planteaturiko fenomenoaren pareko jarduna landu zuen: “el uso de antiguos materiales para construir tradiciones inventadas de género nuevo para propósitos nuevos” (*in* Hobsbawm eta Ranger arg. 2002 [1983]: 12).

⁶⁷⁰ “El compromiso sobre la autonomía permitió una satisfacción si no sustancial, sí al menos simbólica. Aunque los nacionalistas vascos y catalanes no consiguieron reconocimiento alguno de la base histórica de sus reivindicaciones autonómicas, la Constitución sí reconoció «el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones»; y esto podía interpretarse ante sus electores como un reconocimiento tácito de «una realidad nacional-histórica anterior» (186)” (Silver 1988: 79). Aipamenak González Casanova-ren *La lucha por la democracia en Catalunya* (1979) liburutik hartu ditu Philip W. Silver-ek.

izan zen⁶⁷¹. Lotura falta horren isla dira, hein zuzen, *Pott* aldizkarietan –behin eta berriz– bertze lurraldeetatiko literatur lanak eta lotura gabezia akitu beharra aldarrikatzen duten pasarteak:

Poloniar literatura interesgarrienetakoa dela esan dezakegu, ikusten badugu zer egin den Europan azkeneko berrogei urte hauetan. Literaturatik at dauden arrazoiengatik Poloniako idazleak ez ditugu ezagutu orainarte. (“Poloniar literaturaz”, *Pott* 2)

Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik taldean eta indibidualki abiatutako ekimenak, testuinguru berean, Krisi Orokor Ñabartuak bideraturik plazaratu zen tradizio gatazkaren baitan ulertu behar dira. Trantsizioarekin abian jarritako sistema politiko eta kultural berriak espainiar estatuko identitateen berregituratze ideologiko nahiz instituzionala ekarri zuen. Espainiar estatua, bere zentraltasunetik beretik, identitate maila desberdinen arteko harremana kudeatzen hasi zen; hala, tokian tokiko bereizgarritasunak eta sariak bulkatu, bai, baina, era berean, estatuaren titulartasuna zuten azpiegitura kulturalak ezarriaz (Juliá, *in* Mainer eta Juliá 2000: 75). Autonomia-erkidegoek, beren aldetik, identitate kultural propioa sustatzeko programak jarri zituzten abian. Identitate periferikoen oinarritzea, ordea, ez zen lasaitasun hutsean erabakiriko gaia izan; aitzitik, eztabaida ugari izan ziren, eta, gaurgero aski jakina denez, Krisi Orokor Ñabartuko eztabaida nagusietarik aunitz bide horretatikoa izan ziren.

b.1.1. Krisi Orokor Ñabartuaren eragin berezitua

1975-1990 bitartean, euskal literaturaren garapena goitik beheira baldintzaturiko aldaketa politiko-ideologikoak gertatu ziren; horien jatorri nagusia, funtsa, euskal komunitatea baino errealitate zabalagoa makurtzen zuten gertakizunetan zen. Horien eragina ez zen, haatik, estatuko komunitateetan bera izan; kontrara, bakoitzak zituen egoera eta helburu nahiz ahalbideek guziz baldintzatu zuten aldaketa nagusi horien eragin zehatza.

Ondoko orrialdeetan, hain zuzen ere, estatu mailako gertakariak eragin zuten Krisi Orokor Ñabartuaren eragin zehatzei, literaturan izanikoei, erreparatu diegu: (1) Aro Ilunaren eraginak, (2) erreferenteen malguak eta (3) zentro gabeziak ELEren garapena guziz eragin zutela ikusiko dugu. Hartara, ELEren egoera zehatz horrekin bat etorriaz, literaturan islatu ziren hiru gatazka nagusien (b.1.2.) iturburua hobeki ulertu ahal izanen dugu.

⁶⁷¹ Tradizioen jarraitutasunaren etetez, ikus Hobsbawm eta Ranger arg. 2002 [1983]: 14.

(1) Aro Ilunaren eragina

Errana dugunez, 1936ko Gerra Zibilarekin hasi eta, 1975ean, frankismo garaia akitu arteko hamarkadak izendatu ditugu hala. Tarte horretan biltzen diren urteetan garatzen da Pott Bandako kideek⁶⁷² alboratu zituzten helburu abertzaledun (literatur)tradizio eta aritua. Aro Ilunak gizartearen barne- nahiz kanpo-harremanen bide naturala mendratu zituen; Sarrionandiak *Moroak gara behelaino artean?* liburuan erran gisa, “Kulturaren ateak ez dira denentzat berdin irekiak munduan, botere politiko eta ekonomikoen mendean dago kultur produktuen mobilitate eta merkatua” (448. or.). Errepresio gogorak euskal kultura –euskarari eta euskarazko kulturari, edo helburu ideologiko zehatzei, atxikia zena, bereziki– haratagoko nazioetan birmoldatuz zihoazen aldaketa eta egokitzeetatik kanpo utzi zuen.

Hertsitze horren zabaltzea 1975ean, Francoren hiltzearekin batera, ofizialdu ahalko balitz ere, diktaduraren hondarreko urteetan, munduratze egarri ziren ahaleginak azaleratzen hasiak ziren, gaurgero, eta 1975etik aitzina nabariago plazaratzen hasi ziren. Alabaina, Trantsizioako urteak errepresiozkoak izan ziren euskal jendearendako, eta munduratze gosez gain, errepresio berantiar hark berak Aro Ilunarekiko haustura eskatzen zuen⁶⁷³.

Gizartea aldatua izaki, anakronikoak zitzaizkion hainbat eragin izan gabe ekin behar izan zuten Pottteko kideek literaturari behatzen zion proiektua. Ziur aski denborak aitzina egin ahala ez egokitu izanak berak erreferenteen bilaketaren gordina eta horietan aurkiturikoarekiko atsekabea areagotu egingen zituen; urrutiko erranen formak hizkuntzaren arauak akitzeko molde gisa balio ez izateari gaineratu zitzaion hizkuntza horrek islatzen zuen munduarekin hautsi beharra (Sarrionandia 2010: 525).

(2) Erreferenteen malgua, lausoa

Trantsizioan, kultura mailan, egonkortasun gabezia sortu zuen bigarren faktoreak erreferenteekin du zerikusia. Ikusi berri dugu Aro Ilunaren eragin nabarmenatarikoa izan zela isolamendua, eta, beraz, bakartasun horrek berak ekarri zuen erreferente berriztatu edo antigoalekoen egokitze gabeziak koloka sentimen nabaria sorrarazi izana. Hertsiki lotua da bizipen hori ELeren 1975-1990 bitarteko egoerari: diktadurak euskal gizartean muga sakonak sorrarazi zituen, eta ezarririko muga itogarri horien jaustek oinarri kultural sendo gabeziaren ohartzea, konturatze horren zama, gaineratu zuen.

⁶⁷² “Pottteko kide” izendatuko ditugu, sarri, eta *Ustela* aldizkarian arituak, “Ustelako kide”.

⁶⁷³ Bertzerik da halako haustura errotik gertatu ez izana (Luengo 2004; Morán 1992; Vilarós 1998).

Beraz, murru itogarrien erorketak nortasuna ezaugarri positiboetan berreraikitze ahala eman zuen, baina baita ahula zen euskal gizartea, berriz, agertu ere. Abian ziren erreferenteak erabaki eta garai berrietara egokitu behar ziren: egonkortasun gabezia egoeretan sarri gertatzen den gisa, eraikitzeke eta eraikitzeke denak sortzen duen aukeraren zabalak zalantza ernatzen du. Helburuak, nahiak eta horiek lortzeko medioak finkatu behar zirelarik, aukeren anitzak –eta ahalak berak– sortzen duen bertigoak lagundurik, erreferente kanoniko, ziur eta sendorik gabeko gizartea zen Trantsizioko EAEkoa.

(3) Zentro gabezia

Trantsizioko lehen urteetan, gune finko koordinatzailerik gabe zen gune sinbolikoa. Kultura arloan, erraterako, helburu orokor eta bateratuen norabidea gidatuko zuen zentro baten aukeratze eta erabakitze nahiz eraikitze bideari ekin behar izan zitzaion. Gune sendo horren gabeziak, noraeza sentimena sortzeko aukera areagotu zuen, sorkuntza eta berrikuntza nahiz egokitze aukerak arrunt zabalik zituen gizarte koordinatu gabea islatzen zuelarik.

Literatura mailan, Pottoko kideek agertzen duten zentrotik kanpo izatearen sentimena egiaz eraikitzeke zen gune koordinatzaile horren testuinguruan ulertu behar litzateke: “gu omen gara marjinalak, malditoak! Euskal literatura bera da marjinala” (“Haikeberku da, benetan”, *Pott* 6; ikus B eranskinen “4) ELS funtzional baten beharra” ere). Hau da, erreferente sendo, eusle eta bideratzailea behar lukeenaren gabeziak berak sortzen du kanpo-ikuspuntua Atxaga, Sarrionandia eta Juaristirengan.

b.1.2. Hiru gatazka nagusien isla

Krisi Orokor Ñabartuak euskal gizartean sortu zituen hiru eztabaida nagusi ELEN –literatur eremuari legozkiokeen koordinatuetan, noski– hausnartu ziren; identitate, hizkuntza eta tradizio gatazkak ELEren norabideekiko harremanean pentsatu ziren.

Hizkuntz eta tradizio gatazka identitate gatazkaren bi gauzatze zehatz gisa atzeman daitezke; edozein gisatan, bakoitzak banaka deskribatua izateko aski garapen indibidual baduen, bakoitzaren laburpena eginen dugu, ondoko orrialdeetan. Hala, bai identitateari, bai hizkuntzari eta gatazkari, buruzko hainbat xehetasun bildu ditugu; zehazte horiek, ordea, zazpigarren atalean landuko dugun tradizio gatazkarekin eta hiru idazleen arituekin lotura duten neurrian garatu ditugu. Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik 1976-1990 bitartean sortu zituzten lanei buruzko aipamenek lagunduko digute Krisi

Orokor Ñabartuak sortu zituen hiru gatazka nagusi horien zama, ELEN, nolakoa izan zen irudikatzen.

Krisi Orokor Ñabartuak bere baitan eremu aunitzen krisia biltzen duela argudiatu dugun arren, identitate krisirik bazen hala ez zenaren arrazonamendua adituen esku utzi dugu; edozein gisatan, ziur izan zen euskal identitatearekiko eta bere ezaugarriekiko –tradizioarekiko, erreferenteekiko nahiz helburuekiko– zalantza garaia. Hau da –Krisi Orokorra dela eta aipaturiko identitate krisiaz bertzelakorik egon zen ala ez alde batera utzirik–, Krisi Orokor Ñabartuarekin, identitatearen inguruan zalantzak sortu ziren. Urrutira gabe, aztertuko ditugun Potteko kideen aritueta, *Bigarren Aldian⁶⁷⁴ sorturiko banaketaren muina Krisi Orokor Ñabartuak agerraraziriko identitate aniztasunean eta aniztasun horrekin bat heldu ziren proposamen banakoetan dela ikusiko dugu.

The fact that many different kinds of artist and writer are involved in the processes of embodying the nation also tells us that there can never be a single ‘version’ of the nation and its past, just as there can never be a homogeneous national community nor a single ‘national destiny’. Different classes, castes, confessions, regions and ethnic communities may espouse variant versions and rival narratives of the nation. This may lead to ideological conflict, as different elites propose opposed historical narratives and prescriptions for the nation. (Smith 2009: 33)

*Lehen Aldian⁶⁷⁵, Pott Bandarekin, identitateari atxikiriko ideologiaren ginetik, helburu literarioei bertze deusen ginetik eman zitzaizkien lehentasuna; Bigarren Aldian, ordea, beren arteko aldeak aunitzez agerikoagoak egin ziren, idatzietan. Helburu eta identifikazio erreferente desberdinak izateak bi ondorio nagusi izan zituen: garapenaren, kokapenaren eta tradizioaren erabilera desberdinak egin, eta horiekiko harreman diferenteetan mugiarazi zituen idazleak. Hiruren arteko aldeen multzo horrek lotura estua du identitatearekin eta honekin heldu den ideologia eskergarekin; horregatik, Anthony D. Smithen arestiko hitzak gogoan izanik, 7.2. atalean aztergai ditugun idazleek beren proposamena, bakoitzak komunitateaz zuen ikuspegiari atxikia, egin zutela ikusiko dugu.

Identitate aniztasunaren baitan, erreferente desberdinen hautaketa da behatuko ditugun idazleen lanetako baldintzatzaile nagusia; bertzeak bertze, zehazkiago, hizkuntz hautua izan da Juaristiren lana Atxaga eta Sarrionandiarenetik nabarmen bereizi duen alde nagusietarik bat.

⁶⁷⁴ Ikus A eranskinetako “Aldiak: Potteko kideen bi aldiak” sarrera.

⁶⁷⁵ Ikus A eranskinetako “Aldiak: Potteko kideen bi aldiak” sarrera.

Arazo linguistikoa espresuki da adierazgarria, identitate gatazka gartsuki bizi duten komunitateetan (Mainer, *in* Mainer eta Juliá 2000: 171). EAE izanen zen horretan, idazle batengan baino gehiagorengan foku bihurtu zen gaia, eta Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren idatziak elkarrengandik arrunt banatzen dituen ideia multzoen erakusgarri da, preseski, hizkuntzaren hautaketa: Potteko garaietatik desberdin bizi izana zatekeen hizkuntzekiko harremanak, Bigarren Aldian, hiruren arituan garapen guziz desberdina izan zuen. Beren lanen ibilbideari erreparaturik, *Pott* zenbakietan hizkuntz aniztasunaren erabilera konstantea dela iduri du; guti goiti-beheiti 1976tik, *Ziutateazekin*⁶⁷⁶ (Z), 1980ra bitartean (*Pott Tropikala*), hizkuntz aniztasuna hiru idazleen lanetan maiz erabiliriko baliabidea zen, arituak abangoardiekin lotuago ziren neurrian, ziur aski.

Hala ere, erran gisa, bada hiruren artean alde nabaririk: Atxagaren lanetan, aunitzez gehiago sumatzen da hizkuntza desberdinen erabilera, akaso idatzietan beretan hizpide den hizkuntzaren puskatzea –gizartearen, inguruaren, errealitatearen puskatzearen ispilu den bezalaxe– irudikatzen. Adibiderik garbienetarikoa *Etiopia* (E) lanean da, Pott Bandaren garaian sorturiko lanean.

Aldiz, Sarrionandia eta Juaristik hizkuntzekin duten harremana desberdinki islatzen da. Sarrionandiak hasiera hasieratik ama hizkuntzaren atxikimendua aukeratu zuen bere hizkuntz gatazka posibleen helduleku; gatazka jorratzeko bidea euskararen eta gaztelaniaren arteko aukerara bideratu beharrean, euskararen aldaerei erreparatu zien; euskararen baitako hautaketetan murgildurikoak ziren lehen hamar urteetako idazkiak, lengoiaia poetikoaren lanketara bideratu zuelarik bere aritua. Testuinguru horretan erroturikoa da handik eta hemendik ageri den ekialdetik –goi nafarrera eta IEHtik– hurbileko lengoaiaren erabilera sortzaile eta poetikoa. Urteek aitzina egin ahala, ordea, lan honen muga diren urteetatik haratago, erdialde eta mendebaldeko euskararen zantzuak gero eta nabariagoak izanen dira, euskalki horrek erbestetiko urruntasunetik etxeko goxotasunera hurbilduko balu bezala.

Erbesteratua izanik ere (1985), ama hizkuntzaren hautaketari eustek erbesteratuek ama hizkuntzekiko izan ahal dituzten bideetarik baten hautua erakusten du; ama hizkuntzari indartsuki eutsi, ama hizkuntza alde batera utzi edo ama hizkuntza nahiz bertze hizkuntzen arteko jauzi etengabeak posible direlarik –George Steiner-en

⁶⁷⁶ Zazpigarren ataleko corpusa osatzen duten liburuei erreferentzia egiteko, lehen agerraldiaren ondotik laburdurak erabiliko ditugu; gainera, sarri aipatzen den *Literatura vasca* “LV” izanen da.

azalpenak buruan, Vladímir Nabokov-ek bere erbesterratu egoeran ama hizkuntzarekiko jasan zuen deserrotzeak Sarrionandiarena ez bezalako harreman posibleetariko baten adibidea erakutsiko luke (2002 [1972]: 21)–. Joera horrek Atxagaren alderantz hurbiltzen du Sarrionandiaren lana; izan ere, hizkuntz gatazkaren fokua euskara eta gaztelania kontrajarpenean jarria baino gehiago, euskararen beraren baitara biltzen du: euskararen batasun ahaleginak abian ziren garaian, euskararen idatzizko aldaera literario historikora jotzen du iurretarrak, sarri. Hala, Atxagak *Obabakoakekin (Ob.)*, 1988an, garaturiko bide berari eusten dio Sarrionandiak; hau da, lengoaia poetiko pertsonala euskararen batasuna nahi zen garaian bilatzeari.

Gibeleko balizko gaztelaniaren eta euskararen arteko borrokaren hautua inplizituki garatu dutela iduri badu ere, aski erabaki markatua da; fokua gaztelaniaren eta euskararen arteko aukeran jarri ez, eta euskararen erabilera literarioak lantzeak aitzinez harturiko erabakia ematen baitu aditzera. Sarrionandiak, beranduago, erran gisa: “Hizkuntza minoritarioan idaztea ez da berezkoa, ez da funtsik gabekoa, [...] Erresistentzia da era batean edo bestean, modu subertsiboan edo modu subjuntiboan” (2010: 431).

Bien lanetan, denborak aitzina egin ahala, marjineko solasetarako joera makaldu egiten da. Sarrionandiaren kasuan, erbestearen baldintza mugatzailea izan liteke; berak erran gisa “hogeitaz baina gehiago dira Euskal Herritik kanpora nabilela, giro euskaldunean aldi labur batzuetan baizik ez naiz bizi izan eta euskara ez zait erraza egiten” (*in* Etxeberría 2002: 283).

Juaristik, ordea, euskararen eta gaztelaniaren arteko gatazka zuzenki adierazten du. Gatazka horren garapena Sarrionandia⁶⁷⁷ nahiz Atxagaren hautuaren guziz bertzelakoa dela ikusten da, aukeraturiko hizkuntza azpimarratu ordez –gaztelania–, bertzearen ezeztapenera jotzen baitu: euskara alde batera uztea, gaztelania ama hizkuntza bakartzat onartuz. Ez du ez euskara, ezta, bere ustez, euskarak biltzen duen munduarekin zerikusirik izan nahi; horren erakusgarri dira *Diario del poeta recién cansadoko (Diario)* “Euskadi, 1984”⁶⁷⁸ eta *Arte de mareareko (Arte)* “En torno al

⁶⁷⁷ Sarrionandiak, hizkuntza aberritzat duelarik, bere ikuspegiari jarraiki: “Euskaldunen aberria euskara da, aberria ez da hizkuntza bakarrik, baina hizkuntza bai, eta hizkuntzaren bidez jaso ditugun tradizio guztiak” (*NENH*: 130).

⁶⁷⁸ “Pueblo de redentores por la espada,/ Alvarez Empanza, voz de miel,/ Juan San Martín, en nombre de Gabriel/ Aresti de memoria denostada,/ os pido la palabra. Oíd. No es nada/ más que un minuto. No hablaré por él./ Otsalar, Txillardegi, pueblo fiel,/ pueblo vasco de lengua envenenada,/ Juanito, Jose Luis, oíd mis vanos/ propósitos para esta primavera:/ escogeré desde ahora a mis hermanos,/ defenderé la casa

casticismo” nahiz “Epístola a los vascos” olerkiak, bertzeak bertze. Hala, zalantza dialektikoa ama hizkuntza ez den⁶⁷⁹ euskararen alboraketan garatzen du Juaristik.

Zazpigarren atalaren ikergai nagusietarik bat tradizioa eta, bereziki, literatur tradizioaren auzia denez, espresuki arituko gara, 7.1.3 atalean, Trantsizioarekin batera planteatu zen euskal (literatur)tradizio gatazkari buruz; Atxaga, Sarrionandia eta Juaristirekiko loturak espresuki landuko ditugu 7.2.n.

b.1. azpiatalean erranak kontuan izanik, autonomien sistemak estatutik gidatua heldu zen demokraziaren eraikuntza eta, espresuki, komunitateen identitate hausnarketa izan zuen ondorio; hau da, tokian tokiko identitateen berreskuratzea saiatzeko giroa bizi zen (Juliá, *in* Mainer eta Juliá 2000: 73-74). Hala, arestian aipaturiko hizkuntz eta tradizio gatazkak –nahiz horiek barne hartzen dituen identitate gatazka bera– Krisi Orokor Ñabartuan azaleratu ziren.

Maila orokorrean hausnartu ziren ideiek, gainera, ELEren ondorio zehatzak izan zituzten; testuinguru berriak ekarririko auziek ELEren antolaketa eta egituraketa eta, bereziki, oinarriak erabaki beharra ekarri zuten. Beraz, ELSrantzako ibilbidea testuinguruari hagitz atxikia zela ikusi dugu, baina gaurgero egitura eta antolaketa abiatuak zituen gaineko sistemaren egoerari behatzea falta zaigu. Segidan heldu den azpiatalean, Espainiar Literatur Sistemaren (Esp.LS) egoera zertan zen ikusiko dugu; gisa horretan, hobeki helduko diogu b.3.n eginen dugun hausnarketari.

b.2. Espainia: Espainiako Literatur Sistemaren egoera

Frankismoa hasi zenetik Trantsizioko lehen urteak arte, Esp.LSn hiru ezaugarri nagusi dira literatur sistema autonomoaren garapenean nabarmendu beharrekoak: 1950etik aitzina erregimenak literatur eremuan ezarri zuen askatasun mugatua –“cárcel de papel” (Buckley 1996: 3-10)–, Franco hil ondotik, segidan, intelektualek isiltasunaren alde eginiko hautua eta orokorrean nagusitu zen desengainu izpiritua.

Bourdieuaren “abangoardia” kontzeptua Trantsizioa bera ulertzeko hagitz garrantzitsua dela argudiatzen du Buckleyk, Espainiako Trantsizioan gauzatu gabeko

que yo quiera./ Jamás, sobre esta tierra de cristianos/ volveré a hablar en vuestro ingrato euskera.” (“Euskadi, 1984” *Diario*)

⁶⁷⁹ “Pocos títulos puedo esgrimir a mi favor: sólo el haber sido un espectador privilegiado de las últimas décadas –prodigiosas– de la historia literaria vasca y el haber dedicado muchos días con sus noches al estudio de una lengua que no era la de mi entorno familiar.” (LV: 10)

proiektuen islak izan omen baitziren abangoardiak; are gehiago, literatur eremu autonomoaren agerpena abangoardien presentziak baieztatuko lukeela adierazten du:

Pienso que el concepto de vanguardia –tal como lo entiende Bourdieu⁶⁸⁰ es fundamental para comprender la transición misma, ya que las vanguardias en España no fueron sino “proyectos” de transición, por más que estos proyectos no llegaran a hacerse realidad. Estas vanguardias [...] no son sino las utopías de la transición, de aquella transición que pudo ser pero que no fue o [...] la rectificación misma de la transición en el momento mismo en el que se estaba gastando. (1996: 5)

Buckleyk dioenez, horiek gertatzeko “literatur eremu” baten beharra da; espazio eta mugak definituak dituen literatur eremua. Espazio hori, ordea, arrunt atxikia zen, Aro Ilunean eta Trantsizioan zehar, diktaturako totalitarismoari. Izan ere, diktadura akitu ondotik ez zen uste zena adinako ezandarik gertatu, eta, diktaduran, erregimen totalitario orotan izan ohi den eremu desberdinen fusioaz gain, frankismoan ezarritako zentsurak berak ezinezko egin omen zuen, lehen hogeitaz urteetan, abangoardiak agertzerik (*loc. cit.*).

50en akieran, aldiz, Espainiar Literatur Eremuaren (Esp.LE) autonomiaren agerpena lagundu zuen aldaketa nabaria sumatu omen zen, Francoren erregimenean: Gerra Zibilaren ondotik jaieriko belaunaldiaren unibertsitateratze eta argitaratzeak. Hala, erregimen autoritarioa izanagatik, argiki ideologia marxistari loturiko liburuen argitaratzeak, literatur sistemaren autonomiarako bertze eremuekiko ezinbertzeko den “errefrakzio” boterea lortu zen (*ibid.*: 6); hau da, Buckleyren argudiaketari jarraiki, abangoardiak berak posible izanen ziren, jada⁶⁸¹.

60ko hamarkadatik aitzina, Espainiak, Nazio Batuetan sartzearekin guzizko isolamenduaren akiera sentitzeaz haratago, legitimazio internazionalaren beharra zuen, europartu nahi bazuen. Hori dela eta, erregimenak Europara begira lortu nahiriko itxura toleranteak literatur sistema baldintzatu egin zuen, arituen aniztasunarekin batera literatur lan horien mugak erregimenak berak hagitz hurbiletik zelatatzuz; hau da,

⁶⁸⁰ “Estos nuevos ‘herejes’ que rompen sus primeras lanzas en el campo literario no se limitan a ser el reemplazo, por ley de vida, de generaciones ya caducas [...] sino que suelen imponer su propia obra por circunstancias externas al propio campo literario. Así, las crisis políticas y las revoluciones producen, inevitablemente, un cambio de relación de fuerzas en el campo literario. Surge una nueva literatura, destinada a satisfacer la demanda de un nuevo mercado de consumidores, es decir, de lectores que sintonizan con la nueva situación política y, de esta manera, aseguran el éxito de este nuevo grupo de escritores” (Bourdieu, *in* Buckley 1996: 4).

⁶⁸¹ Abangoardiaren eta literatur autonomiaren arteko harremanaren auzia HEHn nola gauzatu zen zehazkiago hausnartzeko, ikus segidan den b.3. azpiatala. Bertan, HEHko abangoardien agerpenaren eta literatur sistemaren izanaren arteko erlazioaz aritzeko bi autonomia kontuan izan behar direla argudiatuko dugu. Proposatu ditugun bi autonomietatik bigarrenari, “beregaina” deituari, egiten dio erreferentzia Buckleyk, ez sistemaren askatasun ideologikoari. Beraz, euskal literaturak autonomia beregaina Espainiako literaturak baino beranduago lortu zuela erran liteke.

Buckleyk aipatzen duen “cárcel de papel” delakoan bizi ziren oposizioko intelektualak. Hala, literaturaren “autonomia” horrek politikaranzko jauzirik izan ez zedin ziurtatzen zion erregimenari, oposizioko intelektualen lana lekukotasun huts izatera kondenatuz (*ibid.*: 8). Ondorioz, frankismoak berak sorturiko harreman anbiguoak Europan gainbeheran zen marxismoaren erantzuna bulkatu zuen.

Demokraziarako bidean zama handia izan bide zuten idazleengan jarrerarik deigarriena isiltasuna izan zen. Francoren ondotik espainiar estatuan idazleek izaniko jarrera ulertzeko, Buckleyk aipatzen duen trantsizio bikoitzaren testuingurura jo behar da. Intelektualen isiltasunaren gibelean, 1968ko errebolaren oihartzuna ulertu behar omen da, idazleak gaugero “trantsizionatuak” zirela eta; 1975a baino lehenagokoa zen 1968ko trantsizio europarra, hain zuzen, bizi izana baitzuten.

68tik aitzina, ideologia zehatz bat ez ezik, Historia bera desegina izaki, marxismoaren inguruan bilduriko idazle bateratu andanaren sakabanaketa gertatu zen. Horregatik, 60etan Espainiako intelektualen konpromisoa agerikoa izanagatik, 1975ean isiltasun intelektuala gailendu zen: idazleak beren konpromiso pertsonaletan murgilduak omen ziren. Bertzeak bertze, 70en hasieran orokorturiko belaunaldi akidurak inguruarekiko nahiz norberarekiko eskapismoa ardatz izanen zuen narratiba ekarri zuen. Buckleyk erran gisa:

Faltó, en la transición española, ese «quinto poder», esa autoridad moral que, en determinados momentos de la historia, debe ejercer la clase intelectual como contrapeso del poder político, para alejar el pensamiento de la clase política de que aquella transición era, exclusivamente, “cosa de ellos”. Es parte de ese precio que hubo que pagar por la transición, tal como ha señalado Gregorio Morán⁶⁸². (*Ibid.*: sarrera, XVI-XVII)

Intelektualen aldetiko isiltasunak Trantsizioko bertze ezaugarri nagusia eragin zuen: “desengainuaren izpiritua”.

Lo que se echa de menos es precisamente la deslegitimación de la memoria oficial, pues aunque muchos habían esperado una explosión de obras inéditas que los intelectuales españoles habrían tenido en los cajones esperando la muerte del dictador, no ocurrió nada en especial. Con la excepción de algunas voces aisladas de algunos escritores, se puede decir que “la mayoría de los textos producidos en la posdictadura nos dejan un abrumador y sofisticado retrato de una España plenamente occidentalizada” (Vilarós 1998: 241)⁶⁸³, que no reflejaba tanto la España que era como la que quería ser sin la abrumadora memoria ni presencia de Francisco Franco. (Luengo 2004: 94)

Hau da, “como si la transición no hubiera dado de sí todo aquello que prometía, es decir, como si la función del pueblo fuera la de recibir, de forma pasiva, los beneficios

⁶⁸² Buckleyk egiten duen erreferentzia bibliografian bildu dugu: Morán 1991.

⁶⁸³ Erreferentzia hau bibliografian bildu dugu: Vilarós 1998.

de la transición, en lugar de participar activamente en ella” (Buckley 1996: sarrera, XVIII).

b.3. Hego Euskal Herria: abangoardiak ELS autonomo garaian?

ELeren egoera nagusia islatzea helburu duen atalarekin akitzeko, hausnartu eginen dugu Buckleyk abangoardiak direla eta erranak ELeren azterketa egiteko bateragarri ote diren; izan ere, ELEk 1975-1990 bitartean jasan zuen garapenak adituak deskribatzen duen ideia nagusi bat zehaztu beharra sortu du. Ikusiko dugunez, Buckleyk abangoardien existentziaren eta literatur eremuen artean ezartzen duen harremana ez da, beti, modu berean gertatzen.

Hori argudiatu ahal izateko, 6.1.4.n solasgai izan ditugun pare bat ideia berreskuratuko ditugu: sistema integratuek eta sistema integratzaileek dituzten propietateak “autonomia” kontzeptuarekiko harremanean hausnartuko ditugu.

Buckleyk abangoardien, literatur autonomiaren eta erregimen totalitarioen artean ezartzen duen harremana desberdin definituko dugu, azpiatal honetan. HEHn frankismoaren hondarreko urteekin, eta Trantsizioarekin batera, agertu ziren abangoardiek Espainian ez bezalako “literatur autonomia” islatzen dutelakoan baikara.

Buckleyrendako, abangoardien agerpenak sistema autonomoa du gibelean (1996: 5); aldiz, baieztapen horrek biltzen duena HEHn abangoardiak sortu zireneko urteen izanarekin alderatuz gero, sumatu egiten da Espainiako abangoardiei buruz eginiko baieztapen orokorra zertxobait gehiago zehaztu behar dela: euskaraz idatzizko abangoardia literario kanonikoen adibide bihurtu diren *Ustela* eta *Pott* ELE prekario batean agertu ziren, bai, baina, artean sistema literario mugatu izatera ailegatu gabea zen dermioan; muga zehatzik gabeko eremuan.

6.1.4. atalean erranek trantsiziozko egoera hori ulertzen laguntzen dute. Aitzinatal horretan genioen kultur sistema baten baitan maila desberdinetako autonomiak bereiz daitezkeela; sistema integratu eta sistema integratzaile mailakoak, preseski. 1975etik aitzinako fasean, Euskal Kultur Sistemak (EKS), nahiz bere baitako eremu berezituak, sistema integratu izateko bidea hasi bazuten ere, prozesua ez zen segidan gertatu, eta trantsizio momentuak izan ziren. Lehen literatur abangoardiak agertu zirenean, erraterako, ELE ez zen sistema integratzailea; aitzitik, abangoardiek sistema integratzaile izateko behar zituzten arauak aldarrikatzen zituzten: ELE sistema izatea lagunduko zuten arau bereizi eta berezituaren multzoa, hain zuzen ere.

Hau da, abangoardien agerpenak eremu literario baten izana ekarri arren, ez du eremu horren antolaketa eta sistematizitate beregainik –edo beregaintasun sistematikorik– ziurtatzen: ez dakar literatur eremua sistema integratzaile gisa osatua izaterik. Horregatik, Espainiako abangoardien agerpenak inplikutzen duen literatur sistemaren izana zehaztu beharrekoa litzateke, bai periferiatik periferiara, bai zentroarekiko elkarreraginean.

Hori dela eta, zentroaren aritutik aldenduak ziren literatura periferikoen ibilbidea hobeki atzemateko, mesede eginen du bi autonomia motataz aritzen garela oroitzeak: autonomia ideologikoa eta eremu beregaintasuna islatzen dutenak. Lehenak literatur eremuaren harreman zehatz bati eginen lioke erreferentzia, eta, bertzek, eremuaren izaerari berari.

Autonomia ideologikoa

Autonomia maila honek eremuak izan dezakeen harreman zehatz bati egiten dio erreferentzia; helburu nagusi gisa literatura izan, eta bertze eremuetako diskurtsoen mesedetan erabiltzetik aske den literatur autonomia, nahiz haren aldarrikatzea, litzateke. Ideia honekin, zernahi gisatako helburu ideologiko egituratutik urrutiratua den eremuari egiten zaio erreferentzia, normalki.

Autonomiaren adiera hau, azken finean, literatur eremuak sistema integratzaile gisa garatzeko behar duen propietateetarik bati buruz ari da. Beraz, sistema integratua izatea edo ez izatea gibelhausnarketa du ideia honek; gogoeta zabalago baten adierazpen zehatza da.

Solasgai ditugun abangoardiak agertu zirenean, autonomia ideologiko guzizkorik ez zen, ELEN; eta, hain zuzen horrexegatik, abangoardiek aldarrikaturiko aldeetarik bat izan zen hori (ikus B eranskineko “Foku berari dagozkion helburu berdinak”, “3) Literaturaren autonomiaren aldarrikapena” azpiatala).

Eremu beregaintasuna

Eremuaren izaera bereziaren inguruan eraikiriko beregaintasunari erreferentzia egiten dion autonomia litzateke. Sistema beregain gisa funtzionatu ahal duen eremu literarioa, sistematizitate funtzional propioa garatzeko autonomia duena; hau da, barne-arau egituratzaile propioak dituen eremua. Hala ere, autonomia mota hau lortzeko ezinbertzekoa litzateke Buckleyk aipatzen duen askatasuna: erregimen autoritarioetatik aske izatea (1996: 5). Edota, guk, 6.1.4. atalean, aitzinatu gisa:

sistema integratzaile nagusiagoren bateko behar luke eremuak; hartara, sistema integratzaile izaera garatzea aisago lukeelarik.

Gurean, lehen literatur abangoardiak agertu zirenean, ordea, literatur eremua ez zen, artean, sistema integratzaile, eta 1975ean eman zitzaion sistema integratu izateko ahalmena. Hortaz, trantsizioko momentua bizi zuen ELEk.

Agerikoa denez, lehen autonomia –ideologikoa– bigarren beregaintasunak –eremu egituratzaileak– barne hartzen du, hein batean. Gainera, nekez garatuko da eremu bat sistema integratzaile gisa integratua ez bada.

Jakina denez, ELS garaikidearen garapena ezinbertzean izan zen lotua literaturaren autonomia ideologikoa aldarrikatu izanarekin; euskal literaturaren autonomia ideologikoa, ordea, 1975etik aitzina Potteko kideek –eta Ustelako kideek– aldarrikatu arren, autonomia sistemiko beregainik gabeko eremua zen euskal literatura: sistema bereizi gisa ordenatu eta egituratu gabea. Artean mugatu gabea baitzen: ez zuen barne-arau egituratzailearik, EKS sistema integratu gisa onartu berria baitzen; beraz, ez zen sistema integratzailea.

Hortaz, Buckleyk, Bourdieuren hitzetatik abiatuz, egiten duen baieztapena –Espainian 50eko hamarkadan gertaturiko aldaketen ondorio gisa azalduz⁶⁸⁴– ezin liteke HEHn, bere horretan, aplikatu:

Para que la vanguardia exista tiene que existir antes, tal como hemos visto⁶⁸⁵, un «campo literario», es decir, un espacio perfectamente limitado por sus lindes y fronteras que lo separan de los otros campos de la actividad social. (1996: 5)

Literatur sistemarik gabeko eremuan ezin sistemaren autonomiarik lortu, ez baita. Beraz, ELE Trantsiziotik aitzina desberdina dela ulertu behar da: autonomia lortzen

⁶⁸⁴ “está claro que esta autonomía del campo sólo es posible en un régimen de libertad, donde el poder político respeta las leyes y normas que rigen en los otros campos. [...] El régimen de censura supone el fin de la autonomía del campo literario, en el sentido de que el poder impone sus propios criterios –sus propias normas– en un campo que no es el suyo. En los primeros veinte años del Régimen de Franco no pudo haber vanguardias –tal como las entiende Bourdieu– en España, por la sencilla razón de que el campo literario carecía de su propia autonomía. Pero a finales de la década de los cincuenta se produce un cambio en el régimen de Franco –impulsado tanto por fuerzas externas como por su propia evolución interna– que habría de propiciar, tal como veremos, la autonomía del campo literario: la crisis del propio régimen y la serie de medidas que desencadena (devaluación de la peseta, plan de estabilización, formación de un gobierno de tecnócratas, inicio de una economía de mercado, etc.) se conjugan con la llegada a las aulas universitarias de una generación nacida después de la guerra civil y con las primeras publicaciones de una generación que no participó en ella, la de los «niños de la guerra»” (Buckley 1996: 6-7). Ikus b.2. aitzinatalean, Esp.LSri buruz ari ginelarik, errana.

⁶⁸⁵ Oroitu aitzineko b.2. azpiatalean erranak.

baitu, urte horietan, bai bertze eremuen mesedetan soilik erabiltzearekiko –autonomia ideologikoa–, baita sistema beregain gisa sortzen delarik ere –eremu beregaintasuna–.

La condición de intelectual, tal como nos recuerda Pierre Bourdieu, no depende de un determinado mensaje, sino más bien del lugar desde donde ese mensaje es emitido. Ese lugar es, según Bourdieu, el campo literario, y en eso consiste precisamente la modernidad: en el establecimiento de un campo autónomo para escritores y artistas, totalmente diferenciado de los otros campos (el político, el social, el profesional, etc.) de la actividad humana. (*Ibid.*: 45)

Hortaz, autonomia osoaren gauzapean biak. Horregatik, 1975etik aitzina, eta 1990era arteko prozesuan, euskal literaturaren gauzapean eguneratuera iristeko bidea egin zela erran liteke.

7.1.1.c. Rol egituratze berria

Atal honetan, 3.1.4. puntu egin gisa, testuinguruaren eta gune eragileen arteko harremanari erreparatu diogu; hau da, aztertu eginen dugu kultur moldaketaren bigarren fasean izaniko rol banaketa. Kasu honetan, ordea, ELeren garapenean espresuki eragin zuten guneen rolean ardatzuko dugu azterketa. Hala, bigarren faseari dagokion azterketa egiteaz gain, lehen fasearekiko alderatzea ere eginen dugu. Gisa horretan, bien arteko konparazioak agerraraziko ditu euskal kulturaren erakundetzeak rol banaketara ekarritako aldaketak.

Euskal kultur garapenearen bulkada, 1975etik aitzina, alde desberdinetatik heldu zela ikusiko dugu. Horretarako, lehenik (c.1.), gune egituratzaileen azterketa zehatzerako pauso nagusiak aurkeztu eta azalduko ditugu; segidan (c.2.), zehazki ELeren garapena moldatu zuten gune eragileak ikertuko ditugu.

c.1. Herriaren eta kultur gileen arteko distantzia

ELeren erakundetzea eta antolaketa bulkatu zuten gune egituratzaileez⁶⁸⁶ aritu aitzin (c.2.), erreparatu egin nahi diegu botere zehatzeko gune eragile horien ikuspegi zabalari. Batetik, gune egituratzaileen azterketarako puntu nagusiak aurkeztuko ditugu (“Gune egituratzaileen azterketarako bidea”); bertzetik, 1960-1990 bitarteko kultur moldaketan konstante izan ziren gune partaide nagusiei (“Bi saio nagusietako kultur gileen rola”). Hau da, gune egituratzaileen eta botere iturrien aldaketa (5.2., 6.1.4.) 1960-1975 eta 1975-1990 bitarteko fasean arteko alde nagusietariko izanik,

⁶⁸⁶ Oroitu “gune egituratzaile” gisa izendatu ditugula eragin egituratzaile eta erakundetzailerak duten gune eragileak.

aurkeztu eginen ditugu aldaketa horren argigarri diren aldeak. 1975etik aitzina ELE moldatu zuten gune egituratzaileen eragina zehazki aztertzeko behar diren ideiak aurkeztuko ditugu; horretarako, laburbildu eginen dugu euskal komunitateak jasan dituen hondarrek bi kultur moldaketa nagusietan sumatua. Bi garai horietan ikusia hagitz lagungarria izanen da, segidan den azpiataleko interpretazioa argitzeko.

- **Gune egituratzaileen azterketarako bidea**

c.2. azpiatalean ikusiko dugunez, kulturgileak izan ziren –1960-1975 eta 1975-1990 bitarteko faseetan–, modu desberdinean, gune eragile konstante nagusietarikoak, ELEn. Hori dela eta, kulturgileek ELEren erakundetze prozesuan izan zuten rolaz ohartzeko, kulturgileen eta komunitatearen arteko harremana azterzea proposatzen dugu; izan ere, harreman horrek agerian uzten du 1975etik aitzinako kultur prozesu nagusia –erakundetzea– eta lehen fasekoa –berreskuratze funtzionala– gune eragile desberdinek, eta modu diferentean, bulkatu zutela.

Alabaina, aztergai den garaian erakundetzea kulturak jasaniko prozesu nagusia izanik, fokua gehiago hurbilduko dugu: gune eragileen artean, espresuki erreparatu beharko diegu erakundetze boterea izan zuten gune egituratzaileei.

Behin fokua ezarria delarik, gune horien eragin zehatza identifikatzeko puntu oinarritzkoak izan beharko ditugu kontuan: gune egituratzaileen identifikatzea, horiek gainerako komunitate partaideekin izaniko harremana eta eraginiko bulkadaren izana. Hiru alde horiek emanen dute, nagusiki, 1975-1990 bitartean erakundetze prozesuak ELEn izaniko bulkadaren aditze zehatza.

- Batetik, beraz, komunitatearen garapenak aztergai den momentuan zein gune egituratzaile nagusi z(it)uen identifikatu beharko d(it)ugu; euskal komunitatearen kasuan, hondarrek bi moldatze saio nagusietan kulturgileak, erakundeak eta herria izan dira saioak bideratu dituzten agente nagusiak (6.1.4.a.). Beraz, zeinahi gune egituratzailearen ondorio zehatzak hausnartzeko, behatu egin beharko diegu garaiz garai eta fasez fase gailentzen zen fokuari. Lehen puntu honekin, gure azterketan, erakundetze prozesuko parte-hartzaileak identifikatuko ditugu, eta, gainera, lehen fasean parte hartu zutenekin alderatze zabala egiteko aukera izanen dugu.
- Bertzetik, foku horien eta bertze partaideen arteko harremana zehaztu beharko dugu; horretarako, euskal komunitatearen kasuan, aipatu fokuen arteko balizko banaketa

eta, bereziki, beren arteko distantzia hausnartu beharko dira. Bigarren puntu honekin, erakundetze prozesuan parte hartu zuten gainerako partaideak kontuan izanen ditugu; erran nahi baita gune egituratzaileez gain, erakundetzean parte hartu zuten komunitate partaideak ere kontuan izanen ditugula.

- Azkenik, gune egituratzaile horiek bulkatzen duten proiektioari erreparatu behar. Horretarako, gune horietako partaideek komunitatearen izana iraganean, orainean edo etorkizunean oinarrizten duten begiratu beharko dugu. Halatan, euskal komunitatearen kasuan, bere izana iraganean soilik oinarritua den edota etorkizuneko garapena ere kontuan duen proiektiorik izan ote zen hausnartu beharko dugu, ezinbertzean.

Aipaturiko hiru puntuek emanen dute ELEk, 1975etik aitzina, jasan zuen erakundetzearen izaera osotua; partaideez gain, argitu egingen baitira partaide horien arteko harremana eta lagunduriko bulkadaren izana.

- **Bi saio nagusietako kulturgileen rolak**

Kulturgileen eta herriaren arteko distantzia sarri agertu da euskal idazleen kezka nagusien artean: “Idazleok erriaren jakintza mallara makurtu ala euskerari soilki begiraturaz bera landu ta aberastu erriari jaramonik egiteke?” (Etxaideren *Alos-Torra*: 9. or., in Sarasola 1971: 75). Gerraondoa hizkuntzaren problematikari irtenbide purista eman zitzaion gisa, gaietan ere ikuspegi zaharretik –“bizkar hezur izan zen ideologiatik” dio Sarasolak⁶⁸⁷ ez zen sobera urrundu literatura (*ibid.*: 77).

Ondoko paragrafoetan, hain zuzen ere, tesian aipatu ditugun moldatze saio nagusietako –XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitartekoa, nahiz 1960-1990 bitartekoa– kulturgileek garai bakoitzean izaniko rolari erreparatu nahi diogu, laburki; zehazki, saio nagusiei buruzko ideia orokorra eskainiaz eta saio bietan espresuki literaturarekiko kulturgile horiek izan zuten harremanari behatuz. Hartara, c.2. azpiatalean, 1975etik aitzina ELEn eragin zuten gune egituratzaileen azterketa aitzinatzeko ideia nagusiak eskainiko ditugu.

Lehen saioaren ondorio nagusietarik bat izan zen kulturgileen eta komunitatearen arteko distantzia, non, kulturgileek ez zuten herriarenganako inplikazioa herriaren mesedetan erabili. Argiago: iduripena dugu XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen

⁶⁸⁷ Sarasolak ideologia arantarekin parekatzen du “ideologia zaharra” delakoa.

hasierako prozesuan, kulturgileetarik aunitz ez zirela herriaren garapen funtzionalerako xaxatzaile eta bidegile izan; kontrara: kulturgile zenbaitek euskal komunitatea “behatoki-immobilista” gisa atzeman(arazi) nahi zuela uste dugu, baita hala mantendu ere. Hori dela eta, beren rola komunitatearekiko distantziak baldintzatua izan zela erran liteke: herri partziala kulturgileek beren proposamen irrealistak baieztatzeko paisaia bihurtu zen⁶⁸⁸.

Bigarren saioan, aldiz, kulturgileek herriarekiko inplikazioa etorkizuneko proiektio nahiaren zamapetik garatu zuten. Horregatik, herriaren eta kulturgileen arteko distantzia 1960-1990 bitarteko kultur moldaketaren hasieran, lehen fasean, izan zen zailtasun nagusietarikoa: komunitateari tresnak eskaini, bai⁶⁸⁹, baina horien moldatzeak ezin zuen, gaurgero, nekazal munduaren altxatzearekiko mendeko izan. Herriarendako ekarria handia izan arren, herriagandiko inplikazio eta esfortzua ere ezinbertzeko lanak izan ziren. Kulturgileek herria proiektiorako tresnez hornitu nahi izan zuten. Tresna linguistiko, kultural eta hezitzaileez, nagusiki. Halatan, bigarren birmoldatze saioan garaturiko militantziak, komunitate estratu desberdinetatik, mendearen hasierakoak ez bezalako ekimen, harreman eta inplikazioak ekarri zituela iduri du.

Espresuki ELERI behatzen badiogu, ikus dezakegu eremu horretan aritzen ziren kulturgileen eta komunitatearen arteko distantzia ere begirada desberdinetatik miatu izan dela.

Kulturaren lehen moldatze saioa dela eta, adibidez, euskararen eta euskal literaturaren ardura izan zutenen soziologia egin zuen Sarasolak. Hiru ideia nagusitan bil genezake hark eginiko eskema (Sarasola 1971: 55): klerikalismoaren garrantzia idazleen homogeneitatearekin bat heldu zela; proposatzen zen lanen bitxitasunak jende “berezia” hurbildu zuela –“euskeraren arloan proposatzen zen lanaren errealismo faltak eta bitxitasunak, gizon ameslari, desustraitu, arraro eta alde edo moldez frakasatu asko bereganatu zuen”–; eta, orokorrean, euskaraz eta euskal literaturaz arduratu zirenek “preparazio zientifiko” gabezia handia omen zutela.

⁶⁸⁸ Saio honi buruz modu sobera orokorrean aritu bagara ere, etorkizunean egingen ditugun azterketen artean, saio horren ikerketa zehatza egitea dugu helburu.

⁶⁸⁹ Asebete beharreko oinarri horien artean: “Euskaldunetzaz pentsatuaz eginitakoa, behoiek gogoko eta beharrezko dituzten gaiak estudiatzeko. Orduan sortuko litzake euskal intelektualidade bat, herrian zabaltzeko eta hitotzen gaituen ezajkintasan honekin bukatzeko. [...] // Kultura ezarekin bukatzeko? Unibersidadea. Euskal unibersidadea lortzeko?...” (Saizarbitoria, “Unibersidadea: Soluzio bakarra”, “Gazte naiz” atala, 1966, 186: 7).

Hiru alde horien ildoan aritzen ziren kultur-gileek tresna gisa zerabilten euskara garbizalekerian eroria eta komunitatetik aski alienatua zen; are gehiago, euskara hori defendatu eta bulkatu nahi izan zuten: “morfologiaren aldetik orduarte inoiz jazo ez zen anarkia eta nahaste bat sortuz eta idazlea, eredurik eta jarraibiderik gabe, bere kriterio pertsonalaren eta inorantziaren mende utzirik” (*ibid.*: 57).

Bigarren kultur moldaketa saioan, ordea, literaturarekiko distantzia –bigarren saioaren bigarren fasean, zehazki– abangoardiek gisa desberdinean marraztu zuten. Orduan, eremuko behar berezituaren asebetetzea izan zen begiradaren fokua. Ustelako kideek, erraterako, literatur arituaren eta komunitatearen arteko distantzia garai berrietara egokitzearen alde egin zuten:

Honela adieraziko nituzke euskal literaturaren abiapundurik garrantzitsuenak:

1. Herriaren genero tradizionalak landu. Kasu honetan, nabarmenenik, bertsolariak ditugu. Baita, ohizko genero hauetan oinarriturik, gauza modenoak egin. [...] Geurean, Aresti zenaren koplak guztiz ezagunak dira. Ezin uka, bestalde, bertsolaritzak egungo kantagintzan duen garrantzia. Teatroan, hor dugu Intxixu taldea pastoralen tradizioaren bizkortzaile.

Prosan, oraindik, antzeko aproximazio baten premian gaude. Literatura folklorikorik egin gabe, *folk literatura egin* (Aurrenekoa, herriak egina da, bigarrena, idazle ezagunek egiten dute, hartan oinarrituta). Eta nork uka, Perrault, Grimm edo Andersen idazleen garrantzia beren nazioen literaturetan? Hau da teknika desberdinez baliatuz, oinarritzko tradizioa errekuperatu.

2. Bertako egoeraren azterketak. Nobela-saiakerak edo, kontsidera ditzakegunak. B hizkuntzan bakarrik sentidua duten gauzak adieraziz (eta esan daiteke, adibidez, “Ehun metro” erderaz eta euskaraz baldin badago idatzia, gauza batzuk euskaraz besterik ezin konpreni edo adieraz daitezkeelako dela). Eta kontsiderazio estetikoak eta baloratiboak alde batetara utzirik, “Ehun metro” eta “Oilarraren promesa” ditugu linea aztertzaile honetan saiatu diren nobela bakarrik, azkenaldi honetan. Nobela soziologikoaren bidea da hau, noski. Eta adibideak ugarituko balira, uste dut beste kukurruku batek joko ligukeela, hainbat gauzatan. Ez bakarrik literaturan.

3. Hirugarren bidea, oraindik urratzeko ikusten duguna, estilo eta idaztanka propioa eta berezi baten bila abiatzea izanen litzateke. Honek, noski, iraultza formal bat eskatzen du, idaztanka tradizionalaren bortxaketa. Literatura bizkortzez geroz, “etengabeko iraultza” estilistikoan ari behar gara. [...] Baina euskal narratibak bere identitatea aurkitu behar du, eta horretarako, dudarik gabe, euskara guztiez baliatu behar du, euskararen zokomoko guztiak harrotu, euskara berriak asmatu. (“Herria euskara literatura eta horrelako batzuk”, *Zorion Ustela*) (Azpimarra ez da gurea)

Idatzian bildu ziren ideiak literatur aritua komunitate eguneratu batera hurbiltzeko moduak ziren. Herriaren genero tradizionalak lantzea, egoera hurbilaren azterketak egitea eta estilo nahiz idazkera propioak bilatzea proposatu zituzten –orduan, bederen–. Horiek islatzen zuten distantzia berria harreman funtzionalean oinarritu ahal izateko beharrezkoa zen; eremu berezituari eta testuinguruari egokituriko harremana sortzeko bidea zen.

c.1. azpiatalean erranak laburbilduz, gune egituratzaileen azterketarako behatu behar diren aldeak proposatu, eta ikusi dugu kulturaren moldatze saio nagusietan euskal kulturgileen eta komunitatearen arteko harremana desberdina izan zela. Ondoko azpiatalean, espresuki ELeren garapena lagundu zuten gune egituratzaileez arituko gara.

c.2. ELeren gune egituratzaileak: erakundetze bideak

Azken bi kultur moldaketetan kulturgileak gune egituratzaile garrantzitsu izan zirela jakinik, espresuki erreparatu nahi diogu, segidan, 1975-1990 bitartean ELen gertatuari. Horretarako, lehenik, aitzineko fasean gertatuari begirada azkar bat emanen diogu (“Kulturgileen rolak ELen izaniko eragina (1960-1975)”), 1960-1975 bitarteko garapenak emanen baitu ondoko fasean gertatuaren jatorriaren berri (“Erakundetze proiektu paraleloa: proiektzio berezitua (1975-1990)”).

- **Kulturgileen rolak ELen izaniko eragina (1960-1975)**

Kulturaren moldatze saio nagusi biak aldaketa sozial handiek eragin zituzten, hein batean; alabaina, izan zen ELeren –eta euskal kulturaren, ikusiko dugunez– garapena arunt hipotekatu zuen alderik: euskal kulturgileen eta komunitatearen arteko harremana bi aldietan desberdina izan zela iduri du. Kulturgileen eta komunitate partaideen arteko distantziak guziz baldintzatu zituen garai bietako kultur moldaketaren funtzionalitatea eta etorkizunerako proiektzioa, erabilgarritasuna.

Euskal literaturak XIX. mendearen akieran eta XX. mendearen hasieran izaniko errealitate aldaketa kontuan ez hartzea izan zen, preseski, 60ko hamarkadatik aitzina euskal literaturak kitatu behar izan zuen zor garrantzitsua. Orduan euskal literatura goitik beheitera ziprztintzen zuen ikuspegiak, Sabino Aranaren eragin nabarmena zuenak, ez ikusiarena egin zion partaidetza berriari: “euskal literatura sustraitzen zuen Arana Goiriren ideologia, Euskal Herriaren zati honez [industrializazio prozesuari loturiko jendeaz, langileriaz] kontu egin gabe eratu baitzen” (Sarasola 1971: 59). Jarrera horrek sorrarazi zuen euskal komunitatearen alde nagusi eta etorkizunerako giltza izanen zenarekiko zor handia: euskal literaturak, garaiko ideologia hertsuari jarraiki, ukatu egin zuen euskal herriaren errealitate garrantzitsuetako bat.

Funtsean, euskal komunitatearen estraturik kontserbatzaileena bildu zen, ukatu gabeko errealitate horretan. Alderdi baten ukatzeak eta bertzearen nagusitasun

ukatzaileak komunitate mailako desoreka handiak sortu zituen; izan ere, alderdi kontserbatzaile horren norabideak bi ildo nagusi baitzituen: iraunkortasun immobilista eta ikuspegi irrealista⁶⁹⁰. Bi ildo nagusi horien ondorioek zuzenean eragin zioten komunitatearen garapenari: proiektuen bideragarritasunik eta etorkinerako proiektziorik ezak errotik nabarmenarazi zuten komunitateko bi talde nagusiren arteko distantzia; akitu egin zen euskaldungoaren etorkizuna zen jendartearen⁶⁹¹ eta jendarte horrendako lanean behar zuen kulturgileen arteko elkarreragin saio oro.

Halatan, euskal kulturak eta, beraz, kulturgileek eta euskal literaturgileek zehazkiago, komunitatearekiko zor handia metatu zuten, 60ra bitarteko hamarkadetan zehar. Kitatze hori, ordea, belaunaldi berri baten eskutik heldu behar zen; hain zuzen ere, arestian aipatu dugun kontrako ideologiaren jarraitzaileez eta 36ko Gerra Zibilaren⁶⁹² bizipena izan ez zuten partaideez osatua, nagusiki.

Komunitatearen alde nabari horren eta euskal kulturgileen arteko distantzia –Aro Iluna hasi zenetik– murriztu zuen lehen euskal idazlea Gabriel Aresti⁶⁹³ izan zen. Bere laguntza ez zen soilik idazkietatik heldu, zor kitatzean bidegile nagusi izan zen, eta haren aitzinjorrateak aunitz lagundu zion ondoko kulturgileen arituari. Bigarren bulkada nagusia Saizarbitoriaren idazketan sumatu dugu, irakurketan irakurleak izana zuen partaidetza guziz birmoldatu baitzuen.

⁶⁹⁰ Euskararen etorkizuna batasun koherente batean ikusi ez, eta komunitatearen irudi distorsionatua zuena: baserriaren eta landaren ideia idealizatuak egiazko egoeren larria ikusten uzten ez zuena.

⁶⁹¹ Baserrietatik hirietarako aldakuntza nabaria zen: “1855-ean iadanik 55.336 langile zegoen Bizkaian. 1930 inguruan, Bizkaiko langileak 80.000-ren bat ziren, gehienak Bilbaon eta inguruetan, Gipuzkoan 47.000, Nafarroan 20.000 eta Araban 8.000, guti gora behera” (Sarasola 1971: 58). Honako erreferentzia dakar Sarasolak: Juan Thalamás-en *Aspectos de la vida profesional vasca* (1935), 170.-184. or.

⁶⁹² Gerra ondotik 1960ra bitarteko literaturari buruzko Sarasolaren ikuspegia bildu dugu (1971: 72-78). Poesia: “jenerazio bentzutu baten poesia da. Horrela, ez da hura iraganaz eta inguratzen duen egoera latzaz aritzen” (*ibid.*: 72). Antzerkia: gerra aitzineko gai eta kalitate bera mantentzen du: ohitura teatroa zen garaiko egoerari erreferentziarik ez eta eskapista gertatzen zena. Gainera, “Joera hau, egoera gaiztoa aldatzen saiatu beharrean, haren finkatzaile bilakatzen da, hots, autoreak honetaz ohartzen ez baziren ere, haien teatroa ailenatzaile gertatzen da” (*ibid.*: 73). Prosa: XIX. mendearen akieran lorturiko jatortasuna gerra aitzineko purismoak akitu zuen, herrikoi eta artifiziala zen literaturaren aro berria hasi zelarik (*ibid.*: 74; adibide aipagarriena Txomin Agirre da, beretako); garaia “Aurreiritzi linguistikoz itotako giro” batean murgildua zen (*ibid.*: 75).

⁶⁹³ Arestik euskal kulturaren izaniko garrantziaz zera dio Mainerrek: “En la literatura vasca debe censarse la muerte, el mismo año de 1975, de Gabriel Aresti, un *euskaldunberri* [...] que, sin embargo, representó en versos de mucha fuerza todas las contradicciones y los mitos del nacionalismo vasco. Tales y tan significativas pérdidas en las nacionalidades periféricas [Celso Emilio Ferreiro, Eduardo Blanco Amor, Álvaro Cunqueiro eta Ramón Otero Pedrayo aipatu ditu aitzinetik] han gravitado muy hondamente sobre la realidad cultural de unos países para los que la tradición y la autoridad moral en términos de conciencia nacional son imprescindibles; [...] no siempre la fe en la causa o el voluntarista apoyo de las nuevas instituciones políticas han podido compensar orfandades tan significativas y, en algún caso (piénsese en el de Josep Pla y, en otro sentido, en el de Aresti), lo que el escritor podía tener de piedra de escándalo o de motivo de banderías no ha podido conjurarse con la continuidad de su obra, único elemento, al fin, de clarificación de estas cuestiones” (*in* Mainer eta Juliá 2000: 160).

Sarasola garaikideak⁶⁹⁴, kasu, Saizarbitoriaren nobela ezarri zuen, orduan, nobelagintza berriaren mugarri gisa:

Saizarbitoriaren nobela ez da obra hertsia bat, irakurlearen partizipazio aktiboa behar duen obra ireki bat baizik. «Egunero hasten delako»-rekin, heltzen da euskal literaturara egun hainbeste aitatzen den irakurlearen ordua. (1971: 94)

Hala, bada, bai Arestik, bai Saizarbitoriak, murriztu egin zuten kulturgileen edo idazleen eta komunitatearen arteko distantzia, ELeri dagokionez, bederen. Bi aldetarik murriztu ere. Batetik, euskal komunitateaz, aitzinikuspegiaren herentzia gisa, geratu eta mantenduriko ikusmira hertsia zabalduz; eta, bertzetik, irakurle eta narratzaile arteko harreman klasikoko bideak aldatuz⁶⁹⁵.

Hau da, batetik, agerrarazi egin zen 60etako aldaketan partaide nagusi izaniko komunitate adarra, ELeren egituraketan ere parte hartu zuena. Aitzinez kontuan hartu gabea izanik, marjinetik modernitatearen gunera ekarriaz bere presentzia, gaiak, kezak eta solasak. Lehen moldatze saio gisa identifikatu dugun horrekin alderatuta, ELeren garapen berezitan lagundu zuten idazleek komunitatearekiko distantzia eremuaren helburuetara egokitu zuten, gainera; halatan, ELEko kulturgileen helburuak komunitatearekiko distantzia nahiz rol desberdinen iturburu izan ziren.

Bertzetik, ELEN zegokion partaidetza garaikiderako aukera eskaini zitzaion hartzaileari. Bide berri horren lanketak euskara askatu egin zuen aitzineko ikuspegiak hornitu zuen zama ideologikotik eta sinbologia nagusiaren zamatik; euskara gerraurretik heldu zen ikuspegi eta moral hertsatzaitetik libratu zuen: moral gaiztoaren –ez kristauaren– eta aldagarritasuna onartzen zuen tradizio eguneratuaren kontrako gotorleku mugiezina izatetik, eguneratze kulturala lortzeko tresna erabilgarri izatera iritsi zen.

Beraz, euskal kultura eta literatura antzutu zituzten ideologia nahiz kulturgile horiek 60ko hamarkadara arte iraun zuten. Segidan heldu den azpiatalean, ELEk 1975etik aitzina bizi izan zuen erakundetze prozesuaren azterketa zehatza eginen dugu. Aitzineko faseaz egin berri dugun errepassoak lagundu eginen digu, gainera, bigarren fasean egon ziren gune egituratzaileen jatorria eta garapena ulertzen.

⁶⁹⁴ Honen ikuspegia garaikidea izateaz gain, euskal literatur garaikidearen garapena baldintzatu zuen idazle taldeko partaide nagusietarik bat izan zelakotz dakarkigu hizpidera. Errana dugunez, “Gazte naiz” talaiatik solasean, bertan trebatu zen gazte kulturgile eta idazle taldearen baitan sorturiko ahots nagusietarik bat izan zen.

⁶⁹⁵ Hein batean, tesi-literatura alde batera uztearekin batera garatu ahal izan zen literatura hori. Oroitu tesi-literaturan idazleak narratzailea dela medio zeramala, eskutik heldua, irakurlea. Irakurketa (on) posiblea bakarria izaki, haren aditze eta barneratzea helburu nagusi zen, zalantzarik gabe.

- **Erakundetze proiektu paraleloa: proiektio berezitua (1975-1990)**

1975-1990 bitartean, bi gune egituratzaile nagusi sumatzen ditugu, ELEN: batetik, erakunde ofizialek edota beren antolaketaren inguruko kulturgileek osatzen dutena; bertetik, ELERen erakundetzea bide paralelo batetik abiatu zuten kulturgileek osaturikoa.

ELEN indar erakundetzailea izan zuten gune egituratzaileek, ordea, funtsezko bihurketa jasan zuten, 1975etik aitzinako prozesuan. Hori dela eta, ELERen erakundetze prozesuan kulturgileen eragina, 1975-1990 bitartean, bi talde nagusitan bana liteke: “ohiko bide” eta “bide paralelo” gisa izendatu ditugun jarraitzaileek osatuak.

Gune egituratzaileetarik bat, ohiko bidea jarraitu zuena, erakundeengandik edo horien antolaketatik abiatu eta kanalizatua helduriko erakundetzea zen. 1975-1990 bitarteko prozesuan hagitx aldaketa sakonak jasan zituen ELEk, eta, horien artean, sistema integratu eta integratzaile izatera emaniko pausok guziz bilakatu zuten gune egituratzaile honen izana.

Bihurturiko alde nagusia gune egituratzaile horren izana bera izan zen. Erakundetze boterearen iturria aldatu egin zen: autonomien sistemak aitzina egin ahala, EKSk ere berezituak beren bide propioa garatu ahal izateko erakundeak sortzen joan ziren. Horien aitzinetik, ordea, azpieremuen garapen berezitua saihesten zuen gune egituratzailea zen nagusi.

Azken hori izan zen, preseski, ELERen bigarren gune egituratzaile nagusiak, bide paraleloa jorratu zuenak, borrokatu zuen indarra. ELERen erakundetzea bulkatu zuen bigarren gune egituratzailea eragin paralelo horretako kideek osatu zuten; hau da, aipatu erakundeetatiko botere erakundetzailea –80ra bitarte, bederen– eremu berezituaren garapenaren kontra sumatu zutenek. Gune egituratzaile horretako ekimenek osatu zuten ELERen erakundetze paraleloa; zehazki, literatur abangoardiek osatu zuten bide paralelo horrek ahalbideruriko erakundetze berezitua.

Abangoardiek hauspotu zuten indar paraleloak, ohiko bidea jarraitu zuen guneak bezalaxe, bi fase izan zituen. Lehendabizikoan, arestian erran gisa, literatur abangoardiek –Potteko eta Ustelako kideek, nagusiki– hartu zuten ELERen erakundetze paraleloa, eremuaren izaera berezituari egokitua, proposatzeko rola. Ekimen horien aldarrikapen nagusiak kontra heldu ziren bertze gunearekiko: literatur eremuaren kanonizazio eta antolakuntza eremutik ateko bertze interes eta beharretara egokitzen

zituzten horiekiko⁶⁹⁶; gainera, 7.2. atalean ikusiko dugunez, literatur tradizioaren kanonizazioa ekimen horretatik heldu zen.

Kurioski, erakundetze paralelo hori aldarrikatzen zuten kulturgileengandik heldu ziren, denborarekin, eremu berezituaren kanonizazio alde nagusiak –bertzeak bertze, solasgai izanen dugun literatur tradizioa–. Kanonizazio iturriaren garapenak erakusten du, preseski, abangoardiek bideraturiko erakundetze gune paraleloaren bigarren fasea; izan ere, bulkada paralelo horretan parte hartu zutenetarikoz zenbaitengandik heldu baitzen autonomien sistemaren babespeko antolakuntza hornikuntza⁶⁹⁷.

Beraz, ELEren garapenean, batetik, ohiko bidearen lehen faseko erakundetzea kontra heldu zen literatur eremu berezituarekiko; eta, bertzetik, EAEn antolaketak ekarri zuen erakunde ofizialen egiturak bat egin zuen, denborarekin, gune egituratzaile paraleloaren proposamen zenbaitekin; abangoardiatik aritu zirenen idazleen proposamen eta arituekin, zehazki.

Hortaz, ELEn, bi gune egituratzaile ofizial nagusi izan ziren, 1975-1990 bitartean: bide paraleloak kontra egiten zion hori –eremuaren izaera berezituaren legeen arabera eremua garatzen uzten ez zuena– eta autonomien sistemarekin batera osatzen joan zena. Garaiko abangoardiek ELEren garapen bereziturako eragozpen gisa sumatu zuten gune egituratzailea ulertzeko, 6.1.4. atalean hizpide izan den ideia bat da lagungarri: sistema integratzailearena. ELE izaera integratzaile gabekoa izateak ondorio garrantzitsua izan zuen: eremuaren barne-arau berezituaren garapenera arte –70eko hamarkadaren bigarren erdian zehar– presentzia izan zuten ELEren erakundetze berezitua eragozten zuten aitzinindarrek.

c.2. azpiatalean erranak bilduz, 1960-1990 bitarteko ELEren garapena gune egituratzaile desberdinek bulkatu zutela ikusi dugu. 1975etik aitzina, autonomien sistemak ekarririko gune egituratzaile berriak sortu ziren, eta, horrek, aldatu egin zituen ordura arteko botere banaketak.

Horri, eremu berezituaren izana helburu zuten abangoardiak gaineratu zitzaizkion; hondarreko horietan parte hartu zutenak izan ziren, 7.2. atalean agertuko denez, ELEren

⁶⁹⁶ Ikus, B.7. eranskineko adibideetan, *Pott* aldizkaritik harturiko adibideak (“Foku berari dagozkion helburu berdinak”, “2) Euskal kulturaren ikuspegi ezkorra”).

⁶⁹⁷ 7.2.n garatuko dugu ideia, baina, laburbilduz, nazioaren etorkizuna literatur tradizio desberdinen proposamenetan bildu zen, eta proposamen horietarik zenbait bihurtu ziren komunitatearen gune mugatu nahiz sinbolikoa oinarrituko zituzten tresnak.

erakundetze prozesuaren alde nagusietarik bat, literatur tradizioaren kanonizazioa, EAEko gune egituratzaileekin elkarlanean, egituratu zituztenak.

7.1.1.c. azpiatalean, zeinahi gune egituratzailearen ondorio zehatzak hausnartzeko⁶⁹⁸ proposatu dugu, hondarreko puntu gisa, gune horiek bulkaturiko nazio proiektzioari erreparatu beharra. Kulturaren bigarren moldatze saioan, kulturgileen helburu nagusia etorkizunari begira eraikirikoa izan zen; erran nahi baita kultur moldaketak, eta kulturgileek, ELEn, proposatu eta gauzaturikoez etorkizuneko proiektzio beharra izan zutela baldintza nagusi. Etorkizunerako proiektzio horrek euskal kulturaren moldaketak, 90eko hamarkadara bitarte, izan zuen garapena goitik beheitira baldintzatu zuen –bertzeak bertze, tesiaren bigarren kapituluaren hizpide izan dugun kulturgileen rola bera moldatu zuen–.

Literatur abangoardiek, bigarren fasean, ELEren autonomian oinarrituriko eremuaren proiektzioa egin zuten, iragana –literatur tradizioa– erabiliaz etorkizuneko nahiz orainaldiko garapena osatzeko funtzionala zen neurrian eta moduan. Literaturan agergune izan zen tradizio zatiaren ikerketa egin ahal izateko, preseski, baliabide sinboliko horrek biltoki nagusiarekiko –literaturarekiko– izan zuen harremana aztertu behar da. Horretarako, lehen-lehenik, ELEk komunitate garapenean –1975-1990 bitarteko fasean– izan zuen funtzionalitateari behatu beharko diogu (7.1.2.); eta, ondotik, literaturaren betekizun zehatz hori kontuan izanik, eremuan agerturiko eta garaturiko tradizioaren balioztatzea hausnartu (7.1.3.).

7.1.2. Literatur eremuaren funtzionalitatea, erakundetze prozesuaren baitan

Aitzinatalean, ELEk 1975-1990 bitartean jasan zuen garapena ulertzeko oinarriak hurbildu ditugularik, garapen horrek garaiarekiko izan zuen harremanari behatuko diogu, segidan. Horretarako, eremuak komunitate garapenean izan zuen funtzionalitatea ikusmiran izanik, bitarte horretako prozesuaren alderdirik nabariena agertzen dituzten azterketak eginen ditugu: Thompsonen identifikatu dituen hiru balioztatze nagusiak kontuan izanik, horien egokitzapen teorikoak 1975-1990 bitarteko prozesuan lukeen agerpena aztertuko dugu. Gisa horretan, literatur eremuaren garapen berezitan

⁶⁹⁸ Esku artean dugun aztergaia, orain, literatur eremua izanik, 1975etik aitzinako erakundetze prozesuak ELEren garapenean izan zuen eragin zehatza jakiteko, zehazki.

sakontzeaz gain, bigarren kapituluan hizpide izan den Balioztatze Prozesu Nagusiaren garapenarekiko –garapen horren eragile nahiz ondorioekiko– alderatzea egingen dugu.

Bigarren kapituluan, literaturaren funtzionalitatea kultur sarearekiko erlazioan aztertu behar izan dugu; izan ere, artean aski urrutikoa izanik sistema integratu izaera, literaturaren funtzionalitatea antolatzen hasia zen kultur mailarekiko harremanean aztertu behar izan dugu. Hirugarren kapituluan, aldiz, hizpide izan dugun sistema integratu izaera (6.1.4.) abiatua izanik, espresuki erreparatu ahal izan diogu literatur eremu prekario horrek berak erakundetze prozesuarekiko izan zuen harremanari.

Laburbilduz, 4.1.2. eta 7.1.2. atalen arteko alderik nabariena honakoa da: literatur “eremua” fase desberdinetan izanik, erreferente diferente batekiko behatu zaiola “eremuak” zuen funtzionalitateari. Lehenean, izaera antolaturik kasik batere gabeko eremua zenez, antolatzen hasiriko kultur eremu zabalarekiko hausnartzen genuen literatur aritu ororen funtzioa; bigarrenean, aldiz, literatur eremua antolatu eta egituratzen hasia izaki, espresuki miatu ahal izanen dugu eremu izaera(prekario)dun horrek komunitate garapenaren prozesu nagusiarekiko, bigarren fasean nagusi izan zen erakundetze prozesuarekiko, berarekiko zuen funtzionalitatea.

Beraz, atal honetan, ELEk nazio garapenarekiko izan zuen harremanari erreparatuko diogu; tesiaren bigarren kapituluan egin gisa (4.1.2.), harreman horren erakusgarri diren alderdiez arituko gara: literatur eremuaren garapena lagundu zuten auziei (7.1.2.a.) eta balioztatze prozesu berriei (7.1.2.b.).

7.1.2.a. Birformulatze nagusiaren isla, literaturan

Euskararen batze eta normalkuntza prozesua izan zen, ziur aski, 1960tik 1990era bitartean euskal kulturaren egoera erdiz erdi gurutzatu zuten gertaera nagusietariko bat. Horrexegatik, hain zuzen, 1975etik 1990era bitartean euskal literatur(sistem)aren egoera nolakoa zen aztertzeko, ezinbertzeko baldintza izanen da euskararen ibilbideari hurbiletik jarraitzea. Hala ere, ez zen hori, euskal literaturak izaniko garapenean, eragile bakarra izan; euskararen batze eta normalkuntzak euskal literaturaren eraldaketan eragin handia izan zuen arren, hizkuntzaren inguruan gertaturiko aldaketez haratagoko bertze bi gertaera nagusi ere aipatu beharko dira, eraldaketaren argigarri. Beraz, hiru prozesu nagusiren garapenean harilka liteke euskal literaturak, gaurgero 60ko hamarkadako arituek bideraturik, 1975-1990 bitartean jasaniko garapena: euskararen batasuna,

konpromisoarekiko jarrera eta antolakuntza nahiz egitura instituzional-formalaren garapena.

Atal honetan, lehenik, horietarik lehendabiziko bien erreferentzia egingen dugu (a.1.), laburki. Fokua hiru bulkada nagusietarik lehenengo bietan jarri, eta, segidan, horiek literatur aritu zehatzetan nola azaleratu ziren aztertuko dugu: abangoardiek literatur garapen berezituaren garapenerako hiru alderdi horiek nola aldarrikatu eta nahi zituzten ikusiko dugu (a.2.). Ondotik, hirugarren alderdia aztertzeko, garapen instituzional formalaren deskribapenari ekinen diogu (7.1.2.b.).

a.1. ELSren bulkadak: euskararen batasuna, konpromisoa eta erakundetzea

ELEn, lehen bulkada nagusia, 60ko hamarkadan heldu zen, Euskaltzaindiak, Koldo Mitxelena gidari zela, euskararen batasunerako beharrezko ziren pausoak abian jarri zituenean. Ikastolekin batera, euskal literatura modernoaren garapenerako ezinbertzeko ekimena izan zen; izan ere, euskaraz eskolatzeak, ordudanik aitzinako euskal kulturaren birplanteatze ofizial eta serioaren agerpena moldatu baitzuen, 60etatik aitzina. Hortaz, Trantsizio aitzineko urteetan euskararen batasunak bulkatu zuen, nabarmen, literaturaren dinamizazioa (Kortazar 2003b: 16): “el gran avance histórico fue la rápida adopción y difusión del eusquera unificado o *batua* desde 1965” (Mainer, *in* Mainer eta Juliá 2000: 172).

Frankismoaren hondarreko urteekin batera, euskara, nahiz orokorrean kulturarekin erlazioan ziren ekintza kultural bulkatzaileak, agertuz joan ziren, gainera: lehen ikastolak, aldizkariak –*Igela*, 1962an; *Zeruko Argiak* berrikuntza aroa hasten du 1963an; *Anaitasuna*, 1960an; *Agu*, 1972an– eta kantariekin –*Ez Dok Amairu*, 1966-1972, kasu– sustatze handia izan zuten.

Beraz, 70eko hamarkadan, ELS izanzen zenaren aitzinegoera aski prekariora zen, artean. Euskararen normalkuntza prozesua abian jarri, eta eskolatzearen lehen urteak hasiak izanagatik, merkatuaren ahula argialetxeen izanean islatzen zen⁶⁹⁹. Merkatu berezituaren jabe ez izateak ezinezko bihurtzen zuen euskal literaturaren garapenik, gutiago sistema integratu-integratzaile izatetik hurbil zen zeinahi eremu finkoren garapenik.

⁶⁹⁹ Egoera horrek 70eko hamarkadan zehar iraun izanaren testigantza Potteko kideek beren aldizkarian erranikoetan atzeman daiteke. Ikus B.7. eranskineko “Foku berari dagozkion helburu berdinak”, “4) ELS funtzional baten beharra”.

Hau da, 70eko hamarkadako lehen urteetan, merkatu dinamiko finkatu gabea da literatur sistema egonkorra lortzeko hutsune nagusietarikoa. Jon Kortazarrek prekariedade horren lekuko gisa argudiatu du euskal idazleek beren lanak bilduma liburuetan argitaratu beharra (2003b: 23). Idazleek berek argitaletxe propioak ireki zituzten, beren helburu literarioak literaturaz kanpoko –euskara nahiz politikarekiko– konpromisoaz haratago plazaratzeko plataforma formal gisa: *Ustela* –1975ean Atxaga eta Izagirrearen eskutik abian jarria– eta *Pott* –1977an Bernardo Atxaga, Manu Ertzilla, Jose Mari Iturralde, Jon Juaristi, Ruper Ordorika eta Joseba Sarrionandiak osaturiko taldearen eskutik– dira ezagunenak.

Hala ere, abangoardiak abangoardia, ELSren garapena hagitz lotua izan zen euskara batuaren eta, zehazki, euskara batuaren proiektua tresna oinarritzko izan zuen hezkuntza sistemari. Euskal literatur corpusak, euskara batuan oinarriturik, indar nagusi izan zuen, 80etan, eskola-ikastoletarako behar zen materiala, tresnak, ekoiztea.

Bigarren bulkada nagusia, 60etatik indartuz joan zen konpromisoaren bihurketa izan zen. Bulkada horrek biltzen ditu bertze bi bulkaden eragin potentzialak eta konpromisoak har zitzakeen konnotazio anitzak. Komunitate konpromisoaren eta garapenaren arteko harremanak ahalmena zuen bai euskararen batasun garapenak, baita erakundetze prozesuak ere, kultur eremu berezietan izanen zituzten ondorioak baldintzatzeko. Konpromisoa dela eta gertaturiko aldaketak eta kinkak agertu ezean, ezinezkoa izanen ziratekeen alde bulkatzaileen eta ELS beraren garapenak; ikusiko dugunez, euskal kulturaren aitzinatzea bilatu, bai, baina, ELEren garapen berezitua antzutzen zuen konpromisoa borrokatu ezean –abangoardiak eginikoa, adibidez–, nekez gauzatu izanen zen eremuaren gaitze garaikiderik, 1975etik aitzina.

Konpromisoak ELEn har zitzakeen konnotazio anitzak direla eta, bi aldaketa nagusi izan behar dira kontuan. Batetik, gaurgero 60etan aldatzen hasia zen ikuspegi gibelatzailearen akiera. Konpromisoak ELEren garapen berezitan izan zuen aldaketak gaurgero tesian aipatu dugun eragile nagusi bat izan zuen: pentsaera nagusi-monolitikoaren akiera. Errana dugu euskal literaturak, XIX. mendearen hondarreko hamarkadatik aitzina, bederen, izan duen garapena ikuspegi desberdinen bideei atxikia izan dela –modu desberdinetan, ordea–.

Lehen moldaketan, ideologia politiko egituratu nagusi bakar baten mendeko izanaz. Ibon Sarasolak, euskal literatura kutsatzen zuen ideologia horretaz, hiru ideia nagusi eman zituen (1971: 61-63): Euskal Herriaren kontzeptu nahiz ikuspegi mugatu

eta mugatzailea ematen zuela, industria eta garapenarekiko higuina zuela –ukatu nahiriko errealitate hori irudikatzen zuen paisaia euskaldunen galgarri zen– eta klerikalismoaren ondoriozko “lagun gaiztoen influentzia” ideia indartu zuela.

Ideologia horrek euskal literaturan izaniko ordezkari –ustez– nagusiaz, Sarasolak:

Izaera sekular eta pentsamoldeaz klerikal, berriari oso guti emana, garaiari buruz jakituria desegoki⁷⁰⁰ baten jabe, gaurko Europako literaturan lizunkeria besterik ikusten ez zekien gizon, «Orixe», gerra aurreko eta gerra ondoko lehen urtetako literaturaren errepresentazailerik zuzenena da. (*Ibid.*: 68)

Ideologia horretatik kanpoko mundua ez zen euskal literaturan islatzen:

Gertatzen ari zen ideologiaren arteko burruka ez da euskal literaturara heltzen, ideologia bakar batek⁷⁰¹ baitu euskera espresabidetzat. Beste edozein ideologia ez du lekurik. Haren arauaz pentsatzen ez dutenek, Barojak adibidez, erderaz idatzi behar dute. Euskal Herriko errealitatea alde batetatik bakarrik ikusten da, gainerako guztiak arrotz zaizkio euskal literaturari. Honetan datza, azken finean, haren marjinaltasuna. (*Ibid.*: 63)

Aldiz, bigarren saioaren lehen hamabortz urteetan (1960-1975), pentsaera horren kontrako jarrera izan zen ikuspegi langartuen abiaburu. Aniztasun horren lausoa definituz eta finkatuz joan ahala, euskal komunitatearen garapena alderdi desberdinetarik lantzen eta osatzen joan zen.

Hain lotua izan zen euskal literaturak hondarreko mende eta erdian izaniko garapena ikuspegi desberdinen problematikari, non, 1960-1975 bitarteko gazteenek gisa honetan sumatu baitzuten: “«zaharren» gaurko ideologia, gerra aurrean zuten berbera baita eta gaurko euskal literaturan ikusten dugun antinomia, ideologia mailan gertatzen baita” (*ibid.*: 71). Hitz horietan, garaiko kultur moldaketan gazteenek kinka hori ideologia zaharraren eta berriaren arteko borroka gisa atzeman zela islatzen da. Lehenago aipatu izan dugun gisa, “Gazte naiz”en eta argitaletxeen inguruan trebaturiko kulturgile gazteenek moldaketaren alderdirik aitzinazaleena gauzatu zuten.

⁷⁰⁰ Orixeren jakituria dela eta, orrialde pare bat lehenago, zioen: “«Orixe»-ren jakituriaz uste oker bat dago. Ez da egia, adibidez, Aita Onaindiak hartaz mintzatzean dioena: «Gizon azkarra ziñez ta edozein gaietan oso jakintsua». Perpaua honetan erabiltzen den jakituria, San Tomas arteko filosofiaz, literatura klasikoaz eta ohizko teologiaz osatzen den jakituria bat da. Jakituria konzeptoaren mugatze izugarri hau [...]” (Sarasola 1971: 66). Onaindiaren hitzen erreferentzia hau ematen du Sarasolak: *Milla euskal-olerki eder* (1954), 924. or.

⁷⁰¹ Bakartasun horren ildotik: “Euskal Herrin ezin zitekeen desarroila erdi klasearen kultura egiazko bat, beharbada unibersitaterik ez zegoelako eta funtsean euskal nazionalismoa mugimendu klerikal eta nekazari bat izan zelako. Are gutiago era zitekeen euskeraz, ezin baitzezakeen hizkuntzaz euskaldun ez zen burjesia hura «berrea» ez zen hizkuntza batez balia kultura autonomo bat eratzeko” (Sarasola 1971: 53-54).

Bertzetik, konpromisoak ELEn har zitzakeen konnotazio anitzak direla eta, gero eta egitura nahiz antolamendu politikoagoak zituzten abertzaletasunek⁷⁰² eragiten zuten presioa izan behar da kontuan. Tesiaren atal honetan aztergai dugun garaian, puri-purian zen helburu eta ideia abertzaleen euskararekiko konpromisoaren auzia. Konpromiso horrek ELSren egituraketa modernoan izaniko eragina handia izan zela diogunean, ordea, eragina ikuspuntu bitatik agertu zela ulertu behar da. Hizkuntzarekiko konpromisoa euskararen normalkuntza prozesuak beregan zuen ezaugarria izaki, hizkuntza horretan sorturiko literatur sistemaren ibilbideak ezinbertzean, printzipioz, konpromiso horri atxikia behar zuela iduri du. Alabaina, egoerari bere osotasunean erreparatuz gero, bertzelako isla ere ageri dela ohartzen gara: alde batetik, erran gisa, euskararen bulkadarekin lotua zen, hein batean, ELSren garapena; bertzetik, ordea, konpromiso horretatik, hain zuzen, aske nahi zen literatura bulkatzeko saioak agertu ziren, 1975etik lehen arituetan.

a.2. Bulkadaren eta eremu berezituko autonomiaren arteko kinka

Bulkada horiek ELSren garapenean laguntza izan ziren arren, garaiko abangoardia gazteenetan –hain zuzen ere, beren abangoardia izaerari jarraiki–, ahots aurkariak agertu ziren⁷⁰³. Hori dela eta, laburki, a.2. azpiatalean aipaturikoak ELeren garapen berezitan berebiziko eragina izan zuten abangoardiek nola atzeman zituzten atertuko dugu, segidan.

Aipaturiko euskararen batasuna, konpromisoa eta erakundetzea literatur eremuaren garapena bulkatu zuten abangoardiek nola bizi zituzten atzemateko, hizpidera ekarriko ditugu lehen abangoardietan agerturiko hainbat idazkitako adabakiak.

Batetik, euskara batuak ELeren garapenean izan zuen onura agerikoa izan arren, egia da garaiko abangoardiek gaia bideratzeko moduan arazoak sumatzen zituztela. Elebitasunak literatur mailan inplikatzeko zuena, adibidez, eztabaidatua izan zen:

bilinguismoa entenditzeko modu bat da gurea. Bilinguismoa, euskararen erabilketaren esfera zabaltzea baita, eta ez, inolaz ere ez, erdara etxera gonbidatzea.

⁷⁰² Oroitu 5.1.2. atalean bi abertzaletasunek komunitatearen garapenean izan zuten eraginaz errana.

⁷⁰³ 80ko hamarkadan literatur aldizkari aunitz sortu ziren arren, 70en akieran sorturiko *Ustela* eta *Pott* izan ziren aitzindariak. Hala ere, sistemaren partaide izaki, ezin bertze zenbait aipatu gabe utzi: *Susa* (1980-94), *Xaguxarra* (1980-1), *Idatz & Mintz* (1981-2001), *Maiatz* (1982-...), *Stultifera Navis* (1982-3), *Pamiela* (1983-93), *Txistu y Tambolin* (1983-93), *Kandela* (1983-4), *Korrok* (1984-9), *Ttu-ttuá* (1984-5), *Txortan* (1984-5), *Porrot* (1984-90), *Plazara* (1985-92), *Literatur Gazeta* (1985-9), *Zintzilik* (1986-94), *Enseiucarrean* (1986-99). Horietarik batean baino gehiagotan argitaratu zituzten Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik beren lanak. Iturria: “Ibiñagabeitia Proiektua”ren web orrialdea (<http://andima.armiarma.com/>).

Bilinguismo reala, euskararen erabilketa «goien gradora» potentziatea da. Ez caja de ahorros-en azpian (goian? azpian? azpian edo goian, póngalo debajo y no se pase Vd. Barrutia), aurrezki kutxa probintziala jartzea, euskaldunok ez baikara inozoak, eta bai baitakigu caja de ahorros provincial-ek zer esan nahi duen euskaratzen ibili gabe ere. Hipoteka.

Euskararen erabilketa hizkuntza bakarra bezala goien gradora potentziatea da gure bilinguismoa. Hortik bakarrik etor bailekiguke noizbaiterako espero dugun bilinguismoa. (“Ustela bilingüe egiteko eskaera...”, *Mermelada Ustela*)

Bertzetik, literatur autonomiaren eta helburu abertzaleen arteko talka islatu egin zen, aldizkarietan; isla horietarik zuzenenak, ziur aski, *Pott* aldizkarian agertuak izan ziren. Potteko kideek aldarrikatzen zituzten helburuen eta euskal literaturak –Trantsizioan sortzen ari zen autonomien sistemaren barrenean– bereganatu zuen jarrera abertzalearen arteko talka bortitza izan zen; erran nahi baita eztabaida handia izan zela literatura helburu abertzaleetarako –nahiz euskararen mesedetan, soilik– erabiltzearen alde egin zutenen eta Potteko kideen helburu literarioen artekoa. *Ustelako* zenbakietan ez zen abertzaletasunarekiko halako jarrerarik ageri; bai, ordea, “herri ahotsaren” zutoihalaren jabe uste zirenen kontrako jarrera:

Oso haserre baikaude. Haserre beren iritziei indar emateko herriaren ezpain hertsietan jartzen dituztenekin.

Herria beren besoetan legokeen haur mongoliko bat kontsideratzen dutenekin.

Kontra gaude bere dogma partikularren izenean, eta herriaren izenean, hor zehar zihoan edo hemen dagoen gizona eta hainbeste gizon deskomekatu dituztenen kontra.

[...]

Ateak hertsi zaizkiolarik atarian etsia edo kabreatua halabeharrez sukalde guztietatik kanpo zeru izarren pean desesperaturik oraindik bila dabilenaren alde. Hoientzat baita gure literatura. Besteentzat, beren dogmatismo satisfetxoaren zoriona. (“Oso haserre baikaude...”, *Zorion Ustela*)

Azkenik, erakundetzeak finkatzen eta sortzen hasiriko prozesuan ere arazoak sumatu zituzten abangoardiek. Aldizkari horietan –nahiz garaiko abangoardia osatzen zutenetan⁷⁰⁴–, helburu literarioek zekarten ikuspuntu modernoa agertzen da; euskal literaturaren erakundetze eta kanonizazio prozesua abian jartzeko autonomia zuten buruan⁷⁰⁵. Hain zuzen ere, euskal kulturaren erakundetze prozesuan, Pott taldearen aritua ezinbertzekoa izan zen, literaturaren autonomia nahiz idazlearen profesionaltasuna Atxagarekin lortu zirelarik, lehen aldiz. Pottekoen lanen baliorik berriztatzaileena euskal literaturaren egoera normaltzeko behar ziren aldaketen aldarrikapen kritikoa egin izana da.

⁷⁰⁴ Nagusiak: *Ustela* (1975-1976), *Pott* (1978-1980), *Oh! Euzkadi* (1979-1983), *Susa* (1980-1994).

⁷⁰⁵ Euskal literatura instituzionalaren kanona definitzea helburu zuen talde gisa definitzen zituen Joseba Gabilondok Potteko kideak (Gabilondo 1993: 39).

Hutsune horien oharpenak euskal literaturaren ulerkuntza aldatzen hasia zela erakusten du: euskal literaturaren helburu, ezaugarri, erreferente, tradizio eta estetikak ez ziren berak kritika eta gabezia horien kontzientzia zuen jendearendako. Mendebaldeko literatura nazionalen gisako sistema funtzional dinamikoa nahi zen neurrian, kasu, euskal literaturak zuen sistema finkatu gabea behin eta berriz izan zen solasgai, *Potten*: “Irakurtzen ez den literatura derizku malditoena. Horregatik hain maldittoa iruditzen zaigu Axular nola Ginsberg-en azken itzulpena, Txilardegi edo euskal panfletoak, inork ez baititu irakurtzen!” (“Haikeberku da, benetan”, *Pott* 6) eta “Nola ezagutu bada inork ez badu ezer irakurtzen [Urruzunoz ari dira]. Eta irakurtzen den gutxia dena erdaraz noski” (“Haikeberku da, benetan”, *Pott* 6) adibideetan ageri gisa.

Hondarreko hitzotan, 70eko hamarkadan euskal literaturak bizi zuen egoeraren eskasak –80ko hamarkadaren hasieran, artean– berdin jarraitzen zuela ageri da. Itzulpen lana, kritikaren berriztatzea, estatismoaren haustea –denboraren zirkulartasuna moztu: munduratu, errepikapen eternalean bizi den estatismoa hautsi–, irakurle eta argitaletxeen helburuak literaturatik hurbilagoak izatearen beharra eta abar sumatzeak euskal literaturaren ulertze berriaren lehen aztarna bateratuen aitzinean kokatzen du irakurlea: *Euskal Literatur Tradizio Berria⁷⁰⁶ ahalbidetu eta gauzatu zuten aldaketen aitzinean.

Erakundetze prozesuak espresuki literatur eremuaren autonomia legeei atxikia behar zuen izan, eta, horretarako, autonomiaren bideak akitzen zituzten erakundeak bihurtu behar ziren⁷⁰⁷:

Bere zeregina betetzearren, lehen lehenik literaturak plazara dezaten eskatzen du: ezkutu ta isileko poemek poemak izaten diraute, baina aiderik gabe, arnasarik gabe, panpina ustelak bilakatzen dira.

[...]

Boza hau ixilerazten duten guztien aurka aurka aurka gaude:

Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriaz idazleak ito ta zapuztu egiten dituztelako.

Non ditugu presentatutako lanak?

Noraino daude epai-mahaikoak jantziak lanak juzgatzearen?

⁷⁰⁶ Ikus A eranskineko “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera.

⁷⁰⁷ “[...] okerrena, beharbada, gure indar urriak batez ere disimulo lanetan inbertitzea eta oinarrizkoak ahaztea izanen litzateke. Eta oinarrizakoa ez da derrihorrez alfabetatze textoak egitea, ez, geure errealitate hau konplejorik gabe analizatzea, aurreiritzi petralik gabe, errealitate honi lotzen zaizkion, errealitate honetan sentidurek izanen duten lanak egitea baizik. Inbentatzea, imaginatzea, eta ez imitaziozko unibertsitateetan edo prestatzen dizkiguten errebistetan, besteek izatea beste erremediorik ez duten errealitatearen imitazio ridikulo bat gertatzea.” (“Euskarak ideologien eta batez ere...”, *Zorion Ustela*)

Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema, bertso ta teatro saioak proposatzen ditugu. Zenbait erakunderen fama ez da euskal literatoen hauzia, beraiena baino. Geurea, euskal literaturari astinaldi bortitzak ematea da.

Bainan, halare gaur eguneko argitara-etxe, aldizkari ta saioekin ez gatoz bat: hertsia eta literaturaz kanpoko (xtraliterarioak, beraz) xederen morroi direlarik, marrantatu ta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte ezdarri berriak.

Zeren literaturak bai bait du bere dinamika propioa ta berezia. (“Ez dezagula konposturarik gal, halare”, *Panpina Ustela*)

Beraz, euskararen batze eta indartze prozesua, konpromisoa eta erakundetzea –1975-1990 bitarteko euskal kulturaren, orokorrean– aldaketa onuragarriak izan ziren arren, literatur abangoardiak kexu agertu ziren: abangoardia izaera horregatik beragatik, ELERen garapen berezitua gauzatzeko kontrario gisa atzeman zituzten orduko tankera eta moduetan garatzen ari ziren aldaketa horiek. Komunitatearen bigarren faseak konpromisoaren inertziari jarraitzen zion arren, eremu berezituaren garapen egokituak eremu bakoitzaren arau eta helburu intrintsekoei lotuak ziren bideak lehenetsi beharra ekarri zuten, ezinbertzean. Abangoardiek altxaturiko ahots subertsiboek literaturaren ulerkuntzarik autonomoena aldarrikatu zuten. Ahots horiek agerian jarri zuten ordura arte, nolabait, finkatzen hasiak ziren indar erakundetzailerik ez ziotela nahikoa begiratzen literaturaren izanari.

Segidan heldu den b.2. azpiatalean ikusiko denez, lehen fasean heldu ziren dinamika aldaketa prozesu zabala izan zen. Abangoardiek azalarazten zituzten kinka zehatzen gibeleragin gisa, adibidez, eremuaren izaera berezituari eragin zioten balioztatzeak gertatu ziren. Balioztatze horiek dira, preseski, ELERen helburu propioak, eremuaren autonomia bera oinarri izan zutenak, komunitatearen bigarren behar mailari egokitu zitzaizkionaren erakusleak.

a.3. Aitzinpausoak

Azkenik, literaturak erakundetze prozesuan izan zuten funtzionalitatea ulertzeko, ezinbertzeko aitzinpausoei egin nahiko genieke erreferentzia; izan ere, hagitza garrantzitsua izan zen 1960-1975 bitartean aritu zirenen lana literatur autonomiaren lorpenean. Bigarren kapituluaren hizpide izan dugun gazte belaunaldiak 1975etik abangoardiek aldarrikatu zuten autonomiarako funtsezko sorkuntza eskaini zuten.

Hori dela eta, aitzinabangoardia horien ekarri oinarritzkoa islatzen duten ideietarik zenbait azpimarratuko ditugu, ondoko orrialdeetan. Garrantzitsuak izan ziren bertze ideia aunitzen artean, aukeratu ditugu poesiaren eta konpromisoaren arteko askatze

prozesua ulertzen laguntzen duten bi testu –R. Arregiren “Narzisoak” (“Gazte naiz” atala, 1966, 161: 7) eta J. Zumalaberren “Zuhaitz luzea” (“Gazte naiz” atala, 1967, 215: 7)–.

Gisa horretan, EKSren garapenean gune izan ziren ekimenak kontuan izan arren (a.2.), horiek gertatu ahal izateko aitzinlanari dagokion merezimendua aitortu nahiko genioke, laburki.

Bigarren behar mailara hurbiltzen

Lehenik, komunitatearen bigarren behar maila asebetetzeko premia islatzen duen idatzietarik bat ekarri nahi izan dugu. Rikardo Arregik testu horretan erraten dituenekin agerian geratzen da komunitatearen bigarren behar maila euskaltasuna desberdin bizitzearekin lotua izan zela; eta, hain zuzen ere, premia horiek izan ziren literaturak 1975etik aitzinako erakundetzean lorturiko funtzioa baldintzatu zutenak.

Oraintsu arteko, ta oraingo joera bateko, euskaltzaletasunari onelako zerbait gertatu zaio. XIX’gn. gizaldia ezkeroztik Euskalerrriak eta euskaltzaletasunak garai txarrak pasa dituzte, garai txar oietatik Euskalerrriari –ta Euskalerrria gu gera– gaurko gaitz ilkorra. Gaixo guztia da gutxi gora-behera narzisista, gaixoak lehendabizi bere buruatzaz kupitzen baida.

Gaitz orren aurrean euskaltzaletasun batek narzisista izatea erabaki du; orregatik beregan daramakin humanismo proiektua narzisista da, au da, gaixoa, argala, eskasa. Lehendabizikoz «euskal animaren esentzia» sortu du. Ori mitho bat, errealidadearekin zer ikusirik ez duen abstrakzio bat besterik ez da. [...] Herri baten anima esentziz ez da deus ere, historiaren zirkunstantzi bakoitzean diferentea baida. [...]

Baiñan euskaltzaletasunak euskal izaeraren esentzi batean siñistu du. [...] Oso irudi bukolikoa. Irudi onetaz enamorata bizi da euskaltzaletasun ori. [...] Orregatik bizi diran ghetoan, defensiban, ahaleziñean. [...] Aulak izatea aukeratu dute, bere buruatzaz kupitzea ta ez burruka egitea. (Arregi, “Narzisoak”, 1966, 161: 7)

Artikuluari zehar euskaltasuna desberdin bizitzeari, euskal “esentziaren” mitoari, borrokatu beharri eta alienazioari egiten zaio erreferentzia. Beraz, idatziak *Zeruko Argiako* atalak, 1965ean zehar, azaldu zituen oinarriak biltzen ditu; baina, bertalde, belaunaldi gazte horren ondorengo ekimen hurbilaren bidea iragartzen du. Hau da, erakutsi egiten du aitzinez lantzen hasia zela 1975etik aitzinako ELERen izana moldatu zutenen bidea.

Bertzela erranda, Arregiren testuan islatuak dira ELERen 1975etik aitzinako autonomia prozesua gertatu ahal izateko aitzinekimenak: literaturaren autonomia guzizkoa aldarrikatu ahal izateko ikuspegi eta jarrera bidegileak. Hala, bada, Potteko kideek aldarrikatu zuten autonomiak ezinbertzeko aitzinpausoa izan zuen, bertzeak bertze, “Gazte naiz”en biltzen zen errealitatea.

Literaturaren “konpromisoa”

Literaturak arazo sozialekiko behar zukeen lotura hautatu dugu 1975etik aitzinako ELeren garapenak izan zuen bigarren aitzinpauso gisa.

Poesia konprometituaz bertzelako poesia behar izateaz aritu zen Joxemi Zumalabe “Zuhaitz luzea” artikuluan (“Hemen, gazteagoak” azpiatala, 1967, 215: 7). Idatzi hartan agertzen zuen bertze gisan formulatu behar zela “Poeta bateri, ea oraingo une hontan poesia konprometitua besterik egin ez zitekean galde behar” hori: “Oraingo unean, poesia konprometitua erabiltzen den garaian, ea utzi ditekian beste poesia baztarrean. // Zeren ezin dut poesia edo poeta lotua ikusi. Aunitz askatuagoak baizik”.

Zumalaberen artikuluan, 1975etik aitzinako ELeren autonomia prozesurako zutari nagusietako bati egiten zaio erreferentzia; hau da, literaturak konpromiso sozialarekin izan beharreko mendekotasunari. Errana dugu Potteko kideek, nagusiki, aldarrikatu zutela literaturaren autonomia. Errebindikazio hori gertatu ahal izateko, ordea, bide malkarra jarraitu behar izan zuen euskal kulturak.

Espresuki literaturaz ari garelarik, 60ko hamarkadan eta 70ekoaren lehen erdian eginiko aitzinpausoak behar-beharrezko izan ziren. Literatura beti problematika sozialaren borrokari atxikia izan beharra zalantzan jarri izana, kasu, ELeren autonomiarako lehen pausoa izan zen: “poesia egiteko ez dela⁷⁰⁸ beharrezkoa, nere ustez, odol, gorri, beltz, burdin odoldua, proletarioa, gosea ta zanpatu, guztietan jartzea” (*loc. cit.*).

Aitzinago ikusiko dugunez (7.2.1.), Pottekoak zehazki mintzatu ziren literatura militantzia politikotik askatu beharraz, baina eskaera horren aitzineko egoera arazo sozialekiko mendekotasunak ere baldintzatzen zuen. Areago, gainera, literaturaren eguneratze ernatu berria poesia soziala lantzen zuen poeta baten eskutik heldua zelarik –Arestiz ari gara, noski–. Hori dela eta, preseski, garrantzitsua izan zen garaiko euskal literaturaren modernitatea lortu zuten idazle horiei aitzina egin izana:

Ibon Sarasolak bere poesi batean Arestiri esaten dio:

’Gabriel Arestiri
esan behar diot
maillu guztiak
poesi direla
bainan ez
poesi guztiak maillu

⁷⁰⁸ Gazte “intelektual” –“ez dut nahi ‘snobista’ jarri” dio Zumalabek– batekin izaniko elkarrizketa oroitzen ari da (“Zuhaitz luzea”, “Hemen, gazteagoak” azpiatala, 1967, 215: 7).

Maillu guztiak eta poesia guztiak⁷⁰⁹
Bainan ez poesi guztiak maillu. (*Loc. cit.*)

Hala zioen Zumalabek:

Poesia libreagoa dela deritzait. Biziaz gehiago betea. Poesia gehiagorekin.

Xabier Letek dio..., eta nik:

'Ai poeta!
gogorra izango da
zuretzat
azken juizioko eguna'.

Bainan berdin diot, bai gizonaren prolemetatik iges dijoanari, eta bai gizonaren egi bakar bat azaltzen duanari, eta bai bere poesiarekin bizia eman beharrean eriotz beltz bat rimarekin edo gabe, ematen duen poetari. (*Loc. cit.*)

Hain gazte ez ziren kulturgile garaikideek ere, ongietorria eman zieten halako arituen izpirituari: “Azurmendi, Lasa, Lete, Sarasola: zuek bezelako gazteak diran artean pizturik izanen da euskaldungoaren garra; zuek jaso bai dezute euskal olerkaritzan bearrezko zuan maillara” (Juan San Martin, “Lete ta Sarasola beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik”, *Jakin*, 1966, 22: 74).

Beraz, 1975etik aitzina literaturaren autonomia aldarrikatu zuten ekimenek izan zuten aitzinlan garrantzitsurik. ELERen autonomiarako prozesuak garai gorenena 1975etik aitzina bizi zuen arren, atal honetan bilduak direla medio, oroitu nahi izan dugu bilakaera horren aitzinbidea ezinbertzekoa izan zela. EKSren osatzeak Aro Ilunaren ondotik hainbat funtsezko aldaketa ekarri zituela argudiatu dugun arren, egia baita 1960-1975 bitarteko ekimenek ekarri zutela bihurtze horren ahalbidea.

7.1.2.a.n erranetan, ELSk 1975etik aitzina abiatutako bidea euskararen batasunak, konpromisoaren auziak eta erakundetze prozesuak baldintzatu zutela ikusi dugu. Hiru alde horiek 1975-1990 bitartean jasan zuten garapenak, preseski, ahalbidetu zuen ELS moderno eta garaikidea egituratu eta antolatzea.

Batetik, euskara batuak bihurtu zuen literatur corpusa autonomien sistemak zituen premietara egokitzeko gai –literatur merkatu berezituaren sorkuntza izanen dugu, ondoko azpiatalean, solasgai–; bertzetik, aitzinfasean ez bezalako ondorioak izan zituen konpromisoaren auziak –segidan helduko diogu bide horrek erakundetze prozesuarekin izan zuen harremanari–. Azkenik, abian jarri ziren literatur eremuaren izaera berezitua proiektu berrietara egokitzeko erakundeak: idazle eta itzultzaile elkarteak, kasu, bulkada

⁷⁰⁹ Ibon Sarasolaren *Poemagintza* (1969) liburuan argitaraturiko olerkia.

handia izan ziren sistema garaikideen izanari parekatu, eta errealitate zabalean funtzionalitatez aritzeko.

7.1.2.b.n ikusiko dugunez, ELSren egituratze berezitua gero eta lotuagoa zen, urteek aitzina egin ahala, erakundetze prozesu iritsi berriari; zehazki, prozesu horrek ekarri zituen balioztatze prozesuei.

7.1.2.b. Eragin finkatzailearen garrantzia

ELSren bi bulkatzaile nagusi ikusi ditugularik, 1975-1990 bitarteko euskal kulturaren moldaketa erdiz erdi baldintzatu zuen aldaketari erreparatuko diogu: erakundetze prozesuari. Prozesu horrek ELSn izaniko eragin zehatza aztertze, ordea, erakundetze horren eskutik heldu ziren balioztatze prozesuei behatu behar. Hori dela eta, lehenik, balioztatze prozesuen egokitze teorikoa eginen dugu (b.1.), eta, bigarrenik, balioztatze horien deskribapena (b.2.) –nahiz literatur eremuaren funtzionalitatearekiko hausnarketa– aurkeztuko dugu.

b.1. Eremuaren balioztatzeak (egokitze teorikoa)

Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako deskribatzen dituen hiru balioztatzeak (1990: 154-162) kultur eremuen eta baliabide sinbolikoen⁷¹⁰ izaera berezitua kontuan hartzen dituen ikerketara egokitzeko, bi alderdiri erreparatu behar zaie: (1) eremuen nahiz baliabide sinbolikoen erreferentziazko komunitatearen testuinguru zehatzari eta (2) *continuum*eko egoeraren garapenari.

(1) Testuinguru zehatza

Erreferentziazko komunitatearen testuingurua kontuan izanik, estaturik gabeko nazio-komunitateen errealitatea ere barne hartzen duen azterketa osatu nahi genuke; izan ere, kasu horietan, hagitik garrantzitsua baita –zeinahi baliabide sinbolikoren azterketa egin ahal izateko– komunitate horrek estatu barneratzailearekiko duen harremanari behatzea –horretarako, Montserrat Guibernauk berak estatuen eta komunitate barneratuen artean sortu ohi diren erlazioen kasuistikari buruz erranetara jo liteke (1999: 33-66, “Nations without States: different political scenarios”)–.

Estatuen eta komunitateen arteko harremanean nahien, beharren eta errealitatearen arteko desoreka handia gertatzen denean, desberdin garatzen dira –oinarri-oinarritik– Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako aipatzen dituen balioztatzeak. Erran nahi

⁷¹⁰ Kasu honetan, literatur eremuari eta literatur tradizioari, hurrenez hurren.

baita estaturik gabeko nazio-komunitatearen ukazioa zenbat eta handiagoa izan, balioztatze prozesuak gertatzeko orduan eta aukera gutiago izaten dela; izan ere, Thompsonek berak balioztatze prozesuen eragile nagusitzat identifikatzen zituen horietan sakonki eragiten du egoera horrek. Gainera, urteetan zehar ukazio egoera jasaniko estaturik gabeko nazio-komunitateak, lehenik, Balioztatze Prozesu Nagusi bat abiatu beharko du; ukaturiko duintasuna berreskuratu, eta, oinarritzko abiapuntua ezarria delarik, balioztatze prozesu anitz gehiago garatu ahal izateko.

Hori dela eta, halako erlazio desorekatua den kasuak aztertzeko, komunitate beharren eta baliabide sinbolikoen balioztatze prozesuen arteko elkarreraginari erreparatu behar zaio.

Euskal komunitatearen kasuan, hagitx garbia da 1960-1990 bitartean bi testuinguru nagusik bideratu zutela baliabide eta forma sinbolikoen balioztatze prozesu oro; guti goiti-beheiti 1975etik aitzina abiatutako fasean, komunitatearen bigarren behar mailarekiko koherentzian gauzatu ziren balioztatze prozesuak. Bertzela erranda, 1975etik aitzinako birmoldatze fasean, erakundetze prozesuari lotuak izan ziren euskal baliabide sinbolikoen balioztatze prozesuak. Literatura dela eta, ondoko azpiatalean ikusiko dugunez (b.2.), tradizioak jasan zituen balioztatzeak lotuak ziren erakundetze prozesuak berekin zekartzan hainbat aldaketari –iragan komun erreferentziazkoa hautatzen zen, eta, era berean, komunitatearen sistema bermatzen zuen literatur tradizioa finkatzeko aukera eskaintzen zuen, printzipioz–.

(2) *Continuuma*

Errealitate zehatz horren azterketa egiteko –beraz, komunitate beharren eta baliabide sinbolikoen balioztatze prozesuetako interakzio kasuistikaz aritzeko–, bi alderdiren arteko elkarrekintza izan behar da kontuan: komunitate behar mailarena eta maila horietarik bakoitzari atxikiriko balioztatzearena. Goiti aipatu berri dugu estaturik gabeko komunitateen eta estatu barneratzaileen arteko harremanak desberdinak izan daitezkeela; desberdintasun horietan, ukazioak berak bulkatzen du komunitatearen premia mailak asebate beharra (2.2.2.). Hala, bada, oinarri-oinarritzko komunitate behar kolektiboak asebate behar dituen komunitate azpiratuak nekez gara dezake lehen behar maila horiekin bateragarri ez den bertzelako balioztatzerik; labur erranda, lehen behar maila asebate gabe –edo asebetetze prozesu hastapenean– den komunitateak ezinen du jasan balioztatze ekonomikorik.

Aldiz, balioztatze sinbolikoari dagokionez, bertzelako zubi egoerak sor daitezke. Kasuistika horretaz ohartzeko, komunitateak *continuum*ean zehar duen garapen prozesuari erreparatu behar; izan ere, balioztatze sinbolikoak badu bere gauzatze propioa –komunitatearen *continuum*eko errealitate jarraituari egokitua–, bai komunitateetako lehen behar mailaren, baita bigarren behar mailaren kasuan ere.

Euskal komunitateak, 60ko hamarkadan, ondare birjabetuaren balioztatze sinboliko sakona abiatu zuen, duintasun kolektiboa berreskuratzen joan ahala. Ahozko Ondare Kulturala (AOK) dela eta erranak kontuan izanik, kultur ondarearen bereganatzeak –fase horretan– komunitatearendako indar garatzaile gisa sumatu ziren; hain justu, ondarearekin helduriko corpusa eta molde horien erabilgarritasuna.

Hala, bada, lehen behar mailaren asebetetze prozesuan diren komunitateen kasuan, baliteke balioztatze sinbolikoa abian izatea; baina, behin behar maila hori asebeteta, eta bigarren mailako premietarako pausoa ematen denean, garai berri horretako balioztatze sinbolikoak bertzelako ñabardurak garatzea gerta liteke.

Lehen fase horren jarraipenean, 70eko hamarkadaren bigarren erditik aitzina, euskal ondare kulturalaren balioztatze ekonomiko sakona hasi, eta errealitate berriari egokitzen zitzaien balioztatze sinboliko berriztatua gauzatu zela ikusiko dugu: komunitate mailako balioztatze sinbolikoa –Balioztatze Prozesu Nagusi sinbolikoa– baino gehiago, eredu eta aritu indibidualagoetatik abiatuak ziren forma sinboliko nahiz kultur lanen balioztatze sinbolikoak gehiagotu egin ziren. Kultur eremuen garapen berezituak eremu bakoitzean biltzen ziren forma eta baliabide sinbolikoen lanketa berezitua lagundu zuen gisa, horien lanketa indibidualaren balio sinbolikoak ere nabarmendu egin ziren. Bertzeak bertze, euskal komunitatearen garapen zabalaren irudi partekatuek –Ez Dok Amairuk jasan zuen balioztatze sinboliko prozesuaren gisakoak, adibidez– fokua kultur eremu bakoitzeko aritu indibidualen ekarrietarantz zuzendu zuten. 80en akieran, ELeren barnetiko balioztatze sinbolikoaz gain, kanpo-balioztatze sinbolikoa heldu zen, *Obabakoak* liburuari emaniko saria (1989) medio.

Azkenik, bai baliabide, baita forma sinbolikoen edo guzien bilgune diren eremuen azterketarako ere, hondarreko zehazte bat egin behar litzateke. Thompsonnek espresuki garatzen ez duen arren, euskal komunitatearen adibidean sakondu ahala sumatu dugunez, balioztatze ekonomiko eta sinbolikoak bi erreferentzia nagusi izan ditzakete: forma, baliabide eta eremuen balioztatzea erreferentziazko komunitatetik heldua dateke,

edota komunitate horren gaineko estatutik –hurrenez hurren: barne-balioztatzea, endozentrikoa, eta kanpo-balioztatzea, exozentrikoa–.

Bikoiztasun horrek komunitate beharren bigarren maila asebetetzeko aitzinpausoak laguntzen ditu: komunitateko lehen behar mailaz haratagoko asebetetzea gertatzeko, hagitik pauso garrantzitsua izaten da kanpo-ukazioaren mugak laxatzea. Horretarako, mugari dira estatu barneratzaitetiko eta estatuaren muga horietarik ateko herrialdeen aldetiko balioztatzeak.

Euskal komunitatearen kasuan, 1975etik aitzinako prozesuan, estatutiko balioztatze prozesuak –baita pixkana osatu ziren munduan zeharreko herrialdeen aldetikoak ere– ezinbertzeko bulkada izan ziren, erakundetze prozesuaren garapenean; hau da, euskal komunitatearen bigarren behar maila asebate ahal izateko prozesuan.

Zehazte horrek –estaturik gabeko nazio-komunitateen kasuak lantzeko ezinbertzeko izateaz gain– erreferentziazko estatu baten balioztatzeen bikoiztasuna hausnartzeko ere balio dezake: estatuaren baitako balioztatzeez gain, bertze estatuek erreferentziazko horrekiko gara ditzaketen balioztatzeak ere hagitik adierazgarriak baitira.

Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako deskribatzen dituen balioztatzeak moldatu egin ditugu; soziologoaren ekarriak eremu eta baliabide sinbolikoen azterketara egoki daitezkeela ikusi dugu. Segidan heldu den azpiatalean, egokitze horren erabilera praktikoa garatuko dugu, balioztatze horiek lagunduko baitigute ELEk erakundetze prozesu zabalean izan zuen funtzionalitatea hausnartzen.

b.2. Literatur balioztatzeak, eremuaren funtzionalitatearen eskutik

Ondoko orrialdeetan, baliabide sinbolikoen eta horien agergune diren eremuek jasaten dituzten balioztatzeen azterketarako egokitze teorikoa egin ondotik, aztertu egingen dugu ELEk 1975-1990 bitarteko garapen nagusian izaniko funtzionalitatea.

Errana dugu balioztatze prozesuen eta komunitatearen arteko harremana aldatu egin zela, bai kualitatiboki, baita kuantitatiboki ere: balioztatze kasik bakarra eite sinbolikoko Balioztatze Prozesu Nagusia izatetik, maila desberdinetako balioztatze sinboliko eta ekonomikoak agertuz joan ziren, eta balioztatze anitz horien maiztasuna ere, nabarmen, biderkatu zen.

Literatur eremu mailako balioztatze prozesuen azterketak bi alderdi garrantzitsu garatzen lagunduko digu: ELEren eta komunitate garapenaren arteko harremana

aztertzeko (7.1.3.c.) xehetasunak eskaini, eta literatur tradizioaren berriztatzeak jasan zuen garapena (7.2.) argitzen.

b.2.1. Maila desberdinetako balioztatze nagusiak

1975etik aitzina, biderkatu egin ziren euskal kultur mailako balioztatze prozesu desberdinak –1960-1975 bitartean garaturiko Balioztatze Prozesu Nagusiaz bertzelakoak– garatzeko aukerak. Are gehiago, kultur maila zabalena eragiten zuten balioztatzeez gain, maila zehatzagoetan ere hasi ziren balioztatze garrantzitsuak garatzen. Euskal komunitateak estatuarekiko partekatzen zuen elkarreragin eremuko kokapena aldatua izanak, ugaritu egin zen, bertzeak bertze, ELEren balioztatze prozesu berezituak, eremuari berari egokituak, garatzeko aukera –ikusiko denez, eremuari egokituriko balioztatze horiek bulkatu zuten ELSren osatzea–.

1960-1975 bitarteko lehen fasean, gaurgero abiatuak ziren balioztatze sinbolikoak berriztatu, egokitu nahiz biderkatu egin ziren, eta aitzina egin zuen ordura arte kasik ezinezkoa izan zen balioztatze ekonomikoak. Azken honek, 1975era bitartean garatu gabeko alderdi eguneratua aitzinatzeako pausoak eman zituen: errealitate ekonomikoaren arauetara moldatzeko pausoak.

Balioztatze sinboliko berriztatua ELEk eta literatur tradizioak, maila zehatzagoan eta modu berezian, jasan zuten. Estatuaz haraindiko kanpo-balioztatze sinbolikoa lagundu zuen literatur tradizioaren hautatze prozesuaren eta komunitate garapenaren arteko bat egiteak. Autonomien sistemaren garapenarekin bat heldu zen literatur tradizioaren finkatze prozesua; bat heltze horrek euskal literaturaren balioa areagotu egin zuen, estatu eta estatuaz kanpoko herrialdeendako. Alabaina, ez ziren, printzipioz, bat heldu; erran nahi baita corpus eta erreferente desberdinetik abiatzen zutela autonomien sistemak bulkatzen zuen errealitate langartuak eta hautaturiko literatur tradizioak beren izana; baina, errealitatean, gune mugatu langartuak hautatu zuen euskal literatur tradizioa gune sinbolikoan oinarritua zen.

Hala, bada, euskal literatur tradizioak eta HEHko autonomia-erkidegoek –zer erranik ez, IEHk– iturburu eta erreferente gune desberdina izanagatik, kurioski, elkarren bermatzaile gisa jokatu zuten, zenbait kontutan. EAEk, kasu, 1975etik aitzina hautatzen eta finkatzen hasiriko euskal literatur tradizioa bereganatu zuen, hezkuntza sistema eraikitzekeo lagungarri gisa; NFEn, aldiz, lurraldean bertan desberdin ezarri zelarik

hezkuntza sistema⁷¹¹, literatur tradizio bateratuaren finkatze desberdina izan zen nagusi. Ideia beraren kontrako norabideak ere, bermatze lana azaleratzen du: 60etan hurbiltzen hasi, eta, abangoardien laguntzaz, aukeratzen joaniko literatur tradizio berriztatuak EAE eta, neurri batean, NFEko, hezkuntza sistemarendako oinarriak eskaini zituen.

Balioztatze ekonomiko berria ere ELEN eta literatur tradizioan gertatu zen. Batetik, hezkuntza sistema berriarendako corpus garaikidea eskaini zuen euskal literaturak, eta, bertzetik, eduki, informazio eta oinarrizko abiapuntu, helduleku, partekatuak eskaini zituen literatur tradizio komunaren hautaketak. Hortaz, hezkuntza sistema “hornitzeak” lagundu egin zituen ELEko ekoizpenen eta euskal literatur tradizioaren balioztatze ekonomikoak; dela hezkuntza sisteman egoteak literatur corpus garaikide horrek merkatuan zuen balio ekonomikoa zekarrelako, dela literatur tradizioak kanpo-merkatuenganako parekidetasuna laguntzen zuelako, ELEren eta literatur tradizioa biltzen zuen ondarearen balio ekonomikoek goiti egin zuten.

1975erako hasiak ziren euskarazko liburuen “merkantzia” izaerari buruzko hausnarketak. Torrealdaik, kasu, ideia horretaz aritu zen, *Anaitasunan*:

Kapitalismoak liburua merkantzia bihurtu du, merkantzia kulturala, noski. Salakuntza hau sarritan entzun ohi dugu. Baina honen soluzioa ez dago liburua saltzeko orduan, baizik eta egitekoan, produzioan. Liburuak beharkizun objetiboei, herriaren premiei ez baina produzio aparatuaren interesei eta errentabilitateari erantzuten badie, hor dago gaitza. Halegia, industria kultural bat, kulturaren legeetara baino industriaren logikara errazago lerratzean dago arriskua.

Eta euskal liburua arazo hortan zer? Euskal liburugintza dela eta, nor mintza daiteke euskal industriaz. Bai kaskarra! Gehienez ere, euskal liburuen artisautzaz mintza gaitezke, ez industriaz. Bestalde, helburuetatik epaituta, oker dabil, Durangoko Azoka Frankfurtoko Liburu Azokaren logikan ikusi nahi duena. (“Durango hiru egunetan euskal kulturaren hiriburu”, 1975, 305: 9)

Merkantziaren ideiak, eta Torrealdaik edukien izanera bideratzen zuen hausnarketak, balio ekonomiko hornitzen hasiriko materialak⁷¹² –liburuak, kasu honetan– bazirela eta, gainera, gero eta gehiago zirela ematen du aditzera.

Are gehiago, material horietariko bakoitzaren balio ekonomiko indibidualaz gain, euskal liburuen balioztatze nagusiago batez mintzo zen idazlea, artikuluan berean:

⁷¹¹ “Nafarroan, Foru Eraentza Legea 1982an sartu zen indarrean eta Nafarroako eremu euskaldunetan ofizial egin zuen euskara. 1986an Euskararen Legea onartu ondoren, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza eratu zuen 1988an, 1991n, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bilakatu zena. Gobernuak eremu euskaldunetarako hartu zituen neurriek irakaskuntza-sisteman euskararen ikaskuntza bideratzea eta herri-zerbitzuetan, kultur jardueretan eta komunikabideetan euskara erabili ahal izateko esparru instituzionalak ezartzea zuten helburu” (EBPN: 17). Testu berean, aitzinaxeago, IEH dela eta: “Frantziar, berriz, euskararen, bretoiaren eta okzitanoaren tankerako eskualde-hizkuntzen inguruan, Frantziako Iraultzaz geroztik batez ere, ez da hizkuntza gutxituen aldeko politikarik egin. Eskualde-hizkuntzak gutxietsi egin izan dira eta hezkuntza-sistematik, herri administrazioaren maila gutxietatik kanpo utzi” (EBPN: 18).

⁷¹² Urtetan zehar, guti batzuk, bederen, baziren; baina, merkaturik ez, irakurleriarik ez baitzen.

Gure artean, euskal kulturaren kondizioengatik, Durangoko Azokaren lehen eginkizuna salmenta ez baina aurkezpena dela esango nuke. Baina, zorionez, salerosketan ere ikusten da jendea Azokan, eta gero eta gehiago. Euskal kulturarentzat datu positibo bat da hori. Hor ikusi bide dugu, euskal liburua kategoria batetara iritsi dela, ez duela lotsarik zertan ukan, presentagarri eta irakurgarri dela. (*Loc. cit.*)

Hondarreko hitz horietan sumatzen dugu balio ekonomiko indibidualen prozesuek balioztatze sinbolikoak sor ditzaketela erakusten duen adibidea⁷¹³. Materialen balio funtzional garaikidea duintasunez, mundu garaikidean, aritzeko modukoa zen heinean –“Euskal liburua salgai dago. Erosagarria delako dago salgai” (*loc. cit.*)–, proiektzio bideak oinarritu, eta material horiek parte hartzen zuten eremuaren balio sinbolikoa indartu zuten; hau da, ELeren balioztatze sinbolikoa.

b.2.2. Maila desberdinetako balioztatzeen eragileak

Hiru arrazoi nagusi izan ziren balioztatze horiek –1960-1975 bitartekoez bertzelakoak eremuetan eta eraginean, izaeran eta kopuruan– jasaniko bihurketa eragin zutenak: (1) elkarreragin eremuko kokapena aldatu izana, (2) *zuzeneko nahiz zeharkako babesak⁷¹⁴ eta (3) elkarreragin eremu berri baten sortze nahiz finkatzea.

(1) Elkarreragin eremuko kokapena

Lehenik eta behin, ELeren muga berriztatu nagusien gisa, estatuarekiko elkarreragin eremuan euskal komunitateak zuen kokapena aldatu izana aipatu behar. Diktaduraren akierarekin, estatua diferenteki egituratzeko asmoa lege berrien ezarketak bulkatu zuen. Horien artean, Konstituzioarekin abian jarritako sistemak –autonomienak– estatuko komunitateekiko harremana berregituratzea ekarri zuen: estatuko komunitateek modu diferentean jokatu ahal izanen zuten, printzipioz, estatu barneratzailearekiko harremanean.

Beraz, harreman moldaketak komunitatearen elkarreragin eremuko kokapena aldatu zuen, eta, halaber, estrategia desberdinak abiatu ahal izan ziren. Aldaketa horren oinarrian, eremuetako kokapena estrategia desberdinekin harremanean izanik, azken horietan aldaketak sor ditzaketen eragileak dira. Thompsonek elkarreragin eremuetako kokapenaren eta balioztatze sinbolikoaren arteko harremanaz diharduela, kokapen horietariko bakoitzean hainbat estrategia nagusitu ohi direla dio; baina estrategia horietan aldaketak sor ditzaketen eragile batzuk badirela oharrarazten gaitu:

⁷¹³ Adibidean adierazgarriena iduritzen zaigu, balioztatze gurutzatua baino gehiago (Thompson 1990: 157), balioztatze batak bertzearen garapenean izan dezakeen eragin orokorra agertzea.

⁷¹⁴ Ikus A eranskineko “Babesak: zuzeneko eta zeharkako babesak” sarrera.

the ways in which such strategies may be affected by the development of institutions which are concerned in part with the ascription and renewal of symbolic value (e.g. schools, universities, museums, etc.) or by the development of institutions which are orientated essentially towards the economic valorization of symbolic forms (art galleries, institutions of mass communication, etc.). (1990: 161)

1975etik aitzinako fasean, eragin hori izan zuen lehen erreferente erakundetzailea, zalantzarik gabe, legeen aldetik heldu zen: Konstituziotik. Are gehiago, Konstituzioa euskal komunitatearen eta estatuaren arteko harremana egituratzen lehena izan zen, erakundeen funtzioak bete eta betearazten zituelarik: “The development of such institutions is accompanied by the accumulation of resources, the fixation of positions of valuation and the differentiation of cultural spheres” (*loc. cit.*).

Hori izan zen Konstituzioak egin zuena: euskal komunitatearekiko elkarreragin eremuan, baliabideak mailakatu –komunitate edo estatu mailakoa izatea, adibidez–, komunitate eta estatuko kulturen balioztatze posizioak erabaki, eta bien arteko kultur eremuen alderatze oinarriak ezarri zituen. Nolabait errateko, komunitatearen eta estatuaren arteko harremanaren oinarriak ezarri zituen; berezitasunak bazirela onartzen zen, eta, beraz, estatuak barne hartzen zituen komunitate bereziekiko harremana malgutu zen. Bereziatasunen onarpena estatuaren aniztasun kulturalaren balio anitz gisa agertu zen –euskal komunitateko ondare eta arituak–; mehatxu baino gehiago, aberastasun gisa, printzipioz, atzemanen zirela agertzen zen (Atariko titulua, 3. artikulua).

Horrek ahalbidetu zuen, hain zuzen ere, estatuak eta euskal komunitateak partekatzen zuten elkarreragin eremuko arauen izaera moldatu, eta, ondorioz, komunitateak eremu horretan zuen kokapena aldatzea. Horren ondotik, Estatutuak, komunitate mailako erakundeak⁷¹⁵ –normalki pentsatu ohi ditugun modu eta antolakuntza klasikoarekin– garatzeko aukera eman zuen.

(2) Zuzeneko eta zeharkako babesak

Literatur eremuaren balioztatze prozesuak eragin zituzten bigarren aldea zuzeneko eta zeharkako babesen aldetikoa izan zen. Aipatu eremuko kokapen bihurtarekin, ELEN –eta, ikusiko dugunez, literatur tradizioaren maila zehatzagoan– gertatzen hasi ziren balioztatzeak eragiten zituzten zuzeneko nahiz zeharkako babesak heldu ziren:

⁷¹⁵ “Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetarik bakoitzak ahal izango du, Erkidegoaren baitan, bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde edota, hala dagokionean, biziberritu eta eguneratu.” (Autonomia Estatutua, Atariko titulua, 3. artikulua)

Zeharkako babesak

Diru laguntzak lirateke –proiektuak aitzina eramateko azpiegituren kudeaketarako, kanpo-harremanetarako bitartekari lanetarako eta abar erabiliak–. ELEn, 1975-1990 bitartean, bederen, EAeko egituratik etorri ziren, nagusiki.

Zuzeneko babesak

ELeren garapenerako hautatze, onartze eta ezeztatze edo zalantzan jartze aktiboa osatzen dute zuzeneko babesek. Hizpide dugun garaian, komunitateak⁷¹⁶ egina zuzeneko babesen gauzapena izan zen –hala ere, hainbat instituziok “bitartekotza” lana, hautatze eta ezezte edo kontrajartze jarrera (aitzin)baldintzatu egin zuten; eskolak eta unibertsitateak, adibidez–.

Babes mota horietariko bakoitzak bulkada nagusi bat lagundu zuen: zeharkako babesek balioztatzeen prozesuak aisago izan zitezten laguntza eskaini zuten, eta, zuzeneko babesek, aldiz, balioztatze prozesuen gauzatzea bera egin zuten.

Zeharkako babesei dagokienez, literatura unibertsaleko itzulpenen subentzioaren eta balioztatze ekonomikoaren –nahiz sinbolikoaren– arteko harremanak, adibidez, lagundu egin zuen ELSren balioztatze sinboliko nahiz ekonomikoa gauzatzen⁷¹⁷; izan ere, literatur sistema moderno garaikide eta funtzionalen ezaugarria da bertze hizkuntzetako kanonak literatur sistemara hurbildu, eta bertako arauen arabera jokatzeari⁷¹⁸. Literatur tradizioarekin gertatua izan daiteke zuzeneko babesaren eta balioztatze ekonomikoaren, nahiz sinbolikoaren, arteko harremana agertzen duen adibideetarik bat. Baliabide sinboliko horrek komunitate gune sinbolikotik jaso zuen zuzeneko babesak –onarpena, barneratzea eta erabiltzea– izan zuen ondorio nagusia balioztatze prozesu sinboliko nahiz ekonomikoen gauzapena bera izan zen.

Beraz, babes mota horietariko bakoitzak balioztatze prozesuen gauzapenean eragina izan zuen. Babes zeharkakoek nabarmen lagundu zuten ELeren balioztatze

⁷¹⁶ Zehatzak izateko, “ELEn parte hartzen zutenek” erran beharko genuke.

⁷¹⁷ 90eko hamarkadan abian jarri zen Literatura Garaikidea bilduma, adibidez. Auñamendi Eusko Entziklopediak duen webgunean dioen gisa: “1990. urtean Jaurlaritzak Euskadi sariak ematen hasi zen, tartean Itzulpen Saria ere badela. Gaur arte banatzen iraun du, eta Gasteizko Udalak haur eta gazte literaturaren alorreko itzulpenak saritzatzeko abian jarritakotik at, itzulpen sari ia bakar eta garrantzitsuena da euskarari dagokionez. // 1990. urtean Eusko Jaurlaritzak eta EIZIEK ‘Literatura Unibertsala’ bilduma jarri zuten abian. Lehen aroan (1990-2002), 100 liburu itzuli plazaratu zituzten, Ibaizabal argitaletxearen bidez. Bigarren aroan (2002-2010), beste 52 liburu, Elkar eta Alberdania etxeen bidez. 2011. urtean hirugarren aroa hasi zen, Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeak arduratuko direla liburuak argitaratzeaz” (<http://www.euskomedia.org>, “Itzulpengintza Euskal Herrian” sarrera).

⁷¹⁸ Literatur sistema garaikideen funtzionalitaterako puntu garrantzitsuenez ikus 7.1.3.c.

ekonomikoa garatu ahal izateko bulkada. Hezkuntza sistemaren oinarrietarik bat⁷¹⁹, adibidez, literatur liburuak izan ziren: haur nahiz gazteendako⁷²⁰ liburuen hornikuntzak eta helduen alfabetatzerako liburu zuzkitze berezituak⁷²¹ –bertze hizkuntzetako lanen itzulpen mailakatua, euskarazkoen moldaketa⁷²² ELEN eragin handia izan zuten.

Zeharkako babesak eta ELENen balioztatze ekonomikoak, 1975-1990 bitartean, izaniko harremanaren erakusle dira eremuaren funtzionalitate garaikiderako erakundeak osatu eta kudeatzeko (diru) laguntzak⁷²³; hau da, Euskaltzaindiak⁷²⁴ (1976), Euskal Idazleen Elkarteak (EIE, 1982), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE, 1987), euskaltegiek –Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundearen (HABE) aurrekontuek babestuak– eta abarrek jasoak, erraterako. Izan

⁷¹⁹ “itzulpengintzak haur eta gazte literaturan hartu duen garrantzia dela eta (argitaratutako % 82a 1980tik 1994ra), itzulpengintzaren normalizaziorako urrats sendoak eman dira. Ez literatur arlo honetan, izan ere normalizaturik dagoela esan baitaiteke neurri handi batean, baizik eta euskal literaturgintza osoan normalizatzeko oso baliagarria eta erabakiorra izan da haur eta gazte literaturako itzulpengintza.” (Etxaniz 1996: 460)

⁷²⁰ 1960-1980 bitarteko garaiaz: “Cinsa argitaletxe bilbotarrak ‘Gazteriaren Literatur Altxorra’ izeneko bilduma kaleratzeari ekin zion 1974an. Bernardo Atxagak euskaratutako Robinson Crusoe liburua izan zen bildumako lehen lana. Gazteentzat zegoen literatur testuen gabezia osatzeaz gain, klasikotzat jotzen diren liburuak euskaraz eskaintzea izan zen bilduma horren asmoa. // Sei dira ‘Gazteriaren Literatur Altxorra’ bilduman argitaratutako liburuak: *Morgan, Sandokan, Pirataren emaztea* eta *Mompracem azkena* Salgariren lanak, *Robinson Crusoe* eta *Heidi*. [...] // Garaiko euskal hiztun eta irakurleen maila zela eta, hasierako liburuetan hiztegi bat (euskara-gaztelera) aurki daiteke azken orrietan, beste batzuetan zenbait hitzen esanahia dator orri barrenean; baina azkeneko liburuetan ez dator esanahairik barrenean, ezta hiztegirik ere amaieran. // ‘Gazteriaren Literatur Altxorra’ko liburuak idazlan klasikoan adaptazioak dira; testu laburragoak, ekintza ugari eta deskribapen gutxirekin, ohiturik ez zegoen irakurlegoa harrapatu nahian. Bildumako liburuen itzultzaileak B. Atxaga, X. Mendiguren eta Iker izan ziren” (*ibid.*: 32).

⁷²¹ “1970-80 hamarkada izan zen euskaltegien sorkuntzan garai garrantzitsuenetakoa. 1977-78n ezarria zegoen Euskal Herri osoan Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen (AEK) ikastegi-sarea. Baziren beste erakunde batzuk ere helduei euskara irakasten zietenak. Hamarkada horren azken aldera agertu ziren euskararen irakaskuntzaren lehen profesionalak. // 1981ean jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak HABE erakunde (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde). HABE Eusko Jaurlaritzako Autonomiadun Erakunde bat da, Kultura Sailari atxikia, bere legezko nortasuna duena, Eusko Legebiltzarraren 29/1983 Legeak sortua. Erakunde horren sorrerarekin euskararen irakaskuntzak eite berri bat hartu zuen: profesionalizazioa handitzen hasi zen, materialen ekoizpena ere bai, euskara irakasten aritzen ziren ikastegi guztien erregistroa sortu zen, ikasleen matrikulak informatika bitartez zenbatzen hasi ziren, maila batzuk edo besteak lortzeko behar ziren ikastordua kalkulatzeko hasi ziren...” (HABEren webgune ofiziala).

⁷²² “1960 eta 1980 bitarteko epean zenbait liburu euskaratu ziren, ikusi dugun bezala. Apur batzuk hasieran, eta dozenaka azkeneko urtetan [euskaraturiko liburuak], baina salbuespenak salbuespen, testuen adaptazioak dira nagusi, euskara errazean eginiko moldaketak; ikasten ari den irakurlea izaten da kontutan; eta alde horretatik, aurrerapausu handiak eman baziren ere, haur eta gazte literaturaren heldutasun falta ikusten da. Egoera horrek hobera egin zuen ikaragarritzko urrats sendoak emanez 80ko hamarkadan.” (Etxaniz 1996: 336)

⁷²³ Horri guziari buruzko informazioa *euskadi.net* webgunean, EBPnri dagokion atalean, ageri da.

⁷²⁴ Diru sarreraren erakusle gisa, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia 1983-1984* liburutik (62. or.) ateratako diru sarrera nagusiak, pezetatan: Diputaziotik –20.000.000: Araba 4.000.000, Bizkaia 7.000.000, Gipuzkoa 7.000.000, Nafarroa 2.000.000–, Eusko Jaurlaritzatik –9.800.000–, Estatuko Aurrekontuetatik –1.500.000–, Udaletatik –1.500.000–, Banku eta Aurrezki Kutxetatik –4.500.000–, partikularrengandik –2.500.000– eta salmentetatik –8.000.000–. B eranskinean dira eskuragarri 1985.-1986., 1987., 1988. eta 1989. urteetako datuak (B eraskina, B.7., “7.1.2., b.2.2. Maila desberdinetako balioztatzeen eragileak: Euskaltzaindiaren diru sarrerak”).

ere, Euskararen Legea dela medio, euskararen normalizazioarekin loturiko erakundeak sortu ziren:

Honako hauek dira euskararen erabilera normalizatzeko 1979az geroztik hona eratu diren erakundeak eta indarrean jarriko arauak: Euskararen Aholku Batzordea (1982), Euskal Irrati Telebista (EITB, 1982), EAeko irakaskuntza ezunibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua (1983), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE, 1983), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE, 1983), Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983), 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailordetza bilakatu zena, eta Euskal Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzarako Plana (1989). Oro har, EAEn hartutako neurriak irakaskuntzan, komunikabideetan, herri-administrazioetan eta kulturgintzan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeari begira taxutu ziren. (EBPN: 17)

Zuzeneko babesek, ordea, bertze iturri nagusi bat izan zuten: komunitatearen aski errealtate partzialaren ordezkartzatik baino gehiago, komunitatearen gune sinbolikotik heldu zen babes zuzena. Erran nahi baita komunitateak, muga geografiko-politikoek haratago, ELERen balioztatze sinboliko nahiz ekonomikoan parte hartu zuela, zalantzarik gabe.

Arestian ere errana dugu (7.1.1.) ELERen ezaugarria izan dela –ez arraroa, ez berea soilik, baina, zernahi gisaz, berea– literatur eremu orori dagozkion partaide guztiak ekoizpen eta jabetze eremu nagusian ez izatea. Hala, bada, komunitatearen ordezkartza horretan ez ziren komunitateko kideek ELERen balioztatze ekonomiko nahiz sinbolikoan funtsezko⁷²⁵ eragina izan zuten. Batetik, gune sinbolikotik⁷²⁶ heldu –ekoizpena– eta jabetzen –hartzea– baitzen balioztatze sinboliko nahiz ekonomikoen, neurri tikiagoan, prozesuetako balio egoztea. Bertzetik, gune hori izan baitzen literatur corpusaren eta, horretan, literatur tradizioaren iturria eta erreferentzia.

(3) Eremu berria

Azkenik, ELERen balioztatzea eragin zuen hondarreko aldea elkarreragin eremu berria agertu izana da; hau da, ELS eremu sistemiko izaten hasi zenaren zantzua. Zantzua diogu, berariaz, ELSren abiapuntua izateaz gain, egiazki elkarreragin eremu berria bera egituratu gabea baitzen. Hau da, “Oinarri teorikoak” atalean erranak gogora ekarriaz, elkarreragin eremu egituratuak botere, aukera eta bizi aldaketak sortzeko, eta horietara iristeko, nahiko asimetria eta diferentzia egonkorrak izaten ditu (“b.2.

⁷²⁵ Azaldua dugunez, ordea, gune sinbolikoaren babes egituratua garatu ez izana sumatzen dugu, gaur eguneko ikuspegitik, euskal kulturak duen hutsune nagusietariko gisa.

⁷²⁶ IEHko edo Nafarroako idazleak eta EAE gunetik kanpoko euskal irakurleria, erraterako.

Testuinguru sozialen eta forma sinbolikoen arteko elkarreragina”). Horiek, noski, antolatze eta finkatze prozesuan ziren, hizpide dugun garaian.

Estatuarekiko elkarreragin eremuaz gain, elkarreragin eremu horretan, onarturiko elkarreragin eremu berria egituratzen hasia zen: EAE gunearrekiko harremanean eraikitzen hasiriko literatur eremuak partekatzen zuen elkarreragin eremua, preseski. Elkarreragin eremu horretan, euskal literatura ez zen, gaurgero, mendeko kokapenean; kontrara, erdi-mailako kokapenean kokatu zela erran liteke. Gisa horretan, EAetik heldu ziren babes zuzenekoek eta zeharkakoek literatur eremuaren garapena, batetik, autonomia-erkidegoaren garapenarekiko harremanean aitzinatzen zuten, eta, bertzetik, kokapen berria izaki, ELEren garapen berezitua aitzinatzeko pausoak eman ahal izan ziren, pixkana. Hala, bada, balioztatze prozesuen biderkatzea elkarreragin eremu berri baten agerpenari lotua izan zen; EAEk eta ELEk partekatzen zuten elkarreragin eremuari atxikia, hain zuzen ere.

Elkarreragin eremu berri horren izana, nagusiki, hiru alderdik ezaugarritzen zuten: eraikitze bide hasiberrian izatea –beraz, Thompsoni jarraiki, egituratua ez izatea–, elkarreragin zabalago baten baitako elkarreragin eremua izatea eta eremu zabal horretan kokapena berriki aldatua izatea euskal komunitateak, bere osotasunean.

b.2.3. Balioztatzeen eta funtzionalitatearen arteko harremana

ELEk jasan zituen balioztatze eta eragileen nondik norakoa ikusi ondotik, ondorio nagusi batera iritsi gara: balioztatzeak –nahiz horien eragileak, beraz– komunitate garapenaren bigarren faseari ziren hertsiki lotuak. Hori dela eta, ondoko paragrafoetan, literatur eremuak komunitate garapenarekiko izan zuen harremanari funtzioaren ikuspegitik erreparatuko diogu, laburki⁷²⁷. Hau da, ELSk –abian zenak– komunitate garapenean izan zuen funtzioak balioztatze prozesuetan eraginik izan ote zuen, eta, eraginik izan bazuen, aztertuko dugu zein izan zen eragin hori, zein mailatakoa eta zein ondorio nagusi izan zituen; elkarreragin eremu berrian eratu zen ELEren eta komunitatearen arteko harremanak erakusten du literatur eremuak, komunitate garapenean, izaniko funtzioa. Bertzela erranda, komunitatearen bigarren mailako helburuak lortu ahal izateko garaian abiatu ziren funtzio nagusien artean, ELEk izan zuenaz aritu nahi dugu.

⁷²⁷ Garapen zabalagoa egingen dugu 7.1.3.c. azpiatalean.

Aipatu balioztatzeek, 1975-1990 bitarteko komunitate garapenean ELEk izan zuen funtzioa zehazten laguntzen dute; are nabarmenago, horiek gabe, ezinezkoa izanen zatekeen funtzio horren gauzatzea.

ELEk, 1975-1990 bitarteko komunitate garapenarekiko erlazioan, bi ekarri nagusi egin zituen:

- Batetik, gune mugatuaren garapenerako –eta garapen horren bermatzea sostengatzen zuten kontrol egituren garapenerako: hezkuntza, komunikabideak– beharrezkoak ziren tresnak eman zituen literaturak; autonomien sistema bermatuko zuen ekarri multzoa: EAEtiko zeharkako babes sareak lagundurik, hezkuntza sistemaren garapenerako ezinbertzekoak ziren jatorrizko nahiz itzulpen lanak⁷²⁸ eskaini zituen literaturak.
- Bertzetik, gune mugatuaz gain, estaturik gabeko nazioen kasuan berebiziko garrantzia duen ordezkartza gunearendako ere, ekarri garrantzitsua egin zuen literaturak: gune sinbolikoarendako ere egoki zitekeen oinarria eskaini zuen. Finkapenerako oinarri nagusietarik bat eman zion literaturak komunitatearen garapenerari: euskal literatura errealitate moderno-garaikiderako funtzional egiten zuen tradizio komuna.

Beraz, eragin finkatzaile bikoitza izan zuen ELEk, komunitate garapenean: komunitatearen gune mugatuaren proiektua finkatzen zuten botere egituretarako tresna baliagarria izateaz gain, gune sinbolikoarendako ere erreferentzia bateratua izan zitekeen literatur tradizioa eskaini zuen.

7.1.2. atalean⁷²⁹, ELEk erakundetze nagusian izan zuen funtzionalitatea aztertu dugu. Horretarako, eremuaren eta prozesuaren arteko harremanari bi norabidetan erreparatu

⁷²⁸ 1980-1996 bitartean: “Euskal Herrian argitaratutako liburuen kopuruan igoera handia izan zen 80ko hamarkadaren lehen urteetan. 60ko hamarkadan 40 liburu inguru plazaratu baldin baziren haur eta gazteentzat, 1980an 77 izan ziren eta 1984an 145. Hots, lau urtetan bikoiztu egin zen produkzioa, eta beste lau urtetan berriro bikoiztu (1988an 286 izan baitziren kaleratutako haur eta gazte literatur liburuak). Igoera horrek ez du parekorik euskal liburugintzan, eta zaila izango da garai horren antzekorik aurkitzea. Jakina, urte horietan izandako baldintzak errepikaezinak dira: eskaera handia, bertako eskaintza eraikitzea, eta kanpoko argitaletxeen etengabeko saioak euskal letretan. // Baina hori guztia baino garrantzitsuagoa izan zen Erein eta Elkar argitaletxeen lana, euskal haur eta gazte literatura eraikitzeko oinarriak jartzen hasi baitziren urte horietan, eta idazle batzuen lana, batez ere, B. Atxaga, M. Landa, A. Lertxundi eta J. Ormazabalena kaleratu baitzuten. Azken biak Erein eta Elkar argitaletxeetan izan zuten ardura” (Etxaniz 1996: 360).

⁷²⁹ 7.1.2.b. azpiatalaren ondorio zehatzak 7.1.2.ri buruzkoetan bildu ditugu.

diogu. Batetik, birformulatze nagusiak literaturan izan zuen islari behatu diogu: ELSren bulkadak erakundetze prozesutik heldu zirela ikusteaz gain (a.1.), bulkada horiek literatur eremuaren garapen berezitua aldarrikatzen zuten abangoardiek kritikatu zituztela agertu dugu (a.2.) –hala gertatu izana abangoardien izaera subertsiboari lotua izan zela erran dugu–. Gainera, horiek gertatu ahal izateko aitzinpausuen garrantzia azpimarratu nahi izan dugu (a.3.). Bertzetik, kontrako norabidearen eragina islatzen zuten hainbat alderdi landu ditugu: ELEk erakundetze prozesu nagusian izan zuen eragina aztertzeke, komunitatearen bigarren behar mailekin bat heldu ziren balioztatzeaz aritu gara. Thompsonnek prozesu horiez emaniko azalpenen egokitze teorikoa agertzeaz gain (b.1.), ELEren balioztatzeak eremuaren beraren funtzionalitatearen eskutik heldu zirela ikusi dugu (b.2.).

Hala, euskal komunitateak 1975etik aitzinako fasean zituen beharrekiko, bereziki, koherentzian ziren prozesuez aritu gara; hau da, literatur eremua ELS izatera lagundu zutenez. 7.2. atalean, ELEren funtzionalitatearen eta komunitate garapenaren arteko harreman horren gauzatze zehatzak ikusiko ditugu: fokua tradizio eta nazio eraikuntza harremanean jarriaz, Literatur Tradizio Krisiari⁷³⁰ emaniko erantzun indibidualei behaturik, nazio-komunitate eraikuntza moldea bermatzen ote zen begiratuko dugu.

Aitzinez, ordea, aipatu Literatur Tradizio Krisiaren jatorriaz eta izanaz arituko gara, 7.1.3. atalean; komunitate garapenean gune izan zen alde horren azalpen zabalak bi informazio mota emanen dizkigu: 7.1.2. atalean deskribaturiko ELEko alde zehatz baten egoera aztertuko dugu, eta 7.2.rako beharrezko diren datu eta informazio nagusiak eskainiko ditugu.

7.1.3. Literatur eremua, finkatze bidean: literatur tradizio berreskuratu berria, auzian

Azkenik, 1975-1990 bitartean, ELEk jasaniko garapenaren oinarriak (7.1.1.) eta oinarri horien bulkadak lagunduta abiatu zen garapen berezitua (7.1.2.) ikusiak ditugularik, tradizioaren gauzatze zehatz batean horiek guziek nola islatu ziren ikusiko dugu. Ondoko orrialdeetan, islatze horietatik abiatuta, baliabide sinboliko zehatz horretan ikusiek nazio garapenarekiko duten harremanari erreparatuko diogu.

⁷³⁰ “Krisi” izena dela medio, kinka, zalantza, aldakortasun eta ziurgabetasuna bere baitan biltzen dituen prozesu eraldatzailea deskribatu nahi izan dugu.

Horretarako, literatur tradizioa hautatu dugu ikergai nagusi gisa⁷³¹. Honek emanen digu ELeren eta komunitate garapenaren arteko harremana zer-nolakoa izan zen irudikatzeko bide praktikoa. Lehenik (7.1.3.a.), tradizioari buruzko ikuspegi nagusia eskainiko dugu; segidan (7.1.3.b.), espresuki arituko gara literatur tradizioan izan zen eztabaida nagusiaz, Euskal Literatur Tradizio Krisiaz; eta, azkenik (7.1.3.c.), zazpigarren atalean zehar erranak kontuan izanik, ELeren eta komunitate garapenaren arteko lotura agertu eta bilduko dugu.

7.1.3.a. Tradiziora hurbilpena

Tradizioari buruzko eztabaidak, 1975etik 90ak arte, garrantzi handia izan zuen HEHn; iraganaren berrinterpretaziotiko moldatzetik⁷³² nazioaren jarraipenerako proiektu eta zutarriak behar ziren erabaki: tradizioaren izana hausnartu, zutarri nagusiak hautatu, eta garai berrietarako proiektuan erabilgarri izateko berrantolaketa erabaki behar zen; nola islatu nahi zen eta zertarako izanen zen erabilia. Testuinguru horretan, literatura agertoki nagusi bihurtu zen. Iraganerako begiradak, kontzientzia hausnartzailearen behatze kritikoak eta tradizioaren planteamendu berriak literatura izan zuten garatoki, teorikoki nahiz praktikoki.

Ondoko paragrafoetan –etno-sinbolismoaren helburuak eta teoria modernistarekiko aldeak kontuan izanik (1.3.1.)–, tradizioari buruzko gatazkaren garrantzia teoria etno-sinbolistak jarraitzen duen ikuspegitik bideratuko dugu: frankismo ondoko Krisi Orokor Ñabartuak euskal nazio-komunitatearen birpentsatzea ekarri zuen, eta, beraz, egokitze bidean, forma sinboliko, uste, mito eta tradizioekiko begirada hausnartzailea abian jarri. Tradizioari buruzko gatazkak bi mailatako elementuak astindu zituen. Batetik, tradizioaren barne-elementuak –literatur tradizioa, kasu– eta, bertzetik, egoera soziohistorikoarekin eragin zuzenean ziren helburu zabalagoak; hau da, Aro Ilunaren ondotik, estatuaren barrenean eta Europara begira, euskal nazio-komunitatearendako osatzaile eta ordezkari nahi ziren elementuak hautatu behar ziren, iraganaren berrinterpretazioak ekarri zuen berrantolaketa eguneratua sorraraziaz. Idatzi honetan egingen dugun iraganaren eta orainaren arteko

⁷³¹ Bigarren kapituluan, ordea, ELeren sorkuntzarako oinarriak izan zirenei erreparatzen genien: jarraitutasun sinbolikoari, aldizkariei eta zeinahi balioztatze prozesu eragin zuten baldintzatzaile nagusiei.

⁷³² “Si la instauración de la democracia redundó en una rápida generalización de su legitimidad, el hecho de que en ella participara como elemento decisivo un sector de la clase política del franquismo contribuyó a proyectar sobre el inmediato pasado una mirada ambigua.” (Juliá, *in* Mainer eta Juliá 2000: 55)

jarraitutasunaren azterketa elementu eta forma kulturei dagokiena izanen da; zehazkiago, tradizioak literaturan izan zuen jarraitutasunari erreparatuko diogu.

a.1. Tradizioaren eta literatur tradizioaren arteko harremana

Idatzi honetan, fokua tradizioan jarri izanaz gain, literatur tradizioa, espresuki, aztergai dugunez, komeni da bien arteko harremanaz zertxobait aritzea. Tradizioaren izanean gizarte elementu aunitzek parte hartzen dute, eta horietarik bat literatur tradizioa da; normalki, literatur tradizioak tradiziozko zatiren baten islatzaile, gordetzaile nahiz sortzaile eginkizunak betetzen ditu –alegia, ohituren izana literaturan ager liteke, akitzear den elementuren bat bertan altxatu, edota akituak birformulatu nahiz berriak proposatu–.

Beraz, gizarte bakoitzak momentuari dagokion eginkizuna emanen dio tradizioari, eremuetarik bat literatur tradizioa izanen delarik. Aukera aunitzen artean, tradizioaren eta literatur tradizioaren arteko harremana nolakoa izanen den erabakitzen da; hautaketak, gainera, interesen arabera funtzio zehatzak ezartzen dizkio erlazio horri: literatur tradizioa kultur tradizio osoaren ispilu izan daiteke, edo errefortzu gisa funtziona dezake⁷³³, osagarri gisa, betebeharraldatzaile eta formatzailea esleidi dakiokelarik.

Halatan, horien artean sortzen den harremanen eta funtzioen banaketa gizarte bakoitzean, momentu desberdinetan, aztertu beharrekoa da; tradizioaren eta literatur tradizioaren arteko harremana aldatu, garatu eta berrinterpretatu eginen delarik, behatzen zaion garaiko ikuspuntu eta ideologiaren arabera. Erljioa, adibidez, ez da egungo euskal kulturaren ezaugarri –berdin Iparralde eta Hegoaldeko probintzietan–; antzinako gizartearen begietara, ordea, euskal tradizioaren baldintzatzaile eta ezaugarri “bereizgarria” izan zen “euskaldun fededun” delakoa.

Hemen, tradizioa bere osotasunean aipatzean, literatur tradizioaren hautatze eta osatze prozesuei eragiten dien neurrian arituko gara; hortaz, nagusiki literatur tradizioaz arituko garenez, tradizioaren eremuetarik bati soilik behatuko diogula izan beharko da kontuan. 60ko eta 70eko hamarkadetan abian jarritako aldaketek tradizio osoan eragina izan zuten arren, literaturan eta literatur tradizioan izaniko eraginaz arituko gara, bereziki; horretarako, literatur tradizioaren inguruko aukeren aniztasuna ikusarazteko,

⁷³³ “Literatura historikoa, sarritan, kontzientzia kolektiboa indartzeko, iragana are gehiago mitifikatzeko egiten da.” (*NENH*: 42)

hizpide harturiko hiru idazleen lanak aztertuko ditugu. Lan horiek, ordea, hagitx baldintzatzaile izaniko Krisi Orokor Ñabartuaren testuinguruan sortuak izaki, krisiak eragindako bilaketa prozesuaren baitan ulertu beharko ditugu; beraz, bilaketak sorrarazi zituen sentimenei erreparatu beharko diegu.

a.2. Begirada gibela bihurtzearen logikotasuna

1985ean, zera zioen Sarrionandiak: “Interesgarria da [...] egungo idazlea egungo giroetara atxiki beharrean haro hurrinetara zergatik lerratzen den [hausnartzea]” (*NENH*⁷³⁴: 42). Galdera horri erantzuteko, ariketen maiztasunaren gibelean diren arrazoi nagusiei erreparatu behar zaie. Erreferente eske iraganera jotzea aski prozedura normala da⁷³⁵. Krisi egoeretan, bereziki, aski prozesu logikoa iduri du, sendotasun bila, gibela bihurtzeak:

It is especially in periods of crisis and change that such vigorous ideological conflicts flourish. These are often perceived by the members of a nation as periods of decline from some putative standard of national creativity and grandeur; and this raises the issue of the ‘authenticity’ of the nation and the need for guidance for the present generation through a return, at least in spirit, to these earlier ‘golden’ ages of the nation’s history. That is typically when grand narratives of the national history are formulated, its exemplary or golden ages are defined, and its heroes and saints selected. (Smith 2009: 35-36)

Bertzeak bertze, iraganera jotzeak bi ziurtasun mota bermatzen dituelakotz. Batetik, joana eta akabatua den aldetik eskaintzen duena (Magris 2004 [1971]: 97); bertzetik, moldagarri izateak eskaintzen duen aukeratze ahala: onartu edo ezeztatu, moldatu eta eraldatu daitekeenez, norbere izana bertan egokitze aukera eskaintzen du. Birformulatu, eta lege berrien arabera berrinterpretatu eta berrantola daiteke. Sarrionandiak zioenaren haritik, “Iragana oraina baina aisago eta hobeto harrapatu eta bermatzen da” (*NENH*: 42); iragana oraina eta etorkizuna baino ziurragoa baita, gaurgero izana delakotz.

⁷³⁴ Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa* (1985a).

⁷³⁵ Adibide gisa: “Los países que no podían enorgullecerse de un Petrarca, un Calderón o un Racine podían volverse hacia los *Volkslieder* y otras formas de tradición oral, tan significativa para checos y rumanos, lituanos y letones, finlandeses y estonios, y especialmente, para los diferentes eslavos del Sur. Así, un número no tan reducido de colectividades halló nuevas fuentes de energía en la convergencia de la oralidad y de la poesía considerada y admirada como nacional. Otras nacionalidades, o regiones, seguirían caminos análogos poco después, como la flamenca, la provenzal y la catalana, cuyas tradiciones literarias se remontaban a escritores medievales (no sólo populares u orales, sino un Bernart de Ventadorn o un Ausiàs March) de muy considerable valía; y conocieron también una restauración o un segundo despertar, más o menos eficaz y duradero. Retroactivamente, el gran poeta del Medioevo asumió inéditas funciones y pasó a ser lo que raras veces fuera, un escritor nacional” (Guillén 1998: 310; iraganera jotzearen ideia berari buruz: 324-325).

Sufrimendu eta zapalkuntza aldi baten ondotik iragana biltzen duen tradizioa –hala sumatzen den horretara– jotzea aski mugimendu kolektibo ulergarria da, hortaz. Hainbat historialarik⁷³⁶ euskal gizartea, XIX. mendetik aitzina, euskalduntasunaren identifikazio kontrajarrian oinarritu zela proposatzen dute. Hori dela eta, identitate horren ukatze sistematikoaren ondorioz, ukatuarekiko kuriositate berezkoaren eraginez bada ere, gibelera bihurtzen dira begiak, ukatua edo garatu ezinean utzirikoaren izanaren ulermen bila; erreferente eske, hain zuzen. Ukazioan oinarrituriko Aro Ilunaren akierak nazionalismo periferikoetako identitate⁷³⁷ ezeztatuaren oinarriak sendotzeko ahalegina ekarri zuen, halaberharrez:

Dentro de las fronteras del estado-nación español, la llamada identidad periférica –que comprendería al menos la gallega, la vasca y la catalana– reacciona frente a los excesos de la identidad homogénea, uniforme y nacional del estado español. [...] En conjunto, reaccionan frente a una definición de lo español fuertemente enraizada todavía en definiciones nacionales puestas al día por el franquismo, aunque no se originan en él. (Aguado 2010: 165)

Historia da, lehen kolpean, bederen, ziurtasun gehien aditzera ematen duen denbora. Historiak, iraganak, bere dituen bi tasun nagusietarikoena izaera bat heldu da erreferenteen sendotasunarekin; bertzerik da lehen begiratu horretako multzoa ezeztatu, moldatu edo berrirakurri egingen den, bigarren fase batean. Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik modu berean jo zuten iraganera, baina abangoardiako arituei dagokien gisa, ezeztapenean oinarrituz hasi zuten bidea, *Potten*: bertan, tradizioak aitzinetik arrastan zituenak alboratu, eta iraganeko erreferenteen izana moldatu egin zuten –beraz, ezinbertzean ukatsetik abiatutako lana zen–.

Nolanahi ere den, abangoardiaren eta iraganaren arteko erlazioa, lehen kolpean iduri duena baino estuagoa da, normalki. Bourdieuk abangoardiako artean iraganak duen presentzia inoiz baino nabariagoa dela azaltzen du; izan ere, espazio horren

⁷³⁶ “El historiador Juan Pablo Fusi, al tratar de las relaciones ent[r]e [sic] la cultura vasca de expresión castellana y la euskérica, ha hecho notar el fenómeno siguiente: «La dualidad euskera-castellano no fue interiorizada o planteada como una escisión de la conciencia nacional probablemente hasta finales de siglo [XIX. mendeaz ari da]. Al menos, en la generación nacida hacia 1863-1873 se produjo un claro divorcio de planteamientos, criterios y definiciones del hecho cultural vasco que no parece hubiera existido previamente» (Fusi, 1981: 22)” (*LV*: 85). Juan Pablo Fusi-ren aipamena “El Sitio y el pluralismo cultural vasco” hitzalditik hartua dela ageri da, bibliografian.

⁷³⁷ Identitate aniztasuna Trantsizio politikoko ezaugarrietarik bat gisa aurkezten du Juliák: “Se consolidó así lo que podría tomarse como una especificidad de la cultura política española de aquellos años [Trantsizioa]: la reivindicación por muchos ciudadanos de tres identidades superpuestas, que coexistían o se mantenían en pugna. Se era, desde luego, ciudadano de Europa pero, además, se era vasco, catalán, gallego, andaluz... y/o español en proporciones distintas, según las nacionalidades o regiones. En todos los casos, sin embargo, la identidad exclusiva –española o vasca, catalana, gallega...– nunca se situó en cabeza cuando se cierra el periodo aquí considerado y España ingresa en la Comunidad Europea” (*in* Mainer eta Juliá 2000: 74).

menderatze praktiko nahiz teorikoa eskatzen baitu: zer egin denaz eta egin ez denaz jabetzea (1995 [1992]: 360, 440).

Ikusiko dugunez, aztergai ditugun hiru idazleen lanetan iraganaren berreskuratze saioa bi alde nagusitan banatu zen. Tradizioaren jakitetik abiatua izan zen Potteko kideek abiaraziriko lana; tradizio horrekiko ukazioan oinarriturik bada ere, inoiz baino presenteago ziren iragana eta hura islatzen zuen tradizioa Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren lanetan. Are gehiago, tradizioak iraganaren indarra presente izatera dakarren gisa, Sarrionandia eta Juaristiren lanetan bi presentzia horiekiko harremana arrazoiar haratagoko sentimenduekiko kinkan borrokatu beharra teorikoki nahiz praktikoki jorratu zen.

7.1.3.b. Euskal literatur tradizioaren krisia

Tradizioari buruzko ideia orokorrak azaldu ondotik, Trantsizioan izaniko Literatur Tradizio Krisiaren izana hiru puntu nagusiren baitan hausnartuko dugu: azalpen orokor adina osoaren ondotik (b.1.), atal banatan, Literatur Tradizio Krisiak Krisi Orokor Ñabartuarekiko (b.2.) eta lekuz kanpokotasunarekiko (b.3.) izan zuen harremana hausnartuko dugu. Gainera, 7.2. atalean behar-beharrezko izanen ditugun oinarri teorikoak bilduko ditugu (b.4.).

b.1. Euskal Literatur Tradizio Krisia

Diktadurarekin batera espresuki indartuz joan ziren ideologia nazionalista periferikoek agerpen nabaria izan zuten frankismo hondarreko urteetan eta Trantsizioan.

La Guerra Civil española [...] introduce sus elementos particulares en la discusión. Es cierto, el nacionalismo periférico ya había irrumpido en la política antes de la guerra, pero sería negar la evidencia cómo su importancia se vio acentuada por la represión sin contemplaciones del franquismo de toda expresión cultural distinta a la *españolizante* por él preconizada. Es más, el nacionalismo periférico se convirtió, junto con la militancia antifascista del PCE, en la oposición más firme y visible al régimen de Franco. (Aguado 2010: 171) (Azpimarra ez da gurea)

Trantsizioko euskal munduan indartsu zen joera abertzaleak, tradizioa modu jakinean eta helburu ideologiko zehatzekin erabiltzen zuen bitartean, *Euskal Literatur Tradizio Tradizional⁷³⁸ horretan sortua zen literaturak bide berriak arakatzeko momentua bizitu zen. Zenbaitek Gerra Zibilaren aitzineko urteetan zertxobait agertu zen

⁷³⁸ Ikus A eranskinetako “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera, “a. Euskal Literatur Tradizio Tradizionala” azpisarrera.

joera modernorako aukerari behatu zioten, eta ahozkotasunari eta herrikoitasunari atxikia zen literatur tradizioaz haratago, garaiari egokituriko frankismo aitzineko euskal literaturaren berrinterpretazioa egin zuten –7.2.n azalduko dugu, zehazkiago, Potteko kideen arituaz ari garelarik, berrinterpretazio hori–.

Aro Ilunaren ondorioz jasaniko inkomunikazio hurbil zein internazionalak, euskal literaturaren beraren garapen “berezkoa” eteteaz gain, mugimendu internazional aunitzen eragin sinkronikoa moztu zuen. Halatan, Aro Iluna hasi zenetik, literatura burujabearen aldeko mugimendu orokorrik ez zen antolatuki eta espresuki landu, euskal literaturan. Jakina denez, Lizardi eta Lauaxeta izan ziren urte aitzinfrankistetan aritu modernoei eta kanpoko eraginei atxikitzen hasi zitzaizkien idazle bakanetarikoak⁷³⁹; Gerrak, ordea, garapen ahalbide oro gibelatu zuen. Horregatik, Trantsizioan literatur tradizioari buruz sorturiko gatazka testuinguru horretan ulertu beharrekoa da: bi muturrei erreparatuz gero, errepresio egoeraren ondorioz suturiko jarrera abertzaleak beregain hartzen zuen literaturaren erabilera ideologikoaren eta mundutiko eraginaren egarri zen literatura buruaskia nahi izatearen arteko borroka sumatzen da.

Gaugero errana dugu erreferente eske iraganera jotzea aski prozesu logiko eta errepikakorra izan dela, historian zehar; hori dela eta, diktaduraren akierarekin sumaturiko irekitasunak eta galera guzien hutsuneen betetzeak finkatuko zituzten erreferente sendoen eta baliagarriagoen bilaketa hasi zen –egin kontu Trantsizioko gizarteak eskaintzen zuen egoera kaotikoa egonkortasunik gabea zela; erreferente ahul eta zalantzazkoak eskaintzen zituen–. Hautatze prozesu orokor horretan, ordea, literatur tradizioak helburu berriak bereganatu beharko zituen, garai berriei egokitu beharrez. Bertzeak bertze, eraikitzen ari zen autonomien sistemak sortu beharreko ELSren oinarri izanzen baitzen literatur tradizio horretatik positibo nahiz negatiboki aurrez aurre garaturiko lana: iraganarekiko harreman motaren hautua zen jokoan.

70eko hamarkadan sortu ziren literatur aldizkari nagusi biak dira –*Ustela* eta *Pott*– literatur tradizioaren antolakuntzari buruzko kinka horren erakusgarri. Biek aldarrikatu zuten literaturaren autonomia, baina *Ustelaren* hirugarren zenbakian (*Mermelada ustela*, 1976) ideologiaren zama nabariagoa izan zen, politikoagoa. Atxagak dioenez, bere burua ez zuen hirugarren zenbaki horretako arituarekin guziz

⁷³⁹ “La tendencia representada por *Arrats-beran*, que intentaba conservar el nivel de autonomía de la lengua poética alcanzado por los poetas nacionalistas sin renunciar a nutrirse de fuentes tradicionales, no tuvo seguidores. Como no los tuvo tampoco el acercamiento iniciado por «Lauaxeta» a la poesía de expresión castellana” (*LV*: 104).

identifikaturik sentitu, eta utzi egin zuen taldea. Aldaketa Ramon Saizarbitoriaren sarrerarekin heldu omen zen, Atxagaren beraren hitzetan:

Saizarbitoria hurbildu zitzaigunean [*Ustelara*], gauzak aldatu egin ziren han. Ikuspegi ezberdinak zeuden, ideologia ezberdinak. Niri arrotza egiten zitzaidan Saizarbitoriak eta *Ustelaren* hirugarren alea sinatu zuten beste batzuek iraganarekin zeukaten harreman mota hura. [...]

Hirugarren *Ustela*, Saizarbitoria sartu eta gero egin genuen hura, aurreko biak baino askoz politikoagoa izan zen, “mezu” handiagokoa, eta ni ez nintzen oso eroso sentitzen. (*In Etxeberria* 2002: 27)

Ondotik, jakina denez, literaturaren autonomia ideologiatik askeago zen diskurtsoetan aldarrikatzen zuen Pott Bandan arituko zen Atxaga; bertan, bertze kideekin batera, 1975etik aitzinako Literatur Krisiaren gunetiko lanari ekin zioten. Bakarkako bidean, Atxaga eta Sarrionandia alde baieztatzaileko joera hartuz joan ziren, *Ob.*en den paisaia tradizionalaren berrinterpretazioa nahiz tradizioko literatur idazleen hautaketa eta *NENH* nahiz *Marginaliako (M)* hausnarketak direla medio, hurrenez hurren; Juaristik, ordea, euskal tradizioa alde ezeztatzailetik landu zuen, dekonstrukzio⁷⁴⁰ teorikotik abiatutako *El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca (Aitor)* lanaren gauzapean poetiko parekoak lehen hiru olerki liburuetan agertu zirelarik.

Zernahi gisaz, Literatur Tradizio Tradizionalean egon zen krisiak literaturaren autonomia ahalbidetu zuen arren, bide desberdinetarik garatu zen autonomia horretatik sorkuntza. Euskal tradizioan barnako indusketaz gain –eta haren ondorioz– sortzen dira EAEn Euskal Literatur Tradizio Krisitiko bi joera nagusi: Europara begira ziren idazleena eta Espainiara hurbiltzeko joera izan zutenena. Hain zuzen, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristi bi joera horien adibide dira. 7.2. atalean ikusiko dugunez, hirurek Europari behatu arren, Juaristik nabarmenago egin zuen Espainiatik hurbileko erreferente eta tradizioaren alde; Atxaga eta Sarrionandia, berriz, erreferentzien zabalean Espainiara hain nabarmen jo gabe, ez ziren Espainiako tradizioan oinarritu.

b.2. Literatur Tradizio Krisiaren eta Krisi Orokor Ñabartuaren arteko harremana

Jon Juaristik *Aitor* liburuan euskal identitate modernoaren krisia azaltzen du, “identitate moderno”aren⁷⁴¹ literatur genealogia bat eginaz eta literaturak euskal

⁷⁴⁰ “Dekonstrukzio” hitza zentzu etimologikoan darabilgu, lan honetan, ez zentzu derridiarrean.

⁷⁴¹ *Aitor* liburuaren bigarren argitalpeneko aitzinsolasean zioen: “Lo que me propuse en *El linaje de Aitor* fue describir el proceso de invención de una entre las múltiples identidades vascas que se habían sucedido a lo largo del tiempo, la que comenzó a tener vigencia desde mediados del siglo XIX [...]. Como

identitate moderno horren sorkuntzan izaniko paper eraikitzailea argudiatuz; hau da, identitate euskaldun nahiz espainolaren baieztapen enfatikoak egitetik, euskaldunen eta espainolen arteko desberdintasunetan oinarritua omen zen identitaterako jauziari behatzen dio. Zehazki, jauziaren eragina zuten agerpen literarioen barna abiatzen da⁷⁴². Hala, literatura oinarri harturik, euskal identitate modernoaren isla aztertu zuela baieztatu zuen.

Hemen, ordea, ez dugu fokua identitatean jarriko; aitzitik, alderantzizko norabidea proposatzen dugu: literaturak identitatean izaniko eragina aztertu beharrean, Krisi Orokor Ñabartuak literaturan izaniko eragina begiratuko dugu. Hizpide den urte tartean identitate krisi berri baten aitzinean garen edo ez adituagoek aztertu beharreko kontua iritzirik, hemen, Krisi Orokor Ñabartuak literaturan izan zuen islan edota eraginean dugu fokua: Tradizio Tradizionalaren⁷⁴³ –Frankismo Aitzineko zein Aro Iluneko Literatur Tradizioaren⁷⁴⁴ krisitiko sorkuntzan, hain zuzen. Krisi Orokor Ñabartuak eraginiko alderdi zehatz bati erreparatuko diogu: literaturari eta, zehazkiago, Pott taldeko Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik Krisi Orokor Ñabartu horretatik abiarazirik bide komunari –Lehen Aldia– eta ondotiko bide paraleloei –Bigarren Aldia–.

Sarri erreferente eske iraganera jo oi bada ere, 1975etik aitzina zabalduriko leihoak gaurgero arkaikoa zen tradizioaren zantzuak erakutsi zituen, gizarte harendako: erreferenteak antzuak ziren Trantsizioko mugimendu, kaos eta nahasmen aldian bilatzen zen helduleku sendo eta indartsuak parekatzeko; muga nagusietarik bat iraganarekiko talka zatekeen. Iragana berreskuratzea Aro Ilunaren etenaren ondotik jarraitu behar zen, baina Frankismo Aitzineko Tradizioa premia eta izan hagitz desberdinei egokitua zen; 1936ko Gerra Zibil eta 1975a bitarteko jauzia handia zen hagitz. Hori dela eta, Frankismo Aitzineko Tradizioarekiko identifikazioa aski ahula izateak deserrotze sentimen nabariak sortzeko aukera areagotu zuen. Literaturaren arloan, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik iraganari behatuz aurkituriko tradizio kultural kolektibo nahiz literatur tradizio erreferenteak beren helburuekin bat heldu ez, eta sorkuntza bidea hasi

observaba Aranzadi, siguiendo a Barth, esta identidad moderna sustituyó a una anterior” (1998⁽²⁾: 5-6). Espresuki arituko gara horretaz, Juaristiren proposamenaren lehen fasea aztertzen dugunean (7.2.2.c.).

⁷⁴² Jada Aranzadik sumatu zuen euskal identitate modernotik gibela ez zela euskal eta espainol artean halako kontraposiziorik aldarrikatzen; Juaristik berak “ni”aren balio kolektiboa “bertze” kolektiboaren nabarmentzean oinarritua zatekeen “españoles quintaesenciados” gisa azaltzen du (*ibid.*: 6); identitate modernoaren aldian, ordea, “bertze” kolektibo horren kontrajarpenean oinarritua izanen zen.

⁷⁴³ Ikus A eranskinetako “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera.

⁷⁴⁴ Ikus A eranskinetako “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera.

zuten –Pott–; horretarako, abian jarri zituzten Tradizio Tradizionalarenganako baieztatze edo ezeztatzeak eta sorkuntza prozesuak.

b.3. Literatur Tradizio Krisiaren eta lekuz kanpokotasunaren arteko harremana

Literaturan izaniko aldaketa aunitzen eragile nagusietarikoak izan ziren Krisi Orokor Ñabartutiko bilaketaren ondorioak. Trantsizioarekin batera agerian jarriko Literatur Tradizio Krisia, adibidez, subjektuaren eta tradizio horren arteko aldentze efektuak ezaugarrituko luke. Krisi Orokor Ñabartuaren testuinguruan, literatur tradizioaren eta deserrotze sentimenaren arteko harremana ulertzeko, identitate eta –berau gauzatzen duten– erreferenteek osatzen duten katebegien segida izanen da lagungarri; beraz, erreferente beharrak sorturiko prozesuaren ondorio unibertsal eta naturala azalduko dugu, Literatur Tradizio Krisiaren eta lekuz kanpokotasunaren arteko erlazioaren erakusgarri.

Gerra Zibilean hasi eta diktadura akiera arte iraun zuen Aro Iluna gibelean utzirik, aro berri baten hasiera heldu zen; nahi eta amestuak gauzatzeko ahalbide potentzialarekin batera, ordea, haiekin talka egingen zuten nahigabe sentimen eta ahalmen behartuak agertu ziren. Tradizioari buruzko eztabaidak, bertzeak bertze, gibeletik luzaroan ekontuak izan ziren behar indibidualen, kolektiboen nahiz pentsamendu desberdinen sinkretismoa azalderatu zuen: arlo pertsonalaren nahiz profesionaltasunaren ingurukoak, identitate zabalagoko partaideen ahotsetik helduak eta hartu beharreko konpromisoarekin loturikoak. Gauzak hala, 1976tik 1990era bitarteko Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren lan eta garapen desberdinak garaiaren ondorio direla ikusi ahal izanen dugu; hasiera bidaia partekatzen zuen hirukoteak, 1980tik aitzina, jorraturiko bide paraleloak ulertzen lagunduko duen kartografia marrazten saiatuko gara. Deskribapen kartografiko horretako idazleen lanek erdigune bera dute, maiz xamar bertzelako gaien gibelean ezkututzen den ardatz tematiko partekatua: literatur tradizioa. Literaturaren esparruan kulturaren zutarriz izan ohi den tradizioaren berrikuspenaz haratago, fokua bi gune nagusitan jarria zuen Literatur Tradizio Krisia garatu zen: Frankismo Aitzineko eta Aro Iluneko Tradizio Tradizionalarekikoa.

Diktaduraren murreren eraistek euskal gizarteari aspaldian gibelaturik zituen bizipen eta ekintza kulturalak berreskuratu eta zegokien garaiari egokitzeko atak zabaldu zizkion –literaturaren autonomiaren aldarrikapenak ELSren izana arrunt markatu zuen, gainerako nazio-komunitateekiko eguneratzea ekarri, eta bertze hainbat

literatura gutituen pareko egoerara hurbilduz-. Aro Ilunak espainiar estatuan gibelatu zituen gaiak⁷⁴⁵ Trantsizioan azalerazi, eta herri mailan nahiz instituzionalki landu behar izan ziren. Horren berri ematen dute, hain zuzen, frankismoaren ondotiko lehen hauteskunde demokratikoetan, 1977ko ekainaren 15eko hauteskundeetan, lorturiko emaitzek:

Allí salieron a relucir todas las cuestiones pendientes, tanto las relativas al pasado como las planteadas para el futuro. Ampliar la amnistía, superar los residuos de la guerra civil, hacer frente a la crisis económica, elaborar una Constitución con la participación de todos los grupos de la Cámara, reconocer la personalidad de las regiones y nacionalidades, restablecer los derechos históricos de Euskadi, fueron algunos de los propósitos enunciados por los líderes de los partidos en nombre de sus respectivos grupos. De todo ello, lo primero que se debatió fue un proyecto de Ley de Amnistía presentado conjuntamente por los grupos centrista, socialista, comunista, minorías vasca y catalana, mixto y socialistas de Cataluña. (Juliá, *in* Mainer eta Juliá 2000: 47)

Gerra Zibilarekin eteniko garapen kultural “normalaren” berreskuratzea, haatik, ez zen onarpen prozesu lasaia izan euskal gizartean, ezta gutiagorik ere; etena zen bertzelako bizipen eta egoera historiko-politikoetan euskal kulturak diktaduraren mugetatik at izanen zukeen garapena. Traumatikoa izan zen XX. mendearen hastapenetan bazterturik utziriko euskal kultur garapenaren alderdi aunitz berreskuratzea. Zera zioen Sarrionandiak: “Euskaraz alfabetatzea, umetako hizkera errekuiperatzeaz gainera, hiru edo lau hizkuntza arrotz ikastea zen: batua, lapurtera, gipuzkera eta abar” (*in* Etxeberria 2002: 281), “Ikasketak erdaraz egin nituen eta, alfabetatzen hasi nintzenean, euskaraz gutxi egiten nuen. Erdaraz errazago idatziko nuen seguru asko” (*ibid.*: 283).

Krisi Orokor Ñabartua Aro Iluneko isolamenduaren oinordeko zen; gune sendo eta erreferentziatzkoa behar zuen euskal gizarteak kaosa, zalantza eta hartu beharreko erabaki andana aurkitu zituen. Horrexegatik, mundutik isolatua izana zen gizarte euskaldunean noraeza nahiz deserrotze sentimenak azaleratu zirela diogu, urruntze edo identifikatze eza islatzen zuten sentimenak:

Valverdek ez dio gauza berririk esanen Eliot-en irakurle hamorratuari, baina Eliot-en poesiarako oso sarrera egoki bat izanen da poeta honetaz mintzatzen entzun ez dutenentzat (eta susmatzen dugunez, hemengo parteko ziudadano gehienak sartuko lirake azken talde honetan) (“T.S. Eliot-en gaurkotasunaz”, *Pott* 4)

⁷⁴⁵ “Ni tan siquiera momentos cruciales en la España del siglo XX como la crisis que provocan los acontecimientos de 1917, ni la dictadura de Primo de Rivera, ni la inestabilidad de la República pudieron quebrar el desarrollo de un movimiento intelectual multiforme; desde las ciencias a las artes y no digamos a la literatura y el pensamiento. La guerra civil provocó su colapso, la dictadura que la siguió significó la ruptura del proceso.” (Morán 1992⁽²⁾ [1991]: 211-212)

Erreferentzien malguak gizartean bilaketa abiarazi zuen, eta deserrotze sentimena bi fokutan jarri zuen: Aro Iluneko Euskal Literatur Tradizio Tradizionalean eta Frankismo Aitzinekoan. Alde batetik, garaikide zirauen Aro Iluneko tradizioak islatzen zuen pentsamendu eta identitate multzoa, berriki, sortzen ari ziren literatur esperientziei egokiturik ez egoteak deserrotzea sortu zuen –70etako abangoardiek erakusten dituzte behar horiek–.

7.2. atalean azalduko dugu Arestik eta Mirandek zubi lana egin, eta beraiei eskerrak zutela Potteko kideak fokua edukira eta formara hain bideratua. Aro Iluneko bi idazle nagusietariko horien lana, ordea, ez zitzaion arrunt egokitzen garai hartako gizarteari, eta hain zuzen horrexegatik izan zen berena zubi lana:

Etxe bat utzi zigutela esan zuen Gabriel Arestik, eta hura defenditu beharra zegoela. Baina sinbolikoki esango zuen, zeren nor joango zen gero bizitzera aittitteren baserri zaharrera.

Beste bat eraiki beharko zen. Edo alokatzekoren bat bilatu beharko zen. Eta gainerakoarekin, jaso genituen traste eta buruera guziokin, ez genekien ondo ez zer ez zertarako zen gehiena. (Sarrionandia 2010: 525)

Gaurgero urrutikoa zen mundu hura. Bertzetik, Frankismo Aitzineko Literatur Tradizioaren anakroniatik sorraraziriko deserrotzea zen, ez baitzen mundu berriko idazleen behar eta helburuetara egokitzen. Hau da, kronologikoki Frankismo Aitzineko eta Aro Iluneko gisa banaturiko Tradizio Tradizionalarekiko deserrotzea sumatzen zen.

Deserrotze bikoitz horrek, ordea, Krisi Orokor Ñabartuak literaturan pentsarazten duen alienazio bikoitzaren alderdietarik bakarra azaltzen du: literatur tradizioarekikoa –Frankismo Aitzin nahiz Aro Ilunekoarekikoa, erran gisa–. Trantsizioko alienazioaren bigarren aldea testuinguru soziopolitiko nahasiak biltzen du. Francoren urteetan jasaniko errepresioak sorraraziriko esperantzaren ondotiko frustrazioa (Luengo 2004: 94-95), orainarekiko bat etortze eza: Trantsizioko kulturarekiko nahiz gizartearekiko deserrotzea eta identifikazio eza literatura burujabearekiko kinkan bizi izan ziren.

Bigarren alienazio hori literaturaz gaindi den errealitate baten isla zen, gizarte sektore zabal anitzen sentimena. Claudio Magris-ek erreferentzia egiten dio, preseski, deserrotze bikoitzaren ondorioz sumatzen den norabide biko prozesu antzeko bati: Joseph Roth-i desiraturiko Inperioaren galerak⁷⁴⁶ sorrarazten dion bide bikoitza aipatzen du, iragan galdu horren bilaketa eta ukatzen den orainarekiko kinka: “[el] normal trauma por el final de un mundo, que obviamente implica la legítima búsqueda de un tiempo perdido y la agresiva confrontación con el tiempo presente” (2004 [1971]: 39).

⁷⁴⁶ Habsburgoko Inperioaren erorketa eta *shtetl* judu-kristauaz islatutako sentipenez ari da.

Aldeak alde, euskal gizartean hiltzearen munduaren akiera desiratua zen arren, Magrisek hausnartzen zituen norabide berak errepikatu ziren: iraganeko tradizioarekiko eta orainarekiko borroka bateratua.

b.4. Literatur tradizioa lantzeko ikuspegi teorikoak

Azpiatal honetan, 7.2. ataletarako behar diren ikuspegi teorikoak aurkeztuko ditugu: hirugarren kapituluaren aztergai dugun baliabide sinbolikoaren –tradizioaren– azterketarako hautatu dugun agergunean –literatur tradizioan– sakontzeko behar direnak. Etno-sinbolismoa eta teoria modernista oinarritzko laguntza izanen dira hautatu ditugun hiru idazleen literatur tradizio proposamenak ikertzeko.

Kapitulu honetan aztergai den hamabortzaldian, tradizioari buruz sorturiko eztabaidaren funtsa A.D. Smithek, bere lanetan, aipatzen duen helburuari egokitzen zaio:

El etno-simbolismo pretende descubrir el legado simbólico de las identidades étnicas de naciones concretas y mostrar, cómo las naciones modernas redescubren y reinterpretan los símbolos, mitos, recuerdos, valores y tradiciones de su etno-historia cuando se enfrentan al problema de la modernidad. (2000b [1998]: 389)

Helburu horri etno-sinbolismoaren ezaugarri orokorrak gaineratzen badizkiogu (1.3.1.), nabaria da 1975-1990 bitarteko Literatur Tradizio Krisiari behatzeko teoria honen egokitasuna, ikuspegi orokor egokia eskaintzen baitu orduko (literatur)tradizioan sakontzeko.

Etno-sinbolismoa, oinarri teorikoetan errana dugunez, teoria modernistaren kritiketarik bat da. Aldiz, teoria modernista edo konstruktibista, Paradigma Estrukturalistaren barrenean, historia sozial estrukturalistak nazionalismoaren ikerkuntzan izaniko gailentze epistemologikoaren korrelatua da. Paradigma Estrukturalista 1970ean finkatu zen, foku analitikoaren prozesu historikoetako alde materialenetara begira jartzearekin batera (Gerard Noiriel, *in* Nora 2008: 8; Casquete eta Mees, *in* de Pablo *et al.* kood. 2012: 23).

90eko hamarkadatik aitzina, aipaturiko paradigman, prisma aldaketak sortzen joan ziren, eta, hain zuzen, orduantxe hasi zen historia kulturalen oinarrituriko joera nabarmen agertzen.

Bide berri horrek egiturak kontingente eta malguak direla defendatzen du, eta ez giza ekintzetatik at erabakitzen diren kanpo-entitate objektiboak (*loc. cit.*). Korrante horren izana, ordea, ez da teoriko guziendako maila berean kokatzen. Batzuek

kanonikoki paradigma gisa ezagutzen den izaera egokitzen diote. Horien artean, Jesús Casquete-k eta Ludger Mees-ek, adibidez, paradigma aldaketa gisa identifikatzen dute 90ak arte gailenduriko paradigma nagusitik –historia sozial estrukturalistatik– historia kulturalerako bihurketa (*ibid.*: 23-24).

Ikuspegi hori izanen da, preseski, Krisi Orokor Ñabartuaren testuinguruan agerturiko (literatur)tradizioaren eztabaida ulertzeko erabiliko duguna. Batetik, aritu zehatz gisa ikertuko ditugun Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiaren proposamenak lantzeko; bertetik, testuinguru zabalean ulertu ahal izateko Jon Juaristiren lanetan sumatzen den ikuspegi modernista.

Sarrionandia eta, printzipalki, Juaristiren lanetan, teoria modernistarekiko aldentze edo hurbiltzeak ageri diren arren, etno-sinbolismoak ikuspegi argigarria eskainiko digu. Hiru idazleek erranikoei prisma desberdin bateratutik behatu, eta ulertze osotuagoa izanen dugu; zehazki, ekimen orokorrago baten testuinguruan kokatuz Krisi Orokor Ñabartuaren garaian azaleratu ziren (literatur)tradizio garapen anitzak eta eztabaidagaiaren jatorria hausnartzeko parada emanaz. Hau da, etno-sinbolismoa egokia da euskal literaturan militantzia kulturala proiektu nazional berriarekiko auzian jartzen den garaia ikertzeko.

Beraz, ikuspegi hori 1975etik aitzinako literatur krisia aztertze erabilgarria da, lan honetan: teoria modernistak Juaristiren lanak nola baldintzatu dituen perspektibaz ulertu ahal izateko eta tradizio eztabaidaren isla teorikoa, nahiz bertatik abiaturiko praktika estetikoak, frankismo ondotiko gizarte egoeran kokatzeko. Bidea irekitzen du hizpide diren idazleen aritua EAE proiektuarekiko erlazioan hausnartzeko eta autonomien sistemarekin batera erakundetuz joan zen ELS garaikidearen eraikuntzan erdiratzeko. Hala, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik jorraturiko literatur tradizio gatazka testuinguruarekiko elkar eraginean irudikatuz, gatazka hori frankismo ondotiko komunitatearen berrantolatze lanetako alderdietarik bat gisa ulertu ahal izan dugu; nazio proiektuarekiko harremanean zen lanetarik bat gisa.

Are gehiago, ikuspegi nagusiaz gain, badira etno-sinbolismoak jorratzen dituen gai nagusien artean hiru bat, bederen, espresuki baliagarri izanen direnak 7.2. ataleko fenomenoak ulertzeko.

Lehenik eta behin, ditugun helburuei egokitzen zaien ikuspuntu du teoria honek: etno-sinbolismoa, Paradigma Modernista, Perennialista eta Primordialista⁷⁴⁷ ez bezala, elementu subjektiboek etnien, nazioen eta nazionalismoen irauteekiko eta osatzeekiko duten eraginean ardatzen da. Halatan, hiru euskal idazleengan sumatzen diren bide paraleloen gibelean, ideia komun baten inguruko hausnarketa da: idazten diharduten garaiaz haratago, tradizioaren nahiz honek biltzen duenaren bizipen subjektiboa. Atxagak *Ob.*en eginiko tradizioaren berrinterpretazioak berezko elementuak planteatzen ditu; Sarrionandiak etorkizunean Euskal Herriarendako nahiko lituzkeen elementu kohesionatzaileak *NENHn* eta *Mn* diferenteki planteatzen ditu; eta Juaristik modernitateko elementuen subjektibotasuna azpimarratu, eta euskal nazionalismoarekiko harremanak hausnartuko ditu *Aitoren*, espresuki. Hau da, ikusiko dugunez, hirurek partekatzen dute komunitateak eraikitze bidean duen sistema politiko-ekonomiko-sozialaren inguruko gogoeta: zein elementu gorde nahi dira garai berrietarako? Noizkoak, noizdanikoak eta zertarako? Halabeharrez da tradizioaren gisako elementu subjektiboei eta sortzen ari zen forma berri nahiz edukiei buruzko gogoeta; eta, nola ez, literatur tradizioarena.

Bigarrenik, etno-sinbolismoa dela medio, elementu objektiboak aztertu arren, garrantzia gehiago eskaintzen zaie memoria, sentimendu, mito eta sinboloetako elementu subjektiboek nazio-komunitateen garapenean izaniko eraginari. Gisa horretan, aukera eskaintzen digu idazleen proposamenetan sumaturiko bide ez-arrazionalei ere behatzeko; eraldaketetarako beharrezko diren sentimendu eta atxikitze ez-arrazionalen presentzia onartzeko. Elementu horien balioespenaren neurri berria ezinbertzeko tresna izanen da, guretako, Sarrionandia eta Juaristik tradizioaren, iraganaren eta herriaren arteko erlazioa diferenteki sentitu zutela ikusteko. Hortaz, etno-sinbolismoak –nazionalismoaren eta etnizitatearen “barne-munduak” ulertu nahian– kontuan hartzen ditu solasgai diren hiru idazleen garapenak deskribatu ahal izateko ezinbertzeko diren faktoreak: garai berrietara moldatzea –hirurek modu bana proposatuko dute, gutienik–, jaioterriarekiko atxikitzea eta tradizioak literaturan izaniko isla, kasu.

Azkenik, etno-sinbolismoak identitate nazional eta etnikoetako dimentsio emozionala ulertzen lagun diezaguke, pluraltasuna ulertzen. Erran nahi baita, Krisi Orokor Ñabartuan azaleraturiko identitate euskaldunaren –eta euskalduna ez zenaren–

⁷⁴⁷ Paradigma Modernista eta Perennialismorako, “El surgimiento de la modernidad clásica” (Smith 2000b [1998]) eta “Primordialismo y perennialismo” (Smith 2009); Paradigma Primordialistari buruz, “Primordialismo y perennialismo” (Smith 2000b [1998]) eta Smith 2009: 8-9.

bertsioek ekarri zituzten sentitze eta ulertzeak onartzen; alegia, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik batera hasiriko bidea –Lehen Aldia– banandu izanak –Bigarren Aldia– islatzen duen aniztasuna konprenitzen.

7.1.3.b. azpiatalean ikusi dugu Literatur Tradizio Krisiaren eta lekuz kanpokotasunaren ondorioz lan bikoitza sortu zela: behatu beharreko iragan urrun nahiz hurbilarekiko kinka eta uste zena baino gordinagoa agertu zen errealitate presentearrekiko talka. Hala, Aro Ilunak hedaturiko egonkortasun eta ziurtasun gabeziari aitzina egin, eta, hori lortzearen, iraganeko tradiziora eske joan beharrak dakarren lan sinkronikoa gertatu zen; era berean, orainarekin zen norgehiagoka bizituz. Pottekoek erran gisa “Kalea ia ezin dugu buruta, soportatu” (“Kazetatxoak”, *Pott* 5).

Gainera, etno-sinbolismoa hautatu dugu 1975-1990 bitarteko literatur tradizioa lantzeko oinarritzko ikuspegi gisa. Etno-sinbolismoarekin, berezko garrantzia ematen diogu tradizio eztabaidak ELS garaikidearen eraikuntzan izaniko zamari, baita hartan eragiten duten faktore ez-objektiboek ere –Juaristiren *Diario*, *Suma de varia intención* (*Suma*) eta *Arteko* iraganeko loturak ulertzeko baliagarriak–. Areago, helburu zabalagoen mesedetan ere erabilgarria deritzogu, historia kulturalaren hariari jarraitzeko beharrezko diren –eta teoria modernoak asebetetzen ez dituen– kontzeptuak hausnartzeko testuinguru argudiatua eskaintzen baitu.

7.1.3.c. Literatur eremuaren oinarriak, nazio garapenari lotuak: helburuak, elkarreragin eremuetako kokapena eta erakundeak

Azpiatal honetan, 4.1.3.c. azpiatalean egin gisa, komunitate garapenaren eta ELEren arteko eragin osoaz ohartzeko, hondarreko zehazteak eskainiko ditugu; izan ere, 7.1. atalean barna, orain arte, ELEren garapena agertzen duten aldeak bildu ditugun arren –euskal ondare kulturalaren erakundetze prozesu nagusiarekiko harremana (7.1.1.) eta, espresuki, ELEk prozesu horretan izaniko presentzia (7.1.2.)–, ELEren finkatzea islatzen duen hondarreko ideia gehitzea falta da: komunitate garapenaren eta ELEren arteko eragin osoaz kontziente izateko, hausnartu egin behar da komunitatearen bigarren faseak ELSren garapen berezitan izan zuen eragina.

Baldintzatze zehatz horretaz ohartzeko, ELEren garapenak komunitate garapenarekiko, 1975-1990 bitartean, izan zuen loturaren bi erakusgarriri behatuko diegu: (2) merkatu berezituaren sorkuntza eta (3) literatur tradizioaren hautaketa.

Adibide horiek bi modutara agerrarazten dute aipatu harremana: merkatu berezituak eta literatur tradizioak, batetik, bigarren faseak eskatzen zuen eremu espezializatzea osatzen zuten, eta, bertzetik, gune izan ziren, fase horri berari loturiko balioztatze prozesu berrietan.

Hala, bada, lehenik, (1) balioztatze ekonomiko hasiberria eta balioztatze sinboliko berriztatua baldintzatu zituzten eragileez arituko gara, laburki; ikusiko denez, 7.1.2.b.n identifikatu ditugun balioztatze eragileekiko korrespondetzia nabaria izanen da.

(1) Balioztatzeen eragileak

Hortaz, 7.1.2.b. azpiatalean ikusiak Thompsonen erranekin duen lotura azpimarratuz hasi nahiko genuke atal hau; azpiatal horretan erranek lagundu egiten dute ELSren aitzinatzea nazio garapenari lotua izan zela agertzen, bigarren fasearen eskutik heldu ziren erakundeek, helburu kolektiboek eta elkarreragin eremuko kokapenek baldintzatu egin baitzituzten literatur eremuko balioztatze prozesuak. Balioztatze prozesuen egokitze teorikoa osatu ondotik, balioztatze prozesuen, nahiz horien eragileen, azterketa zehatza aurkeztu dugu (7.1.2., b.2.). Azken horiek Thompsonen proposamenarekin duten lotura bikoitza dela ohartu gara. Hau da, balioztatze prozesuak ikertuz, Thompsonetik ezarri dugun lotura agerikoaz gain, sumatu egin dugu bazela adituaren erranetik bertze bat egite bat: ikerlariak balioztatze horien bulkatzaile gisa identifikatzen zituen eragileen islak dira.

7.1.2.ko b.2. azpiatalean, lehenik, euskal komunitateak estatuarekin partekatzen zuen elkarreragin eremuan kokapena aldatu zuela genioen; ideia horrek, garbi, egiten die erreferentzia adituak balioztatzeen eragile gisa identifikatzen dituen elkarreragin eremuei. Kokapen aldaketa horrek ahalbidetu zituen, 1975etik aitzina, euskal komunitatearen bigarren behar maila asebetetzeko prozesuak: estatuarekin partekaturiko elkarreragin eremu horretan mendeko kokapenetik aldendu izanak lagundu egin zuen, bertzeak bertze, ELEren balioztatze ekonomikoa; hots, garapen bereziturako beharrezkoak ziren merkatu propioaren antolatze nahiz finkatzea. Bigarrenik, ELEn izan ziren babes zuzeneko eta zeharkakoak aipatzen genituen. Babes horiek aitzina eramaten zituzten iturriak, hein batean, erakundeak zirela genioen; beraz, Thompsonen aipatzen zuen bertze balioztatze eragileetariko bati lotuak ziren: erakundeei. Azkenik, azpiatal berean, ELEk elkarreragin eremu berri batean –EAErekiko harremanean– parte hartzeak lotura handia du Thompsonen hizpide zituen helburu baldintzatzaileekin. Eginiko egokitze teorikoa aplikatuz (1.4.2., laugarren egokitzea), komunitateko gune

mugatuaren asmoek –*Obabakoak* liburuaren adibidea dela eta ikusiko dugunez– helburu zuten euskal kulturaren funtzionalitate garaikidea lortzea. Erran nahi baita, munduan funtzionala izanen zen euskal kultura egituratua –eta, beraz, literatura– lortu nahi zen; proiektiodun kultur sistema⁷⁴⁸, alegia.

(2) Merkatu berezitua

Aipatu hiru eragileek, ELEN, izan zuten ondorio nagusietariko bat merkatu propioaren sorkuntza izan zen; erran nahi baita garaturikoa ELEren lege antolaketari egokituriko merkatua izan zela. Garatze horrek hiru koska kontuan izan beharra zekarren. Batetik, espresuki “euskal” izateak zekarren egoerari egokitua izatea. Horrekin heldu zen, bertzeak bertze, estaturik gabeko komunitatea erreferentzia izatea, hizkuntza berreskuratze bideetan zuen corpusarekin lan egitea, sistema integratu izaerarik gabeko eremua izatea eta abar⁷⁴⁹ barneratzen zituen literatur sistema baten sortzea; beraz, eremuak, ezinbertzean, izanen zuen ezaugarri horietan bilduriko merkatua. Bertzetik, ELSren izaera sistemikoa ezaugarritzen zuten lege propioak –antolatzaile eta egituratzaileak– izanen zituela merkatu propio horrek. Azkenik, bi alde horiek barne hartzeaz gain, horien bateragarritasuna funtzional eginen zuen merkatu propioa izanen zen hura⁷⁵⁰.

Bateragarritasun funtzional horren oinarriak izan ziren, preseski, komunitatearen beharren bigarren maila asebetetzearen eskutik heldu ziren berrikuntzak. Aitzinez (2.2.1.a.; 6.1.3., a.1.), estaturik gabeko komunitateen garapenean sortu ohi diren behar mailak direla eta erranak ongi egokitzen zaizkie orain solasgai ditugun ideiei; izan ere, ELEk garatu zuen merkatu berezituak eta abiatutako balioztatze exozentrikoak lotuak ziren beharren bigarren mailak eskatzen zuen alderdi nagusi bati: komunitatearen

⁷⁴⁸ Gaugero 60etan aldarrikatu gisa: “Mundura proiektatu ditekeala [ikusit] bere bizitza ez dagoela mugatua seme batzuek egiten dituzten talde itxietan. Hori baino gehiago: Europaren zati bat izatearen erresponsabilidatea duela, eta baita... // bere literatura... // bere artea... // bere... // eta...” (Maria Luisa Olaziregi, “Esnatu”, “Gazte naiz” atala, 1967, 238: 7).

⁷⁴⁹ “Literatura, herri baten izpirituaren adierazgarri irmoenetakoa da. Beraz, herri bakoitzak bere literatura propioa izanen du, bere izpirituaren (bere inguru kultur-historikoaren) arauz egina, sortua”; “*B hizkuntzaren literaturak ezin du inolaz ere A hizkuntzaren literaturaren harmez baliatu. Borroka horretan beti menpeko geratuko litzateke. A hizkuntzaren literaturak ezin eman diezaiokkeen ‘hori’ bilatu behar du irakurleak B hizkuntzarenean*” (“Herria euskara literatura eta horrelako batzuk”, *Zorion Ustela*) (azpimarra ez da gurea). B hizkuntzaren, euskararen, tresna propio gisa proposatzen ziren, idatzi berean: “1. Herriaren genero tradizionalak landu”, “2. Bertako egoeraren azterketa” eta, azkenik, “3. Hirugarren bidea, oraindik urratzeko ikusten duguna, estilo eta idaztanka propioa eta berezi baten bila abiatzea”.

⁷⁵⁰ Egia da aipaturiko hiru puntu horiek biltzen dutela ELSk, hizpide den garaian, izan zuen garapen berezituaren aldeetarik bat: merkatuari zegokiona. Alabaina, merkatuaren sorrera bera baino gehiago, haren eskutik heldu diren bi ideien garrantzia azpimarratuko dugu, bereziki: eremuaren balioztatze ekonomiko berria eta merkatu berezitu horren sorrerak komunitatearen bigarren fasearekiko zuen harremana.

errealitate hertsian funtzionala izateaz gain, munduaren zabaltasunean ere funtzionala izanen zen eremua behar zen garatu. Hau da, literatur sistema garaikidea eraiki eta antolatu behar zen.

Orokorrean, literatur sistema garaikide –eta funtzional– batek behar lituzkeen alderdi nagusiak hiru lirateke. Batetik, eremuaren izaerari berari dagokion aldea; hau da, eremuaren mugak eta aukerak baldintzatzen dituen izaera: sistema integratu-integratzaile izatea. Bertzetik, espresuki literatur sistema garaikideek –egungo errealitate zabalean– funtzionalki aritzeko behar lituzketen bi alderdiak: merkatu zabalean –izaera bereizia sobera akitu, lausotu, gabe– bizirauteko beharrezkoa den iraganaren babes eguneratua eta merkatu zabal horren beraren eskaerei egoki dakizkiokeen produkzio nahiz ordezkariak. Hortaz, ELEk eskuratu egin behar zuen izaera sistemikoa alderdi horiei lotua zen; literatur sistemek, egungo munduan, parekidetasunez, parte-hartze funtzionala izateko behar dituzten ezaugarriei moldatua.

Ezaugarri horietarik zenbat eta gehiago bildu, orduan eta aukera gehiago izanen zituen ELSk, erreferentziatzko komunitatetik at, funtzionalki eta arrakastaz, zabaltzeko. Are gehiago, hiru puntu horien eskuratze konpentsatua ezinbertzekoa zen, eskuratu berria zen komunitate duintasun oinarritzkoaren ondoko fasea lehena akitu gabe aitzinatu nahi bazen; izan ere, eremuaren izaera berezitua duintasunaren lehen mailarekin bat heldu izaki, komunitateaz haraindiko errealitatean soilik funtzional izatea lortuko balu, izaera bereizi horren izana sobera lausotuko litzateke, ziur aski.

Merkatu berezituaren osatzeak aunitz lagundu zuen, gainera, ELEren balioztatze exozentrikoen garapena. Ordura arteko helburu kolektiboek, erakunde propio gabeziak eta, bereziki, estatuarekiko elkarreragin eremuko kokapenak ekarri zuten balioztatze posible bakarra barnetik heltzea –hori dela eta, lehen faseaz aritu garenean, bide paraleloan garaturiko Balioztatze Prozesu Nagusiaz aritu gara, soilik–. 1975etik aitzina, balioztatze prozesuen eragileetan jasaniko aldaketek komunitateaz kanpoko balioztatzeen garapena –balioztatze exozentrikoena– gertatzea ahalbidetu zuten; horiek ziren, zehazki, komunitatearen bigarren beharrak asebetetzeari lotuak.

Obabakoak liburua aitzakia gisa harturik, adibidez, balioztatze ekonomiko estreinatu berriari errepara diezaiokegu. 80ko hamarkadara arte kasik ez zegoen merkatua finkatzen hasia zela erakustez gain, hagitx ongi islatzen baitu balioztatze horrek komunitatearen bigarren behar mailarekiko zuen lotura. Biak, beharrak eta balioztatze exozentrikoa, eskutik joan izana agerian uzten duen ideia nagusia –zeinahi

komunitateren garapenari aplikatu dakiokeena— ondoko da: nazioen bigarren behar maila asebetetzeak balioztatze exozentrikoak gertatzea eskatzen du, literatur sistema garaikidean partehartze funtzionala nahi duen literaturen kasuan, bederen. *Obabakoak* liburuak lorturiko Espainiako Narratiba Sari Nazionalak (1989) balioztatze exozentrikoaren alderdi garrantzitsua agerrarazten du: orduan ofizialdu ziren euskal literaturarekiko harremana elkarreragin eremuko kokapen menderatzaitetik izana zuen estatutiko balioztatze sinbolikoa eta ekonomikoa. Pauso horrek eremuaren proiektzio bideak funtzionalak zirela erakusten zuen, eta, gainera, finkatze bidean zirela.

Beraz, literatur eremuaren izaera berezituari egokituriko merkatua sortzea komunitatearen bigarren mailako beharrak asebetetzeari lotua zen. Batetik, errealitate garaikidean funtzionala izateko baldintzetarik bat baitzen hura; bertzetik, bulkatu egin baitzuen, ideia horrek berak lagunduta, komunitateaz kanpoko balioztatzeen garapena.

(3) Literatur tradizioaren hautaketa

Literatur eremuaren bigarren mailako beharren artean, erakundetze prozesurako ezinbertzeko baldintza zen nazioaren helburu berri eta eguneratuei egokitzen zitzaizen tradizio baliagarri eta funtzional bat hautatzea. Honen ezagutzak komunitatearen barne-osaeran izanen zuen eragin zuzenaz haratago, etorkizuneko bidea garatu ahal izateko baliabideak eskainiko zituen; sistema garaikideetan erreferentzia den —izaten jarraitzen duen— iragan komuna finkatuko baitzuen, eta, gainera, komunitateaz haratagoko sistemek euskal literaturaz zuten pertzepzioa sendotzeko balioko zuen.

Horretarako, euskal literaturaren erreferentziazko komunitatea, hiztun komunitatea, bere osotasunean barneratzen zuen iragan komuna hautatu zen; arestian erran gisa, 70-80etako idazleek bideratu zuten literatur tradizioa —Literatur Tradizio Krisia dela medio hautatua, ikusiko dugunez (7.2.)— EAE guneaz haratagoko euskal errealitateari egokitzen zitzaion: gune sinbolikoari. Gisa horretan, literatur eremuaren garapen berezituak eskatzen zuen literatur tradizioa —errealitate garaikidean funtzionalitatez aritzea ahalbidetuko zuena— komunitatearen gune sinbolikoarendako, baina gune mugatu zentraletik, egokitu zen.

Alabaina, hori gertatu ahal izateko, hain zuzen ere, balioztatzeen eragileetan aldaketa sakonak gertatu behar izan ziren. Fase batetik bertzera, helburuek, elkarreragin eremuko kokapenak eta erakundeek jasaniko bihurketak izan ziren, preseski, komunitatearen bigarren behar maila asebetetzea ahalbidetu zutenak.

Helburu kolektiboak, 1960-1975 bitartean, euskal ondarearen eta duintasunaren berreskuratzean –edo eraikitzean– ziren ardaztuak; hori dela eta, espresuki aipatzen genuen (4.1.3., b.2.), lehen behar maila hori asebate beharrak bulkatzen zuen presioaren erakusgarri gisa, kultur eremuen garapena sakrifikatzea –ustez, komunitatearen “alde” egiteagatik–; idazle edo musikarien profesionalizazioa sakrifikatuz, kasu. 1975etik aitzinako bidean, ordea, euskal kultura –eta, horren barrenean, euskal literatura– arestian aipaturiko funtzionalitate garaikidera moldatzea zen helburu kolektibo nagusia.

Elkarreragin eremuko kokapena dela eta, lehen fasean, Balioztatze Prozesu Nagusiaren –eta honen eraginpeko azpieremuen– balioztatzea baldintzatu zuen kokapenez aritu gara (4.1.3.c.). Bigarren fasean, aldiz, euskal komunitateak, estatuarekin partekatzen zuen elkarreragin eremuan, mendeko kokapena utzi zuen; gainera, euskal kultura instituzionalaren gidaritza hartzekotan zen EAErekiko elkarreragin eremu berrian parte hartzen hasi zen ELE.

Azkenik, 1960-1975 bitartean erakunde propio egituratzaile eta antolatzaile ez zen (4.1.3., a.1.); segidako hamabortzaldian, kontrara, euskal komunitatearen gune mugatuari atxikiak ziren erakundeak gehiagotu egin ziren, eta, horien artean, baita ELEren izaera berezitua –gune sinbolikoa erreferente zuena– garatzen lagundu zuten erakundeak ere⁷⁵¹.

Beraz, literatur eremuaren balioztatze ekonomikoak eta balioztatze sinboliko exozentrikoak literatur eremuari egokituriko merkatua sortu eta indartu zuten –obra zehatzen bidez, edo garaiko idazleek bideraturiko literatur tradizio hautaketa dela medio, bertzeak bertze–. Horiek komunitatearen bigarren faseak eskatzen zuen literatur eremuaren garapen berezitua islatzen dute: komunitatearendako erreferentzia izateaz gain, mundu garaikiderako funtzionala zen literatur sistema garatzen ari zen.

7.1. atalean⁷⁵², 1975-1990 bitarteko moldaketa fasearen eta ELEren arteko harremanari erreparatu diogu. Trantsizioarekin abian jarritako autonomien sistemak euskal kulturaren garapenean berebiziko garrantzia izan zuela ohartu gara, eta ELEren kasuan ere eragina handia izan zen. 1975etik 1990era bitartean, literatur sistemaren gauzapen formala, instituzionala, eraiki izana da azpimarragarrien; gibeletiko literatur

⁷⁵¹ Honek, ondorio nagusietan azalduko dugunez (laugarren kapitulua), egoera kontrajarria sorrarazi zuen.

⁷⁵² 7.1.3. ataleko ondorioak 7.1.ekoekin bildu ditugu.

aldarrikapenak eta arituak oinarri harturik, autonomien sistemarekin loturiko eraikuntza izan zen ELS; hau da, sari, laguntza nahiz idazleen profesionalizatzeez bermatuko zituzten sistema jaio berriaren zutarriak.

Erkidego desberdinen antolaketarekin bat heldu ziren egitura horiek komunitatearen ordezkariak mugatu anitzak zituzten helmuga; aldiz, euskal literatura gune sinbolikotik abiatu, eta gune sinbolikoaren izanera egokitzen zen. Hala, ELSren eguneraketan giltzarri izaniko balioztatze ekonomiko eta sinbolikoetan bi guneen parte-hartzea izan zen beharrezko. Hori dela eta, egituraketa horrek komunitatearen bigarren behar mailari erantzuten bazion ere, langaturiko errealitatea finkatzen zuen, eta horrek Trantsizioak ekarriko zituen aldaketa eta esperantzak kamustu zituen, komunitatearen zati batendako.

Gainera, 1975etik aitzinako egoera berriak iraganarekiko harremana finkatzeko aukera eman zuen, baina horrek garai hurbil eta urrunen hausnarketa zekarren. Literatur Tradizio Krisiak, preseski, iraganaren eta orainaldiaren nahiz etorkizun irudikatuaren arteko harreman hori izan zuen gune. Hautatze eta eguneratze lanaz gain, eraikitzen hasiak ziren egituretarako –edo nahiko liritekeen horietarako– proposamen koherenteak eskaintzeko garaia zen. Horretan aritu ziren Atxaga, Sarrionandia eta Juaristi: ELSren garapena komunitate mugatuaren osatzearen eskutik zihoala iduri zuen, eta idazle bakoitzak nahiko zukeen komunitate irudiarekiko koherentea zen literatur tradizioaren proposamena islatu zuen bere idatzietan.

Horregatik, segidan heldu den atalean, arazo horri buruz arituko gara. Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik –Potteko bertze kideekin batera eta bakarka– ELS modernoaren garapenean izaniko zama aztertuko dugu, eta ikusiko dugu, bide horretan, mugarri nagusietarikoak garaiarekin bat heldu zen literatur tradizioaren auzia izan zela.

7.2. Kultur moldaketa, komunitate garapenaren eskutik: B. Atxaga, J. Sarrionandia eta J. Juaristiren literatur tradizio proposamenak

Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia nahiz Jon Juaristiren 1976tik 1990era bitarteko ibilbidean literatur tradizioari –beraz, 7.1.3.a. azpiatalean erranari jarraiki, baita tradizioari ere– dagozkion zantzuak eta garapenak ahalik eta hobekien aztertu ahal izateko, bi aldi nagusi banatu ditugu. Bereizte oinarria aldi bakoitzeko helburu eta garapenak izan dira. Hala, Lehen Aldian idazleak Pott proiektu komunaren inguruan

batzen zituen helburu literarioetatik, Bigarren Aldiko garapen paraleloetara eginen dugu jauzi.

Lehen Aldia

1977-1980 bitartekoa, Pott Bandaren garaia. Euskal literaturaren autonomia eta erreferentzia unibertsalak ekarriaz batu ziren, *Pott* aldizkariaren inguruan, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Jon Juaristi, Manu Ertzilla, Joxemari Iturralde eta Ruper Ordorikarekin batera.

Bigarren Aldia

1980-1990 bitartekoa. Garai horretan elkarrengandik arrunt urrunduko zituzten helburu indibidualagoetatik abiatutako lanak garatzeko jauzia eman zuten.

Bi aldiak idazleen euskal literaturarekiko harremanean eta ELSn mugarri izaki, Lehen Alditik Bigarrenerako bidea ulertu ahal izateko oinarriak eskainiko ditugu (7.2.1.). Horretarako, aldi bakoitzaren izana aurkezteaz gain, bi garaiek Literatur Tradizio Krisiarekiko izan zuten harremana hausnartuko dugu.

Irakurlea, leitu ahala, ohartuko denez, 7.2.1. atalean erranak 7.2.2. atalaren mesedetan idatzi ditugu: batetik, literatur tradizioaren garapen indibidualak nondik heldu diren azaltzeko, Potten izan bitartean partekatzen ziren ezaugarri nagusien berrikustea eginen baitugu; eta, bertzetik, Literatur Tradizio Krisiaren eta sorkuntzaren arteko harremanari begirada azkar bat eskainiaz, hiru idazleentzako bakoitzaren bakarkako ibilbidea arazoizko testuinguruari lotua dela ulertu ahal izanen baita.

Bide banakoak azaltzeko (7.2.2.), 7.1.3. ataleko b.3. azpiatalean aitzinatu gisa, etno-sinbolismoaren eta teoria modernistaren oinarriak hagitik baliagarriak izanen dira; Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik hautatu zituzten tradizioez haratago, horien irudikatzea garaiarekiko elkarreragin koherentean kokatzen lagunduko baitigute.

7.2.1. Literatur tradizio hautatuen ulermenerako arrastoak

Hirugarren kapituluaren zehar ikusi ditugunak idazleen aritu zehatzetan nola islatu ziren aztertuko dugu, segidan. Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren banako ekarrietan murgildu aitzin, ordea, elkarrekin partekatu zuten esperientziari eta esperientzia horren ondoko faserako jauziari behatuko diegu; lehenik (7.2.1.a.), Potteko garaiei buruz arituko gara, eta, ondotik (7.2.1.b.), Bigarren Aldiranzko bidez.

7.2.1.a. Batera hasiriko bidaia: Lehen Aldia

Lehen Aldian, Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik Pott Bandaren inguruko esperientzia partekatu zuten; hasiera komun horretan finkatu ziren 1980ko ekainetik aitzinako ibilbide indibidualetan garatuko ziren oinarriak. Atal nagusiko (zazpigarren atala) helburuari ahalik eta testuinguru osotuena eskaintzeko asmoz garatu dugu azpiatala; hau da, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren literatur tradizioaren garapen indibidualaren prozesua ahalik eta hobekien ulertzeko, hasieretako oinarri komun nagusiak bildu ditugu, ondoko paragrafoetan. Horretarako, sarri, bibliografia orokorrera jo dugu informazio eske, eta berau moldatuz osatu dugu hurbiltze nagusia.

a.1. Literatur tradizioaren hautatzea

Potteko kideen bozeramailtza zuen *Pott* aldizkarian ageri dira kideen literaturari buruzko usteak; bertzeak bertze, berek eginiko literatur tradizioaren ustiaketa. Aukeratzea, jakina denez, euskal literatur tradizioaren muga tradizionaletatik haratagokoa izan zen; alabaina, abiapuntu komun nagusietarikoa euskal poeta bat izan zuten: Gabriel Aresti bilbotarra.

Euskal kultura modernoak, Aro Ilunean, Gabriel Aresti bide jorratzaile izateaz gain, aro horren hondarreko urteetan, Pott Bandako ekimenen aitaponteko izan zen. Ez zen Aresti, ordea, Pottekoek Aro Ilunetik berreskuratu zuten euskal erreferentzia bakarra izan: Trantsiziotik gibleko euskal erreferenteetatik aukeratu zuten bertze idazle nagusietarikoa Jon Mirande izan zen.

Erromantiko bat izan zen beti; horixe izan zuen pasioa eta muga. Erromantikoa, baita erromantizismoaren iturria bere onenak emanda zegoenean ere, estetizismoa eta neurri gabekeria nagusitu zirela nabarmen ageri zen garaian. Europarra zen aldetik, erromantizismoak zabalduko tradiziotik zetorren Miranderen poesia; euskal esparruan aritzeko aukera egin zuenez, tradizio hori hasiera-hasieratik asmatu behar izan zuen berriro. (Aldekoa 1993: 42)

Sarrionandiak bi idazle horiek oharmen berritzailea ekarri zutela aitortzen zuen, haiekin batera, Saizarbitoria eta Atxaga izanen zirelarik Trantsiziotik aitzinako abangoardietatik oharmen berriari bulkada emanen zioten idazleetarik bi: “euskal literaturara oharmen berri bat ekarri dute, adibidez, obra batzuren izenak emateagatik, Harri eta Herri, Haur Besoetakoa, Ehun Metro, Etiopia obrek” (*M*: 112).

Arestik eta Mirandek *Literatur Tradizio Tradizional⁷⁵³ anakronikoaren molde, estetika eta munduarekin hautsi zuten gai, ideologia eta bizimoduak direla medio (Aulestia 1998) –Gerraurreko nahiz Gerraondoko lehen urteetan landuriko landa literatura, tradizional, erlijioso eta klerikaletik urrunduriko hirugarren idazle nagusia Txillardegia da (*ibid.*: 21)–. Hala, Bandako kideek bi euskal idazle horiengan aurkitu zituzten –maila desberdinetan– momentuko egoerari Frankismo Aitzineko Tradiziokoak eta Aro Iluneko gainerakoak baino hobeki egokitzen zitzaizkien literatur arituak; garai berrietarako bide abiatzea, aitzinekoekiko erdibidea. Jon Juaristik eta Iñaki Aldekoak, beranduago, bilduriko aipamenetan ere, Arestik berak Tradizio Tradizional horretan biltzen ziren ezaugarri nagusi biekiko –erlijio nahiz nazionalismo historikoarekiko– krisia jasan zuela aipatzen dute (*LV*: 122-123; Aldekoa 1993: 42).

Hiru idazleendako zubi izan ziren Aresti eta Mirande: lehena, Atxaga eta Juaristirenean⁷⁵⁴; bigarrena, Sarrionandiarenean, nabariago. Molde berriak, literatur munduaren zabala eta lengoaiaren estetika aniztasunera hurbiltzeko bidea prestatu zuten beteranoek, Pottekoek berek jarraitu behar izan zutelarik begirada moldatzen eta behar berrietara egokitzen; hizkuntza desberdinak erabili, eta poesia molde tradizionaletatik askatzearen alde egiten. Hau da, bi euskal erreferentzien zubi lanetik haratago, komunitatearen berrantolaketan egokituko ziren molde berrien lehen arrasto bideak ibili eta moldatzen aritu ziren Pottekoak; adibidez, Arestik herrigintzan garrantzizko izanak ziren Axular, Lizardi, Orixe eta Lauaxetaren aldarrikapena eginagatik (Aldekoa 1993: 80-81), Potteko kideek tradizio haren izana birmoldatu egin zuten. Hain zuzen, Arestiren lekukotza hartu, baina hark jasoriko tradizioa gainditu nahiz garai berriagoetara egokitu, eta euskal tradizioaren irakurtze nahiz hautatze propioa eginaz.

Aresti eta Mirande aski marjineko izan ziren beren garaian⁷⁵⁵; Trantsizio garaietatik aitzina osatu zen Euskal Literatur Tradizio Berria sendotuz joan zen arte ez ziren tradizioaren multzo ofizialean sartu, eta erreferente bihurtu⁷⁵⁶. Pott taldeak

⁷⁵³ Ikus A eranskinetako “Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak” sarrera.

⁷⁵⁴ “Gabriel Aresti zen, garai hartan, Jon Juaristiren idoloa eta bazirudien, gainera, bere herederoa zela eta beti izango zela” (Iturralde, *in* Kortazar 2003a: 116).

⁷⁵⁵ “Gabriel Aresti eta Jon Mirande, adibidez, egungo kultura ofizialeko oinarri bihurtu bide dira, bizi zireneko euskal kulturaren bazterturik egon ondoren” zioen Sarrionandiak (*NENH*: 195). Arestiren arrakasta molde herrikoietara hurbiltzearekin gertatu zela argudiatzen du Gabilondok (ikus 756. oinoharra).

⁷⁵⁶ “Atxagak beraz modernitatearen dinamika prometeiko eta jainkotiar hau beste ezein euskal poetak ez bezala ulertu eta burutu zuen. Aurrez, Lizardi, Lauaxeta, Miranda [*sic*] eta Aresti bezalako poetek ere modernitatearen mezua ekarri nahi izan zuten baina ez ziren arrakastatsuak izan gizadiaren –euskal klase ertainaren– enorantzia arrausten eta beraz marginal izaten segi zuten Lizardi, Lauaxeta, Mirande. Edota

Frankismo Aitzineko Euskal Tradizioaren hartze, moldatze eta onartzean lagundu egin zuten; hain zuzen, Mirandek eta Arestik goiti aipaturiko zubi lana egin zutelakotz, Potteko kideek –eta Trantsiziotik aitzinako euskal munduak, orokorrean– literatur tradizioeko partaide gisa onartu ahal izan zituzten, Lizardi eta Lauaxetaz gain, Mirande eta Aresti. Halaz, lehen biak on zein txar iritzi ahal dakioken estatus horretara Trantsiziotik gibela begiratzen zuten literaturzaleen so aldendupean, erreferentzia urrun gisa, ailegatu ziren.

Pottekoek praktikan jarri zuten Tradizio Berrian, ordea, bi joera banatzen zituen Jon Juaristik (*LV*: 133): alde batetik, Atxagak *Ustelatik* jasoriko lengoia patologiko, inkontziente eta irrazionaltasunarekiko ardura, gizarte, literatur eta hizkuntz arauak urratzeko beharra; bertzetik, taldeko bilbotarrek –Arestik hondarreko urteetan aukeraturiko bideari jarraiki– T.S. Elioten bidetiko tradizionalismorako joera erakutsiko zutenak. Tradizioaren atxikimendu bi horietatik aldarrikapen komuna biltzen zuen eraikuntza egin zuten, batzuen goraiapamen eta bertzeen baztertzearen bahetik igaro araziaz erreferentzia oro⁷⁵⁷.

a.2. Foku berari dagozkion helburu berdinak

Pott Bandaren sorrera “editoriale”⁷⁵⁸ bat sortzeko asmo nagusiarekin lotua da. Bertan, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik maila garrantzitsu bitan partekatu zituzten helburuak: literaturan ardaztua zen aritua aukeratu zuten⁷⁵⁹, baita literaturari buruzko helburu berdinak⁷⁶⁰ ere. Berendako, euskal literatura instituzional eta kanonikoak

arrakastatsu suertatu ziren –Aresti– baina herrikoi bihurtu zirelako eta beraz arte behean ‘erori zirelako’ arte ez-modernoak.” (Gabilondo 1993: 60)

⁷⁵⁷ “Talde militante honek [...] bere literatur doktrina eraiki zuen, zenbait literatur korrante eta autore (modernismo klasiko eta berantiarreko zenbait autore, hala nola T.S. Eliot, Borges, Kafka...) aldarrikatuz, beste batzu errefusatuz (errealismoa, literatura esistentziala eta *nouveau roman*aren antzerako literatura esperimentalak, hain zuzen, Ustela taldeak gogokoago zituen aukerak)” (*ibid.*: 43). Literatura unibertsaleko erreferentziei buruz ikus Kortazar 2003a: 60-61.

⁷⁵⁸ “Bi hitzetan adieraziko dizuegu zertan den geure konplotta. Editoriale bat egiteko bildu gara Bilbaon POTT bandakook. [...] Ukatu egin digute, oraingoz, derrigorrezko zenbaki editorialea; [...] Bihen bitartean, hau bezalako panfloen bitartez jakinen duzue gutaz.” (“Pott bandako lau eguzkitan”, *Pott* 1)

⁷⁵⁹ “Bilbaon hasi ginen biltzen 1977an euskal eta kanpoko literatura gustoko genuen lagun eta ezagun batzuk” (Iturralde, *in* Kortazar 2003a: 24). José-Carlos Mainerrek politika praktikotik haratagoko helburu literarioak identifikatzen ditu Pott taldeak ekarririko berrikuntzaren baitan: “la renovación, algo posterior [Galiziako *novísimos*ei buruz aritu da], en el País Vasco viene de la mano del Grupo Pot (Fracaso) al que unen más motivos de política estética que de política práctica” (*in* Mainer eta Juliá 2000: 245).

⁷⁶⁰ “*Pott* se disolvió en 1980, cuando sus objetivos fundacionales parecían ya alcanzados. En efecto, la liberación de la literatura euskérica de su secular instrumentalización por instancias ajenas a la misma (Iglesia, fuerzas seculares, etc.) es ya un hecho, como también lo es su relativa autonomía del proceso de normalización del euskera.” (*LV*: 133)

literatura buruaski modernoaren izanetik abiatua behar zuen izan (Gabilondo 1993: 39); horretarako, puri-purian ziren helburu hizkuntzalaritzazko⁷⁶¹ nahiz soziopolitiko puristetatik askea zen euskal tradizioa hautatu zuten, eta horretan oinarritu ziren, nagusiki:

euskara indartu eta zabaldu egin behar da. Konforme. Baina: beste guztia horren serbitsupean jarri behar da, literatura, zinea edo pedagogia edo kaka zaharra. Bada ez jauna, ez gaude conforme. Bakoitzari berea: literaturan, lehenengo gauza literatura egitea da (“Poema liburu batetarako hitzaurregai bat”, *Pott* 1)

Helburuak kideen aniztasunean erroturiko fardel ideologikoak inguratuak ziren arren⁷⁶², ez zuen horrek oinarri komunaren indarra gutitu. Adin eta fardel literario desberdina izanagatik⁷⁶³, moldatzen ari zen gizarte berrian literatura modu bertsuan landu nahi izan zuten: itzulpengintzaren balioa sustatuz, kanpo-erreferentziez hornitu nahi zen literatura. Bazuten nolabaiteko influentzia partekaturik: aitzineko idazleen arituaz gain, euskal literatura filologiaren begiradapean landu izanaren edo helburu ideologikoen mesedetan, gehienbat, erabili izanaren bizipena komuna zen, berendako (*LV*: 133). Hortaz, haustura nahia testuinguru horretan uler liteke.

Beren ekarpena, aldiz, mugakoa nahi zen; Pott editoriala abian jarri, bai, baina, planteamendu orokorrekin ados ez izaki, gizarte arautuaren beharrei erantzunen ez ziena: “editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearren. Ez gaude horri begira. Begira gaude begira goiko kamino berrira, esan nahi baita, ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino” (“Pott bandako lau eguzkitan”, *Pott* 1). Ideia horiek lehenagotik zituen *Ustelak*⁷⁶⁴, alde nabari batekin, abian jarriak:

Ustelak euskal literatura hutsik argitaratzeko jokaera politiko abertzaleari eutsi zioen bitartean, Pottek literatura edozein proiektu abertzalaren gainetik ezarriz, gaztelerazko eta galizierazko literatura ere argitaratzeari ekin zion bere aldizkarian. (Gabilondo 1993: 41) (Azpimarra ez da gurea)

⁷⁶¹ Beranduago, Juaristik: “La labor de sostén y mecenazgo de los estudios filológicos vascos que llevó a cabo Julio Urquijo fue decisiva para la preservación [*sic*] y recuperación de la tradición literaria en un momento en que la ofensiva purista amenazaba con relegarla a un olvido absoluto” (*ibid.*: 91).

⁷⁶² Aniztasun ideologikoz, Juaristik: “Como sus componentes han reconocido posteriormente, no había mucho en común entre ellos, fuera de un rechazo compartido hacia la literatura «militante»” (*ibid.*: 131).

⁷⁶³ Gerora, Atxagak, Pott Bandako kideen aniztasun literarioari buruz: “Lehen esan dizut hasiera batean ni arrotza izan nintzela euskal kulturaren munduarekiko; bada, ni arrotza banintzen, Iturralde suediarra zen gutxienez”, “Esan dezagun euskal mundu horrekin lotura gehien zeukana Jon Juaristi zela” (*in* Etxeberria 2002: 28).

⁷⁶⁴ “Era innegable, por otra parte, que *Pott* hacía suyos –aunque inconfesadamente– algunos de los presupuestos básicos de *Ustela*: la visión pesimista de la situación general de la cultura vasca, el desdén hacia los voceros del «compromiso social del escritor» y la defensa de la necesidad y autonomía de la literatura.” (*LV*: 131)

Hain zuzen, ordura arte gailenduak ziren helburu abertzaleekin loturiko Literatur Tradizio Tradizionalari egin zioten aitzina Pottekoek; bertzeak bertze, bertsolaritzak literaturan izaniko eraginaren⁷⁶⁵ eztabaida plazaratu zuten *Pott* 4ko “Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xelebrez [...]” idatzian. Aitzineko belaunaldiak literatura “herri”ari ailegatzeko erabili zituen moldeak osatu egin zituzten Pottekoek, kantez gain, aldizkariak eta abar erabiliaz (Gabilondo 1993: 62). Aritu hausleatarik hurbil, sarri, ukazioan oinarritzen ziren ideiak plazaratzen ziren, *Potten*, euskal kritika (*Pott* 1, *Pott* 4, *Pott* 6) eta Euskaltzaindiaren eginak (*Pott* 4) hizpidera ekarriaz, bertzeak bertze.

Pott Bandaren lanak zuzenki nahiz zeharka literatur kritikan eta azterketetan jorragai izanak direnez (Aldekoa 1993, 1998b, 2009; Gabilondo 1993, 2006; Kortazar 2001 eta 2003a, bertzeak bertze), idazki honetan kazetak birpasatu ahala adierazgarrien idurituriko lau puntu nagusiri behatu diegu. Lau ideia horietan biltzen dira literatur tradizioarekiko erlazioa hobekien islatzen duten pentsamenduak; izan ere, Pott Bandaren izkribuetan agertzen diren kritika aunitzek hautaturiko literatur tradizio bahetuaren oinarriak altxatzen dituzte⁷⁶⁶.

- 1) Euskal Herriarekiko eta munduarekiko desadostasuna, deserrotzea: jarrera inkonformista buru izanik, inguru soziopolitikoarekiko desadostasun orokorra darie lanei. Bertzeak bertze, mugimenduen eta erabakitze prozesuen kaosean murgildua zen euskal gizartearekiko.
- 2) Euskal kulturaren ikuspegi ezkorra: umorea eta ironia eskutik, kritikari, argialetxe, egunkari eta euskal(literatur)gintzaren planteamendu nahiz helburu orokorren kritika nagusia egin zuten. Kritikari buruz espresuki aritu ziren “Hain da triste la vie de l’artiste II” idatzian (*Pott* 6); bertan, aldaketak izanak ziren arren, aitzineko nahiz garaikidea zen kritikarekiko desadostasuna eman zuten aditzera.
- 3) Literaturaren autonomiaren aldarrikapena: Bandako kideak kontziente ziren hizkuntzalaritzak, filologiak nahiz alderdi politikoaren ikuspegiak inposatzen zituzten

⁷⁶⁵ Juaristik, beranduago, ukatu eginen zuen bertsolaritza literatura zenik: “En realidad, podríamos concluir, el *bersolarismo* no es propiamente «literatura», lo que no quiere decir que su influencia en la literatura no haya sido importante” (*ibid.*: 26).

⁷⁶⁶ Ideia bakoitza islatzen duten adibideak B eranskineko “Foku berari dagozkion helburu berdinak” azpiatalean (B.7.) bildu ditugu.

itxituraz eta uste faltsuez; hortaz, kate itsutzaile horietatik askatu beharra aldarrikatu zuten.

- 4) ELS funtzionalaren beharra: literaturak funtzio, egitura eta erabileretan bizi zuen egoerari kritika eginaz, ELS funtzionalaren gabezia oihukatu zuten, beharrak berak agerian utziaz.

Idea horien gibelean, Pottekoek aukeratu zuten literatur tradizioaren izana da: aukeratu nahiz ukaturiko idazleak goiti beheiti, edozein hizkuntzatan idatzia izanik ere, mundutik edaten zuen literatur tradizioa hautatu zuten. Lehenik, kontrako bide kritikoa jorratzen zuen aritua izaki, mundu zabalarekiko eta hurbilarekiko ezinegona erakutsi zuten. Hain zuzen, abangoardien aritutik heldu zen jarrera borrokalaria gaurgero egokitzen ez ziren erreferenteekin egin zuen topo, Pottekoen lanak indar bikoitza lortu zuelarik:

La acción subversiva de la vanguardia, que desacredita las convenciones vigentes, es decir las normas de producción y de evaluación de la ortodoxia estética, haciendo que aparezcan como superados, trasnochados, los productos realizados de acuerdo con estas normas, encuentra un apoyo objetivo en el *desgaste del efecto* de las obras consagradas. (Bourdieu 1995 [1992]: 376) (Azpimarra ez da gurea)

Bigarrenik, euskal kulturaren ikuspegiarekin jokatu, antzinakoen nahiz garaikide zirenen lanen izana kritikatu zuten⁷⁶⁷. Hirugarrenik, euskal literatura literaturaren historian zehar jasaniko helburu ideologiko eta linguistikoen zamatik askatu nahi izan zuten. Eta, azkenik, literatur munduaren ofizialtasun gabezia, berek sumatu gisa, gainerakoei aditzera eman zieten.

Lau puntu horiek kontuan izanik, ezinezkoa zen ordura arte euskal munduan nagusitza izana zuen ikuspegiaren araberako literatur tradizioa onartzerik; horregatik proposatu zen munduko erreferentzietatik edaten zuen literatur tradizioa, euskal munduko hainbat autore onartuz eta bertze hainbat mendratuz. Euskal gizartean aldarrikatzen zen “egiazkotasuna” alde batera utzi, eta kanpotiko lanak hurbilduko zituen jarrera sustatzeko, itzulpengintzaren⁷⁶⁸ aldarrikapena egin zuten, behin baino

⁷⁶⁷ “Kritikak beti gauza berberak errepikatzen ditu behin eta berriro no nos moveran, no nos moveran junto a Euskaltzaindia en la Erribera, bai euskarari, biba Villasante” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xelebrez...”, *Pott* 4).

⁷⁶⁸ “hay retos críticos acaso más atrayentes, como el estudio de las antologías, por muy árido que primero parezca, y el de las traducciones. Pues los dos son signos de sistemas en vías de formación.” (Guillén 1998: 331)

gehiagotan⁷⁶⁹: “Zentzu honetan itzulpen eskubidea defendatzea ‘literatura nazionala’ den taifako erreguloen belauneskubideak zalantzan jartzea dateke: gauden dilemarako beste irtenbiderik ez dagoelako: apologia ala traizioa” (“Itzulpena eta traizioaren praktika”, *Pott* 3). Irizpidea ordura arte ez bezalakoa izan zen: literatur izanaren araberakoa.

7.2.1.a. azpiatalean ikusi dugu Potteko kideek garaiarekiko desadostasun handia islatu zutela, ekimen bateratuan; literatur nagusitzaren aldarrikapena garaiko euskal errealitatetik heldu zen hertsaduratik heldu zen, nagusiki. Hala, bada, bortzgarren, seigarren eta 7.1. ataletan islatzen saiatu garen gisa, diktaturaren akierarekin ez zen testuinguru guziz desiragarria agertu. Botere nagusiaren izana eta bertatiko proiektuak aldatzeko asmoa bazen ere, prozesu malkarra izan zen hura, eta ELeren “askapena” ez zen berehala gertatu. Segidan, prozesu horretan gune izaniko auziaren, literatur tradizioaren, eta autonomia eman nahi zitzaion sorkuntzaren arteko harremanari erreparatuko diogu.

7.2.1.b. Literatur Tradizio Kriaren eta sorkuntzaren arteko harremana

Euskal Literatur Tradizio Kriak eragin eraikitzailea izan zuen. Horren erakusgarri dira krisi horretatik bilaketaren ondorioz literaturaren arloan gauzatu ziren proiektu komunitario eta ibilbide bakarkakotiko sorkuntza lanak. Ondoko bi azpiataletan, Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik Literatur Tradizio Kriaren ondoriozko sorkuntza lanean parte hartu zutela ikusi ahal izanen dugu. Hau da, iraganetik ezarriak helduriko tradiziozko elementuei nola atxiki zitzaizkien edota horiek zergatik alboratu zituzten hausnartu ahal izateko aitzinpausoa eskainiko dugu.

b.1. Lehen Aldia: Pottekoen hautua, hautu garaikidea

Potteko taldekideek eta, zehazkiago, lan honetan gune diren Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik Trantsizioko lehen urteak arte gailendua zen literatur tradizioari begirada kritikoz erreparatu zioten; beraz, ikuspegi zabalagoaren barneko zen Euskal Literatur Tradizio Tradizionalari. Izan ere, literatur tradizio hori Potteko kideen helburu nagusia zen literatur burujabetzaren kontra heldu zen.

⁷⁶⁹ *Susa* aldizkariak hasiriko bideari ere erreferentzia egin zioten: “Donostiako talde honek errebista berri bat atera dutela jakin dugu: SUSA. [...] itzulpenari buruzko erreflexioak (tres bien)” (“Hain da triste la vie de l’artiste II”, *Pott* 6).

Halatan, euskal literatur tradizioaren aukeratze modernoa hautatze nahiz alboratze ekintzak batera jasan zituen prozesu sinkronikoa izan zen. Batetik, kronologikoki hurbilagokoa zen Aro Iluneko Tradizioa alboratu, eta Frankismo Aitzineko modernoenari eutsi zioten, hein batean; hain zuzen, Frankismo Aitzineko Tradizioaren berrinterpretazioa eginaz, poesiari dagokionez, Lauaxeta eta Lizardik gerra aitzineko garaian aitzinatu, baina –Gerra Zibila dela eta– hormatua geratu zen proiektuari⁷⁷⁰. Bertzetik, aldiz, hautatze prozesu hark aldibereko ukazioa ekarri zuen: Lizardi modernoa goxotasunez, errespetuz, “lurperatu” eta Bilintx malenkoniatsuaren erromantizismo negartia alboratuz (*E*: 66; *Z*: 67-78, “Scardenalli, Antonin”).

Frankismo Aitzineko Literatur Tradizioaren gainean eginiko berrinterpretazioak ez zuen, hargatik, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristirengan atxikimendu guzizkorik ekarri; izan ere, garai berriei egokituriko interpretazioa izan zen Frankismo Aitzineko Tradizioari ezarri ziotena. Potteko kideek Aro Ilunean zehar mantendu eta Trantsizio garaian arnastua zen Tradizio Tradizionalaren muga zurrunei aitzina egin zieten: hark aldarrikatzen zuen literaturaren asmo abertzalea eta euskarazko molde herrikoiak alboratuz, literaturaren autonomiaren aldeko apustua egin zuten (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xeblez [...]”, *Pott* 4). Saiakera horren oinarrietarik zenbait 1936ko modernitateko aztarna garatu gabeetan aurki daitezke, Frankismo Aitzineko Euskal Literatur Tradizioa izendatu dugun horretan.

Diktaduraren isolamenduak⁷⁷¹ euskal literatur garapenari ezarririko gibelatzeak, ordea, Trantsizioko gizarteak modernitatera hurbiltzeko zuen aukera poetikoaren berreskuratzea anakroniko izatera kondenatu zuen. Halatan, *En* modernitatearen berrinterpretazioa egiten da, garaiari egokitua⁷⁷²; tradizio modernoa berreskuratu ahala,

⁷⁷⁰ “Con los primeros libros de Jáuregui, Lizardi y «Lauaxeta», se había logrado culminar la sustitución de una poesía subordinada a los patrones populares por otra autónoma, asentada sobre bases estrictamente literarias. Como ha señalado Sarasola, «construir un mundo poético y una lengua especial; conseguir, por tanto, una poesía realmente culta e independiente del bersolarismo fue precisamente la más interesante novedad que los poetas de este grupo aportaron a la poesía vasca» (Sarasola, 1976b: 25)” (*LV*: 99) –Sarasolaren aipamena, bibliografian zehaztu gisa: “«Introducción» a Aresti, Gabriel, *Poema guztiak*, San Sebastián, Haranburu-Altuna” (Juaristiren itzulpena)–. Baina: “El desfase respecto a la modernidad es [...] patente en los contenidos: los hermosos poemas de Lizardi no surgen sólo de su amor a la Naturaleza, sino de su incapacidad de comprender la ciudad, el ámbito urbano, la nueva cultura de masas y los valores de la civilización industrial” (*ibid.*: 99-100).

⁷⁷¹ “Nahiz eta Espainiako poeta gazte askok Eliot-ekiko duten zorra behin baino gehiagotan azaldu (Gimferrer-ek, Azuak eta Arestik berak, halegia) Eliot-en obrak ez ditu ghetto urri batzuen muga hestuek gainditu. Bere kultur erreferentzi eta esanahi kriptikoezko ugaritasunak eragotzi zion oihartzunik minimoena frankismopean” (“T.S. Eliot gaurkotasunaz zenbait ohar”, *Pott* 4).

⁷⁷² “*Etiopia* da, Arestiren *Maldan behera* precedente bezala hartu behar bada ere tradizio poetiko bat osatu eta defendatu behar izan zuen lehen euskal idazlana, horretako literatura beste eginbehar linguistiko eta abertzaletatik askatu eta ihardun berezitu bezala aldarrikatu zuelarik. Hala, Axular, Lizardi, Lauaxeta,

ezeztatzen duena –oroitu Eko “Lauaxeta gogoan eta begien omenez” eta “Lizardi Rimbaud etorri duk hitaz galdezka [...]” olerkiak (65.-66. or.)–.

Julia Barella-k, 1987an, *Después de la modernidad: Poesía española en sus lenguas literarias* liburuko sarreran erranikoetatik abiatuz, literatur tradizioaren berrinterpretazioa ez zela euskal literaturan soilik gertaturiko fenomeno bakandua izan ondoriozta liteke; izan ere, Barellak, garaiko egile modernoei buruz ari delarik, tradizioaren berrinterpretazio horren gauzapena espainiar estatuko literaturetan izan zela azaltzen du: “Una actitud moderna es la que hoy intenta incorporar tendencias y tradiciones del pasado para trasladarlas, desde una nueva sensibilidad, al presente” (9. or.)⁷⁷³.

b.2. Bigarren Aldia: Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren hautuak

Krisi Orokor Ñabartutiko Tradizio Krisiak sorturiko noraezaren eragin literarioa eraikitze lan sortzailea izan zen. Lan hori, ordea, modu desberdinetara eta oinarri desberdinetarik abiatua izan zitekeen. Ikerketa honetan, Euskal Literatur Tradizio Krisiari atxikiak diren eraikuntza posibleei erreparatuko diegu, espresuki. Zernahi gisaz, zenbaitetan, aski zaila da tradizioaren eta literatur tradizioaren arteko mugak ezartzea; literatur tradizioa ageri delakotz, zenbaitetan, tradizioak bere osotasunaren mesedetan erabiltzen duen helduleku gisa, baita tradizioaren berrinterpretatzearen agertoki eta helburu zabalagoen bidenabarreko hausnarketa tresna⁷⁷⁴ gisa ere.

Nahasmen hori saihestearren, 7.2.2. atalean fokua aunitz zehaztu dugu, eta bertan erranak literatur tradizioaren izanari eragiten dioten neurrian aukeratu ditugu. Bigarren Aldiko lanetan islatu ziren (literatur)tradizioaren gaineko eraikitzeak identifikatu aitzin (7.2.2.), Literatur Tradizio Krisiaren ondorio eraikitzailea hiru idazleengan nola gauzatu zen laburtuko dugu.

Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren aritueta, Literatur Tradizio Krisiaren eta sorkuntza lanaren arteko harremana hiru modutara gauzatua ageri da. Idazleetarik

Aresti, Miranda [*sic*] eta azkenik Etxahun Etiopiarako ibilbidean bidaide hartzean, lehenaldiko euskal tradizioaren zentzu bat sortu nahi izan zuen *Etiopia*-k.” (Gabilondo 1993: 61)

⁷⁷³ Antologiaren egileak biltzen ditu Bernardo Atxaga, Felipe Benítez, Pedro Casariego, Luis Alberto de Cuenca, Abelardo Linares, Lorenzo Martín del Burgo, Julio Martínez Mesanza, Francesc Parcerisas, Lois S. Pereiro, Valentí Puig eta Jaume Valcorma Plana-ren olerkiak.

⁷⁷⁴ Juaristik, *Aitoren* bigarren argitalpeneko aitzinsolasean, dio: “en lugar de transitar a lo largo de la tradición historicista, recorrí el reflejo sostenido de la misma en la tradición de la literatura romántica” (5. or.); 741. oin-oharrean bildu gisa: “Lo que me propuse en *El linaje de Aitor* fue describir el proceso de invención de una entre las múltiples identidades vascas que se habían sucedido a lo largo del tiempo, la que comenzó a tener vigencia desde mediados del siglo XIX” (5.-6. or.).

bakoitzak sorkuntza oinarri nagusi banaren baitan eraikitzen duelarik, Tradizio Tradizionalarekiko alienazio bikoitzaren ondorioak islatzen dira: batetik –Tradizio Tradizionalaren banaketa kronologikoa dela eta–, aipatu dugun Frankismo Aitzineko Tradizioarekikoa; eta, bertzetik, Aro Iluneko Tradizioaren joera heteronomoarekikoa.

- 1) Egokitze praktikoa, oinarri: hau da, urrutikotzat den tradizio erreferentzial horretan oinarritu arren, hainbat egokitzapen jasaten dituena. Atxagak birziklatze lan horren pareko eraikuntza egiten duela erran liteke: tradizioz euskal literaturan diren egileen mundu eta ikuspegia alboratu –Lizardi, Bilintx– eta ikuspegi desberdinetik behatzen zaie literatur tradizioko hainbat elementuri –euskal paisaia bukoliko zeritzanak, Agirre Asteasuaren solasa, Axularren gidaritza eta Euskal Herriak berezkoa lukeen denbora iragangaitza, bertzeak bertze–; gainera, garaikide den sistemara ekarriaz, interpretazio desberdinak egokitzen zaizkie elementu horiei.
- 2) Osatze lana, oinarri: idazleak desberdin behatzen dio literatur tradizioaren eskemari, eta berriaz agerrarazten ditu hutsuneak, gabeziak, eta horiek hornitzeko ahalegina egiten du. Horren adibide da Sarrionandiak egiten duen unibertsaltasunaren aldarrikapena –Sarrionandiari buruz espresuki ari garelarik unibertsaltasun horren garapena berezia izan zela ikusiko dugu (7.2.2.b.)–. Euskal tradizioari berezkoak zaizkion kanpotiko erreferenteak testuinguru egokian txertatuz, gehitzera heldu den osotze lanak dakarren eraikuntza nahiz sormen lana litzateke –Pott taldearen unibertsaltasunaren aldarrikapenetik hurbilen dena, bidenabar⁷⁷⁵–.
- 3) Dekonstrukzio teorikoa, oinarri: literatur tradizioaren berrinterpretazioa egiten da, garaia eta beharrei nahiz helburuei hobeki egokituko litzaiokeen ideologia, ustez, argigarriaren arabera berrinterpretatuz; iragazten diren ideietarik, helburu egokienak bilduko lituzketen tradizio elementuak aukeratuz⁷⁷⁶. Hau genuke J. Juaristiren kasua: identifika litekeen sormen lana dekonstrukziotik eratorria litzateke, teoria modernistatik abiatutako interpretazio berrian oinarriturik eraikitzen den lana. Irakurleari, lehen kolpean, dekonstrukziotiko sorkuntza hautazkoa irudituagatik, tradizioaren berrinterpretatzeak berak ezinbertzean interpretazio berri baten eraikuntza ematen du aditzera. Dekonstrukzio horren arabera eraikitze

⁷⁷⁵ “literatura ez da liburu bat baizik, liburu unibertsala” (“Hain da triste la vie de l’artiste II”, *Pott* 6).

⁷⁷⁶ Claudio Guillén-ek halako ekimenen beharra aipatu zuen, *Múltiples moradasen*: “Conviene por lo tanto, digo más, es indispensable que los hispanistas, o anglicistas, o germanistas, u otros especialistas, vayan conociendo e investigando con exactitud la emergencia, o lo que podríamos llamar con Mainer y Jon Juaristi la invención de una literatura nacional en sus respectivos campos” (113.-114. or.).

teorikoa lanerako finkatu dugun corpusetik at geratzen da, LVn; aldiz, eraikitze poetikoak *Diarion*, *Suman* eta *Arten* dira.

Hirurek eskaintzen diote euskal literatur tradizioari, haren erroetaranzko begiradapean, baterako edo bertzerako inportazio ideologiko nahiz erreferentzialik; izan ere, iraganera joaz, sendotasun nahiz malgutasuna baitira eskuragarri: iragana, akitua izaki, ziurtasunak eskaini eta egokitzapen indibidual nahiz kolektiboak asebetetzeaz gain, indar sortzaileen bulkatzaile potentziala baita. 7.1.3.ko b.3. azpiatalean aipaturiko alienazio bikoitzaren harira heldu da, arrunt, hiru idazleek bialdi diferenteetan garatu zuten literatur tradizioaren eta sorkuntzaren arteko zubia.

Potteko kideek Aro Iluneko Tradizioarekiko eta, erreferente eske abiatuz, hautatu nahiz ezeztatu zuten Frankismo Aitzineko Tradizioarekiko alienazio bikoitza jasan zuten; hau da, partitze kronologikoak direlakoak izanik ere, Tradizio Tradizionalarekikoa. Batetik, Trantsiziotik erreferente bila abiatu, eta, ezeztapenerako oinarri izateko bada ere, hautaturiko Frankismo Aitzineko Tradizioa ez da iragan garai hurbil-hurbilari atxikia –bai, ordea, “naturalki” garatu, eta bilakaera berezkoa jasan zuen euskal kulturaren azkeneko aztarna–. Hori dela eta, distantzia kronologikoak berak sobera urruneko bihurtzen zuen tradizio horretan bilduriko errealitatea. Bertzetik, diktaturak sortu zuen basamortu kulturala agerikoagoa egin zen, Trantsizioan, eta euskal kultur apurrek Frankismo Aitzineko Tradizioan zuten oinarria. Halatan, gizarte haren ispilu bihurtua zen literatur tradizioa: inguruko komunitateek izaniko garapenetik batere gabea eta, gainera, sobera urruneko erreferente kamutsen ondorengoa.

7.1.2.b.⁷⁷⁷ azpiatalean erranak laburbilduz, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik elkarrekin hasiriko bidea literaturaren aldeko eraikuntza izan zela erran liteke; horretarako, Trantsizioko gizartearen noraeza eta bilaketa sentimenen isla izaki, euskal literatur tradizioaren zimenduak zalantzan jarri, eta garai berrietarako egokitu eta birformulatu zituzten. Hala, bada, ELS autonomo garaikidearen hasiera Espainiako bertze ekimenen harira heldu zen; nolabait ere, Krisi Orokor Ñabartuaren ondorengo zen estatu langartuaren behar berriak azaleratzen joan ziren, eta aztergai ditugun idazleek, ekimen bateratua abiatu zuten arren, banako bidea abiatu behar izan zuten, halabeharrez.

⁷⁷⁷ b.2. azpiataleko ondorioak 7.1.2.b.koen laburpenean bildu ditugu.

7.2.1. atalean aztergai ditugun hiru idazleek literatur tradizioarekin izan zuten harremana ulertu ahal izateko ideia nagusiak eskaini nahi izan ditugu. Hiru ideia azpimarratu ditugu: batetik, elkarrekin abiatutako aldian inguruko errealitate zabalaren kritika egin zuten, eta, bereziki, literaturaren izaera autonomoa galarazten zuten ikuspegiak gaitzetsi zituzten; bertzetik, eskuragarri zuten (literatur)tradizioa ez zen garaiko helburuetara egokitzen eta Literatur Tradizio Tradizionalarekiko haustura bikoitza islatu zuten; akitzeko, idazle bakoitzak haustura horretatik banako eraikuntza egin zuela aitzinatu dugu. Hala, segidan, Atxagak, Sarrionandiak eta Juaristik egin zituzten proposamenei erreparatuko diegu.

7.2.2. Literatur tradizio hautatuak: Bigarren Aldia

Pott Bandarekin batera hasierako bidaian, *Potteko* zenbakietan argitaraturiko literatur erreferentziei eta erranei erreparatuz gero, euskal literatur tradizioa desberdinki ulertu eta antolatzeke saiakera eraikitzaile grinatsua sumatzen dugu. Bigarren Aldian, aldiz, helburu eta identifikazio erreferente desberdinek arrunt baldintzatu zuten Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren lanen izana: euskal kultura tradizionalaren kritika bateratutiko sorkuntzak gibelean utzi, eta aritu estetiko zein kritikoa banakako bidea hartu zuten. Batetik, euskal literatur tradizioaren –nahiz kultur tradizioaren beraren– eduki eta antolakuntza sistema berria proposatu nahia ageri da, eta, bertzetik, proposamen teorikoekin aski ez izaki, ekarpen teoriko horien harira sortutako gauzapean estetikoagoak plazaratu zituzten.

Hala, Pott ondoko lanetan, euskal (literatur)tradizioaren ikuspegia desberdinki bideratua ageri da. Atxaga –saiakera lanik kaleratu gabe– sorkuntza lanetan murgildu zen, buru belarri, berauetan egiten zuelarik tradizioaren berrinterpretazio eta erabilera garaikidearen islatze estetikoak. Sarrionandiak –euskal tradizioaren izana unibertsaltasunetik edanaz osatu behar zela argudiatuz– *Potten* agertutako ideietatik hurbil zen planteamendua argudiatzen zuen⁷⁷⁸. Juaristik –Espainiako tradiziotik hurbilago, teoria modernista dela medio– euskal tradizioaren asmakuntza eta berritasuna frogatzen saiatzeari ekin zion: euskal identitateetarik modernoa zeritzonaren asmatze prozesuak literaturan izan zuten islaren eta eraginaren norabideak arakatu zituen,

⁷⁷⁸ Euskal literatur tradizioari buruz zehazki ari delarik, Sarrionandiaren hitzok aditzera ematen duten bidetik heldua litzateke planteamendu horren noranzkoa: “Euskal literaturaren historian ere, pinturan bezala, harrigarria da zer sentusialitate eta imajinario guti agertzen den, [...]. Klasikoetan zein berrietan [...]” (*NENH*: 144).

tradizioaren atal baten dekonstrukzioa eginaz. Azken honek, Sarrionandiak egin gisa, alderdi teoriko nahiz, printzipioz, hartan oinarrituriko gauzaren praktikoa tartekatu zituen, 1980tik 1990era bitartean argitaraturiko olerki liburuetan.

Beraz, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren tradizio berrinterpretazioek bi alderdi jorratu zituzten: Atxaga eta Juaristiren arituan, tradizioa eta berau gauzatzen eta islatzen zuten sinbolo-erreferenteak ukatzen ziren –poetikoki, *Z, E*; teorikoki, *Aitor*–, baita ukazio hori islatzen zuen eraikuntza poetikoa sortzen ere –*Ob.*; *Diario, Suma, Arte*–. Sarrionandiak, ordea, desberdin garatu zuen tradizioaren teorizazioaren eta isla estetikoaren arteko harilkatzea: dekonstrukziotik abiatu baino gehiago, proposamen osotzaile batetik abiatu zen –poetikoki, *Izuen gordelekuetan barrena (IGB)* eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak (IEP)*; teorikoki, *NENH*–; ondotik, bai teorikoki, baita estetikoki ere, erreferente hetsiangoetan oinarrituriko tradizioa jo zuen –poetikoki, *Marinel zaharrak (MZ)*; teorikoki, *M*–.

Ondoko paragrafoetan, hain zuzen, idazleatarik bakoitzak tradizioari eta literatur tradizioari buruz, zehazki, erranak eta hausnartuak landuko ditugu. Hiruna azpiataletan banatu dugu idazle bakoitzaren azterketa: hiruren tradizioarekiko jarrera bina fasetan banatuz, eta, ondotik, –idazle bakoitzak garatu zuen tradizioarekiko eraldaketa ulertzeko– kasuan kasuko ezaugarri garrantzitsuenetariko baten azalpen orokorra gehitu dugu. Hala, bina fase eta gauzatze baldintzatzaile nagusi bana azalduz, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren (literatur)tradizioarekiko harremanaren, jarreraren eta hautaketaren ideia orokorrak hobeki ulertuko direlakoan gara.

- **Corpusa**

Aztergai dugun corpusa bi irizpideren arabera hautatu dugu. Batetik, lanek (literatur)tradizioari buruzko jarreraren, ulerkuntzan eta proposamenetan duten zama izan dugu kontuan; bertzetik, ibilbide indibidualaren lan erakusgarrienak izan behar ziren. Alabaina, corpusaren mugatzea labainkorra gertatu da, azken baldintza honi dagokionez; izan ere, bai Atxaga, bai Sarrionandia, baita Juaristi ere, Pott Banda sortu edo desagertu aitzinetik hasiak baitziren bakarkako idazlanak argitaratzen: *Z* (1976) eta *E* (1978), Atxagak; *IGB* (1981⁷⁷⁹), Sarrionandiak; eta *Euskararen ideologiak: Etorkiak* (1976) eta *La leyenda de Jaun Zuria* (1980), Juaristik. Corpusa zehaztu

⁷⁷⁹ Argitalpen urtea 1981ekoa izan arren, 1978tik 1980ra bitarteko olerkiak biltzen dira bertan (ikus *MZ*ko kontrazala).

beharrak erabaki baztertzaille, baina argudiatua, hartzera behartu gaitu. Hala, Atxaga eta Sarrionandiaren bakarkako ibilbidearen garapenean garrantzia izaniko lanak ere kontuan izan ditugu: *Z*, *E* eta *IGB*. Hortaz, hona erabiliriko corpusa:

Atxaga: *Z* (1976), *E* (1978), *Ob.* (1988).

Sarrionandia: *IGB* (1981), *NENH* (1985), *IEP* (1985), *MZ* (1987), *M* (1988).

Juaristi: *Diario* (1985), *Aitor* (1987), *Suma* (1987), *Arte* (1988).

- **Iraganarekiko jarrerak: (literatur)tradizioaren hiru garapen teoriko-estetiko**

Gerra Zibilean hasi eta Trantsizio garaira arte aski modu prekarioan garatu zen euskal kultura hormatua egona zen, luzez; berreskuratze lanak hasteko aukera sumatu, eta egokiera aldarrikatzen denean, aukeren anitza eskuragarri agertu zen, zentro sendorik gabeko euskal gizartearendako: antzinatik ezarria eta emana zen tradizioaz gain, mundu hedatsu unibertsalei atek zabalik uzten zizkiena⁷⁸⁰. Mundu zabal eta hurbilean erreferente hautaketak sortzen dituen sentipenen harira, hona Txetxu Aguadok identitateari dagokionez errana:

Esta misma dinámica –ser europeo o cosmopolita sin haberse sabido ser antes de una identidad de menor grado como gallego– tiene su traducción en lo que podría llamarse el dilema identitario, esto es, la disyuntiva de elegir entre una identidad demasiado amplia, donde nos diluimos tanto que no nos encontramos, y una identidad local que siendo demasiado estrecha termina por asfixiar. [...] En el primer caso, la nacionalidad del pasaporte con el que viajamos es una característica decorativa, mientras en el segundo somos absorbidos y reducidos a esa misma nacionalidad. (2010: 162)

Azken finen, diktaduraren murrak eraisten hasiak izateak zabala, anitza eta onartzeko nahiz ezeztatzeko prest zen mundua agerrarazi zuen. Ondoko paragrafoetan, idazleatarik bakoitzak corpusean erabili nahiz aldarrikaturiko literatur tradizioaren zantzuak hausnartuko ditugu. Horretarako, bi modutara behatuko ditugu aztarnak. Batetik, literatur tradizioari buruz eginiko gogoetak aztertuko ditugu: azalpen nahiz proposamen teorikoak lantzeaz gain, hurbildu eginen ditugu literatur tradizioaren eraikuntzan eragina duten tradizioari buruzko teorizazio orokorrak ere, berezkoa den elkarreraginean. Bertzetik, erreferente zuzen nahiz zeharkakoak direla medio agertzen

⁷⁸⁰ “Euskaldun irauteko, alde batetik ez ditugu galdu behar erroak eta geure tradizioarekiko fidelitasuna, baina beste aldetik unibertsalitateira irekirik egon behar dugu, beste tradizioetara eta beste sentsibilitateetara. Munduko jakintza geurea izan behar da, geure kreaioa ere munduarentzat izango bada.” (*NENH*: 130)

den literatur tradizioaren hautu –onartze nahiz kanporatze– pertsonalen gauzapeanari erreparatuko diogu, zenbaitetan.

Helburua, edozein gisatan, ez da idazle bakoitzaren tradizio hautua xeheki identifikatzea izanen; aukeraketa zehatzez haratago, eraikuntza bidean zen nazio-komunitate proiektuaren testuinguruan sorturiko tradizio hautuak subjektiboak zirela agerrarazi nahi dugu. Hala, lehen pausoa emanen dugu horien gibelean identitatearen sentitze diferenteak zituzten etorkizunerako begiradak komunitateen sistemako proiektuarekiko erlazioan zirela ulertzeko. Beraz, bai alderdi teorikoa, baita teoriaren gauzapean artistikoa ere, izanen ditugu solasgai; hauek, bi adierazpide izanagatik, literatur tradizioaren eraikuntzari berdin lotuak direla eman nahiko genuke aditzera: bata, eraikuntzari lotua, eta, bertzea, eremu erreflexiboari dagokiona eta irudimenezkotik hurbilago dena.

7.2.2.a. (Literatur)Tradizioa, Atxagaren lanetan: sorkuntza

Goiti erranikoen arabera, literatur tradizioaren hautatze eta garatze bidearen ideia orokorra egin ahal izateko, bi alderdiri erreparatu beharko litzaieke: teorikoari eta literarioari. Asteasuarraren lanak behatu ahala, ordea, alderdi poetikoari behatu bertze erremediorik ez dela ohartu gara; izan ere, aztergai ditugun urteetan ez baitzuen literatur tradizioari buruzko hausnarketa teorikorik, espresuki, argitaratu; hiru idazleengan literatur tradizioaren zantzuak altxatuen dituen da Bernardo Atxaga. Segidan, hutsune horrek euskal literatur tradizioarekiko erabaki zuen erlazioari buruz informazio aunitz ematen duela ikusiko dugu.

1. fasea: tradizio hautatu berriaren ukatzea

Lehen fasean, iraganarekiko jarrera beretik abiatutako bi liburu dira: *Ziutateaz* eta *Etiopia*. Azkena Pott Bandaren baitan garaturiko poetikaren ondorio izan zela aipatzen den arren (Gabilondo 1993: 39), lanaren atal honetan eskainiko diogun begiradak bakarkako aritu gisa izanen du aztergune. Fase honetan, borroka ez da soilik euskal literatur tradizioarekikoa, lengoaiaren adieraz ezintasunarekin batera, denbora aldi orok bere baitan duen errealitatearekikoa ere bada.

- Oraineko hizkuntzari nahiz errealitate hurbilari dagokienez, Zn ez gara gai errealitatea bere osotasunean atzemateko, errealitatearen haustura guzizkorik ez den arren, batasun koherentearen gabezia sumatzen hasia baita; En, aldiz, errealitatea

bera da arrunt puskatua eta lengoaiaren haustura dela medio aditzera emana –bi liburuen adibideetarako ikus beheiti heldu den garapena–.

- Etsipenetiko ezintasuna, gainera, proiektatu egiten da: bizitzari ematen zaion balio ezdeusa hertsiki lotua da jarrera etsituari, pertsonaiek bizitzarekin bat ez egitearekin: “ez, noski, gure bizitzak berau defendatzeko ahaleginak bezanbat balio duelako” (Z: 26), “–hobe, dena den, heriotzaren gai izatea, hilezkorra baino– penagarria litzatekeelako agonia luze baten arriskuan jartzea” (*loc. cit.*). Beraz, bizitzea agonia luzea da, kondena, bizitza momentu nahiz bizipen agoniko aunitzez osatua dagoen izate konplexuago bat bertzerik ez baita. Horregatik egiten zaio uko errealitatea, bere horretan, onartzeari (Z: 89).

Atal honen fokua (literatur)tradizioan izaki, iraganarekiko jarrerari eta, zehazkiago, berau (literatur)tradizioarekiko nola gauzatzen den hausnartuko dugu, euskal literatur tradizioaren hautatze eta ukatze sinkronikoaren prozesuan ardaztuz; hain zuzen, Zn eta En literatur tradizioaren aukeratzea, alboratzea eta urrutiratzea aldiberekoak izanik, sinkronia horrek garai biri loturiko hautespena adierazten du.

Alde batetik, Frankismo Aitzineko Literatur Tradiziotik edan, bai, baina distantzia markatzen da, berdin poeta tradizional –Bilintx– nahiz modernoagoekiko –Lizardi, Lauaxeta–; hau da, sarri gertatu ohi den gisa, aitzineko belaunaldia ukatu egiten da. Frankismo Aitzineko Tradizioko euskal idazleak ukatu, eta beren ahotsak lengoia surrealista eta espresionistaz inguraturik izateak, lengoaiaren hausturaz gain, lengoia horrek berak aditzera ematen duen errealitate eta tradizio molde nahiz izanen alboraketa ematen dute aditzera. Bi adibide ekarri ditugu hona: Bilintx eta Lizardi.

Mundu ikuspegi erromantikoa ez da egiazko mundua, “estupidoen mundua” baizik (Z: 34-35). Antzerki bat dela medio, Bilintxen irudia erailko du. Halabeharrezko bilakabidea iduri du erromantikotik espresionistarako eta estupidoen mundutik errealitate “egiazko”ra. Scardenalli-k berak identifikatzen du bere antzinako bizia mundu “estupido”arekin, basahuntzenarekin. Bilintx estupidoen munduko erromantikoa da, bizitza gogor eta ankerra jasana. Erromantikoaren ideia horrekin akitu nahian, Bilintxen eta erromantikoen irudia deuseztatu egiten da; era berean, Scardenalliren bilakabidea ikusten da: zizare izatetik –lur azpian bizi den animalia ezdeusa, itsua, mundua bere egiazko izatean atzemateko gai ez dena– basahuntza izatera –maitasunaren harrapakina–. Beraz, hasieran Scardenalli zen irudiarekin identifikatzen

da Bilintx –beraz, basahuntza; ondorioz, maitasunaren harrapakina–. Bi alderdi horiek kontuan izanik, maitearekin izandako inflexio puntuaren ondorioz, erabaki kontziente eta propioz “putre” bihurtzen da pertsonaia, alde gizagaixoa akabatuz. Bilintx erailaz gauza bera egiten du, Bilintxek irudikatzen duen erromantizismoa errotik jauzi araziaz, gainera.

Lizardiri erreferentzia europarretatik edan duen idazle gisa behatu, eta haren testigantza hartzen du poeta berriak, idazle tradizionala zerraldo erortzen delarik oinetara⁷⁸¹; alabaina, Lizardiren lekukotza hitz goxoz, ironikoki, aldarrikatzen den neurrian, poeta modernoaren zama onartu egiten da. Iraganeko euskal literatur tradizioko erreferenteei ikuspegi zabaletik behatzen zaie, Lizardik berak landuriko mundutiko erreferenteak erabiliaz. Jarrera horrek Lizardik bere olerkietan islatzen zuen euskal munduarekiko haustura ematen du aditzera; bertzeak bertze, mendearen hasierako olerkariak mitifikatu zuen “euskal baratza”ren ideia bera errausten delarik: Lizardi oinetara hila, gorai patzen zuen baratzean lurperatzen da, olerkariaren eragin bizia akituriko bidetzat izan, eta zirkulartasunera kondenatuz.

Bertzetik, Euskal Tradizio Tradizionalak bulkaturiko ikuspegiarekiko distantzia ezarri, eta Gerra Zibilaren ondotiko partaideen aukeraketa indibiduala ezartzen da. Euskal munduaren ikuspegi idealizatu, estatikoa, desagertu egin da: denbora estatikoaren apologia egiten duen –frankismoan mantendu eta garaturiko– Tradizio Tradizionalak ez du lekurik, ez baita ez egi, ezta desiragarri ere⁷⁸²; mundu horrek jada ez du euskal errealitatea sinbolizatzeko balio. Mundua, atzeman ezin den errealitate zatitua eta anitza, denboraren eragin saihestezinaren atzapar tartean da (Aldekoa 2009: 11).

Hala, Zn eta *En* Tradizio Tradizionalak gorai patzen zuen estatismoa alboratzen da: denbora desberdinak nahastu, eta, espazioak mila zatitan langartuz, batasunaren orde z digresioa eta heterogeneotasuna guziz gailentzen dira, atzeman ezintasunaren lekuko. Joe “stadium”ean delarik, ingurua, errealitatea eta balizko denbora nahiz espazio

⁷⁸¹ “Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka/ eta gu ere hire zain geundela/ esan zioagu/ ez hintzela aspaldi azaldu/ etxetik/ [...] / gero kanpaiak entzun dizkiagu/ zakurrak zaunkaka/ orduan sortu haiz bidetik/ balantzaka/ eta hirekin aurrez aurre jarri garenean/ zerraldo erori haiz gure oinetan/ eta gorpu gogor hintzen/ [...] / eta goizaldean/ muxika hezur batetan sarturik/ o petit poete/ piroteknariak gabe lurperatu haugu/ baratzan” (*E*: 66).

⁷⁸² Modernitatearen aldaketa nagusiekin lotua da aldaketa: “Estetikoki, Modernitatearen aldaketa bortitzena honako hau izan zen: ikuspegi klasikoa arau aldaezinetan oinarritzen zen eta horretarako ezin zuen gaurkotasuna edo aktualitatea genero gisa tratatu, eta are gutxiago haren alderdi hutsal eta garrantzigeak” (Aldekoa 2009: 3).

logikoak atzeman ezina ageri da, logikatik at baitira: “hertsi egiten zaio ez dakit zenbagarren aldiz kanpoarekin harremanatzen duen ate sorta” (Z: 114). Joek duen bizitzaren hautematea guziz da zatikatua: gela pareta desberdinetan banatua da, eta bata bertzearengandik argiarekin bereizia; boxeolari izateko eramaten dutenean ere, oharmena langartua da, bozak...

Pertsonaiak sumatzen duen mundua batasunik gabea izaki, halako estrategiaz da adierazia: kamerak egiten duen plano orokorra gauzatzeko kapaza ez den pertsonaia; honen ordez eszena desberdin bakoitza liratekeen imajinak banaka dira irudikatuak. Hondarrean, lepoa alde baterantz ezin mugituz (Z: 112), biziarenganako ezintasuna ezintasun fisiko bihurtzen da. Erlatibitateak noraeza sorrarazten du, pertsonengan, non eta zer direnaren zorabio fisikoa agerraraziz, munduarekiko: “Zerk lotzen zaitu munduarekin, duda-mudaren segurtasun osora heldu zinenez geroztik?” (Z: 15). Ezin pertsona osoa izan (Z: 79).

Munduaren sentipen horrek ez zuen tokirik euskal mundu idealizatu, eskapista, amesten zuen tradizioan: Euskal Tradizio Tradizionalean ez zen halakoendako lekurik. XIX. mendearen akieratiko euskal mundu estatiko eta idealizatuaren oinordeko bihurturik, Tradizio Tradizional izendatu dugunak heteronomiarako bidea jarraitzen zuen. Halatan, idazleak adieraziriko haustura eta adieraz ezintasuna bikoitzak dira: sentimenok ez dira euskal munduarekiko soilik ardazten, kutsu espresionistako etsipenak munduarekikoak ere badira. Degradazioa, dekadentzia, heriotza, mundu akiera, gizaki eta mundu berri baten esperantza... etengabe ageri dira; hau da, abangoardia amaierako pesimismoa. Haustura, deserrotuaren sentimenarekin erlazio estuan, hasieran iduri duena baino errotikoagoa da; ispilu, gela, espazio, denborak hautsiak dira: “perros rotos” (Z: 9), “noches fris, rotas” (Z: 9) eta “antiaju pusketa bat” (Z: 15). Are gehiago, gizakiak berak dira hautsiak; garaiak, lehertuak –zaticatze horren puntu gorena pertsonalitatean da: bipolaritatea, multipolaritatea... jende multzoen ispilu direlarik-. Bertzela erranda, hautsi nahia sumatzen da. Zn, gaurgero ez gara gai errealitateari, bere osotasunean, adrendua hartzeko, errealitatearen haustura guzizkoa ez den arren, sumatzen hasia baita batasun koherentearen gabezia; En, errealitatea bera da guziz puskatua, eta lengoaiaren haustura dela medio aditzera emana.

Lehen fasean, nabarmen egiten die erreferentzia europar literatur tradizioei –idazle eta zinema espresionistei, bereziki (Aldekoa 1998b: 3.II. kapitulua)–, baina euskal tradizioaren hariari eutsirik: euskal tradizioaren bide nagusia markatzen da

Lizardi, Lauaxeta, Etxahun, Mirande eta Arestiren itzalak molde europarretara hurbilduz. Joseba Gabilondok erran gisa “Axular, Lizardi, Lauaxeta, Aresti, Miranda [sic] eta azkenik Etxahun Etiopiarako ibilbidean bidaide hartzean, lehenaldiko euskal tradizioaren zentzu bat sortu nahi izan zuen *Etiopia-k*” (1993: 61), baina berrirakurriaz. Euskal literatur tradizioaren partaideak aipatu, eta distantzia ezartzen da marrazturiko tradizio harekiko, beren lanek eta munduek ezin baitute ezintasun orokorra adierazi, moldatu edo islatu. Horregatik, atal honen izenburutik beretik eman nahi izan dugu aditzera, euskal tradizioaren oinarriak ezartzearekin batera, orainerako bidaide akitu gisa ageri direla. Ukazioa bikoitza da: iragan urrun nahiz hurbilagoko euskal tradizio hautatu berriekikoa –Frankismo Aitzinekoa eta Aro Ilunekoa, hurrenez hurren– eta gizarte orokorrarekikoa.

Iraganerako begiratze hori, ordea, ez da –segidan landuko dugun fasean gertatu gisa– eraikuntza poetikoaren mesedetan egiten; aritu poetikoak –ez teorikoak– halabeharrez eraikuntza horretara bideratu behar ez izana praktikatzen da, Atxagaren lehen fasean. Egin kontu diktaduran hormatua zela belaunaldiz belaunaldiko lekukotza naturala; hala, Gerra aitzineko poetak berrirakurriaz eta Francoren garaietako idazleak bidaide gisa aukeratuz, nolabaiteko jarraitutasunaren zentzua ezartzen da euskal literatur tradizioan, baina ez da eraikuntza poetikorik sortzen.

2. fasea: berrinterpretazioaren islapen poetikoa

Tradizioaren eztabaida, hein batean, iraganaren interpretatze berria izanik, frankismo aitzinetik Tradizio Tradizionalaren garapen guzian zehar mantendu eta areagoturiko euskal ideien berrinterpretazioa egiten du Atxagak, *Obabakoaken*; ideia bukoliko euskaldunaren eta hori sendotzen lagundu zuen paisaiaren berrinterpretazioaren gauzapean literarioa da. XIX. mendearen akiera alderako ideologia nazionalista historikoak euskal munduaren esentzia kutsatu gabea baserritarrak gordea zela –ez industrializazioak– sustatu zuen. Distantzia kronologikoak eskaintzen duen begirada kritikoz, *Ob.* paisaia idiliko-bukoliko euskaldunaren –beraz, hori agertu, moldatu eta sustatu duen euskal literaturaren– eguneratzea da. Horrenbertzez, Atxagaren lehen fasean, ideia horren bulkatzaile ziren idazleen poetikak hautatze eta baztertzeen pairatzaile izan ziren, eta, bigarren fasean, aditzera emaniko euskal mundu tradizionalaren erdieste eta sentitze bide berria agertu zuen.

Alabaina, berrirakurtze prozesu horretan modu desberdinetara eguneratzen dira tradizioako elementuak. Hizkuntzari dagokionez, euskara batuaren bulkatze urte garrantzitsuak ziren ordukoak. *Ob.*en euskara literarioa aldaera batutik hurbil agerraraziaz, tradizio usaina garaiko gizartearen dinamika eraikitzailean txertatzen da; edozein gisatan, euskara batuaren hornei zurrunki atxiki ordez, literatur tradizioari ere bere tokia eskaintzen zaio liburuan –Axular bidaide hartzearekin batera haren solasa imitatuz “Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat” kontakizunean (*Ob.*: 329-343)–.

Bertzetik, paisaia bukolikoari distantziaz, begirada kritikoz, erreparatzen zaio; horretarako, desiragarri izan ohi ziren paisaia euskaldun idealizatuak eta beren denborak gordinago, jarrera hotzagoz, erakusten dira –Javierren, Jose Franciscoren, haren amaren, maistraren, Werfell-en nahiz Obabako bertze pertsonaien biziak; marjinaltasuna, denboraren geldoa eta ziklikotasuna, bertako malenkonia–. Erdi Arotiko kulturaren eta basoaren arteko lehia nahiz dikotomiak ageriko bihurtzen dira⁷⁸³: kulturatik urrun ziren pertsonak, paisaia tristeak...

Baina, bereziki, Obaban den denboraren agerpen modua da adierazgarrien: denboraren geldoa eta urtaroen zama zirkulartasunerako joeraz betikotuak. Izan ere, denbora ziklikoan –aldaketaren indarretik kanpo denez, estatikoa, hein berean– murgilduak diren obabarren mundua ez da ongizatearen arkadia; euskal literatur tradizioan, aldiz, urtaroen joan etorrietan eta aldaketa ziklikoetan oinarrituriko denbora idealizatuak ageri zen hobetsia, esentziaren gordeleku gisa –Txomin Agirrek 1907-1912 bitartean *Revista Internacional de Estudios Vascos*en argitaraturiko *Garoa* ideario horren adibide tradizionala litzateke–. Errepresentazio horietan, denbora iragangaitzean murgilduriko gizakiak ageri ziren, euskal kultura eta tradizioaren gordeleku gisa.

Atxagak, bigarren fasean, euskal literatur tradizioarekiko erakusten duen jarrerak hiru ondorio nagusi izan zituen. Lehenik, helburu literarioei lotua izateaz gain, aritu erakundetzaille den lana eratu zuen. Euskal literatur tradizioak XIX. mendearen akieratik

⁷⁸³ Tolosan, 1999an, naturari buruz emaniko hitzaldi batzuetan, dio Atxagak: “desertua bihurtu zen, azkar esanda, hiriaren beste alde. Alde batera zegoen hiria eta beste zegoen extraleku bat, desertua zena, eta desertua zen arriskutsua, gogorra eta abar eta abar. Erdi Aroan eremitek erretiratzea eta mundutik bereiztea erabaki zutenean ez zeukaten European, Frantzia esate baterako, deserturik. Eta orduan ezin zuten hara jo. Ze aukeratu zuten erretiratzekoan? Basoa [...] basora joaten ziren anakoretak, basora joaten ziren protestanteak Frantzia arazoak zituztenean, basora joaten ziren lapurrak, basora joaten ziren gerlariak edo basora joaten ziren hirian nekaturik bizi zirenak. Orduan Erdi Aroan eta Erdi Aroko literaturan, zaldunen literaturan eta abar, basoa beti holako extraleku bat da, da natura bat arriskutsua, piztiz betea, probatu egiten zaituen natura bat eta abar” (1999: 27) (ikus, baita ere, Atxaga 1990b).

eta XX. mendean zehar eraikiriko euskal munduaren berrinterpretazioa egiten du; tradizioko elementu bertsuekin⁷⁸⁴, ikuspegi desberdina eskaintzen dio kasik 90eko hamarkadan den euskal gizarteari. Hain zuzen, estatuko literaturen erakundetzearen harira, ikuspegi berri horri erantzuna izanen zen Espainiako Narratiba Sari Nazionala (1989); EKSk hartua zuen bidearen onespena izan zen.

Idazle profesional profilarren kontziente izanaz edo ez izanaz, 1975etik aitzina agerian jarri eta Pott Bandarekin plazaraturiko euskal (literatur)tradizio krisiaren erabilera praktikora jo zuen Atxagak. Akaso idazlearen konpromisoaren ondorioa zen: 1990ean idazleari *Zurgain* eginiko elkarrizketa batean, idazleak gizartearekin zuen konpromisoa irakurlea –liburua dela medio– extra-espazio batera eraman beharra litzatekeela aitortu zuen (Atxaga 1990b: 99-101); berak hala ulertzen zuela, izatekotan, idazleak gizartearekin zuen engaiamendua. Mundu horietan, eguneroko bizitzan aurki ezin zirenak beharko zituzkeen eskaini idazleak: “En el fondo, se trata de un compromiso, en cierto modo, escapista” (*ibid.*: 101). Hitzotan, idazlearen gizartearekiko konpromisoa alderdi eta ideologia bati atxikia behar izatetik, eginbeharra literaturan zuen idazlearen kontzientzia sumatzera jauzi egin zen: egunerokotasunetik haratago ziren extra-espazioak sortu beharko zituen idazle konprometituaren pentsaeratik, horixe egin zuen Atxagak, Obabako espazioarekin. Espazio horren izana, gainera, literatur tradizioaren berrinterpretazioarekin fusionatu zen, bertako sinbologiaren erabilerak ordura arteko euskal literatur tradizioak iradokitzen zuen euskal munduaren interpretazio berria eskaini baitzuen. Beraz, Obabako herriaren inguruko lanek, bereziki, Euskal Tradizio Tradizionaletik edatera ohitua zen irakurlea euskal arkadia tradizionaletik kanpo kokatu zuten; tradiziotik ezagunak ziren inguru, paisaia, pertsonaia eta bizimoduarekiko distantzia ezarri izanak begirada kritikoz dohatu zuen idazlana.

Euskal literatur tradizioarekiko jarreran, praktikotasuna azpimarra liteke, bigarren ondorio nagusi gisa. Hain da praktikoa Atxagak hartu zuen bidea, non euskal literatur

⁷⁸⁴ Hala adierazten ditu Juaristik frankismo aitzinean izaniko garapenaren urratsak: “En resumen, las características de la narrativa euskérica del primer cuarto de siglo serían las siguientes: dependencia de los modelos costumbristas e historicistas del «renacimiento eúskaro», temas y ambientes preferentemente rurales, tendencia al idilio o, si se prefiere, realismo «selectivo» que excluye –en función de una moral tradicional y pacata– los aspectos conflictivos y sórdidos de la realidad. Tales rasgos se mantuvieron inalterados hasta la guerra civil: todavía en 1937 se publicaba una novela, *Uztaro* [Tiempo de cosecha], de Tomás de Aguirre, que no se apartaba un ápice de sus predecesoras. La persistencia de estructuras trasnochadas en la narrativa contrasta, sin embargo, con la voluntad de innovación que mostraban por entonces los jóvenes poetas” (*LV*: 94) (kortxeteak Juaristirenak dira).

tradizioaz baliaturik, euskararen mesedetan ere erabili baitzuen tradizioak biltzen zuen lengoia: Agirre Asteasukoaren balio “poetiko”aren birziklatzea egin zuen, hizkuntzan oinarrituz, haren egokitasuna aukeratu, eta bertan oinarritu zelarik. Beraz, euskal literatur tradizioarekiko erlazioa bi aldetarik zen praktikoa: hizkuntz aldaera tradizioari idazleentzako baten solasa erreferente hartuz berreskuratu, eta orduko gizarterako berriz jasotzen zuelakotz –beti ere euskara batuaren finkapenaren testuinguruan kokatuz–; eta, aldi berean, begirada desberdinez hornitzen zuen, irakurlearendako, sinbologia tradizionala, euskal arkadia nahiz mundu mitikoa eraldatu egiten baitzuten.

Hirugarren ondorio azpimarragarria literatur lanekin erakusten duen aitzinerako behaketa da; aipaturiko jarrera praktikoarekin batera, euskal (literatur)tradizioa berrirakurri egin zuen, eta garai berrietara egokitu: iraganera etorkizunerako prestakuntza den heinean bueltatzen baita –Axular izanen da bidaia horretan gidari, “Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat” kapituluaren ageri gisa–. Hain da aitzinerako begirada praktikoa, ezen ondutik lanetan ere idazle profesionalaren aritua gauzatzeko tresna gisa⁷⁸⁵ erabiltzen den iraganerako begirada; hain zuzen, euskal literatur tradizioaren erabilera orokor horrek etorkizunari lotua den jarrera erakusten duelarik.

Testuingurua: iraganera lehen hurbilpena

Atxagaren iraganarekiko erlazioa bi fase nagusitan banatu dugu, fase hauetarik bakoitzean tradizio eta literatur tradizioarekiko jarrera nahiz erabilera desberdinak izan zirela agertuz. Azken hamarkadetan, euskal literatur kritikan gune bihurtzen ari den memoria historikoaren berreskuratzea, Atxagaren kasuan, tradizioaren hautatze-berrirakurtze prozesu horren ondotik heldu den aldia litzateke. Gure ustez, ELSn azken bi hamarkadetan, espresuki, garatuz joaniko memoriaren gailentzea ulertu ahal izateko, komunitateek iragan historikora hurbiltzeko aukeraturiko begiradei erreparatu beharko litzaieke; alabaina, hurbiltze horien prozesua konprenitzeko, memoriari berari osoki atxikitzen zaizkion agerpenen aitzinetiko saiakerak aztertu beharko dira, lehenik. Hain zuzen, euskal literaturan gailenduz joan den memoriaren zamaren aitzinpauso individual gisa uler liteke Atxagaren bi faseetan deskribatu dugun iraganerako behaketa.

⁷⁸⁵ Bertzeak bertze, *Poemas & Híbridos* (1990) liburuan agertu zuen gibelerako itzulera praktikotasun horren adibide berankorragoa da: poesiaren erabilera modernotik gibela eginaz, tradizionalagoak diren lengoaietara jo zuen asteasuarrak.

1975etik ibilbidean jasaniko bilakaerari erreparatzea lagungarri da; izan ere, euskal literaturan 1990etik, egun arte, nagusituz joan den iraganaren oroitzak izan zuen aitzinsaiakerarik; bertzeen memoria, memoria kolektiboa eta Gerra Zibilaren oroitza modu desberdinetan gauzatu baitzen, 1975-1990 bitartean. Bidaia hori egin ahal izateko, ezinbertzekoa izan zen 1975-1990 bitarteko belaunaldi berriendako –hau da, Gerra Zibila bizi, ez, baina frankismoa edo haren hondarreko bilakaera sufritu zuten gazteendako– begirada eta kontzientzia gibelera bihurtzea.

Frankismo ondotiko lehen urteetan diferenteki gauzatu zen iraganarenganako hurbiltzea. Batetik, hasiera-hasieratik gaiari bere horretan atxiki zitzaizkion lanak agertu ziren; bertzeen memoria, kasu, Trantsizioan hasi zen lantzen (Kortazar 2008: 9 eta 2011: 54-56); adibidez, Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979), Joan Mari Irigoienek *Poliedroaren hostoak* (1983), Koldo Izagirrereren *Euzkadi merezi zuten* (1984) eta berantiarraoa den Inazio Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan* (1987). Bertzetik, memoriara azpigaiak direla medio hurbiltzen diren lanak ere badira; Atxagak, kasu, euskal mundu tradizionalaren berrinterpretazioarekin, iragan denboren oroitzarako eztabaida garrantzitsua abiarazi zuen, *Ob.en*.

Biak dira, azken finean, iraganari eta memoriari erreparatzeko moduak, fokua desberdinki bideratu dutenak, ordea. *Ob.* dela eta aipaturiko iraganerako bide horrek, memoria bera gune eduki beharrean, memoria kolektiboaren zutarrietariko den tradizioa izan zuen eztabaidagai –aitzinago, memoriaren ardaztea bertze bideetatik jorratuko zuen, *Soinujolearen semea*, erraterako–. Tradizioak memoria kolektiboarekin duen harremana hertsia izaki, bataren planteamenduak bertzearen hausnarketa dakar, ezinbertzean:

se puede considerar que cada individuo configura sus recuerdos a partir de diferentes perspectivas y dimensiones –la autobiográfica y la social–, y que, al mismo [sic] tiempo, como componente de una sociedad tiene una capacidad distinta de rememoración con el grupo y de influencia en las memorias ajenas y, por ende, en la colectiva. (Luengo 2004: 21-22)

Bertzeen memoriatan eragin baino gehiago, memoria horren erreferenteak atzemateko moduan tresna berriak eskaini ziren, *Ob.en*:

más que tratarse de una “supramemoria”, la construcción colectiva de la memoria es “reflexiva”, puesto que los recuerdos de los demás configuran los recuerdos del individuo, y los recuerdos del individuo pueden configurar asimismo los recuerdos de los demás. El pasado sería, pues, una reconstrucción originada y formada por el entorno social, y además determinada por la memoria oficial, pero también por las condiciones materiales, ideológicas, morales, religiosas, etcétera del individuo, muchas de ellas escogidas conscientemente por él. Por lo tanto, la recepción y la narración de ese pasado serían una realización personal, mas dentro de una estructura social e

interpretada con un tipo de código compartido con los otros miembros de la colectividad. (Ibid.: 24) (Azpimarra gurea da)

Kodigo horren gibelego arauen zurruntasuna da, preseski, aldatzen dena; laxatze horrek egin zuen posible *Ob.*, 80etan zehar jorratu ondotik, hondarreko egitura oso gisa borobildu izana; are gehiago, Ana Luengok zioenaren haritik, tradizioaren pertzepzio desberdinaren bilakaeran lagundu zuen Atxagak. Ondotiko lanetan, aldiz, iragan mitikoaren lanketa gibelean utzi, eta hurbilagoko errealitateetara hurbildu zen⁷⁸⁶. Zernahi gisaz, ezin atzendu dugu garaiko gizarteari eginiko kritika metaforikoak ere badirela *Ob.en*; “Ondo plajiatzeko metodoaren azalpen laburra eta adibide bat” kapituluan, barkuaren irudia dela medio, garaiko kultura alorreko jendeari egiten zaio kritika: deus egiten ez dutenei, gauzak bere horretan nahi dituztenei, morbosoei, intelektualei eta tristeei. Hau da, garaiko gizartean politikari, enpresa, prentsa eta bertze izan daitezkeenei, adibidez.

Laburbilduz, Atxagaren iraganerako begirada dela medio, tradizioarekiko jarrera desberdinak garatzen dituen aritu poetikoa ikusi ahal izan dugu. Bi fasetan banatua, aritze poetikoa literatur tradizioak orainean zukeen baliagarritasunaren ukaziora nahiz eraikuntzara bideratua zela erran liteke. Lehenik, *Zn* eta *En*, euskal literatur tradizioaren hautatze eta ukatze sinkronikoak egin zituen; tradizioak legitimaturik helduak ziren aritu poetikoen adieraz ezintasuna agerraraziaz, lengoaia poetikoaren azterketa historikoa egin zuen, hein batean (Bourdieu 1995 [1992]: 357). Ondotik, *Ob.en* –ukaturiko tradizio horren berrinterpretazioa eginaz–, euskal tradizioaren berrinterpretazioaren arabera eraikiriko euskal mundua sinbolizatu zuen, etorkizunerako eraikuntzan Axular bidelagun hartu zuelarik. Bi faseetan ukatu zuen tradizioak idealizatua zuen estatismoa: *Zko* eta *Eko* langartze saihestezina adieraziaz eta *Ob.en* agertzen zen euskal paisaia tradizionalaren berrinterpretazio kritikoa dela medio.

Halatan, iragan-memoria kolektibora tradizioaren laguntzaz hurbiltzen den idazle gisa ageri da Atxaga, urte tarte horretan; izan ere, Krisi Orokor Ñabartuaren seme diren Atxaga, Sarrionandia eta Juaristirendako (literatur)tradizioa izan baitzen, iraganerako hurbiltze prozesu luzean, zalantzen lehen erdiratoki.

⁷⁸⁶ “Antes me ocupaba del pasado mítico, en el último libro [*Gizona bere bakardadean*, 1993], sin embargo, me he acercado a la actualidad. Antes ofrecía al lector un trozo de sueño, ahora le ofrezco un trozo de vida” (*Argia* 1994-03-06, in Kortazar 2003b: 62).

7.2.2.b. (Literatur)Tradizioa, Sarrionandiaren lanetan: proposamen murriztua

Arestian erran dugu Atxagaren literatur tradizioaren teorizazio eta argudiatzea altxatuena zela; Sarrionandiarena, aldiz, diskurtso ideologiko adina agerikoa da. Bertze bi idazleekin egin gisa, idazle iurretarraren aritua bi fasetan banatu dugu. Lehen fasean, euskal tradizioa unibertsaltasunari begira osotu beharreko tradizio gisa deskribatu zuen: *Ni ez naiz hemengoan* teorikoki garaturiko proposamenaren ildo beretik, tradizio europarraren zantzuak euskal gaietara hurbiltzen dira *Izuen gordelekuetan barrena* lanean; *Izkiriaturik aurkitu ditudan ere poemaken*, ordea, tradizio barreiatuagoetariko olerki unibertsalek egiten dute euskal tradizioaren osotzea. Bigarren fasean, euskal tradizioaren fokua unibertsaltasunera hurbildu behar horretatik, euskal oinarrian ardazturiko lanak helduko ziren: teorikoki *Marginalian* ageri den garapen ideologikoa euskal muga hertsiaigoetara hurbiltzen da; eta, *Marinel zaharraken*, paisaia poetikoak ere euskal izanaren pareko kontsideratzen dituen tradizioetara hurbiltzen dira –bai tematikoki, baita erreferenteen hautaketan nahiz bien konbinazioan ere–.

Hondarreko azpiatalean (“Mailakatzea: erdiratze mugatzailea”⁷⁸⁷), foku mugaketan sumatzen den mailakatzeari erreparatuko diogu. Joseba Sarrionandiaren lekutze ideologikoaren zantzuak aski agerikoak izan arren, helduleku sendoagoa iritzi diogu lanetan ageri den euskal literatur tradizio osotuaren aldeko proiektuaren lausotzeari; zehazkiago, unibertsaltasunak galtzen duen indarrari. Akaso, idazlearen erbestetiko buelta zaila izaki, tradizioaren mugak teorikoki eta paisaia poetikoen gauzapezetan estutu egiten dira; kontserbadurismora joaz, helduleku ziurren eske, tradizioaren islapen hertsiaigoetara bueltatzen da.

1. fasea: proposamen unibertsal osotzailea⁷⁸⁸

Helburu politikoak espresuki aipatzeaz gain, euskal tradizioari⁷⁸⁹ buruz duen ideia aski garbi ageri da *NENH*ko “Tradizioa eta sinkretismoa” testuan (129.-132. or.). Idazlearen formulazioak, adierazpen soilaz haratago, oinarri teorikoa du: euskal eremutik at sortu eta handik helduriko erreferenteen aldeko deia da, unibertsaltasunari ere begira dena. Sarrionandiak *NENH*n proposatzen duen euskal tradizio osotzailea

⁷⁸⁷ Mailaz maila, intentsitate desberdinekin, aldatzen den arituko prozesua deskribatu nahi dugu “mailakatze” hitzarekin.

⁷⁸⁸ *NENH*ren argitalpenen artean aldeak aurkitu ditugu; horregatik, erreferentziazko corpusa 1985eko argitalpena izan arren, aldaketak erranguratsuak diren eta, Pamiela argitaletxeak berak 2006an (*NENH* 2006⁽³⁾ [1985]) atera zuen hirugarren argitalpenari erreferentzia egingen diogu, oin-oharretan.

⁷⁸⁹ Idazleak “euskal tradizio”ari egiten dio erreferentzia, literatur tradizioa ere –7.1.3.ko a.2. azpiatalean aipaturiko barne-elementu gisa ulertuz– aipatzen delarik, bidenabar.

teoria modernistak aztergai izanen lukeen euskal abertzaletasunaren oinarrietatik urrutia; izan ere, modernistek kronologikoki nahiz sozialki moderno gisa identifikatzen duten nazionalismoak (Smith 2004 [2001]: 64) –HEHn, bederen– kanpotiko influentzia eta eraginak alboratu, ukatu edota birformulatu egin zituen, jatorrizko kanpo-loturak ia identifika ezin bihurtu arte, sarri⁷⁹⁰. Sarrionandiaren proposamenak euskal tradizioaren berrinterpretazioa dakar, baina XIX. mendearen akieratik garatuz joaniko euskal ikuspegi zaharraren –eta barne hartzen duen abertzaletasun historikoaren– zutarr nagusiekin bat egin gabe: kanpotiko eraginak, kutsatzaile orde, onuragarri gisa ulertzen dira, *NENHn*; are gehiago, euskal tradizioak berezko lukeen sinkretismoak unibertsaltasunaren oinordetza zilegiztatuko luke (129. or.). Hortaz, kanporako begirada euskal tradizioak antzinagotik berezkoa duen izanarekin bat helduko litzateke: “euskal tradizioa, tipia izan delako agian, besteri begira egon behar izan da, eta beti izan da sinkretikoa”, “euskal kulturak duen gauza handienetarikoa irekitasun hori da, geure baitan tradizio desberdinak batzen direla”⁷⁹¹ (131. or.).

Liburuan, euskara identifikatzen da aberriaren oinarri garrantzitsuenetariko gisa, baita berekin heldu den tradizio desberdinetako jakinduria ere⁷⁹²; hortaz, aberriaren tradizioko elementu garrantzitsu bihurtzen da hizkuntza, eta idazleak, euskal literatur tradizioaren osotze prozesuko langile gisa, aberri horretako literaturari eginen lizkioke ekarpenak⁷⁹³.

⁷⁹⁰ Jatorrizko iturrien moldatzea edozein norabidetakoa izan ahal da: “Montesinos [José F.] observa acertadamente que el concepto de *literatura popular* utilizado por Trueba descansa sobre un equívoco: // ‘Trueba afirma como literatura popular, alternativa o simultáneamente, dos cosas contrapuestas: la literatura hecha *por* el pueblo, la literatura escrita *para* el pueblo.’ // Esta confusión, y el papel que a sí mismo se asigna de «literato popular», le lleva a tratar los escasos materiales tradicionales que utiliza en sus obras con una absoluta falta de respeto. Guiado por su propósito moralizador, Trueba recorta, selecciona, mutila y reelabora hasta hacerlas irreconocibles las fuentes folklóricas de sus relatos. Su cacareada admiración por las tradiciones populares no pasa de ser, como pone de relieve Montesinos, un gesto retórico” (*Aitor*: 141-142) (azpimarrak ez dira gureak). Juaristik ematen duen erreferentzia: Montesinos, José F., 1970, *Ensayos y estudios de literatura española*. Madril: Editorial de la Revista de Occidente, 229.

⁷⁹¹ Pamielak 2006an atara zuen argitalpen berrian, “zuzendurik” den horretan, bertzela formulatzen da: “Euskal kulturak duen gauza interesgarrietakoa irekitasun hori da, ene ustez, tradizio desberdinak jasotzearena” (*NENH* 2006⁽³⁾ [1985]: 135).

⁷⁹² “Euskaldunen aberria euskara da, aberria ez da hizkuntza bakarrik, baina hizkuntza bai, eta hizkuntzaren bidez jaso ditugun tradizio guziak” (*NENH*: 130). Berriz ere, 2006ko argitalpenean, desberdin ageri da: “Euskaldunen aberria euskara da: aberria ez da hizkuntza bakarrik, baina hizkuntza da eta hizkuntzaren bidez jasotako jakituria eta jokaerak” (*NENH* 2006⁽³⁾ [1985]: 133).

⁷⁹³ Bertzerik da hizkuntzaren hautaketa literatura zehatz bati eginiko ekarpena ote den: “Es más, como el bilingüismo o el multilingüismo no ha sido a lo largo de la historia occidental una condición en absoluto minoritaria, sucede que un espacio singular puede encerrar más de una lengua y por lo tanto, según piensan algunos, más de una literatura. Si un territorio es bilingüe o multilingüe, puede muy bien ocurrir que quienes viven y escriben en él tiendan a sentir que contribuyen a una sola literatura nacional” (Guillén 1998: 302).

Euskarari “esleitzen” dion zamak, ordea, ez dio bertze hizkuntzetako tradizioetatik edan ahalari trabarik egiten. Sarrionandiak hizkuntzan mugarik ez ikusteak XIX. mendetiko ikuspegi zaharrak, abertzaletasun historikoa gunen zuenak, defendatzen zuen euskal tradizioaren izanetik urruntzen du iurretarra –beraz, teoria modernistak modernitate prozesuarekin loturiko nazio eta nazionalismo moldeetatik urruti kokatzen–; Sarrionandiak lehen fasean defendatzen duen tradizioaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa urruti legoke XIX. mendearen akieratik aitzina gailendu zen euskal tradizioaren ikuspegi abertzaletik.

Euskal tradizioaren oinordetzaren zutarrari nagusitarikotzat hizkuntza jarriaz, hizkuntzak tradizioan berezko dituen funtzio biren balioa biderkaturik ageri da: batetik, hizkuntza bera baita identitate erreferente bihurturiko elementu eta ezaugarria; bertzetik, hizkuntzak bere duen eduki garraiatzaile nahiz gordetzaile funtzioa⁷⁹⁴. Beraz, iurretarrak hizkuntzaren eta tradizioaren arteko harremana maila biko gisa deskribatzen du: erreferente beregainen nahiz bertzelakoen edukiontzi gisara. “Gure”⁷⁹⁵, euskaldunon, oinordetza euskal tradizioaren eta tradizio unibertsalaren konbinaziotik eratorria dela proposatzen dugu; ondorioz, bi tradizioek osatu eta oinarritu ahalko lukete, potentzialki, 1975etik aitzina Potteko eta Ustelako kideekin –eta 80etan zehar, teorikoki nahiz praktikoki– gauzatuz zihoan euskal literaturaren ulertze berria.

*NENH*n azaltzen duen euskal tradizio osotuaren aldeko gauzaren teorikoa bi mailatan islatzen da, poetikoki: lehenik, Europako erreferentziak aritu pertsonalera ekarriaz (*IGB*) eta, ondotik, tradizio unibertsal zabalagoko ahotsak norberarenak gisa identifikatuz (*IEP*). Literatur tradizio zabaltasuna areagotu egin zen *IEP* lanarekin, bertan bildu baitzituen idazleak bere kasa leituak zituen munduan barnako olerki europar, amerikar, txinatar, ekialdeko nahiz klasiko latindarrak⁷⁹⁶. Hala, euskal tradizioaren proposamen unibertsalak literaturan duen islarekin, euskal literatur tradizioa unibertsaltasunaren oinordeko bihurtzen da: “Gure aurretiko fidelitasuna,

⁷⁹⁴ Steinerrek hala biltzen zituen, *Extraterritorial* liburuan, lengoaiaren ahalmen mugatzaileak: “Nuestra lengua es una ventana abierta a la vida: determina para el hablante las dimensiones, la perspectiva y el horizonte de una parte del paisaje total del mundo” (93. or.).

⁷⁹⁵ “Gure euskal tradizioaz gainera, tradizio unibertsalaren oinordeko gara” (*NENH*: 130).

⁷⁹⁶ “Poesia primitiboa”, Atharva Veda, “Epigrama helenikoak”, T. Lucretius Carus, Quintus Ennius, Caecilius Statius, C. Valerius Catullus, C. Petronius Arbiter, M. Valerius, Martialis, Q. Horatius Flaccus, “Irlandar anonimo zaharrak”, Tu Fu, “Kharja anonimoak”, Mahammed Al-Kali, “Anonimo txinoak”, Omar Kheyyam, “Anonimo anglosaxoia”, “Jermaniar anonimoa”, Walther Von Den Vogelweide, “Haikuak”, Herman Melville, “Ifar Amerikako indioen hondamena”, Charles Baudelaire, R.M. Rilke, Fernando Pessoa, Apollinaire Babiol, Konstandinos Kavafis, Lucian Blaga, W.B. Yeats, Jean Arp, W.H. Auden, Cesare Pavese, Dylan Thomas, Vladimir Holan, Adrian Henri, Christine Billard, Bobby Sands eta Eugenio de Andrade.

munduarekiko ere fideltasunaz osotu behar da” (*NENH*: 131). Hortaz, nagusiki tradizio europarretik edaten zuen idazketa izatetik, mundu osotiko olerkiak bere gisa sumatuak zituen olerkari gisa agertzeraz jo zuen Sarrionandiak. Bertzela erranda, Aro Ilunaren eraginez areagoturiko isolamendua murriztu egin nahi zen, euskal kultura geografikoki urrunagoak ziren herrialdeen iruditerien eta bizien parera eramanez; hau da, gaugeroko *Ek* abian jarritako mendebaldeko literaturaren aztarnari jarraitu, literatur tradizio eraginaren mugak zabaldu, eta euskal literatura erakundetze bidean kokatu.

Ikuspegi horren arabera, kulturaren jatorriak ez luke tradizioaren izana baldintzatuko; kontrara, jatorria dena delakoa izanik ere, non eta nork txertatzen duen litzateke kontua, erabilera zein gizarte taldek egiten duen. Hala, bada, jatorri anitzeko –“sorkuntza gune” zentzuan– tradizio adabakiak –literaturazkoak, kasu– edozein kolektibitatek onartu, eta bere egiten ditu, erreferentzia kolektiborako tresna bihurtzen direnez, kultura kolektiboaren erakusle eta oinarri gisa; hein berean, talde horretako tradizio bihurtzen da.

Planteamendu horren alderik baliotsuenetakoa indar hedakorra da; izan ere, ez dio soilik proposamen sortzaile garaikide bati erreferentziarik egiten, ordura arteko euskal tradizioa berrirakurtzeko eta birformulatzeko saioa ere bada. Sarrionandiaren proposamenak dakarren begirada gibelerakoa nahiz aitzinerakoa da: euskal tradizio garaikidearen hautaketan, iraganeko tradizioko corpusean nahiz etorkizunerako ikuspuntuetan aldaketak sortzen ditu. Teorikoki euskal tradizioari buruz, orokorrean, ari bada ere, praktikoki jakituria unibertsalaren oinordetza euskalduna dakar, *NENH*n biltzen diren testu aunitzetan; eta, era berean, euskal literatur tradizioaren gauzapean poetikoak lantzen dira *IGB*n eta *IEP*n. Hondarreko biek, literatur tradizioa begirada zabalaz hornitzeaz gain, ordura arte onartu gabeko elementuz osatua dela, eta behar lukeela, aldarrikatzen dute; horregatik, tradizio unibertsal horren eraginaren oinordeko liritekeen literatur lanak sortzeaz gain, iraganeko erreferenteak kuantitatiboki gehiago izanen liriteke. Hortaz, euskal literatur tradizioa osatzen duen corpusa berria litzateke.

Laburbilduz, euskal tradizioa osatzen duten osagaien izate desberdinarekin, euskal tradizioaren antolatze berriaren aukera agertzen da, baina euskal literatur tradizioaren berrantolaketa barneratzen duen Krisi Orokor Ñabartuak bideraturiko eraikitze testuinguruan garatua. Planteamendu hori dela medio, literatur tradizioa hurbilduz, euskararen erabilera eta euskarazko literatura nahiz idatzien izana eremu zabalagoi begirakoa nahiko liriteke. Tradizio unibertsaleko aritu eta jakinduria –bere oinordeko

den aldetik– bilduko duten euskara, literatura eta euskal idatziak, hain zuzen. Garaiko gizarteari egokitzen zaiona, beraz: “egungo kulturaren ezagugarririk funtsezkoenatariko bat *sinkretismoa* da, esan nahi da, iturri edo etorri desberdinetatik jasotako jakintzen eta usadioen elkarketa, tradizioen nahastea” (*NENH*: 131, azpimarra ez da gurea)⁷⁹⁷.

Idazlearen proposamena iraganeko tradizioaren berrantolaketa teoriko eta poetikoaren aldeko apustua da, lehen fase honetan: teorikoki, *NENHn*, eta, poetikoki, *IGBn* eta –bereziki– *IEPn*, bere egiten baititu ahots unibertsalek biltzen dituzten literatur tradizioak.

2. fasea: unibertsaltasun murriztua

Bigarren fasean, literatur tradizioaren interpretazio itxiagoa egiten du, edo, hobe erran, aukeratzen du idazleak: lehen fasean aldarrikatzen zen unibertsaltasun zabalaren aldean, *Mn*, euskaldunendako literatur tradizioa bahetuago ageri da garatua, eta bahe berari jarraikiaz, poetikoki gauzatua, *MZn*.

M da teorikoki ikuspegi aldaketa hori nabarmen biltzen duen liburua. Bertan, Víktor Borísovich Shklovski-ri buruz ari delarik, hark proposatzen zituen hiru arrotzek –estrainatzeak– azaltzen dira (112. or.). Batetik, “errealitatea modu berezi baten berkiatzen” denean sorturikoa: maila honi legezkiok, idazlearen ustez, *Harri eta Herri*, *Haur besoetako* (Jon Mirande, 1959, baina 1970a arte argitaragabea), *100 metro* eta *Etiopia*. Bertetik, “hizkuntzaren erabilera amankomun eta arruntetik apartatu egiten da autorea. [...] norma linguistikoaren aldamenetik lengoia inedito bat sortzeko”; hala, Gabriel Aresti eta Jon Miranderen arituak adibide gisa hartzen ditu: “lengoia propio hau fundatzea lortu zuten”. Hondarreko arrotze gisa, “tradizioarekiko, arau estetiko dominanteekiko erreakzioa”, “Gabriel Arestik, adibidez, estiloa tankera klasikoan sinplifikatuaz lortzen zuen oharmena berriztatzea”.

Sarrionandia hondarreko estrainatze motaren praktikatzaile dela erran liteke; hain zuzen, denborak ematen duen ikuspegiari eskerrak, 1975etik 90eko hamarkadara arte Sarrionandiak tradizioarekiko, ordura arteko arau menderatzaileekiko, erreakzioan parte hartzen duela ikus baitaiteke. Arrotze horren izana, ordea, aldatu egin da, *NENHn* proposatzen zen tradizioaren interpretaziotik *Mn* proposatzen denera. Hondarrekoan, idazlearendako aukeraturiko zereginaren arabera, euskaldunendako literatur tradizio

⁷⁹⁷ “Gaur egungo kulturaren ezaugarria da *sinkretismoa*, esan nahi da, iturri edo etorri desberdinetatik jasotako jakintzen eta usadioen elkarketa, tradizioen nahastea.” (*NENH* 2006⁽³⁾ [1985]: 134) (Azpimarra ez da gurea)

proposamen propioa egiten du iurretarrak: “Idazlearen baitan batzutan bi aldeetatik⁷⁹⁸ bat, kara ala buelta, nagusitu egiten da, bestetan bi aldeok ados heltzen dira, bestetzutan idazleak urradura legez bizi behar du zation arteko tentsioa” (*M*: 82). Hala, fase honetan, bigarren joera gailentzen dela iduri du: literatur tradizioko erreferenteen aukeraketa idazlearen konpromisoak oinarritzen baitu. Idazlea bigarren “alde” horretan kokaturik, militantziaren helburuetatik hurbilagokoa den diskurtsoa eta, beraz, literatur tradizioa hautatzen ditu.

“*Euskaldunendako* literatur tradizio” gisa izendatu dugu idazleak proposatzen duen tradizioa; ez, ordea, “*euskal* literatur tradizioa” –berariaz egin ditugu azpimarrak–. Izan ere, proposamenak, *Mn*, bi alderdi desberdin garatzen ditu. Batetik, lehen fasean proposaturiko unibertsaltasunari eusten dio; hau da, euskal jatorriko zenbaitez gain –Pedro Axular, Jon Mirande, Gabriel Aresti...–, erreferente unibertsalak ere hurbiltzen dira –Gustave Flaubert, Ezra Pound, T.S. Eliot, Fernando Pessoa, Jorge Luis Borges...–. Bertzetik, jatorri aniztasuna onartzen den arren, izate zehatzaren inguruan babesa bilatzen duen corpusa hautatzen du idazleak jatorri aniztasun horretarako, baita hainbaten hobestea markatzen ere; bahea erreferente horien boterearekiko harremanak markatzen du, boterearekiko erlazioen borrokan marjinaltasunaren alde egiten delarik. Horregatik, *Mn* erraten denaren arabera, idazleak proposatzen duen tradizioak “euskal” izanaren baitakotzat den marjinaltasunarekin bat heldu diren idazle, jarrera eta arituak bildu beharko lituzke:

euskal literatura delittoa da; euskal nazioa eta euskal literatura eraikitzearen delittoa partaideak garez gero asumitu behar dugu gure errealitate politiko-kultural berezia, dramatikoa, gure marginazioa, gure arteko elkartasun derrigorrezkoa (*M*: 119)

Hala, euskal munduaren erlazioen eta partaidetzaren mugak maila guzietan lirateke marjinaltasunak ezarriak:

Guk ezin dugu pentsamendu unibertsaleko metodo eta sistemak moda legez asumitzen dituen kritika moeta proposatu, gure errealitate hestuen baldintza objektiboak haintzat hartzen ez dituelako” (*loc. cit.*).

⁷⁹⁸ Idazle eta politiko ofizioen arteko aldeez ari da: “idazlearen perspektibak ez dira politikoarenak bezain definitu eta zehatzak, idazlea analitiko eta konprentsihoa da, politikoa sintetikoago eta sektarioagoa den artean. Idazleak bere gisa iharduteko eta bere obraz zerbait berri sortzeko libertatea du, politikoa proiektu kolektibo bati atxeki behar zaio, militante bat gehiago besterik ez denaren apaltasunarekin” (*M*: 82).

Mirande⁷⁹⁹ eta Poe, kasu, “beren garaiko literaturaren kontrako espaloian jarri” zirelarik (*M*: 131), euskal erreferente nahiz erreferente unibertsalen adibide arketipo gisa aukeratzen ditu⁸⁰⁰.

Jarrera mugatzaile horrek tradizio proposamena bi alderditarik hertsia dela adierazten du. Batetik, goiti erran gisa, tradizioaren partaide izateko aukeratuei dagokionez; bertzetik, tradizio hori bera hartzaile arketipo batendako eraiki eta hautatu izana ageri baita: euskaldun abertzalearendako printzipioz edo, gutienez, Euskal Herriaren marjinaltasuna Sarrionandiak planteatu gisa bizi dutenendako. Horregatik, euskal literatur tradizio berezia proposatzen du, unibertsala dena, baina marjinala; beraz, bigarren fasean, euskal egoeraren izanak –harekiko egokitzapenak, parekotasunak– baldintzatzen du euskal literatur tradizioaren izana.

Laburbilduz, tradizioaren hautaketan, lehen fasetik bigarrenera, foku aldaketa izan zela ikusi ahal izan dugu: literaturan ardaztua izatetik, fokua militantzian izatera pasata, halaberrez sumatzen da militantzia hautatu horrek zekarren corpusaren izaera hetsigoa. Bigarren fasean, “euskal” izateak zekarrenean ardaztu zen idazlea, ez *NENHn* aldarrikatzen zen unibertsaltasunean; arreta euskal izanaren marjinazio eta tikitatsunean jarriaz, ezaugarri horien arabera aukeratu beharreko eraginen nolakotasuna zehaztu zuen: “Marginazioan, delitoan, konplizitatean. Historiako zapalduen eta errebeldeen harian bilatuko dugu gure tradizioa, errebelatuez gero zapalketaren astuna duintasun bihurtzen dela jakinaren gainean” (*M*: 120-121). Beraz, bilatu beharreko kanpoko tradizioen erreferentzia ezinbertzean zen kuantitatibo eta kualitatiboki lehen fasean baino mugatuagoa: euskaldunen marjinazio –gutitu– izanari egokitua. Jarrerak baldintzatuko zuen tradizioko partaide gisa aukeratua izatea; zehazki, erreferenteak marjinaltasuna –boterearekiko harremanak islatuko zukeen marjinaltasuna– izateak edo ez izateak erabakiko luke. Beraz, literatur tradizio unibertsala bi alderditarik mugatua

⁷⁹⁹ “Jon Miranderentzat berdin [Poe aipatu du arestian], bere poemak ez dira errealitatearen interpretazioa baizik eta ihesa. Bere jarrera, amerikarraren kasuan bezala, giro sozialarekiko erreakzio bat izan zen” (*M*: 131); “Poesia, inguruko gizarte mingotsetik alde egiteko modu bat da. [...] beti mugan. Euskal literaturaren historian Jon Mirande halako autore mugausle bat da. Bere biografiari, bere ideologiari, bere mintzairari, bere gaiei, bere perfekzioaren bilakaerari dagokionez, Jon Mirande muga-idazlea da, marginala” (*M*: 132).

⁸⁰⁰ “Euskal idazle inportante ia guziak, bakoitza bere haroan eta bere mezuarekin, organikoak izan dira: Nikolas Ormaetxea, Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga euskal munduaren fruituak dira. Jon Mirande ez da organikoa, poeta intelektual eta agonista bakartia da. Euskal munduaren azken mugatan sortu eta biziaz, erreakzio ideologikoaren luebakietan [*sic*] sartu zen, hizkera literario ia propio bat laboratu, eta euskal gaien mugak hautsi zituen. Bere obrek, berriz, utilitate marginala besterik ez dute.” (*Loc. cit.*)

zen, hondarreko aldian: hartzaile eta aukeraturiko tradizioko partaide horien izanari dagokionez hertsia.

Mailakatzea: ardazte mugatzailea

Azpiatal honetan, Sarrionandiaren bakarkako ibilbidean bi fase banatu izanaren arrazoi nagusiaren berri emanen dugu, fokua literatura unibertsalaren rol osotzailean jartzetik, alderdi militantean jartzera igarotzen baita. Segidan, eraldaketa horri jarraiki, *MZ* olerki bilduman ageri den mailakatzeari erreparatuko diogu.

Lehenik, ordea, Sarrionandiak 1990era arte argitaraturiko bi olerki bildumen arteko desberdintasunei erreparatuko diegu, *IEP* eta *MZ* liburuen bilduma izanak lehen edo bigarren faseko ardazteen harian kokatzen baititu. Aldea begien bistakoa da. Lehenean, *IEPn*, idazle unibertsalen ahotsen bilduma izaki, Sarrionandiak berak itzulpena ematen die olerkiei, ahots unibertsal horiek beretze prozesuan; hau da, *NENHn* aldarrikatzen den tradizioaren unibertsaltasunari atxikitzen zaion bilduma da. Bigarrenean, *MZn*, ordea, ahots poetikoa Sarrionandiarena da, indibidualagoa, eta *Mko* planteamendu ardaztua bi modu nagusitan gauzatzen da, bertan: gaitegiaren, kartzelaren eta erbestearen esperientzia pertsonalaren presentzia dela medio, militantziara aunitzez hurbilagoa da; gainera, hautaturiko erreferenteen izana sarri hurbiltzen da bigarren fasean aukeratzen den marjinaltasunera.

Mailakatzeari dagokionez, *IEP* muga liburua da: 1985etik aitzina izkiriartzen dituen lanetan, gaitegi eta erreferenteen mundua mugatuagoa da, ardaztea “euskal” izanean eta bizipen indibidualetan jartzen delarik. Hau da, bigarren fasean sumaturiko aldaketa larritu egiten da. Alabaina, larritasun horren isla poetikoa *M* argitaratu aitzinetik –bigarren faseko joera, teorikoki, markatzen duen liburuaren aitzinetik– hasten da; izan ere, eraldatze teorikoa *MZn* da praktikoki eta mailakatze bidez –mailak aldatuz– islatua.

Arestian ikusi dugu euskal izanak berezko duen irekitasuna argudiatzen duela *NENHn*; *Mn*, ordea, “euskal” horrek bertzelako ezaugarriak barne lituzke, eta, beraz, tradizio desberdin batek islatuko luke ezaugarri horien bilketa. Hortaz, teorikoki euskal tradizioaren osotzea garatzen den bi liburuetan, “euskal” denaren ulertze bana da:

NENH: tikitason eta marjinaltasunak sinkretismoa ekarriko luke, eta honek irekitasuna justifikatuko⁸⁰¹.

M: “euskal” izanak barneratzen duen tikitason eta marjinaltasunak tradizioaren izana, partaide aukeratuak eta hartzaileak mugatzen ditu.

Euskal tradizioaren tasun berak inplikazio desberdinak ditu, fase bietako garapen teorikoan eta praktikoan. Idazlearen jarreran nagusi den “alderdia” aldatu egin da –oroitu idazlearen baitako “kara ala buelta” direlakoak (*M*: 82)–, sorkuntza poetikoetan mailakatzea dela medio azaleratzen delarik konbertsio hori. Maila teorikoan bertan, bada aldaketa horren sostengu argudiaturik, “euskal” izanak ezaugarri desberdinak bilduko bailituzke fase bakoitzean garatzen den euskal tradizioaren deskribapenaren arabera.

MZn hiru azpiatal banatzen dira, bakoitza garai bateko idazketari lotua: “Tren luze eta bustiak” (1985-1986), “Gartzelako poemak” (1980-1985) eta “Izuen gordeleketan barrena” (1978-1980). Lehen atala aitzinetik argitaratu gabeko olerkiek osatzen dute, baina bertze biak gaurgero *IGBn* edo aldizkarietan argitaraturiko olerkiak dira⁸⁰². Banaketa kronologiko soila baino gehiago, sailkapena da, guretako, hagitz adierazgarria; izan ere, diferentziak sumatzen dira aitzinez argitaratu eta berriz ere errepikatuak izateko aukeratu diren olerkien izanaren eta berriak direnen artean.

- “Izuen gordeleketan barrena” (1978-1980): berrogei olerkiz osatua, horietarik zortzitan europar literaturako erreferenteen aipamen zuzena egiten da (olerkien laurdenean, guti goiti beheiti: 62⁸⁰³, 63, 65, 68, 70, 86, 92, 97). Hautaketaren prozesuarekin berarekin, ordea, jatorrizko *IGBn* zen osotasun zentzua galdu egiten da: fokua Europatik barnako inimizazio-bidaian ezarri beharrean, bazterreko pertsonaien ugaritasun eta izanean ezartzen da (eskale elbarriak 61, 66; bizi marjinalako gizontxoak 71; itsuak 78; putak 82, eroak 94 eta abar); hautaketak berak olerki liburu

⁸⁰¹ *NENHn* mugak ez ziren hetsizaile edo isolatzaileak: “Guzion zale eta guzion oinordeko gara, gure kulturak guzietarik edan duelako eta guziak eutsi nahi ditugulako”, “Euskaran eta euskal kulturaren ditugu erroak, baina erroak ez dira hersteako, baizik eta beste erro batzutara irekitzeko. Euskaldunak izaki, mundua da gure bizitzaren eskenarioa” (132. or.); “Euskal literatura ere euskalduntasunaren ispilu sakratua da, edo irudia bederen. Inguruko beste literaturen mimesiez eraiki da gure santuario tipia, haienak baino tipiagoa, adreilu faltagatik, baina haien santuarioaren arkitektua [*sic*] moldez” (194. or.).

⁸⁰² Sarrionandiak berak ematen ditu, gibeledako azalean, olerkien idazte garaiari buruzko azalpenak (*MZ* 1987).

⁸⁰³ Zenbakien erreferentziari dagokionez, atalez atalkako banaketa alde batera utzirik, lehen olerkitik hasi eta azkenera arte zenbaki bana egokitu diegu olerkiei –Elkarrek 1987an argitaratu zuen bertsiolari jarraiki, beti ere–.

originalarekiko inplikutzen duen langartzeagatik beragatik, ziur aski. *IGB*ko olerkien aukeraketarekin, fokua Europatik barnako bidaian izatetik indibidualtasunean finkatzera aldatu da.

- “Gartzelako poemak” (1980-1985): 34 olerkiz osatua, horietarik hamarretan erreferentzia zuzena egiten zaie idazleei; eta, tematikoki, hamazazpi olerkitan ageri dira kartzela (26, 29, 31, 36, 40, 50, 53, 54, 55, 56, 59) nahiz –euska-, -armatu edo parekide diren– borrokaren gaiak (27, 34, 35, 41, 45, 57). Literatura unibertsaleko erreferentzien eta gaitegiaren arteko erlazioari erreparatuz, zera ikusten dugu: olerkietarik bi herenek⁸⁰⁴ egiten diotela erreferentzia literatura unibertsalari, baina, horietarik hiruretan, unibertsaltasuna kartzela bizipenari egokitua da (30, 32, 40), eta, bertze lauretan, aberriaren nahiz kartzelaren gaitara jotzen du (38, 45, 55, 59). Beraz, literatur erreferentzia unibertsalen presentziak zama galtzen du “euska” egoerarekin lotua den gaitegiaren alde –Sarrionandiaren ikuspegiaren arabera, bederen–.

- “Tren luze eta bustiak” (1985-1986): 25 olerkiz osatua, bederatzitan egiten zaie erreferentzia zuzena idazleei; eta, gaiei dagokienez, hamazazpi dira erbestea (1, 11, 15 eta, lausokiago, 4, 8, 24), borroka armatua (5, 7, 13, 16, 17, 18, 19, 20, 22) eta kartzela (2, 9) lantzen dituztenak. Erreferentziaren eta gaitegiaren arteko harremanari erreparatuz, kasuetarik kasik %50 “euska” errealtateari lotua izateaz gain (7, 9, 11, 16, 21), bederatzi erreferentzia literario unibertsaletatik bi –modu desberdinetan– marjinaltasunetik gertu diratekeen idazleak dira (3, 23; beraz, *Mn* aldarrikatzen den euskal literatur tradizioan sartu beharko liratekeenak). Gainerakoak “euska” egoerarekin tematikoki lotuak dira. Beraz, literatura unibertsaleko erreferentzien zama galdu egiten da, “euska” borroka-ideologiaren mesedetan.

Erranak bilduz, Sarrionandiak lehen fasean proposatzen zuen euskal tradizio osokuntzaren aldeko saioa euskal literatur tradizioaren hautemate aldaketa prozesuaren baitan ulertu behar dugu. Krisi Orokor Ñabartuak euskal literatur tradizioari buruz azaleraziriko auziak eskaini zituen bide berrietan abiatu zen idazlea; alabaina, denborak aitzina egin ahala, proposamen horren isla poetikoak muga hertsia goetara biltzen ziren paisaiak margotzen zituen. *Mn*, “euska” izanarekiko erlazioan, marjinaltasunarekin lotuak zirenak aukeratu zituen literatur tradizio indibidualleko kide gisa, eta ideologia

⁸⁰⁴ 40. olerkia da bi multzo horietarik aldentzen den bakarra.

zehatza konpartitzen zuten euskaldun abertzaleendako euskal tradizio gisa proposatu. Hala, Sarrionandiak bigarren fasean proposatzen zuen literatur tradizioak, hartzaile eta erreferenteei dagokionez, lehen fasekoak baino muga hertsiagoak zituen –euskaldun abertzaleak, marjinalak eta euskal izanaren oinarri parekoei lotuak–. Ezaugarri horien arabera sortu zituen olerkiak, gehienbat, *MZ* bilduman sorkuntza berriak zituen “Tren luze eta bustiak” azpiatalean dira. Mailakatzea, ordea, hiru atalen erkaketan sumatzen da, hobekien: *IGB*ko hautaketak literatur tradizio europarraren garrantzia langartu egiten du; eta, 1980tik aitzina idatziak izan ziren bertze bi ataletan, erreferentzia unibertsalak *Mn* bilatzen ziren literatur tradizio parametroetara hurbilduak dira. Beraz, *MZ* liburuan biltzen ziren azpibildumetarik lehena *Mn* garaturiko literatur tradizio bahetuaren irizpideetarik hurbilenekoa da; tradizioaren indarra, fokua, hizkuntzan eta literatur tradizioa dela medioko osotzean ardaztua izatetik, botere harremanetan oinarritzen zen izaeran baita oinarritua: marjinala vs zentroa dikotomian. Beraz, dikotomia horretan oinarrituriko olerkiak sortu zituen Sarrionandiak ere, euskaldunendako tradizioaren gauzapean eta ekarpen banako gisa.

7.2.2.c. (Literatur)Tradizioa, Juaristiren lanetan: dekonstrukzioa

Juaristik hiru elementu nagusiren kontraposizioan oinarrituz –euskara, euskal nazionalismoa eta tradizioa–, fokua euskal tradizioan diren jatorri espainiarreko elementu eta erreferenteen bermatzean jartzen du. Historian zehar apologista nahiz nazionalistek kanpoko eraginak “kutsadura”tzat⁸⁰⁵ hartu zituztela azaldu (*LV*: 100; *Aitor*: 389), eta, bazterturiko eraginaren oinordetza edo nazionalista-apologisten kontraposizioan oinarrituriko identitatea ukatuak direla iritzirik, errefusatuak deritzen baldintzak osatzeko beharrezko den tradizioa agertzen du –oroitu 741. eta 742. oinoharretan Aranzadik deskribaturiko identitate aldaketari buruz errana–. Horregatik, lehen faseko Sarrionandiaren nahiz Juaristiren planteamenduek, hein batean, ildo berari kontra egiten diotela iduri du; hau da, jatorri desberdinetako iturrietatik, tradizioetatik, edaten duen euskal tradizioaren sinkretismoa onartzen ez zuen tradizioari. Bakoitzaren “jatorri aniztasuna”, sinkretismoa, diferenteki markatua da, ordea: Sarrionandiaren azalpenean Juaristik argudiatutako tradizio asmakuntzaren ikuspegia falta da, eta azken

⁸⁰⁵ Aranak, hizkuntzari dagokionez, aukeraturiko purismoaz: “El pensamiento –o, mejor aún, la ideología lingüística de Arana– se caracteriza por un rígido logicismo y por la voluntad de depurar al euskera de todos sus componentes románicos, que, equivocadamente, juzgaba de origen castellano” (*LV*: 89). Purismo haren eraginak gizarte orokorraren eta literatur eliteen artean izaniko aldeez, ikus *ibid.*: 90-91.

honek, unibertaltasunaren aldarrikapenera baino gehiago, espainiar helduleku “legitimora” jotzen du.

1. fasea: teoria modernistaren islapenak

Lanen interpretazio azalekoena soilik eginaz, euskal literatur tradizioari buruzko teorizazioa bertze helburu nagusiago baten bidenabarreko makulu dela ageri da. Gai horri zuzenkien heltzen dion liburua *El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca* izan zen. Bertan, “euskal identitate modernoaren”⁸⁰⁶ jatorri asmatuaren oinarriak aurkitu nahirik, identitate horren agertze eta finkatzean, asmakuntza prozesuan, literatur islapenek izaniko eragina miatzen du; horretarako, euskal identitate modernoaren oinarrian euskal tradizioa asmatua dela frogatuko lukeen literaturaren barnako bidaia egiten du⁸⁰⁷. Euskal tradizioaren jatorriaren eta sorkuntzaren ustezko betierekotasun nahiz sinbologiak deskodetu eta “egiazko” muntaia historikoaren ardatzean kokatzen ditu egileak. Pieza horien jatorria agerian uzteak, ordea, ez lituzke balioetsiren, argituko baizik; hala, literatur tradizioko pieza horien nondik norakoak aztertu ondotik, XIX. mendearen erditiko euskal tradizioaren berrinterpretazioa egiten du idazleak –A. Xahoren (1811-1858) lana ezartzen du mugarri–.

Ikuspegi desberdin horrek euskal literatur tradizioari buruzko interpretazio berrirako aukera eman zuen: tradizio hautatuaren berrantolaketarako, zehazki. Modernitatearen prozesuarekin batera garaturiko euskal tradizioaren ukapenak⁸⁰⁸ bertze tradizio batzuetara hurbiltzen du Juaristi; tradizio europarrera hurbiltzeaz gain,

⁸⁰⁶ Oroitu 7.1.3.ko b.2. azpiatalean identitate honi buruz errana (741. oin-oharra).

⁸⁰⁷ Claudio Guillének agertu zuen –776. oin-oharrean aipatu gisa– Juaristik harturiko bide teorikoa ez zela bakana izan, Mainerrek ere ekin ziola helburu teoriko bereko lanari; are gehiago, bertze halako lan gehiago ere beharko lirakeela aipatzen du (1998: 314). Hau da, literatura nazionalen asmakuntza bideak aztertuko dituzten lanak beharrezko direla. Hitz horiekin, Guillének berak kokatzen du Juaristiren partaidetza Espainiako bertze arituen harian den lan gisa. Literatura nazionalaren asmakuntzaren tesiak euskal literatur tradizioari buruz Juaristik eginiko ekarria agerian uzten du: “Lo importante es que el siglo XIX, desde los primeros años románticos, se imaginó la Edad Media que le convenía. Los novelistas históricos fueron los adelantados de esa lucha romántica y posromántica por crear el tipo de tradición histórico-legendaria que Jon Juaristi ha puesto de relieve para el País Vasco en *El linaje de Aitor* (1987). Juaristi destaca con vigor este itinerario «invencionista», generalmente reaccionario, nostálgico del Antiguo Régimen y, aún más, de un idílico pretérito basado en un conjunto de hazañas y tradiciones apócrifas” (*ibid.*: 323-324).

⁸⁰⁸ “Acaso corresponda a nuestra generación, que ha dilapidado los mejores años de su juventud en prolongar la guerra vascocántabra contra unos fantasmales romanos, la tarea de sacar a nuestro pueblo de su letal ensimismamiento. Será preciso, para ello, que muera nuestro pasado y, con él, todas las ensoñaciones románticas que han distorsionado trágicamente la imagen del pueblo vasco. La Historia, ha escrito Cioran, es inseparable de la decepción, pero tal vez en ello estriba su grandeza”, “nuestra autovisión contemporánea sí data. Nuestro linaje, el linaje de Aitor, data del año 1836, año en que un oscuro libelista llamado Joseph-Augustin Chaho comenzó a soñar nuestra pesadilla” (*Aitor*: 290).

Espainiakora, bereziki. Berrantolaketa, ordea, helburu nagusiagoen testuinguruan kokatu beharko dugu.

Tradizioaren ikuspegi horrek teoria modernistari dagokion planteamendua islatzen du. 1.3.2. atalean eta 7.1.3.ko b.4. azpiatalean aitzinatu gisa, teoria hori historiaren ikuspegi sozioestruturalistan kokatua da, eta nazioak modernizatzeko prozesu historikoari loturiko asmakuntza berriak direla onartzen du. Juaristik euskal tradizioari teoria modernista-konstruktibistaren ikuspegitik, espresuki, behatzen dio, barietate honi⁸⁰⁹ jarraiki eginiko ekarpen teoriko nagusia *Aitor* izan zelarik. Olerki liburuetan ere nabariak dira euskal tradizioaren interpretazio modernista-konstruktibistaren zantzuak; *Diario del poeta recién cansado*, *Suma de varia intención* eta *Arte de marearen* Paradigma Modernoaren teorizazioak bi isla ditu. Alde batetik, (a) premisa modernista nagusiekin bat etortzea: fokua asmakuntzan jarriaz, nazio-nazionalismoak kuantitatiboki nahiz kualitatiboki berriak direla garatzen da; bertzetik, (b) idazleak euskal memoria toki⁸¹⁰ kolektiboenganako ageri duen jarrerak lotura horren berri ematen du.

(a) Teoria modernista

Berritasunaren argudiaketari dagokionez, konstruktibismoaren ideia bera da erakusgarri garbiena: nazio-nazionalismoak berriak izateaz gain, espresuki azpimarratzen du Juaristik gizartearen eraikuntza asmatuak izatea (Hobsbawm 1983⁸¹¹, in Smith 2000b [1998]: 218; Smith 2004 [2001]: 66). Tradizioaren asmakuntza defendatzen duten adibide argienetarikoak “Spoon River, Euskadi”⁸¹² (*Suma*) eta “En torno al casticismo” (*Arte*) olerkiak dira: gurasoek gezurra erran izanari tribuaren antzinatasunari buruzko ironia gaineratzen zaio, eta, Edgar Lee Masters-en *Spoon River Anthology* (1915) originalarekiko parekotasuna ezarriaz, faltsutasunari⁸¹³ erreferentzia egiten. Gainera, Hobsbawmendako elementu erabakigarriak ziren bandera eta ereserki antzeko zeinu asmatuak (Smith 2000b [1998]: 219), sinbolismo eta sentimenduz

⁸⁰⁹ Barietate bakoitzaren deskribapen zehatzerako ikus Smith 2000b [1998]: 1. kapitulua; Paradigma Modernoak orokorrean dituen ideia komunetarako, Smith 2004 [2001]: 65-67.

⁸¹⁰ Memoria tokiak memoriaren eta historiaren elkarguneak dira, “fruto de ensamble de dos órdenes de realidades, lo tangible y lo simbólico, desmontados y explorados en sus elementos comunes” (Nora 2008: 13). Pierre Nora historialari frantsesak hala izendatua, izate hirukoitza dute toki horiek: materiala, sinbolikoa eta funtzionala. Toki horien izana memoria bizirik ez izatetik eratorria litzateke, eta, horiek direla medio, denbora nahiz ahantzura gelditu, eta materiala ez-material bihurtu nahi da (*ibid.*: 25-35).

⁸¹¹ (Hobsbawm eta Ranger arg. 1983)

⁸¹² “Nuestros padres mintieron: eso es todo.” (“Spoon River Euskadi”, *Suma*)

⁸¹³ “En cuanto a mí, la tribu de que procedo, dicen, moraba ya en los flancos del alto Pirineo/ allá cuando Caín sembraba cañamones, / y yo, que me lo creo” (“En torno al casticismo”, *Arte*).

beteriko sinbolo asmatuak, ironiaz blai emanak dira⁸¹⁴; hala interpretatzen da: “se esconde detrás de las naciones una naturaleza artificial creada por una obra de ingeniería” (*ibid.*: 227). Azkenik, bi pertsonaia historikoren agerpenarekin euskal munduaren ukapena bi bidetatik jorratzen du. Batetik, euskal izanari dagokionez, “Epístola a los vascones” olerkian (*Arte*: 33-38), Arnaud Oihenarten ahotan ezartzen dituen hitzek ironiaren puntu gorena lortzen dute: euskal literatura klasikoan klerikalismotik urruntzen den agerpen literario bakanenatarikoaren ahotik entzuten dugu⁸¹⁵ bertzela ere lanean ageri den arbasoenganako jarrera. Bertzetik, Sabino Aranaren agerpenean, nazio-nazionalismo modernoak sustatzen duen tradizioari irri eta kritika egiten zaio⁸¹⁶.

(b) Memoria tokiak

Euskal memoria toki kolektibo tradizionaleri dagokienez, maila desberdinetan diren lau agerpen nagusi identifikatu ditugu: euskal nazionalismo modernoko pertsonaia historikoak⁸¹⁷, hizkuntza⁸¹⁸, natura⁸¹⁹ eta literatura⁸²⁰. Lehena nazio modernoaren ideologizazioarekin lotua den arren⁸²¹, bertze hirurak tradizio zaharrago baten oihartzunak biltzen dituzten memoria tokiak dira. Beren ukazioak Paradigma Estrukturalista modu bitara azaleratzen du. Alde historiografiko teorikotik, asmakuntza eta berritasuna argudiatzen ditu; hala, ez da memoria toki horiek oroitarazten dituztenengan –edo dituztenetan– sinesten. Beraz, ezinbertzean bertan beheiti botatzen

⁸¹⁴ “Y una raza me dio que reza y canta/ ante el cántabro mar Cantos de Lelo./ No merecía yo ventura tanta” (“Patria mía”, *Suma*). Hala ere, zera zehazten du Juaristik, *Aitoren* bigarren argitalpenerako aitzinsolasean: “A causa de su título se relacionó el libro [*Aitor*] con la famosa compilación de Hobsbawm y Ranger, *The Invention of Tradition* [...] hay algunos aspectos comunes [...] como el interés por lo apócrifo, por la práctica de la impostura (las *forgeries*), por la reescritura del pasado. No obstante, creo deber más al ensayo antes citado de Diego Catalán –«La invención de España en su historiografía»– o a ensayos como *History Remembered, Recovered, Invented*, de Bernard Lewis (1975)” (7. or.).

⁸¹⁵ I: “Pues os vi tan menguados de talento/ [...] / practiqué con vosotros, gente ingrata,”; III: “Al fin estos palurdos oyen arte./ [...] / porque seguís tan brutos como antes” (“Epístola a los vascones”, *Arte*).

⁸¹⁶ “Rompe la calma nemorosa y bruna/ el dulce lamentar de dos pastores./ ¿Sabes, Sabin, O tempora o mores,/ que fuimos nobles incas en la puna?” (“Jardín de Abando”, *Diario*).

⁸¹⁷ Sabino Arana Goiriren irudia “Jardín de Abando” eta “El sitio de Bilbao” olerkietan (*Diario*).

⁸¹⁸ “[...] Pueblo mío,/ encallado por siempre en tu lengua de piedra./ Mi corazón, tan grave como un ancla de plomo/ se aferra a la carena de tu amor zozobrate” (“Sermón de la atalaya de Lequeitio”, *Diario*), “pueblo vasco de lengua envenenada,/ [...] / Jamás, sobre esta tierra de cristianos/ volveré a hablar en vuestro ingrato euskera” (“Euskadi, 1984”, *Diario*), “Heme aquí, profesor/ de letra muerta, padre” (“Última lección”, *Arte*). Ironiaz dio, euskarari buruz: “de nuestra dulce *lingua nauarrorum*” (“L’Art Poétique Basque”, *Suma*), “(Algo así dijo Blas, aunque es notable/ que lo dijera en bable” (“Vinogrado revisited”, *Suma*).

⁸¹⁹ “en el escudo del Gorbea/ que algún chusco llamó gigante” (“Mox nox”, *Arte*).

⁸²⁰ “*Da wo noch Liebe lohnt*, pero os supongo/ avezados de antiguo a la engañosa/ ceremonia de sombras que solemos// llamar Literatura. [...]” (“Alter Bilbao mond”, *Suma*).

⁸²¹ *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (2012) liburuan ageri da (seigarren sarrera, “Sabino Arana”, José Luis de la Granja).

dira jatorri euskaldunean tradizioz ziren zimendu zenbait. Alde estetiko-praktikotik ere euskal memoria toki kolektiboen baliogabetasuna helarazten zaio irakurleari, olerkiak direla medio.

2. fasea: dekonstrukzioa vs errotze sentimena

Lehen fasean, teoria modernistarekin koherentzian ziren agerpen teoriko (*Aitor*) eta poetikoak (*Diario, Suma, Arte*) ikusi ditugu, baita lan poetikoetako isla modernista bi mailatakoa dela argudiatu ere: asmakuntza-berrikuntzaren aldeko apustua eta euskal memoria toki kolektiboen ukatzea. Bigarren fasean, aldiz, memoria toki horien izateak Juaristiren tradizioarekiko atxikimendua arrunt baldintzatzen duela azalduko dugu, idazlearen euskal tradizioan barnako bidea ulertzeko inflexio puntu baita.

Arestian, printzipioz, Juaristiren lan teorikoak nahiz praktikoak euskal (literatur)tradizioarekiko jarrera kritikoaren mesedetan eraikiak zirela erran dugu; ondotik, jarrera horrek teoria modernista-konstruktibistari erantzuten diola zehaztu dugularik. Alabaina, olerki liburuen interpretazio sakonagoak euskal munduarekiko –eta, beraz, hark barneratzen duen tradizioarekiko– jarreran aldaketa zenbait badirela azalerazi du; teoria modernistaren parametroetatiko jarreraz haratago, etno-sinbolisten zehaztapen zenbaitek memoria tokien erabilera desberdinetan sumatzen diren jarrera askotarikoak ulertzen laguntzen dutelakoan gara. Izan ere, ikuspegi kultural horrek teoria modernistaren muga kronologiko hetsietatik at diren tradizio eta nazioen sinboloak nahiz haiekiko sentimenak aztertu, eta deskribapenak egiteko aukera ematen du; hain justu, beren izana eta indarra aitortzen baitu. Hau da, teoria etno-sinbolistarekin modernizazio prozesuaren mugatik gibela egin, eta nazionalismo modernoek aitzinetiko tradiziotik heldu ziren euskarriak –forma sinboliko, sentimendu, moldeak– bereganatu izana hausnartu ahalko dugu.

Jarraitutasun edo *longue durée* delakoak argitu ahal ditu, hein batean, aztergai ditugun olerki liburuetan iraganarekiko ageri diren erlazioak. Gogora bedi, *longue durée* ideiarekin, modernitateak garaturiko nazio identitateen ikuspegiak aitzinetik heldu zen errealitateari nolabait ere lotuak ageri direla; identitate horien arrakasta, hain zuzen, hainbat aitzinoinarriren bereganatzean argudiatu, eta haiekiko atxikitzea irrazionala izan daitekeela argitzen da.

Ondoko paragrafoetan, erlazio horiek, Juaristiren olerki liburuetan, modu desberdinetara gauzatzen direla ikusiko dugu. Lehenik, (a) tradizio aitzinmodernoarekin

lotura inplikatzan ez duten iraganeko deien adibide zenbait bildu ditugu –baita modernitatetik ateko tradizioari erreferentzia egiten dion adibide bakana zehaztu ere–. Ondotik, (b) deien bertzelako erabilera ikusiko dugu: horietarik zenbait identitate ez-modernoarekiko lotura duten memoria tokiek biltzen duten errealitatearekiko hausnartuko ditugu.

(a) Iraganarekin loturiko deiak

Juaristiren olerkietan behin baino gehiagotan ageri dira iraganarekin lotura duten “deiak”:

- Akitua ez den argia: “Vidrio abisal ¿qué es esa/ luminaria imprecisa?/ Llama malva no extinta/ descende con nosotros” (“Katabasis”, *Diario*).
- Hotsak, iraganeko oihartzunak: Andrew Marvell-en “But at my back I always hear/ Time’s winged/ chariot hurrying near...”⁸²² olerki zatiaren ondotik heldu den olerkian, “Y detrás de la puerta son/ las risas de las estudiantes/ como el piafar de yeguas uncidas/ al carro aquel que oyera Marvell” (“Mox nox”, *Arte*); “Mirad más dentro aún: la fibra en que dormitan/ alcanforadas almas de curas y barberos/ soñando un horizonte de boinas escarlata./ Rumor de fronda llega del fondo de su sueño” (“Ayer”, *Arte*).
- Behin eta berriz deitzen duten ahotsak: iraganari lotua den Vinogradori buruz “Si un día de olvidarte fui capaz,/ me llamaste otra vez con otra voz” (“A Vinogrado, avinagrado [...]”, *Arte*).

Bakarra da, ordea, dei horiekin tradizioari zuzenki lotzen zaion iraganerako begirada, Euskal Herriko bizimodu tradizional ez-nazionalista bati –eta, beraz, Juaristiren ikuspegiari jarraiki, tradizio moderno horretatik kanpokoari– erreparatzen diona: “Las ocas” (*Arte*) olerkia⁸²³ da nazionalismoaren ideologia modernotik at erakutsarazten den tradizioaren agerpen bakana, XIX. mendetiko abertzaletasunaren aitzinerako euskal tradizioari garrantzirik eman gabe; oroitzapen horretan, bizi

⁸²² “To His Coy Mistress” olerkia.

⁸²³ “Antzarrak doazi marraskan/ donibanekeo kalean./ *Apez Beltzaren Kanta*” ondotik: “En el recuerdo cruzan las estradas de Anglet/ sobre el barro invernal./ Iban a la matanza con el marcial empaque/ de un batallón de gastadores rusos./ Mayi las degollaba. Margarita/ les quitaba las plumas./ La vieja Cathalín apilaba sus cuerpos/ debajo del manzano./ Nosotros, los más chicos, nos sentábamos mudos/ en un banco de iglesia,/ junto a la barda, y dicen/ que alguna vez lloré de horror./ Pero eso debió ser muy al principio,/ porque hoy sólo me queda la extrañeza/ ante el desdén glacial con que miraban/ el cuchillo de Mayi, la de las manos rojas” (“Las ocas”, *Arte*).

tradizional urrunaren oihartzuna denboraren iragankortasunetik ateko emakumeen ekintza errepikakorrean gorde da⁸²⁴; alta, harekiko “extrañeza” soilik geratzen zaio hizlariari, apartekoa baita irudi horrek aditzera ematen duen bizimodua; denboran aski gibelean geraturiko bizimodu tradizional urrundua.

(b) Memoria tokiak

Hain zuzen horiek aktibatzeko elementuak dira, usu, goiti berriki aipatu ditugun oihartzun tresnak. Alabaina, hizpide den garaian argitaraturiko hiru olerki liburuetan memoria tokiak ageri diren arren, beren artean oroituarekin den erlazioa desberdina da. Lehen bi lanetan diren memoria tokiak, erreferentziei dagokienez, antzekoak izan arren –hizkuntzazkoak, nagusiki–, ez dira *Artekoekin* bat heldu; azken horietara nahiz horietan oroitzen diren erlazioa desberdinki hurbiltzeaz gain, erabileran ere bada alderik. *Diario* eta *Suma* lanetan, memoria tokien erabilera euskal nazionalismo modernoa ukatzean ardaztua da: hizkuntzarekiko mespretxua, iragan ohorezkoa, tradizioaren asmakuntza, eta abar. *Arten*, kontrara, Bilbao-Vinogradoko binomioarekin identifikatua den “aberri/sorleku ez-politiko”rantz lerratzen da: “He remontado el río./ buscando el hontanar/ oculto de mi daño” (“Última lección”), “Volví a tu ría negra como pez/ que busca en vano su región matriz/ y se entierra en un mínimo arcaduz” (“A Vinogrado, avinagrado [...]”).

Bilbo-Vinogrado memoria kolektiboaren eta indibidualaren oroitzapenak sortzeko barne-memoria –*íntimo*– bihurtzen da, memoriaren errezeptakulu; era berean, ibilbide indibidual eta esperientzia historikoena (Díaz de Castro 2002: 121). Idurizko leku horretarako itzuleran, errotze sentimenei erantzun eman nahiko litzaieke⁸²⁵, sarri. Horien irrazionalak agerpen are argiagoa du *Arteko* “Reloj de melancólicos” eta “Por qué la quieres tango” olerkietan, non ukaturiko euskal identitate moderno nazionalistik haratagoko lotura sentimenak ageri diren; teoria modernistak eta bere arrazionalizatzeak azaltzen ez dituzten sentimenak⁸²⁶: “Querías, sin embargo, que la frágil ternura/ que

⁸²⁴ J. Juaristik, 1998an, Saizarbitoritari erantzunez, zioen: “Frente a las asociaciones que propongo entre las voces ancestrales y el padre, [Saizarbitoria] arguye que, en el ámbito de la cultura nacionalista, es la madre, la *terrible madre junguiana*, la transmisora privilegiada de dichas voces. Nada tengo que objetar a tal hipótesis salvo que, como la mía, es indemostrable como regla general”, “Pero estaría de acuerdo con Saizarbitoria en que las prosopopeyas o los iconos de la o las patrias suelen ser femeninos” (*in de Blas et al.* 1998: 124) (azpimarra ez da gurea).

⁸²⁵ “Última elección” olerkian: “He remontado el río./ buscando el hontanar/ oculto de mi daño./ Te ofrezco este cuaderno/ de viaje” (*Arte*).

⁸²⁶ 1998an, artean, arbaso ahotsak entzuten zituela adierazi zuen Juaristik: “no deseo curarle [Saizarbitoria] de neurosis alguna ni hacerle renunciar a sus voces ancestrales. También yo sigo oyendo las mías” (*in de Blas et al.*, 1998: 128).

todavía asocias a ciertas memoranzas/ no fuera solamente ilusorio desvío/ de la memoria al borde de su disolución” (“Reloj de melancólicos”), “ráfagas de certeza irrefragable/ de que ya no eres otro que esta necia añoranza/ retenida en los genes con rabia y con ternura” (“Por qué la quieres tango”).

Arte bidaia kaieran, sentimen lotzaile horien arrazoibidea aurkitu nahi da; bidaia horretan, aitzinetik ukaturiko eta abandonaturiko –“Partiré un día,/ entre la lluvia tenue, Vinogrado” (“Trenos de Vinogrado” VII, *Diario*); “Me voy./ La Patria me espera” (“Versos sencillos”, *Suma*); eta, *Sumako* azken olerkian, “Pronto me iré de aquí” (“Lauretta”)– sorlekura bueltatzen da, Bilbo-Vinogradok osatzen duten ez-lurralde horretara: “Volví a tu ría negra como pez/ que busca en vano su región matriz” (“A Vinogrado, avinagrado [...]”). Oroitzapenak, memoria tokietara hurbiltzera behartzen duten sentimenduekin dialektikan, etengabeko hausnarketan dira.

Teknika: ukazioa, tradizio hautua berresteko teknika

Juaristiren lanetan, tradizioaren hautatzea bi alderdi nagusitan bildua da. Batetik, alde ezeztatzailea: euskal (literatur)tradizioaren oinarriak asmakuntza prozesuan oinarritzen direla argudiatuz, erreferente horien balio garaikidearekiko distantzian, eszeptizismoan nahiz jarrera ezkorrean oinarritua da. Bertzetik, alde baieztatzailea: erreferente alboratuek eta baliatuek osatzen duten hautu pertsonala litzateke; nolabait ere, olerki liburuen osotasunak eskaintzen duena. Lan poetikoetan ageri da, nabarien, bi alderdien isla bateratua. Bertan, gaurgero *Aitoren* argudiatu zuen literatur tradizio asmatu-asmatzailearen ideologiari koherenteki jarraitzen dioten literatur erreferenteak aukeratzen dira, bidaide gisa: estatuko erreferenteak –Juan Ramón Jiménez, Jaime Gil de Biedma...– eta unibertsalak –T.S. Eliot, Álvaro Mutis, Andrew Marvell...– ekartzeaz gain, Aresti⁸²⁷, Sarrionandia eta Atxagarendako⁸²⁸ eskaintzak nahiz Sánchez Ostiz gisako idazleen aipamenarekin batera, euskal tradiziokoak ezeztatuz, edo ironikoki tratatuz, lortzen duen bilduma –Txillardegí, Juan San Martín eta abar–.

⁸²⁷ Bilbo-Vinogradoz egiten duen deskribapenak eta sentipen kontrajarriek Arestik Bilboz zuen sumatzea dakarkite gogora; oihartzun gisa, Arestiren bizipena heldu da Juaristiren olerkietatik: “Las relaciones de Aresti con Bilbao fueron siempre difíciles por el rechazo y desarraigo que sentía. Lo comparó con el infierno y se quejaba de no haber recibido como vasco nada bueno de su ciudad natal: ‘ez daut ezer eman’” (Aulestia 1998: 23). Juaristik, bere aldetik, *Diarion*: “Un pozo negro en la memoria./ Las calles del querido y puerco Vinogrado” (“Material de derribo”), “Amor, un dios decrepito recorre Vinogrado” (“Cámara de la tardor”).

⁸²⁸ “Katabasis” (*Diario*), “Poética bajo mínimos” (*Suma*).

Zernahi gisaz, hautaturiko corpusean ez den arren, LVn sumatzen dira teorikoki emanak –*Aitoren* azalduko bideak– Juaristiren tradizio garaikideagoarekiko ikuspuntuan duen eragina; argitaletxe berak plazaratuak, LV urtarrilean akitu zen argitaratzeaz, eta *Aitor*, otsailean. *Aitoren* argitzen den tradizioaren izana euskal literatur erreferente klasiko, tradizional zein modernoaren bilaketarekin azaltzen da LVn, Bernart Etxeparegandik hasita 1980a arte; atal bakoitzean euskal literaturaren historiako garai desberdin baten deskribapena egiten du idazleak; nolabait ere, *Aitoren* eginiko dekonstrukzioetik euskal literatur historiaren eraikuntza eginaz.

Teorizazio horren gibeledako ikuspuntuaren ondorioak nabariak dira praktika literarioan. Olerki liburuek osatzen duten gauzapean literarioa, erran gisa, jarrera kritiko ezeztatzailetik abiatutako tradizioaren hautaketan oinarritzen da, hein batean. Hau da, literatur tradizioaren aukeraketa hainbat erreferenteren alboraketan oinarritua dela ikusten da: hizkuntza –euskara–, ideologia abertzalea eta modernitatetikoa tradizioa. Bertzelako ezeztatze modu nagusi bat bada, ordea, olerkietan: ironia. Ironiarekin, ezeztapena mugara eramaten du idazleak; olerkietan hala gutiesten diren elementu eta errealtateak etengabeak dira. Erabilera horren etengabeak, hargatik, kontrako efektua sortzen du, sarri, irakurlearengan; ezintasun edo gabeziaren bideetara makurtzen baita irakurketa.

Horretaz gain, hizkuntzari dagokionez, Juaristiren bidean aldaketa nabaria sumatzen da. Bata zein bertzearen jabeakuntza bera izanen ez zen arren, euskaraz nahiz gaztelaniaz idazten zuen idazlea izatetik –oroitu 1976ko *Euskararen ideologiak*–, gaztelania hutsean idaztera pasa, eta, are gehiago, euskararen beraren izana ukatzera heldu zen Juaristi. Jarrera horrek arrunt baldintzatu zituen bere arituaren eraikuntza formala eta idazleak sistema literarioan lortutako kokagunea; izan ere, gaztelania hutsean idazteaz haratago, euskal literaturaren izana bera kinkan jartzen baitzuen. Hasieran, euskal literatura hizkuntza eta nazio guzietarik edan beharrekoa zela aldarrikatzen zuen argitaratze kolektiboan parte hartzetik –Lehen Aldian, *Potten*, oihukatzen zena–, euskarazko errepresentazioa hautu pertsonal gisa arbuiatzera heldu zen: “defenderé la casa que yo quiera./ Jamás, sobre esta tierra de cristianos/ volveré a hablar en vuestro ingrato euskera” (“Euskadi, 1984”, *Diario*). Erabaki horrek ELS jaio berritik atera, eta sistema espainiarrean kokatu zuen, Juaristik 1980tik aitzina duen kokapenean eraldaketa guzizkoa gertatu zelarik: EAE proiektuaren bermatzea bilatzen zuen militantzia kulturalarekin bat heldu ez, eta, beraz, ELSn marjinean izatetik,

Esp.LSra egin zuen jauzi. Horren erakusgarriak dira, hain zuzen, argialetxe desberdinetan barnako bidez gain –Kriselu > Pamiela > Taurus > Pamiela > Hiperión–, Juaristik bere kondizioaz duen kontzientzia adierazten duten hitzok: “Poeta menor/ de una literatura menor/ (‘Aquella que una minoría produce/ en una lengua mayor’ [...])” (“Correcta limitación”, *Suma*). 80ko hamarkadan bideratzen hasia zen euskal zentro kultural kanonizatzaileak euskarazko testuen sorkuntza onesten zuen, ez gaztelaniazkoena. Beraz, hizkuntz gatazkari buruz aritu garelarik, gaztelaniaren hautua eta euskaraz idaztearen arbuioa izan ziren Jon Juaristik olerki lanetan aldarrikatu zituen aukera pertsonal baldintzatzaile garrantzitsuenetarikoak.

Euskal nazionalismo historikoak XIX. mendearen akieran eta XX. mendean zehar eraikiriko euskal literatur tradizioaren ustezko izana ukatzeaz gain, ondotiko errepresentazio oro ere arbuiatu zituen. Are gehiago, elementu horien kontraposizioan indartzen da Juaristiren literatur tradizioaren hautaketa: euskarak, euskal nazionalismoak eta Euskal Literatur Tradizio Tradizionalaren izanak zalantzan jartzen ditu oinarri, helburu edo/eta jatorriari dagokienez; horien kontraposizioan, Espainiako errealitatetik hurbilagokoa den hizkuntza, ideologia eta tradizioa hautatzeko. Beraz, ariketa baieztatzailea den literatur tradizio pertsonalaren aukeraketaren zilegitasuna hainbat elementuren ukatzean oinarrituriko ariketa ezeztatzailez gauzatu zuen. Juaristik fokua aipaturiko hiru elementu nagusiren kontraposizioan jarriaz, euskal tradizioan diren jatorri espainiarreko elementu eta erreferenteak bermatzen ditu; halatan, apologistek kanpoko eraginak “kutsaduratzat” hartu zituztela argudiatuz, haiekiko oinordetza ukatzen du. Horiek horrela, kontraposizioan oinarrituriko identitatea bermatu ahal izateko beharrezko litzatekeen (literatur)tradizio kolektiboa begiztatu zuela erran genezake.

Laburbilduz, Juaristik *Aitoren* garatzen duen joera teoriko modernista euskal memoria toki kolektiboen ukatzeak berresten badu ere, iraganarekiko jarrera horrek ez du poesietan Paradigma Kulturalaren barrenean hagitz erabilgarri diren memoria tokien erabilera ukatzen; aitzitik, memoria tokien erabilera joera teoriko modernistarekiko koherentea da. Idazlearen ezaugarri bereizgarria toki horiekiko jarrera bikoitza da. Ikuspegi modernista-konstruktibistaren ondorioz euskal memoria toki kolektiboak ezeztu izanagatik, memoria eta esperientzia pertsonala denbora anitz batean gurutzatuz, Bilbo-Vinogrado sortzen da sentimen kontrajarrien agertoki: bertatik joan nahi arren

–“Partiré un día,/ entre la lluvia tenue, Vinogrado./ Húmedas calles me verán marchar./ Plazas donde agoniza nuestra historia/ de pueblo imperceptible./ Alamedas tediosas. Derrocadas/ esquinas que veláis la soledad” (“Trenos de Vinogrado” VII, *Diario*)–, errotze sentimena ageri da –“Reverdecen en vano/ estos chopos. Tú sabes/ de un dolor de raíces/ que devorando va” (“Canción para recoger el agua solsticial”, *Diario*), “Si un día de olvidarte fui capaz,/ me llamaste otra vez con otra voz” (“A Vinogrado, avinagrado [...]”, *Arte*)–. Sentimen horiek iragana eta oraina Bilbo-Vinogradon berpiztuz eta fusionatuz oroitu egiten dira, leku zehatzaz haratago, memoria indibidualaren eta herriaren historia ez-modernoaren elkargune bihurtzen delarik: “Plazas donde agoniza nuestra historia/ de pueblo imperceptible” (“Trenos de Vinogrado” VII, *Diario*), “En la noche sagrada/ de Vinogrado/ me asediaban fantasmas/ de hierro antiguo” (“Trenos de Vinogrado” VIII, *Diario*).

Iraganaren eta tradizioaren tratamenduari erreparatuz gero, Juaristiren tradizio garapena bi fasetan bana liteke: lehenik, *Aitoren*, euskal identitate modernoari atxikiriko euskal tradizioaren isla literarioaren ukapena da; ondotik landuriko olerki liburuetan, *Aitoren* teorikoki ukatuari isla estetikoa emateaz gain, tradizio kultural hautatuaren mugak argiago finkatzen dira. Espainiako (literatur)tradiziotik edaten duten olerkiak agertzen dira, nabarmen, non euskal historia eta tradizio aitzinmodernoarekiko ustekabeko loturak ere azaleratzen diren. Espainiako tradizioaren hautaketa euskal tradizioa ukatzetik heldua litzateke, egiazko haren oinordeko bailitzateke: espainiar tradizioari dagozkion erreferenteen funtsa identitatezko oinarri erreferentzialean izan arren, identitatean oinarritzen ez den literatur tradizio orokorra edatera Europara ere jotzen duen hautua.

7.2. atalean⁸²⁹, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Jon Juaristik 1975-1990 bitartean euskal (literatur)tradizioari buruz idatzi zituztenak aztertu ditugu. Horretarako, elkarrekin hasi zuten bideari behatu ondotik, banaka argitaratu zituzten lanak xeheki aztertu ditugu.

Bai Lehen Aldian, bai Bigarren Aldian ere, egin zituzten aldarrikapenak ikertu ondotik, Euskal Literatur Tradizio Krisia garaiko prozesu nagusiari guziz atxikia zela baieztatu dugu: ELSren autonomiaranzko bidea egiten hasia izaki, mugak aldatu behar zitzaizkion ondarea zen tradizioa. Irekitasuna da, ziur aski, muga horiek hobekien

⁸²⁹ 7.2.2. atalaren ondorioak 7.2.koekin bateratu ditugu.

definitzen dituen adjektiboa; zabaltze horren zutarriak, ordea, desberdinak izan ziren, landu ditugun hiru idazleengan.

Banako bide horietan sakontzeko, ezinbertzeko laguntza izan dira teoria modernistaren eta etno-sinbolismoaren ekarriak; biek eskaini dizkigute hautaturiko idazleek euskal (literatur)tradizioarekiko garatu zuten harremana ulertu ahal izateko lanabesak. Alabaina, nekez lortuko genukeen ulerkuntza guzizkorik aitzinez, bortzgarren, seigarren eta 7.1. ataletan bilduak landu gabe; izan ere, 1975etik aitzinako prozesu erakundetzaileak argitzen baitu Euskal Literatur Tradizio Krisiaren funtsa: diktaduraren akierarekin, komunitatearen gune sinbolikoaren eta gune mugatuaren erreferentzia izanen ziren oinarriak hausnartu, hautatu eta birformulatu –nahiz eguneratu, hala behar bazen– behar ziren. Aztertu ditugun literatur tradizioaren ikuspegiak gune, erreferente eta proiektu desberdinak besarkatzen zituzten komunitateekiko koherentzian eraiki ziren.

Koherentzia horietarik bi, ordea, ez ziren autonomien sistemak ezartzen zituen muga eta proiektuekin bat etorri; Sarrionandia eta Juaristiren ikuspegiak –aztertu ditugun corpusekoak eta aztertu dugun hamabortzaldian, beti ere– ELS eraiki berriaren bazterrean geratu ziren, eta Atxagaren ekarria guneko bihurtu zen.

IV. KAPITULUA
HONDARREKOAK

8. ONDORIOAK

Bildu ditugun ideietan, ez dugu proposaturiko edukien azalpena, berriz ere, emanen; laburpen hutsaren ordeaz, ideia nagusietatik abiatuta, ondorioak biltzen dituzten hiru atal banatu ditugu. Lehenik (8.1.), osatu behar izan ditugun oinarri teorikoei buruzko gogoetak bildu ditugu; bigarrenik (8.2.), oinarri teoriko horien laguntzaz aitzinatu ahal izan dugun ariketa praktikoaz hausnartuko dugu; eta, hirugarrenik (8.3.), bateko lanak eta bertzeko arazoek sortu dizkiguten hondarreko ideiak eskainiko ditugu.

Horretarako, idatzian gune izan diren ideiei erreparatu diegu, baina, aldi berean, espresuki saiatu gara eduki guztiak koherentzia nagusi beraren baitan irakurtzen eta ikuspegi nagusi hori akieran ematen. Hori dela eta, azpiatal bakoitzak ondorio propioak izanen baditu ere, hondarreko interpretazio bateratua da tesiaren ekarri nagusiak bilduko dituen; euskal komunitateaz haratagoko aplikazio praktikoa izan dezakeen proposamena.

8.1. Ondorio teorikoak

Lana hasi bezain pronto ohartu ginen tresna teoriko desberdinak bateragarri egiten zituen ikuspegia beharko genuela. Haatik, Paradigma Kulturalak behar adina aniztasun kontuan izateko aukera eskaini badigu ere, hautaturiko zutarri teorikoak osatu egin behar izan ditugu: egungo Euskal Kultur Sistemaren (EKS) oinarrien azterketak eraman gaitu kulturari, komunitateei, literatur sistemei eta, zehazki, estaturik gabeko nazioei behatzen dieten ikerketetara. Hala, Thompsonen kultur sistemako forma sinbolikoak aztertzeko lanabesak eskaini dizkigu; Anthony D. Smithek, nazio-komunitateen azterketa sinbolikorako ikuspegia; eta Montserrat Guibernauk estaturik gabeko nazioen azterketarako hainbat xehetasun jarri dizkigu eskuragarri. Alabaina, osatze lana egin behar izan dugu.

Saiakuntza horren muina biltzeko, bi ardatz teoriko nagusi bereizi ditugu, segidan: forma sinbolikoen azterketa osotarako proposamena (“Thompsonen egokitzapena”) eta estaturik gabeko komunitateen ikerketarako oinarritzko tresna multzoa (“Estaturik gabeko nazioen azterketarako proposamenak”).

Thompsonen egokitzapena

Forma sinbolikoen azterketak ikergaiaren ezagutza zehatza eskatzen duen gisa, tresna teorikoak forma sinbolikoen maila desberdinetara, horietariko bakoitzaren izaera berezira, egokitu behar dira.

Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako eskuragarri jarri zituen tresnen egokitzapena da tresna teorikoen moldatu beharra islatzen duen adibide garbia. Abiapuntua bera aldatu egin dugu: forma sinbolikoen azterketan sakontzeko eta, bereziki, horiek komunitateen garapenarekin elkarreraginean aztertzeko, baliabide eta forma sinboliko zehatzak bereizi behar izan ditugu. Hau da, ez da aski forma sinbolikoak, modu orokorrean, deskribatzea, eta hori konpontzeko, tresna teoriko zehatzagoak behar ditugu.

Zehaztasun hori lortu nahian, forma sinbolikoak eta baliabide sinbolikoak desberdindu behar direla defendatu dugu. Baliabide sinbolikoak erreferente eta funtzio zehatzak dituzten forma sinbolikoak direla argudiatuz, etno-sinbolismoan sobera argi ez den alderdia ñabartu dugu, baliabide sinbolikoen balizko unibertsaltasunik ez dela ohartu baikara. Honek EKS garaikidearen oinarriak nola ezarri ziren konturatzeko garrantzia izan du, abiaburu horrek ahalbidetu duelakotz EKSren 1960-1990 bitarteko garapena deskribatu ahal izatea: ondare kulturalarekiko harremanak berritu eta moldatzen diren prozesuak ulertzeko, baliabide sinbolikoen izaerari erreparatu behar zaio; izan ere, komunitatearen errealitatean parte hartzen duten elementu sinbolikoek komunitate bakoitzean, eta garai diferenteetan, funtzio desberdina gara dezakete. Gure azterketan, kasu, 1960-1990 bitarteko komunitatearen garapena baldintzatu zuen baliabide sinboliko eta eremu bilgune bana ikertu dugu: tradizioa hautatu dugu baliabide sinboliko gisa, eta literatur eremua, baliabide sinbolikoen bilgune.

Aztergai horien ikerketarako, preseski, aitzinpauso behinena Thompsonen balioztatzei buruz erranak maila desberdinetara molda litezkeela ohartzea izan da; adituaren erranak espresuki forma sinboliko zehatzen azterketarako baliagarri badira ere, baliabide sinbolikoek nahiz horien bilgune diren eremuek ere prozesu horiek jasaten dituztela ohartu gara. Horregatik proposatu dugu eremuen eta baliabideen izaera berezia agerrarazten duten bi alderdi landu beharra: estaturik gabeko komunitatearen eta estatu barneratzailearen arteko harremana eta komunitateak jarraitutasunean dituen beharren garapena. Alde horien arteko elkarreraginak zera erakusten du: balioztatze sinbolikoa komunitate behar mailekiko harremanean mailakatua izan badaiteke ere, balioztatze

ekonomikoa hagitx zailki gara daitekeela oinarritzko behar mailarik asebetetzen hasi ez den komunitate *continuumean*.

Alabaina, erreferentziazko komunitatearen testuinguruari behatu ezean, nekez ohartuko gara balioztatze oro komunitateak dituen beharrekiko mendekotasunean dela; horri *continuumaren* baitan komunitateak duen bulkadaren izana gaineratzen ez badiogu, ezinen dugu balioztatze potentzialen eta egiazki gertatuen arteko bateragarritasun edo desorekarik sumatu.

Estatu barneratzailearen eta komunitatearen arteko harremana oreka gabea den kasuetan, adibidez, bi elkarreragin aztertu behar dira: behar mailen eta balioztatzeen artekoa eta baliabide sinbolikoen eta balioztatze prozesuen artekoa. Batetik, lehen behar maila asebate gabe balioztatze ekonomikorik gertatu ezin bada ere, balioztatze sinbolikoak komunitatearen lehen nahiz bigarren behar mailari egokituriko prozesua izan dezake –erraterako, oinarritzko duintze prozesuaren ondotik, mundu garaikidean funtzionalitatez aritu ahal izateko, erakundetze prozesua lortzeko proiektzio ikuspegiaren ñabardurez bete den prozesua–. Bertzetik, balioztatzeek duten norabidearen arabera, balioztatze endozentrikoak edo exozentrikoak izanen dira; alegia, balioztatzea erreferentziazko komunitatetik edo komunitate horren gaineko estatutik edo egitura zabaletatik –Europatik, kasu– heldu baitaiteke.

Bi elkarreragin horiek kontuan izateak hiru ondorio nagusi azalerazi ditu. Lehenik, balioztatzeek ahalmen desberdina dutela sumatu dugu: balioztatze ekonomikoa komunitateaz kanpoko eraginak muga nagusi baditu ere, balioztatze sinbolikoak abiaburu zabalagoa barne hartzen du. Balioztatze sinbolikoan komunitatetiko abiapuntua bakarrik duen prozesua gerta liteke, balioztatze ekonomikoa ez bezala: komunitateak *continuumean* zehar duen garapenaren arabera, estatu barneratzailearekiko harremana dena delakoa izanik ere, komunitatetiko balioztatze sinbolikoa gerta liteke; ukazioa nagusi denean, ordea, balioztatze ekonomikorik ezin da gertatu. Bigarrenik, balioztatze sinbolikoaren izaera zabalaren bikoiztasuna –balioztatze ekonomikoa dituen kanpo-muga hertsitzaileekin alderatuta–, hain zuzen ere, komunitatearen behar mailari atxikia da. Horiek horrela, beharren eta balioztatze prozesuen elkarreraginak islatuko du komunitatearen dinamika potentzialaren bidea. Hirugarrenik, Thompsonen balioztatzeen norabideei aski zehaztasunez erreparatzen ez diela uste dugu.

Hala ere, soziologoak balioztatze horien eragileez emaniko azalpenek aunitz argitu dute gure azterketaren norabidea. Balioztatzeak maila desberdinetan gertatzen direla ohartuak izaki, segidan sumatu dugu prozesu horien baldintzatzaileak aztergaien izanera moldatu beharra. Horretarako ere, balioztatzeekin gertatu gisa, Thompsonen ekarria izan dugu abiapuntu nagusi, noski; edozein gisatan, tradizioan –eta honen agergune diren Ahozko Ondare Kulturean (AOK) eta literatur tradizioan– nahiz bilgune nagusietarikoa den literatur eremuan sakondu ahal izateko, aldaketa nagusi bat proposatu dugu: egokitzapenaren oinarrian, maila kolektiboan gertaturiko prozesuei eta ondorioei erreparatu behar zaiela adierazi dugu. Hots, horien izana baldintzatzen duen alderdiari behatu behar zaiola: erreferentziazko komunitateari.

Komunitateen kultur moldaketetan balioztatzeen agentea kolektiboa dela kontuan izanik –eta baliabide sinbolikoak nahiz kultur azpieremuak kolektibitate hori bera dutenez erreferente–, komunitate-agenteari loturiko helburuak, elkarreragin eremuak eta erakundeak izan beharko ditugu ikusmiran. Gainera, komunitate horrengandiko balioztatzeen eragileek zein funtzio betetzen duten ere kontuan izan behar dugu. Hala, gaineratu dugun irizpide berriak aztertu beharreko premiei, elkarreragin eremuei eta erakundeei eragiten die: behatu beharreko helburuak komunitateari dagozkionak izan beharko dira; elkarreragin eremuak, estatu barneratzailearen eta komunitatearen arteko elkarreragin eremuak –zehazki, bien arteko harremanek sortzen duten espazioa–; eta erakundeak ere, erreferentziazko komunitateri eragiten diotenak –ziur aski, erakunde horien antolaketa nagusiak osatzen duen sistema erakundetzailerokorra ere aztertu beharra sortuko da–.

Behin horretaz kontziente izanda, komunitatearen behar mailetan gehiago sakondu beharra ezinbertzeko bihurtzen da. Hori dela eta, baliabide sinbolikoen eta eremuen balioztatzeak –hau da, maila desberdinetako balioztatzeak– komunitatearen beharrei atxikiak direla jakinik, balioztatze eragileen eta behar horien arteko elkarreragina zehaztu dugu. Horretarako, euskal komunitatearen kasutik abiatu, eta solasgai izan dugun denbora tarte ikertu ondotik, autonomiaranzko prozesuak jasaten dituzten komunitateen behar mailak desberdintzea garrantzitsua dela uste dugu. Lehenengo behar maila komunitatearen autonomia mailarik ezaren ondorioz sorturiko premiek osatuko lukete; autonomia gabezia horren testuinguruak eta estatuaren eta komunitate barneratuaren arteko harremanen izanak guziz baldintzatuko dute behar horien oinarritzotasuna. Aldiz, autonomiaranzko prozesua –legezko babesek lagunduta, edo

oraindik ere estatu barneratzailetik abiatu gabe— hasia delarik, erakundetzea deritzogu bigarren behar maila asebeste ahal izateko pausorik garrantzitsuena —errealitate garaikidean, bederen—. Erakundetzearen eskutik heldu diren antolaketak eta egituraketak emanen diote estatutik gabeko komunitateari bere izana duintasun funtzionalez eusteko eta garatzeko bidea.

Hala, bada, balioztatzeen eragileak egokitzeko prozesuan, hagitx garrantzitsua da helburu maila horiek kontuan izatea; balioztatzeak baldintzatzen dituzten helburuak aldatzeaz gain, elkarreragin eremuetako kokapenek eta erakundeek guziz baldintzatuko baitituzte balioztatzeak eta horien eskutik heldu diren beharrak; arestian erran dugunez, balioztatzeak eta helburuak elkarreraginean direlaketz. Erreferentziazko komunitateak elkarreragin eremuan —estatu barneratzailearekin partekatzen duen horretan— duen kokapenak eta erakundeek helburu horien asebetetzea baldintzatuko dute: elkarreragin eremuan, kokapen mendekoan, diren komunitateek edo/eta erakunde egituratzaile eskaseko direnek nekez lortuko dute balioztatze prozesu eraikitzailearen bat abiatzerik. Beraz, helburuen asebetetzea bera potentzial gabezia horrek akitzen du; elkarreragin eremuko kokapenaren eta erakundeen ondoriozko ahalbideen gabeziak.

Balioztatzeetako eragileen egokitzapenetik hiru ondorio nagusi sumatu ditugu. Lehenik, balioztatze prozesuen eragileek baliabide sinbolikoen nahiz horien bilguneen ahalbideak eta eragite potentziala baldintzatzen dituzte. Bertzela erranda, balioztatzeen aitzinatzea eta arrakasta eragiteaz gain, bi eragile horiek gobernatzen duten potentzial metatuak komunitatearen behar mailak asebetetzera eraman, edo bertan beheiti geratzera kondenatzen ditu. Bigarrenik, Thompsonen forma sinbolikoek jasaten dituzten balioztatzeen azterketarako eskaini zituen eragileen egokitzapenetarik bat bereziki egokitzen zaio estatutik gabeko nazio-komunitateen azterketari: elkarreragin eremuko kokapena dela eta eginiko zehaztea egoera horretan diren komunitateen azterketarako da, espresuki, baliagarri. Akitzeko, tradizioan, haren agergune diren AOKn nahiz literatur tradizioan eta Euskal Literatur Eremu (ELE) bilgunean sakondu ahal izateko erranak —aztergai zehatz horien balioztatzeak aztertu ahal izateko proposatuak— maila bereko aztergaiak ikertzeko baliagarri izan daitezkeela uste dugu: bertze forma eta baliabide sinbolikoen agerguneak nahiz bilguneak aztertze; erraterako, idatzizko tradizio berankorra duten komunitateen agerguneak eta kultur azpieroak aztertze.

Hortaz, Thompsonen forma sinbolikoei buruz eman zituen hiru azalpen nagusiak egokitu izanak —forma eta baliabide sinbolikoen izana banatzea, maila desberdinetako

balioztatzeen egokitzea eta prozesu horien eragileak zehaztea— ez du soziologoak forma sinbolikoei buruz ñabartu zituenekin kontraerrian sortu; hargatik, sumaturiko hainbat hutsunek azalerazi du Thompsonen eskuragarri jartzen dituen tresnak sobera lausoak direla. Horren ondorioz, irizpide eta zehazte garrantzitsuak egin behar izan ditugu. Aipatu berri ditugun hiru egokitzeez gain, uste dugu forma sinbolikoen funtzionalitateak eta komunitateen dinamikak gehiago eta, nagusiki, sistematikoago landu ez izanak bere proposamenetan arazo larriak sortzen dituela. Hori konpondu nahirik, baliabide sinbolikoen eta horien bilguneen funtzionalitateak aztertzeko tresnak eskaini ditugu; espresuki behatu diegu tradizioaren eta literatur eremuen funtzionalitateak hausnartu ahal izateko lanabesei. Horietarik orokorra, baina, era berean, errealitate oro eragiten duena, dinamikena izan da; hala, komunitateek jarraitutasunean dituzten bideei, prozesuei eta batetik bertzerako aldaketei espresuki behatuta, hiru *continuum* mota nagusi bereizi ditugu: mantentze *continuum*a, *continuum* iraultzailea eta *continuum* normalizatua. Jarraitutasun horien gogoetak azterketei gaineratzen dizkien ñabardurak ahalbidetu du, hain justu, baliabide sinbolikoen eta bilguneen funtzionalitateak komunitateen jarraitutasunarekin izan dezakeen elkarreagina aztertzea. Gainera, Thompsonen balioztatzeen eragile gisa identifikatzen dituen erakunde sozialek ez dute ongi islatzen, hainbat testuingurutan, erakunde horien funtzioa bete dezaketen erakunde kasuistika. Estaturik gabeko nazioetan, adibidez, erakunde zehatz eta orokor edo sedimentatuez gain, eragin antolatzaile bertsua duten arituak sor litezke, eta horiek ez dira ongi islatzen Thompsonen ematen dituen azalpenetan. Hori dela eta, erakundeen artean, bi azpisail banatu beharko lirake: sistema egituratuetan finkatuak diren erakundeak eta erakunde horien paretsuko eragina izan dezaketen arituak.

Laburbilduz, Thompsonen ekarria abiapuntu garrantzitsua izan arren, hiru hutsune nagusi sumatu ditugu. Ikerlariak *continuum*aren aldagaia bere azalpenetatik kanpo utzi izanak jarraitutasuneko dinamikak proposamenetik kanpo uzten ditu, eta honek hutsune handia sortzen du soziologoaren ekarrian. Gainera, funtzionalitateari espresuki erreparatu ez izanak, forma sinbolikoen baitan zehaztasunik eman gabe, sobera lausotzen du azalpena: forma sinbolikoei irizpide honen arabera behatu ez izanak izaera zehatzagoez —baliabide sinbolikoez, kasu— ohartzea zaildu egiten du. Are gehiago, arraroa iduritzen zaigu Thompsonen Geertzi eginiko kritika nagusietarik bat —forma sinbolikoak direla eta— testuinguruaren eragina aski kontuan hartu ez izana izanik,

testuinguru horietan bertan sortzen diren dinamikak gehiago nabarmendu ez izana. Akitzeko, hain zuzen ere dinamikak espresuki kontuan hartu ez izanak lausotu egin du erakunde sozialen artean estaturik gabeko nazioen dinamika aldakorretan, *continuum* iraultzaileetan, sor daitezkeen indarren kasuistika zehaztu ahal izaterik; Thompsonnek aipatzen dituen erakundeen eragina hain egituratuak edo antolatuak ez diren arituetatik hel liteke; euskal komunitatearen kasuan, adibidez, kulturgileek estatuarekiko elkarreragin eremuaren izana aldatu egin zuten, eta barne-arau multzoa bihurtu egin zen.

Estaturik gabeko nazioen azterketarako proposamenak

Estaturik gabeko nazio-komunitateen azterketak tresna teoriko berezituaren sortzea eskatzen du; estatudun nazioen azterketarako erabiltzen ditugun tresnen egokitzapena egin ordez, estaturik gabeko komunitate errealtatearen ezagutza abiapuntu duten tresna teorikoak behar ditugu.

Aztergaiek berek behartu gaituzte bigarren moldaketa teoriko multzoa garatzera. Euskal komunitatea, EKS, Euskal Kultur Eremua (EKE) eta euskal ondare kulturala aztertu nahiak eraman gaitu komunitatearen izanari buruz oinarrizko ezaugarri eragilea hasieratik garbi izatera. Hala, azterketa hasi aitzin, estaturik gabeko nazio-komunitateei egokituriko tresnak behar genituela sumatu genuen. Horrek bulkatu gintuen, Anthony D. Smithek etno-sinbolismoari buruz erranez gain, Montserrat Guibernauk, espresuki, gaineratu dizkion ñabardurak kontuan izatera.

Montserrat Guibernauk estaturik gabeko komunitateen azterketarako ideia garrantzitsuak eskaintzen dizkigu: identitate nazionalaren eraikuntza eta esperientzia garatzeko aldeak bereziki azpimarratu beharra argitzen du –“community of culture” eta “unity of meaning”, biak identitatea definitzen duten bi alderdiren mendekoak: jarraitutasunarekiko eta “bertze”ekiko desberdintzearekikoak–; komunitate azpiratuek estatu barneratzaileari aitzina egiteko bi modu nagusi dituztela ere zehazten du –Borroka Armatua eta Erresistentzia Kulturala; gainera, hondarreko honetan, lau aurkaritza modu nagusi aurkezten ditu–; azkenik, komunitateen autonomia prozesuetarako hagitz baliagarri izan daitezkeen egokitzapen eta korrespondentziak ulertzeko ideia zabalak ematen ditu: eskuordetze ofiziala eta onarpen kulturala autonomiaranzko prozesuen garapena ulertzeko erabilgarriak dira.

Ekarri garrantzitsu horiek, ordea, ez dute azterketan aurkitu ditugun zailtasunei aitzina egin ahal izateko adina tresna teorikorik eskaini, eta osatze lana egin behar izan

dugu; azterketa ahalik eta zehatz eta sistematikoena egin ahal izateko, hainbat ideia, lanabes eta proposamen gaineratu ditugu. Horien hautatze eta garatzeak euskal komunitatearen azterketan sakondu ahala agertu diren arazoetatik sortu badira ere, estaturik gabeko nazio-komunitateen kasuistika nagusia barne hartzen duten hiru behar nagusitu dira. Batetik, ez genuen, komunitate horiek izaten dituzten prozesuen artean, behar maila desberdinak aztertzeko tresnarik; bertzetik, ez zen eskuragarri komunitateen eta ondareen arteko harremanei, fase desberdinetan, behatzeko ikerketa sistematikorik; gainera, tesian erreferentzia genituen adituengandik heldu ziren tresna teorikoek ez zuten komunitateen errealitate aberatsa guk nahi bezainbertze zehazten, ez baitziguten aski laguntzen estaturik gabeko komunitateen errealitate anitza kontuan izateko.

(1) Duintasunean oinarrituriko behar mailak

Lehenengo hutsunea betetzeko, euskal komunitatearen 1960-1990 bitarteko prozesutik abiatuta, estaturik gabeko komunitateek duintasunean oinarrituriko behar maila desberdinak dituztela zehaztu dugu: oinarrizko duintasuna eta proiektzioa barneratzen duen duintasuna asebeste beharra. Azken hori egungo mundu globalizatuan parte-hartze funtzionala, eta gainerakoekiko parekidea, nahi duten estaturik gabeko komunitateen azterketarako ezinbertzekoa da.

Lehen duintasun maila, oinarrizkoa, berreskuratu behar den prozesuetan ikerlariak, langartuki, aipatzen dituzten ideiak bateratu ditugu; hala, prozesu horien azterketarako hiru puntu nabarmendu ditugu: denbora, talde izana eta sendotasuna. Denborari dagokionez, iraganeko eta orainaldiko sufrimendu parekatu eta bateratuek komunitate partaideen arteko batasuna lortzen dute, eta iragan historiko partekatuak eta etorkizuneko proiektu komunak, komunitate kideen arteko lokarria sendotzen (Guibernau 1996). Talde izanari dagokionez, talde esentziaren bilaketa gailentzen da: nazioa zerk osatzen duen eta, jarraitutasunean, zein ezaugarri irauten duen bilatu beharra sortzen da (Smith 2009). Sendotasunari dagokionez, oinarrizko duintasuna berreskuratu behar denetan, hautemate indibidualaz gain, kolektiboa ere konpondu, sendatu, behar izaten da (Margalit eta Raz 1990, *in* Guibernau 2009 [2007]).

Bigarren behar maila nagusitzen denean, aldiz, balioztatze endozentriko eta exozentrikoek gain, komunitatearen garapena lagunduko duen egituraketa lortu behar da, egun: komunitatea errealitate globalizatuan funtzional adina duin eginen duen antolaketa egituratua; zehazki, komunitatearen izaera banakoa funtzionalitate eta parekidetasunez aritzen lagundu eta babestuko duen egituraketa. Behar maila honen

asebetetzeak kultur eremuan dakarren prozesu nagusia erakundetze sistemikoa da. Horregatik, abiapuntu gisa, sistema integratuen eta integratzaileen azterketa proposatu dugu. Edozein gisatan, sistema integratuez gain, lehen behar maila asebeta ez den komunitateen kasuetan ager litekeen egoera deskribatu behar dela uste dugu: sistema ez-integratuak diren kasuei edo ez-integratu izatetik integratu izatera heldu diren prozesuei xeheki behatu behar zaie. Sistema ez-integratuak direla eta, pentsa liteke erreferentzia behar lukeen elementu multzoak antolakuntzarik ez izateak edo/eta inguruko elementuekiko interakzioan intentsitate eta maiztasun alderik ez sumatzeak erakutsi lezakeela sistema ez-integratu baten existentzia. Horretaz ohartzeak erraztu egiten du estaturik gabeko komunitateetan sor daitezkeen egoerak deskribatzea; hala nola, barnerlazio patrioiak dituzten elementu multzoak izanagatik, bilduko genituzke sistema zabalago bateko azpisistema integratuak ez diren sistemen egoerak ere.

Hain zuzen ere, kultur sistemetakiko erlazio patrioiak ulertzeko –eta, bereziki, estaturik gabeko komunitateetako erakundetzeetan, eremu berezituaren sistematizatzea gertatzen denetan–, hiru alderdiri behatu behar zaiela ondorioztatu dugu: “autonomia” kontzeptuari, komunitatearen isla nagusiari eta sistema integratu, ez-integratu nahiz integratzaileei. Horiei erreparatzeak kultur azpiero berezituaren antolaketa zehatza agertzen laguntzen du.

Hortaz, lehen hutsunea –komunitateen behar maila desberdinak islatu beharra– asebetetzeko tresnekin arazo nagusi bat konpondu dugu: antolakuntza sistemikorik gabeko komunitateetako erakundetze prozesuak, gertatzen diren bihurketak, zehazki ikertu ahal izatea. Horrek, preseski, ondorio nagusi batera eramane gaitu: estaturik gabeko komunitateek jasaten dituzten autonomiaranzko prozesuak ikertzeko ezinbertzekoa da behar mailak banatzea. Aztertu ditugun komunitateak eta garaiak ukazio egoeratik autonomiaranzko prozesua jasan duen estaturik gabeko komunitatearen kasuistika agerrarazi dute; baina iduripena dugu erakundetze prozesua, ez bakarrik ukazio egoeren akieran, mundu globalizatuan funtzionalitatez aritzeko jauzia ematen duten komunitateen kasuan ere gertatzen dela.

(2) Nazio-komunitateen eta ondareen arteko harreman espezifikoak

Etno-sinbolismoak estaturik gabeko nazio-komunitateak aztertzeke ikuspegia eskaintzen badu ere, eta Guibernauk eginiko zehazteez gain, bigarren arazo nagusi bat konpondu ahal izateko ahaleginak egin ditugu: estaturik gabeko komunitateek ondarearekiko dituzten harremanak modu egituratuan aztertzen laguntzen duten tresnak proposatzen saiatu gara. Komunitateetan behar mailak badirela ohartu izanak, preseski, fase horietarik bakoitzean komunitateen eta ondareen artean sortzen diren harremanak ikertu beharrera eraman gaitu, eta, horrekin, tresna multzo handi xamarra biltzera heldu gara.

(a) Zeinahi garai edo dinamiken azterketa egin behar dugularik...

Ezin dugu azterketa komunitateen eta kulturaren ikuspegi estatistikotik abiatu; ikuspegi dinamikotik abiatuak ez diren ikerketek harremanaren joan-etorriak gaizki ulertzera eramanen gaituzte, eta horrek komunitateaz kanpoko pertzepzio interesatuak bulka ditzake.

Estaturik gabeko komunitateen eta ondarearen harremanean sakondu nahi badugu, beti erreparatu beharreko hiru alderdi nagusi dira: *continuuma*, autokontzepzio –edo pertzepzio– kolektiboa eta testuinguruaren eragin zehatza. Hiru puntu horiek aukera emanen digute estaturik gabeko komunitateen eta ondareen arteko harremanari elkarreragin dinamikoan –denboraren, eraginen eta helburuen artekoan– behatzeko.

Thompsonen proposamenean sumatzen genuen hutsuneetarik bat gisa aurkeztu dugu *continuumei* dagokiena; mantentze *continuumak*, *continuum* iraultzaileak eta *continuum* normalizatuak lagundu egiten dute komunitateek dituzten faseak deskribatzen, eta, gainera, gertatzen diren aldaketa nabarien iturria testuinguru orokor eta logiko batean harilkatzen. Komunitateko denbora erreferentzien aldakortasuna espresuki autokontzepzioaren azterketan azaleratzen denean ageri dira, hobekien, komunitateak orainalditik iraganarekiko eta etorkizunarekiko bizi dituen oinarritzko tentsioak; iraganean izanak oinarria eskaini, eta helduko denak –hala uste denak– proiektua moldatzen baitu. Hala, bi erreferentzia horiek komunitateak ondarearenganako duen asmoa eta egokitzen dizkion funtzioak ontzen dituzte.

Alabaina, irudikatze kolektiboak duintasuna eta proiektzioa eragile nagusi dituelarik, bi baldintzatzaile horien muinak hertsiko du komunitateak garaien artean ezartzen duen harremana; erabilera zehatzaz haratago, komunitate helburuen izana nahiz ahalmena mugatuko ditu, nabarmen. Beraz, eragile horien funtsari behatu beharko

diogu: biak banatzen, berdintzen eta elkarrekiko mendekotasunean jartzen dituzten tasunei.

Batetik, duintasuna eta proiektzioa banatzen dituen ezaugarria landu behar da, bakoitzak garai nagusi bat baitu erreferentzia nagusi: duintasunak iragana duen gisa, etorkizuna da proiektzioan gailentzen den erreferentzia. Denbora horren erabilerak baldintzatzen du, zehazki, eragin motaren izana; arestian erran gisa, iraganaren erabilera hertsitzaileak, soilik, kondentzen du komunitatea existentzia immobilista batera. Bertzetik, bien elkargunea agerrarazten duen alderdiaz aritu beharko gara: biak dira, oinarrian, komunitate duintasun garaikidea lortzeko pausoak. Duintasun oinarritzkoaren lorpenaz gain, egungo mundu globalizatutik eta, bereziki, estaturik gabeko nazioen kasutik abiatuz gero, komunitate duintasunaren bigarren pauso gisa atzeman liteke komunitate existentzia etorkizunean ahalbidetuko duen ideia, plangintza eta ekimen multzoa. Hirugarrenik, eragileen elkarrekiko mendekotasuna agerrarazten duen alderdia nabarmendu beharko dugu, proiektzioaren gibelindarrrik gabe, duintasunaren eraginez, sortuak liratekeen ondorioen izaera positiboa aisa eraldatuko bailitzateke: estaturik gabeko nazio batek, mundu globalizatuan, proiektzioa beretu, eta horrekin bat heldu den proiektua, asmoa, garatu ezean, nekez izanen da estatu barneratzaile baten mendeko nazio onartua. Gisa berean, oinarritzko duintasunik izan gabe, ezinen du proiektzioarendako beharrezkoa den ziurtasun kolektiborik garatu; halatan, oinarritzko duintasunaren lorpenik gabe alferrikakoak dira proiektzioak, komunitateak proiektzioaren ideia barneratzeko eta aitzina egitea laguntzeko ezinbertzeko baitu oinarritzko duintasuna lortzea.

Komunitate kontzeptzioaren, nahiz berau sostengatzen du(t)en oinarriaren edo oinarrien, funtzionalitateak agerrarazteko, jarraiduren eraginei erreparatu behar zaie: eragin aitzinatzaileari eta gibelatzaileari. Hortik abiatuta, identitate kolektiboaren funtzioak aztertzea aisago da. Duintasun eta proiektzioaren eraginaz gain, bi alderdi horien konbinaziotik garatzen den komunitate autoirudia eta, bereziki, irudi horren funtzioa aztertu behar dira. Batetik, autokontzeptzio kolektiboaren funtzioa nazio-komunitateen egokitzapena gertatzeko funtsa delakotz; hau da, garaiak aldatu ahala, testuinguru eta behar berriei egokitu, eta aitzina begira garatzeko. Bertzetik, autokontzeptzio kolektiboaren izaerak identitate horren funtzio aitzinatzaile edo gibelatzailea bideratzen duelakotz; funtzio nagusi bakoitzaren izana sumatzeko, birmoldatze saioaren gidaritza duen gun e eragilerik baden ikusi, gun e horretako

partaideen nahiz bertze komunitate kideen arteko distantziaren nondik norakoei behatu, eta komunitatearen irudia etorkizunerako proiektzioz osatzen ote den aztertu behar litzateke. Komunitate autokontzepzioak duen funtzioa aztertzearen aldeko hirugarren arrazoia zera da: komunitatearen biziraupenerako ahalmen oinarrizkoenaz gain –egokitze gaitasuna–, bidegile nahiz eragileen eta komunitateko gainerako kideen arteko harremanak guziz baldintzatzen dituela. Egin kontu estaturik gabeko nazioen kasuan, komunitateak etorkizunean izan dezakeen dimentsio hori garatu ezean, iraganari kateaturik geratzeko arrisku handia dela. Estaturik gabeko egungo nazioetan estatutiko –edo, hala denean, komunitate mailako autonomien sistematiko– babes ofizialaren gabezia proiektzio horren indarrak orekatuko bailuke, komunitatearen erresistentzia gisa.

Hortaz, AOK aztertzeko funtzio desberdinen azterketa proposatzen dugun gisa, komunitate horien eta ondareen artean sortzen diren garapenaren norabideak aztertzeko, identitate kolektiboaren funtzioa zehaztea hagitik garrantzitsua dela uste dugu. Fokua funtzionalitatean jarriaz, komunitateen eraldatze gaitasuna –beraz, *continuum*erako oinarrizko tasuna– mantendu, altxatu eta garatu edo berreskuratzeko bideak aurkitzeaz gain, horien erabilgarritasun orokorra azaleratzen baita, eta, beraz, komunitate zehatzen azterketa egin ahal izateko tresnak sortu ahal ditugu. Urrutira gabe, tesian bertan erabilera hirukoitza izan du proposamenak: 1960-1990 bitarteko kultur moldatze nagusia aztertzeko oinarrizko tresnak eskaini dira, aitzinmoldaketatik bideak agerrarazteko lagungarri izan da, eta egungo EKSren nondik norakoen oinarriak atzemateko abiapuntu ezinbertzeko izan da.

Proposaturiko alderdiei behatu ezean, ondareen berreskuratze, moldatze eta birmoldatzeak jarraitutasun koherentean gertatzen ez diren gertaera bakartu, edo desfasatu, gisa uler litezke. Ondorioz, komunitatetik ulerkuntza hertsitzeaz gain, aisago da komunitate kanpotiko hausnarketek diskurtso baliogabetzaileak garatzea; ondareen eta komunitateen arteko harremanak egokitzeko egiten diren esfortzuak baliogabetzera jotzen duten diskurtsoak.

(b) Behar mailaren bat nagusitzen den testuinguruetan, ondarea aztertzeko...

Ezin dugu komunitatea bera gune ez duen azterketatik edo, abiapuntu baino gehiago, ondorio behar lukeen, puntutik abiatu; komunitatearen ikerketatik abiatuta, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana baldintzatzen duen prozesu nagusia –kasuan kasukoa eta ordura arteko ikuspegi ofiziala bertze alderdiren batean ardaztua izanik ere– identifikatu behar dugu.

Hala ere, harreman horiek ikuspegi zabal, baina zehatzez, ikertu ahal izateko, jarraitutasunean zehar sortzen diren dinamiketako prozesuei behatu behar zaiela ohartu gara. Erran nahi baita ondareen eta komunitateen artekoak behar mailaren bat gailentzen den garaiei eta, beraz, horien asebetetzeari, lotuak izaten direla. Hori dela eta, euskal komunitatean, 1960-1990 bitartean, sumaturiko lehen behar mailan eta bigarrean gailenduriko prozesuak gune dituzten bi alderdiri behatu diegu.

Espresuki lehen behar maila gailentzen den garaia aztertu dugunean, urrutiratua, atzenda edo harekiko harremana guziz arrotua den moldaketa identifikatu dugu: berreskuratze funtzionala. Kasu horretatik abiatuta, begirada zabalez behatu diegu halako prozesuetan nahi eta nahi ez ikertu behar diren bi alderdiri: oreka komunikatiboak eta ondareen funtzionalitateak berebiziko garrantzia dute ondareak berreskuratu behar diren prozesuen arrakastan. Oreka komunikatiboak eskainiaren eta zerbait eskaintzen zaion pertson(ar)en arteko komunikazioa baldintzatuko duenez, eragin handia izanen du. Ondare kulturalaren funtzio nagusiei dagokienez, zehazki behatu diegu AOK-k izan ditzakeen hiru bide nagusiei: teorikoa, praktiko-soziala eta simbolikoa.

Aldiz, bigarren behar mailan sor litezkeen premiak hausnartzeko, ikuspegi zabalaz erreparatu diogu euskal komunitatek 1975etik aitzina abiatu zuen prozesu nagusiari: birmoldaketa funtzionalari. Kasu honetan, egungo munduan, autonomiaranzko prozesuetan diren komunitateengan testuinguruak izan dezakeen eragin zehatzaz aritu gara: erakundetzeaz. Halakoetan, komunitateen eta ondareen artean sortzen den harremana zehaztu ahal izateko, gune eragileen izanari erreparatu behar zaiola uste dugu: botere egituratzaile-erakundetzailerik duten gune eragileei –gune egituratzaileei– eta botere egituratzaile-erakundetzailerik gabeko gune eragileei –gune ez-egituratzaileei–.

Beraz, komunitateen eta ondareen arteko harremana aztertu ahal izateko, hainbat tresna bildu behar izan dugu, eta, horietatik abiatuta, ondorio nagusi bat atera dugu: harremanaren berezitasunak zehaztu behar dira, horretarako tresna eta ikuspegi egokiak erabiliz. Bertzenaz, estaturik gabeko nazio-komunitateetan diren fase eta beharrak lausotu egiten dira, eta, gainera, aldi horietarik bakoitzean erabili beharreko estrategia berezituak izana ez dugu atzeman ahal izanen. Horrek, ezinbertzean, komunitateen errealitatea langartuki aztertzea eramaten gaitu, eta, bereziki, errealitatearen isla pobrea

ematen du –adibidez, eginiko moldaketek ahalbidetu digute, funtzionalitateen artean, orain arte ezagutzen ez genuen funtzionalitate urgazleaz jabetzea–.

Hortaz, erran gisa, komunitateen eta ondareen arteko harremanak aztertzeko, horien artekoa baldintzatu duen prozesutik abiatu beharrean, prozesu hori zein izan den argituko digun azterketa egin behar dugu; eta, horretan, lagungarri dira, hain zuzen ere, eskaini ditugun tresnak.

(c) Komunitatearen garapen bereizia osoki ulertzeko...

Ezin alboratu dugu estaturik gabeko komunitateetako errealitate sinbolikoaren azterketa, komunitatearen izaera osotua barne hartzen duen ulerkuntza lortu nahi badugu.

Garatu behar izan dugun hirugarren tresna multzoa behar batetik heldu da: estaturik gabeko komunitateen errealitate anitzak kontuan dituzten tresnen premiatik. Tesi guziaren norabidea behar zabal horretatik heldu da; izan ere, euskal komunitateak 1960-1990 bitartean jasan zuen prozesua aztertzeko, komunitatearen ordezkari mugatuaz bertzelako bilguneei behatu beharra sortu da. Are gehiago, proposatzen ditugun tresna guzietarik behinena deritzogu, preseski, estaturik gabeko komunitateetan erreferentzia geografiko eta administratibo langartuez haratagoko isla biltzen duenari: gune sinbolikoari.

Gune mugatu eta gune sinbolikoaren banaketak adituen erranei bi zehazte egitera bulkatu gaitu. Batetik, gune sinbolikoari erreparatzeak ahalbidetu du adituek azpimarratu ohi dituzten bi kontrol gunez gain –Guibernauk, Smithek eta Thompstonek aipatzen dituzten hezkuntza eta komunikabideak–, estaturik gabeko komunitateen garapenean garrantzia duen hirugarren kontrol gunea identifikatu ahal izana. Gisa horretan, estaturik gabeko nazio-komunitateetan sarri izaten diren hiru ardatzak kontuan izan ditugu: muga fisiko-administratiboak gainditurik, komunitate fase bakoitzari egokitzen zaion boterea baita gune sinbolikoan bildurikoa, botereen artean autonomoena. Bertzetik, komunitateen autoirudiaren garrantzia jakina izanik (Sarasua 2013: 311), autoirudi hori zein gunetatik heldu den jakitea ezinbertzekoa da, gune bakoitzak kanon gindatzaile diferenteak egokituko dituelakotz.

Gune sinboliko horretatik abiatuta, estaturik gabeko komunitateen errealitate sinbolikoko hainbat alderdi nabarmendu dira, azterketan zehar; bertzeak bertze, jarraitutasun sinbolikoak dakarren oinarri sinbolikoen gailentzea: erreferenteen, atzemateen eta erabileren edo zeharkako eraginen eite sinbolikoa.

Goiti genioen gisa, errealitate sinboliko hori ikertu ezean, nekez lor liteke estatutik gabeko komunitateen ordezkariak zabala kontuan hartzerik, eta, beraz, momentuan momentuko ordezkariak sinbolikoak nahiz horietan nagusi d(ir)en erreferentia(k) ulertzerik. Zer erranik ez, kontzienteki erabakitzerik.

Hiru behar nagusi horiek direla eta egin behar izan ditugun hausnarketek eta garatu ditugun tresnek ondorio bateratzaile bakarrera eraman gaituzte: ditugun tresna teorikoek ez dute estatutik gabeko nazio-komunitateen azterketa zehatza egiten laguntzen.

Komunitateengan duintasun maila desberdinak badirela ohartu gara, eta horietarik bakoitzaren asebetetzea garaian egokitzen diren arau zabalek ezartzen dituzten parametroei atxikia dela; egungo errealitate globalizatuan, erraterako, oinarrizko duintasun prozesuaren ondoko pausoa erakundetzeari lotua dela iduri du: estatutik gabeko komunitatearen izaera bereizia babestu eta bermatuko duen egitura erakundetzailea halabeharrezkoa dela iduri du. Duintasun maila horiei loturik, komunitateen eta ondareen arteko harremana modu desberdinetakoa izan daitekeela sumatu dugu; ikuspegi orokorrez gain, premia maila bakoitza gailentzen den garaietan, prozesu diferentek nagusitzen dira. Maila horiek, hain zuzen ere, komunitatearen errealitate mugatuaz gaindiko ordezkariak izaten dute, sarri, gibelerrrealitate nagusi.

Baina erranak aztertzeko tresna egokirik izan ezean, nekez ohartuko gara horien izanaz, eta existentzia horien kontzientzia ez izateak, bide posibleen lanketa murriztu egiten du –zailago bihurtzen, aukeren erabilera–, eta ulermenak huts egiten du.

Ondorioz, estatutik gabeko komunitateen azterketa kulturalerako bi tresna multzo, bederen, kontuan izan beharko ditugu. Batetik, komunitatearen osakeran eta garapenean berebiziko garrantzia duten baliabide sinbolikoak aztertu ahal izateko oinarri teorikoak; bertetik, espresuki estatutik gabeko komunitateen errealitate anitza ikertzeko beharrezko direnak. Biak, agerikoa denez, komunitatearen errealitate sinbolikoan sakontzeko ezinbertzeko lanabesak.

8.2. Ondorio praktikoak

Tesiari eman diogun egiturak atalez atal ondorio nagusiak biltzeko aukera eman digu, eta lanaren hasieran buruan genuen hipotesiari erantzun diogu. Sarreran genioen bagenuela susmo bat: EKS eta Euskal Literatur Sistema (ELS) garaikideek 1960-1990

bitartean ezarri zituztela oinarriak, eta komunitate garapenaren mesedetan gertatu zela prozesua. Ondoko orrialdeetan, emaitzak sintetizatuko ditugun arren, espresuki bilduko dugu hipotesiaren erantzuna ñabartzera eramán gaituen ideia multzoa. Hartara, ondorio bilketa gaurgero egin dugunez, bertzela eskainiko dugu, interpretazio bateratua emanaz.

Lehenik, aztertu dugun garaiko komunitatearen eta ondarearen arteko harremanaz arituko gara, ondorio agerikoenak islatzen dituen harreman mailaz (“Testuinguruaren, ondarearen eta komunitatearen arteko harreman koherentea”); segidan, ordea, ondorio horien gibleko errealitateari buruz arituko gara (“Trantsizio kultural inkoherentea”).

Testuinguruaren, ondarearen eta komunitatearen arteko harreman koherentea

1960-1990 bitarteko ondarearen eta komunitatearen arteko harremana koherentea izateagatik, EKE eta ELE komunitate behar nagusiekiko mendekotasunean garatu ziren.

Segidan diren hiru azpipuntuetan, lanaren hasieran buruan genuen hipotesiaren erantzuna agertuko dugu; horretarako, tesian agertu diren 1960-1990 bitarteko ondarearen eta komunitatearen arteko harremanei –elkarreraginei– eta prozesuei behatu, eta tresna teoriko moldatuak erabiliko ditugu.

(1) Jarraitutasuna, autokontzepzio kolektiboa eta testuingurua, ondarearen eta komunitatearen arteko harremanaren gidari

Ondarearen eta komunitatearen arteko harremanak aztertzeke, testuinguru zehatzetan diren dinamikak, horien bulkadak eta eraginak aztertu behar direla proposatu dugu. Hala, guk geronek 1960-1990 bitarteko euskal komunitatearen jarraitutasunei, autokontzepzio kolektiboaren funtzioei eta horien eraginez sorturiko prozesu nagusiei behatu diegu.

Lana hasi bezain agudo ohartu ginen hogeita hamar urte horietan bi fase izan zirela: lehena, diktadura batean murgildua zen komunitatearen ernatze garaia; bigarrena, ernatze horrek testuinguru berrian abiatu zuen finkatzea. Edozein gisatan, hagitx izaera desberdineko aldiak izan arren, parekidetasun erranahitsuak agertu dira, azterketan.

Lehen parekidetasun nabaria faseen eta beharren arteko korrespondentzia izan da; banaturiko faseetan behar berak izan ez baziren ere, fase bakoitzaren izanaren eta gailendu ziren beharren arteko korrespondentzia bera nabari da, bi hamabortzaldietan.

1960-1975 bitarteko urteetan, diktadurapean garaturiko Krisi Orokorrak eragin handia izan zuen gizartean, eta estatuan barneratuak ziren komunitateengan identitate maila azpiratuen kinka larritu egin zen. Zama horrek euskal komunitatean izan zuen eragin zehatza duintasun kolektiboaren oinarritzko berreskuratze premia izan zen. Behar horrek gararazi zuen aldaketa –azpiratua zen errealitatearen bilatze, eskuratze, moldatze eta eskaintzak osatzen zuen dinamika– Erresistentzia Kulturala izan zela ikusi dugu: Krisi Orokorrak *continuum* iraultzailean sorturiko ekimenak estatutiko boterearen espazioa zartatu eta eragina kamusteko erresistentzia lanak izan ziren.

Kultura urrunduaren jabetzak –jabego horren kontzientziak berak– ondorio sakonak izan zituen, euskal komunitatearen garai eta mailetan. Mailei dagokienez, ondarearenganako afektibitateak komunitatekideen arteko lotura eta partekatze sentimena lagundu zituen; corpus zehatzean proiektatzen ziren sentimenak bezain adierazgarri da, hain zuzen, corpusaren eskaintzan edo haren inguruko komunikazio espazioetan sortzen zen giroaren zama emozionala. Horrek, corpusarekiko atxikitzeaz gain, giroak bilakatzen zituen senidetza sostengurako katalizadore. Denbora tarte desberdinetan izaniko ondorioei dagokienez, komunitatearen iragana, haren isla gisa atzeman zen corpora eta ezagutza arrazoiak haraindiko loturekin balioztatu zirenez, epe luzeagoan, bakarrik, atzemanen ziren ondorioak sortu zituen: duintasunaren finkatze emozionalak ahalbidetu zuen 1975etik aitzinako erakundetzearen helduleku kulturala.

1975-1990 bitartean ere, faseen eta beharren arteko lotura nabaria da. Krisi Orokor Ñabartuarekin, zalantza, ezinegon eta alienazio berriak nagusitu ziren. Testuinguru horren izaera zabalena legeek islatzen dute, estatuaren eta komunitatearen arteko harremana egituratu baitzuten. Lege horien ezarpenak aitzinez sobera aldakorrek ziren ideiak, nahiak eta ekimenak antolakuntza egituratuetan biltzea ekarri zuen. Alabaina, testuingurua bera zen nahasia, eta autonomien sistemarekin heldu zen antolaketak botereen arteko lehia bizia ekarri zuen.

Kontrol gune nagusien jabetza hagitz garrantzitsua izan zen, Hego Euskal Herrian (HEH). Tesian espresuki erreparatu diogu hezkuntzaren kontrolak Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) erakundetzean izan zuen muntari; garrantzia hori agertzen dute bai ikastolen eta eskola publikoaren hautatze nahiz legezkatze prozesuek, bai EAeren erakundetzean bi abertzaletasun nagusien arteko tirabirek. Horregatik, legeek HEHn izan zuten eragina nabaria eta zabala izan bazen ere, hezkuntzaren eta komunikabideen

kudeaketa iduritu zaigu, 1975etik aitzina, komunitatearen eta ondarearen arteko harremana baldintzatuko zuen alderdi nagusia⁸³⁰.

1978-1986 bitartean ezarri zen lege multzoarekin, aitzineko fasearen eta sistema berriaren arteko korrespondentzia posibleen eta balizko egokitasunen markoa agertu zen. Bertzela erranda, diktadura ondoko hamabortz urteetan agertu ziren komunitatearen ahalak, nahiak, beharrak eta ezintasunak mugatuko zituzten eskubide, eskumen eta ahalbide langartuak; zehazki, horien isla zen 1978ko Espainiako Konstituzioak, EAEko Estatutuak (1979) nahiz Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Legeak (1982) eta Euskararen Legeak (1982) nahiz Euskarari Buruzko Foru Legeak (1986) osatzen zuten lege multzoa.

Estatutiko eskuordetze ofizialak eta onarpen kulturalak mugatu zuten ondarearen eta komunitatearen arteko harremanak eremu publikoan, zuzenean, izanen zuen gauzatze oro; horrek solasgai izan ditugun corpusaren, baliabide sinbolikoen eta eremuen garapena guziz baldintzatu zuen. Autonomien sistemak –maila desberdinetako harremana egituratzen zuen lege sistemak– eskubide bermatzaile eta kamustaileak edo mugatzaileak bateratzen zituen. Estatuak kultura barneratuen atzematea, espresuki, kontuan hartu izanak sarri atzendua izaten den errealitatea azaleratzen lagundu du: autonomien sistemak estatuaren izaera batu eta banaezina bermatzea zuen helburu nagusietarikoa. Hala, bada, euskal komunitatearen onarpen kulturala eskuordetze ofizialaren eskutik heldu bazen ere, legeen bermea baldintzatua izanik, HEHko kultura berezitua estatuaren baitako “aniztasun kultural” gisa legeztatu zen; kurioski, estatuaren izaera oinarritzen zuen aniztasun gisa.

Bi faseen artean sumatu dugun bigarren parekidetasuna komunitate beharren eta prozesu nagusien artekoa izan da; kasu honetan ere, ez diogu bi faseetan prozesu berak agertu izanari erreferentziarik egiten, bi aldietan izan zen beharren eta prozesuen arteko koherentziari baizik.

1960-1975 bitarteko jarraitutasun iraultzailean, oinarritzko duintze kolektiboaren berreskuratze prozesua gailendu zen. Hortaz, iragana, taldearen izana eta batasuna oinarritu eta sendatzeko ekimena izan zen; corpora berreskuratzeak, eskaintzeak eta beretzeak berregituraketa konplexua ekarri zuen: corpora eskaintzeaz gain, hura beretzeko oinarritzko legeak eta hautemate norabideak sortu edo, beharren arabera, berriztatu behar izan ziren. Hots, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana

⁸³⁰ “Trantsizio kultural inkoherentea” puntuan zehaztuko dugu ideia hau.

bermatuko zuen sinbolo sistema berria sortu zen, 60etan abiatutako lana euskal sinbolo sarearen berregituraketa sakona izan baitzen: forma eta baliabide sinbolikoen interpretatzeak eta erabilerak komunitatearen oinarrizko duintasuna berreskuratzeko gisan egin ziren, eta, beraz, berebiziko eragina izan zuten arestian aipaturiko arrazoiaz haraindiko atxikitze eta ulerkuntzek.

Halatan, egin beharreko eskaintzak eta beretzeak arrotasun maila desberdinekiko bateragarriak izan behar ziren. Horretarako, erabilgarritasunaren eta adierazgarritasunaren arteko oreka behar zen. Harreman horren muinean, ondarearen eskaintza bezain garrantzitsu izan ziren eskaintza hori sostengatzeko baliabideak. Erran nahi baita ezinbertzekoak izan zirela, sinbolo amaraunaren berregituraketaz gain, berrikuntzak komunitatearengan barreiatu eta atxikitzea lortu zuten baliabideak. Hori dela eta, batetik, espresuki erreparatu diogu ondarearen eta komunitatearen arteko harremanaren oinarrizko izaera agertzen duen irizpideari: funtzioari. Bertzetik, funtzio horren baliagarritasuna bermatuko zuen tresnaz aritu gara: oreka komunikatiboaz. Bi alderdi horiek harremanaren izana islatzeaz gain, arrakastaren oinarriez ohartzeko aukera eman digute.

Oinarrizko ondarearen eskaintza horretan, kulturgileek osatu zuten gune eragile eta antolatzaile nagusia; beren eskaintzaren arrakasta, preseski, ezezagunaren interpretazio funtzionaletik heldu zen. Eskaintza horietan lortu zuten AOK berreskuratu berriaren eginkizuna funtzionalitate sinbolikotik haratagoko helburuetarako gaitzea; izan ere, egia da AOK-ko atal bat iragan errealitateari atxikirik finkatu zela, 70eko hamarkadan zehar, baina atxikitze horren erabilera eguneratu egin zuten.

Funtzionalitatearen osatze horren erakusgarri modura eskaini dugu Mikel Laboaren arituari buruzko laburpena. Garaiko kantariei esker, baladak, kanta nahiz koplak zaharrak eta bertsoak euskal iragan komunaren erreferentzia sinboliko gisa indartu ziren, elementu horien baliagarritasuna funtzionalitate sinbolikorantz lerratu zelarik. Laboak baliabideak testuinguru abangoardiazkoan kokatu zituen; entzuleendako ezagunak izaten hasiak ziren ahapaldiak eta doinuak –marmar gisara– hagitik kantu esperimentaletan eskainiaz, ondareari berritasunerako ateak ireki zituzten: corpusaren eskaintzaz haratago, corpusa bera eta, bereziki, haren funtzionalitate sinbolikoa tresna bihurtuz, abangoardiazko arituan oreka komunikatiboa lortzeko.

Beraz, M. Laboak AOK-ko elementuak baliabide sinboliko gisa eskaintzeaz gain, beren funtzionalitate estreinatu berriarekin birgaitze abangoardista lortu zuen; hain

justu, 1960-1975 bitarteko ondare eta komunitate arteko harremanaren muinaren, oreka komunikatiboaren, garrantzia agerraraziaz: ondarea kantu esperimentaletan oreka komunikatiborako tresna bihurtuz, helburu garaikideetarako birgaitu zuen.

Fase horren hurrengo pausoa testuinguru aldaketarekin heldu zen. 1975-1990 bitartean, komunitatearen eta ondarearen arteko harremanaren berregituraketa bertze prozesu nagusi batek baldintzatu zuen: komunitatearen bigarren behar mailari atxikia zen erakundetzeak.

Lehenengo fasearen prozesutik bigarreneko indarra komunitate duintasunaren funtzionalitate birmoldaketa izan zen: euskal duintasuna oinarrizko eskubideak bermatzeko izateaz gain, proiektio zabalagoko komunitatearen bermea lortzeko argudio ere bazen. Gakoa komunitatearen identitate kolektiboari proiektioz behatzea izan zen: iraganaren ezagutze eta berreskuratze lanez gaindi, etorkizuna irudikatzea eta hura lortzeko urratsak abiatzea ezinbertzeko pausoak izan ziren euskal komunitatea aro berrira egokitze; lanean azaldu dugunez, euskararen batasuna eta ikastolak izan ziren proiektio horren lehen erakusgarri sendoak. Horrekin, euskal komunitateak mundu globalean bere tokia –bereizia, baina parekidea– lortzeko oinarrizko tresnak eskuratu, eta zutarriak berreraiki zituen, printzipioz.

Edozein gisatan, euskal komunitatearen azterketan ari ginela, ohartu gara 1960-1990 bitarteko bi faseen eragile nagusia ulertzeko, XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitarteko kultur moldaketari erreparatu behar zaiola; are gehiago, harekiko bihurteta garrantzitsuak bulkatu zuela aztergai izan dugun saioa: komunitatearen duintasuna kamusten zuen ikuspegiaren gailentasuna akitzea izan zen inflexio puntua.

XIX. mendearen akieran eta XX. mendearen hasieran, ikuspegi zaharrak –Sabino Aranaren ikuspegia eta Alderdi Jeltzalearen ideologia, nagusiki, biltzen zituenak– ziprztindu zuen euskal komunitateari atxikiriko alderdi ororen garapena, eta iraganarekiko kateatze mugatzailea orokortu zuen, Aro Ilunean zehar: iragan denboraren idealizazioak, arrazaren goraiatzeak eta etorkizunerako plangintza errealisten gabeziak barreiatu zuten aitzina pauso nagusirik irudika ezin zezakeen pentsamendua. Landa munduarekiko eta euskara “jatorra”rekiko atxikitzeitsuak bai komunitate bizitza, bai bizitza horretarako garapen kulturala nahiz hizkuntza, antzutu egin zituen; gainera, ikuspegiaren hertsia garai berrietarako baliogabetu zituen komunitate tresnak –hizkuntzaren aldakortasun naturala, kasu–. Ikuspegi horrek, nahiz berau suspertu zuten

bideratzaileek, noski, eragin gibelatzailea izan zuten euskal komunitatearen garapenean: iragan denborekiko atxikitze itsua eta etorkizunari aitzina egin ezina nagusitzeaz gain, komunitate eremuak ikuspegi gerarazle batetik abiatuak izaki, ondarea eta balizko etorkizuna identitate aitzinatzailek gabe geratu ziren. Hala, ikuspegi hark komunitatea, Aro Iluneko urteetan azpiraturik, lagungarri zatekeen sostengu kolektiborik gabe utzi zuen. Oraina bera ukatu egiten zuen delako iragan horrekiko mendekotasunak, eta eguneratze nahiak akitzen, proiektzio ahalmen oro bertan beheiti geratuz.

60ko hamarkadatik aitzina, ordea, ikuspegi horrek komunitatean ezartzen zituen kateak hautsi, eta Europatiko eraginak hurbildu nahi zituzten ikuspegi anitzak zabaldu ziren. Kontraposizio horretatik agertu ziren ikuspegietatik garatu ahal izan zen, hain zuzen ere, 1960-1990 bitarteko saioa. Iraganaren berreskuratzea etorkizuna eraiki ahal izateko oinarri bihurtu zen, eta aukera eskaini zuen herriaren ekimenetik, nagusiki, abiatua izan zen saioak kulturgileekiko harreman orekatua garatzeko.

Beraz, 1960-1990 bitarteko lehen eta bigarren faseen artean koherentzia handiak izan zirela ondorioztatu dugu. Batetik, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana fase-behar-prozesu arteko korrespondentzia berean moldatu zela ikusi dugu. Bertzetik, gibeleragile bera izan zutela ondorioztatu dugu: ikuspegi kamustailearen akierak komunitatearen dinamika garatzailea abiatu zuen.

Parekidetasun hori islatu ahal izateko egitura eman nahi izan diogu lanari: hamabortzaldi bakoitzeko testuinguru zehatzetik abiatuta, behar maila nagusiak identifikatu, eta horiek asebetetzen lagundu zuten prozesuak aztertu ditugu. Ondoko azpipuntuan, ondarearen eta komunitatearen arteko harremana moldatu zuten alderdi horiek EKEEn eta ELEEn, espresuki, izan zuten eraginaz eta, zehazki, erran ditugunek gure hipotesian duten eraginaz arituko gara.

(2) Ondarearen eta komunitate garapenaren arteko elkarreragina: balioztatzeak, mugarri

Beharren eta prozesuen arteko koherentziak kultur moldaketa oro korrespondentzia horretan murgildu zuen, eta, beraz, EKEren eta ELEren izana komunitatearen behar horiek asebetetzeari lotua izan zen, bi faseetan. Bi alderditan nabaritzen da, argien, makurtze horren eragina: batetik, prozesu nagusietan parte hartu zuen ondare kulturean eta ondare horrek jasan zituen prozesuen izanean; bertzetik, eremuek jasan zituzten balioztatzeetan.

EKEk eta ELEk, bi faseetan, komunitate garapenarekiko izan zuten harremana zehazteko –eta, espresuki, funtzionalitateak aztertze–, eremu horiek fase bakoitzean izan zituzten balioztatzei erreparatu behar izan diegu. Alegia, balioztatzei behatzeak bi aldetarik lagundu digu EKEk eta ELEk komunitate garapenarekiko izan zuten harremana zehazten: bi faseetako balioztatzeek eremu bakoitzak komunitate garapenarekiko izan zuen mendekotasunaren berri soila emateaz gain, espresuki agerrarazten dituzte EKEk eta ELEk EKS eta ELS egituratu izateko izan zituzten inflexio puntuak; hots, balioztatzeek lagundu digute eremuek komunitatearen garapenarekiko izan zuten balizko mendekotasunaren izanaz gain, eremu bakoitzaren garapen berezitua, zehazki, gertatu ahal izateko momentu behinenak nabarmentzen.

Balioztatze Prozesu Nagusia dela medio, euskal komunitateak, 1960-1975 bitartean, mailarik zabalenean, jasan zuen balioztatze prozesua eman dugu aditzera: berreskuratzen hasia zen ondare kulturalak garatu zuen barne-balioztatze sinbolikoa zabala izanik, euskal komunitateak, orokorrean, ondarearekiko abiatu zuen Balioztatze Prozesu Nagusiak kultur eremuetan eragin handia izan zuen.

ELeri dagokionez, kasu, Balioztatze Prozesu Nagusiaren bulkadaren eraginez, iraganetik berreskuraturiko ondarea izaera sinbolikotik aditu eta atzeman zen: jarraitutasun sinbolikoak ekarri zuen ELEk berreskuratu zen ondarearekiko harremana atzemate sinbolikotik abiatzea. Hala, Balioztatze Prozesu Nagusiak aditzera ematen digu ELEk maila zabalean gertatzen ari zen balioztatzea izan zuela, eta ez eremuaren izaera berezituari zegokion balioztatze berezitua; hain zuzen ere, ELEk kultur moldaketarekiko, lehen fasean, izan zuen harremana prozesu horren muinera, oinarrizko duintasun mailaren asebetetzera, makurtua baitzen. Egitura sistemiko bereziturik gabeko eremu izateak komunitate maila zabaleko balioztatze prozesuaren esku jarri zuen ELE. Beraz, prozesu zehatz horren helburu nagusia komunitatearen oinarrizko duintzea lortzea izaki, komunitatearen beharrak asebetetzeko ekimenaren baitan garatu zen ELE, 1960-1975 bitartean.

Egoera horren bihurteta balioztatze prozesuei erreparatuz da, espresuki, ageriko; zehazki, balioztatze horien eragileek izan zuten bilakatze sakonean: 1960-1975 bitarteko balioztatze posible bakarraren –Balioztatze Prozesu Nagusiaren– eragileak aldatu, eta maila desberdinetako balioztatzeak gertatzeko aukerak aldatu egin ziren: komunitatearen helburuen bulkada proiektio nahietik heldu zen, komunitatea etorkizun hurbil nahiz urrunean parekidetasunez, munduan, aritzeko aldaketak nahi ziren, eta

izaera bereizia oraindirako eta etorkizunerako gaitu behar zen; gero eta gehiago eta espezializatuagoak ziren erakundeak agertu ziren; eta, bereziki, elkarreragin eremuko kokapena aldatu egin zen: euskal komunitateak estatu barneratzailearekiko partekatzen zuten elkarreragin eremuko arauen patroiak aldatu, eta, mendeko kokapenetik atereaz, baliabide eta ahalbideak lortzeko aukera sortu zen.

Aldaketa multzo horrek balioztatzeak kuantitatiboki eta kualitatiboki gertatzeko parada aldatu egin zuen: balioztatze gehiago gertatu ahal izatea baino garrantzitsua izan zen, areagotze horren muinean, maila desberdinetako balioztatzeak gertatu ahal izateko aukera bera sortu izana. Hala, EKEko azpieremuetan abiatu ziren balioztatzeak azpieremuen izaera berezituari egokituak izan zitezkeen: balioztatze sinboliko berriztatu eta balioztatze ekonomikoekin batera –eremuen izaera bereziaren eta berezituaren berezko ezaugarriak garatzen laguntzen zituzten horiekin batera–, eremuak hornitu ziren, komunitatearen proiektzioa barne hartzen zuten helburuez gain, prozesuak osatu eta bermatzeko berezituak ziren erakundez, baliabidez eta ahalbidez. Izan ere, elkarreragin eremuko arauen berregituraketak ahalbideen errealitate berria ekarri zuen.

Balioztatze horiek aztergai izan ditugun eremuaren eta azpieremuaren funtzionalitatea deskribatzen lagundu digute; ezinbertzekoak izan dira EKEk eta ELEk komunitate garapenarekiko zein harreman izan zuten ulertu, eta, mendekotasunik izan bazen, zein mendekotasun mota edo maila izan zuten argudiatu ahal izateko.

EKEk komunitate garapenarekiko izan zuen mendekotasunaz ohartzeko –aipatu balioztatze prozesuei behatzeaz gain–, fase bakoitzean moldatu zen ondarearen izanari eta prozesuei behatu behar zaie. Tesian agertu gisa, lehen fasean, komunitatearen oinarrizko duintzea asebetetzeko espresuki egokia zen ondarea –AOK– izan zen birmoldaturiko ondare nagusia; ondare horrek jasaniko prozesua –esperientzia eta atzemate sinbolikoan oinarrituriko berreskuratze funtzionala– ere behar horren asebetetzeari lotua zen. Bigarren fasean, proiektzioa espresuki lortu ahal izateko ondarearen eta pausoen egokitasuna agerikoa da; aztergai izan dugun baliabide sinbolikoaren kasuan –tradizioaren agergune den literatur tradizioa–, proiektzioa lortu ahal izateko antolaketa eta bermea eman zitzaizkion, kanonizazio prozesuaren abiatzearekin.

ELEren mendekotasuna eta mendekotasun horren inflexio puntua balioztatzeek agerrarazten dituzte, hobekien –eremua bera zehatzagoa izanik, aisago da balioztatzeen eraginak mugatzea–. Nagusiki, zeharkako eragin gisa deskriba genezake ELEren

moldatze nagusiak, 1960-1975 bitartean, ELEN izan zuen eragin multzoa: bai kultur birformulaketaren ondoriozko isla literarioak, baita eragin sinbolikoak ere, eragite foku nagusiaren iturria bertze kultur eremu edota arituetan izan zuten, eta euskal literatura saio horiendako agertoki izan zen. Halatan, euskal literaturak sortze eta ugaltze espazioan izaniko funtzioa laguntzailearena izan zen; erran nahi baita autonomiarik gabeko eremua izanik, hein batean, bertzelako kultur aritu eta helburuetara makurturiko aritua izan zela. Beraz, ELSren aitzinegoerari erreparatuz, funtzionalitate urgazlea, nagusiki, zuen eremu gisa sumatu dugu ELE.

1975etik aitzinako testuinguru berrian ELEk izan zuen erakundetzea gertatu ahal izateko, ezinbertzekoa da, 1975era bitartean, eremuaren Balioztatze Prozesu Nagusiaz aritzea. Prozesu hori komunitatearen lehen behar mailari atxikia izan zen, garai bereko gehienek gisa; hala, bada, komunitatearen duintasun kolektiboaren berreskuratzea nagusi zelarik, ELEk ere bide horren eragina sumatu zuen. Gainera, euskal literaturaren eguneratzea komunitateak elkarreragin eremuan zuen kokapenak baldintzatu zuela ikusi dugu; Aro Ilunean zehar aitzinatzeak kasik akituak zirela, jarraitutasun iraultzailearekin abiatu zen barne-balioztatzeak ahalbidetu zuen dinamika gibelatzailea aldatzea. Hamarkadetako gibelatze horrekin batera, 1960-1975 bitarteko *continuum* iraultzailean zentsurak izan zuen eragin mugatzailea handia izan zenez, euskal literaturen garapen eta eguneratzeak ezin ziren sobera nabariak izan. Edozein gisatan, aitzinpauso mugatu horiek jorratu zuten bidea oinarri garrantzitsua izan zen; horiei eskerrak, 1975etik aitzina, komunitatetik ezezik, balioztatze exozentrikoak abiatu ahal izateko prozesuak gertatu zirelaketz.

Beraz, ELEren garapena –ELSrantzakoa– komunitate beharrekin koherentzian izan zen, eta, horretan, egituratu gabeko eremu izateak zerikusi handia izan zuen. ELE eremu finkatu gabea izateak euskal kulturaren lehen agertoki nagusi izaniko corpusera hurbilarazi gaitu; *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* hizpide harturik, literaturak –literatur eremua osatzen zuten argitaletxeek, sariak eta bertzek– eta aldizkariak berek nazio beharrekiko izan zuten korrespondentzia agerrarazi eta hausnartu dugu. Eremu urgazlea izan zen ELE, 1975era bitartean; 1975etik aitzina, balioztatze prozesuen eragileek jasan zuten aldaketa multzoa izan zen ELEtik ELSrantzako inflexio puntua, balioztatze berezituak ahalbidetu zituena.

Alabaina, 1975etik aitzinako inflexioa ez zen “autonomia” lortzea izan, autonomia momentuko parametroetara egokitu eta eguneratzea muin zuen bihurketa baizik. Balizko autonomiak komunitatearekiko ekarriko zukeen askapena hausnartzea garrantzitsua da, ELEk –1975etik aitzina, espresuki– komunitate garapenarekiko izan zuen harremana eta funtzionalitatea ulertu nahi baditugu.

(3) ELEren autonomia, birformulatua

ELEk, ELSren sorkuntzak berak, 1960-1990 bitarteko komunitate garapenarekiko izan zuen korrespondentziaz ohartu ondotik, ezin erran dugu, bertzelako azalpenik gabe, euskal literaturak hogeita hamar urte horietan “autonomia” lortu zuenik: ELEk ez zuen autonomiarik lortu, aritu literarioaren berezko izaera aunitzez modu askeagoan garatu ahal izateko autonomiaren izaera garaikidea eskuratu zuen; alegia, euskal literaturaren autonomiaren birformulazioa gertatu zen, 1975etik aitzinako erakundetze prozesuan.

Bertzela erranda, autonomiaren izana eguneratu egin zen, autonomiaren iturriei bertzelako parametroen arabera behatu baitzitzaien. Hots, literaturak 1960-1975 bitartean nagusitzen zen komunitate garapenarekiko lortu zuen autonomia: duintasunaren oinarritzko lorpena gune izanik, sakrifizio eta militantziaren halabeharrezkotasunengandik askatzea lortu zuen, printzipioz. Horrekiko autonomia lortu zuen, baina 1975-1990 bitarteko komunitate fasearen izanari egokitzen zitzaien autonomiari atxikiak: bigarren faseko helburu nagusia mundu garaikidean parekidetasunez eta funtzionalitatez aritzea izaki, ELEk helburu horren gibelbarrekiko mendekotasuna garatu zuen. Nagusiki, komunitateak testuinguru berrian garatu beharreko proiektuen koherentziarekiko mendekotasuna garatu zuen; hala, Literatur Tradizio Krisia bera komunitate beharreko mendekotasunaren isla da: autonomien sistemarekin abian jarri zen erkidego proiektu langartuekiko koherentea zatekeen literatur tradizioa behar zen.

Harreman horretan, ELSk eta literatur tradizioak, zehazki, Thompsonnek aipatzen dituen baldintzatzaileen eragina jasan izana mugarri izan zen. Balioztatzeen hiru eragile horiek 1960-1975 bitartean zuten izanarekiko aldakuntzarik jasan izan ez balute, ez ziren agertu izanen komunitatearen bigarren behar maila asebate ahal izateko kondizioak. Batetik, eremuaren izaera momentuko parametro funtzionaletara moldatzeko aukera sortu zen: ELE sistema integratu-integratzaile izateko parada sortu zen; bertzetik, produkzioaren oinarriak aldatu ziren: produkzio literarioa erreferentziazko komunitatean irakurria izateaz gain, munduan zehar ere hurbildua

izateko gaitu ahal izan zen –horretarako itzulpen sistema ezinbertzekoa izan zen–; hirugarrenik, literatur tradizioa, iraganaren babes eguneratua, erabaki zen: iraganaren ezagutza barne hartzen zuen literatur tradizioa –erreferentziazko iraganeko oinarrien ezagutza– eta haren erabilera eguneratu eta funtzionala osatu zen –helburu berrietarako funtzionala–.

Trantsizioan eskuragarri zen tradizioa Aro Ilunean zehar garatu gabea zen; mantendua, soilik. Gerra Zibiletik aitzinerako sorkuntzak apurrak izaki, berreskuratu beharreko tradizioa garai suntsitzaile haien gibelegoa zen. Hori dela eta, egonkortasun gabeziaren sentimena bikoitza izan zen. Batetik, tradizioko parametro seguruen gordailu behar zukeen Frankismo Aitzineko Tradizioarekiko identifikazio eza –anakroniak berak bulkatua– zen; aztertu ditugun arituekin, Euskal Tradizio Tradizionalaren berrinterpretazio aunitz agertu zela ikusi dugu: Sarrionandiak unibertsaltasuna aldarrikatu zuen, Juaristik dekonstrukzioa egin zuen, eta Atxagaren *Ob.* berrinterpretaziotiko eraikuntza izan zen. Bertzetik, frankismo garaian, euskal munduan, onduz zihoan ideologia nazionalistari jarraiki –Aro Iluneko Tradizioak harturiko lekuko heteronomoaz–, Trantsizioan aldarrikatu zen –eta literatura nahiz idazleei eskatzen zitzaien– konpromiso ideologikoarekiko lotura ezak berak sortua zen alienazioa.

ELERen finkatze prozesurako mugarrira, preseski, alienazio horretatik sorturiko tradizio hautaketa izan zen, ELERen erakundetze prozesurako ezinbertzeko baldintza baitzen nazioaren helburu berriei egokitzen zitzaien tradizio baliagarri eta funtzional bat hautatzea; haren ezagutzaz gaindi, etorkizuneko bidea garatu ahal izateko baliabideak eskainiko zituen tradizioa.

Aztertu ditugun aritu zehatzetan, hain justu, behar horrekiko garapen indibidual koherenteak sumatu ditugu: Bernardo Atxagak, Joseba Sarrionandiak eta Jon Juaristik, batera hasiriko garaiaren ondotik, bakoitzarendako desiragarri zatekeen komunitatearekiko koherentzian, proposamen banakoak egin zituzten. Hirurek parte hartu zuten, dela proposamen bermatzaile gisa, dela ukazioan nahiz lokarri irrazionaletan oinarrituz, tradizioaren berrinterpretazio bana eginaz, euskal literaturak –errealitate garaikidean funtzional izateko– behar zuen zutarri nagusietarikoaren bilaketan: iragan kanonikoaren eraikuntzan. Hala, implizituki, euskal komunitatearen *longue durée* ideia landu zutela ikusi dugu: euskal (literatur)tradizio garaikidearen izanak modernitatetik aitzina garaturiko elementuak soilik biltzen zituela aditzera emanaz, edo modernitate gibelego esentziaren aztarnak espresuki aipatu gabe utziaz.

Juaristik, modernitatetik gaurdainoko euskal tradizioa, abertzaletasun “asmatzaile”arekin lotuz, ukatu egin zuen, baina, hala ere, haren atzaparretatik kanpoko sorlekuarekiko errotzea agertuz. Hiru olerki liburuetan, Bilbo-Vinogradorekiko –nahiz gune horretan biltzen ziren memoria eta sinboloenganako– sortzen ziren sentimendu kontrajarriak ulertzeko espresuki izan da baliagarri *longue durée* kontzeptua; antzinako hotsak, deiak eta errotze ez-modernoak edo irrazionalak identifikatzeko. Atxagak, *Ziutateaz* eta *Etiopia* lanetako tradizioren ukatze nahiz hautatzeaz gain, *Obabakoak* liburuan euskal munduaren berrikusketa egin zuen. Sarrionandiak, *Ni ez naiz hemengoan*, *Izuen gordelekuetan barrenan* eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemaken*, tradizio osotuaren aldarrikapena egin zuen, nahiz eta ondoko *Marginaliako* ikuspegi hertsituak eta *Marinel zaharraren* ageri den mailakitzeak agerian utzi zuten unibertsaltasunaren aldeko oihu gibelatua.

Hiru proposamen horiek komunitateko literatur tradizioa hautatu beharraren ondorio izan ziren, eta aitzina egin zuen tradizio nagusia bat izan zen; Espainiako Literatur Sari Nazionalarekin kanpo-onarpena lortu zuen hura. Horregatik, literaturak autonomia lortu zuela erratean, garai berrietako literatur sistemetan finkatua den autonomiara moldatu zela erran beharko genuke, edo jakin, bederen, hori dela gibelerrealitatea.

Deskribatu dugun 1960-1975 bitarteko ELEren egoerak eta arakaturiko corpusak eremuaren bitarte horretako mendekotasuna ere handia zela erakutsi digute. Beraz, hogeita hamar urte horietako euskal literaturak burujabetasunerako bidea egin zuela diogunean, mendekotasunaren koordinatuak aldatu zirela ulertu behar dugu: eragina estatu menderatzailetik heldu ordez –eragin ukatzaile, gainera–, nazio-komunitatearen garapen bereiziaren eraikuntzatik heldu zen zama nagusia –kasu honetan, garapena bulkatzen zuena–. 1960-1975 bitartean, askatasun guzizkotik aldentzen zuten sentimenei edo atxikitzei, militantziari, lotua zen asebetetzearen muina; hurrengo fasean, nazioaren bigarren behar mailan, aitzinmilitantziaren zama kendurik, ELE askatasun guzizkotik –izaterik baldin bada, bederen– aldentzen zuen proiektuarekiko eta eraikuntza erakundetzailearekiko mendeko izan zen.

Hortaz, aztertu ditugun hogeita hamar urte horietan, estatu barneratzailearen mendekotasun akitzailea eta ideologia zaharraren eragin kamustailea baztertu, eta, komunitatearen beharrekiko koherentzian, eite “autonomia” garatu ahal izan zuen ELSk. Garapen berezitua ezinezko egiten zuen mendekotasuna utzi, eta aunitzez bide

berezkoagoa egiteko aukera ematen zuen korrespondentzian murgildu zen euskal literatura.

Ondorioz, 1960-1990 bitarteko testuinguruaren, ondarearen eta komunitatearen artean harreman koherentea izan zela argi da.

Batetik, faseen, beharren eta prozesuen arteko koherentzia izan zela ondorioztatu dugu; *continuumak*, autokontzepzio kolektiboak eta testuinguru bakoitzeko eragin bereziak izan dira harreman horren muina islatu ahal izateko tresna multzoa.

Bertzetik, EKE eta ELE koherentzia nagusi horiekiko korrespondentzian garatu zirela azaldu dugu. Bi faseetako kultur eremuen eta aritu zehatzen azterketarako, ezinbertzekoa izan da hainbat oinarri teoriko moldatzea: forma sinbolikoen balioztatze prozesuak eremu mailara egokituz, 1960-1975 bitarteko Balioztatze Prozesu Nagusiaz gain, 1975etik aitzinako balioztatze aniztasuna deskribatu ahal izan dugu. Zehazki, balioztatze sinboliko berriztatua eta balioztatze ekonomikoa azaltzeko hagitx erabilgarri izan da moldaketa teorikoa, baita Laboaren ekarria nondik heldu zen eta zein berrikuntza ekarri zuen jakiteko ere. Gainera, elkarreragin eremuen bihurteta ELE mailara hurbilduz, 1975etik aitzinako balioztatze ekonomikoa identifikatu ahal izan dugu, baita *Obabakoak* lanaren sariketak ekarri zuen balioztatze sinboliko berriztatuaren izana eta norabidea ulertu ere.

Hirugarrenik, hain zuzen ere hondarreko bide horri jarraiturik, EKE eta ELE komunitatearen garapenarekiko mendekotasunean erakundetu zirela sumatu ahal izan dugu: balioztatzeen eta prozesu horien eragileen azterketak EKSren eta ELSren osatzea euskal komunitatearen garapenarekiko eta, zehazki, behar mailekiko mendekotasunean oinarritu zela. Halatan, Thompsonen forma sinbolikoen azterketarako proposatzen zituen tresnen egokitzapena baliagarria izan da, EKS eta ELS garaikideen oinarriak 1960-1990 bitarteko euskal komunitatearen garapenarekiko koherentzian ondu zirela ohartzeko.

Alabaina, bilduriko ideia horiek 1960-1990 bitarteko kultur moldaketaren, arituen eta prozesu zabalen arteko alderik koherenteena islatzen duten arren, azterketan sakondu ahala, ondorio nagusi horren ifrentzua aurkitu dugu: fase batetik bertzerako trantsizio kulturala inkoherentea izan zela ohartu gara.

Horiek horrela, hipotesi nagusiaren erantzuna agerikoa izanagatik, erantzun hori ñabartu beharra sumatu dugunez, zehaztasunak berak azaltzen dituzten ondorioak ditugu, segidan.

Trantsizio kultural inkoherentea

EKS eta ELS garaikideen oinarriak 1960-1990 bitartean ezarri ziren, bai, komunitatearen beharrekiko mendekotasunean, baina gune sinbolikoaren erreferenteak hartu zituen gune mugatuaren babespean.

EKS eta ELS garaikideen oinarriak 1960-1990 bitartean, komunitate garapenarekiko lotura hertsian, ondu ote ziren jakiteko azterketak hainbat uste baieztatu ditu, baina orain arte sumatu gabeko bertze hainbat ideia agertu, eta hausnarketa berriak sortu zaizkigu. Ezusteko ideia horietarik garrantzitsuena da, ziur aski, segidan idatzi duguna.

Ikertu ditugun hogeita hamar urteetan, gune sinbolikoa –nabarmen– nagusi izatetik, komunitatearen gidaritzza gune mugatuetan –beti ere HEHz aritu garela jakinik, NFETik eta, bereziki, EAEtik– finkatzera heldu zen; hau da, garaia heldu zen euskal komunitatean gailendu ziren erreferentzia nagusiak –euskara–, helburuak –euskararen inguruko errealitatea publiko nahiz pribatua osatzea– eta parte-hartzaileak –HEHko euskaldunak, bederen– gune mugatuetatik gobernatzeko. Kontrol egituren kudeaketa aunitzez ahalbide gehiago zuten gune mugatuek hartu zuten; are gehiago, hezkuntza eta komunikabideez gain, gune sinbolikoaren erreferente eta parte-hartzaileak gune mugatuetako kultur eremu zenbaiten oinarritzat bereganatu zituzten –EAEren kasuan, nabarmen–. Hala, 1975-1990 bitartean, kudeaketa inkoherente bikoitza izan zela sumatu dugu: komunitatearen guneen kudeaketa berria aitzinfasearekiko inkoherentea izateaz gain, kontrol egituren kudeaketa, oinarrian, guneen izanarekiko kontraerranean finkatu zela iduri du.

Arazoaren lehen alderdia, erran gisa, komunitate guneen berregituraketak aitzinfasearekiko izan zuen haustura izan zen. 1975etik aitzina, komunitatearen ordezkari-tza desberdina –mugatua– zuten gune egituratzaileak sortu ziren, eta kudeaketa saio nagusia, abiatu; alegia, irauli egin zen –komunitatearen harreman mailak berregituratuko zituen komunitateen sistema heldu zenean– euskal ondarearen eta gune sinbolikoaren ordura arteko behin-behineko kudeaketa. Estatuaren eta komunitatearen arteko harremanak eta komunitatearen baitakoak berregituratu zituzten legeak agertu

zirenean, komunitatearen gune mugatu(ar)en kudeaketa langarra finkatu egin zen. Hortaz, fase berriarekin hel zitezkeen bihurtzen artean, legeek babesten zuten espazioa egituratu zen, gune mugatuaren finkapena nagusituz.

Autonomien sistemak aitzinez antolaketa langarra zuen hiztun komunitatearen izaera nagusia, zatikatua, finkatu egin zuen; bertzeak bertze, aitzinez herri-ekimenean uztartuak ziren alderdien kudeaketa partekatu egin behar izan zen: lehen fasean berreskuratu zen ondarea, bulkatu zen berreskuratze funtzionala, atxikitze sentimena, egituratzaile-antolatzaile izaniko kulturgileak eta gizartetiko erakundeak... lehen hamabortzaldian berregituratu zen sinbolo sarea, azken finean, gune mugatuaren antolakuntza politiko-administratiboetan barneratuz joan zen. Hau da, gidaritzaren partekatzeko garaia heldu zen: lehen faseko emaitzak –nahiz hagitz behin-behinekoak– antolakuntza nagusirik gabeko gune sinbolikoaren gidaritzan –erreferente, oinarri eta parte-hartzaileetan–, bakarrik, parte hartzetik, bertzelako izaera mugatuetakoa ordezkarietan tresna izatera heldu ziren. Izan ere, komunitatearen gune mugatuak egituratzen eta kudeatzen zituzten autonomia-erkidegoen esku ere baziren: ofizialduriko gune mugatueta finkatu behar izan ziren ordura arte gune sinbolikoarenak bakarrik izan zitezkeen erreferenteak –berreskuraturiko ondarea, hizkuntza...–, gune sinbolikoa indartzeko asmoz bulkaturiko prozesuak –berreskuratze funtzionala, euskararen erabilera gaurkotua...– eta gune antolatzaile nagusiak –kulturgileak, ikastolak...–.

Hala, bada, 1975etik aitzinako prozesuak kudeaketa bikoitza zekarren: ondarearena eta komunitatearen beraren gidaritzarena. Horrek trantsizio kulturalaren bigarren alderdi problematikoa agerrarazten du: gune mugatuaren eta oinarrien arteko harreman kontraerankorra.

Errealitatea konplexua zen: gune sinbolikoaren oinarritzko erreferentziarentzat, euskararentzat, gune mugatutiko laguntzak baziren; hala nola, ikastolak EAEko hezkuntza sisteman txertatzeko ahaleginak izan ziren, diru laguntzak baziren Euskaltzaindiarendako, baita bertze hainbat erakunderendako ere, erran dugunez. Horrek, hain zuzen ere, prozesuaren kontraerana islatzen du: gune sinbolikoaren babesak gune mugatu batetik –EAetik, nagusiki– ere heldu ziren. Baina norabide biko babesa zen; zehazki, gune mugatuko ordezkariak zuten hezkuntzak, komunikabideek eta abarrek 1960-1975 bitartean, gune sinbolikoa nagusi zelarik, ondu ziren erreferente eta parte-hartzaileak bereganatzen baitzituzten; gune sinbolikokoak.

Beraz, komunitate gidaritzaren eta guneen, ondarearen eta erakundetzearen artean ez zen koordinaziorik izan, eta horrek aitzinfasearekiko korrespondentziarik eza ekarri zuen. Hala, trantsizio kultural inkoherentea izan genuen euskal komunitatearen gidaritzan; lehen hamabortzaldian nagusitua zen gune sinbolikoaren dinamikarekiko inkoherentea.

Euskal komunitateak 1975-1990 bitartean bizitu zuen prozesuak aitzinfasearekiko desfasea ekarri zuelarik, idurizko aitzinatzea izan zen garai hartako euskal komunitateak, guneei dagokienez, izana. Gune sinbolikoaren gidaritza eskutik utzi, gune horren existentziaren kontzientzia makaldu, eta, bereziki, gune horren erakundetzea gibelatu zen; horrek, ezinbertzean, egungo EKSren oinarriak kontraerankorrek izatea ekarri du.

1975etik aitzinako kultur fasearen oinarrian, 1960-1975 bitartean garatuz joan ziren ondarearen eta gune eragileen moldaketa izan zela ikusi dugu, eta fase baten eta bertzearen artean desfaseak egon zirela –gune sinboliko eta mugatuaren egituraketari dagokiona, agerikoena–. 1975a arte, gidaritza posible bakarra gune sinbolikoarena eta herri-ekimenetikoa izan bazitekeen ere, ordutik aitzina, bertzelako guneak eta botere egiturak sortu ziren. Gune egituratzaileen ahalmena baldintzatzen zuten iturriak eraldatu zirenez, herri-ekimenetiko gune egituratzaileen eragina osatu eta indartu egin zen; indartu diogu, espresuki, mundu globalizatu eta modernoan funtzionalki aritzeko oinarritzko tresnak eta egiturak eskuratzen hasi baitzen euskal komunitatea: estatu-artekotasunean aritzeko aparatu instituzionala, egitura erakundetzailea, lortu zuen.

Hori dela eta, aisa ulertzen da ondarearen eta komunitatearen arteko harremanaren izana aldatu zuen berregituraketa horrek eragina izan zuela EKSren eta ELSren garapenean: gune sinbolikoa sostengatzen zuten egituren berme ekonomikoa eta legezkoa komunitatearen ordezkaritza mugatua bulkatzen zuten egituretatik, erkidegoetatik, heldu zen. Paradoxa horrek EKSn eta ELSn izan zuen isla laburbiltzea hagitx garrantzitsua da, ideia horretan biltzen baita egungo EKS eta ELS garaikideen ezaugarri nagusia.

EKSri buruz, eremuaren zabalagatik, orokorrean bakarrik solas bagaitezke ere, funtsari errepara diezaiokegu. Hizkuntzaren balioztatzea 1975-1990 bitarteko birmoldatzearen muinean izan bazen ere, euskarari esleituriko garrantzia ez zen kasualitatea izan, badu hagitx lotura garbia aitzinfasean eginiko bidearekin. 60ko hamarkadatik oinarri nagusi gisa hautatu zen erreferentea izanik –bulkada horren

jarraipenez-, funtzioak garatu zituen, gune mugatuetao proiektuetan. Alde batetik, euskal komunitatea muga geopolitikoet haratago batzen zuen ezaugarri nagusi gisa sumatu zen, berariaz bereganatu nahiriko euskal ezaugarri gisa; bertzetik, ordea, legeetan, EAEn oinarrietarik bat gisa agertu zen –Autonomia Estatutuaren puntu garrantzitsua izan, eta hezkuntza sistemaren egituratze nagusia goitik beheitira baldintzatu zuen–; NFEn, ordea, ez zen hezkuntza proiektuan funtsa izan, haustura puntu garrantzitsua baizik. HEHko erkidegoen arteko aldeak berak komunitatearen lagartzea areagotzen zuen; EAEn, NFEn ez bezala, 1960-1975 bitarteko prozesuaren muinean izaniko heldulekuak –gune sinbolikoaren izana, asmoak eta proiektuak oinarritu zituena– gune mugatutik babesa eskuratu, eta proiektu mugatuaren oinarrietarik bat gisa finkatzen joan zen.

ELSren 1975-1990 bitarteko osatze prozesuan ere gune sinbolikoko erreferenteen eta gune mugatuek eginiko kudeaketaren artean kontraerrana sumatzen dugu. Gune mugatuetaan bulkatzen zen euskal literaturak gune sinbolikoko erreferenteak eta parte-hartzaileak zituen oinarri: literatur tradizioan, iragan kanonikoa ez zuten EAEko idazleek bakarrik osatzen; eta literatur emaitza EAEn kudeatua izanagatik, mugarri geopolitikoetik haratagoko hartzaile eta egileek ere parte hartzen zuten –eta dute, egun, gero eta nabarmenago–. Beraz, erkidegoetan, gune mugatuetaetik haratagoko komunitate ordezkariatza erabili zen, kontrol egiturak bermatzeko.

Hortaz, EKS eta ELS garaikideen zutarrak aipatu kultur trantsizio inkoherentean ondu zirelarik, 1975etik aitzinako berregituraketak sortu zuen deskonpentsazioa EKSren bi maila horietan, bederen, islatu zen; zehazkiago, beren erakundetze eta oinarritze prozesuan. Deskonpentsazio horren giblean, komunitatearen bigarren fasea gune mugatuaren garapenari lotu izanetik heldu da. Hortik dator egungo EKSren eta ELSren ezaugarri nagusia: gune mugatuak –EAE, bereziki– zentro izanagatik, gune sinbolikoaren erreferentzia –corpusa, erreferenteak– eta parte-hartzea –erreferentzia horien ekoizleak, bulkatzaileak, parte-hartzaileak– behar-beharrezkoak dira bere izanerako.

Egoera horren hausnarketa ezinbertzekoa da. Bikoiztasun kontrajarriaren kontzientziak erakutsi du, lan honetan, EKSren nahiz bere baitako azpiero berezitu ezaugarria dela bikoiztasun hori, eta, beraz, kontzienteki kudeatzen hasi beharko genukeela; bertzeak bertze, gune bakoitzari eskaini nahi dizkiogun antolaketa eta egituraketak sortzeko erabakia hartuz.

Izaera kontrajarri horren jatorria arestian hizpide izan dugun desfasea izan zen: 1960-1975 bitartean bulkatu zen gizartetiko logika –bertzeak bertze, erresistentziarako logika nagusia izanik, aukera bakarra baitzen– eta gune sinbolikoaren gailentzea ordezkatu zituztelakotz autonomien sistematiko botere logikak eta gune mugatuaren bulkadak.

Ondorioz, EKS eta ELS garaikideen oinarriak euskal komunitatearen garapenarekiko mendekotasunean garatu ziren, eta horren erakusgarri garbiena da trantsizio kulturalen sortu ziren kontraerran nagusiak EKSn eta ELSn islatu izana. 1960-1975 bitartean nagusi izaniko gidaritza eta oinarri sinbolikoak gune mugatuen boterearekin partekatu behar izan ziren. Haatik, iduri lukeenaren kontra, bi faseen arteko inkoherentzia horrek gune mugatu eta gune sinbolikoaren izana bermatzen du: komunitatearen ordezkartza sinbolikoa bermatzen duten egiturentzako, botere egiturentzako, sostenguaren zati bat gune mugatutik etortzeak gune sinbolikoaren existentzia eta garrantzia frogatzen ditu. Bertzerik da, egun, horren kontzientzia zabalik ba ote dugun.

Alabaina, 1960-1990 bitarteko euskal errealitate sinbolikoaren koherentziak eta inkoherentziak berrikusi ondotik, ondorio bidegile bat atera dugu: kurioski, trantsizio kultural inkoherentea koherentea dela ondorioztatu dugu. Azken maila batean, euskal trantsizio kulturalaren inkoherentzia, gune sinbolikoan berme identitarioa duen euskal komunitatearekiko behatuta, koherentea da: 1960-1990 bitarteko euskal kultur trantsizio inkoherentea gune sinbolikoa oinarri zuen komunitatearendako koherentea izan zen; baina hala gertatu izanaren kontzientzia nahikoa eduki ez izanak eta, bereziki, gune hori antolatu eta egituratzen espresuki aritu ez izanak ahuldu egin du gunearen eta prozesuaren irudi bateratua. Ez, ordea, indarra; potentzialki hor izanagatik, haren bermea ez da sobera garatu.

Beraz, nabarmena da estaturik gabeko nazio-komunitateen azterketan ezin atzendu dugula kontrol guneak ez direla hezkuntza eta komunikabideak bakarrik, horiek adina garrantzia dutela bai gune sinbolikoak, bai gune horren errealitatera –erreferente, parte-hartzaile, antolaketa, egitura eta erakundeetara, gutienez– egokitzen diren ikuspegi eta tresnen erabilera kontzienteak ere.

8.3. Hondarrekoak

Lan guzian zehar erranak aunitz diren arren, ideia bat izan da mugarri: nazio-komunitate baten errealitate sinbolikoa aztertzea forma eta baliabide sinboliko zehatzak ikertzea baino aunitzez lan konplexuagoa da.

Hala, EKS eta ELS garaikideen oinarriak aztertu nahirik abiatu genuen ikerketak, garai zehatz batean islatzen den errealitate zabala agerrarazi, eta horren gaurkotasuna azpimarratu du. Zehazki, 1960-1990 bitarteko hamabortzaldien desfaseak sortu zuen kinka oraindik ere konpondu gabe dela ohartu gara: lehen fasean, hizkuntza euskal komunitatearen oinarriko ezaugarri gisa hautatu eta barneratu zen arren, autonomien sistemak identitate oinarri hori zuen komunitate batasuna frustratu zuen. Aitzinfasean gune sinbolikoak hartua zuen erreferente gidariarekiko harremana EAEn eta NFEn desberdin izatera kondenatuz, gune sinbolikoak gidatuko zuen komunitatea gune mugatzaileetan banaturik finkatu zen.

Horrek, printzipioz, ez zukeen gune sinbolikoaren gidaritza frustratu beharrik: Nafarroan euskaraz bizitzeko zailtasunak izan, eta esfortzu aunitz egin beharko baziren ere, bazen identitate oinarriarekiko atxikimendua mantentzerik –edo areagotzerik, noski–. Are gehiago, aztertu ditugun ELSren zutarriak gune sinbolikoaren izanarekiko koherenteak ziren. Arazoa 90etatik aitzina agertu da, gure iduriko: trantsizio kulturalaren ispilatzeaz sobera ohartu ez garenez, ez dugu haren irtenbide zatekeen gune sinbolikoa ahal bezainbertze ustiatu. Bi arrazoi izan dira gibeleragile.

Komunitate mailan, gune sinbolikoak ez du hiztun komunitatearen gidaritza eramanez ahal izateko adina egiturarik finkatu. 1975etik aitzinakoa gune sinbolikoaren antolaketa sendorik gabeko prozesua izan zen, erkidegoetan banaturiko komunitatearen erakundetzearen mesedetan. Horregatik, gerora sumatu dugu langartzean oinarrituriko komunitate gidaritza bereziak trabak sortzen dituela, gune sinboliko horri ere antolaketa eta egituraketa nahiz kontzientziazte sendoak eskaini ezean⁸³¹. Guk geronek Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren (IEH) erreferentzia eranskin gisa –hiztun komunitatearen erdigune mugatua den EAerekiko– ikertu izanak oharrarazi gaitu fokua helburu distortsionanteetan ezarria dugula: errealitate sinbolikoko guneen, mugen, botereen eta ahalbideen kontzientziak –kontzientzia horretatik letozkeen ekintza,

⁸³¹ Nafarroan, 2015eko otsailaren 19an, Euskararen Legea moldatzeko onartu den proposamenak zer ekarriko duen ikusi beharko dugu. HEHn, 1960-1990 bitartean, gauzatu zen trantsizio kultural inkoherentearen eta autonomien sistemaren arteko akordioa abiatzeko momentua iritsi dela ematen digu aditzera. Edozein gisatan, garapenari, poliki, behatu beharko diogu.

antolatze, helburuek...– aunitz lagun dezakete euskal komunitateak egungo mundu globalizatuan duintasunez, funtzionalitatez eta parekidetasunez aritzeko behar duen ikuspegia beretzen.

Maila zabalagoan, errealitate sinbolikoaren existentziaz eta, bereziki, erabilgarritasunaz ez dugu aski hausnartu. Ondorioz, ez gara kontziente errealitate horrek, egun, estaturik gabeko komunitateek bizirauteko duen egokitasunaz: errealitate sinboliko zabala tresna garrantzitsua da, muga geopolitikoetatik haratagoko komunitateen biziraupen duinerako; alegia, komunitateak, estatuak eta identitateak bat heldu ez diren garaietarako. Gainera, identitate mugagabeak –zorionez, irizpide aunitzez osatuak diren identitate malguak– diren munduan, sostengurako helduleku izan liteke.

1960-1990 bitartean gertatuaren ondorioz nabarmendu diren arazo horiek ulertu nahian, errealitate sinbolikoaren azterketarako hainbat tresna eskaini ditugu. Alabaina, horiek oinarri sendoagoekin ñabartu ahal izateko, tesian azterturikoen osatzea lagunduko duten hiru helburu nagusi ditugu, etorkizun hurbilerako, buruan.

Lehenik, euskal komunitatearen errealitate zabala aztertzea. Lastima da Nafarroa eta IEH gehiago aztertu ez izana –gune sinboliko bera partekatzen duen urrunagoko identitaterik ba ote den hausnartu gabe dugu–. Hala ere, uste dugu eskaintzen hasi garen bideak –ikuspegiak, tresna teorikoek eta EAeri buruz, bereziki, erranek– euskal komunitatearen errealitate zabala lantzeko ateak ireki dituela. Beraz, gabezia horren hagitz kontziente izaki, etorkizun hagitz hurbilean, komunitatearen errealitate zabalaren –gune sinbolikoa gidaritza duen horren– azterketa osatzen hasiko gara. Hala, beharrezko sumatzen ditugun aldaketak egiteko baliatuko dugu ekinaldia.

Bigarrenik, tresnen erabilgarritasun zabalean sakondu nahi dugu. Euskal komunitatearen azterketarako proposatu ditugun lanabesen erabilera zabalari behatu nahi genioke. Gaurgero badugu hipotesi nagusia: ondorioetan bildu ditugun tresnek bai estaturik gabeko, bai antzeko egoeran diren –edo izan diren–, nazio-komunitateen azterketetarako baliagarri direla uste dugu. Behaketa berri horrek aukera emanen digu, zalantzarik gabe, tresnen mugak birdefinitu eta zehazteko. Nolanahi ere den, aztergaiak ez ditugu, oraindik, finkatu.

Hirugarrenik, aitzineko kultur saioaren azterketa eta harekiko lotura egin nahiko genuke. Tesiko ikuspegi eta tresnak erabiliaz, XIX. mendearen akiera eta XX. mendearen hasiera bitarteko kultur moldaketa saioaren azterketa egin nahiko genuke.

Honetan ere, badugu hipotesirik: printzipioz, erabili ditugun tresna teorikoak erabilgarri izanen direla uste dugu; alabaina, gune sinbolikoaren erreferente nagusia desberdina izan daitekeela –akaso bakarra gailendu ez, edo anitzagoa?– iduri du. Horrek are baliotsuago bihurtzen du ikerketa; izan ere, aukera emanen digu tesian eskainiak zorroztu, eta komunitate beraren garai desberdinetan erabilgarri ote diren erabakitzeko.

Gisa horretan, lanean baieztatu ahal izan dugun hipotesia osatu egingen dugu. Ez baitugu hasieran genuen hipotesia baieztatu, bakarrik, egin: euskal komunitatearen garai zehatz bateko deskribapenaz gain, prozesuen ondorio garaikideez ohartu gara, eta kasuistika berdineko nazio-komunitateen azterketarako erabilgarritasuna sumatu uste dugu. Euskal komunitateari, espresuki, dagokionez, EKSren eta ELSren oinarriak 1960-1975 bitartean egituratu zirela ikusi, eta, egun, komunitateak dituen hainbat arazo 1960-1990 bitartean ondu zirela ohartu gara. Hori dela eta, gaineratu dugu EKSk hogeita hamar urte horietan izan zuen garapenak, euskal komunitatearen 1960-1990 bitarteko errealitate sinbolikoaren garapena islatu ez ezik, egungo komunitatearen guneen arteko deskonpentsazioa ere erakusten duela. Egoera edo izaera bertsuko nazio-komunitateei dagokienez, etorkizunean, errepresioa gibelean utzi, eta autonomiaranzko prozesua jasan duten estaturik gabeko nazioen kasuei erreparatuko diegu; halatan, bertzeak bertze, kasu horietan testuinguruak izan dezakeen eragin sistematizatzailea hobeki ikertu ahal izanen dugu.

Areago, aldaketa horrek, egun, berekin dakarkeen erakundetzeaz hausnarketa kritikoa egitea estaturik gabeko komunitateen biziraupenerako ezinbertzeko abiapuntua iduritzen zaigu; izan ere, erakundetzeetan, bi alderditarik nabarmentzen da komunitateetako errealitateen arteko kinka –kasu eman, berariaz diogu kinka, ez, bateraezintasuna–.

Batetik, erakundetze prozesuek errealitate sinbolikoari zuzenean eragiten dioten parametroak aldatzen dituzte; bertzeak bertze, gune baten edo bertzearen bermea sostengatzearen alde egin dezakete, gune sinbolikoko oinarriak gune mugatuak/ek beretuz. Erakundetze prozesuei buruzko hausnarketak alderdi horri, espresuki, behatu beharko lieke. Hartara, erakundetzearekin abiatzen diren prozesuez ohartu, eta horien kudeaketa kontzientea bereganatzeko aukera izanen baita: iraganaren behaketa garai berrietara egokitzeko asmoz egiten delarik, nahi den helburu zehatzetarako proiektzioa bidera liteke. Euskal komunitatean, kasu, hausnarketa horrek lagunduko liguke sor

litezkeen egoerak aurreikusi, eta, muga geopolitikoek haraindiko komunitate gidaritzan, horien araberrako proiektzioa duten egitura nahiz proiektu kulturalak garatzen.

Bertzetik, alderdi instituzionala, normalki, gune mugatuetao botere egiturekin lotzen dugu, eta gune mugatu langartuetan izaten da sakabanatua, estaturik gabeko nazio-komunitateetan. Horregatik, komunitatearen oinarritzko izaera, momentuan momentukoa, biltzen duen gune sinbolikoari erreparatu behar zaio; zehazki, gune sinboliko horrek parte hartzen duen erreallitate sinboliko zabalari.

Erran gisa, komunitate baten erreallitate sinbolikoa forma eta baliabide sinboliko zehatzen azterketa banakoa baino aunitzez erreallitate aberatsagoa da, eta aberastasun horren funtsa agerrarazten duten prozesuak eta elkarreraginak dira bereziki erreparatu beharrekoak.

Hautatu dugun ikuspegi eta foku sinbolikoak, hain zuzen ere, muga fisiko horiek gaintzen dituen komunitate erreallitatea aztertzeko, atzemateko eta, nahi bada, erabiltzeko aukera kontzientea eskaintzen du. Hala, bada, hiztun komunitateak aztertzeko, edo muga geopolitiko zurrunen mende diren, edo hertsituak diren, nazio-komunitateen ikerketarako, ikuspegi hagitiz baliagarria da. Muga administratibo eta politiko nahiz fisikoez bertzelako erreallitate horren azterketak egungo komunitateei behatzeko begirada malguagoa eskaintzen du. Etorkizun hurbilean bide horretatik joko dugula uste osoa dugunez, azterketa horiek egin ahal izateko tresnak eskaintzen saiatu gara, komunitateen osaeran berebiziko eragina duten baliabideak moldatuz: muga fisikoez haratagoko komunitate eratzaileak diren baliabideen, baliabide sinbolikoen, ikerketarako aldeak zehaztu ditugu; eta, gune sinbolikoaren aldarrikapenarekin, botere egituratzaileak osatu ditugu, komunitate kontzientzia eta identitatea moldatzeko ahalmena duten botereak.

Hala, bada, osatu dugun ikuspegiak, estaturik gabeko komunitateen kasuan, bederen, gune mugatuei atxikitzen zaizkien azalpenak agertzen ez duen errelatua osatzen lagun diezaguke. Euskal komunitatearen azterketan, erreallitate sinbolikoaren garrantzia eta garai bateko gailentzea erresistentzia modu bakarraren gauzatze direla ohartu gara; 1960-1975 bitartean balioztatze sinbolikoak izaniko garrantziak nahiz gune sinbolikoaren gailentzeak eta 1975etik aitzina sorturiko desfaseak agerrarazi dute erresistentziazko erreallitate horren izana. Hortaz, garai bateko erreallitate sinbolikoak agerrarazi ditu antzinako prozesu deskonpentsatuetao isla garaikideen oinarriak.

Egin daitezkeen kontaketa aunitzen artean, errealitate sinbolikotik abiatua egin dugu guk. Ardatz horrek aukera ematen digu hemen errana, epe bera, ardatz desberdinez behatuz nahiz bertze denbora koordenatuetara joz, osatzeko.

Ondorioz, tesia akitu ondotik, errealitate sinbolikoaren ikerkuntzak, egun, bertze zeinahi izaeratako errealitate aurpegiren azterketak adina garrantzia duela erran dezakegu. Are gehiago, ziur gara espresuki eskaintzen duela errealitate anitza atzeman ahal izatera hurbiltzeko errelatuetarik bat.

BIBLIOGRAFIA

1. Corpusak

Aldizkariak

Anaitasuna aldizkaria (1960-1975).

Pott aldizkariak:

Pott bandaren berriemailea, 1978-martxoa.

Pott bandaren blaga, 1978-ekaina.

Pott 3 (bandaren blaga), 1978-azaroa.

Pott bandaren braga, 1979-martxoa.

Pott bandaren praka, 1979-uztaila.

Pott tropikala, 1980-ekaina.

Ustela:

Panpina Ustela, 1975-urtarrila.

Zorion Ustela, 1976.

Mermelada Ustela, 1976.

Zeruko Argia aldizkaria (1963-1975).

Diskoak

LABOA, Mikel, 1964, *Lau herri kanta (Azken)*. Baiona: Goiztiri.

___, 1966, *Mikel Laboa*. Baiona: Goiztiri.

___, 1969a, *Bertolt Brecht*. Baiona: Goiztiri.

___, 1969b, *Mikel Laboa*. Donostia: Herri Gogoa.

___, 1974, *Bat-Hiru*. Donostia: Herri Gogoa.

___, 1980, *Lau-Bost*. Bilbo: Xoxoa.

___, 1985, *6 (Sei)*. Donostia: Elkar.

___, 1987, *Euskal kanta berria*. Donostia: Herri Gogoa-Elkar.

___, 1988, *Lekeitioak*. Donostia: Elkar.

___, 1989, *12 (Hamabi)*. Donostia: Elkar.

Liburuak

- ATXAGA, Bernardo, 1976, *Ziutateaz*. Donostia: Lur.
- _____, 1978, *Etiopia*. Bilbo: Pott Liburutegia.
- _____, 1988, *Obabakoak*. Donostia: Erein.
- JUARISTI, Jon, 1985, *Diario del poeta recién cansado*. Iruñea: Pamiela.
- _____, 1998⁽²⁾ [1987a], *El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca*. Madril: Taurus.
- _____, 1987c, *Suma de varia intención*. Iruñea: Pamiela.⁸³²
- _____, 1988, *Arte de marear*. Madril: Hiperión.
- SARRIONANDIA, Joseba, 1981, *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo: B.A.K.
- _____, 1985a, *Ni ez naiz hemengoa*. Iruñea: Pamiela.
- _____, 2006⁽³⁾, *Ni ez naiz hemengoa*. Iruñea: Pamiela. Argitalpen zuzendua.
- _____, 1985b, *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*. Iruñea: Pamiela.
- _____, 1987, *Marinel zaharrak*. Donostia: Elkar.
- _____, 1989⁽²⁾ [1988], *Marginalia*. Donostia: Elkar.

2. Bibliografia orokorra

- AGUADO, Txetxu, 2010, *Tiempos de ausencias y vacíos: Escrituras de memoria e identidad*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.
- ALDEKOA, Iñaki, 1993, *Zirkuluaren hutsmina*. Irun: Alberdania.
- _____, 1998a, *Munduaren neurria*. Irun: Alberdania.
- _____, 1998b, “Mendebaldea eta narraziogintza”, in *Mendebaldea eta narraziogintza: Euskal nobela modernoa*. Donostia: Erein, 155-198.
- _____, 2009, “Bernardo Atxagaren ‘Etiopia’ ”, *Iker* 23, 3-24.
- ALONSO, Idurre, 2008, *Euskal Literatur Sistema eta literaturaren didaktika aztergai. Idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboen argitara*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.
- ÁLVAREZ JUNCO, José, 2001, *Mater dolorosa: La idea de España en el siglo XIX*. Madril: Taurus.

⁸³² 1987b erreferentzia corpusekoa ez den *Literatura vasca* liburuak du.

- _____, 2014, “Nuestra democracia tiene sus defectos institucionales, pero lo más grave es que no hay una educación cívica adecuada”, elkarrizketatzailea Tomás Val Sáez, *Mercurio: panorama de libros* 158, 12-14.
<http://revistamercurio.es/temas/jose-alvarez-junco/> (2015-03-03)⁸³³
- ANDRÉ-BAZZANA, Bénédicte, 2006, *Mitos y mentiras de la transición*, itzultzailea Lourdes Arencibia Rodríguez.artzelona: El viejo topo. [2002, *Le mythe du “Modèle espagnol” de transition à la démocratie*. Doktorego tesia, zuzendaria Guy Hermet, Institut d’études politiques, Paris]
- ARBELAIZ, M. Dolores, 2006, “Maria Dolores Arbelaiz: «Internet da mende honetako panazea, baina jendea liburueta bueltatuko da»”, elkarrizketatzailea Miel Anjel Elustondo, *Argia* 2028, 2006-02-19.
<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2028> (2015-03-03)
- ARESTI, Gabriel, 2000 [1964], *Harri eta Herri*. Zarautz: Susa.
- ATXAGA, Bernardo, 1990a, *Poemas & Híbridos*. Madril: Visor.
- _____, 1990b, “Con Bernardo Atxaga”, elkarrizketatzailea Juan José Lanz, *Zurgai: Poetas por su pueblo: Euskal herriko olerkiaren aldizkaria, Poetas vascos (monográfico)*, abendua, 99-101.
- _____, 1999, “Naturaren literaturan”, apirilaren 16-23 bitarteko hitzaldietan, Tolosa, *Naturaren ihardunaldiak. Jornadas de naturaleza: Zumardi* 99, 16-29.
http://www.cittolosa.com/eu/zumardi/argitalpenak/99_txostenak.htm#ponen99
 (2015-03-03)
- AULESTIA, Gorka, 1998, “Un siglo de literatura vasca (IV, a)”, *Sancho el Sabio* 9, 11-46.
- AUNITZEN artean, 2009, *Euskal Literaturaren Hiztegia*. Bilbo: UPV-EHU.
<http://www.ehu.eus/ehg/literatura/> (2015-03-03)
- AURTENETXE, Auritz, 2011, “Mikel Laboa (1958-1978), tradizioa eta abangoardia, kantagintza berriaren sortzaile”, *Musiker* 18, 385-402.
- AZKORBEBEITIA, Aitzpea, 1996, “B. Atxaga eta J. Sarrionaindiaren metaforetan barrena bidaiatuz”, *Uztaro* 17, 110-149.
- _____, 1999, *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.

⁸³³ Beti saiatu gara helbiderik egonkorrenak ematen.

- BARELLA, Julia (arg.), 1987, *Después de la modernidad: Poesía española en sus lenguas literarias*. Bartzelona: Anthropos.
- BASTIDA, Marisol, 2009, *Mikel Laboa (1934-2008): Kronologia / Mikel Laboa (1934-2008): Cronología*, itzultzailea Koro Navarro. Donostia: Elkar.
- BAUMEISTER, Roy F., 1986, *Identity: Cultural Change and the Struggle for Self*. New York: Oxford University Press.
- BLAS, Andrés de, Ramón SAIZARBITORIA eta Jon JUARISTI, 1998, “A vueltas con *El bucle* (Sobre nacionalismo vasco). Debate sobre el nacionalismo vasco: de Blas, Saizarbitoria y Juaristi”, *Revista de Occidente* 200, 104-128.
- BIDADOR, Joxemiel, 1997, “Itsasoz bestaldetik bi baxenafartar kantari”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-09-26.
<http://zubitegia.armiarma.com/?p=bid-50> (2015-03-03)
- BOURDIEU, Pierre, 1989, “Social Space and Symbolic Power”, *Sociological Theory* 7: 1 (udaberria), 14-25.
<http://links.jstor.org/> (2015-03-03)
- ___, 1995 [1992], *Las reglas del arte: Génesis y estructura del campo literario*, itzultzailea Thomas Kauf. Bartzelona: Anagrama. [*Les Règles de l'art: Genèse et structure du champ littéraire*. Paris: Éds du Seuil]
- ___, 1996 [1987], *Cosas dichas*, itzultzailea Margarita Mizraji. Bartzelona: Editorial Gedisa. [*Choses dites*. Paris: Les Éditions de Minuit]
- ___, 1998 [1979], *La distinción: Criterio y bases sociales del gusto*. Madril: Taurus. [*La Distinction: Critique sociale du jugement*. Paris: Minuit]
- ___, 2003 [2001], *El oficio de científico: Ciencia de la ciencia y reflexividad*, itzultzailea Joaquín Jordá. Bartzelona: Editorial Anagrama. [*Science de la science et réflexivité*. Paris: Édit. Raisons d'agir]
- BUCKLEY, Ramón, 1996, *La doble transición: Política y literatura en la España de los años setenta*. Madril: Siglo XXI de eds españoles.
- BURKE, Peter, 2006a [2004], *¿Qué es la historia cultural?*, itzultzailea Pablo Hermida Lazcano. Bartzelona: Paidós, Espasa Libros. [*What is Cultural History?* Cambridge: Polity Press]
- ___, 2006b, “Cultura popular y alta cultura”, elkarrizketatzaileak Cristóbal Florenzano eta Marcelo Somarriva, *La Nación* (Argentina), 2006-11-05.

- BUSTOS, Clara Isabel de, 1996, “Emilio Lamo de Espinosa, premio Jovellanos de Ensayo por un libro sobre el cambio social”, *ABC*, 1996-02-03.
- CARMENA, Manuela, Jon Mirena LANDA, Ramon MÚGICA eta Juan María URIARTE, 2013, “Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)”. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
<https://www.irekia.euskadi.net/> (2015-03-03)
- CASSIRER, Ernst, 1963 [1944], *Antropología filosófica: Introducción a una filosofía de la cultura*, itzultzailea Eugenio Ímaz. Mexiko: Fondo de Cultura Económica. [An Essay on Man: An Introduction to a Philosophy of Human Culture. New Haven, Connecticut: Yale University Press]
- ___, 1993 [1942], *Las ciencias de la cultura*, itzultzailea Wenceslao Roces. Mexiko: Fondo de Cultura Económica. [Zur Logik der Kulturwissenschaften. Göteborg: Göteborgs Högskolas Årsskrift]
- ___, 1995 [1944], *Gizakiari buruzko entseia: Giza kulturaren filosofiari sarrera*, itzultzailea Paulo Aguirrebaltzategi. Bilbo: Klasikoak. [An Essay on Man: An Introduction to a Philosophy of Human Culture. New Haven, Connecticut: Yale University Press]
- CHOZA, Jacinto, 1988, *Manual de antropología filosófica*. Madril: Eds Rialp.
- COLMEIRO, José F., 2005, *Memoria histórica e identidad cultural: De la postguerra a la postmodernidad*. Bartzelona: Anthropos.
- DÍAZ DE CASTRO, Francisco, 2002, “La dorada morralla de la vida”, in *Vidas pensadas: Poetas del fin de siglo*. Sevilla: Renacimiento, 116-131.
- DIMAGGIO, Paul J. eta Walter W. POWELL, 1983, “The Iron Cage Revisited: Institutional Isomorphism and Collective Rationality in Organizational Fields”, *American Sociological Review* 48 (apirila), 147-160.
<http://links.jstor.org/> (2015-03-03)
- ___, eta ___, 1991, “Introduction”, in Powell, Walter W. eta Paul J. DiMaggio (arg.) *The New Institutionalism in Organizational Analysis*. Chicago: University of Chicago Press, 1-38.
- EGIGUREN, Rafa, 2007, “Errazagoa egin zait esperientzia pertsonaletan oinarritutako nobelak idaztea”, elkarrizketazailer zehaztu gabea, 2007-10-29.
<http://www.idazleak.eus/euskara> (2015-03-03)
- EGUZKITZA, Andolin, 1978, “Etiopia”, *Anaitasuna* 374, 1978-12-15.

- ELIOT, Thomas S., 2005 [1922], *La tierra baldía*, argitalpen elebiduna, itzultzailea José Luis Palomares. Madril: Eds Cátedra.
- ESCRIBANO, Daniel eta Pau CASANELLAS, 2012, “Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena”, *Uztaro* 81, 17-38.
file:///C:/Users/usuario/Downloads/17_40.Historia.web.pdf (2015-03-03)
- ETXANIZ, Xabier, 1996, *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Doktorego tesia, zuzendaria Juan Kruz Igerabide, Psikodidaktika programa, UPV-EHU.
<http://www.euskara.euskadi.net> (2105-03-03)
- ETXEBARRIA, Igone eta Jabier KALZAKORTA, 2009, *Herri literatura*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- ETXEBERRIA, Hasier, 2002, *Bost idazle: Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Donostia: Alberdania.
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA, 2004, *EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (1994-2000) / Informe sobre la situación de la enseñanza en la CAPV (1994-2000)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- EUSKALTZAINDIA, 1985, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1983-1984. Memoria 1983-1984: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- ___, 1987, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1985-1986. Memoria 1985-1986: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- ___, 1988, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1987. Memoria 1987: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- ___, 1989, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1988. Memoria 1988: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- ___, 1990, *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1989. Memoria 1989: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- ___, 2004, *Sabino Arana Goiri: euskara eta kultura*. Bilbo: Euskaltzaindia, Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa.

- <http://www.euskaltzaindia.eus/> (2015-03-03)
- EVEN-ZOHAR, Itamar, 1994, “La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa”, in Villanueva, Dario (arg.), *Avances en Teoría de la literatura: Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 357-377.
- <http://www.tau.ac.il/~itamarez/works/papers/trabajos/EZ-function-literatura.pdf> (2015-03-03)
- _____, 1997, “Factors and Dependencies in Culture: A Revised Outline for Polysystem Culture research”, *Canadian Review Of Comparative Literature* XXIV: 1, 15-34.
- http://www.tau.ac.il/~itamarez/works/papers/papers/EvenZohar_1997--Factors%20and%20Dependencies%20in%20Culture.pdf (2015-03-03)
- _____, 2007-2011, *Polisistemas de cultura. (Un libro electrónico provisional)*.
- http://www.tau.ac.il/~itamarez/works/papers/trabajos/polisistemas_de_cultura2007.pdf (2015-03-03)
- FABEIRO, Patricia, 2004, “Estado, nación y lengua en Francia”, *Revista de Llengua y Dret* 42, 203-230.
- <http://revistes.eapc.gencat.cat/index.php/rld> (2015-03-03)
- FARALDO, José María, 2001, “Modernas e imaginadas. El nacionalismo como objeto de investigación histórica en las dos últimas décadas del siglo XX”, *Hispania: Revista española de historia* LXI: 3, 209, 933-963.
- <http://hispania.revistas.csic.es/> (2015-03-03)
- GABILONDO, Joseba, 1993, “Kanonaren sorrera egungo euskal literaturan. ETIOPIAZ”, *Egan* 2, 33-65.
- _____, 1999, “Before Babel. Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture”, *RIEV* 44: 1, 7-49.
- _____, 2006, *Nazioaren hondarrak: Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: UPV-EHU.
- _____, 2008, “Euskal literatur genero ‘txiki’ eta hibridoen zentraltasunaz: oharrak euskal eleberraren ofizialismo politiko eta ezintasun zinematikoaz”, *Egan* 3-4: 21-59.
- GALFARSORO, Imanol, 2005, *Kultura eta identitate erbesteratuak: (Nomadologia subalternoak)*. Iruñea: Pamiela.
- GARZIA, Joxerra, 2007a, “Basque Oral Ecology”, *Oral Tradition* 22: 2, 47-64.

- <http://journal.oraltradition.org/> (2014-12-28)
- _____, 2007b, “History of Improvised Bertsolaritza: A Proposal”, *Oral Tradition* 22: 2, 77-115.
- <http://journal.oraltradition.org/> Euskarazkoa, *basqueliterature.com* webgunean (2015-03-03)
- _____, 2002, “Bertsolaritzari buruzko ikerkuntzak orain arte (ikuspegi berri baten arrasto zaharrak)”, *Eusko Ikaskuntza*, 15, 789-805.
- <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/congresos/15/07890805.pdf> (2015-03-03)
- _____, 2012, *Bertsolaritza: euskarazko bat-bateko bertsogintzaren gaur egungo egoera, tradizioa eta etorkizuna / El bertsolarismo: realidad, tradición y futuro de la improvisación oral vasca*. Donostia: Etxepare Institutua.
- GAYO, Modesto Guillermo, 2002, “Sobre el papel de la política en la comprensión modernista del origen de las naciones: Ernest Gellner frente a Paul Brass”, *Papers* 67, 147-176.
- <http://papers.uab.cat/> (2015-03-03)
- GEERTZ, Clifford, 1973, *The Interpretation of Cultures*. AEB: Basic Books.
- GELLNER, Ernest, 2008 [1983], *Nations and Nationalism*. New York: Cornell Univ. Press.
- GIMÉNEZ, Gilberto, 1999, “Territorio, cultura e identidades”, *Estudios sobre las Culturas Contemporáneas* 5: 9, 25-57.
- <http://www.culturascontemporaneas.com/> (2015-03-03)
- _____, 2005, “Prolegómenos” eta “La concepción simbólica de la cultura”, in *Teoría y análisis de la cultura* 1. Mexiko: Conaculta, 28-30 eta 67-88.
- _____, 2007, “La concepción simbólica de la cultura”, “Cultura e Identidades”, “Cultura Política e Identidad” eta “Cultura, identidad y metropolitanismo global”, in *Estudios sobre la cultura y las identidades sociales*, Colección Intersecciones. Mexiko: Conaculta-Iteso.
- GOROSTIDI, Juan, 2011, *Lau Kantari: Beñat Achiary, Mikel Laboa, Imanol Larzabal, Ruper Ordorika*. Iruñea: Pamiela.
- GRANJA, José Luis de la, 2006, “El antimaketismo: la visión de Sabino Arana sobre España y los españoles”, *Norba. Revista de Historia* 19, 191-203.
- <http://www.historiauex.es/norba> (2015-03-03)

- GUIBERNAU, Montserrat, 1996, *Nationalisms: The Nation-State and Nationalism in the Twentieth Century*. Cambridge: Polity Press.
- _____, 1999, *Nations without States: Political Communities in a Global Age*. Cambridge: Polity Press.
- _____, 2009 [2007], *La identidad de las naciones*, itzultzailea M. Lluïsa Parés Carpio. Bartzelona: Editorial Ariel. [*The Identity of Nations*. Cambridge: Polity Press]
- GUIBERNAU, Montserrat eta John HUTCHINSON (arg.), 2004, *History and National Destiny: Ethnosymbolism and its Critics*. Oxford: Blackwell.
- GUILLÉN, Claudio, 1995, *El sol de los desterrados: literatura y exilio*. Bartzelona: Sirmio.
- _____, 1998, *Múltiples moradas: ensayo de la literatura comparada*. Bartzelona: Tusquets.
- _____, 2003, “De la continuidad: tiempos de historia y de cultura”, 2003-02-02an irakurritako hitzaldia, Madril.
<http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmc5t3h0> (2015-03-03)
- HOBBSAWM, Erich J. eta Terence O. RANGER (arg.), 2002 [1983], *La invención de la tradición*, itzultzailea Omar Rodríguez. Bartzelona: Editorial Crítica. [*The Invention of Tradition*. Cambridge: Cambridge Univ. Press]
- HUTCHINSON, John, 2005, *Nations as Zones of Conflict*. London: SAGE Publications.
- IGLESIAS, Montserrat, 1994, “El sistema literario: Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas”, in Darío Villanueva (arg.), *Avances en Teoría de la literatura: Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría Empírica y Teoría de los Polisistemas*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 309-356.
- IZA, Iban, 2010, *Ikastola mugimendua: Dabilen herria: Ikastola eredu 1960-2010*. Bilbo: Euskaltzaindia.
<http://www.euskaltzaindia.eus/> (2015-03-03)
- JÁUREGUI, Gurutz, 1986, *Contra el Estado-nación: En torno al hecho y la cuestión nacional*. Madril: Siglo XXI.
- JOHNSON, James H., 1995, *Listening in Paris: A Cultural History*. Kalifornia: Univ. of California Press.

- JUARISTI, Jon, 1987b⁸³⁴, *Literatura vasca*. Madril: Taurus.
- KORTAZAR, Jon, 1984a, “Etiopiaz”, *Idatz & Mintz* 7, 31-32.
- ___, 1984b, “«Etiopia»ren estiloaz oharrak”, *Jakin* 31, 137-144.
- ___, 1994 [1989], *Laberintoaren oroimena*. Donostia: Erein.
- ___, 2001, *Oroimenaren eszenatokiak: Pott bandaren poesia*. Bilbo: Labayru Ikastegia - BBK.
- ___, 2003a, *Pott Banda*. Bilbo: Bilboko Udala.
- ___, 2003b, *Literatura vasca desde la transición: Bernardo Atxaga*. Madril: Eds del Orto.
- ___, 2007, *Luma eta lurra*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- LABOA, Mikel, 1990, “Mikel Laboa: ‘Gauzak ondo esplikatzeko jakingo banu ez nuke kantatuko’ ”, elkarrizketzailea Garbiñe Ubeda, *Argia* 1306, 1990-09-23.
<http://www.argia.eus/argia-astekaria/1306/> (2015-03-03)
- ___, 2006, “Mikel Laboa. Txoriak, omenduak eta beste zenbait adiskide”, elkarrizketzailea Gorka Erostarbe, *Entzun!*, 2006-02-08.
<http://www.entzun.com/elkarrizketak> (2015-03-03)
- LAMPIS, Mirko, 2009, “La semiótica de la cultura: hacia una modelización sistémica de los procesos semióticos”, *Entretextos. Revista Electrónica Semestral de Estudios Semióticos de la Cultura* 14-15-16, 2009/2010, 31-53.
<http://www.ugr.es/~mcaceres/entretextos/> (2015-03-03)
- LASA APALATEGI, Jose, 1971, *Euskal erria eta ikastola (Una polémica en torno a la Ikastola)*. Donostia: Edili.
- LEKUONA, Juan Mari, 1998, *Ikaskuntzak Euskal Literaturaz (1974-1996)*. Donostia: Deustoko Unibertsitatea.
- LINZ, Juan José, 1990, “Transiciones a la democracia”, itzultzailea T. González de la Fé, *REIS* 51, 7-33.
<http://www.reis.cis.es> (2015-03-03)
- LLOBERA, Josep R., 1999, *Recent Theories of Nationalism*, working papers 164, Institut de Ciències Polítiques i Socials, Bartzelona.
<http://citeseerx.ist.psu.edu/viewdoc/download?doi=10.1.1.134.2256&rep=rep1&type=pdf> (2015-03-03)

⁸³⁴ 1987a erreferentzia corpuseko *El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca* liburuak du.

- LUENGO, Ana, 2004, *La encrucijada de la memoria: La memoria colectiva de la Guerra Civil Española en la novela contemporánea*. Berlin: Tranvía-Verlag Walter Frey.
- MAGRIS, Claudio, 2004 [1971], *Lejos de dónde: Joseph Roth y la tradición hebraico-oriental*, itzultzailea Pedro Luis Ladrón de Guevara. Iruñea: EUNSA. [*Lontano da dove: Joseph Roth e la tradizione ebraico-orientale*. Torino: Einaudi]
- MAINER, José-Carlos, 2000, *Historia, literatura, sociedad (y una coda española)*. Madril: Biblioteca Nueva.
- _____, 2004, *La doma de la Quimera: Ensayos sobre nacionalismo y cultura en España*. Madril - Frankfurt am Main: Vervuert-Iberoamericana.
- _____, 2005, *Tramas, libros, nombres: Para entender la literatura española, 1944-2000*. Bartzelona: Anagrama.
- _____, 2006, *Años de vísperas: La vida de la cultura en España (1931-1939)*. Madril: Editorial Espasa Calpe.
- _____, eta Santos JULIÁ, 2000, *El aprendizaje de la libertad 1973-1986: La cultura de la transición*. Madril: Alianza Editorial.
- MAINWARING, Scott, 1989, "Transitions to democracy and democratic consolidation: theoretical and comparative issues", Working Paper 130.
<http://kellogg.nd.edu/publications/workingpapers/WPS/130.pdf>
- MARCOS, Javier, 2010, "El patrimonio como representación colectiva. La intangibilidad de los bienes culturales", *Gazeta de Antropología* 26: 1.
<http://www.gazeta-antropologia.es/> (2015-03-03)
- MARGALIT, Avishai eta Joseph RAZ, 1990, "National Self-Determination", *Journal of Philosophy* 87-89, 439-461.
- MARTIN, Xabier, 2006, "Tradizio berriak, sotilagoak", *Berria*, 2006-09-19.
- MATEOS, Socorro, 2000a, *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publikazioa*. Doktorego tesia, zuzendaria Julen Zabalo Bilbao. UPV-EHU.
- _____, 2000b, *Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua*, Soziologiako Euskal Koadernoak 5. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- MELUCCI, Alberto, 1989, *Nomads of the Present: Social Movements and Individual needs in Contemporary Society*. London: Hutchinson Radius.

- MORÁN, Gregorio, 1992⁽²⁾ [1991], *El precio de la transición: Una interpretación diferente y radical del proceso que condujo a España de la dictadura a la democracia*. Bartzelona: Planeta.
- NORA, Pierre, 2008, *Pierre Nora en Les lieux de mémoire*, itzultzailea Laura Marsello. Montevideo: Eds Trilce.
- OLAZIREGI, Mari Jose, 2009, “La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporánea vasca”, *Euskera* 54, 127-147.
- (arg.), 2011, *Literaturas ibéricas y memoria histórica / Iberian literatures and historical memory*, Cuadernos RIEV 8. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- OLEA, Inozentzio, 1970, “Patxi Altuna’ri”, in *Goierriko lora*. Tolosa: Auspoa, 232-236.
- ORONNOZ, M. Belén, 2000, *Gazteri berria, Kantagintza Berria: Euskal Kantagintza Berriaren (“Ez Dok Amairu”) eta Nova Canço Catalana-ren (“Els Setze Jutges”) arteko azterketa konparatiboa*. Donostia: Erein.
- , 2011, *JosAnton Artze “Hartzabal”:* inguruaren eragina poesiagintzan (1969-1979). Doktorego tesia, zuzendaria Jon Kortazar, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. UPV-EHU.
- ORTEGA, Luis María, 2009, “Consumo de bienes culturales: reflexiones sobre un concepto y tres categorías para su análisis”, *Culturales* 5: 10 (uztaila-abendua), 7-44.
<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=69412157002> (2015-03-03)
- OTAEGI, Lourdes, 1999, *Bernardo Atxaga: Egilearen bizitza*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- OTEIZA, Jorge, 1984 [1983], *Ejercicios espirituales en un túnel (En busca y encuentro de nuestra identidad perdida)*. Donostia: Hordago.
- , 1995 [1963], *QUOUSQUE TANDEM...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Iruñea: Pamiela.
- PABLO, Santiago de, José Luis de la GRANJA, Ludger MEES eta Jesús CASQUETE (koord.), 2012, *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco*. Madril: Tecnos.
- RENAN, Ernest, 1990 [1882], “What is a Nation?”, konferentzia, 1882-03-11, Sorbonan, itzultzailea Martin Thom, in Bhabha, Homi (arg.), *Nation and Narration*. London eta New York: Routledge, 8-22.

- RODRÍGUEZ, Fito, 1988, *Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa*. Doktorego tesia, zuzendaria Piarres Xarriton. UPV-EHU.
<http://www.euskara.euskadi.net/> (2015-01-23)
- SAID, Edward W., 1996 [1994], *Representations of the Intellectual*. New York: Vintage Books.
- _____, 2005 [2000], *Reflexiones sobre el exilio: Ensayos literarios y culturales*. Barcelona: Debate. [*Reflections on exile and Other Essays*. Cambridge: Harvard Univ. Press]
- SAN MARTIN, Juan, 1966, “Lete ta Sarasola beste bi olerkari gazte gaurkotasunez beterik”, *Jakin* 22, 63-74.
- SARASOLA, Ibon, 1971, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.
- _____, 2005, “Irakurle euskaldunari”, in Pagola, Inés, 2005, *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, *Iker* 18. Bilbo: Euskaltzaindia, IX-XI. or.
<http://www.euskaltzaindia.net/> (2015-03-03)
- SARASUA, Jon, 2013, *Hiztunpolisa: Euskaltasunaren norabideaz apunteak*. Iruñea: Pamiela.
- SARRIONANDIA, Joseba, 2010, *Moroak gara behelaino artean?* Iruñea: Pamiela.
- SCHNAPPER, Monique, 2001 [1994], *La comunidad de los ciudadanos: Acerca de la idea moderna de nación*, itzultzaileak Mar Guerrero eta Jorge Vigil. Madrid: Alianza. [*La Communauté des citoyens: Sur l'idée moderne de nation*. Gallimard: NRF Essais]
- SILVEIRA, Janete, 2007, *Nacionalismo cultural y político: La doble cara de un proyecto único: Cataluña*. Doktorego tesia, zuzendaria Jordi Casassas i Ymbert, Departamento de Historia Contemporánea. Universitat de Barcelona.
- SILVER, Philip W., 1988, *Nacionalismos y Transición: Euskadi, Catalunya, España*. Donostia: Txertoa.
- SMITH, Anthony D., 1995, *Nations and Nationalism in a Global Era*. Cambridge: Polity Press.
- _____, 1999 [1995], “Gastronomy or Geology? The Role of Nationalism in the Reconstruction of Nations”, in *Myths and Memories of the Nation*. New York: Oxford Univ. Press, 163-186. [“Gastronomy or Geology? The Role of Nationalism in the Reconstruction of Nations”, in *Nations and Nationalism*, 1: 1, 3-23]

- _____, 2000a, *The Nation in History: Historiographical Debates about Ethnicity and Nationalism*. Cambridge: Cambridge Polity Press.
- _____, 2000b [1998], *Nacionalismo y modernidad*, itzultzailea Sandra Chaparro. Madril: Istmo. [*Nationalism and Modernism*. London - New York: Routledge]
- _____, 2004 [2001], *Nacionalismo: Teoría, ideología e historia*, itzultzailea Olaf Bernárdez Cabello. Madril: Alianza Editorial. [*Nationalism: Theory, Ideology, History*. Cambridge: Polity Press]
- _____, 2009, *Ethno-symbolism and Nationalism: A Cultural Approach*. New York: Routledge.
- STEINER, George, 2002 [1972], *Extraterritorial: Ensayos sobre la literatura y la revolución lingüística*, itzultzailea Edgardo Russo. Madril: Siruela. [*Extraterritorial: Papers on Literature and the Language Revolution*. London: Faber and Faber]
- SUDUPE, Pako, 2011, “50eko hamarkadako euskal literaturaren panorama laburtua”, *Uztaro* 76, 59-80.
http://www.uztaro.eus/uztaro_artikulua (2015-03-03)
- THOMPSON, John B., 1990, *Ideology and Modern Culture: Critical Social Theory in the Era of Mass Communication*. Cambridge: Polity Press.
- TORREALDAI, Joan Mari, 1999, “Zentsurak basamortu kulturala ekarri zuen”, elkarrizketatzailea Ainhoa Irazu, *Euskonews&Media* 37 (ekaina), 11-18.
<http://www.euskonews.com/0037zkb/frelkar.htm> (2015-03-03)
- _____, 2000, *Artaziak: Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Susa: Zarautz.
- TORREGO, Luis M., 1999, *Canción de Autor y educación popular (1960-1980)*. Madril: Eds de la Torre.
- UNESCO, 2004, “Intangible Heritage. Patrimonio inmaterial”, *Museum international* 221-222 (maiatza).
- URIBE, Kirmen, 1998, “Asalto a los cielos: Estética y escritura en la poesía de Bernardo Atxaga y Sarrionandia”, *Insula* 623, 23-25.
- VALLS, Fernando, 1983, *La enseñanza de la literatura en el franquismo (1936-1951)*. Bartzelona: Antoni Bosch.
- VILARÓS, Teresa M., 1998, *El mono del desencanto: Una crítica cultural de la transición española (1972-1993)*. Mexico: Siglo XXI.
- ZAID, Gabriel, 1979, *El progreso improductivo*. Mexiko: Siglo XXI.

____, 1990, “Intelectuales”, *Vuelta* 168 (azaroa), 21-23.

<http://www.letraslibres.com> (2015-03-03)

ZALBIDE, Mikel, 2010, *Euskararen legeak hogeita bost urte: Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

http://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/75046.pdf (2015-03-03)

ZELAIETA, Angel, 1976, *Gabriel Aresti I/II*. Donostia: Kriselu.

Bertzelako euskarrietan

Mikel Laboa (1934-2008), 2009, Zuzendaria Marisol Bastida, bideo produkzioa Natxo Escobar. “Mikel Laboa (1934-2008): In Memoriam” CDa + “Mikel Laboa (1934-2008)” DVDa.

Webguneak

Añamendi Eusko Entziklopediaren ataria: <http://www.euskomedia.org/>

Bernardo Estornés Lasa Fondoa gisa ezaguna, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* oinarri duen ataria. Kultura, tradizioa eta gaur eguneko gaiak jorratzen dituzten 150. 000 bat artikuluz osatua da.

EHUSFERA ataria: <http://www.ehu.es/ehusfera/es/>

EHUren Zuzenbide Fakultatean sorturiko bloga. “Euskara Juridikoa”, “Euskararen Arauak eta Erabilerak Administrazioan eta Arlo Juridikoan” eta “Komunikazioa Euskaraz Arlo Juridikoan eta Administrazioan” irakasgaietan egiten dituzten lanak eta gogoetak sarean zabaltzeko asmoz.

HABEren webgune ofiziala: <http://www.habe.euskadi.net>

Gizartean elebitasuna lortu nahiz, euskara ikasteko lanabesak eskaintzen dituen webgunea da; ikaskuntzarako informazio orokorraz gain, tresna zehatzak eskuragarri jartzen ditu.

Legeak, txostenak, planak, arauak, dekretuak

Espainiako Konstituzioa

Espainiako Konstituzioa: Constitución Española, 2006, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/eu/contenidos/informacion/ee_legeak/eu_legeak/adjuntos/Legeak01.pdf
(2015-03-03)

EAEko Autonomia Estatutua

Abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena

IVAPek argitaratua, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak egindako itzulpena.
http://batzarirekiak.bngipuzkoa.org/down/Estatuto_de_Autonomia_para_el_Pais_Vasco_1979.pdf (2015-03-03)

Nafarroako Estatutua

13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzkoa

http://www.navarra.es/home_eu/Navarra/Derecho+navarro/lexnavarra/RegimenForalSimbolos/LO131982-00.htm?NRMODE=Published (2015-03-03)

Euskararen Legea

18/1986 Foru-Legea Euskarari Buruzkoa.

<http://www.euskarabidea.es/euskara/euskarabidea/arautegia> (2014-07-24)

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsitakoa. Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutakoa.

<http://www.euskara.euskadi.net/r59-733/eu/> (2014-11-09)

ERANSKINAK

A ERANSKINA: OINARRIZKO TERMINOLOGIA

Lehendabiziko eranskin honetan, tesian zehar solasgai den terminologia nagusia bildu dugu. Helburua, ordea, ez da gaurgero emanak diren azalpenak errepikatzea edo osatzea. Kontrara: azalpen nagusiak tesiaren kapitulu nagusietan eman ditugu; hemen, aldiz, eskuragarri izanen du irakurleak –zeinahi momentutan sortzen zaizkion zalantzek irakurtze jarraitua oztopa ez dezaten– terminologiari buruzko erreferentzia azkarra.

Aldiak: Pottteko kideen bi aldiak

a. Lehen Aldia: 1977-1980

Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik 1977tik 1980ra arte elkarrekin izan zuten ibilbideari ezarri diogu izen hori. Pott Bandaren inguruan, Manu Ertzilla, Joxemari Iturralde –“Jimu”– eta Ruper Ordorikarekin batera, elkarrekin sorturiko lanak barneratzen ditu aldi honek, baita proiektu horren harira sorturiko idatziak ere⁸³⁵.

Elkarrekin sortuak dira: *Pott bandaren berriemailea* (1978-03), *Pott bandaren blaga (Non gertatu han ostatu)* (1978-06), *Pott 3 (Pott bandaren blaga)* (1978-11), *Pott bandaren braga* (1979-03), *Pott bandaren praka* (1979-07) eta *Pott tropikala* (1980-06).

Elkarrekintzan sorturiko idatzi horiez gain, lanean zehar hizpide ditugun urte bitartean, hainbat lan argitaratu zituzten, bakarka eta paraleloki. Batetik, Pott Banda sortu aitzin agertuak: Atxagak, “Borobila eta puntua antzerki lana” eta “Oskar edo nola egin behar den publizidaderako prospektu berri bat” (1972, in *Euskal Literatura* 72: 225.-251. eta 133.-141. or., hurrenez hurren) nahiz *Ziutateaz* (1976); eta Juaristik, *Euskararen ideologiak: Etorkiak* (1976); bertzetik, asteasuarrak Pott Bandan izan zen bitartean sorturiko *Etiopia* (1978) da.

b. Bigarren Aldia: 1980-1990

Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik, Pott Banda desegin ondotik, bakoitzak bere aldetik eginiko lanak barneratzen ditu Bigarren Aldiak. Beraz, proiektu literario komuna albo batera utzi, eta banakako ibilbidean egiten dituzten 1980tik 1990erako lanak –hasiera muga hondarreko *Pott* aldizkariak ezartzen du, 1980ko ekainean argitaraturiko

⁸³⁵ Z, E eta IGBri dagokion auziaz, ikus “7.2.2. Literatur tradizio hautatuak: Bigarren Aldia”n “Corpusa” azpiatala.

Pott Tropikalak, eta itxiera muga, 1989ko lanek—. Aldi honetan garatzen dituzte iraganera, orokorrean, eta euskal (literatur)tradiziora, zehazki, diferenteki hurbiltzen diren idatziak.

Segidan, hautaturiko corpusaz gain, Bigarren Aldian hiru idazleek argitaratu zituzten lanak⁸³⁶: *Atxagaren kasuan, Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (1979), *Ramuntxo detektibea* (1979), *Antonino Apretaren istorioa* (1982), *Camilo Lisardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* (1982), *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982), *Drink Dr. Pepper* (1983), *Asto bat hypodromoan* (1984), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984), *Gauero aterako nintzateke paseatzera (II): Marieren azalpena* (1984), *Jimmy Potxolo* (1984), *Sugeak txoriari begiratzeko dionean* (1984), *Txitoen istorioak* (1984), *Bi anai* (1985), *La cacería* (1986), *Henry Bengoa Inventarium: Lagun galdu baten bila* (1986), *Astakiloak Arabian* (1987), *Astakiloak Finisterre aldean* (1987), *Astakiloen izkutuko taktika* (1987), *Italiako zirku batean* (1987), *Kitarra baten bila gabiltza zorutzen* (1987), *Mikelek problema bat dauka* (1987), *Neska dun-dun bat* (1987), *Transatlantiko batean* (1987) eta *Obabakoak* (1988); Sarrionandiaren kasuan, “Maggie, indazu kamamila!!” (1980), “Enperadore eroa” (1981), *Izuen gordeleketan barrena* (1981), *T.S. Eliot euskaraz* (1983), “Intxaur azal baten barruan” eta “Eguberri amarauna” (1983), *Narrazioak* (1983), *Alkohola poemak* (1984), *Hamairu ate* (1985), *Marinela. (Kuadro bakarreko drama estatikoa)* (1985), “Mintzaldiak” (1985), *Ni ez naiz hemengoa* (1985), *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985), *Atabala eta euria* (1986), *Marinel zaharrak* (1987), *Marginalia* (1988), *Ez gara geure baitakoak* (1989) eta *Izeba Mariasunen ipuinak* (1989); eta Juaristik, *La leyenda de Jaun Zuria* (1980), *Diario del poeta recién cansado* (1985), *La tradición romántica: Leyendas vascas del s. XIX* (1986), *El linaje de Aitor: La invención de la tradición vasca* (1987), *Literatura vasca* (1987), *Arte en el País Vasco* (1987), *Suma de varia intención* (1987), *Arte de marear* (1988), *Flor de baladas vascas* (1989) eta *Cuando canta la serpiente* (1989).

Babesak: zuzeneko eta zeharkako babesak

Bi babes mota hauekin, ELEk 1975etik aitzinako fasean izan zituen babesak, modu orokorrean, deskribatu nahi izan ditugu.

⁸³⁶ Atxagaren informazioa Lourdes Otaegiren *Bernardo Atxaga: Egilearen hitza* liburutik eta egilearen webgune ofizialetik ateri dugu (<http://www.atxaga.org/bibliografia>).

a. Zeharkako babesak

Eremuaren beraren baitatik heldu ordez, kanpo-eremuetatik heldu diren babesak dira: diru laguntzak, orokorrean; eta, helburu zehatzagoa dutenen artean, adibidez, eremuko azpiegituren kudeaketarako direnak eta bitartekaritza laguntzak.

b. Zuzeneko babesak

Eremuaren baitatik, egitura eta arauen arabera, sortzen diren babesak dira: hautatze, onartze, zalantzan jartze eta ezeztatzeek osatzen dute eremu baten zuzeneko babes multzoa.

ELEk, 1975etik aitzina, izan zuen garapenean, babes mota bakoitza komunitatearen ordezkaritza gune desberdinetik heldu zen. Zeharkako babesak eremuaren gune mugatutik heldu ziren, nagusiki: EAE proiektuarekin bat heldu zen komunitate mugatutik. Zuzeneko babesak, ordea, eremuan kokatua zen hiztun komunitateak bulkatu zituen: gune sinbolikoak.

Eraginak: eragin aitzinatzailea eta eragin gibelatzailea

Euskal komunitateak XIX. mendearen akieran hasi zen kultur moldatze nagusitik aztergai dugun saiora bitartean izaniko garapena kontuan hartu, eta abstrakzioa eginaz, komunitatearen autokontzepzio kolektiboak bi eragin nagusi izan ditzakeela sumatu dugu: eragin aitzinatzailea eta gibelatzailea.

a. Eragin aitzinatzailea

Duintasun eta proiektioari erreparatzeaz gain, gune eragileen eta komunitate kideen arteko distantzia erreparatu behar da, eragin aitzinatzailea noiz gertatzen den identifikatu ahal izateko.

Batetik, eragin aitzinatzailea izateko, komunitateak oinarrizko duintasuna lortua edo lortze prozesuan behar du izan. Bertzetik, komunitateak etorkizunean irudikatu eta irudikatze horretarako behar diren aldaketak gauzatu ahal izateko eragin aitzinatzailearen beharra du. Hori dela eta, duintasunaren balio praktikoak etorkizuna ahalbidetzea laguntzen du: komunitatearen proiektioak barneratzen dituen ideia eta ekimen multzoak bulkatzen baititu. Akitzeko, eragin aitzinatzailearen mugak gune eragileetatik ere heldu dira; izan ere, ekimen garatzaileak bideratzeaz haratago, eragin guneko partaideen kasuistika nagusiak ekimen horien helburu eta egitura baldintzatuko ditu, nabarmen.

b. Eragin gibelatzailea

Kasu honetan ere, duintasun eta proiektioaz gain, gune eragileen eta komunitate kideen arteko distantziaren eragin bateratuei behatu behar zaie, eragin gibelatzailea identifikatzeko.

Batetik, duintasunak komunitate garapenaren oinarri-oinarrizko bulkada neurri berean baldintzatzen du eragin gibelatzailea; baina, eragin gibelatzailea gailentzen denetan, komunitateak duintasun maila urria, hagitz minberatua edota ukatua izaten du. Hortaz, bertze aldagaien bulkatzaile nagusi behar zuenak traba gisa jokatzen du, kasu honetan. Bertzetik, horren ondorioz, duintasunak bidera zezakeen balio praktikoa neurri berean da hertsia. Beraz, proiektio ahalmena da hagitz mugatua: balizko etorkizun-egoeraren irudikatze ahulak komunitate ideia distortsiona lezake; gainera, ezintasun horrek mugatu egiten du garai berrietarako egokitze funtzionala egiterik. Gisa horretan, iraganaren erabilera mugatzailea egiten da eragin gibelatzailea nagusi den garaietan. Azkenik, eragin gibelatzailea nagusitzen denetan, kamustua da eragin guneen ahamena: eragin gibelatzailea moldatzen duten aldagai zehatzek gune eragile aktiborik izatea kasik ezinezkoa da –edo eraginkorrak izatea, bederen–. Eragin aitzinatzailearekin gertatu ez bezala, gune eragileetako partaideen eta gainerako komunitate partaideen arteko distantziak molde nagusi bat du, kasu honetan –eragin gibelatzaileak aski berezkoa baitu komunitatearekiko distantzia–.

Bietan, aldagaien arteko gauzatze eta dinamika desberdinak garatzen dira; beraz, eragin diferentea sorraraziko dute komunitatearen garapenean.

Eraginak: zuzeneko eta zeharkako eraginak

ELERen eta kultur moldaketaren 1960-1975 bitarteko harremana hobeki deskribatu ahal izateko proposatu ditugu eraginok; konkretuki, moldaketa nagusiak ELERen garapenean izan zituen eragin motak modu zehatzagoan deskribatu ahal izateko. Horrek ahalbidetu du, preseski, alderantzizko eraginari ere, ondotik, erreparatu ahal izatea –ELEk kultur moldaketan izaniko funtzioa deskribatzea–.

a. Zuzeneko eraginak

Espresuki kultur eremu batean eragiteko helburuz abiatu, eta eremu horretan eragitea lortzen duten eraginak.

b. Zeharkako eraginak

Kultur eremu jakin batean ondorioak izateko helburuz abiatu ez arren, eremu horretan (ere), bidenabar, eragitea lortzen duten eraginak.

Zeharkako eragin sinbolikoa

Kultur eremuan entzutea izan, eta azpiero eremu zehatzago batekin duten harremanagatik, eremu mugatu horrek eremu zabalean izan dezakeen zeharkako eragin zehatza.

Beraz, bi eragin mota horien oinarrian, lan honi dagokionez, eragite helburuaren bidean da funtsa: eraginaren helburu nahi zen helmugan ondorioz izan den, edo, ez. Zeharkako eraginetan, “eragin sinbolikoa” bereizi dugu; izan ere, ELEk 1960-1975 bitarteko kultur moldaketan izaniko eragina zehazteko behar izan dugu terminoa. Literatur eremuarekin loturiko kultur gileek kultur moldaketa zabalean izaniko eragina deskribatzeko darabilgu, tesian, azpiero hori.

Erakundetzea

Erakundetzeak, modu zabalean, adiera bat baino gehiago barnera baditze ere⁸³⁷, tesian aztergai den testuinguruari dagokionez, erreferentzia egiten diogu autonomia-erkidego mailako gobernuak, 1975etik aitzina, izaniko boteretzeari; zehazki, Hego Euskal Herriko (EH) autonomia-erkidegoek beren egituraketa eratzearekin batera abiatutako prozesuari.

Garapen horretan, autonomiatako gobernuaren rola zabaldu egin zen, aitzinean beren eragin eremu ez zirenetara –eragin eremuetan finkatu zen, ez baitzen–. EHko gobernuaren garapenak ekarri zituen egituraketa eta antolaketa estrukturalak dira, beraz, 1975etik aitzinako erakundetze prozesuarekin aditzera eman nahi ditugunak.

Kultur sistemaren egituraketari dagokionez, kultura bera –orokorrean– erakundetzen dela diogunean, oinarri zenbait erreferentzia gisa hobetsi eta bertze zenbait gaitzesten dela erran nahi dugu; gainera, sailkatze horren izana eta eragina bermatuko duten egiturak –erakundeak, ideiak...– erakundetze horretan partaide nagusi dira.

⁸³⁷ Bi korrante nagusik aztertu dute erakundetzea: erakundetze arauemailean ardatzen den “instituzionalismo zaharrak” eta erakundetzea alde kultural-kognitibotik erreparatzen dion “instituzionalismo berriak”.

Hein berean, kultur azpiero berezitu bakoitzak eremuaren izaerari dagokion erakundetzea izanen du. Bertzeak bertze, literatur eremuak kanonizazioa du arau sistematizatzaileetan nagusietariko. Hortaz, kultur sistemaren izaera zabalean nahiz haren baitako azpisistemetan, eremu bakoitzaren maila eta izanari egokituriko erakundetze egituratzailea gertatzen da; hau da, sistema egituratu eta egituratzailea izateko arau multzoak lagunduriko antolaketa.

Lanean erakundetze mugatu eta erakundetze zabala –edo irekia– bereizi ditugu: lehenak komunitatearen ordezkartza mugatua duen guneko prozesuari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak, ordezkartza sinbolikoa duen gunetikoari.

Estatua

Estatu eta nazioak diferenteki atzeman izan dira; eraldaketa etengabeak jasaten baitituzte, eta munduan zehar izaera desberdinak izan baitituzte:

The nation, a cultural community, and the state, a political institution, have been subject to constant transformations throughout time and they have taken up different forms in different parts of the world (Guibernau, *in* Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 131).

Alabaina, adituen artean, badira kontzeptuak argitzen laguntzen duten definizio nagusiak eskaini dituztenak:

By ‘state’, taking Max Weber’s definition, I refer to ‘a human community that (successfully) claims the monopoly of the legitimate use of physical force within a given territory’ (Weber 1991: 78), although not all states have successfully accomplished this, and some of them have not even aspired to accomplish it. (Guibernau, *in ibid.*: 131)

Estatu-nazioa, aldiz:

The nation-state is a modern institution, defined by the formation of a kind of state which has the monopoly of what it claims to be the legitimate use of force within a demarcated territory and seeks to unite the people subject to its rule by means of cultural homogenization. (Guibernau, *in ibid.*: 132)

Etnia

‘a named and self-defined human community whose members possess a myth of common ancestry, shared memories, one or more elements of common culture, including a link with a territory, and a measure of solidarity, at least among the upper strata’ (Smith 2009: 27) (azpimarra ez da gurea)

Tesian ez dugu “etnia” kontzeptua erabiliko, euskaldungoak 1960-1990 bitartean jasan zuen prozesua aztertzeke “komunitatea” eta “nazioa” iduritzen baitzaizkigu argienak. Zernahi gisaz, familia, ekonomia eta gizarte egituraketa homogenea duelarik,

“etnia” oinarrizko batasuna kultura, hizkuntza eta talde kontzientzian duen gizabanakoen multzoa da, guretako.

Etno-sinbolismoa

Paradigma Estrukturalistaren barrenean, historia sozial estrukturalistak nazio(nalismo)en ikerkuntzarako duen korrelatua teoria modernista litzateke. A.D. Smithek, etno-sinbolismoaren teorizazio nagusia egin duen adituak, “teoria modernista” edo “Paradigma modernista” gisa multzokatu ditu nazioen modernitatea defendatzen duten ikuspegiak⁸³⁸. Horiekin guziz bat heldu ez, eta hainbat zehazte gaineratu beharrak bulkatu ditu etno-sinbolismoa tresna nagusi darabilten adituak.

Etno-sinbolismoak, komunitate, ideologia eta identitateen garatze nahiz prozesuak ikertzeko, aldarrikatu egiten du baliabide materialez gain, baliabide sinbolikoak aztertu beharra; hau da, komunitate osaera eragiten duten mito, memoria, balio, erritual eta tradizioak. Hondarreko horien ikerketak lagundu egingen du teoria modernistak azaltzen ez duen hainbat kontu argitzen. Bertzeak bertze, ideologia eta komunitate horiekiko sortzen den atxikimendu eta partaidetza sentimenen indarra azaltzen, horiek ulertzeko intentsitate eta edukiak nondik heldu diren identifikatzeko baitira baliagarri.

Euskal Literatur Eremua (ELE) eta Euskal Literatur Sistema (ELS)

ELE eta ELS arteko aldea eremuaren egituratze mailan da; eremua bakarrik izatetik sistema izatera igarotzeko behar den aldaketan. Bihurtze horrek dakartzan prozesu konplexu guzien artean, egituraketan eta antolaketan eragiten duena ezarri dugu irizpide nagusi gisa; izan ere, eremu bat sistema egiten duen oinarrizko diferentzia baita izaera berezia egozten dizkioten arau multzo antolatu eta egituratuak izatea –eta bere baitako elementuengan ezartzea–.

Hori dela eta, tesian sistema izaeradun eremuez ari garenean, sistema integratzaileez arituko gara. ELEren kasuan, 1975etik aitzinako fasean abiatu zen ELSrantzako bidea; eremuaren izaera berezitua sostengatuko zuten arauak antolaketa eta egituraketa egokituak, eremuari egokituak, garatu zituzten.

Beraz, sistema ez diren eremuak badiren arren, eremu ez den sistemarik ez dago.

⁸³⁸ Aditu guziak ez dira bat heldu Smithek zabaldu duen sailkapenarekin. Modesto Guillermo Gayo-k (2002), kasu, nazioen berrikuntza sailkatze baldintza gisa erabili beharrean, autore bakoitzaren kriterioei behatu beharra defendatzen du; bertzeak bertze, nazionalismoaren kontzeptuari, metodologiari, edota oinarrizko tesi bereizgarriari erreparatu beharra.

Faseak eta beharrak: nazioaren berpizkundeko faseak eta beharrak

Zehaztu ditugun fase eta beharrak ikergune baten azterketatik ondorioztatu ditugu; hau da, euskal komunitatearen 1960-1990 bitarteko garapena deskribatzen dute. Beraz, etorkizunean egoera berean izaniko bertze nazioen azterketarako baliagarri ote diren ziurtatzen saiatuko gara.

a. Lehen fasea, lehen beharrak (1960-1975)

Fase honetako behar nagusiak atxikiak dira komunitatearen oinarrizko duintasuna berreskuratzeari; nagusiki, kulturaren berpizte edota mantentzearekin loturiko ekimenei. Are gehiago, bi alde horien arteko lotura hagitx nabaria da, berpiztearen abiatzeak oinarrizko duintasun sentimenetik abiatua behar baitu. Prozesu horretan mugarri izanen dira komunitatearen iraganeko erreferentziak eguneratzea, talde izana sendotuko duten corpus nahiz ekimenak bulkatzea eta talde sendotasuna lagunduko duen kohesioa sortu nahiz finkatzea.

Euskal komunitatearen azterketa gune delarik, kontuan izan behar da errepresiopean egoniko estatu gabeko nazio bati buruz ari garela; gainera, oinarrizko duintasunaren berreskuratzea kultur moldaketaren lehen faseko –1960-1975– premia garrantzitsuena izan ote zen ikertu beharko da.

b. Bigarren fasea, bigarren beharrak (1975-1990)

Nazio berpizkundearen bigarren faseari atxikia, euskal komunitatearen behar erakundetzailerekin lotuagoa da aldi hau: hartzaileen lehen premiez haratago, horiek etorkizuneko helburuei egokitu beharriari. Etorkizunean proiektatzen diren helburu komun horiek senidetza sentimena areagotuko zuten, euskal komunitatearengan. Senidetza horren oinarrian bildua zen, iragan partekatuaz gaindi, komunitatea mundu garaikidean funtzionaltasunez eta parekidetasunez aritzeko behar zen proiektzio berriaren nahian. Hau da, Trantsizioarekin euskal komunitatearen oinarri politiko eta ekonomikoen plangintza abiatu zen gisa, ondare kulturalaren lanketa hausnarketa zabalagoetan kokatu zen, gero eta nabariago.

Kulturako azpierzemuek, beren izanaren alde bereizienetan oinarriturik, abiatu zuten prozesua; bertzeak bertze, ELEk 1975etik aitzina abiatuak.

Forma eta baliabide sinbolikoak

Thompsonen forma sinbolikoak zer diren azaltzeko ematen duen ideiatik abiatuta⁸³⁹, eta etno-sinbolismoak ikergai dituen baliabide sinbolikoak aztergai genituela kontuan izanik, forma eta baliabide sinbolikoen arteko banaketa espresuki agertu beharra proposatu dugu, tesian (1.4.2.). Banaketa horrekin, bai forma sinbolikoen, bai baliabide sinbolikoen, oinarrizko ideiak finkatu nahi izan ditugu; hau da, tesian bi kontzeptuak nola eta zertarako erabili diren ulertzeko abiapuntua ezarri nahi izan dugu. Azalpen horren arabera:

a. Forma sinbolikoak

Forma sinbolikoak norbaitek edo norbaitzuek erranahi ageriko edo ezkutuago baten adierazgarri gisa sumatzen dituzten irudi, objektu, ekintza, ideia, adierazi eta abarrak izan litezke. Hau da, norbaitek zerbaiten adierazgarri dela uste edo sentitzen dituen irudiak, objektuak, ekintzak, ideiak, adieraziak... dira forma sinbolikoak. Hala, bada, erreferente neutro bat sinbolo bihurtzen da erreferente hori zerbaiten adierazgarri gisa sumatzen denean; gainera, sumatze hori pertsona nahiz kolektiboengandik hel liteke.

Erranahiaren eta adiera horren ulermena du(t)en partaidearen edo partaideen arteko harremana justifika ezina da, sinbolo gisa sumatzen du(t)en pertsonaren edo pertsonen burutik at.

b. Baliabide sinbolikoak

Baliabide sinbolikoak, erreferenteen izaerari eta erreferente horiekiko harremanari dagokionez, izaera jakina duten forma sinbolikoak dira: batetik, izaera sinbolikoa egozten dion partaideak kolektiboa behar du izan; eta, bertzetik, komunitate bateko identitate kolektiboaren eraikuntzarako forma sinbolikoen multzo koherente –oinarrizko arau multzo partekatua baitute– eta zehatzak dira. Beraz, baliabide sinbolikoak izaera espezifikoak duten forma sinbolikoak dira; alabaina, beren baitan, forma sinboliko espezifikoak barneratzen ditu baliabide sinbolikoak: baliabide sinbolikoaren edo baliabidearen agergunea den eremuaren barne-arauei egokituak diren forma sinboliko zehatzak dira.

⁸³⁹ “By ‘symbolic forms’ I understand a broad range of actions and utterances, images and texts, which are produced by subjects and recognized by them and others as meaningful constructs.” (Thompson 1990: 59).

Tesian, espresuki euskal komunitateaz ari garelarik, komunitate horren identitate garapenean eragin zuen baliabide sinboliko bati behatuko diogu: tradizioari. Baliabide sinboliko horren azterketan sakondu ahal izateko, bi agerguneri erreparatu diegu: Ahozko Ondare Kulturalari (AOK) eta literatur tradizioari. Gisa horretan, 1960-1990 bitartean garatu zen euskal identitatearen eragileetarik baten azterketak –tradizioarenak– ahalbidetuko du kultur eremuaren maila desberdinetako prozesuei behatzea –AOK-ko eta literatur tradiziokoei–. Hortaz, baliabide sinboliko berak (azpi)eremu desberdinetan jasan behar izan zituen egokitzeak zehaztu ahal izanen dira; hau da, AOKren eremuan jasanikoak eta literatur eremuaren barne-arauen ondorioz gertatuak.

Funtzionalitateak: AOKren funtzionalitate nagusiak

AOK-k 1960-1975 bitartean euskal komunitatearekiko izan zuen harremanari erreparatuta, ondareak hiru funtzionalitate nagusi izan zituela ondorioztatu dugu. Ideia horretatik abiatuta, AOK eta komunitate artean funtzionalitate nagusi horiek identifikatu ahal direla ulertu dugu, euskal komunitatearen kasuan, bederen –etorkizunean, abstrakzio horren mugak ikertu beharko ditugu, bertze zenbait komunitateren eta AOKren arteko harremanari behatuta–.

a. Funtzionalitate teorikoa

Funtzionalitate hau nagusitzen denetan, AOKren eta erreferentziazko komunitatearen arteko harreman naturala akitua da; erran nahi baita, ahozkotasunean oinarrituriko komunikazioa etena da, edo komunitatearen gutiengo batendako da, bakarrik, erabilgarri. Erabilgarritasun horrek, gainera, izaera berezia izanen du: biltze saio edota helburu teorikoak asebetetzeko saioen eskutiko erabilgarritasuna. Hori dela eta, saio horien gauzatzea ikerlariengandik heldu da, nagusiki.

b. Funtzionalitate praktiko-soziala

Funtzionalitate honekin deskribatzen den harremana komunitatearen behar eta nahiekin lotua da. Guk ikusi dugun komunitate eta AOK arteko harremanean, jendartearen nahiak, beharrak nahiz kexak agertu eta aditzera emateko funtzioa izan zuen AOK-k, denbora tarte batez. Hori dela eta, funtzionalitate praktiko-soziala duen ahozko ondareak, corpus nahiz ekintza izanik, erreferentziazko komunitatearen ahotsa agerrarazteko funtzioa du.

c. Funtzionalitate sinbolikoa

Funtzionalitate sinbolikoa komunitatearen errealitate sinbolikoari atxikia da; erran nahi baita arrazoiak haraindiko komunitate kideen arteko kohesioan eta atxikitzean eragiten duela. Hortaz, funtzionalitate sinbolikodun AOK-k oinarritzko batasuna duen jendartearen kontzepzio eta identitatean nahiz osaeran parte hartzen du.

Guneak: gune eragileak

Termino honekin, komunitatean botere zehatz baten jabe diren edo ez diren guneak deskribatu nahi izan ditugu; botere egituratzaile-erakundetzailearen jabetza hartu dugu irizpide gisa.

a. Gune ez-egituratzaileak

Botere egituratzaile-erakundetzailerik gabeko guneak dira. Izendapena erraztearren, “gune ez-egituratzaile-erakundetzaile” edo “gune ez-egituratzaile-instituzionalizatzaile” beharrez, “gune ez-egituratzaile” terminoa erabiliko dugu, tesian.

Jarraitutasun mota desberdinekiko korrespondentziari dagokionez, gune hauek komunitatearen jarraipenari eusten diote, mantentze *continuum* eta *continuum* iraultzaileetako aitzintestuinguruetan –edo lehen faseetan–. Lehen jarraitutasun mota nabaria den egoeretan, mantentze eragina duten guneak gailenduko dira; aldiz, *continuum* iraultzailea nagusi denetan, eragin bulkatzailedunak.

b. Gune egituratzaileak

Botere egituratzaile-erakundetzailea duten guneak dira; hau da, botere antolatzaile eta egituratzailea duten gune eragile espezifikokoak. Kasu honetan ere, izendapena erraztearren, tesian zehar “gune egituratzaile-erakundetzaile” edo “gune egituratzaile-instituzionalizatzaile” beharrez, “gune egituratzaile” gisa aipatu ditugu.

Continuum nagusi desberdinekiko harremana dela eta, *continuum* iraultzaile eta normalizatueta, potentzialki, ahalmen egituratzaile-erakundetzailea duten guneak indartzeko aukerak biderkatu egiten dira. Dena den, eragite egituratzaile-erakundetzailea egonkorra izan dadin, mantentze *continuum*etan, estatu eta komunitate

arteko harremanak orekatua⁸⁴⁰ behar du izan; edo oreka hori gertatzeko pausoak, *continuum* iraultzaileetan gertatu ahal den gisa, ematen hasiak behar dute.

Bi gune eragile motek moldatzen dute komunitatearen garapena, baina ahalmen desberdinen jabe dira; beraz, testuinguruarekiko harremana desberdina izan ohi dute.

Guneak: komunitatearen ordezkariak guneak

Estaturik gabeko nazioetan, euskal komunitatearen kasutik abiatuta, bi ordezkariak modu nagusi identifikatu ditugu: gune mugatuetatik sorturiko ordezkariak eta gune sinbolikoetatik heldu dena; horietarik bakoitzean, ordezkariak desberdina lortuko du komunitateak.

a. Gune mugatua

Komunitateak gune honetan atxikitzen duen ordezkariak partziala izanen da; erran nahi baita komunitatearen zati bat islatu gabe geratuko dela. Euskal komunitatea hiztun komunitate gisa –beraz, komunitatea hizkuntza irizpide hartuz– definitu dugula kontuan izanik, hiztun komunitate horren zati bat ordezkariak ez duen gunea da gune mugatua. Aztergai dugun epean, 1975etik aitzina, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) bihurtu zen hiztun komunitatearen gehiengoa biltzen zuen gune mugatu; baina komunitatearen zati bakarra zen hura.

b. Gune sinbolikoa

Gune honekin, ordea, komunitatearen izana bera identifikatzeko erabiltzen dugun irizpidearen –gure kasuan, hizkuntzaren– isla guziaz lortzen dugu. Hori dela eta, gune mugatua baino komunitatearen erreferentzia abstraktuagoari atxikitzen zaiola erran liteke. Euskal komunitatearen kasuan, 1975etik aitzinako fasean, erreferentzia espaziala alde batera utzi, eta hiztun komunitatearen ordezkariak lukeen gune gisa hizkuntza finkatu zela erran genezake.

Bi gune horien banaketak aukera ematen digu, Guibernauk aipatzen dituen botere egiturez gain, estaturik gabeko nazioen ikerketa zehatzetarako hagitz baliagarria deritzogun hirugarren egitura gaineratzeko: ordezkariak sinbolikoa duen botere guneak

⁸⁴⁰ “Orekatu” terminoarekin estaturik gabeko nazioaren izana suntsitzen ez duen eragina aditzera eman nahi dugu; aldiz, “harreman desorekatua”n, estatu nagusiaren eragina estaturik gabeko nazioaren oinarritzko komunitate zentzuaren kontra heldu litzateke.

izan lezakeen botere egitura. Gainera, atxikitzen duten autoerreferentzia abstraktu eta konkretu arteko aldea agerrarazten laguntzen digu, azterketan.

Ikuspegi zaharra vs ikuspegi berria

Bi izendapenek erreferentzia egiten diote euskal komunitatean, garai desberdinetan, eragin nabaria izan zuten pentsaerei. Gure helburua, ordea, ez da sailkapen zehatza egitea, eta, horregatik, modu zabalean definitu ditugu kontzeptuok.

Ikuspegi zaharrak XIX. mendearen akieran abiatu eta XX. mendearen erdira arte nagusitu zen pentsaerari egiten dio erreferentzia. Ikuspegi honek, komunitatearen norabidea immobilismoan eta helburu gordetzaileetan oinarrituz, ihesbidera jotzen zuen; dinamika aitzinatzailerik gabeko estatismoan biltzen zuen komunitatea.

Pentsaera honek bat eginen luke Sabino Aranak⁸⁴¹ irudikatzen zuen komunitatearekin; hori dela eta, tesian zehar, behin baino gehiagotan aipatuko dugu “pentsamendu aranista”ren ideia.

Ikuspegi berria, aldiz, 60ekin batera abiatu erlatiboan eratzeko epealdiari lotua da. Ordura arte nagusituriko ikuspegi alde batera utzi beharra bulkatzen zen, nahiz eta aniztasuna zen, ziur aski, olatu berriaren oinarria. Bertzeak bertze, euskal komunitatea mundura ireki beharra zuen pizgarri pentsaera honek; Europako gizarteari bizkarrik eman gabe, estatismoa alde batera utzi, eta eraginak, kanpo-bizipenak nahiz ideiak –onuragarri ziren heinean– bereganatu nahia zen.

Bere baitan pentsaera aniztasuna, preseski, gordetzen duen ikuspegi honek badu, guretako, erreferentzia nagusirik; tesian zehar solasgai ditugunetarik, “Gazte naiz” aterkipean irudika genezake jarrera berriaren irudi garrantzitsuenetarik bat, bederen.

Hortaz, bataren eta bertzearen arteko alderik nabariena bulkadaren izanean zen; zehazki, pentsaera horietarik bakoitzak bulkada dinamizatzailea edo geldiarazlea ote zuen, komunitatearengan.

⁸⁴¹ “El aranismo, nacionalismo de tipo germánico, se caracterizó por ser tradicionalista e integrista, antiliberal y antiespañol, antisocialista y antiindustrialista. La religión católica y la raza vasca constituyeron los dos pilares fundamentales de su concepción esencialista de la nación vasca. Su proyecto político para la futura Euzkadi consistiría en un Estado vasco confederal, basado en la *unidad de la raza* y la *unidad católica*, en el cual serían nacionales los que tuviesen apellidos vascos y comulgasen con su lema *Dios y Ley Vieja o Jaun-Hoikua eta Lagi Zarra* [...], esto es, tan sólo los jeltzales o jeltzales” (de la Granja, in de Pablo *et al.* coord.: 119) (azpimarra ez da gurea). Sabino Aranari buruzko ikuspegi zabalagoetarako, aunitzen artean, Euskaltzaindia 2004.

Intelektual vs *intelligentsia*, vs kulturgile

Lehen alderatzea egiteko, intelektual⁸⁴² eta *intelligentsia* artekoa egiteko, egin diren zehazte aunitzen artean, oinarritzat, Gabriel Zaid-ek Latinoamerikako kasuarentzat erabilgarri deritzon banaketa hartuko dugu:

Los intelectuales son y no son la *intelligentsia*. La *intelligentsia* no es el conjunto de los intelectuales, como dicen algunos diccionarios: es todo el estamento letrado nacional

Los intelectuales son un conjunto de personalidades, la *intelligentsia* es un estamento social.

Los intelectuales aparecen después de la revolución, la *intelligentsia* en los preámbulos.

Los intelectuales son la crítica, la *intelligentsia* es la revolución.

Los intelectuales pasan de los libros al renombre, la *intelligentsia* pasa de los libros al poder. (1990: 22)

Guk, ordea, banaketa xumeagoa jarraituko dugu, tesian; izan ere, euskal komunitateak, 1960-1990 bitartean, garatu zuen berpizkundeaz aritzeko, kulturgileez aritzea egokia dela uste dugu. “Kulturgile” izendapenak “intelektual” kontzeptuak baino adiera zabalagoko multzoa besarkatzen du, intelektualak helburu eta jarrera zehatzak dituela ulertzen baitugu. Edward W. Said-ek zioen gisa:

The central fact for me is, I think, that the intellectual is an individual endowed with a faculty for representing, embodying, articulating a message, a view, an attitude, philosophy or opinion to, as well as for, a public. And this role has an edge to it, and cannot be played without a sense of being someone whose place it is publicly to raise embarrassing questions, to confront orthodoxy and dogma (rather than to produce them), to be someone who cannot easily be co-opted by governments or corporations, and whose *raison d'être* is to represent all those people and issues that are routinely forgotten or swept under the rug. (1996 [1994]: 11)

Hortaz, aztergai dugun epealdiko kulturgileen artean intelektualak zirenak eta ez zirenak bazirenez, guziek partekatzen zuten oinarritzko arituan ardaztea erabaki dugu: kultur arituan. Hala, bada, kulturgileen lanari eginen diogu erreferentzia, lanean zehar.

Jarraitutasun sinbolikoa

Termino honekin, komunitateak, iraganaren eta orainaren artean ezar ditzakeen segiden artean, oinarri sinbolikoa duenari egiten diogu erreferentzia. Lau alde bereizgarri nagusi ditu jarraitutasun mota honek:

⁸⁴² “There are thousands of different histories and sociologies of intellectuals available, as well as endless accounts of intellectuals and nationalism, and power, and tradition, and revolution, and on and on. Each region of the world has produced its intellectuals and each of those formations is debated and argued over with fiery passion.” (Said 1996 [1994]: 10)

1. Komunitate kideen begirada nagusia iragan ondarearekiko: iragan elementu gisa identifikatuei ikuspegi sinbolikotik erreparatzen zaie.
2. Denboren arteko lotura bideratzaile nagusia: orainaldiaren eta iraganaren arteko jarraitutasuna oinarri sinbolikoak katalizatua da.
3. Jarraitutasun sinbolikoak, komunitate bateko garai zehatz batean, duen garrantziaren berri zerk ematen duen: komunitatearen eta iraganeko ondarearen arteko harremanak ematen du jarraitutasun sinbolikoaren garrantziaren berri.
4. Jarraitutasun sinbolikoak komunitate garapenarekiko duen harremana: duintze prozesuen garapenak jarraitutasunaren mugetan aldaketak sortzeko joera izaten du.

Estatu gabeko nazioen azterketarako hagitz baliagarria izan liteke termino hau; izan ere, aukera ematen du estatu barneratzaileen mende dauden, edo izan diren, komunitateen azterketa berezitua egiteko. Kasu horietan, duintasun bilaketak behartu egiten ditu komunitate azpiratuak estatu barneratzaileei eskua sartzea zailen zaien errealitateetara jotzera. Bereziki erabilgarria izan liteke arrazoiak haratagoko argudiatze eta sentipenak garatzeko, kasu.

Euskal komunitatearen kasuan, bederen, komunitatearen lehen behar mailari lotua da jarraitutasun mota hau; hori dela eta, espresuki sumatzen da jarraitutasun sinbolikoak, 1975etik aitzinako prozesuarekin batera, garrantzia galdu izana.

Komunitatea

Termino honek oinarrizko batasuna duen jende multzoari egiten dio erreferentzia. Hagitz adiera orokorra izanik, kasuistika zabala onartzen du, bere baitan. Hala nola, tesian hizpide dugun euskal komunitatea; hau da, gure irizpideen arabera, oinarrizko batasun gune gisa identitate kulturala eta, horretan, espresuki hizkuntza erdigune duen jende multzoari egingen diogu erreferentzia.

Kontrol egiturak: parametro zehatzen bermea lortzen duten botere egiturak

Kontrol egiturekin, komunitate antolaketetan botere ofiziala egituratzeaz gain, horien bermea bulkatzen duten estruktura antolatuei egin nahi diegu erreferentzia. Hau da, komunitatea kontrolatzen duten –hautaturiko parametro batzuen artean, bideratua izatea bermatzen duten– botere egitura zehatzak dira.

Alabaina, antolatze horien egituraketa estatudun edo estatu gabeko komunitateetan izateak aunitz baldintzatzen du kontrol egitura horien izaera; desberdinak baitira kasu bakoitzean, ahalbideen arabera, eskuragarri diren baliabideak.

Estatua komunitate antolatzaile nagusia den kasuetan, estatuaren egitura sostengatzen duten egiturek ezartzen dute oinarria, baita haren bermatzea sostengatzen ere. Aldiz, estaturik gabeko komunitate antolatze kasuetan, badira botere ofizialaren izaera autonomoaren egituratzaile gisa aritu ahal diren estrukturak ere; Guibernauk, kasu, autonomia maila desberdina izan dezaketen hezkuntza eta komunikabideak aipatzen ditu, estaturik gabeko nazioen azterketarako botere egitura gisa (1999: 102).

Dena den, estaturik gabeko nazioen azterketarako, hirugarren botere egitura bat ere proposatu dugu, tesian: ordezkartza sinbolikoa duen gunea. Hortaz, estaturik gabeko nazioen azterketarako hiru kontrol egiturari behatu behar zaiela proposatzen dugu guk: hezkuntza, komunikabideak eta ordezkartza sinbolikoa duen gunea.

Krisi Orokorra (1960-1975) eta Krisi Orokor Ñabartua (1975-1990)

Diktadurak maila pertsonalean eta maila kolektiboan ekarririko ondorio multzoak osatzen du Krisi Orokorra. Izendapen honekin, diktaduraren hondarreko hamabortzalditik 90eko hamarkadara arteko nahasmena deskribatu nahi izan dugu. Batetik, 60ko hamarkadan loratu zen bilaketa, banako nahiz kolektiboari zegokiona. Bertzetik, aditzera eman nahiko lirateke erregimen totalitaritarioaren akierarekin sortu zen behin-behinekotasunaren ondorioak: prozesu historikoen mutazio bortitzak eta aldaketa nagusiek –ideologiko, identitatezko, kultural, politiko...– agerraraziriko bide aniztasunarekin garatu zirenak.

Hala, bada, termino honek noraeza, bilaketa eta nahasmena biltzen dituen gizarte egoera deskribatzen du. Alabaina, 1960-1990 bitarteko aldaketak *continuumean* gertatuak izaki, testuinguru nagusi biri egokituriko krisialdiak identifika litezke, hogeita hamar urte horietan zehar: Krisi Orokorra eta haren baitako Krisi Orokor Ñabartua. Hori dela eta, izendapen bakoitza hamabortzaldi bati egokitu diogu; zehazki, Krisi Orokorra 1960-1975 bitartea izendatzeko darabilgu, eta Krisi Orokor Ñabartua, aldiz, 1975-1990 bitartekoarentzat.

Krisi nagusi horretan bi epe bereizi banatzeko arazoi nagusia izan da krisi zabalak ñabardura desberdinak garatu zituela, hogeita hamar urte horietan zehar. Lehen hamabortzaldian, euskal komunitatearen lehen behar mailari loturiko duintzea

berreskuratzea gailendu zen; bigarrenean, oinarri horren proiektzioa sustengatu beharra nabarmendu zen. Krisi Orokorrean identifikatu dugun prozesu kolektibo nagusia duintasun oinarrikoaren berreskuratze saioa da. Ñabartuan, aldiz, duintasunaren hurrengo pausoa asebetetzeko prozesuak abiatu ziren: komunitateak orduan eta etorkizunean proiektzioa eduki ahal izateko behar zirenak; hau da, komunitateak errealitate globalizatuan gainerako komunitateekiko parekidetasunez eta funtzionalitate garaikidez aritu ahal izateko behar zirenak –antolatze, sistematizatzeko eta erakundetzeak–.

Kultur sistema motak: kultur sistema integratuak eta integratzaileak

Euskal komunitatearen adibidetik abiatuta, estaturik gabeko nazioen azterketarako erabilgarri iduritu zaizkigun bi kultur sistema mota nagusi bereiztea komeni dela uste dugu: kultur sistema integratua eta kultur sistema integratzailea.

Mirko Lampisek kultur sistema integratuak “conjuntos organizados de elementos que interactúan con más intensidad o frecuencia entre sí que con lo que los rodea” (2009) gisa definitzen ditu. Guk, aldiz, euskal komunitateak lehen faseetik bigarrenean jasan zuen aldaketa nagusia deskribatu ahal izateko moduan definitu dugu sistema integratuaren izana.

a. Kultur sistema integratua

Kultur sistema integratuak bertze sistema baten barrenean txertatuak diren azpisistemak dira, guretako. Bi baldintza bete behar dira sistema bat integratua dela errateko: batetik, sistema zabalak azpisistemaren izatea sistema oso gisa onartzea, eta, bertetik, sistema zabalarekiko elkarreragina egotea edo egoteko bidea irekia izatea. Elkarreragin horren ondorioz, kultur sistema zabalaren arauak eraginen bat izanen dute azpisistema integratuan; baina, gisa berean, azpisistemak, sistema zabaleko zati denez, badu sistema zabalean islarik, eraginik.

b. Kultur sistema integratzailea

Sistema integratzaileek arau multzo batean biltzen dituzte beren baitako elementuak; hau da, sistemaren arauak eragiten dute beren elementuen arteko elkarreragina. Hala, bada, bi zutarr nagusi dituzte sistema integratzaileek: batetik, beren baitan elementuak koherentzia nagusi batean biltzen dituzte; eta, bertetik, sistemaren

momentuko egitura eta antolaketara egokituriko arauak ezartzen dituzte, hain zuzen ere, koherentzia hori lortzeko.

Bi sistemen harremana desberdina izan daiteke; sistema integratzaileek sistema integratuak izateko aukera badute ere –teorian, bederen–, sistema integratuak sistema izateagatik beragatik integratzaile izanen dira. Hala ere, ez dira beti maila bereko harremanak gertatzen. Alde batetik, sistema integratzaileek onarpen maila desberdina lor dezakete sistema integratu gisa, sistema nagusiaren aldetik; bertze alde batetik, sistema integratuetan, koherentzia mantenduko duten arauak malgutasun desberdinak izan ditzakete, garai desberdinetan. Gainera, bi sistemetako arauak aldakorak dira, nahiz eta malgutasun horrek ez duen tinkotasunean eragiten.

Kultura

“Kultura” terminoa defintzeko saio aunitz egin dira; horietarik, historia kulturalaren bidea jarraitu nahi izan dutenek sinboloak hartu dituzte erdigunetzat. Burkek eta Thompsonnek, erraterako, honako definizioak biltzen dituzte:

«un patrón históricamente transmitido de significados encarnados en símbolos, un sistema de concepciones heredadas expresadas en formas simbólicas mediante las cuales los hombres se comunican, perpetúan y desarrollan su conocimiento de la vida y sus actitudes hacia ella» (Geertz *The Interpretation of Cultures*, 1973: 89, in Burke 2006a [2004]: 54).

the ‘symbolic conception’, and which may be characterized broadly as follows: *culture is the pattern of meanings embodied in symbolic forms, including actions, utterances and meaningful objects of various kinds, by virtue of which individuals communicate with one another and share their experiences, conceptions and beliefs.* (Thompson 1990: 132) (Azpimarra ez da gurea)

“1. Oinarri teorikoak” atalean agertu dugun gisa, ikuspegi desberdinetarik erreparatu izan zaio, gainera; Thompsonen lanetik abiatuta (*ibid.*: 124-145), zehazki, ulertze klasikoa, ulertze antropologikoa –ulertze deskribatzailea eta ulertze sinbolikoa biltzen dituen– eta ulertze estrukturala aipatu ditugu.

Guk kultura ulertzeko hautatu dugun ikuspegiak sinboloak oinarri dituen arren, espresuki jo behar izan dugu gure ikergaien azterketan sakontzeko behar izan ditugun aldeak barneratuko dituen ulerkuntzara. Hori dela eta, izaera dinamikoaren eta testuinguruaren garrantzia, zehazki, agerian uzten duen definizioarekin heldu gara bat.

La cultura podría definirse [...] como el proceso de continua producción, actualización y transformación de modelos simbólicos (en su doble acepción de representación y de orientación para la acción) a través de la práctica individual y colectiva, en contextos históricamente específicos y socialmente estructurados. (Giménez 2005: 75)

Dinamismoa kontuan hartzeak ahalbidetu du, bertzeak bertze, komunitate jarraitutasunean sakontzea. Euskal komunitateak izaniko jarraitutasunaz ohartzeaz haratago, ohartu egin gara, badela, *continuum* horretan, kasuistika nagusia. Are gehiago, kasuistika horretan muineko aldagaiak direla, eta komunitate garapenarekin zuzenean direla erlazioan.

Literatur tradizio izendapenak: euskal literatur tradizioen izendapenak

Erosotasunaren bila, Atxaga, Sarrionandia eta Juaristiren lanetan ageri diren euskal literatur tradizioen erreferentziak multzokatzeko, bi irizpide konbinatzen dituen banaketa egin dugu: tradizioaren izanari erreparatzen dion irizpidea eta kronologiak mugatzen duena. Hala, tasunen arabera banaturiko bi literatur tradizio nagusitan, kronologiari atxikiriko garaiak banatu ditugu:

a. Euskal Literatur Tradizio Tradizionala

a.1. Frankismo Aitzineko Euskal Literatur Tradizioa: XIX. mendearen akieratik 1936a bitarte

a.2. Aro Iluneko Euskal Literatur Tradizioa: 1936-1975 bitartekoa

b. Euskal Literatur Tradizio Berria

a. Euskal Literatur Tradizio Tradizionala

Abertzaletasun historikoaren bideetatik garaturiko euskal literatur tradizioari egiten diogu erreferentzia, erlijio eta nazionalismo historikoari atxikia denari. Tradizio honen mugatzea bere baitan biltzen dituen ideien arabera erabaki dugu; izan ere, XIX. mendearen akiera aldera sorturiko ikuspegi abertzalearekin lotua da. Zernahi gisaz, gertakari historiko nagusi bik irizpide kronologikoen arabera barne-banaketa gauzatzera behartu gaituzte: Frankismo Aitzineko Tradizio Tradizionala –XIX. mendearen akiera eta 1936a bitartekoa– eta Aro Iluneko Tradizio Tradizionala –1936an Gerra hasi zenetik 1975era bitartekoa–. Argi denez, bai Gerra Zibilak, baita diktadurak ere, arunt baldintzatu zuten tradizio ororen garapena; bertzeak bertze, Gerrarekin molde modernoetara hurbiltzen hasia zen euskal literaturaren garapen berezkoa –Lizardi, Lauaxeta...– eten egin zen.

Hiru konstante nagusi bereiz daitezke Tradizio Tradizionalaren bi aldi kronologiko horietan: erakundetu gabea, abertzaletasun historikoko helburuetarik hurbil gauzatua eta jite herrikoiez moldatua den literatur tradizioa litzateke, nagusiki. Gainera,

Tradizio Tradizionalaren banatze kronologikoak –Frankismo Aitzinekoa eta Aro Ilunekoak– ideologia eta helburu abertzaleei atxikiak izanen dira, oinarrian; printzipioz, XX. mendean zehar, bigarren ezaugarri nagusi gisa identifikatu den erlijioaren zama lasaituz joan zelarik.

Tradizio Tradizional eta Berriaren artean, zubi gisa, Gabriel Arestiren *Maldan Beherako* saiakera poetikoa legoke, baita Miranderen poetika ere.

a.1. Frankismo Aitzinekoa: XIX. mendearen akiera eta 1936a bitarte

Literatur Tradizio Tradizionalak dituen ezaugarri nagusiekin bat heldu, baina, kronologikoki, XIX. mendearen erdi eta 1936a bitartean gauzatua. Frankismoa nagusitu aitzinekoa izaki, izena ezaugarri horien isla izateko moduan erabaki dugu: Frankismo Aitzineko Literatur Tradizioa; forma laburtuak, tesian, izanen dira bai “Frankismo Aitzineko Tradizioa”, bai –ulergarri denean– “Frankismo Aitzinekoa” ere.

Molde herrikoiak eta modernitatetik hurbilago diren saiakera bakanak barne hartzen ditu.

a.2. Aro Ilunekoak: 1936-1975 bitarte

Literatur Tradizio Tradizionalak dituen ezaugarri nagusiekin bat heldu, baina, kronologikoki, Gerra Zibilarekin hasi, eta Franco hil arte luzatuko litzateke epe hau. Izenak berak urte bitarte horretan gailendu zen jarraitutasun motaren izana islatzen du, eta, erran gisa, Tradizio Tradizionalak dituen tasun nagusiak biltzen. Tesian, sarri, “Aro Iluneko Tradizio” edo “Aro Iluneko” –testuinguruak ulergarri egiten badu, bakarrik– gisa aipatuko dugu.

b. Euskal Literatur Tradizio Berria

Krisi Orokor garaian sorturiko tradizio aukeren aniztasunari egiten dio erreferentzia kontzeptu honek. Kronologikoki, Francoren heriotzarekin eman ahal zaio hasiera guzizkoa tradizio honek barneratzen duen egoerari. Ikerketak ezarri dizkigun mugengatik, B. Atxaga, J. Sarrionandia eta J. Juaristirekin hertsikien loturiko arituak soilik aipatu ditugu, prozesuaren erakusgarri. Horregatik, Literatur Tradizio Berriak Tradizio Tradizionalaren mugak hausten dituen egoera anitzari egiten dio erreferentzia, eta, erakusgarri, hiru idazle horien adibideei erreparatuko diegu. Hortaz, errealitate osoago baten isla diratekeen hiru idazleren aritua izanen dugu aztergai.

Tradizio Berriaren berezko tasunik erranahitsuena muga irekitzea da; hau da, literatura desberdin baten beharraz, abertzaletasun eta erlijioaren helburuetarik aske

diren aukerak biltzen ditu Literatur Tradizio Berriak. Beraz, izendapenak munduaren zabaletik edateko aukera eskaintzen zuen tradizioa eta haren gauzatzea, nahiz eskutik heldu den oharmen berria, biltzen ditu.

Tradizio Berriak 1975etik 1990era bitarteko gizartearekin eta haren erabakiekin du lotura: EAE gisa antolatu nahi zen egitura politiko-ekonomiko-sozial berrirako hautatzen ari zen tradizioaren lehen moldeak ziren. Hau da, sortzen ari zen ELS garaikidearen tresna. Tradizio Berriak duen mugimenduak eta islatzen duen errealitateak prozesu bat osatzen dute: erabakitze prozesua. Beraz, erreferenteen aniztasuna –munduko erreferenteak– eta aldaketa –aitzineko belaunaldien ukazio eta hautua– ezinbertzeko dira. Bertzeak bertze, bi ezaugarri horien konbinaziotik sortuko zen Atxaga, Sarrionandia eta Juaristik, bakarkako fasean, hautaturiko literatur tradizio propio bana erabakitzeko aukera. Tradizio Berria, diktadura garaiko isolamendutik ernatzen hasiriko gizartetik abiatua, euskal gizarteak frankismotik herrestan zuen zamarekiko hausturan oinarritzen da. Oinarrietarik zenbait Pott taldeak ezarri zituen, bertzeak bertze, 1936an eteniko Frankismo Aitzineko Tradizioaren berrirakurketa eginaz.

Tradizio Berriaren izanak ez du 90etik aitzina guti goiti-beheiti nagusitu zen euskal literatur tradizioa islatzen, haren aurrekaria baizik. Horregatik, Tradizio Berria literatur tradizio egituratu bat baino gehiago, egoera baten testigantza da, guretako: Krisi Orokor Ñabartuan, Tradizio Krisiari eskerrak, ELSko tradizioa ahalbidetu zuen zubia.

Literatur tradizio krisia: Euskal Literatur Tradizio Krisia

Krisi Orokor Ñabartuak eragin zion gizarte alderdi zehatz bati egiten dio erreferentzia: literaturaren arloetako bati. Krisiak literaturan izaniko eraginetarik bat da Literatur Tradizio Krisia; beraz, Krisi Orokor Ñabartuaren baitan sortua.

Nazioa

By ‘nation’, I refer to a human group conscious of forming a community, sharing a common culture, attached to a clearly demarcated territory, having a common past and a common project for the future and claiming the right to rule itself (Guibernau 1996:47-48)⁸⁴³. (Guibernau, *in* Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 132)

⁸⁴³ Emaniko erreferentzia: Guibernau, Montserrat, 1996, *Nationalisms: The Nation-State and Nationalism in the Twenty-first Century*. Cambridge: Polity.

Smithek, hainbat urte geroago, eraiki duen definizioan, aitzinez “nazioa” azaltzeko emana zuen definizioa ideia zabalagoetara hurbiltzen du; alabaina, ez zaio erreferentzia zuzenik egiten etorkizuneko proiektu komunari:

I propose to define the *nation* in ideal typical manner as ‘a named and self-defining human community whose members cultivate shared memories, symbols, myths, traditions and values, inhabit and are attached to historic territories or “homelands”, create and disseminate a distinctive public culture, and observe shared customs and standardised laws’.⁸⁴⁴ (2009: 29) (Azpimarra ez da gurea)

Gure ustez, garrantzitsua da proiektu partekatu hori kontuan izatea, badelakotz edo ez delakotz aipagarria baita. Beraz, nazioa horrela ulertzen dugu guk: batetik, lurralde jakin batean bizi, eta etnia, hizkuntza, historia eta ohitura berak dituen pertsona multzoa; bigarrenik, bere burua berezko nortasuna duen talde etniko eta politikotzat hartzen duen komunitatea; eta, hirugarrenik, etorkizuneko proiektu partekatua, edota proiektio bateratua, nahi duen komunitatea. Proiektu partekatu horretan lortu nahiriko autonomia maila nazioaren funtsetik at da, guretako.

Garrantzitsua da, gainera, estaturik gabeko nazioak identifikatzea (Guibernau, *in* Guibernau eta Hutchinson arg. 2004: 132):

By ‘nations without states’ I refer to those territorial communities with their own identity and a desire for self-determination included within the boundaries of one or more states, with which, by and large, they do not identify. In nations without states, the feeling of identity is generally based on their own common culture and history (which often goes back to a time prior to the foundation of the nation-state or, to employ Smith’s theory, to its ethnic roots), the attachment to a particular territory and an explicit desire for self-determination.

A nation without state is defined by the lack of its own state and by an impossibility to act as a political institution on the international scene. [...] nations are not unique, eternal or unalterable, and that throughout history there are many examples both of the disintegration of some nations that have played an important role during a certain period, and of the rise of new nations.

Nazioaz eman izan diren definizioen egokitasuna aunitz eztabaidatu da; M. Guibernauk eta J. Hutchinonek argitaraturiko *History and National Destiny*:

⁸⁴⁴ “Many scholars, apart from ethno-symbolists, have felt the need to resort to the collective, symbolic level to analyse the formation and persistence of nations, and to treat ‘nation’ as both an analytic category and a specific historical form of community” (Smith 2009: 128); “The point to emphasise here is the *double historicity* of nations: their embeddedness in very specific historical contexts and situations, and their rootedness in the memories and traditions of their members. By and large, nations tend to emerge, as we shall see, over long time-spans through the development of particular social and symbolic processes and their combinations, although there are significant exceptions, particularly in the modern period when the ‘blueprint’ of the nation and recipes for its creation become widely available. But nations are also constituted by shared memories, values, myths, symbols and traditions, not to mention the repeated activities of their designated members; and the patterning of these varied cultural elements over the long term produces a structure of social relations and a heritage of cultural forms that constitute a framework for socialising successive generations of the national community” (*ibid.*: 30) (azpimarra ez da gurea).

Ethnosymbolism and its Critics (2004) liburuan, egile desberdinen artikulua bilduma interesgarria biltzen da. Bertzeak bertze, Guibernauk berak dioenez:

the distinction between nations ‘with’ and ‘without’ states could contribute to resolving some of the key dilemmas arising from Smith’s classical definition of the nation as well as locating two different arenas within which nationalism emerges and resolves in modern societies (131).

Euskaldunei buruz aritzeko, tesi honetan, adiera xumeagoa hartzen duen kontzeptua erabiliko dugu guk, normalki: euskal komunitatea. Alabaina, ez dugu euskal komunitatea nazio gisa ukatzen; arrazoi praktikoengatik eginen diogu erreferentzia hizkuntza oinarri duen komunitate adierari.

Nazionalismoa

Nazionalismoari buruz definizio desberdinak eman izan diren arren, oinarri-oinarrizko desberdintzea atxiki nahi izan dugu. Tesian zehar sumatu diren beharrak asebate nahiak eraman gaitu, hain zuzen ere, erabaki hori hartzera; zehazki, euskal komunitateak 1960-1990 bitartean bizirik bi fase nagusiak aztertzeko ezarri behar izan dugulakotz abiapuntu –printzipioz– nabaria.

a. Adiera ideologikoa

Ideologia partekatu batean bildua izanik, antolakuntza eta egituraketa duen ekimena da. Partaide sentitzen diren nazioaren autonomia maila desberdinak aldarrikatzeaz haratago, helburu hori lortu nahi izatearen inguruan antolaturiko jende taldea da adiera honen muinean.

b. Adiera oinarrizkoa

Nazio bateko partaide sentitzeagatik nazio hori bera sostengatuko duten ekimen eta errebindikazioek osatzen duten aritu multzoa da; adiera honekin espresuki erreparatu nahi diegu ideologia egituratu eta bateratu batetik abiatua izan ez arren, komunitate partaidetza sentimenak bulkatzen dituen ekimen multzoak.

Ideologia egituratu bati atxikirik ez diren ekimenen izana agertu ahal izateko proposatu dugu bi adieren banaketa. Adiera ideologikoa izaten da, eskuarki, lehenik burura heldu dena; hortaz, ideologia egituratu batetik ateko ekimen eta prozesuak aztertu nahi direnean, zentzu zehatz horretatik urruntzen dena islatzeko ahala behar dugu.

Oreka komunikatiboa

Oreka komunikatiboak eskainiaren eta hartzailearen arteko harremanari egiten dio erreferentzia; zehazki, hartzaileak eskaintzen zaionaren gutieneko aditzea izan dezan, sortu behar den ezagun eta berri arteko orekari. Oinarri horrek ahalbidetzen du eskaintzen du(t)en pertsona edo pertsonen eta hartzaile d(ir)en(ar)en arteko komunikazioa gertatzea. Guziz berria den aritua eskaini, eta ezagunarekiko haria mantenduko duen erreferentziarik ez denean, arriskua da igorlearen mezua –eta, beraz, komunikazioa bera– sobera arrotz izatea hartzailearendako; ondorioz, oreka komunikatiboa hautsia litzateke.

Sinbolo amarauna/sarea

Sinbolo amaraun edo sarearen ideia Cassirerren lanetik (*Gizakiari buruzko entseiua: Giza kulturaren filosofiari sarrera* 1995 [1944]) hautatu dugun kontzeptua da; izan ere, ideia horretan biltzen da tesian zehar solasgai den ideia nagusietarik bat: oinarritzko kode edo arau multzo kohesiodunek eragiten dituzte forma sinbolikoak, eta, ondorioz, multzo kohesiodun horiek eremu koherenteak sortzen dituzte. Hortaz, sinbolo sare koherente horien eraginez, pertsonon atzemate ahalmen zabala bideratzen dute.

B ERANSKINA: ADIBIDEAK

Bigarren eranskin honetan, tesiko atal desberdinetan eman gabe geratu diren adibide eta erreferentzia zehatzak hurbildu nahi ditugu. Tesiko atal nagusien erreferentziaren azpian bildu ditugu adibideak.

B.2. Testuingurua (1960-1975)

- **Anaitasuna (1960-1975): zentsura, errepresio eta debeku adibide zenbait**

urtea	zk.: or.	deskribapena
1969	172: 4	Jaialdian “Egun da Santimamiña” kanta debekatua.
	173: 3	Sariketa debekatua: Euskal Abestiaren Laugarren Sariketa debekatua.
	179: 3	Bertsolariei ezarririko debekua.
1970	186: 4	Argitalpen bati: <i>Jakin</i> .
	190: 4	Kantariei ezarririkoa: Benito Lertxundiri.
	191: 2	Abeslari eta bertsolariak debekatuak.
	200: 17	Erbesteratuak: Txillardegia.
1971	221: 1	Bertsolariei ezarririko debekua: Azpillaga eta Lopetegiri.
	205: 6	Estatu mailako argitalpen bati: <i>España económica</i> .
	205: 4	Aldizkarietako idazleei.
	220: 10	Ikastaro debekua: Iruñean, ikastoletako irakasleendako ikastaroa debekatua.
	222: 3	Erbestea: Telesforo Monzón Donibane Lohitzunen bakarrik egon ahal.
	225: 4	Zigorra: Arestiri <i>Harrizko Herri Hau</i> liburuagatik epaia.
1972	226: 2	Bertsolariei: azken aldian debekatuak.
	226: 7	Antzerkia, errepresioa: biltzea debekatua izanik, antzerkirik egitea ezinezkoa.
	234: 5	Zigorra: Aristiri, <i>Harrizko Herri Hau</i> dela eta, egin beharreko epaiketa bertan behera.

	234: 16	Zinemari zentsura; testuinguru errepresiboa: zinema gizarte errepresiboan ezin garatu, eta zentsurak ezin errana ekarri.
1973	248: 9	Bertsolaritzari: urteak dira Bizkaian bertsolariak debekatuak direla.
	252: 5	Aldizkari bati isuna: <i>Zeruko Argiari</i> bi artikulurengatik 25. 000 pezetatako isuna.
	254: 5	Omenaldia: euskal artistei Pablo Picasso-ri omenaldia egiteko baimen ofizialik ez. Picassok babesik ez.
	263: 7	Argitalpen bati: Barakaldoko <i>Márgenes</i> hamabortzkariari debekua.
	264: 6	Durangoko Azokan bertsolariak debekatuak.
	264: 7	Erbesteratuak: Martin Ugalde.
	266: 5	Bertsolariak: zortzi urte dira bertsolari txapelketak Bizkaian debekatuak direla. (Gereñok urtero-urtero salatzen du bertsolaritzaren debekua, Bizkaian)
1974	268: 6	Liburua: JosAnton Artzeren <i>Laino guztien gaintik</i> eta <i>Sasi guztien azpitik</i> , bahitua.
	271: 3	Talde politikoa: Enbata talde politikoa eta bere kazeta debekatua.
	271: 5	Aldizkariari: euskarazko aldizkarietako iragarkiak jartzen dituztenei presioak.
	271: 6	Estatuaren kontra: Añoveros Bilboko apezpikua bere etxean atxilotua, ustez, estatuaren batasunaren kontra aritzeagatik.
	275: 16	Euskarari.
	277: 6	Bertsolariak: Bilbon debekatuak, bi bertsolari.
	284: 6	Atxiloteta: Joan Mari Mendizabal, atxilotua.
	286: 3	Egunkari bati: <i>Aragón Express</i> bahitua, “El nacionalismo aragonés” artikuluegatik.
	286: 7	Artistei: Ibarrola aita-seei erakusketa Bilbon ez baimendu, estatu mailako bertze aunitzeri gisa, “no procede”.
	288: 1, 16	Euskaraz aritzeari; gutiestea.
1975	293: 4	Erregimenaren gogorra.
	296: 3	Astekari bati: <i>Diario 16</i> isilarazia, estatu barneko batasun autonomikoaren aldeko iritziengatik.

	302: 14	Lege bat: abuztuaren 26ko 10/1975 Lege Dekretua ⁸⁴⁵ .
	307: 1, 16	Instituzio ukatzaileak. Herriaren beldurra. Garaileen legea.

14. taula: Zentsura, errepresio eta debeku adibideak

• **Anaitasuna. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (lehen zehaztea)**

- Euskara eskolak “gaztelarrei” eman beharra: “Emon da zabal zazu” (Lurgorri, 1965, 127: 3).
- Euskara hezkuntza maila guzietan irakatsi beharra:
 - Eskola nazionalak: “Izkiri-Miriak” (“Maixu” sinadurapean, 1962, 90: 7-8), “erriz erri” (1966, 131: 2).
 - Ikastolak: (1966, 138: 3), “Erri ikastolak” (Karmen Ibarra, 1967, 143: 9), “Patxi Uribarren. Euskal Olerkaria” (Joseba Arrieta, 1969, 173: 6-7), “Ikastola eta liburutegiak” (Barkaitzegi, 1971, 211: 3).
 - Institutua: “Irakaskintzaren sistema ofiziala eta irakasleak” (Karmele Errotaetxe [Karmele Rotaetxe], 1971, 211: 3).
 - Euskal Unibertsitatea: “Mugaz andiko ikasleak Euskal Unibersidade barri bat nai dabe” (Lucien Etchezaharreta, 1968, 164: 9, Baionako *Herria* aldizkaritik hartua), “Kurso barria” (Jon Otargi, 1969, 176: 6).
- Euskara ikus-entzunezko eremuetarako gaitu beharra: “Euskal zinerik bai?” (Gotzon Elortza, 1966, 137: 5), “Euskarazko klaseak radiotik” (egile ezezaguna, 1968-01-15, 154. zk.), “Euskal irratia 1974” (Iñaki Zubizarreta, 1974, 288: 8).
- Euskara batuaren beharra: “Euskera ilgo ote da?” (Xabier Gereño, 1970, 190: 1), “Euskera batua Nafarroan” (“Gorka Trintxerpe” [Patxi Zabaleta], 1970, 194: 3), “Asfaltu euskara” (Xabier Mendiguren, 1974, 274: 1-2).
- Alfabetatzea: “erriz erri” atalean “Markina” idatzia (“Irukote”, 1970, 182: 2), “Euskal alfabetatze zertarako?” (Joxe M. Odriozola, 1973, 262: 4).
- “Euskal heziketa” delakoaz: “Euskal azokak zertarako?” (egile ezezaguna, 1966, 136: 1, 3), “Andereñoak mito?” (Jose Antonio Aranburu, 1970, 187: 6), “Alfabetatzearen urratsak” (Luis Haranburu-Altuna, 1972, 227: 3).

⁸⁴⁵ “Terrorismoa saihesteko agorrilaren 26ko 10/1975 Lege Dekretuak bi urtez utzi zituen bertan beheiti gehieneko atxiloaldiari buruzko eta bizilekuaren bortxaezintasunerako bermeak. Apirilaren hondarretik Gipuzkoan eta Bizkaian bizi zen salbuespen-egoera Estatuko herrialde orotara zabaltzea erran nahi zuen horrek” (Escribano eta Casanellas 2012: 23); Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz eginiko “1960tik 2013ra bitarte euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketak egiaztatzeko” txostenean, “2.3. Jurisdikzio militarra, auzitegi bereziak eta eskubide zibilen urraketa” atalean jasoa (2013).

- **Anaitasuna. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (bigarren zehaztea)**
 - Jugoslaviari buruz: “Yugoslavia: Tito? Diktadura bat” (Joxe Azurmendi, 1970, 190: 3) eta “Yugoslaviako Alderdi Komunista” (Azurmendi, 1970, 191: 3).
 - Irlandari buruz: “Irlanda” (Abel Muniategi, 1970, 195: 9).
 - Italiari buruz: Italiako erregionalismoari buruz “Italia: eskualdeen autonomia” (Kintana, 1970, 191: 3).
 - Vietnami buruz: “Herri zentsura” (Ainhoa, 1972, 234: 10).
 - Koreari buruz: “Gaurko Korea” (Jose Manuel Uriagereka, 1968, 165: 9).
 - Frantziari buruz: “ ‘Le réveil de la France’ . *Jean Jacques Servan Scheiber*” (Angel Ugarteburu, 1969, 175: 8).

- **Anaitasuna. Erresistentzia Kulturalaren adibide zenbait (hirugarren zehaztea)**
 - Haritzaren hostoaren irudia (1965, 127: 3).
 - Haritzaren itzalpean haziriko komunitatea: “Aretx zaarraren gerizpean erne ta azitako landarak gara” (Zabale, “Bide Barrietatik”, 1967, 143: 1).
 - Abestien iruditeria: “Bittor egurrolarekin Alkar Izketan” artikuluan, Gereñok kantariari bere abestirik txalotuenei buruz galdetzen diolarik, “Nire eskaria”, “Andereñoa” eta “Gernika” aipatzen ditu (1969, 172: 6).

B.4. Forma eta baliabide sinbolikoak: ondarearen moldatzea

4.1.2., a.2.1. Forma sinbolikoen irakurketa zehatzak

Gabriel Aresti: “Nire aitaren etxea”⁸⁴⁶

Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,

⁸⁴⁶ Susaren argitalpena izan dugu iturri (*Harri eta Herri* 2000 [1964]: 47).

pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkirate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkirate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.

Artze eta Laboa: “Txoria txori”⁸⁴⁷

hegoak moztu banizkion
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.

bainan,
 honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik...
 txoria nuen maite.

⁸⁴⁷ *Bat-hirutik* harturiko erreferentzia.

4.1.3., b.1.1. Deskribapen nagusia (*Anaitasuna*)⁸⁴⁸

1960

- “Neska mutillak alkarregaz berbetan” (68: 7; 69: 3; 70: 1960-02).
- Bertsoei eskainitako atala (68: 8; 69: 8; 70[1]: 1960-02; 70[2]: 1960-04; 71: 5-8).
- “Cuba” (72; 4-5; 73: 7-8), “Kubako barriak” (74: 6-7).
- “Munduan zear” (70[2]: 1960-04; 72: 7).
- “Dakar aldetik” (70[1]: 1960-02; 70[2]: 1960-04).

1961

- Imanol Berriatuaren “Dakar aldetik” (77: 4-5).
- “Atzera begira” (75: 5-6).
- “or, an, emen” (78: 6; 79: 8; 80: 8; 81: 8; 82: 7; 83: 7; 85: 7).
- Kubatik berriak ekartzen zituen Antonio Zubizarretaren atala (77: 7).
- “Ba dakizu” / “Jakin ba...” (79: 2; 83: 4).
- “Gertatutakoak” / “Gertakerak” (83: 8).

1962

- “or, an, emen” (87[1]: 1962-02; 87[2]: 1962-03; 90: 6; 91: 4; 92: 8; 93: 8; 94: 8).
- “Buruko-miñak kentzeko” (95: 8; 96: 7).
- Bertsoei eskainiriko atala (86: 3-4; 95: 7).
- Aita Imanolen “Bizkaiko itsasotik” (95: 4-5); “Bartzelonatik” (96: 4-5).
- “Emakumeentzat” (88: 6-7) eta “Emakumearentzat eta... Gizonentzat!” (89: 3).
- “Euzkerearen alde” (88: 8; 89: 4-5).
- “Gaurko gaztedia” (90: 2; 91: 3).

1963

- Baserriari eskainiriko atalak (100: 2; 101: 6; 107: 7-8).
- Elizaz: “Eleizaren abotsa” (98: 8; 99: 8); “Eliza ama santaren abotsa” (100: 8); “Erlijiñua eta formaziñua” (100: 3).
- Arrantza/Arrantzaleei eskainiriko atalak (102: 2-8; 107: 4-6).
- Gaztediari buruzko atalak (99: 1; 101: 1-2).
- Imanol Berriatua zenbaki bakarrean ageri da parte-hartzaile gisa; Mendebaldeko Afrikari buruzko monografikoan, hain zuzen (102. zk.).
- Ezkontzari buruzkoak (106: 2; 107: 3).

⁸⁴⁸ Erreferentzia guziak, “zenbakia: orrialdea”; sarreran erran gisa, orrialdearen erreferentziarik ez dugunean, salbu.

1964

- Seme-alabei buruzkoak (117: 7).
- Ezkontzari, ezkon biziari, buruzkoak (118: 7).
- Baserritarrei buruzkoak (114: 7; 116: 6-7).
- Lanari buruzkoak (112: 8).
- Maitasunari buruzkoak (112: 2).
- Gazteendako (115: 2-3; 120: 6-7).
- “Sierra Leonatik” (110: 5-6; 111: 2-5); Imanol Berriatuak idatziak (112: 2-5).
- Gizona eta...: “Gizona eta bierra” (112: 8) “Pobretasuna ta gizona” (114: 1-2).

1965

- Herri-kirolei eskainiriko atala (126: 8).
- “Euskalerriko ipuiñak” (126: 7; 127: 7; 128: 3; 129: 6; 130: 7).
- “Zuek eta gu” (124: 2-3; 125: 2; 126: 2).
- Bizkaiko geografian zeharreko lurraldeei buruzko informazioa (124: 7).
- Seme-alabendako, edo horiei buruz (125: 4-5; 126: 3).
- “Anai arteko txokoa” (127: 2; 128: 2).

4.1.3., b.1.1. Garapen nagusia (*Anaitasuna*)

• Sormenezko literaturara, nolabait, atxikiak ziren pertsonen idazlanak

Jose Luis Álvarez Enparantza: “Xabier Kintanaren azken liburuaz” (1971, 222: 10-11), “Bi jakintsuren aitorrak” (1972, 234: 6-7), “Garaudyren ‘L’Alternative’. Aitor eta agiri” (1972, 241: 12), “Arraza eta etnia” (1972, 242: 7), “Aiteder preziatu miretsiak ‘Harki’ en buruzagiari” (1973, 252: 16), “Depresinoen azterketaren ondorioak” (1973, 154: 16), “Mitxelena eta Larresoro” (1973, 289: Txillardegik, 9. orrialdean), “ANAITASUNA lekuko” (1975, 301: 16-17) eta “Larresororekin hizketan (elkarrizketatzaile ezezaguna, 1971, 213: 8) nahiz “Larresororen tesiak” (Haranburu-Altuna, “Mitologiak” atala, 1972, 245: 8-9).

Gabriel Aresti: “José de Arteche: El abrazo de los muertos. Itxaropena” (1970, 198: 9), “Munstro bat, bi munstro”⁸⁴⁹ (1970, 199: 12) –“Euskal poesiaren erakusketa” atala hasi zuen, 1971an–, “Etxeberri Ziburukoa: Noelak” (1971, 206: 12), “Euskaldunaren

⁸⁴⁹ Horri buruz, Mikel Arregiren “Arestiar delakoaren munstroak direla ta” (1970: 201: 14).

espillu” (1971, 217: 1, 6), “Nork dio gezurra?” (1971, 218: 7), “Badaezpadakoak eta seguruak” (1971, 219: 9), “Guti eta gaizki dakigunok” (1971, 219: 16), “Baina ez apirilik...” olerkia (1971, 225: 9), “Euskal teatro zaharrak San Antongo elizan” (1972, 226: 8), “Mugak. Trapaga-ko haranean” olerkia (1972, 234: 14), “Eror-jaikika” olerkia (1972, 238: 11), “Euskaldunaren hazia” olerkia (1972, 239: 14), “Ateak nola?” (1973: 254: 4) polemikoa, “Peru Abarka-ren alienazioa” (1973, 255: 10), “Guztiok dakigu erdaraz; inor ez da idiota” (1973, 264: 10) eta “Malgizon Arestiar” ezizenez argitaraturiko “Euskal asto-lasterrak” (1972, 235: 16; 236: 16; 238: 16) atalean ere argitaratu zituen hainbat idatzi.

- **Atalkako antolaketa**

“**Bi aste honetako liburuak**” atala (1970)

- Lehen aldiz, “Bi aste honetako liburua. Larresoro: SUSTRAI BILA: Irakur Sail” gisa izendatua (Aresti, “Jakín eta ekin” atala, 1970, 194: 6).
- “Joan Mirande: HAUR BESOETAKOA. Lur” (“Arestiar”, 1970, 195: 10).
- “José de Arteche: El abrazo de los muertos. Itxaropena” (“Arestiar”, 1970, 198: 9).

“**Liburuak**”⁸⁵⁰ atala (1971-1972 bitartean eta 249. zenbakian, 1973an)

- “«Eusko Bibliographia». Jon Bilbao irakaslearen obra erraldoia” (Gergorio Etaioke [Gregorio Monreal], 1971, 208: 11).
- “Durangoko liburu azokan” (Gereño, 1971, 222: 6-7).
- “‘Kaniko eta Belxitina’. Liburu berria” (Josu Torre, 1971, 222: 7).
- “‘Historia social de la literatura y el arte’. Arnold Hauser-en liburua” (Angel Zelaieta, 1971, 222: 9).
- “Bai mundu berria” (Xabier Amuriza, 1971, 225: 13, Amurizak eginiko hitzaurrearen laburpena).
- “‘Langileria historian zehar’. Liburu interesgarri bat” (Hormaetxe, 1972, 229: 12).
- “‘Arrasate eta bere etorkizuna’ ” (I. Arrigorri, 1972, 241: 6-7).
- “Ukroniaren inguruan. Xabier Kintanarekin elkar hizketa” (Gereño, 1972, 241: 8-10).
- “Lur editoriala” (Torre, 1973, 249: 9).

⁸⁵⁰ 225. zenbakian salbu (1971); orduan, “Liburua”.

“Literatura” atala (1971, 204. zenbakitik aitzina eta 1972an zehar)

- “Pundu batzuk argitzen. Gipuzkoaren ekonomia eta XVIII. Mendeko literatura” (San Martin, 1971, 219: 8-9).
- “Gabriel Arestiren Harriak (Lehen Parte)” (Haranburu-Altuna, 1971, 221: 8-9).
- “Satarka olerkariaren heriotzean” (San Martin, 1971, 225: 10).
- “Ibon Sarasolarekin” (Haranburu-Altuna, 1972, 226: 10-11).

“Literatura eta gizartea historian” atala (1972)

- “Grezia. Hasierak eta Homeroren haroa (1)” (Ibon Sarasola, 1972, 233: 4).
- “Grezia, hasierak eta Homeroren haroa (2)” (Sarasola, 1972, 234: 13).
- “Lirika arkaikoa” (Sarasola, 1972, 235: 13).
- “Grezia, demokrazia eta trajedia (1)” (Sarasola, 1972, 236: 13).
- “Demokrazia eta trajedia (2)” (Sarasola, 1972, 237: 10).
- “Haro helenistikoa” (Sarasola, 1972, 238: 14).
- “Poema epikoa” (Sarasola, 1972, 241: 13).

“Kritika” atala (1971-1973⁸⁵¹)

- 206. zenbakian “Etxeberri Ziburukoa: Noelak” idatzia “Liburu-kritika” sailpean agertu zen (“Arestiar”, 1971, 12. or.).
- “Xabier Kintanaren azken liburuaz” (“Larresoro”, 1971, 222: 10-11).
- “Gabriel Arestiren Harriak. (Bigarren parte)” (Haranburu-Altuna, 1971, 223: 6)
- “Bai mundu berria (lehen parte)” (Haranburu-Altuna, 1972, 235: 10).
- “Bai mundu berria (bigarren parte)” (Haranburu-Altuna, 1972, 236: 10).
- “X. Kintanaren ‘Behin batean’ ” (San Martin, 1972, 238: 7).

4.1.3., b.1.2. Deskribapen nagusia (*Zeruko Argia*)

- **“Nire bordatxotik” atalaren erreferentzia eta edukien laburpena (1963)**

Irratiaz (1963, 6: 5)⁸⁵², aizkoraz (8: 5; Keixetaz, 35: 7; pelotariez (9: 5); harri-jasotzeaz (1963, 6: 5; 10: 5); historia kontuez (11: 5); jaialdiez (11: 5); euskaltasunaz (“Erri bai da” ezizenez, 13: 5; “Danetik nastean” azpizenburua, 27: 5; 39: 6; “Asiera latzak” azpizenburua, 43: 8); erlijio munduko kontuez (16: 5; 18: 5; 25: 5; 26: 5); zirku eta idi-probak non kokatu beharraz (16: 5); Villasante, Larramendi eta Añibarroz (16:

⁸⁵¹ 1973an pare bat aldiz agertzen bada ere, ez dute tesiko laugarren ataleko aztergaiarekin zerikusirik; hori dela eta, ez horiek, ezta 1971-1972 bitartean agertu, eta gure lanerako garrantzitsu ez diren idatzien erreferentziak ere ez ditugu bildu.

⁸⁵² Gehienak izenbururik gabekoak izanik, izenburudunak bakarrik markatu ditugu.

5); euskal herrietan barnako albisteez (17: 5; eguraldiaz 25: 5 eta 26: 5; “Danetik nasian” azpizenburua, 31: 5; 38: 6); baserriaren etorkizunaz (17: 5; 41: 6); atalak behar lukeen norabideaz (“Apat-Etxebarne”ri erantzunaz, 13: 5); aldizkariaren ezagupena zabaldu beharraz (13: 5; 38: 6); immigrazioaz (24: 5); euskara kontuez (25: 5; 19: 5; “Euskera nola erabili” azpizenburua, 37: 6, 7; “Asiera latzak” azpizenburua, 43: 8); estropadez (26: 5); heriotzez (S. Altuberenaz 19: 5); munduan zeharreko txoritxarrez (Otañoren bertsoen gaurkotasuna solasgai harturik, “Danetik nasian” azpizenburua, 30: 5; 41: 6); euskal aldizkarietz (“Danetik nasian” azpizenburua, 31: 5); korrikalariei buruz (“Arruiz eta Aldaz” azpizenburua, 35: 7); idi-probez (41: 6); bakarzaletasunaz, zaletasunez eta bakardadeaz (“Bakarzaleak” azpizenburua, 41: 6); *Celestina* lanaz (“Danetik nasian” azpizenburua, 44: 6); euskal idazleez (“Danetik nasian” azpizenburua, 44: 6).

- **“Nazio-arteko unea” atalaren erreferentziak (1964)**

Rikardo Arregirenak

“Urte au sozialismoaren urtea izan diteke” (45: 5), “Palestina’ri buruz” (46: 5), “Panama ta Ipar-Ameriketa” (47: 5), “Pakea Kurdistan’en?” (48: 5), “De Gaulle dala ta” (49: 5), “Marxista pentsamentuaren astea” (50: 5), “Chypre buru-auste” (51: 5), “Somalia ta Etiopia armetan” (52: 5), “Munduz mundu” (53: 5), “Europa, kristautasuna demokrazia” (54: 5), “ONU’ren eginbearra Txipre’n” (56: 6), “Frantzia’n kontseillerrak izendatzeko izan diran eleksioak” (57: 5), “Cuba ta Algeria: bi joera. Zergatik?” (58: 5), “Brasil: Munduan nazio katolikuena” (59: 5), “Deabruak Moscu’tik iges egin du” (60: 5), “Kennedy’re pentsamentuaren eriotza” (61: 5), “Paperik eza” (62: 5), “Eleksio-aurrean” (63: 5), “Siria’ko agintariak” (65: 5), “Viet-nam’go negarra” (66: 5), “Nehru” (67: 5), “Krushev’en itzaldi bat” (70: 5), “Kongo berriro bakarrik” (72: 5), “Itali’ko sozialisten zalantzak” (73: 5), “Sozialistak eta Kristau demokratak” (74: 5), “C. F. T. C. Dala ta” (75: 5), “De Gaulle’n esanak” (76: 5), “Errusi’rentzat une txarra” (77: 5), “Gaurko gaztedi berria” (78: 5), “Togliatti’re eriotza” (79: 5), “Viet-nam berriro” (80: 6), “Erreboluzioa libertadearen barruan” (81: 5), “Afghanistan’en aize berriak” (82: 5), “Erreino Batutako eleksioak” (83: 5), “Canada’ko frantzesak eta Isabel II’gna.” (85: 5), “Ondo bizitzea ta politika” (86: 5), “Krushev, Wilson eta Mao” (87: 5), “Europa berriro” (88: 5), “Gaurko munduaren bizigunea” (89: 5) eta “Europa bere lekuaren billa” (96: 5).

Rikardo Arregik sinatu ez zituenak, atal berean

“Zertan geldituko ote dira...” hasiera duen artikulua (A.E., izenbururik gabe, 90: 5), “Danetik nasian” (A.T., 91: 5)⁸⁵³, “ ‘Langilleen mundua ez da...” (Mikel Lasa, izenbururik gabe, 92: 5), “Libra sterlina’ren gora-berak” (M. Lasa, 93: 5) eta “Sal - neurrien eta salarioen arteko karreraren kondizioak” (M. Lasa, 95: 5).

68., 71. eta 84. zenbakietan ez zen atala agertu.

- **“Ikusketa” atalaren erreferentziak (1964)**

Denak Tolaretxipirenak: (“Zartako” [Xabier Tolaretxipi], 4: 6)⁸⁵⁴, (7: 6), (8: 6), (10: 6), (11: 6), (12: 6), (13: 6), (14: 6), (15: 6), (16: 6), (17: 6), (18: 6), (20: 4), (21: 4), (22: 4), (23: 4), (24: 4), (25: 4), (26: 4), (27: 4), (28: 4), (30: 4), (38: 6), (39: 6), eta (40: 6).

- **Antzerkiari buruzko idatziak, kokagune askean (1964)**⁸⁵⁵

“Euskal antzerki taldeen izen ta zuzenbideak” (egile ezezaguna, “Alkar-izketa” atala, 45: 4), “Teatroa, pozgarri ala gogaikarri...?” (“Ibalan” [Antonio Maria Labayen Toledo], 45: 8), “Euskarazko antzerkia” (“Ibalan”, 46: 8), “Euskal teatroa Bilbon” (egile ezezaguna, 48: 1), “Gillen Tell, suizarren epopeya nagusia” (San Martin, 49: 8), “Euskal antzerkia Mungian” (“Ipar-zale”, 50: 1), “Euskal Antzerki taldeai deya” (Gereño, 51: 4), “Euskal teatro taldeak bizi dira” (egile ezezaguna, 57: 1), “Iru-alaba” (“Ibalan”, “Euskal - teatroa” atala, 59: 4), “Euskal teatro taldeen lanak” (“E’tar N.” sinadurapean, “Elkar-izketa” atala, 60: 4), “Teatro Taldeak Lanean” (Beobide, “Ikusmirak. Eguneroko gaiez” atala, 62: 6), “Teatro-Saioa Donostian aste ontan” (Tolaretxipi, “Elkar-izketa” atala, 63: 4), “Euskal Teatroa Donostian” (Tolaretxipi, “Elkar-izketa” atala, 65: 4), “Euskal-antzerki idazleak” (“Amillaitz” [Nemesio Etxaniz], 66: 1), “Teatro talde lanak” (Beobide, 67: 1), “Datorren urteko San Jose eguna euskal antzerki eguna aukeratua” (egile ezezaguna, 71: 1), “Nire tanbutxutik zelataka” (A. Zubikarai, “Teatro gaiak” atala, 71: 6), “Euskal - Teatro zaleen Batasuna” (“Ibalan”, 72: 7), “Antzerki idazleak eta itzultzaileak” (Lukax, 76. zenbakia jarria den arren, gaizki zenbatua, 77.a da: 3), “Labayen jaunak, gure galderari erantzuten dio” (egile ezezaguna, 77. zenbakia dela

⁸⁵³ Kasu honetan, idatzia “Nazio artako-unea” izenburupean agertu zen.

⁸⁵⁴ Denak dira izenburu nagusirik gabeak.

⁸⁵⁵ Atal batean espresuki txertatuak diren idatzietan, erreferentzia hori ere jarri dugu.

jarri arren, 78.a da: 4) eta “«Zurgin zaharra» Antzerkia SantoTomas’etan” (Tolaretxipi, 95: 8).

• **“Gazte naiz” agertu bitarteko “Nazio-arteko unea” atalaren erreferentziak (1965)**

“Urte berri” (Rikardo Arregi, 97: 5), “Italia’n lendakari berria” (Arregi, 98: 5), “Kapitalismo berria salatzen” (egile ezezaguna, 99: 5), “Yugoslavia’ko parlamentuak 1965’go planari ezezkoa eman dio” (egile ezezaguna, 100: 5), “*Kennedy ta Johnson*” (egile ezezaguna, 101: 5), “Nazio Batuen (U. N. O.) etorkizuna” (egile ezezaguna, 102: 5), “Laboristak arrazoi dute” (egile ezezaguna, 103: 5), “Egiari bildurra” (egile ezezaguna, 104: 5), “Europaren ixiltasuna” (M. Lasa, 105: 5), “‘Pacem in Terris’ New York’en” (“Philippe Arizkun” [Jose Manuel Toledo], 106: 5), “Turkin gobernu berria” (Arregi, 107: 5), “Uste dugu...” (aunitzen artean, 108: 5), “Zentrismoa” (“Philippe Arizkun”, 108. zenbakia jartzen duen arren, 109.a da: 5), “Frantzia’ko elezioak” (M. Lasa, 110: 5), “Marxistekin Alkarrizketa Bide Berriak Askorentzat” (“Philippe Arizkun”, 111: 5), “Eire’ko elezioak” (Arregi, 112: 5), “Irugarren munduari laguntza” (“Philippe Arizkun”, 114: 5), “Mesianismo berria politikan” (M. Lasa, 115: 5), “Erriaren agintea” (Arregi, 116: 5), “Alemania, Israel ta arabeak” (“Imanol Larrea” [Jose Manuel Toledo], 117: 5), “Defferre’n deia” (Arregi, 118: 5) eta “Frei’ren esanak” (Arregi, 119: 5).

• **“Gazte naiz” agertu bitarteko “Antzerki Txokoa” atalaren erreferentziak (1965)**

“Istoria triste bat Ondarruan txapeldun” (Iñaki Beobide, 97: 8), “Z. Argia, gure asterokoa [...]”⁸⁵⁶ (Beobide, izenbururik gabe, 100: 12), “Tolosa, orra or [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 102: 8), “Larzabal adiskideak, [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 104: 7), “Aurretioko «txokoan» [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 106: 10), “Ondarrutarrak beti bezala” (Beobide, izenbururik gabe, 108: 7), “San Martingo [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 111: 8), “Euskal Antzerki Bazkuna Donostian” (Beobide, 113: 7), “Txalogarria da benetan [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 115: 8), “Ordiziako gazteak [...]” (Beobide, izenbururik gabe, 117: 3), “Kepa Sarriegik bere bidetik [...]” (“Jarraiko Beobide” [Iñaki Beobide], izenbururik gabe, 119: 7).

⁸⁵⁶ Izenbururik gabeak direnetan, hasierako hitzak jarri ditugu, erreferentzia gisa.

4.1.3.c. Zentsuraren islak

Bi adibide multzo bildu ditugu, Torrealdairen *Artaziak: Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983* (2000) liburutik: 60ko hamarkadaren bigarren erdian egiten ziren “txosten soziopolitiko”etako informazioa, eta hainbat libururi buruz agertuak. Horietan biltzen zen edukiaz gain, txosten eta balorazio horien existentzia bera da zentzura erakusle.

Gabriel Arestiz:

GABRIEL ARESTI SEGUOLA, 1968:

...es persona de buena conducta en todos los aspectos. Políticamente, se le considera INDIFERENTE a los principios fundamentales del Movimiento, Le sorprendió el Alzamiento Nacional en esta capital, y debido a su corta edad, no tuvo participación alguna, careciendo actualmente de actuación política. (DGS. Bilboko poliziburu nagusia, 1986-11-26) (*In Torrealdai 2000*: 138)

Baina, *Harri eta Herri* liburuaz:

POESIA. Escrito en un estilo surrealista y simbólico, todo el libro es canto de rebeldía política e inconformismo de la situación del país vasco. Estese encuentra en terrible opresión y solo encuentra la palabra como arma de rebelión. Recuerda que Navarra, las provincias vascofrancesas son también vascas y deben unirse... hace referencias despectivas al jefe de Estado y en forma velada, llamándole Fran Fran y Sanfrancisquito. Hace uso irreverente de Jesucristo. Elogia al comunismo. No hay una página limpia de toda demagogia e irrespetuosidad. NO PUEDE AUTORIZARSE. (Antonio Albizu zentsorearen hitzak, *in ibid.*: 155)

JosAnton Artzeren lanez:

Libretos de poesía:

LAINO GUZTIEN AZPITIK ETA SASI GUZTIEN GAINETIK

Ambas están compuestas en un vascuence defícilísimo de entender. Los sentimientos expresados en ellos rezuman resentimiento y rencor y tratan de fomentar un enfermizo y rencoroso amor al país vasco. Es de notar que jamás se pronuncia la vieja y gloriosa palabra Euskal Erria ni tampoco la subversiva de Euzkadi. Esto es evidente: aquella es la que encarna las antiguas glorias vascas y españolas, cuyo recuerdo se trata por todos los medios de hacer olvidar. En cuanto a la palabra Euzkadi, el autor desearía, indudablemente, citarla, pero no lo hace por las consecuencias que ello le podrían acarrear. (Ustez, Antonio Albizuren irakurketa betatetiko zatiak) (*In ibid.*: 190)

En un vascuence de difícil comprensión [Laino guztien azpitik dela eta], e incluso trastocándose de manera deliberada los términos, el autor recopila una serie de composiciones más o menos poéticas, de corte modernista, a través de las cuales intenta realizar un canto de protesta contra la falta de autonomía y libertad de las instituciones del país vasco. [...]

Además de arremeter contra el Poder Central, origen de todos los males del pueblo vasco, el autor se concreta en el problema de Navarra, pérdida, según él, para los vascos de manera injusta y rompiendo la legítima independencia de los mismos. Por nuestra cuenta advertimos que esta pérdida de la que se lamenta el autor no se perfila en lo que refiere al idioma vasco, por lo que la implicación política es clara y terminante. Todo el contenido es, a nuestro parecer, claramente delictivo. Por ello estimamos que el presente depósito no debe ser aceptado, [...] (Antonio Albizuk

eginiko irakurketaren ondotikoa, Servicio de Lectorado de ordenación Editorial delakoak) (*in ibid.*: 191-192)

OBRA DE PROTESTA [*Eta sasi guztiengainetik*] contra el orden social establecido a quien considera como un medio para tener a la gente alienada [...]

Otro punto importante de la crítica que hace de los españoles inmigrados en el país vasco. Da a entender como si hubiera sido una política estudiada por el gobierno central para romper la armonía y crear enemistad y la división. Los califica de PESTE y GUSANOS.

Considero como obra que atenta a los principios fundamentales del Reino por lo que NO DEBE ACETARSE EL DEPÓSITO. (*In ibid.*: 192-193)

Ramon Saizarbitoriaz:

RAMON SAIZARBITORIA ZABALETA, 1969:

...De familia nacionalista, el informado está considerado como enemigo acérrimo del Régimen, encuadrado en Eta-Berri y en el Frente de Liberación Nacional (sic); asiste a la manifestación separatista en esta Ciudad el 16-1-66. El círculo de amistades en el que normalmente de mueve es de su misma filiación política y aunque no se le conocen hechos concretos, se le supone elemento muy activo. (Donostiako Polizia Komisaldegia, 1969-12-12) (*In ibid.*: 139)

100 metro liburuaz:

Dos son pues las características que se deducen del libro: crítica ofensiva e inaceptable hacia el Gobierno y su actuación en el País Vasco; ofensas hacia la Policía y Fuerzas del Orden Público y velado espíritu separatista en contradicción con nuestra normativa Jurídica. Utilizando un sentido peyorativo y despectivo, cada vez que se hace hablar a los Policías, el autor utiliza el castellano para marcar aún más a diferencia entre Vasconia y el resto de España.

Por todo lo anterior estimamos que el presente depósito no debe ser aceptado por presumible existencia de figura delictiva [...] (*in ibid.*: 232)

B.5. Testuingurua (1975-1990)

Lege edo dekretuak

- **1975etik aitzina, euskararen garapenari loturikoak**

Administrazio orokorraren alorrean:⁸⁵⁷

6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 6. idazpurua, hizkuntza normalkuntza arautzen duena.

86/1997 Dekretua, administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

⁸⁵⁷ Alor guzietan dagozkien legeen laburpena, *ehusfera* webgunean (Erlantz Agirre).

64/2008 DEKRETUA, apirilaren 8koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzea.

48/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze Dekretua aldatzen duena.

83/2010 Dekretua, martxoaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen akordioa onartzea.

Hezkuntzaren alorrean:

138/1983 Dekretua, irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen erabilera arautzea.

1983ko abuztuaren 1eko agindua, 138/1983 Dekretua garatzea.

1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena.

8/1997 Legea, Euskadiko antolamendu sanitarioarena.

Justizia arloan:

174/2010 DEKRETUA, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioeko hizkuntza normalkuntzari buruzkoa.

Ertzaintzan:

0/1998 Dekretua, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena.

Osasun arloan:

175/1989 Dekretua, Osakidetzako gaixoen eta erabiltzaileen eskubideen eta obligazioen karta onartzen duena.

8/1997 Legea, Euskadiko antolamendu sanitarioarena.

0/1998 Dekretua, Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duena.

67/2003 Dekretua, euskararen erabilera osasun zerbitzuan normalizatzeko.

Gizarte zerbitzuen alorrean:

14/1983 Foru Legea, gizarte zerbitzuei buruzkoa.

5/1996 Legea, gizarte zerbitzuen.

Kontsumoaren arloan:

6/2003 Legea, abenduaren 22koa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena.

123/2008 Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa.

Enpresa pribatuen arloan:

50/1980 Legea, aseguru kontratuei buruzkoa.

1/1995eko Legegintzako Errege Dekretua.

128/1996 Dekretua, landa-inguruneko turismo ostatuak arautzeko dena.

1334/1999 Errege Dekretua, elikagaien etiketatzea, aurkezpena eta publizitatearen ingurukoa.

6/2003 Legea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena.

60 /2003 Legea, arbitrajeko zerbitzuei buruzkoa.

B.7. Forma eta baliabide sinbolikoak: ondarearen erakundetzea

Foku berari dagozkion helburu berdinak

1) Munduarekiko eta Euskal Herriarekiko desadostasuna, deserrotzea

“Eremua planeta osora hedatu da, Lur guztia ‘Waste Land’ bat bilakatu ere.” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xeblez...”, *Pott 4*)

“Kalea ia ezin dugu buruta, soportatu.” (“Kazetatxoak”, *Pott 5*)

“Euskadi Ofizialarekiko disidentzia gogorrean arkitzen gara. [...] ba daude [...] dozenaka gauza bereizgarri gu eta gure bidaiakideren artean (bidaiakide espazioan eta denboran, eta seguru asko horretan bakarrik).” (“Hain da triste la vie de l’artiste (I)”, *Pott 6*)

“propio bereizten dugu EH mundutik, EH infernua baita” (*loc. cit.*).

“Ez dago inon Euskadi bezalako zoorik” (*loc. cit.*).

2) Euskal kulturaren ikuspegi ezkorra

Kritika:

“Gure kritika, kritika arbitrario bat da, mafia (eta ez magia) arazo bat. Balore literarioak bost axola, ideologia edo arrazoi taktikoak edo elkarrekin egindako bazkariko autobonboak”, “hemengo kritikoei zipitzik ere ez zaiela inporta literatura”, “Politikan sozialdemokrata ez diren asko ere, fronte planteamenduz ornitzen dute bere plangintza kulturala. Populistak hemen ere. [...] Denok anaiak gara, euskaraz izkribatzen den oro ona da, ondo dago. Aski da. Kultura nazionala egin, jaso edo indartu egin behar da. Baina jasotzeko moduan dagoke bitxitasuna, eta desberdintasuna. Esate baterako,

ofizialak ez dute kaosik nahi: literaturan, kasu, plangintza bat eskatzen dute” (“Poema liburu batetarako hitzaurregai bat”, *Pott 1*).

“Noizbehinkako kritika, beraz, kukutik kukurakoa, eta panoramikoa gainera. [...] kritikak beti gauza berberak errepikatzen ditu behin eta berriro no nos moveran, no nos moveran junto a Euskaltzaindiaen la Erribera, bai euskarari, bira Villasante” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xelebrez...”, *Pott 4*).

“Gure kritikaz ari nintzen, eta leheneno eta behin deklaratu nahi dut ez dagoela zerupean hori bezalako harririk.” (*Loc. cit.*)

“kritikoak ez lukete itxadon behar liburu baten plazaratzea muturra sartzeko. Ba daude, literaturaren ingurumarian, luma zorrotzen beharrean arkitzen diren makina bat arazo. Eta noski, erderaz irakurtzen baldin badakite behinipin, beste hizkuntzetan idatzitako liburuak aztertzen ere saiatu behar lirateke.” (“Hain da triste la vie de l’artiste (II)”, *Pott 6*)

Kritikan, aldaketa:

“ERREBISTA BERRIAK kaleratzen doazen heinean ugalduz doa kritika literarioari eskaini orrialdeen kopurua, ugalduz batez ere euskarazko testuetaz taxututakoak, eta etorri ere, seriotasunez kutsaturik datoz.

Oraingo arte egiten ziren kritiketan (bueno, oraintxe bertan ere segitzen dira egiten) ‘gustatzearen’ arauaz ematen zitzaion balorea obra literarioari” (*loc. cit.*).

Baina ez dira ez antzinako kritikaren alde, ezta ordukoaren jarraitzaile ere:

“Errazena dirudien kritika, beraz, gaxena bihurtzen da. Gusto literarioa ez da egun batetik bestera lortzen (euskal editorialeko kontseilari literario batek duela gutxi aitortzen zigun ‘oso gutxi irakurri ziot baina Borges ez zaidak gustatzen’, joder, kagatzen naiz a peladillo).

Oraingo belaunaldiak, berriz, beste puntara joan dira, eta zientifikotasun baten bitartez ezinezko xede bat lortu (edo aditzera eman con moito disimulo) nahi dute: neutraltasuna. Baina neutraltasuna ez da tapaki bat baizik, hala literaturan nola beste arlo askotan, eta absurdoa da.” (*Loc. cit.*)

Egunkariak:

“Egin kriteriorik gabeko egunkaria dugu” (“Kazetatxoak”, *Pott 2*).

“Literaturaren egoera argitzea lortuko bagenu, berau gertatzen den gizarte konkretuarena ere ezagutzea ez litzateke harrigarri, eta exenplurako, euskal prentsaren

pobrezia aztertzea Euskal Herriaren pobrezia irrepaso bat ematea litzateke, ez baita harena honenaren ispilu dina bat baizik” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xeblez...”, *Pott 4*).

Euskal(literatur)gintza:

“Justiziarik ez da inon, dagoena arbitrarioa da. Literaturaren plazan, halaber” (“Poema liburu batetarako hitzaurregai bat”, *Pott 1*).

“Euskaltzaindia ez da gure gai maitatuena, baina halabeharrez heldu zaigun gutuna transkribitu beharra daukagu. Gutun honetan, ikusiko duzuen bezala, erakunde beneragarriaren matxismoa” (“Kazetatxoak”, *Pott 4*).

Irakasleen kontra, euskal literaturaren aztertzaileei buruz ari delarik:

“euskal literaturaren irakasleak are eta ukazio haundiagoa egiten diote problemari” (“Hain da triste la vie de l’artiste (II)”, *Pott 6*).

“Batzuk, serioenak, euskarazkora mugatu arren, dauden idazle klasiko bakanak nola idatzi zuten aztertzen eta erakusten dute. [...] Beste batzuk, nahiko serioak, literatura hitza zentzu hertsian hartu gabe, bertsolaritza eta beste zenbait espresabide tradizional argitzen saiatu dira, Lekuonak bezala, eta lehengoan pareko izan da hoiien laguntza ere.” (*Loc. cit.*)

“beste gehienak aberrazioara jo dute zuzen zuzenean. Hasi dira, no te jode, azken urte hauetan ernetzen eta bere lehen (lehen, lehen, lehen, nobato, nobato) lanak argitaratzen ari diren autoreak klasetarako gai hartzen.” (*Loc. cit.*)

3) Literaturaren autonomiaren aldarrikapena

“Tamalez, Euskal Herrian munstro bizefalo espezie bat proliferatzen da: politikari-eskritea, hau da, bere presupostu politikoak hedatzeko asmoz Literaturari dedikatzen zaion plazagizona. Nahiz eta haren biotopoz-a eskualde menditsu hau baino askozaz zabalagoa izan, hemengoak oso ilaia monokolare bat presentatzen du: nazionalismo sozialista deskafeinatu bat politikan Etnolinguismo marxistizatu bat filosofian, eta literaturari dagokionez, berdin zaio nobela existenziala edo teatro sozial-patritikoa, zeren literaturgintzari ematen dion funtzioa zera baita: euskararen omnipotenziaren fede ematea, artzain dialekto multzo ilun bat zibilizazio hiperindustrial baten espresabide ahalguztiduna bihur daitekeela frogatzea...” (“Itzulpena eta traizioaren praktika”, *Pott 3*).

“gaurko euskal ezkertiarrek nola ametituko dute, bada, gure herria Maria Goretti baino mezatiago izan dela, eta dela oraindik ere?” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xeblez...”, *Pott 4*).

“Hasieran esan dudanez, platonismo hau (euskal ezpiritu hori zer da-bada bestela, platonikoa ezik?) gizartearen ispilu da, eta zehatzago esatearren, gizartearen hiperpolitizazioaren ondorio, honen aplikazio mekaniko bat. Mimesi hau Arestiren garaikoak bezain baldarrak ez ba dira ere jeneralean [...] eta gaur Don Quijote espainola delako ez irakurri nahi izatea oso joera normala ez bada ere politikaren baitan sorturiko kontzeptuak mekanikoki aplikatzea ez da hain gauza harrigarria gertatzen.” (*Loc. cit.*)

4) ELS funtzional baten beharra

“Ezin esan gure artean montaiak komertzial handirik ba denik, apenas ezer.” (“Poema liburu batetarako hitzaurregai bat”, *Pott 1*)

“Gure aleak banatzeko zirkuito baten beharrean” (“Kazetatxoak”, *Pott 4*).

“Nobela eta poema liburuen arteko proportzioa, Euskal Herrian, anormala baldin balitz beste herrietan ematen dena baino handiagoa edo, desproporzio horren arrazoia argitalpen errezetan bilatu beharko litzateke. Euskal Herriko editorialetan arrazoi extraliterarioak indar handia izan dutenez gero (‘euskaraz idatzia egotea nahiko arrazoi da’ esaten zen lehenago; orain, ‘Euskal Herriaren problematikarekin zer-ikusia nahitaezkoa da’ entzuten da maiz, eta euskaraz egotea bigarren mailako arrazoia bihurtu da)” (“Kritiko literarioen aideplano konplexuaz eta beste zenbait arazo xeblez...”, *Pott 4*).

“Eta ez gara, sarritan leporatu diguten arren, talde arraro bat, joera eta irizpide marjinalak defendatzeko jaio dena, eta izatekotan ezer, munduko beste edozein lekutan edozein pertsonak lan literarioa aurrera ateratzeko egingo lukeena eginez ari den talde bat gara. Behin eta betirako diogu: kazeta hau literaturgintza normalaren dinamikan dago. Eta berau marjinala eta anormala bada Pello Kirtenen baratzan ez da inola ere gure kulpa, edo gure errua, horixe bakarrik falta litzateke, ez jaunak, baratza da anormala eta ez gu.” (“Hain da triste la vie de l’artiste (I)”, *Pott 6*)

“orain arte izan dugun problemarik handiena kita nahi genuke Happypott hoi bitartez, banaketa, maitias, ez dakizue nolako problema den guretzat. Ez dago zirkuitorik,

ofizialetatik (komertzialetatik) kanpo, eta gu, marjinalak ez izan arren, hizkuntza marjinal batetan ari izaten gara aritu eta hori pagatu egiten da.” (*Loc. cit.*)

“Egoera anormal honek [idazle jaioberrien lehen lan ondu gabeak eskolan lantzeari dagokionez] hilobira darama euskarazko literatura ere.” (*Loc. cit.*)

5) Euskal literaturaren marjinaltasunaz

“Josu Landak atera berri duen liburuak literaturaren marjinaltasunaz mintzatzeko bidea egiten digu. Azken aldi honetan nahiko normala den bezala haren poemak inongo babesik gabe irten dute kalera, inprimatze kaskar batekin, kasik esperantzarik gabe.” (*Loc. cit.*)

“Gertaera honek (argitaratze moeta eta beste zenbait xehetasun literariok) Euskal Herrian marjinaltasuna/normaltasuna gauza bera direla pentsatzen dugunori arrazoiak gehierazi baizik ez digu egin.” (*Loc. cit.*)

“Eskritoreak editorialeak behar ditu, baina gozotasun batekin, ez odolkiak bailiren, inongo kriteriorik gabe, lanak kanporatzen dituen editorialeak. Eta holakorik ez dago” (*loc. cit.*).

7.1.2., b.2.2. Maila desberdinetako balioztatzeen eragileak: Euskaltzaindiaren diru sarrerak

Segidan, 1985-1986, 1987, 1988 eta 1989 urteetan Euskaltzaindiak, oroitidazkian, argitaratu zituen datuak bildu ditugu. Balio guziak pezetatan emanak dira, eta sarrera bakoitzari emaniko izendatzea ere jatorrizkoan agertu gisa mantendu dugu.

1985-1986: 161.505.745 pezeta (*Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1985-1986. Memoria 1985-1985: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia: 95. or.*)

Sarrerak:

Diputazioetatik 62.621.592 –Araba 13.933.934, Bizkaia 22.000.000, Gipuzkoa 17.687.658 eta Nafarroa 9.000.000–, Eusko Jaurlaritzak 69.284.224, Estatuko Aurrekontuak 12.000.000, Udalak 2.520.400, Aurrezki Kutxak 1.550.000, partikularrak 4.235.387, salmentak –9.201.263– eta bertzek –92.879–.

1987: 263.452.725 pezeta (*Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1987. Memoria 1987: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia: 71. or.*)

Diru laguntzak:

Diputazioak -65.283.711-, Eusko Jaurlaritzak -53.000.000-, Estatuko erakundeak -11.800.000-, Udalak -1.675.000-, Aurrezki Kutxak -950.000- eta pertsona pribatuak -3.137.899-.

Zerbitzuak:

Salmentak -4.678.075-, itzulpenak -19.890-, zertifikatuak -7.900-, berreskuraketak -1.896.507- eta bestelakoak -6.208.619-.

Bestelakoak:

Maileguak -5.861.521- eta patrimonia -108.933.603-.

1988: 262.698.639 pezeta (*Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1988. Memoria 1988: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia: 44. or.*)

Diru laguntzak:

Diputazioak -74.163.200- Eusko Jaurlaritza -53.511.000-, Estatuko erakundeak -11.260.000-, Udalak -638.400-, Aurrezki Kutxak -1.500.000- eta pertsona pribatuak -1.084.540-.

Zerbitzuak:

Salmentak -11.565.449-, itzulpenak -12.424-, zertifikatuak -1.650-, berreskuraketak -1.262.055- eta bertzelakoak: maileguak -7.517.399- nahiz patrimonia -95.182.521-.

1989: 191.334.852 pezeta (*Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia: 1989. Memoria 1989: Real Academia de la Lengua Vasca Euskaltzaindia: 70. or.*)

Sarrerak:

Salmentak eta bestelako sarrerak -17.332.863-, transferentzia arruntak (Herri Aginteak) -168.445.893-, interesak -279.072-, diruegitamu itxiak -2.868.739-, finantz aktiboen aldaketak -6.205-, finantz aktiboen aldaketak -0-.